

KAZETARITZA EUSKARAZ: ORAINA ETAGEROA

eman ta zabal ezazu



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

ARGITALPEN
ZERBITZUA
SERVICIO EDITORIAL

ISBN: 84-8373-766-3

D.L.: BI - 2333-05

Editore-taldea:

- Mikel Arrieta • Jose Inazio Basterretxea • Maria Gonzalez
- Arantza Gutierrez Paz • Txema Ramirez de la Piscina
- Idoia Torregarai • Ana Urkiza • Aitor Zuberogoitia

KAZETARITZA EUSKARAZ: ORAINA ETAGEROA

eman la zabal zazu



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

ARGITALPEN
ZERBITZUA
SERVICIO EDITORIAL

AURKIBIDEA

0. HITZAURREA	9
1. EUSKARAZKO KOMUNIKAZIO-ESPARRUA	12
1.1. <i>EUSKARA ETA KOMUNIKAZIOAK</i>	13
a. Euskal kazetari modernoaren pausajea: ukapenetik izatera (Elixabete Garmendia)	13
b. Euskararen Komunikazio-Esparrua (Jose Inazio Basterretxea Polo eta Aitor Zuberogoitia Espilla) .	29
c. Euskarazko komunikazioa: esparru ala egitura? (Mikel Irizar Intxausti)	43
d. Euskaraz idatzitako prentsaren denominazioan ordena jartzeko asmoz (Jexuxmari Zalakain Garaikoetxea)	49
e. Euskarazko Hedabideen Ikerketa Zentroa (Ludger Mees).....	57
f. Euskarazko albiste-agentzia (Maria González Gorosarri eta Imanol Magro Eizmendi)	61
1.2. <i>BESTE HIZKUNTZA MINORIZATUAK ETA EUREN ESPERIENTZIAK</i>	69
a. Ikus-entzunezko hedabideak, Europan (George Jones)	69
b. Europako hizkuntza gutxituen egunkariak (Günther Rautz)	75
c. Islandiako Sistema Komunikatiboa: <i>RUV</i> (Logi Bergmann Eiösson)	87
2. EUSKARAZKO HEDABIDEAK	94
2.1. <i>EUSKARAZKO PRENTSA</i>	97
a. Euskarazko komunikabideak eta kazetaritza: egoera, ardatzak eta pisu erlatiboa (Iñaki Zabaleta, Santi Urrutia, Arantza Gutierrez Paz, Nicolas Xamardo eta Antxon Mendizabal)	97
b. Euskarazko produktuen kontsumoa (Martxelo Otamendi)	117
c. Bi estatu, bi kazetaritza eredu (Hur Gorostiaga)	121
d. EKT: Etorkizuneko komunikazio taldearen oinarri sendoa (Joanmari Larrarte)	129
e. Tokian tokiko prentsa eta informazioaren gizartea (Jasone Mendizabal)	137
f. <i>Arrasate Press</i> : hamasei urte tokiko prentsaren aitzindaritzan (Deiane Arrieta)	155
g. <i>Galtzaundi</i> aldizkaria (1991-2004): Gertuko intxaurrak mamitsu (Maidier Jauregi Sarasola) .	163
h. Komunikazio Biziagoaren muinean, <i>Argiaren</i> geroa (Xabier Letona)	171
i. Euskarazko komunikabideak: eskaintza eta eskariaren artean (Olatz Elozegi)	183
j. Euskara eta Mendi-Kazetaritza: gailurrera igotzeko bidean (Gemma Aldalur)	193
k. Euskarazko kirol kazeta: ametsa eta errealitatea (Leire Uria)	199
l. Aisialdi eta Zerbitzuen atalak eguneroko prentsan (Maidier Elortegi)	205

AURKIBIDEA

2.2. <i>IKUS-ENTZUNEZKO KOMUNIKABIDEAK</i>	217
a. XXI. mendeko EiTb: Jomuga berriak (Bingen Zupiria)	217
b. Iparraldeko Euskal Irratiak, elkarlanean aitzindari (Luzien Etxezarreta)	231
c. Irrati txikien xede berritzaileak (Mikel Bujanda)	237
d. Tokian tokiko telebistak, geroari begira (Bea Narbaiza, Edorta Arana eta Patxi Azpillaga)	247
e. Euskarazko telebistaren etorkizuna testuinguru globalean (Ainhoa Fernández de Arroyabe, Nereida Lopez, Carmen Peñafiel)	257
2.3. <i>INTERNET BIDEZKO KOMUNIKABIDEAK</i>	263
a. Informazio alternatiboa Euskal Herrian: mediaberri.com (Mikel Carramiñana eta Aritz Garate)	263
b. Mendebaldeko euskerea eta Bizkaie!: euskarazko kazetaritzan burua atara guran (Koldo Isusi)	267
2.4. <i>PUBLIZITATEA: DIRUA ETA SORKUNTZA</i>	273
a. Zeregin asko euskaldunok publizitatean (Iñigo Fernandez Ostolaza)	273
b. <i>Hitza</i> egunkaria, gertutasunak onurak eskaintzen dituenean (Esti Amenabarro)	283
c. Euskararen publizitatea edo publizitatearen euskara (Asier Arrieta)	291
d. Bilboko Metroko iragarkien azterketa (Andoni Lupiañez Mintegi)	293
2.5. <i>KAZETARITZA ETA LITERATURA</i>	297
a. Kazetaritza eta literatura elkarlanean (Karmelo Landa)	297
b. Kazetaria ez da Jainkoa (Lorea Agirre)	305
2.6. <i>GENERO IKUSPEGIA</i>	309
a. Genero ikuspegiaren gabeziak euskarazko prentsa idatzian (Karmen Irizar Seguro)	309
2.7. <i>ZIENTZIA KAZETARITZA</i>	313
a. Zientziaren dibulgazioak ba al du tokirik euskarazko kazetaritzan? (Beñar Kortabarria Olabarria)	313
2.8. <i>DIASPORAREN KOMUNIKABIDEAK</i>	317
a. Eusebio Erkiaga, <i>Bankuko</i> euskal kazetaria (Jotxo Larrañaga Zubizarreta)	317
3. BIDEAK ERAKITZEKO AHALEGINEAN	326
a. Euskararen aldeko komunikabideak edo euskarazko komunikabideak: Administrazioaren ikuspegiaren aldaketa (Gotzon Lobera)	327
b. Gizarte ekimena euskarazko komunikazio-esparruan (Iker Martinez de Lagos)	341
c. Arrosa: irratien elkarlanerako sortua (Irantzu Jauregi)	351
d. Hedabide txikien dibertsifikazioa (Idurre Garcia Urberuaga)	361

AURKIBIDEA

4. ERRONKA NAGUSIAK	364
4.1. <i>HIZKUNTZA</i>	365
a. Euskara komunikatiboa (Joxerra Garzia)	365
b. Euskararen normalizazioaren erronka berriak: komunikabideetako profesionalak eta hizkuntzalariak elkarlanean (Agurtzane Elordui eta Igone Zabala Unzalu)	375
c. Kolokazioak euskaraz. Zer axola duten kazetaritzan (Xabier Altzibar)	383
4.2. <i>TEKNOLOGIA BERRIAK</i>	397
a. Bitartekaritzarik gabeko kazetaritza (Luistxo Fernandez)	397
b. Informazioaren gizartea? (Josu Landa)	409
c. Multimedia digitalaren erronkak komunikatzaile eta hezitzaileentzat (Josi Sierra Orrantia) .	417
d. Interneterako euskaraz landutako kazetari zerbitzu integral baten proposamena (Aingeru Genaut Arratibel eta Jon Murelaga)	425
4.3. <i>LANGILEA ETA LANBIDEA</i>	431
a. Ikus-entzunezko kazetarien lanbide profila (Mila Amurrio eta Rosa Martín Sabaris)	431
b. Euskal kazetariaren lan baldintzak edota baldintza bako lana (Andoni Basabe)	437
c. Hedabide txikiak ere, bagara (Alazne Aiestaran)	441
5. ONDORIOAK	447

HITZAURREA

Editore-taldea

Mikel Arrieta

Berriako komunikazio-arduraduna

Jose Inazio Basterretxea Polo

EHUko Kazetaritza saileko irakaslea

Maria González Gorosarri

Topaguneko Hedabide saileko koordinatzailea

Arantza Gutierrez Paz

EHUko Ikus-entzute saileko irakaslea

Txema Ramirez de la Piscina

EHUko Kazetaritza saileko irakaslea

Idoia Torregerai

UEUko komunikazio-arduraduna

Ana Urkiza

EIEko idazkari kudeatzailea

Aitor Zuberogoitia Espilla

EHUko Kazetaritza saileko irakaslea

Txikiegia, agian. Euskarazko Kazetaritzaren mundua oraindik ere txikiegia izan daiteke, bai behintzat inguruan dituen erdarazko kazetaritzekin alderatuz gero: ur tanta apa- la ozeanoaren erdian, kimu txiker lañoa basoaren handitasunean. Handiak zeharka begiratu izan dio beti txikiari, eta txikiak, inbidiaz, handiari. Txikitasunetik datozkio arazo gehien Euskarazko Kazetaritzari. Hala ere, bere txi- kitasunean handia da, eta maitagarria. Unibertso zabala biltzeko gai izan da, itsasoak eskaintzen duen kolore-aniz- tasunaren pareko, basoak opa digun joritasunaren kideko. Itsasoan eta basoan, ordea, den-dena ez da eder eta kolo- re bizi. Batean zein bestean, alde ilun eta ezezagun ugari daude, baita mehatxu franko ere.

Esku artean duzun liburua dibertsitate horren isla da, lagun. Horixe du helburu, behintzat. Alde horretatik, oso pozgarria da ondorengo orrialdeetan bildu diren adituen ekarpenen maila zein jasoa den egiaztatzea. Euskarazko Kazetaritzaren inguruan ez da inoiz horrenbeste gogoetarik egin, ezta ere horrenbeste iritzi eta azterketarik bildu testu bakar batean.

Mundu hau dezente aldatu dela azken hamarkadetan. Duela hogeita hamar bat urte, esaterako, Euskal Herrian oso gutxi ziren euskaraz jarduten zuten profesionalak. Orduko kazetari euskaldunek oso aukera gutxi zeuzkaten: *Herria*, *Zeruko Argia*, *Anaitasuna*, *Goiz Argi*, *Herri Irratiak*... eta ezer gutxi gehiago.

Gaur egun, ordea, Euskarazko Kazetaritza Euskal Herri osoan presentzia duen errealitatea da: 700 profesional inguru eta 250etik gora hedabide dira horren lekuko. Baditugu Euskal Herri osoan eta euskaraz diharduten egun- kari, atari elektronikoko, astekari, irrati eta telebistak. Horretaz gain, badugu, herriz herri, eta sektorez sektore, osa- tzen joan den hedabide txiki berri eta ertainen sare zabala: zortzi herri telebista, 30 irrati, 60 herri aldizkari, 61 aldiz- kari espezializatu, 60 berripaper, 34 eskoletako argitalpen eta hamarnaka hedabide elektronikoko. Hori guztia 779.788 hiztun dituen komunitate batean.

Bistan denez, Euskarazko Kazetaritza izugarri hazi da, oso handia baita mundu honek berezkoa duen indar-sor- tzailea. Errealitate hori makina bat pertsona, elkarte, gizarte-mugimendu eta erakunderen ahalegin eta elkarlanaren ondorioa izan da. Orobat, hazkunde ikaragarri horrek agerian utzi ditu sektorean dauden hainbat ahulezia: egoera

soziolinguistikoa, merkatu txikiak, lan-baldintza makurrak eta dirulaguntza-politika definitu gabeak, besteak beste. Euskarazko Kazetaritza beregaintasuna lortzetik urrun da, oraindik ere.

Horretaz guztiaz hitz egiten da liburu honetan. Hemen Euskarazko Kazetaritzaren baitan edo inguruan dabil-tzan 50 inguru profesional eta adituk hartu dute hitza beren ikuspuntua plazaratzeko, beren ikerketak azaltzeko, beren kezkek agertzeko eta, etorkizunari begira, planteatzen diren erronkez beren gogoetak egiteko. Iraganari erre-paratu zaio, baina indar gehien orainean eta geroan jarri nahi izan dugu.

Ondorengo orriotan Euskarazko Kazetaritzaren diagnostikoa egiten da, testu zientifiko batek exijitzen dituen zehaztasun eta zintzotasunez. Lehen atala Euskarazko Komunikazioaren Esparrua definitzeari eskaini diogu, oso garrantzitsua baita zer garen edota zer ez garen hasiera-hasieratik jakitea. Baina ez gaude soilik geure zilborrari begira egoteko. Horregatik txertatu ditugu hemen George Jones galestarrak, Günther Rautz tiroidarrak eta Logi Bergmann Eiösön islandiarrak ekarri dizkiguten ikuspuntuak eta esperientzia aberasgarriak.

Bigarren atala -"Euskarazko hedabideak" izeneko- da gizenena. Euskaraz diharduten hedabide garrantzitsuek dute hemen beren esperientziak eta erronkak plazaratzeko agertokia, baita Internet bidez zabaltzen direnek ere. Berton euskarazko publizitatearen inguruan dauden gabeziez ere egiten da gogoeta.

"Bideak eraikitzeko ahaleginean" da hirugarren atalari eman zaion izenburu nagusia. Euskarazko Kazetaritza gaur egun errealitate emankorra bada, neurri handi batean berton diharduten eragileek historikoki elkarlanerako erakutsi duten prestutasun nabarmenari esker izan da. Gizarte-eragile esanguratsuek hartu dute hitza beren ikuspuntuak eta premiak agertzeko, beren kezkek gizarteratzeko. Guztion ahotan gogoeta bera: sinergiak sustatu eta baliabideen erabilera optimizatu egin behar dira.

Laugarren atala etorkizunari begira jarri dugu, handiak baitira ate joka ditugun erronka eta jomugak; ez soilik teknologia berriei begira, baita hizkuntza eta kazetari euskaldunon lan-baldintza hobetzeari erreparatuta ere.

Azken atalean ondorio nagusiak bildu ditugu. Gure uste apalean, liburu honetatik atera daitezkeen gogoetarik funtsezkoenak dira. Behar-beharrezkoa da horiei arretaz erreparatzea, Euskarazko Kazetaritzak aurrera egin nahi badu behintzat.

Mardula da, zalantzarik gabe, esku artean duzun liburua. Hasieran azpimarratu ditugun aniztasuna eta joritasuna islatu nahi izan ditugu hemen. Euskarazko Kazetaritzaren inguruan milaka ikasle, irakasle, profesional eta konsumitzaile dabil-tza. Horientzat guztientzat testu hau lagungarri eta argigarri gertatzea nahiko genuke. Hori da, behinik behin, editore-talde honen asmo nagusia. Orain, irakurle, zurea da hitza.

Leioa, 2005eko ekaina.

1. EUSKARAZKO KOMUNIKAZIO-ESPARRUA

1.1. EUSKARA ETA KOMUNIKAZIOAK

- a. Euskal kazetari modernoaren pausajea: ukapenetik izatera
- b. Euskararen Komunikazio-Esparrua
- c. Euskarazko komunikazioa: esparru ala egitura?
- d. Euskaraz idatzitako prentsaren denominazioan ordena jartzeko asmoz
- e. Euskarazko Hedabideen Ikerketa Zentroa
- f. Euskarazko albiste-agentzia

1.2. BESTE HIZKUNTZA MINORIZATUAK ETA EUREN ESPERIENTZIAK

- a. Ikus-entzunezko hedabideak, Europan
- b. Europako hizkuntza gutxituen egunkariak
- c. Islandiako Sistema Komunikatiboa: *RUV*

a. EUSKAL KAZETARI MODERNOAREN PAUSAJEA: UKAPENETIK IZATERA

Elixabete Garmendia
ETBko kazetaria

1. Ezer baino lehen

Buruak baino gehiago senak esan zidan zer egin nahiko nukeen gai hau aurkezteko: euskaraz diharduen kazetariaren soslaia zirriborratzea. Joxe Ramon Sorozek “Ama begira zazu” hartan *ETB*ko erreportariaren karikatura antzetzutu bazuen, komediako estereotipo bat eraiki bazuen, eta hori 80ko hamarkadaren bukaeran, horrek esan nahi zuen bazela euskal kazetaria, nolabait gorpuztuta zegoela. Soziologiatik abiatzeko gauza ez, baina esperientziatik helduko nion gaiari, euskarazko kazetaritzan daramatzadan ia hiru hamarkadek eskaintzen didaten begiratokitik. Oinarrian, beraz, neure bizipenez baliatuko nintzen. Horiek freskatu, osatu eta kokatzeko hemerrotekara jo, eta hor aurkitu dudana laguntzailerik finena Jakin aldizkaria izan da; euskarazko kazetaritzak azken ia hogeita hamar urteotan ezarri dituen mugariak, bizi izan dituen eztabaida eta esperientziak, ondoan ispilatuta hortxe aurkitu ditut, *Jakinen*, batzuetan unean uneko kroniketan; beste batzuetan azterketa mailan, baina betiere *Jakinek* berezkoa duen joesa analitikoahaztu gabe.

Eta hain zuzen ere, *Jakinen* topatu dut norbait, Luis Fernandez, aurreratu zaidala euskal kazetariaren soslaia marrazteko eginkizun honetan. 1996ko iraila-urriko zenbakian, aurreko maiatzaren 31n eta ekainaren 1ean Donostiako Miramar jauregian bururatu ziren Prentsa Jardunaldietako hitzaldiak jasotzen dira eta horien artean, Luis Fernandezek irakurritako “Euskal Kazetariaren profila” izeneko komunikazioa dator. Luis Fernandezek hasieratik egiten du oharra esanez berak prentsako kazetarietz jardungo duela, ez irrati eta telebistakoez. Nik uste hark prentsakoei buruz esandakoak irrati eta telebistakoentzat ere balio duela oro har. Areago, hark 1996an azaldutakoaren funtsak hogeitau urte lehenago ere balio zuela ikusi dut, adibidez, hau dioenean: “Beterania oso merke dago gure artean”. (Fernandez, 1996: 52). Esaldi horretatik zintzilik geratu naiz; gu ere, azkarregi izan baikin beteterano. Hortaz, zer gertatu da hogeitau urte horietako tartean? Ez ote da esperientziarik metatu?

Erretorikoa da, nolabait, bigarren galdera, tranpaduna. Luis Fernandezek egunkari bat egiterakoan topatu du beteterania merkea eta guri hori bera astekari bat egiterakoan gertatu zitzaigun. Dena den, zer pasatu zen aurreko hamarkada horietan, zer egin genuen euskarazko kazetaritzan ari ginenok?

Kazetariotik protagonismoa gustatzen ez zaigunik ez dut esango, baina besteen bizkarretik. Besteen gauzen kontaktatilu izatea da definizioz gure ofizioa eta gureak gordean uzteko arriskua daukagu. Luis Fernandezek aitzakian, aukera paregabea zabaltzen zait ikusi eta bizi izandakoak kontatzeko, nondik eta nola gatozen jakite aldera eta egin den bidea neurtu ahal izateko. Ekarpen hori egin nahi dut lehenengo eta behin, euskal kazetaritza garaikidean dagoeneko historia dena gogoratzea. Eta horretarako hartuko dudana lehen pausalekua eta talaia, neuk kazetari gisa egingadako ibilbideari jarraituz, *Zeruko Argia* astekaria izango da, 1976 eta 1980 bitartean.

Kazetaritzan nabil, ordea, oraindik, *Euskal Telebistan* 1986az geroztik. Hortaz, horixe izango da beste talaia, historiari baino gehiago gaur egungo egoerari begiratzeko.

Tartean, eta nolabait zubi eginez, beste esparru bati erreparatu nahi diot, tokiko hedabideenari hain zuzen ere. Begirale gisa jarraitu diot arlo horri sorreratik, eta *Zeruko Argia* bezalako klasiko baten eta telebista bezalako izar baten artean, zisne bihurtutako ahatetxo itsusiaren modura ageri zait.

Horrela bada, hiru pausaleku nagusi hartuko ditut, jakinik kanpora uzten ditudala beste mugarri eta esparru batzuk, ez nolana hikoak, egunkaria -egunkariak esan beharko?- eta irratia, bereziki *Euskadi Irratia*. Hogeita hamar urteko ibilbideak, luzea izan arren, ez du ematen dena zapaldu eta lehen lerrotik kontatu ahal izateko ezagutarik.

Erronka, niretzat, bizipenak analisisira hurbiltzea da. Ez naiz, ordea, Unibertsitateko irakaslea, ez ezertan aditua, kazetaria baizik, eta lanbide horren barruan, batez ere, erreportaria; horixe dut generorik gogokoena, bai hartzaile gisa, eta baita egile modura ere. Hortaz, generoa lizentzia ugarirekin urratuko badut ere, euskal kazetariaren soslaia erreportaje gisa gauzatu nahiko nuke, kazetari modernoaren hastapenetatik abiatuta.

2. Gorputza eta espazioa

“Gorputza eta espazioa, horiek dira artearen gai nagusiak”, esaten zion orain gutxi Dora Salazar eskultoreak Miel Anjel Elustondori *Argiako* elkarrizketa batean. Euskal kazetariaren soslaia egiteko asmoa mamitzen ari nintzela irakurri nuen hori, eta bere xinpletasunean eta ebidentzian gakoa eman zidan. Gorputz horretan euskal kazetaria jartzen badugu, espazioan medioak dauzkagu, hedabideak. Gorputzik ez legoke, espaziorik ez balego; horrelaxe, kazetaririk ere ez, mediorik ezean. Eta horrela, etsi nuen bada. Alegia, nekez marraztu ahal izango nukeela euskal kazetariaren soslaia, behin eta berriz medioen gorabeheretara jo gabe, aldiro haien errepasoa egin gabe: zein medio dauden, zer eratakoak, zein baldintza eta testuingurutan... Horregatik erreportajeak, tarteka, Kazetaritzako Fakultatean “Euskal Hedabideen Historia” deituko litzatekeen irakasgaiaren pasarteak izango ditu. Dena den, ez naiz ni historia izen eta datetara mugatzearen aldekoa, nahiago dut mezua esaldi pare batean bildu, eta horregatik, euskal kazetaritzaren historiari izenburu bat jartzekotan, horrelako zerbait asmatuko nuke: “Egunkariak, edo gerran edo giltzapean/ Kazetaritza heroikoa?”. Galdera ikurra jarriko nioke izenburuari dramatismoa arintzeko. Eta sarreran esplikatu nuke nola euskarazko lehen egunkaria, Eguna, gerra baten erdian sortu eta argitaratu zen eta bigarre-na, *Euskaldunon Egunkaria*, handik 66 urtera, indarrez itxi zuten. Aurrerago kontatuko nuke nola gerrako egunkariak, a zer paradoxa, ez zeukan erreportaririk frontera bidaltzeko, Augustin Zubikarai hil berriak gogoratzen zue-nez, eta nola XXI. mendean giltzapetutako egunkariak tratu txarrak, tortura, auziak eta kartzela ekarri zizkien bere arduradunei. Horikeriara jo beharrik gabe kontatu ahal izango nuke kronika beltz hori. Eta tarteko kapituluetan, ezaugarriren bat aurkitzekotan, nahi eta ezinaren arteko borrokaren pasarte asko azalduko liriteke: amets zapuztuak, hutsalak gertatuko ziren lilurak, estropezu eta labainkadak, murrizketak eta gutxiespenak... Eta, hala ere, pasioa. Luis Fernandezek aipaturiko hitzaldian esan bezala, “lan honek pasio apur bat eskatzen du” (Fernandez, 1996: 56). Eta hori, pasioa, ez da falta izan euskal kazetaritzaren historian, eta haren egile eta eragileengan.

Lehentxeago esan dudanez, gorputza -kazetaria- espazioan kokatu ahal izateko, nahi eta nahiez, hedabideen sarea marraztu beharrean gaude. Eta horrek denboran ere mugarriak jartzea eskatzen du. Bihoa lehenengoa, 1976a.

3. 1976: Euskal prentsaren urtea

Honezkero kazetaritzako lehen mailtako ikasleek ere badakite -jakin beharko lukete- *Anaitasuna*, *Goiz Argi* eta *Zeruko Argiak* hala aldarrikatu zutela urte hura, 1976.a, Euskal Prentsaren Urtea. Jexuxmari Zalakainek, geroak eskaintzen duen ikuspegiarekin, Euskal Prentsaren fundazioa hor gertatu zela dio, “...urte hartan hasi baitzen definitzen bi hitz horiekin zer esan nahi zen eta zer eginkizun zuen euskal prentsak” (Zalakain, 2003: 34). Legez informazio orokorreko aldizkariak izateko burubideak egin zituzten *Anaitasuna*, *Goiz Argi* eta *Zeruko Argiak*, eta lehen-dik zekarten bokazio hori betetzeko bidea sendotu zuten. *Zeruko Argiak* egunkari formatua utzi eta aldizkariarena

hartu zuen, azalean kolorea sartuta. Gainera, ausardiaz beteriko jokaldian, *scoop* batzuk argitaratu zituen: Anparo Arangoa nafarraren tortura argazkiak udaberrian, edo ikurrina azal betean irailean, legeztatu baino lau hilabete lehenago. Aldizkaria sekula iritsi gabeko esku eta foroetara ailegatu zen, eta estuasunak estuasun, irabazle atera zen.

Francoren heriotzaren biharamuna zen, ez ahaztu, 1976. urtea, eta euskal hedabideetan sekulako optimismoa bizi zen. Legitimatuta sentitzen ziren inoren aurretik jartzeko, zentsuraren itzal luzeari aurre egiteko, haren kateetatik lehenbailehen askatzeko. Itxaropen izugarria sumatzen zitzairen etorkizunaren aurrean, ordura arte egin ezinik utzitakoak bururatzeko. Horren adibide sinbolikoena, “24 orduak euskaraz” izeneko ekitaldia izan zen. 1976ko martxoaren 27an, *Herri Irratiek*, Loiola, Donostia, Iruñea eta Bilboko *Herri Irratiek*, egun beteko programazio eten-gabea emititu zuten euskaraz. Gaur egun, Irrati-Maratoia deituko litzaioke, baina artean ez genuen kirol maratouirrik ere ezagutzen. Dozena bat mahai-inguru egin ziren, euskalduntze-alfabetatzetik hasi eta bertsolaritzara, tartean ekonomia nahiz hezkuntza edo literatura, arte plastikoak, editorialak eta komunikabideak hizpide hartuta. Horretaz gain, elkarrizketak, kronikak Euskal Herri osoko zenbait lekutatik, bertso saioak eta Euskaltzaindiaren bilera zuzenean. Joxe Ramon Belokik zuzendu zuen makro-programa honetako parte-hartzaileen zerrenda garaiko euskal *intelligentsiaren* zerrenda da. Ziren guztiak daude. 24 orduko jarduna hogeita bosgarrenean amaitu zen, Belodromoa bete zuen jaialdiarekin. Zumetak diseinatu zuen “24 orduak euskaraz”en kartela, eta 28 urte geroago begiraruta aurkitzen diot, balio estetikoetz aparte, ekimen hura oso ondo islatzen duen karga sinbolikoa: enbor baten mozketa da, bihotzean marrazki koloretsu zumetak dituena. Enborra moztuta dago, aizkolariak bete du bere lana, apustua irabazita dago. Ez nago ziur Zumetak irakurketa hau bere egingo ote duen, baina alde zuzen eskerrak eman behar dizkiot garaiko aldartea adierazteko aitzakia eskaini didalako.

Ekitaldiaren izenari erreparatuz gero, bada beste ñabardura bat: “24 orduak euskaraz”, ez “24 ordu euskaraz”. Martxoaren 27koa ekintza bakana izan zen, oasi bat, baina asmoa igartzen da izenburuan: 24 orduak, gaur, bihar eta etzi, beti, eta jarraian, euskaraz. Izenak, hortaz, apustua jarraitu beharrekoa zela adierazten zuen.

Zeruko Argian Joxe Lizarralde idatzi zuen 24 Orduen kronika. Lizarralde aitortzen du “emozioen apologia” dela bere kronika, eta ekitaldiaren espiritua in situ jasotzen duenez gero, hara bere ahapaldi esanguratsu bat: “...egun hortan esperientzia bitxi eta aparta bizi izan du gure Herriak. Irrati bidez, hain zuzen, gure zazpi probintziek harreman bizian eman zuten egun hori”².

Laineza hartuta zebiltzan 1976an euskal giroak eta hedabideak. Eta abagune horretara iritsi ginen lehen kasetari lizentziatuak, karnetdunak beraz, eta euskaraz alfabetatuak. Belaunaldi berri baten lehen ale bakanak, baina segida izango genuenak.

4. Kazetari ikasiak

Euskara eta kazetaritza karnetduna ez zeuden batere uztartuta. Espelikazioetan gehiegi luzatu gabe, esan dezadan orduan karneta behar zela kazetari gisa aitortua izateko. Areago, informazio orokorreko medioek bizpahiru karnet behar zituzten, zuzendariarena derrigor, informazio orokorrerako baimena lortzeko. Karneta eta euskara, elkarren antipodetan zeuden orduan.

Hara, 1975ean Hego Euskal Herriko egunkarietan ziharduten 178 kazetarietatik zazpi bakarrik zekiten euskaraz mintzatzen, eta bat bakarra ari zen euskarazko orrietan. Egunkarietakoei irratietako eta telebistako kazetariak gehitu eta 215 kazetari genituzke; horietatik hamar besterik ez ziren euskaraz zekitenak.

Xabier Aranburu kazetariak bildutako datuak dira (Aranburu, 1977: 62). Hain zuzen ere, Xabier Aranburu bera zen kazetari euskaldun karnetdun bakar horietako bat. Euskarazko medioetan, *Zeruko Argian* ziharduen Miren Jone Azurzak bakarrik betetzen zituen bi baldintza horiek: karneta eta euskara. Aranburuk Euskaltzaindiak 24 Orduetan

egindako batzar hartan eman zituen aurreko datu horiek, eta saio horretan bertan Joan Mari Torrealdai egoera nondik nora aldatuko zen iragarri zuen:

“Lan munduaren aldetik, tituludunak eta liberatuak (batez ere hortara emanak) izanen dira aurrerantzean kazetaritza munduan dabiltzanak, ez orain arte bezala, plurilanetan itorik”. (Torrealdai, 1977: 62).

Eta egoera horretan agertzeko zoria izan genuen bakar batzuek. Ezaugarriak segidan.

- Kazetaritza Eskoletatik edo orduantxe sortu berri ziren Informazio Zientzien fakultateetatik genozen.
- Ikastoletako lehen belaunaldikoak ziren batzuek, edo bestenaz, euskaraz alfabetatuak, urte batzuk lehenago hasitako alfabetatze mugimenduari esker.
- Kazetaritzan lizentziatuak izanik, karneta atera genezakeen, eta gaztelaniaz ziharduten kazetariekin parekatu.
- Lanbidez kazetari izatea zen gure bokazioa eta asmoa. Kazetaritzatik bizitzea, alegia.
- Euskarazko medioetan lan egin nahi genuen. Euskal kazetari izan nahi genuen.

Egoera heldu samar zegoen horretarako, bai behintzat aurreko baldintza horiek betetzen genituen apurrak enplegatzeko. Ez gu bakarrik. Kazetaritzako eskola edo fakultateetatik pasatu gabeko beste gazte batzuk ere bildu ziren euskarazko medioetara, euskaraz profesionalki lan egitera. Atrebentzia handiegia ez balitz, 1976ko belaunaldia deituko nioke eta izen batzuk aipatuko ditut lagin modura: Pilar Iparragirre, Bartzelonan ikasketak eginda zetorrena; Estepan Aldamiz-Etxebarria, Madrilen kazetaritza ikasten zebilena; Iruñetik Gorka Reizabal, Felix Ibargutxi eta hirurok atera ginen. Geroxeago Lurdes Auzmendi etorriko zen, Iparraldean errefuxiatuta egon eta gero. Iñigo Lamarca zuzentzaile eta artikulugile gisa aritu zen aldi batean, Jose Luis Alustiza ingeniaria bezala. Ez ginen talde trinko bat, baina bidearen zati bat elkarrekin egitea suertatu zitzaigun.

Alboan, eta aldi batzuetan behintzat aurrea hartuta, *Anaitasunakoak* genituen. Aldizkari koherenteagoa egiten zuten haiek, hizkuntza aldetik erabat estandarizatua eta, oro har, aurrerakoiagoa.

Kontatuko dizuet nola 1976ko talde horrek ezarri zion bere buruari eginkizun larri bat: euskarazko kazetaritza modernoa garatzea. Ez zen inolako manifesturik egin hori aldarrikatzeko, baina barnean bageneraman konbentzimendu hori. Artean fraideen eta apaizen gonapetik irten gabe zeuden euskarazko aldizkariak, eta gure uniforme bakeroa zen. 1970az geroztik kalean hezitako jendea ginen, kontzientziatuak, politizatuak, askatasun haizea arnasten genuenak...

5. Kazetaritza *moderno*a

Bada ezaugarri bat, azalekoa itxura batean, baina adierazgarria zalantzarik gabe: izen-abizenaz sinatzen genituen gure idatziak, ordura arte euskarazko aldizkarietan zegoen goitzenetarako joera hautsiz. Ez ginen, jakina, lehenengoak izan horretan, baina bai ohiturari erabat muzin egin genionak. Nire ustez gure izaera, edo izan nahi genuena behintzat, adierazten du horrek: ez ginen idazleak, kazetariak baizik; ez genituen artikuluak idazten, kazetaritzaren beste genero batzuk lantzen genituen, informazio soilak, nahiz elkarrizketak edo erreportajeak. Informazio soilarenak, hala ere, matizazioaren bat behar du. Izan ere, Fakultatean kazetaritza “iraultzaile” moralizatzailearen adibiderik behar baldin baduzue, ikastaro bat antolatzeke adina material aurkituko duzue gure idatzi haietan.

Askatasun haizea arnasten genuela esan dut lehen, gaztaroko haixek bete-bete astintzen gintuela aitortu behar dut orain. Eta gaitz horrek munduan lehenak bagina bezala sentiarazten gintuen. Euskal kazetaririk sekula egon ez balitz bezala. Doi-doi aitortuko genien izaera hori ondoan geneuzkanei: Mikel Atxaga bat *Zeruko Argian*, *Anaitasunako* taldea, *Goiz Argikoa*... Ordurako Amatiñok, *Zeruko Argian*, argi eta garbi lantzen zituen kazetaritzako generoak; “Zenbat gara” edo “Bulebar irekia” ataletan kronika, eta aparte elkarrizketak eta erreportajeak, baina Amati-

ño ez zen kazetaritzatik bizi, alderantziz, bidai gastuak ere ez zituen kobratuko, eta hortaz, ez zen gure kofradia-koa. Urteek ematen duten ikuspegitik aitortu behar dut bata zein bestea, Mikel Atxaga nahiz Amatiño, aitzindari eta zubi izan genituela.

Haixeak ezjakintasun handia estaltzen zuen. Ozta-ozta jakingo genuen gure *Zeruko Argiaren* historia eta gerra aurreko *Argia* astekariarena bereizten. Noizbait iritsi zitzaigun notizia egunkari bat ere izan zela gerra garaian. Iparaldekoetatik, Herria ezagutu eta jasotzen genuen, baina ez galdetu Hiriart-Urruti nor izan zen. Ameriketara argitaratutako euskal kazetak, ezta usaindu ere.

Apalagoak ginen hizkuntza kontuetan. Hor bai, jabetzen ginen gure ahuleziaz eta pairatzen genuen ezina behin eta berriz; hartaraino ze, noizbehinka gaztelaniaz emango genituen manifestuetako ahapaldi korapilatsuenak, itzul-
tzeko gai ez-eta. Uztapideren “Lengo egunak gogoan” edo “Sasoia joan da gero” argitaratu berriak dastatzen genituen mirespenez, hor kazetaritzarako ere balio zezakeen kontraera bat bazegoela sumatuz, baina ez genekien hizke-
ra hura gure kontaktu beharretara egokitzen. Gainera, euskara batu eta estandarren izenean egiten ziren kirtenke-
ria guztiak jasan eta hedatu genituen: hatxeak jarri eta kendu, hitz berriak ikasi eta zaharrak ahaztu... *à la page* egon beharragatik etengabe azken modaren formarik exotikoena geureganatzeko prest izaten baikinen. Erakusleen deklinabidea eta aditz jokoa ez ziren berehalakoan finkatu guretzat. Barizela, kukutxeztula eta aknea, denak pasatu genituen bata bestearen atzetik.

6. 1977: “Euskal egunkariaren urtea”

Apur bat aurrera egin dut ia oharkabean. Izan ere, urte trinkoak izan ziren haiek eta oraindik 1977an pausatu behar dugu. 1976a “Euskal Prentsaren Urtea” izan zen, eta 1977a, “Euskal Egunkariaren Urtea”, *Deia* eta *Eginen* sortzea-
rekin. Hala izendatzen zuen Manolo Pagolak *Jakinen*. Eta hark idatziak bi egunkari horien sorrerarako piztutako poza eta itxaropena ondo baino hobeto islatzen duenez, hitzez hitz dakartzat hona pasarte batzuk:

“1977ko ekainaren 8a egun gogoangarria izanen da. Gerra ondoko Euskal Herriko lehen egunkaria sor-
tu zen eguna.

Bagenituen, eta baditugu oraindik, Euskal Herri osoan (Ipar eta Hego) zortzi goizeko egunkari. Baina gure arteko berririk jakin nahi izanez gero, Madril eta Parisa jo behar zenuen, edo gaez, klandestinitate giro batean, atzerriko irratiak sintonizatzen leher gaizto egin, edo astebete geroago *Cambio 16* edo antzeko astekariren bat erosi, edo euskal aldizkariren bat irakurri”.

“Informaziorik eza, informazio deformatua, faltsoa, ezkatua edo benetakoa, baina beti Madrilgo begiez ikusitakoa”, horixe leporatzen die idazleak lehendik zeuden egunkariei eta jarraitzen du:

“Informazio zulo hori betetzera dator *Deia*. Eta xede berbera du, noski, udazkenean kaleratuko zaigun *Eginek*. Euskal Herriko ikuspegitik Euskal Herriari bertako eta kanpoko berriak zintzo eman”.

“Eta *Egin* jaio dadinean, izan daitezela ez etsai eta bai elkarren zirikatzaille. *Deiak* eta *Eginek* ez dute erabat euskarazko izaterik. Halaz ere, 1977. urtea “Euskal Egunkariaren Urtea” deitzeko arrazoia eman digute”. (Pagola, 1977: 84-85).

Erabat salomoniko ageri da Pagola bi egunkarietako, eta esango nuke jende askok izan zuela jarrera hori, giro nagusia horixe zela, proiektu batean edo bestean zuzenean inplikatu zirenak salbu. Kontua da egunkari bien proiektuek erabat zurrupatu zutelako euskal mundua, iman ikaragarri indartsu baten eraginpean. Bertako egunkariak sortzea ez zen makaleko erronka. Enpresak egituratu beharra zegoen, dirua bildu, langileak -eta bereziki kazetariak- ekarri edota trebatu, irakurleak irabazi... Baina ahaleginak merezi zuen; areago, gizartearen sektore dinamikoenek oinarritzko behar bat bezala sentitzen zuten bertan sortu eta bertako gakoekin funtzionatuko zuten egunkariak izatea. Eta horren barruan sartzen zen, jakina, euskarari ere tokia egitea. Eta nork lan egingo zuen euskaraz, lehendik ari zirenak ez baziren...

7. Bat-batean, umezurtz

Zeruko Argia hustu egin zen. Donato Unanue, astekariaren kudeatzailea, Egin sortzeko lanean murgildu zen. Xal-bador Garmendia euskara zuzentzaileak ere harako bidea hartu zuen. Mikel Atxaga eta Amatiño, berriz, Martin Ugaldek fitxatu zituen *Deiarako*. Kolaboratzaile zenbaitekin ere berdin gertatu zen, egunkari batera edo bestera jo zuten, kolaboratzaile nahiz langile finko gisa.

Ez zait oraindik lausotu garai hartako oroitzapen bat. *Zeruko Argiako* erredakzioan, hain sarriak ziren bisiteta-ko bat izan genuen, astekariko kolaboratzaile zintzoa zena eta euskaltzale sutsua oso orduan eta orain. Harexek esan zigun ba, kontu eskatze moduan, ea nola geratu behar genuen *Zeruko Argian*, *Deia* edo *Eginera* joan gabe. Itsasontzia hondoratzerako doakion kapitainak hura abandonatzeko gonbita egiten zaionean bezala entzun nituen hitz haiek. Itsasontzi berriak konkistatu behar ziren kosta ahala kosta, transatlantikoak, eta ez zeukan zentzurik hondoratzerako zihoan baitezpadako txalupan geratzeak. Mezu hori helarazten zitzaigun.

Gaztetasunak, familia mantendu beharrik ez izateak, gure alde jokatu zuen, orduan. Eta esango nuke halako sen batek ere eutsi zigula. *Deia* eta *Egin* euskaraz jardungo zuen jendea fitxatzen ari ziren; baina haien proiektuetan euskara osagarri bat besterik ez zen, nahiz eta gerora gertatu zen baino toki eta garrantzi handiagoa agintzen zitzaion. Gainera, hedabideen sareari begiratuta, ez genuen ulertzen zergatik ez zuen lekurik izan behar astekari batek bi egunkarien ondoan.

Euskarari zegokionean, euskaltzaleek *Deia* eta *Eginen* jarritako itxaropena laster zapuztu zen. Baita egunkari batera zein bestera euskarazko kazetaritza egitera joandakoen ilusioa ere. Aipua Estepan Aldamiz-Etxebarriari kendu behar diot oraingoan. *Jakinek* 1982an “Komunikabideak Euskal Herrian” gaiari eskainitako ale monografikoan argitaratu zen. Estepan Aldamiz-Etxebarria *Deian* ari zen lanean orduan. Honela dio:

“Ez da ahaztu behar kazetari gehienak, egunkarietako zuzendaritzak barne, elebidun ere ez direla, ia erabat erdaldunak direla. Euskara, beraz, gauza arrotza da, interferentzia bat; onenean berriz, gure herriaren errebindikapenetako bat. Kasu egingo zaio, asko maite den baina konprenitzen ez den haurrari bezala. Hori bai, inor gutxik daki euskara nola erabil, zein neurritan, zein gaitan, eta beste hartan zergatik ez. Inprobisazioaren ondorioa izango da gehienez: borondaterik onenarekin egin daitekeen zerbit” (Aldamiz-Etxebarria, 1982: 50).

8. Gako-hitza: interferentzia

Interferentzia zen euskara, eta baita euskal unibertsoa ere. Joan Mari Torrealdai Martin Ugaldereen bizitza laburbiltzen duen liburuan jaso zuen horren adibiderik. Gauzak horrela, ez da harrizkoa *Jakinek* 1982an komunikabidei eskainitako zenbaki hartan bertan Amatiñok honoko baieztapen sendo hau botatzea:

- “Elebitasunaren esperientzia, eguneroko prentsa idatzian behintzat, izugarrizko frakaso itzela izan da”³.
- Segidan, frakaso horren eragile izan omen ziren zazpi puntu aipatzen ditu Amatiñok, *Deiak* eta *Eginek* euskararekiko proiekturik ez izatetik abiatu eta irakurleen eskakizunik ez izaterainokoak. Horiek denak dira kontuan hartzekoak, baina nik bati heldu nahi diot, berak bigarren tokian jartzen duenari: “Euskal eta erdal erredaktoreen arteko ezinikusiak”.

Eta horrela esplikatzeko du:

“Euskal kazetariak ilusio eta lilura haundiegiz hurbildu ziren “berenak” zirela uste izan zuten egunkari berrietara. Erdarazko kazetaririk gehienek, ordea, kontra erreakzionatu zuten. Lanpostua, protagonismoa, hegemonia eta nagusitasuna galduko ote zuten beldur. Burruka izan zen” (Amatiño, 1982).

Amatiño *Deia* barrutik ari da eta bi egunkarietako erredakzioak aintzat hartuta. Itxura korporatibista har dezake bere esanak, baina, alderantziz, Amatiñoek dioena orokortu egin daiteke, urte haietan behintzat, euskal kazetari-erdal kazetari eta euskal medio-erdal medio dialektikari dagokionez. Ez dakit “protagonismoa, hegemonia eta nagusitasuna” galtzeko beldur ote ziren erdal kazetariak, baina euskal kazetari eta medioekiko ez zuten abegikortasun handirik erakutsi. Bihoaz pare bat adibide, bere txikitasunean esanguratsuak. Lehen esan bezala, kazetari karnetdunak ginen batzuk; hau da, kazetaritza lizentziatuak eta hortaz, Prensaren Elkartean sartzeko baldintzak betetzen genituenak. Prensaren Elkartea *Hoja del Lunes* astelehenetako egunkari bakarraren jabea zen, Gipuzkoan beste probintzietan bezala. *Hoja del Lunes*en salmentatik ateratzen ziren irabaziak Elkarteko kideen artean banatzen ziren. Gu sartu ginen Prensaren Elkartean eta jarri ginen diru sarrera hari begira, *Zeruko Argia*ren ekonomia beti gerrakoari apur bat behintzat lagunduko ziolakoan. Elkarreak ez dakit nondik atera zuen arau bat esanez egunero ko prentsan ari ziren kazetariak bakarrik jasoko zutela *Hoja del Lunes*etik zegokien dirua. Kazetari karnetdunak ginen, beraz, baina besteak baino eskubide gutxiagorekin.

Karnet eta guzti, kosta zitzaigun Donostiako Zinemaldirako akreditazioa lortzea 1977an. Mundu osoan zehar *pajarita* jantzita paseatzen dabilen kazetariak banatzen zituen. Ez dut gogoan zer aitzakia jartzen zuen, baina aurrez aurreko elkarriketa ere behar izan genuen zoriarekin akreditazioa eskuratzeko. Eta hain zuzen ere, *Zeruko Argia* zen orduan Zinemaldirako egoitzatik hurbilen zegoen hedabidea, Victoria Eugeniaren atzeko kalean, Okendo 22an.

Euskara interferentzia baldin bazen beren buruak elebiduntzat zeuzkaten egunkarietan, testuinguru osoan euskal medioak eta kazetariak, onenera jota, bitxikeria bat ginen. Erdal hedabideetako kazetarietara tarteka oso ondo zetorrien gu bezalako bat lagun izatea, noizik eta behin gertatzen baitzen aborigenen bat bertako hizkuntzan mintzatzea, eta orduan asko igotzen zen *rankingean* itzulpen azkar eta zehatza belarrira txibatuko zuen lankidea. Parrandak elkarrekin egiteko ere ondo moldatzen ginen euskal eta erdal kazetari batzuk, orduan, gainera, oraindik existitzen zen kazetariaren bohemian, nahiz eta “Conversación en la catedral”eko Zavalita ez genuen sekula aurrez aurre topatu.

Hedabide elebidun eta erdalunen orria pasatu baino lehen, izen pare bat gogoratu nahi ditut: Felix Ibargutxi *Diario Vascon* eta Joxean Agirre lehen *Eginen* eta orain *Garan*. Hizkuntza aldetik deserosoak diren zelaietan jokatzen arren, jakin dute euskal munduaren ezinbesteko kronista izaten.

9. Bohemia, gurean

Azkenaldi honetan, *Susa* argitaletxea bere asteroko e-mailuetan “Baietz astea gaizki bukatu” eta “Oh! Euzkadi” sailak berrargitaratzen aritu da, sail horiek 25. urteurrena betetzen zuten aitzakian. Dakizuenez, *Zeruko Argia*n kale-ratu ziren 1977-78 eta 1979. urteetan zehar. Koldo Izagire eta Ramon Saizarbitoriak sortu eta kudeatu zituzten. Baziren beste sinadura batzuk ere, astean behin gonbidaturen bat ekartzen zuten; baina *Zeruko Argia*ko erredakzioan geundenon aurrean, atal horiei hasiera eta bukaera eman ziotenak, eta astero originalak ekartzen zituztenak, Ramon eta Koldo izan ziren.

Normalean, zalapartaka eta berandu iristen ziren haien kronikak. Behin baino gehiagotan eduki genuen aldizkaria atzeratzeko zorian, Koldo eta Ramon noiz etorriko zain. Arazoa ez zen orriak betetzea, beti geratzen baitziren originalen batzuk hurrengo txandarako; kontua zen, ez genuela inolaz ere galdu nahi izaten bi idazleen saila, aldizkariari gatz eta piperra ematen ziona. 25 urte joan eta gero irakurri eta derrigorrezko nostalgiaz aparte harrotasun handia sentitzen dut halako kazetaritza mota bati tokia egin geniolako. Eta kazetaritza esan dut. Idazleek egindako kazetaritza, hain zuzen.

Lehen, 1976ko taldea aurkeztu dudanean, *kazetari ikasiak* deitu diet. Fakultateetan irakatsi ziguten kazetaritza eredu estandarra ekarri nahi genuen euskarazko hedabideetara. “Baietz astea gaizki bukatu” eta “Oh! Euzkadi” ez

ziren oso estandarrak informazio orokorreko astekari batentzat; baina kazetaritzaren aldetik begiratuta ere, bista-koak ziren guretzat haien balioak. Egia esan, kazetaritzaz geneukan ikuspegi murriz eta zurruna zabaldu egiten zitzaigun halako adibideekin.

Antzeko zerbait gertatu zitzaigun grafistekin ere. Gaur egun ez du inork ukatuko Zakilixut euskal hedabideetan inoiz sortu den pertsonaiarik enblematikoa denik, eta hortaz, Antton Olariagaren lana kazetaritzaren kontzeptu zabalean sartzen da. Ba Zakilixut jaio baino lehen izan genituen *Zeruko Argian* haren aurrendariak, esaterako, Mozorroko-Prekontseilari Maskaratua eta Hormasprayko, izenak adierazten duen bezala, pareta guztiak pintadaz betetzen ibiltzen zen tipoa, jaio edo berpiztu berri ziren alderdi ugarien siglekin. Olariagarena ere, kazetaritza zen.

Argazkigintzan errege, Arturo, erreportari bohemioaren paradigma, beti kalean zer suma, aldarreen arabera funtzionatzen zuen, eta tarteka argazki jenialak ateratzen zitzaizkion. Luxuzko egoerak ere bizi izaten genituen. Aldi batean azala Bixente Ameztoty pintoreak egiten zigun. Kazetaritza konbentzionalaren aldetik ez zen, agian, astekari batentzat diseinurik aproposena, baina abangoardiako pintore batek taxutzea astero azala, artelana behintzat bada.

Dozenaka botako nituzke errenkadan, argazkilari, grafista, nahiz kolaboratzaileen izenak, baina kontua ez da nomenklatura bat osatzea eta esan dezadan soilik Iñaki Eizmendik garai hartan Euskal Herriari buruz kantatzen zuen “andere zabala”ren antzekoa zela *Zeruko Argia*. Mario Onaindiak bere memorieta kontatzen du nola kartzelatik irten eta Belgikatik bueltan kolaboratzaile gisa sartu nahi izan zuen⁴. Kartzelatik hasi zen artikuluak bidaltzen Txema Larrea, beste preso batzuek bezala. Joseba Sarrionandia etxekoa zen, harik eta 1980ko azaroan atxilotu zuten arte.

10. Zerutiartasunaren galera

Osagai horiek denak eta beste zenbait nahastu eta ateratzen zen *Zeruko Argia* 70eko hamarkadaren bigarren partean. Aipatu ez ditudanen artean herrietako berriemaileak daude. Sare zabala zeukan *Zeruko Argiak*, batez ere Gipuzkoan. Kronikak garaiko egunkarietako patroiararen arabera argitaratzen ziren: herriaren izena izenburu modura eta zaku horretan sartuta denetariko berriak, jaiotza eta heriotzetatik hasi eta aste kulturalen egitarauetaraino. Guk kronika eredu hori zaharkituztat jotzen genuen, eta birmoldatu egin nahi izan genuen. Berriemaileei deitu eta esplikatu genien nola kolaboratzaile gisa eduki nahi genituen, baina kronikak beraiek idatzi ordez, guri albisteak eman eta guk bideratuko genituela aldizkarian zegozkien ataletara. Lan sistema berriak ez zuen funtzionatu eta *Zeruko Argiak* galdu egin zuen berriemaile sarea. Ez naiz sekula nahikoa damutuko. Izan ere, bere habetako bat galdu zuen astekariak hor, xumeena ziurrenik, baina herriarekin/herriekin lotzen zuena.

Gainerakoan ere aldizkaria aurreko urteetan izan zuen babesa galduz joan zen. 70eko hamarkadaren bukaeran, etengabe etortzen ziren harpidetzak bueltan. Termino politikotan hitz eginez, esan dezagun astekariak jeltzaleen giroko harpidedun guztiak galdu zituela; aitzakia, erdi eta erdi, jarrera politikoa eta gizarteko gaiei buruzkoa izaten zen. Marka abortuari buruzko zenbakiak hautsiko zuen. Gaia tabua zen orduan euskal gizartean. *Zeruko Argiak* Bilbon izandako epaiketa baten harian tratatu zuen, eta kaleratu zen azalean Nagelek egindako eskultura oso adierazkor baten irudiarekin. Ausardia larrutik pagatu genuen.

1980ko uztailean Kaputxinoek *Zeruko Argiaren* jabetzari jaregin zioten eta astekariak “Zeruko”a galdu egin zuen. Ordurako, gerra aurreko *Argia* astekariaren mantxeta eskuratua zuen aldizkaria kudeatzen zuen taldeak Leizaolatarrangandik, Estepan Aldamiz-Etxebarriaren bitartez; eta, horrela nolabait, bat egin zuten Euskal Hedabideen Historian nahasgarri gerta daitezkeen bi ibilbidek *Zeruko Argiaren* eta *Argiaren*.

Abuztuaren 3ko zenbakian despeditu zen “Zeruko”a, azalean itxaropentsua izan nahi zuen izenburuarekin: “*Zeruko Argiaren* ilunabarretik *argiaren* egunsentira”. Hurrengo zenbakia irailaren 30a arte atzeratu zen, besteak beste kipo osoa beste zeregin batzuetan zebilelako. Izan ere, irailaren 14an mila laguntzako bazkaria antolatua

zuen Argiak Donostiako Anoeta pilotalekuan. Orduantxe sortu berria zen “Euskal Sukaldaritzaren Berriko” Argiñano, Arzak, Castillo, Roteta eta Subijanak prestatu zuten bazkaria, eta euskal munduko *crème* guztia bildu zen bertara, baita “Kulturako Ministro” zen Ramon Labaien ere. Arrakasta handia izan zuen bazkariak, baina ez *Argiaren* finantzak berdintzeko adinakoa. 1980a, *annus horribilis* modura itxi zen. Orain bai, itsasontzia hondoratzeko zorian zegoen. Eta batzuek abandonatu egin genuen, ezinean, ahituta eta agortuta. Ez, ordea, “beste prentsara joateko” (Zalakain, 2003: 39), bizibidea bilatzera baizik, ahal zen tokian, kazetaritzan nahiz beste lanbide batzuetan. Eske-rrak atzetik bazetorren beste eskifaia bat, Joxemari Ostolaza eta Joxemi Zumalabe buru zituela.

11. “Ipurtargiaren itzal luzea”

Lorea Agirrek Joxemi Zumalaberi buruz idatzitako liburuan, “Ipurtargiaren itzal luzea” izenekoan, honela laburbiltzen du ez bakarrik *Argiaren* krisia, baita haren klabeak ere, testuingurutik hasita:

“Aldizkari beraren egoeraren latza gutxi balitz bezala, garai hartan ingurunean babesik ez zuen argitalpen bat zen. Bakarrik zegoen *Argia*. Orduko apustu guztiak prentsa elebidunaren aldekoak ziren. 1977an *Deia* eta *Egin* egunkariak sortu ziren, eta horien arrastora etorriko ziren geroago *Punto y Hora*, *Berriak*, *Ere*, *Garaia* eta beste. Guztiak teoriarik elebidunak, baina praktikan diglosikoak. Giro horretan Zeruko Argiak kazetariak galdu zituen, baita kolaboratzaileak ere, eta, nola ez, publizitatea. Beti zen erakargarriago gaztelaniaz idatzitako argitalpen bat euskarazkoa baino, zabalkunde handiagoa zuelako”. (Agirre, 2003: 51-52).

(Aurrera joan baino lehen, ohar bat. *Punto y Hora* eta *Garaia* aldizkariak bi egunkariak baino lehen kaleratu ziren, hain zuzen ere 1976ko apirillean eta uztaillean hurrenez hurren. Zuzenketak ez dio, ordea, aipuari zentzurik kentzen).

Giro politikoari buruzko zertzelada batzuk eman eta gero, jasotzen ditu Lorea Agirrek *Argiaren* birflotatze hartan protagonista izan ziren beste bi lagunen adierazpen gordin bezain egiazkoak. Pello Zubiriaren hitzak dira hauek:

“Euskara hutsezko eremu baten alde agertzea problema handia zen alde askotatik. Auzitan jartzen zuen elebitasunaren apustua. Baina denborak arrazoia eman digu”.

Josu Landa are gogorrago ageri da:

“Giro politikoa eta soziala euskarazko prentsa harrika botatzearen aldekoa zen nagusiki”.

Hauturak beti dira mingarriak eta hala izan zen *Argiak* ere. Joxemi oso gozoa zen hizketan, baina baita, Imanol Lazkanok esango lukeen bezala, ahoan bizarririk gabea. Erresuminduta geunden elkarrekin batzuk eta besteak, itsasontzia abandonatu genuenak eta hura salbatzeko ahaleginetan zebiltzanak, eta denboraren joanak bakarrik gozatu zituen gure arteko harreman petralak. Ospa egin genuenok, frakasoaren zama generaman gainean. Eta aldi berean, *Argiak* burua altxatzeko egiten zuen imintzio bakoitza zama arintze bat zen, ondare hura salbatuko ote zen itxaropen izpia. Eta horretan bai opa geniela arrakasta *Argieroei*, oso benetan. Zergatik? Zubiria eta Landaren hitzek adierazten duten guztiarengatik, bagenekielako euskarazko kazetaritzaren zuzia, nonbait egotekotan, hor zegoela. Eta, hala ere, nola sinetsi egunkariari buruz hizketan hasi zirenean? Izan ere, *Argia* salbatzea nahikoa ez eta, bota zuten egunkariaren asmo ero hura. Berezko oztopo nahiz eragindako guztien gainetik, 1990eko abenduaren 6an jarri zuten kalean *Euskaldunon Egunkaria*.

Argieroak zeregin horretan utzi aurretik, pare bat ohar. 1976an ez bezala, talde horretan ez zegoen bat bakarra ere Kazetaritzako Fakultateko pasatakorik; lizentziatuak zirenak edo lizentziatzeko bidean zeudenak, Euskal Filo-

logiatik zetozen batez ere eta literaturarako joera zekarten, *Susa* aldizkaria sorrarazi ziena. Eta bigarren oharra: militantzia *versus* profesionaltasuna planteamendua. Gure arteko eztabaidan sarri agertzen zen dikotomia modura pare hori. Batzuek profesionaltasuna jartzen genuen aurretik; euskal kazetaritza garatuko bazen, hori modu profesionalan egin beharra zegoen, hartarako formazioa izanda, hartatik biziz eta kazetaritza konbentzionalari dagozkion irizpideak erabiliz. Beste batzuentzat euskal kazetaritza militantzia kontua zen. Lehenengo eta behin, zegoen zulotik aterako bazen, militantziaz bakarrik egin zitekeen hori. Eta hala gainditu zuten amildegia.

12. Patchworka

Batzuek abilak dira besteek utzitako adabakiekin puska berriak egiten; badakizue, *patchwork*aren teknika. Tanke horretan irudikatzen dut nik 80ko hamarkadaren hasieran euskarazko hedabideetan egin zen bidea. Batetik *Argia*-koek zuloz eta tartatadaz beteta zegoen oihala konpontzeari ekin zioten. Bestetik, gutxietsita zegoen esparru bati heldu zioten beste punta batean, tokiko informazioari; hain zuzen ere *Zeruko Argiak* etenda utzitako muturrari. 1979an sortua zen jada *Xorroxin Irratia* Baztanen eta pare bat urtera, 1981eko neguan, jaio zen *Ttipi-Ttapa* aldizkaria Bortzirietan, prentsa lokalean dekanoa izateaz gain eredugarri ere badena. Hauekin hasten da tokiko hedabideen fenomeno euskal kazetaritzan; hurrengo hamarkadetan garatzen segituko du eta ez dirudi goia jo duenik oraindik ere.

25 urteren buruan, hedabide motaren aldetik sarea osoa da: prentsa -aldizkariak eta baita egunkariak ere-, irratia eta telebistak. Hedapenaren aldetik Euskal Herri euskaldun osoa hartzen du; izan ere, Topagunean bilduta dauden toki hedabideez gain, sail berera ekar daitezke herria edo bailara baino barruti zabalagoa duten hedabideetako batzuk ere, esaterako Iparraldeko irratia -*Gure Irratia*, *Irulegi* eta *Xiberoko Boza*- eta baita Iruñeko *Euskalerrira Irratia* ere.

Toki hedabideen fenomenoaren sorburuan bi indar nagusik topo egin zuten. Batetik, informazio lokalaren errealizazioak, eta bestetik, euskararen aldeko mugimenduak. Jakinekola da kazetaritza ikasle orok daukala gerra korrespondentsal izateko ametsa; hori dio topikoak eta betetzen den topiko horietako bat da. Aldiz, ametsen mailan betiere, hedabide lokal batean lan egitea amesten duen kazetari ikaslerik nekez aurkituko duzu.

Hori egia baldin bada gaur egun, zer esanik ez orain 20-25 urte.

Informazio lokalak har zezakeen garrantziaz jabetu eta teorizatu zuena Joxe Aranzabal izan zen. Ameriketatik bueltan zetorren, Estatu Batuetatik, eta han toki hedabideek jokatzen zuten papera ezagutu zuen. *Arrasate Euskaldun Dezagun* elkartean zebilen eta herri aldizkari bat sortzeko asmoa azaldu ziotenean, Aranzabalek bere kazetari esperientzia osoa jarri zuen ideia haren zerbitzura. Hortik aurrera, denok ezagutzen duzue *Arrasate Press* aldizkari hasi eta *Goienkariaraino*, irratia eta telebista barne, osatu den sarea Deba Goienean. Gerora, 1992an, *Jakinek* prentsa lokalari eskaini zion zenbakian, Joxe Aranzabalek “Herri aldizkari baten taxuketa” izenburuko artikuluan zeregin horri buruzko protokolo bat markatzen du, erabat sistematizatu; prentsa lokalari buruzko lezio bat da.

Zenbaki horretan bertan Jose Manuel Irigoien, *Ttipi-Ttapa*ko faktotumak aldizkari horren lehen hamar urteetako historia azaltzen du, lagunarteko ideia bat izatetik hasita. Aranzabalek eta Irigoienek, biek azpimarratzen dute ebidentzia bat: aldizkari lokaletan irakurketa erraztu beharra, bai idazkeraren aldetik eta baita tratamendu grafikoaren aldetik ere. Eta Irigoienek borobiltzen du gauza interes orokorreko gaiak jorratu beharra zehaztuz. Hala dio:

“Segur aski, fenomeno hori ez litzateke berdina izanen nagusiki gaurkotasuneko berriak agertu beharrean aldizkariaren pisua literaturan, komikietan, kontu zaharretan edota bertsoaritzan egonen balitz. Honek ez du esan nahi, noski, gai hauek sekulan agertu behar ez luketenik, interes orokorragoa duten sailak nagusi izan behar dutela baizik”. (Irigoien, 1992: 113).

Kontua da 80ko hamarkadaren hasiera hartan euskarak, komunikaziorako hizkuntza gisa, aldizkari lokal jaioberrietan aurkitu zuela habia epela. Eta informazio lokalaren eta euskararen uztartze horretatik etorri dela euskarazko kazetaritzaren garapenean atalik itxuraz xumeena, baina errealitatean sendoen txertatua. Zer diren gauzak. Inor gutxik aldarrikatzen zituen herri aldizkariak, goian aipaturiko iluminatu horiek eta beren koadrilakoek izan ezik.

Bitartean, izarrari begira eta hura eskuratu nahian zebilen euskal mundua. Alegia, “telebista euskaraz” bihurtu zen aldi bateko aldarrikapenik entzutetsuena. Manifestazioak eta guzti egin ziren hori eskatzeko. Agintean zeudenek jakin zuten aprobetxatzen gizartean ozen entzuten zen oihua. Bazirudien telebista euskaraz izanez gero, salbatuta geundela. Horregatik geratuko zen lausotuta telebista baino lehentxeago aireratu zen *Euskadi Irratiaren* jaiotza. 1982a zen, sei urte lehenago *Herri Irratien* “24 orduak euskaraz” hark piztutako ilusio hura orain ez zegoen irratian, telebistan baizik. Huraxe zen izarra.

13. Telebista, euskarak behar zuelako

Ramon Labaienek adierazia:

“Gure orduko helburu nagusi eta bakarra euskara babestuko zuen euskarazko irрати-telebista sortzea zen, gaztelaniazko katea jartzea burutik pasa ere egin gabe. Gero sortu ziren, noski, anbizio politikoak eta horrelakoak baina, telebistaren sorreran, euskara babestea izan zen lehenetsua, eta kalean ere oso zabalduta zegoen behar hura euskaltzaleen artean”⁵.

Labaien Kulturako Sailburua zen 1982an eta, jakinaenez, bere ardurapean egon zen Jaurlaritzaren barruan irрати-telebistak martxan jartzea. Ordutik hogeita bi urtera egindako adierazpenak dira aurreko horiek, Rikardo Arregi Kazetaritza Sariaren ohorezko aipamena jaso zuela-eta, Andoaingo Udalak aurtengo uztailean kaleratutako argitalpenean. Labaienek ozenki dio *Telebista* euskarerengatik sortu zela.

Joan Mari Torrealdai *Jakinen* 1982ko urria-abendua bitarteko zenbakian, “*ETB* euskaraz!” izenburupean, gaur egun ere, eta zoritxarrez, gogoratzeko modukoak diren oharrak ematen ditu. Jaurlaritzaren Gizarte Azterketarako Lantaldeak egindako inkesta hartzen du abiapuntutzat. Inkesta horrek diotenaren arabera, Gipuzkoan ehuneko 18,3k bakarrik nahi zuen telebista osorik euskaraz, Bizkaian horren erdiak, ehuneko bederatzik alegia, eta Araban gutxiagok. Euskararen topeak programa guztien ehuneko 40-60 artean geratu behar zuen gehienen ustez. Baina inkestak badu bigarren zati bat ere, zer eman euskaraz, zer erdaraz. Eta hori da Torrealdai gehien kezkatzen duena. Izan ere, erantzunak horrela laburbiltzen dira: euskaraz emateko, euskal folklorea, herri-kirolak, haurrentzako programak eta marrazki animatuak. Erdaraz, teleberriak, filmak, teatroa... Torrealdaien komentarioa segidan:

“Betikoa. Betiko erdibiketa: euskara haurren mundurako eta folklore lokalerako; eta erdara, dimentsio unibertsalekoa, informaziorako, kulturarako. Nihil novum sub sole! Zein ongi barneratu dugun kultura nagusiak eta aginteak urtetan ezarritako ideologia!”.

Ez ahaztu inkesta hori juxtu *Telebista* sortu aurrekoa dela, Torrealdaien idatzia bezala, izan ere, 1982tik 1983rako pasagunean, urtezahar gauean estreinatu zen *Euskal Telebista*. Torrealdaiak bukatzen du bere artikulua esanez:

“Euskal telebista euskaraz egitea, eta aukera horren zuzentasuna ulertaraztea, horra Gobernu abertzale baten bi eginkizun erabakior”. (Torrealdai, 1982: 128-129).

Ez dago esan beharrik gauzak ez zirela joan Torrealdaiak zehaztutako bidetik. Hasieratik sartu zen gaztelania *Euskal Telebistaren* kate bakarrean eta 1986an bigarren katea sortu zuten, osorik gaztelaniaz.

14. *ETB*1en ataka estua

*ETB*2k adina urte daramatzat *Euskal Telebistan*, ia osorik *ETB*1erako lan eginez, hau da, euskaraz. Albistegien arloan lan egin dut beti, egunerokoetan nahiz asterokoetan, eta pasa ditut *Gaur Egunak*, informazio lokaleko tarteak, Hemen eta munduan erreportaje saioa, *Ados?* eztabaida saioa, *Euskadi Zuzenean* izeneko eguerdiko magazina, *Bertatik Bertara*, eta orain *Postdata* mikrotartean nabil

Errepasoa egin dut ez horrenbeste nire curriculuma agertzeko, *ETB*1eko albistegien arloak daraman bilakaerari erreparatzeko baizik. *Gaur Egunak* hor daude, *Bertatik Bertara* ere bai, informazioaren esparrutik aldentzeko ibili eta gero, itxuraz berbideratua. Informazio lokaleko tarterik ez dago, *Euskadi Zuzenean* bezalako magazinik ere ez; *Hemen eta Munduan*en tankerako erreportaje saioak aspaldi ezkutatu ziren; *Ados?*en estiloko eztabaida zabaleko programarik ez da egiten... *Postdata* erreportaje tarteak lau minutu ditu egunean. *Euskal Telebistako* lan taldeak euskaraz ekoizten diren programa informatibo bakarrak *Gaur Egun*, *Iparaldearen Orena*, *Postdata*, asteroko *Harian* elkarrizketa saioa eta *Firin-Faran* dira. Hauek gain, *Sautrela* literatur programa, *Teknopolis* zientzia eta teknologiaren dibulgazioa, eta tarteka ematen diren erreportaje saioak genituzke, adibidez azkenaldian “Euskaldunak Europan” izenekoak, baina horrelakoak ekoiztetxeen eskutik datoz.

Konparazioetan sartuta eta urrutira joan gabe, *ETB*2ri errepasoa eginez ikusiko dugu, *Teleberriez* gain hauexek dauzkagula: egunerokoetan, *El Punto*, goizetako albiste eta elkarrizketa saioa eta *Forum*, kultura eta gizarteko elkarrizketa programa; asterokoetan *Palabra de Ley*, informazio parlamentarioari eskainitakoa, *Mundo.hoy* eta, azkenik, ekoiztetxe baten eskutik, *Políticamente incorrecto*.

Zenbat aldiz gogoratzen naizen lehen aipaturiko prentsa elebidunaren frakasoaz; hobe esan, euskararen frakasoaz prentsa elebiduna deitu zen hartan. Izan ere, bi kateen arteko dialektika medio elebidunetan zertzen denaren oso antzekoa da. Irailaren 11ko arratsaldean kate batek eta besteak New Yorkeko erasoei egin zieten jarraipenak oso ondo erakusten du hori; *ETB*2 inguruko edozein katearekin lehiatuz ibili baldin bazen, *ETB*1ek berandu eta tarteka bakarrik heldu zion gertatzen ari zenari. Ez zen zalapartak eragindako akats bat izan, kate bakoitzari eguneroko eta beti ezartzen zaion rolaren isla baizik.

Torrealdaren artikulua irakurtzean bete den profetia baten aurrean bezala sentitu naiz; bete da, jakina, ez Torrealdaiak eskatzen zuena, delako inkesta hark iradokitzen zuena baizik. Areago, izan dira garaiak *ETB*1 eredu murriztuz horretatik aldentuago egondakoak, telebista orotariko eta normalizatutik gertuago, baina gaur egungoak inkesta haren espiritutik kalkatua dirudi: haurrentzako programazioa eta kirolak, erran nahi baita, futbola eta pilota. Alferrik hazi dira 1982an Telebista estreinatu zuten haurrak eta harrezkero etorri diren belaunaldiak, nola eta ez diren futbolzale edo pilotazale unidimentsionalak.

Lehen esan bezala, Rikardo Arregi Kazetaritza Sariaren aurtengo ekitaldian Ramon Labaienek jaso zuen oho-rezko aipamena, *Telebistaren* sortzaile izateagatik. Labaienek sarkasmorako daukan joera apart horrekin, “telebista txarra ere” egiteko eskubidea aldarrikatu zuen. Nik, puntu honetara iritsita, eta batera sarkasmorik gabe, *Telebistan* “kazetaritza ere” egiteko eskubidea aldarrikatu behar dut. Kazetaritza, euskaraz. Izan ere, aspaldiko inkesta hartatik datorren eskemak, gehi entretenimendua deitzen dutena aldrean jartzeak, espaziorik gabe, ia zereginik gabe utzi du *Telebistan* kazetaritza euskaraz landu nahi duena. Saio arinak egin behar diren aitzakian, marrubizko txiklearen zaporeak eta partxis koloreek bakarrik dute sarbidea, dena zelofanetan bilduta eta euforia aldiaren dagoen ziklotimikoak aurkeztuko lukeen gisan. Hori xelebrekeriekin, arlotearen estereotipoekin trufatuta. Horri guztiari beste faktore bat gehitu behar zaio, hain zuzen ere *Telebistaren* produkzioa, gero eta gehiago, ekoiztetxeen esku jartzea, baita izaera eta eduki informatiboa duten saioen kasuan ere. Mozorrotutako pribatizazioa, azken batean. Hau da *EITB* kudeatzen duen taldeak azken bizpahiru urteotan markatu duen joerarik nabarmen eta finkoena. Osagai guztien batuketa egin eta emaitzak begi bistan daude.

15. Telezaborra soilik ez

Telebistetako kudeatzaileen artean oso uste zabaldua da intelektualek telebista, medio gisa, gorrotatu egiten dutela, eta halako transferentzia psikologiko bat eginez, telebistarekiko ezinikusia medio hori zuzentzen dutenekiko kritika bihurtzen dutela. Intelektualen eta telebistetako kudeatzaileen arteko eztabaida unibertuala da, tele-zaborra bezalaxe. Horretan, normalizatuta geundeke, beraz. Baina hemengoa ez da huts-hutsik telebista konbentzionalaren azken joerei buruzko eztabaida. Ezberdintasuna zera da, hemen hizkuntzen arteko jokoak dagoela gainera auzitan, euskaraz bizi nahi duen komunitatearen kaltetan.

“...*ETB*1 euskal gizarteari bizkarra emanda bizi da eta ez du telebista ona, hezitzailea, eraikitzailea, sormenezkoa egin daitekeela sinesten. Eta, jakina, *ETB*1ek ez du euskal jendearen pentsamoldea islatzen, ez eta pentsatu ere”⁶.

Juanjo Olasagarrek *Berrian* idatzia uztailearen 8an. Aste batzuk lehenago Pako Aristik *Asteon* aldizkarian antzeko kritikak egin zituen pasarte honek adierazten duen bezala:

“Burbuila psiko-termiko bat da *ETB* gaur egun. Ireki beharra dauka, ez mundura, Euskal Herrira baizik. Euskal Herria *ETB*n agertzen den mikro-zati hori baino ederragoa da, zabalagoa, harrigarriagoa, originalagoa, indartsuagoa...”⁷.

Hemerotekara jota *ETB*ri buruzko kritikak eskubete ez, zakubete topatuko genituzke. Arrazoizkoak, eztabaidagarriak, eleganteak, mingarriak, obsesiboak, ikuspegi zabalekoak, lerratuak, interesatuak... Azkenaldiko bi hauek aukeratu badituzte ez da bakarrik berrienetakoak izateagatik, gezia bihotz berera botatzen dutelako baizik: hartzaile izan behar lukeen gizarteari bizkarra emanda dabil *ETB*; *Telebistak* ez du bere gizarte hori islatzen. Kontua ez da, beraz, soilik telebista ona edo txarra egiten den, zentzua daukan telebista egitea baizik. Eta bide batez, identitatea aurkitzea. Eta hor egiten du pot *Euskal Telebistak*.

16. Zentzua eta identitatea

Gaur egun, eta hain eremu zabaleko beste euskarazko telebistarik sortzen ez den bitartean behintzat, *ETB*1ek, zentzurik izatekotan, euskal hiztunen komunitate osoa ardatz hartuta bakarrik aurki dezake hori, komunitate horren ezaugarri ezberdin eta askotarikoak kontuan hartuta, eta komunitate hori izanda erreferente nagusia. Modu aseptikoan adieraztearren, nahikoa litzateke eguraldiaren mapa hartzea benetan jokalekutzat, eta ez *FORTA*ko irudi trukeak edo bokazio espainiarreko medioek marrazten dutena. Hori mapa fisikoari dagokionez. Mapa soziala berriz, zuzendu eta eguneratu beharrean dago *ETB*. Ez oso aspaldi *Albistegietako* arduradunen artean bazen esaldi bat: *señá Mariá*rengan pentsatuz lan egin behar genuela, alegia, soinean bata akoltzatua eta buruan ruloak zituen etxe-koandreaki interesatzeko moduko notiziak kontatu behar genituela. Azkenaldian ez dut arau hori hitzez entzun, baina edukiak ikusita badirudi programatzaileek irudikatzen duten ikusle-eredua *señá Mariá* eta bere oinordeko zuzenak direla..., baita euskarazko telebistan ere.

Gezurra badirudi ere, duela ia hogeita bi urte jaio zen hedabideak oraindik egiteko dauka bere ikusleria potentzial eta errearen azterketa eta jarraipen berezitu bat. Audientzien datuak, Koldo Izagirrek esango lukeen bezala, “masustak eta madariak” nahastuz zenbatzen dira, eta aldi berean madari sail guztiak bildu gabe. Nafarroako datuak gauza batzuetarako bakarrik jasotzen dira eta Iparraldekoak, batere ez, masusten aldean hain dira gutxi... Izan ere, Koldok dioenez:

“...euskaldunok gutxiengotuak gara, ez gara geurez, baizik berez, beste multzo batekikoak”⁸.

Aurreko horrezaz gain botatzen du Koldok esaten ari garen honetarako oso baliagarria den kontzeptua: xenofilia, auto-komplexudunaren gaitza. Testuingurutik lapurtuta bada ere, hona ekarri nahi dut kontzeptu hori: xenofilia, auto-komplexudunaren gaitza, Euskal Telebistan endemikoa izatera iritsi baita.

Panorama honen aurrean *ETB*ko kazetarien aldetik ez dago erantzun kolektiborik. Erredakzio barruko egoera jasanezina izatera iritsi den uneetan bakarrik egon da gure artean bildu eta Zuzendaritzari ezer esateko adorerik. Gainerakoan nor bere kolokorako edo oso hurbileko zirkulurako gordetzen ditu desadostasunak eta ezinegonak. Erredakzio kontseilu bat sortzeko adinako ganorarik ez da sekula izan. Orain urte batzuk bazirudien gaztetasunaren akatsa zela hori, baina denborak aurrera egin ahala, buruak soiltsen edo urdintzen joan direnean ere, ez da horrelako mugimendurik antzematen. Faktore asko daude hor, zalantzarik gabe. Nik, heldu diodan ikuspegitik begiratu-ta, euskarazko kazetaritzarenetik alegia, *bifidismoa* deituko diodana aipatuko nuke. *ETB*ko kazetariak, *Albistegie*-tan batez ere, bi hizkuntzetan eta bi kateetarako lan egiten du. Abildadearen aldetik, ez da erronka txarra profesional batentzat, kontrako hitzak behin baino gehiagotan entzun izan badira ere. Arazoa da bi hizkuntzetan aritzeak, bi kateetarako lan egiteak, erdibitu egiten duela nolabait kazetaria, eta oreka gorde ezinik, indartsuenaren alde jotzen duela inertziak, garrantzitsuaren alde, lehian jartzen duen haren alde, *ETB2* eta gaztelaniaren alde. Ez da, gehiengotan, borondate eta sentimendu kontua, azpiegiturak eragiten duena baizik.

17. Profila edo pernila

Luis Fernandezek “Euskal kazetariaren profila” jarritako tokian, berdin izan zitekeela “Euskal kazetariaren pernila” esaten zuen bere komunikazio hartan. Honenbestez, *boutade*arekin bat egitekotan nago. Leioako Fakultateak nahiz geroztik komunikazioaren inguruan sortu diren edo sortzeaz dauden beste eskolek profesionalen masa kritiko itxurazko bat ziurtatzeko gai diren garaian, euskal kazetaritzan jarduteko aukerak urritzen ari dira. Ez naiz sartuko kazetarien lan baldintzetan, gaiak badu-eta bere tokia lan honetan. Esan dezadan, bakar-bakarrik, soldata eta lan baldintzei dagokienez, medio publiko eta ez publikoen artean zegoen aldea berdintzen ari dela, baina txarrerara. EITBn lanpostu finkoa eta behar bezala ordaindua dugun kazetariak momia bihurtzeko zorian gaude; indarra hartzen ari den modalitatea autonomo gisako kontratua da.

Kazetaritza euskaraz lantzeko dauden hedabideak direnak dira; azpiegitura osatua dago nolabait: egunkari bat, irrati bat, telebista bat, astekariak eta aldizkari berezituak euskal komunitate osoari begira; hortik aurrera, tokiko hedabideen sarea. Hurrengo urteotan ez dirudi egitura osoak hazkunde nabarmenik izan dezakeenik, nahiz eta toki hedabideetan oraindik espazio berriak zabal daitezkeen. *Asteonen* eteteak erakutsi digu pagotzarik ez dagoela.

Dena den, ni baino sindikalista eta estrategia hoberik bada gai horiek aztertzeko eta nik, amaitu baino lehen, hitzaldiaren erdialdera zintzilik utzitako hari muturrei heldu nahi diet, hain zuzen ere dikotomia modura paratuko ditudan bi bikote hauei: kazetari lizentziatuak/idazleak eta profesionaltasuna/militantzia.

18. Soslaiaren osagai batzuk

1976ko taldea aurkeztu dudanean azpimarra jarri dut kazetaritzan lizentziatuak izatearen ezaugarri hartan. Berehala, *Zeruko Argiako* kazetaritzari erreposoa egitean bi idazlek sortu eta burututako sekzioa aipatu dut lehen lerroan. Kontraesana itxuraz.

Ez naiz hasiko literatura eta kazetaritzaren arteko harremanez -unibertsalak hauek ere- lezioa ematen. Nire gusurako, eta hau ere termino unibertsaletan esanda, kazetariak literatura egiten baino hobeto asmatzen dute idazleak kazetaritza egiten. Azkenaldian *Berrian* ari gara ikusten zer nolako ekarpena egiten ari diren idazleak zutabegin-tzan; Andu Lertxundi eta konpainia luzea. Rikardo Arregi kazetaritza saria nori eman zaion erreparatu eta idazle-

ak kazetariak adina azaltzen dira. Argia salbatu zuen taldean zaletasuna literaturan zuten filologoak aurkitu ditugu. Kazetaritza, beraz, zordun da idazleekin. Era berean, bestelako ikasketak dituzten lankide ugari izan ditut inguruan lehen eta orain, senari eta praktikari esker kazetari osoak direnak.

Eta, hala ere, defendituko ditut kazetaritzako ikasketak eta lizentziatura. Medikuntza ikasi gabeko sendagilerik edo Zuzenbide Fakultatetik pasatu gabeko abokaturik ez genuke sekula kontratatuko. Kazetaritzan lizentziatzeko ikasketak malguagoak dira, gure inguruan bertan Frantziako eta Espainiako sistema ezberdinek ondo erakusten duten bezala. Gure profesioak, itxuraz, ez du eskatzen zirujauaren esku ziurra, edo ingeniariaren kalkulu zehatza. Objektibitatea mitoaren eta utopiaren arteko zerbait da. Baina kazetaritzan ez du denak balio. Badaude tradizio ezberdinak, eskolak, esperientziak eta historiak, hemen eta mundu zabalean, profesionalak atzeko garunean behintzat izan behar dituenak; teknologiaren aldetik etengabeko aldaketan daude medioak; komunikazioko hizkerak zer esanik ez. Eta, batez ere, komunikazioaren trafikoan lan egin nahi duenak gizartearen ezaupide zabala behar du, ikuspegiak eta irizpideak bereizten, erlatibizatzen eta baloratzen lagunduko diona. Hori dena, formazio humanistiko, teknologikoa eta kazetaritzaren ondareari dagokiona fakultate nahiz eskola espezifikoei ziurtatu behar diote.

Profesionaltasuna eta militantzia kontrario modura azaldu zaizkigu *Argiako* krisian. Hitz tranpak dira hauek. Profesionaltasunari bi adiera eman dakizkioke: hartatik bizitzeko aukera eta eginkizuna betetzeko gaitasuna. Militantzia berriz definitu dezakegu helburu kolektibo bat erdiestearren modu altruistan egindako lan gisa. Ba hemen, epai erabat salomonikoa emango dut. Ez du inork ukatuko gaurko egunean profesionaltasuna ezinbestekoa denik euskarazko kazetaritza garatu ahal izateko, baina esperientziak esaten dit euskal kazetari izateak militantziatik ere dezente eskatzen duela, eta ez naiz ari bakarrik soldata baxuekin edo dirua biltzeko kanpainak antolatu beharrean dabiltzanez, ez. Egunerokoan, edozein dela ere hedabidea, euskal kazetariak plus bat jarri behar du bere poltsikotik hamaika eratarik: hizkuntza garatuagoetan datorkiona moldatzeko, hizkuntzen arteko joko zikina saihesteko, hedabide inportanteen itzalari, hau da, erdaraz dihardutenei aurre egiteko... Ordainetan, euskal kazetariak gizartearen izango duen oihartzuna, oraingoz behintzat, minus batekin markatuta egongo da. Egoera hori erresuminik eta konplexurik gabe, duintasuna eta harrotasuna pitzatu gabe bizitzen jakiteak militantzia tanta batzuk eskatzen ditu.

Bukatzeko, Txema Ramirezzi hartuko diot oraingoan aipua. Ramirezek *Jakinen*, non bestela, 1997ko martxoan apirilera zerbait argitaraturako artikuluan, euskal kazetariaren eskizofrenia diagnostikatzen du. Ramirezek dio, euskaraz dihardutenei kasuan, ondoko guztia gehitu behar zaiola kazetariak berezkoa duen estresari:

“...euskal gatazka deitutako auziak sorrarazten dituen jarrera polarizatuak, presioak, erreakzioak, sinadura-bilketak eta abar pilatzen badizkiogu ateratzen zaigun koktela guztiz lehergarria da. Honegatik guzti-gatik diogu euskal kazetariaren kolektiboa eskizofreniatik gertu bizi den taldea dela”. (Ramírez, 1997: 102).

Sasi-beteranoa, kijote susmagarria, derrigorrezko militantea, eskizofrenikoa... Zumetaren aldi feistako esperpentoa dirudi azkenean euskal kazetariaren soslaiak.

Hala ere, edo agian horregatik guztiarengatik, pasioz bizi dut nire lanbidea, eta 1976an adinako ilusioz jarraitzen dut kazetaritzan. Euskal Kazetaritzan. Fakultatera sartzeko azterketan, gerora irakasle izango nuen elkarrizketatzaileak abisatu zidan euskarazko kazetaritzak ez zeukala etorkizunik, kentzeko asmo hura burutik. Epai izugarri hura akuilu izan dut urteetan, eta orain behin betirako mendekua hartu dudalakoan nago.

Bibliografia

- Agirre, Lorea (2003): *Joxemi Zumalabe, Ipurtargiaren itzal luzea*. Andoain. *Euskaldunon Egunkaria*.
- Aldamiz-Etxebarria, Estepan (1982): "Gaztelaniazko prentsa Euskal Herrian", *Jakin*, 22. zenb., 1982, Donostia, 44-51 or.
- Amatiño (1982): "Prensa idatziaren arazoak", *Jakin*, 22. zenb., 1982, Donostia, 70-82. or.
- Aranburu, Xabier (1977): "Euskara, erdal egunkarietan", *Euskera*, XXII. zenb., 1977, Bilbo, 65-67. or.
- Aranzabal, Joxe (1992): "Herri aldizkari baten taxuketa", *Jakin*, 69. zenb., 1992, Donostia, 67-80. or.
- Fernandez, Luis (1996): "Euskal kazetariaren profila", *Jakin*, 96. zenb., 1996, Donostia, 51-62. or.
- Irigoién, Jose Manuel (1992): "*Ttapi-ttapa*", *Jakin*, 69. zenb., 1992, Donostia, 103-113. or.
- Lizarralde, Joxe (1976): "Egun gogoangarriaren oihartzuna", *Zeruko Argia*, 683. zenb., 1976-04-11, Donostia, 15. or.
- Pagola, Manolo (1977): "*Deia*, Euskal Herriko lehen egunkaria", *Jakin*, 3. zenb., 1977, Donostia, 84-85. or.
- Ramirez, Txema (1997): "Masa hedabideak eta bortizkeria politikoa", *Jakin*, 99. zenb., 1997, Donostia, 87-104. or.
- Torrealdai, Joan Mari (1977): "Euskal kazetaritza gaur eta bihar", *Euskera*, XXII zenb., 1977, Bilbo, 61-63. or.
- Torrealdai, Joan Mari (1982): "*ETB* euskaraz!", *Jakin*, 25. zenb., 1982, Donostia, 128-129. or.
- Zalakain, Jexuxmari (2003): "*Egunkaria* itxi dute, baina proiektua bizirik dago", *Uztaro*, 45. zenb., 2003, Bilbo, 29-69. or.

Oharrak

1. Ikus. *Argia*, 1947. zenb., 15. or., 2004-06-06.
2. *Zeruko Argia*, 683. zenb., 15. or., 1976-04-11.
3. Torrealdai, Joan Mari (1998): "Martin Ugalde, Andoaindik Hondarribira Caracasetik barrena". Donostia. Jakin-Elkarlanean.
4. Onaindia, Mario (2004): "El aventurero cuerdo, memorias (1977-1981)". Madrid. Espasa.
5. Azurmendi, Nerea (2004): "Presaka utzi zuen txoritxoak kabia, Ramon Labaieni elkarrizketa" in *Euskal Telebista hutsean sortua*. XVI. Rikardo Arregi Kazetaritza Saria 2003/04. Andoaingo Udala, Euskararen Normalkuntzarako Lansaila.
6. Olasagarre, Juanjo: "*ETB1*" in *Berria*, 2004-07-08.
7. Aristi, Pako: "Txikiegia, kaskarregia agian" in *Asteon*, 2004-05-28.
8. Izagirre, Koldo: "Masustak, madariak eta New York" in *Jakin*, 142. zenb., 2004ko maiatza-ekaina.

b. EUSKAREN KOMUNIKAZIO-ESPARRUA

Jose Inazio Basterretxea Polo
Aitor Zuberogoitia Espilla
EHUko irakasleak

1. Sarrera

Txosten honek **euskararen komunikazio-esparrua** definitu nahi du. Euskararen komunikazio-esparrua, berba-hirukote magikoa da. Magikoa da hirua, zenbaki moduan: бага, biga, higa. Era berean, magikoa da batekoa, bata-suna: dena baita bat; bat den heinean, dena da dena. Magikoa ere biko: zuria da beltza, eta beltza da zuria.

Aztia da hirua. Behin eta birritan lortzen ez dena, hirugarrenean lortzen ei da. Magikoa, zeren sasien gainetik eta hodeien azpitik, hirugarrena baitabil: ez dena, bada. Eta, hiru berebarekin hasten da ponentzia, hitzaldiaren tituluak hiru hitz biribil baitakarzkigu gogora: euskara, komunikazioa eta esparrua.

Tituluaren hiru berba kateatu horiek zenbait galdera formulatzera garamatzate. Beste hainbaten artean, honoko hauek egin litezke: ba al du hizkuntza horrek, euskarak, komunikazio-esparrurik? Eta berezkoa al du euskarak esparrua, hots, esparru propiorik ba al du euskarak? Eta, baldin badu, zelan defini liteke euskararen komunikazio-esparru hori? Eta, definitzen ahaleginduta, bakarra al da komunikazio-esparrua? Edo, batzuk al dira? Eta bat baino gehiago balira, maila berekoak ote lirateke horiek? Eta, balizko esparru horiek guztiek ba ote dute etorkizun komunik? Edo bakar bakoitzak al du? Hemen eta orain, euskararen komunikazio-esparrua ezaugarritu gura dugu, nondik datoren ikusi eta nora doan aurreratzen ahalegindu.

Era unibertsalago batean formulatuta, goiko tituluko hiru berba horiek lerro berean jarri dituzte hizkuntza bat, funtzio bat eta espazio bat; horiek dira hor goian iradokitzen direnak, magiak magia. Batetik, hizkuntza bat: beste toki batzuetan erabiltzeaz gain, batez ere Euskal Herrian erabiltzen direnetariko bat, ez bakarra. Bestetik, funtzio bat, komunikazioa: edozein hizkuntzak ahalbidetzen duenatariko bat, askorentzat oinarrizkoena eta garrantzitsuen izango dena, nahiz eta bakarra ez den seguru asko. Eta, azkenik, espazio bat: hizkuntzak komunikatzeko erabiltzen dituenetako bat. Horra gure hiru hitz magikoak.

Hiru hitz uztartzen dituen titulu horren formulazioan, gainera, lotura bat iragartzen da berba horien artean, eta, erdi atzekoz aurrera berreraikiz diskurtsoa, esan genezake ezen funtzioari dagokiola espazioa, eta hizkuntzari dagokiola funtzioa. Alegia, komunikazioari dagokio esparrua, eta halaber euskarari dagokio komunikazioa. Bitarteko terminoak ematen die muturrekoei uztardura: komunikazioak hurbiltzen ditu hizkuntza eta espazioa, euskara eta esparrua. Egiten dugun irakurketa horretan, bitartekoak kateatzen ditu lehena eta hirugarrena, euskararen eta esparruaren arteko zubia da komunikazioa.

Gauzak horretara, egia esan, inkognita handi bat argitzen zaigu, zeren espazioa ez baitagokio hizkuntzari, funtzioari baizik; hots: espazioa ez da euskararena, esparrua ez da euskararena; komunikazioarena baizik. Arduratzen gaituen komunikazio hori euskaraz egiten da, hain zuzen ere; medio eta hedabide desberdinetan. Guztira, 700 bat kazetari epelatzen dituzte euskarazko hedabideok.

Euskarazko komunikazioa. Maila batean edo bestean, hedabideetan nahiz hezkuntzan edo ikerkuntzan, horretan dihardugu hemengo guztiok. Bagarena badakigu, jakin; alabaina, nolakoak garen ez daukagu oso argi. Sentimenduz eta pentsamenduz badakigu bagarena, hori badakigu, jakin. Zer garen edo zelakoak garen intuizioz baino ez dakigu gaur-gaurkoz, nahiz eta hori erraz alda daitekeen gure artean; izan ere, lau egunerako hitzordua egina dugu hemen, eta horrek argitu beharko liguke panorama apur bat. Txosten honen helburu nagusia hausnarketarako gako batzuk ematea da.

Txosten honek badu beste gako bat, beste zor bat. Eta da, irekiera-ekitaldiaren eta sarrera-hitzaldiaren ondoren, euskal kazetariaren lehen laneko lehen txostena izatea. Abiapuntu bat da, beraz. Indarrak hartzeko puntua da. Jokozelaia marrazteko abagunea. Definizioak aurreratzeko egokiera.

Arduratu egiten gaitu gure eskuetan utzi den gaiaren zamak. Izan ere, zerbait fundamentatu behar dugu, zerbait oinarria eman behar diogu, zerbaiten ezaugarri biribila eskaini beharko genizueke. Printzipioz, printzipiozko zerbait hau egiteko, buru bakarra baino bi hautatu gintuzten antolatzaileek, lau begik bik baino gehiago ikusten dutelakoan nonbait. Horrek arrisku bat zekarren bere baitan: buru beste aburu izatearena. Baina arrisku hori hartu eta geure egin beharra zegoen. Oilo desberdinen arrautzez egindako moleta izan da gurea. Baina zartagina, padera, bakarra da, eta horrek lagundu digu zuenganatzen dugun txosten hau idazten.

Paradoxa bat kontatu gura dizuegu hasieran, anekdota bat. Gu biotako bati gertatua udaberri honetan hemen, Bilbon bertan. Lanaren harian sartzen hasteko, benetan gertatutako istorioa kontatu nahi dizuegu. Paradoxa da ondokoa, baina baita paradigma ere. Gure tesiek eraitsi gura luketen gaizkiulertu bat ilustratzeko adibidea da ondokoa. Eraitsi nahi dugun gaizkiulertua oso zabaldua da gizartean, gure esparruan bertan ere. Hara ipuina:

Bilboko taberna batean gaude. Hiru lagunen arteko eztabaidaren lekuko gara:

Bezero batek dio: – *Izatez, hi nongoa haiz?*

Tabernariak erantzun: – *Ni, izatez, hemengoa nauk, bertokoa.*

Beste bezeroak: – *Zelan bertokoa, Bilbon jaiotakoa al haiz?*

Zazpi Kaleetan gaude. Bezeroak bilbotarrak dira; dirudienez, garbitasun ezin aratzagoz txinboak. ezeroek hala eskatuta, tabernariak informazio osagarria eskaintzen die bi horiei: familia zein duen, non jaiotzen den, nola hasi den tabernan lanean, eta abar.

Eztabaidak honetara jarraitzen du:

Bezero batek dio: – *Beraz, bertokoa barik, hi galiziarra haiz, aita hangoa huen-eta!*

Tabernariak: – *Galiziar-galiziarra ez zakiat. Hiru hizkuntzatan moldatzen nauk; izan ere, fablo alego, euskaraz ere bazakiat, eta hara: gaztelaniaz ere mintzo nauk, zuokin hain zuzen ere.*

Tabernariaren erantzunaren ondoren une luzea zabaltzen da. Isilunea luzea da, bai eta lodia ere. Erlojuak gelditu direla dirudi, gaiaren sakontasunak hala merezi du, nonbait. Katilua eramaten dut ahora eta, ekaitza izan litekeena gozatu guran edo, azukre gehiago ematen diot kafesneari. Nire koilaratxoaren zintzarria nabarmena da. Beste zaratarik ez da tabernan. Halako batean epaia dator, maxima, laurok itxaroten egon garena.

Bezero batek dio: – *Bai, bai. Euskara jakingo duk baina, “euzkeldun” (sic.) izateko, euskara baino gehiago behar duk.*

Besteak: – *Jakina. Besterik ez genuen behar!*

Amaitu eta banoala egiten dut keinu. Gorri bana dute eskuan bezeroek. Tabernariak kafe-katilua hartu dit; “hurrengora arte”, diost.

Arratsaldeko hiru eta erdiak. Bilboko Zazpi Kaleak.

Eta zer gehiago behar da, bada?

Jakin ezazue ezen arduraz hartu genuela txostena idaztearen erronka, baita itxaropenez ere. Gure buruan uneoro egon da presente honoko hau: “Izan zaitetz baikorra. Ez baitu gehiegirako balio bestelakoa izateak”.

2. Euskarazko komunikazioaren estatututa

Lehen atal honetan, euskarazko komunikazioaren estatutua eraiki nahi dugu; itaun nagusi bik arduratzen gaituzte, horri gagozkiola. Batetik, zeintzuk dira euskal komunikazio-esparruaren esentzia eta substantzia? Eta, bestetik, zein da bere etorkizuna? Hots, ba ote dute esentziak eta substantziak aurrera egiteko nahikoa indarrik, potentziarik?

2.1. Esentzia eta substantzia

Gauza bakoitzari *berez* dagokiona da esentzia. Aristoteles gogoan duenak buruan gordeko du esaldi hura: “Kalias berez da Kalias, hots, Kaliasi dagokion esentzia”¹.

Zerbaiten definizio sakona eta dudarik gabekoa da esentzia: *gauza baten esentzia da gauza hori dena, gauza hori den aldetik*². Horrela bada, barru-barruko zerbait da inoren nahiz ezeren esentzia; jakina: ez da zer aleatorioa, ustekabean bildua, gaur bai baina bihar ez dena, aldakorra dena. Inoren edo ezeren esentzia da huraxe dena, hura den aldetik.

Beraz, esentzia ez da anekdotikoa. *Izaki baten berezko izaera osatzen duten ezaugarrien multzoa* da esentzia, hiztegiren batean irakurtzen baduzue. Izaki agertuko da hitz-biltegian, baina *gauza* ere izan liteke.

Zein da gure gaiaren esentzia? Zer da euskarazko komunikazio-esparruan *esentzia*? Hor, zer da *berez* euskarazko komunikazio-esparruari dagokiona? Zer da definitzailea euskarazko komunikazio-esparru delako horretan? Euskarazko komunikazio-esparrua den heinean, euskarazko komunikazio-esparrua den aldetik, bada, zer da euskarazko komunikazio-esparrua?

Bilatzen ari garena ez da ausazko zerbait, menturazkoa, gaur ager edo bihar desager litekeena. Bilatzen ari garena da gaur indarrean dagoena eta bihar indarrean egon beharko duena. *Berezko ezaugarri* baten bila ari gara. Sakoneko zerbaiten bila ari gara, ez dugu ausazko ezer behar.

Euskarazko komunikazio-esparru delako horretan, muinekoa, esentziala, lehen hori da: hizkuntzari dagokiona, alegia, euskara. Horrek bereizten du gurea, antzekotzat jo litezkeen gainerako esparruetatik. Esentzia baldin bada mugari definitzailea, esentzia hori zerbait purua da, beste inon aurkitzen ez dena, eta, batez ere, beste ezer definitzen ez duena. Euskarazko komunikazio-esparrua *euskarazkoa* da; agian tautologia irudiko zaio norbaiti, Pernandoren egia galanta. Gogoan izan, ordea, batzuetan egia horiek izaten direla bistaratzen gaitzenak. Ez hori bakarrik: bizi dugun egoera bitxian, dudak nonahi sortzen dira; eta argi utzi behar da: euskarazkoa da *euskarazkoa*; eta ez euskarazkoa gehi erdarazkoa, demagun gehi frantsesezkoa, gehi ingelesezkoa edo gehi gaztelaniazkoa.

Esan dezagun argi: euskal hedabideak euskaraz diharduten heinean dira *euskal hedabide*. Har dezagun Koldo Mitxelena bidelagun, dioguna sendotzeko³:

“Esanaren arabera, euskaldun zahar nahiz berriek idatzirikako zernahi, literaturaren barrunbean sartzten baldin bada, euskal literatura da. Aitzitik Euskadiko jendeak -eta jakinaren gainean darabilt izen hau, *Euskal* Herriaren lehen zatiaren bitartez nahastea sor ez dadin-, erdaraz, edozein erdaratan, idazten duten neurrian ezin daitezke izan euskal idazle; euskaltzale sutsu agertzen baldin badira ere, erdal idazle dira. Horrela, euskal idazle genuen Silvain Pouvreau; *erdal* idazle, haatik, Pio Baroja eta Jean de Sponde. Eskubide osoa dute, beraz, *Zeruko Argiak* eta *Anaitasunak* iragarkietan oihukatzen dutenean: *Geu gara euskal prentsa*. Eta gainerakoak euskal prentsa dira euskarari sarrera uzten dieten heinean eta ez gehiagotan. *Obras son amores, y no buenas razones*, esan ohi da aski ezaguna dugun beste hizkuntza batean, eta ez dabilta oker, nik uste, hori diotenak”.

Mitxelenak kinka larri eta jakin batean idatzi zuen hori, 1970eko hamarraldi amaieran. Garai hartan, Hego Euskal Herrian euskal prentsa *Zeruko Argia* eta *Anaitasuna* (eta eurekin batera *Jakin* eta *Herria*) baino ez zirela aldarrikatu beharrean izan ziren kazeta donostiarra eta bilbotarra hurrenez hurren, kazeta elebidun sortu berri batzuek ere euren burua euskal prentsa modura aurkezten zutela ikusirik; eta, ber gauza egin behar izan zuen 1980ko hamarraldi hasieran Lapurdin *Gure Irratiak*, *Radio Adour* Navararren egitasmo elebidun diglosikoaren aurrean euskarak aulki bat ez, unibertso oso bat behar zuela aldarrikatzean. Baike: euskaraz diharduten/ziharduten hedabideak izan dira azken mende laurden luzean euskal komunikazio-esparruari eutsi diotenak; eutsi ez ezik, zabaldu ere dezente zabaldu dute, hainbat egitasmo direla bide.

Baina hel diezaiozun berriro Koldo Mitxelenak eskaini digun hariari. Errenteriako hizkuntzalariak argi samar utzi digu nor den euskal idazle eta nor ez. Logika berari jarraiki, euskarazko komunikazio-esparruari beha jarrita, erratzeko beldur barik esan dezakegu ezen *Berria*, *Argia*, *Herria*, *Zabalik*, *Aldaketa 16*, *Uztaro*, *Jakin*, *Elhuyar* nahiz euskarazko aldizkari espezializatuak oro, edo tokian tokiko prentsa euskaldun geroz eta indartsuagoa esparru horretan sartzen direla bete-betean. Ez ordea *El Correo*, *Deia*, *Gara*, *Le Journal du Pays Basque*, *Sud-Ouest*, *Diario Vasco*, *El Periódico de Álava*, *Diario de Noticias*, *Diario de Navarra* eta enparauak. Lehenbizi izendatu ditugunak euskarazko kazetak dira, *euskal kazetak*; bigarren sortan bildutakoak, ordea, Euskal Herriko kazetak dira, baina ez euskarazkoak, eta, beraz, ez dira euskal prentsa, Euskal Herriko prentsa baizik. Har dezagun berriro Mitxelenak eskaintzen digun makulua : “(...) ez dut uste”, zioen Mitxelenak, “ez dugu uste, euskararik gabe deus denik euskal kulturaren izena eskubide osoz har dezakeenik. (...)”. Maiz errepikatu zituen gainera horrelakoak; hara, adibidez, beste bat : “(...) euskal (hots, euskaraz mintzatzen direnen) (...)”.

Logika horri jarraiki, hortaz, euskarazko komunikazio-esparruentzat ezinbesteko da *ETB1*, *Xaloa TB*, *Goiena TB*, *Ttiti-Ttapa TB*, *Kanaldude*, *Goierrri TB*, *Zarautz TB* eta beste zenbaiten jarduna; baina ez *ETB2*, *Telebilbao*, *Canal 4*, *Canal 6*, *Teledonosti*, *Canal Gasteiz*, *TVPI* eta abarren erdarazko edukiak eta diskurtsoak.

Era berean, *Bizkaia Irratia*, *Euskadi Irratia*, *Arrasate Irratia*, *Gure Irratia*, *Euskalerrria Irratia*, *Irulegiko Irratia*, *Xiberoko Botza* eta beste hainbat ere euskarazko komunikazio-esparruaren zutabe sendo dira, baina ezin dugu gauza bera esan Euskal Herrikoak izan arren erdara hutsez edo batik bat erdaraz ari diren *Radio Euskadi*, *Radio Vitoria*, *Europa FM*, *Radio France Pays Basque* eta beste hainbati buruz; zaku honetan sartu behar ditugu baita *Herri Irratiaren* adar desberdinak eta *Lapurdin Irratia* bera, azken horietan euskarazko emankizunek dezenteko lekua betetzen dutela eta euren ekarpena oso aintzat hartzekoa dela aitortzen dugun arren; haatik, Mitxelenaren berbak berriro geure eginez, irratiosk euskarazko komunikazio-esparruko kide dira “euskarari sarrera uzten dioten heinean eta ez gehiagotan”.

Ezin ahaztu, azkenik, euskarazko komunikazio-esparruan funtsezko erreferentzia direla *sustatu.com*, *Berria* nahiz *Argiaren* edizio elektronikoak, *zernola.net*, *zientzia.net*, *ueu.org* eta euskara hutsez diharduten beste webgune batzuk (geroz eta gehiago). Euskara apaingarri huts modura edo, onenean, erdal testuen halamoduzko itzulpenak egiteko darabilten webak, aldiz, nekez bihurtuko dira euskarazko komunikazio-esparruaren erreferentzia.

Hizkuntza da, hortaz, euskal komunikazio-esparruaren esentzia, elementu definitzailea; ez ordea abertzaletasuna, kontu jakin batzuei buruzko ikuspegia edo beste irizpideren bat. Euskal komunikazio-esparrua, beraz, euskaraz diharduen heinean da *euskal komunikazio-esparrua*. Gainerakoak, Euskal Herriko hedabide elebidunak (elebidun diglosikoak euretarriko ia guztiak) dira. Ezinbesteko azalpena da hori, berriro diogu, eta hori barneratu ezean, nabarmena da kolpe-huts egiteko arriskua. Kolpe-huts egin izan da, adibidez, eta behin baino gehiagotan gainera, kontzeptuak bestelakotu eta hedabide abertzale elebidunek osaturiko esparruari *Euskal Esparru Komunikatibo* deitzean, hizkuntzaren irizpidea bazter utzita; eta ez pentsa aspaldiko kontuak direnik, oraintsukoak baizik.

Diogunez, oraintsu izan gara gisa horretako definizio okerren eta kontzeptu-nahasketen lekuko, baina askoz lehenagotik dator soka. Egin dezagun atzera, oraingoak errazago izango dira-eta gogoan. 1976an bertan, berbar-

ko, erdal eta euskal prentsaren arteko erlazioa eta definizio-nahastea urtea amaitu orduko argitu beharrez mintzo zen Joan Mari Torrealdai, gisa honetan mintzo ere⁴:

“Euskal prentsa euskaraz dela aitortu, onartu eta laguntzen ez duen erdal prentsak diglosia finkarazten du. Aldizkarien euskal izenak eta tituluak ez daitezela inoren engainutarako izan.

Hona hemen euskal kazetaritzaren puntu larri batzuk. Aztertzeak merezi du, eta aurrez aurre ez ikusi nahia geure buruaren kaltetan da. Erdal eta euskal prentsaren arteko erlazio hau, euskal kazetaritzaren urtea amaitu orduko argitan jarri behar genukeen arazo bat da”.

25 urte baino gehiago igaro dira ordudanik eta, orain gauzak aldatzen hasiak diren arren, oraintsu arte definizio eta kontzeptu okerren gatibu izan da euskal hizkuntza-erkidegoa. Honezkero, ordea, badakigu beste definizio horiek eta haien atzean zegoen hautu elebidun diglosikoak zer eman duten. Gauza bat baita denontzat onuragarri den eleaniztasun indibiduala eta beste bat, oso bestelakoa gainera, inon inoiz modu orekatuan gauzatu ez den elebitasun soziala.

Elebitasuna helburu modura jarri izan da maiz, baina horrelakoetan zehaztu egin beharko litzateke elebitasun indibidualaz ala sozialaz ari garen: izan ere, elebitasun soziala ez baita egoera egonkor bat, bi hizkuntzetako bat gailentzera daraman prozesuaren une jakina baizik. Haren aldeko jarduera kontzientziadunik abiarazi ezean, egoera elebidunean hizkuntza gutxituak behea jotzen du beti, beste hizkuntzaren mesedetan. Eta gainbehera hori zelan edo hala eskema diglosiko batekin galgatzea lortuz gero ere, hizkuntza bat beti izango da baztergarri, anekdotiko, periferiko, eta bestea, aldiz, ezinbesteko, ofizial, zentral. Hortaz, eredu elebidun diglosikoa hizkuntza gutxituarentzat desoreka-iturri dela jakin arren, eredu horren alde jardutea *galtzera jokatzea da* Lluís V.a Aracilek jada gaztigitatu zigun moduan⁵. *Lingua navarrorum* zentraltasun erabatekoa ematen dioten sistemek baino ez dute bermatzen, beraz, hizpide dugun komunikazio-esparruaren *euskal* izaera hori.

Ezen jada esana dugun moduan, euskal komunikazio-esparruaren esentzia, elementu definitzailea, nortasun-emailea, euskara baita. Esentzia gora eta esentzia behera ari garenez, agian, salaketa ere lepora diezaguke norbaitek esanez guk proposatzen dugun euskal komunikazio-esparruaren definizioa lar estua dela, lar murriztailea... Gauza gehientsuenak bezala, begiradaren arabera izango da hori ere, kontzeptu hau, izan, ondo malgua baita. Koldo Izagirrek zioen moduan⁶, era horretara interpretatuta oso murriztailea eta aldi berean oso zabala da *euskaldun* terminoa: gure aldamenen bizi den euskal herritarra definitziorik at utz dezake, ez ordea Japonian bizi izanagatik euskaraz berba egiteko gai den pertsona. Argi geratzen dira, honenbestez, esentziari eta *euskal* terminoari buruzkoak. Norbaitek esango du *euskal* hori *vasco/basque* modura itzultzen dutenean arazoak sortzen direla anbiguotasuna dela bide... Anbiguotasunok konpontzea denon lana da; guk, kazetari euskaldunok, argi ikusten dugu, txostenean definitzen ari garen moduan.

Hizkuntza, hortaz, gure berbetan *esentzia* da, arima; eta bere ondoan forma desberdinak har ditzakeen buztin moldagarria du. Buztina garrantzitsua da, oso; ontziak egiteko, ez edukiak amesteko. Diogun esentzia eta arima hori buztin desberdinetara eramanez liteke, buztin horietan gorde liteke, horietan gauzatu eta horiei esker forma aurkitu eta bertan bizi. Baina buztina lurra da, eta hizkuntza arnasa.

Gure testuinguruan, esentziak eroale desberdinak igurikatzen ditu; guretzat lan honetan, esentziaren eroale nagusia *komuniozko* harremana da, komunikazioa hain zuzen ere. Eta horretan aurkitzen du gure esentziak bere forma moldagarria. Guretzat eta hemen, hizkuntzak harreman bat ahalbidetzen du, ez da pentsamendu hutsa; guretzat eta hemen, hizkuntza *zer* bat da *zerbait* komunean jartzeko. Hor hartzen du forma esentziak.

Elkarlanerako lanabes bihurtzen zaigun heinean eta joko sozialerako lantresna zaigun neurrian gorpuzten da gure esentzia. Landare-haziaren antzerakoa eta berebizikoa da guretzat esentzia, halako moldez berebizikoa, non esentziak, haziaren antzera, *zer* berria erba bailezake, egokiak direnean baldintzak. Hemen, hazia interesekoa dugu

landarea dakarkigun heinean, ikusgarri egiten den heinean, ukigarri dakigukeen heinean. Hitz da hazia, komunikazioa landarea. Eta zein da euskarazko komunikazio-esparruaren substantzia? Gogoan izan ezen euskara, batez ere, *euskararen bertan* dela; dena dela, batzuetan *ele bitan* bilatu beharra dago, eta inoiz *hiru eletan* ere bai. Esan nahi da: euskarak argia eta mundua ikus litzake euskararen bertan, egoera puruan; beste batzuetan konpainian ikusten ditu argia eta mundua. Baina han eta hemen, oinarritzko hura da esentziala: euskara.

Esentziatik substantziara jauzi eginda, gaur eta hemen, substantzia da *komunikazioa*, harreman-jarioa: pribatua nahiz publikoa. Hemen substantzia da *komunikazio-estrategian oinarritutakoa*: batzuetan datu-trukea, inoiz leku-kotasunaren aldarrikapena, baita limurtze-saioa ere.

Komunikazioa *substantziala* zaio euskarari, esentziaren substantzia den heinean: alegia, han non gorpuzten baita esentzia. Hartara, euskararen substantzia da *edozein gauza material osatzen duen edo osa dezakeen materia komunikatzailea*. Komunikazioa da esentziari, gure artean hizkuntzari (euskarari) *forma* ematen diona, *forma bat* ematen diona. Komunikazioa da euskararen *forma substantziala*; beste hitz batzuetan esanda: euskararen *gizarteratzailea*. Ezen ardatz nagusi baitzaio euskarari komunikazioa. Komunikazioak munduratzen du euskara. Gizarte-komunikazioak bihurtzen du bizigarri euskara atmosfera publikoan.

Baina egin dezagun aurrera: orain galdera nagusia da ikustea substantziak nola baldintza lezakeen esentziaren etorkizuna. Galdera sakona da, proiektzioaren eta espekulazioaren mamuak pizten dituen. Gure kasura etorrita, hizpide dugun esparruaren substantzia komunikazioa da, euskararen joan-etorri librea bermatzen duen hedabide-sistema. Esana dugu halaber orain desafio nagusia honako hau dela: ikustea substantziak zelan baldintza lezakeen esentziaren etorkizuna. Eta memento, baldintzatzen du, horixe baietz: substantzia, elementu gizarteratzailea, komunikazio-esparrua indarge, ahul daukanez, euskara bera ere ahul dago. Harremana bestela ere arrazoitu daiteke: hizkuntza gutxitua denez, komunikazio-esparrua ere halamoduzkoa du euskarak. Harreman dialektiko hau gorabehera, argi dagoena da gaur egun euskarazko komunikazio-esparrua makal samar dagoela. Jose Mari Velez De Mendizabalen berba hauek horren adierazgarri dira⁷:

“(…) Hirurogeigarrenetako euskal kulturaren kontsumoa hutsaren hurrena zen. Eta gaur egun ere, populazioaren zati konkretu batekoa ezik, oso txikia izaten jarraitzen du. Hamarkada hartan, euskal irakurleen kopurua anekdota bat zen (...) eta (...) idazleak -gutxi izanda ere!- gehiago ziren euskal prentsa eta liburuetara hurbiltzen ziren irakurle soilak baino.

Euskal analfabetismoa oso altua zen gizarteko maila guztietan. (...)

Berrogei urte geroago, frankismoaren erorketaren aurrean itxaroten genuen susperraldi askatzaileen izpiek ahultasun kronikoan segitzen dutelakoan nago. Ia-ia bi belaunaldi oso euskal eskolan hazi eta hezi den arren, nire zalantza sendoak ditut bide onetik ote goazen. Hezkuntza sistemak euskarazko kontsumoa suspertzeko azpiegitura egokia ez duela ezarri iruditzen zait, eta gure gizarteari mekanismo politikoak falta zaizkio garapen integralerako (...).”

Euskarazko komunikazio-esparrua izan bada, beraz, baina ondo ahula da bere izate hori. Egia da halaber kontu hauetan argazki sinkronikoari, unean unekoari baino, bilakaera diakronikoari, denboran zehar izaniko garapenari erreparatu behar zaiola.

Eta, bigarren ikuspegi horretan oinarrituta, aurrera egin dugula ere esango du askok. Hurrengo txostena aurkeztuko duten lagunek azalduko digutenez, ordea, oraindik bide luzea geratzen zaio euskarazko komunikazio-esparruari. Alegia, esentziaren gizarteratzaile den substantzia sendotu beharra dagoela, baldin eta esentziak, euskarak, libre zirkulatzerik izango badu.

Eta, beste itaun bat: indarririk ba al du euskarazko komunikazio-esparruak ahulezietatik ihes egin eta aurrera jo ahal izateko, orduan?

2.2. Potentzia

Egiten ahal dena omen da potentzia; baina, potentzian den guztia ez da nahitaez amestu den modu hartan gauzaten. Potentziak badu espekulaziotik zerbait. Potentzia deitu zaio sarritan bilakaeraren printzipioari, aldaketa ahalaria, bihurtzearen aukerari.

Urak indar potentziala du altuan denean, zeren jaustean benetako indarra garatzen baitu. Amets-bideak pizten ditu potentziak, gauzatzeko-bidean jartzen ditu ahalak. Potentziazko indar hori bideragarria izan daiteke, nahiz batzuetan ez den hala, eta ihes egiten digun.

Gainera, *potentzia* esaten bide zaio zerbait ongi burutzeko gaitasunari, edo ongi burutzeko nahimenaren araberako gaitasunari. *Potentzia* da gauza guztien baitan dagoen indarra: bideragarria nahiz bideratzeko ezina.

Eta, zein da euskarazko komunikazioaren potentzia? Zein da horren aldaketaren ahala edo bilakaeraren aukera? Zein da euskarazko komunikazioaren indar-gaitasuna?

Zein den bere potentzia? Bada, amets-bidea eta gauzatzeko-bidea arian-arian zehazten doazena. Batez ere, euskarazko komunikazioaren potentzia da bere baitako biltegia, bere esparrua, bere espazio propioa, berezkoa eta berezia: bere zurrumbilo esentziala. Urak argindarra sortzeko legez, euskarazko komunikazioak berak ere bere biltegia behar du, bere multzo propioa, etorkizun komun bati begiratuko diona, horizonte komuna eraikiko duena.

Mendiko ur guztiak ez dira batera eta modu berean bideratzen. Ez. Eta, ez du zertan. Zenbait erreka hor zehar dabilta, bide bakarrera eraman gabe; euren edertasunean ari dira. Presan hartu arte, argindar handirik ez dute eman go horiek. Eta halakoxea da euskara auzoko erdalduetan, ez du bonbillaren goritasuna ahalbidetzen; basotik at eraldatu den hazia da.

Erdarekin inguratutik, potentzialki bigarren mailako hazia da euskara, landare eskasa. Potentzialki, euskararekin da indartsuen euskara, orduan sortzen du benetako sinbiosi eragilea. Azken urteotako euskara hutsezko kazeten jardunak, batetik, eta elebidun diglosikoenak, bestetik, argi eta garbi erakusten dute hori.

Potentziari begiratuta, akaso, norbaitek galdetuko du: *ahalgarri al zaigu aurrerago jotzea? Edo: badugu etorkizunean gaur baino hobeto egoteko konfiantzarik? Posible al dira gure artean estrategiak, aurrerago jotzeko?*

Nahiak, nahi izateak berak markatu ohi ditu maiz posible denaren mugak. Jar ditzagun puntuak esanikoa egiaztatzen duten adibide batzuk. 1980ko hamarraldi hasieran, *Gure Irratia* euskara hutsez ziharduen Euskal Herriko lehen irrati modura plazaratu zenean, baina, *Radio Adour* elebidun diglosikoaren hautua hobetsi zuen euskaltzale askok eta askok posibilismoaren izenean, Lapurdiko kostalde frantsestuan euskara hutsez jardutea ameskeria zela argudiatuta. Gaur *ETB1* bezala ezagutzen dugun katearen begiak euskaraz ireki ziren, albistegi bat euskara hutsez egitea ezinezkoa zela zioten ahots askori aurre eginez. Ber gisan, *Euskaldunon Egunkariaren* sorrera-garaian asko izan ziren euskara hutsezko eguneroko bat egiteko baldintza objektiborik ez zegoela esan zutenak. Ezin ahantzi, era berean, garai hartan bertan inor gutxik pentsatzen zuela tokian tokiko informazioan erdarazko hedabide handiei aurrea hartzea posible zenik, herri-prentsa euskaldunak besterik frogatu zuen arte. Adibide asko ezagutu ditugu, azken urteotan batez ere. Argi dago, beraz: baldintza objektiboak garrantzitsuak dira, baina ez ditzagun ahaztu baldintza subjektiboak.

Egin dezagun aurrera. Spinozari irakurriko zeniotenez: zenbat eta perfekzio gehiago baitu gauza batek, hainbat eta gehiago du egiten eta hainbat eta gutxiago pairatzen⁸. Hori nahi izaten dugu denok; hortaz, saia gaitzen honoko itaun hau argitzen: *zer falta zaie gure hedabideei, euskarazkoei, gehiago egiteko eta gutxiago pairatzeko, gutxiago sufritzeko? Horri erantzuteko gauza al gara?*

3. Euskarazko komunikazioaren maratilak

Bada, aurrekoa hona ekarriz: *posible ote da gure artean aurrerago jotzea ahalbidetuko diguten estrategiak sortzea?* Horixe da maratilaren erronka. Erantzungo al diogu horri?

Crocek inoiz esan izan duenez, galdera orok berez darama galdegaiaren berri izatea, nolabait⁹. Beraz, intuizioz, badirudi euskarazko hedabideen inguruan etorkizuneko estrategia posibleak *posible* direla; esan nahi baita, euskarazko hedabideen etorkizuna asmatzean, intuitu, intuitzen dela estrategia batzuk posible izan litezkeela; alabaina, intuitu, intuitzen da estrategia batzuk ezin direla inola ere posible izan, agian.

Euskarazko komunikazioak bildu gaitu hona. Eta, jakina, kidesun-sentipen orokor batek, hots: euskararen herriko kide izatearen sentimendu komunak. Konstatazio horrek sintonia eta gutxieneko adostasun-maila aitortzen dizkio etxe honetara bertaratutako ororen artean sortutako giroari. Beraz, etorkizuna badute gure esentziak eta substantziak, bai *potentzialki* bederen, lehengo hitzak gogoratuta.

Ironia apur bat duen salaketa batek emango digu koska berri honetara igotzeko indarra. Irakurria izango duzu noski honoko hau, edo zuri zeuri esan izan dizute inoiz; edozein modutan ere ez zaigu arrotz egingo: zure liburuak, oi zein gustura irakurriko nituzkeen... erdaraz baleude!¹⁰ Berdin-berdin, zure artikulua, edo zure erreportajea, edo zure dokumentalak...

Izan bagarela jakiteko nahiz aurrera egiteko, ordenatu behar izaten ditugu gure pentsamenduak: *gai bakunenetatik eta ezagutzeko errazenetatik hasita, poliki-poliki, mailaka bezala, konposatuenean ezagutzara igoz*, Rene Descartesek esango zukeenez¹¹. Dakigunetik ez dakigunera egin beharko genuke jauzi. Dakiguna da garena. Ez dakiguna da izango garena, hor dago gure potentzia. Garena gara, izan garena izan garelako; baina, baita izango garena izan gura dugulako ere.

Has gaitzen beraz dakigunetik: euskarak badu beste inorena ez den esparru propioa eta berezkoa, berezia: bere esentziak ahalbidetzen duena. Munduaren kognizioan eta horren azalpenean, euskararen esparrua berea da; eta da: erdarena ez dena, hain justu. Bere-bereak dituen esparru kognitiboak eta ehundura azaltzaile propioak ditu euskarak, bere-bereak eta ez beste inorenak.

Euskara bat izan da eta hala da, eta erdarak beste zerbait izan dira eta badira; ez da irakurketa baztertzaila hemen proposatzen dena, baina, hala ere, bereizketa derrigorrezkoa da. Horrek ez du esan gura erdara gurea ez denik, baina *gurea* izan arren, ez da *euskararena*. Pertsonarenak izan daitezke, eta hala dira kasu askotan, euskara eta erdarak. Pertsonak ditu bereak euskara eta erdarak, baina euskarak ez du erdara bere, ezta kontrara ere; zeinek bere lekua dauka.

Beraz, euskarak bere esparrua, berea eta propioa du. Beste kontu bat da gizakiak berak esparru desberdinak egin ditzakeela bereak, eta hori ona ei da, mundu guztiak dienez (are hobea gurea bezalako hizkuntza-komunitate txiki-kientzat, oso garrantzitsua baita horrelako komunitateetako kideek hizkuntza bat baino gehiago jakitea, bai mundu zabalarekin harremanetan izateko, bai mundu zabal horretan sortzen diren ekarpen interesgarriak norbere hizkuntzara ekarri ahal izateko; haatik, lehen ere esan dugun moduan, gauza bat da eleaniztasun indibiduala eta beste bat inon inoiz modu orekatuan gauzatu ez den ustezko eta balizko elebitasun soziala).

Gatozen berrito bide nagusira, zeharbideak bazter utzita: Euskal Herrian, funtsean, *euskal* komunikazio-esparrua eta *erdal* komunikazio-esparruak dauzkagu. Izan ere, komunikazio-esparru *elebidunak* anekdotikoak dira gizarte-komunikazioan, euskara egiten dute bonsai erdararen basoan. Beste kontu bat da zehaztea ea euskarak berezkoa duen komunikazio-esparrua *bat* eta bakarra den edo, aldiz, askotarikoa, plurala. Esan nahi baita, agian, euskarak

berezkoa duen esparrua, bat eta bakarra izan ordez, esparru aurpegi- eta izate-askotarikoa dela. Eta, iruditzen zai-gunez, euskararen esparruak arlo desberdinak dauzka bere baitan, kudeatzen dituen lur-sailen ezaugarrien arabera. Goazen horretara.

Euskarak badu esparru barru-barruko bat, indibiduala, hiztunarena berarena dena. Hiztunak bere buruarekin euskaraz egin lezake, euskaraz amets lezake mundua, euskaraz irudikatu etorkizuna, euskaraz jaso iragana. Hor, euskarak barne-hizketa, barne-komunikazioa garatzeko esparrua eskaintzen dio pertsonari. Eta esparru hori oso da humanoa, eta oinarrizkoa beste edozein marrazten ahalegindu aurretik. Auto-eragin puruzkoa da esparru hori, indibiduala deitu izan dioguna. Abiapuntuko komunikazio-esparru giltzarria da.

Baina esparruen definizioa ez da horretara mugatzen, ezta hor ahitzen ere. Arestiko esparru barne-barneko horretaz gain, euskarak esparru irekiagoak irabaz litzake oinarrizkoa, primarioa, den aurrekoaz gain, baina hura finkatu ondoren. Euskarak lagun hurkoarekiko komunioa ezartzeko bide eman lezake, lehen truke gorputz-kanpokoa ahalbidetu lezake. Eta, hala denean, euskarak burmuinetik harago egingo du jauzi; intimitate indibidualetik harago egingo du jauzi. Elkar-eraginaren esparrua da hori, pertsonaz harago joan den heinean. Euskarak kanpo-hizketarako bidea eman lezake, kanpo-komunikaziorako bidea ematen duen heinean.

Barne-hizketa eta hizketa hurkoaren esparruak deskribatu berri dira. Kanpo-hizketarako jauzi nagusi horrek gero eta lur-ezpain gehiago irabaz ditzake, gero eta irekiagoa izan daiteke, gero eta globalagoa bihurtuta. Behin pertsonaz hara indiko arloak bereganatzen hasita, balizko bide zabalagoen bilaketak ez duke azken mugarririk: euskarak lagun-taldeak eta espazio publikoak irabaz ditzake, eta hala egin du denboraren poderioz, batzuetan fortuna handiarekin, beste batzuetan fortuna eskasarekin. Gorputzaz kanpoko esparru horietan, kalea egiten du bere euskarak; ikusgarria eta entzungarria den heinean, gizartearentzat ere kontuan hartzekoa da euskararen esparru zabal hori.

Eta euskarak bere egingo balitu nazioarteko sareak? Txapela buruan, euskara munduan ibiliko balitz, zer? Esparru besarka-gaitza amestuko luke. Baina, hala eta guztiz ere, bere esparru txikiagoak gordeko lituzke: barne-barnekoa, hurkoaren komunioaren arlokoa, kale eta auzuneetako, herrikoa eta hizkuntza-komunitatekoa.

Eta mundu honetan, esparru horiek guztiek esentzia linguistiko desberdin eta berezituak esparru ahaideak dauzkatelaldamenean. Askoren buruan, barne-barneko esparruan ere euskara erdarekin bizi da, kalean euskara erdarekin bizi da, munduan euskara erdarekin bizi da. Baina euskara ez da erdara, *geza* sagastian *urtebia* ez den modu berean. Ikus litekeenez, euskararen esparruak barne-esparru berezituak dauzka, besarkatzen dituen lur-arloek dauzkaten ezaugarrien arabera. Eta, hara, tarte honetan, beste galdera bat: euskara pentsatu eta komunikatu horren balizko esparru horiek guztiek ba al dute etorkizunik?

Itauna formulatu baldin badugu, erantzunen bat irudikatzen dugulako da. Euskarazko komunikazio-esparruak etorkizuna badu; zuhaitzek etorkizuna izan lezaketen moduan, ur garbiek izan lezaketaren modukoa. Etorkizuna eduki, denak du; baina baldintzatua, jakina. Aipatu dugu lehen etorkizun-kontu hauetan nahi izatea faktore giltzarria izan ohi dela, baina ez da bera giltzarri bakarra: izan ere, testuinguru batzuetan errazago da aurrera egitea, beste batzuetan nekezago, baten batean ezinezkoa, agian; baina eduki, denak du, etorkizuna. Zelakoa da kontua; egunak bere eguraldia du, beti, nolakoa duen da arduratzen gaituen afera.

Bakarrizketaren etorkizuna oso da norberarena. Norberak mugatzen du bere buruarekin hitz egiteko hautatutako kodea eta sistema, bat baino gehiago dituenen. Norberak nahi duen bitartean, ez dago ukatzerik euskarazko barne-hizketak etorkizuna baduena. Gaixotasuna edo heriotza tartean ez badira behinik behin, nola ukatu barne-hizketaren indibidualismo purua; dakienak dakien heinean, bere esku dauka bere nahierako sistema.

Hurkoarekiko komunioaren etorkizunak baldintza gehiago izan lezake. Ez da nahikoa batek jakitea eta egin nahi izatea. Lagunak ahalbidetu behar du norberak nahi duena, batek erraztu behar dio bidea besteari. Gutxienez biren

arteko kontua da kanpo-hizketa. Kanpo-hizketaren esparrua konplexua da, batena baino biren esku-hartzea exijitzen duena, eta, hartara, negoziazioari lotua da. Konbentzimenduari, bestea norberaren tesietara hurbiltzeari, dago lotua hurkoarekiko komunikazio-esparruaren etorkizuna.

Espazio publikoaren etorkizuna are gaitzagoa izan daiteke: baldintzak ugaritzen diren heinean, konplexutasunak mailaz maila gora eta gora egin lezake. Gehiengoan eta gutxiengoan talka ere hor dago, legeen konkurrentzia bera ere hor dago; borondate individualari borondate publikoa eta administratiboa gehitzen zaizkio. *Zenbat buru hainbat abururen* esparru besarka-gaitzaren aurrean aurki gintezke, beraz. Babesa eta eraso, ghettoa eta plaza publikoa... aldagaiak gura beste. Erantzun bakarrik ez, ezin. Zilegi liteke pentsatzea ezen zenbat eta indartsuagoak izan barne-barneko eta hurbileko esparruak, orduan eta indartsuagoak izan daitezkeela esparru irekiak eta publikoak. Baina hori bermatzerik ez dago.

Horregatik hain zuzen, globalismoaren garaiko euskararen eta euskarazko komunikazio-esparruaren etorkizuna marrazteko paleta ona ez ezik esku ona ere beharko da, baldin eta oihala arrakastatsua izatea gura baldin bada behintzat. Globalismoak baldintza ugari dakartza berarekin: asko zailak, beste batzuk, aldiz, erosoak. Beltza eta zuria batera bizi dira garai zibernetikootan (garai guztietan bezala, bidenabar esanda). Globalismoaren garaiko euskararen eta euskarazko komunikazio-esparruaren etorkizuna posible da, litezkeen munduetakoa den heinean. Eta, itaunetara itzulita, iteera komunik ba al dute komunikazio-esparru desberdin horiek? Etorkizun komunari buruz ari gara, potentzia komunari buruz, hain zuzen ere. Bada, bai; hala behar dute-eta.

Herri nekatua ematen du euskararen geureak, zorretan itota balego moduan. Hala ere, Arestik ziokeenez, beste inoren zorrik ez genuke ordaindu beharko. Ematen du etxean ez dagoela ogirik eta, dirurik ezean, inoren ondra erosi beharko litzatekeela, jaia eta laneguna berdintzeko, Gernika irabazteko eta infernua garaitzeko. Asko ei dira euskararen komunikazio-esparrua erdarazko komunikazio-esparruetara hurbildu nahian dabiltzanak, horren menpeko egin guran ari direnak. Ondra galtzea dakar horrek.

Zer iteera komun dute gure komunikazio-esparru desberdin horiek? Bakarra: *euskararen erkidegoa indartzea*. Duela urte batzuk jada, Lucien Etxezaharretak aterabide bakarra “gure kultur espazioaren gureganatzea” zela adierazi eta zera erantsi zuen euskararen herria indartu behar horri buruz¹²: “Ikastolek bidea erakusten dute. (...) Hori da azken hamar urteetako egitate handienetarik bat. Euskara euskaraz zaintzea eta zabaltzea; ximplea da iduriz, baina hor da ekintza iraultzaile handia.”

Hau da, edo euskal hizkuntza-erkidegoa euskararen etorkizunaz erdituko da, edo ez da izango. Arestiko esparru desberdin, askotariko horiek etorkizun komuna dute edo ezer ez dira izango. Alegia, barne-barneko esparruak lagun hurkoaren adiskidantza du, edo gero eta hutsalagoa izango da; esparru hurbil eta konfiantzazkoak kalearen laguntza du, edo gero eta ahulagoa izango da; kaleak hizkuntza-erkidegoaren laguntza du, edo gero eta bakartuago sentituko da. Hizkuntza-erkidego hori, berriz, ez da hitzun-gune nagusiak dauden lurraldera mugatuko, lurralde horretaz landa eta itsasoz bestaldean ere aurkituko du adiskiderik, edo bestela bere muga estuen barruan itoko da. Hartara, edo komunikazio-esparru horiek guztiek elkar elikatzen dute, edo ez dira deus izango.

Potentzia komuna garatzeko, hizkuntzak estatusa, praktikotasuna, atsegingarritasuna, funtzio soziala... horiek guztiak behar ditu. Eta, horiek guztiak bat eginda inon aurkitzekotan mundu moderno honetan, gizarte-komunikazioaren esparruan aurkitzen ditugu, modu paradigmaticoan aurkitu ere.

3.1. Substantzia mediatikoa: diglosiaren dantza

Usteak, erdiak ustel; askoren hutsa da hemen. Bestela izan zitekeela pentsatu genuen, baina Historiak geure lekuan jarri gaitu. Izan ere, aurreko mendeko hirurogeita hamarreko urteetan Hego Euskal Herriko prentsa berriemaile elebidunak euskarazko prentsaren alde zerbait handia egin zezakeela uste izan bagenuen ere, denborak argitu digu

planteamendu hori hutsaren hurrengoa izan dela. *Asko egin daiteke euskararen alde erdaraz*, zioten, sinetsi nahi izan genuen, sinetsi egin genien; baina espero baino gutxiago egin da, gutxi zinez.

Balitzko demokrazia linguistiko baten izenean, Hegoaldean aldizkariak eta egunkariak *ele bitan* agertzen hasi ziren frankismoaren azken hatsetan; alderdi eta talde bakoitzak bere-berea sortzeari ekin zion. Une hartan, beste askoren antzera, Euskal Herriak prentsa berriaren eta berriztatzailearen beharra zeukan, eta gogo hori asetzen saiatu zen. Elebitasunak euskaldunon hizkuntza-beharrak bideratuko zituelakoan, eltze berean nahastu ziren esentzia desberdinak. Ez da zopa onik izan ondoren, ez behintzat euskararentzat. Are: prentsa elebidun diglosikoaren *lehorreratzeak* (esan dezagun horrela) hondamendia eragin zuen orduko Hego Euskal Herriko euskarazko kazeten ontzidian. Garai hartakoak dira, berbarako, *Anaitasuna* eta *Goiz-Argiren* heriotza-ziurtagiriak, eta *Zeruko Argia* bera ere hil-hurren izan zen harik eta, *Argia* huts bihurtuta jada, ezarian-ezarian indarberritu zen arte.

Mende laurden inguru igaro da ordudanik. Euskal Herriko hedabideen panoraman aldaketa izugarriak izan dira urteotan. Hedabide batzuk jaio diren bezalaxe, beste batzuk hil egin dira, edo hil egin dituzte. Merkatu-legeek, kontsumo-azturek, zalantza politikoez, jazarpen judizialez, herri borondateek ezaugarritu dute gure esparrua; eta baldintza horiek ez dute beti lagundu euskarazko oihala. Sasi guztien gainetik, bai prentsa, bai irratia, bai telebista, baita sareko atariak eurak ere hor daude, batzuk euskaraz eta gehienak erdaraz.

Edozelan ere, urteak joan urteak etorri, pertsonok gure harreman indibidualak zein kolektiboak garatzeko eta bideratzeko beharrezko dugun tresna kognitibo eta azaltzaile nagusi izaten jarraitzen du hizkuntzak, bera da giza eta gizarte-harremanetarako eta komunikaziorako erremintarik behinena. Nola pertsonak hala jendarteak hizkuntzaren beharra dute mundu erreala ezagutzeko eta mundu horri buruz eztabaidatzeko. Hizkuntza ez da beste tresnaren bat, da Tresna. Erkidegoaren osatze eta trinkotze prozesuetan, tresna kognitibo eta azaltzaile hori falta baldin bada, hankamotz dira prozesuok. Hankamotz, zeren mundua ulertzeko erreminta falta baita. Hankamotz, zeren diskurtsoa eraikitzeke erreminta falta baita.

Zer kognizio-bide da eleaniztasuna herri baten egituraketa publikoan? Zelan pentsatzen dute eliteek, zein hizkuntzatan inferitzen dute? Zer alokuzio-modu hautatuko dute elite horiek? Zein hizkuntza bidezkoa da eliteon agerrialdia gizarte-komunikazioan? Eleaniztasuna? Zer da hori? Euskarazko kognizio eta alokuzio indibidual nahiz publikorik gabe, gaitz dute euskarak eta euskal hedabideek gora egitea. Elitearen isla mediatiko euskaldun barik, zer botere-harreman gara dezake euskarak diglosiaren basamortuan?

Isla hori eta kognizio eta alokuzio indibidual zein publikook bermatzeko, euskarazko kultur ekoizpena eta zirkuitu mediatiko taxuzkoak bermatzeko, esparru egituratu eta autozentratuaren premian gaudela deritzogu, modu horretan, behingoz periferiko izateari utzita, gure hizkuntza bere neurrira jositako soinekoan eroso senti dadin. Zer da, baina, ahotan darabilgun euskararen esparru autozentratua? Eta zer egituratze-motari buruz ari gara?

4. Potentzia autozentratua: nor bere esparrutik, hizkuntza-erkidego osora

Herria da gorputza, hizkuntza bihotza. Gorputz mediatikorik jartzen ez zaion bitartean bihotzari, euskaldunak izan ere ez gara atmosfera publikoan. Prentsa euskaraz bizi da. Irratia euskaraz bizi da. Telebista, neurri apalago batean, euskaraz bizi da. Ziber-mundua euskaraz bizitzen hasi da. Bizi, bizi dira; denak begibakar, denak hankamotz. Zergatik? Kate-begi isolatuak direlako euskarazko produktu mediatikoak. Eta, bestetik, hauskorrak iruditzen zaizkigulako tresna horiek.

Osootasun- nahiz iraunkortasun-koziente txikiko esparrua da euskaldunona hedabideetan: gure hedabideak osooak direnik askok ez du sinesten, ezta iraunkorrak direnik ere. Eta badira: beste asko bezain osoak, beste asko bezain iraunkorrak. Ez gatoz basamortutik. Larre motzetik bai, basamortutik ez. Bada, atera kontuak.

Errore handia da gizarte-komunikazioaren kate-begi bakartuak sistema integratu batera ez hurbiltzea: txikitasunean indar-ahala ez indartzea dakar horrek, urak alde egiten uztea dakar horrek. Gure potentzia zaindu behar dugu. Metatu eta abian jarri.

Gizarte-komunikazioari begira, euskaldunak txarto eta deseroso sentitu gara maiz. Ate berriak irekitzea da kontua eta, horretarako, beregaintasun kulturala nahiz linguistikoa beharrezkoak ditugu. Egia esan, hedabide zenbaitek ahalegin dezente egin du dagoeneko norabide horretan, baina ez da nahikoa.

Gure Irratia, *Irulegiko Irratia* eta *Xiberoko Botzak* sorturiko *Euskal Irratiak* egitura eredugarria da, potentzia eta indarra zaintzeari eta biltzeari gagozkiola, eta ezin ahantzi oztopoak oztopo bide hori jarraitu guran dabiltzala Euskal Herriko beste hainbat irrati ere, *Arrosa* egitasmoaren inguruan bilduta.

Telebista arloan ere bada mugimendurik, euskarazko tokian tokiko telebistek aurtan bertan abiarazi baitute euren arteko koordinazioa eta *ETB* handiarekin ere berbetan ari baitira.

Prentsaren alorrera etorrita, euskarazko tokian tokiko kazeta askok Topagunean bilduz geroztik eskualdeka egituratu, botaldiak handitu eta maiztasuna areagotzeari ekin diote. Era berean, Euskarazko Komunikazio Taldeak kaleraturiko *Berriak* eta tokian tokiko *Hitza*-sortak ere esparru egituratu indartsua ari dira sortzen. Ezin ahantzi, halaber, *Argia* eta *Herria* klasikoei sortu zaizkien bidelagunak ere badaudela: dela *Zabalik*, dela *Aldaketa 16*.

Unibertsitate-, ezagutza- eta teknologia-alorretan ere hor daude erreferentzia ezartzen *Uztaro*, *Jakin* eta *Elhuyar*. Gauzatuko al da EHUk bultzatu gura duen euskara hutsezko telebista-katea, bai zientziaz, bai kulturaz baita teknologiaz ere?

Alorrez alor, beraz, gauzak mugitzen ari dira, baina hori da kontua: alorrez alor ari direla mugitzen (astiro, hale-re), alor bakoitza gainerakoekin harremanik ez daukan gela bakartua bailitzan. Badira, zorionez, eskema zurrun hori gainditzan saiatzen diren planteamendu multimedia batzuk (Goienaren kasua hor da, adibidez), baina salbuespen bakan baino ez dira oraingoz. Gabezia horretaz landa, gainera, indarrak alferrik ez xahutzen eta baliabideak optimizatzen lagunduko lukeen sektorearen plangintzarik eza, koordinazio falta antzematen da.

Zelan bideratu ordea plangintza hori? Ez da erraza, inolaz ere; batetik, plangintzak uniformetasuna eta zurruntasuna izan ditzakeelako lagun eta, aldi berean, monopoliorako tentaldia presente egon daitekeelako; haatik, beste muturrera jauzi eginda, gehiegizko sakabanatzeak ahulezia ekar dezake ondorio modura. Funanbuluen gisan ibiltzea dagokigu, beraz, oreka zail horren xerka.

Edozelan ere, plangintzarekin edo plangintza barik, koordinatuta nahiz nor bere kasa, baina argi izan behar da euskarazko hedabideek, euskarazko diren heinean, arazo komunak dituztela. Egin kontu: uneotan euskararen presentzia mediatikoa txikia bada, are txikiagoa izango da laster, 50 kate baino gehiago etxeko ezkaratzeraino helduko zaizkigunean. Ezin ahaztu, horrez gain, komunikazio-talde erraldioen fusio-prozesuen aroan bizi garela eta moka-du ederra izan gaitzkeela haientzat.

Hori guztia gogoan, beraz, igarri-igarrian dago euskarak bere zentralitate propioa ezartzeko daukan premia gorria. Panorama hori izanik, logikoena zera litzateke: bakoitzaren ardura nagusia nork bere alorra zaintzea izateaz gain, euskaraz diharduten hedabideen artean elkarlan-politika abiatzea.

Edozelan ere, dezentez errazago da kontuak formulatzea gero beroriek gauzatzea baino, elementu esentzialean (euskararen) bat etorriagatik, elementu horren substantzia gizarteratzaile diren hedabideen artean interes-gatazkak sortzen direlako. Horregatik hain zuzen, batera ezer egitekotan, lehen urratsa elkarren izate bereziaren eta autonomiaren onarpena izan behar da, bestea den errealtate horren aitorpena.

Behin pauso hori emanda (hain xumea itxura batean, hain korapilatsua praktikan), euskarazko hedabideek batera (eta, ahal bada, administrazio desberdinekin elkarlanean) garatu behar lituzketen lehentasunezko egitasmoak zerrendatzea letorke. Euskarazko komunikabideen aldeko sustapen-kanpaina bateratu batek, barbarako, guztiz lehentasunezkoa dirudi, gutxien-gutxienean kezkarria baita XXI. mende hasieran eta euskara batuta, hezkuntza sisteman burua sartuta eta lurraldearen zati batean behintzat ofizialtasuna lortuta dugun honetan, duela ia mende bateko jarraitzaile-kopuru bertsuekin segitzea. Lehentasunezko dirudite, halaber, beste zenbait egitasmok: oraindik ere eginkizun den euskarazko albiste agentzia, etorkizun-joera eta premiak identifikatu eta berauei erantzungo liekeen *cluster* moduko baten sorrera... Hau da, sinergiak bultzatuta babes-hesiak jaso behar dituela euskarazko komunikazio-esparruak, bere zentraltasuna arriskuan egon ez dadin (edo, zehatzago oraindik, behingoz bere zentraltasuna ezarri ahal izateko).

Babes-hesiok altxatuagatik, ordea, beste arazo bat ere izango da (egia esan, ondo presente dago dagoeneko) etorkizun gero eta globalizatuago horretan: zergatik hautatuko du euskaldunak euskarazko hedabidea beste dozenaka hedabideren artean? Dezente egin da berba honetaz dagoeneko, eta errezeta ere behin eta berriro aipatu izan da: besteek eskaintzen ez duten hori eskaintzen asmatzea da gakoa; plusak, balio erantsiak eskaintzea, alegia. Abstrakzioetik zehaztasunerantz etorri guran, *identitate bat eskaintzea* izan da batzuek botatako ideia, *ikuskeraz berezi bat* aipatu izan dute beste batzuek, *produktu originalak* egin behar direla ere entzun dugu...

4.1. Hizkuntza-erkidegoa eratzen

Kontuak kontu, plus horiek guztiak autozentramendutik etorri behar direla begitantzen zaigu. Kanpoko eragileen ereduen aurrean mimetikoki jokatu ordez, barrura ere begiratzea eta barrua askatzea esan gura du autozentramenduak; hau da, hizkuntza-erkidego propioaren egoeraz jabetu eta horren arabera soinekoak egiten saiatzea, inorena modu kaskarrean kopiatzen ibili beharrean.

Munduari hizkuntza-erkidego horren begiekin begiratzea, azken batean: haren kultur ondarea izatea oinarri, sorburu nagusi, mundura zabalik izanik betiere. Lehendik dagoena beste barik euskaraz paratzen tematu beharrean (horrela ez baitago eredu erakargaririk osatzerik, fotokopiek lan originalek baino kalitate txarragoa izaten dutelako beti), norbere hizkuntza-erkidegoaren kultur ondarea eta hari dagokion erreferentzia-sorta baliatuta horren arabera komunikazio-erkidegoa prestatzea, bertako kideak asebeteko dituzten komunikabideak eskaintzea, euskaratik bertatik (eta hizkuntza-erkidego guztia erreferentzia modura hartuta) informazioa kodetu/deskodetzeko eta jendea entretenitzeko tresnak eskuratuta.

Hizkuntza-komunitate guztia erreferentzia modura hartuta esan dugu arestian, eta horrek ere badu bere garrantzia, bai behintzat erkidegoaren barne-kohesioa sendotu gura izanez gero. Eta badago horren premia, bai, azken ikerketen arabera euskaldunona 700.000 lagun eskasek osaturiko komunitatea baino ez delako; gutxiago dira ordea islandiarrak, baina, oraingo honetan bertan egiaztatu ahal izango dugunez, alde horretatik ez daukate aparteko arazorik. Euskal hizkuntza-erkidegoa, aldiz, munduko hizkuntza-erkidego garrantzitsuenetako biren artean kokaturik dago, eta ez da erraza erraldoi bi horien artean norbere esparruari eustea. Horregatik, komenigarria ez ezik ezinbestekoa da, hizkuntza-komunitate horren barne-kohesioa sendotze aldera, euskarazko hedabideek darabiltzaten erreferentzia-sistemek komunitate hori osotasunean aintzat hartzea; izan ere, aldameneko hizkuntza-erkidegoetako erreferentziak baliatzean (oharkabea bada ere) norbere komunitatearen sakabanatzea apur bat gehiago zurkaizten baita¹³.

Euskararen erkidego mediatikoa, euskararen komunikazio-esparru garatua, bestalde, muga administratiboez gaindikoa izango da, izatekotan. Muga administratiboez gaindiko esparru kultural eta linguistikokoak zilegiak ez eze, gauzagarriak eta gorpuzgarriak dira. Guk geuk ere demostratu dugu hori behin baino gehiagotan, lehen legez baita orain ere: Urdazubiko Pedro Agerre Azpilkueta Saran egin zen *Axular*, eta Donostian jantzi zuen txapela Urepeleko Fernando Aire *Xalbadorrek*.

Beraz, euskararen parametroetatik pentsatu, diseinatu eta gauzaturiko erreferentzia-sistemak baliatu behar dira, erreferentzia-sistema horiek ondo koordinatutako komunikazio-esparru batean txertatzeaz gain. Hasieran altxatu dugun hezurduraren elementuekin esanda, esentzia substantziaren bidez gizarteratu eta bere potentzia guztia gartzea, azken batean. Eta beregaintasun kulturala eta linguistikoa behar ditugu horretarako.

Gauzak izendatzea, bistan denez, gauzok praktikan gauzatzea baino errazago da, baina izendatu ezean ezerk ez ei dauka izanik. Autozentramenduak eta beregaintasun kultural eta linguistikoak bide eman behar digute euskararen erkidegoa eraikitzeko, euskararen nazio mediatikoa bidegile dela.

Oharrak

1. Aristoteles, (1997): *Metafisika*, Klasikoak, SA, Bilbo, (129. or.).
2. Aristoteles (op. cit.: 149).
3. Lertxundi eta Mujika (ed.), (2001): *Koldo Mitxelena gure artean*, Alberdania, Irun (54. or.).
4. *Anaitasuna*, 323-324. zenbaki bikoitza, 1976-IX-15.
5. Aracil, LL., (1982): "El bilingüisme com a mite" in *Papers de sociolingüística*, Edicions de la Magrana (Els Orígens bilduma, 9. zenbakia), Bartzelona, (39-57. or.).
6. Izagirre, K., (1997): *Incursiones en territorio enemigo*, Pamiela, Iruñea.
7. *Larrun*, 48. zenbakia, 2001eko urria.
8. Spinoza, B., (1996): *Etika*, Klasikoak SA, Bilbo, (182. or.).
9. Croce, B., (1996): *Estetika brebiarioa*, Klasikoak SA, Bilbo, (13. or.).
10. Edorta Jimenezen ahotan jarritako salaketa.
11. Descartes, R., (1997): *Metodoari buruzko diskurtsoa*, Klasikoak SA, Bilbo, (26. or.).
12. Etxezaharreta, L., (1979): "Kultur espazioak eskuratu", in *Jakin* 10, (13-14 or.).
13. Ikuspegi honetatik, beraz, Madril edo Parisko gobernuak ez dira gobernu zentralak, eta Legebiltzarraz mintzo garenean ere EAEkoaz ala Nafarroakoaz ari garen zehaztu beharko litzateke, Ligako partidak edota Gobernuaren Ministerioak aipatzean, Espainiakoez ala Frantziakoez ari ote garen zehaztu beharko genukeen bezala, Alemaniakoez edo Indiakoez ari garenean egiten dugun moduan.

c. EUSKARAZKO KOMUNIKAZIOA: ESPARRU ALA EGITURA?

Mikel Irizar
Arrasate Komunikazioak nahiz Goiena multimediaren
sortzaile eta zuzendari ohia

1. Lau hitzetan

Lantxo honen intentzioa azaldu nahi nuke lehen lerrootan. Euskaraz ari diren hedabideen sektorea izendatzeko erabiltzen da 'Euskarazko komunikazioaren esparrua' deitura, baina esparru da bakarrik zelai, paraje mugatu, agertoki, plaza. Esparruan daudenak jardun daitezke bakarka, elkarrekin, elkarri bizkar emanez edo elkarren kontra. Esparruak berez ez du lankidetzat adierazten, eta euskarazko hedabideen esparruan ez da preziso lankidetzat sumatzen. Aldiz, uste dut lankidetzat hori beharrezkoa duela euskararen komunitateak, eta horregatik proposatu nahi diot sektoreari 'euskarazko komunikazio egitura' bultzatzea. Ondoko ataletan azalduko dut zergatik uste dudan hori, nola ikusten dudan sektorearen egoera eta zirriborratuko ditut urrats posible batzuk.

2. Tribuaren biziraupena

Besterik pentsatzeko joera badugu ere, euskararen komunitateak ez du seguru biziraupena. Areago, beste askoren antzera desager gaitzke, eta munduak berdin jarraituko du bueltara. Asko jota, euskaldunen museoa geratuko litzateke, izan ginenaren aztarna. Gure tribuak iraungo badu, erabakigarria izango da berak zer egiten duen, zer egiten dugun. Tribu txiki eta menpekota gara, baliabide urriak ditugu. Horregatik, handi eta ahaltsoak baino abilezia gehiago behar dugu erabaki estrategikoetan, komeni zaigu ondo asmatzea zertan jarri indarra, noiz eta nola egin urrats bakoitza. Nire ustez, eta une honetan, tribuaren biziraupenerako lehentasun osoa du komunikazio egitura indartsuak, hau da, egitura bateratuak.

Orain baino lehen, mila aldiz eta beste hainbeste kolorez marraztu da etorkizuneko mundu hiperkomunikatua, sarri askotan oso modu apokaliptikoan. Dagoeneko hasia da bistaritzen, ohikoak dira Internet eta sakelako telefonoa, telebista seinaleak biderkatu egin dira eta berdin telebista aurrean ematen den denbora. Komunikaziozko uholde horrek ezabatu egin lezake tresna egokirik ez duen komunitatea. Eta tresna egokiak dira tresna propioak. Euskaldunon kasuan, bizirauteko tresnak dira nagusiki gutaz eta bereziki euskaraz arituko direnak.

3. Amarauna *versus* koadrikula

Irudien morroi gara eta irudiak, askotan, sartu egiten dizkigute. Mundua dagoenetan, sekulako indarra egin behar da saihesteko -ahal den neurrian- morrontza inkontzientek. Berehala ulertuko da zer esan nahi dudana. Gaur egun 'sarea' aipatzen denean automatikoki datorkigu koadrikularen irudia, erregularra, berdina edozein puntutan. Eta irudi hau aplikatzen badiogu munduaren antolaketari, emaitza litzateke milaka milioi puntu berdin lotuta koadrikulan, abiada itzelak hutsean utzita distantzia, parean jarrita urrunekoa eta hurbilekoa. Oinarrian koadrikula lukeen munduak, azalean luke uniformetasuna.

Bada sarearen beste irudi bat, amarauna, armiarmaren sarea. Hau ez da puntu guztietan berdina, badu erdigunea, eta hemen biltzen dira hari erradialak, erdigunea lotzeko urrutiko puntuekin. Eta erdigunetik abiatzen da espirala, biribilak eginez, estuago hasieran, lasaiago gero. Amarauneko puntu guztiak ez dira berdinak, sareak berak azaltzen ditu hurbiltasunak eta lehentasunak. Amaraunaren arabera munduan, ez dago uniformetasunik, mailakatu egin daitezke harremanak hurbiltasunaren arabera.

Amaraunaren irudia, eta honen arabera mundu antolaketa, mesedegarriak dira identitate arazoak dituzten komunitateentzat.

4. Autozentrismoa

Ehundu berri dudan amaraunean, hurbileneko zirkuluek dute garrantzi handiena. Hau horrelaxe gertatzen da gure eguneroko bizitzan. Nahikoa da erreparatzea zer konpartitzen dugun norekin, eta non dagoen nor hori, konturatzeko hurbilean ditugula lehentasun eta interes gehienak. Bestela esanda, kontrako joera dute albiste baten interesak eta gugandiko distantzia. Auzoan hildako bakarrak zirrara handiagoa sortuko digu munduko beste puntan hildako ehunka lagunek baino. Hau berezkoa izaki, une batzuetan modernitateak eskatu du begiak jasotzea hurbiletik urrutira, gutxietsiz beti bere zilborrari begira dagoena. Eta, pendulua lagun, sarri hartu dira jarrera muturrekoak: edo aberrigabe edo ultra abertzale.

Aldiz, munduan suspertzen ari dira jarrera autozentratuak. Ez da mundua ukatzen, ez harekiko harremana, ezta haren eragina. Baina lehenesten da ikuspegi propioa inportatuaren gainetik. Informazioa mailakatu da hurbiltasunaren arabera, eta urrutiko gaiak lehentasuna hartzen dute bakarrik neurri handia dutenean edo eragin zuzena etxean. Berdin gertatzen da iritziarekin. Kanpotik datozen pentsamoldeak pasatzen dira bertako galbahetik eta lantzen da iritzi propioa. Azkenik, lan egiten da norberaren gaiak eta iritziak mundura zabaltzen, urrutian ere iturri zuzenetik jaso ahal izan dezaten informazioa. Erreferente gisa gelditu da dagoeneko *Al-Jazeera* telebista katearen eragina komunitate musulmana autozentratzeko, ikusmolde beregaina landu zezan.

5. Urre meategia

Zirriboratu nahi dudan prismak badu oraindik beste alde bat. Onar dezagun Informazio Gizartea hemen dela eta sekulako sare eta kanalak ari direla antolatzen. Horiek, ordea, ez dira azpiegitura teknologikoak besterik, beharrezkoak baina ez nahikoak. Informazio Gizartean -eta bizi bedi Perogrullo- informazioak ematen du balio erantsia. Alferrik jarriko dira sekulako azpiegiturak, gero horien gainean ez badabil informazio ona, tokian bertan lortu eta modu interesgarrian landutakoa. Informazio Gizartean, tokian tokiko informazioa urrea da.

Euskarazko hedabideak oso tokikoak dira. Alde batetik, tribu zehatz eta bildu baten emaitza dira eta hau dute jomuga nagusi. Bestetik, hedabideetako asko txikiak dira, tokikoak izateko sortuak. Honek esan nahi du, behingoz, euskarazko hedabideak daudela urre meategiaren gainean, hau gobernatzeko moduan.

6. Euskarazko komunikazioaren zeregina

Hedabideak baldin badira gorputz sozialaren zainak, komunikazioa da odola, gorputza elikatu, berotu, eta indartzen duena. Bera bakarrik nahikoa ez bada ere, ezinbestekoa da elkarren berri izatea elkarkide izateko, komunitate sentimendua gordetzeko. Kontrako aldera, nahikoa da komunikazioa kutsatzea gorputz soziala gaixoarazteko. Ez dira alferrik estatu kolpeak beti hasten hedabideak kontrolpean hartzearekin. Handik sartuko da odolean anestesia, loak har dezan gorputz soziala.

Euskarazko komunikazioak hauxe luke zeregin nagusi: euskararen komunitatea sendotzea, suspertzea. Lehenik eta behin, eman behar digu elkarren berri, bete behar ditu ondo amaraunaren lehen zirkuluak, hor baitaude gure egunerokoa betetzen duten osagaien bi herenak. Eta bigarren, lotu behar gaitu munduarekin, nola lotzen duten amaraunaren hari erradialek erdigunea urruneko puntuekin. Hau bi aldetara: mundua gureganatuz eta gu munduratuz. Behar dugu munduaren ikuspegi gurea, gure izaeraren araberakoa, gure parametroekin eraikia. Eta behar dugu munduak jaso dezan gure berri zuzena, gutaz jakiteko aukera izan dezan bitartekariarik gabe.

Euskarazko hedabideak betetzen ariko dira dagokien zeregina lortzen duten heinean barneko nahiz kanpoko erreferentzialtasuna lortuz.

7. Euskarazko hedabideen sektorea

Ez naiz hasiko hemen hedabide bakoitza goitik behera miatzen, aje bila. Helburu hartu dut lehen atalean euskarazko hedabideen elkarlana eta egitura bateratua bultzatzea. Orain tokatzen zait azaltzea nola ikusten dudan bakoitza helburu honen arabera.

a. *ETBI*

Mirakulua izan zen euskarazko katea sortzea, eta hori da hain zuzen bere ekarpen printzipala: hor egotea. Gainera, izan da eskola ezinbestekoa euskaraz trebatzeko kazetariak, teknikariak, aurkezle nahiz antzezleak. Hala ere, harra-patuta dago bere mugetan. Informazioari dagokionez, erdarazko katearen ondoan txiki ageri da, bigarren, eta apenas lortu duen euskarazko komunitatean erreferente izatea edo honen bozgorailu kanpoan. Ez zaio nabari dinamika propiorik eta lege arazoak ditu euskarazko beste telebistekin elkarlana garatzeko.

b. *Euskadi Irratia*

Gorabeherak izan ditu bidean, baina presentzia nabarmena du euskal komunitatean. Hau ere profesional askoren eskola izan da. Ondo landu du interaktibitatea entzuleekin, telefonoa, unitate mugikorrek eta e-posta medio. *Euskadi Gaztearen* bidez lan handia egiten du belaunaldi berriengan euskara errotzeko. Gaztelaniazko katearen ondoan, nortasun gehiago ikusten zaio etxe bereko telebistari baino, nahiz itxura batean baliabide murrizagoak dituen hark baino. Arazo handiak ditu elebakar euskaldun jarduteko, nagusiki elebakar erdaldun den gizartean. Seinalea eskuzabal eskaintzen die beste euskarazko irratiei, baina ez du hauekin elkarlanik garatu.

c. *EITB*

Oro har, EITB autista samar ikusten dut sektorearekiko. Bere helburuetan murgilduta, ez du inongo lidergorik hartu euskarazko komunikazioaren esparruan elkarlana garatzeko edo egitasmoak bultzatzeko. Ez dago batere garbi ba ote dagoen arduradunengan horretarako borondaterik ere. Zerbait egin duenean, kasik behartuta izan ohi da.

d. *Berria*

Oso bestelakoa da euskarazko egunkariaren egoera. Bere aurrekoa ere sasoiko zegoen indarrez itxi zutenean, baina oraingoak hobetu egin ditu haren markak. Sekulako babesa jaso zuen gizartetik sortzeko orduan, diruzkoa tarteko, eta horrek kemen handia eman dio aurrera egiteko. Produktu nagusia osatzen ari da, eta honen inguruan abiatzen ekimen osagarriak, hala nola banaketa egitura edo publizitatearena. Hala ere, egitasmo handiena da eskualdeko egunkariena. Hau gauzatu da dagoeneko hiruzpalau eskualdetan, eta bidean da beste horrenbestetan. Itzalik aipatzekotan, egitasmoak ez du behar bezainbat landu adostasuna sektoreko beste eragileekin, erakundeak barne. Honek zalantza puntua ezartzen dio bere etorkizunari.

e. Goiena

Debagoienean gertatu da azken urteotako egitasmo berritzaileena. Eskualdeko hedabideak -guztiak euskara elkar-teenak- enpresa batean bildu dira eta garatzen ari eskualderako hedabideak, informazioaren lau euskarritan: prentsa, telebista, irratia eta Internet. Aipagarriak dira azken euskarri honetan abiatu dituzten *Goiena.net* eta *Sustatu.com* zerbitzuak, weblog formatuan. Eskualdeko udalak bazkide dira kooperatiban, eta honek sendotasuna ematen dio 50 langileko egitasmoari. Diru-zutabe nagusia, ordea, beste bat da: publizitateak estaltzen du *Goienan* aurrekontuaren erdia inguru. Elkarlanean saiatu dira, bereziki telebista arloan, beste tokikoekin nahiz orokorrekin, baina ez dute lortu behetik gorako eredia esportatzea, lore bakarti gelditu da Goiena.

f. Topagunea

Euskara Elkarteen Federazioak bere barruan hartzen ditu, baita ere, haien emaitza diren tokian tokiko euskarazko aldizkariak. Ahalegin handia egin du multzo heterogeneo hori sendotu eta egituratzeko, eta maila batean lortu ere bai, baina tokiko aldizkarien sektoreak ez du oraingoan erakutsi bere sorrerako lidergo hura, eta neurri handian amore eman dute euskarazko egunkariak duen dinamika indartsuaren aurrean. Federazioak bultzatutako *Asteon* aldizkariak ez zuen gainditu lehen txanpa.

g. Argia eta besteak

Euskarazko hedabideetan dekanoak berri txukuna hartu du azkenaldian. Dena den, badu galtza bete lan iraupe-naren lehian, eta ez zaio nabari indar apartekorik aldaketa sakonak eragiteko sektorean. Antzeko zerbait esan daiteke presentzia urria edo lokalagoa duten hainbat hedabidez: *Bizkaia* eta *Arrate* irratiak, *Hernaniko Kronika*, edo *Tipi-Ttapa* multimedia.

8. Egituraren oinarriak

Sektorearen erreposoak erakusten du esparrua badela, baina apenas elkarlanik. Eragile eta egitasmo, hor ari dira bakoitza berean, batzuk kementsu, besteak ahulago, guztiak ere hain mugatuak diren bezeroak, publizitatea eta diru-laguntzak eskuratzeko lehian. Imajina dezagun orain euskarazko hedabideak jartzen ditugula elkarlanean, hainbat azpiegitura konpartitzen, sinergiak lantzen, egitura dezentralizatu eta koordinatua. Nire kalkuluetan, guztien artean bilduko lukete 500 lagun inguruko talde profesionala, euskarri ezberdinetan ondo trebatuta, eta Euskal Herriko mapan nahiko barreiatua, ondo kokatua. Ez dago gure herrian beste horrenbeste profesional jar lezakeen komunikazio talderik, ezta munduko indartsuena ere. Horrek eman behar lioke euskarazko komunikabide taldeari hurbilekoaz sekulako ezagutza, eta besteen aldean abantaila itzela. Adibide bat jartzearen, ondoen ezagutzen dudana: Debagoienean, Goienak baditu hogeitazko kazetari inguru; *Diario Vasco* lau zapabost besterik ez. Egitura bateratuak inguru gehienetan antzeko proportzioa lortzeko aukera emango balu, euskarazko sareak jasoko luke hurbileko informazio gehien, berak kudeatuko luke urre meategia. Amarauna iruten den neurrian, ziurrago legoke euskarazko komunitatearen biziraupena.

Posible da? Ez dakit. Beharrezkoa? Bai, dudarik gabe. Beraz, egin dezagun posible. Nola? Hor dago koska. Lehenik eta behin, behar da zirriborro bat, jomugaren marrazkia. Aztertu behar da zer nolako komunikazio egitura behar duen gurea bezalako hizkuntza komunitateak. Honaino sarri aipatu ditut elkarlana eta sinergiak, eta hori litzateke lehen oinarria. Bakoitza berean, lehia dago eta txikitasuna beste hizkuntzetakoekin. Guztiak elkarlanean lor daiteke nagusitzea, euskarazkoak izatea onenak eta kementsuenak.

Bigarrenik, egitura bateratuak behar ditu tinko lotu gizartearen ekimena eta erakundearen ahalmena. Gizarte ekimentsua da gurea eta gaitasun horrek emaitza bikainak eragin ditu arlo ezberdinetan, baita hedabideetan ere. Bes-

talde, aspaldian asko hazi da erakundeen ahalmena, eta honek ahalbidetu die gizarte ekimenak laguntzea diruz eta baliabidez. Hedabideetan, ez dut uste bakar bat ere badenik, euskara hutsezkoen artean, dirulaguntza publikorik jasotzen ez duena. Egitura bateratuak ekarri behar luke diru horren banaketa eta aprobetxamendua egokien antolatzea, eta finkatu behar lituzke laguntzak epe luzean, une bakoitzeko giro politikoaren gainetik. Hau ere oinarziko puntua da.

Hirugarren, egitura bateratuak ondo estali behar lituzke komunikazioaren lau euskarriak: telebista, prentsa, irratia eta Internet. Urrea banatzeko kanal guztiak erabili behar dira, bat bera ere oparitu gabe. Eta teoria multimedia dio indar handiagoa duela mezu batek euskarri ezberdinetan behin hedatuta, euskarri bakarrean askotan emanda baino. Irratian entzun, sarean konfirmatu, gero telebistan ikusi eta biharamunean egunkarian irakurtzen den albistea, hori albiste sendoa da. Euskal kazetarien tokikotasunak ematen die aukera aparta lehenak izateko albistera iristen. Gainera, gai badira kanal ezberdinetan emateko albiste hori, orduan euskarazko kazetaritza bihurtuko da besteentzat iturri.

Azkenik, baina funtsezkoena, egitura bateratuaren marrazkiak eta harantz eramango duen bideak behar dute, ezer baino gehiago, sektorearen adostasuna. Eragile guztiek jarri behar dute, bakoitzaren helburuen gainetik, helburu komuna: euskararen komunitatea sendotzea eta bihurtzea euskal gizartearen bizkarrezurra. Helburu komunaren arabera bultzatu edo baztertuko dira egitasmoak eta proposamenak. Adostasuna lantzeko, abiapuntua litzateke ondo aukeratutako taldetxo bat lanean jartzea, dozena erdi lagunez osatua, eta sei bat hilabeteko epean zirriborro proposamena ekartzeko konpromisoarekin. Beste sei hilabete emango nuke nik sektorearen adostasuna lortzeko. Urtebetera, sinadura publikoak adieraziko luke egitasmoaren abiatzea. Handik aurrera, emaitzek erakutsiko lukete urrats bakoitzaren egokitasuna, eta ezarritako kontrolek ahalbidetuko erabaki zuzentzaileak hartzea. Bide guztia gainbegiratu luke horretarako propio sortua litzatekeen Euskarazko Komunikazioaren Kontseiluak.

9. Amaitzeko

Honaino iritsi zaren irakurle horrek agian hartu diozu idatzitakoari halako inuzente puntu bat, idazlearen ustea bait litzan edozein gauza dela egingarri, eta nahikoa dela zerbait nahi izatea zerbait hori gauza dadin. Ez ditut aipatu edonork ikusten edo sumatzen dituen zailtasunak, ezkontzeko oso ezberdinak izan daitezkeen egitura juridiko eta ekonomikoak, bateratzeko estiloak eta egoerak, elkarlanean jartzeko ikuspegi politiko eta sozial lehiakideak.

Zailtasun handiak dira, badakit. Baina zailtasun handienak baino handiagoa deritzot euskarazko komunikazio egitura sortzeko premiari, goian emandako arrazoiengatik, eta ez naiz konformatzen egungo egoerarekin, gutxienez nire aldarrikapen/proposamena egin gabe. Sektoreak du erantzuna, zuek.

d. EUSKARAZ IDATZITAKO PRENTSAREN DENOMINAZIOAN ORDENA JARTZEKO ASMOZ

Jexuxmari Zalakain
Kazetaritzan doktorea

1. Sarrera

Ez dut arazo linguistikorik sortu nahi. Euskaraz idazten den prentsari nola deitu da komunikazio honen muina; beraz, arazo semantikoa dago azpi-azpian, hitzen adierari buruzkoa, hain zuzen. Gaur egun nahasmen handia dagoela uste dut. Izan ere, euskaraz idatzitako produktu periodistikoek berdin deitzen zaie “euskal prentsa” edo “euskarazko prentsa” oro har; herrietan idatzitako prentsari, berriz, hau da, udalaren edo bailararen esparrua gainditzen ez duenari, berdin esaten zaio “herri-prentsa” zein “tokiko prentsa” edo “prentsa lokala”. Ez dira ondo bereizten “prentsa nazionala” eta “tokiko prentsa”. Nago ez direla denak gauza bera. Euskaldunon artean prentsa idatziak halako zabalera erdietsi duenean, joritasuna gero eta handiagoa denean -eta literatura akademikoa gero eta ugariagoa denean-, ordena apur bat jartzeko ordua dela irizten diot.

Ez da nire asmoa sesiorik piztea, proposamen xume bat egitea baizik [eta egoki ikusten bada, horren erabilpena gomendatzea], kazetaritza-produktu idatziak aipatzen direnean, berehala eta bat-batean jabe gaitezen zertan ari garen, nahasmentuari aukerarik eman gabe.

Arazoa ez da berria, nire kasuan, lehenago ere pausatu baitut¹. Badakit, praktikan, erabilera arruntean -eta zer esanik ez linguistikoan-, berdin samarra dela “euskarazko prentsa” edo “euskal prentsa” esatea, euskaraz idatzitako produktu periodistikoak adierazteko; baina, hori balekotzat emanda ere, ez dut uste gauza bera denik hizkera jasoagoan, akademikoan bereziki. Hemen euskara zientifikoa edo teknikoa dago auzitan: medikuntzan “bihotzerrea” eta “gastritisa” gauza bera izan arren, hizkera teknikoan adiera bereberean erabiltzerik ez dagoen bezalaxe, natur zientzietan “txorien arazoak” edo “ornitologia” hitzak aipatzen direnean gertatzen den bezalaxe, edo “zuhaitzaren gerri-buelta” zein “zuhaitzaren perimetroa” erabiltzean bi maila desberdin aipatzen diren bezalaxe hizkuntzari dagokionez, kazetaritzan edo komunikazio-zientzietan ez luke gauza bera izan behar “euskarazko prentsa” edo “euskal prentsa” -edo “tokiko prentsa” edo “prentsa nazionala”- denominazioak erabiltzea, zehaztasunaren mesedetan. Eztabaida hau edo antzekoa sortu da unibertsitateari buruz. Jada ez da gauza bera Euskal Herriko Unibertsitatea, Euskal Unibertsitatea edo (ala?) Euskarazko Unibertsitatea².

2. Euskarazko prentsa *versus* euskal prentsa

Euskaraz idatzitako kazetaritza-produktu guztiak dira “euskarazko prentsa”, bistan denez³. Baina ez halabarrez “euskal prentsa”. “Euskal” hitza hitz markatua da kazetaritzari dagokionez, “euskarazko” denominazioa baino erreferentzia zehatzagoa adierazten baitu. Euskarazko Prentsak Xahoren *Uscal-Herrico Gaseta* du abiapuntu (1848)⁴, eta gerora egin den guztia sartzen da kontzeptu horren barruan; “Euskal Prentsa”, aldiz, 1976an hasten da, orduantxe sortu baitzen izen hori daraman proiektua, “herri-proiektua”, “euskal prentsa” antolatzekeo proiektu kolektiboa⁵ -ordura arte Euskal Herrian inoiz gertatu ez zena, euskarazko aldizkariak dozenaka kaleratu arren⁶-. Beraz, “Eus-

karazko Prentsa” denominazioak euskaraz idatzitako kazetaritza-produktu guztiak izendatzeko balio du, baina “Euskal Prentsa” proiektu harekin nola edo hala loturiko prentsa adierazteko utzi behar da, nire ustez. Kontzeptu markatua da, kontzeptu zehatza, gutxienez kazetaritzari dagokion literatura zientifikoa bereizi beharko litzatekeena⁷.

Ia hiru hamarkada beteko dira aurki Euskal Herrian *Zeruko Argiak*, *Anaitasunak* eta *Goiz Argik* “Euskal Kazetaritzaren Urtea” izeneko kanpaina abiatu zutenetik. 1976ko udaberrian izan zen. Gaurko oparotasun erlatibotik ikusita, nekosoa egiten da ulertzea garai hartan hiru baino ez zirela albisteak lantzen zuten aldizkariak, inork ez zuela *full-time* prentsan lan egiten eta, beraz, inor ez zela bizi kazetaritza-ofiziotik, eta egunkaririk ez zegoela, jakina⁸. Urte hartan jarri zen, ordea, gaur “Euskal Prentsa” dei genezakeen mugimenduaren lehen harria. Gure artean hain ohikoak diren “kanpainak” bezalatsuko bat abiatu zuen gutxi batzuek lan eskerga eginda, euskara hutsezko kazetaritzari bultzada emateko. Oihartzun handia lortu zuten euskal herritarren artean, sos batzuk bildu ziren, hainbat harpidetza lortu, baina berehala amatatu ziren ahalegin gogoangarri hartako oihuak: *Goiz Argi* desagertu egin zen berehala, Anaitasuna ere bai handik urte batzuetara, eta, are mingarriago, euskaraz idatzitako prentsa indartu beharrean, kazetaritza elebiduna sartu zen trumilka-diglosikoa, zehatzak izateko-, mugimenduaren hazia itolarrian utziz. Urte hartan bertan sortu ziren *Deia* eta *Egin* egunkariak, eta urte batzuen bueltan hainbat aldizkari: *Berriak*, *Garaia*, *Ere*, *Punto y Hora*, *Euzkadi*... Erauntsia ikaragarria izan zen, zinez, -gehiegizko konpetentziarekin batera, kazetariak [Amatiño, Atxaga, Elixabete Garmendia...], harpidedunak, irakurleak, eta publizitatea galdu zuten euskaraz idatzirik aldizkeriek-. Hala ere, hazia ondo errotuta zegoen nonbait, gutxi batzuegan bederen, eta pixkanaka-pixkanaka garatu egin zen, 1990ean *Euskaldunon Egunkaria* sortzeraino. Hamarkada eta erdiko borroka luzea eta agonikoa izan zen, batez ere 1980koa, *Argia* bakar-bakarrik geratu zenean Euskal Prentsaren ideia erein eta zabalatzeko, ideia hura sustatzen zuen aldizkaritxoak kaleratu eta mugimendu indartsua sortuz gutxi batzuen eraginez⁹.

“Euskal Kazetaritzaren Urtea” izandako haren eta ondorengo urteetan egindako ahaleginaren fruiturik eman korrena Euskal Prentsa definitzea izan zen, kontzeptua erabat markatzea, hain justu. Kanpainaren eragileen iritziz, Euskal Prentsa, izatekotan, euskaraz izango da¹⁰, euskal herritarrei mundua zabaltzeaz gain, euskaldunon bizipenen berri emateko balioko du, baina horrekin batera, prentsa bera garatu behar da¹¹, prentsa-alorretik irten gabe, baina hizkuntza lantzeaz harago, Euskal Herria eraikitzen laguntzeko¹². Hau da, hizkuntza-eskola izatetik proiektu nazionala izatea eskatzen zaio euskal prentsari. Definizioarekin batera, proiektua aurrera eramateko gogoa eta xedea inoiz erdietsiko zen konfiantza aldarrikatu zuten, azken batez elementu determinantea izango dena: “Euskadi euskalduna garaile aterako delako, euskarazko komunikabideak ere garaile gertatuko dira”¹³. Hasierako asmo hura -*apustu* hura- eta definizioaren elementuak, jakina, urteetan zehar gauzatu behar izan dira, amets hutsetan ez geratzeko, erabakia benetakoa zela erakutsiz, Euskal Prentsaren historia gutxienez hamarkadatan eragina izango zuen *gertakizun* batetik abiatu zela frogatuz¹⁴. Egunkaria egiteko ordua iritsi zenean, oso-osorik zegoen 1979an esandako gogoa eta konfiantza, erabakia hartuta baitzegoen: “Guk egin egingo dugu”¹⁵.

1980ko azken hondarretara arte, jakina, inortxok ez zuen sinesten euskarazko egunkari bat egin zitekeenik. Proiektuaren bultzatzaileek, gainera, egunkariaren ideia sortu aurretik eta ondoren, ez zuten uste egunkaria lortuta euskal prentsaren auzia konponduta zegoenik; sektorea antolatzea eta kudeatzea zen helburua¹⁶. Hainbat neke eta buruhauste izan ondoren, euskal gizarteak gogotsu eman zion oniritzia, azkenean, *Argiak* eta enparauiek gidatutako ahaleginari; ez, ordea, EAEko instituzio gorenek, zeinek ezusteko modu zitalean egin baitzioten eraso kazetari gazteek egindako proposamen bakoitzari. Hamaika aitzakia sortu zituen Kultura Sailak indar biziz zetorren proiektua modu askotara gauzatzen ez laguntzeko: euskaraz idazten zen prentsa-ale bakarra (*Argia*) ordezkatzeko saiatuz [berezikiki Dema izeneko aldizkaria aginduz]; plangintza egin ordez, urteroko subentzio-politika aleatorioa paratuz; euskal prentsa bultzatu aurretik, albiste-agentziaren premia lehenetsiz; egunkaria sortu ordez, *astegunkariak* [*Hemen/Egin* eta *Eguna/Deia*] promozionatuz; herrietako prentsaren aldeko hautua lehenetsiz [hitzez bederen]; Egunkaria Sortzen izeneko promotora kalean zenean, instituzioek beste egunkari bat sortuko zutela [*Egunero* izenekoa] publikoki adieraziz [zuzendaria bera ere izendatuz: Joxe Ramon Beloki jeltzalea]; inon izan den proiekturik herritarrena ezker abertzalearekin eta ETArekin nahastuz¹⁷. 1980-1990 hamarkadan bizi-bizi izan zen borrokaren mamia *Euskaldunon Egunkariaren* oinarrian jarri ziren hamaika zutabetan gordetzen da, zeinak egunkari sortu berriari zego-

kion arren, Euskal Prentsaren ezaugarriak baitira, berez: euskaltzalea, nazionala, baterakoia, zabala, independentea [erakunde politikoetatik eta bestelako prentsatik], ez instituzionala, diruz lagundua, militantea, profesionala eta, azkenik, berria¹⁸.

Kontua da, oztopoz oztopo, egunkaria sortu egin zela; ez, ostera, instituzioen proiektuak; gure ustez, adierazpen zaratsatu haiek denek helburu bakarra zutelako: herritarrek bultzaturiko asmoak abortatzea. Hala eta guztiz ere, euskal prentsaren sektoreak -egunkari bakarraren aldamenen tokiko prentsa ugari sortu den arren¹⁹- oraindik antolatuta gabe jarraitzen du²⁰.

Ohar historiko hauek guztiak “euskal” hitza hitz markatua dela esateko izan da. Marka hori -eta urtetako eraso hori, bestalde, ez datoz EAEko instituzioen eta Euskal Prentsaren eragileen artean aldizkariak eta egunkaria(k) nola egin erabakitzeko orduan sekulako aldea agertzen zelako, ez; horrek diferentzia gaindigarri batzuk adieraziko lituzke²¹. Arazoa sakonagoa da, politikoa baita bete-betean, eta antagonismoa adierazten baitu, diferentziak baino harago. Politikoa, ez alderdi-ikuspegitik begiratura, baizik zentzu sakonetik begiratura, herri-mugimendutik, alegia; kontua da *naziogintza* nola egin, instituzioetatik eta partidukraziatik, ala herri-mugimendutik; hots, gaur egungo gizarteak dituen hutsuneak edo gabeziak osatzeko, ala nazioa bera sortzeko²². Ez ahaztu, Euskal Prentsaren abiaburuan euskal nazio beregain eta euskalduna sortzea dela helburu; beraz, egoera inbertitza, “iraultza”; prentsaren alorra utzi gabe, baina egoera, politikoa azken batez, inbertituz [prentsa elebidunaren ordez, euskara hutsezko prentsa; euskal nazio osoarentzat egina eta euskal nazioa xede izanik]: ipuin ezagunaren alegia erabiltzearen esango genuke, harri bakoitza lantzean, katedral berria egiten ari den kontzientzia mantenduz, harri ederraren lantze hutsa baino harago.

Ez dakit nik gogoeta hauek Kazetaritza Fakultateetan egiten diren edo euskal prentsan lan egitera sartzen diren gazteei azaltzen zaizkien, baina ez legoke gaizki; erakunde akademikoan, egia historikoari zor zaiolako, eta prentsan, non sartzen diren kontuan har dezaten kazetariak²³.

3. Prentsa nazionala *versus* tokiko prentsa

Prentsari dagokionez, gaur egun, egunkaria ez ezik bestelako aldizkakotasunean argitaratutako prentsa ere badugunez, beste bi kontzeptu erabiltzen dira batzuk eta bestea izendatzeko: “prentsa nazionala” edo “nazio-prentsa” Euskal Herri osora iritsi nahi duen prentsa aipatzeko, eta “prentsa lokala”, “tokiko prentsa”, “herri-prentsa” edo “herrietako/eskualdeetako prentsa” esparru mugatuagoa hartzen duena aipatzeko. Berritortu diot ezen ez dudala linguistekin edo hizkuntzalariekin sesiorik piztu nahi. Baina kontzeptu-pare horien inguruan ordena jarri beharrean gaudela esango genuke.

Adibidez, zer da prentsa nazionala? Esparrua al da prentsa nazionala den edo ez den adierazteko definitzaile bakarra? Ez al du zerikusirik edukiak, helburuak edo estiloak? Nik gutxienez hiru alor bereiziko nituzke, nazional hori adierazteko, prentsari dagokionez.

- Alor geografikoa: geografia hutsari begiratu badiogu, kazetaritza-produktu bat nazionala da Euskal Herri osora iritsi nahi duenean, erabat iritsi ez arren. Eta orduan ere esparru geografiko hori naziotzat hartzen badu enpresa argitaratzaileak. Aldiz tokikoa, lokala edo eskualdekoa/bailarakoa hitz horiek adizteraz ematen dituzten esparru geografiko murrizagoak hartzen dutenean.
- Barne-antolaketa: Produktu periodistiko bakoitzaren barne-antolaketa errepikatzen badiogu, kazetaritza-produktu bat “nazionala” izan daiteke nazio osoaren interesa duten orriak kontuan hartuz -adibidez, egunkarietako sekzio nazionala; baita ere, *Hemen* eta *Eguna* garai batean, eta *Zabalik* gaur egun, kontuan hartzen badugu *Egin*, *Deia* eta *Diario Vasco* egunkarien euskarazko “eranskin” modura funtzionatzen zutelako, haiekin batera edo bereizita banatzen ziren/diren alde batera utziz-; eta lokala edo tokikoa, herri bati edo bailara bati buruzko albisteak ematen dituzten orriak edo zatia: *Bizkaia*, *Nafarroa*, *Ondarra*...

- Alor politikoa: Edukiari dagokio, hedapen-eremuari baino gehiago. Prentsa nazionala nazioa eraikitze-ko proiektuarekin zerikusirik duena edo nazioa eraikitze-ko xedea duen prentsa da. Beraz, ikuspegi honen arabera, mugatzailea ez da geografia. Hala, berdin izan daiteke nazionala Lea-Artibain egiten den aldizkari bat, edo Maulen, edo Amurrión. Prentsa lokala, berriz, egungo errealtatea, batez ere banaketa administratibo-politikoa, zalantzan jarri gabe eta gáinditzeko asmorik gabe, beronen hutsuneak eta akatsak konpontzen saiatzeko sortua eta aritzen den tokian tokiko prentsa da. Bertakotasuna eta hurbiltasuna landuko du informazioari dagokionez, hutsune hori bistakoa delako eta osatu beharra dagoelako; euskara erabiliko du, euskara hutsa, hizkuntzen arteko oreka mantendu behar delako, eta euskara beste hizkuntzen mailara jaso behar delako; kazetaritza-proiektuaren xedea ez da Euskal Herrian euskarazko prentsa nagusi izan dadin, gaur egungo egoerari buelta emanez euskararen autozentratu-eredia ezarri²⁴, bai- zik herri edo bailarako jendeak tokiko informazioa euskaraz irakurtzeko aukera izan dezan. Egoera poli- tikoaren aldaketa, sistemaren aldaketa, naziogintza bera, politikari profesionalentzat utziko ditu, herriko gatazketan ez du zuzenean parte hartuko, editorialak ebitatuko ditu, iritzia emateak dakarren arriskuak saihestuz, herritarren arteko harremanak ez ozpintzeko. Beraz, produktua Euskal Herri osora zabalduta ere, aldizkari bat edo egunkari bat prentsa lokala izan daiteke, beste unibertso estatal handiagoaren par- te kontsideratuz²⁵.

Hau dena esan eta gero, noski, ondorio batzuk atera daitezke, lan honen azkenerako utziko ditudanak, propo- samen bat egiten saiatzeko. Garbi geratzen da, ostera, zerbait Euskal Prentsa izendatzeko edo denominatzeko, 1976an abian jarritako espírituz jantzita etorri behar duela. Eta “espíritua” diot ezen gertakizun fundatzaileko hedabide sus- tatzailerek bidean gal baitezakete espíritua hori²⁶, euskara hutsezko prentsa egitearekin konformatuz. Onkologian adi- tuek, adibidez, diote ezen minbizia sortu duen nukleo gaiztotua desagertu egin daitekeela terapia egokiaren eragi- nez, baina metastasia sortuz gero, nukleo berri kutsatuek hedatzen dutela lehen nukleo minduak zeukan herio-hazia, eragina. Beraz -eta besterik frogatzen ez den bitartean-, *Euskaldunon Egunkaria*, *Berria* eta *Hitza* izeneko multzoa Euskal Prentsa kontsideratu beharko da, jatorriari erreparatuz, eta eguneroko lanari begira; eta gaur egun prentsa lokal edo tokikotzat jotzen dena²⁷, aldiz, -besterik frogatzen ez den bitartean, diot- Euskarazko Prentsa.

Ohar garrantzitsua egin beharrean nago aurrera egin aurretik. Inor mindu ez dadin edo inork nire kontsideroak txartzat har ez ditzan, esan dezadan garbi bezain zintzo, nik ez dudala epaitzen produktu bakoitzaren kalitatea eta balioa, ez eta sustatzaileen hautua, eta ez diodala inongo adiera gutxieslerik atxikitzen euskarazko prentsa bultza- tzeari, label-banatzailea banintz bezala; ez, errealtate historiko baten egia azaldu nahi dut, egoki irizten dizkiodan emaitzak ateraz, bereziki erabilpen akademiko bereizgarriak finkatzeko asmoz.

Ez dut uste historiari iruzur egitea denik esatea gorago tokiko prentsari egotzitako ezaugarriak ustez bete-bete- an dagozkiola gaur egun prentsa lokal modura han-hemenka sortuz eta desagertuz ari den aldizkarigintzari: Adibi- dez, Topagunea Euskara Elkarteen Federazioko lehendakari Joxemari Muxikak aitortzen du: “Tokiko aldizkariak euskal hiztunak hurbileko informazioa euskaraz irakurtzen jarri nahi dituzte”²⁸. Baina -hau ere egia da-, bi baldin- tza horiek beteta, nire ustez, inork ez dio debeketzen herri edo bailara bateko aldizkari bati Euskal Prentsaren eza- garrien jabe eta helburutan bidaide izatea. Ni ez naiz inor esparru geografikoari begiratuz tokiko aldizkariak dire- nak aldi berean Euskal Prentsa ez direla ziurtatzeko; hori aldizkari edo egunkari bakoitzak errebindikatu beharko du, edo ikerlariren batek antzeman beharko dio *espíritu* hura duela gidari, goian aipaturiko kategoriak aintzatetsiz.

4. Proposamena

Euskara hutsez ari den prentsak bi jatorri izan dituela frogatutzat harturik -1976an eta 1988an-, eta, printzipioz, bataren eta bestearen xedek murrizagoak edo zabalagoak direla aintzat hartuz, proposamen bat egin nahi dut izen- datzean desordenarik izan ez dadin, eta, gutxienez hizkera akademikoan -adiera arruntean erabiltzea ahal balitz hainbat hobeto!- arduraz hartzeko.

- Hizkuntzaren senaren arabera “euskarazko” eta “euskal” gauza bera direla onartuta, hizkera arruntean elkar ulertzeko bi adierak onar daitezke prentsari dagokionez: euskarazko prentsa edo euskal prentsa. Zentzu horretan, minuskulaz erabiltzea gomendatzen dugu.
- Euskara jasoan, bereziki akademikoan edo teknikoan, bi kontzeptu horiek bereizi beharra dago: jatorri desberdinekoak direlako, eta, printzipioz, helburuak ere desberdinak dituztelako. Euskarazko Prentsa euskaraz idatzitako prentsa da, gizarteak duen hizkuntz hutsunea betetzeko asmoz sortua, euskaldunei albisteak euskaraz irakurtzeko aukera emateko garatua; Euskal Prentsak, aldiz, albisteak euskaraz idaztea ez ezik, beste helburu bat du: prentsaren alorretik irten gabe euskal nazioari garatzen laguntzea, inoiz euskalduna eta beregaina izan dadin. Hori inoiz errealitate bihurtzeko, euskarazko prentsa beregaina mamitu behar du gaur-gaurdanik, prentsa konpetentea eta imitagarria -erdaraz idazten dutenei ere euskararen balioa eta premia ikusaraziko diona-, Euskal Herri euskaldunari euskarazko hedabideak baitagozkie, ezinbestean. Ahal dela, maiuskulaz erabiltzea proposatzen dut: “Euskarazko Prentsa” eta “Euskal Prentsa”.
- “Tokiko prentsa” edo “prentsa lokala”, herrietan edo eskualdeetan egin eta esparru geografiko horretan albiste hurbilak hedatzeko pentsatuta argitaratzen dena da. Euskarazko Prentsa da, jakina, euskaraz dagoen heinean; eta, agian, Euskal Prentsa ere bai, 1976 sortu eta hurrengo hamarkadetan garaturiko herri-mugimenduaren espirtuaren jabe baldin bada. “Herrietako prentsa” edo “bailara/eskualdeko prentsa” erabiliko balitz, agian ez legoke zalantzarik, “tokiko” eta “lokala” hitzak marka hartzen ari baitira erabilpenaren poderioz.
- Prentsa nazionala, aldiz, Euskal Herri osorako pentsatuta dagoena da lehenbizi, baina, ez halabeharrez. Izan ere, esparru mugaturako argitaratuta ere, izan daiteke nazionala; nazioari interesatzen zaizkion gaiak -printzipioz, den-denak- lantzen dituen izan behar du, naziogintza xedetzat harturik, edozein gai lantzean nazioari garatzen laguntzeko kontzientzia mantenduz, hain justu.
- “Herri-prentsa” eta “nazio-prentsa” kontuz erabiltzeko denominazioak dira. Izaerari dagozkio batik bat: eduki bat, estilo bat eta irakurleko jakin bat eskatzen duela dirudi. Herri-prentsak prentsa herrikoia, popularra seinalatzen du; eta nazio-prentsak, nazioa gaitzat harturik darabilen prentsa edo, prentsa espezializatua nolabait esateko.

Komunikazio honen abiaburuan esan dugunez, hortxe dago proposamena eta gomendioa, prentsan idazten dutenek erabil dezaten erabiltzeari zuzen irizten badiote, eta alor akademikoak jorratzen dutenek beren azalpen akademikoetan kontuan har dezaten. Izan ere, erabilpenak erakutsiko du hemen proposatu eta gomendatutakoak onarpena duen edo ez. Erabili ezean, historiari begiratuta zuzena izan arren, deus gutxi balioko du. Hemen egindako proposamenak bideragarritasunik ez badauka, besteren bat egitea eskatuko nuke, inolaz ere gauza bera ez diren kontzeptuak ez nahaste aldera. Izan ere, hitz bakoitzari bere adiera zehatza ematea komeni da, zertaz ari garen argi edukitzeko; besteak beste, hitzen esanguraren manipulazioa borroka sakonago baten adierazle izaten delako, sarriegi.

Oharrak

1. Batik bat nire hiru lan erabili ditut testuko gogoetak egitekoliburu bat: Zalakain, J. (1993): *Joxemiren uzta, euskal prentsa herri-proiektua da*, Txalaparta, Tafalla; eta bi artikulu: Zalakain, J. (1994): “Prentsa nazionala eta prentsa lokala”, *Uztaro*, 12. zenb., 55-65. or.; Zalakain, J. (2003): “Egunkaria itxi dute, baina proiektua bizirik dago”, *Uztaro*, 45. zenb., 29-69 or.
2. Ikus, adibidez, *Jakin*, 130-131. zenb., 117-216. or.
3. Kazetaritza-produktuak edozein genero periodistiko lantzen dituzten produktuak dira, bereziki: albistea, kronika, elkarriketa, erreportajea... Beraz, garai batean aldika argitaratzen zen guztia “prentsa” deitu arren, utz ditzagun behingoz alde batera kultur aldizkariak, aldizkari zientifikoak etab., helburua dibulgatzailea ez bada. Adibidez, *Jakin*, *Uztaro* eta hala-koak ez dira “prentsa”.
4. “Euskara hutsez idatzitako lehen aldizkaria” in Javier Diaz Noci (1994): *Euskarazko aldizkari, egutegi eta almanaken errolda (1834-1959)*, Eusko Ikaskuntza, Donostia.
5. “Euskal prentsaren aldeko mugimendu euskaltzalea sortu zen, abertzaletasunarekin estu-estu lotuta” in Zalakain, J. (1993): *Joxemiren uzta*. Iruzintxo bat egin nahi dut une honetan: alegia, Euskal Herrian, euskaraz idatzitako prentsa guztia ingurune abertzaletik sortu da, Iparraldeko *Eskualduna* izan ezik. Une honetan euskarazko prentsaren dekanoa den Ipar Euskal Herriko kazeta harrigarria naziekin harremanak edukitzearren itxi zuten. Epe batean zuzendari izandako Iriart-Urruti, batzuentzat “lehen kazetari euskalduna” zenak, ezaugarri ez oso demokratikoa zeukan -faxista zen- Xabier Altzibarrek oraintsu Labayuren eskutik argitaratu duen liburuan [Jean Iriart-Urruti (2004): *Ni kazeta-egilea naiz*, Labayru, Bilbo]. Horrek kontsidero bat egitera narama: euskara euskal herritar guztion ondarea da, bai, baina zein arraroa den ikustea euskaltzale eta abertzale batera izan gabeko jende euskaldunarengandik sortu eta mamitutako prentsa euskalduna. *Aldaketa 16* izan daiteke beste salbuespena.
6. Ikus Diaz Noci, Javier (1994): *Euskarazko aldizkari, egutegi eta almanaken errolda (1834-1959)*, Eusko Ikaskuntza, Donostia.
7. Euskaraz idatzitako kazetaritzak dagoeneko bost doktore-tesi merezi izan ditu (Zalakain, Jexumari; Sarasua, Jon; Aranguren, Asier; Camacho, Idoia; Zuberogoitia, Aitor; eta dozenaka artikulu (*Uztaron* eta *Jakinen* bereziki) eta liburu (UEU).
8. Zehatzak izateko, oraindik ere ez daukagu aste osoko egunkaririk, *Euskaldunon Egunkaria* zena, *Berria* eta *Hitza* izeneko beste bostak ez baitira astelehenetan argitaratu/tzen.
9. 1980an kaputxinoek *Zeruko Argiaren* jabegoa utzi ondoren Argia Kooperatiba sortu zenean, Joxemi Zumabale eta Joxe Mari Ostolaza *Xalbardin* bakarrik geratu ziren ontzia gidatzeko -Joan Mari Torrealdeai *Jakinen* zuzendari eta 1976ko kanpainaren sortzaile nagusienetakoaren laguntza estimagarriaz-, baina zorionez, berehala bildu zen euskal kazetaritzaren eragileen belaunaldi gaztea: Iñaki Uri, Josu Landa, Pello Zubiria, Mikel Antza, Barandiaran eta beste batzuk Donostian, eta *Anaitasuna* desegin ondoren (1982) *Argiaren* “Bizkaiko Erredakzioa” osatuz Bilbon: Laura Mintegi, Antton Azkargorta, Karmelo Landa, Iñaki Uriarte, Imanol Murua Uri, Jose Ramon Egiluz, Kanko Ispizua, etab.
10. “(...) Gauza jakin bat esan beharrean gaude: euskal prentsa euskaraz eginikoa da (...). [euskara idatzita ez daudenak] Euskadin eginikoak -euskal ikuspegitik nahi baduzue- dira baina ez euskal prentsa”, *Zeruko Argia*, 1978-I-15.
11. “Euskal kazetaritza irmo bat sortu behar dugu”, zioen *Zeruko Argiak* 1976-I-4an.
12. “Gaur egun klaro klaro daukaguna zera da: euskal aldizkariak ez dute antzinar bezala hizkuntza eskola soilik izan behar, ez dute bakarrik irakurle goea euskal irakurketaz ohitu behar. Zerbait gehiago izan behar dira (...). Kazeta ikuspuntu hutsez lan egitea, helburu gisa Euskal Herriaren berreuskalduntzea, birbatzea eta burujabegoa lortzea delarik, eta hau argitalpen periodikoen muga barnean, noski”, Tomás Trifol, *Anaitasuna*, 1978-IX [egun-datarik gabe].
13. *Zeruko Argia*, 1979-I-14.
14. Paragrafo honetan esangura sakona duten hitzak erabili ditut apropos: apustua, erabakia, gertakizuna... Ez da hau tokia hitz bakoitzaren edukia sakon azaltzeko. Horien guztien eta beste batzuen -etena, leialtasuna, indar-metaketa- teori-zazioa hainbatetan aipatu dudana nire liburuan azaltzen da xehe-xehe.

15. Joan Mari Torrealdai eta Joxemi Zumalaberen hitzak, *Egin*, 1990-III-11:
16. “Euskal prentsa osoa babestu behar da, beraz lege bat behar da (...) normatiba bat, daudenak eta egon daitezkeenak [egunkariak eta aldizkariak] kubrituko dituen”, *Argia*, 1983-IX-25.
17. Ikus *Joxemiren uzta...*, bereziki 251-256. orrialdeak, non Joseba Arregi, Iñaki Zarraoa eta Joan Mari Atutxaren hitz gordinak jasotzen diren.
18. Bi tokitan zehaztu dut ezaugarri horien edukia: *Joxemiren uzta...*, 223-230. orrialdeetan eta “Egunkaria itxi dute, baina proiektua bizirik dago” artikuluan, *Uztaro*, 45. zenb., 62-65. orrialdeetan.
19. Gai honi buruzko lanen artean bereziki interesgarria da Alazne Aiestaranek azken urte honetan idatzitakoa, besteak beste, alorrak bizi dituen zailtasunak eta aurrean dituen erronkak adierazten baititu: “Euskarazko prentsa elkarlanerako estrategien bila”, *Uztaro*, 49. zenb., 45-57. or.
20. Gaur egun ez da jadanik “euskal prentsaren sektorea antolatua” esaten, “euskal esparru komunikatiboa” baizik.
21. Diferentzia horiek, dena dela, izan baziren, eta agertu ere agertu ziren, *Egunkaria* zena eta inoiz sortu gabeko *Egunero* proiektuen artean, prentsa pentsatzeko bi modu ezberdin baitaude proiektu bakoitzaren sustraian. Ikus *Joxemiren uzta...*, 233-249. or. batik bat.
22. Erabilera arruntean “herri-mugimendua” eta “gizarte-mugimendua” sinonimotzat hartu arren, ez dira gauza bera. Gorago aipatutako nire liburuan zehatzago dator: 141-143. or.
23. Orain baino lehen, 1996ko maiatzaren 3In hain justu, Donostiako Miramar Jauregian eginiko Prentsa Jardunaldietan aurkeztutako komunikazio labur batean esana daukat: “(...) [Belaunaldi gazteek] entzun behar dute -agian sarrera.froga egunean bertan- inor baino profesionalago izateko obligazioa dutela, baina oso esker txarreko gizartean bizi garela eta seguruaski horrek ez diela prestigio handirik ekarriko. Esan beharko zaie militantziaren egunak ez direla amaitu. Areago, militantziarik gorrienean gauzatu behar dela euskal prentsa profesionala. Azaldu beharko zaie euskararentzat irabazi iren eremu guztiak nekez eta ahaleginez irabazi direla eta horrelaxe segitu behar dugula erremediorik gabe. Eskuaratean ditugun proiektuak garatzeko, abilezia teknikoak bezain inportanteak dela helburuak zeintzuk diren xuxen jakitea. Gure karre- ra ebidentziarik gabeko apustua dela...”, “Printzipio-alorreko apustua”, *Jakin*, 96. zenb., 75. or.
24. Prentsari dagokionez, Aitor Zuberogoitiak erabili du kontzeptu hau bere doktore-tesian. Horren erreferentzia laburtua, ikus *Bat*, 48. zenb. Zilegi bekit gogoratzea, euskal prentsaren aitzindariak, gaztelaniaz idatzitako prentsa ez zutela euskal prentsatzat hartzen, alderantziz: “Euskal prentsa euskaraz dela aitortu, onhartu eta laguntzen ez duen erdal prentsak diglo- sia finkatzen du”, *Anaitasuna* 1976-IX; “(euskaraz ez) beste guztiak, bai egunkariak baita aldizkariak ere, Euskadin egi- nikoak -euskal ikuspegitik nahi baduzue- dira baina ez euskal prentsa”, *Zeruko Argia* 1978-I-15.
25. Gaia zabalago garatuta daukat artikulua honetan: “Prentsa nazionala eta prentsa lokala”, *Uztaro*, 12. zenb., 55-65. or.
26. Joxemi Zumalabe Euskal Prentsaren bihotza eta burua zenak esanda utzi zuen UPV-EHUko Leioako campusean hil aurretik emandako hitzaldi batean [1991ko udazkena]: “*Euskaldunon Egunkariak* egunen batean ahaztu egiten badu eus- kararen aldeko herri mugimendutik sortu zela, bereak egin du, oinarri hura baita oraingo eta geroko garantia bakarra”, *Joxemiren uzta...*, 273. or.
27. “Euskarazko tokiko hedabideen garai modernoaren sorrera 1998an jarri zuen *Arrasate-Press*-ek”, Muxika, J. M. (2003), *Tokiko Hedabideak etorkizunera begira*, Topagunea, Abadiño, 43. or. Arrasateko aldizkari ospetsu hori sortu aurretik ere baziren herri batzuetan [Tolosa, Lekeitio, Legazpia, Oñati...] tokiko aldizkariak, baina gauzak ez baditut oker ulertu, *Arrasate-Press*ek jarritako ereduari jarraituz, gaur egungo mugimendua sortu da -hein handi batean antolatua eta elkarte- an bilduta-, aldizkari horietatik gehienak -Alazne Aiestaranen arabera, 34 [aipatutako obra, 49. or]- Topagunea Federazioan bilduta egoteak erakusten duenez.
28. “Euskarazko prentsa: tokiko hedabideen estrategia posiblea” in *Tokiko hedabideak etorkizunera begira* (2003), Topagunea, Abadiño, 44. or.

e. EUSKARAZKO HEDABIDEEN IKERKETA ZENTROA

Ludger Mees
EHUko Euskara Errektoreordea

1. Euskarazko Hedabideen Ikerketa Zentroa

Gogoeta hau aurkeztu aurretik, poema batekin natorkizue. Poemagilea Hans-Magnus Enzensberger dugu, Alemaniako intelektual, idazle, editore eta kazetari handienetarikoa bat, hain zuzen. Lantxo hau prestatzen ibili nintzenen, Enzensbergerrek orain dela urte dezente idatzitako poema hau eskuartera iritsi zitzaidan. 1971koa da eta 1968ko Maiatzeko Mugimenduan ibilitako ustezko iraultzaile eta teoriarri ezkertiarrei zuzendutako kritika bat dugu testu hau. Kontuan hartu behar da garai horretan Enzensberger berak zuzentzen zuen aldizkari ezagun bat (*Kursbuch*) Maiatzeko mugimendu horren plataforma garrantzitsua izan zela eta poema hau nolabaiteko autokritika baten ukitua ere baduela. Izenburua honako hau da: “Ber-Heziketarekin ditugun zailtasunei buruz”. Hona hemen poema honen zati bat euskaratua:

“Benetan bikainak dira
plangintza handi guzti hauek:
Urrezko Aroa,
Jainkoaren Erreinua lurrean,
Estatuaren heriotza.
Benetan, oso ulergarriak dira.
Badago, halere, arazo txiki bat: jendea.
Jendeak beti eta leku guztietan molestatzeko baitu.
Den dena jartzen du hankaz gora jendeak.
Gizadiaren askapena agendan dagoenean,
Jendea ile-apaindegira joaten da.
Kemenez eta ilusioaz abangoardiaren parean ibili ordez,
Esaten dute: Orain gustura hartuko nuke garagardo bat.
Gauza duin eta justu baten alde borrokatu beharrean,
Barize eta elgorriaren aurka borrokatzen dute.
Momentu erabakigarria iritsi denean,
Postontzi bat edota ohe baten bila abiatzen dira.
Milurteko berria hastear dagoen unean bertan,
Arropa garbitzea bururatzen zaie (...).”

Zer arrazo egiten ote du horrelako poema batek Euskarazko Kazetaritzari buruzko lan batean? Bada, erantzuna oso garbi daukat eta horregatik hain zuzen ere ekarri dut honera: Hemen, azken finean, idazleak egiten duen autokritika, nahiz eta beste garai batekoa eta testuinguru guztiz desberdin batekoa izan, guretzat eta gure euskal testuinguru honetan ere oso baliagarria dela iruditzen zait. Izan ere, hemen gure artean ere askotan hitz eta gauza oso potoloei buruz hitz egitea eta haserretzea gustatzen baitzaigu. Bien bitartean, ordea, jendea eta gizartearen egune-

roko kezak, arazoak eta egonezinak ahaztu egiten zaizkigu. Edo beste modu batez esanda: askatasuna, burujabetza, independentzia eta autonomiari buruz aritzen garenean, nor gogoratzen ote da garagardoa, barizeak eta elgorriarekin? Benetako arazo bati buruz modu eraikitzaile batez eztabaidatzen denean, Euskal Herriko Unibertsitateak bertan egon behar du, parte hartu behar du, ekarpenak egin behar ditu euskal gizartearen garatu nahi duen papera eta funtzioa benetan bete nahi badu.

Aipatu dudan arazoa euskal kazetaritzaren egoera da, eta kasu honetan bereziki euskaraz egiten den kazetaritzarena. Informazioaren gizarte honetan, Manuel Castellsen definizio ezaguna erabiltzearen, hedabideetan ez dagoenak ez du existitzen, eta alderantziz, gizarte batek ez badu hedabide sistema osasuntsu eta garaturik, gizarte hori ez da gizarte normalizatu bat. Euskal Herriko gizartearen kasuan, denok badakigu komunikazioaren mundu honetan gaztelaniaren nagusitasuna ia erabatekoa dela eta euskararen presentzia nahiko mugatua dela. Ondorengo anekdota txiki hau kontatzearekin nahikoa dela, hola iruditzen zait niri behintzat, egoera hori bere zorrotzasun guztia-rekin begi bistan jartzeko: Orain dela egun gutxi batzuk gaztelaniar argitaratzen den egunkari batean, zuzendariari zuzendutako gutunen atal horretan, guraso bikote batek idatzitako gutun bat irakurri nuen. Gutuna gaztelaniar zegoen idatzita eta “eskerrik asko” hitzekin bukatzen zen, hori bai, “eskerrik” hitza zetaz idatzita zegoen. Niri beti iruditu izan zait “eskerrik asko” esan eta idatzi ahal izateko, ez zela beharrezkoa Euskaltzaina izatea, ezta gutxiagorik ere, are gutxiago, kultur eta heziketa maila dezenteko pertsonetaz ari garenean. Esan nahi dudana da arazoa ez datzala gutuna idatzi dutenengan, baizik eta egunero hitzak, esaldiak eta artikulua idatzen eta argitaratzen dutenengan. Kuriositateak jota, hartu nituen eskura neuzkan hemengo beste zenbait egunkari eta hauxe aurkitutakoa: guztiek argitaratu zuten aipaturiko gutuna, eta guztiek akats berberarekin, hau da, egunkarietako kazetari eta arduradunen artean inor ez zen akatsez jabetu, inork ez baitzuen zuzendu. Imajinatzen al duzue horrelakorik Katalunian edo Galizian? Gaztelaniar argitaratzen den bertako prentsan gaizki idatziko ote litzuke baten batek “eskerrik asko” hitzok katalanez edo galegoz? Hauxe da gakoa eta hementxe dugu, bere gordintasunik gordinenean, euskararen egoera Euskal Herriko hedabideen sisteman.

Jakina, denok badakizue zertxobait, baina zoritxarrez, agian ez gehiegi, exageratzen ari naizela. Testu-liburu honetan bildutako lanen kopurua ikustea besterik ez dago berehala konturatzeko badagoela lehen azaldutako errealitate ilun horri aurre egiteko beste errealitate bat ere. Izan ere, azken urteotan, euskaraz lan egiten duen kazetaritza sare zabal samarra garatu baita. Garapen hau gizarte mailan dagoen behar eta borondatearen ondorioa baino ez da izan, eta, gaineratuko nuke, neurri handi batez ere erakundeek borondate hori babesteko jartzen ari diren laguntzaren ondorioa ere. Horrela, telebistetatik hasita tokian tokiko egunkarietara iritsi arte, irratiak eta aldizkariak ahaztu barik, pixkanaka-pixkanaka lehen aipaturiko hedabide sistema euskaldun eta normalizatu baten alderako urratsak egiten ari gara. Gure Unibertsitateak, eta bereziki euskaraz aritzen diren kazetariak trebatzen dituen Gizarte Zientzien eta Komunikazioaren Fakultateak ekarpen handiak egin ditu azken urteotan.

Hala eta guztiz ere, ekarpen horiek agian borobildu eta handitu beharko genituzkeela iruditzen zaigu Euskal Herriko Unibertsitatearen zuzendaritza gure gain hartu berri dugunoi behientzat. Izan ere, errealitate berri bat sortzen den egoera guztietan bezalaxe, oraingo honetan ere aldi berean arazo, galdera eta behar berriak sortzen baitira. Egia esan, gai honetan aditua ez baldin banaiz ere, inpresioa daukat euskaraz jarduten duten komunikabideen edapenaren errealitate berri honek gutako asko ez ustean harrapatu gaituela. Inpresioa daukat, komunikabide horiek egunez egun elikatze burutzen ari garen lan dinamikak jan egiten gaituela. Egunerokotasunak ezartzen digun presak eta noiznahi sortzen diren buruhauste txikiek ez digute hausnartzeko denborarik uzten. Badakigu zertan ari garen eta zer egin behar dugun gure kazeta edo programaren hurrengo alea ateratzeko, baina beti dena dakiten iluminatu gutxi batzuk kenduta, ez dakigu oso ondo nora joan nahi dugun, zer eta nola hobetu dezakegun eta zer oihartzun jasotzen duen gure lanak. Galdera asko daude, hipotesiren bat edo beste, eta erantzunik ia batez. Hona hemen bururatzen zaizkidan galdera horietako batzuk:

- Nolakoa da euskarazko kazetaritzaren oraingo eta balizko merkatua?
- Nola lor liteke herri erakundeekiko dependentzia ekonomikoa gutxitzea eta iniziatiba pribatuaren interesa areagotzea?

- Zergatik funtzionatzen ote du publizitatearen munduak ia erabat gaztelaniaz?
- Errealitatea ala mitoa euskarazko kazetaritza eta abertzaletasunaren arteko ustezko lotura historikoa, eta, errealitatea balitz, -eta uste dut errealitatea badela-, nola zabaldu liteke euskarazko kazetaritza eta bere ekoizpena abertzalea ez den gizartearen beste esparruetara?
- Ba al dago modurik orain nahiko sakabanaturik dabiltzan euskarazko kazetarien lana eta ahaleginak koordinatzeko eta, bakoitzak bere txokotik, elkartzeko?
- Zer baliabide dauzkagu eguneroko gure lanaren kalitatea hobetzeko? Nola hitz egin edo idatzi behar dugu gure hizkuntzaren erregistroak bere aberastasun guztiarekin lantzeko, eta, aldi berean, gure lanaren ekoizpena ulergarri eta erakargarri egiteko?

Horrelako beste galdera asko mahaigaineratu nitzake, baina horretarako denborarik ez dago. Gainera, ez naiz horretarako pertsonarik egokiena, kazetaria ez naizelako (nire aita, bai, ordea). Dena dela, hemen ez nago kazetaria bezala, baizik eta Euskal Herriko Unibertsitateko ordezkari bezala eta funtzio honetan bai agindu dezakedala Unibertsitateak eta bere zuzendaritza taldeak borondate osoa duela galdera horiek formulatzen, eztabaidatzen eta, ahal dela, erantzuten laguntzeko. Izan ere, guri iruditzen baitzaigu Unibertsitatean ditugun giza baliabidez eta sortzen ari garen jakintzaz baliatuz, Unibertsitatea eta gizartearen arteko lotura estutzeko unea heldu dela. Euskararen normalizazioa bultzatu nahi badugu, ez dela nahikoa Unibertsitatearen barruan aritzeko uste dugu. Askotan egiten zaigun kritikak dionez, ez dakigu egiten dugun lana gizarteratzen, ez dakigu guk landu duguna gizarteari eskaintzen. Kritika honen ildotik eta kazetaritzaren gaiari helduz, esan genezake ez garela nahiko saiatu euskal kazetariaren inguruan Unibertsitatearen barruan ditugun giza baliabideak eta jakintza gizartearen zerbitzuetan jartzen.

Gabezi hori gainditu nahi dugu eta horretarako euskarazko komunikazio-esparrua aztergai izango duen Unibertsitateko Ikerketa Institutu bat sortzea proposatzen dugu. Orain ez da momentu egokia Institutu horrek bete beharok dituen eginbeharrak xehetasun guztiakin zehazteko. Horretarako, ekimen honetan parte hartu nahiko luketen adituak bilduko ditut eta bilera horietan saiatuko gara amankomuneko diagnostiko batera heltzen. Nik hemen bakar bakarrik aurreratu nahi ditut nire ustez bete beharreko ezinbesteko bi baldintzak:

- Gure Unibertsitateko Estatutuen VI. Kapituluan jasotako Ikerkuntza Institutuei buruzko arauak errespetatzea (besteak beste 206. artikulua: “Unibertsitateko ikerketa institutuen finantzabidea eurek sortutako baliabideez bermatu beharko da.”).
- Euskarazko kazetaritzaren esparru desberdinetako interesak jasotzea eta horrela gizartearen aniztasuna bermatzea.

Denbora izango dugu guzti horretaz lasai eta patxadaz aritzeko. Jakina, ekimen honek fruituak ematea nahi badugu, denon arteko elkarlanean oinarritu beharko dugu berau. Euskara Errektoreorde hau prest dago hori lortu dezagun beharrezko diren ahalegin guztiak egiteko. Azkenean, ekimena gauzatuko balitz, hemendik ehun urtetara edo, agian “eskerrik asko” hitzak ondo idatzita eta guzti aurkituko ditugu baita gaztelaniazko hedabideetan ere. Hori gertatuko balitz, -eta haserako poemara itzultzeko- iraultza txiki bat egingo genuen garagardoa ahaztu gabe.

f. EUSKARAZKO ALBISTE-AGENTZIA

Maria González Gorosarri
Topaguneko Hedabide Saileko koordinatzailea
Imanol Magro Eizmendi
Kazetaria

1. Euskarazko komunikazioaren azterketa kritikoa

“Which was more necessary,
a previously established society for the invention of language,
or a previously invented language
for the establishment of society?”
Jean Jacques Rousseau, *A discourse on Inequality*

Euskal edo euskarazko munduaren zentzu biko irakurketa komunikatibo bat egitea da txosten honetan proposatzen dena. Agian posible dira bestelako irakurketak. Guk hemen zentzu-anitzeko begiratua proposatu gura dugu.

Ezertan hasi baino lehen, gure burua kokatu nahi dugu: euskal munduaren baitan mugitu nahi dugu. Euskarazko munduaren baitan, horrela nahiago baldin bada. Eta hortik bi jauzi egin nahi ditugu, etxetik etxera (euskaratik euskarara) eta etxetik atzerrira (euskaratik erdaretara).

Lan honen bidez proposatu nahi duguna da euskaldunak euskaldunaren soa bereganatzea komunikazio publikoaren esparruan, eta era berean euskaldunak erdaldunaren begiratua bereganatzea esparru lehiakor horretan bertan. Gizarte kultura-anitz eta hizkuntza-anitz honen normaltasun kulturala eta linguistikoa bermatu nahi badira, giza eskubide demokratiko gisa, eta, hartara, euskaldungoaren duintasun soziala bermatu nahi baldin badira, guk uste, eduki sinbolikoen sorkuntza-, ekoizpen- eta igorpen-lan komunikatiboetan, gizarte-komunikazioaren funtzionamenduan, informazioaren jarioak zentzu bi bereganatu behar ditu: euskaratik euskarara, eta euskaratik erdarara.

Euskararen mundutik abiatuta, euskal hiztunei eta erdal komunitateko kideei euskararen munduan sortutako albisteen berri ematea helburua izanik¹, euskara ez ezik, gutxienez, beste hizkuntza baten beharra ere badago, Euskal Herriko erdal komunitateetako kideek eta atzerrikoek uler dezaten. Euskarak sortutakoa euskaraz baino ematen ez bada, erdal erkidegoek horixe baztertzeko arriskua dago². Hortaz, euskarazko albisteak erdaldunen hizkuntzetan ematean eurengana ere heltzeko aukera legoke.

Euskarazko komunikazioaren egitura ondoko bost esparruetan daukan hedapenaren arabera neurtu dezakegu: idatzizko prentsa, irratigintza, ikus-entzunezkoak, kanpoko proiektzioa eta liburugintza (azken hori ez dugu lan honetan aztertuko). Euskararen erkidegoaren berri eman eta, ondorioz, horixe eraiki edo berreraikitzen duten hedabideak aztertuko ditugu ondoren.

Idatzizko prentsari erreparatu eta hizkuntza ardatz hartuta, *Berria* dugu hedapen nazionala duen euskarazko egunkari bakarra. Gainontzeko egunkariak euskal lurralde osora ez zabaltzeaz gain, eurretan euskarak duen agerpena ere oso urritzat jotzen dugu, neurri handi batean, hizkuntzari berari loturiko albisteak izan ohi direlako³. Eus-

karak mundua ulertu eta interpretatzeko ematen dizkigun baliabideak nagusiki euskara hutsezko argitalpenetan topatuko ditugu. Hala ere, eguneroko prentsa nazionalan hutsune handi bi sumatzen ditugu: herri informazioa, bate-tik, eta albiste kopuru urria, bestetik.

Tokiko prentsak, ordea, hurbileko albisteen berri ematen digu. Euskal Herrian 93 tokiko aldizkari ditugu⁴ eta bost *Hitza*. Eskualde askotan zabaltzen diren tokiko aldizkariak euren jardute-eremuko muga topatzen dute. Eurek argitaratutako albisteei ez zaie irakurketa nazionalik egiten. Horrela, hiriburuetan jazotakoa “gertakizun naziona-la” izaten da eta herrietan gertatzen denak ez du oihartzunik izaten. Muga geografikoek azaltzen dute hori eta ez, kazetaritza-irizpideek.

Bigarrenez, egunkari nazionalak ezin dute nahibeste albiste ekoiztu eta jarraitu, giza-kapital falta dela-eta. Gai-nera, orri kopurua gehitzea ezinezkoa egiten zaie langile gehiago kontratatu ezean. Horrek dakarren gastua asko-tan ezin dute euren gain hartu, enpresa txikiak direlako.

Irratigintzan, egoerak oraindik larriagoa dirudi. Euskarazko irrati nazional bakarra dago (*Euskadi Irratia*). Hedap-en zabala duten gainontzeko guztiak, espainiar nahiz frantsesak dira. Neurri handi batean, gainera, erdarazko edu-kien itzulpena behar-beharrezkoa dute euskarazko irratiak (nazionalak eta eskualdeetakoak) aurrera egiteko, korte aproposak faltan izaten dituztelako sarritan. Erdarazko agentzietatik euskaratutako teletipoetan oinarritu behar dituz-te euren emanaldiak. Erdara eta erdal gaiekiko mendekotasuna azaltzen dute euskal irratiak.

Tokian tokiko irratiak, ostera, eremu propioa eurenganatu dute, ordura arte okupatu gabe zegoena⁵. Horregatik, euskararen erabilera bultzatzeko ezinbesteko tresna bihurtu dira, tokiko aldizkarien antzera. Eta aurreko horiek bezala, irakurketa nazionala ahalbideratzen duten albisteak argitaratzen dituzte. Era berean, herriz gairik era-kundeen berriek zuzeneko eragina dute euren edukietan. Ildo horretatik, zeharo interesgarria da *Arrosa* proiektua, non 30 bat irrati bildu diren.

Ikus-entzunezko komunikabideak nahiko urriak dira oraindik. Alde batetik, Euskal Herri osora hedatzen den euskarazko telebista bakarra dugu (*ETBI*) eta, bestetik, tokiko telebistak. Azken horiek hamar dira⁶ eta sortzear dagoen *Kanaldude* kontuan izanda, hamaika. Erdarek menperatutako edukietatik ihes egiteko ahalegina egiten dute telebistek, herrietakoek batez ere.

Gaur egun euskarak prentsan duen agerpena erabat diglosikoa da: hizkuntzaren gorabeherak euskaraz jasotzen dira, baina albiste garrantzitsu zein entzute handikoak erdaraz ematen dira⁷. Albiste horiek euskarazko jatorria izan-go balute, errazago litzateke euren berri ere euskaraz ematea.

Euskarak ez omen du prentsa-eremu propiorik, linguistika eta bertsolaritzaz haratago. Euskarak ez du, parado-xikoki, Euskal Herria egituratzen. Euskararen komunitate-esparrua egituratu gabe dago oraindik.

Euskal Herriak ez du oraindik berezko atzerri-proiektziorik. Euskarak ez du bere mugak gairik, atzerrian nagusi den hizkuntzan egin ezean. Erdarazko media arduratzen da Euskal Herrian gertatutakoaren berri emateaz. Adibide argigarria da ondokoa. Joxe Aranzabalek *Sustatu.com*-en urteetan argitaratutako artikuluek osatutako libu-rua kaleratu berri du, *Medikuak esan dit minbizia* daukadala izenburupean. Bertan, Aranzabalek gaixotasunari aurre egin dionekoak kontatzen ditu; besteak beste, alaba txikitxoari zelan azaldu zion aita gaixorik zegoela, 80 urteko amari zelan esan, kimioterapiari zelan heldu zion, etab. Euskaraz sortutakoa euskaraz plazaratu da. Hedapen muga-tua izango du, baina, euskal komunitatearengana baino ezin izango delako heldu. Muga geografiko-linguistikoek gaixotasunaren gai unibertsala duen sorkuntzaren hedapena murriztuko dute, oraingoan ere. Alderantziz, ingelesez, frantsesez edota gaztelaniaz sortutakoa izango balitz, hedapen erabat masiboa izateko alde aurreko aukera eduki-ko luke, baita hainbat hizkuntzatar itzultzekoa ere. Argi ikus daitekeenez, euskaldunok sortutakoa ez da hizkun-tza jakin batera mugatzen.

2. Inguruko albiste-agentzia erraldoiak

“Des-herritze prozesu bat bizi dugula iruditzen zait.
Des-euskalduntze praktiko bat bizi dugula esango nuke.
Desarmaketa kultural estrategiko baten
lekukoak ari garela izaten salatu gura dut”.
Jose Inazio Basterretxea, *Aurkari ikusezina*

Espainia eta Frantzia jarduten duten albiste-agentzia nagusiak *Efe* eta *France Press* ditugu⁸. Biak Administrazioak babestutako agentziak dira.

France Press munduko lehen albiste-agentzia izan zen, Charles-Louis Havasek 1832an sortua. Mundu osoan entzute handia lortu zuen eta gainontzeko herrietan sortzen hasi ziren agentziekin hitzarmenak zituen. 1879an, Frantziako Errepublikak estatus publikoa eman zion.

Espainiako lehen albiste-agentzia (*Fabra* izenekoa) 1865ean sortu zen. 1926an, lau banketxek akzioetan parte hartu zutenean, *Efe* izena hartu zuen agentziak. Ondoko banketxeek eratu zuten egungo albiste-agentzia: Banco Hispanoamericano, Banco Central, Banco Bilbao eta Banco Vizcaya.

Nazioarteko agentziak dira biak; hots, mundu osoan eta hainbat hizkuntzatan daukatela presentzia. Horregatik, euren jatorrizko estatuetako berriak helarazi ez ezik, atzerriko albisteak kanalizatzen dituzte albiste-agentzia hauek. Horrela, ildo editorialaren ikuspegiak bideratutako albisteak eskaintzen dizkiete hedabideei.

Agentzia globalak dira. *Efek* eta *France Press*-ek eskaintzen duten informazioa, hainbat ataletan sailkatuta dago, ahalik eta komunikabide gehien erakartzeko. Horrela, egunkariak, irratiak eta telebistak asetzeko beste teletipo ekoizten dituzte egunero. Osagai multimediakoak garatzen hasi dira, Internet bidezko komunikabide berrien albisteak ekoizteko asmoz.

Informazio osoa ematen dute. Gaika antolatutako teletipoez gain, historia oinarri duten hainbat albiste kudeatzen dituzte. Horrela, egungo eta lehengo informazioa bideratzen dute. Azken batean, informazio-iturri bakarra izateko gaitasuna etengabe areagotu dute.

Adibide esanguratsu moduan, hona hemen *Efe* albiste-agentziaren inguruko datu batzuk:

- Espainian kaleratzen diren bi informazioetariko batek *Efen* du oinarria.
- Espainian eta Hego Amerikan kaleratzen diren nazioarteko albisteen %40k *Efen* du sorburua.
- Ameriketara, ehun milioitik gora lagunak jasotzen dute *Eferen* informazioa.
- Espainian, hamahiru milioi egunkari-kontsumitzailek *Eferen* informazioak irakurtzen ditu.

Efe eta *France Press* agentzia erraldoi bi horiek kudeatzen dituzte euskarazko albisteak. Erdaraz funtzionatu ez ezik, erdal ikuspegia zabaldu eta Espainia nahiz Frantziako naziotasuna bermatzen dute euren jardueran. Euskarazko medioek, baina horien teletipoekin osatzen dituzte euren eguneroko albisteak, euskaldunok kontsumituko ditugun berriak, hain zuzen.

Horrek, euskararen ikuspegitik, gabezia handiak eragiten ditu. Esaterako, Jorge Oteiza hil zenean, *Efe* agentzia izan zen bere biografia zabaltzeko arduraduna. Oteizak Lapurdiko herri batekin harreman estua izan balu (ikastolaren sorkuntzan parte hartu zuelako, herri horretan hitzaldirik eman zuelako, bertan eskultura bereziren bat zegoelako, etab.), *Efek* ez zukeen horren berririk emango eta euskal medioek ez zuketean bide hori jorrazteko abiapunturik izango. Oteiza erdararen munduko eskultore moduan azalduko litzaziguke euskaldunoi ere.

3. www.sustatu.com

“Bidaia ona ez da helmugara
lehenbailehen iristen dena,
bidean amets egiten dakiena baizik”.
Pako Aristi, *Urregilearen orduak*

CodeSyntax eta Goienak orain hiru urte martxan jarritako proiektua da www.sustatu.com. Teknologiaz baliatuta, web-log bat sortu zuten, “euskal profesionalentzako foroa” izan nahi zuena, Goienako Telematika zuzendari eta *Sustatuko* editore Iban Arantzabalek azaldu bezala.

Lauzpabost albiste berri kaleratzen ditu *Sustatuk* egunero. Euskal Internet-erabiltzaileen soslaiak zehaztutako gaiak lantzen ditu: teknologia, kultura, hizkuntza, irakaskuntza eta hedabideak, besteak beste. Orain, hasierako sail horiek izugarri biderkatu dira, eta baita atal berriak gehitu ere. Horrela, *Sustatu* osatzen duen lan-taldeaz gain, edo-nork idatz dezake bertan bere albisteak. Arantzabalek dioen moduan, “*Sustatuk* kazetari bihurtu du jende guztia”. Horregatik, *Sustatu.com*-en aurkitzen ditugun albisteez ez dute jatorri bakar bat. Ez dira komunikabide gehienetsuetan era uniformeaz hedatutako albisteak. Hainbat gertakizun albiste bihurtu dira, *Sustatun* argitaratu eta gero. Gainerako medioetan agertzen ez diren berriak topa ditzakegu bertan, norbanakoak sortuta edo ikusita. Beste batzuetan, gainera, web-log-a dela kontuan izanda, norbanakoak albisteei erantzun diezaike. Argitaratutako albistea biritzen dute erantzunek, datu berriak gehitzean. Horrela gertatu zen *Euskaldunon Egunkaria* itxi zutenean, baita Fagorrek bi langile Txinan hegazkin-istripu batean hil zirenean ere.

Egunero 600 bat harpide dira *Sustatun*, posta elektronikoz eguneko albisteak jasotzen dituztenak. Egunero-egunero webgunea bisitatzen dutenak, ordea, bi mila baino gehiago dira eta, sarritan, lau mila bisita ere izaten ditu webgune horrek.

Gaur egun *Sustatu* dugu euskarazko albiste-agentziaren eginkizuna betetzen duen hedabidea, ildo editorialik ez badu ere. Zenbait kazetarik *Sustatun* agertutako berriak lantzen dituzte, ondoren. Era berean, albisteen iragarleentzat ere erakusleiho handia da *Sustatu*, bisitari horiek guztiak izaten dituelako. Euskal komunikazio-esparruaren gabezia handi hori konpontzen duen web-log-a kudeatzen hiru lagun aritzen dira. Guztira, denak kontuan izanda, zazpi ordu eskaintzen dizkiote lan horri. *Sustaturen* aniztasuna, hortaz, bidaltzaileek bermatzen dute. Inbertsio txiki batekin, primerako lana egin daitekeela egiaztatu du *Sustatuk*.

4. Euskarazko albiste-agentziaren aitzindariak

“Una de las escuelas de Tlön llega a negar el tiempo:
razona que el presente es indefinido,
que el futuro no tiene realidad sino como esperanza presente,
que el pasado no tiene realidad sino como recuerdo presente”.
Jorge Luis Borges, *Ficciones*

Euskarazko balizko albiste-agentzia ziklikoki jorratu izan ohi den gaia dela azaldu du Luis Alberto Aranberri *Ama-tiñok*⁹. Eztabaidarik sutsuena euskarazko egunkari baten sorrera lehenengoz planteatu zenean izan zen¹⁰. *Hemen eta Eguna astegunkariak* plazaratzean (1986an), egunero kioskoetan egongo zatekeen kazeta egingarriagoa ikusi zen. Hala ere, lehenengo eta behin, egunkari hori albisteez hornituko zukeen albiste-agentzia sortu behar zela uste izan zuten hainbatek, Eusko Jaurlaritzak batez ere. “Gure herrian euskal agentzia bat sortzen ez den bitartean oso muga-

turik geratzen dira euskarazko komunikabideak”¹¹, azaldu zuen Martin Ugaldek. Luis M^a Bandres orduko Jaurleariako Kultura Sailburuak, ordea, albiste-agentzia sortzeko “konpromisoa” hartuta zuela adierazi zuen 1985ean¹².

Albisteak euskaraz ekoiztuko zituzkeen agentzia bat sortzeko asmoz, hogeit hamar milioi pezeta bideratzea onartu zuen Eusko Legebiltzarrak, 1985eko aurrekontuen eztabaidan¹³. Denbora pasa ahala, Euskadiko Ezkerra-ko legebiltzarkide Xabier Gurrutxagak 1986ko irailaren 2an diru-partida horren betearazpena eskatu zuen¹⁴. Azkenean, 1987ko abenduan, Jaurlearitzak *Vasco Press*-ekin teletipoak euskarara itzultzeko hitzarmena sinatu zuen¹⁵.

Gaur egun badira euskaraz albiste batzuk ematen dituzten Espainiako albiste-agentziak (*Europa Press*, esaterako), baita teletipo horiek jaso eta argitaratzen dituzten webguneak ere (www.kaixo.com, www.yahoo.es). Beraz, euskarara itzulitako teletipoek gero eta zabalkunde handiagoa dute, baina jatorri bakarra: Espainiako eta Frantziako naziotasunak bermatzen dituzten agentziek helarazitako berriak dira.

Azkenaldian gaiak arreta eskatzen duela dirudi. Hainbat autorek agentziaren beharra azpimarratu dute euren lanetan. “Agentziaren zeregin nagusia euskarazko produkzioa euskara-herriari eskaintzea baldin bada, euskaraz bizi eta euskaraz sortu behar du”¹⁶, azaldu du EHUKo irakasle Jose Inazio Basterretxeak. Eztabaidari heltzeko garaia heldu da.

5. Proiektua¹⁷

“El futuro no es una página en blanco,
es una fe de erratas”.

Mario Benedetti, *Viento del exilio*

5.1 Helburuak

Euskal Herrian bi komunitate nagusi daude, hizkuntzak bereiztuta: euskal komunitatea eta erdal komunitatea¹⁸ (azken hori bitan banatzen da: frantses-hiztunak eta gaztelaniaz mintzo direnak). Erdaraz mintzatzen den komunitateak, gehiengoaz izateaz gain, oihartzun handiagoa du medioetan. Euren sorkuntzek sarbide errazagoa daukate komunikabideetan. Horrela, euskaldunok erdalduen berri dugun arren, ez dugu gure errealitatea ezagutzen. Sortzen ez dugula sumatzen dugu, azpikulturatzat hartzen dugu sortutakoa eta, are gehiago, jarrera “militantea” eskatzen da. Hortaz, pasotismoak erdal komunitatearen berri dakar. Hori dela-eta, herrialde bereko bi komunitateen arteko harremanak norabide bakarrekoak dira: erdaraz, hain zuzen.

Euskal komunitatearen inguruko gaiak euskaraz eman behar zaizkigu euskaldunoi. Baina erdal komunitateak ezagut gaitzan, erdalduen ulertzen duten hizkuntza batean ere eskaini behar ditugu albiste horiek. Era berean, beste herrialde batzuetara zuzendu nahian, euren ulertzen duten hizkuntzan ere eman beharko lirateke berri horiek. Euskaraz gain, beraz, gaztelerez, frantsesez edo ingelesez eman beharko lirateke.

5.2 Edukiak

Euskarazko albiste-agentzia nazionala izanik, zazpi herrialdeetan, gutxienez, berriemaile bana izango duela bermatu behar ditu. Egitura horrek herrialde bakarrean diharduten komunikabideen arreta bereganatzea ahalbideratzen du. Horrela, informazio-proiektu gehiagorengana zuzendu ahal izango litzateke.

Komunitate euskaldunaren berriak jarraitzea ez da nahikoa komunikabideen eskaria sortzeko. Izan ere, horretan diharduten kazetariak badituzte euren. Ildo horretatik, langile gehiago kontratatu gabe, orrialde kopurua gehitzeko aukera ematen zaie egunkariei eta euskaldunon inguruko informazioa, irratiei. Euskarri informatiko egokia erabiliz, informazioa grabatu eta irratiei igortzeko korteak aldi berean lor daitezke.

Gainontzeko agentzietatik bereizteko asmoz, elkarrizketa eta erreportajeak ere eskain daitezke. Horien kopuruaren arabera, produktu ezberdin gisa sal daitezke, epe luzera begira. Honakoak lirateke, aldiz, epe laburrera albiste-agentziaren zerbitzuak:

- Politika, kultura, gizartea, kirolak (herri kirolak, batez ere) eta agenda sailetako albisteak
- Aurrekoen hemeroteca eta audioteka
- Aldian-aldiko erreportaje eta elkarrizketak
- Argazkien artxiboa

Hasiera batean, hiru produktu horiek batera saldu arren, ordezkartzak ezberdin daitezke, eskualdeko komunikabideak erakartzeko asmoz.

Albiste-agentzia hedatu ahala, bestelako produktuak eskaini ahal izango dira eta baita produktu jakin batzuen araberako kontratuak egin ere. Ondokoak izan daitezke eskaini beharreko hurrengo produktuak, aurrekoek gain:

- Elkarrizketa eta erreportajeak
- Datu-baseak (biografia etengabe eguneratuak, ospakizunen jarraipena, ikuskizunak, liburu eta diskoen kritikak, elkarrizketak etab.)
- Prentsa-laburpenak (nazioarteko prentsa, prentsa espezializatua, artxibo propioa etab.)
- Bestelakoak (biografien bilduma, adib.)

Epe luzera aurreikusitako produktuak badira ere, epe ertainera lantzen hasi beharko lirateke. Kasu horretan, sorkuntza lana ez litzateke sozializazio lanarekin bat etorriko. Azken hori, gainera, produktuaren araberako erosleak lortzera zuzenduta egongo litzateke (enpresa eta erakundeak, batez ere).

Azkenik, Internetez baliatuta, herritarra bereganatzeko saioak egin beharko litzuzke agentziak. Agenda, esaterako, eman beharreko gutxieneko informazioa da.

Horrez gain, bi helburu bateratzean (erdal komunitateari geure berri ematea eta Euskal Herriaren atzerri-proiektzioa bideratzea), bigarren hizkuntza baten erabilera aurreikusten da (ingeleza, ziur aski).

5.3 Barne funtzionamendua

Albiste-agentziak zazpi herrialdeetan jardungo du. Herrialde bakoitzeko berri-emaile eta argazkilariak egongo dira. Herrialdeen oreka mantendu gura izango da, hau da, egunean gutxieneko albiste kopuru bat helarazten. Gainerakoetan, lan-bolumenak eta ekoizpen kopuruak zehaztuko dute zenbat langile behar diren herrialde bakoitzean. Guztien lana euskarri informatiko egokian gordeko da, Internet sare bitartez, edonora bidaltzeko, bai prentsa idatzira bai irratietara.

Unean uneko kolaboratzaileen sare zabalak herririk herriko informazioa ematea ahalbideratuko luke. Albisteak hirugarren-laugarren hizkuntza batera itzuliko dituzten langileak ere kontratatzea aurreikusi behar da.

5.4 Finantzabideak

Balizko erosle eta kontratu motez gain, Administrazioek diruz lagundutako albiste-agentzia izan behar dela deritzogu. Errentagarritasun ekonomikoaren aurrean, eginkizun soziala lehenetsi behar du Administrazioak. Telebistarekin gertatzen den antzera, euskara bera eta euskal sorkuntza babeste aldera, euskarazko albiste-agentzia martxan jartzea bere gain hartu beharko luke Administrazioak. Horrek ez du esan nahi agentzia instituzionala litzatekeenik.

Auto-finantzabidea oso garrantzitsutzat jotzen dugu. Hala ere, eremu administratibo bakoitzeko erakundeetako elkarlana ezinbesteko izango delakoan gaude. Albiste-agentziak errentagarritasuna zalantzan badu ere, eginkizun

zun sozial argi-argia dauka. Jarduera hori diruz babesteak euskarari ez ezik, erdal komunitateei ere zerbitzua eskainiko liekeela zehaztu behar da. Izan ere, euskal sorkuntza proiektatzea izango bailuke helburu. Horrela baino ez daiteke gauzatu Saizarbitoriak azaldu eta guk geure egiten dugun maxima hau: “Militantismoaren garaia gaintzea desio dut, ekintza bolondresak lan profesionalari atea zabalik uztea; beldur naiz, ordea, horrek ez ote duen ekariko, ate beretik, euskararen aldeko jarrera sozial baikorrek ihes egitea”¹⁹.

6. Ondorioak

“Baina gaudeneko errealitatea eta garenaren izatea gertatu eta gauzatu denaren gainean eraikia dagoelako, ez garenaren aldarrikapenak egiteko eskatzen digu barren-barrengo ahots sumindu batek”.

J. M. Odriozola, *Euskal inteligentsiaren ideologia zantzuak*

Euskal hiztunei euskararen munduaren berri emango dion azpiegitura albiste-agentziaren paradigmaren baina ezin daiteke ulertu. Euskarazko sorkuntza ardatz izango lukeen agentziak eginkizun nagusi bi izango lituzke: euskal erkidegoaren albisteak ekoiztu eta euskarazko komunikazio-esparruko hedabideak albistez hornitu.

Euskara aintzat hartuko lukeen albiste-agentziak informazio-iturri ugariak izango lituzke. Euskal Herrian jarduten duten gainerako agentziek euskararen munduko iturriak aintzat hartzen ez dituztela kontuan izanda, informazio hori bideratzeko tresna bihurtuko litzateke euskarazko albiste-agentzia. Euskal kazetaritza *berria* eragingo luke, Euskal Herria, euskara eta euskaldungoaren beste dimensio bat zabalduko lukeelako agentziak.

Euskaraz jardungo lukeen albiste-agentziak euskararen egoera diglosikoari amaiera emateko ere balio lezake. Hizkuntzari berari begiratzeaz gain, sormenezko hizkuntza ere badela frogatu ahal izango luke euskarak. Horrela, egunkari elebidun eta erdaldunek euskarazko albisteak txertatzeko erraztasun handiagoa izango lukete.

Horregatik guztiagatik, euskal komunikazio-esparrua egituratzeko albiste-agentzia oinarritzko tresna dela uste dugu. Euskaraz aritzeaz gain, izaera nazionala ere izan behar du, Euskal Herriko talde ezberdinak elkarrekin harremanetan jarritz.

Bibliografia

- Basterretxea Polo, Jose Inazio (2003): *Aurkari ikusezina*, Alberdania, Irun.
- Basterretxea Polo, Jose Inazio (2001): “Hizkuntza eta hedabideak: prentsa idatziaren kasua”, *Uztaro*, 39. zenb., 2001.
- NOR ikerketa taldea (2000): *Hedabideak eta Euskal Herria*, UEU, Bilbo.
- Saizarbitoria, Ramon (2000): *Aberriaren alde (eta kontra)*, Alberdania, Irun, 3. arg. (1. arg., 1996).
- Urrutia, Santi (2003): “Mapa komunikatiboak eta euskara” in A.A.A.A.: *Tokiko hedabideak etorkizunera begira*, Topagunea Euskara Elkartearen Fundazioa, Zamudio, 2003.
- Zalakain (1993), *Jexuxmari: Joxemiren uzta. Euskal prentsa herri proiektua da*, Txalaparta, Tafalla.
- Zallo, Ramon; Azpillaga, Patxi; eta, De Miguel, Juan Carlos (2002): *Komunikabideak hemen. Egitura mediatikoa Hego Euskal Herrian*, Alberdania, Irun.
- Zuberogoitia Espilla, Aitor (2003): *Euskararen presentzia gaur egungo prentsa elebidun abertzalean*, EHU, Leioa. *Deia*, 2003/04/06
- EAEko Euskadiko Ezkerra Legebiltzarreko taldeak Hezkuntza eta Kultura Batzordeko Mahaiari aurkeztutako agiria [2.986/29 zenb.].

Oharrak

1. “Euskal hizkuntza bera eta euskaldungoa ezezagunak eta baztertuak dira gure inguruko eguneroko hedabide idatzi elanitzetan” [Basterretxea Polo, Jose Inazio (2001): “Hizkuntza eta hedabideak: prentsa idatziaren kasua”, *Uztaro*, 39. zenb., 2001, 63. or.]
2. Basterretxea (2001); “Hedabideak eta hizkuntza: erdararen aldeko erreproduzio mediatikoa” in NOR ikerketa taldea (2000): *Hedabideak eta Euskal Herria*, UEU, Bilbo, 199-218. or.; eta, “Euskararen presentzia defizitariora hedabideetan” in Zallo, Ramon; Azpillaga, Patxi; eta, De Miguel, Juan Carlos (2002): *Komunikabideak hemen. Egitura mediatikoa Hego Euskal Herrian*, Alberdania, Irun, 23-30. or.
3. Zuberogoitia Espilla, Aitor (2003): *Euskararen presentzia gaur egungo prentsa elebidun abertzalean*, EHU, Leioa (505-506, 515-517, 523-525. or.).
4. Urrutia, Santi (2003): “Mapa komunikatiboak eta euskara” in A.A.A.A.: *Tokiko hedabideak etorkizunera begira*, Topagunea Euskara Elkartearen Fundazioa, Zamudio, 2003, 20-21. or.
5. Guztira, 29 irratidate, Urrutia (2003: 19).
6. Urrutia (2003: 22).
7. Zuberogoitia (2003: 507, 509, 517-519, 525-527, 534-536. or.).
8. Ikus. www.efe.es eta www.afp.com.
9. *Deia*, 2003/04/06, 64. orr. (D2): “Kilimon erreka bezala lantzean behin agertzen eta ezkututzen den ideia da”.
10. Zalakain, 1993: 35. orr.
11. *Argia Urtekaria*, 1985, 130. or. in Zalakain (1993: 54).
12. Ib.
13. Zalakain (1993), Jexuxmari: *Joxemiren uzta. Euskal prentsa herri proiektua da*, Txalaparta, Tafalla, 55. or.
14. Euskadiko Ezkerra Legebiltzarreko taldeak Hezkuntza eta Kultura Batzordeko Mahaiari aurkeztutako agiria [2.986/29 zenb.], Sailburuaren agerraldia eskatzeko (Gasteizko Legebiltzarra, 1986-09-02).
15. Zalakain (1993: 55).
16. Basterretxea Polo, Jose Inazio (2003): *Aurkari ikusezina*, Alberdania, Irun, 125. or.
17. Albiste-agentzia proiektu hau 2003ko otsailean garatu zuten ondokoek: Maria González Gorosarri, Imanol Magro Eizmendi eta Kepa Ugarte Martiarena.
18. Joseba Sarrionandia: “Euskal Herria, bere jabego politikoaren bila dabiren hizkuntza bat da; euskaldunak, bi milioi erdaldun eta seihun mila erdaleuskaldun gara”. (Basterretxea: 2003:36).
19. Saizarbitoria, Ramon (2000): *Aberriaren alde (eta kontra)*, Alberdania, Irun, 3. arg. (1. arg., 1996), 79. or.

a. IKUS-ENTZUNEZKO HEDABIDEAK EUROAPAN

George Jones
Mercator Ikerketa eta Dokumentazio Zentroa

1. Atarikoa

Europako hizkuntza gutxitu autoktonoek talde benetan heterogeneoa osatzen dute; multzo horren barruan daude, batetik, euskara, katalan eta galizieraren moduko hizkuntzak, hau da, beren lurraldeetan hizkuntza ofizialkide direnak, estatuko hizkuntza ofizialarekin batera; bestetik, estatu batean gutxiengo baten hizkuntza izanik oso marjina-tuta dauden baina beste estatu batean oso zabaldua dauden hizkuntza estatalak (adibidez alemana Belgikan, Frantzia edo Danimarkan); eta, azkenik, baita inolako ezagutza ofizialik ez duten hizkuntzak ere. Era berean, hizkuntza horien artean alde handiak daude hiztun kopuruari dagokionez; katalanak adibidez hainbat milioi hiztun ditu, eta beste batzuk, berriz, herri batzuetan baino ez dituzte erabiltzen, adibidez Saterfrisiera Alemanian. Hizkuntza horiek ikus-entzunezkoetan duten oihartzuna ere askotarikoa da, jakina. Lehenik eta behin, katalanaren azterketa egingo dugu, beste adibide batzuen erreferentzia egingez, galesarena bereziki.

Francoren erregimenaren garaian zapalkuntza latza jasan zuen katalanak, baina bat-bateko eta ezusteko aldaketa etorri zitzaion demokraziaren barruan erregioei autonomia ezagutu zitzaielarik. Espainiako lurralde nagusietako gobernu autonomoek berehala sortu zituzten beren hizkuntzetan jardungo zuten telebista eta irratiak.

“Katalana” esaten dudanean, valentziera ere sartzen dut hor, nahiz eta eztabaida ugari dagoen horri buruz; hain zuzen, valentziera katalanaren dialektoa den, edo hizkuntza osoa den. Izan ere, bi hizkuntzak oso antzekoak dira linguistikoki, bateko nahiz besteko hiztunak gai dira bi erkidegoetan egindako materialak ulertzeko eta bateko nahiz besteko telebista kateak ikusten dira bi erkidegoetan; horrenbestez, zentzuzkoa dirudi testuinguru honetan biak elkarrekin kontuan hartzea. Nolanahi ere, komeni da adieraztea hedabideetan eragin handia izan duela bi aldaeren arteko harremanari buruzko eztabaidak eta auzi horrek berekin dakarren eztabaida ideologikoak. Adibidez, Bartzelonan katalanez azpidatzitako film bat, Kataluniako autonomia erkidegoko kateetan emandakoa, ezin eman dezakete Valentziako autonomia erkidegoan, nahiz eta valentziarrek beren hizkuntzan azpidatzita dagoela pentsatuko luketen. Horren ondorioz, ikus-entzunezkoen itzulpenaren industriak oso merkatu mugatua du Kataluniako autonomia erkidegoan, eta katalanezko material ugari ezin bete dezakete Valentzian eskuragarri den ikus-entzunezkoen kopuru mugatuagoaren hutsunea.

2. Katalanezko hedabideak

2.1. Telebista

Kataluniako Autonomia Erkidegoko katalanezko lehen katea *Televisió de Catalunya (TV3)* izan zen. *Catalan Radio* irratiarekin batera, *CC/RTV (Corporació Catalana de Radio i Televisió)*, Kataluniako irrati-telebista, osatzen du. Erakunde hori 1983an sortu zuten, Kataluniako Parlamentu Autonomoaren (Generalitat-en) lege baten bidez. Hala,

TV3 katea 1984ko urtarrilean hasi zen emititzen eta, aurrerago, 1984aren amaierarako, Kataluniako gobernu autonomoak TV3ren gaineko zuzeneko kontrola eskuratu zuen, Espainiako Errege Dekretu baten bidez. TV3 Generalitatearen diru laguntzen bidez finantzatu da, eta iragarkietatik eta salmentatik ere ateratzen ditu irabaziak. Egunean 24 orduetan emititzen du telebista, eta honako herri hauetan hartzen dute: Kataluniako Autonomia Erkidegoa, Andorrako Printzerria, Valentziako Autonomia Erkidegoa, Frantziako katalanez hitz egiten duten eskualdearen zati bat eta Balear Uharteak. Guztira 13.5 milioi biztanlek dute kate hori ikusteko aukera. Gainera, astean 96 ordu egiten dituzte katalanez.

Televisió de Catalunya S.A.-ren bigarren katea *Canal 33* da. 1989ko apirilaren 23an hasi zen emititzen, era esperimentalean, eta urte hartako irailaren 10ean ekin zion etengabeko emanaldiari. *Canal 33k* TV3ren baliabide eta administrazio egitura berak erabiltzen ditu.

Bestalde, badago gazteentzako bereziki sortutako telebista bat, pribatua, *Flaix TV* izenekoa. Gazteentzat bereziki sortutako katalanezko lehen telebista katea da. Biztanle talde jakin bati bereziki zuzendutako telebista katea izateak bereizten du katalana Europako hizkuntza gutxitu gehienetatik, baita hizkuntza gutxitu hori erabiltzen duen telebista enpresa pribatu bat egoteak ere. Izan ere, hizkuntza gutxitu gehienek telebista eskaintza urria izaten dute, edo batere ez, eta eskaintza hori baduten tokietan ere, kate bat edo, gehienez, bi izaten dira (askotan, hizkuntza gutxituan soilik ez dihardutenak), eta biztanle talde ahalik eta gehienetara iristea izaten dute helburu.

TV3 katearen hizkuntza ofiziala katalana den arren, horrek ez du esan nahi kate horretan beste hizkuntzarik entzuten ez denik. Adibidez, iragarki gehienak katalanez dira, baina badira iragarki elebidunak (adibidez, testua hizkuntza batean eta ahoskoa bestean) eta gaztelania hutsezkoak ere. Beste hizkuntza batzuetan ere agertzen dira ohar labur batzuk. TVCn onartuta dago gaztelaniako iragarkiak sartzea, ez dago hori debekatzen duen legerik; baina sarritan gogorarazten diete iragartzaileei ikusle batzuek onartezina deritzotela horri. Gaztelaniaz egiten diren iragarkiek publizitate guztiaren %10-20 hartzen dute. Katalanezko filmak (oro har katalanez eta espainieraz batera ekoiztiak) katalanezko bertsioan ematen dituzte. Espainiar filmak, espainieraz egindakoak, ez dituzte ematen TVC kateak, beste kate batzuek ematen dituztelako. Nolanahi ere, espainierazko film bat ematen dutenean (programazio kontuengatik), jatorrizko hizkuntzan ematen dute. Beste film batzuk katalanez bikoiztu edo azpidatzi egiten dituzte. Saio dramatikoak katalanera bikoizten dituzte, baita jatorriz espainieraz egindako ekoizpenak ere. TVCk ekoiztutako dokumentalak edo erreportajeak katalanez dira, jakina, baina espainieraz hitz egiten duten lekukotzarik agertuz gero, pasarte horiek ez dituzte itzultzen, bere horretan uzten dituzte. Beste hizkuntza batzuetakoak, berriz, itzulita ematen dituzte, off-eko ahotsean. Katalanez ez diren dokumental edo erreportajeak bikoiztu egiten dituzte, off-eko ahotsean, edo azpidatzi. Katalan hiztunak ez diren elkarrizketetan, berriz, elkarrizketa egiten diotena Katalunian bizi bada edo katalanez ulertzen badu, elkarrizketatzaileak katalanez hitz egiten dio eta elkarrizketatuak bere ama hizkuntzan erantzuten. Elkarrizketatuaren ama hizkuntza gaztelania ez bada, interprete batek katalanera itzultzen du hark esandakoa. Katalanez ulertzen ez duen gaztelania hiztun bati egiten badiote elkarrizketa, berriz, elkarrizketatzaileak elkarrizketatuaren aurkezpena katalanez egiten dio ikusleari, eta hortik aurrera espainieraz egiten du elkarrizketa. Elkarrizketatua atzerritarra bada eta katalana ulertzen ez badu, elkarrizketatzaileak katalanez egiten du, eta aldebereko interpretazioaren bidez itzultzen da elkarrizketa.

TVCk Hizkuntzaren Normalizaziorako Batzorde bat du, telebistako ahozko katalanaren maila estandarra neurtzeko eginkizuna duena. Ozen esateko diren gidioak eta testuak irakurri eta zuzendu egiten dituzte, eta ahoskerari, gramatikari eta lexikoari buruzko oharak egiten dizkiete. TVC behartuta dago Kataluniako gobernu autonomoaren hizkuntza politikari jarraitzea eta katalan estandarra erabiltzea, bereziki saiorik formalenetan, eta Hizkuntzaren Normalizaziorako Batzordearen erantzukizuna da hori egiten dela egiaztatzea.

TVCk honako irizpide hauei jarraitzen die, oro har: Ikasketa Katalanen Institutuaren gomendioak, aditu lexikografikoen gomendioak eta Termcat (katalanezko terminologiaren zentro ofiziala), neologismoei eta termino teknikoiei dagokienez. Nolanahi ere, saio ez hain formaletan onartuta dute hizkuntza lagunartekoagoa erabiltzea.

Valentziari dagokionez, 1984ko uztailean Cortes Valencias erakundeak (Valentziako parlamentuak) Ley de Creación de Radiotelevisió Valenciana onartu zuelarik *Valentziako Irrati Telebista (RTVV)* sortu zuten, eta horrek bide eman zion *Canal Nou* kateari; *Canal Nou* kate elebiduna da, eta 1989tik aurrera ari da emititzen, astean 92 orduz, %70 valentzieraz eta %30 gaztelaniaz.

Horrez gainera, 1997ko urritik aurrera, *Punt Dos* ere badute, Televisión Valenciana erakundearen bigarren katea. Programazioari dagokionez, albistegiak, zinema eta dokumentalak dira aipatzekoak, baita jaiei eta kirolei buruzko saiok ere, den-denak valentzieraz.

Bestalde, katalana Espainiako kate estatalean, *TVE*n, ere erabiltzen dute, deskonexio erregionaletan. Frantziako estatuan, *F3 Sud* kateak astean bost minutu eskaintzen dizkie katalanezko berriei. Hiru astean behin, gainera, 15 minutuko saioa egiten dute. *France 3 Sud* 1997tik aurrera ari da saio horiek ematen. Nolanahi ere, *France 3 Sudek* katalanez egiten dituen saioak ez dira iristen Frantzian katalanez hitz egiten den eskualdeko toki guztietara.

2.2. Irratia

Kataluniako Autonomia Erkidegoko irrati publikoa *Catalunya Ràdio*, *Catalunya Música* eta *Ràdio Associació de Catalunya* kateez osatua da; denek emititzen dute eguneko 24 orduetan, katalanez. Irrati horiek 1973, 1987 eta 1984. urteetan sortuak dira, hurrenez hurren. Corporació Catalana de Ràdio i Televisió erakundea osatzen dute, *TV3* eta *C33* telebista kateekin batera. *Catalunya Informació* *Catalunya Radioren* jabetzakoa da, eta berriak bakarrik emititzen ditu. Beste kate publiko bat ere bada, *Radio 4*, *Radio Televisión Española* irrati-telebista sare estatalaren baitakoa. *Cadena 13* eta *Canal Nova* kate pribatuak dira, eta biek erabiltzen dute katalana.

Horiez gainera, katalana erabiltzen duten irrati lokal asko daude Kataluniako Autonomia Erkidegoan eta 1985az gero EMUC (Emissores Municipals de Catalunya) elkarteak bilduta daude. Oro har, katalanez aritzen dira irrati horietan, baina badituzte gaztelaniazko saio batzuk ere, beren eskualdearen osara linguistikoaren arabera nagusiki. Katalanezko lehen irrati lokala *Radio Arenys* izan zen; 1979ko irailaren 11n Arenys de Mar herrian sortua da, Bartzelonatik kilometro batzuk iparraldera. Ideia hura berehala zabaldu zen hainbat tokitar, eta asko handitu zen irrati lokalen kopurua; EMUC elkarte 200 kidez osatua da gaur egun. Valentziako irrati publikoa *Canal Nou Ràdio* da; eguneko 24 orduetan dihardu, valentzieraz gehiengan.

Frantziako estatuko katalanezko irrati ospetsuena *Ràdio Arrels* da. Aberastasun xederik gabeko elkarte batek kudeatzen du irrati hori, eta eguneko 24 orduz emititzen du (7-9 orduz ahozko materiala), katalanez. Frantziako Komunikazio ministerioaren diru laguntzen bidez finantzatua da. Ez dute iragarkirik emititzen.

Bestalde, astean minutu batzuk katalanez egiten dituzte *France Bleu Roussillon* jabetza publikoko katean.

2.3. Zinema

Kataluniako gobernuak ahalegin berezia egiten du Katalunian banatzen diren filmen kopuru jakin bat katalanez bikoiztearen garrantziaz ohartarazteko, denak gaztelaniaz bikoiztu ordez. Oso zaila da eskakizun hori gauzatea, ordea, Hollywoodeko estudio askoren jarreragatik, batez ere, *20th Century Fox* etxearen jarreragatik, boikota egiteko mehatxua egin baitu. Egoera horrek eztabaida sortu du Kataluniako gizartean, Kataluniako gobernuaren jarra-rra protekzionistaren aldekoen eta merkatu erabat irekiaren alde dauden artean. Film konpainia handi horiek “indar ekonomiko, politiko, kultural eta ideologiko handiko lobby” moduan hartzen dira, motibazio ekonomikoa ez ezik motibazio kulturala eta politikoa ere badituzten talde moduan, eta edonora zabal dadin eragotzi beharko litzatekeen adibide txartzat jo izaten dira (Jones, 1999). Beren botere guztia erabili ohi dute estatu indibidualek, eskualdeko gobernuak edo, are gehiago, Europako Batasuneko agintariek beren interesen kontra joko ez dutela bermatzeko, noski.

3. Aurrekontu mugatuak, hizkuntza handietako irrati-telebistekiko lehia, eta hedabideen arloko aldaketak

Katalanezko ikus-entzunezkoen kopurua Europako hizkuntza gutxitu gehienetan eskuragarri direnena baino nabarmen handiagoa da, gauza jakina denez. Nolanahi ere, azken hiru hamarraldietan hizkuntza gutxitu batzuk, katalanak barne, egindako aurrerapenek gainbehera egin dute hedabideak pribatizatzearen, ugaritzearen eta globalizatzearen ondorioz, eta estatua (hizkuntza gutxituen eskaintza gehiena estatuko irrati-telebisten eskutik dator) eskuragarri den eskaintza guztiaren parte bat besterik ez da orain, parte nahiko txikia, batzuetan. Horrek zuzeneko ondorioak ditu bai ikus-entzuleei bai irrati-telebistei dagokienez.

Hizkuntza gutxituetako irrati-telebistek, hizkuntza horretan diharduen kanal bat edo bi soilik izaten direnez, eta dozenaka, berriz, hizkuntza estatalekoak edo nazioarteko hizkuntzetakoak, bereziki adi ibili behar dute ikusleak erakarri eta mantentzeko. Estatuaren laguntza duten irrati-telebistek ere begiratu behar diote ikusle kopuruari, batez ere audientzia potentziala handia ez denean eta kate asko izanik oso zatikatua denean, baina hizkuntza gutxituetako irrati-telebistek bereziki argi ibili behar dute ikusle kopurua maximizatzeko eta entzulearen identifikazioa sendotzeko. Alderdi horiek, beti aipatu izan diren baina garrantzia orain aitortzen ari zaienek, eragin handia izango dute saioen edukian, ordutegian eta hainbat baliabideren erabileran (edo beste era bateko erabileran), adibidez azpidatzen erabileran.

3.1. Azpidatzen erabilera

Ikus-entzunezkoen itzulpenari dagokionez, ez diote bide berari jarraitzen irrati-telebista guztiek. Telebista galeseko kateak, *S4C* kateak, esaterako, ezin du katalanekoek bezala egin eta amerikar komediak galesera itzuli. Izan ere, oso litekeena da ikus-entzule galesek jatorrizko saioak ikusiak izatea. Hala ere, *S4C* katean erabiltzen dituzte azpidatziak, gales hiztun ez direnek ere kate hori ikusi ahal izan dezaten, horrela audientzia handiagoa izateko. Balia-bide hori erabilgarriagoa da genetikoki oso desberdin diren bi hizkuntzarekin, adibidez ingeles eta galesarekin, edo euskara eta gaztelaniarekin, ez hainbeste katalana eta gaztelaniarekin, maila batean elkar ulertzea posible delako.

Hizkuntza gutxituetan, batez ere hizkuntza horietan egindako lehenengo saioetan, hizkuntza horretan lan egiteko behar den adinako gaitasuna baduten profesional trebatu asko izaten ez denez, nonbaitetik inportatutako material itzulia eskaintzeko joera nagusitu ohi da. Era berean, hizkuntza handian ezagunak diren generoak eta formatuak kalkatzen dituzte, ikusleak erakartzeko bitarteko onak direlakoan. Zalantza dago, ordea, horrek kulturaren izan ditzakeen ondorioez, eta ez dago argi gutxiengoen hizkuntzako ikus-entzunezkoen parte handi bat atzerriko kultura batean sortua izatea komeni den edo ez. Nolanahi ere, nekez defini daiteke kultura bat zer den, hizkuntza zer den definitzea baino zailagoa. Kezkagarria litzateke, jakina, hizkuntza gutxitu batek beste hizkuntza batzuetatik bikoiztutako materiala baino ezer gutxi gehiago eskaintzea. Baina, hala ere, atzerriko kulturetako materiala erabiltzeari buruzko kontuekin malabarismoak egiten aritzen dira hizkuntza gutxituetako irrati-telebistak etengabe, eta, gero eta gehiago, baita hizkuntza handietakoak ere. Hizkuntza gutxituen hiztunak beren kulturari buruzko definizio kontserbadoreak bazterten saiatzen dira, eta, alde horretatik, ez da kaltegarria izango japoniar marrazki bizidunak edo Hollywoodeko filmak erabiltzea, programazio orokorrean hartzen duten tartearen arabera betiere.

Nolanahi ere, baliteke bikoiztutako eta azpidatzitako nazioarteko materialak (amerikarra batez ere) ez izatea mezu kultural uniformeak barreiatzeko halako indarrik, ez itxuraz duen adinakorik behintzat. Izan ere, ikus-entzunezko ekoizpenen esanahi kulturala ez da absolutua. Hau da, testu bakoitza deskodetzeko modua testuinguruari atxikia da, eta ez du testuak berak mugatzen. Ikuslearen eta ekoizlearen jatorri kulturalak berdinak ez badira, ikusleak ekoizpena deskodetzeko garaian ez dio emango ekoizleak eman nahi zion zentzu bera. Horren adibide polita dira 1950eko eta 1960ko hamarraldietako amerikar thriller eta western generoetako filmak: Estatu Batuetan eskuin joerako testutzat hartuak ziren, eta Britainia Handian, berriz, klase kulturaren kontrako antidoto gisa ikusi zituzten

(Kaplanen aipua, Webster 1988). Beraz, ezin esan daiteke Dallas sailaren ikusle katalanak Ameriketako ikus-entzuleek jaso zuen mezu kultural bera jasotzen duenik. Alde horretatik, nolabait esateko, ez dira gauza bera ikusten ari-tuko sail hori ikusten ari direnean. Izan ere, ekoizpen bat interpretatzeko modu asko daude, ikusleen arteko desberdintasun kulturalen arabera. Ameriketako kultura gutxietsi egiten da batzuetan, eta idolizatu besteetan, atzerrian; jakina, hain hedadura handia izanik, ekoizpen amerikarrak ez dira toki guztietan etxean ikusten dituzten modu berean ikusiko. Are gehiago, hizkuntza ikus-entzunezko ekoizpenen identitate kulturalaren funtsezko osagaia denez, hizkuntzaren transferentzia hutsak identitate kultural hori aldarazten du per se. Produkzioak, jakina, arrotza izaten jarraituko du xede (hizkuntzetako) hartzaileentzat, baina, hala ere eta aldi berean, jatorrizkoaz bestelako produktu kultural bat izango da.

Batzuetan, badirudi inportatutako produktu kultural amerikar/globalak ez direla gutxiengoentzat hain arrotzak edo, gutxienez, ez direla hain mehatxu handia, gutxiengo horiek kokatuta dauden estatu nazioaren ekoizpenaren aldean. Munduko Filmei buruz 1930ean egindako ikerketa baten emaitzen arabera, esaterako, Eskoziako langile giroko inguruetako ikusleentzat egokiagoak ziren film amerikarrak, britainiar filmak baino (Morley and Robins 1995). Beraz, nazioez haragoko kulturetako ekoizpenak, batez ere, hizkuntza gutxitu batera itzulita, estatu nazioaren kulturaren inposaketa orekatzeko modu gisa har litezke. Hain zuzen ere, ingelesezko testu kulturalak, adibidez, entzuleria “nazionalaren” parte gisa hartzen dituelako gales edo gaeliko hizkuntzetan mintzatzen diren hiztunak, eta horrek eztabaida ideologikoa ekar dezakeelako. Halako gogoetarik ez da sortuko, aldiz, gales hiztunak Japoniako produkzio bat ikusten duenean.

3.2. Genero herrikoiak

Hizkuntza gutxituetako telebistako programazioetan genero herrikoiak eta haurrentzako saioak izaten dira “etxe-ko” produktuen artean nagusi. Audientzia maila onak lortzeko egokiak izaten dira, nahiko merkeak ere bai, beste batzuekin alderatuta, eta, haurren saioei dagokienez, behin eta berriz programatzeko modukoak.

4. Hizkuntza gutxituetako irrati-telebistako emanaldien garrantzia/eginkizuna

Zenbateko garrantzia dute gaur egungo hedabideetan hizkuntza gutxituetako irrati-telebistek? Zentzu komunari jarraituz, begi-bistakoa da hizkuntzak biziberritzeko estrategietan funtsezko eragileak direla hedabideak, eta ez da harrizkoa hedabideen hizkuntzak jendearen erabileran eragina izango duela eta hizkuntza beste arlo batzuetara zabaltzeko lagungarri izango dela uste izatea. Nolanahi ere, bada gauzak beste era batera ikusten dituenik ere. Joshua Fishmanek, esaterako, kritika egin die hizkuntza gutxitu askotako hizkuntzaren aktibistei, “hedabideen fetitxismoa” dela-eta, eta Mike Cormackek (2004) gogorarazi du hedabideek jendearen hizkuntza jardueretan duten eragina ez dagoela zehaztuta inola ere.

Nolanahi ere, ezin uka daiteke hizkuntza gutxituetako irrati-telebistek hiztunen ikuspegitik duten garrantzia eta hizkuntza “sustatzeko” edo “biziberritzeko” duten zereginaren garrantzia. Hedabideak ama hizkuntzan eskuragarri izateak diskurtso publikorako berdintasunaren giza eskubidea izenda genezakeena betetzen laguntzen du. Horrez gainera, norberaren komunitatea norberaren ama hizkuntzan diren hedabideen bidez eta hedabideetan agertzeak asko lagun dezake gutxiengoei etengabe beste kultura batzuen begietatik begiratzeko joera hori arintzen eta hizkuntzaren komunitatearen irudia beste nonbait sortutakoa baino errealitatean denetik hurbilgokoa izaten. Horri esker, nekezago iraungo dute bizirik gutxiengoei buruzko muturreko aurreiritziek eta estereotipoek.

Bestalde, era akademikoan egiaztatu gabe dagoen arren, eta Galesko esperientziak erakusten duenez, behintzat, termino berrien erabilera zabaltzeko eginkizuna erraztu egin dute, neurri batean, hedabideek. Izan ere, eginkizun

hori betetzeko beste gorputz edo erakunderik ez dagoen kasuetan, hedabideetan lanean dihardutenek sortu behar izan dituzte neologismoak, ulergarritasuna eta komunikazio eraginkorra lehenetsun hartuta. Saihestu ezinezkoa da, halaber, ikusleek beren dialektoaz edo hizkuntza estandarraz bestelako dialekto batzuk entzutea. Horretan ere, ez dago, nik dakidala, lan akademikorik hiztunek beste hizkuntzaren aldaera batzuk ulertzeari dagokionez hedabideek duten eraginari buruz, baina ondorio logikoa dirudi lagungarri izatea.

Horrekin batera, hizkuntza gutxitu batean ikus-entzunezko industria garatzeak ondorio jakingarriak izaten ditu alderdi ekonomikoan ere. Galesaren adibideari berriro helduz, *S4C* kateak Galesko toki askotako enpresa independente askori eskatzen dizkio saioak (nahiz eta katearen egoitza Cardiffen dagoen). Enpresa horietako asko ekonomia gainbeheran dagoen (Europaren 1. mailako helburua) baina galesak indar handia duen komunitatez osatutako eskualdeetan daude, linguistikoki garrantzi handikoak diren eskualdeetan alegia. Hala, industriaren garapenak eremu horietan lanpostuak sortzeko dakarren aukerak garrantzi handia du eta gales hiztun askok lan bila beste inguru batzuetara alde egin beharra saihesteko modu bat da.

Kontuan hartu beharrekoa da, orobat, ikus-entzunezkoen presentziak hizkuntza gutxituaren estatusen duen garrantzia. Erakunde publikoek eta boluntarioek hizkuntza gutxituan hitz egiteko gai den ordezkariak bilatzen saiatuko dira. Gainera, litekeena da (nahiz eta hori ere egiaztatzeko dagoen) hizkuntza gutxituko telebistak hizkuntza handietan mintzatzen diren hiztunen jarrera hobetzen laguntzea.

Era berean, hizkuntza gutxituetako hedabideek aukera ematen diete hizkuntzaren oinarri geografikoa nabarmen murriztuta dagoen tokietan bizi diren hiztunei edo ikasleei beren arteko lotura sendotzeko eta hizkuntza komunitatean parte hartzeko, bereziki programazioetan elementu interaktiboak sartzen badira. Hedabideek hainbat baliabideren bidez, adibidez telebista Internet bidez ikusteko aukeraren bidez, beren helburu orokorrak betetzen dituen heinean, herrialdetik kanpo bizi diren hiztunek ere izango dute aukera hori.

Azkenik, begi-bistakoa da hedabideen programazioak hizkuntza ikasleentzat duen garrantzia, bai ikasleentzat bereziki prestatutako baliabideak eskaintzen dituztelako (adibidez, *S4C* katean gales errazean ikasleentzat jartzen dituzten azpizatziak) bai, oro har, askotariko diskurtsoez osatutako corpusa eskaintzen dietelako ikasleei, beste baliabide natural batzuen bidez ikasi egingo litzuketean askotariko erregistroak eskaintzen dizkietelako.

5. Ondorioak

Goian azaldu dugunez, ikuspegi berriak zabaltzen ari dira hedabideei buruz, eta ikuspegi berri horiek kolokan jarri dute orain arte estatuak irrati-telebistan izandako hegemonia. Hala ere, hizkuntza gutxitu indartsuenen kasuan ere (katalanaren kasuan adibidez), estatuaren eginkizuna funtsezkoa da oraindik ere, hizkuntza gutxituko eskaintza, oro har, haren eskutik baitator. Gutxiengoek beren hizkuntzan emititzeak dituen abantailei eutsi nahi izatera (nahiz eta batzuek ukatu), ezin esan daiteke estatuak horretan zeresanik ez duenik. Hizkuntza gutxituek, leku gehienetan, ez dute eragile pribatuen interes handirik pizten (eta interesa duten kasuetan ere, ez da oso kontu segurua). Hortaz, gutxiengoek etengabe aldarrikatzen jarraitu beharko dute estatuak garrantzizko eginkizuna duela beren hizkuntzetako hedabideen eskaintzari dagokionez, eta diskurtso publikoan baldintza beretan parte hartzeko ezinbestean bete beharreko eginkizuna dela hori. Garbi dago hizkuntza gutxituen komunitateen interesak ezin utz daitezkeela merkaturako indarren mende.

b. EUROPAKO HIZKUNTZA GUTXITUEN EGUNKARIAK

Günther Rautz
Midas-eko idazkaria

1. Atarikoa

Europako Batasunean, 40 milioi pertsonatik gora, beren herrialdeko hizkuntza ofizialaz gainera, beste hizkuntza bat hitz egiten dute. Hizkuntza gutxitu horiek sustatzeko asmoz, funtsezkoa da ikus-entzunezko materiala, baita inprimatutakoa ere, eskura izatea.

Azken lau urteetan, Europako egunkarietako 30 zuzendarik elkarrekin lan egin dute, eta lan horren ondorioz, Midas, Eremu Urriko eta Eskualdeko Hizkuntzetan Argitaratzen diren Egunkarien Europako Elkarte formalki sortu da. Estatutuen arabera, Midas irabazi asmorik gabeko erakundea da (egoitza nagusia: Bozen/Bolzano - Hego Tirol) eta Hizkuntza Gutxituen edo Eskualdeko Hizkuntzen Europako Itunaren hastapenetan du oinarria. Elkartearen helburuak honako hauek dira: hizkuntza gutxituetan edo eskualdeko hizkuntzetan argitaratzen diren egunkariarten lankidetzeta eta informazio trukea bultzatzea, egunkaririk ez duten hizkuntza gutxituko taldeei egunkari berriak sortzen laguntzea, hizkuntza gutxituei buruzko auziak eta eskubideak batera sustatzea, eta informazio kanpaina bateratuak egitea.

Midas politikoki beregaina da eta elkarteko egunkariak beregain jokatzen dute elkarteari dagokionez. Proiektuetan parte hartzea, baita jarduera bateratuak egiteko proposamenak eta aholkuak ere, borondatezkoak dira elkarteko kideentzat.

2004. urtean Midasek Ikastaldi Programa bat sortu zuen Midaseko kide diren egunkarietako kazetariak beren jakite maila areagotzeko. Ikastaldian hizkuntza gutxituen babesarekin eta kultur aniztasunarekin zerikusia duten gaiak lantzen dira, Europako Integrazio prozesuaren barruan. Kazetariei eginkizun bat ematen zaie erredakzio sailean eta egunkari-hartzaileko arduradun baten gidaritza izaten dute, betiere kontuan hartuz kazetariaren interesak, ezaugarriak, gaitasunak eta ahalmenak zein diren. Trebakuntzaz gainera, kazetariak Europako hizkuntza gutxiei buruzko mintegietara joaten dira. Midasek eta egunkari-hartzaileak, bestalde, ikustaldiak eta elkarrizketak antolatzen dituzte, kazetariak hizkuntza gutxituen egoera hobeto ezagutu dezaten herrialde-hartzailean.

2. Hitzaurrea

Txosten bilduma honek gutxiengoek honako herrialde hauetan duten babesaren deskribapen laburra egiten du: Kroazia, Danimarka, Finlandia, Alemania, Italia, Errumania, Eslovakia eta Espainia. Aipatu diren herrialdetako hizkuntza gutxituetan idatzitako egunkari sareak sortu zuen formalki Midas, "Eremu Urriko eta Eskualdeko Hizkuntzetan Argitaratzen diren Egunkarien Europako Elkarte". Lan honek ez du ikuspegi sakona eskaintzeko asmorik; lehenik eta behin, garrantzizko legeriaren deskribapen orokorra eman nahi du, eta ondoren, hautatu diren herrialde bakoitzean gutxiengoak babesteko egiten diren praktika garrantzitsuenei buruzko informazioa. Bestalde, oinarri-

ko datu demografikoak ere ematen ditu, herrialdean gutxiengoak izan duen presentzia historikoaren deskribapen laburrak gainera. Bukatzeko, gutxiengoen babeserako dagoen legeria garrantzitsuenaz ere dihardu, eta gutxiengoei komunikabideetan duten parte-hartzea bereziki aipatzen du.

3. Kroazia

3.1. Datu demografikoak

Biztanleriaren azken errolda 2001eko apirilean egin zen Kroazian. Biztanleen %90ek kroaziar jatorria dute eta gutxiengo talde handiena serbiarrena da, %4,54; ondoren datoz: bosniarrak (%0,47), italiarrak (%0,44), hungariarrak (%0,37), albaniarrek (%0,34%), esloveniarrak (%0,30), txekiarrak (%0,24), ijitoak (%0,21), eslovakiarrak (%0,11), montenegroarrak (%0,11), mazedoniarrak (%0,10), eta hainbat etnia txikiagoak (austriarrak, bulgariarrak, alemanak, poloniarrek, errumaniarrak, errusiarrak, ruteniarrak, turkiarrak, ukrainarrak, vlaharrak eta juduak).

3.2. Gutxiengoen kokapena

Italiar gutxiengoa herrialdeko mendebaldeko kostaldean bizi da tradizioz; serbiar gehienak Krajinan bizi dira, herrialdeko hego-ekialdeko eskualdean. Hungariarrak, txekiarrak eta eslovakiarrak, berriz, Slavonian bizi dira, Serbiarekin muga duen ekialdeko eskualdean. Gutxiengo nazional batzuek hamarkadak eman dituzte elkartetan antolatuta; gutxiengo berriek, aldiz, nazio estatusa izan zutenek Jugoslavia sozialistan eta XX. mendean Kroaziara etorri zirenek migrazio ekonomikoak zirela medio, beren lankidetzak modua egituratu eta tokiko gutxiengoei borrokatu behar izan dute tratamendu bera lortzeko. Estatu bateko lurraldean barrena sakabanatuta egon eta gutxiengo estatusa arestian eman zaienez gero, hamar bat urtez ez dute gutxiengoen babeserako indarrean dauden neurriez baliatzerik izan.

3.3. Gutxiengoei buruzko legezko xedapenak

Gutxiengoen estatusa Konstituzioak eta Gutxiengo Nazionalen Eskubideei buruzko Lege Konstituzionalak mugatzen dute, eta gutxiengoei eskaintzen zaizkien hainbat lege berezietan garatzen da orobat. Konstituzioak oinarriko eskubideak eta askatasunak aitortzen dizkie herritar guztiei eta berdintasuna bermatzen diete gutxiengo nazional guztiei; bestalde, askatasuna bermatzen diete beren herritartasuna adierazteko, eta askatasuna beren hizkuntza, idazketa eta kultur autonomia erabiltzeko (14 eta 15. artikulua). Gutxiengoen parte hartze politikoa ere xedatzen du, Gutxiengoei buruzko Lege Konstituzionalak arautzen duena eta, askoz zehatzago, Kroaziako Errepublikako Parlamentuko Ordezkariek Hautatzeko Legearen emendakinek. Kroazia, Hungariarekin eta Italiarekin batera, hizkuntza gutxiengoei buruzko alde biko bi itunen kide eta parte da, hungariar eta italiar gutxiengoak babesteko helburuarekin. Kroazia, gainera, Hitzarmen Markoaren eta Hizkuntza Gutxituen edo Eskualdeko Hizkuntzen Europako Itunaren estatukidea da.

Lege Konstituzionalak eskubide sorta zabala aitortzen die gutxiengo nazionalak kideei, kulturatik hasi eta ordezkaritzaraino, hala nola beren hizkuntza erabiltzeko eskubidea (10. artikulua), estatuak diruz lagundutako haur eskoletan, eta lehen eta bigarren mailako hezkuntzako eskoletan beren hizkuntzan eta idazkeran ikasteko eskubidea (11.2 artikulua), eta bere ikurrak erabiltzeko eskubidea (14. artikulua). Bestalde, kultur autonomia bermatzen die gutxiengo nazionalak kideei, eta beren kultura eta tradizioak landu eta iraunarazteko eskubidea aitortzen die (7.4. artikulua); beren erlijioa libre praktikatzeko eta beren erakunde erlijiosoak sortzeko eskubidea aitortzen die (7.5. artikulua); beren hizkuntzan eta idazketan informazioa izateko eta zabaltzeko eskubidea aitortu, eta bizikidetzak sustatzeko komunikabideek duten eginkizuna arautzen du gainera (18. artikulua). Are gehiago, gutxiengo nazionalak ordezkaritza politikoa bermatzen zaie Parlamentuan (19. artikulua) eta tokiko autogobernurako erakundeetan (20. artikulua). 2003ko maiatzean, lehen aldiz, gutxiengo nazionalak kideek ordezkariek hautatu zituzten Gutxiengoen

goen Kontseilueterako, tokiko eta eskualdeko mailetan. Erakunde aholku-emaileak dira tokiko gobernuztat gutxiengo-
goen auzietan. Kontseiluek tokiko eta eskualdeko administrazioek gutxiengo eta giza eskubideen gainean onar-
tu duten legeria guztiaren berri izan behar dute. Kroaziatik ihes eginez, jatorri serbiarra zuten 300.000 bat kroaziar
errefuxiatu bihurtu ziren aldameneko Serbian eta Bosnia-Herzegovinan. Gobernuak jakinarazi du 108.000 pertso-
nak izen eman dutela itzulitako gisa.

Serbiar gutxiengoaren exodoaren ondoren, herrialdeko agintariek ez zuten giro onik bultzatu nahi izan serbiar
gutxiengoaren itzulera sustatzeko. 2000. urtean, aldiz, gobernu aldaketaren ondoren, itzulitakoenganako politika
ofizialak aldatzen hasi ziren eta serbiar-kroaziarren itzulera bultzatu zuten. 2003. urteko hauteskundearen ondoren,
gobernu berriak hitz eman zuen itzultzeko asmoa zuten serbiar guztien jabetza eskubideak segurtatuko zituela.
Horregatik, gobernuak maila guztiek gutxiengoei buruzko legeak betetzen direla segurtatu behar dute eta serbiar
gutxiengoaren itzulera prozesua arindu behar dute, beren jatorrizko lurraldeetara. Gutxiengo nazionalen aurka dis-
kriminazioa eragiten zuten hainbat legezko xedapen (adib. Berreraikuntzari buruzko Legeak agindutako jatorri kro-
aziarraren lehentasunezko tratamendua) indargabetu dituzte, eta aldi berean, hizkuntza gutxituen erabilerari eta hez-
kuntzari buruzko bi lege onartu zituzten, 2000. urteko aldaketa politikoaren ondoren. Hala ere, behin eta berriz
ohartarazi diote Kroaziari aurrerabidea motela izan dela gutxiengoaren babesari buruzko legeak ezartzeko orduan eta
errefuxiatuen itzulera prozesua arintzeko orduan. 2003. urteko azaroan hautatutako gobernuak bultzatutako bake-
tze etnikoaren politikak etorkizun oparagoa eskaintzen du gutxiengoaren babesa hobetze aldera.

3.4. Gutxiengoaren komunikabideen laguntza

Konstituzioak kroazierak eta idazkera latindarrak maila ofiziala izango dutela adierazten badu ere (12. artikulua),
gainerako hizkuntzek ere erabilera ofiziala izan dezakete tokiko mailan, Konstituzioaren, Gutxiengoei buruzko Lege
Konstituzionalaren eta Hizkuntza Gutxituen Erabilerari buruzko Legeak ezarritako baldintzen arabera. Azken lege-
aren zazpigarren artikulua estatua behartzen du honako hauetara: estatuak gutxiengo nazionalen hizkuntza eta
idazkeran argitaratzen den prentsa eta bestelako komunikabide publikoak lagunduko ditu, baita irrati-telebista saio-
en ekoizpena eta emanaldiak ere. Gutxiengoaren babesa eta aniztasuna, eta komunikabideen pluraltasuna bultzatze-
ko asmoz, gobernuak betebehartzat hartu berri du hizkuntza gutxietan egiten diren zenbait argitalpen eta TB saio-
ak ere diruz laguntzea.

Kroazieraz argitaratzen ez den egunkari bat egiten da italieraz eta beste gutxiengoek hainbat aldizkari argitara-
tzen dituzte. Txekiar, eslovakiar, hungariar, ruteniar, ukrainar, serbiar, alemaniar, austriar, judu, albaniar, ijito, mon-
tenegroar eta mazedoniar gutxiengoek hainbat egunkari edo aldizkari argitaratzen dituzte beren hizkuntzetan. Prosv-
jeta SKD serbiar kultur elkarteak hainbat egunkari argitaratzen ditu: *Prosvjeta*, *Novosti SKD Prosvjeta*, eta hau-
rrentzako argitalpen bat, *Bijela pcela*. Preporod bosniar kultur elkarteak bi hilabetekari bat argitaratzen du, Behar
eta albiste aldizkari bat, *Behar journal*, baita *Jasmin* ere, haurrentzako almanaka bat. Hungariarren Komunitate
Demokratikoak urtekari bat argitaratzen du, *Rovatka*.

4. Danimarka

4.1. Datu demografikoak

Daniar Erresumak 5.384.384 biztanle ditu (2003ko uztailleko estatistika). Etnia ugaritako herritarrak hartzen ditu
bere barne: daniarrak, inuitak (groenlandiarrak), faroetarrak, alemaniarrak, turkiarrak, irlandarrak, pakistandarrak
eta somaliarrak, biztanleriaren erroldan zehaztuta agertzen ez direnak, gainera. Daniarrak biztanleria osoaren %97
direla estimatzen da. Inuitak eta faroetarrak, berriz, biztanleriaren %1 eta %0,9 hurrenez hurren. Guztira, 15.000
eta 20.000 alemaniar inguru daude, biztanleriaren %0,4 osatzen dute, alegia. Azkenik, etorkinak Danimarkako biz-
tanleriaren %5,8 dira, baina ez dute gutxiengoei aitortzen zaien eskubide berezirik.

4.2 Gutxiengoen kokapena

Gehienbat itsasora ematen duen Danimarkako mugaldearen 68 kilometrok Alemaniatik bereizten dute herrialdea. Hain zuzen eskualde horretan daude Hego Jutland edo Ipar Schleswig barrutiak, 3.939 km²-ko eskualdea alemaniar mugaren eta Kongeaaen-en artean. Eskualde horretan alemaniar gutxiengoa bizi da, Tinglev (Tingleff), Aabenraa (Apenrade) eta Haderslev (Hadersleben) hiri eta aldirietan bilduak. Hego Jutlandeko probintziako alemaniar gutxiengoa hizkuntz gutxiengotzat aitortua izan da historikoki Danimarkan.

4.3. Gutxiengoei buruzko legezko xedapenak

Gutxiengo nazionalaren kontzeptua ez da Daniar Konstituzioan ez beste legeren batean zehazten. Herrialdeak gutxiengoen egokitzapenean laguntzen duten Europako Kontseiluko bi tresna berretsi ditu; alegia, Hitzarmen Markoa eta Hizkuntza Gutxituen edo Eskualdeko Hizkuntzen Europa Ituna. Gainera, badira alemaniar gutxiengoaz bereziki arduratzen diren hainbat lege. Daniar Konstituzioak adierazpen askatasuna bermatzen du, eta pertsona oro bere pentsamenduak adieraz ditzake inprimatuz, idatziz eta hitzez (77. artikulua). Konstituzioak ez dizkie eskubide bereziak aitortzen gutxiengoei, bere egiten baitu gutxiengoek legezko xedapenez onura ateratzen dutela, gainerako herritarren modu berean. Hala ere, badira gutxiengoen eskubideak bermatzen dituzten hainbat xedapen konstituzional, besteak beste: eskubide herritar eta politikoak osorik izateko eta erabiltzeko eskubidea (70. artikulua), udalerriek beren auziak beregain kudeatzeko duten eskubidea (82. artikulua) eta groenlandiarrek, Lege Konstituzionalaren xedapenen arabera, daniar herritartasunaren eskubideez gozatzeko duten eskubidea (87. artikulua). Orobat, badira alemaniar gutxiengoaz espezifikoki diharduten hainbat lege, 1955eko Daniar-Aleman Hitzarmenak bermatutako estatus berezia baitute ("Bonn-Kopenhagener Erklärungen"). Horren adibideak dira Hauteskunde Orokorren Legearen 12(2), 13 eta 15. sekzioak, Tokiko Hauteskunderen Legea, Liburutegi Publikoen Legea, Eskola Pribatu Independenteen eta Oinarrizko Eskola Pribatu Independenteen Legea, eta Estatuko Hezkuntzaren Beken eta Maileguen Agindua. Danierak, eta faroerak eta groenlandierak maila bera dute Faroe Uharteetan eta Groenlandian hurrenez hurren, eta daniara derrigorrezko irakasgaia da eskolan eta ikasi beharreko lehen hizkuntza atzerritarra izan zen Faroe Uharteetan eta Islandian 90eko hamarkadaren amaiera arte.

4.4. Gutxiengoen komunikabideen babesa

Alemaniar gutxiengoak alemana hitz egiteaz gainera, daniara ere hitz egiten du. Hein berean, 50.000 bat daniar-alemaniarrek daniara erabiltzen dute komunikazio hizkuntza gisa Hego Schleswigen, Alemanian. Alemana hizkuntza ofiziala da komunikabideetan. 1984. urteko Egunkariaren Erakunde Finantzariorako Babes Finantzarioari buruzko Legeari 1997. urtean egindako zuzenketek hizkuntza gutxituetan argitaratutako egunkariei babes finantzarioa emateko aukerak zabaldu zituzten (27. gehigarria).

Alemaniar gutxiengoak alemanez argitaratzen du egunkari bat, Aleman Prentsa Elkartearen babesean (*Deutscher Presseverein*). Eskualde eta etnia ikasketetarako Alemaniar elkartearen aldizkaria (*Heimatkundliche Arbeitsgemeinschaft für Nordschleswig*) urtean bitan argitaratzen da alemanez, eta urtero aleman egutegi bat argitaratzen da (*Deutscher Kalender für Nordschleswig*). Gutxiengoen elkarteek egutegiak eta bestelako argitalpenak ere plazaratzen dituzte.

Irrati-telebista publikoek gutxiengo etnikoei zuzendutako saio multikulturalak eta bestelako informazio zerbitzuak ekoizteko betebeharrak dute, haien integrazioa bultzatzearren. Irrati-telebistaren (Egonkortze) 701 zk. Legearen 7 eta 18. sekzioek xedatzen dute saioek berriak, informazioa, denbora-pasak eta kultura hedatu behar dutela, eta kalitatea, pluraltasuna eta aniztasuna izan behar dituztela helburu. Lehentasuna eman behar zaie tokiko eta eskualdeko interesei, baimenei eta programazioari dagokienez. Praktikan, *Danimarka Irratia (DR)* eta *TV2* erakunde publikoak dira, biztanleria osoaren zerbitzura daude eta azpimarratu egiten dute adierazpen eta informazio askatasuna. Badira irrati-telebista publikoak ere Hego Jutlanden. *DRK Radio Syd* kudeatzen du eta *TV2k*, berriz, *TV*

Syd. Alemaniar gutxiengoak ordezkari du hala *Radio Syd*-eko Eskualdeko Programazio Kontseiluan, nola *TV Syd*-eko Kontseiluan. Orobat, *Radio Syd*-ek Grænseland (mugaldeko barrutia) izeneko saioa ematen du astero, mugako eskualdeari berezkoak zaizkion gaiekin eta auziekin, baita Hego Jutlanden dagoen alemaniar gutxiengoari eta Schleswing Holsteinen dagoen daniar gutxiengoari dagozkien gaiekin. “Grænseland Europa” (Europako mugaldeko barrutia) nazio mailan ematen da, hilabete behin, *DR1*en. Alemaniar gutxiengoak, gainera, hainbat Alemaniar TB eta irrati-kateek ekoizten dituzten saioak ere hartzeko aukera du, eta alemaniar egunkari eta aldizkarien harpidedun egin daitezke. Esate baterako, Kieleko *NDR*-rekin batera, *TV Syd*-ek *Hierher* izeneko daniar-alemaniar magazine saio bat ekoizti eta ematen du.

5. Finlandia

5.1. Datu demografikoak

Finlandian 5.190.785 (2003ko uztaileko est.) biztanle bizi dira guztira: %93 finlandiarrak, %6 suediarrek, %0,11 samiak eta %0,02 ijitoak. Herrialdean historikoki aitortutako gutxiengo nazionalak suediar hiztunak, samiak, ijitoak, juduak, errusiar zaharrak eta tatarriarrak dira.

5.2 Gutxiengoaren kokapena

Finlandian Suediak agindu zuen XII. mendetik XIX. mendea arte. 1809. urtearen ondoren, Errusiako dukerri handi autonomo bihurtu zen. Nagusitasun horren ondorioz, suediar eta errusiar etniako hainbat pertsonak Finlandiako lurraldean iraun zuten. Herrialdeak independentzia aldarrikatu zuen 1917. urtean, bere askatasuna defenditu eta Sobietar Batasuneko inbasioei aurka egin zien Bigarren Mundu Gerran. Errusiar inbasioen ondorioz, ordea, lurraldearen zati bat galdu zuen. 1917. urtean, Finlandiak Errusiatik independentzia eskuratu eta berehala, Åland Uharteetako suediar hiztunek Suediarekin bat egiteko eskaria egin zuten. Nazioen Ligako Kontseiluak Suediaren eta berriki independente bihurtutako Finlandiaren arteko konponbidea ezarri zuen 1921. urtean: Finlandiak Åland Uharteetan gain zuen burujabetasuna baieztatu zuen eta trukean, Uhartei kultur eta politika autonomia maila garaia eskaini zien. Gaur egun, Åland Uharteak Finlandiako suediar probintzia autonomo, desmilitarizatu eta elebakarrekoa da. Suediera da Uharteetako hizkuntza ofiziala, eta eskoletan eta udalerrri, probintzia eta estatu administrazioetan erabiltzen da. Finlandiako estatuko agintariak Åland Uharteetara bidaltzen duten posta ofizialak eta bestelako dokumentuek suedieraz egon behar dute.

Samiak Finlandiako biztanle indigenak dira. Aldameneko Norvegian, Suedian eta Errusiako Kolako penintsulan ere bizi dira. Finlandian gutxiengo honetako 6.500 herritar bizi dira. Gutxi gorabehera, 4.000 finlandiar sami bizi dira oraindik ere beren jatorrizko eskualdean, Sami Aberrian (Samiid ruovttuguovlu) izenekoan, Laplandeko Probintzian. Laplanden guztiz iparraldera dauden Utsjoki, Inari eta Enontekio udal barrutietan bizi dira, baita Sodankylako udalerriko iparraldean. Ijito eta sami gutxiengoak hirietako aldirietan bizi dira batik bat, eta arazoak dituzte oraindik ere lana eskuratzeko eta denbora-pasarako tokiak izateko.

5.3. Gutxiengoei buruzko legezko xedapenak

1995. urtean zuzendu zen 1919. urteko Konstituzioak gutxiengoei bermatzen die beren hizkuntzak eta kulturak mantendu eta garatzeko eskubidea (14(3). sekzioa). Finlandiak bere gain hartu du gutxiengoak babesteko ardura eta horretarako hainbat nazioarteko tresna berretsi ditu, besteak beste, Hitzarmen Markoa eta Hizkuntza Gutxituen edo Eskualdeko Hizkuntzen Europako Ituna. 1922. urteko Finlandieraren Legeak (1935, 1971 eta 1975. urteetan zuzendua) bi hizkuntza ofizialen erabilera arautzen du, eta finlandierak eta suedierak gehiengoaren nahiz gutxiengoaren hizkuntza gisa jardun dezaketela xedatzen du, lurralde printzipioa eta pertsona printzipioa, biak argudia daitzekeelako agintariengana zuzentzeko orduan. Udalerrietako hizkuntza ofiziala(k) biztanleria osoak hitz egiten duen

hizkuntza da edo bi hizkuntza ofizialak, hizkuntza baten hiztunen kopurua biztanleriaren %8 baino gehiago bada edo udalerraren barruan 3.000 hiztun baino gehiago baldin badaude. 26 suediar udalerrri elebakar daude (haietako 16, Åland Uharteetan) eta 39 elebidun (22 suediar gehiengoarekin eta 17 finlandiar gehiengoarekin). Suedieraren ezagutza funtsezkoa da eskualde elebidunetan, zerbitzu publikoan lanpostua eskuratu nahi izanez gero. Eskoletako irakaskuntza hizkuntza finlandiera edo suediera da, eta suediera, berriz, hizkuntza ofizial bakarra eta hezkuntzarako hizkuntza bakarra da Åland Uharteetan. Suedierazko goi mailako hezkuntza honako erakunde hauek eskaintzen dute: Åbo Akademiak Turku/Åbo-n, Ekonomia eta Merkataritza Administrazioaren Suediar Eskolak, eta Gizarte Lan eta Tokiko Administrazioaren Suediar Eskolak. Are gehiago, badira elebidun estatusa duten goi mailako beste hainbat erakunde.

5.4. Gutxiengoen komunikabideen laguntza

1993. urteko Finlandiar Irrati-telebistaren Legeak (Yleisradio Oy) gutxiengoei buruzko xedapenak ditu, irrati-telebista publikoaren jardueri dagokionez (7. sekzioa) eta irrati-telebistaren administrazioan gutxiengoek duten parte-hartzeari dagokionez (Legearen 6. sekzioa). Irrati-telebista publikoaren barruan, atal administratibo bereizi bat dago TB eta irrati-saio bat suedieraz ekoizteko. Åland Uharte autonomoek beren erregimena dute irrati-telebistari dagokionez. TB saio bereziak dauden suediar hiztunentzat, (estatuarenak diren bi TB kateen ekoizpenaren %9, gutxi gorabehera) eta nazio hedapena duten bi irrati-kate, gehi, tokiko irrati-kateak. Åland Uharteetako Ab Irrati eta TBk, Ålandeko probintziaren jabegoa, emanaldiak eskaini ditu Ålanden 1996. urtetik aurrera. Irrati emanaldi komertzialak 1993. urtean hasi ziren. Laurogeiko hamarkadatik aurrera, tokiko TB programak Ålandeko kable sarearen bitartez bidaltzen dira. Telebista publikoan ematen diren saioen zati batzuek suedierazko azpidatziak izaten dituzte. Finlandian hamabost egunkari argitaratzen dira suedieraz.

Samiek beren irrati-katea dute (*Sami Irratia*) beren eskualdean eta guztira 40 bat ordu irauten duten saioak ematen dituzte astero. Teletestua ere badago samieraz. 1999. urtean abian jarri zenetik, legeak aginduta, Finlandiar Irrati-telebistak programazioa eskaini izan du romaniz. Romaniz egiten diren albistegiak nazio hedapena duen irratisare batek eman ditu astean behin, 1997. urtetik aurrera. Finlandiar Irrati-telebistak, gainera, albistegiak egiten ditu errusieraz. Ijito elkarte zaharrena, Ijito Misioa (Romano Missio) delakoa, 1906. urtean sortu zen eta *Romano Boodos* izeneko aldizkaria argitaratzen du. Nazio mailako Ijito elkarte batek bi argitalpen argitaratzen ditu, eta Hezkuntza Sailak, berriz, beste aldizkari bat argitaratzen du ijito gutxiengoari zuzendua. Argitalpen horiek guztiak finlandieraz dira gehienbat, baina badituzte romaniz idatzitako hainbat artikulua.

6. Alemania

6.1. Datu demografikoak

Alemaniak 82.398.326 biztanle ditu (2003ko uztailako est.); haietatik %91,5ek jatorri alemaniarra dute, eta turkiarrek bigarren etnia handiena osatzen dute, biztanleen %2,4. Alemaniak, atzerritar langileak hartzeko orduan historia luzea izan arren, etnia bakar batzuek bakarrik dute gutxiengoen estatusa, hau da, daniarrak, frisiarrak, sorabiarak, sintiak eta ijitoak. Gainerako komunitate etnikoei (gehienbat albaniarak, kroaziarrak, italiarrak, mazedoniarak, errusiarak, greziarrak, poloniarak, serbiarrak eta espainiarrak), biztanleen %6,1ei, alegia, ez zaie gutxiengoen estatusik edo gutxiengoen eskubiderik aitortzen. Alemania estatu federala da. Aginpide publikoa estatuaren edo Gobernu Federalaren eta bere estatuen (Lander) artean banatzen da.

6.2 Gutxiengoen kokapena

Herrialde osoan barreiatuta dauden 70.000 pertsonak osatzen duten sinti eta ijito gutxiengoz gainera, daniarrak, frisiarrak eta sorabiarrak Alemaniako Errepublikak Federaleko beren jatorrizko eskualdeetan bizi dira, hainbat estatu

federaleetan (Lander). 50.000 pertsonak, gutxi gorabehera, daniar gutxiengoa osatzen dute eta Schleswigeko alemaniar aldean bizi dira, Alemaniak Danimarkarekin muga duen eskualdean. Bi herrialdeen arteko muga 1920. urtean ezarri zuten, Versaillesko Itunean adostutako bi erreferendumen emaitzetan oinarrituta. Kalkulatzen da 60.000 bat sorabiar daudela Alemanian: hirutik bi Saxonian bizi dira, eta gainerakoak Brandenburgon. Gutxi gorabehera 35.000 sorabiarrek dute sorabieraz idazteko eta hitz egiteko gaitasuna, eta sorabiar guztiek hitz egiten dute alemanez. Alemaniar-frisiar gutxiengoak 12.000 kide ditu gutxi gorabehera, eta Saterlanden dute bizilekua, Strucklingen, Ramsloh, Scharrel eta Sedelsberg herrietan sakabanatuta. Frisia ekialdeko eta iparraldeko frisiarrek beren burua gutxiengo nazional gisa jotzen ez badute ere, Saterlandeko frisiarrek Saterland Frisiar hizkuntza taldeztat dute beren burua. Arestian, bi taldeek elkar hartu eta “Frisiar etnia” deitura erabiliko dutela erabaki dute, eta horrela deitzen dira Schleswing-Holstein Landeko Konstituzioan.

6.3. Gutxiengoei buruzko legezko xedapenak

Daniarrei, frisiarrei, sorabiarrei eta alemaniar sinti eta ijitoei gutxiengo nazionalen maila aitortzen zaie, eta alemaniar biztanleak direnez gero, Oinarritzko Legeak (Alemaniako Errepublikaren Konstituzioa) onartutako eskubide eta askatasun guztiak dituzte, inolako murrizpenik gabe. Konstituzioak askatasun pertsonalak aitortzen dizkie guztiei (2. artikulua) eta diskriminazioa debeketzen du (3. artikulua, 3. para., 1. lerro.), eta xedatzen du ez dela inolako diskriminatuko edo ez zaiola inolako pribilejiorik emango sexu, jatorri, arraza, hizkuntza, jatorri nazional edo sozial, edo sinesmen erlijioso edo politikoei dagozkien arrazoiak direla tarteko. Xedapen honek, konstituzionalki xedatutako tratamendu beraren printzipioak bezalaxe, adar legegilea, betearazlea eta judiziala lotzen ditu, lege indargarri moduan (Oinarritzko Legearen 1. artikulua, 3. para.). Orobat, Alemaniak Hitzarmen Markoa eta Hizkuntza Gutxiuena edo Eskualdeko Hizkuntzen Europako Ituna izenpetu ditu. Kode Kriminalak xedapen ugari ditu arrazekiko gorrotoa edo xenofobia, sinesmen erlijiosoen aurkako irainak edo konstituzionalak ez diren erakundeak egin lezaketen propaganda banaketa zigortzeko. Gutxiengoak herrialde osoan sakabanatuak daudenez gero, estatu federalean (edo Lander) bizi diren gutxiengoek xedapen konstituzional gehigarriak ezarri dituzte diskriminazioaren aurkako debekua indartzeko eta gutxiengoen babesa beren konstituzioetan eta legerian txertatzeko. Landerretako legeria dagokion Landean bizilekua duten gutxiengo nazionalen buruzkoa da soilik. 1990. urteko Schleswig-Holstein Landeko konstituzioak xedapen bat du iparraldeko frisiar gutxiengoa babesteko eta laguntzeko. Ekialdeko frisiarrek Niedersachsen Landaren (Saxonia Beherea) legeriaren babesa dute.

6.4. Gutxiengoen komunikabideen laguntza

Konstituzioak adierazpen askatasuna bermatzen die (5. artikulua, 1. para, 1. lerro.) alemaniar herritar guztiei, baita atzerritarrei ere. Adierazpen askatasunaren eskubidea komunikabideak sortu eta erabiltzeko askatasunean ere hezurramitzen da (5. artikulua, 1. para., 2 eta 3. lerro.) eta prentsaren askatasunean, eta zentsurarik gabe irrati-telebista eta filmen bidez adierazteko berme konstituzionalean (5. artikulua, 1. para, 1, 2 eta 3. lerro.). Alemaniar legeria federalak erantzukizun bat esleitu die Landerrei irrati-telebistako emanaldiei dagokienez, iritzi aniztasuna bermatzeko. Gutxiengo nazionalak kideek estatuetako irrati-telebista erakundeetan parte hartzen dute. Daniar gutxiengoak Danimarkako Erresumako programazio osoaren emanaldia hartzen du, eta segurueenez, hori dela eta, ez dute beraien irrati-telebista sortu.

Komunikabideak sortu eta erabiltzeko eskubidea informazio eta prentsa askatasunak bermatzen du (Oinarritzko Legearen 5. artikulua, 1. para.). Daniar gutxiengoak bere egunkari elebiduna du, *Flensborg Avis*; zati bat mugatik iparraldera banatzen da, Danimarkan. *Treklang* izeneko gazteentzako aldizkaria ere argitaratzen dute. Syslevigsk Forening (Hego Schleswigeko Elkarte) delakoan afiliatuta dagoen dagoen dagoen Prentsa Zerbitzuak, hau da, daniar gutxiengoaren kultur erakunde nagusiak, daniar gutxiengoari buruzko informazioa eskaintzen die Alemaniako eta Danimarkako komunikabideei. Daniar gutxiengoak, gainera, gai sorta zabala lantzen duen daniar prentsa erabiltzen du. Sorabiar gutxiengoak hainbat argitalpen argitaratzen ditu sorabieraz. *Serbske Nowiny* sorabiar egunkaria egunero argitaratzen da. Beste egunkari batzuk dira: *Sokolske listy*, *Nowy Casnik*, *Rozhľad*, *Serbska*, *Plomjo/Plom-*

je, Katolski Posol, Pomhaj Bóh. Sorabiar gutxiengoak alor ugari lantzen dituzten liburuak argitaratzen ditu: zientzia eta kultura, eskoletako testuliburuak, fikzioa eta poesia, gazte literatura, haur eta argazki liburuak, guztiak sorabieraz. Ipar Frisiako eta eskualde mailako hainbat egunkarik artikuluak argitaratzen dituzte noizean behin frasieraz, baita artikuluak ere Saterlandago frasieraz, Saterlanden irakurtzen diren eskualdeko egunkarietako tokiko edizioetan. Alemaniar Sinti eta Ijito Kultur Gunearen Dokumentazioak hainbat argitalpen egiten ditu alemanez romanien inguruan. Ez dago bestelako argitalpenik romaniz. Alemanian bizi diren atzerritarren integrazioa bultzatzeko asmoz, Lander batzuetan xedatu dute komunikabide publiko guztiak tolerantzia, kultur aniztasuna eta atzerritarren eta alemaniar biztanleen bizikidetzara sustatuko dituztela (adibidez, 1992ko otsailaren 29ko Irrati-telebistaren Alorrean Berlingo eta Brandenburgoko Lankidetzari buruzko Estatu Ituna).

7. Italia

7.1. Datu demografikoak

Italiak 57.998.353 biztanle ditu (2003ko uztaileko est.), batez ere italiarrak (biztanleen %94), baina baita sardinarrak (%2,2), friuliarrak (%0,9), alemaniarak (%0,5), okzitaniarrak (%0,3), albaniarak (%0,2), ijitoak (%0,2), franko-probentzalak eta frantsesak (%0,2), ladinoak (%0,1), esloveniarrak (%0,1), katalanak (%0,01) eta kroaziarak (%0,01) ere, Italiako lurraldean bizilekua hartu zutenak, Italiako burujabetasun prozesuaren gertakari historikoei harrapatuta.

7.2 Gutxiengoen kokapena

Italiera hizkuntza ofiziala da, baina alemana, frantsesa eta esloveniarrak erabiltzen dira administrazioan eta hezkuntzan, probintzia batzuetan. Alemana ofiziala da italiarekin batera herrialdeko iparraldean, Hego Tirol aldean. Probintzia berean, ladino gutxiengoko kideek eskubidea dute hezkuntzan beren hizkuntza erabiltzeko. Val d'Aostako eskualdean, ipar-mendebaldean, frantsesa erabiltzen du frantses gutxiengo batek administrazioarekin harremanak izateko orduan. Sardinia gutxiengoa Sardinia uharterean bizi da. Sardinia ipar-mendebaldean katalan komunitate bat bizi da, batez ere Alghero hirian. Uharterean isolamenduak hizkuntza iraunarazten lagundu die. Friuli gutxiengoa Austria eta Esloveniaren arteko mugaldeen bizi dira, eta esloveniarrak gutxiengoa Trieste-Gorizia aldean, Friuli-Venezia Giuliako Eskualdean. Kroaziar komunitatea Moliseko udalerrian bizi da, herrialdeko ekialdeko kostaldean. Walser komunitatea Piemonten eta Val d'Aostako eskualdean bizi den alemanez mintzatzen den gutxiengoa da. Okzitaniarra hitz egiten duten biztanleak Piemonteko eskualdean bizi dira batik bat, baita Liguria eskualdeko eta Calabria eskualdeko herrixka batzuetan ere. Albaniar eta greziar gutxiengoei dagozkien biztanleak hegoaldeko eskualdetan bizi dira: Abruzzi, Campania, Calabria, Basilicata, Puglia, Sizilia eta Molise.

7.3. Gutxiengoei buruzko legezko xedapenak

Konstituzioak herritarren berdintasuna bermatzen du legearen aurrean, sexu, arraza, hizkuntza, erlijio, iritziko eta baldintza pertsonal eta sozialei dagokienez bereizketarik egin gabe (3. artikulua). Italiak izenpetu du baina ez du oraindik berretsi Hizkuntza Gutxituen edo Eskualdeko Hizkuntzen Europako Ituna. Hala ere, Italiak Hitzar-men Markoa berretsi du eta nazioarteko dokumentu horrekin bat eginez, italiar lurraldeetan historikoki bizi diren hizkuntz komunitateen babesa segurtatu du. Alegia, Italiako lege sistemak hizkuntza taldeekin soilik lotzen du gutxiengoen kontzeptua. Konstituzioak estatua behartzen du "hizkuntz gutxiengoak" xedapen berezien bitartez babestera (6. artikulua). Hizkuntz gutxiengo historikoak, gainera, 1999. urteko abenduaren 15eko 482 zk. legeak babesten ditu, hau da, albaniera, alemana, katalana, kroaziera, grekoa, frantsesa, franko-probentzala, friuliera, ladinera, okzitaniarra, sardiniera eta esloveniara hitz egiten duten biztanleak. Horri esker, hainbat babes neurri sortu dira eskualde jakin batzuetan. Alemana, ladinera, frantsesa eta esloveniara hitz egiten duten hizkuntz taldeei ekonomi, gizarte, politika eta kultur estatus ona bermatzen zaie, batez ere tradizionalki gutxiengo hauek bizi diren eskualde-

etan dagoen autogobernu mailari esker, baita Siziliako eta Sardiniako biztanleei ere, eskualde biak, Trentino-Hego Tirol, Val d'Aoste eta Friuli-Venezia Giuliaekin batera, konstituzionalki autonomia mailarik gorena duten bost eskualdeak direlako (116. artikulua). Hala ere, historikoki hizkuntz gutxiengoak direnak soilik dutenez aitorrena eta babesa, horrek esan nahi du Italian bizi diren etnia batzuek ez dutela gutxiengoaren babesik izateko eskubiderik. Ijito gutxiengoak, adibidez, ez du babesik, nahiz eta historikoki presentzia izan Italian. Gainera, zenbaki aldetik txikiagoak diren gutxiengoak (adib. albaniarrak, katalanak eta greziarrak), ekonomikoki horren aurreratuak ez diren eskualdeetan bizi direnek, hain zuzen, askoz ahalegin handiagoak egin behar dituzte berdintasuna sustatzeko politikan eta kultur bizitzan.

Trentino-Hego Tirol Italia iparraldeko eskualde autonomoa da. Etnia aldetik, 880.000 laguneko biztanleria askotarikoa du eta bi probintzia autonomoetan banatzen da: Bozen eta Trento. Eskualdea Austriaren zati izan zen garai batean. Lehen Mundu Gerraren ondoren, okupatu eta Italiak anexionatu zuen. Pariseko Bake Hitzarmenak Autonomia Estatua xedatu zuen probintziarentzat (5/1948 zk. Lege Konstituzionala) eta botere ugari eman zizkion eskualdeari, baina oso ahalmen gutxi bi probintzietan. Horrek nahigabea eragin zuen aleman hiztuna zen gutxiengoaren artean, Hego Tirolen, eta ondorioz, Autonomia Estatutu berri bat eskatu zuten. 1/1971 zk. Lege Konstituzionalak ehun eta hogeita hamazazpi zuzenketa sartu zituen, 1969. urtean, Nazio Batuen ahaleginei esker onetsi zirenak. Bigarren Autonomia Estatutu horrek Eskualdearen boterea mugatu zuen. Autonomia Estatutuaren hirugarren berrikuntza (2/2001 zk. Lege Konstituzionalaren bidez) 2001. urtean burutu zen berrikuntza konstituzional orokorraren ondoren iritsi zen eta hari esker, botereak itzuli zitzaizkien Italiako hogeitaz eskualdeei, aldeztuak estatus berezia izan ez zuten eskualdeei autonomia handiagoa segurtatzearren. Berrikuntzak probintziak aitortu zituen eskualdearen oinarritzko elementutzat, eta eskualdeari baino botere gehiago eman zien, eskualde autogobernuaren sistema indartzuz. Hirugarren Autonomi Estatutuaren berrikuntzak lege eskakizunen bi herenak egokitu zituen; probintzien estatusa indartu zuen, haiek eskualdeko oinarritzko elementutzat xedatuz, eta ez menpeko elementutzat. Hirugarren Estatutuak hauteskunde legediari buruzko eskubide multzo zabaldu baten boterea eman zien probintzietan. Ladino gutxiengoaren partaidetza politiko handiagoa ere xedatu zuen eskualdeko eta probintziako biltzarretan, eta beren ordezkaritza proportzionala eskualdeko gobernuan, eta tratamendu aldekoa haientzat gobernu probintzialerako hauteskundeetan.

Hego Tirol probintziako erakunde politikoak probintziako biltzarra, gobernu eta gobernuko presidentek dira. Probintziako gobernuak legebiltzarreko hizkuntz taldeen osakeraren isla izan behar du. Horregatik, bi presidenteordeetako bat italiar hizkuntz taldeak dator eta bestea alemanetik. Hirugarren Autonomia Estatutuak ladinoen hizkuntz gutxiengoari bermatu zion eserleku bat izateko eskubidea eskualdeko gobernuan, proportzionaltasun printzipiotik at. Italiar, aleman eta ladinera hizkuntz taldeak hautatzen dira zerbitzu publikoetarako, betiere azken errola emaitzekin bat eginez, eta kuota sistema erabiliz. Hego Tiroleko Autonomia Estatutuak probintzia behartzen du tokiko hizkuntz gutxiengoak babestera (4. artikulua). Legeriaren alorreko eskumen zabalaren artean, probintziak lehen eta bigarren mailako hezkuntzaren alorrean legeak onesteko eskumena du.

7.4. Gutxiengoaren komunikabideen laguntza

1990eko abuztuaren 7ko 250 zk. Legeak xedatzen du dirulaguntzak eman behar zaizkiela frantsesez, ladinera, eslovenieraz eta alemanez argitaratzen diren egunkariei Val d'Aostan, Friuli-Venezia Giulia, Trentino-Hego Tirolen, hurrenez hurren. 1999. urteko abenduaren 15eko 482 zk. Gutxiengoaren Legeak legezko oinarria sortu zuen hizkuntza gutxituetan irratitelerista emanaldiak egiteko.

Trentino-Hego Tiroleko irratitelerista saioak honako haiek ematen dituzte: *RAI* italiar irratitelerista kateak Bozenen duen egoitzan, alemanez, ladinera eta italiaraz Trentino-Hego Tirolerako; *RAS* fundazio publikoak, saioak ekoizten ditu alemanez Hego Tirolerako, eta *TV3* Hego Tiroleko enpresa pribatu batek eskualdeko hiru hizkuntzetan ematen ditu bere saioak. *ORF* austriar irratitelerista eta suitzar programak ere har ditzakete. Orobat, alemaniar gutxiengoak Alemaniako eta Austriako TB eta irratitelerista kateak ekoizten dituzten programak hartzeko aukera

du. Probintzian, bestalde, egunkari ugari argitaratzen dira. Egunkariak italieraz nahiz alemanez argitaratzen dira; ladino gutxiengoak, berriz, astekari bat besterik ez du. 1979. urtean sortu zen *RAI* Val d'Aoste eskualdeko kate publikoak ordubete ematen du saio bat frantsesez, astero. Eskualdeko (frantses-italiar) irrati-kate elebidunek alemanez ematen dituzte beren saioak zati batean, Walser hiztun taldea eskualdea bizi delako. 1948. urteko Val d'Aoste-ko autonomia estatutu bereziak xedatu zuen probintzia honetako TB eta irrati-kate publikoak gobernuak finantzatu behar zituela. *RAI* Triestek egunero ematen ditu TB eta irrati saioak haurrentzat eta helduentzat, eslovenieraz. *RAI* kateak, hala ere, gutxitan ematen ditu saioak friulieraz, baina *Radio Onde Furlane* irrati-kate pribatuak hamabost bat ordu ematen ditu egunero friulieraz. Ijito eta beste italiar gutxiengoek ez dute legokiekkeen ordezkariarik italiar komunikabideetan.

8. Espainia

8.1. Datu demografikoak

Espainiak 40.217.413 biztanle ditu (2003ko uztaileko est.). Herrialdearen osaerari dagokionez, ez daude etnia asko, baina zenbait hizkuntza komunitate bereizten dira, gainerako biztanleenez bestelako ezaugarri kulturalak dituzten lau autonomia erkidegotan: katalana, galegoa, euskara eta valentziera dira erkidego horietako hizkuntza ofizialak. Txosten honetan, komunitate bereizitza hartuko ditugu honakoak: andaluziarrak, euskaldunak, katalanak, galegoak eta ijitoak.

8.2. Gutxiengoen kokapena

Espainia herrialde berezia da gutxiengoei dagokienez, ijito gutxiengoa baita gutxiengo nazional gisa onartuta dagoen bakarra, nahiz eta herrialdean hainbat kultura eta herri bizi izan diren historian zehar eta, horren ondorioz, askotariko etnien nahasketa dagoen. Estatuan berrogeita hamar probintzia daude, hamazazpi autonomia erkidegotan (hamabost penintsulan eta bi itsasoz haragoko uhartedietan) eta Afrikan dauden bi hiri autonomotan (Ceuta eta Melilla) banatuta; erkidego horietako batzuetan indar handia dute estatutik bereizteko asmoez. Autonomia erkidegoek autogobernurako eskumenak dituzte. Gainera, Euskadi, Katalunia, Galizia eta Andaluzia komunitate "historikotzat" hartuak dira, eta horiei eginkizun gehiago betetzeko eskumena aitortzen zaie beste erkidego batzuei baino, besteak beste erkidegoko lehendakariak erkidegoko hauteskundeak noiz egin erabakitzekoa (gehienez ere 4 urtean behin egin behar badira ere). Andaluzia Iberiako Penintsularen hegoaldean dago. Euskadi, iparraldean, Frantziarekin muga egiten duela. Kataluniak ere Frantziarekin egiten du muga, herrialde horren hego-ekialdeko muturrean hain zuzen; erkidego horrek hartzen du Espainiako lurraldearen %6,5, eta bertan bizi dira Espainiako biztanle guztien %15,5. Galizia ipar-mendebaldeko muturrean dago; lurraldearen %6 hartzen du, gutxi gorabehera. Euskadi eta Katalunia aberatsak, urbanizatuak eta industrializatuak dira, eta Galizia, berriz, nekazaria eta pobrea da. Bestalde, gaur egun Espainian 600.000 eta 650.000 bitarte ijito bizi dira, estimazioen arabera. Espainiako ijitoen komunitatea ez da nomada, oro har, eta ez daude estatuko lurralde guztian berdin banatuta. Ijito talde handienak Andaluzia (%45), Valentzia eta Murtziako autonomia erkidegoetan bizi dira, eta hiri nagusietan, Madrilan, Bartzelonan, Sevillan, Granadan, Valentzian eta Zaragozan.

8.3. Gutxiengoei buruzko legezko xedapenak

Espainia monarkia parlamentarioa da, 1978an demokrazia ezarri zenetik. Eskualdeek indar handia dute harrezkerro, eta erkidego bakoitzak bere ordezkariak aukeratzen eta izendatzen ditu estatuko parlamenturako (Senatua) eta behe ganberarako (Diputatuen Kongresua); bi ganberaz osatutako parlamentua (Gorte Nagusiak) du Espainiak, beraz. Autonomia erkidego bakoitzak bere parlamentua du, eginkizun exekutiboak eta administratiboak betetzen dituena, eta erkidegoko parlamentuak aukeratzen du bertako gobernuko lehendakaria. Erkidegoek autogobernurako dituzten eskumenen artean, aipatzekoak dira hezkuntzari, osasunari, kulturari eta etxebizitzari buruzko eraba-

kiak hartzekoak. Baina eskualdeei zenbait aginpide eman zaizkien arren, Euskadik eta Kataluniak autonomia handiagoa eskatzen dute.

Hitzarmen Markoaren eta Hizkuntza Gutxituen edo Eskualdeko Hizkuntzen Europako Itunaren xedapenek gutxiengoak eta eskualdeko hizkuntzak babestera behartzen dute estatua. Bada, Hitzarmen Markoari dagokionez, Espainiak ijitoak soilik onartu du gutxiengo moduan, eta ukatu egin die izendapen hori herrialdea osatzen duten gaineko komunitateei. Nolanahi ere, Hizkuntza Gutxituen edo Eskualdeko Hizkuntzen Itunaren arabera, eskualdeko hizkuntzen sustapena bermatzen du. Konstituzioak legearen aurreko berdintasuna aldarrikatzen du espainiar gutxiengotzat, eta debekatu egiten du jatorri, arraza, sexu, erlijio, iritzi edo beste inolako ezaugarri pertsonalen ondoriozko diskriminazioa (14. artikulua). Konstituzioak espainiar herritartasuna aitortzen die ijitoei, eta eskubide eta askatasun guztiak. Francoren diktaduraren garaian, Espainiako hizkuntza guztiak, gaztelania izan ezik, debekaturik egon ziren, baina gaur egun lege asko daude hizkuntza horien erabilera arautzen dutenak, eta honela dio Konstituzioaren xedapen batek: “Espainiako hizkuntzen ugartasuna bereziki zaindu eta babestu beharreko ondare kulturala da” (3.3. artikulua). Era berean, Espainiako Konstituzioak dio gaztelania dela herrialdeko hizkuntza ofiziala (3. artikulua), eta espainiar guztiak behartuta daudela hizkuntza hori ikastera eta hizkuntza hori erabiltzeko eskubidea bermatzen. Nolanahi ere, autonomia erkidegoei beren estatutuaren bigarren hizkuntza ofiziala ezartzeko eskubidea aitortzen die (148. artikulua, 17. lerro.). Espainian, gaztelania hitz egiten dute herritarren %74k. Katalana %17k, galegoa %7k, eta euskara %2k. Autonomia erkidego batzuetako estatutuen xedapenetan bi hizkuntzak agertzen dira lurralde horretako hizkuntza ofizial gisa, adibidez, Asturiasko Printzerriko Estatutuan, Aragoiko Autonomia Erkidegoko Estatutuan, Valentziako Eskualdeko Estatutuan, 1979ko Kataluniako Autonomia Estatutuan, 1981eko Galiziako Autonomia Estatutuan eta 1979ko Euskadiko Autonomia Estatutuan. Euskara Espainiako iparraldeko erdialdean hitz egiten dute, Euskadin, 600.000 lagunek gutxi gorabehera. Hizkuntza horren erabilera estandarizazioa eta erabilera Euskararen Normalizaziorako Legeak (Estatutua, 10/1982) arautzen ditu. Galegoa 1981ean izendatu zuten Galiziako hizkuntza ofiziala, eta bi milioi hitzunik inguru ditu. Galegoaren Estandarizazio Linguistikoaren 1983ko Legeak dioenez, galegoa hizkuntza ofiziala da eskualde hartako administrazioan. Gaztelania eta katalana ere ofiziala dira Katalunian, 1979az gero. Katalana dute ama hizkuntza ia sei milioi lagunek, eta Kataluniako Hizkuntzaren Estandarizazioaren 7/1983 Legeak arautzen du hizkuntza horren erabilera. Katalana sustatzeko legea 1997an onartu zuten, eta lege horren xedapenen arabera, katalana erabil daiteke, gaztelaniarekin batera, auzietan eta gobernu zentralaren bulegoetan, eta konpainiak ere behartzen ditu katalana erabiltzera. Estatuko Hezkuntza Legeak autonomia erkidegoen esku uzten du curriculum osatzeko ardura. Horrenbestez, Erkidegoetako Hezkuntza Legeak arautzen dute eskualdeko hizkuntzen eta kulturen ikaskuntza eta zabalkundea. Aginte Judizialari buruzko 6/1985 Legearen arabera, prozedura judizialtan eskualdeko hizkuntzak erabil daitezke (231. atala). Antzeko xedapenak ditu, halaber, Prozedura Zibileko 1/2000 Legeak eta Prozedura Kriminaleko 2/1992 Legeak. Era berean, autonomia erkidego bakoitzak bere legegida du administrazioan, hezkuntzan eta epaitegietan eskualdeko hizkuntzak izan beharreko erabilerari buruz.

8.4. Gutxiengoen komunikabideen laguntza

Corporació Catalana de Ràdio i Televisió (CCRTV) irrati-telebistak katalanez ematen ditu bere saioak. Kataluniako Parlamentuak eratu zuen erakunde hori (Kataluniako Irrati-telebistaren Legea); hori izan zen Kataluniako Parlamentuak onartutako lehen legeetakoa, 1983koa. Espainiako telebista estatalaren (*TVE*) programazioan ere badira katalanezko saio batzuk. Era berean, *Radiotelevisión Española (RTVE)* erakunde publikoaren baitako lau irrati katek katalanez soilik egiten dituzte emanaldiak. Egunkari asko daude, bestalde, katalanezkoak (*Avui, El Punt, Diari de Girona*, eta *Diari de Lleida, Nou Diari* eta *El 9 Nou*). Halaber, *El Periódico de Catalunya* espainierazko egunkariaren katalanezko bertsioa ere argitaratzen da. Valentziako irrati-telebista publikoak, *Canal Nouk*, telebistako programazio guztiaren %70 eskaintzen du valentzieraz, eta ia osorik irrati-programazioa.

Euskal Autonomi Erkidegoko Jaurlaritzak irrati-telebista publiko bat sortu zuen 1982. urtean (*ETB*), eguneko 24 orduetan euskaraz emititzen duena. *Euskadi Irratiak* euskarazko saioak soilik egiten ditu. Bestalde, *Berria* egun-

kari nazionala eta *Argia* astekari nazionala argitaratzen dira, beste zenbait hilabetekariz gainera eta tokian toki prentsa ere bai.

9/1984 Legearen bidez, Galiziako telebista publikoa sortu zuten (asteaz ehun eta hamabost orduko emisioa galegoz). *Radio Autónoma Galega* galegozko irrati publikoa da. Badira, halaber, zenbait telebista eta irrati kate pribatu, galegozko saioak egiten dituztenak. Idatzizko argitalpenei dagokienez, aipatzekoak dira *O Correo Galego* egunkaria eta *A Nosa Terra* astekaria, beste zenbait aldizkarirekin batera).

Romani hizkuntzari ofizialtasunik aitortzen ez zaion arren, badute beren hedabideak eratzeko askatasuna. Romani hizkuntzako argitalpenei diru laguntzak ematen dizkiete nazioko gobernuak eta eskualdeetako aginteeak. Romani hizkuntzari ofizialtasunik aitortzen ez zaion arren, badute beren hedabideak eratzeko askatasuna. Romani hizkuntzako argitalpenei diru laguntzak ematen dizkiete nazioko gobernuak eta eskualdeetako aginteeak

c. ISLANDIAKO SISTEMA KOMUNIKATIBOA (RUV)

Logi Bergmann Eiðsson
RUV-eko albistegietako burua

1. Islandiara hurbiltzeko asmoz

Lehenik eta behin, Islandiaren ezaugarri nagusien berri eman nahi nizueke; zertaz ari garen ikusteko lagungarri izango zaizuen irudi bat erakutsi. Hala ohartuko zarete hainbat gauza komun baditugun arren, ezin alderatuzkoak direla gure bi herrialde hauek.

Islandia 103.000 km²-ko uharte bat da (39,756 milia koadrokoa), eta itsas mailatik 500 m-ko batez besteko altuera du. Herrialdearen eremuaren %11 baino gehiago glaziarrek estalita dago; horien artean bereziki aipatzekoa da Vatnajökull deritzona, Europako handiena.

Islandiako lehen kolonia norvegiarra zen, itxura batean; Ingolfur Arnarson hain zuzen, herrialdera 874an iritsia. Gaur egun hiriburua dagoen tokian hartu zuen bitokia, eta berak eman zion Reykjavik izena, gaurko hiriburua alegia. Handik mende erdira, hau da 930ean, garai batean Islandiako parlamentu izan zena, “Althing” delakoa, sortu zuten; horixe da munduko parlamentu zaharrenetakoa. Bilerak Thingvellir-en egiten zituzten. Islandian bizitzen jarri ziren norvegiarrak paganoak ziren jatorriz, baina 1000. urtean kristautasuna hartu zuten, legez, erlijio gisa. Hori egina zuten munduko lehen herrialdea da Islandia.

XIV. mendean amaieran, Danimarkako erregeak eskuratu zuen Islandiako agintea. Islandiarrek, ordea, ez zuten onartu daniar agintearikiko mendekotasunik, eta gogor borrokatu ziren independentziaren alde. Islandiako estatuak burujabetasuna eskuratu zuen 1918an, baina Danimarkako erregearen eskumenean jarraitu zuen, harik eta 1944ko ekainaren 17an Islandiako Errepublika sortu eta islandiarrek erabateko independentzia berreskuratu zuten arte. Harrezkero, egun horretan ospatzen da Islandiaren Nazio Independentziaren Eguna.

Esan dugunez, Islandia uharte bat da eta, horren ondorioz, bakartuta dago. Hurbileneko lurraldeak Groenlandia eta Feroe Uharteak dira; Islandiatik ehunka kilometrora daude, Eskoziatik 800 kilometro baino gehiagora. Ekonomia arrantzan oinarritua da; izan ere, arrainak dira herrialdearen baliabide oparoena eta itsasoko gaiek hartzen dute esportatzen den guztiaren ia %60.

2. Hizkuntza

Herrialdeak milioi laurden biztanle baino zertxobait gehiago ditu, eta horien erdia hiriburuan, Reykjaviken, eta haren inguruko hego-mendebaldeko hirietan bizi dira. Barneko mendialdean ez da inor bizi, ezin du inork bizi, eta herrigune gehienak kostaldean daude.

Norvegiarrak IX. mendean iritsi ziren Islandiara eta, tradizioaren arabera, Ingolfur Arnarson norvegiar bikingo izan zen Islandiako lehen biztanlea, gaur egun Reykjavik dagoen tokian bizi izan zena. Bikingoek eramanda-

ko hizkuntza hitz egiten dute oraindik islandiarrek, nahiz eta islandiera modernoan hainbat aldaketa egin dituzten ahoskerari eta, jakina, hiztegiari dagokienez. Islandia da, halaber, beste Norse tradizio baten jarraitzaile bakarra, hain zuzen, abizenak erabili ordez patronimikoak erabiltzeko tradizioaren jarraitzaile bakarra; islandiar izen kristauari aitaren izena eta -son edo -dottir atzizkia eransten zaio, adibidez Guðrun Petursdottir (Guðrun, Peturren alaba). Familia bereko kideek askotariko “abizenak” izan ditzakete, beraz, eta harrigarri gertatzen zaie hori atzerritarrei! Islandiako telefono aurkibidean, esaterako, L letran aurkituko duzue nire izena, Logiri dagokionez, eta ez E letran, Eißsoni legokiokkeen moduan.

Islandiera hizkuntza indoeuroparren familiako germaniar taldeko iparraldeko adarraren barruan dago, eta ferocera eta norvegiera ditu hurbileneko hizkuntzak.

3. Egungo egoera

Gaur egun 300.000 hiztun inguru ditu islandierak, horietako gehienak Islandian bertan. Islandiera da Islandiako Errepublikako hizkuntza ofizial bakarra, eta herrialdeko biztanle guztien %2,6 bakarrik dira islandiarra ez den beste etnia edo naziotasun bateko kide (gutxiengo handiena poloniarrena da, 1.100 biztanlez osatua). Atzerrian bizi diren islandiarrei dagokienez, berriz, 20.000 inguru dira, eta erdia, gutxi gorabehera, Iparraldeko herrialdeetan daude kokatuta: Danimarka, Norvegia eta Suedian.

Islandierazko testurik zaharrenak K.o. 1100. urte inguruan idatziak dira, baina data hori baino hainbat mende lehenagotik zetorren ahozko literaturan oinarrituak dira gehienak. Hala ere, eta mendeen joanean islandierazko literaturan aldaketa gutxi izan direnez, islandiar gehienek zailtasun handirik gabe uler ditzakete testu horiek gaur egun. Material horretan hainbat testu aipagarri daude, Saga eta Edda ospetsuez gainera: zientzia ere egin zen islandieraz (hau da, ez soilik latinez), parte batean bada ere, XII. mendetik aurrera; garrantzi handiko lege liburu bat dago, XIII. mendekoa; eta Bibliaren islandierazko itzulpena XVI. mendean argitaratu zuten. XVI eta XVIII. mendeen artean, danierak eta behe-germanierak eragin handia izan zuten funtzionarioen hiztegiaren eta idazketan, baina ez zen halako kutsurik sumatu herri xehearen hizkuntzan. Pizkundearekin eta nazio erromantizismoarekin batera, XVIII. mendetik aurrera, islandierak garapen ikusgarria izan zuen eta nabarmen sendotu zen.

Islandiako hizkuntza politika modernoek honako bi ardatz nagusi hauek izan dituzte: batetik, hizkuntzari bizi-rik irauraraztea, hizkuntzaren berezko formei eta hiztegiari eustea; eta bestetik, islandiera modernoaren garapena sustatzea, hau da, hitz berriak sortzea, hizkuntza garai modernoetara egokitu ahal izateko.

Hizkuntza ez da komunikazio praktikorako edo informaziorako tresna soil bat; orobat da kultura ondarea transmititzeko bide bat, belaunaldien arteko zubia eta adierazpen artistikorako tresna bat. Eta, hain zuzen ere, islandiarrek literatura dute altxor nazional preziatuenetakoa, hizkuntzaren eta literaturaren bidez gorde dute beste herri batzuek beren eskulturen, eraikinen eta arkeologia aurkikuntzen bidez gorde dutena. Islandiarrek islandieraz hitz egiten dutenez, islandiera erabiltzen dutenez, hizkuntza horixe da gizartearen komunikazio tresna nagusia, idatzizkoa nahiz ahozkoa, hasi eguneroko elkarrizketa arruntetatik eta eztabaida espezializatuetera: zientzia eta teknologia, komunikazioa eta informazioaren teknologiak, hedabideak eta negozioak, eta abar. Islandiako gizartea konplexua da, gaur egun, jakina, eta teknologia eta industria berriak aurreko garaietakoaren oso bestelako agertoki berri baterako hitz berriak eskatzen ari dira.

Hizkuntzaren iraupenari begira, funtsezko eragilea da erabilera arloena. Kultura jarduera eta jendaurreko agerrialdia ahalik eta gehienetan norberak bere ama hizkuntza erabili ahal izatea da helburua. Izan ere, hizkuntza gizarteko esparru guztietan erabiltzen dela ikusita ohartuko dira hiztunak beren ama hizkuntzarekin arazorik gabe molda daitezkeela gizarte moderno batean, eta ez dutela izango beste hizkuntza batera, adibidez ingelesa, jotzeko beharrik, zientzia modernoek, teknologiez edo negozioez aritzeko.

Hizkuntza lantzeko eta biziberritzeko ahaleginak, ordea, etengabe hitz eta esapide berriak sortzea eskatzen du. Jaki-na, jarduera modernoan esparru guztietan norberaren hizkuntza erabili ahal izateko, ezinbestekoa da hiztegi aberatsa edukitzea.

4. Eboluzioa

Azken 200 urteotan, gutxi gorabehera, islandieraren hiztegia izugarri zabaldu da, batez ere hizkuntzak lehendik bazituen hitzen osagaiak konbinatuz sortutako hitzei esker. Metodo linguistiko erabilienak hitz elkarketa eta eratorpena izan dira. Eta horrez gainera, ugariak dira esanahi zaharrari esanahi berria erantsi zaien hitz zaharrak. Azkenik, hitz arrotz batzuk ere sartu dira, mailegu gisa, islandieran, baina ez da joera nagusia, inola ere. Gainera, hitz horiek hainbat asimilazio maila igaro dituzte -fonologikoa, ortografikoa eta morfoloikoa-, islandiera inflexio hizkuntza delako.

Jendeak, oro har, ulertzen ditu hitz tekniko berriak, hain zuzen ere, hitz horien osagaiak ulertzen dituztelako. Zailagoa da, adituen arabera, hitz arrotzak (maileguak) hizkuntza batean txertatzea. Horregatik, islandieraz, *psychiatry* “nazioarteko” izena hartu ordez, *geðlæknið* hitza sortu da, islandierazko adimena, medikua eta zientzia hitzetatik sortutako neologismo bat eratu da. Hala, zure ama hizkuntza islandiera bada, erraz antzemango diozu *geðlæknið* hitzaren esanahiari, hitz hori aurretik inoiz entzun gabe bazenuen ere, eta berehala igarriko diozu “pertsonaren adimenaz diharduen medikuntza” izango dela. Eta horixe da, hain zuzen ere, *psychiatry* edo antzeko hitzek beste hizkuntza batzuetan duten esanahia.

Islandieraren hiztegia osatzeko aukeratutako bideak, alegia jatorriz hizkuntza horretakoak diren hitzetatik abiatuta hitz berriak sortzeak, aukera ematen die islandieraren hiztun gehieni hainbat arlotako adituen eta jakintsuen hitzak ulertzeko. Aldiz, islandiar hiztun batek lehen aldiz *psychiatry* moduko hitz bat entzutean, baita fonologikoa islandieraren hots sistemari egokituta bada ere, hiztegiaren begiratu beharko luke, delako hitza ez duelako era automatikoan bere ama hizkuntzaz duen ezagutzarekin lotzen. Islandiako hizkuntza politikak hartutako bide hori demokraziarako, oro har, eta gizartean hainbat ezagutza zabaltzeko oso baliagarria izan den ustea dago.

Baditugu beste hainbat adibide. Adibidez, *telephone (simi)*, *monitor (skjar)*, *television (sjonvarp)* eta *radio (utvarp)* hitzak. Islandierazko antzinako hitzetan oinarrituak dira guztiak, eta ez hizkuntza gehienetan erabili dituzten nazioarteko osagaiez osatuak. Era berean, Islandia da golfean, esaterako, *birdie*, *bogie*, *green* eta *driver* nazioarteko hitzak erabiltzen ez dituen herrialde bakarra, nik dakidanez. Horiek adierazteko hitz bakarrak zeuden lehen, baina azken bost urteotatik hona edo, pixkanaka aldatzen ari da egoera. Islandiar askok dihardute hitz berriak sortzen, gauza eta kontzeptu berriak adierazteko, beharrezkoak arabera. Inportatzaile eta saltzaileek, adibidez, salgai berriak izendatzeko hitzak aurkitzeko eronkari aurre egin behar izaten diote sarritan, eta kasu askotan hartu ohi dute hitz arrotzen (oro har, ingelesezko hitzen) ordez islandierazko ordainak emateko bidea. Itzultzaile asko dabil-tza, halaber, islandierazko ordainak aurkitu eta zabaltzeko lanean buru-belarri murgilduta. Baita hedabideetako kazetariak ere. Arlo askotako terminologiez diharduten 30 batzorde baino gehiago ari dira lanean; zientzietan, teknologian, negozioetan eta kulturaren beste hainbat arlotan hiztegia osatzen. Bakoitza bere esparruan, eta, gehienak, musu truk izaten dira.

Termino berriak bizkor zabaltzeko bide asko daude, adibidez idatzizko era guztietako itzulpenak, testu liburuak, azalpen teknikoak, era askotako erabilera jarraibideak, telebistako azpidatziak eta egunkari, aldizkari, telebista eta irratiko iragarkiak, eta Internet. Orobat zabaltzen dira ahoz, elkarte profesionalen txosten eta buletin bidez, eta, jakina, paperean nahiz Interneten argitaratutako agerkari terminologikoen bidez.

Islandiera garai modernoetara egokitzeko islandierazko hitzetatik eta hitzen osagaietatik hitz berriak sortzeko arazoia ez da soilik islandiarrek beren hizkuntzari eusteko eta hizkuntza hori garatzeko duten nahia. Bada beste

arrazoi bat ere, demokrazia sendotzeko eta gizartearen ezagutza maila zabaltzeko aukera ematen duela, bertako hizkuntzako neologismo horiek eskaintzen duten gardentasun semantikoaren bidez.

Politika horren kontrako argudio garbia izan daiteke, bide horri helduz gero, terminoak eta kontzeptuak behin ikasi ordez, bi aldiz ikasi behar izatea; ama hizkuntzan lehenik eta nazioarteko terminologia deritzon bigarrenik alegia. Kontua ez da hain sinplea, ordea. Hasteko, hizkuntzek beren ortografiaren, inflexioen eta ahoskeraren arabera egokitu behar izaten dituzte nazioarteko hitz horiek. Gainera, litekeena da nazioarteko deritzen hitzek ez izatea esanahi bera gizarte batean eta bestean, hizkuntza bera ez duten gizarteek ez dutelako kontzeptuaren alderdi bera nabarmentzen ohi, gizarte bakoitzaren egoeraren eta historiaren arabera baizik. Eta horrek “lagun faltsu” deritzen fenomenoaren arriskua ekar dezake. Azkenik, “etxeko” terminoak sortzeak, atzerriko hizkuntzak ikasteaz gainera -Islandian hezkuntza bikoitza deritzo horri-, denbora eta energia eskatzen du, eta aditu askok diote ahalegin horrek energia positibo handia dakarrela, lehendik ezarritako hainbat kontzeptu beste ikuspegi batzuetatik aztertzen eta ikuspegi kritiko batetik begiratzen ditugulako. Ama hizkuntzako hitz egokiak bilatuz edo sortuz ideia emankor eta originalak sor daitezke eta kontzeptu zaharrak berregokitu, eta oso baliagarria izan daiteke alderdi horretatik.

5. Teknologia berriak

Lehen aipatu dut garrantzi handikoa dela hizkuntzak gizartean dituen erabilera arloen auzia. Islandian, berebiziko kezka dago, gaur egun, hizkuntza ingeniartzari buruz: informazioaren teknologiari, hizkeraren ezagutzari eta abarri gero eta garrantzi gehiago ematen ari zaizkie zientzian eta enpresa arloan, eta hemendik urte edo hamarkada batzuetara hizkuntzekin zuzenean lan egingo duten tresna informatiko gero eta aurreratuagoak ikusiko digu. Islandia merkatu txikia izaki, Islandiako gobernuak bere gain hartu du arlo horretan duen erantzukizuna, eta bide horretan aurrera egiteko programa bat jarri du abian. Izan ere, badugu hiztegia, esan dudanez, baina hori ez da nahikoa; etorkizunean nagusiki merkatu handietara begirako tresnak eta baliabideak sortuko badira, litekeena da islandierentzako euskarri tekniko eta irtenbide espezifikorik ez asmatzea. Edonola ere, dagoeneko lortu dugu merkatuan islandierazko karaktereak dituzten ordenagailuak eskuratzeko aukera bermatzea eta islandierazko pertsona izenak islandiar tradizioaren arabera interpretatzeko, ordenatzeko... gai diren ordenagailuak ekoiztea. Era berean, garrantzi handiko nazioarteko zenbait software ditugu itzulita; baina oraindik badago zer egin esparru horretan.

Informatikan hizkuntzak sartzea langintza korapilatsua izan daiteke, Islandiako historian luzaroan ikusi dugun baino gehiago, garrantzi handiko arlo delako (ezinbestekoa), ez delako periferikoa (ez da noizean behin erabiltzekoa, egunerokoa baizik) eta hizkuntzaren erabiltzaile guztiei dagokielako (ez aditu batzuei soilik). Islandiako gobernuak hartu dituen hizkuntza politika eta neurriak bat datoz Europako Batzordearen politikarekin eta hizkuntza anitzeko Europa garatzeko asmoekin.

6. Islandiako Irrati-Telebista (*RUV*)

Ríkisutvarpið RUV -Islandiako Irrati-telebista Zerbitzu Nazionala- irrati-telebista zerbitzu publikoa da, Islandiako estatuaren jabetzakoa. 1930ean hasi zen emititzen. *RUV* erakunde burujabea da, finantzabideei dagokienez, eta bere diru iturri nagusiak iragarkiak eta baimenak dira. *RUV*ren irabaziak irrati-telebista emanaldietarako soilik erabil daitezke. *RUV* erakundeak telebista kate bat eta bi irrati ditu, Islandia guztira iristen direnak. Horren osagarri, baditu eskualdekako irratsaioak, iparraldean, hegoaldean, mendebaldean eta ekialdean. Irrati-telebistaren Legearen arabera, *RUV*ren betebeharra da islandiera, Islandiako historia eta kultura ondarea sustatzea. Era berean, demokraziaren oinarriko arauak, giza eskubideak, eta adierazpen eta iritzi askatasuna errespetatu behar ditu: *Channel 1* Musika klasikoa eta dokumentalak, eguneko 24 orduetan, zuzenean; eta *Channel 2* Pop musika eta eguneroko gaiak, eguneko 24 orduetan, zuzenean.

RUV garrantzi handiko erakundea da Islandiako bizitza kulturalen eta sekulako ahalegina egin du islandiera sustatzeko. Egutero dago hizkuntzari buruzko saioren bat (erabilera egokia, eragina, historia, etab.), eta hizkuntzaren kontzientzia sendoa dute. Albisteen eta eguneroko gaien buruzko saioren testua zorrotz ikuskatzen dute, hizkuntzaren tradizioari behar bezala egokitzen zaiola egiaztatzen. Ez ahoskera zuzena ote den egiaztatzen. Ahozko hizkuntzan atzerriko eragina (ingelesarena, jakina) eragozteko baizik.

Harrigarria badirudi ere, *RUV*ren helburu kulturalaz hitz egin berri dudalarik, esan beharra dut egun batez beste sortzen den material guztiaren erdia hizkuntza arrotzetan sortua dela, ingelesez nagusiki. Egoera are larriagoa da beste telebista kate batzuetan. Gainera, irratiko 2. katean (gazteek entzuten duten irratian), musikaren %70 ingelesez da. Eta ehuneko hori askoz ere handiagoa da kate pribatuetan; ingelesak %90erainoko tartea har dezake; salbuespen bakarra eguneko 24 orduetan islandiar musika emititzen duen katea da.

Telebistarako oso film islandiar gutxi egiten dira, baina egutero izaten dira bizimoduari, politikari eta abarri buruzko elkarrizketa saioak.

Islandian amerikar komedia, krimen eta drama sail bikainenak ikus ditzakezu. Horiek dira Islandiako telebistaren merkatuan borrokan dabilten bost etheen artean lehia biziena sortzen dutenak. Kate publikoak ere bide horri jarraitu dio, eta honako saio hauek ematen ditu, besteak beste: *Sex and the city*, *That 70's show*, *West Wing* eta *Sopranos*. Bi kate pribatuk *Jay Leno*, *David Letterman* eta *Oprah* saioak eskaintzen ditu egutero. Harrigarria dirudi, baina saio horriek arrakasta handia dute islandiar ikusleen artean. Erdi mailako amerikarren bizimoduari interesgarri deritzote islandiarrek, nonbait. Era berean, islandiarrek Ameriketako Gabonak sarriago ikusi dituzte telebistan Islandiakoak bertakoak baino. Beste era batera esanda: amerikarren bizimodua beren bizimodua bezain hurbilekoa sentitzen dute islandiarrek!

Bitxia irudi lezake halako egoera izanik islandieraren erabilera sustatzeko egiten ari garen lanaz jarduteak. Urteetan batzuek esan izan dute, eta goian ikusitakoaren arabera, logikari jarraituz, zentzuzkoagoa litzatekeela islandiera alde batera utzi eta ingelesez soilik hitz egitea, kontuan hartuta herrialdea atzerriko merkataritzaren eta turismoaren morroi dela eta oso txikia dela gure hedabideetarako islandierazko materiala sortzeko, baita kate publikoetarako ere. Baina hori ez da inoiz serio hartu, eta ez da hartuko.

Gure inguruko herrialdeetan, gure burua alderatzeko hautatu ohi ditugun herrialdeetan, atzerriko saio guztiak bikoiztea erabaki dute. Hala, gauza arrunta da Mel Gibson eta Julia Roberts antzezleak alemanez, frantsesez edo italieraz hitz egiten entzutea. Baina ez da inoiz halakorik egin islandierarekin, eta ez dirudi egingo denik ere. Jendeak ez luke onartuko, kanpoko eragin horiek kezka sortu ordez, atzerriko hizkuntzak ikusteko aukera gisa hartu izan baitira. Islandiar hurrek hamar urte dituztenetik hitz egiten dute ingelesez. Handik urtebetera hasten dira ingelesa ikasten eskoletan. Horrek erakusten du amerikar ikuskizun eta filmek zenbateko eragina duten. Horren adibide da islandiar haur asko hasi arren daniera ikasten (hamar urte dituztenetik hogeitau urte bete arte) gutxi hartzen dutela danier hizkuntzaren ezagutza sakonik. Danimarkara bidaiatzen dutenean, ingelesez hitz egiten dute askok, danieraz hitz egin ordez. Hedabideek sekulako eragina dute, beraz.

Batek pentsa lezake islandieraren egoerari buruzko eztabaida gehiegi egiten dela. Baina ez da hala. Daniarren mende egoteak ez zuen eragin handirik izan gure hizkuntzan, nahiz eta batzuek, XIX. mendearen hasieran, islandiera pixkanaka danieraren aldera lerratzen ari ote zen beldurra izan. Aipatzekoa da danier aditu bat, Rasmus Christian Rask izenekoak, izan zela, hain zuzen, hori islandiarrei argi eta garbi adierazi ziena, eta islandierazko lehen gramatikako liburuetakoa argitaratu zuena. Hizkuntzalari trebea, egoerari buruzko ikuspegi garbia zuena, eta islandiera eta daniera, biak ezagutzen zituen.

Baina izan dira liskarrak. Adibidez, 60ko hamarraldian, telebista bakarra Reykjavik aldirietako hiri txiki batean, Keflavik izeneko herrian, Ameriketako armadak zuen basekoa zenean. Hiriburu inguruan ikusten zen kate hura

eta, beraz, herrialdeko biztanleriaren zati handi batek amerikar telebista ikusten zuen. Gehienek gustukoa zuten arren, agintariak garbi ikusi zuten zenbait egin beharra zegoela eta telebista hari basetik kanpora emititzeko debekua ezarri zioten. Erabaki hura arrazoi linguistikoengatik hartu zuten edo ez, ezin esan nezake. Politikak kate haren eta emititzen zituen materialen kontra zeudenen jarrera itxuraldatuko zuen, agian, baina erabaki horren oinarrian zegoen logika ezer egin ezean hizkuntzari eragingo zion kaltearena izan zela esan zen.

Etxea adierazteko islandierazko hitza “heima” da. Inozoa esateko, berriz, “heimskur” erabiltzen da. “Etxe zuloan dagoena, eta, beraz, inguruan zer gertatzen den ez dakiena” esan nahi du hitz horrek. Gure pentsamoldea zertan den islatzeko adibide egokia da. Horren alde egon ez arren, hobe izango dugu kontuan hartzea beti izango ditugula eragin arrotzak. Izan ere, Islandia herrialde txikia da, munduko gainerako herrialdeen mende dagoena. Gaueko gure albistegietan, berrien %40 dira Islandiatik kanpokoak. Munduan zer gertatzen den jakin beharra dugu (oso txikiak garelako) eta benetako interesa sortzen dute atzerriko gorabeherak. Atzerriko berri horietako gehienak Europatik datoz, baina Amerika gero eta tarte handiagoa hartzen ari da.

Hori guztia esanik, aitortu beharra daukat islandieraren kanpoko eraginari buruzko kontzientzia gero eta gehiago zabaltzen ari dela. Belaunaldi gazteak dira eragin horrek gehien ukitzen dituenak. Internet bidez nagusiki. Ezin ditugu ahaztu gauzak esaten diren bezala idazteko joera, ingelesezko *slang*-a eta hitz solteak. SMS mezuen bidez komunikatzeko gero eta joera handiagoa dago, eta ingelesezko gero eta hitz gehiago erabiltzen dituzte horretarako. Imajinatzen zaila da gure hizkuntza hedabideetan erabiltzeko debekua ezarriko litzatekeen egoera. Hizkuntza da islandiar egiten gaituena. Mundu honetan, globalizazioa nagusi den honetan, islandieraz hitz egiteak bereizten gaitu gainerako jendeengandik. Egunkarietan ere egunero agertzen da hizkuntzaren erabilerari buruzko zerbait. Zer den zuzena eta zer okerra.

Nire katean ez dute kazetaririk hartzen alderdi garrantzizkoena islandieraren ezagutza duen azterketa bat gainditu gabe. Guretzat garrantzi gehiago du horrek eguneroko gaiez eta munduaren egoeraz duten ezagutza baino!

7. Ondorioak

Hizkuntzari buruz eta hizkuntza babesteko eta gordetzeko egiten ari garen saioei buruz hitz egin dut. Baina garrantzizkoena ez da hori. Egun, garrantzizkoagoa da islandiera zer den ikastea eta gure bizimoduari buruz dokumentatzen saiatzea. Garrantzizkoa da, alderdi horretatik, amerikar eraginaren gainetik, gure ikus-entzuleei erakustea islandiar izateak zer esan nahi duen eta herrialde txiki honetako herritarrei ikusaraztea islandiar zerk egiten gaituen.

Kontua ez da, nire iritzian, gure burua bakartzea. Gure idazle handienetako batek, Halldor Kiljan Laxnessek - Literaturako Nobel saria eman zioten 1955ean-, behin esan zuen norberaren hizkuntza gordetzeko modurik onena beste hizkuntza batzuk ikastea zela. Horrela, beti jabetuko zara zer den hor sartzen ari den eta sartu behar ez lukeena; noiz den zerbait jatorrizkoa eta oraindik garabidean den islandieraren berezkoa, edo noiz den hitz edo esamolde arrotza, hiztunen ezjakintasunaren ondorioz hizkuntzan txertatzen ari dena. Luzaroan ez zaio horri erreparatu Islandian, eta hizkuntzaren garrantzia sekula ez da izan islandiarren lehentasunezko kezka. Ez dezagun ahan-tzi herrialde bat ez dela ezer hizkuntzarik gabe.

2. EUSKARAZKO HEDABIDEAK

2.1. EUSKARAZKO PRENTSA

- a. Euskarazko komunikabideak eta kazetaritza: egoera, ardatzak eta pisu erlatiboa
- b. Euskarazko produktuen kontsumoa
- c. Bi estatu, bi kazetaritza eredu
- d. EKT: Etorkizuneko komunikazio taldearen oinarri sendoa
- e. Tokian tokiko prentsa eta informazioaren gizartea
- f. *Arrasate Press*: Hamasei urte tokiko prentsaren aitzindaritzan
- g. *Galtzaundi* aldizkaria (1991-2004): Gertuko intxaurrak mamitsu
- h. Komunikazio Biziagoaren muinean, *Argiaren* geroa
- i. Euskarazko komunikabideak: Eskaintza eta eskariaren artean
- j. Euskara eta Mendi-Kazetaritza: Gailurrera igotzeko bidean
- k. Euskarazko kirol kazeta: Ametsa eta errealitatea
- l. Aisialdi eta Zerbitzuen atalak eguneroko prentsan

2.2. IKUS-ENTZUNEZKO KOMUNIKABIDEAK

- a. XXI. mendeko EiTb: Jomuga berriak
- b. Iparraldeko *Euskal Irratiak*, elkarlanean aitzindari
- c. Irrati txikien xede berritzaileak
- d. Tokian tokiko telebistak, geroari begira
- e. Euskarazko telebistaren etorkizuna testuinguru globalean

2.3. *INTERNET BIDEZKO KOMUNIKABIDEAK*

- a. Informazio alternatiboa Euskal Herrian: mediaberri.com
- b. Mendebaldeko euskerea eta *Bizkaie!*: Euskerazko kazetaritzan burua atara guran

2.4. *PUBLIZITATEA: DIRUA ETA SORKUNTZA*

- a. Zeregin asko euskaldunok publizitatean
- b. *Hitza* egunkaria, gertutasunak onurak eskaintzen dituenean
- c. Euskararen publizitatea edo publizitatearen euskara
- d. Bilboko Metroko iragarkien azterketa

2.5. *KAZETARITZA ETA LITERATURA*

- a. Kazetaritza eta literatura elkarlanean
- b. Kazetaria ez da Jainkoa

2.6. *GENERO IKUSPEGIA*

- a. Genero ikuspegiaren gabeziak euskarazko prentsa idatzian

2.7. *ZIENTZIA KAZETARITZA*

- a. Zientziaren dibulgazioak ba al du tokirik euskarazko kazetaritzan?

2.8. *DIASPORAREN KOMUNIKABIDEAK*

- a. Eusebio Erkiaga, *Bankuko* euskal kazetaria

a. EUSKARAZKO KOMUNIKABIDEAK ETA KAZETARITZA: EGOERA, ARDATZK ETA PISU ERLATIBOA

*Arantza Gutierrez Paz
Antxon Mendizabal
Santi Urrutia
Nicolas Xamardo
Iñaki Zabaleta*

EHUko irakasleak

Oharra: txosten hau, Europako Batasuneko hizkuntza gutxituetako hedabideen inguruan aipatutako autoreak burutzen ari diren hainbat urtetako ikerketa-proiektuaren emaitza partzial bat da (*Los medios de comunicación de las lenguas minorizadas en la Unión Europea: realidad, problemática y nuevas estrategias de desarrollo*, Universidad del País Vasco-Euskal Herriko Unibertsitatea. Proiektuaren erreferentzia: 1/UPV/EHU 00015.323-HA-7716/2000).

1. Laburpena

Txosten honetan hainbat gai jorratuko ditugu. Lehenik, betiko eskakizunari erantzun bat emateko asmoz, euskarazko kazetarien eta laguntzaileen kopurua zehazten saiatuko gara, zifra batera inguratzeko. Bigarren, euskal komunikabideen eta kazetaritzaren inguruan gogoeta egiteko garrantzitsuak diren azterketa-ardatzak aipatuko ditugu, multimediotasunaren gaurkotasuna azpimarratuz. Hirugarren, komunikazio-talderik nagusienak, eta hiri nahiz euskaldun gutxiko eskualdeetan erabiltzen edo erabil daitezkeen medio-ereduak ikusiko ditugu. Laugarren, ohikoa den euskarazko hedabideen deskribapena egingo dugu, baina Interneteko ziber-medioen esparrua gehituz. Azkenik, aurreko katalogiotik harantzago joan nahian, euskarazko komunikabideen pisu erlatiboak kalkulatu eta ebaluatu ditugu, hala Euskal Herriko herrialdeetako euskaldun portzentajeekin alderatuz, nola Europako Batasuneko beste hizkuntza gutxituetako medioekin alderatuz. Uste dugu azken ekarpen hau berria eta interesgarria dela.

2. Euskarazko kazetarien kopurua

Estimazio moduan, hedabide mota guztietan euskaraz ari diren kazetarien kopurua 700etik gorakoa izan daitekeela uste dugu. Ondoko zerrendan azaltzen diren zenbakien batuketak 589ko kopurua ematen du. Datu hauetako asko zehaztasun faltan daude: behin baino gehiagotan kazetariak, teknikoak eta gainerako langileak denak batera bilduta egon daitezke. Lan dedikazio mailak oso gradu desberdinekoak izan daitezke. Beste aldetik, taulan ez dira sartu era guztietako informazio bulego edo kabineteetan ari direnak. Beraz, datu hau gaiari egiten zaion lehen hurbilketara moduan hartu behar da.

1. Taula: Euskarazko komunikabideetako kazetari eta kolaboratzaileak

Komunikabidea	Kazetariak	Kolaboratzaileak
<i>Aldaketa 16</i>	6	-
<i>Antxeta Irratia</i>	2	25
<i>Aralar Irratia</i> (Lekunberriko Udala)	1	-
<i>Argia</i>	11	40
<i>Arreta Irratia</i> (Ermua, librea)	(4 lagunen artean egina)	-
<i>Berria</i>	80	-
<i>Bilbo Hiri Irratia</i>	4	100
<i>Deia</i>	5	-
<i>Durango Telebista</i> (elebiduna)	6 (eta 4 tekniko)	-
<i>Euskadi Gaztea</i>	5	11
<i>Euskadi Irratia</i>	63	-
<i>Euskal Telebista</i>	190	-
<i>Euskalerrria Irratia</i>	11 (lantalde osoa)	-
<i>Gara</i>	6	-
<i>Gure Irratia</i>	12	82
<i>Irulegi Irratia</i>	10 (guztira)	80
<i>Kaito TB</i>	(tekniko 2)	-
<i>Karrape Irratia</i> (Leitzako Udala)	2	-
<i>Lea Artibai eta Mutrikuko Hitza</i>	8	-
<i>Mendaro Telebista</i>	2 (eta 3 tekniko)	-
<i>Oarso Telebista</i>	5 (eta 7 tekniko)	-
<i>Oarsoaldeko Hitza</i>	10	-
<i>Oiartzun Irratia</i>	2 (eta tekniko 1)	-
<i>Telesko</i>	2 (eta 3 tekniko)	-
<i>Tolosaldeko Hitza</i>	8	-
Topagunean ez dauden herri aldizkariak	30	-
Topaguneko Komunikabideak	89	-
<i>Urdaibai Telebista</i>	3 (eta 3 tekniko)	-
<i>Xaloa Telebista</i>	7 (langile guztiak)	-

800.000 euskalduneko¹ hizkuntza komunitatea dela gurea aintzat hartuz gero, 1.000 hiztuneko ia 0,9 kazetari ateratzen zaigu indize moduan. Zenbaki honen benetako esanahiaz jabetzeko beste herrialdeetako datuekin alderatu beharko genuke, eta oraindik ez dugu izan hori egiteko aukerarik. Hala ere, iruditzen zaigu 1000/0,9 ratioa aintzat hartzeko moduko kopurua dela eta euskarazko komunikabideek lortu duten pisuaren adierazlea. Beste aldetik, datu asko bildu ez dugun arren, euskarazko kazetariaren ezaugarri bat 'kolaboratzaile' ugari izatea da, kazetariaren honetan herritarren parte-hartzea funtsezkotzat jotzen denaren seinale, eta baita ere herritar hauen laguntzeko borondatea adierazten duena. Hemendik abiatuta euskarazko kazetariaren ezaugarri nagusi batzuk aipatuko ditugu lan honetan.

3. Komunikabide eta kazetaritzaren azterketa-ardatzak

Orain arteko ibilbideari begiratu, badirudi hiru ardatzen *continuum*-ean azter ditzakegula euskarazko komunikabideak eta kazetaritza. Lehena herri-ekimenaren eta instituzionalizazioaren ardatza da, enpresaren jabetzarekin eta kudeaketa motarekin zerkusia duena. Bigarrena, profesionaltasunaren ardatza, kazetaritzaren eta edukien kalitatearekin lotu behar dena. Hirugarrena, militantziaren ardatza dei genezake eta aurreko bien azpian eta inguruan kokatzen den jarrerari eta konpromisoari dagokio.

Zoritxarrez, maiz, ardatz beraren bi ertz kontrakoetan jarri izan dira profesionaltasuna eta militantzia, nahiz eta bi kontzeptuak maila berean ez egon, eta horrek nahasketa eta kaltea baino ez dio ekarri euskarazko kazetagintzari (komunikabideak) eta kazetaritzari (jarduna).

Azken urte hauetan, teknologia berriak, konbergentzia, integrazioa eta antzeko joerak nazioartean ugaritu egin direnean, euskal komunikabideen artean ere jokabide bertsuak eman dira eta, ondorioz, multimediotasunaren ereduaren adibideak ikus ditzakegu. Alabaina, uste dugu komertzialtasunak ez duela oraindik erro sendorik hartu.

3.1. Herri-ekimenaren eta instituzionalizazioaren ardatza

Herri-ekimena dei diezaiokegu gizarte zibilaren borondate, erabaki eta finantzaketan nagusiki oinarrituz sortu eta jarduten duen medioari, nahiz eta laguntza publikoak jaso. Orain arte, euskarazko komunikabideak sortzeko indar nagusia herri-ekimena izan da, instituzioen ekintzaren aurretik. Horren adibideak dira tokiko komunikabideak eta *Euskaldunon Egunkaria*.

Ardatz honetako continuum-aren beste ertzean komunikabideen instituzionalizazioa dugu; publikotasuna, alegia. Medio publikoak hasieratik erakundeek sortutakoak dira, eta izaera hori barneratua dute. Euskal Irrati-Telebista da adibide nabariena. Beste hedabide askok erakundeekin egindako hitzarmenen bidez funtzionatzen dute eta, ondorioz, nahitaezkotzat jotzen da herritarren ekimenak erakundeen politikarekin lotura izatea, erakunde hauek inplikazioa izatea, eta berauekin akordioetara heltzea, maiz kazetaritza-independenziaren mesedegarri ez dena.

3.2. Profesionaltasunaren ardatza

Urteetan zehar ikusi da arlo honetan, beste askotan bezala, lan txukuna eta kalitatekoa egiteko nahitaezkoa dela profesionaltasun maila egoki bat lortzea. Dena den, jakin badakigunez profesionaltasunaren kontzeptua konplexua da, eta gogoan izan behar dugu profesionalari dagozkion bi alderditara mugatzen dugula: a) hedabideetarako ikasketa espezifikoa izatea; eta b) lanaldi osoz hedabideetako jardunean aritzea. Horrela definiturik, hedabide publikoetan profesionaltasuna aurretiazko baldintza da, baina ekimen herritarretatik sortutakoetan, toki-hedabideetan batez ere, hasieran borondatezko lana izaten da nagusi eta nahitaezko, baina, denbora igaro ahala, gero eta egoera profesionalagoetara heldu beharra egoten da. Horrela bakarrik bermatu ahal baita hedabideak irautea, eta kalitate gero eta handiagoa lortzeko aukera izatea. Herri-ekimenez sortutako *Euskaldunon Egunkariak* ere -hedabide publikoek bezainbat edo gehiago-, profesionaltasuna hartu zuen ardatz eta horrela egin du oinordeko *Berriak* ere.

3.3. Militantziaren ardatza

Gaur egun ere oso garrantzitsua da militantziaren balioa euskarazko edozein komunikabidetan; bai herri-ekimezkoetan, bai publikoetan, eta baita pribatu edo komertzialetan ere, azken hauetatik oso gutxi dagoen arren.

Neurri handiagoan edo txikiagoan euskaraz diharduten hedabide gehienek beren “idearioan” sartuta daukate euskararen normalizazioaren aldeko inplikazio gradu bat adierazten duen puntua. Izaera hau informazioa euskaraz

zabaltzeko', eta antzeko esaldietan azal liteke era xumean, edo 'gizarte euskalduna eraikitzen laguntzeko konpromisoa' bezalako aipamen indartsuagoan². Horrek esan nahi du hedabide horietako kazetari, teknikari eta laguntzaileen jarduna, bakar-bakarrik lanbide moduan barik, euskararen aldeko nolabaiteko plusa eskatzen duen eginkizuntzat hartzen dela. Testuinguru horretan dauka erabateko zentzua, adibidez, kolaboratzaile edo laguntzaileen irudiak. Euskararen aldeko zeregin berean aritzeko prest egon daitezkeen kanpoko pertsonen laguntza eskatzen da, eta kolaboratzaile horien parte hartzeko motibazioa justu horixe da: euskararen egoera normalizatzeko ahaleginean laguntzea, euskaraz bizitzeko aukera gehiago egon dadin. Ikuspegi hau izanda, euskaraz ari diren komunikabideek zalantza asko izaten dute, edo areago, erabat uko egiten diete beste hizkuntzetan asko garatuta dauden bideei; komertzialak deitzen diren ereduak esaterako, hau da, erabat publikitatearen bidez finantzatzen diren produktu mediatikoei³.

3.4. Ardatz berriak: multimediotasuna eta komertzialtasuna

Txosten honetan zehar ikusiko dugunez, badirudi beste bi eredu/ardatz berri ere kontuan hartzen hasi beharko dugula, nahiz eta oraindik ez dauden guztiz garatuta: multimediotasuna eta komertzialtasuna.

a.- Multimediotasunaren ardatza

Komunikabideen multimediotasunari dagokionez, euskarazko medioen artean eredu desberdinak ari dira garatzen, nazioarte-mailan gertatzen denarekin bat etorriz. Lau komunikabide-eredu behintzat ikus ditzakegu euskarazko medioen esparruan: modomedia, monomedia-katea, multimedia eta multizerbitzua. Oroitarazi nahi dugu ez garelako ari hedabideen jabetza-motari buruz, horien produktu-eskaintzari buruz baizik.

Monomedia-eredua: azken bost urte hauetara arte egon den eredu izan da. Komunikazio-enpresa batek -dela publikoa dela herri-ekimenezkoa- komunikabide bat bakarrik argitaratu edo hedatzen du (aldizkari bakarra, irrti bakarra, etab.). Oraindik ere eredu honek jarraitzen du tokiko hedabide askotan.

Monomedia-katearen ereduak: aurreko ereduaren garapen edo aldaera modura, "monomedia-katearen ereduak" sortzen ari da, zeinaren bidez mota bereko hainbat hedabide katean lotzen diren, bai audientzia ugaltzeko, bai programazioa handitzeko, eta, oro har, eraginkorragoak izateko. Tokiko hedabideak hasi dira eredu hau erabiltzen, eta jadanik bada mota honetako irrti-kateren bat.

Multimedia-eredua: azken urte hauetan ezartzen ari den eredu berri bat da, Interneten garapenari esker neurri handi batean. Eredu honetan, komunikazio-enpresa batek bi komunikabide edo gehiago editatzen ditu, eta medioen euskarriak edozein izan daitezke (inprimatua, ikus-entzunezkoa edo/eta Internet). Honen adibidea dugu Goiena Komunikazio Zerbitzuak, zeinak aldizkariak, telebista, irrtia eta zibermedioak dituen (prentsa idatzia, ikus-entzunezko hedabideak, eta sareko produkzioa). Hemen sar genezake, halaber, Euskarazko Komunikazio Taldea (EKT), *Berria* egunkari orokorra eta *Hitza* izeneko eskualde-egunkariak, batetik, eta ziber-egunkaria, bestetik, editatzen dituen. Multimedia-ereduarekin ere zerikusia daukate Nafarroan Ttipi-Ttapa Fundazioak eta Bizkaian Durangaldeko Herri Komunikabideak (DHK). Multizerbitzu-eredua: aurreko ereduaren aldaera bezala ere uler genezake, baina uste dugu nortasun berezia duela. Eredu honek esan nahi du komunikazio-enpresa batek ez dituela komunikabideak bakarrik ekoizten, baizik baita beste zerbitzu batzuk ere, komunikazioarekin zerikusi gutxi edo deus ez dutenak maiz (euskaltegia, euskal-taberna, euskal-kulturgunea edo bidaia-agentzia, etab.). Horren adibidea dugu Bilboko Zenbat Gara? elkarte/enpresa, zeinak *Bilbo Hiria Irratia*, Kafe Antzokia eta euskaltegia dituen, beste zerbitzu batzuen artean. Eredu hau baliagarria izan daiteke ingurune urbano eta gutxi euskaldunduetan.

b.- Komertzialtasunaren ardatza

Komertzialtasunak esanahi anitz ditu, baina hemen adierazi nahi da euskarazko komunikabide bat publikitatez soilik finantzatzen dela, hizkuntza normalizatuetakoa hedabide pribatuetan gertatzen den modura. Oraindik ez dago

horrelako mediorik euskaraz eta, beraz, hirugarren aldagai hau falta da “herri-ekimenaren eta instituzionalizazioaren ardatzean”. Guztiz komertziala den medioa sortzen denean eta, batez ere, irauten duenean, albiste garrantzitsua izango da euskal komunikabideen esparruan.

4. Euskarazko komunikazio-taldeak eta enpresak

Aurreko lerroetan ardatz eta eredu teorikoak ezarrita, ikus dezagun orain errealitatean euskarazko komunikabideak enpresaren ikuspuntutik nola antolatuta dauden. Horrela jakingo baitugu noren eskutik, nolako ereduarekin (monomedioa, monomedio-katea, multimedioa, multizerbitzua) eta nolako ingurutan garatu edo garatzen ari diren orain arteko euskarazko komunikabideak⁴.

4.1. Ikus-entzunezko medioak: publikoak

a.- EITB talde publikoa

Euskal Irrati-Telebista taldea 1982ko maiatzaren 20an sortu zen eta Iurretako albistegi-ekoizpenaren zentroan dago egoitza nagusia. Egun, lau telebista kanal eta lau irrati emisora ditu; batzuk euskaraz eta besteak gaztelaniaz. 1982an euskarazko *ETB1* eta *Euskadi Irratia* eta erdarazko *Radio Euskadi* eta *Radio Vitoria* sortu zituen; 1986an, gaztelaniazko *ETB2* telebista-kanalaren inaugurazioa izan zen; 1990ean euskarazko *Euskadi Gaztea* gazteentzako formula-irratia abiatu zuen.

Beraz, lurreko transmisio-bidea erabiliz, telebista-kanal bat eta irrati-kanal bi ditu euskaraz. 1997an satellite bidezko emisioak hasi ziren, egun bi kanaletan banatuta daudenak: *Canal Vasco*, Ameriketan hartzen dena eta kablez ere banatua (albistegi berezia du, berremisio konbentzionalaz gainera), eta *ETB sat*, Astraren bitartez Espainia eta Europan hedatua. 2000n, EAEn, bi programa/kanal berri banatzen ditu Euskaltel kable-operadorearen bitartez: *Canal Promo* eta *Superbat*, haurrentzako. Alabaina, satellite eta kablezko kanal gehienak ez dira guztiz euskaraz. Azkez, Interneti dagokionez, Eitb.com webgunea dago.

EITBren Sorkuntza Legeak (1982) garaiko ereduetatik abiatuta erantzun nahi izan zien autonomia hasi berri bateko kultura, hizkuntzaren normalizazio eta komunikazio premiei. Egun, digitalizazioaren erronkei eta atzemano arazoei ganoraz erantzun ahal izateko, Administrazio Kontseiluak (non alderdien hamabost ordezkari eta gizar-te-erakundeen lau ordezkari dauden) “EITBren Plan Estrategikoa” onartu zuen 2000n. Horren bidez arrazoitu nahi izan ziren, besteak beste, Eusko Legebiltzarrak instalazioen digitalizazio eta eguneratzeari begira onarturiko diru-sailak: 42 milioi euro lau urteko planean. Eusko Jaurlaritzak kudeatzen du lau urteko plan hori “Euskadi Informazioaren Gizartean” garapen programaren bitartez.

4.2. Prentsa idatzi orokorra

Eduki orokorreko prentsa idatziaren alorrean *Berría* egunkaria eta eskualdeetako *Hitza* egunkariak ditugu, EKT enpresak editatuak; eta astekariaren artean *Argia*, *Zabalik* eta *Aldaketa 16*.

a.- Euskarazko Komunikazio Taldea (EKT)

2003ko otsailean *Euskaldunon Egunkaria* Espainiako epaileen aginduz itxia izan ondoren, eta herritarren erreakzio indartsua gertatuta sortu zen EKT enpresa proiektu zabalean gauzatzeko kapaz izan zen: *Berría* egunkaria ateratzea lortu zuen 2003ko ekainean eta, ondoren, eskualde-prentsaren eremuan ere indartsu sartu da, gaur egun lau eskualdetan *Hitza* egunerokoa ateratzen baitu. Eskualde horietako batzuetan herri-prentsaren pisu guztia hartu du *Hitzak*, herri-komunikabideen arloan dauden eredu-tako bat osatuz.

b.- Argia

Euskarazko aldizkarien artean ibilbiderik luzeena egin duena izanik, *Argia* astekaria ateratzen duen enpresak beste hainbat produktu ere eskaintzen ditu euskal kulturaren inguruan: Euskal Kulturaren Urtekaria, kulturaren inguruko kontsulta liburua; Egutegi-takoa, urteko egun bakoitzari buruzko informazioa dakarren almanaka; bere astekariak jorratzen dituen gaiekin lotutako liburuak; eta *Sareko Argia*, Internet bidezko hainbat zerbitzu eskaintzen dituen webgunea.

c.- Zabalik eta Aldaketa 16 aldizkariak

Aldizkari biak gaztelerazko talde mediatiko handien eskutik sortutako produktuak dira. *Zabalik* Vocento taldearen produktua da, *El Correo* eta *Diario Vasco* argitaratzen dituen taldearena. Bestalde, Grupo Zeta-n dagoen *Cambio 16* gaztelerazko astekariaren eskutik euskarazko homologoa argitaratzen hasi zen 2003an, *Aldaketa 16*.

4.3. Tokiko komunikabideak

Zabalkunde handia izan du era honetako kazetagitza euskarazko komunikabideetan azken hamarkadan. Eskualdeetan, herrietan eta hirietan eredu berriak sortzen ari dira, batzuk dagoeneko garatuta eta martxa onean daudenak, eta beste batzuk, aldiz, hastapenetan egon daitezkeenak. Goratxoago *Hitza*-ren kasua aipatu dugu, eskualde batzuetan EKTk erabili duen formula, egunkari bat zabaltzeko erronkari aurre egin diona, aurretiaz ere bazeuden esperientzia batzuetan oinarriturik. Garatu diren beste formula batzuk, aldiz, oso desberdinak dira: multimedio-taldeak sortu dira; beste batzuk zerikusi gehiago izan dezakete multizerbitzu-eredu deitu dugunarekin; eta lekuren batzuetan monomedio-kateak edo sareak ere sortu dira.

a.- Tokiko multimedia-taldeak

Hiru multimedia-talde nagusi daude Euskal Herrian: Goiena Komunikazio Zerbitzuak, Ttipi-ttapa Fundazioa eta Durangaldeko Herri Komunikabideak (DHK).

a.1.- Goiena

Goiena Komunikazio Zerbitzuen enpresa-eredua Gipuzkoako Arrasate, Bergara, Aretxabaleta, Eskoriatza, Antzuola, Oñati, Elgeta eta Arabako Aramaio aldean garatu da. Bertan, euskara sustatzearen alde diharduten elkarteek (3.000 bazkideetik gora guztira) Goiena Komunikazio Zerbitzuak izeneko kooperatiba eratu zuten 2.000ko ekainean. Eskualdeko informazio beharrei begira, kooperatiba honek *Goienkaria* astekaria sortu du, 24 orrialdekoa eta dohainik banatzen dena. Eranskin gisa, eskualdeko udalerrri bakoitzak bere orri-sorta berezia aurkezten du.

Horrez gainera, *GoITB* eskualdeko telebista kudeatzen du kooperatibak. Astean 30 orduko emisioa eskaintzen du eta 60.000 pertsonakoa da haren balizko ikusle multzoaren kopuru gorenak. Telebista-proiektu hau Euskal Herriko toki-telebista bizkorrenaren eskutik sortu zen (*Arrasate Telebista*), produkzio eta programazio egitura sendoak izanik. Irratiaren munduan Arrasate Irratia daukate. Multimediaoaren eredu horri jarraiki, komunikazio-zerbitzuen eskaintza Internetera ere zabaltzea erabaki dute.

1.415.000 euro inguruko aurrekontua izanda, Goiena Komunikazio Zerbitzuak udalen aldetik laguntza garrantzitsua jasotzen duen gizarte-ekimenaren adibide argia da. Gaur eguneko eskualde osoko enpresa hau martxan jartzeko, oso aipagarria da bertako herrietan 80ko hamarkadaren azkenetan eta 90ekoaren hasieretan sortu ziren euskara-elkarteen eginkizuna, aitzindaria AED (Arrasate Euskaldun Dezagun) izan zela. Euskara elkarte hauek izan dira herri bakoitzean bertako herri-prentsako proiektuak gauzatzen joan direnak, eta urteek aurrera egin ahala elkarrekin lan egiteko ahalmena erakutsi dutenak, era askotako oztupoak gainditu eta Debagoieneko eskualde ikuspe-

giaz lan egitera heltzeko gai izanik⁵. Enpresa honek erabilitako formula juridikoa 'bitariko kooperatiba' da. Euskara elkarteek, langileek eta udalek daukate enpresaren kontrola, lehenengoen gehiengoa izanda. 47 laguneko lan-taldea dago Goienan, kazetari, teknikari, administrari eta gainerakoak kontuan hartuta.

a.2.- Ttipi-Ttapa Fundazioa

Nafarroan herri-komunikabideen arloan dinamismorik handiena erakutsi duen taldea dugu hau, multimedia-formula jorratuz. Hain zuzen, *Ttipi-Ttapa* izan zen herri aldizkariaren aintzindari, *Arrasate Pressekin* batera 1989an sortua. Ingurune honetan banatzen da *Ttipi-Ttapa*: Bidasoa, Baztan, Malerreka, Leitzalde eta Urdazurin. Geroago, sarean agertu zen lehendabiziko euskarazko herri-aldizkaria izan zen, 1996an webgunea atera baitzuten, eta beste urrats bat eginez, 1998an *Ttipi-Ttapa Telebista* sortu zuten. Nafarroako Gobernuak interes sozialeko izendatzea lortu ondoren, Ttipi-Ttaporen izaera juridikoa fundazioa da, eta tributu araubide berezia du Nafarroako Ekonomi eta Ogasun Departamentuan⁶.

a.3.- Durangaldeko Herri Komunikabideak (DHK)

Durangaldean, Debagoienako esperientzia erreferentziatzen hartuta sortu zuten Durangaldeko Herri Komunikabideak (DHK) elkarteak, lau herritako euskara-elkarteen eskutik. Taldeak komunikabide hauek kudeatzen ditu: *Anboto* eskualdeko aldizkaria, *Anboto Irratia*, eta webgunea.

b.- Tokiko monomedia-kateak

Elkarbiltzeak dakartzan abantailez jabeturik, mota bereko komunikabide txikiek sortzen dituzten kate edo sareei buruz ari gara. Nafarroako ekimen batek badu zerikusirik horrelako ereduarekin, nahiz eta multimediorantz abiatzeko ahaleginak ere egon daitezkeen batera. Sakana, Lekunberri eta Basaburua lotzen dituzten hiru irratiren ibilbidea aipatuko dugu.

1999an biltzen hasi ondoren 2000an Sarea deitutako formula jarri zuten martxan hiru irratiren artean, bakoitzak eginiko produktuak zabaltzeko. Horrela, *Beleixe Irratia*, adibidez, lau ordutan emititzen hasi zen, goizeko 10etatik ordu bietara. Beste orduetan Iruñeko *Euskalerrria Irratiaren* programazioa emititzen dute.

Beleixe Sakanan entzuten da; *Aralar Irratia* Lekunberri, Araitz, Betelu eta Larraunen; *Esan Erran Irratia* Basaburua, Ultzama, Imotz Odieta eta inguruetan. Irrati bidez eraikitako saretik aparte, leku bakoitzean zeregin propioak dituzte. Sakanan, irratiarekin batera, *Guaixe* astekaria ateratzen dute; Basaburuan *Esan Erran* irratia eta inguru hartako udal buletinak. Nahiz eta gerora begira zeregin berriak ikusi (web-orria ateratzea, euskara zerbitzua antolatzea) horretarako, besteak beste, profesional gehiago behar da, eta oraingoz sarearen funtzionamendua hobetzea eta egokitzeko ardurekin dabilta⁷. Daukatena duin egitea eta oinarri sendoak jartzea da helbururik behinena.

4.4. Hiri eta euskalduntasun baxuko eskualdeetako euskal komunikabideak

Aurreko hedabide-eredu guztiek badute ezaugarri komun bat: Euskal Herriko eremu euskaldunenetan sortu direla; edo erdiak baino gehiago euskaldunak diren behintzat. Erdaldunagoak diren inguruetan, salbuespenen bat kenduta, orain arte ez da garatu komunikabide-eredu hain argirik. Azterketa abiatzeko, bi ingurune mota aipatuko ditugu, dauden zailtasunen adibide moduan jartzearen: alde batetik hiriak, eta bestetik eskualderik erdaldunenak.

a.- Hirieta euskal komunikabideak

Donostiako kasua kenduta -hemen euskarazko komunikabide indartsu multzoa baitago- Euskal Herriko beste hiriek euskarazko komunikabideen arloa xumeago erakusten dute, eta ez da agertzen eredu argirik. Egia da hiri guztietan

daudela euskarazko komunikabideak, batzuetan zailtasun handiz aurrera egin dutenak, eta beste batzuk baldintza hobekoetan jarduten dutenak⁸. Dena den, egoera honek hirietako euskarazko komunikabideei buruz gogoeta batzuk egitera eramango gaitu, eta horretarako Bilbo hartuko dugu abiapuntutzat.

Bilbon ekimen desberdinak sortu dira euskarazko komunikabideen arloan. Bada multizerbitzuak formularekin zerikusia duen adibide bat, Zenbat gara? Elkartea. Honen eskutik, euskaldunak batzeko eta elkarrekin harremanetan jartzeko asmoan oinarrituta, hainbat ekimen bultzatu dira. Helburu nagusia, azken batean, euskaldunak elkarrekin biltzeko inguruak sortzea da, eta garrantzi handia hartzen dute, beraz, jendea fisikoki batzeko antolatzen diren espazioek eta ekitaldiek. Horretarako, Bilbo erdi-erdian kokaturik hiriko, eta inguruetako, jende euskalduna erakartzen duen jardun multzoa du elkarreak: euskarazko klaseak; Kafe Antzokia, ekimen kultural ugariz hornitua; liburu-argitaldaria du, etab.

Guzti horrekin batera doa komunikabideetan egiten duen jarduna. Asmo orokor berberak bultzatuta, elkarreak *Bilbo Hiria Irratia* jarri zuen martxan 1999an. Eredu komertzialetatik ihes egiten duen irrati honek lau kazetari ditu gaur egun, eta 100 kolaboratzaile inguru, lanbide eta zeregin mota askotakoak. Irratia Bilbo Handia deitutako eskualde osora zuzentzen da eta, beraz, bere audientzia potentziala 150.000 euskaldun ingurukoa da.

Elkarreak webgunea ere badu, bere ekimen guztiei buruzko informazioa eskaintzen duena, eta egunero hor 600 bat lagun sartzen dira⁹.

Bilboko beste euskara elkarte eta erakundeek ere bultzatu dituzte ekimen sendoak, esaterako herri-prentsaren arloan garatu dituzten proiektuen bidez. Izan ere, Bilbon hiru aldizkari argitaratzen dira auzune desberdinetan: Deustualdean *Prest!* hilerokoa zabaltzen da; Mahatserri edo Begoñan (Santutxu, Begoña, Uribarri, Txurdinaga eta Otxarkoaga) *Berton* hilerokoa; eta Zorrotzan *Zorrotz-morrotz* lauhilerokoa¹⁰.

Bilboko euskarazko komunikabideetan beste adibide bat *Bizkaia Irratia* da. Bizkaieraz egiten den eremuetara bidaltzen du bere seinalea eta, beraz, audientziaren eremua herrialde osoa da, behintzat. Horregatik, irrati honen programazioa Bilboko hiritarrei baino gehiago Bizkaiko herri txikiagoetako audientziari zuzenduta dago.

Hala ere, Bilbon 50.000 euskaldun inguruko hiztun-multzoa dagoela aipatzen delarik, esaten da dauden euskarazko komunikabideak horrelako kopuruari dagokion garapen-mailatik urrun daudela. Baina, zera gaineratzen da, euskaldun-multzo horren ezaugarriak, herrietakoekin alderatuta, oso desberdinak direla, eta haiengana heltzeko komunikabideen estrategiak ere desberdina izan beharko duela, ziurrenik.

Hasteko, hirietako euskaldungoa oso sakabanatuta dago. Asko izan arren, zaila da non dauden jakitea eta zailagoa haiengana heltzea. Teorian, honek abantaila izan beharko luke komunikabideak garatzeko, uste izatekoa baita sakabanatuta egoteak elkarren berri edukitzeko gogo handiagoa sor dezakeela. Baina horrek ez dauka zertan horrela izan: hirietako euskaldunen komunitate lokal zentzua herrietakoena baino txikiagoa da, nahiz eta hiriko auzo batzuetan auzo nortasun sendoa egon daitekeen. Bestalde, hirian izango dira euskaldunak beraien artean beste inon baino desberdinagoak, lanbide, interes, bizi-estilo, ideologia, zaletasun eta gainerako faktoreen arabera. Horrek guztiak esan nahi du hiriko euskaldungoa oso heterogenoa dela. Nola egin hirietako askorentzat interesgarria izan daitekeen hedabidea? Zeintzuk ote dira euskaldungo horren zati handi bat lotzeko balio duten “gutxieneko izendatzaile komunak”, euskararen ezagutzatik aparte? Horrelako gaiak eta galderak planteatzen dira hirian euskarazko komunikabideak sortzeko aukerez hitz egiten denean¹¹.

b.- Euskalduntasun baxuko eskualdeetako komunikabideak

Hirietan, euskaldun multzo handia bizi izanda, hainbeste arazo azaltzen bada, zer gertatuko ote da euskaldun portzentaje baxuak azaltzen dituzten herri txikiz osaturiko inguruetan?

Hemen arazoak biderkatu egiten direla konturatzen gara. Leku askotan euskarazko hedabide bat martxan jarzea utopia hutsa da. Gainera, dauden euskaldun gehienak euskaldun berriak izango dira, seguruen batean. Zer egin daiteke horrelako egoeran?

Beharbada, beste leku batzuetarako desegoki moduan agertu diren formula batzuk, horrelako tokietan interesgarriak izan litezkeela esaten hasi beharko dugu. Hau da, agian ez da alde batera utzi behar hemen formula elebidunak martxan jartzeko aukera, adibidez. Leku euskaldunagoetan sistema honek ez dirudi lorpen handirik ekarri duenik, edo gutxienez gaur egun errezelo handiz baloratzen da horien ibilbidea, baina aztertzeo gauza izan liteke beste zonalde batzuetan.

Horrelakorik estudiatuz gero, ondo erabaki beharko litzateke nolako gaiak landu euskaraz eta nolakoak erdaraz. Zein biztanleria multzori zuzentzen zaizkion hizkuntza batean edo bestean idatzitakoak, eta abar. Agian, gazteriarri zuzendu beharko litzaizkioke, batez ere, euskarazko lanak, baina horretarako kolektibo horrentzat oso interesgarriak diren gaiak prestatu beharko lirateke.

Edozein modutan, hemen ere baliagarria izan daiteke euskarazko multizerbitzuen-eredua, dauden euskaldun gutxiak elkartzeko tresna modura.

5. Euskaraz ari diren hedabideak

Euskal Herrian, erabat euskaraz ari diren komunikabideen artean hauek dira kopuruak: hamar telebista-estazio (*ETBI* barne); 33 irrati-emisora; eta 109 medio inprimatu, denetarikoa (*Berria* egunkaria, herri-aldizkariak, informazio orokorreko eta bereziko medioak, eta abar). Gainera, zortzi “zibermedio” daude Internetez ari direnak. Guztira, beraz, euskarazko 160 komunikabide Euskal Herri osoko 800.000 euskaldunek osatutako komunitatearentzat. Ikus ditzagun atalka¹².

Ohar modura, gogoan izan behar da errealitatea etengabe aldatzen ari dela eta, ondorioz, komunikabide berriak sortzen edo desagertzen. Beraz, hurrengo orriko taulan dauden datuak 2003koak dira, ahal izan dugun neurrian 2004. urtera gaurkotuta.

5.1. Euskarazko irratia

33 irratik emititzen dute euskaraz. Gehienek egunero egiten dute (23), baina badira asteroko hainbat ere (10). Hurrengo taulan dago informazio zehatza.

Irrati hauetatik biren hedadura maila Euskal Herri osoa da: *Euskadi Irratia* eta *Euskadi Gaztea*. Badaude beste batzuk herrialdea hartzen dutenak erreferentzi moduan: *Bizkaia Irratia*, Bizkaian; *Euskalerrria Irratia*, Nafarroan; eta *Gure Irratia*, *Irulegi Irratia* eta *Xiberoko Botza* Iparraldean, bertako lau irratietatik hiru, beraz.

Tokiko irrati txikien garapen natural moduan, eta 90eko hamarkadan eginiko lan bateratuaren ostean zenbait irratiren artean *Arrosa* Ekoizpen Zentroa sortu zen. Hogeita hamar irrati¹³ gaur egun elkartean -asko elebidunak, batzuk erdarazko elebakarrak-, eta zazpi herrialdeetan lan egiten dute .

Julian Belokiren hitzetan¹⁴, Hego Euskal Herrian 421.000 euskaldunek entzuten dute egunero irratia, emisora guztiak barne. Kopuru horretatik, 132.000 entzule biltzen dituzte euskarazko irratiek, irrati-entzule euskaldunen %31, beraz. Beste %69k gaztelaniazko irratia sintonizatzen dituzte. Euskarazko emisoren kopuruei dagokienez, 71.000 entzule ditu *Euskadi Irratiak*, eta 61.000k *Euskadi Gazteak*¹⁵. Hortik aparte euskarazko beste irrati garrantzitsuenek (*Arrate Irratia*, Segura, Bizkaia, Loiola eta Donostiako *Herri Irratiak*, *Xorroxin*, *Euskalerrria*, *Gure Irra-*

3. Taula: Euskarazko irratiak herrialdeka, 2003an

Irratia	Emisio tokia	Audientzia (estimazioa)
ARABA		
<i>Hala bedi</i>	Gasteiz, Kanpezu, Laudio/Amurrio, Errioxa, Sakana	20.000
BIZKAIA		
<i>Anboto Irratia</i>	Elorrio [Durangaldea]	288
<i>Arrakala Irratia</i>	Lekeitio	200
<i>Bilbo Hiria Irratia</i>	Bilbo	2.000
<i>Bizkaia Irratia</i>	Bilbo	25.000
<i>Busturia Irratia</i>	Busturia	200
<i>Arreta Irratia</i>	Ermua	
<i>Itsuki</i>	Bermeo	1.000
<i>Radixu</i>	Ondarroa	1.282
<i>Txantxibiri</i>	Elorrio	361
GIPUZKOA		
<i>Arrasate Irratia</i>	Arrasate	6.000
<i>Arrate Irratia</i>	Eibar	17.000
<i>Euskadi Gaztea</i>	Donostia	65.000
<i>Euskadi Irratia</i>	Donostia	80.000
<i>Matrailako</i>	Eibar	-
<i>Molotof Irratia</i>	Hernani	2.000
<i>Oiartzun Irratia</i>	Oiartzun	3.500
<i>Oñati Irratia</i>	Oñati	3.000
<i>Segura Irratia</i>	Segura	-
<i>Ttan Ttakun</i>	Egia/Donostia	150
<i>Txolarre</i>	Villabona-Zizurkil	2.118
<i>Zazpiki</i>	Elgoibar	2.750
<i>Zirika</i>	Idiazabal	99
NAFARROA		
<i>Aralar Irratia</i>	Lekunberri	7.000
<i>Beleixe Irratia</i>	Etxarri Aranatz	152
<i>Esan-Erran Irratia</i>	Jauntsarats	88
<i>Euskalerrria Irratia</i>	Iruñea	15.000
<i>Karrape Irratia</i>	Leitza	147
<i>Irati Irratia</i>	Aribe	-
<i>Xorroxin</i>	Elizondo	572
IPARRALDEA		
<i>Antxeta</i>	Hendaia	15.000
<i>Gure Irratia</i>	Baiona	12.000
<i>Irulegi Irratia</i>	Donibane Garazi	7.000
<i>Xiberoko Botza</i>	Maule-Lexarre	4.000

tia, Xiberoko Botza, Irulegiko Irratia, eta euskarari lehentasuna ematen dioten beste irrati txiki batzuk) 35.000 entzule inguru biltzen dituzte. Dena den, gure iritzian, azken multzoan aipatu ditugun irratiak datuak, eskualde eta herrialdeetakoena, ez dira oso fidagarriak, eta baliteke entzuleria handiagoa izatea.

5.2. Euskarazko prentsa idatzia

Euskarazko egunkari, aldizkari eta prentsa inprimatu mota guztiak sartuta, ehun goiburu edo mantxeta baino gehiago dira. Ondoko taulan, adibidez, 109 medio bildu ditugu: lau informazio orokorrekoak (egunkari bat eta hiru aldizkari); 31 aldizkari espezializatuak; eta 74 herri-prentsa alorrean sar daitezkeen egunkari eta aldizkariak. Horien artean, 34 aldizkari Topagunea Euskara Elkartearen Federazioan integratuta daude. Herrialdekako banaketa: Gipuzkoaren erabateko nagusitasuna azaltzen da, erdiak baino gehiago (62 medio) herrialde horretan argitaratzen baitira; ondoren Bizkaia dator, 29 argitarapenekin; urrunago Nafarroa 9 komunikabide inprimaturekin; eta Araba eta Iparraldearen kopuruak oso txikiak dira, ia anekdotikoa, launa baitituzte. Arabako lau medioak Jaurlaritzaren erakundeek argitaratzen dituzte, eta Iparraldeko lautik bi haur-aldizkariak dira, eta beste bat literatur aldizkaria.

Kopuru absolutuez gain, interesgarria da banakuntza ehunekoaren bitartez ere ematea. Horren arabera, euskarazko komunikabide inprimatuen %57 Gipuzkoan editatzen dira; %27, Bizkaian; %8, Nafarroan; %4, Araban; eta beste %4, Iparraldean (ikus beherago euskarazko medio guztien portzentajeak herrialdeka, ez inprimatuena soilik).

5.3. Tokian tokiko komunikabide inprimatuen tirada eta kopurua, 1991-2003

Orokorrean begirata, tokiko prentsa idatziak gorakada nabarmena izan du azken hamarkadan. Hurrengo bi taulatan medioen kopuruaren eta tiradaren bilakaera ikusten dira, hiru urte desberdinen arteko alderaketa eginez (nahiz

3. Taula: Euskarazko aldizkariak eta prentsa herrialdeka, 2003 edo 2004an

Prentsa	Mota	Maiztasuna	Lekua	Botaldia
ARABA				
<i>Administrazioa euskaraz</i>	Espezializatua	Beste	Gasteiz	6.650
<i>Geu</i>	Tokian tokikoa	Hilero	Gasteiz	2.500
<i>Habe</i>	Espezializatua	Beste	Gasteiz	-
<i>Txirritola</i>	Tokian tokikoa	Astero	Aramaio	7.457
<i>Zutabe</i>	Espezializatua	-	Gasteiz	-
BIZKAIA				
<i>Aikor!</i>	Tokian tokikoa	Hilero	Txorierra	4.750
<i>Aizu!</i>	Espezializatua	Hilero	Bilbo	13.500
<i>Akatz</i>	Tokian tokikoa	Hamabost	Bermeo	2.300
<i>Anboto</i>	Tokian tokikoa	Astero	Durango	8.000
<i>Arranondo</i>	Tokian tokikoa	Hilero	Ondarroa	3.500
<i>Artandape</i>	Tokian tokikoa	Hilero	Arrigorriaga	5.000
<i>Asteon</i> ³	Espezializatua	Astero	Abadiño	60.000
<i>Begitu</i>	Tokian tokikoa	Hilero	Arratia	4.500
<i>Berrietan blai</i>	Tokian tokikoa	Hilero	Bermeo	6.000
<i>Berton</i>	Tokian tokikoa	Hilero	Bilbo	1.200

Prentsa	Mota	Maiztasuna	Lekua	Botaldia
<i>Bolo bolo</i>	Tokian tokikoa	Hiruhilero	Ondarroa	1.000
<i>Drogetenitturri</i>	Tokian tokikoa	Hilero	Ermua	1.600
<i>El social</i>	Tokian tokikoa	Hilero	Basauri	-
<i>Euskaltzale</i>	Espezializatua	-	Bilbo	-
<i>Euskarri</i>	Tokian tokikoa	Beste	Barakaldo	2.000
<i>Euskera</i>	Espezializatua	-	Bilbo	-
<i>Karmel</i>	Espezializatua	-	Zornotza	-
<i>Kili Kili</i>	Espezializatua	-	Bilbo	-
<i>Lea Artibai/Mutrikuko Hitza</i>	Tokian tokikoa	Egunero	Lea Artibai eta Mutriku	5.500
<i>Litterae Vasconicae</i>	Espezializatua	-	Bilbo	
<i>Nontzebarri</i>	Tokian tokikoa	Bihilero	Mungia	1.000
<i>Prest!</i>	Tokian tokikoa	Hilero	Bilbo (Deustualdea)	2.000
<i>Txirritxola</i>	Tokian tokikoa	Hiruhilero	Bakio	800
<i>UK</i>	Tokian tokikoa	Hilero	Getxo	3.500
<i>Uztaro</i>	Espezializatua	-	Bilbo	-
<i>Zer. Bizkaitarrai bizkaieraz</i>	Espezializatua	-	Bilbo	-
<i>Zer diño</i>	Tokian tokikoa	Hilero	Orozko	750
<i>Zeutzat</i>	Tokian tokikoa	Hilero	Mendexa	100
<i>Zorrotz-morrotz</i>	Tokian tokikoa	Lauhilero	Bilbo (Zorrotza)	1.000
GIPUZKOA				
<i>Aiurri</i>	Tokian tokikoa	Hamabost	Andoain	1.800
<i>Aldaketa 16</i>	Orokorra	-	Donostia	7.000
<i>Aretxagazeta</i>	Tokian tokikoa	Astero	Aretxabaleta	2.415
<i>Argia</i>	Orokorra	Astero	Lasarte	11.000
<i>Arrasate Press</i>	Tokian tokikoa	Astero	Arrasate/Aramaio	7.457
<i>Artzape</i>	Tokian tokikoa	Hilero	Getaria	950
<i>Azpeitian zer</i>	Tokian tokikoa	Hilero	Azpeitia	3.500
<i>Baleike</i>	Tokian tokikoa	Hilero	Zumaia	2.300
<i>Barren</i>	Tokian tokikoa	Astero	Elgoibar	4.000
<i>Berria</i>	Orokorra	Egunero	Andoain	21.000
<i>Berrigara</i>	Tokian tokikoa	Astero	Bergara	5.965
<i>Berriketan</i>	Tokian tokikoa	Hilero	Deba	500
<i>Bertsolari</i>	Espezializatua	-	Donostia	1.300
<i>Branka</i>	Tokian tokikoa	Hilero	Pasaia	2.500
<i>Danbolin</i>	Tokian tokikoa	Hilero	Zestoa	1.300
<i>Elhuyar</i>	Espezializatua	Hilero	Lasarte	2.200
<i>Ene bada</i>	Tokian tokikoa	Astero	Legazpia	1.000
<i>Entzun</i>	Espezializatua	-	Hernani	-
<i>Eta kitto!</i>	Tokian tokikoa	Astero	Eibar	7.300
<i>Eup!</i>	Tokian tokikoa	Bihilero	Ezkio-Itsasondo	200

Prentsa	Mota	Maiztasuna	Lekua	Botaldia
<i>Euskaltzaleen kazeta</i>	Espezializatua	-	Donostia	-
<i>Galtzaundi</i>	Tokian tokikoa	Hamabost	Tolosa	5.500
<i>Gaztetxulo</i>	Tokian tokikoa	-	Donostia	10.000
<i>Geurean lanean ere euskaraz</i>	Espezializatua	-	Arrasate	-
<i>Goibekokale</i>	Tokian tokikoa	Astero	Elgeta	650
<i>Goienkaria</i>	Tokian tokikoa	Astean bi	Debagoiena	18.000
<i>Goierritarra</i>	Tokian tokikoa	Hamabost	Ordizia	7.300
<i>Hegats</i>	Espezializatua	-	Donostia	-
<i>Hernaniko Kronika</i>	Tokian tokikoa	Egunero	Hernani	3.200
<i>Hik hasi</i>	Espezializatua	-	Donostia	-
<i>Hondarribia</i>	Tokian tokikoa	Hilero	Hondarribia	1.200
<i>Ikastola aldizkaria</i>	Espezializatua	-	Donostia	36.500
<i>Ipurbeltz</i>	Espezializatua	-	Donostia	-
<i>Irunero</i>	Tokian tokikoa	Hilero	Irun	3.500
<i>Irutxulo</i>	Tokian tokikoa	Astero	Donostia	5.000
<i>Jakin</i>	Espezializatua	Lauhilero	Donostia	-
<i>Kalaputxi</i>	Tokian tokikoa	Hilero	Mutriku	1.700
<i>Kantilape</i>	Tokian tokikoa	Lauhilero	Itsasondo	250
<i>Karkara</i>	Tokian tokikoa	Hamabost	Orio	2.700
<i>Kontuola</i>	Tokian tokikoa	Astero	Antzuola	5.965
<i>Kontzejupetik</i>	Tokian tokikoa	Hilero	Oñati	3.800
<i>Lau haizetara</i>	Tokian tokikoa	Hilero	Errenteria	3.500
<i>Lokotxa</i>	Tokian tokikoa	-	Donostia-Zu	500
<i>Maxixatzen</i>	Tokian tokikoa	Astero	Azkoitia	1.800
<i>Noaua!</i>	Tokian tokikoa	Hamabost	Usurbil	2.600
<i>Oarsoaldeko Hitza</i>	Tokian tokikoa	Egunero	Oarsoaldea	5.000
<i>Oiartzun</i>	Tokian tokikoa	Hiruhilero	Oiartzun	3.000
<i>Orratz!</i>	Tokian tokikoa	Hilero	Lezo	2.000
<i>Ostiela</i>	Espezializatua	-	Ordizia	-
<i>Otamotz</i>	Tokian tokikoa	Hilero	Urretxu	2.000
<i>Pil-pilean</i>	Tokian tokikoa	Hamabost	Soraluze	1.850
<i>Saski-Naski</i>	Espezializatua	-	Donostia	-
<i>Tolosaldeko Hitza</i>	Tokian tokikoa	Egunero	Tolosaldea	7.500
<i>Txaparro</i>	Tokian tokikoa	Hamabost	Zarautz	9.500
<i>Senez</i>	Espezializatua	-	Donostia	-
<i>Txintzarri</i>	Tokian tokikoa	Astean bi	Lasarte	4.500
<i>Unesco albistaria</i>	Espezializatua	-	Donostia	-
<i>Urlatik</i>	Tokian tokikoa	Hilero	Gatzaga	600
<i>Urola kostako Hitza</i>	Tokian tokikoa	Egunero	Urola kosta	10.000
<i>Uztarría</i>	Tokian tokikoa	Hilero	Azpeitia	1.800

Prentsa	Mota	Maiztasuna	Lekua	Botaldia
<i>Zabalik</i>	Orokorra	Astero	Donostia	-
<i>Ze barri?</i>	Tokian tokikoa	Hilero	Eskoriatza	2.415
NAFARROA				
<i>Aiaupenarik</i>	Tokian tokikoa	Beste	Lakuntza	400
<i>Axular</i>	Tokian tokikoa	Hiruhilero	Burlata	2.500
<i>Guaixe</i>	Tokian tokikoa	Astero	Sakana	4.500
<i>Maliop</i>	Tokian tokikoa	Hilero	Araitz	1.300
<i>Murugarren</i>	Tokian tokikoa	Hiruhilero	Gares	250
<i>Nabarra</i>	Espezializatua	-	Iruñea	-
<i>Napartheid</i>	Espezializatua	-	Iruñea	-
<i>Pulunpe</i>	Tokian tokikoa	Hiruhilero	Laraintza eskualdea	1.200
<i>Ttupi-Ttapa</i>	Tokian tokikoa	Hamabost	Bera	7.100
IPARRALDEA				
<i>Maiatz</i>	Espezializatua	Hiruhilero	-	-
<i>Nanai</i>	Espezializatua	Hilero	-	-
<i>Pika</i>	Espezializatua	Hilero	-	-
<i>Herria</i>	Tokian tokikoa	Astero	Baiona	3.000

eta ez diren herri-aldizkari guztien datuak biltzen). Ondorioa argia da: argitalpen-maiztasun handiko herri-medioak (egunkariak eta astekariak, batez ere) ugaldtu egin dira kopuruaren aldetik eta, halaber, handitu egin dute alealdi edo tirada osoa.

a.- Tokiko komunikabide inprimatuen tirada edo alealdia

Tokiko egunkarien tirada 20.700 alekoa zen 2003an. Aurreko bi epeetako alderaketa zuzenik ezin da egin. Astekarien tiradaren igoera izan da nabarmenena seguruenik, 1996tik 2003ra bikoiztu baino gehiago egin baitu alealdia: 35.650 ale 1996an eta 74.530 ale 2003an. Hamabostekarien tirada ere asko igo da, 1996an 22.500 ale argitaratzen baitziren eta 2003an 40.000. Hilabetekarien alealdia mantendu da berrogeita hamar milaren inguruan.

Azkenik, “besteak” izeneko kategorian, non maiztasun txikiagoko kazetak dauden, tiradaren kopurua gutxitu egin da. Beherakada honen kausa, seguruenik, maiztasun honetako medioen urritzean datza, bai desagertu direlako edo bai maiztasun handiagoko kategoriara igaro direlako.

b.- Tokiko komunikabide inprimatuen kopurua

Tokiko komunikabide inprimatuen kopurua ere franko igo da azken hamar urteotan, batez ere aldikotasun edo periodizitate ugaria duten medioetan (egunkariak, astekariak). Aldiz, maiztasun txikiagoa duten kazeten kopuruak moteleranzko joera du (hamaboskariak, hilabetekariak). 2003an lau herri-egunkari daude, gertakari berria euskal prentsan. Herri-astekarien kopurua igotzen joan da urtero. 1991n lau astekari zeuden, 1996an 8 eta 2003an 12. Beraz, sektore hau nahiko sendo agertzen da. Tokiko kazeta hamaboskarien artean ere igoera izan da aztertutako hiru urteetan, baina astekariena baino apalagoa. 1996an bost hamaboskari editatzen ziren, 1996an sei eta 2003an bederatzia. Badirudi sektore hau moteltzen doala. Hilabetekarien artean ere moteldura ikusten da, zeren 2003an hogeita hiru goiburua edo mantxeta ziren eta 2002an hogeita bi. “Besteak” izeneko kazeten artean beherakada hasi da eta 1991n hamahiru medio baziren, 2003an hamar dira.

Esan bezala, beste hainbat egitura-arazo alde batera utzita, eta argitalpen-maiztasunari eta medio-kopuruari soilik begiraturaz, aldikotasun handiko herri-hedabide inprimatuak garatzen ari dira.

5.4. Euskarazko telebistak

“Euskarazko telebista” definitzeko, irizpide modura emisio-orduen erditik gora euskarazkoa izatea jarrita, bederatzi dira egun geure artean euskaraz aritzen diren gertuko telebistak¹⁶. Bizkaian bat: *Urdaibai TB*; Gipuzkoan sei¹⁷: *GoiTB*, *Kaito TB*, *Oarso TB*, *Telesko*, *Urnieta TB* eta *Zarauzko TB*; eta Nafarroan beste bi: *Tipi-Ttapa TB* eta *Xaloa TB*. Haez gain, Euskal Herri osoan zabaltzen den *ETB1* dago (gaur egun, Nafarroan seinalea eramateko arazoak dituen arren).

Aipatu ditugun bederatzi kanal horiez gain, badira beste hiru sailkapenetik hurbil daudenak, baina ez bertan bete-betean: *Zarauzko Jaitxiki TB*, Aldudeko *Kanaldude* eta Lazkaoko *Goierrri TB*. *Jaitxiki TB*ren kasuan, 1992an sortu zenetik (emanaldiak maiz eten dituen arren) erruz erabili izan ditu kanpo-produkzioako programak eta horrek emanaldien erditik behera jarri du euskararen presentzia, %41, lean hain zuzen; hala ere, bere izaera bereziaren baitan mantentzen ditu programazio propioa eraikitzeke autonomia eta bere eskaintza Zarautzera mugatzea.

Kanaldude telebistari dagokionez, Frantziako Estatuko legepean aritu beharrak -telebistagintza lokalak emanaldi iraunkorrek egin ahal izateko oso baldintza zorrotzak bete behar dituelako- noizbehinkakoa du bere emisio jarduna. “Aldudetarrak” elkarteak bultzatzen duen kanalak, aurretik bideo-zinten bidez ere zabaldu izan du produktua, eta azken emanaldia 2002ko neguan burutu zuen. Euskara du komunikazio tresna eta bere emisio-eremuan kokatzen diren herrietan gertatutakoan aipamenez osatzen dute emanaldia.

Azkenik, izen bereko gipuzkoar eskualde osora zabaltzeko egitasmoa duen *Goierrri TB* aipatuko dugu. Aurki emititzen hastekotan den gertuko kanal hau euskaraz arituko da.

5.5. Internet eta euskara

Datu orokor batek dio euskara 40. hizkuntzarik erabiliena dela Interneten¹⁸. 2002ko urte hasieran 3.000 webgune inguru zeuden euskaraz, batzuetan euskara hutsez, baina gehienetan beste hizkuntzaren batekin, edo batzuekin. Askotan, Administrazioa edo hainbat erakunde publiko zein pribatuk ateratako webguneak ziren eta horietan hizkuntza aukeratzeko posibilitatea ematen zen. Dena den, hona ekarriko ditugu lortutako datu orokor batzuk: %29 webgune euskara hutsez zeuden; %71 beste hizkuntzekin batera; eta %5 euskaraz eta ingelesez azaltzen ziren¹⁹. Seguru asko, gaur egun ere ez dira balio horiek gehiegi aldatu.

4. Taula: Euskarazko telebista lokalak herrialdeka

Herrialdea	Telebista	Emisio tokia
Bizkaia	<i>Urdaibai Telebista</i>	Gernika
Gipuzkoa	<i>GoiTB</i>	Arrasate
Gipuzkoa	<i>Kaito TB</i>	Azpeitia
Gipuzkoa	<i>Oarso TB</i>	Lezo
Gipuzkoa	<i>Telesko</i>	Eskoriatza
Gipuzkoa	<i>Urnieta TB</i>	Urnieta
Gipuzkoa	<i>Zarauzko TB</i>	Zarautz
Nafarroa	<i>Tipi-Ttapa TB</i>	Bera
Nafarroa	<i>Xaloa TB</i>	Elizondo

Herrialdeka honela banatzen ziren: webgune guztien %40 Gipuzkoan eginak zeuden, eta horietatik %40 euskara hutsez. Gipuzkoa da, hortaz, euskara eta beste hizkuntza bat edo euskara hutsez orri gehien egiten duen herrialdea. Ondoren, oso urrun, Bizkaia zetorren, webguneen %12rekin, eta horietatik lautik bat zegoen euskara hutsean. Araba eta Iparraldearen produkzioa ia ezereza zen, %2 eta %1 soilik, hurrenez hurren. Nafarroak euskal ziberguneen %7 zeuzkan, eta horietatik ia hirutik bat euskara hutsean.

Aipagarria da erdi edo oso-osorik euskaraz azaltzen ziren webguneen %31 Euskal Autonomia Erkidego mailako Erakundeek ateratakoak zirela (Eusko Jaurlaritza, diputazioak, EHU, etab.). Euskara hutsez, horietatik hamarretik bat pasatxo zegoen.

Euskarazko ziber-hedabideak

Euskarazko hainbat komunikabide tradizionalak (irradi, telebista, prentsa idatzia) Interneteko bertsioa ere jartzen dute sarean, baina badira bakarrean edo multimedio-enpresa baten parte modura Internetez soilik jarduten duten euskal ziber-hedabideak. Hauek bildu ditugu: *Sareko Argia*, Nontzeberri.com, Sarean Irratia-Irratia.com, *Bizkaie!* (*Bizkaia irratia*), *Hamaika ikusteko*, Sustatu.com (Goiena), Erabili.com (Azpeitiko euskararen patronatoa) eta Euskaraz.tv (www.euskaraz.tv).

Dena den, uste dugu gogoeta egin beharra dagoela ziber-hedabideen inguruko kontzeptualizazioan eta sailkapenean. Izan ere, gutxienez, hiru kategoria mota bereiz baikenitzake:

- Medio tradizional baten ziber-bertsioa: webgune honetan komunikabide tradizionalaren egokitzapen bat soilik egiten da. Adibidez, egunkari edo aldizkari baten ziber-komunikabidea izan daiteke, paperezkoaren berdina edo oso antzekoa edukietan (*Berria* egunkariarena, kasurako). Irrati batzuek ere eredu honetara jotzen dute.
- Multimedia-talde bateko ziber-hedabidea: kasu honetan, multimedia-talde batean egonik ere, ziber-medioa ez da komunikabide tradizional nagusiaren bertsioa soilik, baizik bere nortasun propioa du, bere edukia, bilakaera eta jarduna. Adibidez, hedabide nagusi modura telebista-kate bat daukan multimedioan, bere ziber-hedabideak albiste idatziak, bideoak, eta bestelako hainbat informazio paratzen ditu sarean. Euskarazko ziber-medio franko kategoria honetan sartzen dira (*Sareko Argia*, kasurako).
- Soilik ziber-hedabidea: kategoria honetan sartzen ditugu Interneten soilik jarduten duten ziber-hedabideak, bestelako medio tradizional edo multimedia-talde bateko parte izan gabe. Euskaraz ez dira asko mota honetako ziber-medioak, baina badira batzuk (Nontzeberri.com, kasurako).

6.- Euskarazko komunikabideen pisu erlatiboa

Iruditzen zaigu, txosten honetako gaiaren inguruan Euskal Herrian egin izan diren beste azterketa batzuk deskribapen soilera mugatzen direla gehienbat eta alderaketa-mailak falta izaten zaizkiela. Horregatik, epigrafe honetan, euskarazko medioek bi esparru geografikotan duten pisu erlatiboa neurtuko dugu; alegia, Euskal Herriko herrialdeetako euskaldun portzentajeekin alderatuz, batetik, eta Europako Batasuneko hizkuntza gutxituetako hedabideekin alderatuz, bestetik.

6.1. Euskal komunikabideen pisu erlatiboa Euskal Herriko herrialdeetako euskaldun portzentajeekiko

Maiz, euskarazko komunikabideez berba egitean, ez dugu kontuan hartzen nola banatzen diren herrialdeka; parametro hori baliagarria izan baitaiteke herrialde batek euskarazko komunikabidegintzan erakusten duen kemena neurtzeko. Alabaina, datu absolutuak deus gutxi balio du, herrialde bakoitzaren euskaltasun portzentajearekin alderatzen ez badugu. Horregatik, hurrengo taulan eta grafikoan, herrialde bakoitzaren bi parametro adierazten ditugu:

euskarazko komunikabideen eta euskaldungoaren portzentajeak Euskal Herriko osoekiko. Ehuneko balio horien birtartez jakin dezakegu probintzia bakoitzaren pisu erlatiboa bi parametroetan.

Datuek Gipuzkoak euskarazko jardanean duen zentralitate erabatekoa berresten dute: euskaldunen %43 bizi izanda, bertan ekoizten dira Euskal Herriko komunikabide guztien erdiak baino gehiago (%54). Horrek esan nahi du hamaika puntuko pisu erlatibo positiboa duela. Hedabideen artean daude, gainera, *Euskadi Irratia*, *Berria* egunkaria, eta *ETB* en produkzio-zentroetako bat.

Bizkaian, euskaldun guztien %32 bizi izanda, bere komunikabideetan duen portzentajea 6 puntu baxuagoa da (%26); beraz, pisu erlatibo negatiboa dauka. Bizkaia oraindik urrun dago Gipuzkoak komunikabide lokaletan erakusten duen dinamikatik, eta azken urteetan hainbat ekimen burutu den arren, Bilbo Handia eskualdea da erronka handienak planteatzen dituen ingurunea.

Nafarroak, aldiz, pisu erlatibo positiboa du, komunikabide kopuruak (%12) gailendu egiten baitu bertako euskaldunen portzentajea (%8,2). Hau kontuan hartzeko datua da, ikusita nafar agintariak euskararekin egiten ari diren politika. Oztopo administratiboak oso handiak diren arren, nafarren herri-ekimena indartsua da. Euskal irratiei dagokienez, dinamismo berezia erakutsi dute, eta zonalde euskaldunetan eta mistoan daude kokatuta gehienak, eta tokian tokiko herri-taldeen edo kulturaguneek bultzatuta, enpresa moduan lehiatzeko gaitasuna frogatu dute, nahiz eta batzuk, *-Euskalerria Irratia*, adibidez- oraindik legalitatea lortu ezinik dabilzan.

Egoera askoz ere ahulagoa adierazten dute Arabak eta Iparraldeak. Alabaina, bietan kezkarriena Arabarena da seguru asko, Iparraldean baino euskarazko komunikabide gutxiago produzitzen baita. Euskal Herriko euskaldunen %8 bizi da “zazpigarren [eta azken] alaba” deitutako probintzian, baina euskarazko komunikabide guztien %3 soilik editatzen/argitaratzen da bertan; beraz, bost puntuko pisu erlatibo negatiboa dauka, franko nabarmena. Egia da, dena den, Aramaioren moduko herri bati dagokion euskalgintza jarduna ez dela islatzen zifra hauetan, herri horretako produkzioa Gipuzkoako Debagoienako herriei batera (Goiena proiektua) gauzatzen baita, edo *Bizkaia Irratia* ere herri horretan frekuentzia bat izan arren ez baitu bertatik emititzen. Dena den, Aramaioren ekarpenak ez luke aldatuko esandako pisu erlatiboa.

Gasteizek hiri moduan euskarazko hedabideak garatzeko planteatzen dituen zailtasunetatik aparte -Bilboren antzekoak gauza askotan-, eskualdeetan formula berriak sortu beharra egon liteke, zonalde euskaldunagoetan erai-ki direnekin konparatuta oso desberdinak izango direnak, seguruen batean. Multizerbitzuen-ereduak merezi luke saioaren bat inguru horietan.

Iparraldearen kasuan, euskaldun guztien %8,8 bizi dira eta euskarazko komunikabide guztien %5 ekoizten dira alderdi horretan. 38 puntuko erlazio negatibo hau aitorturik, esan behar da Ipar Euskal Herrian irratigintzaren garrantzia handiagoa izan dela beste komunikabideekin konparatuta. 1980ko hamarkadan sorturiko euskal irratiek aurrera jarraitzea lortzeaz gain, egitura tekniko eta administratibo sendoak izatera heldu dira, baita langileria finkatzera ere. Herrialde horretan, berriz, prentsa-arloan eta Interneten ez dago ia euskal ekoizpenik, eta Hego Euskal Herrian sortzen diren komunikabideak kontsumitzera behartuta daude hango euskaldunak. Ezaugarri horiek eragina dute prentsa-kontsumoaren ohituretan, eta Hego Euskal Herriko irratien harrera anekdotikoa bada ere, idatzizko euskal hedabideetan Ipar Euskal Herriko erreferentzia kontuan hartu behar dute hegoaldekoek hango irakurleria dela-eta.

6.2. Euskal medioen pisu erlatiboa Europako Batasuneko beste hizkuntza gutxituetako medioen aurrean

Epigrafe honetan Europako Batasuneko hizkuntza gutxituen esparrua hartuko dugu kontuan eta mapa horretan euskarazko hedabideen pisu erlatiboa neurtuko. Lehen unetik esan behar dugu “komunitate linguistiko/politiko osora hedatzen diren eduki orokorreko komunikabideak ditugula aztergai”; alegia, hedadura geografiko orokorra eta dene-

tariko informazioa/edukia ematen duten egunkariak, astekariak, irratiak eta telebistak, horiek baitira komunitate linguistiko mailan iritzi publiko propioa sortzen laguntzen duten tresna nagusienetakoak²⁰. Beraz, analisi honetan ez ditugu sartu tokiko hedabideak.

Halaber, taulako datuen interpretazio zuzena egiteko²¹, gogoan izan behar da prentsa idatziaren kasuan, guztiz hizkuntza gutxituan argitaratzen diren egunkariak eta astekariak soilik hartu ditugula kontuan, eta ez neurri batean edo bestean elebidun diren medio inprimatuak. Alabaina, irrati eta telebistari dagokienez, irizpide hori lasaitu eta hizkuntza gutxituan programazio partziala daukaten kanalak ere sartu ditugu, 24 orduko programazioari “1” balioa ezarri eta, horren arabera, programazio txikiagoei frakzio hamartarrak kalkulatu. Irizpide desberdin hauek erabiltzeko arrazoiketa datza irakurleak unitate fisiko bakar modura hartzen dituela egunkaria eta astekaria, produktu espazial bezala, ikus-entzuleak irratia eta telebistaren edukia denboraren harian hartzen dituen bitartean.

Europako Batasunean hogeita bederati “hizkuntza gutxitu” inguru daudenez, EBLUL elkarteak 1999an adierazi zuen modura (European Bureau for Lesser Used Languages), guk, horien artean, egiaz gutxituak direnak hartu ditugu; hots, hurrengo hamar hizkuntzak: katalana, euskara, galiziera, irlandera (gaeilge), galesa (cymraeg), samia, korsikera, frisia, eskoziera (gaidhlig), eta bretoa. Beste hainbat ez ditugu gure ikerlanean sartu zinez hizkuntza gutxituak ez direlako, “Estatu batean hizkuntza gutxitua izanik ere, beste Estatu batean hizkuntza ofiziala delako” baizik (aleman gutxiengoa Frantzia; turkiar gutxiengoa Alemanian; eta abar). Sartu ere ez ditugu sartu lurralde gabeko hizkuntza gutxituak, zeintzuetan ijitoen gypsy/calé hizkuntza den ezagunena, komunikabide-garpen nabarmenik ez dutelako.

Aurreko argibide guztiak emanda, emaitza nagusiak honela bil ditzakegu:

- Euskaldunen pisu erlatiboa EBn: Aztertutako hamar komunitate/nazionalitate gutxituek 28,7 milioi bizilagun dituzte guztira, eta horietako 11,2 milioi lagunek (%39,0) hitz egiten dute beren komunitateko hizkuntza propioa. Euskal herritarrek 3,0 milioi dira guztira eta horietako 0,8 milioi dira euskaldunak (%27). Hortik abiatuta, euskal hiztunen pisu erlatiboa Europako Batasuneko hizkuntza gutxituetako hiztun guztien artean %7,3 da.
- Euskal komunikabide orokorren pisu erlatiboa EBn: Europako Batasuneko hizkuntza gutxituetako komunikabide orokor guztien %17,4 euskaldunak dira; hau da, sei medio guztira (egunkari bat, telebista bat, irrati bat, eta hiru astekari).
- Euskal hiztunen eta hedabideen pisu erlatiboen arteko aldea: aurreko bi emaitzak elkarrekin alderatzu ikusten dugu, Europako Batasuneko komunitate gutxituen balio orokorren aurrean, euskal komunikabideen pisu erlatiboa (%17,4) euskal hiztunen pisu erlatiboa baino handiagoa dela (%7,3), eta hamar puntu alde positibo horrek adierazten du Euskal Herriak beste europar komunitate gutxituek baino garpen erlatibo handiagoa duela komunikabideen alorrean. Izan ere, EBko komunitate gutxitu handiena eta maiz aipatua den Katalunia hartzen badugu, konturatzen gara katalan hiztunen portzentajea Europako hiztun gutxitu guztien %42,2 dela eta katalanezko komunikabideen pisu erlatiboa %40,5. Beraz, bi parametroetan oso antzeko balioak dituztenez, katalan medioen garapena nahiko orekatuta dago Europako Batasuneko hizkuntza gutxituen erreferentzia hartzen badugu.

7. Ondorioak

Gaztelaniaz edo frantsesez diharduten komunikabide indartsuen ondoan euskarazkoak oraindik xume azaldu arren, egia da baita ere gure hizkuntz komunitatea, bere neurri mugatua kontuan izanda, aintzat hartzeko moduko dinamismoz aritu dela euskarazko komunikabideak garatzeko ahaleginean.

Hasteko, eta komunikabide orokor edo zabalenei buruz hitz egiteko, gure artean Euskal Herri osora zuzentzen diren *ETBI*, *Euskadi Irratia* eta *Berrria* moduko komunikabideak izatea lorpen oso garrantzizkotzat hartu behar da

800.000 euskal hiztun inguruko komunitatea garela kontuan hartuta, eta Europako Batasuneko beste hizkuntza gutxituen komunikabideen arloa nola dagoen ikusita, aurreko taulan eta epigrafean azaldu duguna.

Hedabide orokorretatik aparte, beste maila bateko hainbat komunikabide sortzeko gai izan da euskal komunitatea, nahiz eta herrialdez herrialde diferentzia handiak dauden. Alde horretatik begiratuta, oso nabaria da Gipuzkoaren nagusitasun zabala euskarazko komunikabideak sortzeko ahalmenean. Gipuzkoako biztanleriaren %43 euskalduna da, eskualde gehienetan euskalduntasun portzentaje zabala dauka, eta tradizioz euskal kultura eta hizkuntzaren dinamikan aparteko garrantzia izan du. Horregatik, ez da harrizkoa euskarazko komunikabideen arloan ere indar handiena erakustea, guztien %54 herrialde honetan baitaude. Beste ertzean, ertz negatibo eta kezkarrian, Araba dago, Nafarroa eta Iparraldea baino okerrago euskal hedabideen sorkuntzan eta garapenean. Egiaz, euskal autonomia politikoak eta euskalgintzak porrot nabarmena egin du herrialde horretan.

Oharrak

1. 800.000 da zifra askotan aipatzen den euskal hiztunen kopuru borobila. Zentzu estuagoan, 2001eko Soziolinguistikako Inkestaren arabera Euskal Herri osoan 634.000 inguru dira elebidunak -beste hizkuntzarekin batera euskaraz ondo hitz egiteko gai direnak-. Hauei euskaraz zertxobait egiten dutenak gaineratzen bazaizkie -263.000 lagun- 897.000 nolabaiteko elebidun biltzen dira. Beste iturri batzuk: Eustat-en arabera 2001ean 656.980 elebidun zegoen EAEn (euskaldunak), eta Nafarroako Estatistika Erakundearen arabera 55.930 Nafarroan (ondo hitz egiten zutenak). Hauek Iparraldeko 2001eko Inkesta Soziolinguistikoaren datuekin bilduta (55.000 euskaldun), 767.910eko kopurua ematen du. Bestalde, *Berria* egunkariak 1. urteurreneko publizitatean (2004ko ekaina) 779.788 euskaldun aipatzen zuen.
2. 'Konpromisoa' da, adibidez Iruñeko *Euskal Herria Irratiaren* idearioan azpimarratutako hitza. Bujanda, Mikel, "*Euskal Herria Irratia*" hemen: *Tokiko Hedabideak Etorkizunera Begira*, Topagunearen III. Jardunaldiak, 2003, 84-96. or.
4. Adibidez, Galesen, publizitate hutsez finantzaturiko produktu gehiago dago. Euskal Herrian, itxura baten, izaera hori euskararen aldeko militantzia ideiarene aurka doa.
5. Epigrafe honetarako datuak hainbat iturritatik jaso dira: a) Zabaleta, Iñaki, Nicolás Xamardo, Santi Urrutia, Arantza Gutierrez eta Antxon Mendizabal (2003), *Los medios de comunicación de las lenguas minorizadas en la Unión Europea: realidad, problemática y nuevas estrategias de desarrollo* UPV-EHUko ikerketa proiektu argitaratu gabea; b) Zallo, Ramón, Patxi Azpillaga, eta Juan Carlos de Miguel (2002): *Komunikabideak hemen. Egitura mediatikoa Euskal Herrian*, Alberdania, Irun, 47. or.; eta c) beste hainbat. Arregi, Inaxio, "Goiena Komunikazio Zerbitzuak 2000-2003," hemen: *Tokiko Hedabideak Etorkizunera Begira*, o.c., 139-151. or.
6. Irigoien, Joxemanuel, "*Tipi-Titapa Telebista*, aukera eta mehatxuen arteko leian murgildua", Euskonews.com, Gaiak 157.
7. Tania Arriaga, *Esan Erran*-eko kazetariak adierazia, 2004ko ekaina.
8. Ortega, Hektor, "Hiriburuetako herri aldizkariak zertan diren," *Euskonews*, 231. zb.
9. Zenbat gara? elkarteko webgunearen kudeatzaile Jabi Zabalak adierazia, 2004ko ekaina.
10. Ortega Hektor, "Bilbo eta herri aldizkari euskaldunak: *Berton* eta *Prest!*", *Euskonews*, Gaiak 157.
11. Xabier Monasterio, *Bilbo Hiria Irratiko* esatariarekin mintzatzen, 2004ko ekaina.
12. Ikus Zabaleta, Iñaki, Nicolás Xamardo, Santi Urrutia, Arantza Gutierrez eta Antxon Mendizabal (2003), *Los medios de comunicación de las lenguas minorizadas en la Unión Europea: realidad, problemática y nuevas estrategias de desarrollo*, UPV-EHUko ikerketa proiektu argitaratu gabea.
13. Uriarte, Txema, "*Arrosa* irrati-ekoizpen zentroa," hemen: *Tokiko Hedabideak Etorkizunera Begira*, o.c. 68-81. or.
14. Beloki, Julian, "Irratia, beti tokian tokiko", hemen: *Tokiko Hedabideak Etorkizunera Begira*, o.c., 65-66 or. CIES-ek 2002an egindako ikerketa batetik hartuta daude datuak.
15. Gure ustez, beste emisora bat, *EITB Irratia* izenekoa, egiaz, ez da irrati estandar bat, zeren ordenagailuz kontrolatutako musika-emisioa baita programazio gehiena. Horretaz aparte, euskarazko eta gaztelaniazko hitzaldi grabatuak ere ematen ditu.
16. Epigrafe honetarako datuak hainbat iturritatik jaso dira: a) Zabaleta, Iñaki, Nicolás Xamardo, Santi Urrutia, Arantza Gutierrez eta Antxon Mendizabal (2003), *Los medios de comunicación de las lenguas minorizadas en la Unión Europea: realidad, problemática y nuevas estrategias de desarrollo*, UPV-EHUko ikerketa proiektu argitaratu gabea; b) Arana, Edorta, Patxi Azpillaga, Beatriz Narbaiza (2003): *Gertuko telebistagintza Euskal Herrian*, UPV-EHUko ikerketa proiektua; eta c) beste hainbat.
17. Herri-telebista berri bat sortu da aurtan, 2004an, "*Izarraitz Telebista*" Urola bailaran, Azpeitian (Aitor Zuberogoiariaren informazioa, 2004ko uztailean).
18. Arregi, Inaxio, "Goiena Komunikazio Zerbitzuak 2000-2003," hemen: *Tokiko Hedabideak Etorkizunera Begira*, o.c., 139-151. or.
19. Aurki euskarazko bilatzailearen direktoriotik abiatuta egindako kalkuluak.
20. Epigrafe honetako behin-behineko emaitzak ikerketa-talde honek aurkeztu berri ditu nazioarteko kongresu batean. Ikus Zabaleta, Iñaki, Nicolás Xamardo, Santi Urrutia, Arantza Gutierrez, eta Antxon Mendizabal. *Minority Language Media in the European Union: reality, issues and development strategies* 2nd International Conference on Communication and Mass Media, Atenas, Grezia, 2004ko maiatzaren 24-26.
21. Europako Batasuneko hizkuntza gutxituetako medioen informazioa biltzea lan zaila izan da, sakabanaketa handia dagoelako.

b. EUSKARAZKO PRODUKTUEN KONTSUMOA

Martxelo Otamendi
Berriako zuzendaria

Zer egin behar dugu euskarazko prentsarekin, barruan dihardugunok eta kanpotik ari direnek?

Ez naiz berriro hasiko Euskarazko Kioskoaren matrakarekin, antolatzaileek espresuki eskatu didatelako zer edo zer berria esateko, baina utziko didazue oinarritzko diren datu batzuk ematen.

1.- Euskarazko prentsaren panorama ez da asko aldatu azken 25 urteotan, eta aldatzekotan gehiago aldatu da kualitatiboki kuantitatiboki baino; askoz kabezera gehiago ez dauzkagulako orduan geneuzkanak baino. Ez naiz ni pertsonarik egokiena *Euskaldunon Egunkariaren*, *Berria* eta *Hitza* proiektuen jaiotzaren garrantzia azpimarratzeko, eta herri aldizkarien lan garrantzitsua eta oparoa aski frogatua dago. Baina, hori horrela izanda ere, gutxi aurreratu dugu azken bizpahiru hamarkada hauetan. Antzeko zer edo zer gertatu zaigu irratiairen eta telebistaren alorrean. *ETBI* jaio zenean, Hegoaldean, hiru katetik bat euskaraz zen; gaur egun, aitzitik, ia ehun kate topa litezke gaztelerez tematikoak kontuan hartuta. Paperera itzulita, gaztelera eta frantsesak sekulako aurrerapena egin dute komunikabide idatzietan, tematizazioaren alorrean batik bat. Katuei buruzko, bai katuei buruzko, hiru aldizkari desberdin topatu ditut gaztelera.

2.- Oso zaila da horren eskaintza murriztarekin, salmenta zifra handiak lortzea. Erosgai dauden “temak” oso gutxi eta oso normalak ez direlako: informazio orokorra, zientzia eta teknologia, kultur gogoeta, eta askoz gehiago ez. Erabat anormala da kioskoetan daukagun eskaintza. Edo beste era batera esanda, oso normala da herri ez-normal batean. Beste herri ez normalizatuetan ere antzeko eskaintza egiten delako.

Gurean eskaintzen eta kontsumitzen diren produktuek ez daukate inolako arrakastarik hizkuntzaren egoera soziologikoa normalizatuta daukaten merkatuetan. Galdetu espainiar bati kultur gogoeta aldizkari baten izenaz, eta ezin izango dizu erantzun, eta beste horrenbeste pasatuko zaizu kaleko frantziar bati zientzia eta teknologia aldizkari batez galdetzen badiozu.

Baina produktu hauek beharrezkoak dira edozein merkatutan, baita gurean ere, eta gurean sekulako merituak daukate hori egiten ari direnek. Hori garbi utzi nahi dut, inor alferrik mindu ez dadin. Baina merituak meritu, ez al genuke sektorean pentsatu beharko, eta ahal bada adostu, zein izan litezkeen hurrengo 10 urteotan komunikabide idatzien alorrean kaleratu beharreko produktu-tipo berriak? Zein da normaltasunerako bidean 10 urte barru eskaini beharko genukeena? Edo, zigor bibliko bat balitz, bizitza osarako kondenatuta gaude oraingo eskaintzarekin? Egon gaitezen, hitz egin dezagun, aztertu dezagun, baina produktu berriak garatu beharra daukagu.

3.- Baina era beran oso zaila da eskaintza zabaltzea, erosle-irakurle kaladeroa horren urria denean. Eta kaladeroa handitzea ez da euskarazko komunikabideen zeregina, hori beste batzuek egin behar dute: administrazioak, eskalategiek, eta, azken batean, herritarrek...

4.- Aurreko puntuarekin lotuta. Askoz gehiago hazi da euskaldunek osatutako merkatu potentziala erreala baino. Alegia, euskalduntze prozesuaren bidez (esan nahi dut familia transmisioa, eskola arautua eta euskaltegiak) handitu egin da azken urteotan euskaldun kopurua, hemen gauden gehienok nahiko genukeena baino mantsuago eta ahulago, baina ezin da ukatu handitu egin dela. Handitu al da proportzio berean merkatu erreala, hau da, euskarazko produktu idatziak benetan erosten dituztenen kopurua? Ez du ematen, batean eta bestean entzuten diren zifrak ikusita. Eta itxura guztiaren arabera *décalage* hori handitzen ari da, alegia ez dira neurri berean hazten merkatu potentziala eta erreala. Are zailago gertatuko da merkatu erreala portzentualki potentziala baino gehiago haztea.

5.- Aurreko kalamidade horiek gutxi balira, badirudi belaunaldi gazteak ez datozela oso prentsa zaleak. Horrela ari da gertatzen, adituek diotenez, AEBetan, eta horrek eraman ditu hango izar batzuk -*Washington Post* fama-tua tartean-, gazteentzako egunkari doako bat sortzera; ez hiriburu horretako, Washingtongo auzo marginaletako gazte ez eskolatuak erakartzeko, baizik eta unibertsitateko doazen gazteak egunerokoa irakurtzen zaletzeko. Pentsa, beraz, *Washington Post*, *Chicago Tribune* eta *Los Angeles Times* kezkatuta badaude gazteen jokabide horrekin nola egon beharko genukeen gurean. Herri honetan azken hamarkada hauetan, gizonezkoentzat batik bat, egunkari bat besapean eramatea oso normala izan da, prestigioa ere bai, seguru asko. Aire eskolatu bat. Urte batzuetan iraun du joera soziologiko horrek eta nire adinekook ondo ezagutu dugu fenomeno hori. Horregatik izango dituzte, Gipuzkoak eta Bizkaia batik bat, eguneroko prentsa irakurle kopuru altuak. Baina hori aldatzen ari da, belaunaldi gazteetan batez ere.

Eta hori oso larria da prentsaren sektorearentzat, baina larriagoa euskarazkoarentzat, belaunaldi gazte horien gain baita ukatzen jarrita esperantzak. Jakina da adin batetik gorakoak galdutzat jo beharrean gaudela. Orain arte ez badute erosi ez gurea, ez Argia ez bestelakorik, alferrik izango da horiekin sustapen diruak gastatzea. Gazteen joera honek erakusten du orain arte errelebo naturala zena, bereziki landu behar ez zena, bukatu egin dela. Eta horrek eskatuko digu joera hori zuzentzeko ahalegin ekonomikoak egitea eta produktuak pentsatzeko orduan aldaki hori kontuan hartzea.

6.- Telebista, irratia eta Internet daukagu aurrean, gero eta indar handiagoarekin. Berehalakotasunean irabazi egiten digute, futbol partida gertatu eta handik 12 ordura ari garelako informazio hori eskaintzen paperean. Zein da orduan paperaren estrategia beste hiru horiekin lehiatzeko? Agenda propioa lantzea, eta agenda komunekoak diren gaietan kalitatearekin batera lotuta dauden elementuak: espezializazioa, gogoeta, analisisa, klabeak eskaini... baina elementu hauek, nahita ez, goratu egiten dute, zaildu egiten dute produktua. Irakurleak ohera joaterako badaki zer gertatu den, guk beste era batera eman behar diogu berak badakiena.

Jar dezagun adibide bat: telebistako edo irratiko albistegi batean oso zaila da minutu erdi bakar batean AEBetako hauteskondeen gaineko informazio sendoa, jaso, analitiko eta kalitatekoa ematea. Esan diezaiedan hau errespetu guztiarekin komunikabide horietan diharduten lagunei. Baina haiek esana da, ez nik asmatua. Paperezkoak, baldin eta horretarako gaitasuna badauka, eskaini lezake informazio hori luze eta zabal, oparo, infografia eta lauki konparatiboak, puntuz puntukoak, analisi bat Columbia unibertsitateko irakasle aditu batek egin, nahi duzuen guztia. Zer egiten du horrek ordea? Eskaintza jaso, alegia zaildu, astundu... eta hori oso arriskugarria da gurea bezalako egoera soziolinguistikoa.

Erosle berriak, euskaraz irakurtzeko borondatea bai, baina zailtasunak dauzkatena ukatzeko arriskua daukagu, baldin eta ikus-entzunezkoen aurre egiteko paperezkoak konplikatu egiten badugu. Kontraesan horretan gaude harrapatuta: alde batetik, telebistari eta irratitari aurre egiteko, jaso egin behar dugu produktua, baina horrek, era berean, beldurtu egin ditzake irakurle potentzialak. Ez gara herri handi bat, 40 milioi irakurle potentzial edukita alde batetik egunkari arruntak eta bestetik egunkari jasoak eskaini ditzakeena. Ez gara eta ez gara izango. Beste era batera esanda, gure eztabaidetan askotan agertzen den galdera hona ekarrita, *Berriako* kirol sailari orriak kenduta, posible al da irakurle arrunt berriak harrapatzea *Berriarentzat*, orain arte erdarazko egunkari batean daudenak?

7.- Doako egunkariak. Duela urte batzuk anekdota hutsa zirenak, errealitate bihurtzen ari dira, merkatuan lehen mailako presentzia hartuz. Ez dakigu gure herrian nolako garapena izango duten doako egunkariak, baina Espainiako editore batentzat hau Espainia denez, gurean ere sartuko dira, sartu ez badira. Hor ere badaukagu kontrako beste elementu bat. Badirudi, doakoen borroka horretan, Espainiako talde editorial sendoek 2005ean egingo dutela benetako borroka merkatu horretan. Orain arte suediarrena eta novergiarrena izan den eremuan sartu nahi dute Prisak eta Recoletos taldeak. Eta Vocento ez da atzean geratuko.

8.- Ez gara asko eta ez daukagu indar handirik, eta, gainera, bakoitza bere aldetik dabil, nahikoa lan baduelako bereari eusten. Baina horrela segitzen dugun bitartean jai daukagu. Bildu beharra daukagu, elkartu eta gure interesak, gure beharrak, gure asmoak, gure ezinak, administrazioaren eta gizartearen aurrean erakutsi, defendatu eta haien alde lan egin. Zoritxarrez, bilduta ere kostako zaigu orain daukagun eskale status hori gainditzen, baina oso lasai ikusten ditut administrazioak gurekiko harremanetan. Administrazioan dauden euskaltzaleek seguru asko nahiko lukete diru gehiago proiektu eta produktu berriak sustatu ahal izateko. Euskaltzale horiek administrazioaren barruan indar gutxi izaten dutenez, lagun diezaiegun guk, sektoretik, beste erabakimen bat edukitzen. Sektorea osatzen ez dugun bitartean jai daukagu, eta osatuta ere larri.

Elkartea osatu beharra dago, administrazioak eta gizarteak kontuan har gaitzaten. Administrazioa oso eroso dabil apurrak banatzen, nor bere aldetik dabilen bitartean.

Doako egunerokoen ugaritzeak eduki lezakeen eragina ikuskizun da, baina mesederik ez du egingo.

c. BI ESTATU, BI KAZETARITZA EREDU

Hur Gorostiaga
Le Journal du Pays Basqueko zuzendaria

Oharra: Ez da azterketa zientifikoa honakoa. Euskal Herrian tokian tokiko berezitasun eta adibide ugari baitago. Gisa berean, konparazioa egiterakoan, anitzez hobeki ezagutzen dut Ipar Euskal Herriko hedabideen egoera Hegoaldekoena baino. Eztabaidarako zenbait ideia ematea du helburu lan honek .

1. Antolaketa

Bi estatu bi kazetaritza eredu. Topikoa dirudi, Iparralde-Hegoalde esamoldea bezala, bi mundu, arrunt ezberdinak bailiran, eta bietariko bakoitzaren barruan dena homogeneoa bailitzan. Hala izan daiteke formetan, Frantziak eta Espainiak bi kazetaritza eredu bereiz garatzen baititutze Euskal Herrian. Baina edukiz biek, ezberdinki jokatuz ere, asimilazio helburu berari erantzuten diote.

Euskal Herria bi estatutan banaturik egonik, estatu bakoitzaren egoera politikoak eta antolaketa administrati- boak badu eraginik hedabideen antolaketan.

Lehenik eta behin, Estatu bakoitzak dituen Estatu mailako medio publiko eta pribatuak ditugu. Oro har Hego Euskal Herrian medio espainolak direnak (*TVE, A3, Tele 5...* telebistak, *RNE, Ser, Cope...* irratiak, *El País, El Mundo, ABC...* egunkariak) eta Ipar Euskal Herrian frantsesak (*France 2, France 3, TF1, M6* telebistak, *France Bleu, Europe 1, RTL...* irratiak eta *Le Figaro, Le Monde, Libération...* egunkariak).

Horrez gain, zatiketa administratiboen eremura lotzen diren medioak daude telebista, irrati eta egunkari estata- len antekin batera, bi estatu bereizteaz gain Akitania, Nafarroa eta EAE bereizten dutenak (*Fr3 Aquitaine, Sud Ouest, Diario de Noticias, Diario de Navarra, Telenavarra, Telenorte, Correo, Diario Vasco...*)

Eremu administratiboa eremu naturaltzat dute medio horiek. Azken finean eremu naturalean kokatzen ez dena, atzerria dela kontsideratuko du medio bakoitzak.

Lurraldetasunarekiko kokapenak berebiziko garrantzia izanen du, linea editorialaren ardatz nagusia finkatzen baitu. Donostiako herri hedabide batek zailtasunak izanen ditu Bergarako tokiko albisteak sartzeko, Bizkaiko heda- bide batek Gipuzkoako berriak sartzeko zailtasunak izanen dituen hein berean, EAEko batek Nafarroa edo Ipa- rraldeko berrien sartzeko bezalaxe.

Medio bakoitzak eremu espezializatua du, Ipar Euskal Herriko kasuan edizio lokalekin (*France3 Euskal Herria, Sud-Ouest Pays Basque, France Bleu Pays Basque*), Hego Euskal Herrian edizio lokalarekin *El País*ek bezala, edo probintziak Vocento taldeko *Correo* Bizkaian, *DV* Gipuzkoan...

Bestetik Euskal Herriko hedabideak daude, hein handi edo tipiagoan Euskal Herriko lurraldetasuna, zazpi probintziak kontuan hartzen dituztenak: *Berria, Gara*, euskarazko EITB, erabilitako hizkuntzagatik -eta, ondorioz, publiko kopuruagatik- Hego Euskal Herrian kokatzen direnak, eta *Le Journal du Pays Basque* edo *Euskadi Irratiak* erabilitako hizkuntzagatik eta estalduragatik Ipar Euskal Herrian kokatzen direnak. Horiekin batera tokiko hedabideak daude, tokiko irrati-telebistak, herri aldizkariak, Euskal Herriko ikuspegia ukan dezaketenak baina egunerokotasunean tokiko berrietara zentratzen direnak.

Medio baten eremu naturala zein den jakiteko, eguraldiaren mapak askotan lagundu ohi du. Estatuko hedabideek izugarritzko eragina dute tokiko hedabideen eduki eta izatean ere. Zenbat aldiz ez ote naiz gelditu *ETB*ko emakizun batean nori buruz mintzatzen ari ote ziren galdezka? Hegoaldeko zenbat herritarrek ezagutzen ote dute Patxi Garat. Eta Iparraldeko zenbatek Ainhoa (bere deitura nola ote?). Gero itzuliko naiz arlo honetara.

2. Gatazka politikoaren hipermediatizazioa

Gatazka politikoak eta Estatu bakoitzak gatazkarekiko duen portaerak erabateko eragina du hedabideek Euskal Herriarekiko duten tratamenduan. Espainiako Gobernuak euskal gatazkaren kontu bizi izan dira azken 25 urteotan. Euskal Herria, Espainiako alderdien programen barnean dagoen gisan, hedabideen programetan dago. Ez dago Espainiako Estatuko albistegirik Euskal Herriaz mintzatzen ez denik. Espainiako teleikusle batek, Euskal Herriaz dena dakiela pentsa dezake. Euskal Herrian egun guziz tiroka gabiltzala pentsatzen duenik ere badago.

Alderantziz Frantzia. Frantziak azken 25 urteotan Euskal Herria ez balego bezala jokatu du. Euskal Herria ez da agertzen Frantziako mapetan, alderdien programetan, ez eta hedabideen programetan ere. Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa administratiboki existitzen ez diren bezala, albistegietan ez da existitzen. Euskal Herria karta postala da: “Pays Basque: le pays où on chante et on danse aux pieds des Pyrénées”. Frantziako hedabideek Euskal Herriaren irudi folklorikoa besterik ez dute hedatzen. Bisita turistiko antolatu gehienetan txapel gorria edo berdea eskaintzen diete agentziek Donibane Garazira bisitan heldu diren frantses turistei, tokiko ohitura balitz bezala txapel gorria nahiz berdea ezartzea...

Ikuspegi folklorikoetatik at, gatazka politikoaren alde baten ondorio larrienak agerian agertzen direnean aipatzen da soilik Euskal Herria Frantzia. Baina beti ere laburki eta albistea sakondu gabe. Azken adibide gisa, Ipar Euskal Herrian urri hastapenean izan den sarekadak, ez du lehen titulurik egin frantziar hedabideetan. Liberation bezalako “ezkerreko” egunkari batek labur bat baizik ez zion eman biharamunean.

Espainiak Euskal Herriaz dena dakiela adierazten duen gisan, Frantziak Euskal Herria ignoratzen du, ignoratu hitzaren bi zentzuetan (ez daki nolako den eta dagoenik ukatzen du). Frantziako hedabide estataletan, denak kontuan harturik, azken hogeitaz urteetan ez dira hamar emankizunetara helduko, Ipar Euskal Herriko egoera politikoaz jardun dutenak. Pariseko kazetari “handien” ahotan esaldi bat ohikoa da “le Pays Basque n'intéresse pas!”.

Frantziako medio estatalek ez dute kazetaririk Ipar Euskal Herrian. Korrespontsal batzuk dituzte, baina horiek eguneroko lanaz gain egiten dute hainbat mediotarako korrespontsal lana.

Medio bakar batek du denbora osoko kazetari bat Baionan (liberatu bat): *Agence France Press* agentziak, munduko bigarrena *Associated Press*en ondotik eta *Reuters*en parean. Teorian, Pirinio Atlantikoetako albisteak agentziari helaraztea du helburu. Baina praktikan kazetariak egin behar bakarra du: atentatu eta atxiloketen berri ema-

tea. Albistea soilik eman, zioetan sartu gabe. Euskal Herriko egoerari buruzko artikulu sakonaren egiteko, Paris eta Madrilgo Barne Ministerioekin kontrastatzen duten agentziako kazetari espezializatuek dute egiten.

3. Tokiko hedabideak

Hego Euskal Herrian dagoen jende kopuruak, historia politiko eta sozialak eta administrazio dezentralizatuak hainbat tokiko medio garatzeko aukera sortu du. Ez noa ni orain zerrendatzera bertan dagoen medio kopurua, berte edozeinek hobeki egingen lukeelako. Hala ere aipatzekoak dira irriati telebista autonomikoak, tokiko telebista eta irriatiak, egunkari aukera handia, herri aldizkari eta beste.

Hego Euskal Herriko dramarik handiena izanen da segurrik ere, Euskal Herrian sortutako Vocento bezalako taldeko egunkariak (*Correo, DV, ABC...*) justuki Euskal Herria ez bere horretan kontuan izatea, Espainiako probintzia gehiago bailiran bezala baizik. Azken finean, gaur egungo ordenaren berme garrantzitsuenetakoak dira, duten eragina kontuan izanik.

Ipar Euskal Herrian ere, medio frantsesen presentzia izugarria da. Ipar Euskal Herrian jende guti dago, nahiz eta biztanleria urtez urte emendatu. Gazteriaren urteetako odoluste historikoaren ondoren, gaur egun immigrazio izugarria dago. Ipar Euskal Herria Frantziako modako destinoa bilakatu da, Kosta urdinaren pareko. Nahiz eta Ipar Euskal Herrian sortu baino jende gehiago hiltzen den, urtero 1.000 jendez emendatzen da biztanleria, adin bateko frantsesak heldu baitira bertara bizitzera. Kanpotik heldu jende gehienak Frantziakoak diren medioak kontsumitu ohi ditu eta ez du bestelako beharrik sentitzen.

Tokiko administrazioerik ez izateak ere (ez dago diputazio modukorik probintzien existentzia gauzatzen dutenik, ez departamendurik Ipar Euskal Herria ezagutzeko), ez du medio berrien sorrera laguntzen (publizitate instituzionalik ez; tokiko estatistikaririk ez: zenbatekoa ote Ipar Euskal Herriko langabezia gaur egun ???). Enpresa handirik ere ez dago publizitate sarrerarik segurtatzeko.

Ipar Euskal Herriko medio historikoa II. Mundu Gerlaz geroztik *Sud Ouest* da (Bordelekoa), tokiko edizio bat duena (*Sud Ouest Pays Basque*), zatiketa administratiboa bermatuz, Zuberoa *Pays Basque* ediziotik kanpo uzten duena. Orain guti arte, zuberotar erdaldun batek ez zuen lapurtarren edo baxenabartarren eguneroko bizitzaren berri-rik jakiten ahal hedabideen bitartez, ez eta alderantziz ere.

Dezentralizazioaren lehen etapaz geroztik *France 3* telebista publikoak eta *France Bleu* irriati publikoak, tokiko emankizunak dituzte hiru probintziak kontuan hartzen dituztenak. Baina *France 3* katean Euskal Herriko programazioak egun osoan zehar bost minutu besterik ez ditu. Bost minutu! Baina sharearen %70 eskuratzen duena (une horretan telebista ikusten ari den kopuruaren %70).

Euskal Irriatiak 80ko hamarkadan sortu ziren (*Gure Irratia* Lapudin, *Irulegiko Irratia* Nafarroa Beherean, *Xibero-roko Botza* Zuberoan), hirurak euskaraz. Irriati asoziatiboak izanik, baliabide eskasak dituzte irriati publikoarekin lehiatzeko. Hala ere euskaldunen gehiengo batek entzuten dituela uste da. Dena dela irriati entzunenak, Parisetik sartzen diren irriati komertzialak dira. *NRJ* esaterako.

1994. urtean, *Sud Ouest*en monopolioa hautsi nahirik, *La semaine du Pays Basque* astekaria sortu zen, Ipar Euskal Herria osotasun gisa harturik. *La Semaine* euskaltzalea eta *Sud Ouest*en lineatik urrundu nahian sortu zen. Baina 1997an, diru arazoak medio, *Sud Ouest*ek irentsi zuen. *Sud Ouest* taldeak, kazetari ultra-jakobino bat ezarri zuen *La Semainen* buru. Lau urtez abertzaleen kontrako eraso zuzena, euskara eta ikastolen kontra, elebitasunaren kontra ere aritu zen astekaria. Hamarkada luzetan euskararen kontrako jazarraldia izan ondoren, euskararen aldeko berpizkunde betean, *La semaine* geroz geroa okertu eta berpizkundera arriskuan ezarri zuen.

Testuinguru horretan sortu zen *Journala*. La semainek tronpatu zuen publiko euskaltzalea berreskuratu, abertzaleak eta ezkertiarrek gehitu eta *La Semainen* irakurleria pikutara bidaltzea lortu zen. Une horretan, *La Semaine*-ko zuzendaria kanporatu zuten, hura leporatuz gainbehera, nahiz eta espresuki helburu jakin batekin ezarria izan zen.

Geroztik zuzendarien dantza ez da gelditu *La Semainen*, burua ezin altxatuz. Linea editorialari dagokionez, toki-ko berriak tratatzen dituzte, gai politiko eta sozialetan gehiegi sartu gabe. Nahiz eta sekulako galerak izan, Journalari espazioa ez uzteko mantentzen du Sud Ouest taldeak. Urri hastapenean, azken bi urteotako laugarren zuzendaria izendatu dute. Nonbaitik ere, euskaltzalea da zuzendari berria...

Le Journal: 2001eko urriaren 16an sortua. Publiko euskaltzalea, abertzalea eta ezkerreko mugimenduak bereganatzeaz gain, Ipar Euskal Herriko iritzi-liderrendako erreferentzia da, politika, ekonomia, kultura eta gizarte mailako erabakitzaileek tresna gisa baitute. Hala ere, instituzio eta udal eskuindarren boikota erabatekoa izan da. Instituzioek eta *Sud Ouest*ek berak sekulako kanpainak egin dituzte enpresaburuengandik inguruan Kazetari publizitaterik ez sartzeko galdeginez. Adibide bat emateko, Baionako Udalak 300.000 euro ematen dizkio iragarkietan urteko *Sud Ouest*-ri. Journalari, ez eta zentimo bat ere ez. Ipar Euskal Herriko agenda informatiboan iraultza tipi bat sortu du *Kazetak*.

Telebista arloan frantses medioak besterik ez daude. Aldudarrak elkarte saiatzen ari da azken urteetan tokiko euskarazko telebista bat egiten. Baina ez du baliabiderik eta emititzeko baimenak denboran mugatuak dira (aste batzuk) eta bi urtean behin ukaiten dituzte.

Azken lau urteetan *TVPI* tokiko telebista ere sortu da. Egunean ordubeteko programa emititzen dute, egun osoan errepikatzen dena. Frantses aberats batek Larrunen Nafarroako aldean (Bera) errepikagailua ezarri eta Hendaiatik Landetaraino emititzen du. Aspektu folklorikora mugatua. Helburua, tokia betetzea da noizbait merkatu bat egonen balitz eskuratzeko.

4. Erritmoa

Arzalluzek Hegoaldeko hedabide batean putz egiten badu, hedabide guztietako irakurle, ikusle eta entzuleek nabarrituko dute berehala kiratsa. Medioen inflazioa izugarria da Hego Euskal Herrian. Arestian aipatu arrazoiak (dentsitatea, politika, administrazioa) kontuan izanez, hainbat irratik orduroko albisteak egiten dituzte, telebistek hainbat albistegi, egunkariak aukeran... Hala ere espainiar ikuspegia bermatzen duten medioen eta medio estatalen nagusitasun nabaria dago.

Ipar Euskal Herrian Irrati publikoaren antena *France Bleu* hiru albistegi ditu goizean, bat arratsaldean. 5-10 minutuko albistegiak izaten dira. *Euskal Irratiek*: hiru albistegi dituzte goizean, bi arratsaldean. Masifikazio ezak erritmo apalagoa sortzen du, konkurrentzia faltaz. Adierazpen batek zenbait egun eman dezake erantzuna ukan aurretik. Journalaren sorrerak agenda azeleratu eta baldintzatu baldin badu ere oraindik hegoaldeko egoeratik biziki urrun gara.

Medioen buruak *FR3*, *France Bleu*, *Sud Ouest* edo *AFP*koak, suprefeta (governuko delegatua) bezala, hiru urtero aldatzen dira guti gorabehera. Zuzendari berriak kanpotik heldu dira. Ez dute halabarrez Euskal Herria ezagutu beharrik. “Nortasun handiko Frantziako eskualde” batera datoz besterik gabe. Heien tokiak hartzen dituztenako berriz eramaten dituzte. Estokolmoko sindromearen beldurra ote? Buruez gain, kazetariekin berdina gertatzen da, kanpotik heldu dira.

Baina hauek behin lanpostua eskuraturik Euskal Herrian, ez dute bertatik joan nahi izaten. Buruek duten tokiko egoeraren ezagutza faltak, ez du erritmoa bizitzen ere laguntzen. Beste eskualde batzuetako azaleko kazetaritza eredura mugatzen dira.

5. Ezberdintasunak formetan

Kazetaritza egiteko moduan ezberdintasun ugari ere atzeman daiteke mugaz bi aldeetara.

- Kazetaritza arauetan espainiar kazetaritzan ohikoa den piramide inbertitu itxia (albistea garrantzitsuenetik ez deuseraino luzatzen da), Frantzian piramide inbertitu irekia bilakatzen da (garrantzitsuenetik ez deuseraino, baina albiste bukaeran elementu garrantzitsu bat gehitzen da). Tokiko hedabideek ere eredu horiek segitzen dituzte hein handi batean.
- Kazetaritza poetikoa: oso ohikoa da frantses hedabideetan hitz jokoekin aritzea. Prentsa idatzian tituluak askotan ere ez dira esaldi osoak izaten, espainiar ereduaren bezala. Telebistako albistegiak begiratu gero, aldiz, frantziar kateen albistegi nagusietan *TF1* eta *FR2*ko eguerdi eta gaueko albistegietan, lehen 10 minutuek dute albiste izaera. Hortik aitzina erreportaia laburrak izaten dira, ikuslea entretenitzeko erreportaiak, biharamunik ez duten albiste ximpleak. *FR2* katea saiatu berria da albistegi zurrungoak egiten, baina audientzia galera izugarria izan da.
- Prentsaurrekoek bi denbora dituzte Iparraldean: prentsaurrekoa eta ondotik irrati eta telebistendako egiten diren adierazpenak. Horregatik Ipar Euskal Herrian egiten diren prentsaurrekoetako argazkietan ez da mikrorik ageri. Ez da ohikoa ere kazetariak grabagailurik erabiltzea kazetaritza idatzian. Estilo libreagoa erabiltzen da, adierazpen zehatzetara mugatu gabe. Galderarik gabeko prentsaurreko adierazpenak edo adierazpen instituzionalak ez dira egiten Iparraldean. Ordutegiak ez dira hainbeste errespetatzen Iparraldean. Albiste erritmo ezberdinagatik ere, anitzez prentsaurreko gutiago bada.
- Kazetariaren protagonismoa hegoaldeko hedabideetan. Telebistan edozein albistegi edo erreportaietan agertzen da kazetaria lehen planoan mikroarekin azalpenak ematen. Frantzian erreportari bereziek soilik dute aukera, eta meritu askoren ondoren.
- Hegoaldeko medioek argazki gehiago erabiltzen dute oro har prentsa idatzian.
- Hegoaldean zierre orduak 24:00ak inguruan kokatzen badira, Iparraldean Irratiko azken albistegia 18:30ekoa izaten da (20:00 laburrean), *FR3n* 19:15ean, eta egunkarien zierreak 20:00etan.
- Frantzian Hedabide idatzien konkurrentzia txikiagoa da oro har, eta leku askotan XIX. mendeko egunkariak dirudite maketa eta eduki aldetik. Egunkari erregionalek garrantzi handia dute, eta normalki monopolio egoeran egon ohi dira bakoitza bere eskualdean. Biarnoan, hiru egunkari daude, eta hirurak Sud Ouest taldekoak dira (*Sud Ouest Bearn, La République, L'Eclair*). Ipar Euskal Herrian hala zen, *Journala* heldu arte.

6. Hedabideen kontrola

Hedabideen kontrola Estatuaren lehentasun bilakatu da azken urteetan. Berlusconi Italian lortu du, eta Espainian Aznarrek ere hala egin zuen hein handi batean.

Frantzian ere, antzeko fenomeno bat ageri da, medioen kontrola geroz eta esku murriztagoetan gelditzen baita. Joan den uztailen Dassault gerlako hegazkingileak 70 egunkari eta astekariren kontrola hartu zuen. Hori egin eta hiru hilabetera, Senatualp hauteskundeetara aurkeztu da irailan, eta nola ez, bere eskualdean irabazi. Egun, UMPko senataria da. Frantziako Medef (patronala) erakundeko burua, Ernest Antoine Sélière baroia, Frantziako edizioetan liderra da. Medioen kontzentrazioa gero eta garrantzitsuagoa den heinean, ez da medio alternatiboendako lekurik uzten. *Egin, Egunkaria, Egin Irratia* eta *Ardi Beltzaren* itxiera ere zentzu horretan ulertu behar dira. Espaniako botereak gauzak gordinki egiteko ohiturari jarraiki, itxi eta kito. Frantziako Estatuan, politika bertze modu batez egiten da. Politeziaz medioak onartzen dira, baina bide ezberdinen bidez itotzen.

Euskal hedabideen arazo nagusia (*Euskal Irratiak, Journal, Ekaitza, Enbata, Herria...*) Ipar Euskal Herrian, beste berezko egituren arazo bera da (ikastolena, edo laborantza mundukoa *Arrapitz*): diru eskasia. Tokiko botereek

aniztasunaren aldeko hitzak ukanen dituzte, baina ordua iritsitakoan beti badute aitzakiaren bat: ikastolen finantzatzeko lege traba, euskal hedabideak frantses hedabideen ondoan duten publikoaren muga, laborantza egitura berezkoek sortzen duten bikoiztasuna eta abar..

Mugaren alde batean zein bestean, hedabideen aniztasuna kolokan dago. Giza eskubideen nazioarteko hitzarmenek Estatuenganik medioen pluraltasuna babestea espero badu ere, gaur egun kontrako jarrera ageri da oro har. Prentsa askatasuna eta aniztasuna demokrazia baten adierazle baldin bada, neurri apaleko demokraziak gureak.

Eta erdal hedabideek ere ez dute euskal hedabideen sorrera eta iraupenik errazten. Egunkariaren aferan espainol hedabideen jarrera ikusi besterik ez dago, eta neurri apalago batean bada ere, *Journalaren* kasuan frantses hedabideen jarrera ere.

7. Euskarazko kazetaritza

Lehen aipatu baliabideen arazoaz gain, euskarazko kazetaritzaren arazoa, hartzaile kopuruan dago hein handian. Hiru milioi biztanleko gizarteaz 800.000 gara euskaldunak, eta gehienak eskualde berean finkatuak. Egoera horretan, hartzaileen kontzentrazioak gipuzkoazentrisimo eta bizkaizentrisimo joera du euskarazko kazetaritzak.

Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa, Nafarroa hegoaldea eta Araba, euskarazko hedabideen ania behartsuak dira. Ipar Euskal Herrian 260.000 biztanlelik 60.000k ulertzen du euskara. *Euskal Irratiek* euskaraz egiten dute osoki, eta *Herria* astekariak ere bai XIX mendeaz geroztik.

France Bleu irrati publikoak, euskaldunen zergekin ordaintzen bada ere, eta sekulako budgeta ukanik ere, ordu-bete besterik ez du egiten egunean. Ordubete bakarrik izanik ere, euskara kalitatea maiz negargarria izaten da, ezin jasana. *France 3* kateak bost minutuko albistegian minutu bakar bat egiten du, eta ez beti. Eta *Sud Ouesiek*, deus ere ez. *Le Journal du Pays Basque* zutabe bat egiten du euskaraz egun guziz. Hastapen bat. *Herria* eta *Euskal Irratiekin* batera, *ETB*1eko kirol saioak dira euskara gehien sartzen dutenak etxeetara.

Euskararen arazoa larria da. Gutxi baldin badira euskara ulertzen dutenak, anitzez gutiago dira alfabetatuak. Irratiek publiko zabala lortu dute azken 20 urteotan. Euskara etxeko, laborantzako eta elizako gaietatik aparte, erabil daitekeen hizkuntza dela frogatu behar izan diote jendeeri euskal irratiek. Baina egun sabaia ukitu dute, eta hortik gora ezin eginez ari dira, behera erortzeko arriskuarekin.

Euskarazko irakurleria *Herriarekin* batera itzaltzen ari da. *Herriak* ez du lortu belaunaldi berrietara hedatzea, eta duen irakurleria berarekin eramanen du. *Egunkariak* edo *Berriak* ez du lortu lekukoa hartzerik. Alfabetatu gabe-ari pisuegi egiten zaio *Berria* irakurtzea, eta hainbeste orrialde izateak eta herriko gaietara ez mugatzeak zailtasunak sortzen ditu. Sosa dutenek aldiz, ez dute deus guti egiten.

Iturriek ere frantsesez egiten dute gehienetan, kazetari euskalduna lehen-lehenik itzultzaile lanetara beharturik. Interlokutore euskaldunak aurkitzeko zailtasunak izaten dira maiz. Eta aurkitzen direnetan, bereziki adinekoak izaten baitira, zailtasunak izaten dituzte euskaraz aritzeko hedabideetan. *Euskal Irratiek* lan garrantzitsua egin dute arlo horretan (mikroan mintzatu aitzin, esaldia euskaraz erran dezala galdeginik. Urduritasunik gabe, euskaraz egiten du, eta gero gauza bera errepika dezala galdegin, baina mikroan).

Hizkuntz politika azkar baten beharra dago Ipar Euskal Herrian. Urte bukaera honetan finkatuko dira ardatzak, baina berriz ere badirudi bazterrak lasaitzeko minimoetarik gutienekoa emanen dutela, zerbait egiten dela errateko. Alderantziz, euskarak bultzatzada indartsua behar du arlo guztietan, eta hedabideetan bereziki.

Euskarazko hedabideetan duen presentziari dagokionean Nafarroa eta Ipar Euskal Herriko egoera konparagarriak dira. Baiona edo Iruñetik ikusita, EAEn dagoen euskarazko medio kopurua amets bat baino gehiago da. Mendebaldeko euskaldunak (Nafarroa eta Iparralde) EAeko euskarazko ekoizpenaren kontsumitzaile dira. Horregatik, edukietan penintsularen hegoaldera begiratu ordez, Euskal Herriko mendebaldera so ez egitea leporatzen zaie ekialdeko euskal hedabideei.

Euskarazko Kazetaritzan gabezia nabaria da Ipar Euskal Herrian. Euskaraz ari diren 25 kazetariarik hiruzpauk eginen zuten kazetari ikasketarik. Gaineratekoek lanean ikasi dute. Horrek ere arazoak sortzen ditu euskararen kalitatea eta kazetariaren profesionaltasun mailari dagokionez, aukera guti baitago. Diglosi egoeran, eta ahalak murriztak izanik, medioen arteko konkurrentzia apala denez eta zer esanik ez euskarazko medioak bakarrik izanik, kazetari eta medio euskaldunek, erdaldunek baino hobeki egin behar dute publikoa bereganatzeko. Ez dute egun duten sabaira mugatu behar, bestela euskarazko medioak ere sinbolismo hutsa egitera mugatuko dira, frantses medioek egiten duten gisan.

8. Edukien arazoa

Nola egin Espainiako printzearen ezkontzak ez ditzan gure orrialdeak bete, jakinik inguruan ditugun hedabide espainol guztiak orriak eta orriak, eta orduak eta orduak horretaratuko dituztela? Nola egin Sevillan izan den auto istripuaren albisteak, agentzia, telebista eta irrati espainol orok aipatu dutena, Mithikilen izan den autoistripuaz ordezkatzeko, azken hau inongo agentziak aipatu ez duelarik, ez telebistak... Nola eskaini irakurleari Euskal Herriko ikuspegia, Gernikako estatutuaz geroz sortu kazetariak Euskadi eta Euskal Herriaren arteko ezberdintasunik egiten ez dutenean?

Erantzuteko, espainiar eta frantziar hedabideek egiten dutenetik hartu beharko genuke beharbada adibide. Horiek ez dira tronpatzen, eta badakite zer erran Euskal Herriaz eta zer ez.

Ohargabeen frantses eta espainol edukietara lerratzeko joera dugu. Gorago nioen bezala, inguratzen gaituen mundu mediatiko erdaldunak sekulako eragina du. Ainhua eta Patxi euskal herritarren aferaz gain, Hegoaldeko medio batek errazago izanen du Sevillako auto istripu baten berri ematea, Mithikilekoa baino. Azken urteotan hobekuntza bat senti da EAeko medioen aldetik. Nafarroa Hegoaldeko berriak medio euskaldunetan errazago sartzen dira, medio horien eremu naturalean. Ipar Euskal Herria oraindik ez.

Edukiak gustukoak izateko, edukitzailea gustukoa izan behar. Baina edukitzailea gustukoa izanik ere, askotan edukiak ez gustuko. Estatu batek ignoratzen gaituen gisan eta besteak zer eta nolakoak garen etengabe esaten digun ber, euskal medioek ere albiste batzuk ignoratzen, eta beste batzuk zer eta nolakoak diren esan beharko dugu. Diskriminazio positiboa izan daiteke soluzioa. Mithikileko istripuak albistegiak eta lehen orrialdeak irekitzea, “besteak” zer egiten duten sobera obsesionatu gabe.

d. EKT: ETORKIZUNEN KOMUNIKAZIO TALDEAREN OINARRI SENDOA

Joanmari Larrarte
EKTko Administrazio Kontseiluko idazkaria

EKT euskarazko egunkari nazional bat sortu eta eskualdeetako egunkariak sustatzeko helburuarekin sortu zen, 2003an, *Egunkaria* itxi zutelako. Hala ere, EKTk hori baino askoz ere egiteko zabalagoa du: euskarazko komunikazio-eremua zabaldu eta aberastea du helburu nagusia, eta horretara bideratu behar ditu bere egitekoak.

1. Euskarazko komunikazio-eremua

Euskarazko komunikazio-eremua bi ardatzetan oinarritzen dugula esan daiteke: herria eta hizkuntza dira komunikazio-eremu hori egituratzen dutenak. Euskal Herrian euskaraz bizi nahi duen eta Euskal Herria euskalduna izan dadin ari denaren komunikazio-eremua osatzen dugu guztion artean, eta, horregatik, gure komunikazio proiektuek egiteko bikoitza dute: komunikabide izatea eta hizkuntza normalizatzeko tresna izatea.

Komunikabide izaera behar dute, lehenik, EKTren barnean garatuko diren proiektu komunikatiboek: alegia, lehenetsuna komunikazio tresna izatea dute. Eta horrekin batera, hizkuntza normalizazioa ere helburu behar dute izan, euskararen normalizaziorako laguntza izan behar dute maila indibidual eta sozialean.

Euskarazko komunikazio-eremua, garatuz doan eremua izan arren, urria eta pobrea da, ingurukoekin erkatzen baldin bada. Tokiko hedabideen eremuan, zorionez, euskara gailendu izan da gehienetan, batez ere prentsan, herri edo eskualdeetan sortuz eta garatuz joan diren aldizkari eta egunkariei esker. Irratien eremuan, irrati libreen sare bat egon bada, baina, ale batzuk kenduta, batez ere ezintasun ekonomikoengatik, gutxi dira proiektu sendotu eta errotoak, eta are gutxiago planteamendu profesional batekin egindakoak. Telebistaren eremuan, berriz, gutxiago dira euskara hutsez funtzionatzen dutenak, eta orain arte, euskararen aldetik, oso garapen urria izan du komunikabide horrek.

Tokiko hedabideetatik gora eginda, euskaldunok hautatzeko aukerarik gabekoak gara: gauza bakarra dugu euskaraz, hizkuntza berean beste kompetentzia eta aukerarik gabe, eta erdarazkoen ondoan urritasunean erabat galduta. Prentsan, informazio orokorreko egunkari nazionala bakarra da; astekariak 3-4 baino ez dira; aldizkari espezializatuak oso gutxi dira, eta ehunka gai jorratzen dituzten aldizkari tematikoak, gainerako hizkuntzetan ugariak, ez ditugu gurean (sukaldaritza, kirola, informatika... batzuk esateagatik). Euskaraz, orotariko programazioa duen irrati nazional bakarra dugu; gainerakoak herri edo eskualde mailakoak dira. Eta gauza bera gertatzen da telebistan: kate bakarra dugu euskaraz. Interneten ere, euskarazko komunikabideen eremua ez da oso aberatsa, eta gunerik gehienak prentsa bidez emandakoa sareratzeko proiektuak dira; hala ere, badira *Berria*, *Sustatu*, *Uztartia* eta beste proiektu batzuk, garapen zabalagoa dutenak.

Baina okerrena ez da 'euskal kioskoa' hutsik dagoela eta erdarazkoak jaten duela, baizik eta horretara ohituta gaudela eta besterik ezin dena sinetsita gaudela euskaldunok: "egunkari bakarra izan dezakegu", "ez dugu bi tele-

bista kate izateko ikus-entzulerik” eta antzeko beste zenbat ez ote dugu esan guztion artean. Eta horrek guztiak oilo-aren eta arrautzaren eztabaida amaigabe bezain zentzugabea ere sortzen du: euskarazko komunikabideen kontsumitzaile kopurua handitu ezean, zaila da proiektu berriak sortzea, merkaturik ez dagoelako; baina, eskaintza zabaldu ezean, zaila da jendea erakartzea, denentzat 'balekoa' izango den produktu bakarra sortzea ezinezkoa delako gaur egungo gizartean. Ikus dezagun adibide batekin: *Euskadi Irratiaren* programazioak zaila izango zuen entzule euskaldun gazteak erakartzea, baina, *Euskadi Gaztea* sortuta, ez dut uste entzule gehienak irrati batetik bestera joango zirenik; seguru asko, gehiago izango dira erdarazko irrati entzutetik euskarazkora ekarritakoak. Euskal Herriko gizartea mendebaldeko XXI. mendeko gizartea da, kontsumista, eta edozer gauza hartzeko garaian aukera zabal batean hautatzera ohituta dago.

Ondorioz, euskarazko egungo komunikazio-eremu urria zabaldu eta aberastu nahi badugu, euskaldunen eskura proiektu berriak jartzen ahalegin handia egin behar dugu, azkar baino lehen. Lehen aipatu dugun kioskoa euskaldundu ahala bakarrik lor daiteke, seguru asko, gero eta euskaldun gehiago erakartzea euskal komunikabideen eta, oro har, euskal kulturaren kontsumora. Urte asko pasatu ditugu euskaraz bizi nahi duenarentzat oinarritzko tresnak sortzen, euskaldun gehiago egiteko bideak jartzen, baina XXI. mendean hori baino askoz ere gehiago behar da.

EKTk, Euskal Herriko beste komunikazio enpresa eta erakundeekin batera, erantzukizun handia du euskal kioskoa euskalduntzen. Euskal Herriak emandako babes sozial eta ekonomikoa eguneroko bat argitaratzera baino askoz ere egiteko zabalagora bideratu beharra dago.

EKTk gorago aipatutako bi ardatzetan garatu behar du bere ekimena komunikabidegintzan eta euskalgintzan, bi ardatzetan oinarrituta. Euskarazko komunikazio-eremua antolatu eta indartzea ezinbestekoa da, eta horrek bi printzipioak izan behar ditu gogoan, Euskal Herria erreferente izango duten komunikabideak ezinbesteko dira hemen, baina hori bezain garrantzi handikoa da euskaraz egitea.

XXI. mendean ezin dugu egituratu Euskal Herriko komunikazio-eremua euskararen bidetik ez bada, bestela ez baitu aurrera egingo ez hizkuntzaren normalizazioak eta ez Euskal Herriak. Euskarazko produktu komunikatibo berriak sortzea izango da, egoera honetan, EKTren lan ildo nagusietako bat.

2. Elkarlana ezinbestekoa da, eta hori bidea eginez bakarrik lor daiteke

EKT ez da nahikoa euskal kioskoa euskalduntzeko -argi utzita beti XXI. mendeko kioskoaz ari garela, prentsarekin batera ikus-entzunezkoak eta Internet ere kontuan hartzen ditugula-. Aurrean dugun erronka handi honetan, gainera, proiektu berri eta berritzaileak sortzea eta kaleratzea ez da nahikoa izango: horiek gizarteratu egin behar dira, ezagutarazi eta, eremuz nahiko txikia den herri honetan, sakabanatuta bizi diren biztanleengana hurbildu behar dira. Biztanleriaren herena da euskalduna Euskal Herri osoan sakabanatuta dagoena eta guztiei euskarazko produktuak ezagutaraztea ez da nolana hiko erronka.

EKTk bi norabidetan egin beharko luke lan hurrengo urteetan. Batetik, abian dituen proiektuak garatzearekin batera, proiektu berriak martxan jarri behar ditu, betiere bere baliabide eta ahalmenen barruan, proiektu osoa hipoteka dezakeen egoerarik sortu gabe.

Bestetik, euskarazko komunikabidegintza garatzen ari garen enpresa eta erakundeen arteko elkarlana sustatzen eta lantzen egin behar du lan, ezinbestekoa izango baita, lehenago edo geroago, elkarrekin hainbat ekimen garatzea. Eta elkarrekin ez bada ere, garrantzi handikoa litzateke sektorean helburu berekin ari direnen artean lotura handiagoa izatea, besterik ez bada azterketa elkarrekin egin eta batera gogoeta egiteko aurrera begira zer beharko genukeen. Indarrak biltzea biderik onena eta azkarrena dela erakusten hasi beharrik ez dago; horren ezaguera guztiok dugu, baina ondo zaila da gure artean elkarlana hitzetik ekintzara eramatea. Hala ere, bakoitzak bere ekime-

nak izan arren, sektorea egituratzea eta komunikazio-eremua indartzea elkarlanean egingo dugun zerbait da. Denborak, ezinbestean, elkarrekin aritzera ekarriko gaitu; denborak eta, euskarak aurrea egin ahala, Katalunian bezala, erdaraz ari diren talde handien eraginak.

Elkarrekin lan egiteko akordioak lortzea ez da beti posible izaten, baina, ahal den tokietan, bide horretatik jotzeko asmoa du EKTk. Euskal Herrian, eta bereziki euskalgintzan, elkarlanaren beharra askotan azpimarratu izan dugu guztiok ere, baina, gero, oso gutxitan ikusi da ekimen zehatzetan gauzatuta. Agian, gauzak atzekoz aurrera egin izana izango da horren arrazoia. Urteetan, sektore osoa batera 'elkarlanera' bideratu beharra azpimarratu izan dugu, horren emaitza zehatzak zein izango lirakeen definitu gabe, eta hori ez da biderik eraginkorrena, ekimen zehatzak elkarrekin egiteari ekin gabe ezin baita ikasi batera edo bata bestearen ondoan lanean aritzen.

Sektore osoa bildu gabe ere ados daudenak lanean batera jarri dituzten ekimen batzuk izan ditugu euskal komunikabidegintzan; *Hitza* egunkariak eta *Asteon* aldizkaria dira horietako batzuk. Bada, azken bi urtean egindako ahaleginak gehiago erakutsi eta lagundu du elkarlanean eta sektorea antolatzen, aurreko urteetan elkarlanaren beharra eta balioa azpimarratuz esandako guztiak baino.

EKTk gero eta ahalegin zabalagoak egingo ditu sektoreko eta sektoretik kanpoko eragileekin batera ekimenak sustatzeko, horrek komunikabide gehiago edo daudenak sustatzea ekarriko duelakoan. Bide horretatik, sektorea egituratzeko modu bat garatzen ere ari garelakoan gaude.

3. EKTren lan ardatzak

2003ko maiatzean abiatu ginenetik, *Berria* lehenbailehen kaleratu eta eskualdeetako bazkideekin batera hainbat proiektu berri abiatzea izan da lehenasuna. Lehenasuna kalean egotea izan da, azkar abiatu eta sendotasunez kale-ratu kalitateko proiektuekin. Komunikabideak martxan jartzeko gaitasuna izan badugula erakutsi dugu Euskal Herrian (*Egunkariako* langile ohien, euskalgintzaren eta herriaren parte-hartzeak ekarri du EKT eta antzera sortu izan dira euskarazko gainerako komunikabideak ere), baina ezer gutxirako balio dute kalean dauden komunikabideek, baldin eta kontsumitzen ez badira. Euskarazko prentsa osoak bezala, hau dugu guk ere egiteko nagusia: gure produktak euskaldunen artean ezagutarazi eta haien aldeko hautua egin dezaten lortzea.

Erronka da, sekulako erronka urteetako eskarmentuak adierazten digun bezala, lehenago aipatu dugun euskal kioskoa euskalduntzea eta sektorea egituratzea bezain garrantzitsu eta zailak. Euskarazko komunikazio-eremua egituratuz joateko, elkarlanerako guneak eta aukerak sortzearekin batera, gutxienez hiru tresna hauek behar dira:

- Euskarazko komunikabideak, gero eta gehiago gizarteko sektore guztien beharrei erantzuteko.
- Euskarazko komunikabideen kontsumitzaileak (irakurleak eta ikus-entzuleak), dauden eta sortuko diren komunikabideek beren hartzaillea izan dezaten.
- Komunikabideak sortzea posible izateko eta hartzaillearengana iristeko behar bezalako azpiegitura euskarazko medioentzat.
- Hiru puntutan bildutako behar horiei erantzuteko, EKTk ardatz hauetan oinarritu nahi du bere lana, betiere euskarazko komunikazio-eremua indartu, egituratu eta zabaltzea helburu nagusi hartuta:
- Lehenik eta behin, dituen komunikabideak sendotu eta berriak sortzeko ekimenak sustatuko ditu bere enpresen artean.

Ahalik eta zabalkunderik handiena lortzera ere bideratuko ditu bere ekimenak, euskaldunen artean euskarazko medioek gero eta harrera hobea eta kontsumo handiagoa izan dezaten.

Komunikabideen bideragarritasuna eta zabalkundea ziurtatzeko ezinbestekoak diren azpiegiturak sortu edo eragiteko ekimenak abiaraziko ditu, daudenez gain.

Eta akordioak bideratzen ahaleginduko da, sektorekoen artean indarrak bildu eta proiektuen bideragarritasuna ziurtatzearekin batera erdarazko medioei aurre egiteko bideak jarritz.

Aipatutako ardatzetan oinarritzen ari da EKTren ekimena martxan daroan urte eta erdian, eta bide beretik jarraitzea du asmo eta helburu nagusia. Horri begira, hainbat ekimen ditu abian eta proiektuan.

4. EKTren ekimena

4.1. Prentsa nazionala: *Berria*

Garatzen ditugun proiektu guztiak kontuan izanda ere, gaur egun behintzat, hau da EKTren izarra eta lehen produktua. Egunkari nazionala delako, gero eta euskaldun gehiago ekarri behar dituelako eta, ahalik eta bideragarriago egiten den neurrian, independentzia handiagoa ekartzearekin batera, gorago aipatutako erdal kioskoa euskaldunduz joateko sekulako akuilua izango litzatekeelako.

Irakurleari informazio zehatza eta gogoetarako tresnak emango dizkion Euskal Herriko egunkari nazional nagusia izatea du helburu *Berriaren* proiektuak. Egunkari hau, informazio aldetik, merkatuko gainerakoekin pareko da, eta lehen egunkari eta bakarra izateko baldintza guztiak betetzen ditu; gero eta gehiago dira, *Egunkariaren* hasierako garaietan ez bezala, *Berria* egunkari nagusi eta bakarra dutenak. 52 orrialdeko informazio orokorreko egunkaria da proiektuaren oinarria, zeinean Euskal Herriko eta munduko berri izateko behar den informazioa biltzen den. Hori bai: egunkari nazionala den heinean, probintziako egunkariak betetzen duten hainbat funtzio ezin ditu maila berean bete: tokiko informazioa edo kirol talde nagusien jarraipena, esate baterako.

Gaur egun, informazio orokorreko egunkariarekin batera, eguneroko gehigarria kaleratzen dugu: *Tartea*. Euskarazko egunerokora etorritako irakurle berriak egunkaria irakurtzera ohitzeko asmoarekin sortu zen gehigarria, euskaraz eguneroko irakurtzera ohituta ez zegoen irakurlearentzat baliagarri izateko. Hartutako bideari eutsi egin zaio, bi arrazoi nagusirengatik:

- *Berria* bezalako egunkari nazional batek ohiko orrietan oso toki txikia izan dezaketean gai askorentzat plaza aproposa delako eta, informazio 'nagusiarekin' batera, eguneroko aldizkari bat eskaintzeko aukera ematen duelako.
- Irakurlearen gustukoa delako; izan ere, inkestaren emaitzetan eta hortik kanpo jasotako iritzietan irakurleen gustuko saila dela neurtzeko aukera izan dugu.

Eguneroko *Tartearekin* batera, beste hiru gehigarri argitaratu izan ditu *Berriak*: *Mantangorri* (haurrentzako gehigarria, txikientzat ere periodikoa baliagarri egiten duena); *Igandea* (egunerokoari hain lotuta ez dauden erreportaia eta elkarrizketa landuagoak argitaratzeko diseinatutakoa); eta *Egitura* (ekonomiari eskainitakoa, eta gai horri eskainitako agerkaririk euskaraz ez dagoenez, garrantzitsua da *Berriak* bere tokia ematea, maila guztietako irakurleentzat aukerak zabaltzea egokia izan daitekeelako).

Gehigarri tematikoen bidea gehiago jorratuko den erabaki gabe dago, gai batzuk sakontzeko beste aukera batzuk ere aztergai daudelako.

Berriaren erronka nagusia da, batetik, hasierako produktuaren mailari eutsi eta poliki-poliki hobetuz joatea, eta, bestetik, gaur egun irakurle ez diren horiengana iristeko bidea egitea; gero eta gehiagok erosi eta irakurtzea, alegia. Esku artean dugun produktua, gutxienez merkatuko gainerakoekin pare dagoen neurrian, produktu kompetitiboa da, eta euskaldunak erakartzeko bidea egin behar da, bide luze eta zaila izango dela kontuan izanda eta euskal prentsa osoaren sustapenaren bidetik etorriko dela jakinda.

4.2. Astelehenetan euskarazko egunkaria?

Hego Euskal Herriko egunkari guztiak egunero argitaratzen dira, astean zazpi egunez alegia, Espainiakoen ohiturari jarraiki. Hori dela-eta, *Euskaldunon Egunkariaren* sorreratik bertatik euskarazko egunkaria astelehenetan ez argitaratzea hutsune handia dela pentsatu izan da, eta beti sumatu izan da astelehenetan ere argitaratzeko beharra. *Euskaldunon Egunkariak*, 13 urteko ibilbidean, ez zion eutsi erronka horri, inbertsioak kontuan izanda, euskal prentsa sustatzeko beste ekimen batzuetan ikusi zuelako lehentasuna. Hala ere, ez dira gutxi astelehenetan argitaratzeko entzuten diren eskariak.

Astean beste egun batez argitaratzeak gaur egungo defizita handitzea ekarriko luke, eta hori ez da erraz har daitekeen erabakia. Diru sarreretan, salmentagatikoak gehituko lirateke, egun bat gehiagoan argitaratzeagatik askoz ere publizitate gehiago ez litzatekeelako sartuko. Irteeretan, berriz, kontzeptu guztiak handituko lirateke, pertsonaletik hasi eta banaketaraino.

Hego Euskal Herrian, euskal prentsaren normalizazioari begira, astelehenetan ere euskarazko egunkari bat izatea garrantzitsua izango litzateke, batez ere irakurleak egun horretan erdarazko beste egunkari baten beharrik izan ez dezan, eta hori oso kontuan hartzekoa da. EKT aztertzen ari da zenbateko inbertsioa egin beharko litzatekeen eta horren emaitza zein izango litzatekeen. Gainera, EKTk erabakia hartu aurretik, ezinbestean aztertu beharko litzateke euskal prentsaren beharrak, lehentasuna zerk duen neurtzeko: asteleheneko egunkaria argitaratzeak edo beste era bateko ekimen bat abiatzeak.

4.3. Prentsa nazionala: gazteentzako argitalpena

Astekari nazional bat argitaratzea erabakita dago; gazteei beren gustuko eta intereseko informazioa emateaz gain, gazteak egunkaria irakurtzera ohitzea ere izango du helburu. Jakina da gazteak ez datozela egunkaria irakurri zale, eta jabetu behar dugu, orain lan egiten ez bada, gerora zaila izango dela gazteok erakartzea; hori lantzeko eta euskarazko egunkarira 'ohituz' joateko sortu da gazteentzako argitalpen berria.

Euskal Herriko gazteen artean gero eta gehiago dira euskaraz ikasten dutenak, eta, beraz, gero eta txikiagoa da belaunaldi helduagoek euskara idatziarekin izan zezaketen zailtasuna; ondorioz, euskarazko argitalpenen kontsumoak ere gora egin beharko luke belaunaldi berriekin batera. Bada, ez da hala gertatzen. Jakina den bezala, euskal kultur produktuen kontsumoak ez du gora egin azken urteetan, eta liburu eta musikaren kontsumoak, gainera, behera egin du. Mundu osoko joera dugu gazteak ez direla egunkarizale, baina Euskal Herrian, horrekin batera, euskaraz ikasi duen eta bizitzeko aukera duen eta prentsa irakurtzen duen gazteak ere maiz jotzen du erdarazkoa hartzera. Beraz, belaunaldi berriek berez dakartzaten aldaketekin batera, bere hartan jarraitzen du euskararen egoera normalizatugabe eta diglosikoak beti izan duen arazoak ere; gazte euskaldunak ere erdaraz bizi direla, alegia.

Egoera kontuan hartuta eta gazteen artean ohiturak sortzen edo aldatzen joateko, gazteentzako astekaria argitaratzeari ekin zaio: 16 orrialdeko astekaria, hain zuzen. Doakoa da, eta banaketa bikoitza du. Alde batetik, *Berri*-ra gazteak erakartzeko helburua ere baduenez, egunkari horrekin batera banatuko da, gehigarri bat balitz moduan. Bestetik, doan ere banatuko da gazteak dabilzan tokietan; unibertsitatean eta eskoletan banatuko da, astero.

4.4. Tokiko prentsa: *Hitza*

Euskaldunen artean, ohitura dela edo euskaraz irakurtzeko zailtasuna dela, erdarazko egunkariak erosi eta irakurtzen dira gehien. Euskarazko komunikabideek zail dute aurrera egiten, non eta euskaldunak euskarazko prentsara erakartzeko bideak jartzen ez diren eta erdaratik euskararako pausoa errazten ez den. Hori kontuan hartuta, tokiko informazioan oinarritutako egunkarien bideari oso egoki deritzo *Berriak*, eta *Egunkariak* Tolosaldean hasi zuen bideari jarraitzea erabaki zuen, hainbat eskualdetan *Hitza* sortuz. 2004. urtearen amaieran, sei proiektu izango dira abian.

Hitza proiektu sendoa da gaur egun, alde askotatik hartuta:

- Enpresa sortzeko garaian, EKTren izenean ari den Bertako Hedabideak SL enpresa indarrak batzea lortzen ari da: herrietako aldizkari eta euskara elkarteekin batera abiatu dira proiektu guztiak, eta elkarlan hori garrantzi handikoa da, lan egiteko modu bat garatzen duelako.
- *Hitzaren* bidez, herritarrari tokiko informazio aberatsa, kalitatekoa eta plurala eskaintzeko bidea egiten da. Erreferentzial bihurtzen ari da eskualde bakoitzeko euskaldunen artean. Informazioa ematen duela-ko erreferentziala izatea da garrantzitsua -eta ez bakarrik euskaraz delako-, horrek ekartzen baitu harpidedunak baleko produktu bat eskuratu nahi duelako egitea harpidetza, eta ez izatea proiektua laguntzeko beste ekintza bat.
- Tokiko informazioa bakarrik jasotzen duen egunkaria izan arren, *Hitza* bakoitza eskualdean gehien irakurtzen den egunkaria izatea lortu nahi da, eta horretarako modua egin behar da. Tolosaldean, gaur egun, gehien banatzen den egunkaria *Hitza* da, eta ez espainierazko bat.
- Banaketa sistema garestia da egunero etxeraino eramatea, baina urteetan herri aldizkariaren, astekariaren eta egunkariaren bidearekin euskal prentsaren zabalkundea handitu ez bada, bestelako urratsak nahitaez egin behar dira, helburua euskal prentsa osoarentzat irakurle eremua zabaltzea izan behar baitu. Harpidetza bidez eta etxeraino banatzeak aukera ematen digu euskal prentsara hurbiltzeko prest dagoena identifikatzeko. Horrek erraztu egingo digu euskal kultur produktuak zuzenean eskaintzeko aukera. Jada badira, baina, denborarekin, gero eta erabilgarriagoak izango dira euskal kultur produktuen publikitatearen egiteko.

Dudarik gabe, lurra ereiten ari gara euskarazko prentsaren irakurleak erakartzeko, eta arian-arian lor dezakegun zerbait da. Egunero euskaraz irakurtzera ohitzen den hura euskarazko astekari eta egunkarietara erakartzea errazagoa izango da, hori lortzen ez duena baino. Hauek kontuan hartuta, orain arteko proiektuak, diru laguntzak daudden neurrian, bideragarri izaten hasi direla ikusten ari garenean, aurrera ere landu beharreko eremua da eskualdeetako egunkariena.

Aipatutako arrazoi guztiak hor daude, eta emaitzak biltzen ari dela ezin da ukatu. Eskatu duenari bakarrik banatuz, lau eskualdetako proiektuen bidez, 25.000 etxetan *Hitza* astean sei egunez sartzeari lortu den heinean, emaitza ona da. Bada, hala ere, oraindik asko landu beharreko eta oraindik urrun zaigun gai bat: publikitatea. *Hitza* bakoitzak bere diru-sarreraren %35-40 inguru lortzen ditu publikitateetik eta hau kopuru oso inportantea da (egunkari nazionalaren proportzioaren gainetik ere badaude). Hala ere, zabalkundea lortzen ari garen neurrian, garrantzi handikoa da euskarara orain arte etorri ez den publikitatea erakartzea -batez ere marka handien publikitatea- eta gaur egun dagoenak euskaraz publikitatea egitea errentagarria dela ikusaraztea, baina hori oraindik ez da lortu. Publikitatearen gaia oso garrantzitsua da, eta zabalkunde masiboen bidez lortzen ahalegindu beharrekoa, etorkizuneko euskarazko komunikabideen bideragarritasuna ezin dugulako diru laguntzen baitan utzi.

Hitza proiektuaren aldeko apustua ikusita, batek baino gehiagok planteatu du *Berriak* ez ote duen tokiko informazioa jasotzeko biderik egingo. Dudarik gabe, egunkari nazionalaren bidez tokiko informazioa lantzeko aukerarik ikusi ez duelako ekin dio EKTk bide horri. Euskal Herri osoko tokiko informazioa ondo lantzeko, gaur egungo egunkaria halako bi beharko lirateke bakarrik tokiko informazioarekin, eta hori, dudarik gabe, bideraezina da. Horregatik, eskualdeetako egunkariaren bideari oso egoki deritzo EKTk, *Berria* egunkari nazionalaren osagarri erabatekoak baitira.

4.5. Internet

Interneten EKTk gaur egun duen garapena *Berria.info* da. Webgune horren eskaintza ardatz hauetan oinarritzen da:

- *Berria* sarean jarri.
- *Berriaren* hemeroteca eskaini.
- Egunean zehar, edizio jarraitua.
- Irakurleak parte hartzeko foro eta inkestak.

- Gune tematiko eta monografikoak gertaera eta une jakinak jasotzeko.
- Ingeleseko edizioa.

Ikusten denez, bi dira Interneteko komunikazio proiektuaren ardatz nagusiak: *Berria* sarean jartzea egunero eta edizio jarraitua, eguneko berrien jarraipena egiteko. Edizio jarraituaren bidez, *Berriaren* irakurleak eguneko albiste nagusiak gertatu ahala jarraitzeko aukera izaten du, eta biharamuneko egunkarian topatuko dituen berri nagusien aurrerapena topatzen du.

Horixe da, aurrera begira ere, oraingoz bederen, Interneteko proiektuaren muina, prentsak ematen ez duen auke-ra hori, gertatutakoaren berri berehala ematea, euskarri horri lortzea. Horrekin batera, webgune tematikoen bidez egin dezake bere ekarpena EKTK; kultur eremuko zenbait webgune egiteko nahia askotan planteatu izan da, eta horretarako aukerak aztertzen ari da. Izan ere, kultur eremuan, euskaraz, bada hutsunerik Interneten.

4.6. Bestelako komunikabideak

EKTK aztergai du prentsa ez den beste euskarrietako komunikabideetan abiatu behar ote duen. Hasieran esan dugun bezala, euskaldunok irriti bakarra, telebista bakarra, egunkari bakarra izatera ohitu gara: ezin da hortik gorako ezer egin, ez dugu hartzailerik eta ez dugu baliabiderik. Baina, gure ustez, hartzaile berriak erakartzeko ez da nahikoa gaur egungo eskaintza: eskaintza hori zabaltzen den neurrian lor daiteke jende gehiago erakartzea.

Bide hori egiten hasi beharra dugu euskaldunok, baina baliabide ugari behar da horretarako, eta gaur egun ditugunak ongi neurtu behar ditugu, ematen den pauso orok atzera bueltatik gabeko ziurtasuna behar baitu, dena kolokan jarri gabe.

EKTK ez du erabakirik gai honen inguruan, baina euskarazko komunikazio-eremuaren garapena eta inguruko erdarazko komunikazio talde nagusien pisua kontuan hartuta, ezin dio uko egin bide hori ere lantzeari. Gaur egun garatzen ari garen politikari esker, urte batzuk barru asko handi daiteke -eta horretara bideratzen ari gara indar guztiak- euskarazko komunikabideen hartzaileen kopurua; eta orain ezin gara euskara helburu ez duten komunikazio taldeen atzetik ibili: euskal komunikabidegintzan lanean ari garenok izan behar dugu ziurtatuta orain ereiten ari garen zelaia gerora ere guk landuko dugula.

4.7. Euskal prentsaren azpiegitura indartzeko ekimenak

Prentsaz hitz egiten dugunean, egunkari eta aldizkarietaz hitz egiten dugu, baina, haiek ekoinerri eta irakurlearen eskutara iritsi arte, azpiegitura oso bat behar da. Euskal Herrian, azpiegitura hori batez ere komunikazio talde nagusien esku dago; esate baterako, Vocento taldeak bere egin du lehenago zabalduago zegoen banaketa sektore ia osoa. Egoera hau ere kezkatzekoa da euskarazko prentsarentzat, kanpoko zerbitzuak erabili behar dituen neurrian euskara-eren egoerak sortzen dituen beharretatik urrun dauden irizpideak baitira nagusi.

Hori ikusirik, Euskal Herrian ere komunikazio talde indartsuen ondoan lan egiteko antolatuta eta egituratuz joan beharra dugu. EKTK ez du gaur egun azpiegitura osoa antolatzeko asmorik, ahalmenik ere ez duelako. Derrigorrez, kanpo zerbitzuez baliatu beharra dugu, errotatibatik bertatik hasita, gure egunkarien tamainagatik. Hala ere, azpiegitura hori eratuz joaten hasteko, neurri batzuk ere bideratu ditu hasieratik EKTK.

Publizitate agentzia eta banaketa enpresa sortu ditu EKTK, eta hasieratik hainbat egiteko taldeko enpresetan antolatuta. Enpresa horien bidez, egunkarietako publizitatea kudeatzeko eta harpidedunei etxean banatzeko azpiegitura sortu da, kanpoko zerbitzuen menpe erabat ez egoteko, aurreko eskarmentuak erakutsi digulako, kanpoko zerbitzu horiek erdarazko komunikazio-eremua sustatzea helburu duten komunikabide batzuen taldeetakoak direnean, euskarazko medioen beharrei erantzuteko antolaketarik ez dutela eta interesik ere ez dutela.

5. Hurrengo urteei begira datorkigun egoeraz gogoeta

Prentsan, hurrengo urteetan, eragina izango du doako egunkariak sortzen ari diren egoera berriak, horrelakoak ugal-tzen ari baitira. Doako egunkari lokalak asko ugaritzen ari dira hirietan, eta, dirudenez, Europa osoan, estatu mai-lako doakoen aukerak ere aztertzen ari dira. Bide horretatik, Hego Euskal Herrian baditugu doakoak bi hiriburur-tan, Bilbon eta Iruñean, eta, ematen duenez, hurrengo hilabeteetan beste batzuk argitaratzeari ekingo diote Espai-niako komunikazio talde handiek. Hainbat gogoeta kaleratu behar dugu, eztabaidatu eta aztertzeko interesgarriak.

5.1. Doakoa izatea

Doako prentsaren aukera, duela gutxi arte, Euskal Herrian tokiko aldizkariei lotuta egon da, eta euskarazko herri aldizkari gehienak (ia denak) doan banatu izan dira, harpidetza bidez edo era masiboan. Orain, ordea, komunika-zio talde handienak ere doako produktuekin merkatuan tokia hartu nahian dabilta.

Euskarazko prentsa salmentarekin eta publizitatearekin ez da bideragarria gaur egun, eta diru laguntzen beha-rra handia da oraindik ere. Horregatik, argi dago publizitatearekin bakarrik finantzatzeko prentsa ezinezkoa dela euskarazkoaren kasuan. Diru laguntza handiak izan ezean, euskarazko medioak ezin dira lehiatu erdarazko doako-ekin.

5.2. Eragina euskararen normalizazioan eta zabalkundean

Doako egunkariak kaleratzeak ohiko egunkarien salmentan zenbateko eragina duen oraindik ez dago argi, baina, dudarik gabe, euskaldunontzat argi dago: egun, nagusiak hartuta 6-7tik bakarra bada euskarazkoa, laster 9-10etik bat izango da euskarazko egunkarien 'dentsitatea' Euskal Herriko kioskoetan. Euskararen presentzia urtetik urtera txikiagoa da proportzioan, erdarazko berri bat dagoen heinean euskarazko bakarraren pisua jaitsi egiten baita. Erda-razkoak ugaltzen ari diren neurrian, gero eta aukera handiagoak bakoitzak nahi duen moduko produktua topatze-ko; izaera guztietako jendearentzat egin beharreko egunkari bakarraren bidez ezinezkoa dena. Horrek ere zaildu egingo du euskarazko egunkariaren zabalkundea, bakoitzaren interes eta beharrak asetzeko aukera handiagoa topa-tuko duelako irakurleak erdarazkoen artean duen ugaritasunean.

Euskal prentsaren sektorean oso ondo aztertu behar dugun fenomeno da hori, euskarazko komunikazio-ere-mua osatu eta zabaldu nahi bada, kioskoan gero eta ezutuago geratuko den euskarazko prentsak bere tokia egin dezan lan egin beharko dugulako.

5.3. Sektorearen egituraketa berria

Doako produktu horiek publizitatea dute diru iturri, eta, asko ugaltzen badira, ezinezkoa izango da egunkari guz-tiak finantzatzeko adina publizitate izatea; are zailago publizitate nagusia batez ere ikus-entzunezkoetara bidera-tzen ari den garai honetan. Horrek guztiak erdarazko komunikabideen sektorea ere berregituratzea ekarriko du hurrengo urteetan; gaur egun tokia hartzen ari diren talde handi horietako batzuek aurrera egingo dute doako pro-duktruekin, baina beste batzuek zail izan dezakete etorkizuna. Baina oraindik garaiz da aurreikuspen txukunak egi-teko, beste hipotesietako bat etorkizuneko egunkariak doakoak izatea delako. Hala ere, batera edo bestera, urte hauetan zabaltzen ari den sektoreak egituraketaren bat derrigorrez beharko du.

Egoera honen aurrean, euskarazko prentsak ere egin beharko du bere gogoeta eta aurrera egiteko ekimenak gara-tu beharko ditu, ahal den neurrian indarrak bilduz eta erdarazko komunikabide talde nagusien pare lan egiteko egitura sortuz. Indarrak batu eta elkarrekin aritzeak garrantzi handia izango du aurrera begira eta EKT prest dago bide horretan lan egiteko, akordioak egin ditzakeen edonorekin elkarlanean aritzeko prest, urratsez urrats euskal komunikazio-eremua euskarazko egiten joan gaitezen.

e. TOKIAN TOKIKO PRENTSA ETA INFORMAZIOAREN GIZARTEA

Jasone Mendizabal
Topaguneko zuzendaria

1. Sarrera

Ezer baino lehen adierazi beharra daukat ez naizela informazio zientzietan doktore, soziologo, hedabideetan aditu, ezta sikieran kazetari ere. Lan honen enkargua egin didate Topagunea Euskara Elkartearen Federazioan hedabideen arloan daukadan arduragatik, eta beraz, ezinbestean Topaguneko ikuspegia ekarriko dut hitzaldi honetara. Garrantzitsua da hori azpimarratzea, hitzaldi honen bidez tokiko hedabideen inguruan azalduko dudana ikuspegia euskara elkarteetan ezaguna bada ere, kazetari eta lan honetako irakurle askorentzat seguruenik berria izan baitaiteke. Euskararen erabileran eragitea da Topagunearen helburua eta horretarako estrategiarik eraginkorrena bilatzen du tokiko hedabideentzat.

Hori esanda, txosten honen izenburuari helduko diot, eta aitortuko dut izenburua handiegi gelditzen zaidala: “Tokian tokiko prentsa eta informazioaren gizartea”. Tokian tokiko prentsari buruz ez naiz arituko, **euskarazko** tokian tokiko prentsari buruz arituko naiz, eta bereziki, Topaguneko bazkideak hartuko ditut oinarritzat. Izenburu horrekin askori idatzizko prentsa etorriko zitzaizuen burura, baina nire asmoa euskarazko hedabideez aritzea da, tokiko informazioa lehenetsuz jorratzen duten guztiez, idatzizko zein ikus-entzunezko, uhin zein Internet bidezko.

Esparru horretaz Topaguneko gogoetak oinarritzat hartu baditut ere, lan honetara ekarritako guztia ez dago federazioak onartuta, neure ikuspegi pertsonala ekarri dut hona.

Berriz ere, izenburuari helduz, badirudi informazioaren gizarteaz gogoetaren bat aurkeztuko dudala, baina hori ere ez dut egingo. Horretaz asko dakiten adituak badaude eta gai hau jorratuko du espresuki Josu Landak. Laburbilduz, informazioaren gizartearen gauden honetan, euskarazko tokiko hedabideentzat etorkizunerako balizko estrategia bat aurkeztuko dut, beti ere Topagunearen ikuspegitik (horrek esan nahi du, euskararen normalizazioaren eta bereziki, erabileraren, ikuspegitik). Hori esanda, txostenari izenburua alda geniezaioke, eta hurrengo honekin agian erosoago sentituko nintzateke: “Tokian tokiko hedabideen etorkizuna eskualdekako multimedia egitasmoetan”.

Beraz, datozen lerrootan estrategia honen nondik norakoak eta berau sostengatzeko argumentuak azaltzen ahalginduko naiz. Ekinera ez dakit oso bidezkoa izan den, entzuleak jatorrizko izenburuarekin egindako espektatiba bertan behera gelditu ahal izan baita, baina ea kontatzen dizuedana ere zuen interesekoa den.

Lan honek, ohiko sarreraz eta ondorioez gain, lau atal ditu. Lehenengoak Topaguneko tokiko hedabideen sektorea aztertzen du ikuspegi orokor batetik. Bigarren atalean multimedia egitasmoek informazioaren gizartearen dezaketen tokiaz mintzatzen naiz. Hirugarren atalean hedabide bakoitzaren ezaugarriak banan-banan aztertzen ditut eta bukatzeko kudeaketarako eta finantzaketarako eredu bat proposatzen dut. Harira joango naiz, eta, hasteko, Topagunearen eta euskara elkartearen eginkizuna eta izaera azalduko dizkizuet hurrengo puntuan, horiek ardatz izanda bakarrik uler baitaitezke hedabideentzat zein bestelako arloentzat proposatzen diren helburuak.

2. Topaguneko tokiko hedabideak

2.1. Topagunea Euskara Elkartearen Federazioa

Topagunea federazio bat da, **76** euskara elkarte **bazkide** dituena. Bere eginkizuna **euskara elkarteak sustatu eta bazkideei zerbitzua ematea** da. Honela bada, bazkideek mugatzen dute Topagunearen jarduna.

Euskara elkarteak aipatu ditut, eta hauen eginkizuna ekarriko dut gogora: **euskararen erabilera sustatzea gizarte esparru guztietan**, aisialdian, hedabideetan, lan-munduan, etab. Euskara elkartearen lan ardatzak bost arlotara zuzenduta daude nagusiki: entitateen euskalduntzea, tokiko hedabideak garatzea, haur eta gazteen aisialdia jorratzea, kulturgintza eta euskaldun berrien mintzapraktika. Horiek horrela, Topaguneko lan arloak ere bost ardatz horietan kokatzen dira, lan arlo bakoitzeko euskara elkarteentzat bitarteko egokienak antolatzen ahalegintzen dela: promotora zerbitzuak, infoegiturak, administrazio eta gestio lanak, prestakuntza, programa arrakastatsuen hedapenerako egitasmoak...

Topaguneari, hortaz, **euskararen erabileran eragin** nahi du, **gizarte esparru guztietan eta euskararen eremu osoan**. Ikuspegi horretatik lantzen ditu bere analisiak federazioak eta arlo bakoitzean ereindakoak beste arloetan ere eragiten duela uste du gainera. Adibide bat jartzearen, gazteen aisialdian euskara sustatzeko egitasmoek, euskarazko prentsarako irakurle potentzialak lantzea ere ekarri beharko luke berarekin. Honela bada, Topaguneari bere bazkideen jarduna lan esparru ezberdinetara zabal dadin sustapen lana egiten du. Tokian tokiko euskara elkarteak euskararen erabileran daude autozentratuak eta ikuspegi horretatik ezarritako helburuen arabera lehenesten dituzte beraien lan arlo eta egitasmoak kasu bakoitzean dagokien errealitateari egokituta.

Euskara elkarteak euskaldun guztiei irekiak dira, eta elkarlanean oinarrituta, euskararen erabilera sustatzeko egitasmo integratzaileak lantzen ahalegintzen dira. Topagunearen bokazioa hauen jarduna euskararen eremu osoa zabaltzea da, Azkoitira bezala Tuterara; errealitate hauek guztiak aintzakotzat hartu beharra dauka federazioak.

Hedabideetara joz, Topagunearen sail honek bere barnean 36 herri aldizkari, tokiko bi telebista (hirugarrena bazkide egiteko bidean da) eta beste hiru tokiko irrati biltzen ditu. Gainera, hauetako batzuek Interneten ere jartzen dituzte beraien edukiak eta bestelako produktu bereziak ere kudeatzen dituzte sarean. Idatzizko prentsak dauka pisu espezifikorik handiena Topaguneari, baina, aurrez azaldutako filosofiari jarraiki, Topaguneari hedabide oro euskaraz gara dadin egiten du lan, eta ikuspegi honetatik halabeharrez multimedia egitasmoak bultzatzea izan behar du jomuga.

2.2. Tokiko hedabideak eta gertuko informazioa

a. Tokiko hedabideak

Lehenik eta behin tokiko hedabideak definitu eta zer diren aztertze ahalegina egingo dut. Edorta Aranek telebisten inguruan idatzitako txosten bati Miquel de Moragas Spàren definizioarekin ekiten zion eta berau hartu dut oinarri, tokiko hedabideetara orokortzeko baliagarria izan daitekeelakoan:

“Tokiko telebista (**hedabidea**) nagusiki **tamaina txiki edo ertaineko giza komunitate** bati zuzentzen dena da, lur eremu jakin batean, bere eguneroko esperientziei buruzko edukiak, bere kezka eta arazo-
ei buruzkoak, bere hizkuntza, arte zein kultur ondare eta bere memoria historikoa jorratzen dituena”.

Azpimarratu beharra dago, gertutasun zentzu honek ez duela bakarrik kontuan hartzen **gertuko edukien zabal-kundea** (herritarrentzat esanguratsua, beraien zeinu, erreferente eta eguneroko eta gertuko errealitateari lotuak), baizik eta bere **tokian tokiko ekoizpena** ere.”

Definizio honek Topaguneko hedabideak deskribatzeko balio lezake, baina bere horretan beste mota askotako hainbat hedabide ere onartuko lituzke bere baitan. Herrialde mailan zabaltzen diren produktu askok tokiko hedabidetzat dituzte beraien buruak, nahiz eta hauek hedabide talde handien parte diren. Vocento taldeko web orrian sartuz gero “multimedia regional”-ean kokatzen ditu *El Correo*, *Diario Vasco*, *Diario Montañes*, *Hoy...* eta gainontzeko bere egunkari eta edizioak. Herrietako kronikak lantzea dute estrategiatzat argitalpen hauek eta berauetan oinarrituta multimedia lokalen sarea garatzen ari dira.

“Vocento posee 11 diarios líderes regionales en sus respectivas áreas geográficas. La difusión de estos periódicos supera el medio millón de ejemplares diarios, con una audiencia cercana a los dos millones y medio de lectores. En torno a estas cabeceras se están creando multimedias regionales (compuestos por el periódico, radio, televisión, portal y un gratuito -todos ellos de ámbito local- y una comercializadora publicitaria), que refuerzan el liderazgo de Vocento en importantes mercados regionales.” (Vocentoren web orritik hartua).

b. Hurbileko informazio orokorra

Auzo, herri zein eskualde mailako informazioa da, nagusiki komunitate natural bateko hurbileko berriak jorratzen dituen, eta publiko orokorraren interesekoa dena. Moragasen definizioko **tamaina txiki edo ertaineko giza komunitatea** eskualdera mugatu dugu, tokiko hedabidearen eragin esparrua, eskualdea, herria, zein auzoa hartu ditugularik. Eskualdea eremu aproposa da gizarte ehuna sortzen laguntzeko; tokiko hedabideek, eskualdean (herrian) sustarrituta egonik, giza komunitate hauetan komunikazioa areagotu eta hobetzeko funtzio garrantzitsua betetzen dute. Herrialde mailako produktuek berriz, ez dute horrelako gertutasunik bermatzen eta are gutxiago hedabide-kateek dituzten monopolioek. Hedabide-talde handiak eta hedabide txiki autonomoak argi bereizten dituen beste faktore bat ere ondo azpimarratzen zuen Mariano Ferrer jubilatu berri den kazetari ezagunak:

“Gaur egun kazetaritza independentea egiteko asmoa duenak askatasun neurrigabea eta hedabide txiki batean aritu behar du. Askatasun itzela funtsezkoa da, egiten utzi behar dizute. Utzi. Eta hori hedabide txiki batean baino ezin da” (Mariano Ferrer, *Argia*, 2004-VII-11).

Gertutasunaz, tamainaz eta eragin-esparruaz aritu naiz orain artean, baina badira beste zenbait ezaugarri Topaguneko tokiko hedabideei lotutakoak, beraien izaeragatik bestelako produktuetatik bereizten dituztenak. Horiei buruz arituko naiz hurrengo bi puntuetan.

2.3. Topaguneko tokiko hedabideen sektorea

a. Sektore askotarikoa

Topaguneko tokiko hedabideen errealitatea askotarikoa da; ezaugarri hori hainbat ikuspegitatik begiratuta antzematen da gainera. Egunkaritik hasi eta bi hilabetekarira, hedabide bakarretik multimedia egitaspora, langile baka-reko elkartetik 40 lagunetik gorako enpresara, euskara batutik euskalkira, aldizkari formatutik tabloidera... askotarikoa dira gure hedabide bazkideen ezaugarriak eta guztiak beharrezko eta garrantzitsuak. Desberdintasunen gaitetik, baina, hedabide hauen sektorea definitzen duen lehen ezaugarria beraien helburua da, euskararen erabilera-ri lotutako helburua.

b. Tokiko hedabideen helburua: euskararen erabileran eragitea

Euskararen erabilera sustatzeko helburuarekin, tokian tokiko herritarren komunikazio beharrak euskaraz asetzea dute helburu tokiko hedabideek, era guztietako euskarri komunikatiboez baliatuz, direla irriatiak, direla aldizkariak, telebistak nahiz internet bidezko produktuak. Tokiko hedabideari dagokio bere herri zein eskualdeko euskaldun

oreren komunikazio beharrak asetzeko moduko produktuak eskaintzea. Topaguneak, berriz, tokian tokiko errealtateak euskararen eremu osora zabal daitezen sustapen-lana egiten du, besteak beste. Azpimarratu beharra dago, euskarazko produktuak ekoiztea garrantzitsua bada ere, ez dela helburu nahikoa, euskararen erabileran eragitea erantsi behar zaio helburu horri; hori bilatzen du hain zuzen Topaguneak: euskarazko hedabide horiek ahalik eta jende gehienarengana helaraztea, kalitatekoak izateak bakarrik ez baitu bermatzen irakurriak, ikusiak, entzunak, erabiliak izatea... behar den tokira heltzen ez badira. Beraz, kazetaritzaren ikuspegitik kalitatea bermatzeaz gain, helburu hori gaingitu beharra dago zabalkundea ere bermatuta, euskaldun orok izan dezan aukera euskaraz informatua izateko.

c. Lehengaia: tokiko informazioa

Euskarazko komunikazio-esparruan kokatuta, Topaguneko tokiko hedabideek gertuko/tokiko informazioa jorratzen dute. Horixe da, hurbileko informazioa hain zuzen ere, sektore honen lehengaia. Hedabide hauek **giza komunitate horretan gaurkotasunezkoak diren informazio eta albisteak eskaintzen dituzte**. Horrez gain, badira Moragasen definizioan jasotzen diren bestelako funtzioak ere betetzen dituzten tokiko hedabideak: arte zein kultur ondarea jorratzen dutenak nahiz memoria historikoa jasotzen dutenak, adibidez. Baina honelako edukiak hedabideok aberastu ahal badituzte ere, ez dira ezinbestekoak tokiko hedabideen alorrean.

Tokian tokiko errealtateen eta beharren arabera tokiko hedabideek Moragasen definizioko funtzio bat edo beste, guztiak edo bakarra jorratuko dute eskualde bakoitzeko eragileek jarritako lehentasunen arabera, baina beti ere oinarria gertuko albisteak eskaintzea izango da. Honela bada, **Topaguneko tokiko hedabideen lehengai nagusia hurbileko interes orokorreko informazioa izango da, oinarrian tokiko gaurkotasunezko albisteak**. Ezin da ahaztu gertuko albisteak, publiko orokorrarengan sortzen duten interesagatik, euskararen erabileran masiboki eragiteko tresna ezin hobea direla.

d. Erreferentzialtasuna

Giza komunitate horren informaziorako erreferentzia izatea dute jomuga tokiko hedabideek. Horra hor Topaguneko bazkide den DHK-k bere barne irizpideetan jasotakoa: "... tokiko hedabideak ez dira ideologizatuak izan behar, herritarren medioa izan behar dute, ez udalena ez zenbait auziren kontrakoen edo aldekoena, ez euskaltzaleena bakarrik, ez ideologia batekoena. Euskaraz irakurtzeko/ulertzeko gaitasuna daukaten, edo euskaraz irakurtzeko/ulertzeko ahalegina egiteko prest dauden guztiena eta guztientzat izan behar dute. Tokiko hedabideek ez dute beren iritzirik eman behar, baina bai izan behar dute iritzi sortzaile eta horren inguruko gaien lantzaile, eta modu honetara erreferentzialtasuna irabazteko gai izan behar dira".

e. Hedabide autonomoak

Informazioaren tratamendurako funtsezkoa izango da tokiko hedabideek beren helburuen arabera funtzionatzea, ez beste inoren interesen arabera. Horretarako, tokiko albisteen kudeaketa eskualde/herrietako komunikazio eskaintza aberastera ez ezik, euskararen erabileran eragitera bideratuko da.

Horiek izango dira Topagunean federaturiko tokiko hedabideen jardunaren ardatz eta xede nagusiak. Ikuspegi honetatik, hedabide lokalek ezinbesteko ezaugarri izango dute, batetik, parte-hartzaile izatea eta, bestetik, informazioaren tratamendu kontrastatua jorratzea.

Aurreko ezaugarria beteko bada, hedabide lokalek bakarka eta sektore bezala jarduteko **beregaintasuna** izan behar dute, hau da, beste hedabide-taldeei zein erakunde ekonomiko, politiko eta administratiboetarako dagokienez **autonomiaz jokatzeko** moduan izan behar dira. Bakarrik modu honetara bermatuko da independentzia, eta herritarrentzat erreferentzialtasuna.

f. Enpresa ikuspegia eta optimizazioa

Helburuak helburu, tokiko hedabideak txikiak dira (are txikiagoak euskarazkoak), baina merkatuan hedabide-kate erraldoiekin lehiatu behar dira eta horretarako ezinbestekoa izango da enpresa modura lan egitea, enpresek eskaintzen dituzten tresna guztiak baliatuta. Hori guztia profesionaltasuna eta gizarte-ekimenetik zehaztutako balioak uztartuta egin beharko da.

Tokiko hedabideen altxorra daukaten lehengaiak da, tokiko informazioa hain zuzen ere, herritarrentzat balio handikoa eta bestelako hedabide-taldeentzat desiragarria. Herritarrek sortuak, tokiko hedabideek beste hedabideek baino gertutasun gehiago dute eta, beraz, gertuko informazioa hobeto jorrazteko aukera gehiago. Eta hori baliatu beharra daukate. Gainera lehengai honi dagokion balioa ematen ikasi behar dugu, preziatua baita, eta dagokion truke-balio ekonomikoa eman behar zaio.

Euskarazko tokiko hedabideek lehengai hau kudeatu dute, tokiko aldizkariak, telebistak, Interneteko hedabideak zein irratia sortuta. Baina etorkizunera begira, hori ez da izango nahikoa. Produktu solteek ez dute indar nahikorik izango hedabide-talde handiekin lehiatzeko. Eta, ezinbestekoa izango da lehengai horren tratamenduan optimizazioa bilatzea. Gertuko informazioa bere forma guztietan jorratu beharra dago: idatziz zein irudiz, Interneteko zein telebistarako, lehengai horri etekina aterako badiogu. Multimedia-taldeak garatzea jomuga izan beharko dugu ezinbestean. Aurreko guztia kontuan hartuta, nekez lortuko ditugu komunikazio-enpresa indartsuak herriko esparruan; hortaz, garrantzitsua izango da ekoizpen-zentroak eskualdera zabaltzea.

g. Tokiko hedabideen sarea

Azkenik, herri/eskualde ezberdinetako tokiko hedabide edo hedabide-taldeen artean harremanak estutu eta sinergiak aprobetxatzea ezinbestekoa izango da. Sarean lan egitearen abantailak honakoak izan daitezke:

- Guztientzat erabilgarriak diren zerbitzu komunak antolatzea.
- Erosketak zentralizatzea eta merkatzea.
- Ekoizpenerako gune espezializatuak sortzea hedabide bakoitzari zuzenduta.
- Ikerketa eta garapenerako baliabideak partekatzea eta aholkularitza bertatik bideratzea.
- Eskualdez gaindiko publizitatea eskuratzea (marka handiak).
- Interes orokorreko ekoizkinen elkartrukea ahalbidetzea.
- Nazio osorako produktuak kaleratu eta sustatzeko plataforma indartsua sortzea.
- Euskarazko tokiko berri-agentzia sortzea.

Sare hori osatzen eta indartzen ahalegintzen da Topaguneko Hedabide Saila, hedabideei zuzendutako zerbitzu zehatzak antolatzea iznaik bere jardura nagusietako bat. Bere egitekoen artean daude, halaber, aholkulari-lana eta gidari-lana. Hedabide lokalen argitaratzaileek Topagunean **elkargune bat daukate**, haien beharrezkotzat jotzen dituzten plan eta zerbitzu komunak erabakitzeko, arautzeko eta garatzeko, baina beraien autonomia mantenduta, (bai behintzat hedabideen monopolioak ekidin nahi baditugu).

3. Multimediai informazioaren gizartearen

3.1. Hedabide lokalak informazioaren gizartearen

a. Informazioaren gizartearen

Egungo garai modernoak komunikazioan ekarri duen aldaketa apartekoa da, komunikazioak gizartearen antolakuntzan zentraltasun ikaragarria hartu baitu. Orain dela gutxi arte nagusiki kulturari eta eraikuntza ideologikoari

eragiten zion komunikazioak; orain berriz, aurrekoetz gain bestelako faktore ekonomiko eta teknologikoetan presentzia estrategiko nabarmena hartu du. Komunikazioak kulturaren eta ideologian zeukan eragina logika berri eta konplexuagoen baitan gauzatzen da orain. Informatikak, elektronikak, telekomunikazio-sareek eta enparauek komunikaziora ekarritako aldaketek gizartearen garapenerako balio estrategiko handieneko sektoreak ukitu dituzte. Alabaina, komunikazioaren ekoizpenak (edukiak) geroz eta menpekotasun handiagoa du komunikazioaren transmisioarekiko; are: funtzio subsidiarioa hartu du honekiko.

b. Aldaketak komunikazioaren garapenean

Komunikazioaren digitalizazio prozesuak honen garapenean ekarritako aldaketa nagusiak ongi azaltzen ditu Miquel de Moragas Spák (Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko Komunikazio Institutuko Zuzendaria) “Las ciencias de la comunicación en la sociedad de la información” bere lanean. Aipatu txostenean jasotako lau aldaketa nagusiak laburtzen ditut jarraian.

1. Edukien ekoizpenaren eta gordeketaren garrantzia

Komunikazio-prozesu sektorial eta indibidualizatuen ugaritzea: komunikazio sistema berrien eta bereziki digitalizazioaren eraginez, informazio-ekoizleen eta hartzailerearen arteko elkarreragina ahalbidetzen du. Informazioaren bilaketa automatikoak informazioa aukeratzeko modu berriak ekarri ditu (selfmedia), eta ekoizpenak eta honen gordeetzeak garrantzi berezia hartu dute.

2.- Lokala globala da

Lokalaren eta globalaren arteko harreman berria gure kultura komunikatiboan: komunikazio modernoan espazio globalez gain, espazio lokalak biderkatzen ari dira. Moragasen arabera, Europan izandako nazioarteko telebista-estakintzen ugaritzearekin batera, gertuko telebisten eskaera mantendu ez ezik handitu egin da. Are gehiago: satelitei eta komunikazio interaktiboari esker tokiko espazioek mundu osorako zabalkundea lortzen dute. Komunikazio lokala definitzen duena ez da dagoeneko jomuga duen eremua, bere ekoizpenaren jatorria baizik. Horregatik, komunikazioan izandako aldaketek *mass communication* garaitik egungo komunikaziora ekarri gaituzte, era berean globala eta lokala.

3. *Selfmedia* edo hedabide pertsonalizatuen garapena

Informazioaren ekoizpenaren garrantzia gero eta handiagoa da: badirudi informazio irekiak protagonismoa galduko duela etorkizuneko komunikazioaren ekoizpen, zirkulazio eta erabilpenean, giltzatuta eskainiko den informazioaren mesedean; hori dela-eta, *password*, kreditu txartelaren kodea, harpidetza eta antzeko kontzeptuak nagusituko omen dira laster. Informazioaren hedapenerako euskarriak askotarikoak dira oraindik ere, eta ekoizpenean bereziki kontzentrazio handia izan da. Azken hau ekoiztetxe gutxi batzuetan kontzentratu da. Kontzentrazio-prozesu hori areagotzen hasi da, ekoizpenean ez ezik, hedapenean ere gaur egun dagoen aniztasuna desagertzeko bidean hasi baita. Testuinguru honetan gertatzen ari dira ekoiztetxe enpresa handien eta hedapen-taldearen arteko elkar-tzeak eta fusioak.

4. Komunikazio lokalaren berraurkitzea

Informazio-masa ikaragarri honek dakarren nekea, eta komunikazio tradizional eta komunitarioari dakarkion balio-berritzea: informazio promozional, publizitario, estrategiko, tekniko, instituzional... eskergak komunikaziorako modu tradizionalak berreskuratzeko beharra ekarriko duela dirudi. Komunikazio globalizatuak, komunikazio lokala berraurkitzera garamatza, kulturaren industrializazioak identitatearen aldarrikapena indartzen du eta komunikazioaren hiper-teknifikazioak pertsona-arteko eta komunitateko komunikazioaren garrantziaz jabeazten gaitu.

Hauxe da tokiko hedabideentzat etorkizuneko testuingurua bere mehatxu eta aukerekin. Hedabide-talde handiak abiadura ikaragarrian hasi dira multimedia talde lokalak sortzen, eta euskarazko tokiko hedabideok erronka gogorra daukagu esparru hau geureganatu eta sare indartsu bat osatzen.

3.2. Tokiko hedabideen etorkizuna multimedia egitasmoetan

a. Multimedia egitasmoen aldeko arrazoiak

Badirudi informazioaren gizartean euskarazko multimedia egitasmoentzat aukera bat egon litekeela. Proiektu hauek bultzatzeko arrazoi garrantzitsuak egon daitezke; hona nagusiak:

- Hurbileko informazioa bere forma guztietan euskaraz lantzeko aukeraz baliatzea.
- Hedabide ezberdinetan emandako informazioaren inpaktu komunikatibo biderkatzailea geuk erabakitako irizpideen arabera lantzea.
- Hedabide ezberdinen arteko sinergiak baliatzea baliabideen optimizaziorako.
- Hedabideen batasunaren bidez eskualde osoko enpresa egonkorak sortzea eta beraien arteko elkarlanaren bidez sare indartsua eratzea.
- Etorkizuneko multimedia-komunikazioa euskaraz landuko bada, horretarako gure multimedia enpresak prestatzea.

Bost arrazoi hauek hurrengo bi puntuetan luzeago azalduko ditut.

b. Lehenengo lau arrazoen azalpena

“Goiena Esperientzia” txostenean izaera multimediak egiten den gogoetan ondo azaltzen dira lehenengo lau arrazoiak; hona aipatutako txostenaren zati bat: “Monomediak multimediarentz” (Goiena Esperientzia, 2001-04-27).

Euskarazko toki komunikabideen kasuan, medio bakarrean jardutea tarteko urrats gisa hartu behar da, ez jomugatzat. **Hedabideon helburu komuna da hurbileko komunikazio modu osotuan euskaraz garatzea, euskararentzat esparru berri eta entzutetsua irabaztearekin batera**, gizartearen barne kohesioa eta komunitate zentzua bultzatuz. Helburu hori bete-betean lortzeko, tokiko hedabideek ahalegina egin behar dute beren esparrua guztiz betetzeko, eta esparru horretan lehenak izateko. Hori multimedia izanda bakarrik lortu ahal da: tokiko informazioa lantzeko medio anitz izanda, hain zuzen.

Izan ere, multimediaren teoriak dio **mezu baten eragina handiagoa dela hiru mediotan behin aipatzen bada, medio berean hiru aldiz aipatuta baino**. Lehenik irratian zuzenean entzun dugun albistea, handik gutxira telebistan ikusten badugu, eta biharamunean egunkarian irakurtzen, albistea ontzat emango dugu. Nekezago lortzen da hori, medio bakarrean hiru aldiz emanda.

Multimediaren aldeko beste puntu bat **baliabideen optimizazioarena** da. Iaz irakurri zen (*El País*, 2000-03-28) Estatu Batuetan *The Chicago Tribune* argitaratzen duen talde multimediak aurkikuntza izugarria egin zuela. Medio ezberdinetako erredaktoreak, bakoitza bere mediorako jarduteaz gain, talde osorako eduki hornitzaile bihurtzen baziren, sekulako aurrezte eta sinergia sortzen ziren taldearentzat, eta birmoldaketa sakona ari ziren gauzatzen aurkikuntza horretan oinarrituta. Hauek dira artikularen zatirik esanguratsuenak: “... Sinergia, edo multimedia kazezaritza honela lortzen da: egunkariko erredaktore batek informazioa eskuratzen du eta, hurrengo eguneko edizioan argitaratuko dena prestatu baino lehen, behin -edo eguneratutako bertsio gehiago- idatziko du Interneteko edizioan, eta gertatutakoa azalduko du enpresaren telebista edo irrati kateetan. Berdin gertatuko da albistea lortu duena telebistako edo irratiko erreportaria bada. Argazkilariei bideo kamerak eraman ditzatela eskatzen zaie. (...) Sinergiak irauli egin ditu Tribune taldeko hiru egunkari...”.

Tribune moduko talde handi batek agian txiripaz edo ikerketa sakonei esker egingo du aurkikuntza hori. Multimedia txiki batek begien aurrean du optimizazioarena. Herriko aldizkaria eta eskualdeko telebista bakoitza bere aldetik badabilta, ekitaldi batera erredaktore bana bidali beharko dute, kameralaria eta, agian argazkilariarekin batera. Talde bereko bi medio izanik, erredaktore bakarrak jasoko du informazioa bi medioetarako, eta kamerariak egin lezake argazkilaria ere.

Eta honek berdin balio du bi medio baino gehiago badira ere. Eduki hornitzaileak eramandako informazioa, gero medio bakoitzeko erredaktoreak egokitu beharko du bere medio horretarako, baina pertsona bakarrak egin du bestelakoetan hiru edo laurekin egingo litzatekeena. Zenbat eta medio gehiago izan, orduan eta ekonomia handiagoak izango dira.

Bada azken puntu bat, euskarazko hedabide lokalen kasuan, multimediararen aldekoa. **Indarrarena**, hain zuzen. Komunikazioaren esparruan interes ekonomiko eta politiko handiak daude, eta lehiakideak gero eta indartsuagoak dira. Lehian irabazteko, edo gutxienez irauteko, indarra behar da. Eta handien aurrean, txikien indarra batasuna da, elkartasuna eta herritarren atxikimendua. Bakarka, jai.

Hedabideen bateratzeak sinergien aprobetxamendua eta indarra eman diezaieke tokian tokiko hedabide-enpresei. Monomedia ikuspegia gainditu beharra dago, tokiko hedabideen etorkizunerako estrategiak ikuspegi zabalago batetik diseinatuta.

c. Multimedia komunikazioa

Aurkeztutako bosgarren arrazoia komunikazioari berari lotutakoa da; badirudi, horri loturik, oso urrun gaudela oraindik ere benetako multimedia komunikazioa lortzetik. Nafarroako Unibertsitateko Komunikazio Fakultateko irakasle eta bertako multimedia komunikaziorako laborategiko zuzendari Ramon Salaberria Doktoreak honela ikusten du multimediararen etorkizuneko erronka.

Multimedia kontzeptura hurbilpena plano komunikatibo zein instrumentaletik. Multimedia komunikazioa: aldi berean hainbat hedabidetan adierazitako mezuan oinarritzen da. Idatzizko zein ikus-entzunezko hainbat elementuk osatzen dituzten produktu baterakoiak dira. Multimedia integrazioak, testu eta ikus-entzunezko elementuen integrazioaren ondorioz ekoiztutako eduki informatiboak dira. Multimedia enpresa: hainbat hedabideren justaposizio hutsa dakarren fenomeno, zeinen informazio ekoizkinek ez daukaten zertan elkarren arteko zerikusirik izan. Enpresa hauek hobekuntza instrumentalak bilatzen dituzte, eta hainbat hedabidez osatutako kudeaketaz baliatzen dira: alde batetik gastuak murrizteko eta bestetik hirugarren batzuk beraien merkatuan sartzeari ekiditeko. Hedabide arteko osagarritasuna bilatzen dute eta herritarren arreta ahalik eta denbora gehiengan monopolizatzea, informazioa eta entretenimendua hainbat bidetatik eskainita. Informazio saturaziorako arriskua egonik ere, audientziaren etengabeko informazio-kontsumoa bilatzen dute hedabide-talde ezberdinen bitartez. Egungo kontsumitzaileak gero eta informazio sakonagoa eta gaurkotuagoa eskatzen die hedabideei. Gertaerak erakutsiko dizkioten irudiak, albisteak kontatuko dizkion soinua eta berri horiek azalduko dizkion testua bera eskatzen ditu.

Kazetaritzaren muga digital berria ez da dagoeneko teknologikoa, linguistikoa baizik, komunikatiboa. Egungo teknologia digitalari esker, kazetariak esperimendu ahal dute hizkuntza berriekin, zeinak modu eraginkorrean bateratuko dituzten testuak eta ikus-entzunezkoak. (Ramon Salaberria Doktorea: *Aproximación al concepto de multimedia desde los planos comunicativo e instrumental*).

Prozesu honetan, beraz, ezinbestekoa izango da multimedia azpiegiturak sortzea hedabide bakoitzaren mesederako sinergiak balia ditzagun. Baina, bestalde, etorkizunean komunikaziorako produktu berriak euskaraz sortzeko gai izan gaitezen prestatuta egon beharko gara, eta, horretarako, komunikaziorako elementu berriak integratzeko baliabideak gure esku izan beharko ditugu.

4. Tokiko hedabideak

Tokiko hedabideen ezaugarri orokorrez eta multimedia taldeen onuraz aritu naiz aurreko bi ataletan. Guztiek gertuko informazioa lantzen dute, honen aurkezpenerako formula ahalik eta erakargarrienak erabiliz: hizkuntza arin eta ulerterraza, gaur egungo diseinua, azken puntako teknologia... Honek guztiak publiko orokorarentzat interesgarri egin ditu tokiko hedabideak, eta interes hori euskararen erabilera areagotzeko baliatu dute euskara elkarteek.

Edozelan ere, hedabide bakoitzak bere nortasuna dauka, bere berezko ezaugarriak; azter ditzagun, beraz, hedabideok banan-banan.

4.1. Tokiko aldizkariak

a. Idatzizko prentsa

Tokiko irrati, telebista eta Internet bidezko albisteak, hirurak dohainik jasotzen dira, eta kasu bakoitzean behar den aparatua izanez gero, helburu duen eremuan herritarrek automatikoki eskura izango ditu gertuko albisteak, ezer ordaindu behar izan gabe; argindarra eta Interneteko telefono linea salbu. Aipatu hedabideak (egon dauden tokietan behintzat), idatzizkoak baino demokratikoagoak direla esan genezake, edonorentzat eskuragarri baitaude. Baina paperezko euskarria duten hedabideak, lehengaiaren kostu altuagatik, ordaindu beharreko produktuak izan dira orain gutxi arte. Euskarazko aldizkarien artean hori horrela izan da tokiko aldizkariak sortu artean. Erdaraz berriz, doako produktu gero eta gehiago dago kalean. **Doakotasuna** bai edo ez, gai eztabaidatsua da oraindik ere tokiko aldizkarien esparruan.

Idatzizko prentsan, berriz, faktore erantsi bat da **maiztasunarena**, maiztasun ezberdineko produktuak oso izaera ezberdinekoak izan baitaitezke; esate baterako, hilabetekariak eta astekariak.

b. Eskualdeko doako astekaria

Doakotasunaren eta maiztasunaren inguruan, irizpide batzuk lehenestea eta norabide bat finkatzea badira Topagunearen erantzukizuna, eta federazioak aspaldi dauka erabakita bere estrategia: eskualde bakoitzeko doako astekari bat bultzatzea, **euskaldun bat dagoen etxe bakoitzeko astekari bat** egon dadin edo, gutxien-gutxienean, argitalpena eskuratzeko eskaria egiten duten guztiek kazeta jaso ahal izan dezaten.

Hedabideek **euskararen normalizazioan daukaten eragina neurtzeko**, zabalkundea eta maiztasuna elkarrekin lotuta ulertzen dira Topaguneari; bi faktore horien neurgailu eta adierazle objektiboena, berriz, **inpaktu-kopurua** izango da, hots, ahalik eta euskaldun gehienengana iristea ahalik eta maiztasun handienarekin. Inpaktua ahalik eta handiena izan dadin, berriz, doakotasunean oinarrituriko zabalkunde erabatekoa lehenesten da; irizpide horretan oinarriturik, gutxieneko erritmo bat bilatuko da maiztasunean, eskualde-astekarien aldeko hautua hobetsita.

Ezin dugu ahaztu, gainera, erdarazko idatzizko prentsa ere, gero eta gehiago, doakotasuna aukeratzeko ari dela irakurleak irabazteko. Komunikazio talde handiak merkatu honetan gero eta toki gehiago hartzen ari dira, eta euskarazko aldizkariak indarra egitekotan doakotasunari eustea ezinbesteko baldintza izango da. Hauxe da Topaguneari erabakitako estrategia, hala ere gai honen inguruko eztabaida zabalik dago.

c. Maiztasunaz

Errespetu handia zor diet produktu ezberdinak argitaratzen dituzten Topaguneko bazkide guztiei, hilabetekariak zein hamaboskariak, astekariak zein egunerokoak, doakoak zein ordaintzen diren aldizkariak; lehenetik azkenera guztiek baitute eragina euskararen erabileran.

Baina estrategiaz hitz egiterakoan, hobekuntzarako planteamenduez aritu beharra dago, optimizazioaz eta etorkizuneko ikuspegiak, euskararen eremu osoa aintzakotzat hartuta. Hautu baten alde egitea beste hautu bat egina daukanarentzat goxoa ez bada ere, horra hor astekariaren alde egiteko daukagun testuinguruaren eta gogoetaren deskribapena.

Edozein analisi egin aurretik badira kontuan hartu beharreko zenbait kontu:

- Euskal Herrian euskaldunak bizi arren, eskualde bakoitzeko aldizkari bat izateko helburutik urrun gaudere oraindik, eskualde askotan ez baitago inongo euskarazko prentsa lokalik, ez idatzizko ez beste ezela korik.
- Hedabideen arloan idatzizko euskarriak ez dira bakarrak, irrati, telebista zein Internet bidezko hedabideak bultzatzea ere ezinbestekoa izango da euskararen normalizaziorako.
- Tokiko aldizkari zein egunerokoez dirulaguntzen beharra daukate bizirauteko; irrati zein Internet bidezkoek ere subentzioak behar dituzte, eta, zeresanik ez, herri telebistek.
- Aldundietako eta Jaurlaritzako dirulaguntzetarako poltsak ez dute sektore honen ugaritze eta garapenerako aukerarik ematen; are gehiago, egungo aldizkari lokalak (zein bestelako tokiko hedabideak) laguntzeko eskas gelditu dira jadanik aipaturiko laguntzak.
- Tokiko hedabideetarako dirulaguntza nagusiak, salbuespenak salbuespen, udaletatik datoz, euskara normalizatzeko izendatutako diru poltsetatik, oro har.
- Erdal hedabide talde erraldoiak tokiko hedabideen esparruan gero eta toki gehiago hartzen ari dira.
- Orain artean euskara elkartearen esparrua bakarrik izan den honetan, EKTK ere bere produktuak ateratzeko erabakia hartua dauka, eta hainbat eguneroko argitaratzen ditu, tokiko informazioa landuta. EKTKren helburuak eta Topagunearenak ezberdinak dira eta hautu bakoitzak dakartzan ondorioez gogoeta egitea ezinbestekoa izango da tokiko eragileentzat, bide bakoitzak proposatzen duen eredia aztertuta.

Horiek horrela izanik, honako gogoeta egingo nuke:

- Tokiko hedabideen biziraupenerako, eskualdekako multimedia taldeak sortzea hartu behar da helburutzat.
- Baliabide ekonomiko mugatuak daude (bereziki kontuan hartuta euskarazko hedabideek ezinbestean dirulaguntzak behar dituztela) eta hauek erantzukizunez erabili behar ditugu. Beraz, euskararen eremu osoan, eskualde bakoitzeko tokiko hedabideen panorama osoa hartu behar da kontuan produktu berriak kaleratu aurretik.
- Eskualde bakoitzeko aldizkari indartsu bat badago, bestelako hedabideak bultzatzea lehenetsi beharko litzateke, dibertsifikazioa lehenetsunez hedabide ezberdinak sortzera zuzenduta. Guztiz autofinantzatzen diren idatzizko produktu gehigarri eta osagarriak kaleratzea beti ere positiboa izango da. Salbuespena izan daiteke gaztetxoek zuzendutako argitalpen osagarriak edo gehigarriak kaleratzea, nahiz eta guztiz ez autofinantzatu, sektore estrategikoa baita euskararen normalizaziorako.
- Euskal Herriko eskualde bakoitzean euskarazko tokiko aldizkari bat egon dadin egiten du lan federazioak. Erakunde publikoek (Jaurlaritzari eta aldundiei) dagokienez ere, beraien dirulaguntzetarako poltsak osatzeko eskakizuna behin eta berriz egin die Topaguneak. Egungo hedabideen laguntzek nahikotasuna izan dezaten ez ezik, “hutsune geografikoak” estaltzeko ere, diru poltsak egunera ditzaten indarra egin beharra dago. Beraz, eskualde batzuetako zenbait aldizkari berri aldizkari sendoen aldean xumeak izan badaitezke ere, hauei arnasa eman behar zaie, eta diru banaketetan “estaltze geografikoa” kontuan hartzea defendatu beharra dago, laguntza guztiak eskualde indartsuenetara bakarrik joan ez daitezen.
- Herri/eskualdeetako tokiko hedabideen enpresa arteko elkarlana eta sinergien aprobetxamendua ahalbidetuko dituzten politikak lehenetsi beharra dago. Aniztasuna aberatsa bada ere, gutxienezko bateratasuna ezinbestekoa izango da euskarazko tokiko hedabideen sare indartsu bat osatuko bada.
- Tokiko hedabide beregainak izango baditugu, hauen enpresa argitaratzaileetan tokiko eragileek izan behar dute aginpidea. Komunikabide taldeen monopolioak ez ditugu begi onez ikusten, ez erdaraz, ez euskaraz, ez ezelako hizkuntzatan.

Aurreko guztia kontuan hartuta, hona **eskualdeko astekariaren alde** aipatuko nituzkeen arrazoi nagusiak:

- Tokiko albisteak lantzeko informazio nahiko gaurkotua lantzea ahalbidetzen dute astekariak. Asteroko *tempoa* hurbileko informazioarentzat egokia da. Argumentu honek indarra irabazten du, aldizkariarekin batera tokiko telebista, irrati eta Internet bidezko produktuekin osagarritasuna bilatzera jotzen bada, eguneroko eta momentoko informazio osagarria beste hedabide hauetan eskainita.
- Ekonomikoki bideragarri direla frogatuta dago.
- Publizitaterako euskarri interesgarriak direla ere frogatuta dago.
- Erabateko zabalkundea egitea bideragarria da, eguneroko banaketak duen arazo logistiko zein ekonomiko erantsiak ekidinda.
- Maiztasuna areagotzearekin eskaintzen den zerbitzuagatik (eguneroko informazioa ematea) nekez justifika daiteke honek suposatzen duen kostu erantsia.

d. Doakotasunaz

Euskara elkarteek tokiko prentsa bultzatzeko orduan helburu argi bat finkatu zuten: euskararen erabilera eragitea, horretarako euskaldun guztiengana helduta; helburu hori lortzeko, orain artean diseinatu den produkturik eragin-korrena definitzen asmatu zuten. Topaguneak **erabateko zabalkundea** ere bultzatzen du, eta horretarako **aldizkariaren doakotasuna hobesten du**.

Tokiko aldizkariaren bidez euskaldunen merkaturia ikaragarri zabaltzea lortu da. Euskarazko prentsagatik ordaintzeko prest egongo liratekeen herritarrak ez ezik, gainerako beste euskal hiztunetara ere naturaltasunez heltzea izan da euskara elkartearen helburua eta lorpena: bestela inongo euskarazko produkturik jasoko ez luketenengana heltzea, euskara ikasten ari direnengana, seme-alaba euskaldunak dituzten etorkinengana, publizitatea jarri duten merkatariegana eta abar. Nahi beste zabal daiteke zerrenda hau. Produktuaren eskuragarritasunak, doakotasunak, ahalbidetu du irakurle berri hauengana guztiengana heltzea. Zenbakiak hotzak izan ohi dira, baina ezin dira aipatu barik utzi kontu hauek: sektoreak 150.000 hartzailetik gora dauzka, eta, horrenbestez, 500.000 inguru dira lortutako irakurleak.

Zalantzarik gabe, tokiko aldizkariari prezioa jartzeak lortutako *merkatu* hori hein handi batean galtzea ekarriko luke, bereziki erabilera aurrerapausoak emateko behar gehien duten sektoreetan (etorkin, euskara ikasle eta abar-erengan). Tokiko aldizkariak saltzeak, automatikoki hauen botaldiak jaiste dakarrela frogatuta dago. Gainera, salmenta bidez lor daitezkeen diru-sarrerak garrantzitsuak izan badaitezke ere, beste aldetik publizitate-sarreraren jaitziera izan ohi da aldizkaria saltzearen ondorio negatiboetako bat.

Doakotasunaz ari garenean behin eta berriz egiten zaigun galdera honakoa da: baina, irakurtzen al dira tokiko aldizkariak? Hau neurtzen duen azterketa orokorrik ez badaukagu ere, zenbait bazkidek (*Goienak, Noauak, Txintxarrik, Erazek...*) egin izan dituzte produktuaren onarpena neurtzeko azterketak eta inkestak. Orain arteko datuen arabera baietz, maila ezberdinetan bada ere, tokiko aldizkariak irakurtzen direla ondorioztatu da aipatu inkestetatik. Hala ere, interesgarria litzateke urtero irakurleen jarraipena egitea, zalantzarik gabe.

Bestalde, esan beharra dago, baita ere, ordaintzeak berak ere ez duela bermatzen produktua gehiago edo gutxiago irakurriko denik. Militantziagatik, inertziak nahiz *laguntzeagatik* ere erosten direlako euskarazko produktuak, edo egiten direlako harpidetzak.

Tokiko aldizkariaren harpidedunen interesa detektatzeko honako galbahea proposatu ohi da Topagunetik: interesa adieraztea. Interesatuak bere datuak eta helbidea eman behar ditu eta modu honetara **banaketa izenduna** egiteko oinarritzko harremana lortzen da. Doakotasunaren aldekoa naiz, baina tokiko aldizkariarentzat diru-sarrera zuzenak baztertzea ere zaila egiten zait. Harpidetza, produktua eskuratzea, doakoa izan behar dela uste dut, baina bada herritarraren inplikazio ekonomikoa lortzeko beste modurik, **bazkidetzarena** edo **laguntzaileen** figurarena, esa-

te baterako. Zalantzarik gabe, hauek jorratu beharreko bideak dira, autofinantzaketa igotzeko ez ezik, proiektu hauen parte sentiarazteko modu interesgarriak baitira.

e. Tokiko aldizkarien sareaz

Helburu berarekin lan egiten duten euskarazko tokiko aldizkarien sarea indartzeak eta hauen arteko harremanak estutzeak honako abantailak ekar ditzake sektorearentzat:

- Zerbitzu komun berriak antolatzea.
- Erosketak zentralizatzea eta merkatzea (papera, bulego materiala...).
- Produktu osagarrien ekoizpenerako guneak sortzea (gehigarriak, bestelako argitalpenak...).
- Ikerketa eta garapenerako baliabideak partekatzea (azterketak, inkestak...).
- Eskualdez gaindiko publizitatea eskuratzea (marka handiak).
- Ekoizkin orokorren elkartrukea ahalbidetzea.

Aldizkarien sarearekin lotutako abantaila hauek zalantzarik gabe beste hedabideetara ere orokortu ahal izango lirake. Memento honetan hauetako zenbait funtzio betetzen ditu Topaguneak, baina seguruenik enpresa egitura espezializatu berriak beharko dira beste zenbait funtzio modu eraginkorrean kudeatzeko.

4.2. Tokiko irratia

Topagunean lau irradi bazkide besterik ez ditugu, baina federaziotik kanpo badira beste 26 euskaraz emititzen dutenak. Hauetatik bi Euskal Herri mailakoak dira, herrialde mailakoak beste bost eta gainerakoak herri/eskualde mailakoak. Bistan da federazioak orain arte ezin izan duela eta apenas landu duela hedabide hau eta, beraz, irratien esparruari buruz deskribapen txiki bat besterik ez dut egingo.

a. Irratien ezaugarriak

Honako berezko ezaugarriak dituzte oro har irratiek:

- Lantalderik txikiena eskatzen duen hedabidea da hau. Pertsona bakarrak egin dezake zuzeneko emisioa irradi bidez.
- Sakelako telefonoei esker, zuzeneko igorpena edonondik egin daiteke, ez bakarrik estudiotik. Edozein gertakizunen aurrean irratia albistea beste edozein hedabidek baino azkarrago emateko gaitasuna dauka, eta minutu gutxira eskain diezaioke kontakizuna entzuleari.
- Irratia da herritarren parte-hartzea bermatzeko modurik errazena, telefono dei batekin egin baitaiteke zuzeneko konexioa.
- Irratia hedabide merkea da. Tresneria digitala edonoren eskura egon daiteke, eta giza baliabide gutxirekin programa duinak landu ahal dira.

b. Euskarazko tokiko irratia eta *Arrosa* Ekoizpen Zentroa

Argi dago irratia eskuragarritasunak eta eskaintzen duen malgutasunak berau oso medio bizia bihurtzen dutela, beste hedabideekin alderatuz gero. Gaur egungo euskarazko tokian tokiko irratiei dagokienez, antolamendu mailan bereziki aniztasun handia dagoela esan daiteke. Hala ere, sektore moduan hainbat erronkari bateratsu ari dira aurre egiten.

1.- **Digitalizazioa:** irradi asko digitalizatu dira eta besteak bidean dira, erabakigarria izaten ari den aldaketa honi aurre eginez. Irratietan ordenagailua ezinbesteko lan-tresna bihurtu da; teknologia berriek ekarritako aldaketa nagusia, berriz, abiadura areagotzearen ildotik etorri da, postproduktzio digitalaren bidez, materialen kopiak azkartuta, garratua erraztuta, abesti-artxiboak ahalbidetuta, etab.

2.- Arrosa Ekoizpen Zentroa: tokiko irratiek beraien esparru naturala gainditzeko sortu dute Arrosako Ekoizpen Zentroa, honako helburuak bilatuta:

- Euskal Herriaren komunikazio-kohesioa bultzatzea.
- Euskararen erabilera sustatu eta euskalkien ezagutza zabaltzea.
- Euskal Herriko irratien arteko harremanak sakondu eta haien arteko elkarlana erraztea.
- Baliabideen trukaketa sustatzea.

Ekoizpenari dagokionez honako produktuak sortzea dute jomuga: magazin propioa, programen bankua, emisio komunak eta gizarte-eragileen irratsaioak.

3.- Euskarazko irratien sarea: irratiak ez daude geldirik. *Arrosako* zentroa oso esperientzia interesgarria izango da euskararen erabilera areagotzeko. Hala ere, zentro honetako irradi bazkide guztiek ez dute euskara hutsez funtzionatzen, zenbaiten programazioak elebidunak baitira. Azken horientzat *Arrosako* ekoizpen zentroa positiboa izan daitekeen moduan, euskara hutsezko tokiko irratien arteko sarea ere indartzea funtsezkoa izango delakoan nago. Maila txikian bada ere, horren adibide interesgarria da *Euskal Irratiek (Xiberoko Botza, Irulegiko Irratia eta Gure Irratia)* egindako bidea, hiru irratien elkarlanarekin emaitza oparoak lortu baitituzte.

4.3. Tokiko telebistak

a. Tokiko telebisten egungo egoera

1. Izaeraz

Telebista da hedabideen artean izarra, irudi batek hamaika hitzek baino gehiago balio duela dioen esaerak hedabideen testuinguruan bereziki hartzen baitu protagonismoa. Telebista mediorik garestiena da, baina era berean preziatuena ere bai, telebistan agertzen dena egiazat jotzen baita sarri.

Baina gure euskarazko tokiko telebistak nolakoak dira? Dauden apurrak tamaina txikikoak eta baliabide gutxi-koak dira, eta bizi duten sakabanaketa gaintu ezin dabilta. Kasurik onenean 60.000 laguneko biztanleria hartzen da eremu bezala, baina gero eta zailagoa da merkatuaren eskakizunetara egokitzea. Erdarazko telebistek gero eta ordu gehiago emititzen dute katean eta euskaraz, aldiz, oraintxe hasi berriak dira elkartrukeko planteamenduak mahai gainean jartzen.

2. Kopuruaz

Orain arte aztertutako euskarazko hedabideen egoera xamurra ez bada, euskarazko tokiko telebisten errealitatea gordina da benetan. Egun 60 bat tokiko telebista zenba daitezke Euskal Herrian eta horietatik zazpi besterik ez dira euskara hutsezkoak. Tokikoetan 10etik bakarra bada euskaraz, hauei *ETBI* gehitzearen emaitza, estatu bakoitzeko (espainol zein frantses) ikusi ahal diren erdarazko kateekin alderatzen badugu eta satellite zein kable bidezko kateak kontuan hartzen baditugu, zer aukera daukagu zapping batean euskarazko kate bat harrapatzeko? Atera kontuak.

3. Legeaz

2004ko apirilaren 8an argitaratu zen Espainiako Estatu Aldizkari Ofizialean 439/2004 Errege Dekretua (martxoaren 12koa); horren bidez, tokiko lurreko telebista digitalaren “Plan Tekniko Nazionala” deritzona onetsi zen. Plan honen barruan zegoen Estatuan telebisten gainean dauden bi legeak indarrean jartzea: orain arte erreferentzia izan den 41/95 legea, eta 53/2002 legea, aurrekoa oinarritzat hartuta zenbait aldaketa ezartzen dituen. Autonomia Erkidegoen eskumena da, berriz, euren esparruei dagozkien frekuentzien kontzesioak ematea, eta horretarako baldintzak ezartzea.

Orain artean igortzen ari diren tokiko telebistak alegalak direla esan daiteke, baina onartu berri den dekretuaren bidez esparru hau arautzeko prozesua ireki da eta euskarazko tokiko telebisten etorkizunerako erabakigarria izango da.

b. Jorratu beharreko bidea

1. Erakundeen babesa lortu:

- Frekuentzien kontzesiorako, irabazi asmorik gabeko sozietate mistoak (udalek eta gizarte-ekimenez bultzaturikoak) kudeatzen dituzten euskara hutsezko telebista kateak lehenestea.
- Eskualde bakoitzeko gutxienez euskarazko frekuentzia bat erreserbatzea. Horrez gain, egoera soziolinguistikokoaren arabera euskara hutsezko lizentzia kopurua izendatzea. Gainerako kateen hizkuntza irizpideak ere egoera soziolinguistikokoaren arabera kuota ezarri arautzea.
- Tokian tokiko telebisten barne produkzioa bultzatzea eta estatu mailako hedabide-talde handien ekoizpenak katean zabaltzeari muga zorrotzak jartzea.
- Euskarazko tokiko telebistei inbertsioetarako laguntza bereziak erdiestea Jaurlaritzako Industria zein Ogasun sailetatik.
- Euskarazko tokiko telebisten eguneroko funtzionamendua diruz laguntzeko nahikotasuna izango duten poltsak era daitezela eta hauen finantzaketarako erakunde arteko hitzarmen bat adostu dadila.
- Euskarazko produktuak ekoizteko zentro bat bultzatzea.

2. Telebista-sarea eratu. Bi norabidetan egin beharko da lan euskarazko tokiko telebista sarea eratzekotan:

I. Egun lanean diharduten telebisten arteko elkarlana indartuta.

- Programen elkartrukea eginez emisio orduak aberasteko.
- Koekoizpenaren eta erosketen bideak errazteko.
- Artxiboko irudiak trukatzeko.
- Herriz/eskualdez gaindiko publizitatea kudeatzeko

II. Telebista berriak sortzeko sustapen lana eginez.

Hego Euskal Herriko eskualde (legeak proposatzen dituen 18 barrutiei beste hiru gehituz gero nahikoa izan liteke) bakoitzeko euskarazko tokiko telebista bat egon dadin.

Sare indartsu bat eratuta, merkatuko legeei modu eraginkorrean aurre egin ahal izateko.

3. Ekoizpen-zentro bat sortu. Telebisten sare hau elikatzeke ezinbestekoa izango da guztientzat produktu berriak ekoizteko dituen zentro bat sortzea. Horrez gain, trukaketarako sistemak errazteko funtzioa bere gain har lezake zentro honek, edota arlo teknikoan aholkularitza ematekoa.

4. Aliantzak landu

- **ETB1ekin:** ezinbestekoa izango da tokiko telebista sarearen eta **ETB1**en arteko elkarlana jorratzea. Batak zein besteak ekoizteko programak erabiltzeko aukerak irekita, artxiboen erabilerarako trukea eginda... Gainera, euskarazko tokiko telebistek **ETB1**en tokiko informazioari lotutako beharrak tokian-tokian bete-tezteko baldintzak azter litezke.
- **Euskaltekin:** Euskaltelek euskarazko tokiko telebisten edukiak zuntz optiko bidez zabaltzea eta euskarazko kalitateko telebista eta produktuak bultzatu eta lehenetsi beharko lituzke. Era berean, egun hiriburuetatik mugarik gabe banatzen diren erdarazko edukien zabalkundea mugatu beharko litzateke.

4.4. Internet

Orain artean tokiko hedabideen eremuaz eta zabalkundeaz aritu naizenean eskualdeaz mintzatu naiz. Baina Internetek muga geografiko guztiak apurtzen ditu, edozein tokitatik sartutako informazioa mundu osoaren eskura jarrita (konektatuta dagoen munduko partearen eskura, behinik behin). Interneten dagoen euskarazko produkzio osoa munduko edozein txokotan bizi den euskaldun oren esku dago. Hori izugarria da.

Eta zein izan daiteke tokiko hedabideek Interneten egin dezaketen ekarpena? Argi dago tokiko informazioa dela eskain dezaketen materialik interesgarriena. Asmatu behar nola. Tokiko albistegiaren sarerako edizioak beste hedabideetan eskaintakoaren aldean balio erantsiren bat eskaini beharko luke; ikus dezagun zeintzuk izan daitezkeen horren abantailak.

a. Sarerako edizioen abantailak

- Ez dauka espazio mugarik, irakurgarritasunak markatzen duena ez bada.
- Berehalako argitalpena denez, uneoro gaurkotasuna duten albisteak eman daitezke.
- Irakurleen feedbacka lortzeko aukera handiak eta biziak ematen ditu.
- Bilaketak egiteko aukerak ematen ditu.
- Beste komunikabide guztiek (prentsa, telebista eta irratia) dauzkaten aukerak biltzen ditu bere baitan.

b. Dinamikotasuna eta jarraikortasuna, beharrezko baldintzak

Webgune biziak izango baditugu, internauten interesari eusteko modu bakarra egongo da: egunero informazio berria eskainiz elikatu behar dira webguneak. Horretarako edizio jarraituak dira interesgarrienak, Topagunean *orainkaria* deritzoguna. Ez dauka jadanik zentzurik aldizkarien zenbakien kopia Interneten eskaintzeak, ez bada artxiboko dokumentu gisa. Internetek formatu propioa eskatzen du, eskaintzen dituen berehalakotasuneko aukerak baliatzea.

Bestalde, ediziorako sistema dinamikoek edukiak, egiturak eta itxurak modu autonomoan aldatzeko aukera ematen dute, kazetarien lana asko erraztuta. Albisteak edozein mementotan eta edozein tokitatik sartzeko aukerak, bilaketak egiteko aukerak, posta elektronikoko bidez zein albisteen iruzkinak eginez interaktibitatea lortzeko aukerak dinamismoa ematen diote webgune bati. Albisteei iruzkinak egiteari dagokionez, parte-hartzea sustatzeko modu interesgarria da, baina ezinbestean editore-lana eskatzen du sortu ohi diren eztabaidetan ordena jartzeko. Hori posible denean amu interesgarria suerta daiteke internautarentzat.

c. Multimedia etorkizunak dakarkiguna

Aurrez adierazi dudana bezala, Internetek multimediaren aukerak biltzen ditu bere barnean, eta formatu ezberdinak aldi berean erabiltzeko aukerak ematen ditu, soinua dela, irudia dela zein testua dela. Oraindik elementu hauen nahasketekin produktu eta formatu berriak eskaintzetik urrun bagaude ere, etorkizuneko komunikazio-bide berriak hemendik etorriko dira. Tokiko multimedia taldeek, enpresa txikiak badira ere, hedabide ezberdinetako baliabideak beren esku dauzkate elementu ezberdinekin esperimintatzeko, eta beraz, esparru honetan ere garatzeko aukera askoz gehiago izango dute.

d. Topaguneko tokiko hedabideak Interneten

Topaguneko urte batzuk badaramatza teknologia berriekin lanean, nagusiki tokiko aldizkarietarako programak lantzen. Bereziki aipagarriak dira arlo honetan landutako bi egitasmo:

- **EditON edizio sistema:** Goienarekin elkarlanean garatutako edizio-sistema dinamikoa da, papererako zein Interneterako bertsioak era berean kudeatzeko gai dena. Edizio sistema honek on-line lan egiteko aukera ematen du, eta beraz, erredakziotik lan egin beharrik ere ez du eskatzen. Datu-base baten kontra lan egiten du eta edukiak Interneten argitaratu ahala eduki guztiak modu sistematikoan artxibatzen ditu. Paperezko bertsiorako aurrez katalogatutako maketa txantiloak erabiltzen ditu.
- **Atari dinamikoa:** Topagunearen atari dinamikoak EditONek erabiltzen duen datu-base beraren kontra lan egiten du, eta beraz, atari honetan tokiko aldizkari guztiek sartutako informazioa, dena batera eta modu dinamikoan eskaintzeko prestatuta dago. Egungo tokiko aldizkariak daukaten ekoizpen guztia batuz ika-

ragarrikiko material kopurua pilatzen joango da eta hori guztia ataritik zentralizatuta kudeatzeko diseinatu da. Tokiko informazioaz gain, erredakzio bakoitzean sortutako argazki-artxiboak kudeatzeko argazkitekera ere integratu da atarian, munduko edozein bazterretan egonda ere zure herriko kontuak euskaraz jasotzeko ez ezik, argazkiak ere eskuratzeko aukera emango duena.

- **Tokiko berri-agentzia:** Aurreko bi tresnen bidez euskarazko tokiko berri agentzia forma zehatza hartzen hasita dago dagoeneko. Tokiko aldizkariak EditONekin lan egiten hasteko erredakzioetan beharrezko egokitzapenak egiten hasita daude; prozesu honen bukaeran euskarazko lehenengo tokiko berri-agentziaren jaiotza gauzatuko da.

5. Kudeaketa eredia eta finantzaketa

5.1. Kudeaketa ereduaz

Euskarazko tokiko hedabideek eskaintzen dituzten zerbitzuak ezin dira merkataritza-jarduera soil baten gisa kontsideratu; izaera publikoa daukate eta funtzio garrantzitsua betetzen dute euskarazko komunikazio-ehun indartsu bat egituratze aldera. Hori dela-eta, tokian tokiko eragileekin lankidetzatza-formulak bideratzea ezinbesteko baldintza izango da hedabideon kudeaketarako.

Badira Topaguneko federatuen artean zenbait bazkide hedabideen **kudeaketarako formula mistoak** egituratzen asmatu dutenak, izaera juridikoa gorabehera arlo publikoa eta pribatua uztartu dutenak, beti ere gizarte ekimena (euskara elkarteak) egitasmo hauen erdian jarrita. Irabazi asmorik gabekoak izanik, eredu hauek adostasun-gune zabalak ahalbidetzen dituzte, eskualdeko gizarte-kohesiorako egitasmo sendoak egituratuta.

Tokiko hedabideen helburu eta norabideak bestelako interes ekonomiko, ideologiko, politiko edo partikularretara desbideratuko ez direla bermatzeko, **euskara elkarteek izan beharko dute hedabideon kudeaketarako erabakiguneetan aginpide nagusia**. Horrez gain, udal, mankomunitate eta bestelako tokiko eragileekin beharrezkoa izango da lankidetzatza-formula sendoak urratzea; egonkortasuna bermatzea bereziki garrantzitsua izango da tokiko telebista edo multimedia taldeez dihardugunean, hauek eskatzen duten finantzaketa publiko garrantzitsua kontuan hartuta.

5.2. Finantzaketaz

Aurrekontu maila oso ezberdinekoak dira mintzagai ditugun hedabide hauek. Aurrekontu horien finantzaketarako, gainera, medio bakoitzak gaitasun ezberdina izango du diru-sarrera propio eta publikoen arteko oreka bilatzeko orduan. Baina eredu bat ematekotan, honako eskema orokorra errepika liteke hedabide bakan edo talde guztietan. Finantzaketa publikoa: udal aurrekontuetako diru-laguntzak (hauexek dira pisuzkoenak), Foru Aldundietako diru-laguntzak eta Jaurlaritzako diru-laguntzak. Finantzaketa propioa: publizitate sarrerak, bestelako ekoizpenen salmentak, diru-laguntza pribatuak (norbanakoena, enpresenak zein bestelako erakunde publikoena) eta bazkide-tza-kuotak, hainbatetan.

a. Finantzaketa publikoaz

Egungo diru baliabideekin egin daitekeenak goia jo duelakoan nago; etorkizunerako erronka berriei aurre egiteko fase berri bat ireki beharko da. Tokiko hedabideetan garapen hau posible izan dadin, ez da nahikoa izango tokiko hedabideetako eragileen eta bestelako gizarte-eragileen ahalegina; erakunde publikoek ere mugimendu hau babes-tu eta jarraikortasunez lagundu beharko dute. Horretarako Jaurlaritza, aldundi zein udalen arteko hitzarmen bat beharrezkoa izango da, erakunde artean lehentasunak finkatu eta irizpide horien arabera babes ekonomiko egonkor bat hitzartua izan dadin.

b. Finantzaketa propioaz

1.- Edozein hedabidek publizitate-sarrerak behar ditu bizitzeko (baita saltzen diren medioek ere). Publizitatea gurea erakartzeko ahalegin guztiak dira gutxi, baina ezin da ahaztu gure merkatua euskaradunek mugatzen dutela eta, beraz, merkatu hori murrizta dela. Horrek erakunde publikoen aldetik diskriminazio positiboa egitea ekarri behar du, ez bakarrik dirulaguntzak emanez, baita beraien publizitate-kanpainak gurean sartuta ere. Publizitate instituzionala tokiko hedabideetara ekartzea ezinbestekoa izango da.

2.- Publizitate arloan erronkarik garrantzitsuen enpresa handien eta marken publizitatea erakartzea izango da. Horretarako hedabideen sarea kudeatu beharko da, eskaintza orokorrak eginda, tokiko hedabideekin batera banatu diren nazio osorako produktu osagarriak eskainita...

6. Ondorioak

Urte gutxian globalizazioaren eta Interneten eraginez aldaketa ikaragarriak jazo dira hedabideen mapan; euskarazko tokiko hedabideek etorkizunik izango badute, garai berrietara egokitu beharko dira. Horretarako lau norabide-tan egin beharko da lan:

- Euskarazko tokiko hedabideak eskualdeka antolatzea azpiegitura sendoak sortuta.
- Tokiko aldizkari, telebista, irrati zein Internet bidezko egitasmoak elkartuta multimedia egitasmoak egituratzea.
- Euskarazko tokiko hedabideen sarea indartzea, guztientzat zerbitzu komunak antolatuta, baliabideak optimizatuta eta elkarlana handituta.
- Geure egitasmoak aurrera ateratzeko posible den guztietan elkarlanari aukera emanda, beti ere elkarlan horren ondorioz geure helburuak indartuko badira. Erakunde publikoekin, tokian tokiko elkarte, enpresa eta erakundeekin, euskarazko beste hedabide nazionalekin, euskalgintzako beste eragileekin... mota guztietako solaskideekin elkarlanean aritzeko aukerak bultzatzea merezi izango du.

Bide honetatik hedabide sendoagoak lortuko ditugu, zalantzarik gabe, baina ekoizitakoa euskaldun orearen zerbitzura jartzea izan beharko dugu jomuga. Tokiko hedabideek eskaintzen dituzten zerbitzuek izaera publikoa daukate eta hedabideok interesa azaltzen duen herritar orearen esku jartzea lortu beharko genuke, euskararen erabileran eragin nahi badugu behintzat.

Eredu pribatu integratzaileak behar ditugulakoan nago, bateratzaileak, irekiak eta tokian-tokian autokudeatuak, profesionalak baina herrikoiak, horrek bermatu ahal izango baitu tokiko informazioaren kudeaketa bizi eta parte-hartzaile bat.

f. *ARRASATE PRESS*: 16 URTE TOKIKO PRENTSAREN AITZINDARITZAN

Deiane Arrieta
Kazetaritza ikaslea

1. Atarikoa

Arrasate Press izan da euskal tokiko prentsaren aitzindaria: euskara hutsean idatzitako aurreneko herri aldizkaria izan zelako, eta aldizkaria bera hartu zutelako eredu beste hainbat proiektu gauzatzeko.

Jadanik hamasei urte bete ditu astekariak mondragoitarrak informatu eta entretenitzen. Eta baita euskarazko irakurketara hurreratzen ere. Ibilbide luze honetan zehar izan dituen aldaketak zenbaterainokoak diren jakiteko *Arrasate Pressen* zenbait ale aztertu, bertan lanean aritu direnekin bildu eta irakurleen iritziak biltzen dituzten ikerlanak izan ditut kontuan. Izan ere, aldizkariaren izaerari eustea lortu dutela, uste dut. Izaera mantenduz, Arrasateren izaera anitza islatzea lortu duen aldizkaria da. Eta baita herriaren izaera indartu duena ere. Horri eskerrak, herritarren fideltasuna duen astekaria da; baita, herritarrengandik hurbil dagoena ere.

2. Aldizkariaren historia

1988ko abenduaren 2an ikusi zuen argia *Arrasate Pressek*. Lagun talde baten ideia izan zen euskarazko astekari bat kaleratzen hasia, eta arrakasta izatea lortu zuten. Joxe Aranzabalek, aldizkariako aurreneko erredaktore buruak esaten duen bezala, arrakasta honetan zer esana izan zuen garaiko testuinguruak.

2.1. Testuingurua

90eko hamarkada aurtxoan sortu zen aldizkaria. Sorrera horretan eragin zuzena izan zuten garaiko bost ezaugarrik:

- Aurrerapen teknologikoak: Autoedizioa ahalbidetuko zuen teknologia sortu zen 80ko hamarkadaren erdialdera. Eta ordenagailu berezituak etorri ziren.
- Euskara batuaren egonkortasuna: 1989an euskara batuaren erabilera zabala eta ohikoa zen zenbait arlotan; bereziki hezkuntzan eta administrazioan. Komunikabideetan ere lekua egiten hasi zen.
- Euskara elkarteak: 80ko hamarkadaren erdialdera Arrasate Euskaldun Dezagun (AED) sortu zen Arrasaten. Taldearen helburua zen euskararen normalizazioa lortzea Arrasaten. Eta sorrerako lehen urteetan hizkuntzarekiko kontzientziazioa bultzatu zuten. Arrasatekoa izan zen euskarari bultzada emateko sorturiko lehen elkarteak. Eta beste herri askotan ere fenomeno bera abiatu zuten urte gutxian.
- Instituzio publikoek euskararekiko jarrera irekia irakutsi zuten. Esaterako, garai hartan Arrasateko alkate Xabier Zubizarreta zen, Herri Batasuneko. Udaleko ordezkariak zabala euskaltzalea izateak lana erraztu zuen euskal aldizkari bat sortzeko garaian.
- Euskal kazetari berriak: 80ko hamarkadan kazetari berrien belaunaldiak sortu ziren. Horiek izango ziren euskal komunikabideetan lan egingo zutenak: bertako kazetariak bertako komunikabideetan.

Testuinguru honetan sortu zen *Arrasate Press*, eta faktore horiek ahalbidetu zuten lagun talde baten ametsa errealitate bihurtzea.

2.2. Filosofia

Lagun koadrila baten egia bihurtutako ametsa izan zen *Arrasate Press*. Izan ere, euskara hutsean idatzitako aldizkariak arrakasta izatea ia pentsaezina zen. Ordura arte euskaraz landutako aldizkariak ia ez zuten salmentarik, eta jende gutxik irakurtzen zituen. Ikusi bestela 1989ko salmenta datu batzuk. Paradoxikoki baina, euskaraz irakurtzeko gai zirenak gehiago ziren.

1. Taula (Aldizkaria-Saldutako ale kopurua)

Argia-143	Ipurbeltz-148	Aizu-65	Jakin-58	Elhuyar-55
-----------	---------------	---------	----------	------------

Lau laguneko taldea ohartu zen, ordura arteko aldizkariak ez zirela gizarte beharrei erantzuten, herritarrek beste era bateko aldizkariak behar zituztela. Orduko euskarazko prentsak literatura, euskara edota zientzia bezalako gai landuak zituen hizpide, era konplexuan gainera. Eta, ondorioz, gizartearen gutxiengo bati zuzendutako aldizkariak ziren. Laukotea konturatu zen herritar orori zuzendutako euskarazko aldizkariak falta zirela. Gai landuegi, konplexu eta intelektualak alde batera utziz, egunerokotasunean oinarritutako informazioa jorratzea interesgarria iruditu zitzaion. Euren asmoa euskara sustatzea zen, eta aldizkari bat jardun horretarako baliabide egokia iruditu zitzaion. Horretarako, baina, euskal prentsa tradizionaletik urrundu beharra ikusi zuten: gai bariatatea eskainiz eta testu errazak sortuz. Euskara sustatzeko tokiko prentsaren formula egokia iruditu zitzaion. Izan ere, era honetako aldizkariak hurbileko eta eguneroko gaiak lantzea ahalbidetzen zuen, era ulerterraz batean. Asier Arangurenek dioten bezala: “Gaiak herri-herrikoak dira” (Aranguren, 1991:4). Eta herritar gehienek interesekoak gainera.

Bazen Tuteran aldizkari bat, tokikoa zena eta gaztelera hutsean idazten zen: *La Ribera Navarra* izenekoa. Ideia gustatu zitzaion tokiko prentsaren adibide garbia zelako, baina baita aldizkaria finantzatzeko zuten bideagatik ere. Kontua da, ordura arte ez zutela pentsatu nola finantzatuko zuten astekaria, eta Tuterara eginiko bidaiari finantzabide posible bat ezagutu zuten: iragarkiena.

2.3. Finantzabidea

Finantzabidea publizitatean ez ezik, Jaurlearitzaren eta Arrasateko Udalaren laguntzetan finkatzea egokia litzakeela pentsatu zuten, nolabaiteko egonkortasuna lortzeko. Garai hartan, gainera, Jaurlearitzak diru laguntzak ematen zituen lana sustatzearentan. Eta Arrasateko Udalaren babesa izango zutelakoan zeuden. Eta halaxe izan zen. Bi erakundeek babesa lortu zuten, baina baita herriko denda eta negozioena ere. Izan ere, herriko komertzioak publizitatea eginez, negozioa egiteko prest agertu ziren.

Publizitateari eta bi erakundeek diru laguntzei esker, kazetari profesionalak kontratatzea lortu zuten. Astekari profesionala egitea nahi baitzuten. Era berean, sortuko zen komunikabide berriari sinesgarritasuna emateko kudeaketa AEDren esku uztea erabaki zuten (Mendiguren, 1991:3).

2.4. Harrera beroa

Lehenengo zenbakia Arrasateko 1.700 etxetan banatu zen doan. Herritarrek sekulako sorpresa hartu zuten, inork ez zuen eta herriko aldizkari bat espero. Izan ere, lau laguneko taldeak erdi- ezkutuan eramanean aurrera proiektua. Ezusteko polita izan zuten herritarrek *Arrasate Pressekin*. Bi urteren buruan astekariaren irakurleak nabarmen egin zuten gora. Adibidez 1990ean 7.000 ale banatzen ziren. Ale guzti horiek Arrasaten ez ezik, inguruko herrietan, Espainian, Katalunian eta munduko hainbat txokotan banatzen ziren posta bidez.

2.5. Bilakaera

1988tik gaur egun arte hainbat aldaketa izan dira. Teknologiari dagokionez, esaterako, lan egiteko baliabide teknologikoak garatu egin dira. Aldizkariaren lehen zenbakiak *Macintos Plus* ordenagailu txikiei esker egin ziren.

Urtebete geroago maketagleendako *Mac-II* ordenagailua erosi zuten eta 1990ean, *Quark XPress* erabiltzen hasi ziren maketazioa burutzeko. Gaur egun kazetari eta maketagle guztiek *Quark XPress* programa erabiltzen dute lan egiteko.

Aldaketa teknologikoei lotuta, 1993an kolorearen presentzia aregotu egin zen astekarian. Eta 1998an kamera digitalak azken orduko lanak egitea ahalbidetu zuen.

Aldaketa nabarmena, ordea, astekariaren kudeatzaileengan dago. 1990ean *Arrasate Telebista* sortu zenean AEDK ARKO sortu zuen: Arrasate Komunikabideak. 2001ean baina Goiena Komunikazio Zerbitzuak sortu zuten Debagoiengo eta Aramaioko Euskara Elkarteak. Kooperatiba bat da Goiena eta guztira 3.000 bazkide ditu: *Arrasate Irratia*, *Goiena Telebista*, *Asteleheneko Goienkaria*, *Goiena.net* eta *Goienkaria* beraren ardura du; beraz, baita *Arrasate Pressena* ere. (www.euskonews.com/0157zbnk/gaia15709eu.html)

Izatez, euskara elkarten eskuetan jarraitzen du *Arrasate Pressek*, baina testuinguru zabalagoa du. Kontua da, Bigarren milurtekoarekin batera, *Goienkaria* sortu zela, *Arrasate Press* desagertu gabe. 2000ko abenduaren 1ean jaio zen herri aldizkarietan osagarri eta haien hutsunea betetzeko asmoz. Astero-astero Debagoiengo eta Aramaioko albisteak jasotzen dituen egunkari itxurako aldizkaria da.

Atal komun bat banatzen da zortzi herrietan. Eta bestalde, herrietako 3 edizio banatzen dira: edizio horietako bat da *Arrasate Pressek* Aramaioko *Txirritolarekin* osatzen duena. *Arrasate Pressen* itxura aldatzeaz gain, edukien tratamenduak ere aldaketa izan zuela esan behar da.

3. Edukien eboluzioa

Hamasei urte hauetan *Arrasate Pressek* mondargoitarren intereseko edozein gai landu du. Adibidez, Udaleko erabakiak, herriko kirol norgehiagokak, herritarren abenturak edota baita zenbait kultur gomendio ere. Era guztietako gaiak jorratu dira beraz; batzuk herriarekin guztiz lotutakoak eta beste batzuk orokorrakoak. Dena dela, landutako gai guztiek helburu jakinak bete dituzte: informatzea, entretenitzea, iritziak sortu, eman edo zabaltzea, heztea edo iraganari gainbegiratu egitea

3.1. Funtzioak

Funtzio hauek bete dituzten eta betetzen dituzten sail desberdinak izan ditu *Arrasate Pressek*. Eta hamasei urtean zehar hamaika sail desberdin ezagutu ditugun arren, sail guztiek, bost funtzio hauetako bat bederen bete dute eta betetzen dute. Esaterako, lehenengo alean bertan bazen sail bat, “Aktualitatea” izena zuena, helburuztat informatzea zuena. Sail honetan aktualitateko albisteak ziren hizpide. 62. zenbakian berriz bazen “Berbar” izeneko atala. Hezteko helburuz sortua zen eta Mondragoiko euskalkian idatzita agertzen zen. Urte batzuk geroago eta 184. alean “Elkarrizketa” izeneko saila aurki genezake. Irakurlea entretenitu eta informatzea ardatz zituen saila zen. Edota egun badira “Herritarren berbak” eta “Fotozaharra” atalak. Lehenak iritziak eman eta sortzeko asmoa du; bigarrenak, berriz, iragana ezagutzea.

Horregatik esaten da, bost funtzio horiek bete dituela *Arrasate Pressek*. Eta oraindik ere betetzen dituela. Horretarako, informazioa era desberdinean landu eta aurkeztu da.


3.2. Kazetaritza generoak

Albiste arruntak, erreportajea, elkarrizketak, iritzi artikulua eta editoriala dira *Arrasate Presse* landu dituen eta lantzen dituen kazetaritza generoak. Izenburu edo sail desberdinetan, baina genero guztiak landu dira hasiera-hasieratik. Esaterako 62. zenbakian “Luma zorrotza” izeneko saila iritzi artikulua batek osatzen zuen. Egun iritzi artikulua “Herritarren berbak” atalean jasotzen dira. Aktualitateko gaiak lehengo aleetan “Aktualitatea” atalean lantzen ziren, egun “orain eta hemen” izenekoan. Kontuak kontu, kazetaritza genero berberak lantzen dira *Arrasate Presse*, erreportajearena izan ezik. Izan ere, *Goienkarian* azaltzen dira erreportajeak eta ez Arrasateko astekarian.

3.3. Hurbileko gaiak

Funtzio eta kazetaritza genero desberdinekin, baina astekariak lantzen dituen gaiak herritarrengandik oso hurbilekoak dira. Arrasate da gaiak lantzeko eremua, eta protagonista nagusiak arrasatearrak dira.

1. Grafikoa



Grafiko honetan argi ikusten den bezala, iritzi nahiz genero informatibotako protagonista nagusiak mondragoitarrek dira. Euskal Herriko nahiz nazioartekoek ere badute euren lekua, baina arrazoiren bat tarteko denean. Esaterako, kanpotar musikagile batek kontzertua Arrasateko Amaia antzokian eskaini bazuen elkarrizketa egin zitzaion. Eta egun ere gauza bera gertatzen da. *Goienkariaren* etorrerarekin, gainera, *Arrasate Presse*ko protagonista gehientsuenak dira herrikoak. Izan ere, nazioarteko nahiz Euskal Herriko gaiak protagonismo handiagoa dute *Goienkarian*. Azken finean protagonistak herrikoak izatea horixe da *Arrasate Presse*ren gakoia. Jende ezaguna prentsan agertzea edota albisteen protagonista izateak artikulua edo albistea irakurtzera bultzatzen baititu herritarrek. Joxe Aranzabalek kontatzen du, nola euskaraz ez zekiten herritarrek ere jotzen zuten astekarira, esaterako, euren familiarekin bat ezkontzen zenean argazkia astekarian jartzeko eskatzera. Hasieran harrিতта geratzen omen ziren, baina ohartu ziren hain hurbileko informazioa eskaintzeak euskaraz irakurtzera ere bultzatzen zitutela herritarrek.

Astekariaren sorreratik eginiko ikerketek bestalde, frogatzen dute herritarren sailik gustukoena direla protagonistak herritar arruntak direnean. Eta era arin eta ulerterrazean idatzita daudenean. Gehien irakurtzen diren sailak, “Kirolak”, “Txutxumtxuak” eta “Inkestak” dira eta, kontua da, herritar arruntak direla protagonistak. Era arin eta irakurterazean idatzitakoak dira, gainera. Horrexegatik ondoriozta daiteke, hurbileko gaiak eta protagonistak hurbileko jendea dituen informazioa askoz erakargarriagoa dela irakurleentzat. Eta *Arrasate Presse*ren arrakastaren arrazoi nagusienetakoa dela.

4. Diseinuaren eboluzioa

Urte guzti hauetan kontu handiz zaindu dena aldizkariaren itxura da. Diseinuari emandako tratamendu onaren erakusgarri dira nazioartean jasotako sariak.

- 1997ko irailean: “Society of News Desing” izeneko saria eman zioten. Munduko aldizkari txiki onenen artean aukeratu zuten Mondragoikoa. Saria jaso zuen alearen diseinua Goio Aranek egin zuen 1996an. Gerora eta *Goienkaria* sortuta, bi sari jaso ditu.
- 2002an: aldizkariko sail bati, *Goienka2ari* eman zioten .
- 2003ko azaroan: Kasu honetan *Goienkariak* jaso zuen “European Newspaper Award” saria, tokiko prentsaren alorrean. Hilabete batzuk geroago, 2004ko martxoan, aldizkariaren diseinatzailea, Goio Arana, Goiena Komunikazio Zerbitzuko zuzendaria eta kazetari bat Vienara joan ziren saria jasotzera.

Azken bi sari hauek ez ditu *Arrasate Pressek* zuzenean jaso, baina *Goienkariaren* eta *Arrasate Pressen* patroia eta diseinugilea berbera da.

4.1. Diseinuaren eboluzioa

Astekaria itxura erabat aldatu du eta lehenengo alea egungo ale batekin alderatuz gero, astekari desberdinak dirudite. *Goienkariarekin* batera formatu aldaketa etorri zen, eta aldaketa horrek ekarri zuen eraberitze handiena.

Egun tabloide tamainako formatuan kaleratzen da eta ez A4an hasieran egiten zen bezala. Formatu handiagoa erabiltzeak, orri barruko egitura dinamikoagoa ahalbidetu dio, testu nahiz argazkien arteko kokapen eta diseinu desberdinak posible eginez. Bestalde, lehenengo alean eta egun erabiltzen den tipografia ez da bera. Eta albistearen arabera eta duen garrantziaren arabera tipografia jakina erabiltzen da.

Bestetik, argazkiek duten lekua handiagoa da. Argazkien kalitate onak eta digitalizazioak eskaintako abantailak izan dira irudien presentzia handiagoa izatearen arrazoi. Eta horri eskerrak, astekariaren itxura beste bat da oraingoa. Aurrerapen teknologikoei esker baita ere, koloreak bere lekua du *Arrasate Pressen*. Eta azala koloretan argitaratzen da.

4.2. Diseinuaren gakoak

Azken batean aldaketa horiek guztiek astekariaren kalitatea hobetu dute. Aurrerapausoak bi irizpide kontuan hartu izanari esker egin dira. Goio Aranaren esanetan argitasuna eta apaltasuna izan behar dira kontuan aldizkari bat diseinatzeko orduan: (Arana, 1998;19).

- **Argitasuna:** Konplikazioek mezua nahasten dute eta ez da gomendagarria irakurlea labirinto grafiko baten aurrean jartzea. Horregatik, tipografia indartsuak eta barietate neurtuan erabiltzeko joera izan du astekariak. Gainera, zuriuneei merezi duten garrantzia eman diete. Eta argazki onekin hornitutako aldizkaria egin dute. Azken honetan aurrerapen teknologikoei izan dute eragin gehien.
- **Apaltasuna:** Kontua da zenbat eta barrokoagoa izan ez dela diseinua hobea izango. Sinpletasunaren bidez aldizkari ederrak egin daitezkeela frogatu du *Arrasate Pressek*.

Bi ezaugarri horiei esker, argitasunari eta apaltasunari esker, aldizkari irakurteraz, ulergarri eta erakargarria egin dute. Teknologia aurrerapenek eta diseinu munduko esperientziek lagundu dute arrakasta hau lortzeko orduan. Baita kazetari eta diseinugile nahiz maketatzailen arteko talde lanak ere (Arana, 1998; 18). Elkarlanaren garrantziaz jabetu dira aldizkariko langileak eta egun kazetari eta diseinugileen arteko adostasunean eta elkar ulertzean dago gakoa. Azken batean, diseinua ez delako arte edo estetika hutsa: ez baita informatze hutsa; ezta zientzia zehatza ere. Elkarriketa, intuizio, gustu eta komunikatzeko nahiaren ondorioa da. Eta *Arrasate Press* hobetuz joateko giltzarria izan da, zalantza barik.

5. Ondorioak

Herri-herriko gaiak era erakargarrian landuz irakurleen fideltasuna izatea lortu du *Arrasate Press*-ek. Eta egun 7.457 ale banatzen dira herrian. Horrek esan nahi duena da, irakurleak 7.000 baino gehiago direla. Fideltasun hori mantentzea lortu da, aldizkariak arrasatearrei asko eman dietelako.

5.1. Herri izaera indartuz

Astero-astero landutako gai, elkarrizketa edo iritzi artikuluei esker irakurleek herriaren nortasuna edo izaera hobeto ezagutzeko aukera izan dute. Kontua da, urte guzti hauetan jende desberdin askori buruz hitz egin duela astekariak eta baita herriko arazo edo eztabaidei buruz ere. Horri eskerrak, irakurleek Arrasate bere osotasunean ezagutzeko aukera izan dute, Arrasateren aurpegi desberdinak ezagutuz. Izan ere, Arrasate herri anitza da, denetarikoa jendeak osatzen duen herria. Eta aldizkaria saiatu da aurpegi guzti horiek azalarazten.

5.2. Zubi lanak

Bestalde, herritarren edota herriko erakundeen arteko zubi lanak ere egin ditu astekariak. Mondragoitarrek hobeto ezagutzea ahalbidetu du, eta herritarrek elkar hobeto ezagutzea. Bestalde, Udalaren eta arrasatearren arteko komunikazio tresna garrantzitsua da *Arrasate Press*. Udalaren erabakien berri emateaz gain, herritarrek Udalaren jarduren inguruko zalantzak eta iritziak ezagutzera ematen lagundu duelako.

Horregatik, *Arrasate Press* Arrasateko eguneroko bizitzan garrantzitsua da oso. Urteen joanean, herriarengandik gertu egoten jakin duen astekaria da. Eta herritarrek hala dela uste dute. Bestela, ikustea besterik ez dago, egunero zenbat mondragoitarrek edo erakundek jotzen duten aldizkariara oharrak eman nahiz informazioa jasotzera. Harreman hau gertuko komunikabide ikusten dutenaren seinale da.

5.3. Etorkizuna

Aldizkariaren erronka izan behar du, herritarren eta aldizkariaren arteko harremana orain artekoa bezain ona izatea. Eta horretarako produktua bera ondo zaindu behar dute:

- **Hurbileko gaiak:** Arrasatearren eguneroko bizitzan pil-pilean dauden gaiak jorratu behar dira. Eta protagonista nagusiek herritarrek izaten jarraitu behar dute. Horretarako arrasatearrei irekita dagoen aldizkaria izan behar du *Arrasate Pressek*.
- **Herri anitza:** Arrasateren isla izaten saiatu behar du. Horretarako, Arrasateren alderdi desberdinak erakusten jarraitu behar dute. Eta ez, askok pentsatzen duten modura, arlo euskaltzaleari lotuta. Iritzi, jarraera eta izaera desberdineko herritar eta erakundeentzako lekua izan behar du *Arrasate Pressek*.
- **Aldizkari erakargarria:** Gaiak bezainbeste zaindu behar da diseinua. Eta aldizkari erakargarria izaten jarraitu behar du. Gaiak era arin eta ulergarrian idatzi behar dira. Diseinuak argia eta apala izan behar du.

Puntu horiek jarraituz gero, orain arteko fideltasuna mantentzen jarraituko du. Eta baita konpetentziaren aurrean ez kikitzen ere. Egia dena da, gaur egungo egoera ez dela orain hamasei urtekoa. Eta euskarazko eta tokiko prentsan dagoen konpetentzia handiagoa dela. Gertatzen dena da, tokiko informazioaren alorrean Goiena Komunikazio Zerbitzua dela indartsuena Arrasaten. Aldizkaria ez ezik, telebista, irratia eta web-orria ere badituelako. Euskarazko prentsaren aurrean, berriz, aldizkariak orain hamasei urte baino gehiago izan arren, *Arrasate Pressek* lantzen dituen gai desberdinak jorratzen dituzte. Beraz, ez dago konpetentzia zuzenik.

Hala ere, orain artean bezalatsu, herri aldizkari irakurterraz eta herritarren intereseko aldizkari anitza egitea da etorkizuneko erronka.

Bibliografia

- Arrasate Press*. AED.1 zenbakia (1989ko abenduak 2) Arrasate. 1989-XII-08. Astekaria.
- Arrasate Press*. ARKO .62. zenbakia (1990ko maiatzak 4) Arrasate. 1990-V-04. Astekaria. ISSN: 0214-4654
- Arrasate Press*. ARKO .122. zenbakia (1991ko urriak 18) Arrasate. 1991-X-18 . Astekaria. ISSN: 0214-46654.
- Arrasate Press*. ARKO .184 zenbakia (1993ko martxoak 12) Arrasate. 1993-III-12. Astekaria.ISSN: 0214-4654.
- Arrasate Press*. ARKO .247 zenbakia (1994ko irailak 23) Arrasate. 1994-IX-23. Astekaria.ISSN: 0214-4654.
- Arrasate Press*. ARKO .307 zenbakia (1996ko otsailak 9) Arrasate. 1996-II-09 . Astekaria.ISSN: 0214-4654.
- Arrasate Press*. ARKO .370 zenbakia (1997ko uztailak 4) Arrasate. 1997-VI-04 . Astekaria.ISSN: 0214-4654.
- Arrasate Press*. ARKO . 432. zenbakia (1998KO ABENDUAK 11) Arrasate. 1998-xii-11. Astekaria.ISSN: 0214-4654.
- Arrasate Press*. ARKO. 497. zenbakia (2000ko maiatzak 26) Arrasate. 2000-V-26. Astekaria.ISSN: 0214-4654.
- Arrasate Press*. Goiena. 558. zenbakia (2001ko urriak 19) Arrasate. 2001-X-19. Astekaria.ISSN: 0214-4654.
- Arrasate Press*. Goiena. 623. zenbakia (2003ko martxoak 21) Arrasate. 2003-III-21. Astekaria.ISSN: 0214-4654.
- Arrasate Press*. Goiena . 667. zenbakia (2004ko martxoak 26 Arrasate. 2004-III-26. Astekaria.ISSN: 0214-4654.
- Goienkaria*. Goiena. 38. zenbakia (2001ko urriak 19) Arrasate. 2001-X-19. Astekaria.
- Goienkaria*. Goiena .(2001eko martxoak 8) Arrasate. 2001-III-08. Astekaria.
- Arrasate Pressen* irakurle goaren ikerketa 1994.
- Arrasate Pressen* irakurle goaren ikerketa 1998-99.
- ARKO. Prentsa Lokalari buruzko I. Ihardunaldiak. AED. 1.arg. 9.atala. Arrasate: 1991. “Herri-aldizkari baten tajuketa”.
- ARKO. Prentsa Lokalari buruzko I. Ihardunaldiak. AED. 1.arg. 11.atala .Arrasate: 1991. “Arrasate Press”.
- ARKO. Herri Komunikabideei buruzko III. Jardunaldiak”. AED. 1.arg. Arana, G.. Arrasate: 1998. “Diseinuan ere kalitate”, 15-27.
- Topagunea. *Tokiko hedabideak etorkizunera begira*, III. Jardunaldiak. 1.arg. 6.atala. Muxika, J.M. Abadiño: 2004. “Euskarazko Prentsa: Tokiko hedabideen estrategia posiblea”, 43-47.
- Topagunea. *Tokiko hedabideak etorkizunera begira*. 1. arg. 139 . atala. Arregi, I. Abadiño: 2004. “Goiena multimedia-proiektua: ametsetatik errealtatera”, 139-151.

<http://suse00.su.ehu.es/euskonews/008zkb/media0801.es.html>
www.euskonews.com/0157zkb/gaia15709eu.html
www.goiena.com/Armiarma/1069093341/index_html
www.sustatu.com/1080756706

g. **GALTZAUNDI (1991-2004): GERTUKO INTXAURRAK MAMITSU**

Maidar Jauregi
Kazetaritza ikaslea

1. Sarrera. Hipotesia eta metodologia

Hurbilekoak errazago harrapatzen gaitu. Eguneroko bizitzan, maiz, etxe ondokoa urrutikoa baino deigarriagoa bihurtzen da. Gertutasun mailak jazoerak berak izan dezakeen garrantzia baldintzatzen du, informazio hartzailearen ikuspuntutik. Tokian tokiko gertakariak hizpide izaten dira sarritan, aurretik irakurgai izan direlako. Informazio hori lantzeko tresna baliagarriak dira herri komunikabideak. Baliagarri ez ezik, beharrezko ere bai. Telebista eta irrati lokalak, herri-aldizkari eta egunkariak; batzuk zein besteak amuak dira bertakotasunak erakarrita sarean jausten direnak harrapatzeko. Gertuko informazioak berezkoa du erakargarritasuna, baina hori ez da nahikoa. Hartzailea amaraunean harrapatuta mantentzeko hedabideak egiten duen lana erabakigarria izango da. Herri-informazioari etekina ateratzeko urrats egokiak egitea ezinbestekoa da, beraz.

Azterketa honetan euskarazko herri aldizkariak irakurlea asebetetzeko egindako ahaleginaren inguruan jardungo dugu. Euskal Herrian euskara hutsez hurbileko informazioa jorratzen duten 70 herri-aldizkari daude (Aiestaran, 2003:33). Esparrua zabala da zinez: tokian tokiko aldizkariak, hain zuzen ere, euskarazko aldizkari guztien %55 inguru dagokie (Muxika, 2003:44). Gogoetarako gonbita egiten duten datuak dira, eta baita, hipotesi bat mahai gainean jartzeko ere: informazioa aukeratu, landu eta aurkezteko hedabideak egiten dituen pausoen araberakoa da arrakasta. Irakurlearen interesa eta arreta mantentzeko ahaleginean datza gakoa. Bakarra da gakoa, baina giltzarriak hiru: diseinua, gaiak eta idazmoldea. Produktu duina eta kalitatekoa eskaintzea beharrezko da. Besteren artean, ahalegin horretan ari da *Galtzaundi* herri aldizkaria. Irakurlearen fideltasuna lortu du, erreferentzialtasuna badu, eta horretarako egindako bidea aztertuko dugu jarraian. Hipotesia lantzeko baliagarri iritzi, Tolosaldeko aldizkaria oinarri hartuko dugu, *Galtzaundiren* ekarpenei buruz ariko gara.

1991tik, aldizkaria kaleratzen hasi ziren urtetik gaurdainoko argitarapenak hartu eta bina urteko taldeetan banatuko ditugu. Hala, lehenengoan 1991. eta 1992. urteetan argitaratutakoak daude, bigarrenean 1993-1994koak, eta horrela, 2004.era. Talde bakoitzeko aldizkari bat aukeratu, aztertu eta aurrekoekin alderatuko dugu, aldaketa nabarmenenak ikusteko. Hala, Galtzaundik hamahiru urteotan egindako urratsak laburbiltzeko moduan izango gara. Bestalde, *Galtzaitiki* gehigarria ere aztergai izango dugu: lehenengo zenbakitik azkenearaino argitaratutako guztiak. Arestian aipatutako hiru giltzarriak, alegia, diseinuari, gaiak eta idazmoldeari eskainiko diegu arreta. Azkenik, *Galtzaundiren* webgunean sartu-irtena ere egingo dugu, nolakoa den azaltzeko.

2. Historia. Ezina, ekinez egina

Ibilbideari hasieratik ekiteko *Galtzaundiren* sorrera ekarriko dugu gogora: 1991. urteko maiatzean loratu zen Tolosaldeko herri-aldizkaria. Aita-ama gazteak zituen: aurreko urteko abenduan sortu zen Galtzaundi Euskara Taldea, handik hilabete gutxira aldizkaria argitaratuko zuena.

Tolosaldean euskararen ezagutza eta erabilera ez dira gauza bera izan. 90eko hamarkadaren inguruan ezagutza %60 ingurukoa zen; erabilera, ordea, murriztagoa. Gauzak horrela, hainbat saiakera egin ziren euskara ez zekite- nek ikas zezaten eta ezagutzen zutenek gehiago erabiltzeko.

Galtzaundi izen bereko euskara taldeak emandako kimuetako bat da. Bertako kideak hiru azpitaldetan banatu ziren: normalizazio taldea zen lehena, kulturaz arduratzen zen bigarrena, eta aldizkariak, hirugarrena.

Bailaran ez zen aurrekari askorik. Tolosaldea Berreuskalduntzeko Taldeak *Kontxo* aldizkaria atera zuen, baina luze gabe desagertu zen. Galtzaundi Euskara Taldeak *Arrasate Press* eredu hartu eta aurrera egiten jakin zuen. Ere- du batean sostengatu bai, baina norberak berea sortzean zetzan gakoa, eta asmatu egin zuten.

3. Elkarlanaren eta koordinazioaren garrantzia

Hobera egin nahi bada, elkarlana sustatu behar. Lantaldea osatzen duten kideen arteko komunikazioak emaitza bal- dintza dezake. Hasieratik produktua taxutu arterainoko prozesua behar bezala koordinatzeko bakarkako lana eta talde lana, biak uztartu behar dira. Goio Aranak (1998:18) esandakoa ekarri behar dugu gogora: “Diseinatzaileen, publizisten eta kazetarien arteko harremanak borobiltzea” zenbaterain den garrantzitsua argi du diseinatzaileak.

Albisteak idaztea gauza bat da, forma ematea beste bat; osotasuna erdiesteko kazetariak diseinatzailearen lana- ren berri izan behar du, eta alderantziz. Gauza bera, maketatzaile eta gainerako lankideen kasuan. Betebeharrak, arauak, mugak eta helburuak errespetatzea norberari dagokio, baina kontuan ez izateak albokoaren lana kaltetu dezake.

Aldizkaria sortzeko prozesua hastapenetik amaierara kontrolatzeak emaitza egokia lortzea erraztuko du. Hasie- ran *Galtzaundiko* erredakzioan aritzen zirenek badute horren berri: artikulua idazmakinez idatzi eta inprentara era- maten zituzten. Han maketatu, testuak argazkiekin josi eta aldizkaria egituratzen zuten. Batzuetan txukun, artiku- lugileek eskatu bezala, eta traketsago ere bai, beste batzuetan. Erredakzioko kideek nahi zuten emaitza eskuratzeko lan nekeza izaten zen, ia dena inprentan egiten zutelako. Aldizkaria aurkezteko eran jauzi kualitatibo handia egin zuten prozesua bere osotasunean kontrolatzen hastearekin batera, lantzen zituzten artikulua aurrez buruan irudi- katu bezala antolatzen iritsi zirenean.

4. Azterketa: Bi urtetik behin, aldaketa bat baino gehiago

Irakurlearen leialtasuna lortzerko kalitatea eskaintzea da bidea. *Galtzaundik* irakurleen esparrua ahalik eta gehien zabaltu nahi izan du, askotariko gaiak landuz eta urtetik urtera itxura hobetzeko ahalegina eginez.

4.1. 1991-1992. Nortasuna finkatzeko lehen urratsak

1991ko maiatzaren 26a. Jaio da *Galtzaundi*. Erredakzioko lantaldea zortzi lagunek osatzen dute, eta lehenengo ale- etan ez dago kargu banaketarik edo, erredakzioaz beste, inolako sailik. Salbuespen bi daude: lagun bat diseinatzeko arduratuko da -laugarren zenbakitik aurrera bi izango dira-, eta beste bat hasiko da publizitatearen arloa lantzen.

- 0 zenbakia da lehena: 12 orrialde ditu, zuri-beltzean. Kolore bakar bat sartzen da, urdina, eta soilik aza- lean. Hurrengo aleetan sailen egitura zehaztuta geratuko da.
- Letra tamaina handia da, irakurgarritasuna eta erakargarritasuna errazteko.
- Publizitatea diru iturri garrantzitsua da. Gorantz nabarmen egingo du hasieran, eta finkatu egingo da gero.
- Gorantz egiten duena, halaber, orrialde kopurua: 0 zenbakiak 12 orrialde, hurrengoak lau gehiago, zor- tzigarrenak 36 orrialde izango ditu...

4.2. 1993-1994. Arrakastaren gakoak: diseinua eta gaiak

Aldizkariaren nortasuna zehaztu eta finkatu egiten da. Dagoeneko ezaugarriak ez dira horren aldakorak. Hala ere, bada berrikuntzarik:

- Testu gehiago sartzeko aukera handitzen da; hizki mota desberdina da.
- Elementuak ugaritzen dira: soslaiak, bat-bateko galdera-erantzunak... Kazetariaren lana janzten dute eta arreta erakartzeko baliagarriak dira.
- Erreportaje, elkarrizketa eta artikulua luzeetan orrialde oso bat hartzen dute tituluak, sarrerak eta argazkiak.
- Argazkiek kalitate hobea dute eta originalagoak dira.
- 1993ko urtarrileko alean azalak kolorea dakar, baina salbuespen moduan, 1995. urtera arte ez baita berriro sartuko.
- Diseinua argiagoa da, maketazioa gero eta txukunagoa.

4.3. 1995-1996. Hobekuntzei atea zabaldu eta kolorea sartu

Aldizkaria laugarren urteurrenaren bidean da. Unean uneko aldaketak segurtasunez egin dituzte, behar bakoitzari zegokion erantzuna emanez.

- Azalean, bigarren orrialdean eta azkenekoan kolorea sartzen hasiko dira, eta aldizkariak erakargarritasunean irabaziko du.
- Aurreko diseinuaren ezaugarri nagusiak mantendu egiten dira, lotura bermatuz.
- Xehetasunak gehiago zaintzen dira: argazki oinak lauki beltzetan...
- Diseinuaren bidez atentzioa puntu jakin batzuetara bideratzen da.

4.4. 1997-1998. Iraganera begirada

Atzera begiratzen da, hasierako aleen zenbait ezaugarri berreskuratuz:

- Azalean argazkia jaun eta jabe da, ia orri osoa hartzen baitu. Alta, lehenengo aldiz irudi bakar bat baino gehiago ikus daiteke azalean.
- Koloreak garrantzia du elementu batzuk eta besteak bereizterakoan. Ale bakoitzeko kolore bat nagusi izateak osotasuna ematen dio.
- Hizkien neurria handitu eta tipoa aldatzearen aldeko apustua egiten da. Orriari arnasa ematen diote.
- Aldizkariaren barruko orrialdeek, azalak bezala, aurreko urteetako antza baino gehiago dute hasierakoena.
- Aldaketa pausatua da. Diseinu argia eta jantzia da, txukuna.

4.5. 1999-2000. Berrizalea eta berritzailea

Aldizkariak itxura modernoagoa, berritzaileagoa hartuko du 2000. urtetik aurrera:

- Azalean irudiak inoiz baino garrantzi handiagoa du, eta honen koloreen araberakoak dira maketako mar-goak. Informazioak baino ilustrazioak zer esan handiagoa ematen du.
- Barrualdeko orriak diseinatzeko aurreko urteetako ereduak hartu eta nahasketa moduko bat egiten da.
- Koloretako taulek, tartekiek, itxura deigarriagoa ematen diote.
- Elementu osagarriak gutxiago erabiltzen dira.

4.6. 2001-2003. Hilabetekaria hamaboskari

Bai diseinuaren eta bai sailen antolamenduari dagokionez, aldaketa eza da hiru urte hauetan nabarmentzen den ezaugarri nagusia. 2001. urteko aldizkariak aurrekoei jarraipena egiten diete, eta beste horrenbeste aipa daiteke hurrengo bi urteei buruz ere.

Lantaldeak ez du urte horietan diseinu berrira egokitzen lan handirik, baina bestelako zereginik izango da, hila-betekaria hamaboskari bihurtzen baita. Beraz, lana badute, eta azkarrago egin beharrekoa, gainera.

4.7. 2004. Garbia, sinplea, gustagarria

Galtzaundik etorkizunari eskutik heldu dio. Hala ere, lantzean behin iraganari keinu egin eta ongi eginak gogora ekartzea gustuko du. 1999ko aleen zertzeladak berreskuratu ditu. Sinpletasunean irabazi egin du; diseinua garbia eta gustagarria da.

- Azalean argazkiak ez du protagonismoa galdu eta nekez gertatuko da halakorik, erakusleihu lana egiteko tresna eraginkorra baita.
- Barrualdeko diseinuak aurreko urteen arrastoa badu; orain arteko izandako diseinu bakoitzetik zertxobait hartzen du.
- Letra tamaina txikitu egiten da berriro.
- Xehetasunak asko zaintzen dituzte: kapitularrei garrantzia ematen diete, baita argazkien kokapenari ere.
- Asko dago kontatzeko, eta sarri espazioak buruhaustek eman ditzake. Diseinuarekin asmatzea lagungarria da oso, halako arazoak konpontzerakoak. Gauzak txukun eta modu erakargarrian egiteko orain arte aztertutako eruedetan egokiena da.

4.8. Gaien eta idazmoldearen inguruan hitz bi

Sortu zenetik hona hamaika gai landu du *Galtzaundik*: hamaika elkarrizketa, erreportai, berri, gertaera eta bitxikeria. Irakurlea harrapatu du. Bizirik irauteko kalitatea eskaini beharra zuen, eta horretan ahalegindu da. Bertakotasuna, bere “tasun” horrekin, dohain bilakatzen da herri-aldizkari gehienentzat. *Galtzaundik* badu zer kontatu. Horren adierazgarri, 1991. urteaz geroztik landu duen gai andana. Denetik irakurri ahal izan da bertan: kulturak, kirolak, tradizioak, modernitateak, historiak, etorkizunak, gertatutakoak eta gertatzekoak, guztiek dute tokia. Aurkibide aberatsik bada, huraxe *Galtzaundirena*. Urtez urte bai, baina zenbaki batetik bestera ere atalak aldatu egin izan dira, berriak gehitu, zaharrak eraldatu.

Askotariko gaiak, irakurleria zabal bati zuzenduta. Jende askorengana iristeko helburu du *Galtzaundik*; adin guztietako irakurleak asebate nahi ditu: haurrak, gazteak, helduak, euskaraz irakurtzen ohitutakoak eta ohiturarik gabeak... Diseinua lagungarri ez ezik beharrezko ere bada, begietatik zer sartu huraxe ikusten baita, eta ikusitakoak erakarri egin gaitzake edo ez. Diseinuaren funtzioa bezain garrantzitsua da, ordea, mamia aukeratzen eta aurkezten asmatzea. Alegia, gaiak hautatzerakoan eta idaztean egoki jardutea. Bi baldintza horietan lehena ongi bete du *Galtzaundik*. Ikusi besterik ez dago urteetan osatutako atal sorta. Aldizkariak sail asko baditu, lantzen dituen gaiak askotarikoak direlako da.

Herri-aldizkariak esparru mugatua dute, horrek desabantailak izan ditzake, baina abantailak ere bai. Irakurleak ezaugarri jakin batzuk ditu, euskarak ere bereizgarri zehatzak hartzen ditu, eta horiei etekina atera behar die aldizkariak, irakurleen eta hedabidearen arteko lotura bermatzeko biderik zuzenarikoa izan baitaiteke. Idazterakoan gertutasunaz baliatzea irakurlea komunikabidearekin identifikatuta sentitzeko baliabideetako bat da. *Galtzaundik* bertako ezaugarrietara egokituta euskara erabili du, gurean ohikoak diren esamoldeak... Ulertzeko zailtasunik gabeko artikulua eta berriak dira irakurgai; euskara batuaren arauak errespetatu egiten dira une oro, baina etxeako mintzatzeko etxeko moldea bezalakorik ez dela pentsatzen da.

5. Hazitik uzta: geroa emankor

Galtzaundin hobetzeko ahalegina etengabea izan da, bizirauteko beharrak hala eskatzen baitu. *Galtzaundi* Euskara Taldeari egindako lana aitortu behar zaio; eskertu, irakurleek eskertuko diote. Hamabost egunetik behin kalita-

teko produktua, aldizkari duina eskaintzeaz gain, bestelako esparruak lantzen ere saiatu da elkartea. Hazia erein eta uzta jasotzeko, hain zuzen.

5.1. *Galtzattiki*

1996ko Inauteriak aukeratzen dituzte lehen *Galtzattiki* kaleratzeko. Monografikoak lantzen dira batik bat, eta ez du maiztasun jakinik: dataren araberakoa baino, egokieraren baitakoa da maiztasuna. Aldizkaria etxean hilean behin jasotzea nahikoa iruditzen ez zitzaizkien beharrei erantzuten die neurri batean. Hilabetekaria hamaboskari bihurtzearekin, ordea, *Galtzattiki*ren egitekoa bertan behera geratuko da. 1999ko abendukoa da azken zenbakia.

Monografiko bakoitzaren egitura jorratzen diren azpigaiek baldintzatzen dute. Badira *Galtzattiki* batean baino gehiagotan errepikatzen diren atalak, badiren bezala, oso bestelako egitura ematen zaienak.

Iritziak toki handia du, subjektibitateak ere bai, askotan lanek erreportaien eta kroniken kutsua baitute. Horrek guztiak bestelako ukitu bat ematen die aldizkariari. Informalagoa batzuetan, jantziagoa hurrena, lantzen den gaiaren eta protagonisten arabera.

Galtzattiki formatu berezia du, hilabetekariak baino txikiagoa. Diseinu alaia du, bizia, koloretsua. Barruko orrietan ere bada kolorerik -ertzetan, artikuluen sarreretan...-, nahiz eta argazkiak zuri-beltzak izan.

Nolako egurra, halako ezpala. Begi bistan geratzen da *Galtzattiki* nor duen ama. Diseinuak *Galtzaundiren* antza du, eta maketazioan ere joerak errepikatu egiten dira. Hala ere, *Galtzattiki* bere nortasuna du, bata eta bestea ez dira gauza bera.

5.2. Internet

Euskara taldeak bi besoak zabalduta hartu ditu teknologia berriak. Hartzailearengana iristeko bide emankorrak, egoiak erabili behar ditu. Horregatik, Interneten ere bere lekua hartu du. Webgune bat du, eta bertan aldizkaria irakurtzeko aukera eskaintzen da.

www.galtzaundi.com atarian, azken argitalpenaz gain aurrekoak ere kontsulta daitezke. Gainera, euskara taldearen nondik norakoen berri ematen da: zer helburu dituen, zer nolako kanpainatan murgilduta dabilen...

Hamaboskaria aldatzen doan neurrian edukia ere aldatu egiten da. Badira, ordea, beti berdintsu mantentzen diren kontu batzuk. Informatiboak dira gehienak, adibidez, bazkide egiteko edota lantaldearekin harremanetan jartzeko egin beharrekoen inguruko informazioa eskaintzen da. Horrekin batera, bestelako zerbitzurik ere bada, adibidez, txata eta foroa.

Webguneak irakurlearen eta aldizkariaren arteko lotura errazten du, eta argitalpena eskura ez dutenei irakurtzeko beste modu bat eskaintzen zaie.

6. Ondorioak. Emaitzak eta erronkak

Irakurlearen arreta lortzea ez da nahikoa, mantendu ere egin behar da, erreferentzial bilakatu. Produktu duina eta kalitatekoa eskaintzea da kontua, eta horretarako pauso eraginkorrak egin behar, aztertu berri ditugunen modukoak. Hamahiru urte pasatu eta gero, lanaren fruituetariko zenbait biltzeko moduan da *Galtzaundi*:

- Gertutasunak sortzen duen jakin-minaz baliatzen asmatu du.
- Aldizkaria sortzeko prozesua hasieratik bukatu arte kontrolatzera iritsi da.

- Elkarlana sustatzen da koordinatzailearen bidez.
- Lantaldea sendoagoa da, lan banaketa zehatzagoa: erredakzioko kideez, publizistaz eta diseinatzaileez gain, idazkaria, zuzentzailea, kolaboratzaileak, komikigilea eta maketatzailea daude egun. Hamahiru urteren buruan, 10 lagunekoa zen taldean 20 kideetik gora ari dira.
- Askotariko gaiak jorratzen dira, askotariko irakurleriari egokituta: guztiek dute euren tokia.
- Idazmolde txukuna darabil, gertukoa, bertako ezaugarriak, bereizgarriak hartzen dituen eta eskualdean erabiltzen diren esapideez baliatzen dena.
- Euskara jatorra eta zuzena da, Euskaltzaindiaren arauak betetzen dituena.
- Diseinuari merezi duen garrantzia ematen dio, gustagarria izan dadin: argitasuna eta sinpletasuna bilatzen dira, batik bat.
- Eskaintza zabaltze aldera, bestelako esparruak lantzen hasi da; tartean, Internet.
- Aldizkariaren nortasuna zehaztea eta finkatzea lortu da.

Iragana izan duen bezala, etorkizuna ere badu Galtzaundik, eta aurrera egiteko, erronka berriei heldu behar: garaian garaiko beharrei erantzun egokia ematen saiatu beharko du.

Erronketako bat, honakoa: irakurle-sarea handitzea. 5.000 aleko tirada zuen hasieran, eta beste horrenbestekoa du egun. Horretarako, Topaguneko lehendakari Jose Mari Muxikak dioen bezala (2003:46), euskara ikasten ari direnengana iritsi behar da, seme-alaba euskaldunak dituzten etorkinengana jo, eta publizitatea jarri nahi duten euskal hiztunak erakarri, besteren artean.

Bizirautea ez da nahikoa, irabazteko grina izan behar da, egunetik egunera kalitatean eta kuantitatean irabaztekoa. Erdararekiko lehiari, euskarazko beste aldizkariekin elkarlana bultzatzeko borondatea azaltzea tresna eraginkorra izango da *Galtzaundirentzat*.

Hilabetekaria zen tokian hamaboskaria dago. Hamaboskariak, baina, astean seitan argitaratzen den egunkari bat du orain ondoan. Batak ez du bestea kentzen, baina elkarbizitza errazteko ahalegina egitea ere ez da erronka makala: gai berari ezberdin begiratu behar zaio, ezberdin ikusi eta beste modu batean landuko, aurkeztuko bada.

Irakurlea asebetetzeko eginahalak etengabea behar du izan. Horretan ari da Tolosaldeko aldizkaria, eta baita gainontzeko euskarazko komunikabideak ere. Batzuen eta besteen oinarrian, helburuetan antzekotasun asko aurki daiteke, baina ez dira berdinak. Herri-aldizkariak non sortu, hango ezaugarriak dituzte: bakoitzak mundu oso bat du barnean, mundu oso bat, inguruan.

Bibliografia

Aiestaran, Alazne (2003): “Euskarazko prentsa:estrategia zehatzak eta elkarlanerako proposamenak (I)”, 33 or. In *Tokiko Hedabideak Etorkizunera Begira*. Abadiño: Topagunea Euskara Elkarteen Topagunea.

Arana, Goio (1998): “Diseinuan ere kalitatea”, 18 or. In *Herri Komunikabideei Buruzko III. Jardunaldiak*. Arrasate: ARKO.

Muxika, Joxemari (2003): “Euskarazko prentsa: tokiko hedabideen estrategia posiblea”, 44-46 or. In *Tokiko Hedabideak Etorkizunera Begira*. Abadiño: Topagunea Euskara Elkarteen Topagunea.

Galtzaundi: 0. zenb. 1991ko maiatza, 1. zenb. 1991ko ekaina, 8.zenb. 1992ko otsaila, 18. zenb. 1993ko urtarrila, 25. zenb. 1993ko iraila, 29. zenb. 1994ko urtarrila, 40. zenb. 1995eko urtarrila, 55. zenb. 1996ko maiatza, 63. zenb. 1997ko otsaila, 77. zenb. 1998ko maiatza, 90. zenb. 1999ko abuztua, 95. zenb. 2000ko urtarrila, 124. zenb. 2001eko apirila, 144. zenb. 2002ko martxo, 169. zenb. 2003ko maiatza, 191. zenb. 2004ko maiatza

Galtzattiki, 1-16 zenb. (1996ko otsaila-1999ko abendua)

Joxemi Saizar-ri elkarrizketa (2004-IV-05)

www.galtzaundi.com

h. KOMUNIKAZIO BIZIAGOAREN MUINEAN, ARGIAREN GEROA

Xabier Letona
Argiako zuzendaria

1. Sarrera

Argia astekariaren geroaz jardun behar dut gaurkoan, baina gaitza egiten zait geroaz hitz egitea gutxienez apur bat iraganaz berba egin barik, besterik ez bada hemen zaudetenok hobeto kokatzeko. Beraz, oso labur eskainiko ditut datu batzuk eta gero galdetuko didazue nahi duzuen. Horrez gain, Komunikazio Biziagoa SAL da *Argia* argitaratzen duen enpresa eta, beraz, astekariaren geroaz berba egiterakoan ezinbestekoa zait Komunikazio Biziagoaz jardutea. Hiru zati nagusitan banatu dut aurkeztu nahi dudana: gure komunikazio proiektuaren izaera, *Argiaren* etorkizuneko edukiak eta medioa eta kazetaria gizartean nola txertatzen diren. Bide batez, kazetaritza eta gaur egungo komunikazio gizarteari buruzko zenbait hausnarketa egiteko ere baliatuko ditut datozen minutuok.

2. Zeruko Argia, 1919an sortutako aldizkaria

Zeruko Argia aldizkaria 1919an sortu zen, Iruñean, Euskaltzaindia sortu zen urte berean. Damaso Intza izan zen bere lehen zuzendaria eta 80ko hamarkadan gaur egun hizkuntzalari ezaguna den Iñaki Caminok egin zion azken elkarrizketa *Argiarako*. Aldizkaria hilabetekaria zen eta gai erlijiosoak jorratzen zituen nagusiki. Bi urte geroago informazio orokorreko *Argia* astekaria sortu zen Donostian. Bien oinordeko da gaurko *Argia*. Agertu eta desagertu ibili ziren hamarkadetan, eta frankismoaren urte zailetan, 1963an kaleratu zen berriz, informazio orokorreko astekari gisa. Rikardo Arregi, Ramon Saizarbitoria, Ibon Sarasola, *Txillardegi*, Xabier Lete, Mari Karmen Garmendia ziren *Zeruko Argian* idazten zutenetakoak. Euskarazko kulturaren erreferentzia idatzi nagusia izan da urte askotan. Hori bai, garaiaren izaera kontuan hartuta, bere mezuak guztiz ulertzeko, lerro arteko irakurketa egitea ezinbestekoa suertatzen zen.

Franco hil ondoren Espainian indar handia hartu zuten European jadanik kazetaritzaren alor bat gehiago ziren *magazine* formatuko aldizkariak, eta Euskal Herrian *Zeruko Argiak* ere bizi izan zuen bere loraldia. Amatiño, Elixabete Garmendia, Pilar Iparragirre, Joxemi Zumalabe, Joxe Mari Ostolaza ziren garai horretan *Zeruko Argian* aritzen zirenetakoak. 1977an, ordea, *Egin* eta *Deia* sortu ziren eta *Zeruko Argiako* kazetari asko batera edo bestera joan ziren. 80an kaputxinoek aldizkariarekin ez jarraitzeko erabakia hartu zuten eta lehengo lantaldeetik Joxemi Zumalabe zenak eta Joxe Mari Ostolazak *Argia* izenarekin eman zioten segida *Zeruko Argiari*. Aipatutako biekin batera, berehala hasi ziren *Argiako* erredakzioan Josu Landa, Iñaki Uria, Pello Zubiria eta Jon Barandiaran, besteak beste. Talde honek martxan jarritako *Argia* da gaur egun egiten duguna, bere garaira egokituta, jakina.

Hortik aurrera gauza asko egin ditu *Argiak* euskarazko prentsaren eremuan, eta aurreko hamarkadetan euskal prentsa eta kulturaren erreferentzietakoa izan da. Aipamen pare bat besterik ez ditut egingo, asko egin badaitezke ere: 1990ean sortu eta iaiz itxi zuten *Euskaldunon Egunkariaren* sorreran giltzarri izan zen *Argiako* lan taldea eta Internet munduan ere aitzindari izan ginen 90eko hamarkadaren bigarren erdialdean.

Aipatu behar dira, halaber, 80ko hamarkadan *Argiaren* lantaldetik beste bi enpresa sortu zirela, Apika bata, informatika enpresa bat, eta Antza bestea, inprenta bat. Biak *Argiari* sostengua emateko sortu ziren. Urteekin bi enpresa hauek eta Komunikazio Biziagoak Ametzagaiña taldea osatu dute, eta *Argiaren* biziraupenerako funtsezkoak izan dira sostengu hauek.

Ez dut historia gehiago jorratuko, azken finean historiaren pasarte ugari guretzat ere ezezagunak direlako eta *Argiako* gaur egungo kideontzat ere garrantzitsuena zera delako: historian zehar kapital eta ondare bat pilatu dugu eta gaur egun gure zeregina kapital hori zaintzea eta handitzea da. Horretan ari gara eta bistan da urteetan zehar kapital hori handitzea lortu dugula.

3. Komunikazio Biziagoa gaur: datu batzuk

80ko hamarkadaren hasieratik 1998ra arte *Zeruko Argia* izan da *Argia* argitaratu duen enpresa, eta data horretatik aurrera, aldiz, Komunikazio Biziagoa SAL. Operazio honekin jabetza eta egitura aldetik enpresa eguneratu egin genuen. *Argia* egiteaz gain, beste zenbait produktu ere kaleratzen ditu, esate baterako, Euskal Kulturaren Urtekarria, *Larrun* pentsamendu aldizkaria, edo tako egutegia. Horiez gain, beste esparru batzuk ere sortu ditu. Argitalpena da bat, liburu eta jokoen produkzioaz arduratzen dena eta, azpimarratuko nuke azken urteetan egin dugun Interneteko ahalegina, besteak beste Haria moduko prentsa bilketa zerbitzua argitaratzen duena. Aipatu beharrekoa da, halaber, duela gutxi gure taldera egindako ekarpen berria, aspaldian agertu izan dugu denbora-pasekiko gure interesa eta iaz interes hori gauzatu genuen *Luma* denbora-pasa hilabetekaria geure proiektura ekarriz.

26 langile daude enpresan eta horietatik hamabi kazetari edukie lotuak, zortzi aldizkarian eta lau *Sareko Argian*. Gainerakoak administrazio, sail komertzial eta beste eduki esparru batzuetan ari dira. Horrez gain, kolaboratzaile zerrenda luzea dugu, eta horiek gabe gaur egungo *Argia* egitea ezinezkoa litzateke. Gaur egun, kolaboratzaileen esparrua da gure harribitxietakoa, eta egungo lana, neurri handi batean, honetan oinarritzen da: kolaboratzaile kopuru handi bat kudeatzen duen kazetari talde batean.

Argiaren tirada 10.500 alekoa da, horietatik gehienak harpidetzaz banatzen dira, 8.000 inguru, beste 1.000 kioskoetan saltzen dira eta gainerakoak kioskoetatik itzultitakoak eta promozio kontuetara bideratutakoak dira. Euskal Kulturaren Urtekariaren 10.000 ale jartzen ditugu merkatuan eta 7.000 egutegi saltzen ditugu urtero. Joko eta liburuek, bere ezaugarrien arabera, edizio desberdinak dituzte. *Luma* denbora-pasen hilabetekariak 3.000 aleko tirada du eta horietatik 600 harpidedunak dira. Interneten, *Haria* eguneroko doako buletinaren 2.000 harpidedun ditugu, *Sareko Argiak* eguneko 4.500 bisita ditu eta 13.000 orri zerbitzatzen ditu egunero.

Ikusten duzun bezala, *Argiaren* posizioa kioskoan zaila da, bederatzi aletik bat bakarrik saltzen da kioskoan. Euskarazko prentsaren posizioa kioskoan zaila den bezala. Datu asko agertu barik ere, kiosko batetik pasatzea nahikoa da hortaz ohartzeko, kioskoa lekurik euskaldunenean egonda ere. Badugu, beraz, zer hausnartu eta zer egin alor horretan. Batzuk behintzat hasi gara eta azken urte honetan bost aldizkari elkarlanean aritu gara gaiaz hausnartu eta ekimen bateraturen bat abian jartzeko asmoz: *Elhuyar*, *Gaztetxulo*, *Ipurbeltz*, *Luma* eta *Argia* aldizkariak dira zeregin honetan ari garenek eta laster batean ikusiko da elkarrekin egindakoaren emaitzaren bat, berau oraindik xumea izango bada ere.

Aitortu behar dut ez dela erraza aurrera egitea, hemen zaudeten gehienok ondo dakizuen bezala, gutxienez izaera publikoa ez duten medioetako kideek. Zaila seguruenik denontzat izango da, inguratzen gaituzten hizkuntza nagusietako lehiakideak oso indartsuak direlako, baina pentzu publikotik bizi ez garenontzat bereziki. Esango du norbaitek baietz, jaten dugula pentzu publikotik, eta egia da, baina ez da diru publikoa gure jarduera ekonomikoaren oinarria. Hau da, gure aurrekontuetatik %25 da diru publikotik datorrena, nagusiki Eusko Jaurlaritza eta Gipuzkoako Diputaziotik. Eta urteren batean galerak baditugu, ez dator diru publikorik zuloa estaltzera.

Diru-laguntzen kopuru horretatik ateratzen zaigu ikuspegi ekonomikotik begiratuta independentzia koefizientea deitzen dena, kopurutan gaur egun %75 inguruan dagoena. Datu horrekin aritzen gara borrokan urtero, berau jaitsi nahian noski. Eta ez nazala inork gaizki interpretatu, ez da urtero dirulaguntza txikiagoak nahi ditugula; besterik gabe, gure diru sarrerak dirulaguntzak baino gehiago haztea esan nahi du gure independentzia koefizientea handitzeak. Zenbat eta diru publiko gutxiago jaso, zenbat eta independentzia koefiziente handiagoa, eta berau zero izatea da gure helburua: hau da, nagusiki diru publikorik ez behar izatea, merkatuan lehiatzeko horren beharrik izango ez dugulako. Euskarazko hedabideek diru horien beharrik ez izatea litzateke euskarazko prentsaren osasunaren adierazlerik onena. Gaurkoz, dena den, hemen gauden guztiok ondo ulertzen ditugun arrazoienatik, urruti gaude egoera horretatik.

Diru publikoa aipatzean, dirulaguntza zuzenaz ari naiz, gaur egungo mendebaldeko gizarteetan behintzat, komunikabide ia guztiengana bideratzen delako diru publikoa, nagusiki publizitatearen bidez. Gaur egun, ostera, diru publiko hori eta gehiago ere beharko genuke, horrek hain beharrezko ditugun inbertsioetan aurrera egitea ahalbidetuko liguke.

4. Prozesuen bidezko kudeaketa

Urteen poderioz zerbait ikasi badugu da gure bitartekoen kudeaketa oso zorrotza egin behar dugula eta enpresa kudeaketan zer ikasirik bagenuela eta badugula. Zorrotzak izan gara eta zorrotzagoak izan beharko dugu aurrera begira ere, bestelako edozein enpresatan bezala, etorkizunerako klabeetako batzuk behintzat hor daudela uste dugu.

Gure kudeaketaren azterketa eginez, beraz, berau beste era batera antolatzea erabaki genuen iaz, eta oraintsu arte sailetan banatutako ohiko kudeaketa baguenen, lantzen ditugun merkatuetara egokitu dugu gure jardueraren antolaketa eta prozesuen bidezko kudeaketa deitzen den kudeaketa moldeari ekin genion urtarrilean. Horretarako Ametzagaiña taldeko enpresen laguntza izan dugu.

Horrez gain, azken bi urteetan, Gezki zuzenbide eta ekonomia azterketetarako EHUko institutuaren laguntzaz, beste bi azterketa egin ditugu: batetik, Komunikazio Biziagoaren egoeraren diagnosi bat egin genuen, bereziki langileak enpresan duen parte-hartzea eta bere asebetetze maila aztertuz; eta, bestetik, lan talde desberdinen lan jarduera aztertu eta optimizatu.

Baina, Komunikazio Biziagora ekarrita? Zer esan nahi du prozesuen bidezko kudeaketak? Lau produkzio prozesu bereizi genituen gure jardueran: astekaria prozesua, *Argiaz* arduratzen dena; Internet prozesua, *Sareko Argia* eta Interneteko beste zerbitzu batzuk bideratzen dituena; argitalpenak, nagusiki liburu eta jokoan produkzioaz arduratua; eta laugarren prozesua denbora-pasena, *Luma* denbora-pasen hilabetekaria egiten duena.

Ez naiz hasiko prozesu bakoitzak nola funtzionatzen duen deskribatzen, baina kudeaketa molde honen oinarrian dagoena bezeroa enpresan integratzea da, eta honetan oinarritzen da: prozesu nagusia bezeroari begira dagoen kate bat da, hasi aldizkaria egiten hasten direnetatik eta irakurlearengana iristen den arte. Tarteetan dira produktioak, promozioak eta publizitateak; kate horrek behar bezala funtzionatzea da helburua, ez dago bata beste baina kate-begi garrantzitsuagorik, eta etengabe berrelikatzen den kate bat da.

Aipatutakoek osatzen dute prozesu nagusia, eta gero badira, prozesu nagusi honen osagarri diren prozesu laguntzaileak. Administrazio saila, esate baterako, *Argiako* prozesu nagusiaren prozesu laguntzaile bat da. Dena den, kudeaketa molde berri honi buruzko kontu gehiago ez dizuet azalduko, gu geu ere urtarrilean abiatu ginelako molde honetan eta teoria praktikara eramaten ari garelako. Oraingoz hobeto doakigu eta batez ere balio izan digu egiten dugunaz hobeto jabetzeko, koordinazioa eta elkarlana hobetzeko eta, azken finean, kateko eremu guztiak bezeroa hobeto ezagutu dezagun.

5. Komunikazio Biziagoaren izaera eta helburuak

Euskal Herriko informazio orokorreko euskarazko astekaria da *Argia*. Bere burua, “euskaltzale, abertzale eta aurrezale” gisa definitu ohi du azken 25 urteotan; “bizia, zabala, zorrotza” ere gehitu izan diegu historikoki aurreko kontzeptuei. Gaur egun, gure balioen azterketarekin, XXI. mendearen hasieran kontzeptu horiek nola ulertzen ditugun ari gara zehazten azken hiruzpalau urteetan, bai teorian bai praxian. Zer garen, nolakoak garen eta gure helburuak zeintzuk diren etengabe gure jardueran jorratu behar direla ikusten dugu, eta ez bakarrik zuzendaritza edo jabeagoaren aldetik, enpresako kide guztiek argi izan behar dituzten kontzeptuak dira. Egia esanda, edozein enpresak edo bestelako erakundek argi izan behar ditu aipatutakoak, iparra non jartzen den jakin gabe jai dagoelako eta ipar horretara abiatzeko, gure kasuan behintzat, proiektu parte-hartzailea eratzea ezinbestekoa delako. Azken urteotan enpresa kudeaketan erabiltzen diren terminoetara eramanda: misioa, bisioa eta balioak deitzen diren horiek argi izateaz eta lantzeaz ari gara, kide guztion indarrak norabide berean jar ditzagun.

Ez da txantxetako aipatzen dudana, euskarazko komunikazio proiektuetan behintzat, 15 urteko esperientzian, egin, ikusi eta entzun izan dudanagatik ez baita gehiegi lantzen den eremua, eta lantzen bada modu intuitibo batean egiten da edo talde motorraren barruan, praxiak hala eskatzen duelako. Sarri pentsatzen dugu datorrenak bada-kiela nora eta zertara datorren, edota gabiltzanok berdin ikusten ditugula bai proiektua bai egin beharrekoak. Gazte bat badator unibertsitatetik lanera eta pentsatzen dugu badakiela nora datorren eta zertara, eta neurri batean jakingo du, jakina, baina neurri txiki batean bakarrik, hura etorri lanera datorrelako, gehienetan beste edozein lanetara joan zitekeen bezala. Behin lanean hastean konturatzen zara modu egokian azaldu behar zaiola non aritu behar den, zein diren medioaren ezaugarriak, nola egin behar duen lan, zer helburu duen, eta ipar horretarako bidean lan taldeak zer balio erabiliko dituen.

Erabat logikoak diruditen kontzeptuok lantzea, ordea, ez da samurra, eta sarri enpresa berean urteetan elkarrekin aritzen direnek ere ez dituzte garbi, propio jorratu izan ezik. Azken bizpahiru urteetan, modu zehatzagoan ekin diogu gure jarduna aztertzeari eta hau guztia papereratzeari, hausnartzeari eta transmititzeari. Oraindik, hala ere, prozesu horretan murgilduta gaude bete-betean. Eta, egia esan, ez da inoiz amaitzen, etengabe errealitate aldakorera egokitu behar delako.

6. Zertarako Komunikazio Biziagoa, beraz? Zertarako *Argia*?

Euskal Herrian bizi garen aldetik, berau nazio gisa eraiki nahi dugu, bertan diren pentsamolde desberdinak nazio ikuspegi horren barruan integratuz. Hau posible egingo duen komunikazio proiektu indartsua egituratzea da gure helburua. Helburua da proiektu honetan parte hartzen dutenen garapen profesionala eta bizitza kalitatea hobetzea. Euskal Herria dugu lan eremu, baina euskarak eta euskal kulturaren garapenak bereziki arduratzen gaituzte.

Balioen aldetik, asko aipa daitezke, baina nik oinarrizko batzuei egingo diet erreferentzia:

- Pertsonaren balioa. Pertsona da lehen balioa enpresan, eta elkarrenganako begirunea oinarrizkoa da Komunikazio Biziagoko kideen artean.
- Jabego eta kudeaketaren aldetik langile-jabeak nahi ditugu, kudeaketan parte hartuko duten langileak.
- Euskaraz bizitzaren hautua egin dugu, horrek esan nahi duen guztiarekin.
- Injustizia eta bazterketa sakonetan oinarritutako gizarteetan eta munduan bizi gara eta gizarte justu eta berdina goaren aldeko jarrera aktiboa dugu.

Adibide bat jartzeko, zein da oinarrizko printzipioa euskal gizarteetan bizi dugun gatatzaren aurrean? Ikuspegi abertzale eta aurrezale batetik, gatatzari duintasunezko irtenbideak emateko ahaleginean lerratu da beti *Argia* eta euskal nazioa eraikitzeko abertzaleen elkarlana bultzatzearen alde. Hala esatean polita geratzen da, erakargarria, baina pentsamolde hori gaur egungo errealitatearen giro polarizatura eta gatatzatsura eramatea ez da batere samu-

rra eta, pentsa litekeenaren aurka, eroso ere ez. Beraz, esan dudan bezala, ez dugu editorialik egiten, baina *Argia* irakurtzen duenak badaki zein den gure posizioa euskal gizartean bizi diren arazo nagusien aurrean.

7. Gure komunikazio proiektuaren jabe eta egile

Ikus dezakezen bezala, orain arte gutxi hitz egin dut kazetaritza moldeez edo kazetariaren zeregin zehatzez. Ez dakit beste enpresa edo elkarte batzuetan asko hitz egiten den modu formal eta antolatu batez kontu hauen gainean, gurean behintzat behar baino gutxiago hitz egin izan dugu, modu teoriko batean behintzat. Egia da, dena den, kazetaritza ibili gabiltzala eta, beraz, praxiaren bidez behartuta gaudela kazetaritza moldeez aritzera: astero hautatu behar dugu zer jorratu eta zer ez, eta nola jorratu.

Beraz, zer eratako kazetaritza egin nahi dugu? Nola ulertzen dugu kazetariaren zeregina bizi garen gizartean? Funtsean, lehen aipatutako helburua lortzeko ari gara lanean, herri gisa, pertsona gisa eta profesional gisa garatzeko ikusmoldearekin: kazetaritza zerbait bada, teoriarik behintzat, inguratzen gaituenaren hartzailea da, ondoren, jasotako hori beste hirugarren bati kazetariaren moldez jantzia eskainiko dena. Errealitate hori ikuspegi kritikoz aztertu eta jorratu nahi dugu, egiten dugunak hartzailearengan eta gizartean eragin zehatz bat duela jakitun gara. Jakin badakigu, halaber, neurri batean gizarteko uren norabidearen aurka goazela, guk geuk egin dugun hautuagatik: hizkuntza gutxitu batean ari gara, horrek maila guztietan esan nahi duenarekin; estaturik gabeko nazio batean bizi gara, horrek esan nahi duen guztiarekin; indarrean dauden botere nagusiek errealitatea interpretatzeko oso bestelako moldeak dituzte... Ez dakit laugarren boterea ote diren komunikabideak, esan ohi den bezala, bigarrena edo hamaikagarrena. Garrantzitsuena da botere maila handia dutela. *Argia* ere, neurri batean, botere gisa aritzen da gure mundu sinbolikoaren barruan, eta kontra-botere gisa gure helburuak lortzeko oztopo gisa agertzen denaren aurrean, eta azken mundu hau nagusi da gaur egungo euskal gizartean.

Baina itzuliko naiz geroxeago informazioa eta komunikazioaren munduan *Argiaren* erronkak nondik nora ikusten ditudan aztertzeraz. Geure burua nola antolatzen ari garen deskribapenarekin jarraituko dut, egitura eta izaera aldetik sendotasunik ez duen proiektuak nekez jorratu ahal izango baitu ez kazetaritza molderik, ez ezer.

Taldea eta proiektuaren egituraketaren aldetik, oso garrantzitsua da jabegoari eta kudeaketa parte-hartzaileari ematen diegun garrantzia. Konturatu bazarete, lehen Komunikazio Biziagoa SAL esan dut, horrek esan nahi du Sozietate Anonimo Laborala garela, hau da, gutxienez enpresaren kapitalaren %51k langileen esku egon behar duela. Gaur egun %60 hamaika langileren esku dago eta gainerakoa gu sostengatzen gaituzten Ametzagaiña taldeko enpresen artean banatua. Geroago hitz egingo dut zehatzago partaidetza honen errealitatearen gainean, baina honekin adierazi nahi nuen gaur egungo gizartean eta zehazki informazioaren gizarte modernoan, gure biziraupena eta nortasuna bermatzeko, eredu zehatz horren aldeko hautua egin dugula. Beste batzuk ere badaude, bistan da, baina guk horren aldeko hautua egin dugu. Denok dakigu globalizazioarekin, ekonomi jarduera desberdinek gero eta gehiago jotzen dutela biltzera, eta horren ondorioz gero eta talde handiagoak sortzen direla. Ez da alferrik esaten gaur egun zenbait multinazionalak gobernuek baino gehiago agintzen dutela munduan.

Bada, botere kontzentrazio hori bera modu berdintsuan ematen ari da komunikazioaren munduan, bai talde erraldoi hauek komunikabideak eurenganaten dituztelako, bai komunikazio enpresa handiek handitzeko joera dutelako, batzuetan bata bestea irentsiz eta besteetan bat eginez. Horren ondorioak bistakoak dira informazioaren munduan, gero eta kontrol handiagoa, gero eta desinformazio handiagoa eta, azken finean, uniformizazio handiagoa eta pentsamendu bakarra nagusitzea.

Alde horretatik, norberaren pentsamendu eta izaerari hobekien eusteko modua, langileak beraiek komunikazio proiektuaren ardatza izatea da, baina ardatza bere zentzurik zabalenean, bai jardueran edo kudeaketan, bai jabegoan. Irakurleak behar dira, instituzioen laguntza, beste gizarte eragile batzuekiko elkarlana, nahi dena... baina gure

ustez, komunikazio proiektu baten independentzia eta nortasuna mantentzeko klabe nagusienetakoa langileak proiektu horren ardatz izatea da. Hori modu desberdinean eraman daiteke errealitatera eta guk erabaki dugu gurean funtsezkoa dela ardatz izaera hori jabegoan eta kudeaketa parte-hartzailean oinarritzea. Eta gure errealitatea kontuan hartuz, SALa iruditzen zaigu gaur egun eredurik aproposena. Ez da hutsetik datorren tradizioa, 80ko hamarkadaren hasieran, kaputxinoek *Zeruko Argiaren* jabegoa utzi zutenean, geratu ziren langileek kooperatiba gisa antolatuta zuten *Argia*.

Aurten *Le Monde Diplomatique* hilabetekari ospetsuak 50 urte bete ditu eta bere izaeraren berri eman duten zenbait artikulua argitaratu izan dituzte. Asko poztu nintzen, euren zenbait klabe antzekoak direla ikustean. Ez da gurean bezala, jakina, han kapitalaren gehiengoa *Le Monde* taldearen esku dago, baina langileek eta irakurleek osatzen duten elkarteak akzioen %49 ere izan dezake, eta kopuru horrekin 'blokeo gutxiengoa' izango lukete. Mediorantz garrantzitsuen diren alor kontsentsuatu zenbaiti buruz erabakitzeak ez da nahiko gehiengo simplea eta hala-koetan gehiengo kualifikatuz erabakitzen da. Hor du bere zentzua 'blokeo gutxiengoak'.

Edozein modutan, eta *Argiara* itzuliz, jabetza prozesu horiek ez dira samurrak, areago emaitza ekonomikoekin borrokan aritu behar denean edota une batzuetan ateratzen den dirua etengabe inbertsioetara baldin badao. Edo, alderantziz, arazoak daudenean dirua jarri behar denean. Esan nahi dut, enpresa munduan ohikoa dela inbertsioak egiten dituzten pertsonak, gero haietan irabazirik baldin badago modu zuzenean patrikaratzea. Gurean, irabaziak daudenean jai dago patrikaratze horrekin; beharrezkoak ditugun inbertsioak egiteko erabiltzen ditugu, edo langile guztion baldintzak hobetzera bideratzen dira.

Txanponaren alde ona, lan taldea komunikazio proiektuaren jabe dela, eta berau bere printzipio eta pentsamoldearen arabera bidera dezakeela; txanponaren alde ahula, ekonomikoki proiektu dependenteak direla eta sortzen diren zailtasunei aurre egin behar zaiela. Ekonomiaren munduan, enpresaburuei uzten zaie jabego funtzio hori euren-ganatzten eta haien demasekerien aurrean defendatzeko sindikatuak sortzen dira. Ikuspegi aurrerazale eta ezkertiarretan ere badirudi interesgarriagoa dela enpresaburuarekiko defentsa ikuspegi hori azpimarratzea, garai batean horrenbeste aipatzen ziren produkzio-bideak eskuratzea baino. Bistan da, autogestioaren garaiak urrutira eta kontzeptuaren egoera ez da osungarriena.

Hau ekonomian orokorrean horrela bada, zer esanik ez komunikabideen esparruan. Kooperatibismoa eta ekonomia sozialaren ereduak badu indarra Euskal Herrian, salbuespen gutxi batzuk kenduta, ordea, ez hedabideen alorrean. Jabetzaren sakoneko ideia honekin, azken finean, gure izaera eta jarrerarekin ekonomia eta bizitzaren aurrean dugun ikusmolde bat agertzen ari gara. Hala ere, egia da euskararen munduan eta, zehazki komunikabideen esparruan, interes sozialeko esparruak nagusitzen direla eta jabego kontuak antolatzeke badirela formula alternatibo desberdinak. Egia den bezala, zentzu juridikoan jabegoa izatea ez dela nahiko eta hori kudeaketaren gaineko eredu parte-hartzaile batekin laguntzen ez bada, bide erdia besterik ez dela egin. Arrasateko kooperatiba munduan, esate baterako, hori da azpimarratzen den puntu nagusietako bat: jabegoa bai, banatua dago, eta kudeaketa? Langilearen parte-hartzea? Adibide bat besterik ez zen hau, eta, jakina, ez naiz ni hori erantzuten hasiko, besteak beste ez naizelako kooperatiba horietako langile.

Bizi garen gizarte neoliberal eta kapitalistan korapilotsua da jabego eta parte-hartzeen gaia, eta ez nago ni sindikatuen aurka, noski, molde desberdinekoak badira ere beren funtzioa dute eta. Besterik gabe, guk gizarte eta ekonomi harremanak ulertzeko gakoetako batzuk non ikusten ditugun azaltzen dut honekin guztiarekin.

Komunikazio Biziagoa SALeko bazkide izateko 3.000 euroko kapitala jarri behar da eta aitortu behar dut hori ez dela samurra, besteak beste gure soldatetan aurrerapenak egiten ari bagara ere, ez direlako guztiz estandarrak kazetaritzaren eremuan gure gizartearen dauden soldatekin, batez ere erdarazko medioak eta euskarazko medio publikoak kontuan hartuz gero. Dauzkagun datuen arabera, euskarazko gainerako komunikabideetako langileekin konparatuta, gure posizioa batez bestekoetan dago. Gaur egun 26 langile gara Komunikazio Biziagoan eta horietatik

hamaika gara bazkide. Heldu izan gara langile gehienak bazkide izatera, baina langile aldetik ere azken bi urteetan gorakada eman dugu eta, arrazoi desberdinak medio, langile bazkide batzuk lana utzi izan dute. Gure etxeko lanetan, beraz, etengabekoa da bazkidetza lantzearena, hori gure komunikazio proiektuaren ardatza delako eta ikusmolde hori barik, nire ustez *Argia* hondoratua legokeelako, azken 25 urteetan ezagutu dugun proiektu gisa.

Langileen parte-hartzeari dagokionez, teoria praktika baino samurragoa dela badaki parte-hartzearen filosofian saioak serio egin dituen edonork. Erabaki nagusietan langile-bazkideek dute erabaki ahalmena, baina eguneroko erabaki maila askotan prozesuen bidezko kudeaketak langile guztien parte-hartze maila asko handitzen du, eta beren prozesuaren barruan oso autonomia maila handia hartzen dute. Horrez gain, 26 lagunetik 9k zuzendaritza osatzen dugu, astero biltzen da eta egunerokotasunean maila gorena duen erabakigunea da. Zuzendaritzan krisi txiki bat izan genuen une batean erabaki genuen zuzendaritza 3 kidetik 9ra zabaltzea, eta behin krisia gainditu ondoren, molde horrekin aurrekoarekin baino eraginkorrago eta sendoago aritzen ginela ohartu ginen.

8. Azken urteotako bi jauzi garrantzitsu

Azken urteetan bi jauzi garrantzitsu eman ditugu. Bata 1997an, *Argia* osoa kolorez jantzi genuenean. Gaur egun pentsa liteke, akaso, duela zazpi urte *Argiak* ez zuela kolorerik? Ez da samurra hori pentsatzea, baina astero eta dena kolorez argitaratzea berritzailea izan zen euskal prentsan. Bigarren jauzi garrantzitsua iaz eman genuen, eta egindako aldaketa bi zutabetan oinarritu genuen: bata, diseinu aldaketa sakon bat, bestea, informazioa antolatze oso bestelako moldea erabiltzea. Aurrera begira egin beharreko *Argiaren* ezaugarriak indartu nahian halako definizioa atera genuen: “Zer eskaini behar du *Argiak*? Informazioa, analisia eta entretenimendua”.

Astekariaren edukia jorratzeko ordua da, oso modu orokorrean bada ere. Gure edukien tratamenduan bada nire ustez giltzarri izan zen une bat: *Euskaldunon Egunkariaren* sorrera (1990ean). Giltzarri izan zen euskarazko prentsan, eta gurera etorritz, giltzarri gure edukien tratamenduari eragiten ziolako. Ordura arte, *Argia* izan zen euskarazko prentsaen erreferente nagusia, baina aurrerantzean erreferente nagusia ez izateaz gain, astero pentsatu behar genuen bere edukiak nola bereiziko zituen *Egunkariaren* edukietatik.

Informazio orokorreko astekariei dagokienez, hau ez da euskarazko prentsaen kontua bakarrik, gainerako aldizkari askok ere arazo berdintsuak dituzte beren hizkuntzetan, baina, jakina, beste ibilbide eta esperientzia bat dute kazetagintzan eta bere euskarri desberdinetan. Espainiako kasua oso esanguratsua da, Franco hil ondorengo transizioan loraldia bizi izan zuten informazio orokorreko aldizkariak eta 90eko hamarkadan ahultzen joan ziren. Euskal Herrian, esate baterako, bazen nazio ikuspegia zuen erdarazko astekaria, *Punto y Hora de Euskal Herria*, baina 80ko hamarkadaren bukaeran desagertu zen. Egunkariaren bultzada handia izan zen eta da, hauek ere irakurtze tasen jaitsierari eta lehiakortasunari eusteko beren edukiak asko zabaldu dituztelako, bai egunerokoan, bai asteburuetako gehigarriekin. Astekariei, oro har, gehigarri hauek min handia egin diete. Azken finean, egunkariak ere lehia latza izan ohi dute, nagusiki telebistarekin baina baita irratiarekin, eta gero eta gehiago Internetekin: irakurzaletasun tasak behera doaz eta pertsonak gero eta gehiago banatu behar dute beren denbora gero eta eginbehar gehiagotan, gainera.

Argian nabilen azken 15 urteetan sarri entzun behar izan dut, batzuetan zuzenean eta besteetan zeharka, *Argiak* ez duela lekuri euskal prentsan eta desagertu egingo dela. Batez ere *Egunkariaren* sorreraren ondoren. Beste batzuetan, informazio orokorreko aldizkaria baino beste era bateko aldizkaria egin beharko genukeela ere entzun dugu: satirikoia, umoreari lotuagoa, eduki arinagoekin... guk behintzat ez dugu bestelako biderik ikusi, eta halako bideen aukera ikusi izan dutenek ere ez, antza, astekariak sortu beste bi sortu direlako eta biak informazio orokorrekoak. Azken urteetan, informazio orokorretik ateratzeko ahalegina egin duten bakarrak Topagunekoak izan dira, *Asteonekin* euskal prentsan berritzailea zen zerbait egin nahi izan dute, baina heltzea sutan frogatzeko denbora gehiegirik ere ez da egon, hasi eta bere ibilbidea eten baita.

Ez naiz ni profeta izango, mundu honetan denok gabiltza joan-etorrian, baina oraindik hemen gaude eta ez makalago, gero eta indartsuago baizik. Jakitun naiz, bai, 80ko hamarkadan euskal prentsan *Argia* eta beste aldizkari gutxi batzuk ez ziren garaiko erreferentzialtasunik ez dugu, baina horrek ez gaitu atzera bota, aitzitik, euskal prentsa aurrerakadaren adierazgarri da, neurri batean gainera, *Argiatik* bertatik bultzatutakoa. Komunikazio Biziagoan, gainera, argi ikusi dugu komunikazio proiektu gisa *Argia* eta gauza gehiago eskaintzeko gaitasuna badugula eta hortik datoz azken urteetan indartu ditugun alorrak: argitalpenak, Internet eta denbora-pasak.

Hor gaude orain, aipatutako “informazioa, analisia eta entretenimendua” formula horri etekinik handiena nola aterazaz aztertzen eta frogatzen, gero eta argiago ikusiz entretenimendua baietz, baina gure apustu garrantzitsuenak informazioan eta analisisan daudela. Lan profesionala egiteaz gain, informazioari balio erantsia eman behar diogu eta hori, informazioa gure izaera eta ikuspegi propioaren galbahetik iragaziz egiten da; horrez gain, emandako informazioa eta errealtatea interpretatzeko klabeak eskaini behar ditugu, analisiaren esparruari behar adinako garrantzia emanaz, ikuspegi sakon eta plural batetik. Horren adibide da *Larrun* pentsamendu aldizkaria, hilean behin *Argiarekin* banatzen duguna.

Informazioaren eta analisiaren ikuspegitik, gaur egun izugarri garrantzitsua kazetaria bera dela esango nuke, kazetaria eta bere formazio maila. Hori edozein mediotan, noski, baina esango nuke bereziki egunerokotasunean ez dabilzan medioetan, informazioaren aukeraketa askoz handiagoa egin behar delako. *Argiaren* zeregina ez da egunerokotasuna, horretarako dago *Berria*; ez informazio lokala, horretarako dago herri eta eskualdeetako prentsa, azken hogeitaz urteetan *Egunkariarekin* batera euskal prentsan izan den iraultza garrantzitsuena. Informazioaren itsaso zabalean egundoko murgiltze sakona egin behar du astekari bateko kazetariak, eta gaur egun dagoen informazio kopuru izugarriarekin horretarako trebezia eta formazio handia behar da, are gehiago Internet munduak eskaintzen duen informazio kopuru guztiarekin.

Jakina, Internet hipertestua da, baina hori baino askoz gehiago ere bai, bere garaian inprentarekin gertatu zen bezala, oraindik oso ondo neurtu ezin daitekeen iraultza bat ekarri du komunikazioaren mundura, baina ez naiz ni ur handi horietan murgilduko orain, lanean zehar esparru hori jorratuko duenik bada eta. Edozein modutan, azpimarratu nahi dut jadanik bere garaian, 1997an, oraindik handienak ere Internetek zekarrenaz ohartu ez zirenean, handienekin parez pare lehitzeko edo, areago, haiei aurre hartzeko aukera ikusi genuela, eta *Tiipi-Tiiparekin* batera, aitzindari izan ginela edukiak Interneten jartzen. Egia esan, oker ez banago, *Tiipi-Tiipakoak* lehenago ibili ziren eta 1996an jada euren webgunea jarri zutelakoan nago. Harrezkero, Interneteko gure presentzia puntakoa izan da euskal prentsan, eta aurrerantzean ezin dugu irudikatu Internet gabeko Komunikazio Biziagorik.

Hori guztia esatea da gauza bat eta oso bestelakoa asmatzea. Horretan ari gara gu, eta horretan ari dira gainerako medio gehienak ere: nola asmatu eremu berri horretan? Oraingoz ikusten duguna da egon egon behar dugula, eta apurka negozio lerroak ere badoaz zehazten, baina oraindik nagusiki egiten duguna inbertitu da, horren emaitza zehatza dirutan bederen zuzenean ikusi barik.

9. Informatuta egotearen ahalegina

Informazio kopuru handiak eta kazetariaren zereginetara itzuliz, Kataluniako *Vilaweb* atariko zuzendaria den Vicent Partalek dio kazetaria eta dokumentalistaren artean gero eta desberdintasun txikiagoa dagoela, kazetariak ere gero eta informazio kopuru handiagoak erabili, sailkatu, aukeratu eta eskaini behar dituelako. Beste era batera esaten zuen *Euskadi Irratiko* irratsaio batean Jaime Otamendik, esanez kazetaria gero eta gehiago familia medikua bezalakoa izango dela informazioa ordenatzeari dagokionez eta informazio hori hartzaileari eskaintzerakoan, baina sakonenean antzeko arazoaren erreferentzia egiten dutela uste dut. Beste era batera esanda, agian esan liteke hartzaileak gero eta informazio gehiago duela eta estimatuko duela bere konfiantzako kazetari on batek, kartako menuen gisara, eskainiko dion informazioa.

Gure erronketakoa ere hor dago, zer interesa dakioke euskarazko irakurleari, eguneroko prentsan eta prentsa lokalean jorratzen ez dena edo beste era batera jorratua? Hor dago erronka, espezializazio maila handiagoa eskatzen du eta edukien aldetik ere beste sakontasun bat. Noski, hor betiko borroka ere badago, sakona eta arina zer den; sakona irakurterazago eman liteke, eta arina oso gaitz eta astun, idazkera eta kazetari hizkuntzaren arabera. Euskarazko kazetaritzan aurrerapausoak ematen ari gara kazetari hizkuntzaren estiloari dagokionez, baina hizkuntzen garapen kontuak ez dira lantzen urte gutxi batzuetan, denak bere denbora behar du.

Informazioaren, analisiaren eta sakontasunaren erronkei heltzea, ordea, ez da samurra. Medioen artean -baita euskarazkoen artean, noski- gero eta lehia handiagoa dago eta lehia horretan informazio kopuru handiak ekoitzi behar dira: egin, egin eta egin, errazagoa da kantitatea kalitatea baino. Kazetariaren aldetik, ahalegin eta formazio handia eskatzen du sakontasuna eta analisiaren erronkei heltzeak. Balizko bezeroaren bilakaerak ere zaildu egiten du informazioa eta analisiaren bidea. Hartzaila, joeraz, gero eta gutxiago arduratzen da halakoekin, bizi dugun komunikazioaren kulturak horretara bultzatzen duelako. Gero eta gutxiago saltzen diren kontzeptuak dira sakontasuna eta analisiarena, dena erraz ulertu nahi da, dena erraz uler eta lor daitekeela saltzen du kontsumo gizarte honek: astebetean argaldu liteke, oraintxe bertan ez dakit zer auto handi izatea zure esku dago halako hileroko maileguen bidez, zorientasun eskura duzu terapia honekin, kiniela, loteria edo dena delakoarekin.

Estilo horretakoak dira gaur egungo gizarte globalizatuak eskatzen dituen komunikazio moldeak, eta informazioaren munduan ere islatzen da eredu hori: informatzea erraza dela iradokitzen zaigu, zuzenean sarri, baina nagusiki zeharka. Telebista da mezu horren paradigma, behintzat gaur egun telebista egiten den moldean, nahiz eta informazioari dagokionez, telebistak eta telebistak dauden. Sinetsarazi nahi zaigu, bi edo hiru minutuan albistegian entzuten dugunarekin, munduko ez dakit zer lekutan gertatzen dena ulertuko dugula; edo, besterik gabe, informazioa gertakizunen sekuentzia bat besterik ez dela, izan hauek hobeto edo okerrago kontatuak. Eta hori gezurra da, informatzea ez da erraza, gaitza da. Mila adibide jar daitezke, baina nahikoa dugu ikustea, esate baterako, zein gaitza den ulertzea gure herrian bertan gertatzen dena, hemen bizi garenean eta arazoaren klabeak ulertzeko horrenbeste datu eta ikuspuntu ditugunean.

Esan nahi dut, *Le Monde Diplomatique*ko zuzendaria den Ignacio Ramonetek dioen bezala, informatzea kosta egiten dela, ez datorrigula zerutik, euria bezala, telebistaren uhinez; norberak informatua egon nahi badu, ahalegina egin behar izaten duela, eta alderantziz pentsatzea norberaren burua engainatzea dela. Jakina, honek hartzailarentzat balio badu, zer esanik ez, hau informatua egon dadin datuak eta interpretazioak jaso eta, gero, eskaini behar dituen kazetariarentzat.

Honekin guztiarekin ez dut esan nahi *Argia* edo astekari bat konplexua izan behar duenik, euskaraz dakien edonork ulertu eta irakurtzeko moduko zerbait izan behar du, baina, oro har, egunkari batek, irrati batek nahiz telebistak informazioa eskaintzeko duen moldea baino sakonagoa bai. Ez du *Jakin* edo *Hermes* izan behar, nahiz eta *Larru*nekin eduki mota hori lantzen dugun, ez du izan behar lehen aipatutako *Le Monde Diplomatique*. Edukiari dagokionez, astekariaren ereduak aipatzekotan, gehiago ikusten ditut gaur egun *Le Nouvel Observateur*rek lantzen duen ereduaren haritik. Beraz, “informazioa, analisia eta entretenimendua” ikusten ditugu gaurko eta etorkizuneko *Argia*-ren klabe nagusi gisa, aipatutako lehen bi osagaietan sostengatua nagusiki, baina aisiarako aukera desberdinez lagunduta. Eta entretenigarritasunaz ari naizenean, eduki arinagoez ari naiz, aisiarekin lotuagoak izan daitezkeenak, nahiz eta informazioa eta analisia ere, bere zentzurik zabalenean hartuta, berdin izan daitezkeen entretenigarritasunari lotutako kontzeptuak.

10. *Argia*ko irakurlea

Guk zer nahi dugun azaltzen ari naiz apurka eta horretarako zein bide eta klabe ikusten ditudan. Jakina, hor funtsezkoa da zer eratako irakurlea duzun eta zer eratakoa izan nahi duzun. Egia esan, *Argiak* duen irakurle mota aipa-

tutako ezaugarrietakoa da, neurri handi batean behintzat, hau da, nahi du informatzea, nahi du bere inguruan eta munduan gertatzen dena ulertu eta interpretatu.

Euskal prentsako irakurlearen gainean egin ohi diren inkestak kontuan hartuta badakigu irakurle jantzia dela, ikasketa unibertsitarioak dituen, 25-45 urte bitartekoa... guk egindako azterketek ere horixe erakutsi izan digute, gure irakurle jantzia dela, exijentzia maila handikoa. Azken bost urteetan Komunikazio Biziagoan bi inkesta egin ditugu *Argiako* irakurlearen artean eta bietan ikusten da kopuru handi batek sakontasunezko edukiak dituela gustuko, iritzi artikulua, *Larrun* aldizkariko eduki sakonak... Adinari dagokionez, ostera, lehen aipatutako adin eremukoa baino zaharragoa da: gure irakurlearen gehiengoa 30-55 urte bitartekoa da, eta nire inpresioa da euskal prentsan oro har gertatzen den fenomeno dela... kosta egiten zaigu 30 urtetik beherako irakurleak erakartzea.

Guri dagokigunez, horrek sortzen dizkigu zenbait zailtasun eta kontraesan. Horietako bat da azken 15 urteetan harpidedunak eta irakurleak zahartzen ari zaizkigula -eta aspaldiko harpidedunak izanik, batzuk hiltzen- eta ez dugula lortu berau gazetzea. Arrazoi asko egon daitezke horren atzean, jakina, baina nagusiki bi azpimarratuko nituzke. Batetik, gizartearen joerak daude: irakurzaletasun tasen beherakada, teknologia berrien eragina, lehen aipatu dudan informazio eredu bilakaera, agian euskarazko eskaintza informatiboa eskaera baino azkarrago handitu izana... Bestetik, gu geu gaude, komunikatu nahi dugunak; inozoa litzateke pentsatzea norberak ez duela zerikusirik gazteagoengana ez heltze horretan, norberak jakin behar duelako egokitzen merkatuak edo hartzaileak dituen eskakizunetara. Egokitu, horra hor garapenari lotzeko klabe nagusia. Bilatu egin behar da, frogatu, erratu... Horietatik bakarrik datoz berrikuntza eta egokitzapena. Edozein modutan, guk ez dugu gazteagoengana iristeko obsesiorik, konformatuko ginatke aurrerantzean ere gure adin esparru nagusia 30-50 balitz, eta gure ahaleginak horretara bideratuko ditugu, behintzat *Argiari* dagokionez. Azterketa bestelakoa da merkaturatzen ari garen beste produktuetan.

Guk gure irakurlearen ezaugarri nagusiak baditugu, eta hura asetzeko indarguneak non jarri behar ditugun ere bai. Baina bestelako kontua da jakitea euskaraz irakurtzeko gai den sektore horrek zer duen gustuko eta zer kontsumituko lukeen. Besteak beste, merkatu azterketa sakonak beharko liriteke hori ezagutzeko eta, halakoen tamainagatik, gure ahalmenetik kanpo daude. Euskarazko komunikabideen artean, elkarlanaz asko predikatzen dugu, baina egin oraindik oso gutxi egiten dugula uste dut: merkatu azterketak, kazetari hizkuntzaren garapena, terminologia, salmenta teknikak... esparru ugari dira lankidetzat eskatzen dutenak, baina bakoitza berean gaude, batzuetan hala nahi delako eta gehienetan inertziak horretara eramaten gaituelako. Ekonomiaren beste sektore batzuetan sortzen dira klusterrak eta halakoak, euskararen soziolinguistikaren esparruan, aurren sortu dute euren. Ikuspegi ekonomikotik begiraturik, ez dut uste soziolinguistikaren eremua euskarazko kazetaritzarena baino garrantzitsuagoa denik, baina haiek biltzeko gai izan dira. Gu oraindik ez. Balio dezala txosten honek elkarlanaren haritik tiraka jarraitu ahal izateko.

11. Medioa, edukiak eta boterea

Informazio orokorreko astekari batek, nagusiki zein ezaugarritako edukiak landu behar dituen jorratu dut orain arte, oso modu orokorrean esanda gainera. Informazio kopuru eta moldeen bilakaeraz ere aritu naiz. Baina etorkizuneko klabeetan, norberak lantzen dituen edukiak guztiz lotuta daude medioak gizartearen duen posizioarekin. Lehen aipatu ditut Komunikazio Biziagoaren helburu eta balio orokorrak, eta aipatu nahi dut, halaber, argi utzi nahi dugula helburu horiek eta gizarteaz eta munduaz dugun ikuspegia, geure tradizio eta orainean ehundutakoak direla, eta informazioa ere hala saltzen dugula, gure galbahe horretatik pasatuz, ikuspegi propioz eta pluralez.

Gu geu gara, baina inozoa litzateke *Argia* aipatu ditugun presio gune horietatik guztietatik libre dagoela esatea, inor ez dagoelako inguratzen duen errealtate desberdinen eraginetik libre eta are gutxiago komunikazioaren munduan. Horrexegatik, ikuspegi propioaren ikuspegia urria delako, publikoaren zati handi batek estimatzen du askatasun maila hori eta gure etorkizunaren klabeetakoa hor ikusten dugu, gure izaera propio eta autonomoan, bai jabe-

goari dagokionez -langileak gara nagusi- bai komunikatzen dugunari dagokionez. Azken 25 urteetan, *Argiak* hori ondo erakutsi duela uste dut eta gaur egun ere gure ezaugarri nagusietakoa da. Ez dira gutxi izan printzipio nagusi horiek errealitatean eramateagatik izan ditugun arazoak, era guztietako jendearekin gainera. Eta autonomia hitza erabili dut, jadanik “medio independientea” oso ahuldua dagoen kontzeptua delako; *La Razon*ek ere “periódico independiente de información general” erabiltzen du lelo gisa, adibidez.

Norberak bere buruari buruzkoak argi izan behar ditu, dena den, eta guk aipatutako guztiez gain, xumetasunez ikusten dugu gure burua, gutxienez inguratzen gaituen erdarazko komunikazio itsaso honen nagusitasun erabatekoaren aurrean. Euskarazko komunikazio esparruan dugun posizioa, aldiz, bestelakoa da, batez ere gure historia-gatik, gure ezaugarriengatik eta gaur egungo gure tamaina eta zabalkundeagatik.

Aipatzen ari naizen honetan guztian kontraesanak ere badira. Esate baterako, edonork esan dezake, eta ez arrazoi gutxiz, bere jardun ekonomikoaren %25 diru publikoaren menpe duenak ezin duela horren lasai hitz egin bere askatasunaz. Egia da horrek seguruenik baldintzatuko duela norberaren jokaera, zuzenean baino zeharka, kazetariak eta medioak egin dezaketen autozentsuragatik batez ere. Publizitate jartzaileekin ere gerta liteke lotura konturik. Arrazoi desberdinak medio, beti da autozentsura gure ogibidean, ahalik eta txikiena izatea da lortu behar dena, bai medioen ikuspegitik, bai kazetarion ikuspegitik. Komunikabideari dagokionez, zenbat eta lotura gutxiago izan orduan eta askeago jokatzeko tartea izango du. Kazetariari lotuz, honek zenbat eta helburu argiagoak, izaera sendoa eta profesional baliagarriagoa izan, orduan eta autozentsura maila txikiagoa erabili beharko du.

Euskarazko prentsan bi eratako medioak daude: publikoak eta pribatuak, nahiz eta hauetako askok zerbitzu publikoaren izaera eta jarduera izan. Hau da, eskuarki esanda, EITBko medioak eta gainerakoak daude. Medio publikoak EAEko erakunde publikoen menpe daude, eta zabaltasun handiagoz edo txikiagoz, informazioa hobeto zainduz batzuetan besteetan baino, azken ia 25 urteetan boterean dagoen alderdiaren irizpideen kontrolpean daude neurri batean. Ikuspegi oso desberdinetako gizarte sektoreen aldetik, behin baino gehiagotan salatu zaio hori EITBri eta bertako profesionalek modu desberdin batean bada ikuspegi desberdinen tira-birak jaso dituzte behin baino gehiagotan. Beste medio ia guztietan kontatu ahal izango da zatiketa eta enfrentamendu politikoaren ondorioz, indar edo gune politiko desberdinekin izandako arazoei buruzko pasadizoren bat, edo gehiago agian, batzuk besteak baino larriagoak. Guk behintzat izan ditugu, behin baino gehiagotan gainera.

Gu geu ere ez gara berdinak indar eta joera politiko guztien aurrean, guk geuk ere gure izaera dugulako eta haiek ere gurekiko berdin aritzen ez direlako. Baina oso argi dugu, gure zereginen artean dagoela indar eta joera politiko desberdinen artean integrazio jarrerak bultzatzea, bereziki indar abertzaleen artean. Argi dugu Euskal Herriak bizi duen gatazkak irtenbide duina behar duela: duina gizartearentzat eta duina pertsonarentzat. Horretarako klabe ugari daude, hiru besterik ez ditut aipatuko: ditugun arazoak elkarrizketaren bidez konpondu behar dira, proiektu eta ideia guztiak zilegi dira eta errespetua merezi dute; eta euskal gizarteak berak bere buruaz erabaki behar du.

Denok dakigu hori baino askoz arantzatsuagoa dela, askoz gehiago sakondu litekeela, baina printzipio horiek kazetaritzaren eremura eramanda ere, gure ogibidea askoz duinago eta baliagarriagoa egingo dugu.

Garai bateko kazetariaren irudi erromantikoa gero eta hutsalagoa da, eta kazetaritzan diharduenak jakin badauki filmen bidez zabaldu den erromantizismo horren gainbeheraz. Nonbait lanean ari garenean eragile asko tartekatzen dira gure asebetetze mailan, baina lanbidearekiko atxikimendua da giltzarrietakoa. Lanbidearekiko maitasunaren arabera gaude gusturago edo ez egiten dugunarekin, eta kazetaritzan gustura egon eta emankor izateko, maitasun hori ezinbestekoa da. Soldata ateratzea ez da gutxi gaur egungo munduan, baina horretarako bakarrik arituz, nekez goza daiteke kazetaritaz, nekez erantzun dakioke egoki errealitatea interpretatu eta gizartearen eraginkor izateari. Nire kazetaritza esperientzian oinarrituta, zaila da kazetari zortzi orduz bakarrik izatea; zortzi orduz lanean aritzen gara, baina gainerako orduetan ere etengabe ari gara entzuten eta ikusten, eta hori guztia gure kazetari lanbidean txertatzen da.

Argiara etorritz, baina beste leku askotan ere gero eta gehiago, gaur egungo kazetariak, informazio kopuru handietan nola aritu ondo jakin beharraz gain, pertsona kudeaketan aritzeko prestakuntza egokia behar du, lehen aipatu dudan bezala, ohiko kazetariaren lanaz gain, kolaboratzaile kopuru garrantzitsu bat kudeatu behar duelako: artikulua enkargatu, kolaboratzailearekin batera artikulua gestionatu eta artikulua emaitza baloratu. Kazetari ona izateaz gain, pertsonekin lan egiten ikastea funtsezkoa da norberaren lana arrakastaz egiteko. Areago, esango nuke bere kudeaketa ikuspegi parte-hartzailean oinarritzen duen gurea moduko enpresa batean, kazetariak, pertsonen kudeaketaz gain, enpresa gestioa ere bere zereginen artean integratu behar duela. Kazetaritza, pertsonen kudeaketa eta enpresa kudeaketa, hiru osagai horiek aipatu ditut eta, bakoitza bere neurrian, baina hirurak landu behar ditu *Argiako* kazetariak.

Ez dut gure jarduera eta egoeraren irudi idilikorik agertu nahi izan. Aipatu ditudan ia printzipio eta egoera guztietan ditugu arazoak, batzuk besteak baino handiagoak, baina gaur gaurkoz argi dugu norantz jo behar dugun. Nola, ordea? Hor dago gakoa, hor asmatu behar. Gaur egun, Komunikazio Biziagoa SAL bizi-bizi dagoen komunikazio proiektua da. Euskarazko komunikabide txiki batentzat ez da samurra Euskal Herriko egungo komunikazio esparruan burua agertzea, baina egia da, halaber, euskarazko komunikazio esparru gero eta sendoagoa dugula. Komunikazioaren aro gorenean, handi eta boteretsuen diruak agintzen du eta ur uher horien artean gabiltzanon egunerokoa ez da samurra. Baina dabilen harria gara eta ibiltzen jarraitzeko konbentzimendu osoz eta gogo biziz gaude, *Argiakook* bai behintzat.

Ez dut ezer aipatu bizipozaz, baina funtsean, hori gabe jai dute halako edo bestelako proiektuek, gutxienez diruaren gurpilean mugitzen ez diren gurea moduko proiektuek. Sarri egin dut berba pluraleko lehen pertsonan, eta bukaran eta bizipozaz aritzean, lehenengo pertsonara pasatzea ezinbestekoa zait.

Kazetaritza ikasi ondoren, nire lanbidea euskaraz bizitzearen aldeko apustua egin nuen, beste askok bezala, horrek duen naturaltasun eta konplexutasun guztiarekin, bizitza bera ere horixe da neurri handi batean. Negarra eta kexua etenbakoak diren sektorean bizipozerako tarterik ez dagoela dirudi sarri, baina geure hautua da kazetari izatea eta aritzen garen lekuan aritzea, nire kasuan 15 urteko hautua. Gaurkoz behintzat pozik nago kazetari bizitzarekin eta honek emandakoarekin. Gure gestio plan eta halakoetan makinatxo bat helburu jartzen ditugu, eta bizirauteko lortu egin behar dira gainera, baina egiten duzunarekin barne poztasun sakon hori sentitzea, hori bera gutxi al da akaso? Ez ote da garrantzitsuena?

i. EUSKARAZKO KOMUNIKABIDEAK: ESKAINZA ETA ESKARIAREN ARTEAN

Olatz Elozegi
Zabalikeko erredakzio-burua

1. Atarikoa

1999ko azaroaren 27an agertu zen Euskal Herriko kioskoetan *Zabalik* astekariaren lehen alea, *El Diario Vasco* eta *El Correo* egunkariaren enpresa-editoreek bultzaturiko ekimen bateratu baten emaitza. *Zabalik* kaleratzeko erabakia hainbat hilabetez, edota hobeto esanda, hainbat urtez luzaturiko hausnarketa eta azterketen ondorio izan zen. Denbora horretan hainbat aukera aztertu zituzten *Zabaliken* sustatzaileek, euskarazko komunikabideen eskaintza orokorrari ekarpen sendoagoa egin ahal izateko. Euskadin, prentsa gaztelaniaz ekoizten duten gainerako enpresa-editoreek ere, noizbait, aztertu izan duten aukerak izan ziren, hain zuzen, prozesu horretan ikusitakoak: esaterako, *El Diario Vasco* eta *El Correo*en euskarazko albisteen presentzia handitzea, egunkari horietan astero euskaraz idatzitako gehigarri bat sartzea, euskarazko edizioan eskarmentua zuten kideak bilatu eta haiekin proiektu bateratu bat kaleratzea... Azken emaitza, hau da, *Zabalik*, azterketa-prozesu luze horren ondorio izan zen, bidean ideia horietako asko alde batera uzten joan zen prozesua, eta gutxieneko interes soziala sortu eta, epe labur edo ertainean, bere bidegarritasuna bermatuko lukeen euskarazko produktu bat kaleratzeak duen zailtasuna agerian utzi zuena.

Izan ere, *Zabaliken* sorrera, bilakaera eta etorkizunerako planteamendua ulertzeko, ezinbestekoa da euskarazko komunikabideon errealitatea ulertzea. Eta horretan saiatu gara gu, hain zuzen, ponentzia honetan.

Azken 30 urteetan, euskarazko komunikabideen etorkizunari buruzko gogoetak hainbat alor hartu ditu aintzat, hasi komunikabide horiek euskararen erabilera normalizatuari egingo zioten ekarpenetik eta gaur egun kezka nagusia aipatu hedabideen etorkizuna izan arte. Orain dela 30 urte, ematen zuen beharrezkoa zela erakustea posible zela euskaraz informatu eta entretenitzea. Kontua, hain zuzen, euskarak ordu arte sartzeko aukerarik izan ez zuen esparruetan aritzea zen. Baina ahalegin hark bazekarren besterik. Hedabideen ikuspegi instrumentala izatera bultzatzaileen, komunikaziorako baino gehiago euskararen zerbitzurako tresna gisa ulertzea, hain zuzen. Segur aski, ezinezkoa izango zen beste era batera egitea. Euskara normalizatzeko estreinako urrats sendoek Euskadiko askatasunen berreskuratzearekin bat egin izanak nabarmen eragin zuen hasierako ikuspegi instrumental hartan. Ez zuen hainbesteko garrantzirik euskaraz zer eta nola adierazten zen, baldin eta euskara hutsez bazen. Euskaraz ekoizten zenaren inguruko jarrera etorkor eta ez hain zorrotzak bazuen arrazoi bat, hizkuntzarekiko konpromisoak berekin zuen balio etikoa alegia. Baina horren atzean ere bazen guztiz baloratzen jakin ez dugun edo nahi izan ez dugun beste afera bat: askatasunak berreskuratzeko giro hartan, hain justu, euskaraz komunikatzeko gai ziren euskaldunek euren komunikazio eta informazio beharrak hein handian gaztelaniaz ase zitezkeela ikusten zuten.

Antza denez, gaurko egunean beste muturrera igaro gara. Euskarazko komunikabideen iraupena bera zalan-tzazkoa da orain, eta horrela nekez izango gara gai horien etorkizunaz zentzu zabalean kezkatzeko edota gu geu etorkizunerako estrategiez hornitzeko. Kasu honetan, gainera, lehen pertsonaren plurala erabiltzea ez da egokia, halako fikzio bat da azken batean. Izan ere, euskarazko komunikabideen inguruan ez dago “gu” homogeneous, ezta maila bereko egonezin edo kezkarik ere. Aitzitik, errealitate zatitu bat dago urria dirudien merkatu batean. Erreali-

tate horretan, gainera, goiburua bakoitza norberaren behar edota estualdiei erantzuten saiatzen da, eta beste goiburua edo komunikabide batzuekin zuzenean edota zeharka lehiatzen da. Eta horri, gainera, euskarazko komunikabideen errealitatea zatitzen duten ezberdintasun editorial eta ideologikoak gehitu behar zaizkio. Hain justu ere, lehia eta zatitze horretaz jabetzeak emango digu gai horretara hurbilketa sinesgarri bat egiteko bidea.

Hedabideen ikuspegi instrumental hura, euskararen “zerbitzurako” izatearena alegia, alde batera utzi eta alorren defentsara, korporatiboa baino gehiago indibidualizatua den defentsara, igaro izanak joera bat erakusten du; autonomiako botere publikoek nahiz euskararen promozioan konprometituen dauden alorrek izan dituzten eztabaida eta jarrerekin bateratsu joan den joera, gainera. Hala, bada, egokia litzateke euskarazko komunikabideen orientabidean eragina izan duten hainbat gai orokorri buruz gogoeta egitea.

2. Normalizazioa

Komenigarria izango litzateke, lehenik eta behin, Euskadin izan den hizkuntz politikaren etorkizunerako paradigmaren inguruan hausnarketa egitea. Politika horren barruan kokaturik egongo lirateke erakunde autonomikoen ekarpena nahiz hura askiatsi ez dutenena. Etorkizunerako paradigma horretan, pertsona elebidunek osaturiko gizarte elebidun bat lortzera bideratuta egon da ahalegin osoa, elebitasuna bera utopia simetrikotzat hartuta, zertarako eta euskaldunak, indibidualki nahiz kolektiboki, bizitza sozialeko esparru guztietan hizkuntza horietan komunika zitezten. Ahotan hartu dugun muga hori ezartzeaz arduratzen diren horiek azalduko dute, hain zuzen ere, helmuga bat jartzea beharrezkoa dela, nahiz eta helmuga hori ameskeria hutsa izan; zertarako eta abiapuntuko egoera diglosikoa gainditzeko gai den hizkuntza bat berreskuratu eta sustatzeko beharrezkoa den energia guztia erabiltzeko. Horren ildotik, argudiatuko dute aipatu paradigmaren berrikuspen errealista edo pragmatiko orok ahaleginen uzurtasuna ekarriko lukeela, baita gizartea oro har abiapuntuko diglosi horretara makurtzea ere. Kontuak kontu, nahiz eta arrisku hori egia izan daitekeen, komenigarria da egiara hurbiltzea. Besteak beste, beharrezkoa da aztertzea elebitasun simetrikoa helburutzat izateak zenbateraino estimulatzen duen edo estimulatzen duen euskara erabiltzeko eta ikaste-ko; eta zenbateraino bideratu ahal izan dituen indarrak norabide okerrean.

Anbizio handiko helburua ezartzeak -hiritar elebidunek osaturiko gizarte simetrikoki elebiduna- ez dakar berekin, halabeharrez, abiapuntuko diglosi egoera gainditzeko estimulurik. Helmuga horrek, gainera, erreferente ideologiko edo etiko bat osatzen du, eta posible izan daitekeen horrekin hainbesteko kontrastea egiten du, non estimulatzen beharrezkoak litekeena baita euskararen normalizazio eta promozio ahaleginak oztopatzea. Hain justu ere, zaila dirudi euskararen aldeko ahalegin publikoa -zergadunek gai horren inguruko gastuetan duten jarrera, hain zuzen handitzea, irakaskuntza elebiduna ezartzeak ekarri duen bilakaera motela azkartzeko moduan bada handitzea, behintzat. Azken finean, euskara sustatzearen aldeko iritzia ez da islatzen gero aldeko iritzia duten horiek euskara sustatzeko egindako ahaleginetan (ez euskaldunen -hots, euskaradunen- erabileran ezta ikasteko orduan ere). Hala, bada, hiritarrek dioten euskararen jakintza-maila ez dator bat komunikazio sozialean duen benetako presentziarekin, ezta euskaraz ekoitziriko kultur ondasunen kontsumoarekin ere. Gisa horretan, datu horiek aski izango lirateke arestian azaldutako paradigmaren inguruan premiazko berrikuspena egiteko. Gainera, mundu globalizaturantz izan diren aldaketek eta informazio kanalak ugaltu izanak auzitan jarri dute elebitasun simetrikoren paradigma. Hala, EAEko hezkuntza-sistemako arduradunek azken urteetan irakaskuntza hirueledun edo eleanitzaren alde eginiko apustuak agerian uzten du egoeraren alde paradoxikoa.

Horrez gain akats bat egon da, “elebitasun simetrikorako” ideal hura “hizkuntza duplikazioarekin” nahastu delako; modu horretan, beraz, alferrikako ahaleginak edo harira ez datozenak egin dira askotan. Hau da, euskaraz eskaini nahi izan da euskaldunek erdaraz eskueran zuten guztia. Akatsa, azken finean, duplikazioa berdintasunarekin identifikatzea izan da. Egia esan, duplikazioa irtenbide erraza da, konplexua eta soluzio zailekoa den arazo baten aurrean. Baina duplikazioak itxura batean bakarrik gaintzen du egoera diglosikoa. Hain justu, halaxe itzultzen dira euskarara milaka agiri, nahiz eta gero agiri horien erabilerak normalizazioan duen eragina ia hutsaren hurren-

goa izan. Berdin gertatzen da goi hezkuntzan edo unibertsitatean ikasgai guzti-guztiak bi hizkuntzetan eskaini nahi direnean. Egia da, era berean, hizkuntzaren erabilera partzelatzeak arriskua duela ahulagoa den hizkuntzari zeregin subsidiarioa emateko. Baina arrisku hori hor egon arren, auzi hori ezin da aztertu ezinezko tabutzat hartu.

Oro har, eta gizarte libre batean, ezin saihestuzkoa da aukera linguistikoak panorama desberdin bat eskaintzea, eta hori ez da ezinbestean ulertu behar abiapuntuko egoera diglosikoaren betiketze bezala. Borondate hutsez, herdaturiko egoera hori guztiz irauliko dela pentsatzeak ez du funtsik. Zeren, borondate hori badago ere, ez baitio minoritario izaterari uzten, eta hori gizarte libre batean ezin har daiteke hiritar guztiengan eragina izan dezakeen agindu saihestezin bat bezala. Hala, 2002an Eusko Jaurlaritzako Lehendakariaren Prospekzio Soziologikoaren Kabineteak hizkuntz jarrera eta desioen inguruan egindako inkestaren arabera, itaundutakoen %81 etorkizun elebidunaren aldekoak dira EAEn; itaundutakoen %46, berriz, seme-alabei D eredia eskaintzearen aldekoak dira, eta %40 B ereduaren aldekoak. Guztiarekin ere, agerikoa dirudi herriarentzat desiratzen dena edota ondorengoentzako arduratzat hartzen dena ez dela, inondik ere, konpromiso pertsonaltzat hartzen.

Bigarrenik, euskara komunikazio-hizkuntza bihurtzeko normalizazio ahaleginek bat egin dute horren erabilera zabaltzeko ahaleginekin. Denboran izan den bat-etortze hori ezin saihestuzkoa izan da. Baina beharrezkoa da jabe-tzea zenbateraino zaildu duen alde batean zein bestean egindako esfortzuen kudeaketa. Aurki beteko dira 30 urte orduko Espainiako Gobernuoko presidente Adolfo Suárezek euskara ikuspegi akademikotik hizkuntza baliozkoa ote den publikoki auzitan jarri zuenetik. Iruzkin deitoragarri eta ezjakin hura iraintzat hartu zuten euskararen baliabi-deak egokitzen buru-belarri zebiltzan pertsona askok.

Hala, gaur egun inork ez du auzitan jartzen horren egokitasuna edo erabiltzen den beste edozein hizkuntzarena, irakaskuntzari dagokionez. Zalantzakkoagoa honakoxea da: hizkuntzaren normalizazio kultureko edo ikasirako nahiz arauak bateratzeko ahaleginek, hain justu, euskararen posibilitateak indartzeko berdin lagundu ote duten. Anjel Lertxundi sarri askotan azaldu da kezkatu erabiltzen den euskara tradizio batetik deserrotu ote delakoan. Oraintsuago, Lertxundik berak adierazi du normalizazioak “beldur eszenikoa” eragin diola euskarari, eta ildo horretatik ohartarazi du euskararen beharrezko normalizazio prozesua ondorioak izaten ari dela hiztunaren askatasunean; izan ere, alderdi formala eta espresiboa aipatzen direnean aurrenekoa lehenesten da.

Hirugarrenik, euskararen normalizazioan eragina du bere inguruko erabateko ideologizazioak. Ez bakarrik identifikazio hein batean politikoan, edota abertzaleen aldetiko defentsa instrumentalizatuan. Hori, beharbada, agerian dagoen aldea da. Baina bada ideologizazio leunago bat, ziur aski hura bezain kaltegarria dena: euskarari dagokionez endogamiarako egoera aproposa dakarrena, autozentsura-tabuak ugaltzeko bidea ematen duena, eta moral ekin-tzailearen sublimazioa-edo sustatzen duena, nola eta “euskalgintza” terminoa bera ere itxitura batean geratu arte, hortik datorren iritzi kritikiko ororen gainetiko autoritate moral eta guzti. Ohikoa da euskararen etorkizunaren inguruko eztabaida erreferentzia moral hutsek itotzea: zer egin behar den, egitea komeni denaz haraindi. Azken finean, horren inguruko eztabaida ñimiño edo axolagabeak ere horrelaxe amaitu izan dira, delako “ez ezazu ukitu” horrekin edo euskararen alde egiten omen denaren inguruko kritika orok berekin euskararekiko ezinikusia adierazten duela uste izanda.

Euskararen ideologizatzeak bere isla du, ezbairik gabe, euskarazko komunikabideetan. Hain justu, eskaintza eta eskariaren arteko harremanak bertutetsua ez den giroa sortzen du. Ez naiz ari, oro har, zilegitasunez argitalpen edo informazio ildo jakin batekin bat egiten dutenek ordezkatzen duten eskariak; aitzitik erosi bai, baina irakurtzen ez duten horiez ari natzaizue. Azken finean, eroste hori konpromiso erritultzat duten horiek osatzen duten eskariak ari naiz. Are gehiago, besterik gabe multzo horretan sartuko nituzke euskarazko prentsa ohiko gaitasun ariketatzat duten haiek. Euskarazko komunikabideen inguruan gogoeta egitea ezinezkoa izango litzateke jarrera horiek aintzat hartu gabe. Komunikabideek eginbehar etikorik badute -baita euskarazko komunikabideen kasuan ere-, hori arrazionaltasun eta moderazioarekin izan behar duten konpromisoa da. Ramon Saizarbitoriak hauxe idatzi zuen: “Baina euskaldunok jarrera gogotsuagoa ikusi nahi genuke erdaldunengan, eta ez euskaldunok uholderen batean kalte-

tutako herritarrak bagina bezala, gure/euskararen aldeko neurriak tolerantze hutsa; ez da komeni ahanztea iritsi dai-tekeela egungo egoera desiragarria gerta dakigukeen eguna; izan ere, oraingo atxikimenduak -abstraktuegiak asko-desertzioak eta kontrako jarrera oso konkretu bilakatu bailitezke, euskara erasorako edo defentsarako -berdin zait-armatzat erabiltzen bada. Eta, Salomon erregearen parabola gogoan, euskara maite dugula diogunok izan beharko genuke zuhurrenak puntu horretan. Ahalegin guztiak egin behar genituzke euskara orain aurkitzen den gurpil zoro-tik ateratzen, zeinetan batzuek besteak hizkuntza “patrimonializatzear” salatzen dituzten; eta, alderantziz, abando-natzear. Baina, batez ere, ez genioke nazionalismoaren eta antinazionalismoaren arteko amildegian erortzen utzi behar” (*Aberriaren alde -eta kontra-*. 1999).

Endogamiak opakotasuna sortzen du, eta etsaitasunezkoa ere izan daiteke militanteak ez diren jarreraren ekarpe-netatik iritzia emanez gero -arrotz gisa hartuak. Litekeena da “gu” eta “haiek” hitzek azalpen puntu bat izatea, izan ere Euskal Herrian bertan eta Euskal Herritik kanpora badira sektore batzuk esplizituki edo inplizituki etsaitasu-nezko, aurreiritzizko, mespretxuzko eta, onenean, errukizko jarrera dutenak euskaraz ekoizten denaren inguruan. Baina hori ezin da aitzakiatzat jo euskararekiko konpromisoaren kasuan sublimazio endogamikoa gertatzeko, hiri-tar guzti-guztiek bere egin behar luketen agindu moral bat balitz bezala. Gogoan hartu beharrekoa da, gainera, EAE-ko herritarrek ez dutela euskara jakiteko obligaziorik euskal herritar izaten jarrai dezaten. Eta badakiten haiek ere ez dute obligazio legalik hizkuntza horretan egiteko.

Azkenik, euskarazko komunikabideen arazoari zehatzago heldu aurretik, beharrezkoa da bi mutur aipatzea: eus-karak ez ditu sekula eskueran izan oraingo baliabide eta tresna ahaltzuak; eta zaila dirudi, modu erlatiboan, euska-rak irispidea izatea oraingoak baino garrantzitsuagoak diren baliabide eta bitartekoetara. Iragan mendeko 80ko hamarkadan, Euskararen Legea onarturik eta EITB abian jarriarik, EAEko hezkuntza-sistema euskalduntzen joan zen eta, hizkuntza sustatzeko ekimen publikoekin euskara tresna legalen jabe egin zen, baita finantza eta giza bali-a-bideen jabe ere; eta horrek bidea ematen zuen pentsatzeko euskarak gaztelania nahiz gainontzeko hizkuntzek zituz-ten baliabideen aldean zuen distantzia murriztuko zuela. Litekeena da, era berean, orduko hartan egindako ahale-gin gehienak araudiaren eta aurrekontuen inertziazko susperraldi hartara ohitu izana eta pentsatzea hori aski izan-go zela euskarari abaila handia emateko, azkenean gaztelaniaren mailan-edo gera zedin. Kontuak kontu, hori ez da hala izan; gainera, agerikoa da globalizazioak eta informazio kanalen ugaritzeak euskarari presentzia murrizteko mehatxua egiten diola.

Beraz, logikoa da zalantza bat izatea: pentsatzea, alegia, urterik onenak galdu genituela euskararen promozioa egiteko; pentsatzea 80ko hamarkadan gehiegizko konfiantza izan genuela -askatasunak berriz ezarri ostean eta EAEk autogobernuari heldu zionean- hartu ziren neurrien potentzialean. Ziur aski, ez dago nostalgiarako tarterik. Uneo-tan zailtasun handi bati egin behar diogu aurre: hau da, 80ko hamarkadan euskararen euskarriekin eta eskueran zituen baliabideekin inguruko hizkuntzekin zegoen aldea murriztu egin zen, eta beraz distantzia hori handitzea saihestu behar da. Beste alde batetik -adibide bat jartzearen-, euskararen alde informazioaren teknologiararen bidez egiten ari dena goresgarria da, eta txunditzeako modukoa ere iruditu dakiguke. Baina, segur aski, ez dira aski izan-go aipatu distantziari ezta eusteko ere.

3. Eskaria

Oro har, euskal herritarrek euskararen aurrean duten jarrera txikiagotu edo nolabait esateko ahuldu egiten da kon-promiso pertsonal bat eskaintzen zaien heinean. Euskal herritarren %81ek diote Euskadirentzat etorkizun elebidu-na nahiko luketela (Prospekzio Soziologikoen Kabinetea, 2002). Era berean, euskararen erabileraren normaliza-ziorako neurri jakinak ezartzearen aldeko edo oso aldeko agertzen direnen portzentajea %48koa da, eta beste %35 ez da ez aldeko ez kontrako agertzen (Euskararen jarraitasuna III - 2001). Gisa berean, euskaraz idatzi eta hitz egi-teko gai direla dioten bi urtetik gorako lagunen kopuruak gora egin du. 208.319tik 521.771ra 1981 eta 2001. urte-en artean (Eustat). Euskaraz nahiz gaztelaniaz, edota euskaraz gaztelaniaz baino gehiago hitz egiten dutela diote-

nen ehunekoak ere gora egin du 1991 eta 2001. urteen artean, 64 urtetik beherako adin maila guztietan. Alabaina, euskaraz ekoizten diren ondasun kultural edo informatiboan erorketa, audientzia edo irakurketari buruz ari garenean, ez da hain itxaropentsuak diren datu horiei egokitu beharko litzaizkiekeen daturik agertzen. Are gehiago, zera esan daiteke: azken hogeit-hogeita bost urteotan gora egin duela euskaraz komunikatzen diren produktuetara helteko gai direla diotenen ehunekoak, hasierako zifrak bikoiztera iritsita gainera, baina euskarazko produktuen kontsumoa ia hasierako zifra horietan geratu dela. Hala gertatu da irratiko audientziarekin eta aldizkari eta egunkarien banaketa eta irakurketarekin, komunikabideen tokiko ekimenen salbuespena kontuan hartuta, noski.

Analogia gisa eta, oro har, “euskarazko merkatuaren” bilakaerari dagokionez, komenigarria litzateke jarduera editorialaren bilakaerari ere erreparatzea. Baina hori bai, bi taldetan ezberdinduta. Hau da, alde batetik material akademikotzat (unibertsitatekoa ez unibertsitatekoa ez dena) hartzen diren izenburu eta aleen ekoizpena hartuta, hau da, derrigorrez kontsumitu beharrekoak diren produktu horiena, eta bestetik, borondatezko kontsumora loturiko ekoizpena (literatura, saiakera, dibulgazioa, liburu praktikoak, komikiak etab.) hartuta. Begi-bistakoa da 1997, 1998 eta 1999. urteetan behera egin zuela (%14, %13,5 eta %11,6 hurrenez hurren) literaturaren esparruko izenburuen proportzioak ekoizpen osoarekin alderatuz gero, eta hori bereziki agerikoa da argitaraturiko aleei dagokienez (%11,4, %8,1 eta %4,5 hurrenez hurren).

Gauza bera gertatzen da dibulgazio orokorreko izenburuekin. Saiakera liburutzat jo ditzakegun horien edota “liburu praktiko” delakoen esparruko izenburuen ugaritzeak ere ezin izan du arindu dibulgazio orokorreko izenburuen beherakada. Haur eta gazteei zuzenduriko liburuen produkzioak, aldiz, gora egin du, eta era nabarmenean gainera: ekoizpen osoaren %40,6, %43,7 eta %44,1 argitaraturiko izenburuei dagokienez; eta %27,2, %29,6 eta %36,6, argitaraturiko ale kopuruari dagokionez. Hala, derrigorrezko kontsumoko liburuen edizioa borondatezko kontsumoko liburuen edizioaren datuekin alderatuz gero, zera ikus daiteke. Lehenengo taldekoak, hau da, derrigorrezko kontsumokoak aipatu urte horietan argitaraturiko izenburu guztien %38,4, %38 eta %37,7 dira; eta aleei dagokienez, berriz, ehunekoak are altuagoak dira: ekoizpen guztiaren %49,7, %58,1 eta %52,1 dira. Ezinbestekoa da gogoan atxikitzea datu horietatik kanpo geratzen direla arestian aipaturiko haur eta gazteei zuzenduriko liburua. Alabaina, horiek ere nolabait derrigorrezko kontsumoaren barruan ere sar litezke, liburu horietako askoren kontsumoaren atzean betekizun akademikoak daude-eta. Hori dela eta, honako ondorioa atera dezakegu: helduei zuzenduriko borondatezko kontsumoko liburuen ekoizpena -izenburuei dagokienez, nahiz aleei dagokienez- murrizten ari da ekoizpen osoarekin alderatuz gero, eta ez gora ez behera geratzen ari dela zifra absolutuei dagokienez.

Egia da euskal gizartea atzerakada demografikoa pairatzen ari dela. Beraz, halako egoeran, euren burua elebiduntzat dutenen kopuruak, hau da, euskara idatziz nahiz ahoz ulertzeko gai direla diotenen kopuruak gora egin izanaren arrazoiak euskararen eskolaratzea ez ezik euskara ama hizkuntzatzat ez duten pertsonen euskalduntze eta alfabetatzea ere bada. Logikoa dirudi pentsatzea, era berean, oro har idatzizko prentsa pairatzen ari den geldialdia nahiz atzerakada ondorioak izaten ari dela euskarazko prentsa irakurtzeko orduan ere -bereziki gero eta adin baxuagoe-tan-. Bestalde, euskaldun berriak euskaraz ekoizten diren ondasunen kontsumoan sartu izanak ere bere arazoa dakar, tradizioarekin loturarik ez dutelako, eta gainera askok euskarazko produktuen kontsumo hori euren abentura pertsonalarekin, euskara ikastearen abentura horrekin, identifikatzen dutelako.

Euskarazko komunikabideen merkatu potentziala zein den galdetuko bagenu, erantzuna ez litzateke erraza izango. Optimismoz joko bagenu, euskaraz ekoizten den oro kontsumitzeko ahalmena duten milioi erdi euskaldunek osaturiko komunitate bat dagoela pentsatu beharko genuke. Are optimistagoa izanez gero, berriz, pentsatuko genuke euskaldun komunitate horrek gora egingo duela, Euskadiko biztanle guztiak hartu arte. Izan ere, Eustaten datuen arabera 1981 eta 2001. urteetan izandako gorakada hurrengo berrogei urteetara eramatea besterik ez litzateke beharko kimera hori osatzeko. Eta etorkizun hori ez da, agian hala dirudien arren, euskararen erabileraren normalizazioarekin konprometitutako jarrera jakin batzuen asmo txarreko karikatuzatzea, ezta gutxiago ere. Euskaraz eta euskararen alde lan egiten dugun orok era batera edo bestera egin izan dugun planteamendua da horixe, ziur asko. Alabaina, desideratum edo nahi gisa ideal arriskutsua ere izan liteke. Izan ere, posible da ideal horrek gero nola-

baiteko jarrera totalitarioak sustatzea, herritarren jarrera etorkizun horretara hurbiltzen edo hartatik urruntzen ari garen arabera epaitzen duten jarrerak, hain zuzen. Desideratum edo nahi hori aurreikuspen soziologiko gisa hartzea, ostera, hanka sartzea litzateke, historiak -gizartean eta joera kulturalen historiak-, hasierako joera batzuetatik abiatuta, ibilbide lineal eta goranzkako bat jarraitzen duela pentsatzea eskatuko luke eta.

Alabaina, aipatu zifra hori okertzat ere har daiteke. Finean, galdeketetan oinarrituriko zifrak dira, eta galdeketatik horiek askotan herritarrek bere gaitasunak egiatan direnak baino gorago edo altuago ezartzea ahalbidetzen dute. Izan ere, hizkuntzen ezagutzari buruzko inkesta orok joera hori izan ohi du. Agian horregatik, hain zuzen ere, komenigarria litzateke agian Euskadin jarraipen soziolinguistikoko hori egiteaz arduratzen diren erakundeek orain arte erabilutako metodoak lehenbailehen berrikustea, hizkuntzaren errealitatea deskribatzen duen euskararen ezagutza eta erabilera maila ahalik eta hobekien neurtzeko. Posible da, noski, horrek guk nahi dugun errealitatearekin alderatuz gero, deseinganu bat, handiagoa edo txikiagoa, eragitea. Baina komenigarria da lehenbailehen errealitate horretara, egiazko errealitate horretara gerturatzea. Bernardo Atxagak txantxa halako batez sailkatu izan gaitu euskal herritarrek euskararen aurrean dugun jarreraren arabera: “sinpatikoak”, “patetikoak” eta “antipatikoak”. Komenigarria litzateke bere adierazpen hori txantxetan ez hartzea.

Baina, aldi berean, euren burua euskaldun alfabetatutzat jotzen dutenen zifra hori, hain itxaropentsua den zifra hori, maila errealistagora murrizteak zailtasun handia dakar, datu horren atzean biztanleriari eginiko inkestaren bermea dagoelako, hain zuzen, biztanleek euren buruari buruz diotelako bermea alegia. Aipatu datu horren irakurketa eszeptikoak edota kritikoak egiteak, adibidez, ez gintuzke ziurrenik arrazoizko zifra batera eramango. Izan ere, zenbat murriztu beharko genuke zifra hori? Herenera? Edota komenigarriago litzateke erdira murriztea euskarazko komunikabideek duten merkatu potentzial erreala kalkulatu ahal izateko? Hori dela-eta egokiagoa litzateke, euskarazko komunikabideen eskaintza kontsumitzeko prest dagoen publikoa zenbaterainokoa den ikusteko, etorkizunera begiratu ordez, egun euskarazko komunikabideek duten egiazko audientziara mugatzea, ezkortasunik gabe eta gehiegikeriarik gabe.

Hala, azken hogeitun urteetan, euskarazko irratia eskaintza publiko eta pribatuaren batez besteko audientzia, erreferentzia gisa, gehienezko 100.000 entzuletan ezarri da. Euskarazko astekarren difusio orokorra, berriz, 6.000 eta 10.000 aleren artean ezar daiteke. *Berriak* plazaraturiko datuek 21.000 ale inguruan uzten dute eguneroko prentsaren difusioa. Zailagoa litzateke *ETB*ren lehen katearen audientzia erreferentzia gisa hartzea, marrazki bizidunen programazioak nahiz kirol saioen eta bestelako enbarkuntzekin dituzten ikus-entzuleak euskara ezagutzen dutenak baino harago doazelako. Kate horren ikus-entzule kopurua, 200.000tik gorakoa, datozen urteetan euskarazko komunikabideen eskaintza orokorra izan dezakeen gehienezko muga izan daiteke. Zalantza zera da, zenbat urtean?

Publiko euskaldunaren oinarritzko ezaugarria zera da, ia kasu gehienetan, publiko elebiduna dela, gaztelaniazko komunikabide bat edo beste aukeratzeko duen askatasun horri, gero euskarazko medio batera edo bestera normaltasunez hurbiltzeko aukera ere gehitzen diola. *ETB*ko zuzendari Bingen Zupiriak berak esan du *ETB*en eskaintza kate horren audientzia potentzialak dituen aukeren artean, dozena erditik gora diren aukera horien artean, beste bat dela. Inkestetan euskaldunek balorazio altua eman ohi diote *ETB*ri, eskura dituzten gainerako telebista kateen eskaintzaren gainetik. Alabaina, balorazio positibo hori ez da gero fideltasun harreman bihurtzen, hau da, *ETB*ren euskarazko katea gainerako eskaintzen zertxobait gainetik jarriko lukeen fideltasun harremana. Izan ere, balorazio hori moralizatzaile jo dezakegu, nolabait esateko, eta balorazio moral horrek ez du eragiten hain positiboki baloratzen den euskarazko eskaintza horren kontsumo erreala gora egitea.

Bestalde, Eustatek emandako datuak oinarri gisa hartuta betiere, ondoriozta dezakegu euskarazko prentsaren kontsumoa gaztelaniazko prentsaren kontsumoaren aldean kualitatiboki ezberdina dela. Eustatek 1999, 2000 eta 2001. urteetan *Euskaldunon Egunkariak* izandako difusioaren eta irakurketaren inguruan eskaintzen dituen datuen arabera, gaztelaniazko prentsan ale kopuruaren eta irakurle kopuruaren artean dagoen proportzioa ez da euskarazko prentsaren kasuan dagoen bera. Litekeena da arrazoiak zera izatea, euskarazko prentsaren kasuan erosketarako

motibazio nagusietako bat hizkuntza batekin edo proiektu editorial jakin batekin hartzen den konpromisoa izan ohi dela. Eta horrek zera eragiten du: lehenik eta behin, euskaraz erosten den prentsa gaztelaniaz erosten dena baino gutxiago irakurtzea, edota, are gehiago, ez irakurtzea. Eta bigarrenik, euskarazko prentsa erostea, gainera, prozesu pertsonalagoa denez, norberaren ingurukoak prozesu horretan nahasteko zailtasunak izatea, inguru horretan gaitasun linguistikoei dagokienez heterogeneotasun handia egon ohi delako, esate baterako familia baten barruan.

4. Eskaintza

Beste hizkuntza batzuetan -gaztelaniaz, esaterako- heltzen diren gai berberak zorroztasun berarekin hel daitezkeela azaltzeko asmoz sortu dira, itxuraz behintzat, euskarazko komunikabideak. Alabaina, ezinbestekoa da onartzea hori ez dela horrela, eta ez bakarrik euskal merkatuan lehian dauden gaztelaniazko beste komunikabideen aldean euskarazko komunikabideen oinarrian dagoen errealitate enpresarial edo editoriala ahula delako. Nolabaiteko egoitze tematikoa egiten da, handiagoa edo txikiagoa bada ere; eta horrek, praktikan, zalantzan jartzen du elebitasun simetriko baten etorkizuneko paradigma hura. *ETB*ren bi kanalen programazioa aztertuta, esaterako, begi-bistakoa da bitan banatze linguistiko horrek banatze tematikoa ere badakarrela. Gauza bera gertatzen da euskal esparruko astekari edo egunkariekin, nahiz tokiko komunikabideekin edota multimedia proiektuekin. Izan ere, inguruko gaztelaniazko komunikabideek aztertzen dituzten zenbait gairen tratamendu informatiboa alboratzera jotzen dute, euskarazko eskaintzarentzat aproposogotzat jotzen direnak aztertzeko. Teoriaren esparruan horrenbestetan errefusatzeko dena, praktikan egiten dena da gero. Komunikabide bakoitza bere ustiapen esparrua ezartzen saiatzen da, kontziente izanik ezin dela konkurrentziako gaztelaniazko komunikabide handiekin lehiatu, ezta euskarazko gainerako komunikabideekin senide arteko borroka batean sartu ere.

Euskarazko komunikabideen edukia, gainera, hein handian behintzat, konnotazio jakin batzuk, ideologikoak edota nortasunari loturikoak, dituen euskaldun komunitate bati zuzendurik dagoela pentsatuta egon ohi da. Are gehiago, konpromisozko lotura bat ezarri ohi da askotan eskaintza eta eskariaren artean, euskarazko komunikabideen kontsumoa komunikabide horiek eskaintzen dituzten edukien interesa baino haratago joan beharko balitz bezala. Joera hori logiko eta ulergarritzat jo daiteke, eta nolabaiteko jarrera defentsibo bat ezartzeko lagungarri ere suertate liteke, komunikabide horien biziraupena bermatu ahal izateko. Alabaina, komunikabide horiek etorkizunera begira izan dezaketean lasta edo oztopo nagusia ere izan daiteke horixe bera.

Eusko Jaurlaritzaren Lehendakarietzako Prospekzio Soziologikoen Kabineteak egindako azterketa baten arabera (2002), euskaldunen artean, hau da, euskara hizkuntzatzat dutenen artean, euren nortasun subjektiboari dagokionez, euskal herritarrak soilik edo batez ere euskal herritarrak direla diotenak %84 dira. Euskaldunen artean, gainera, %51k independentistatzat du bere burua, eta beste %32k ez du erantzunik ematen edota erantzun hori balizko independentzia hori nola lortuko litzatekeenaren arabera izango litzatekeela dio. Dena dela, kabinete horrek berak gazteen inguruan egindako azterketa baten arabera, pertsona bat euskal herritartzat hartzeko “euskaraz hitz egitea” ezinbesteko baldintza dela dioten kopuruak behera egiten du denborak eta adinak aurrera egin ahala, eta %10ekoa baino ez da 30 urtetik gorakoan artean. Horren arabera, pentsa liteke, euskaldunek komunitate berezi baten barruan sentitzeko duten joera hori nabarmenagoa dela, orokorrean, gizarteak hizkuntza horren ezagutza eta erabileraren eta nortasun propio batekoa izatearen artean ezartzen duten harremana baino.

Euskarazko komunikabideek, oro har, komunitate ideologiko bat islatzearen alde egiten dute, era esplizitoan implizitoan baino gehiago, euren edukietan, euren ildo informatibo edo editorialean, euren burua Euskal Herriaren eraikuntza nazionalaren zerbitzura eskainita, eta abar barne. Izan ere, euskarazko komunikabideetako profesional askok karga ideologiko askatzaile hori ematea jotzen dute zibiko eta naturaltzat, makaltasunez beteriko hamarkadak konpentsatzeko edota Espainiako komunikabide handiek duten nagusitasunari erantzun ahal izateko. Posible da hori izatea, hain zuzen ere, euskarazko komunikabide askoren indarra. Euren ahuleziaren isla ere izan daiteke, ordea, gure iritziz. Komenigarria litzateke gogoan atxikitzea Ramon Saizarbitoriak Salomon erregearen inguruan

esandakoa: posible da hori gehiegizko gaitzespen moral bat baino ez izatea, baina batzuetan badirudi nahiago dugula haurra zatitzea denok hartaz gozatzea baino.

Euskarazko komunikabideen sostengu den errealitate editorial eta enpresarialaren ahultasunak komunikabide hauek altxor publikoaren menpekota izatea eragiten du. Bakar batek ere ezingo luke biziraun gobernu, foru erakunde edota udalen aurrekontuetatik jasotako kreditu edota diru-laguntzarik gabe. Ez difusio bidezko diru-sarrerek ezta publizitate bidezkoek ere ezin dute komunikabide horiek euren garapen esparruan eta euren kabuz bizirautea ahalbidetu. Errealitate horren aurrean ohikoa da kontu publikoen aldetik ahalegin handiagoa eskatzea. Are gehiago, euskaraz komunikatzeko gaitasuna dutenen kopurua hazten doan heinean, euskarazko komunikabideen jarduera sustatzeko diru-laguntzak ere proportzio berean handitzea eskatzen dutenak ere badira. Eta hor, egia esan, kontraesana sortuko litzateke. Aurrez esan den moduan, euskararen erabileraren hedapenak bidean duen oztopo nagusia zera da, hizkuntza hori ezagutu eta hizkuntza horretan komunikatzeko gai direnen ehunekoaren pixkanakako hazkundea ez dakarrela dagokion euskarazko ondasun kulturalen edota komunikabideen kontsumoaren hazkundea. Urteik urtera gorantz doa euskaraz komunikatzen den orotara heltzeko gai diren herritarren kopurua -hezkuntza sistema elebidunari esker batez ere-, baina euskarazko produktuen kontsumoa -material akademikoa eta haurrei zuzendurikoa salbuespen- duela hogeit hamar urteko maila beretan dago ia, geldi, ez atzera eta ez aurrera. Hala gertatzen da ekoizpen editorialarekin, idatzizko prentsarekin -tokiko prentsa alde batera utzita-, irriarekin nahiz telebistarekin. Posible da, bai, euskarazko ekoizpenaren sustapenera, irakurketaren sustatzea, etab. bideratzen diren funts publikoei bultzada bat emateak joera hori, zertxobait bakarrik bada ere, arintzea. Baina posible da baita ere egoera hori ia halabeharrezkoa izatea. Eta euskarazko prentsa edo multimedia proiektu editorial ezberdinek horri aurre egiten ikasi behar izatea, baina erakundeen laguntza edota tutoretzatik gero eta autonomoagoa litzatekeen posizio batetik. Euskarazko komunikabideen diru-sarreraren profila difusio eta publizitate bidezko diru-sarreretara bideratuta eta diru-laguntza publikoetatik urrunduz, aurre egin ahal izango diogu errealitateari, egun hein batean alferrik galtzen diren ahaleginak bateratuz. Izan ere, beti egongo da erakundeetatik datorren diru-sarreraren bat, zuzena edota haiek eragindakoa, ekimen gehiegiz osaturiko galaxia bati jarraipena emateko gai izango dena.

Liburuaren edizioaren bilakaeran arreta jarritz gero, 1997, 1998 eta 1999. urteen artean euskaraz argitaraturiko aleen kopurua -liburu mota bereizi gabe- 3.780.947, 4.044.888 eta 4.264.714 zela ikusiko dugu. Eta ekoizpen editorialaren gorakada hori argitaraturiko izenburuen gorakadarekin bat dator, 1.095, 1.177 eta 1.360 aipatu hiru urte horietan. Hau da, gorantz egin du argitaraturiko aleen kopuruak, bai, baina gora egin duelako argitaraturiko izenburuen kopuruak.

Gainera, izenburuko argitaraturiko aleen batez bestekoan murrizketa txiki baina esanguratsua gertatzen da, 3.452tik 3.436ra eta 3.135era pasatzen da 1997 eta 1999. urteen artean. Kontuan izanez gero, industria editoriala euskarazko produkzioaren barruan tradizio eta egonkortasun gehien duena dela, kontuan izan behar dira datu horiek -erosketa efektiboaren eta liburuaren irakurketaren datu fidagarriagorik ez dela-, oso garrantzitsua den gauza bat azaltzen dute, eta da: ekoizpenaren bolumen orokorra -eta horren arabera kontsumoarena ere hala dela pentsatu behar-ko litzateke- gorantz doa produktu hori bera dibertsifikatu eta zatitzen den heinean. Antzeko zerbait gertatzen da euskarazko tokiko prentsaren inguruan eskura ditugun datuekin. Datu horien gehiegizko dimentsionatzean erori gabe, "euskarazko merkatuak" gainerako kontsumo merkatuek bezalaxe jarduten duela ikusten dugu.

Sekretua zera izango litzateke, beraz: aldi berean eskalako ekonomiak eta egiazko eskarira hurbilduko litzatekeen produktu dibertsifikatu, zatikatu eta malgu bat sortzeko ahalmena izatea. Litekeena da komunikabideen dibertsifikazioa eta zatitzea izatea euskarazko eskaintzaren audientzia orokorra handitu ahal izateko bide bakarra. Baina ez litzateke komenigarria izango dibertsifikazio eta zatitze hori proiektu bakoitzaren bideragarritasuna bermatzeko beharrezkoa litzatekeen kaudimen enpresarialik gabe gertatzea, noski. Baina hor arazoa zera da, ekimen ezberdinen artean dagoen konkurrentziak oztopatu egiten duela hein handian eskaintza orokorrak nahiz komunikabide bakoitzak, euskarazko komunikabideen etorkizuna bermatzeko, hartu beharko lukeen dimentsio egokiaren hausnarketa bateratua egitea.

Gai honetan, gauza guztietan gertatu ohi den moduan, norberak dagokion moduan azaltzen du egoera. Baina antzua bezain zentzugabea litzateke euskarazko komunikabideak euren ahuleziaz ez ohartzea; eta are gehiago, irakurketa boluntarista baten ondorioz, ahulezia horietatik gure komunikabideen etorkizunera begira sendotasun faktoreak ikusteko gai izatea. Hala gertatzen da informazioaren esparruko profesional berrien etorrera positiboki baloratzen dugunean, konturatu gabe medioen berezko ezaugarriak direla-eta zailtasun ugari izaten dituztela kazetari-tzaren baitako hainbat generotan eta informazioaren hainbat esparrutan beharrezkoa litzatekeen eskarmentua lortzeko. Edota ziurtzat jotzen denean erakunde publikoek euskarazko komunikabideen sustapenera bideratzen duten zenbateko orokorrak gorantz egin beharko duela, pentsatu gabe hala izanda ere horrek nekez ekarriko lukeela bizirau-penerako konponbide bat baino zerbait gehiago. Edota multimedia integrazio eta lankidetzak ekimenetan arreta jar-tzen dugunean, oso mugatua den merkatuan posizioak finkatzeko sortzen den lehia gogorrek eragiten duen zuloa ikusi gabe.

5. Zabalik

Euskarazko komunikabideen panorama orokor honen barruan, *Zabalikek* bost urte beteko ditu laster. Espainiako lehenengo komunikazio taldearen, hau da, Vocento taldearen barruan egoteak beste egoera batean agian izango ez zuen jarraitasun bermea eskaini ahal izan dio epe honetan. Baina balizko abantaila hori, finean, *Zabalik* euskarazko gainerako prentsaren aldean ezberdintzen duen ezaugarriaren beste aurpegia baino ez da, izan: hau da, bere irakurleekin duen loturaren funtsa euskarazko maila duin batean eskainitako edukia baino ez izatea. Alegia, ez du konpromiso ideologiko edota talde-konpromiso bat bere irakurleekin, banan-banako harreman bat baizik. *Zabaliken* irakurleak agian, subjektiboki, euskara sustatzeko egindako ahalegin kolektibo batean parte hartzen duela sentituko du, baina *Zabalikek* ez du, ezta esparru horretan ere -positibotzat hartzen dituen ekimenekiko atxikimendua alde batera utzita, bederen-, euskararen erabilera eta euskarazko irakurketa eta idazketatik haraindi joango litzatekeen konpromiso orokor batean partaide sentitu nahi.

Zabaliken proiektua kaleratu zenean bere asmoa ez zen, ez, orduan euskarazko merkatuan zegoen prentsarekin lehiatzea. Bere xedea beste bat zen, alegia, bere edukiari -plurala-, formatuari eta kaleratzeko egunari esker -aste-burura begira-, gainerakoen aldean ezberdintzen zen produktu batekin, orduko eskaintza osatzea. Alabaina, euskarazko gainerako medioekin ez lehiatzeko nahi edo asmo hori ez zen eskuzabaltasun keinu bat, nolabait esateko. Ez zen, ezta ere, *Zabalikek* euskarazko prentsaren merkatua sozialki zabaltzeko hartutako konpromisoaren ondorio logikoa. Izan ere, *Zabalikek* bazekien, bere edukiagatik nahiz bere sustatzaileen pertsonalitateagatik, bere irakurleak non egongo zen: euskaraz ekoizten zena noizbehinka irakur zezaketen baina ordu arteko euskarazko eskaintza horretan euren kezka eta ideiekin bat egiten zuten produkturik aurkitzen ez zuten euskaldunen artean, hain zuzen. Horrek zer esan nahi zuen? *Zabalik* guztiz kontziente zela miran zuen merkatu esparru hori egiatan oso estua zela. Horrek ez zituen, ordea, atzera bota bere sustatzaile eta erantzuleak, eta proiektu editoriala martxan jarri zen. Jakinararen gainean zeuden, gainera, ahalegin boluntaristenak ere ezin izango zuela marjina estu hori gainditu, eta ez bakarrik arestian euskaldunen artean euskarazko produktuen kontsumoak izandako atzerakuntzaren eragile gisa aipatu ditudan faktoreengatik, baita ere euskarazko prentsa militanteak euren irakurleen jarreraren ikuspuntutik kultura murriztaile bat sortua zuelako. Hau da, euskarazko prentsa erostea edo irakurtzea, irakurtzea bera baino hara-tago zihoan, edo behintzat harengandik ezberdintzen zen konpromiso baten moduan ulertzera ohituta zeuden irakurle potentzial horien komunitateak nekez eskainiko zion *Zabaliki* bere biziraupena bermatzen duena baino gara-penerako leku zabalago bat. Horrek guztiak ezin ditu, noski, justifikatu *Zabalikek* bere ibilbidean egindako akatsak edota bere jardueran izandako gabeziak, baina aipaturikoaren aurrean bigarren maila batean geratuko lirarteke.

Amaitzeko esan behar da, *Zabalik* Euskadin difusio handiena duten bi egunkariak gaztelaniaz editatzen dituen talde multimedia baten barruan egoteak arindu egin duela, hein batean behintzat, euskal herritarren etorkizunerako, hauek euskara gutxi ezagutzea edota gutxi erabiltzea baino arriskutsuagoa izan litekeen zerbait, hau da, euskara ezagutzen ez duten herritarrek euskaraz ekoizten den oro horrengatik bakarrik baztertzea.

6. Ondorioak

- 1.- Euskararen erabileraren eta hedapenaren desideratuma edo nahia behin eta berriro zuzentzen ari den errealitate hau ulertzeko, ezinbesteko baldintza litzateke herritar simetrikoki elebidunak izango litzuzkeen gizarte simetrikoki elebidunaren etorkizunerako paradigma horren berrikuspena egitea.
- 2.- Era berean, atzeraezina da politika linguistikoaren lorpenak neurtzeko metodoak berrikustea, erakundeetatik jarraiturikoak nahiz haien jardueren aurrean kritiko diren sektoreek egindakoak ere. Berrikuspen hori euskararen erabilera eta ezagutzaren errealitatera hurbildu beharko litzateke, eta euskara transmisio hizkuntza gisa sustatzeko plan eta metodoen eraginkortasuna ebaluatzeraz bideratu.
- 3.- Egun nahiz etorkizun hurbilean, ikus-entzule eta irakurle euskaldunak eskura izan ditzakeen informazio kanalen globalizazio, dibertsifikazio eta ugaritzea aurreikusi ezin daitekeen ondorioak dakartzan faktore bat da, eta horrek txikiarazi egin dezake euskarazko komunikazioak bere leku propioa izateko egiten den esfortzu boluntarista.
- 4.- Euskarazko komunikabideen egungo eskaintzak duen audientziaren geraldia zera pentsarazten du, haren etorkizuna egungo proiektuek nahiz etorkizuneko ekimenek lortzen duten bereizketa eta zatiketa mediatico, tematiko edota lurraldeari loturikoen mailaren barruan dagoela.
- 5.- Jatorri ideologiko eta politikoko tentsioak pairatzen dituen merkatu txiki batean gero eta ekimen mediatico gehiagoren konkurrentziak izugarri oztopatzen du euskarazko komunikabideentzako estrategia komun bat, interes partikularrak nahiz interes orokorrak bat egingo litzuzkeena, definitzea.
- 6.- Euskarazko komunikabide guztien “diru-sarreraren profila”ren barruan kasu guztietan diru-laguntza publikoek pisu handiena izateak zera dakartza aldi berean, haien biziraupen egoera eta haien mugari buruzko ohartarazpena.
- 7.- Nekez gertatuko litzateke, eta ez litzateke ona izango gainera, euskarazko komunikabideen diru-laguntza publikora bideratzen den zenbatekoak kontu publikoek, orokorrean, duten hazkundera baino hazkunde nabarmenagoa izatea. Garaia da jada euskarazko komunikabideen eskaintza orokorra euren erabiltzaile potentzialek puntualki ale bakoitzaren prezioa ordaintzeko duten interesarekin edota iragarleek, komunikabide horiek eskaintzen dieten oihartzunagatik, diru-sarreretara euren ekarpena egiteko duten interesarekin alderatzea, eta ez horrenbeste zergadunek komunikabide horien kostuak finantzatzeko izan dezaketen jarrerarekin.
- 8.- Gomendagarria litzateke euskarazko komunikabideen esparruan dauden errealitate eta proiektu anitzek euren titularitateari eustea -publikoa edo pribatua- panorama orokorra argitzeko, bakoitzak bere autonomia zaintzeko eta ekimen bakoitzak bere publikoaren arabera duen bideragarritasuna azaltzeko.
- 9.- Ekimen bakoitzaren bideragarritasuna dela eta, gomendagarria litzateke era berean multimedia proiektuen garapenean sartzea, euskarazko komunikabideen esparruaren barruan edota beste hizkuntza bateko errealitate mediaticoak dituzten beste korporazio batzuen barruan.

j. EUSKARA ETA MENDI-KAZETARITZA: GAILURRERA IGOTZEKO BIDEAN

Gemma Aldalur
Kazetaritza ikaslea

1. Sarrera eta helburuak

Azterketa honen bidez, euskarak mendiko informazioan duen presentzia aztertuko da eta euskarazko edo ele bitan argitaratuko litzatekeen aldizkari bat bideragarria litzatekeen ikusiko da. Horretarako azterketa honetan mendiko informazioaren oraina, iragana eta geroa landuko da, batez ere aztertuko da euskarak mendiko informazioan zenbateko garrantzia duen. Lehen, mendiko informazioan euskarak zuen presentzia, gaur egun duena eta etorkizunean euskararen erabileran zer nolako joera ikusten den.

Horretarako, Euskal Herrian gehien irakurtzen diren mendiko lau aldizkari espezializatu aztertuko dira; *Pyrenaica*, *El Mundo de los Pirineos*, *Euskal Herria* eta *Gure Mendiak*. Lagin hau aukeratzeko arrazoiak hauexek dira: alde batetik, euskararen erabilera, *Pyrenaica* eta *Gure Mendiak* aldizkarietan gaztelaniaz gain euskarazko informazioa ere badagoela, Euskal Herria aldizkariaren kasuan, ez da euskara erabiltzen gaztelarazko aldizkaria baita, baina 2004ko ekaina-uztaila alean, 10. zkian euskaraz idatzitako liburuxka bat dakar, eta bestetik, *El Mundo de los Pirineos* eta *Euskal Herria* aldizkariak aukeratu dira, irakurle asko izateaz gain, aldizkari horien informazio esparruan Euskal Herria sartzen delako.

Berria egunkaria ez da aukeratu, generalista delako eta azterketa zehaztu da irakurle espezializatuarentzat euskarazko mendiko kazetaritzak duen presentzia ikertzera.

2. Hipotesia

Euskarak mendiko informazioan duen presentzia mugatua da. Euskarak mendizaleen artean duen presentzia, eta euskarak mendiko aldizkarietan duen presentzia ez datoz bat.

Bestalde, azken hogeitau urteetan euskararen presentziak gorabeherak izan ditu, 1980. urtean *Pyrenaicak* euskarazko artikulu gutxi zituela aipatzen du editorialean eta beraz, euskaraz argitaratzeko zailtasunak aipatzen ditu. Baina euskararen erabilera apurka-apurka igotzen doa, aztertutako aldizkariaren euskarazko artikuluak kontuan izanda. Baina horrek ez du esan nahi etorkizunean horrela jarraituko duenik, urtetik urtera gorabeherak izan dira, eta ez dago datu zehatzik euskaraz gehiago idatziko dela esaten duenik. Mendiko aldizkarietan euskarak duen presentzia, mendizaleek idazten dituzten artikuluen araberakoa da. Aldizkariak aztertuta behintzat, euskararen presentzia handiago izango denik ez du ematen, berdin edo antzera mantenduko dela bai, baina euskaraz gehiago idazteko asmoa ez dago, Sua edizioak egindako inkestan eta *Pyrenaica* aldizkariak egindakoek erantzun txikia jaso dute eta.

Hala ere, ez dago merkatu ikerketa bat eginda ea euskarazko edo ele biko aldizkaria bideragarria den edo ez ikusteko. Inkestak egin dira baina ez dute erantzun handirik jaso. Beraz, euskarazko edo ele biko aldizkaria bide-

ragarri den jakiteko, merkatu ikerketa bat egin behar da, zenbat euskaldun dauden eta zenbatek nahi duten euskarazko aldizkaria jakiteko.

3. Metodologia

Hipotesia baieztatzeko, mendiko informazioan espezializatutako aldizkariak aztertu dira. Aldizkariak euskararen erabilera izandako bilakaera aztertzeko; 1985, 1990, 1995, 2000 eta 2004. urteko aleak aztertu dira. 1985. urtea aukeratu da, *Pyrenaica* aldizkarian 1980ko editorialean euskarazko artikulua eskatzen zizutenez, bost urte geroago aldaketarik eman den jakiteko. Beraz, bost urteko tartea aukeratu da, euskararen erabilera azken hogeita lau urteetan izandako joera eta zer nolako joera duen etorkizunean ikusteko.

Portzentajeak ateratzerako orduan, aldizkari osoaren orrialde kopuruak kontuan izan dira eta baita euskaraz agertzen ziren orrialde kopuruak ere. Ehunekoek euskararen presentzia erlatiboa islatzen dute, hau da, euskaraz argitaratu orrialde kopurua zati aldizkariaren orrialde kopuru osoa. *Euskal Herria* aldizkariaren kasuan, argitalpenaren orrialdeak eta liburuxkak zituenak gehitu dira orrialde kopuru orokorra izateko, eta euskarazko liburuxkak zituen orrialdeak kontuan hartuta egin dira portzentajeak. Eta argiago ikus zedin grafikoetan aurkeztu dira datuak.

Ondoren euskarazko artikulua aztertu dira; euskarazko artikulua noiz eta nola erabiltzen diren jakiteko, eta euskara egokia edo gaztelaren itzulpena den ikusteko. Bestalde, etorkizunari begira zer asmo dagoen jakiteko, eta mendiko aldizkari espezializatuen inguruan informazio zuzenago eta gehiago izateko, dei batzuk egin dira: Euskal Mendizale Federaziora, Sua ediziora, *Pyrenaiacara*, eta *Gure Mendiak* aldizkaria.

4. Egindako azterketa

Azken urteetan mendiko informazioan emandako aldaketak ikusiko dira. Euskarak zer nolako lekua izan duen mendiko informazioan azalduko da eta gaur egun euskararen inguruan dauden egitasmoak ezagutaraziko dira.

Duela hogeita urte, 1980an, aztertu diren lau aldizkarietatik bakarrik argitaratzen zen, *Pyrenaica*. Azken hamabost urteetan mendiko informazioan asko aurreratu dela aipatu du Sua edizioko zuzendariaren albokoak Imanol Agirrek. Euskal Herriko mendi guztien deskribapena egin da, eta aldizkari desberdinak argitaratu dira. Mapagintzan ere hainbat gauza egin dira.

Euskararen erabilera dagokionez, *Pyrenaica* aldizkariak 1980. urtean euskarazko artikuluren bat bazuen, baina editorialean euskaraz argitaratzeko zailtasunak aipatzen zituen, mendizaleek ez baitzuten euskaraz idazten. Euskararen erabilera azken hogeita urteetan gorabeherak izan dira. *Pyrenaican* 1985. urtean, euskararen presentzia nahikotxo igo zen, 1980. urtearekin konparatuz gero. 1985. urtetik 1995. urtera goranzko joera izan du aipatutako aldizkariak. 2000. urtean beherakada bat izan zen, aldizkariak euskarazko artikulua gutxiago zituen eta. Baina aurten igoera nabarmena izan du. Hala ere, euskarazko artikulua gehiago izan edo ez mendizaleek bidaltzen dituzten testuen araberakoa da.

1997. urtean *Gure Mendiak* aldizkaria sortzen da eta editorialean bakarrik irakur zitekeen euskaraz, hiru urte geroago 2000. urtean euskararen erabilera berdina mantendu izan da, editorialean bakarrik agertzen zen euskara. Aurten, ordea, gorakada izan du. *Euskal Herria* aldizkariari dagokionez, aldizkariarekin batera euskaraz idatzitako liburuxka bat ateratu da, hamasei orrikoa. *El Mundo de los Pirineos* aldizkariak, ordea, euskaraz ez du ezer ere argitaratzen, eta erdara hutsean izateko arrazoiak ondokoak dira: alde batetik, aldizkariaren esparru geografikoa Pirinioak direla, beraz, Euskal Herriaz gain, Aragoi eta Katalunia ere sartzen dira esparru geografikoan, eta bestetik, Euskal Herrian ale guztien herena baino ez duela saltzen.

Etorkizunari begira *Gure Mendiak* ez du euskararen presentzia handitzeko asmorik. Berdin jarraituko dutela aipatu du, Ivan Gimenez, *Gure Mendiak* aldizkariko zuzendariak.

Pyrenaicaren kasuan, aldizkaria sortu zen urteetan inkesta bat egin zen federatuen artean ea euskarazko aldizkaria argitaratzeko nahia zegoen ikusteko. Baina inkestak ez zuen erantzun handirik jaso.

Euskal Herria aldizkaria 2003an sortu zen. Inkesta bat egin zuten aldizkariarekin batera bidaltzen zutena, 50.000 inkesta banatu ziren eta horietatik 300 pertsonak erantzun zuten. Erantzuna eman zutenek baiezkoa esanez. Baina, gutxi izan ziren inkesta erantzun zutenak *Euskal Herria* aldizkariaren euskarazko bertsioa martxan jartzeko. Proiektua eragingarria izateko 2.000 edo 3.000 pertsonaren baiezkoa behar zuten, eta inkestak izan zuten erantzun txikia zela-eta, bertan behera geratu da aldizkaria euskaraz argitaratzeko proiektua. Sua edizioen asmoa hauxe da: aldizkari osoa ele desberdinetan argitaratzea, euskaraz eta gaztelaniaz alegia.

Sua edizioko Imanol Agirre zuzendariaren albokoak azaldu du euskaraz egin diren produktuak ez direla saldu eta argitaratzen duten produktu gehienak erdarazkoak direla. Mendizaleak oraindik ez daudela euskaraz irakurtzera ohituak, baina hori aldatzen ari dela aipatu du, jende gaztea sartzen ari delako eta *Berria* egunkariak astero mendiar buruz hitz egiten duelako.

Mendiko informazio gehiena gazteleraz aurki daiteke. Gaur egun mendiko informazioan euskarak duen presentzia%11koa da, aztertutako lau aldizkariak kontuan izanda. Aurten euskararen presentzia handiago da, *Euskal Herria* aldizkariak ateratako liburuxkak lagundu baitu.

Baina, aurten Euskal Mendizale Federazioa inkesta bat egiten ari da, federatuen artean. Lizentzia egiterakoan galdera bat egiten zaie, ea *Pyrenaica* aldizkaria euskaraz izatea gustatuko litzaiekeen. Horrela, datorren urterako *Pyrenaica* aldizkariaren euskarazko bertsioa argitaratzea posible litzatekeen ikusteko. Baina kasu honetan ere, beste inkestekin gertatu bezala erantzun gutxi jaso da estatistika erreal bat izateko.

Inkesta 18.485 pertsonari bidali zaie horietatik 1.304 hirurogei urtetik gorakoak dira. Federatu guzti horietatik 5.500 erantzun inguru jaso dituzte, eta erantzunen %75ek dagoen bezala jarraitzea eskatu dute, hau da, gazteleraz eta euskaraz. Inkesta honen datuak Bizkai, Araba eta Gipuzkoako datuak dira. Iparraldean *Pyrenaica* jasotzen dutenak euskaraz izatea eskatzen dute, hori azaldu du Antxon Bandres, Euskal Mendizale Federazioko presidentea.

5. Aldizkarien azterketa

5.1. *Pyrenaica*

Federatuta dauden 24.000 pertsonak eta Espainiako klub batzuetako partaideek *Pyrenaica* hartzen dute, besteak beste. *Pyrenaicak* euskarazko artikulua argitaratzen ditu, baina ez da oraingo kontua bakarrik. 1980. urtean, zehazkiago, apirila-maiatza-ekaina alean, editorialean euskarazko artikulua lortzeko arazoak zituztela aipatzen zen:

“Oraindik ere soluzionatu gabe daukagun arazo baten adibide garbia euskarak ematen digu. Ale bakoi-tza isteko garaia heltzean, ez dugu euskaraz eginiko idazlanik izaten esku artean. Eta honek ez du zentzurik, mendigoizale asko eta asko bait dago euskaraz ongi egiten dakienik. Interesgarri diren euskaraz idatzitako idazlanak behar ditugu. Euskara ez betelan hutsean erabili behar dugu, ez itzulpen lan bakarera makurtuarazi.”

1985. urteko aleak aztertu dira, ea aldaketaren bat eman zen ikusteko. Kasu honetan editoriala, euskaraz eta gazteleraz idatzita dago. Horrez gain, “Nafarroako mendietan barna” eta “Hor konpon, txikien txokoa” artikulua

euskaraz idatzita daude. Berrien atalean ere euskaraz agertzen den dei bat dago, “Igel Nabarrak salbatzeko deia zabaltzen dute Baztanen”.

Pyrenaican 1985ean idatzitako artikulua egutegi hantzerara idatzita daude, hau da, ibilbidean bizitakoak kontatzen ditu pausoz pauso. Ibilbidea bera ere deskribatzen du.

2000. eta 2004. urteetako artikuluekin konparatuta, gaur egun ibilbideak zehazkiago deskribatzen dira, ibilbidea egin nahi duenarentzat lagungarri izateko asmotan. Datu teknikoak ere azaltzen dira, lehen ez bezala. Datu teknikoez gain, gaur egun mapa eta argazki gehiago erabiltzen dira, baliabide grafikoek kalitatea ere handiagoa baita. Euskaraz idatzitako artikulua gehienek erdarazko laburpena dute.

Euskarazko artikulua lehen mailako informazio bezala ere agertzen dira. 1985. urteko (uztaila-abuztua-iraila) 140. alean, euskarazko bi artikulua lehen mailako informazio izan ziren “Jentilbaratza, arbasoak gogoratuz” eta “Wildspitze”, portadan agertzen ziren. 1990. urtean “Coloradoren Kanoi handia” portadan azaltzen da. Testuaren tartekian akats bat ikus daiteke “Coloradoren Parke Nacionala” jartzen du. 1995. urteko aldizkari guztietan, lautan hain zuzen ere, euskarazko artikulua lehen mailako informazio dira. 2000. urtean ere euskarazko artikulua lehen mailako informazio da, baita 2004. urtean ere “Euskal Herriko ur-muga”. Beraz, euskarazko informazioak lehen mailako albiste izan dira, aztertutako urte bakoitzeko ale batean gutxienez.

Euskarazko artikulua ez daude esparru jakin batzuetara mugatuta, ez orain eta ezta 1985. urtean ere. “Txikien txokoa” hori bai beti euskaraz idatzita dago. Baina horrez gain, gai desberdinak jorratzen dira: natura, eskalada, mendi igoera... Eta ez daude gune geografiko zehatz batzuetara mugatuta; Euskal Herrian, Espainiako Estatuan eta Europan egindako ibilbideak azaltzen dira 1985. urteko euskarazko artikuluetan. 1990. urteko aleetan, berriz, eremu hori hedatu egin zen eta Ipar Amerikako espedizioak ere azaltzen ziren, 1995. urtean, aldiz, Asiako espedizioak. 2000 eta 2004. urteetako euskarazko artikulua, Euskal Herrira eta Europara mugatzen dira.

Euskarazko artikulua ez dira itzulpena, artikulua mendizaleak idatzitakoak dira, eta horrela argitaratzen dira idatziak izan diren hizkuntzan. Beraz, euskarazko artikulua euskaraz egoki idatzita daude, irakurterrazak dira eta ez dute hitz tekniko asko erabiltzen, beraz informazioa ez dago irakurle jakin batera mugatua.

5.2. *Euskal Herria*

Erreferentzia eremua *Euskal Herria* da, bertako natura, ohitura, historia... jorratzen dute. Erdarazko aldizkaria da, baina editoriala euskaraz ere idatzita dago.

Euskal Herria aldizkariaren aurtengo ekaina-uztaila alean, 10.ena, euskaraz idatzitako liburuxka bat, hamasei orrikoa, ekartzen zuen aldizkariak, “1004. urtea Antso III.a Euskaldunon jauna”. Aldizkarian ere gauza bera azaltzen du erdaraz, “Sancho III el mayor”. Euskal Herria aldizkariak euskaraz idatzen duen lehen liburuxka da baina etorkizunean gehiago argitaratzeko asmoa dute. Euskaraz idaztekoan beste aldizkari bat izango litzateke erdarazko eduki berarekin baina beste aldizkari bat, bere formatuarekin.

Lehen mailako informazioa da, euskarazko liburuxka hori, “Barruan euskarazko kaiera” jartzen du portadan.

5.3. *Gure Mendiak*

Aldizkarian ez da bakarrik espedizio edo mendi ibilbideez hitz egiten. Zientziako gaiak ere jorratzen ditu “udako ekaitzak”, osasunaren atala ere badago, “egarria hasetzeak lanak ematen ditu”. *Gure Mendiak* aldizkariak euskara erabiltzen du. Gaur egun gehiago, 1997. urtean, sortu zenean, editorialean bakarrik agertzen zen euskara. Editoriala ele bitan, gazteleraz, eta euskaraz, idatzita zegoen. Gaur egun ordea, euskaraz idatzitako artikulua ere badaude.

Aldizkariaren azken aleko artikulua batzuetan euskara egokia erabiltzen da, baina beste batzuetan itzulpen kutsua nabari daiteke:

“...Juan Mari Feliuk www.rutasnavarra.com webgunearen laguntzaz, Nafarroako Mendizaletasunaren historia prentsatik begiratuta ikusgai jarri du sarean zale guztiontzat...”. (Webgunea idazterakoan akatsa dago, bananduta da, eta hemen batera jarrita dago).

Akats batzuk badaude azken aleko, *Berriak* saileko atalean, “Alberto Zerainek hori egiteko aukera izan zuten, ez ordea laugarren kidea, Eneko Pou gasteiztarra.

Erdarazko zuzentzailea erabiltzen da, hori dela-eta *Berriak* saileko atalean hainbat akats ikus daitezke: “...oinez lotu sitúen (Bilbo, gasteís,...) ...leen aldiz egin zenetik mende herida pasa denean...”

Euskaraz landutako artikuluek, orokorrean ez dute esparru geografiko zehatz bat, jorrotutako gaiak zientzia eta osasuna baitira, eta beraz ez daude lurralde batean kokatuta. 2003ko udako alean, Asia da “Annapurnako trekkinga” artikulua eremu geografikoa.

Euskaraz beti agertzen den zutabeak “Magaletik” du izena. 2004ko udako aleak “Mendigintzako Keriak” du izenburutzat. Eta hemen ere Asia da eremu geografikoa.

5.4. *El Mundo de los Pirineos*

Aldizkari honekin Pirinioak ezagutarazten dituzte; haranak, herriak, tontorrak, artea, ohiturak, Pirinioetako biztanleak... Beraz, Pirinioetako bizitza da islatu nahi dutena.

El Mundo de los Pirineos aldizkariaren filosofia da: Herrien eta hizkuntzen artean mugarik ez dagoela. Ez dute banatzen duen mugarik ezarri nahi, elkartzen duten bideak baizik. Pirinioak guztionak dira, baina batez ere bertan bizi direnenak. Eta guztion zeregina da errespetatzea eta mantentzea.

Aldizkari honetako protagonistak; alde batetik, prestigiodun argazkilariak dira, dakitenen iritziak sartzen dituzte; mendizaleak..., eta bestetik, Pirinioetako bertako biztanleak izan dira iturri nagusiak informazioa biltzerakoan.

Orokorrean *El Mundo de los Pirineos* aldizkariak era literarioa erabiltzen du bere artikuluetan, adibide bezala “El regreso de los Totems” izenburupean hauxe idazten du: “Es hora de superar el síndrome de caperucita roja...” aipu batez baliatuz sarrera hau ematen dio testuari. Hasiera-hasieratik ipuin bat izango balitz bezala kontatzen du, otsoak dira artikulua horretan protagonistak eta hainbat ipuinetan ere protagonista direnez, hori erabiltzen du.

Beste artikulua batean, “Ibones de Pondiellos en el valle del Tena”, adjektibo asko erabiltzen ditu “Mundos inhóspitos, fríos, distantes y desierto...” Konparaketak ere erabiltzen ditu, aintzira deskribatzeko orduan, “... recogido en un oculto anfiteatro que mira a la puesta de sol...”

Testu literarioaz gain artikulua honetan fitxa tekniko bat ere badago, aintzirara ailegatzeak zenbat denbora ematen duen, zaila den eta nondik joan daitekeen azaltzen du bertan.

“Pirine& Acción” izeneko atala dute. Ibilbideak aurkezten dizkigute, eta horiek nola egin deskribatzen da. Beraz, kasu honetan, artikulua praktikoa da.

Hitz espezializatuak dagokionez, batzuk agertzen dira; *Ibones, cubetas, morrenas, bancales, orografía, gleras, eta marmoleras*. Baina hala ere, ez dira hitz espezializatu asko agertzen eta daudenek ez dute ulermena zailtzen.

Gauza zientifikoak azaltzeko ez ditu hitz teknikoak erabiltzen, era erraz batean azaltzeko konparaketak erabiltzen ditu, kasu honetan haizearen faktore bat azaltzeko hauxe dio: “Lo normal sería que el equipo de fútbol americano ya dentro del vagón, no se quedarán todos formando un barullo, sino que se repartiesen para no pisarse los juanetes...”

Gero haize desberdinak aipatzen ditu eta bakoitzak zer dakarren, lurralde desberdinetara: Katalunia, Aragoi eta Euskal Herria. Eta lurralde bakoitzean haize horien inguruan dauden esaerak aipatzen ditu: Katalunian, “Tramuntana, fresca i sana”; Aragoian “Si fa aire de puerto, ya puedes trillar e ir ta os huertos” eta Euskal Herrian, “Haize egoa, gau epela, ilargiaren argi, mutxurdiak leihoetan, teilatuan katu bi”.

Erreportajea bukatzeko orduan, esaera birekin bukatzen du: “A un mateix vent, aquí li diuen bo i allà dolent” (haize berari hemen ona dela diote eta han txarra), “Haizeari txistua bota ta atzera berarengana etorri”. Beraz, Euskal Herrian esaten diren esaera horiek euskaraz agertzen dira.

6. Ondorioak

1.- Pixkanaka bada ere, euskarak gero eta presentzia handiagoa lortu du Mendi-Kazetaritzan. Azken 25 urteotan gorakada nabarmena izan du. Tontorra oraindik ikusten ez bada ere, gailurrera igotzeko bidean da.

2.- Euskararen erabilera ez dago gai edo lurralde batera mugatua. Euskaraz idatzitako artikuluek gai desberdinak jorratzen dituzte, mendizaleek idazten dituzten artikuluen arabera da euskaraz agertzen dena. Eta euskarazko artikulua albiste nagusi bezala ere agertzen dira, batez ere Pyrenaica aldizkarian.

3.- Euskaraz jardungo lukeen Mendiko informazioari buruzko aldizkari baten bideragarritasuna ezin da ezeztatu ezta ziurtatu ere, ez baita -orain arte behintzat- merkatu ikerketa fidagarririk egin.

4.- Egin diren inkesta apurren arabera, nabarmen gelditu da Mendi-Kazetaritzak euskaraz jarduteko duen behar soziala. Euskal Herria aintzat hartuko lukeen aldizkari espezializatu euskalduna behar da. Izan badira arazoak helburu hori lortzeko bidean. Konponbideak bilatzean dago gakoa.

5.- Terminologia espezializatuaren presentzia txikia da. Hori dela-eta, testuak ulerterrazak dira, eta memento jakin batean terminologia espezializatu erabili arren horrek ez du irakurketa oztopatzen. Beraz, ez dira irakurle espezializatueta mugatzen.

Bibliografia

Pyrenaica. 119. zenb., 138-141. zenb., 159-161. zenb., 178-181. zenb., 198-201. zenb., 214-215. zenb., Federacion Vasca de Montaña. Hiruhilabetekaria.

Gure Mendiak, 123-126. zenb., 139-140. zenb., Club deportivo Navarra. Hiruhilabetekaria.

Euskal Herria, 10. zenb., Sua edizioak, 2004. Bihilabetekaria.

El Mundo de los Pirineos, 13-18. zenb., 37-40. zenb., Sua edizioak. Bihilabetekaria.

Antxon Bandres (2004ko irailaren 9a), Antxon Burcio (2004ko irailaren 15a), Imanol Agirre (2004ko irailaren 9 eta 13a), Ivan Gimenez (2004ko irailaren 13a), Euskal Mendizale Federazioko idazkari (2004ko irailaren 9a) eta *Pyrenaica* aldizkari idazkariari (2004ko irailaren 9 eta 13a) elkarrizketak.

k. EUSKARAZKO KIROL KAZETA: AMETSA ETA ERREALITATEA

Leire Uria
Kazetaritza ikaslea

1. Sarrera, helburuak eta metodologia

Kazetaritza Berezitua edo Espezializatua gorabidean doan kazetaritza mota da. Azken urteotan gai asko jorratu berri dira, hileroko ehundaka gai abiaburutzat hartuta, horrenbeste aldizkari desberdin argitaratzen dira. Horien guztien artean, Kirol Kazetaritza nahiko jorratuta dagoen gaia dirudi.

Espainiako estatua aztertzen baldin badugu, kirol kazetaritzak izan duen gorakada kontuan hartzekoa da. Informazio orokorra lantzen duten egunkarietan Kirol sailak gero eta orrialde gehiago hartu ditu. Baina ez soilik hori, kirol kazeta bat da gaur egun Espainian gehien irakurtzen den egunkaria. EGM (Estudio General de Medios) erakundeak 2003ko azaroan emandako datuen arabera, 2.500.000 pertsonak irakurtzen dute *Marca* eguneroko. *El País* bigarrena zen zerrenda horretan, milioi erdi irakurle gutxiagorekin.

Iturri berberaren arabera, guztira Espainiako estatuan kirol kazetek gaur egun 3.700.000 irakurle dituzte; mota guztietako prentsak, berriz, 12.500.000.

Komunikazio honek eztabaida sortzea du helburu. Euskarazko kazetaritza idatziak eman behar dituen pausoei buruz eta batik bat euskarazko kirol kazeta batek izango zituen aukerei buruzkoa. Azterketa sakona egin behar dugu gai honi buruz, merkatu ikerketa batekin hasiz, baina dena dela eztabaidatzeko ordua ailega dela uste dugu.

Elkarrizketak eta behaketak dira lan honen abiapuntu garrantzitsuena, *El Nou* eta *Berriako* zuzendariak izan zirela elkarrizketatuak, eta hainbat egunkari ezberdin aztertu genituela. Bestalde, zenbait libururen datuaz baliatu gara aita ere datu konkretuagoak eman ahal izateko.

2. Hipotesia

Euskal Herrian kirolzaletasuna handia izan arren, euskaldunok ez dugu gure behar informatiboak asebetetzen dituen produkturik. Kirol informazioaren eskaintza zabala bada ere, gehien-gehiena gaztelaniaz dator. Euskarazko kirol kazeta baten sorrera ametsa eta errealitatearen artean dabilen egitasmoa da. Helburu hori lortze aldera ez dira behar besteko ahaleginik egin.

Prentsa orokorra aztertuz, euskaraz informatua izan nahi ezkerro, *Berriara* jo behar dugu. Zenbait egunkarik (erregionalak gehien bat) egunean ehuneko portzentaje oso txikia euskaraz argitaratzen dute, %1 edo 2. Gehien bat gainera, euskararen inguruko gaiak izaten direla gure hizkuntzan doazenak: Euskal Herrian euskaldunen portzentaiak %22 ingurukoa dela kontuan hartuz, harrigarriak dira datu hauek. Adibidez, *Deiak* %2,9 argitaratzen du egunean euskaraz, *Diario Vascok* %2,5. Portzentai baxuena hauen artean *El Correok* dauka, non soilik %0,1 dago argita-

ratuta geure hizkuntzan. Zenbaki guzti hauek *Hedabideak eta Euskal Herria* liburutik aterata daude, eta hauen arabera *Gara* da arreta gehien eskaintzen diona euskarari: %17,10. Baina zer gertatzen da prentsa berezituarekin? Eta zehatzago, zer gertatzen da kirol kazetaritzarekin?

3. Kirol sailaren garrantzia

Hurrengo datuak egun konkretu batekoak dira. Hain zuzen 2004ko irailaren 20koa. Astelehena hartu genuen adierazle moduan, eta horretan egunkari generalista kirolei eskaintako harrera estrapolatu genuen:

- *Mundo Deportivo* agertzen zaigu hor. Euskal Autonomi erkidego mailan besteekin alderatuta berezia dena da. Honek, hiru edizio ezberdin ditu erkidegoko hiru probintzietan. Bizkaian, Gipuzkoan eta Araban hiru edizio propio editatzen dira. Izatez egunkari hau, *Sport* bezala, Bartzelonan sortua da, baina EAEn Correo taldeak sortutako kirol proiektua erosiz, Bizkaian, Gipuzkoan eta Araban bertoko kirolarien berri ematen hasi zen.
- *Mundo Deportivo* euskal kirolak eta kirolariek aztertzen ditu, pilotaren kasua adibidez. Baina ez soilik euskal kirolak, edo euskaldunoi kezkatzen dizkigutenak. Bartzelonako ediziotik hartutako bestelako albisteak ere badaude: golfa, motoziklismo, edota NBAr buruzkoak kasu.
- *Marca*, *As*, *Sport* eta *Mundo Deportivo* ez dute euskal herriko kirola aztertzen. *Marca* eta *Asek* horrialde batzuk eskaintzen diote baina Madrilera albisteak dute garrantzia gehien. *Sporten* aldiz, Bartzelonatik datoztenak dira nagusi. *Mundo Deportivo* ez da Euskal Herria eremutat hartzen baizik eta probintzia bakar bat edo asko jota Euskal Autonomi Erkidegoa.

Guzti honekin, esan dezakegu badagoela lekuan lekuko argitaratzen den kirol prentsa. Kirolzaleok badaukagu non bilatu informazioa, eta gainera, nahi izan ezkeru etxekoa ere lortu dezakegu. Baina noski, informazio guzti hori erderaz agertzen zaigu. Eta ez soilik hori, ikuspuntua ez da gustiz euskalduna, gehienez EAEko enfokea ematen delako. Hori al da euskaldunok prentsa propioaz dugun kontzeptua? Gure ustetan, ez.

Bestalde, kirol atala garrantzi handikoa da EAEko kazeta generalistetan. Orrialde asko hartzen duen sekzioa da. Kirol asko tratatzen dira, nahiz eta futbola, txirrindularitza eta pelota izarrak izan. Orokorrean esanda, euskal herritarrek kirol zaleak gara eta hori argi eta garbi erakusten da baita ere gure kazetetan.

Berria, lehen esan bezala, euskaraz argitaratzen den egunkari bakarra da. Izatez ez da egunero argitaratzen, astelehenetan atseden hartzen duelako. Baina ze kasualitate, egun hori izaten da normalean kirol munduan berri gehien ekartzen duena, eta ez soilik futbolagatik.

4. Kataluniako eredia: *El Nou*

El Nouren azterketa egitekotan bulegoa bisitatu genuen, Pep Riera zuzendariak hartu gintuela. Lan honen helburuak azaltzerakoan, gure proposamenarekin harrিতuta gelditu zela azaldu zuen, izan ere *Egunkariaren* arazoak gertatu baino lehen, Martxelo Otamendik kezka bera azaldu zuela esplikatu ziguten. Hango eta hemengo ezberdintasunak ahaztu barik esan beharra dago han merkatu ikerketen arabera ez zuela tokirik katalanezko proiekturik, edo hori zen behintzat *Sport* eta *Mundo Deportivo*ren arduradunek ziotena. Hala eta guztiz, 2002ko urtarrilak 2tik *El Nou* kazeta aurkitu dezakegu Kataluniako kiosko guztietan, era ezberdinetan, egia da, baina territorio guztira zabalduak hedabidea da, katalanez Kataluniako kirol eta kirolariei buruz mintzatzen dena. Abiapuntu bat izan dezake guretzat ere, edo behintzat kontutan hartzeko eredu bat.

El 9 2002ko urtarrilaren 2an kaleratu zen, historian zehar katalanez argitaratutako lehen kirol kazeta dela. Lan askoren emaitza izan zen eta gainera ideologia klarua zutela argitaratu zen. Lehen egunean argi utzi zuten guzti

hori, “katalanez argitaratutako hedabidea gara, bai hizkuntzagatik, baita kirolei emongo dizkiogun ikuspuntuagatik ere” esaten zutelako. Horretan, eliteko kirolari jarriko ziotela arreta azpimarratzen zuten, kirol ezberdinak izango zirela protagonistak haien orrialdeetan, eta zenbait informazio fokuei erantzuna emango ziotela: “Barçatik hasita joko olinpikoetararte, Espanyoletik, motorren edo rallien mundialatik, 1 formulatik, NBAtik, tenisako edo golfeko *grand slam*-etatik, edota Tour edo Volta-tik pasatuz”, argitaratzen zuten.

Beste gai bat selekzioak ziren. *El 9k* argi uzten zuen hasieratik zein zen bere ikuspuntua gai honi buruz, eta argi eta garbi ofizialtasunaren alde lerrokatzen zen: “Kataluniako selekzio absolutuak -momentuz lagunen arteko nor gehiagoeekin ofizialtasunaren bidea irekitzen ez den bitartean- dira gure selekzioak”. Gainera Espainiako selekzioei buruz zera esaten zuten, jarraituko zituztela bai, baina ez zituztela begi berdinekin batako edo besteak adituko.

El 9 kalean jartzeko formula arraroa egin zen, baina bere bizitzako lehen urtean zehar, batez beste egunean 56.370 ale kaleratu zituela jakinda, esan daiteke proiektuak tokia zuela, besteen merkatu ikerketen emaitzen kontra. Han posiblea izan zen, hemen zergatik ez? Galdera airean da jada.

El Nou proiektu baten emaitzaz jaiotzen zen, zenbait egunkari erregionalista eta *VilaWeb* bezalako portalaren eskuatik. Formula arraroa izan zuen, izan ere kazeta askea bezala Bartzelona eta bere area metropolitanean bakarrik saltzen zen hasiera batean. Beste lurraldeetara egunkari erregional horien bitartez ailegatzen zela, haien barruan enkartatuta. Egunkari guzti haiek honakoak izan ziren: *El Punt*, *Segre*, *Regió 7*, *El 9 Punt*, *L’Hora del Garraf* i *Diari d’Andorra* i *d’El 9 Nou* i *El 3 de Vuit*. Horiek guztiak kataluniako lurralde gehiena hartzen duten kazeta erregionalak dira, garai horretan Bartzelona hiria eta inguruak izan ezik (gaur egun *El Punt* argitaratzen baita hemen ere). Horregatik, lurralde guztira heltzen zen kazeta zen, gehienetan kazeta erregionala erostean hartzen zutela irakurleak, Bartzelona eta inguruan izan ezik, non kioskoetan aparte erosi beharra zegoen.

El Nou proiektua ez zuen inolako hedabideen talde erraldoi hartako batek plazaratu, egunkari edo hedabide txikien indar batzearen ondorioa izan zelako. Txikiak elkartu ziren posible egin ahal izateko. Politegia erreala izateko? Euskal Herrira ekarrita ezinezkoa? Ikusi beharko. Han, Katalunian eztabaida asko gertatu ziren proiektua atara baino lehen, eta askok ez zuten posiblea ikusten. Pep Rierak zuzendariak honela definitzen du *El Nouren* proiektuaren jaiotza: “Halako proiektu bat sortzea planteatzen zen guztietan aurretik ez zuela tokirik izango onartzen zen, eta horrela edozein ekintza aurrera eramatea ezinezkoa dela dirudi”. Horregatik, hona begira, lehenik eta behin eztabaida sortu behar dugu, eta behar honi buruz beldur barik mintza behar gara.

5. Eta Euskal Herrian zer?

Holako proiektu bat egiteko ikasle batek ezin du egin beharreko guztia aurrera eraman. Taldeen indarra behar da, hedabideen laguntza alegia. Guk *Berriakoekin* hitz egitera joan ginen, haien iritzia ezagutu nahi genuela (euskaraz argitaratzen den euskal kazeta bakarra denez, proiekturen bat egotekotan hauek edukiko zutelako). Martxelo Otamendi zuzendariak hartu gintuen eta honen adierazpenak oso interesgarriak izan ziren.

“Badakit *El Nou* Comit deituriko kazeten talde batek sortu zuela eta horren atzean *El Puntekoak* izan zirela bultzatzaileak”, zioen Martxelok *El Nouri* buruz galdetean. Kataluniako adibidea ezagutzen zuela argi utzi zuen, izan ere, *El Puntekoekin* oso erlazio ona daukate *Berriakoek*. Euskal Herrira begira gure kirol kazeta propioa posiblea izango ote zen galdetu genion Martxelorri.

Berriak badaki zein den gure egoera. *El 9k* katalunian hango ikuspegitik aztertzen ditu kirolak eta hori hemen falta da. Hor hutsunea dagoela diote *Berriatik* eta arrazoia ez zaie falta. Kirol kazetak ale dezente saltzen dituzte Euskal Herrian, eta gainera informazio orokorreko egunkari kirolei orrialde dezente eskaintzen diete, beraz merkatu potentziala badago. Barneko ikuspegi hori falta da, hutsunea dagoela. “Udan Eurokopa izango dela eta gure

kaleetan Euskal Selektzioko kamiseta duten gazteak ikusiko ditugu *Marca* irakurtzen, azalean “nuestros chicos a por todas”, dioela.

Gabezi hori dela medio, euskal ikuspegiko kirol kazeta bat behar da. Ez dakigu posible den euskal kazeta hori sortzea, baina beharra behintzat badago. Hori da behintzat *Berriatik* esan digutena, “beharrezkoak diren gauzak bakarrik dira posibleak eta hau beharrezkoa da, eta ez da erreza izango”. Baina nola erantzungo zuen gure zalegoa? “Katalunian daukaten masa kritikoa eta katalanarekiko joera ez daukagu Euskal Herrian.”

“*Berriakoak* ibili gara ideia horrekin bueltaka, eta Eusko Jaurlaritzarekin hitz egin dugu honi buruz, bai oraingo gobernuarekin baita aurrekoarekin ere, baina beti gora adika ibili dira.” Dirudienez, euskal kazetaritzan dabil-tzatenak halako gauza baten beharra ikusten dute, eta honi buruz eztabaidatzeko prest daude, baina oraindik ez dago proposamen serio bat, ez behintzat lan baten proiektuaren aurkezpen zehatza.

Martxeloren iritzietan *El 9ko* formatua ez zaio egokitzen kirol kazeta baten formatu tradizionalari, eta hori ez da bide egokiena. “Ezin da egin kirol kazeta serio bat, egin behar da kirol kazeta ba, eta hauek espektakularrak badi-ra gureak ere era horretakoa izan behar du. Jendeak nahi duena egin behar izango dugu”.

Euskal Herrira begira hori zaindu beharko genuela uste du Martxelok: “diru asko behar da beste kirol kazeta arrunten tipografia eta jarraitzeko. Maketista asko, diseinatzaile asko... eta hori azkenean dirua da”. Hor dago euskarazko kirol kazetarako traba bat: dirua. Behar den dirutza kontutan hartzekoa da eta ondorioz, zailtasun asko daude. Euskarazko kirol kazeta sortzea ez zela erraza izango bagenekien, eta lan guzti honetan zehar azaldu ditugu arazoak, baina gauza bat ezin da ukatu: beharizan bat dagoela hutsune bat dagoelako. Hori bera pentsatzen du Martxelok. Borondatea behar da ezer egin baino lehen.

“Katalanak abantaila bat daukate, haiek Barça daukatela, eta horrekin kirol munduan identifikazio bat dagoela, orduan egunero honi orrialde gehienak dedikatzen badizkiete ez dago problemarik, mundu guztia ados dagoela. Hemen ez dago halakorik, kirol asko, kirolari asko eta talde asko daude, baina elite mailan ez horren garrantzitsuak. Nori eman behar zaio arreta hori? Athleticeri eman ezkerro realzaleak haserre, eta abar. Gainera, realzaleak Realaren informazio nahiko badaukate *Mundo Deportivo*”.

Beraz arazoak badaude euskal kazeta propioa argitaratzeko, dirua, materiala, jendearen ohitura, kirol ezberdinen atentzioa, kompetentzia... arazo asko baina denek konponbidea daukatela. Martxelok dioenez, *Berria* edo *Egun-karia* atera nahi izan zenean traba asko zeuden bidean eta hala ere atera zen, beharizan bat zelako. Kasu honetan antzeko egoera bizi dezakegu.

“Lan handiak ekarriko dizkigu jendea gurera ekartzea eta halako produktu bat kontsumitzera ekartzea, baina, egunkaria atera zenean ere konplikatua izan zen”. Orduan arazo asko egon ziren: publizitatea lortu behar zen, dirua lortu behar zen, kazetariak trebatu behar ziren... eta batik bat jendearen ohiturak aldatu behar ziren. Eragozpen asko zeuden eta gure kasu honetarako ere eragozpen asko daude.. “Eragozpenen zerrenda egin beharko da, eta gainditzeko pausoak eman ondoren. Zaila da, baina beharrezkoa”.

El 9k erabilitako formula Euskal Herrirako baliagarria izango litzatekeen edo ez jakin nahi izan dugu eta Martxelori bere iritzia galdetu diogu. Euskaraz kazeta bakarra dago, beraz, erdarazko kazeteekin posible izango balitz galdetu diogu, gehien bat kazeta abertzaleekin. Bere iritziz, “nik ez dut uste, erlazioak daude gure artean baina holako gauza bat ateratzeko ez dut uste.... gainera *Deiakoek* adibidez zer egingo dute kirol atala holako kazeta batekin ordezkatu *El Puntek* egin duen moduan? Nik ez dut uste hori posible denik. Egoera ideal batean behar bada... posiblea izan daiteke suplementu bat bezala hartzea baina...” Proiektua orduan, *Berriako*en ustez beharrezkoa da, beraz, noren eskuetan egon beharko litzateke? “Guk egingo bagenu, guk daukagu disposizioa, orduan, guk *Berriako* kirol saila kendu eta kirol kazeta horrengatik aldatuko genuke”.

6. Beste profesionalen iritzia

Beste egunkari batzuetako kideekin hitzegiteko aukera ere izan dugu. Hiru kazeta hartu ditugu (*Berria* izan ezik noski). Hauek: *Deia*, *Gara* eta *El Periódico de Alava* izan dira. Hirurak ideologia abertzalea dute eta ondorioz hauen iritzia inportantea zela uste dugu. Euskal kazeten iritziak ezinbestekoak direla uste dugu.

Hiru galdera baino ez genien egin hirurei. *Garako* kirol saileko buru Imanol Amianori; *Deiako* zuzendariorde Juan Carlos Latxagari, eta *El Periódico de Alava*ko zuzendariorde Carlos Drondari. Hiruren iritziak kontutan hartzekoak dira, erreferentzia direlako. Hemen dauzkagu erantzunak.

Lehenengo galdera beharrezkoa zen. Ea euskal kirol kazeta sortzeko proiekturen bat zeukaten edo izan duten noizbait:

Garatik Imanol Amiano: – *Ez, nik dakidalez ez dago halakorik.*

Deiatik Juan Carlos Latxaga: – *Ez, ez dut entzun inoiz holakorik hemen.*

El P. de A.tik Carlos Dronda: – *Holako proiekturik egia esan ez.*

Bigarren galdera hurrengoa izan zen. Ea *El 9* ezagutzen zuten:

Garatik Imanol Amiano: – *Ez.*

Deiatik Juan Carlos Latxaga: – *Badakit zeozer, baina ez dut ezagutzen.*

El P. de A.tik Carlos Dronda: – *Ezagun egiten zait baina oso gainetik.*

Aurreko erantzunak ikusita, *El 9*ren ibilbidea goitik azalduta galdera hurrengoa izan zen, ea halako proiekturen bat Euskal Herrian tokirik izango lukeen ala ez.

Garatik Imanol Amiano: – *Bai... boteprontoz... Nik uste dut baietz, baina dena dela galdera hau eta aukera hori gehiago aztertu beharko genuke.*

Deiatik Juan Carlos Latxaga: – *Nik uste dut ezetz, ez zuela biderik izango, ezta erdaraz ezta euskaraz ere ez. Arrazoiak? Egunkari generalistak informazio asko eskaintzen dutela kirol sailetan eta bestetik, Marca, AS (gutxiago), eta Mundo Deportivo sartuta daudela. MD lokalitasuna du eta Marck euskal saila dauka, eta hauek finkatuta daude jada. Bere garaian egon ziren bi kazeta eta pikutara joan ziren, beraz nik uste dut ezetz.*

El P. de A.tik Carlos Dronda: – *Nik uste dut baietz, bere garaian aldizkari bat egon zen baina orain dela urte asko eta asko... Baietz uste dut kirol zaletasun asko dagoelako, kirol askorena gainera. Irakurleak egongo zirela uste dut, baina dena dela inork egin ez badu zeozergatik izango da. Marca, AS eta Mundo Deportivo saltzen dira eta hauen ikuspuntua nahiko zentralista da, beraz egongo balitz hemengo ikuspuntutik egindako kazeta nik uste arrakasta izango zuela.*

Hiruren iritziak nahiko azalekoak dira, ez dutelako inolako analisirik egin. Argumentu guztiak eztabaidagarriak dira eta hauen kasuan ez da ezberdina izango. *Deiako* zuzendariorde Juan Carlos Latxagaren iritzia da ezezko bakarra. Argudio onak ematen ditu bere iritzia definitzeko. Hala ere, gu egingarria dela uste dugu. Proiektu guzti hone-tan zehar adierazi dugunez, ohiturak ez dira ezezkorako aitzakia. Gure usteetan jendearen ohiturak aldatzeko toki-rik badago. Bestela nola da posible *Berria* bezalako kazeta egotea? Bere garaian euskaraz irakurtzeko gogoia zego-ela uste zutenek atera zuten *Egunkaria* eta oso gutxi uste zuten posiblea zela. Saiatu beharra dago. Egia da kaze-ta arruntek orrialde asko eskaintzen dizkietela kirolei, baina zein ikuspegitatik? Hori da gure kezkarik nagusia, izan ere euskal ikuspegitik egindako kirol kazetaren hutsunea nabaria da.

7. Ondorio nagusiak

1.- Zailtasun objektiboak badira ere, euskarazko kirol kazetaren egitasmoa ametsen mundutik errealitatearen esparrura hurbildu egin behar da. Zailtasunak objektiboak dira. Konforme, baina beharrak ere bai, euskaldunok ez baitaukagu geure hizkuntzan landutako kirol kazetarik.

2.- Helburu hori lortze aldera ez da merkatu ikerketa zehatz eta sakonik egin orain arte. Horrexek berak agerian uzten du gure premiaren gorritasuna.

3.- Katalunian gertatu den modura, hemen ere horrelako egitasmo batek elkarlanean izan beharko luke oinarri. Ezin-go litzateke bakarrik utzi, adibidez, merkatuko irizpide soilen arabera. Erakunde publikoek lagundu eta bultzatu egin beharko lukete, beste egitasmo batzuetan lagundu duten eran (herri-aldizkarien eremuan, adibidez).

4.- Amaitzeko, Martxelo Otamendik esandako hitzak ekarriko ditugu gogora: “Bere garaian *Euskaldunon Egunkaria* jaio zen, ondoren *Berria* sortu da... bada garaia beste berri bat jaiotzeko”. Espero dugu horrela izatea.

Bibliografia

NOR ikerketa taldea (2000): *Hedabideak eta Euskal Herria*, Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbo.

Ramirez de La piscina, Txema (1998): *Kazetari-lana Euskal Herrian*, Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbo.

El Nouren zuzendari Pep Rierar (2004ko martxoaren 26an), *Berriako* zuzendari Martxelo Otamendi (2004ko maiatzaren 19an), *Garako* kirol sailaren arduradun Imanol Amiano, *Deiako* zuzendariorde Juan Carlos Latxaga eta *El Periódico de Alavako* zuzendariorde Carlos Drona-ri elkarrizketak.

Erabilitako dokumentazioa: *El Nou*, *Gara*, *Deia*, *El Diario Vasco*, *El Correo*, *Mundo Deportivo*, *As*, *Sport*, *Marca* eta *Berria*.

I. AISIALDI ETA ZERBITZUEN ATALAK EGUNEROKO PRENTSAN

Maidor Elortegi
Kazetaritza ikaslea

1. Sarrera

XX. mendeko azkeneko hamarkadetan eguneroko prentsak izugarritzko aldaketa izan du. Aldaketa horiek gizarte-an emandako aldaketekin bat datoz. Indibidualismoa eta bakoitzaren nahiak asetzea helburu nagusia bilakatu dira, bakoitza bere interesen alde mugitzen da. Aisialdia bakartasun sozial horren altxor bilakatu da. Hori dela-eta, prentsa arrosak, osasunak... gai sentzazionalistek izugarritzko protagonismoa hartu dute gaur egungo komunikabideetan. Hedabideak gaur egungo gizakiaren mentalitate “modernora” egokitu dira, hori asetzea funtsezkoa da. Gizakiak ez du informazio soila nahi, zerbait gehiago eskatzen du: prentsak bizitza erosoago bat egiteko datuak eskaintzea, alegia. Aisialdian une bakoitzeko nahiak asetzea da helburu nagusia.

Azken urteetako aldaketa sozialak, lehen aipatu dugun bezala, komunikabideetan ere asko nabaritu dira. Hala ere, ezin dugu argi esan gizakiaren ohitura aldaketek komunikabideen aldaketa ekarri dutenik edo alderantziz. Gaur egun bata bestearen menpe daude.

Baina aldaketa sozialez ari bagara, zeintzuk dira prentsak izandako aldaketa horiek?

- Ongizate gizartea eta aisialdiaren garapen kulturala
- Gaiei buruzko interesa asko aldatu da
- Ikus-entzunezko zerbitzuen aurrerakuntza dela-eta, prentsa atzean ez geratzeko eman diren estrategia berriak
- Prentsaren ekoizpenean... emandako teknologia berrikuntzak

Komunikabideek datuak, irudiak, informazioa... ematean errealitate bat hurbiltzen digute. Ondorioz, gizakiaren nahiak aseta egon daitezke, baina kontuan izan behar da komunikabide konkretu batek eskaintako errealitatea ikuspegi bakar bat dela. Informazioa askotarikotu egin da komunikabideetan: osasuna, estetika, kultura... informazio bilakatu dira. Askotan, komunikabideak datuak aurkitzeko eta egia bilakatzeko funtsezkoak bilakatu dira. Komunikabideak gero eta intrantsitiboagoak dira, hau da, subjektua da nagusi, hedabidea bera. Komunikabideak dira gehienetan berrien mamia, eta albisteen datuak edo informazio “objektiboa” aurkeztu baino beraiei buruz hitz egiteko joera hartu dute. Askotan, komunikabideetan komunikabideak dira albiste. Horri buruzko adibide argia prentsako telebista eta irrati atalean dugu.

2. Hipotesia

Gaur egungo prentsari buruzko ikerketa bat egingo dugu. Prentsan, aisialdi eta zerbitzu atalak aztertuko ditugu. Aisialdiko gaiek garrantzi handia hartu dute eguneroko prentsan. Komunikabideek irakurleen nahiak asetzeko sail berriak egokitu dituzte. Hau hainbat ezaugarri kontuan izanda nabari daiteke.

Aisialdi eta Zerbitzuen atalak egunkarietako eduki garrantzitsu bilakatu dira, eta arreta handia eskaintzen zaie. Orrialde kopurua handitu egin da.

Prentsaren diseinuak arreta erakartzen du, hau da, beste sail batzuk baino garatuagoak dira. Albiste deigarriak dira tipologia aldetik baita argazkien kalitateari dagokionean ere.

Telebista eta irrati programazioek protagonismo handia dute atal horietan. Aipatutako hedabide horiei buruzko albisteentzat nahikoa leku uzten da.

Aisialdiko eta Zerbitzu sailak irakurle zabalari zuzenduta daude. Hizkuntza arrunta eta unibertsala erabiltzen da, edozeinek ulertzekoa. Esaldi sinpleak, laburrak... izaten dira, irakurketa “arin” batean dena esanda egon dadin.

Aisialdi eta Zerbitzuen saila betetzeko antzekotasun handiko gaiak erabiltzen dira, nahiz eta ideologia ezberdinetako egunkariak izan: osasuna, moda, ekologia, bidaiak, elikadura, kultur arlo ezberdinak, telebista eta irrati programazioak, denbora-pasak, eguraldia... Lehen tratatzen ez zirenek, gaur egun, gizarteko interesei erantzuten diete. Kazetaritza soziala dela esaten da. Gizartea asko aldatu da azken hamarkadetan, bizi kalitatea hobetu egin da eta horrek izugarritzko eragina izan du komunikabideetan. Gure kasuan egunkariak aztertuko ditugu. Hala ere, komunikabideetako edozein esparrutan nabari daiteke aldaketa.

3. Metodologia

Euskal Herriko prentsa aztertuko dugu, hemen egindakoa. Hipotesian azaldutako puntu guztien azterketa egiteko. Alde batetik, elebidunak diren *Gara* eta *Deia* egunkariak erabili ditugu. Beste alde batetik, elebkarreko *Berria* egunkaria.

Egin eta *Euskaldunon Egunkaria* aztertzea ere interesgarria da, azken urteotan prentsan Aisialdi eta Zerbitzuen garapena nolakoa izan den ikusteko. *Egin/Gara* batetik, eta *Euskaldunon Egunkaria/Berria* bestetik, lehengo ildoari jarraitu dioten egunkariak dira. *Egin* legez kanpo utzita kaleratu zen ildo bereko egunkaria da *Gara*. Antzekotasun ugari dituzte beraien artean, maketan, Aisialdi eta Zerbitzuen sailean, adibidez, izen bera duen atal bat aurki daiteke “Non Zer”...

Berria eta *Euskaldunon Egunkariarekin* ere antzeko gauza ematen da nahiz eta egunkari berdinak ez izan antzekotasun handia dute. *Gara* eta *Eginekin* gertatu zen bezala, *Euskaldunon Egunkaria* legez kanpo utzi zutenean sortu zen *Berria* kazeta. Horiek ere antzekotasun handiak dituzte, euskaraz kaleratzen diren egunkari bakarrak izan dira Euskal Herriko eguneroko prentsaren historian, abertzaleak direla esan daiteke eta Aisialdi eta Zerbitzu saileko eskemek antzekotasun handia dute. Aztertzen ari garen sailaren barneko azpiatalen edukiek berdintasun handiak dituztela egiaztatu ahal izan dugu lan honetan: Agendako ekitaldiak, Efemeride eta Santuen kokapena, izen bera duen atala, Gaurko filmak...

Azken azalpen hau emanda, *Gararen* garapena ikusteko *Eginen* lehen alearekin konparatuko dugu eta *Berria*-rekin gauza bera egingo dugu: *Euskaldunon Egunkariaren* lehen alea izango da abiapuntua.

3.1. *Deia*

Deia 1977ko ekainean Bilbon jaiotako egunkaria da. Franko hil ondorengo hauteskundeak egin baino astebe lehenago argitaratu zuten lehen alea. Egunkari nazionalista dela esango genuke PNV-EAJrantz bideratuta dagoena. Azterketa honetan ikusiko dugun diseinua 2000ko urriaren 20an estreinatu zen. Maketa berri hau Bega Comunicacioneko Ricardo Bermejoren lana zen.

Aztertuko den saila diseinu berriaren atalik nabarmenena da “D2, La revista de *Deia*”. Zerbitzuak, ikuskizunak, kultura eta aisialdiko berriak eskaintzen dira. *D2* aldizkari honetan ez da tratatzen ez politika, ez ekonomia... aitzitik, hemen aurki daitezkeen gaiak interes orokorreko gaiak dira: aurrerakuntza zientifikoak, osasuna, heziketa, ekologia, aisia, telebista, eguraldia, filmak, agenda eta denbora-pasak.

3.2. *Egin*

Gipuzkoan argitaratzen zen euskal egunkaria da *Egin*. Lehen alea 1977ko urriaren 15ean sortu zen. Hego Euskal Herri osoan kaleratzen zen eta Ezker abertzale inguruko ideologia zuen. Egunkaria legez kanpo utzi zuten eta azken alea 1998ko uztailaren 15ekoa izan zen.

3.3. *Gara*

Gaur egun, *Eginen* enbor edo ildo “beretik” sortutako egunkaria dugu *Gara*. 1999ko urtarrilaren 9an argitaratu zuten lehen alea.

3.4. *Euskaldunon Egunkaria*

Euskaraz publikatzen zen egunkari bakarra *Euskaldunon Egunkaria* zen. 1990eko abenduaren 6an kaleratu zuten lehen alea. Euskal Herri osoan zabaltzen zen eta euskaltzale askoren ekimenari esker sortu zen. Euskal Herrian nagusi zen erdal prentsarekin lehia ziharduen egunkari bakar hau ideologia guztiei zabaldua zegoen eta euskaldun askok eguneroko prentsa idatzia euskaraz izan zezan zuen helburu nagusia. Kazeta legez kanpo utzi zuenean Espainiako Gobernu zentralak, azken alea 2003ko otsailaren 7koa izan zen.

3.5. *Berria*

Egun, helburu berarekin sortutako *Berria* egunkaria dugu, 2003ko ekainaren 21ean argitaratu zuten lehen alea. Euskal Herrian eguneroko prentsa elebidunak jasandako aldaketak zorrotzaz ikusteko egunkari bakoitzetik aste konkretu bateko ale guztiak hartu ditugu. 2004ko irailaren 13tik 19rako astea jorratu dugu, hain zuzen ere. Bestalde, eguneroko prentsaren azken hamarkadetako aldaketak hobeto ikusteko lehen alearekin konparatuko ditugu *Deia*, *Egin* eta *Euskaldunon Egunkariaren* lehen aleak, berdintasunak eta desberdintasunak ondorioztatzeko.

Egunkariak aztertu eta emaitzak alderazgarriak izateko, metodologia hau jarraituko dugu: eskema orokorra eskainiko dugu lehendabizi. Eskema aurkeztuta hainbat ikuspegi izango dugu kontuan, hala nola orrialde kopurua, diseinua, gai ezberdinak, euskararen erabilpena eta eguraldi maparen mugak, agendaren eta zerbitzu ezberdinen mugak noraino heltzen diren, hau da, zein lurraldetan kontzentratzen diren. Aipatzekoa da gure lana egiteko ezinbestekoak izan direla ondokoak: *El diario de servicios en España* (Aintzane Alberdi, Joxe Ignacio Armentia, Joxe Maria Caminos eta Flora Marina), eta *Zer* aldizkaria.

4. Hipotesiaren baieztapena

4.1. Eskema

a.- *Deia*

Deiaren lehen alearen, Ostirala, 1977ko uztailaren 1a: Pasatiempos (Juan Hazard, Luis Ciclon, Aventuras de Aguilucho eta Olaforen komikiak; Crucigrama; Hitz Gurutzatuak; Los seis errores), Guía-Aurkibidea, Farmacias de Guardia, Teléfonos Útiles, Espectáculos, Televisión, Programas, Televisión francesa, El Tiempo eta Comunicaciones.

Gaur egungo aisialdi eta zerbitzu orrialdeak *Deian*: “D2 La revista de Deia”, Erreportaia, Albisteak, Laburrak, Kultura albisteak, Loteriak, Horoskopoa, Denbora-pasa, Autodefinido, El salto a caballo, Aritmetika, Jeroglífico, Hitz-Gurutzatuak, Eguraldia, Euskadi Hoy, Euskadi mañana, Euskadi miércoles, Bizkaia Hoy, Bilbao, Glosarioa, Tendencias de la semana, Temperaturas en las capitales, El Tiempo en Europa, SOS (Urgencias, Hospitales, Ayuda en Carretera...), Zinemak, Kultur agenda: (Antzerkia, Musika, Zinema, Arte Plastikoa...), Telebista, El Mirador, La película de hoy, Cine en Casa, Albiste Laburrak, Telebistako programazioa (*ETB1, ETB2, TVE-1, La2, A3, T5, ETBsat, Digital+, Canal Bizkaia, Tele Bilbao, Tele 7*), Programazioa, Irratiko diala.

b.- Egin

Lehendabizi, *Eginen* lehen alearen eskema egingo dugu. Larunbata, 1977ko urriaren 15a: Non zer, Eguraldia, Telebistako Programak (Televisión española eta Televisión francesa), *Eginen* Telefonoak, Karteldegia, Solasjaipausa, Umorezko komikiak, Zakilixut, Crucigrama, Matematikoa.

c.- Gara

Gaur egungo aleen eskema: Non Zer (Antzerkia, dantza, Jaiak, Hitzaldiak, Ikastaroak...), Zinema, Kritika, Zinemako programazioa, Sinopsia, Agenda, Egutegia, Farmaziak, Zozketak, Telefonoak Denborapasak, Autodefinitua, Revoltigrama, Gaurko Errezeta, Patxistein, Hitz Gurutzatuak, Irrati-Telebista, *Berriak*, Filmeak, De Reojo, Telebista programazioa, Irratia, Eguraldia.

d.- Berria

Euskaldunon Egunkaria legez kanpo utzi zutenean 2003an sortu zen egunkaria da *Berria*. *Euskaldunon Egunkaria* 1990ean sortu zenetik hona ez da aldaketa handirik izan. Aisialdi eta Zerbitzuen ataletan antzeko edukiak dituzte. Arrazoi horrengatik, *Euskaldunon Egunkariaren* lehen alearen azterketak ez du izango agerpen handirik. Lan hone tan gure asmoa atal hauek Euskal Herriko prentsan agertu zirenetik gaur egunera izan den aldaketa neurtzea delako. Gaur egungo *Berriaren* alea: Agenda Ekitaldiak (Musika Antzerkia, Bertsolaritza, Hitzaldiak, Ikus-entzunezkoa...), Aldizkaria, Aholkua, Errezeta, Landarea, Agenda zinema, Filmen laburpenak, Esketxak, Agenda Zerbitzuak, Datuak, Efemerideak, Santuak, Farmaziak, Jakingarria, Horoskopoa, Zozketak, Telefonoak, Agenda. Eguraldia: Gaurko Iragarpena, Itsasoa, Tenperaturak atzo, Isobara mapa gaur, Europa Gaur, Eguzkia, Itsasaldiak. Denbora-pasa, Hitz geizidunak, Bakoitzari Berea, Hitz Gurutzatuak, Goitik Behera, Atzoko erantzunak, Agenda. Irrati- Telebista, Ekografia, Albisteak, Agenda Telebista, Gaur zer ikusi, Telebistako programazioa, Gaurko Filmak, Gainerakoak, Irratia.

4.2. Orrialde kopurua

Zerbitzu eta Aisialdiari dagokion orrialde portzentajea ateratzeko egunkariaren atal bakoitzaren orrialde kopurua zenbatu eta ehunekoetan aurkeztu dugu:

a.- Deia

Metro %1,3	Euskadi%8,6	Eskelak %1,4	Iritzia %5,4	Estatua %3,2
Mundua %2,8	Ekonomia %7	Iragarkiak %9	Kirolak %25,7	D2 %24,8

Aste guztiko portzentajeak kalkulatu eta gero, orrialde gehien duen saila Kirolena dela esan genezake, guztira, %25,7ko portzentajea lortzen baitu. D2 Aisialdi eta Zerbitzuen atala da, bestetik, Kirolen atzetik orrialde gehien dituen saila, kazetak eskaintzen dion garrantziari erantzuten. *Deia* egunkariak kultura arloa ere sartu ohi du aztertzen gabiltzan atal hauetan.

b.- Gara

Gizartea %10	Iritzia %8	Euskal Herria %11	Herriak %6,7	Eskelak %2
Ekonomia %13	Mundua %6,8	Publizitatea %4	Kirolak %19,75	Kultura %6
Non Zer %2	Zinema %4	Agenda %2	Denborapasa%2	Irrati-TB %4

Gu Non Zer, Zinema, Agenda, Denbora-pasa eta Irrati-Telebista saioetan barneratuko gara eta bost sail horien portzentajeen batuketak egiten baditugu %14 dugu. Bost atal horiek Aisialdi eta Zerbitzuei dagozkie. Horien aurretik Ekonomia eta Kirol sailak daude, ondorioz, Aisialdi eta Zerbitzuen saila hirugarrena da orrialde kopuruari dago-kionez.

c.- Berria

Harian %3,8	Iritzia %7,6	Euskal Herria %23	Ekonomia %5,7
Mundua %8,6	Gaiak %3,8	Kirola %14,45	Azken minutua %2
Kultura %9,6	Azken burukoa%1,8	Agenda %19,2	

Berriaren kasuan Euskal Herria sailak du portzentaje altuena. Egunkari honetan Agenda izena du aztertzen ari garen atalak. Aisialdi eta Zerbitzuen saila bigarren postuan dago. Ondorioz, Euskal Herriko sailak du garrantzi handien egunkari honetan, hala ere, gu aztertzen ari garen sailak ere sekulako garrantzia du.

Aztertzen ari garen egunkarietako lehen aleetan bi edo hiru orrialdekoak ziren Aisialdi eta Zerbitzuen sailak. Gaur egun, ordea, hamar orrialde ingurukoak dira.

4.3. Diseinua

Diseinu aldetik asko aldatu dira egunkariak. Askotan aipatu dugun bezala, gaur egun, diseinuari garrantzi handia ematen zaio eta egunkari horiek ez dira atzean gelditu.

Diseinua asko garatu dela nabari daiteke. Bai aisialdi eta zerbitzuen sailetan baita telebista arloan ere azpiatzen arteko ezberdintasuna nabarmena da, hizki tipoak erakargarriagoak dira. Diseinu onak erraztu egiten dio irakurleari paperaren aurrean jartzea.

Argazkiak ugari eta kalitate hobegokoak dira. Hori oso garrantzitsua bilakatu da zeren eta kontsumitzaileak hitzak baino irudiak eskatzen ditu.

Azpitutulu, leiho, tituluak... daude eta aurkezpen horrek irakurlearengan arreta handiagoa sortzen du ez delako testu mardula. Irakurketa arina eta ezberdina egiteko aukera ematen dute.

Loteriak, Horoskopoa eta Denbora-pasak antzeko diseinua dute. Eguraldi maparen diseinuak ere aldaketak izan ditu. Albiste batzuk hondo beltza eta hizki zuriekin azaltzen dira, eta alderantziz ere bai: hondo zuria eta hizki beltzak. Honelako diseinuak monotonia apurtzen du informazioa barneratzeko orduan.

Aipatu dugun bezala, argazkien presentzia handia da. Ia orri osoko argazkiak aurkitzen dira. Orrialde bakoitzean bi edo hiru argazki daude, eta tamaina ertaina eta handia izaten dute. Askotan, orriaren erdialdean ezartzen dira eta protagonismo handia hartzen dute argazkiek.

Denbora-pasa ataletan, adibidez, grafikoak daude. Argazki eta irudien garapena nabaritzen da, baina eguraldiaren kasuan gero eta diseinu sinpleagoa erabiltzen dutela esango genuke.

Egin eta Euskaldunon Egunkariaren lehen aleak oso ezberdinak dira, eta hauexek lirateke horien ezaugarriarik nabarmenenak. Lehenengo eta behin, diseinuari dagokionez sail guztiak nahiko korapilatuta daude, hau da, orrialde bakoitzean dena da hizkia eta marrazkiak, ez dute marjinarik. Antzinako diseinua dela esango genuke. Egunkariak denbora gutxian izugarritzko aldaketak egin dituzte diseinu arloan eta 1977ko diseinua zaharkitua geratu dela esango genuke. Marrazkiak eta zerbitzuak eskaintzen dituzten zerrendak daude gehienbat. Zerrenda horiek ez dute berezitasunik bata bestearen artean, nahiko monotonoak egin daitezke.

Argazkiak eskasak dira. Azaltzen diren argazkiak, normalean, telebista ingurukoak dira, ez dute kalitate handirik gaur egungo argazkiekin konparatuz, tamaina txikiko argazkiak dira.

Irudiak eta marrazkiak orotarikoak dira, gehienbat; komiki eta denbora-pasen ataletan, grafiko antzekoak dituzte. Gaur egungo egunkarien diseinuarekin konparatuta, kontsumitzaileentzat irakurketa oso astuna izango zela esango genuke.

4.4. Gai ezberdinak

Ez dira tratatzen ez politika, ez ekonomia... aurrerakuntza zientifikoak, osasuna, heziketa, ekologia... *Deiako D2* sailean azaltzen dira, gehienbat. *Berria* eta *Gara* aisia, telebista, eguraldia, karteldegia, agenda eta denbora-paseta mugatzen dira. *Deiak* ere jorratzen ditu aipatutako azken gaiak.

Irakurleak entretenimendua bilatzen du, gai eztabaidagarriak. Kultur albisteak ere baditugu: antzerkia, pintura, dantza... Beste aleekin antzekotasun gehiago duten gaiak jorratzen dira: eguraldia, denborapasak, loteriak, zinemak, kultur agenda, telebista... 1977ko egunkarietan, Aisialdi eta Zerbitzu sailetan telebistako programak, karteldegia eta denborapasak dira ikusgai.

4.5. Euskararen erabilpena

Aukeratutako egunkariak euskara hutsezkoak nahiz elebidunak dira. Egunkari elebidunek, hau da, *Deiak* eta *Garak* euskarari zein neurriko garrantzia ematen dioten aztertuko dugu.

a.- *Deia*

Deian euskararen erabilpena murrizta da. 1977ko lehen alean, sail honetako lehen orrialdean, azken komikia bakarrik azaltzen da euskaraz. Orrialde berean, Hitz Gurutzatuen denbora-pasa ere euskaraz egiteko aukera dago. Beste bi orrialdeetan, baina, gaztelania da nagusi. Esan daiteke Guia-Aurkibidea sailaren izenburua elebiduna dela, besterik ez. Hirien eta herrien izenak ere gaztelaniaz azaltzen dira *Deian*; adibide modura, “Vizcaya”, “Alava”, “Gipuzcoa”, “Galdacano”...

Gaur egun, *D2* aldizkarian eguneko data euskaraz azaltzen da orrialde bakoitietan. Albiste laburrak agertzen diren atalean Laburrak izenarekin titulaturik daude. Hala ere, albiste guztiak gazteleraz daude. Berdina gertatzen da Loteriak atalarekin, titulua euskaraz dago baina informazioa gazteleraz ematen da.

1977ko alean bezala denbora-pasen barnean Hitz Gurutzatuak azaltzen dira euskaraz. Hurrengo orrialdeetan erakusketa, emanaldi edo edozein ekitaldira buruzko informazioa ematerakoan, hauek emango diren herrialdeen izenak euskaraz azaltzen dira: Nafarroa, Gernika, Getxo, Barakaldo, Bakio... Hala ere, informazioa gazteleraz ematen da.

Eguraldiari buruzko atalean, Eguraldia tituluarekin aurkezten da, hala ere, beste guztiak gazteleraz. Telebista saila ere euskaraz izendatutako titulua da, baina gaztelania hutsezkoa da eskainitako informazioa.

b.- Egin

Lehen alean, euskararen erabilpena nahiko murrizta da egunkari elebidun honetan. Solasjaipausa saileko, bigarren orrialdean, azken komikia euskaraz azaltzen da. Bigarren orrialde honetan, baita ere, Matematikoa, denborapasa euskaraz dago. Gaztelera da nagusi. Hirien eta herrien izenak gaztelera azaltzen dira; adibidez, “Vizcaya”, “Alava”, “Guipuzcoa”, “Bayona”, “Hendaya”...

c.- Gara

Gaur egun atal guztien izenburuak euskaraz daude, gero informazioa, normalean, gaztelera ematen da. 1977ko alean denbora-pasen barnean Hitz Gurutzatuak gaztelera azaltzen ziren eta orain, aldiz, euskaraz. Eguraldiari buruzko atalean Eguraldia tituluarekin aurkezten da eta euskaraz ematen da informazioa. Hala ere, eguzki ilargi, itsaso eta eurien informazioa gaztelera ematen da.

Hurrengo orrialdeetan zerbitzu, erakusketa, emanaldi edo edozein ekitaldiri buruzko informazioa ematerakotan, horiek emango diren herrialdeen izenak euskaraz azaltzen dira, Nafarroa, Areeta, Santurtzi, Orereta, Donostia... Hala ere, beste guztia gaztelera ematen da.

Laburtuz, bai *Deian* eta baita *Garan* ere, euskararen presentzia oso urria da. Normalean, euskaraz agertzen diren albisteak euskal kultura eta euskara bultzatzen duten gaiak buruzkoak dira, adibidez, *Deian* “Euskara, galegoa eta katalana, bat eginda Oñatin”, “Ekimena”, “Gu eta gure hizkuntzak” eguna egingo da gaur, hiru hizkuntzak aldarrikatzeko jardunaldia”. Euskara agertzen da, baita ere, *ETB1*eko programazioari buruzko albisteetan, adibidez, “Itxurdatuta ekingo dio *Sorginen Laratza* saioak denboraldiari”.

4.6. Eguraldi mapa, agenda eta zerbitzu ezberdinen lurralde mugak

Atal hau aztertzean egunkariaren nazio definizioa nabari daiteke, eta baita zein lurraldetara zuzentzen diren ere. Eguraldi maparen lurralde mugak ikusita egunkaria nazionalista edo ez-nazionalista den kontura gaitzke.

a.- Deia

“D2, La Revista de *Deia*”ko lehenengo bost orrialdeen portzentaje handi bat Espainiako Estatutik hartutako albisteak dira, eta informazio iturriak dagokionez ere gauza bera esango genuke. Beste portzentaje handia mundu mailakoak dira. Euskal Herriari buruzko albisteak, aldiz, urri dira.

Eguraldiari dagokionez, Euskal Herriko zazpi lurraldeen irudia eta informazioa eskaintzen du ikonoen bidez. Hala ere, atal honen barnean “Bizkaia hoy” izeneko azpi atala dugu. Atal horretan, Bizkaiko hiriburura eta herrialdeetara zuzentzen da. “Temperaturas en las capitales” izeneko azpiatala dago, eta hemen Hego Euskal Herriko eta Penintsulako beste hainbat hiribururen tenperatura informazioa eskaintzen da. Honen behealdean “El tiempo de Europa” daukagu, baina Europako eta munduko beste tokietako tenperaturak ere azaltzen dira.

Zinemak eta Kultur Agenda: Bizkaiko zinemetako pelikulen informazioa eskaintzen da. Kultur Agendako ekitaldi guztiak Bilbo eta Bilbo ingurukoak dira.

Telebista sailean, Euskal Herriko *ETB1*eko eta *ETB2*ko, eta baita Espainiako kate ezberdinei buruzko informazioa ere eskaintzen da: *TVE-1*, *La2*, *Antena 3*, *Tele 5*, *Canal +*, *Canal Satélite* eta *Vía Digital*.

Telebista lokalei buruzko programazioa ere eskaintzen da baina Bizkaiko kate lokalak bakarrik aipatzen dira: *Canal Bizkaia*, *Telebilbao* eta *Tele7*.

b.- Gara

Zinema atalean, Euskal Herriko zazpi lurraldeen informazioa eskaintzen da. Beraien arteko mugak ezabatzen dira eta Euskal Herriko edozein tokitako zinema informazioa eskaintzen da atal honetan. *Egin* egunkariaren ideologia berdinarekin jarraitzen dute. Euskal Herriko zazpi lurralde historikoak batera aurkezteko ideologia izango litzateke. Hego Euskal Herriko farmaziei buruzko informazioa ematen da, Ipar Euskal Herriko farmazien informazioa ez da eskaintzen. Hala ere, Telefonoak kasuan zazpi lurraldeei buruzko datuak eskaintzen dira

Hego eta Ipar Euskal Herriko Telebistari buruzko programazioa eskaintzen da. Hala ere, pelikula edo programa ezberdinei buruzko albisteak eta iritzi artikulua espainiar edo euskal kateei buruzkoak dira, ez dira agertzen kate frantsesei buruzkoak.

Eguraldi mapan azaltzen den irudia ere Euskal Herri osokoa da, Iparraldea eta Hegoaldea elkartuta azaltzen dira, “Zazpiak bat”. Ez dago Iparraren eta Hegoaren arteko muga estatalik, Euskal Herri guztiari buruzko eguraldi informazioa ematen da.

Atal honen barnean isobara, itsasoa, tenperaturak, ilargia, eguzki eta Europako iragarpenei buruz ere informatzen da. Tenperaturen barnean Ipar eta Hego Euskal Herrikoak azaltzen dira, baita mundu mailakoak ere.

c.- Berria

Musika, Antzerkia, Bertsolaritza, Hitzaldiak, Ikus-entzunezkoak, Bestelakoak, Erakusketak, Lehiaketak, Ikastarok, Zinema, Telefonoak...

Euskal Herriko zazpi lurraldeen informazioa eskaintzen da. Beraien arteko mugak ezabatzen dira eta Euskal Herriko edozein tokitako kultur informazioa eskaintzen da atal honetan. Euskal Herriko Iparra eta Hegoa batera aurkezten da.

Eguraldi mapan azaltzen den irudia ere Euskal Herri osoarena da, Iparraldea eta Hegoaldea elkartuta azaltzen dira. Hala ere, probintzia bakoitza bereizia agertzen da. Atal honen barnean itsasoa, eguzkia, ilargia, itsasaldiak, Munduko eta Europako iragarpenei buruz ere informatzen da.

Telebistako programak, filmak, telebista eta irrati programazioa Hego eta Ipar Euskal Herriko telebista eta irrati buruzko informazioa eta programazioa ematen da. Hala ere, agertzen diren albisteak eta iritzi artikulua espainiar edo euskal kateei buruzkoak dira, ez da agertzen frantses kateei buruzko informaziorik.

Azken bi puntu hauek egunkariak nori zuzenduta dauden adieraziko dute, are gehiago, komunikabidearen lurralde ikuspegia agirian uzten dute. Egunkari nazionalistak direla esango genuke ondorio bezala.

Zer aldizkarian *Euskaldunon Egunkariaren*, *Eginen* eta *Deiaren* Euskadiko hedapenari buruzko datuak azaltzen dira, OJDak ikertutakoa 1997an: *Egin*, 52.311; *Deia*, 24.000; *Euskaldunon Egunkaria*, 12.229; eta totala, 88.540.

5. Ondorioak

Aisialdiko eta Zerbitzuko sailek “ongizate gizartearen” eskakizunei erantzuten diete. Lehen prentsan publikatzen ez ziren gaiek sekulako garrantzia hartu dute. Modak, elikagaiek, bidaiek, osasunak... egunero dute tokia prentsan. “Aisialdi Kultura” deitutako joera berria gizartearen emandako aldaketa teknologikoagatik izan da, eta prentsaaren ekoizpenean ere nabaria izan da aldaketa. Ikus-entzunezkoen garapenak ere zerikusia izan du prentsan.

Diseinu arloko ikuspuntutik, irakurlearen profila honokoa dela esan daiteke: edozein pertsonak uler dezakeen estiloa erabiltzen da, denbora gutxian informatuta egoteko aukera ematen da. “Irakurketa arina” emateko, testu laburrak, argazkiak... erabiltzen dira.

Aisialdi eta Zerbitzu sailtako ezaugarriak hauek direla esango genuke:

- Elementu tipografikoak erabiltzeko askatasun gehiago dago: zerrenda, taula eta grafikoak erabilpena; argazkiei ematen zaie garrantzia, marrazki eta irudiei emandako nagusitasuna, arreta deitzen duen make-tazioa, koloreak.
- Irakurleen intereseko gaiak aldatu egin dira.
- Gai askok irakurlearen kontzientzia aldatzeko helburua dute, adibidez elkartasun gaiek... psikologiak zerikusi handia du hainbat gaitan, giza ikuspuntua ematen zaie.
- Gai nagusiak: Zinema eta ekitaldi ezberdinen agenda, Osasuna, Bidaiak, Kirolak, Elikagaiak, Musika, Literatura, Teknologia, Estetika, Ekologia, Mundu Arrosa...
- Idazketa estiloa: informazioa eskaintzen da baina iritziek ere espazio handia dute, datu estatistikoak ematen dira informazioa interpretatzeko; estilo zuzena erabiltzen eta abstrakzioak alde batera uzten dira; hizkuntza arruntaren erabilpena gai espezializatuei buruzko informazioa eskaintzeko orduan, irakurketa arintzeko; gomendioak ematen dira gai bati buruzko informazioa eskaintzean... Pertsonalizatutako albisteak izaten dira.

Egunkari guztien emaitzak kontuan hartuta, hipotesia baieztatzeko erabili ditugun sei puntuak jorratuko ditugu berriro ere.

5.1. Eskema

Egunkari bakoitzak aisialdi eta zerbitzuen gaiei buruzko eskema bat du. Egunkari batzuetako lehenengo orrialdean Eguraldiaren saila egon daiteke eta beste batean Zinemako estreinaldiak baina, azkenean, sail berdinak edo antzekoak jorratzen dira: Agenda, Zinema, Telebista-Irratia, Eguraldi, Denbora-pasak... Ondorioz, nahiz eta egunkari bakoitzak egitura ezberdina izan, jorratzen diren edukiak antzekotasun handikoak izaten dira.

5.2. Orrialde kopurua

Aztertutako egunkari guztien eboluzioa ikusita Aisialdi eta Zerbitzu sailen orrialde kopurua asko handitu dela esango genuke. Sail hau kaleratzen hasi eta lehen hamarkadetan bi edo hiru orrialde betetzen zituen; gaur egunekoak, berriz, hamar orrialdekoak dira gutxi gorabehera. Sail honek garrantzi handia hartu du edozein egunkaritan.

Ondorioz, egunkari ezberdinek sail honen garrantzia ikusita, gero eta garatuagoa eskaintzen dute Aisialdi eta Zerbitzuen saila. Horregatik, gero eta orrialde gehiago betetzen dira sail hau aurrera eramateko.

5.3. Diseinua

Egunkari baten diseinua funtsezko ezaugarri bilakatu da gaur egun. Garrantzi handia ematen zaio diseinu landu bati, nahiz eta gehienek aipatu edukiak garrantzitsuagoak direla.

Azken hamarkadetan izugarritzko garapena eman da. Titulu, zutabeen kokapena, albiste ezberdinen bereizteak... beste itxura bat eman die orrialdeei.

Egunkari bateko diseinuak irakurlea orrialde hori irakurtzera edo ez irakurtzera bultzatzen dezake. Aztertutako egunkaritan izugarritzko aldaketa nabari da denbora gutxian. Aurkeztutako ale ezberdinetan aldaketa hori nabari daiteke begirada arin bat emanda.

Argazkiek eta irudiek izugarrizko garrantzia dute gaur egungo prentsan. Albiste bat irakurtzea edo ez irakurtzea eragin dezake argazki batek. Gaur egungo argazkiek tamaina handiagoa dute eta kalitate hobegokoak dira. Diseinua eta argazki kontzeptuak kontuan izanda orrialdearen irakurketaren inpresio arina edo astuna sor daiteke. Irakurlea orrialdeak erakarri behar du irakurtzen hasiko bada.

5.4. Gai ezberdinak

Modak aldatu egiten dira eta egunkariak tendentzia berriekin asmatzeko erne egon behar dute, hau da, kontsumitzaile “modernoarean” interesak zeintzuk diren kontuan izan behar du egunkariak.

Normalean azaldu izan diren gaiak, antzerkia, musika, zinema, telebista, eguraldia... izan dira. Hala ere, agertu dira beste gai batzuk ere: sukaldaritza, liburu, CD eta osasunari buruzko gomendioak.

5.5. Euskararen erabilpena

Aukeratutako egunkariak euskara hutsezkoak edota elebidunak dira. Egunkari elebidunek euskarari emandako garrantzia nahiko eskasa dela esango genuke. *Egin-Gara* eta *Deia* dira aipatu ditugun egunkari elebidunak. Euskararen eta euskal kulturaren arloko gaiak ematen dituzte euskaraz.

5.6. Eguraldi mapak, agenda eta zerbitzu ezberdinen lurralde mugak

Atal hau jorratu ondoren egunkari bakoitzaren lurraldetasun definizioa zein den nabari daiteke. Egunkari bakoitza zein lurraldetara zuzentzen den aztertu dugu eta ezaugarri hauek asko esaten dute egunkariaren ildo ideologikoari buruz.

Guk aztertutako egunkariak Euskal Herria nagusizat duten egunkariak dira. Hori dela-eta, nazionalistak edo abertzaleak direla esango genuke. Egunkari bakoitzak aipatutako ildotik, horren barnean, alderdi politiko batera edo bestera bideratzeko joera dute. Hala ere, guk jorratutako atalean ez da nabaritzen asko.

Deiak, adibidez, Hego Euskal Herriko informazioa eskaintzen du aisialdi eta zerbitzuen sailean eta ez, ordea, Ipar Euskal Herriko informazioari. Egunkari honek Ipar eta Hegoaldeko lurraldeen arteko banaketa egiten du. Gainera, Hego Euskal Herriaren barnean Bizkaiko hiri eta herrialdeetan zentratzen da nagusiki.

Gara-Egin eta *Euskaldunon Egunkaria-Egunero-Berria* egunkariak Euskal Herriko zazpi lurraldeei buruzko informazioa eskaintzen dute. Hala ere, suma daiteke nola ematen dioten protagonismo gehiago Hego Euskal Herriko informazioari, adibidez, Telebista sailaren barneko pelikulen iritziak espainiar kate nahiz kate autonomikoei buruzkoak izaten dira.

Sei puntuak aztertuta ondorio batera hel gaitzke: gaur eguneko gaiak ulertzen duguna hedabideen ideologi informatiboaren isla dela. Hedabide bat eguneroko gertakizunetik urruntzen bada bere gaiak buruzko informazioa eskaintzeko ardura duela esan nahi du. Joera horrekin, hedabideen arteko informazioa ezberdin daiteke.

Bibliografia

Deiako aleak: 1977ko uztailaren 1a eta 2004ko irailaren 13tik 19ra

Egineko alea: 1977ko urriaren 15a

Garako aleak: 2004ko irailaren 13tik 19ra

Euskaldunon Egunkariaren alea: 1990eko abenduaren 6a

Berriaren alea: 2004ko irailaren 13tik 19ra

www.ehu.es/jiarmentia/doctorado/doctorado2004/tema2.html

www.ehu.es/jiarmentia/doctorado/doctorado2004/tema6.html

NOR ikerketa Taldea, (2000): *Hedabideak eta Euskal Herria*, Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbo.

Aintzane Alberdi, Juan Ignacio Armentia, Joxe Maria Caminos eta Flora Marin, (2002): *El diario de servicios en España*, Septem Ediciones, Oviedo.

EHUko irakasleak, *Zer komunikazio ikasketen aldizkaria*, 8.zenb, 2000 maiatza, EHU, Bilbo.

a. XXI. MENDEKO EITB: JOMUGA BERRIAK

Bingen Zupiria
ETBko zuzendaria

1. Sarrera

Euskal Irrati Telebistaren izenean (aurrerantzean EiTb) gure esker ona adierazi nahi dizuet ekimen honen egitasmoagatik eta bertan partaide izateko egin diguzuen gonbitagatik. Begi onez ikusten dugu aukeratu duzuen gaiari buruzko eztabaida, eta estimagarria iruditzen zaigu gogoeta posible egingo duten honen moduko foroak bultzatzea.

Ez daukagu dudarik eztabaida eta gogoeta honen beharrianaz eta Unibertsitateak eginkizun horretan zer eskaini handia duela iruditzen zaigu. Hedabideak eguneroko gupilari lotuegiak bizi gara eta zail izaten zaigu, gehiengotan, bidean geldiune bat egitea, behar den distantzia hartzea eta gure eguneroko lanaz gogoeta trinkoa egitea.

Behar beharrezkoak ditugu, horregatik, inguruan, egunerokoaren presiorik gabe, ahalegin teoriko eta kritiko hori egingo duten pertsona, talde eta erakundeak, eta behar beharrezkoak ditugu gogoeta horien emaitzak, geure baitan hausnartu ondoren, erabakiak hartzen lagun diezaguten.

2. EiTbren hastapenak eta ibilbidea

Teorizazio handirik egin ez dugun arren, euskaraz egiten den komunikazioari buruzko gogoeta, kazetaritzan izan zein beste alorretan gauzatu, etengabeko eginkizuna izan da eta da EiTb taldeko komunikabideetan eta bistan da, gure historia aztertuta, gogoeta horiek ondorio eta erabaki ezberdinak eragin dituztela, zenbaitetan itxuraz elkarren kontrakoak.

Hizkuntzaren gainean erabaki beharra hasiera-hasieratik antzematen da EiTbren sortzaileen asmoetan eta erabakietan. Eta pentsatzekoa da jarrera eta iritzi ezberdinak -eta batzuetan kontrajarriak- izan zirela sortzaile haien artean. Nik uste dut egiteko dagoela oraindik sorrera hari buruzko azterketa lan serio bat. Nolanahi ere, notizia zuzenik eta zehatzik ez daukagun arren, bistan geratzen da hartutako erabakietan zer joera izan ziren eta zer bide urratu ziren.

Gauza asko esan izan dira eta esaten dira sorrera hartaz, sorrera legeaz eta jatorrian izan ziren helburuez eta eginbeharrez. Horregatik, egoki ikusi dut garai haiek erreparatzea eta praktikan hartu ziren erabakiak gogora ekartzeari. EiTbren sorrera legeak eginkizun nagusi bat ezarri zion sortzera zihoan komunikazio talde berriari: euskal gizartearen parte-hartzea bermatzea.

Legeak eskatu zion, gainera, hezkuntza sistemaren lagungarri izateko eta euskararen zabalkundearen alde lan egiteko. Legeak esan gabe utzi zuen zer hizkuntzatan jardun behar zuten EiTbko hedabideek¹. 1982ko matxoan legea onartu eta berehala, irrati eta telebistaren sorrerarako lehen pausuoak emateari ekin zion Eusko Jaurlaritzak.

Irratiaren arloan apustu bikoitza egin zen. Alde batetik, *Euskadi Irratia*, euskara hutsean; eta bestetik, *Radio Euskadi*, hasiera hartan ele bitan: euskaraz eta gaztelaniaz.

Irrati hura egiteko, bi lantalde sortu ziren. Bat Donostian, *Euskadi Irratia* euskaraz egiteko. Bertarako profesional elebidunak aukeratu ziren, euskara maila egokia zutenak eta zenbait kasutan irratigintzan esperientzia zutenak. Beste taldea Bilbon osatu zen, irrati elebiduna egiteko. Aukeratutako profesionalen artean, batzuk elebakarrak ziren eta besteak elebidunak. Esan beharra dago aukeratutako kazetari elebidunen artean, Bizkaiko irratigintzan esperientzia handia eta euskara maila bikaina zuten pertsonak aukeratu zituztela.

Irratigintzarako, beraz, bi irrati berezi, bi talde berezi eta *Radio Euskadi*ren kasuan, bi hizkuntzatan lan egiteko erabakia. Telebistaren kasuan, aldiz, apustu bakarra egin zen. Kate bakar bat, *Euskal Telebista*, eta lantalde bakar bat. *ETB*ren lehen emanaldia 1982an izan zen, abenduaren hogeita hamaikagarreneko gauerdian. Emanaldi jarraitua ekainean hasi zen. Telebista bakar hari, praktikan, bi hizkuntzatan jarduteko eginkizuna eman zioten. Hasi eta berehala nabarmendu zen hau: Gaueko emanaldiak euskara hutsean egiten ziren. Eguerdiero, ordea, Teleberri izeneko albistegia egiten hasi ziren, gaztelaniaz.

Saso hartan ez zegoen Euskadin telebistaren arloan esperientzia zuen profesionalik eta egunkarietara jo zuten lehen mementoan jende bila. Egunkarietako kazetarien artean batzuk aukeratu eta Hanburgora bidali zituzten telebistagintza ikastera. Telebistarako aukeratutako haien artean gutxi batzuk elebidunak ziren eta bi hizkuntzatan lan egiteko gaitasuna zuten. Beste batzuk, ordea, ez zuten euskara ezagutzen. Eta hirugarren talde batekoek, euskara jakin bai, baina ez zuten ordura arte inoiz euskaraz lanik egin.

Hurrengo pausoa 1986 aldera eman zen. Irratien kasuan, *Euskadi Irratiak* bere jatorrizko bideari jarraitu zion eta *Radio Euskadi* aldiz beste bide bat hartu eta gaztelania hutsez lan egitera pasatu zen. Telebistaren arloan, *ETB1* eta *ETB2*ren arteko bereizketa egin zen. Lehen kateari gaztelaniazko programak kendu eta euskara hutsez jarraitu zuen. *ETB2k*, berriz, oso-osorik, gaztelaniaz lan egiteari ekin zion.

3. Gaur egungo egoera

Nola daude gauzak gaur egun, sorrera hartatik 22 urte igaro eta gero? EiTB taldea asko handitu da. Telebistaren arloan lau emanaldi ditu: *ETB1*, euskara hutsez; *ETB2*, gaztelaniaz; *ETB Sat*, Europarako emanaldia, bi hizkuntzatan; eta *Canal Vasco*, Hego eta Erdialdeko Amerikarako, gaztelaniaz gehienbat.

Irratiaren arloan: *Euskadi Irratia*, euskaraz; *Euskadi Gaztea*, euskaraz; *Radio Euskadi* eta *Radio Vitoria*, gaztelaniaz, eta *EiTB Irratia*, bi hizkuntzatan. Interneten, EiTB.com, gure web korporatiboa, hizkuntza bietan, eta *EiTB 24*, euskaraz eta gaztelaniaz. Eduki batzuk ingelesez ere ematen dira.

Emanaldi hauek egiteko, hainbat lantalde daukagu EiTBn, batzuk albistegiak eginez eta beste batzuk programak eta entretenimendua eginez. Batzuk zuzenean EiTBko langile bezala eta beste batzuk programak eta zerbitzuak ematen dizkiguten produkzio etxeetarako lanean.

Informazioaren edo kazetaritzaren arloari begiratuta, Euskadin dagoen albiste-erredakziorik handiena dauka EiTBk. Baina erredakzio handi hau modu ezberdinetan dago antolatuta, EiTB barruan daukagun elkarte edo enpresa bakoitzaren arabera. Guztira, sei lantalde edo erredakzio.

Lantalde bat daukagu *Euskadi Irratian*. Beste bat *Euskadi Gaztean*. Hirugarren bat *Radio Euskadin* eta laugarrena *Radio Vitorian*. Irratietako lantalde hauek, modu ezberdinetan antolatuta daude, zuzendaritza ezberdinak dituzte, ez dute elkarrekiko lotura funtzional edo organikorik eta fisikoki bereizita daude.

Telebistaren arloan berriz, beti ere albistegintzari dagokionez, zuzendaritza bakar bat dago eta lantalde bakar bat. Lantalde honek prestatu eta lantzen ditu informazio emanaldi guztiak, hauek euskaraz zein gaztelaniaz izan. Kazetari bakoitzak bere gaia izaten du eta berak jorratu behar izaten du ele bietan, bai *ETB1*erako eta bai *ETB2*rako, horretarako behar dituen eduki eta testigantzak lortuz hizkuntza bietan.

Interneten ere talde bakar bat dago, gure bi webguneak lantzeko.

Guztira, EiTBren barruan, 261 erredaktore eta laguntzaile ari da kazetaritza egiten. 141 telebistan, 101 irrati-tan eta 19 Interneten.

4. Hogeita bi urteko balantzea. Kazetari elebidunak

Puntu honetara iritsita, ona litzateke galdera egitea EiTBn 22 urtez egindako bidez. Ez noa auzitan jartzera bi hizkuntzatan jardungo zuten komunikabideen sorrera eta izaera.

Esan dugun bezala, EiTBren lehen helburua gizartearen parte-hartzea bermatzea zen, eta Euskal Herrian daukagun pluraltasunak -eta era guztietako pluraltasunaz ari naiz: hizkuntza, kultura, politika, geografia zein gizarte-ko pluraltasunaz, alegia- bere ispilua behar zuen gure emanaldietan. Helburua hori izanik, behar-beharrezko ikusi zen hizkuntza bietan jardungo zuten komunikabideak sortzea eta garatzea. Nekez berma zitekeen parte-hartze eta pluraltasun hori euskararik ez zekien gizartearen ehuneko 75 gure herri komunikabideetatik kanpo utzita.

Gure hizkuntzak, euskarak, inguruetako beste hizkuntza batzuek ez bezala, muga eta hesi bezala jokatzen du komunikaziorako, eta euskararik jakin ezean ezin muga hori gainditu. Arazo hori ez dute galizierak edo katalanak. Guk bai. Bestetik, hizkuntzen bizikidetasunari dagokionez, uste dut azken 25 urteotako esperientziek argi utzi dutela produktu elebidunen desegokitasuna, kasurik gehienetan euskara galtzaile atera ohi delako. Ez noa beraz, gure komunikazio taldean dauden gaztelaniazko medioen izaera auzitan jartzera. Euskarazko kazetaritzaren ikuspegitik, beste jomuga bat izango luke EiTBren jardunari buruzko nire galderak.

Ikusi dugun bezala, EiTBren barruan bi eredu gauzatu eta garatu dira. Batetik, irratietakoa: hizkuntza bakoitzak bere bidea; lantaldeak fisikoki eta antolamenduaren aldetik bereizita eta elkarrengandik aldentuta. Talde bana hizkuntza bakoitzerako. Bestetik, Telebistaren ereduak: talde bakar bat, hizkuntza bietarako produktuak sortzeko. Lantalde elebidunak, kazetari elebidunak, albisteak hizkuntza bietan eratu eta moldatzeko.

Itxura batean, irrati kasua izango litzateke, hizkuntzaren ikuspegitik, ortodoxoena eta garbiena. Bera izango litzateke abantailarik gehien edukiko lukeena. Beraz, egokitasunaren galdera telebistako ereduari egin beharko genioke. Azter ditzagun honen alde on eta zailtasunak.

- Telebistako ereduak ahalegin handia eskatzen dio profesionalari. Eta gaitasun handia: Hizkuntza biak menderatu behar ditu, komunikatzeko gaitasuna behar du bietan, eta gainera, lan tresna bereziak erabiltzen jakitea eskatzen zaio. Izan ere *Euskal Telebistan*, kazetaria bera arduratzen baita, testuak landu eta esateaz gainera, irudia eta hotsa lantzeaz ere. Beraz, gaitasun profesional handia duen lantaldea sortu da, komunikazio enpresa gutxitan ikusten den bezalakoa.
- Enpresaren ikuspuntutik, eta enpresa bezala eskatzen zaigun eraginkortasunaren aldetik, telebistako eredu oso eraginkorra eta efizientea da. Alegia, daukagun pertsonak ateratzen duten etekina ona da. Eta beste telebista kate batzuekin alderatuta daukagun produktibitate-maila oso egokia.
- Produktuari begiratuta, Telebistako ereduak osagarria da. Alegia, euskarazko eta gaztelaniazko produktuek ez dute elkarren aurka lehia egiten, eta ez ditugu ikusleak behartzen euskarazkoa edota gaztelaniazkoa aukeratzera. Osagarriak dira. Eta osagarritasun hau, kasurik gehienetan mesedegarri dela esango nuke. Irrati kasuan adibidez, ez dago osagarritasunik, oso antzeko programazioak dituzte eta pro-

- duktu guztiak elkarren kontra lehiatzen dira. Adibidez, *Euskadi Irratiaren* ordu bateko albistegiak, beste irrati guztietako albistegiak ez ezik *Radio Euskadiren* albistegia ere badauka ordutegi berean, lehian.
- Aitortu beharra dago hala ere, zintzo jokatzekotan, osagarritasun honek arazo praktiko eta alde txarrak ere izan dituela. Erredakzio talde bakar batekin ari garenez gero, ustekabeen sortzen diren egoeretan, programazioa hankaz gora jarri eta bat-bateko erantzunak eman behar izaten diren kasuetan, zail da hizkuntza bietan ahalegin bera egitea eta kasu horietan euskarazko produktua galtzen atera liteke. Alderantziz, gaiak planifikatzeko modua dagoenean, taldeak garaiz antolatzeko denbora badago, ez da zertan diferentziarik izan. Adibidez, 2001eko irailaren 11n New Yorkeko dorreak bota zituzteneko hura, ustekabeko gertaera bat izan zen, berehalako erantzuna eskatu zuena. Ordu hartan *ETB2n* zuzenean ari ginen. Teleberriren ordutegia zen, eta programa hura luzatzea erabaki genuen eta hartara jarri ginen guztiok. Asko kosta zitzaigun *ETB1*en ezer egiten hastea. Alderantziz, hauteskunde gauak egun hura bezain korapilotsuak izan ohi dira eta halakoetan, gauzak garaiz antolatzeko modua izaten denez gero, ez da arazorik izan inoiz programa biak modu berean eta duintasun osoz aurrera ateratzeko, nahiz eta pertsona eta baliabide berak erabili programa biak egiteko.
 - Kazetarien hizkuntza-gaitasunaz zer esan? Nik uste dut ez diola inondik inora kalterik egiten euskarazko kazetariari bi hizkuntzatan lan egin beharrak. Kazetariaren eginkizuna da egunero-egunero hizkuntzaz gogoeta egitea eta darabilgun hizkuntza aberastea eta bere egokitasuna lantzea. Egia da, hizkuntza bietan lan egitea batzuetan zailtasun izan litekeela euskara etengabe lantzeko. Baina horrenbesteko egia da, hizkuntza-gaitasun egokia dutenek hizkuntza bietan erakusten dutela gaitasun hori.
 - Lehen esan dugu *ETB*ko kazetariak hizkuntza bietarako testigantzak bildu behar izaten dituela bere gaiak osatzeko. Batzuetan zail izaten da euskarazkoak lortzea. Prentsa idatzian hau ez da arazo, testigantza euskaratu eta irakurleak beti euskaraz irakurriko du, edozein hizkuntzatan esan delarik ere. Ikus-entzuzkoetan hau ezinezkoa da, eta gaztelaniaz jasotakoa gaztelaniaz geratuko da edo isildu egin beharko da bestela. Zailtasun hau objektiboa da: Albiste eta testigantzetan agertzen diren hiztun eta protagonistarik gehien-gehienek ez dakite euskaraz edo ez dute euskaraz jarduteko gaitasunik. Eta honek asko zailtzen du kazetariaren lana euskarazko albistea egiterakoan. Bestetan, arazoa kazetariarena izan liteke edo kazetariari lana agindu dion arduradunarena da. Eta horrelakoetan era guztietako arrazoak edo aitzakiak izan litezke tartean: presa, gaiaren edo aukeratutako tokiaren desegokitasuna, eta zenbaitetan baita utzikeria edo zabarkeria ere. Bistan da nolana ere, euskaraz lan egin beharrak plus bat eskatzen diola ikus-entzuzko kazetariari euskal hiztunak aurkitzeko orduan. Eta askotan, euskaraz testigantza gutxiago dauzkalako, kazetariak ahalegin berezia egin behar izaten du euskarazko bertsioa beste era batera lantzeko.

Aipatutako hauek izan litezke, lehen irakurketa batean, bi hizkuntzatan lan egin behararen inguruan nabari diren alde on eta txarretako batzuk.

5. Gaztelania eta beste erdarak euskarazko komunikabideetan

Bada beste arazo bat hemen aipatu gabe utzi ezin litekeena: gure erredakzioetara erdaraz iristen den informazioari eman behar zaion hizkuntza tratamenduarena.

Gauza bat dago garbi, globalizazioaren eraginez gure eguneroko bizitzan gero eta garrantzi handiagoa hartu dutela mundu zabaleko protagonisten erabakiek, testigantzek eta iritziek. Duela urte batzuk, *Le Monde* edo *El Pais* bezalako egunkarietan ikusten genituen mundu zabaleko iritzi emileen artikulak edo elkarrizketak. Gaur egun *Berrian* ere irakur ditzakegu. Irailaren 11ko gertakarien ondotik berriz, Hans Blix Nazio Batuetako begiraleari egindako elkarrizketa bikoiztua entzun dugu *Cadena Ser* irratian nahiz Noam Chomsky pentsalariaren elkarrizketa bikoiztua *Euskadi Irratian*. Telebistei dagokienez Atenasko Olinpiaden zuzeneko emankizunetan, Frantziako telebistako kazetariak hainbat elkarrizketa motz egin zituzten ingelesez irabazleekin lasterketa edo proba bukatu orduko. Hauek guztiak, gaur egungo panoramaren adibide batzuk besterik ez dira.

Idatziko hedabideentzat erdarazko protagonisten gaia ez da hainbesteko arazo. Pentsako edo Interneteko irakurleen beharrak asetzeko aski da erdaraz jasotako elkarrizketa, iritzi artikulua edo testigantza euskaratzea. Irrati-telebistetan, ez. Zer egin behar dugu, beraz, irrati-telebistetan, euskara ez den hizkuntza batean jaso dugun adierazpen garrantzitsu batekin? Frantsesez, ingelesez, katalanez edo... datozenetan, *Euskal Telebistan* sarritan bere horretan ematen ditugu. Jakina, ez dira edonolako esaldiak izaten. Protagonistaren garrantziagatik jasotzen ditugu, edo balio adierazkor handia dutelako. Horrelakoetan, esan bezala, jatorrizko hizkuntza mantentzen dugu eta euskaraz azpidatzita ematen ditugu. Nola eta azpidatziaren formulak ez duen irratirako balio, irratikoek adierazpenaren ondotik hitzez ematen dute itzulpena. Eta nola jokatu gaztelaniaren kasuan?

Arrazoibide edo irizpide honen arabera, zentzuzkoa litzateke adierazpen esanguratsuok gaztelaniaz sortu badi-ra gaztelaniaz jasotzea telebistan eta irratan. Eta hemen sortzen da bigarren galdera. Gaztelaniaren kasuan behar al da azpidazketa edo itzulpenik? Egoera linguistikoaren arabera, agian ez. Itzulpenak komunikazioari ez dio apor-taziorik egiten eta ostera traba bat gehiago ezartzen du. Baina, aldi berean, ezin dugu ahaztu esperientziak argi erakutsi diguna: atea pixka bat zabalduz gero, hasierako bidezidorra gero eta gehiago handitzen dela, bide zabal bihurtu arte. Eta hor ibili gara eta gabilta atea zabaldu eta atea itxi. Eta jakitun gara, atearen mugimendu bakoitzaren inguruan, erabaki editorial gaiztoak ikusten dituztela gure zelatari preskriptoreek. Hain zuzen goitik behera ezarri diren eta euskararen kalterako omen diren erabaki editorial gaiztoak. Baina ez dago horrelakorik.

Inguruko beste batzuen jokabideari erreparatzen badiogu begi-bistakoa da Galizian edo Katalunian gai hau ez dutela arazo bezala bizi. Galizian edo Kataluniako telebista eta irrati autonomikoetan, adibidez, emanaldiak hizkuntza bakarrean dira, galizieraz edo katalanez.

Komunikabideotan, ordea, ez dute arazorik izaten gaztelaniazko testigantzak gaztelaniaz emateko. Albistegietan, komeni diren lekukotasun guzti-guztiak ematen dira, oso-osorik gaztelaniaz. Eta bestelako programetan, elkarrizketa osoak egiten dira gaztelaniaz, aurkezleak berak gaztelania erabiltzen duelarik elkarrizketa horiek egiteko.

Gure jokabidea, ondo dakizuenetz, oso bestelakoa da. Gure elkarrizketatu guztiek euskaldunak izan behar dute eta albistegietan ez dugu normalean gaztelaniazko testigantza osorik sartzen. Salbuespen bakarra: kirol ekitaldie-tako zuzeneko elkarrizketak, telebistan. Hauxe izan da gure irizpidea eta gure jokabidea.

Jakina, irizpide honen arabera, argi dago hainbat protagonistak ez duela ahotsik gurean eta argi dago asko murriz-tzen dela gure hedabideetan ager litezkeen gizon eta emakumeen unibertsoa. Urrutirago joan gabe Euskal Herriari bakarrik lotzen bagatzaizkio, lau herritarretik hiruk ez du sarbiderik EiTBr-en euskarazko hedabideetan. Alegia, ez du sarbiderik euskal biztanleriaren %75ek.

Esan gabe doa, 22 urtean horrelako baldintzetan aritzea ez dela lan makala izan. Horregatik, Euskal Irrati Telebistako kazetariak 22 urte hauetan burututako jardunak merezi du jendaurreko aitortza eta goraipamenik foro hone-tan. Izan ere, lan titanikoari esker lortu baitute urtez urte hain programazio duinak zabaltzea horren unibertso estu eta urritik abiatuta.

Eta hurrengo puntura jo aurretik azken gogoeta bat. Euskaldun guztiok gara eleanitzak eta informazio bila gabil-tzan bakoitzean gure premiak asetzen dituen hedabidearen aldeko aukera egiten dugu. Naturaltasunez, inongo kon-plexurik gabe.

Gauzak horrela, euskaraz ari garen ikus-entzunezko hedabideok badugu erronka handi bat. Irudimena landu behar dugu, formula berritzaileak asmatu behar ditugu, gaur gaurkoz gure kamera eta mikrofonoetatik kanpo gera-tzen den euskal giza multzo zabalaren ekarpen eta esperientziak gure programaziora helarazteko. Informazioa euskaraz jaso nahi duen ikusle eta entzule euskaldunari zor diogun erronka bat da. Beraz, ezin dugu gure eginbehar horretan huts egin.

6. EiTb gaur egun. Taldearen indarra

EiTb, gaur egun, Euskal Herrian dagoen komunikazio talderik indartsuena da, bai dauzkagun eta darabiltzagun baliabideei kasu eginez gero eta bai produktu aniztasunari, edo lortu dugun audientziari dagokionez ere.

CIESeK emandako azken audientzia datuen arabera -2003 urte osoa-, EiTbK duen audientzia, telebista eta irrati emanaldi guztiak batuta, guztira milioi bat eta hirurehun mila hiritarrek osatzen dute.

Telebistaren alorrean, *ETB*ren audientzia Euskal Autonomia Erkidegoan dagoen kontsumoaren ehuneko 20 eta 24ren artean ibili da azken bost urteotan. *ETB*ren ikusleak, aldiz, 800 bat mila dira.

Irratigintzaren arloari begiratu gero, EiTbko irrati guztien batura euskal audientziaren %30era iristen da, gutxi gorabehera, Ser irrati katearekin lehia bizian gaudelarik. EiTb taldeko irrati entzuleak, guztira, 377 mila izan ziren 2003an.

Interneti dagokionez, neurri ezberdinak daude. Gaur egun erabilienetakoa den baten arabera, EiTbren web orrialdea Estatu espainiarreko beste telebista autonomiko batzuen aurretik dago egiten den kontsulta kopurua kontuan hartuta. Alexa izeneko rankingean -mundu mailan egiten da, eta webgune bakoitzak jasotzen dituen bisiten arabera eginda dago zerrenda- EiTbren web orrialdea 39 milagarren postuan ageri da, Galiziako telebisten ondoren eta beste telebista autonomiko guztien aurretik.

Hemen jaso ditugun Telebista audientziari buruzko datuek, eguneko 24 orduetako kontsumo osoa telebista kateen artean nola banatzen den adierazten dute. Ordu-tegi eta produktu zehatzetara joz gero, datu ezberdinak ateratzen dira eta arlo batzuetan, albigegietan, adibidez, nagusitasuna du Euskal Telebistak EAEn *Teleberrien* bitartez. Edo, 4-12 urteko haurren artean, adibidez, *ETB1* da katerik ikusiena, haur programazioaren eraginez.

Euskarazko emanaldiei dagokionez, gure euskarazko medioek ia 370 mila ikus-entzule zituzten 2003an, telebista eta irrati bidezko emanaldi guztiak batuz gero, CIES etxearen datuen arabera. *ETB1*en audientzia-kuota, telebista kontsumoaren %4,5 eta %6ren tartean ibili da azken bost urteetan, eta 200 bat mila ikusle ditu.

Euskarazko irrati-gintzaren audientziak oreka handia mantendu du *Euskadi Irratia* eta *Euskadi Gaztearen* entzuleen artean, eta batez beste, 120 mila entzuleren bueltan ibili da azken lauzpabost urteetan.

Interneten, gure webak euskaraz izaten dituen sarrerek %25 dira batez beste, eta benetan aipagarria da *Betizu Klubaren* guneak duen kontsulta kopurua.

Aurrerago esan dugun bezala, gaur egungo EiTb taldea 1982koa baino handiagoa da eta arlo guztietan handitu da: telebistan, irrati nola Interneten. Taldeak handiago izateko pauso bat eman duen bakoitzean euskarari presentzia handiago ematen ahalegindu gara. Eta gaur egun sortu zenean baino presentzia handiagoa du euskarak bai telebistan, bai irrati nola Interneten. Handitze hori, alde batetik orokorra izan da eta bestetik espezializazioaren bidetik joan da. Zaila zen produktu jeneralistak ugalduz ikus-entzuleria zabaltzea.

EiTb taldearen helburua, gero eta jende gehiagorengana iristea da eta horretarako bere esku dauzkan euskarri guztiak erabiltzen ditu. Taldearen estrategia hauxe da: hazteko aukera eskaintzen duten hiritar-taldeak aurkitzea, eta horientzako moduko produktu eta marka berezi eta egokiak lantzea eta airera ateratzea. Taldeak, beraz, marka ezberdinak sortu eta erabiltzen ditu gero eta jende gehiagorengana iristeko, eta marka bakoitzak du bere espezializazioa. Hala nola muskarako *EiTb Irratia*, gazteentzako *Euskadi Gaztea*, haurrentzat *Betizu* mundua, Arabarako *Radio Vitoria*, Interneteko albigegintzarako *EiTb24*.

7. Eskaintza aniztasuna eta ikusleen jokabidea

EiTBren jardunak, argi eta garbi erakutsi du hogeita bi urtean zehar, euskaraz edozer produktu egin daitekeela eta egiteko gaitasuna daukagula: albistegiak, erreportajeak, kanpoko produkzioen emanaldiak, kirol emanaldiak, filmak, marrazki bizidunak, fikzioa, lehiaketak, dokumentalak, eta abar. Eman dezagun, albistegintzaren arloari begiratuta, *ETB1* edo *Euskadi Irratia*, egunero kaleratzen den kazeta dela, eta eguneroko albistegi emanaldiez gainera, gehigarri eta atal bereziz horniturik datorrela. Gure kazetak, telebistaren kasuan, *Gaur Egun* izeneko bi edizio nagusi ditu egunero. Asteaz zazpi egunez, atsedeen egunik gabe.

Irratiak lau emanaldi nagusi ditu: *Goiz-Kronika*, *Ordu bata* eta *Zazpietako* albistegi nagusiak (honako hau *Mezularia* izeneko magazine informatiboan txertatua doana) eta *Hamaiketako* albistegia-, eta hogeita emanaldi berezi, bat ordu oro, asteaz zazpi egunez, atsedeen egunik gabe, urte osoan zehar. Gure egunkari horrek, gainera, atal bereziak ditu, batzuk egunerokoak -*Eguraldia* edo *Iparaldearen Orena* kasu- eta beste batzuk asterokoak.

Telebistako egunkariak, adibidez, egunero-egunero, *Post Data* izena duen gehigarri bat izaten du eguerdian eta *Bertatik Bertara* izena duen beste bat, gaueko albistegiaren ondoren. Telebistakoak, adibidez, aktualitatearen errebasoari eskaintako gehigarri bat du astero, *Firin Faran*. Nekazaritza eta arrantzari eskaintako beste bat: *Sustrai*. Bertsolaritzak ere badu bere gehigarria, *Hitzetik Hortzera*. Duela lau urtez gero, euskal literaturak bere atala izan du, *Sautrela*, dagoeneko ia 120 emanaldi izan dituena. Eta gainera, zientzia eta teknologiari eskaintako beste gehigarri bat izaten da astero: *Teknopolis*. Eta hirugarren munduko elkartasunak ere badu bere atala: *Elkartasunaren bideak* izenekoak. Gure irratiko kazetak ere oso antzeko gehigarriak ditu. Informazioaren arloko emanaldi guzti hauez gainera, bai telebistan eta bai irratian, egunaren hogeita lau orduetan zerbitzu eta entretenimenduz osatutako gainerako programak daude, asko eta asko, kazetariak egindakoak. Gaitasuna, beraz, erakutsia dago, edozer egiteko. Eta egin ere egin da eta egiten da hainbat produktu. Baina zer jokabide du euskal ikusleak? 2003-2004 denboraldiko datuak erabiliko ditut. Euskaldunek gehien estimatzen duten telebista katea, euskal hiztunentzat irudirik onena duen katea, *ETB1* da, beste guztien gainetik. Jarraian *ETB2*, eta ondoren *Tele 5*.

*ETB1*en emanaldietan euskaldunek gehien estimatzen dituzten kontzeptuak edo balioak honako hauek dira: Objektibotasuna, entretenimendua, kirolak, publizitatearen tratamendua, programazioaren gaztetasuna, programa aniztasuna eta profesionaltasuna. Balorazio eskasena jasotzen duten kontzeptuak aldiz, honako hauek: zinea eta lidergoa. Irudi aldetik *ETB1*ek duen nagusitasun hori, ordea, ez dator bat euskaldunek egunero-egunero egiten duten telebista-kontsumo aukerarekin. Euskal hiztunek gehien ikusten duten telebista katea *Tele 5* da. Gero *TVE1*, gero *ETB2*, gero *Antena 3* eta gero *ETB1*. Euskal hiztunek gehien ikusten duten albistegia, adibidez, *Teleberri* da, batez ere gauean Julio Ibarrek aurkezten duen bigarren edizioa. Eta, audientziaren ikuspuntutik, 2003ko datuen arabera, euskal hiztunek gehien ikusi zituzten telebista programen artean, Errealaren partidu bat eta *Teleberri* ageri dira. Besteak, Espainiako kate handiek emandako programak dira. Sofresen arabera, 2003garren urtean *ETB1*en gehien ikusi ziren programak honako hauek izan ziren:

Saioa	Data	Ikusleak	Share
Futbola: Espainiako Liga	03/06/22	333	49,7
Pelota	03/02/16	165	28,8
Goenkale	03/06/17	116	13,5
Shin-Chan	03/01/10	91	16,7
Mr. Bean	03/12/14	89	13,2
Martin	03/10/29	80	9,0
Saskibaloia: Euroliga	03/11/20	79	10,0
Heidi	03/01/11	78	11,6
Estropadak: Donostia	03/09/07	78	29,6
Txirrind.: Euskal bizikleta	03/06/08	78	12,6

8. Hizkuntza. Hizkuntza ereduak eta aldaerak. Ahozko ereduak

Euskarazko kazetaritza zerbaitek bereizten badu hizkuntzaren erabilerak bereizten du. Kazetaritzak hainbat arazo, eginkizun eta erronka ditu han eta hemen, mundu osoko hizkuntza guztietan.

Kazetaritzaren ikuspegitik zerbaitek bereizten badu gure egoera, beraz, hizkuntza da elementu bereizgarri hori. Alegia, hizkuntzak berak dituen arazo eta zailtasunak erantsi behar baitizkiogu gure kazetari jardunak berez duen arazo pilari. Non gauden jakiteko eta egin dugunari taxua eta neurria hartzeko, uste dut on dela nondik gatozen gogoratzea, eta non geunden ikustea.

Lehen ere esan dut EiTBren sorrera gertatu zen urte haietan, duela 22 urte, non bilaturik ere ez zegoela. Apenas zegoen euskaraz jakin edo euskaraz lan egiteko gaitasuna zuen kazetari edo komunikatzailearik. Zeuden aleak irratigintzaren alorretik atera ziren eta gutxi batzuk, oso gutxi, egunkarietatik.

Ez zen irrati eta telebistaren arazoa bakarrik izan. Urte gutxi lehenago sortu ziren *Deia* eta *Egin* egunkariak, eta antzeko arazoak izan zituzten kazetari euskaldunak aurkitzeko.

Beraz, kazetariak heztea eta trebatzea izan zen euskarazko komunikazioak izan zuen lehen eginkizunetako bat. Ikusi dugu, gaur egun, EiTBn bakarrik, 200dik gora direla euskaraz albisteak edo informazioa lantzeko gaitasuna duten kazetariak. Albistegiez gain egiten ditugun aktualitate eta entretenimendu programarik gehienetan lan egiten duten profesionalak, bai telebistan eta bai irratian, kazetariak dira. Beraz, 1982an gutxi batzuk; hogeita bi urte geroago, 200 baino gehiago, albistegietan bakarrik. Guztira, 300dik gora.

Baina ez zen hau izan orduko arazo bakarra. Euskarazko kazetaritzarik ez zegoen herrian, nekez izan zitekeen kazetaritzarako hizkuntza eredurik. Euskararen batasunerako lehen erabakiak eta lehen urratsak 20 urte lehenago egin ziren, 1964an, eta batasun horren egoera oso ahula zen, apenas baitzegoen tresna indartsurik batasun horren arau eta jardunei oihartzuna emateko. Euskarak ordura arte izan zuen tradizio idatzi urrian, gainera, are urriagoa zen kazetaritzako tradizioa. Beraz, euskaraz lan egingo zuten kazetariak behar ziren eta komunikaziorako balio izango zuen hizkuntza eredu bat behar zen.

Argi zegoen eredu horrek euskara batuan izan behar zituela oinarriak, baina euskara batua bera hogeitaz urte hauetan joan da gauzatzen eta itxura hartzen. Hogeitaz urte hauetan zehar hainbat arau berregin eta berrikusi behar izan ditu Euskaltzaindiak, eta gai asko eta asko aztertu eta erabakitzeke daude oraindik. Euskaltzaindiak denbora asko behar du eta behar izango du bere eginkizunak betetzeko, baina euskarazko kazetaritzak ez zuen, eta ez dauka denborarik erabakien zain egoteko.

1980an kazetaritza euskaraz egiten hasi ziren haiek eta harrezkero etorri direnek, egunean-egunean aurre egin behar izan diete sortu izan zaizkien arazo eta premiei, eta sarritan asmatu egin behar izan dituzte behar zituzten erantzunak. Jakina, erantzun guztiak ez dira zuzenak izan eta tartean oker asko egin da. Baina zuzeneko emanaldi batean hitz bat nola esan behar duen galdetzen duen kazetariak ezin du bihar arte itxaron. Une horretan bertan behar du erantzuna. Eta horrela egin izan da.

Ikus-entzunezko hedabideetan lan egin dugun kazetariok, gainera, beste zailtasun bat izan dugu. Euskara batuaren arauak eredu idatzirako arauak izan dira, batez ere. Irrati eta telebistako ereduak, aldiz, ez da idatzizkoa. Ez da kaleko ahozkoa ere. Bien artean dagoen zerbaitek da. Ahozkoaren antza izan behar du baina era berean jasoa, zuzena eta bat-batean ulergarria izan behar du. Ikus-entzuleak ezin du emanaldia geratu hiztegian zerbaitek kontsulta egiteko. Bat-batean eta konturatu gabe ulertu behar du, komunikazioak konponbiderik gabeko etenik izan gabe. Eta ikus-entzunezko eredu berri hori asmatu egin behar izan dute EiTBko kazetariak. Ez dago bukatua eta denbora eta

ahalegin asko beharko da oraindik, baina lehen pausoak eman dira eta lortu dugu ahaleginaren eta erabileraren poderioz gure ikus-entzuleek eredu jaino berri hori onartzea eta ulertzea.

Ez ikusleek bakarrik. Lehen aldiz esaten ahal da, Euskal Herriko Unibertsitatea ere hurbildu dela eredu horretara, eta azken bizpahiru urteetan gure artera iritsi diren kazetari berriek badutela gure beharrezanaren zantzu bat eta gure hizkuntza-ereduarekiko kidetasun bat .

Esan beharrik ez dago, telebista eta irratirako sortu dugun eredu horrek hainbat kritika jaso duela gure preskriptore eta zelatariengandik. Seguruenik kritika gehiago *Euskal Telebistaren* kasuan *Euskadi Irratiarenean* baino.

Nik ulertzen ditut kritika horietako batzuk. Izan ere, hizkuntzaren batasunerako arauak ematen dituenarentzat eredu batuaren zabalkunderako izan den tresnarik eraginkorrena, hezkuntzarekin batera, euskarazko irratia eta telebista izan dira. Eta bistan da, tresna horretan jarritako esperantza guztiak betetzen ez direnean, emaitzak ez duela inor pozik uzten.

Nik ez daukat dudarik, ikus-entzunezko komunikaziorako behar dugun hizkuntza-ereduak errespetu osoz jokatu behar duela Euskaltzaindiak ematen dituen arauekin, eta bete egin behar dituela arauok. Baina era berean uste dut gure preskriptoreek ulertu egin behar dituztela dauzkagun beharrezan bereziak.

Ez da arrazoizkoa euskarak dituen ajeei buruz kaleratu diren liburu eta idatzirik gehienetan EiTbren emanaldiak hartzea jaki bezala, egin behar ez denaren eredutzat hartzeko. Uste dut, gure kasuak azterketa zehatz eta berariazko bat behar duela, gure premiak aztertuko dituen eta behar ditugun erantzunak emango dizkiguna.

Dena den, uste dut on dela eta mesedegarri, hogen urte hauetan egindako bidez konturatzea. Gabezia asko daukagu eta gauza asko falta zaizkigu, baina nik uste dut azken bi hamarkada hauetan egin dugun aurrerabideak ez duela parekorik izan gure historian, eta benetan garrantzitsua eta eraginkorra izan dela.

9. Kazetaritzaren berezko arazoak

Lehen esan dugu gure artean egiten den kazetaritzari ezaugarri edo bereizgarri jakin batzuk ematen dizkiola euskaraz jardun beharrik, eta berezitasun hauek gure gizartean hizkuntzak berak bizi duen egoeraren ondorio direla. Batzuk aztertu ditugu. Baina gure hizkuntzan lan egiteak sortzen dizkigun eskakizun eta eginkizun berezi eta berariazkoek gainera, kazetaritzak baditu gaur egun hainbat arazo eta ezaugarri mundu osoan zehar, bizitzea suertatu zaigun aldi historiko honi dagozkionak eta euskaraz egiten den kazetaritzarako arazo eta erronka direnak.

9.1. Datu asko / informazio gutxi. Gure eginkizuna eta erronka datuak ordenatu eta eskaintzen asmatzea. Ezin huts egin

Gaur egun, informazioaren gizartea deitutako honetan, informazio asko dagoela esan ohi dugu, informazioa nonahi dagoela eta komunikazio tresna berriak medio (Internet, sateliteak,e.a.) edonoren esku daudela informazio sare eta eduki horiek guztiak.

Agian, informazio asko dagoela esatea baino zuzenagoa izango litzateke esatea inoiz baino datu gehiago dagoela nonahi edonoren eskura. Baina datu pila izugarri hori, informazioa baino gehiago, anabasa eta konfusiorako egoera bat da. Inoiz baino gauza gehiago ikusi eta entzuten ditugu, eta horrek guran informazio asko daukagunaren sentipena sortzen du. Globalizazioaren ondorioetako bat izan da. Munduko edozein tokitako gertakizunen berri jasotzen dugu, gertatu eta denbora gutxira gainera, eta horrek areagotu egiten digu informazioaren ugaritasun uste hori. Egia da datuak hor daudela, edonoren esku. Globalizazioaren mundu eta sasoi honetan, kazetarion eta komu-

nikazio enpresen eginkizunetako bat da datuak bilatzea, aztertzea, aukeratzea, biltzea, antolatzen jakitea eta gure audientziari eskaintzeko gai izatea. Eta gauza izan beharko genuke, gainera, ez huts egiteko. Gure audientziak ez du besteak baino gutxiago izan nahi. Gauza jakin batzuk espero ditu guregandik, beste batzuek eskainiko ez dizkiotenak, baina horrekin ez du aski. Gure audientziak, gainera, agendan dauden gai nagusiak ere ezagutu nahi ditu gure bitartez, gure ikuspuntu eta azterketa bereziaren bitartez. Eta ez digu barkatuko huts egitea.

Ezin dugu hutsik egin munduan zehar gertatzen diren albisterik garrantzitsuenak gure ikusle-entzule-irakurle-ari eskaintzeko orduan. Gurean ere ikusi nahi ditu, eta nola aztertzen eta ematen ditugun ikusi nahi du. Gai horiek hurbildu egin behar ditugu, ulergarriago eta geureago izan daitezzen.

Baina gure audientziari ez zaio aski guk ematen dioguna. Besteengana ere joko du zer eta nola eskaintzen dioten jakiteko. Eta konparazioak egingo ditu. Eta konparazio horretan ezin gaitzke galtzaile geratu: ez ematen ditugun gaietan, ez gaietara ematen diegun tratamenduan eta ez profesionaltasunean.

9.2. Informazioa esku gutxitan: enpresa multimedia eta multinazionalak.

Agenda informatiboa

Bizitza suertatu zaigun globalizazioaren beste ezaugarrietako bat enpresen kontzentrazioa izan da. Errentabilitate ekonomikoa bilatzen duten komunikazio enpresek, tamaina izugarria hartu dute. Kontzentrazio prozesu horien eraginez, munduko hedabide nagusiak enpresa gutxi batzuen eskuetan daude. Enpresa multinazionalak dira eta, gainera, multimedialak: alegia, beren esku dituzte egunkari, telebista, irrati, Internet, publizitate enpresak eta komunikazioaren prozesuarekin zerikusia daukaten maila eta osagai guztiak. Dударik ez dago, kontzentrazio izugarri hau, berez, informazioaren munduak behar duen askatasun eta independentziaren aurkakoa da. Baina, agian, horrela beharko du.

Enpresa hauek, errentagarritasun ekonomikoa bilatzen dute eta etekin horiek lortzeko darabilten gaia komunikazioa da. Dirua irabazteaz gainera, eragina izan nahi dute, eta, ahal duten neurrian, baldintzatu egin nahi dituzte erabaki sozial, ekonomiko eta politiko nagusiak. Horretarako, beregainak izan behar dute. Irabazirik gabe ez dago beregaintasunik. Eta errentagarritasun horren beharrak bultzatzen ditu kontzentrazioak egitera eta gero eta handiago izatera. Etenik gabeko katea bezala da.

Enpresen globalizazio honek duen ondorio argienetako bat, agendarena da. Esan bezala, enpresa gutxi batzuen eskutan daude mundu guztiko komunikabide nagusiak, eta gaitasuna eta indarra dute munduaren informazio-agendan zer sartuko den eta zer ez erabakitzeke. Sarritan agenda hauek, gai askori lotuak egoten dira eta beste interes askoren ondorio izaten dira, ez bakarrik informazio interesgarriaren ondorio. Honela, talde hauek gai dira munduko arazo edo istilu bat une jakin batean denon agenda informatiboan sartzeko. Eta gaitasuna dute, era berean, arazo edo istilu jakin hori, piztuta eta bizirik jarraitu arren, agendatik kanpora uzteko. Bi kontu aipatu ditut, kazetaritzak mundu mailan dituen arazo nagusi bezala. Gehiago ere badira, baina bi hauek uste dut bete-betean dutela eragina euskaraz egiten den kazetaritzan. Euskarazko kazetaritzak, besteak beste, eremu bat behar du, komunikazio esparru bat behar du. Horretarako hedabideak behar ditu; ikus-entzule-irakurleak, profesionalak eta gaiak, nortasun bat emango dioten komunikazio-gaiak. Eta ez dago dudarik, datu eta informazio ugartasunak, enpresen kontzentrazioak eta agenda informatiboak ondorio zuzenak izan ditzaketela gurea bezain berezia, txikia eta ahula den esparru batean.

10. Unibertsitatearen eginkizuna: Nolako profesionalak behar ditugu?

Orain arte EiTBren historia kontatzen ahalegindu naiz, eta euskarazko kazetaritzaren ikuspuntutik gure eginkizunak izan dituen eta dauzkan hainbat baldintza eta zailtasun komentatu ditut. Horrez gainera, kazetaritzak oro har dituen

arazo nagusiak ere aipatu ditut. Baina ezingo nuke amaitu Unibertsitateaz hitz egin gabe. Euskarazko kazetaritza zer izango den, neurri handi batean, arlo honetako profesionalen esku egongo da. Eta profesional horien formazioan, eta baita kazetaritzari buruzko gogoetan ere eginkizun zuzena eta erantzukizun handia ditu Unibertsitateak.

Zer eskatuko genioke guk Unibertsitateari? Bi gauza nagusiki: batetik, profesional egokiak presta eta treba ditza-la eta, bestetik, komunikazioari buruzko azterketa egin dezala.

Nolako profesionalak behar ditugu? Seguruenik beharizan ezberdinak egongo dira. Kazetari batek lehen zeukan lan irtenbidea, egunkarrietan, telebistan edo irratan lan egitea zen. Gaur egun, ugariagoak dira irtenbide horiek eta aipatutako hedabideez gainera, hor daude prentsa bulegoak, enpresa munduko komunikazioa, aldizkariak, eta abar. Jakina, eginkizun bakoitzak bere berezitasunak ditu eta kazetariak gaitasun ezberdinak behar izango ditu arlo batean edo bestean jarduteko.

Ez noa, beraz, behar dugun kazetari idealaren erretratua egitera. Nahiago dut gure enpresaren, EiTbren premien azterketa egitea, eta premia horietatik erraz atera daiteke behar dugun profesionalaren erretratua. EiTbren lehen helburua, herritarrei telebista eta irrati-eskaintza egokia ematea da. Egokiak esan nahi du, gutxieneko baldintza batzuk bete behar dituen eskaintza egin behar dugula. Ezin dugu edozer gauza egin:

- Gutxieneko kalitate bat eduki behar dute gure emanaldiek.
- Zerbitzu publikoa eskaintzen dugunez gero, Jaurlaritzak eta Legebiltzarrak Programa-kontratuaren bitartez jarri dizkiguten baldintza eta eginkizunak bete behar ditugu.
- Publiko osoarentzako moduko eskaintza eta programak egin behar ditugu, eskaintza orokor edo jeneralista eskainiz: albistegiak, aktualitatea, kirol emanaldiak, haurrentzako programazioa, entretenimendua,...

Baina helburua ez da egitea bakarrik. Irrati eta telebista egitearekin batera, gure helburua ikusi eta entzungo den telebista eta irrati egitea da, eskaintza lehiakor eta kompetitiboa egitea, ahalik eta ikusle eta entzulerik gehien izateko. Azken batean, gure ikus-entzuleen oniritzia lortzea da gure eginkizun nagusia. Egiten ditugun emanaldiak duinak izatea, audientziak entzun eta ikustea, eta herritarrek gustura uztea.

Horrek zer eskatzen digu? Batez ere, eta abiapuntu bezala, ahalegin handia egitea gure audientziak zer gustu dauzkan ikasteko. Zer ikusi nahi duten, zer entzun nahi duten, zer gustatzen zaien, zer eskaintzen duten beste komunikazio-talde eta enpresetan. Azken batean, jendeak komunikabideetatik zer espero duen jakitea, eta batez ere, euskaraz jendeak guregandik, EiTbtik zer espero duen jakitea eta hori ematen ahalegintzea.

Hori lortzeko abiapuntua, gizartea aztertzen jakitea da: hedabideak kontsumitzen dituztenen kezak detektatzea, moda eta joerak ezagutzea, telebista eta irrati-gintza ongi ezagutzea eta irizpide horiekin bat etorriko den programazio eskaintza prestatu eta diseinatzea.

Eskaintza diseinatu ondoren, produktua egin behar da: Edukiak antolatu, komunikazioa planifikatu, komunikazioaren teknikak ezagutu eta menderatu. Gure produktuak askotarikoak dira. Telebista egiten dugu, irrati egiten dugu eta Internet egiten dugu. Teknologia horiek ezagutu behar ditugu.

Bi hizkuntzatan lan egiten dugu, euskaraz eta gaztelaniaz. Eta oraintsu ingelesezko gauzak egiten hasi gara Interneten bitartez. Horrek hizkuntza-gaitasuna eskatzen digu eta bizpahiru hizkuntzatan lan egiteko gai izango diren profesionalak edukitzea.

Eta kate horretan, beste gauza askoren artean, komunikatzaileak behar ditugu. Diseinua praktikara eramango duten profesionalak: kazetariak, erreportariak, kontalariak... era guztietako profesionalak; eta, komunikatzeko gaitasuna duten aurkezle eta esatariak. Gure kazetariei, gainera, tresna eta erreminta teknikoak erabiltzeko gaitasuna eskatzen diegu. Kazetariak profesional osoa izan behar du: Idazten jakin behar du, ahozko komunikaziorako gai-

tasuna behar du, historiak kontatzen jakin behar du, kamera eta mikrofono aurrean hitz egiten, eta gero bere albiste edo erreportajea osatzen: telebistan irudia eta soinua lantzeko gai izan behar du; irratian berak bakarrik programak eta piezak sortzen jakin behar du; eta Interneten lan egiten duenak, bere gaia editatzen.

Gure profesionalen kreatibitatea eskatzen diegu. Iniziatiba. Arazoak konpontzeko eta estatusunetik ateratzeko gaitasuna. Eta, azkenik, jarrera egokia eskatzen diegu. Ikuslearekin garbi joka dezatela, ez dezatela ikusle edo entzulea tontotzat hartu, zehatzak izan daitezela, sinesgarritasuna izan dezatela. Profesionalen zintzoak izan daitezela, etikaz jokatu dezatela, taldean lan egiteko gaitasuna izan dezatela, eta beti gauza berriak bilatu eta ikasteko prest egon daitezela.

Eta hori guztia egin eta gero, ebaluatzeko gaitasuna izango duten profesionalak behar ditugu. Gure lanaren emaitzak ezagutu eta aztertzeko gaitasuna behar dugu. Etengabeko ebaluazio horrek erakutsi behar digu zertan gabiltzan ongi eta zer egin behar dugun hobeto.

Enpresa bezala ere baditugu helburuak eta horiek lortu behar ditugu, etengabe landuz eta hobetuz. Audientzia nahi dugu; euskal gizarteak guri buruz eta egiten ditugun produktuei buruz iritzi ona edukitzea; diru-sarrerak behar ditugu; erabiltzen ditugun baliabideen kudeaketan eraginkorrak izan behar dugu; eta batez ere, zerbitzu publikoa garez gero, gizarte honekin dauzkagun konpromiso eta eginkizunak bete behar ditugu.

Hauek dira, labur esanda, komunikazio enpresa bezala EiTbN dauzkagun premiak eta eginkizun horiek aurrera ateratzen lagunduko diguten profesionalak behar ditugu. Eta hori da Unibertsitateari jartzen diogun erronka, eginkizun horiek betetzen lagunduko diguten profesionalak trebatzen eta formatzen lagun diezagula.

Beste gogoeta bat ere egin nahiko nuke Unibertsitateari buruz eta Unibertsitateak eskaini diezagukeenaz. Unibertsitateak lagundu egin behar digu komunikabideei gure jardunaren azterketa kritiko bat egiten. Behar-beharrezkoa da Unibertsitateak komunikazioaren azterketa egitea, iritzi bat osatzea eta iritzi hori zabaltzea. Hori ere Unibertsitatearen eginkizuna da.

Dena dela nik eskatuko nioke Unibertsitateari, azterketa hori egiterakoan, egiten duen teorizazioak kontuan har ditzala komunikabideen egoera, premiak, baldintzak eta praktikak. Komunikazioa hedabideontzat ez da gauza abstraktu bat. Gauza konkretu bat da. Egoera jakin batean, bizi garen gizartean, aurrean eta inguruan daukagun kompetenziaren kontra eta gure ikusleen gustuak kontuan hartuta aurrera atera behar dugun jardun zehatz bat.

Gainera, hedabideak enpresak gara eta enpresa bezala baldintza eta eskakizun batzuk ditugu. Gure komunikazio jarduna, esparru jakin batean gertatzen da, merkatu batean, eta baliabide mugatuak daukagu. Ezin dugu enpresa hori kudeatu erabiltzen ditugun baliabideen etekina, errendimendua, efikazia eta efizientzia kontuan izan gabe.

Eta komunikazioaren azterketa ezin da teorian hutsean bakarrik oinarritu. Hedabideek bizi duten errealitate hau ere aztertu behar du. Eta teorizazioa ezin liteke izan norberaren ikuspuntuak edo tesiak defendatzeko. Azterketak oinarri bat izan behar du errealitatean eta praktikan, eta baliagarri izan behar du komunikazioa aberasteko eta hobetzeko.

Guk, enpresak, kasurik gehienetan, beste ikuspegi bat daukagu gauza askotaz, unibertsitateak daukanaren oso bestelakoa, eta seguruenik hori tokatzen zaigu. Guri komunikazioa egitea dagokigu eta hori da gure lehen eginkizuna. Guk ere egin beharra daukagu formazioa eta azterketa, baina horren aurretik guk egunero-egunero gure produktua atera beharra daukagu. Atera eta saldu beharra.

Eta horrek esan nahi du egunero-egunero diana egin behar dugula; asmatu egin behar dugula eta egiten dugunak jendearen gustukoa izan behar duela.

Gure lanak, gainera, baditu beste eskakizun batzuk, baditu beste denbora eta erritmo batzuk, Unibertsitateak ez dauzkanak eta eduki ere eduki behar ez dituenak. Unibertsitateak badu patxada bat eta epe jakin bat bere azterketak egiteko. Guk ez. Gu eguneroko zurrunbiloak bortzatzen gaitu.

Unibertsitateak enpresa mundurako profesionalak prestatzen dituzte, ingeniariak, teknikariak, ekonomistak, e.a., inguruaren azterketa egiten du. Enpresak aztertzen ditu, kanpotik datozen joerak jorratzen ditu, enpresek bizi duten egoera eta joera ezberdinei aurre egiteko zer profesional behar dituzten aztertzen du, enpresa horiekin batera profesionalak trebatzeko.

Susmoa daukat, alderantziz, Unibertsitateak komunikaziorako profesionalak prestatu behar dituzte, teoria eskaintzen diela. Ez digute komunikazioan lan egiten dugun enpresoi galdetzen zer arazo ditugun eta zer premia dauzkagun, premia horiek betetzera etorriko diren profesional berriak prestatzeko orduan. Guk behintzat, komunikazio enpresa bezala, horren premia daukagu eta Unibertsitatearen zain gaude gure jarduna aberasteko eta hobetzeko. Uste dut arlo zabal bat daukagula elkar ezagutzeko, elkarrekin lan egiteko eta elkar aberasteko.

11.- Euskararen ghettoa: euskararen munduari bizkar emanda bizi diren gaztelaniazko euskal komunikabideak

Euskaraz egiten den kazetaritza ikusten diodan arriskurik handienetakoa bat, ghettoarena da. Euskal Herrian, gaztelaniaz jarduten duten komunikabiderik gehienak, euskaraz bizi den eta euskaraz plazaratzen den errealitateari bizkar emanda bizi dira. Ez ikusia egiten diote edo uko egiten diote, bestela esanda, gure gizarteak euskaraz sortu eta agerrarazten duen hizkuntza, kultura edo gizarte errealitateari.

Euskal Herriko hainbat hedabidetan badira oraindik kazetari euskaldunak ez duten erredakzio taldeak, eta ez dute modurik eta biderik euskaraz bizi den mundu horren berri jakiteko eta bertan zer gertatzen den ezagutzeko. Hedabide garrantzitsu askotan, ez dago ez sentsibilitaterik eta ez jakin-minik gaztelaniaz gainera euskaraz ere badakien gizatalde honi begiratzeko. Zubiak behar ditugu, mundu txiki honetatik ateratzen lagunduko digutenak.

Uste dut, eginkizun honetan zeregin garrantzitsua dutela, besteak beste, EITB taldean dauzkagun gaztelaniazko hedabideak. Uste dut euskal gizarte honetan *Radio Euskadi* edo *ETB2* duten presentzia kontuan hartuta, badaukagula gaitasunik euskaraz sortzen den eta bizi den mundu horren ezagutza bultzatzeko. Eta uste dut izan dezakegula eraginkortasunik, premia hori ez duten gaztelaniazko hedabideei kezka hori sortzeko. Biziraupen kontua da. Era berean, euskaraz bizi diren hedabideak gai izan behar dute euskal hizkuntzak ezartzen dituen muga eta hesiak gainditzeko. Ahalegin guztiak egin behar dituzte euskal hiztunok osatzen dugun mundu txiki honen mugak gainditzeko eta gure eragina ghettotik kanpora ateratzeko.

Horretarako, nahitaezkoa iruditzen zait, lehen-lehenik, euskarazko kazetaritza zerbait gehiago eskaintzeko gai izatea: plusak eskaintzeko gai izan behar dugu. Gai izan behar dugu irakurle-ikusle-entzulea harritzeko, gai izan behar dugu gure audientziari ez ohiko gai eta tratamenduak eskaintzeko, agian guregandik espero ez dituztenak.

Azkenik, esango nuke euskarazko kazetaritzaren erronkarik handiena, edo bestela esanda euskaraz lan egiten dugun profesionalon erronkarik handiena, komunikazioa sortzen den eta egiten den toki eta arlo guztietan sartzea dela: erakunde eta enpresetako komunikazio bulegoetan, gaztelaniaz diharduten hedabideetako erredakzioetan. Hitz batean esanda, Euskadin eta Euskaditik egiten diren egunkari, aldizkari, irrati eta telebistetako erredakzioak hartzea eta bertan nagusitzea.

Oharrak

1. 5/1982 Legea, martxoaren 20koa, "Euskal Irrati Telebista" Herri Erakundea sortzeko

(...) En el ejercicio de dicha competencia y respetando el concepto de servicio público esencial, se configuran en la presente Ley los medios de comunicación social a los que la misma se refiere como instrumento capital para la información y participación política de los ciudadanos vascos, así como medio fundamental de cooperación con nuestro propio sistema educativo y de fomento y difusión de la cultura vasca, teniendo muy presente el fomento y desarrollo del euskera, todo ello como base y fundamento para el adecuado desenvolvimiento de los derechos y libertades de los ciudadanos de esta Comunidad Autónoma.

(...)Artículo 3

La actividad de los medios de comunicación social cuya titularidad corresponda a la Comunidad Autónoma se basarán en los siguientes principios:

- a) La objetividad, veracidad e imparcialidad de las informaciones.
- b) La distinción y separación entre información y opinión, requiriendo esta última la identificación de quienes la manifiestan. Igual tratamiento diferenciado y separado requerirá la publicidad comercial.
- c) El respeto al principio de igualdad, al pluralismo político, religioso, social, cultural y lingüístico.
- d) La defensa y promoción de los valores cívicos de la convivencia reconocidos en la Constitución y en el Estatuto de Autonomía, en defensa del interés general.
- e) El respeto a cuantos derechos reconoce la Constitución y el Estatuto de Autonomía.
- f) El respeto al honor, la fama de las personas y, en particular, el derecho a la intimidad y la propia imagen.
- g) La protección y promoción de la juventud y de la infancia.
- h) La promoción de la Cultura y lengua vasca, estableciendo a efectos de la utilización del euskera, los principios básicos de programación, teniendo presente la necesidad de equilibrio a nivel de oferta global de emisiones radiotelevisivas en lengua vasca en la Comunidad Autónoma.

b. IPARRALDEKO EUSKAL IRRATIAK, ELKARLANEAN AITZINDARI

*Luzien Etxezarreta
Gure Irratia*

Oharra: Lan hau Topagunea Euskara Federazioen Elkarteak antolatuako *Tokiko hedabideak etorkizunera begira* izenburuko jardunaldietan aurkeztu zen, Zamudion, 2003an.

XX. mendeko komunikabideek eragin iraultzan Euskal Herriak erdarazko uhinen olatua jasan duela, euskara eta euskal kulturaren kaltetan aipatzen da asko. Bestela begiratzuz, euskarak eta euskal kulturak urratsak egin dituztela hauei esker aipatzekoa da. Mende berri honetan irudien munduak gaina hartuko duen beste guztiei ez da hain argi, Interneten eragina adierazgarria da, irudiak bai, baina ere soinua, baita ere idazkia bat egiten baitira. Horrela gogoetagarria da euskarazko irratigintzak duen ekarpena. Batez ere, jendetza gutxikoa den eskualdean, XX. mende hondarreko azken hogeitaz urteetan, Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan, hiru erakunde hortzez eta hagienez aritu dira, eta jarraitzen dute, elkarlanean, egokituz mende berriko apustuei, euskalgintzan eredugarri izanez.

1. Irratigintzaren hasiera Iparraldean

1.1. TSFa

Pariseko estudioetarik, Frantzia erditsuan kokatu emisoreen medioz, TSF (Télégraphie Sans Fil) teknikarekin Iparralderaino etorri zen orduan deitzen zen “radioa”. Uhin Luzeen medioz, 50eko hamarkadan, telebista ez zela oraindik etorria, gure eskualdeetan Radio Parisen ondotik, Paris Inter entzuten ahal zen, France Inter bilakatuko zela ondoren. Bordeletik ere ordu beretan, Uhin ertainetan zetorren halako eskualde irrati bat, *Radio Andorrarekin* batera. Hamarkada honen bukaeran transistoreak dioda ikusgarriak ordezkatu zituen eta irrati entzuteko tresnak itxurraldatu. Urte haietan ere zen, uda garaietan, Biarritzen kokatu, Larrun kaskoan zela errepikagailua, *Radio Côte Basque* irrati: erdarazkoa, baina igandero ordu erdi batez, Pantxoa Etxezaharreta eta honen inguruko lagun batzuei esker euskarazko emanaldiak hedatzen zituena. Izugarritzko arrakasta bildu zuen emanaldi honek, gure herriaren euskararen gosea eta atsegina azaldu zuena.

Uda soiletik egunerokoa bilakatu zen tokiko irrati hau, Baionako Herriko Etxean zituen estudioekin, Bordeletik zetorren *Bordeaux Aquitaine* estatu irratiaren menpe deslotze batzuei esker. Egutero bost minutuko emankizuna euskaraz izan zen eta hor hasi ziren hainbat pertsona euskarazko lehen irratigintza markatu zutenak, nola Maitte Barnetxe bidarraitarra nahiz Jamattitt Dirassar hazpandarra. Irrati libre, piratak deitzen zirenak, Frantzian, 70eko hamarkadan bazterrak harrotzen hasi ziren, FMaren teknologia berri arinari esker, batez ere Italiako material merke berriekin. Irrati, eta euskarazko irrati gose horrek lehen adar bat eragin zuen Lapurdi Kostaldean, *Radio Adour Navarre* izeneko irratiarekin. Honek 1980. urtean Loiola Irratiari esker, Nafar mendi batean jarri errepikagailu batekin hedatzen zuen nonbait han egutero ordubetez, erdarazko emanaldi bat, tokiko berriak aipatuz, euskara pixka bat sartuz, baina oro har eragin sozial oso motzarekin.

1.2. Irrati libreak plazara

1981. urtea premiazkoa gertatu zen Frantzia Mitterrand eta ezkerreko gobernura iritsi zirelarik: uhinen eztanda nagusia gertatu zen hitzemanaren baitzen ordu arte estatu monopolioa zen uhinen munduaren irekitzea.

Lapurdin maiatzetik at *Radio Adour Navarre* plazara agertu zen Baionan, nahiz besteak bezala ez oraindik legezkoa izan eta debekatua zen publizitatea argiki eginez. Irrati hau plurala agertu zen, euskara pixka bat ere ematen zuela, elebitasunaren bidea aukeratu zuen, gaskoia ere erabiliz, portugesa ere, tokiko elkarteei hitza emanez. Irratiak izugarriko entzuleria ukan zuen, geroago tokiko *Radio Francen* irratiak bereganatuko zituen hainbat irrati langileri lehendabiziko trebakuntza eraginkorra eskainiz. Alexandre de la Cerda zen irrati honen buruzagi ezaguna, denon oniritzia bildu zuela.

Euskalgintza mundukoak zuhurtzia handiz urte horretako udazkenean Euskara eta Euskal Kulturaren Jardunaldietan sartu ziren. Hortik atera zen ondoko urtean Pizkundera, gaur egungo Euskal Konfederazioa zena. Uda horretan, 1981ean, talde bat, euskal irrategintzaz axolaturik bildu zen. Eztabaidak izan arren udazkeneako xedea finkatu zen: euskara hutsezko irrati baten eraikitzea. Abenduaren 24an horrela *Gure Irratia*, euskara hutsez, hasi zen Milafrangan. Errepikagailu ahul bat baizik ez zuen, bertan jarria eta Errobiko harana baizik ez zuen estaltzen. 1982ko otsailean, Nafarroa Beherean, Irulegin, Menta mendiko baserrian *Irulegiko Irratia* abiatu zen, hau ere elkarre irratia. Garazi Baigorriko bazterretan entzungarri zen. *Gure Irratiaren* barnean ari zen zuberotar taldea, udazkeneako Zuberoan jarri zen, Irabarneko Jauregian, *Xiberoko Botza* sortuz. Bakoitzak eremu natural bat estaltzen zuen, Iparraldeko hiru euskalki nagusien inguruan.

Urte batez hiru irrati sortu ziren, egitura berdintsukoak, *Gure Irratiak* hargatik aukala “osoki euskarazko” irrategintza bultzatu nahi zuela. Beste biek, komunikatzearen beharrak zirela eta elebitasunaren aukera egin zuten, erdarazko emanaldiak integratuz. Hauk, denborarekin gutitu ziren eta gaur egun hiru irrati hauek, botere publikoen aurrean “d’expression basque” bezala kontsideratuak dira. 1980ko hamarkada horretan beste irrati batzuk ere sortu ziren, euskararik gabekoak, nola *Radio Bayonne*, irrati municipalak, diru publiko asko irentsi zuena. Angelun *Anglet FM* irratiak elkarre asko bildu zituen, erdaraz hau ere. Gaur egun desagertuak dira. Beste irrati batzuk nola *Radio Bonne Humeur* edo protestanteen irrati bat Arrangoitzen, *Radio Bonne Nouvelle*, sortu ziren, eremu hertsikoak alde guzietarik. *Lapurdi Irratia* hamarkada horretan sortu zena ohargarria da: elizak bultzaturik “Lapurdioko parrokiak” irratiak da, Uztaritzeko Seminarioa izanikoan dagoena. Diru eta langilez erraztasunak izan zituen. Euskarazko emanaldiak ditu, baina ez dabil ez berrigintzan ez euskal kultur animazio lanetan.

Frantziako irrati libre oldea egituratu zen pixkanaka. Askok aukera komertziala egin zuten eta sareak muntatu, nola NRJ. Askok ere desagertu ziren, diru eskasez edo barne gatazken ondorioz. Askatasun espiritua gordez eta hurbileko komunikazio sozialaren haritik, asko elkartu ziren FNRL federazio batean, gaur CNRL (Confédération Nationale des Radios Libres) izenekoan. Hori botere publikoei buruz borrokatu zen, irratiaren legeztatze, ararteko lanak eginez. Lorpen nagusi izan zen ere FSER (Fonds de Soutien à l’Expression Radiophonique) honen sortzea: honekin beren diru kontuetan publizitate iturriak %20 baino apalagoak diren irratiak estatuaren legezko laguntza bat eskuratzen ahal dute. Gaur egun hori da “estatuaren laguntza” deitzen dena.

2. Elkarlana

2.1. Egitura berdintsuak

Hiru euskal irratiak legeztatu ziren 1984an, frekuentzia ofiziala eta baimenak lortuz. Hiru irrati hauek parte hartzen dute gaur CNRL Konfederazioan, beste 250ekin, honen Chartre edo Ageriko puntuekin bat eginez. Atal nagusiak dira: irrati libre, independente eta laikoak izatea, pluralak eta pluralistak izatea, irrati humanistak ingurumenaz axo-

latuak izatea, kazetarien deontologia errespetatzen duten irratiak izatea, kultur hedapenez axolatuak izatea, diruzko komunikazioa ukatzen duten irratiak izatea, funtzionamendu demokratikoaren ukaitea, elkartasunean ari diren irratiak izatea...

Argi da Iparraldeko hiru euskal irratiak, bai helburuetan, bai egituretan, berdintasun nabariak dituztela. Euskara eta euskal kulturaren hedapen eta promozioa, elkarte sistema batean aritzea, diru iturri berdintsuak ukaitea, euskararen irrati zerbitzu publiko baten obratzea dira puntu nagusiak.

Finantzamenduek argi erakusten dute irratiak nola herrian sustraituak diren. Irrati bakoitzaren urteko dirugintza milioi bat libera, 150 000 euroren inguruan dabil. 2002. urtean *Gure Irratiak* 20 urte ospatzen zituela, diru kontuen %25 1.000 familien laguntzatik zetorren. *Irulegiko Irratiak* urtero etxez etxe egin esketik, 4.500 etxetarik bere kontuen %30 ateratzen du. *Xiberoko Botzak*, probintziako 42 herrietatik 38tan 1.500 etxetako laguntza eskuratzen du, eskea 70 laguntzailek egina delarik.

Irratiak lanbide berdinak ere lantzen dituzte urtetik urtera, euskara eta euskal kulturaren zerbitzuko, hainbat ekitaldi jendeetarik hurbil eramanez, herriko biziaren ispilu eta bozeramaile. Hurbiltasun horren lantzeko irrati bakoitzak errepikagailuak jarri ditu entzumenaren erosotasunaren hobetzeko, besteak beste Barkoxe, Larraine, Aldude, Aiherra, Donapaleu, Hazparne, Sara eta Hendaian. Estudio “dezentralizatuak”, denborarekin jarri ziren ere, nola Donapaleu, Hazparne eta Hendaian, *Antxeta Irratia* sortuz Bidasoa eta Txingudi inguruko entzuleei buruz hurbilagoak lan egiteko.

2.2. Elkarlanaren abiatzea

Elkarlana pixkanaka eta naturalki hasi zen. Euskararen militante zirenez geroz irratiaren kudeatzaile eta langileak, lehendabizi. Lortu dute bereizkuntzen gaintzea, nahi edo ez, euskalkien ezberdintasunak zailtasunak ematen baitzituzten, baita ere maiz bakartia izan zen euskalgintzako lan aspaldikoak. Irratigintzak elkarlana bultzatu du hainbat egituren artean, topaketa ezinbestezkoa eskainiz.

Euskalgintzako arlo nagusietan, gertakari handiak, nola Euskal Kantu Txapelketa, Herri Urrats, Nafarroaren Eguna elkarrekin ematen hasi zen laster. *Radio Adour Navarre* gelditu ondoren, igandeetako euskarazko meza, herriz herri eman zen hiru irratiaren 84. urtetik at, emankizun hori jende askorentzat premiazkoa gertatzen dela. Irratiak elkar antenaz hartzen ahal zutela, irratizko elkarlanak erraztuak izan ziren. Horrela, laster igandeak elkarrekin hedatu ziren. Laster ere, elkarrekin eman zen goizeko 07:30eko berri sail nagusia, entzumen ordu nagusian, baita ere pilota emanaldiak edo euskal presoen inguruan asteroko “presoen oihartzuna”.

Elkarlanaren egituratzearen beharra hargatik indartu zen 90eko hamarkadaren hasieran. Departamenduarenganikako diru-laguntza baten erdiesteko, aho batez hitz egiteko orduan hasi zen “Euskal Herria 2010” lan taldean eta honek eragin “Garapen Kontseilua”-ren barnean, hautetsiek bultzaturik. Gisa berean, 1990ean Euskal Kultur Erakundea sortu baitzen, azken honek irratiaren kultur emanaldien finantzamendua baldintzatu zuen elkarlan bati, eta profesionaltasun baten bide hobetu bati, 1995. urtetik at bereziki. 1995eko urte osoan, Donibane Garazin maiz bildu ziren irratiaren arduradunak. Ondoko urtea izan zen elkarlanerako egitura baten onartzea eta honen finkatzea ekarri zituen. Hau guztiaren emaitza 1997ko martxoaren 15ean gorpuztu zen: *Euskal Irratiak* elkartearen sortzea, Iparraldeko irratiak batzeko.

3. *Euskal Irratiak* erakundea

Duela sei urte eta erdi hasi erakundea ez da Federazio edo Konfederazio bat, baina Frantziako 1901eko elkarleen legearen arabera. “Union des radios d’expression basque” izena hartu zuen.

Elkarlanaren sakontze eta finkatzea ekarri du urtetik urtera, hobekuntza nabariarekin, botere publikoekin harremanak argiago jarritz eta euskalgintzako beste adarrekin hobekiago koordinatuz.

Euskal Irratiak erakundearen Estatutuetan, bigarren atalak helburuak finkatzen ditu :

- Euskararen eta euskal kulturaren garapenaren laguntzea euskal kultur elkarteen zerbitzurako jarri ditu bere ahalak.
- Euskarazko irratien antolakuntza, koordinazioa eta irriti ekoizpenen garapenaren laguntzea Euskal Herriari eskaini zerbitzuaren hobetzeko.
- Elkarte irratien interesen ordezkatzea botere publikoei buruz.
- Partaide diren elkarten artean botere publikoei buruz diru laguntzen negoziatzea eta hala beharrez hauen partekatzearen obratzea.
- Behar diren ahalekin elkarrekilako ekoizpenen kudeantza eta animazioaren obratzea.
- Sozial eta ekonomia mailan elkartekideen harmonizazioaren laguntzea.

Erakundearen Administrazio Kontseilua 9 lagunek osatzen dute: irriti bakoitzak izendatzen dituela 3 ordezkari. Legezko Biltzar Nagusiaren osagarri dira: hiru irratien Administrazio Kontseiluak, irratien langileak baita irratien emankizun egile laguntzaileak.

Ohargarri da *Euskal Irratiak* erakundeak bere lan eremua “Euskal Herriko muga historikoetan” kokatzen duela. Sortzaileak *Xiberoko Botza*, *Irulegiko Irratia* eta *Gure Irratia* dira. Ateak irekirik dira beraz geroko aldaketentzat. Erakunde berri honek elkarlan saila lau ardatz nagusietan eramaten du geroztik:

- Elkarrekin hedatzeko programa komunak: eguneroko ia lau ordu berri sail eta emankizun tematikoak eta besta egunak, igandeak, kanpoko ekitaldiak, kirolak.
- Trebakuntza plangintza bat.
- Mantenimendu teknikoak: hedagailu, errepikagailuak, HF materialak.
- Bozeremailegotza komuna botere publiko, herri erakunde edo elkarte nagusiei buruz.

4. Biharko lanak

4.1. Biarrizko Gomendioak

Biarrizko Jardunaldiak, 2001eko abenduan, Europako Hizkuntzen Urtea zela eta Frantziako CNRL federazioak antolatuta, Baionako Gure Irratia eta Italiako AMIS elkartearekin. Horretatik atera ziren “Biarrizko Gomendioak”, zazpi puntutan eratuak.

Azpimarratu zen “irriti libreen garrantzia eta erantzukizuna herri hizkuntzen defentsa eta garapenerako, hauek direnez gero gizadiaren ondare premiazkoak”. Gomendio hauek eskatzen diete Europako irratiei bat egin dezaten Europako Hizkuntzen Ageriaren gomendioekin, 1992?eko ekainaren 24an onartuekin, batez ere hauen 11. atalarekin. Puntu hauen arabera CNRLak bere buruzagitzan “Frantziako herri hizkuntzetarako lehendakariorde baten izendatzea” obratu zuen. Eskatu zen ere hor irriti libreen laguntzeko legedian herri hizkuntzen baliatzaile diren irratia sustengatuak izan ditezten.

4.2. Arrosa proiektua

Arrosa proiektua, Euskal Herri guziko irratien arteko elkarlana, argiki biharko apustu nagusia da. Izena dator Arrosa herritik, han Euskal Herria Zuzenean Festibala kari bildu baitziren Euskal Herriko irratia. Proiektu hau, Iparraldeko hiru irratiek bultzatua da, aurreko urteetako hainbat elkarlan saioaren ondokoa. Altsasun, 90eko hamarkadan, hainbat bilera izan zen irratien artean, *Egin Irratia* eta hamar bat irriti librearen ordezkaririk bildu ziren baina

ez zen deus konkretuki plazaratu ahal izan. Biarrizko Jardunaldian sortu zen ofizialki *Arrosa* xedea, eta 19 irrati-arten artean hitzarmen bat sinatu zen. Hauek 54 frekuentzietan 225.000 entzule biltzen dutela, proiektuaren neurria agertzen du. Lehen obratze batean, Andoainen Martin Ugalde parkean irrati ekoizpen zentro bat jarri zen 2002ko hasieran, baina berehalako nekeziek atzerapen bat ekarri zuten. Lehen lan komunak hasi ziren: Korrikaren heltzea Baionara edo Herri Urrats Euskal Herri osora hedatu ziren. 2003ko urte erdian, beste elkarlan bide bat jarri zen Interneteko webgune baten bidez, trukatzeko banku bat eraikiz. Hau dena bidean da orain eta perspektibak oraindik irekiak. Finantzamendu publikoen etortzeak itxuralda lezakete lan hau eta optimismo ezaxola gehiegirik gabe ondoko urteetan dena garatuko dela pentsatzen ahal da.

4.3. Munduratzeta

Europa eta munduratzeta Internetekin bidean dela erran daiteke gaur egun. Europako legedi ezberdinek tratatzen dute oraindik elkarlana, baina bideak irekiak dira. AMARC, Munduko irrati komunitarioen elkarteak Europan duen adarrak elkarlan bat bideratu du aurreko urteetan, kanpaina batzuen kariatara, nola IHESaren aurka. Afrikako irratiekin kooperazioak bidean dira gaur URCAF, irrati komunitario frantses hiztunekin. Italiako elkarte batzuk, nola Erromako AMIS aitzindari dira. Gisa berean Frantziako CNRL Konfederazioa proiektu askoren babesle da. Euskarazko irratientzat, mundu guztiko euskaldunen lokarri izatea amesgarri bezain interesgarri daiteke. Euskara munduko beste hizkuntzen artean komunikazioaren ardatz jarriko da pixkanaka.

Parisen, 2003ko urriaren 4an Kultura Ministerioak lehendabiziko aldiz antolatu “Hizkuntzen Jardunaldi Nazionala”, Euskal Irratiek herri hizkuntzak baliatzen dituzten irratien faborez zazpi neurri proposatu zituzten:

- Frantziak Europako Hizkuntzen Agiria berrestea.
- Hizkuntzek legezko ofizialtasun esparru baten plantan jartzea.
- Estatuaren diru laguntzarako kontuan hartua izan dadin herri hizkuntzen erabilpena, kriterio baikor bezala.
- Hizkuntz Politika eraginkor baterako estatu zerbitzuak eta tokiko kolektibitateak koordinatu daitezten.
- CSAk, Estatuko Ikus-entzunezkoen Goi Kontseiluak herri hizkuntzak kontuan har ditzan frekuentzien banaketetarako.
- Herri hizkuntzetan ari diren langileentzat trebakuntza jarraikiak lagunduak izan daitezten.
- Gazteentzat sortu “gazte enpleguen” iraunkortzeko laguntza bereziak emanak izan ditezten herri hizkuntzetan ari diren irratien kasuetan.

Europako Foru Soziala, Parise ondoan arazo honetan iragaten dena euskalgintzaren apustu honen adierazgarri da. Irrati libre independenteentzat espazio bat prestatu zaie milaka etorri jendeen artean. Irrati lanak euskaraz prestatu ahal izan dira, Internetekin nahi duen irratientzat baliagarri direnak.

4.4. Irrati libreen beharra

Legedi berrien aldeko borroka ere biharko lan nabari izanen dira. Frantzia Europako herri bakarra da, 81eko ezker-erria eta borroka askori esker, legedi baikor bat jarri zuena irrati libreen alde. Legedi hau, beti mehatxatua da, batez ere Europako legeen aldetik “diru publikoa pribatuei ez emateko”. Euskal irratien arteko lana Espainian balitz legedi hobe bat irrati libreei buruz erraztua legoke.

Irrati “pribatu” eta “publiko”-en arteko muga hori ere gogoetagarri da. *Euskadi Irratiak Herri Irratien* ondotik bere xedea obratzen du. Irrati pribatuek, Iparraldean, estatuko zerbitzu publikoak egiten ez zuena obratu dute. Zerbitzu publikoaren definizioak denborarekin aldatzen dira, batez ere publiko pribatizatzen ari den Europa honetan. Horrek inoiz baino gehiago gaur egun libre deitzen diren irrati horien garrantzia eta beharra azpimarratzen du.

c. IRRATI TXIKIEN XEDE BERRITZAILEAK

Mikel Bujanda
Euskalerrria Irratiko zuzendaria

1. Atarikoa

Euskalerrria Irratian zertan ari garen eta nola, zer nahi dugun azaltzeko saialdi bat da honako hau. Deserosotasu-netik egina. Azaldu beharrekoaren barnean dagoenak ez du perspektibarik. Hein batean, nork bere buruaz hitz egi-tea da, eta hori deseroso da, oso.

Hasiera beretik, uxatu behar diren bi tentazio: bat, inori lekzioa ematekoa. Ez gara inorentzat eredu, esperien-tzia bat da testuinguru jakin eta zehatzean gauzatua, inguruko errealitateak zeharo baldintzatua. Uko horri. Bestea, deskripziotik haratago joateko arriskuari muzin egitea. Esperientziaren deskribapen hutsean gelditu nahia, balora-ziorik egin gabe emaitzaz, balizko lorpenez edo huts egiteez, edo eskaintzen ari garen produktuaren balioaz. Joera autojustifikatzaileei ere uko.

Euskalerrria izeneko irratia txikia da. Zalantzarik gabe onartu behar den kalifikatzailea da txikia. Izen handiko irratia txikia. Apala. Bere xedeak berritzaile ote diren eztabaidagarriagoa da ordea; agian xedeak arrunt eta ohikoak izanik, halabeharrak, ezinbestekak bihurtu du berritzaile -edo besteetatik desberdin- gure tresna hau. Burutazio hauek inoren intereseko izan daitezkeelakoan, hor doaz.

2. Zertarako sortua

Jende talde jakin bati, informazioa, entretenimendua, komunikazio zerbitzua eskaintzeko sortu eta eratu da gure irratia hau. Iruñerriko jende euskaldunaren komunikazio publikorako tresna izateko.

Nolako tamainaz ari garen argi esateko, hamar laguneko lantalde bat gara. Egituraren tamaina neurtzeko aurre-kontuari begiratu behar zaio, horretan ere ttipi eta xume gara; hori bai, diru kopuru murrizari ateratzen zaion probetxamendua, beste era batera neurtu behar da, balorazioen arlokoa da ordea, eta oraingoz bederen handikeriatan erortzeko tentaldia gainditu egin behar da.

Iruñean sortua, zehatzago Iruñerrian, udalerrri asko baina hiri funtzional bakarra baita Iruñerrikoa. Data funda-zional gisa, 1988an azaroaren zazpia, egun horretan zabaldu baigenuen geure lehendabiziko programa. Aurrez urte eta erdian, *Euskadi Irratiaren* seinalea zabaltzen hasi ginen. Ez zen aditzen, iritsi bai, oso makal, eta errepikagailu bat jarri, eta seinaleari indarra emanaz, isolamendua hautsi genuen. Seinale hori zabaltzen jarraitu dugu geroztik, baina egunegun, urtez urte, gure saioak eginez eta zabaluz. Egoera probisionalean. Probako emanaldiekin hasi ginen, 16 urte bete dira horrela, hamazazpigarrenean gaude eta beti probak egiten. Legezko baimena iritsi arte pro-ba moduan aritzeko erabakia hartu genuen. Horrela gaude probisionalitate itxuraz betiketuan, iraupen luzeko behine-kotasunean. Guk nahi ez dugun bereizgarria da.

3. Abiatzeko fardeletan

Gure ibileran bi indar eragile nagusi izan dira: bat, hasierako ideia multzo bat, ideia gutxi baina argiak; eta bi, egun bakoitzari irauteko senez erantzun beharra. Iruñean, bazen eta bada jende multzo bat euskalduna, euskaraz ari nahi duena. Iruñeko irratietan hamar minutuko tarte marjinal batzuk uzten zitzaizkion euskarari. *Euskadi Irratia* sortua zen ordurako, baina ez genuen Iruñean entzuten.

Idea mamitzeko urte batzuk behar izan ziren, lau zapabost urte. Orain 20 urteko kontuez ari naiz; 1984an eratu zen sozietatea, Iruñeko Komunikabideak izenarekin. 1985ekoa da Diputazioa eramandako paper bat, eskari bat, ad cautelam. Ezin zitekeen ezer eskatu deus emateko ez zuen Nafar Diputazioari, baina noizbait izanen zuela jakinik, halaxe gelditu zen eskatua, irriti baimena, 1985ean.

Denbora horretan joan zen definitzen proiektua lerro nagusietan: *Lau Haizetara* izeneko orri urdinean dago bildua. Irrati euskaldun baten asmoaren berri zabaldu, eta hitzez hitz zioen: “Iruñerrian bizi garen euskaldunen arazo eta kinka guztien berri emango duen irratia. Gure eztabaidak, pentsamenduak eta gogoak lau haizetara zabalduko dituen... Gurea den irratia; metafora eta guzti: denona den baratzea guztion artean ere, uza guztiontzat izan dadin...”

Zehaztapenak dakartza: euskara hutsez ariko da. Euskal kulturaz arduratuko da bereziki, mundu zabaleko kultura mota guztien artean. Printzipio doktrinala: mendez mende gizarte eta kultur arlotan euskaldunok elkartu gaituen guztia zaindu, eta indartzeko ahaleginetan aritzeko konpromisoa. Gehiago ere: Demokrazia legeak bere egiten ditu, informazioa, berri zuzena zabaltzea. Eta independentea: askea, ideologia, politika edo eta ekonomi indar loturetatik aske. Bere betebeharrak bakarra Euskal Herriaren onerako lan egitea da. Beste bat ere: euskaldunak protagonista. Hori abiatzeko bagagea, ekipaia, anoa. Gida moduko jarraibideak ziren, eta dira. Gutxi, baina argi. Urte asko joan da geroztik. Horrekin leial izaten saiatu gara.

Beste kontu batzuk ere erabakita gelditu ziren abiatu orduko. Irrati profesionala, hitzaren bi baliotan: funtzionamendurako irizpide moduan, eta irratian ari beharreko langileen dedikazioaren aldetik eskatzen duena. Sozietate anonimoa hortaz enpresa enplegatzaile izanik eratu zen, baina beste egitura bat ere antolatu zen: Elkartea bat, elkarte kultural izaerarekin, gizartearen parte-hartzea eta sostengu ekonomikoa bideratzeko.

Arlo ekonomikoan, esateko modukoa da publizitatea dugula dirusarrera nagusia. Gure aurrekontuaren erdia baino gehiago publizitate komertzialak betetzen du. Publizitate ez instituzionalak. Horretan jakingarri litzateke beste inor ba ote dagoen egoera horretan.

Elkartean, 800 kide dira, fideltasun, leialtasun, zintzotasun handiz kuota ordaintzen urtez urte. Pentsatu hahi dut egiten dugun lanarekin behar bezala ari garela erantzuten guregan jarria duten konfiantzari.

Laguntza instituzionala, oso gorabeheratsua, beherakoak gehiago izanik gorakoak baino. Nafar Gobernutik, ezin jakin, duela bi urte ezer ez ziguten eman, iaz zer bait, aurten auskalo. Ematen du baietz. Eusko Jaurlaritzaren atea jotzen duela hiru urte hasi ginen. Aurten ere eman digute laguntza bat, 30 mila euro ingurukoa (ez hedabideen partidatik, baizik euskalgintzarenetik. Interes kulturalerako jarduerak prestatzen ditugun heinean, emisioarena ez da kontzeptu subentzionagarria.)

Ziur aski, parametro enpresarial hutsetan, negozioaren errentagarritasunari begiratuta, ez zen posible izanen; bideragarritasuna izateko aldiz, behartuak gaude gastuak sarrerak baino handiagoak ez izatera. Horrek pistak ematen ditu, profesionaltasun hutsari gehigarri bat erantsi beharra dagoela. Beste hornigai horren aldaerak, dedikazio, konpromiso, edo bokazioa izan daiteke, plus bat: Lanbidea gehi konpromisoa.

4. Bidean ikasitakoak

Irratiaren nortasuna definitzeko ezaugarrietako batzuk, hortaz, hasieratik zehaztuak izan ditugu. Beste batzuk, bidean ibili ahala joan dira argitzen. Esate baterako:

- Nolako kazetaritza egin nahi genuen. Horrela, intuizioaren kukuak esan zigun oreka zela irauteko gakoa. Oreka puntua, hemendik zerbait, handik kontrapisua, horrelako, gutxi gorebeherako irizpidea. Iraun beharrak berak ekarria, zalantzarik gabe. Beharrak erakutsia. Bestalde, zintzo jokatu beharra. Hasiera hartan, zintzo ez ezik, txintxo, inozo agian: agertzen den hori, eta hori besterik ez, hartu kontagai, bere horretan harturik, berria, interesgarri, garrantzizkoa, baina azpian zer dagoen begiratu gabe.
- Kazetaritzaz teorizatzekeo kezkatzekeo astirik ez, ezta perspektibarik ere, eta egin beharrekoa, egitea zen, praxia pragmatikoa, eta zuhur ibiltzea.

Orduan lauso samar, gerora argi samar ikusita, hasierako urte haietan ere bagenuen behar bat, besteak bezalako izateko. Iruñea aldean -erdaraz- ari ziren irratiek egiten dutena baietz guk egin. Haietara adina izatea, gurea, euskarazko irratia Iruñean posible zela frogatzeko, egin zitekeela erakusteko bai geure buruei, bai besteenei. Gaitasuna bagenuela erakutsi, baita hiper-erakutsi ere, izan eta izate hori adierazi, sobre-errepresentatuz, hainbeste mesfidantza gainditzeko.

Hortaz besteak bezalako izateko joera bat, borondate hori egon da eta dago gure aldetik, baina luzera ez da posible izan. Besteak bezalakoak ez bagara, ez da desberdin izateko gogoagatik, baizik inguratzen gaituen errealtateak berak beharturik. Agerikoaz gainera azpia ere agertuz, edo hobeki, beha eta begira egotearen ondorioz, agerira ateratzen direnak ere ikusiz.

5. Geure begiratokia

Eskaintzen ari garen komunikazio zerbitzua, lerro nagusietan, beste edozein irratik egiten duenaren modukoa da: informazio, entretenimendu, dibulgazio, konpainia, harreman sarea, mintzatokia eskaini; ahal den neurrian geure zerbitzuaren hartzaileei bizimodua zertxobait atseginago egiten saiatu, laguntasuna, adiskidantza, konpainia eskaini. Klasikoa. Hori, euskaraz, Iruñerrian, tamaina txikian, jende gutxirekin moldatuz.

Hein handi batean, normaldua dago geure eginkizun informatiboa, instituzioetan akreditatuak gaude, informazioa lortzeko bideak zabalik ditugu -informazio interesatua zabaltzen eskuzabalak dira instituzioak- harreman formalak, normalak ditugu, edo hor nonbait. Alde horretatik, beraz, besteen pareko gara; urteen joanaren indarrez, halako onarpen instituzionala sendotu da.

Baina aldi berean, gaintetik kendu ezin den sentsazioa da, anomalia garelako Iruñealdeko panorama informatiboa, eta ez bakarrik euskaraz aritzeagatik. Kazetaritzan euskaraz aritzea berez da jarduera subertsiboa. Hori, ez bakarrik Iruñean, nonahi, epaile batzuk erakutsi digute kazetari euskalduna susmopean dagoela, desestabilizatzaile dela.

Baina oraingo kontua ez da hori. Hizkuntzarena bazter uzteko ariketa hipotetikoa eginik, gazteleraz ariko bagina ere, Nafarroako errealtateak baldintzatu baino gehiago, modu jakin batean jokatzerara behartzen gaitu. Ikusten duguna kontatzen dugu. Zer gerta, huraxe konta. Horixe dugu gure gida-ikurra.

Eta zer ikusten dugun gure behatokitik, horra gakoa. Gizartea, honen dinamika, sektore batean eta bestean ari diren talde antolamenduak, batzuen eta besteen proposamenak, kezkak, ekimenak eta salaketak daude. Gizarte bizia da, dibertsoa, zer kontatu ugari ematen duena. Horixe dugu gure kontagaiaren hornitzaile handi bat edo, beste era batera, langaia.

Bestea, guztiongan eragina duten erabakiak hartzeko gunea, arlo politiko instituzionala, guztion diruarekin zer egiten den, politikariak, agintaritza, boterea edo dominazio aparatua. Arlo horretatik, gure aktualitatea zein den, adibide moduan, azken bolada honetan zabaldu ditugun berrietako batzuk:

- Lurpeko parkina egiten hasi dira Gazteluko Plazan. Ustekabean antzinako aztarnak aurkitu dira. Terma erromatarrek, sistema hidrauliko konplexua agerian. Baita Erdi Arokoak ere. Hilobiak. Gaztelu horma baten zatia.... antzinako Iruñeaz ziren hipotesi historikoak, hiria nola egituratua zegoen eta beste, dena hankaz goratua gelditu da aurkikuntza baliotsuekin. Aurkitutakoaren balioa ikusita, hiriaren museoa bertan egitea proposatu dute batzuek. Ondare historiko artistiko kulturala dagoen tokitik atera, plazaren lur azpia hustu dute, arrastoak non diren inork ez daki. Lurpeko parkina egin da.
- Aurtengo otsailean, liburugintza gaia zuen erakusketa zentsuratu eta debekatu du udal agintaritzak: politikaria zer den erakusteko Euskal Herriko mapa bat, Bonaparterena, eta eskuizkribu bat liburu izaterainoko prozesua zein den erakusteko, Sarrionandiak idatzi eta zuzenduriko testuak agertzen ziren. Nafarroa Euskal Herria ez dela, eta Sarrionandiaren testuak publiko aurrean agertzeari debekua jarritz, erakusketa ezin izan zen Iruñean egin.
- Alde zaharrean, ehun urteko eraikin bat, pilotaleku zaharra. Hamar urte bada gazte batzuek euren bizi-modua egiteko, aukeratua dutena, aurrez hogeitun urtean guztiz utzia egon ondoren. Gaztetxea. Botatzen hasi dira oraindik jendea atera gabe zegoela. Bota dute, hustu dute. Txikitu dute, suntsitu dute. Alkate andereak gaztetxe horretan zebiltzanak arrotzak direla esan du, kanpotik etorriak. Adierazpen xenofoboak egiten dituen andere bat dugu alkate. Harrigarria, harrigarriagoa jakinik bera ere Iruñetik kanpo sortua baita. Gure aktualitatea da, geure begien aurrean gertatzen ikusi dugu.
- Iruñean, bere etxean, bere bizitokian, irregularitateak eginak dituen hiritar bat da alkate; Barcina andereak udal ordenantzen aurka jokatzat egin zituen pisua eta atikoa, hori egiteko baimenik gabe. Gehiago dena, ganbara, trastero bezala deklaratu izan du bizitoki bihurturiko zati, eta horren arabera ordaindu du kontribuzioa; beraz, ogasun publikoari iruzur egin diola frogatzen duten dokumentuak badira, epai-leak erabaki behar dituenak. Horrelakoak ditugu Iruñean.
- Azken hilabeteetan, hiriko espazio publikoak erabiltzeko baimenak eta debekuak; edo azken urteotan oso ugari, ugariegi hizkuntzari emandako tratuaren ingurukoak. Kale izenen errotulazioa, ele bitan jarri behar dituztela jakinik ez dute hori egin, ea oharkabean pasatzen den, edo zain inork helegitea egin dezan, eta gero ere. Bistatik kendu, desagertu, duen funtzionalitate apurra kendu, des-estimulatu, euskara konfliktibizatu -liskartu-, euskaldun jendea eskluitu, euskaltzaleak iraindu, bere sentimenduetan agreditu. Horixe egiten ari dira. Ez da jeneralizazio bat, baizik gertaera xehe askoren akumulazioa.
- Ekainaren hasieran izandako euskararen Kontseiluaren manifestazioaz oroitu. Baimenik ez Gaztelu plazan sartzeko: saski baloi joko batzuk prestatu zituen, ziurrenik espresuki manifestariak kanpoan bazter uzteko asmo osoarekin. Megafoniarik erabiltzeko baimenik ere ez. Zokoraturik eta isilik. Guztia irentsi behar izan genuen. Baina min egin zigun umiliazioak, min egiten digute.
- Hizkuntzaren gaian, Udaletik plano zabalagoa joaz, Gobernutik Hizkuntza Politikako Zuzendaritzatik egindakoak ezin konta ahala dira, zein baino zein zakarragoa, banan bana kontatu behar izan ditugunak. Hemen bat bakarra: UEUrekin urtetan eginiko elkarlanerako hitzarmena halako batean hautsi; laguntza ukatu egiazko unibertsitatea ez den aitzakiarekin. Aldi berean egiptologia bezalako diziplina zientifikoa lantzen ari den elkarte pribatu bati unibertsitate lerruna aitortu dio praktikan. Parlamentuak agindutakoari muzin, jaramonik batere ez. Geure begiz ikusi dugu, eta *Euskalerrira Irratian* kontatu behar izan dugu.

Honelakoak kontatzera behartuak gaude egunetik eguner. Adibide batzuk dira, bada luzaz aritzeko. Honelako aleak banan bana emanez, egun, aste, hilabete eta urteen joanean, meta egiten da, piloa. Eta, halako batean meta horri begirada panoramiko eman, eta agertzen den erretratua, berez da adierazgarria. Zer gertatzen den azaltzeko klabeak erakusten ditu. Funtzionamenduaren mekanismoak zein diren. Bai gutxienez hipotesi batzuk formulatzeko adinakoak. Nahi bezala agintzen dute, nahi dutena egiten. Gauzei izena jartzen hasita, beraz: Autoritarismoaren erakustaldi etengabea; boterearen erabilera antidemokratikoa. Eta hortxe daude, tinko, seguru. Inpunitatea dute. Immunitatea; Ez minik ez zigorrik haiendako. Nola da hori, nola lortu dute?

Oso maiz atera behar izaten dugun beste langai batekin azalduz: Bardea, entrenamendu militarrek egiteko gunea, poligonoa. Urteen joanean ugari izan dira adierazpen eta erabaki ofizialak, Parlamentuak emanak, baita Gobernuak berak ere: aski zela, Estatuarekin egin dagoen kontratuaren iraupena agorturik, kitto eta ez gehiago. Dozenatik gora dira halako proklama ofizialak. Ozenki emanak. Gero berriz, atzera eta ontzat eman da beste urte mordo batean erabiltzeko akordioa. Hortxe ari dira, Europa guztian toki bakarra, hegazkinetatik bonbardaketak nola egin ikasten. Nafarroaren lur zati bat horretarako utzia, NATOkok, estatubatuarrak ere bai. Ekialde Hurbil, Erdiko edo Urru-nekoan erakutsiko dute Nafarroan ikasia. Zeren truke? Hori da galdera. Diru truke, lehendabiziko erantzuna. Bardeako lurren erabiltzaile diren, erabiltzeko eskubide duten herriek dirua, kanon bat hartzen dute Madrilgo Defentsa Ministeriotik. Horrela dago arautua.

Hori bakarrik?: militarrek behar eta Europa guztiak eskaintzerik ez duen zerbitzu bat ematen dio Nafarroak Estatuari. Horren ordaina zein ote da? Hartzekodun posizioan egonik Nafarroa, ez al du hartuko? jar dezagun, hipotesi moduan nafar agintariak interes berezia dutela azpiegitura handi, erraldoiren bat eraikitzeko. Proiektu diskuti-garri eztabaidatua, baina Estatuak sostengu inkondizionala emateko konpromisoa hartu du, trukean. Nik zuri lur zati bat; zuk niri inbertsio hau. Hipotesia besterik ez da. Ziztrin samarra ematen du: erabilera militarreko, hiltzen ikasteko baimena, azpiegitura zenbaiten inbertsioaren truke. Hipotesi hau aintzat hartuz gero, pista eman lezake beste zerbaiteko. Zer gehiago dute Nafarroako agintariak Estatuari saltzeko? Ordainak eskatzeko? Handi, garrantzizko, erabakigarri den zer?

Erantzun posible bat: Estatuak duen ondarerik maitagarriena, lehentasunetan prioritariora: batasun territoriala; aberriaren zati-ezintasuna. Ez da azalpen asko eman beharrik; Euskal Herria bere kasa ibili zale den herria dela gogoratzea aski da: zer da hegaldia zamaten duen oztopoa?... Nafarroa. Eginkizun estrategikoaz ari gara.

Herri honetako agintariak beren gain hartua dute konpromisoa Euskal Herriaren martxa oztopatzeko. Eta prezioa jartzen diote lan honi, Estatuaren nahiarekin bat izateari leialtasuna deitu eta leialtasun hori saldu. Faktura pasatzen diote Gobernu zentralari. Eredu instituzional politikoa ez ukitzeko konpromisoa (horrekin batera, ia gauza bera beste izen batekin: botere-multzo jakin batek bere kontrolpeko esparruaren ustiaketa eskusiban egiteko eskubidea; negozioak, kontzesioak, kontratuak...

Nafarroa ofiziala, edo Botere politiko-ekonomiko-mediatiko nafarra multzo kontzentratua, ahaltsua da. Parte dira bertan alderdi sindikatu, sozietate publiko eta anonimo, presio egiteko erakunde indartsu batzuk. Horiek biltzen, aglutinatzen dituen oreka konglomeratua da; guztiak harreman sare trabatuan, barne lotura estuko entramadoa, gotortua, baztertzaila, begirada deserosotik libre aritu nahi dute.

Kirats usteleko portaerak antzematen dira maiz samar, kargu publiko eta interes pribatuen arteko nahasmenak, baina kontsentituak daude. Gobernu zentraletik imintziorik txikiena egiten hasi orduko, Nafarroatik estatu mailako kontua dela, *cuestión de estado* dela gogoratzen diete. Edo *menos palabras, más cemento*. Normalki Estatuak eskuzabal, naharo eskertzen dio leialtasuna. Inbertsioak naparrek senti dezatela ongi doakiela *statu quo* honetan.

Baina gehiago ere bada: Bula erosten dute, besteok bete beharreko dauzkagun arauak betetzetik libre, salbuesiak, eximituak daude Immunitate, inpunitatea da leialtasunaren ordaina. Egiten uzten diete. Ez ikusiarena egiten dute. Berdion dio astakeriak egitea edozein arlotan, Kulturarenean edo beste edozeinetan. Bula dute. Non dira, bestela, beste zenbaitetan huskeria batengatik urkamendu mediatikoak antolatuzko zaletasuna eta erraztasuna duten horiek? Badakite horiek ere zein den jokia.

Ohar batzuk:

- Zientzialariak dioten moduan, gertatzen denaren esplikazio baliozkoa ematen duen eredu bat da.
- Kudeatzaile ona da, abantailazko posizioari etekina ateratzen diona, aukerak probetxatzen dakiena. Traktante ona. Politika transakzioa da, salerosketa. Horrela bada, bedi, baina ziztrin gelditu ohi da. Leialta-

sunan esan baina xantaiaren antz handia izaten du. (Paper tristea da Nafarroari jokarazten diotena, instrumentalizatuz, azken batean)

- Gehiengo sozialaren babesa, hauteskunde demokratikoetan gehiengoaren sostengua du sistemak. Eragozpena, hala ere: gehiengo izatetik guztia izatera koska bat dago. Ez dute hori ikusten. Gehiengo totalitatea balitz bezala ari dira, -gutxiengorik, besterik edo bestelakorik ez balego bezala-. (Horrela jokatzeak totalitarismotik gertuago dirudi joko arau demokratikoetatik baino.)

Gertaera puntualei begirada panoramikoa emateak dakarren erretratua da. Behaketak berak ekarria. Errealitateak, ez begiratzeko modukoak. Gertatzen direnak dira, eta guk, kazetari garenok zer gertatzen den kontatzen dugu. Zer gerta, huraxe konta. Beste medioek ere gauza bera egiten ote dute?

6. Albisteen zirkulazioa Nafarroan.

Inguratzen gaituen errealitate hori nola agertzen da Nafarroako hedabideetan? Ez du zerikusi handirik marraztu dugunarekin. Izan ere, hein handi batean, botere-entramadoaren luzagarria baita albisteen zabalkunde sistema.

Batek kanta, eta besteak koroa egin, oihartzun akritikoan. Batek erakusten du bidea, zer esan eta nola; zer esan eta zer isildu. Hegemonikoa da, tradizioa du, ehun urte beteak ditu, salmentan eta banaketan txiki uzten ditu gainerakoak. Izena esan beharra ere ez dago: *el periódico*, esan, eta denek ulertzen dute. Egunkariaren antonomasia da Nafarroan.

Alde batetik, beste hedabide lokalek baino egitura eta erredakzio talde zabalagoa du; bestaldetik sakon txertatua dago nafar gizartean eta harreman estuan beste botere guneekin. Ondorioa da aurrea hartzen duela askotan, eta besteek segimendua egin behar izaten diotela. Baina gehiago dago, zer den albiste, zein mezu merezi duen hedatua izatea, zeinek ez edo zer dagoen mundutik at, hein handi batean hortxe erabakitzen da praktikan. Bere indarra aski ez eta gero beste medio txikietan, batez ere irrati eta telebista lokaletan lortzen duen errepika dago.

(Inork ez dezala oker ulertu: badira bestelako hedabideak, orbita propioan jiraka dabiltzanak. Baina konparazioa latza da. Egin izan ditugu behaketa batzuk. Bat aipa liteke: Eguesko afera. Udal administrazio, alkate eta honen negozio pribatuak, postu publiko, lursailen erabileraren kalifikazio, negozio pribatu eta halakoak. Duela urtebete agertua, hegemonikoa ez den medio batek atera zuen. Beste inork ez zion oihartzunik eman, ezer atera ez balitz bezala. Egunkari horrek, saileko beste atal batzuk atera zituen gero, baina besteak isilik. Zortzi bat egun behar izan ziren, hedabide hegemonikoak gaia hartu arte, bere gisa, eta orduan iratzarri ziren besteak, sateliteak, irrati lokalak. Ordura arte betatua izan balute bezala. Euren iturri (ia) bakarra zein den erakutsiz).

Ahal handikoa da, eta arretaz aztertze modukoak dira esandako egunkari hegemoniko horretan geroaldiko aditzarekin agertzen diren albisteak, iragarpenak: El gobierno aprobará la próxima semana. Aurreraturik ematen duen gertaera baino gehiago, Gobernuari zer egin behar duen esaten ari zaiola ematen du. Agindu itxura beteko iragarpena. Estudio sistematikoa egin behar litzateke, baina hipotesi moduan, susmoa.

Boteretsua, gizartean sartua, influentzia handikoa, eragile. Huskeria handi bihurtzeko indarra, garrantzizkoa gertatu ez balitz bezala pasaraztekoa. Berez eskandalua izateko zama duena irensgarri bihur dezake eta, alderantziz, ezereza hanpatu eta horri begira fokoak jarri. Horixe baita kontua, fokoa zeri jarri, zer argitara atera, eta zer itzalean, ilunpean utzi.

Jakina, Nafarroaren bertsio ofiziala zabaltzen du: paradisua ez, baina hor nonbait. Aitzindaria da gure komunitatea, edonoren inbidia. *Statu quo*, gauzak diren bezala, ongi daude, ezin hobekiago. Traba bakarra proiektu ofizial guztiei oztipoa jartzea beste helbururik ez duen jende talde bat, gutxi eta gaizto, beti berberak, gehienbat euz-

kadianoak. Asko luzatu gabe, doktrina ofizialaren hornigai bat da Nafarroaren espainiartasuna. Egunkari horrek bereziki gorrotatzen du proiektu euskadianoa (z eta c-rekin maiz agertu izan du, euzcadi). Horren etsai amorratu, eta euskadianok edozein bazterretan aurkitzen dituenak, baita pertsegitu ere dituenak. Hor bai obsesioa, eta banaketa manikeo baterako irizpide izaten dena: euskadianoek zerbaiten alde egiten badute, nafar zintzoek gehiengo sozialak hori gaitzetsi beharra du, zernahi dela, esate baterako Gaztelu plaza azpiko ondare kulturala.

Kurioso da mekanismo hori. Euskararekin ere gertatzen da: euskara maite dute euskadizaleek. Ni ez naiz euskadizale, beraz ez dut, Nafarroak ez du euskara maite. Edo maite badu, *vasco sí, el de antes*. Antzinakoa, eta bazterrean, sukalde zokoan, edo mendiko bordan.

Periodiko horrena, gai serioa da, larria, batez ere bere ikusmoldeak zabaltzeko eta sarrarazteko zenbateko indarra duen ezagaturik, eta aldi berean zabaltzen dituen ideia eta ikusmolde horiek zein diren jakinik. Aurtengo udaberrian agertutako liburu batean, (Ramon Lapeskera: *Me avergoncé de Diario de Navarra*, Pamiela argitaletxean) ikus daiteke.

Ezaugarri bat, manikeismoa da; sailak aise bereizten ditu: nafar zintzoak dira gehienak, gehiengo; bestaldean belar gaiztoak, bazter nahastaileak. Lerro banatzailea; eredu politiko instituzionalarekin konforme izan ala ez. Ezezkoa bada, horrek beste tatxa eta gaitz asko dakar berarekin.

Baina askoz ere gehiago dago: historikoki, Autoritarioaren eta ordenaren defendatzaile handi, diktadurak demokrazia baino nahiago izan ditu; errepublikaren aurka ez bakarrik idatziz, konspirazioa antolatzen, buruzagi faxistekin harremanak egiten, altxamenduaren hasierako uneetan rol erabakigarria izan zuen, gero errepresio basatiaren bultzatzaile; Francoren aldeko, jakina, baina ez hori bakarrik, Mussoliniren miresle eta Hitler beraren goresle izan zen. Hori guztia joana da, baina periodiko horrek ez du damurik erakutsi, Ez barkamenik eskatu. Ramon Lapeskera idazleak gogoratu duen bezala. Periodiko hori da Victor Praderak mamituriko doktrina zabaldu duena, paktismoaren doktrina, eta hortik eratorritako nabarrismo diferentziazionistaren asmazioa hedatu, gero del Burgok eguneratu eta amejoratu ondoren, gaur egun Nafarroan dugun errejimenaren eragile, aita-ama eta zaintzaile. Hortxe erditua, hortik propagatua. Probintziabakarreko navarrismoa azken finean periodiko horren emaitza dela esatera dator Miguel Izu, *Navarra como problema* liburuan.

Nobedadeak izan dira azken hilabeteotan (egunkari horretan). Alde batetik beste egunkari bat agertu da Iruñeko plazan La estafeta, irudi duenez eskuineragotik. Bestalde Administrazio Kontseilu buruan aldaketa. Ikusi egin behar Periodikoaren joerara irizpide berririk eraman nahi eta ahal izanen duen. Nafar zintzoen multzora euskaltzaileen sektore bat inkorporatu nahi bat, edo horren sintoma batzuk antzematen zaizkio.

Gainerakoan, informazioaren zirkulazioa nolakoa den, Prentsa Bulego potentia du Administrazio Foralak, bere rola jokatuz, agintaritzari komeni zaizkionak zabalduz, komeni ez zaizkionak ezkutatzuz, halako buulegoetan ohi den moduan informazioa eta propaganda nahasiz, todo va bien esaldiaren bertsio nafarraren hedatzaile izanez. Nafarroa honetan edo hartan aitzindari dela, “Navarra es pionera”, halako edo bestelako ranking edo ongizatearen sailkapenean edo errenta gehien dutenen artean. Horrela ateratzen da gero informazio lokaleko albisteen hamarretik sei. *El Gobierno ha decidido, el Gobierno ha dicho*. Eta horrekin kontent eta pozik.

Ildo honetan, irudi bereziki tristea ematen dutenak telebista lokal berri samarrak dira. Pribatuak dira, baina publikoki finantzatuak, dirulaguntza zuzenak ez badira publizitate instituzionalaren bidez, eta hortaz, lerro ofizialekoak. Kazetaritza jenerorik penagarrienaren adibide, kazetaritza enkomiaistikoa, dena lausengu eta losintxa agintari maiteei, mandatari fantastikoak ditugu, gurea bezalako herririk ez da. Ez da munduan hoberik.

Beti irudi zait tamalgarrak kazetari tonto-utila. Irizpiderik gabekoa, amnesikoa, agintarien esanak ergelki zabalzen dituen, mezua xenofobia dela ohartu gabe ere. Izatetik hek bezala Urtzi jaunak libra gaitzala.

7. Gurean zer

Ez dugu besteak ez bezalako izateko gogo berezirik, alternatibo izateko bokaziorik. Ez dut uste. Profesional, homologatu izan nahi dugu, jende zintzoen artean kontsideratuak izan nahi genuke, euskaraz bai, baina funtsean beste-en antzeko. Ezin dugu ordea horrelakoak izan, ez digute uzten. Ingurumenak behartzen gaitu, ikusten duguna kontatzeko konpromisoa dugu egunez egun. Horretan ari gara.

Izenak berak baldintzatzen gaitu, puska batean mugatzen. *Euskalerrria Irratia* gara. Izena, 1987an edo aukeratu: *Euskalerrria*, honela h-rik gabe. Komunikabideetan tradizio bat zuen: Telebista espainiarra bakarra zenean Joxemari Iriondok duela 30 urte luze egiten zuen saio hura; eta aldi berean, lauso samar baina euskararen herri, euskararen gordeleku edo antzeko kontzeptu gutxi gorabehera hizkuntzan zentratua bagenuen buruan beharbada. Asmoen deklarazioa bada behintzat.

Gaiak badu garrantzia, batez ere Nafarroan historikoki Euskalerrria kontzeptua onartua izan arren, azken urteotako inboluzioaren emaitzaz, Euskal Herriaren ukazioa ofizialdu baitu eskuinak: esa quimera que llaman Euskalerrria, esaten aditu diogu UPNko eledun bati, ziur aski Popularren manualetan emaniko jarraibideari men eginez. Euskal Herria ukatzera iritsi dira eta gu *Euskalerrria* (irratia) gara.

Hortxe ari gara; zer, nola eta norentzat, labur esateko:

- Langai nagusia, informazioa da. Horixe gure eginkizun nagusia.
- Lanaren antolaketa, bi norabidetan doa, alde batetik gu haren bila joanez, deitzen gaituztenak, zer esana dutela iragarri eta horien esanak eta mezuak jasotzera. Horrekin saio informatiboak eginez.
- Edo gurera etortzera animatuz, gonbidatuz, ekarriz edo liatuz. Eta horrela emanaldi magazinak eginez.
- Oso kontuan hartuz beti norentzat ari garen. Norentzat eta norekin, ia gauza bera baita: jende talde jakin baten zerbitzura ari gara. Jende hori Iruñea eta inguruko euskaldunak dira. Jende hori Iruñerrian, barreiatua hiri honetako mugimendu, talde, antolamendutan; edo partikular gisa.
- Horien asmo, kezka, proposamen, iritzi eta ikuspuntuak entzun, bildu, plazaratu, ezagunak izateko bidea jarri. Interes berezia hizketan jartzeko, mintza daitezen.

Euskaraz. Euskara errealitate soziala, tresna funtzional izan dadin. Hortxe gure enpeinu nagusia. Jende hori hein handi batean sakabanatua, oso erdaldundua den gizarte batean bizi da, euskara presentzia urrikoa da. Ezkutuan, oso isilean gelditzen da. Huts hori bete nahirik. Oso kontuan hartuz, askorentzat irratia dela euskararekin kontaktua izateko aukera bakarra.

Funtsean informazio saio eta magazinak. Harako poesia hura bezala, gure produktua oso merkea da, herriari ematen diogu herriak emana. Ematen dugu debalde, edo guri bederen debalde ematen digu herriak, Bitartekari gara: batzuen ahotik hartu, eta nahi duenaren belarrirako eman.

Talde profesional murrizta. Hori bai, paritariora, zenbat gizon hainbat emakume, bost eta bost. Zertan dabilen badakien jendea. Ahal duena egiten duena, eta indarrak ahal bezain ongi erabiltzera behartua dagoena. Horregatik liante izatea egokitu zaiona. Inguruan nor dabilen eta hura animatu, gonbidatu, batzuetan engainatu, koordinatu, esplotatu, ustiatu borondate oneko jende asko, xoxik ikusi ez duena, eta batere itxaropenik ez duena.

Zer esana duen jendea bilatu, asko dira, -denak-, zer esan baduena, esaten badakitenak horri bide ematea da gure lana; ahal bada estudioan, bestela telefonoz; ahal bada zuzenean, bestela aldez aurretik grabatuta, baina jende anitzen ahotsez beteriko saioak izateko, partizipatiboak, kolektiboaren emaitza agertzeko, biltoki edo plaza bihurturik irratia. Hor urtez urte aurkitu duguna, lagun eta laguntzaile borondate handikoak, eskuzabalak, euren jakintza eta denbora emateko dispozizioan daudenak. Nork berea: sormena, kritika, iruzkina, informazioa, ikusmoldea;

ahal dugun gehiena, ahal dugun onena, ahalik espektro zabalena. Gehienbat gure hurbilekoak, Iruñekoak, Nafarroakoak, baina hori ere ez da dogma, lagun espezialista askotxo ditugu gurekin, herrialdearen mugetatik kanpoak fisikoki, baina gure konpartsan dabiltzanak.

Lotsa ia galdua dugu, lotsaren poltsa hustua, ahitua, atrebentzia gehiegi, abusuagatik, gertatu izan zaigu pertsona berarengana egunean bi alditan jotzea. Horrela izan gabe ere, eskertzekoa, oso eskertzekoa jende horren borondatea. Beraz, lantaldeko kazetariari gertatzen zaie, esatari eta dinamizatzaileria; koro zuzendari esateko gehiegi litzateke, egokiago beharbada krupier modukoak, joko banatzaile, eta akuilatzaile; jokalarien artean ere denetarik baitago, asko irratizale bokazionatuak, besteak borondate oneko jendea, ezetz esateko unea aurkitu ez duena utzi ez diotelako.

Programazioaren xehetasun batzuk emanez:

- Informaziorako tarte labur batzuk, goizaldean: bi, bosna minutukoak.
- Informazio saio garatuak, ordu erdikoak, goizean, bazkალაurretik, eta bazkალondoren ordubetekoa (honetan, erdi eta erdi, berrien kontaketa gehi konpainia).
- Magazinak goizean eta arratsaldean. *Karrizkoluzio*, bi ordu; *Arratsalde Puntu On*, arratsaldean, bi ordu. Hor gure eskaintzaren ardatza.
- Arrats beranduan musika saioak, laguntzaile kualifikatuek prestatuak eta aurkeztuak: Gontzal Agote, Amaia Lasa, Gorka Urbizu, Joseba Beramendi.
- Gehi astebururako gida-saio bat, gehi, *Asteroida*, astean zehar emanikoen hautaketa, eta adabakiak josiz, errepikaldirak.
- Futbol partiden emanaldirak. Geu ere hor gabiltza igande arratsaldeetako giroa kutsatzen golak oihuka kantatuz.

Oro har, konbentzionalak gara hor ere. Baina esatarien ukitu eta zigilu pertsonalarekin. Horrela esanda, programazio parrillak ez dirudi gauza handia. Ez da. Baina hori da dagoena. Nahi bada, horri guztiari gogoia gehitu behar zaio. Gogo hori plus bat da beti; Irudimena, aldikakoa, intermitentea; ahulezien sailean, kenkari, geure mugak eta akatsak: ahalmen limitatua. Indarra, gogatsu aritzea, batzutan txinaurri lanetan, bestetan txori papogorri kantari alferrarena egiten. Beti kaskagor. Intentsitatez bizitzen egunetik egunerakoa.

Estiloaz, esan dezakeguna, komunikazioa ahal bezain naturalena nahi dugula. Bizia, Funtzionala. Nahia hori da bederen. Emaitza ez dakit. Programazio generalista, euskaldun jende guztia aintzat hartu nahirik. Inor baztertu gabe.

Libre? Hein handi batean bai. Beharbada, ziurrenik, txiki garelako. Txikiago, libreago, hedabideak: itzal handiko diren heinean presio gehiago haiengan. Gu apal eta txiki gara. Gure txikian zer edo zer egin dezakegula iruditzen zaigu eta horretan ari gara.

Hauekin zertan gabiltzan ezagutzeko hurbilpen moduko bat egin dugu. Gehiago esan daitekeen arren, Nongotasunaz, esate baterako. Irrati lokala gara. Hurbileko lanetan ari gara. Tokitasunaren defentsa egiteko arrazoiak badaude. Gure produkzioa, egunean zazpi ordukoa da. Astebukaeretan gutxiago. Baina zergatik mugatu zerbitzua gertukora? *Euskadi Irratia* zabaltzen dugu. Plano lokalari nazionala gehitzen diogu. Ez da formula berria, baina bai gutxi erabilia euskarazko irratietan. Osagarritasuna ikusten dugu guk, binomio horretako elementuak elkarren aberasgarri ikusten ditugu.

d. TOKIAN TOKIKO TELEBISTAK, GEROARI BEGIRA

*Edorta Arana Arrieta
Patxi Azpillaga Goenaga
Bea Narbaiza Amillategi
EHUko irakasleak*

1. Sarrera

Aldaketa garaiak bizi ditu tokiko telebistak Euskal Herrian, Hegoaldean behinik behin. Duela hamasei hamazazpi bat urte aitzindaria izan zen *Plentzia Telebista* emititzen hasi zenetik hona bilakaera gorabeheratsua izan du telebista mota honek gurean. Indar handiz sortu zen, baina komunikabide honen garapenean jarritako esperantzek laster egin zuten topo uste baino errealitate gordinagoarekin. Garestia izanik prentsarekin nahiz irratiarekin alderatuta, gizarte ekimenek eta mugimenduek, baita euskararen ingurukoek ere, zailtasunak izan dituzte, salbuespenak salbuespen, tokiko telebista euren komunikazio estrategietara biltzeko.

Udalek, berriz, oso indar eta baliabide gutxirekin sustatu dituzte tokiko telebistak: euskal udalek, gutxi batzuek izan ezik, ez dute inoiz gizarte-komunikabideekiko kezka handirik erakutsi eta telebistagintzan beste inon baino ageriago geratu da hutsune edo ardura eza hori. Erakunde autonomikoek ere EITB edo balizko nafar telebista bat eraikitzea lehenetsiz, bazter batera utzi dituzte tokiko telebistak. Enpresa-ekimenak, bestalde, urriak izan dira: Euskal Herriko udalerriak ez dira biztanle kopuru handikoak, hiriburuak izan ezik, eta telebistaren merkatu lokalak zailak dira egituratzeko -arazoak beste telebista eskaintzen artean nabarmentzeko; arazoak baita hartze egokia ziurtatzeko, antenak egokitu egin behar baitira; entzuleria neurtzeko modurik eza-. Baldintza horietan gutxi izan dira tokiko telebistan dirua inbertitzera ausartu diren euskal enpresaburuak.

Bada, azkenik, tokiko telebistetan gertatutako geldiunea eta oro har sektore honen azpigarapena Euskal Herrian espikatzen duen beste faktore bat ere: legedi eza edo, hobeto esanda, legeen garapen eta aplikazio eza. Horrek ziurgabetasun handia ekarri du telebistagintza lokalera, eta ez du ez batzuen ez besteen ekimenak bideratzen lagundu.

Azken urteotan, ordea, berpiztu egin da tokiko telebistekiko interesa. Lege-hutsunea aprobe txatuz komunikazio-taldeak (Correo-Vocento, Prisa,...) indartsu sartu dira tokiko telebistetan ere, krisiak jota zeuden estazioak erositik edo berriak ezarritik, baina betiere haiek kateetan bilduz. Teknologia eskuragarriagoa izatearen ondorioz, beste komunikabide batzuei lotutako ekimen berriak sortu dira, bizitasuna ekarri dutenak tokiko telebisten eremura. Espainiako gobernuak, azkenik, tokiko telebistentzako frekuentzia plana onartu du; kontzesioak, ordea, digitalean bakarrik emititzeko izango omen dira eta hartara tokiko telebistek ezin izango bide dute aurrerantzean gaur arte bezala modu analogikoan emititzen jarraitu.

Mugimendu hauekin guztiekin panorama berri bat ari da zirriborrotzen Euskal Herriko telebistagintza lokalean, eragile berriekin, helburu berriekin, joko arau berriekin, egitura berriekin, erronka berriekin.

Ezbairik gabe, telebistagintza lokalak aktore marjinala izateari utzi dio Euskal Herriko komunikazioaren eremuan. Baina bidean, tamalez, espazio lokalean jarduteagatik gertuko komunikazioaren eragile gisa zegozkion zenbait ezaugarri ere galdu egin ditu. Izan ere, gertutasuna oinarri, esparru lokala, komunikazioaren ikuspegitik behin-

tzat, aukera eremu bat bezala ikusi izan da betidanik, beste komunikazio mota bat eraikitzea posible egin zezakeena, Estatu edo nazioarte mailako komunikabideek hedatzen duten komunikazio ereduaren aurrean. Aukera hori elementu ezberdinen gainean oinarrituko litzateke, hala nola hurbileko edukiak eskaintzeko ahalmenean, gizartearen nahi eta beharretara (komunikatiboak, linguistikoak, politikoak...) egokituagoak; edo gizartearen parte-hartzea komunikazio prozesuetan sustatzeko ahalmenean ere, ahotsa izateko aukera emanez bestela komunikazioa jasotzera mugatuta dauden gizarte sektore eta taldeei.

Baina komunikabide lokalen aukerak tokian tokiko bizitza kulturala, politikoa eta ekonomikoa suspertzeko eze-rezean gera daitezke, eta aukera zena mehatxu ere bihurtu, baldin eta haiek errepikatu egiten badituzte eremu zabalagoetako komunikazio egitura eta ereduak. Eta horixe da, zoritxarrez, neurri handi batean, Euskal Herriko telebistagintza lokalean gertatzen ari dena: euskararen suspertzeko tresna baino gazteleraren hedapenerako bidea bihurtzen ari baita, ahots berriak sustatzeko baino komunikazioaren kontzentrazioa talde handien eskuetan areagotzen ari duena, eduki propioak eta gertukoak sortu eta hedatu baino kate estatal eta internazionalak programak beste behin ere hedatzeko bidea. Zer aukera daude prozesua berbideratzeko?

Plangintza teknikoa onartuta, urte bukaera baino lehen, kontzesioak emateko baldintzak ezarrita egon beharko dira. Baldintzak, Estatuko arau orokorra errespetatuz, Autonomia Erkidegoek jarriko dituzte eta tokian tokiko telebistaren eredu ezarriko diren baldintza horien arabera izango da hein handi batean.

Hauxe da, beraz, tokian tokiko telebisten balioaz jabetzen diren eragileek defendatu nahi den ereduaren gaineko hausnarketa egiteko mementoa. Artikulu honen helburua Estatu lege orokorra abiapuntu modura hartuta, Autonomia Erkidegoek baldintza propioak ezartzerakoan hartu beharreko erabakietan arreta jartzea da, Estatu legea dagoenetan onartzeko edo araudi eza tarteko, gauzatu den errealitateari egokitutako neurriak hartzeko tentaziorik balego.

1. Taula: Hego Euskal Herriko tokiko telebisten zerrenda

Izena	Nondik	Noiztik	Nola	Taldea	Audientzia potentziala
ARABA					
<i>Alava 7</i>	Gasteiz	2002	Uhinez	Correo	228.921
<i>Alto Nervión TV</i>	Laudio	2000	Uhinez	Localia	45.000
<i>Canal 58</i>	Laudio	1998	Uhinez	Ez	20.453
<i>Canal Gasteiz</i>	Gasteiz	1996	Uhinez, kablez	Localia	286.387
<i>Televitoria</i>	Gasteiz	1995	Uhinez	Cadena Local	228.921
BIZKAIA					
<i>Bilbovisión</i>	Bilbo	2000	Uhinez, kablez	Correo	1.100.000
<i>Canal Bizkaia</i>	Bilbo	1997	Uhinez, kablez	Localia	1.000.000
<i>Durango Telebista</i>	Durango	2002	Uhinez	Ez	90.495
<i>Gran Bilbao TV</i>	Bilbo	2000, 2003	Uhinez	Ez	865.799
<i>Plentzia TB</i>	Plentzia	1987	Uhinez	Ez	3.643
<i>Proyección TV</i>	Bilbo	2000	Internet	Ez	-
<i>Tele 7</i>	Barakaldo	1989	Uhinez, kablez	Ez	865.799
<i>Telebilbao</i>	Bilbo	1992	Uhinez, kablez	Cadena Local	1.200.000
<i>Urdaibai Telebista</i>	Gernika	2002	Uhinez	Ez	30.000
<i>Uribe Kosta TB</i>	Sopela	2000	Uhinez	Ez	100.000

Izena	Nondik	Noiztik	Nola	Taldea	Audientzia potentziala
GIPUZKOA					
<i>GoTB</i>	Arrasate	2000	Uhinez, kablez	Ez	62.010
<i>Goierri</i>	Lazkao	2003	Uhinez, kablez	Ez	63.510
<i>Ikas TB</i>	Donostia	1994	Uhinez	Ez	311.398
<i>Izarraitz TB</i>	Azpeitia	2004	Uhinez	Ez	35.000
<i>Jaitxiki TB</i>	Zarautz	92-95, 2001	Uhinez	Ez	21.078
<i>Kaito TB</i>	Azpeitia	1986	Uhinez	Ez	25.000
<i>Kanal On</i>	Andoain	1988	Uhinez	Ez	13.814
<i>Kateberria</i>	Eibar	1994	Uhinez	Ez	28.219
<i>Localia Gipuzkoa</i>	Donostia	2001	Uhinez, kablez	Localia	311.398
<i>Mendaro TB</i>	Mendaro	2002	Uhinez, kablez	Localia	1.500
<i>Oarso TB</i>	Oiartzun	1996	Uhinez	Ez	60.000
<i>Teledonosti</i>	Donostia	1994	Uhinez, kablez	Correo	500.000
<i>Telesko</i>	Eskoriatza	1985	Kablez	Ez	3.925
<i>Txingudi TB</i>	Irun	1997	Uhinez, kablez	Localia	85.000
<i>Urnieta TB</i>	Urnieta	1992	Uhinez, kablez	Ez	5.518
<i>Urola TB</i>	Urretxu	1998	Uhinez	Ez	25.000
<i>Zarauzko TB</i>	Zarautz	1991	Uhinez, kablez	Ez	28.000
NAFARROA					
<i>Buñuel TV</i>	Buñuel	1996	Kablez	Ez	2.387
<i>C.L. de Funes</i>	Funes	1997	Kablez	Ez	2.150
<i>C.L. Mendavia</i>	Mendabia	-	Kablez	Ez	3.568
<i>C.L. Arguedas</i>	Arguedas	1996	Kablez	Ez	2.278
<i>Canal 4</i>	Iruñea	1994	Uhinez, kablez	Localia	500.000
<i>Canal 6</i>	Iruñea	2002	Uhinez, kablez	Promecal	500.000
<i>Canal Peralta TV</i>	Peralta	1999	Kablez	Ez	4.602
<i>Popular TV Navarra</i>	Iruñea	2003	Uhinez	COPE	500.000
<i>Ribaforada TV</i>	Ribaforada	1999	Kablez	Ez	3.095
<i>Tafalla TV</i>	Tafalla	1996	Uhinez	Cadena Local	10.172
<i>Tele Marcilla</i>	Martzilla	1996	Kablez	Ez	2.337
<i>Telecadreita</i>	Cadreita	2001	Kablez	Ez	1.867
<i>Telecaparroso</i>	Caparroso	1996	Kablez	Ez	2.383
<i>Telecascante</i>	Cascante	1995	Kablez	Ez	3.900
<i>Telefusti</i>	Fustiñana	1996	Kablez	Ez	2.312
<i>Telerrrebote</i>	San Adrian	1996	Kablez	Ez	5.106
<i>Tipi-Ttapa TB</i>	Bera	1997	Uhinez	Ez	15.000
<i>TV Cirvonera</i>	Cintruénigo	1997	Kablez	Ez	5.313
<i>TV de Milagro</i>	Milagro	1996	Kablez	Ez	2.573
<i>TV Villafranca</i>	Alesbes	1996	Kablez	Ez	2.691
<i>Valtierra TV</i>	Valtierra	1996	Kablez	Ez	2.508
<i>Xaloa TB</i>	Elizondo	1997	Uhinez	Ez	20.000

2. Tokiko telebisten desregulazio prozesua

Ona edo txarra, legediaren aplikazio ezaren ondorio da, hein handi batean, daukagun panorama. Erregulazioa bi instantzia desberdini dagokie: Estatuari eta Autonomia Erkidegoei.

Estatuari dagozkio alde batetik telebisten jarduerarako baldintza orokorrak ezartzen dituen legea onartzea, non herri telebista eredu orokor bat ematen den eta bestetik, edukien transmisioa posible egin ahal izateko frekuentzien plangintza tekniko egitea. Lan horretan, Autonomia Erkidegoek egindako eskaerak kontuan hartuko dituen arren, beti ere, frekuentzien erreserba, espektoaren edukiaren arabera izango da. Indarrean dagoen Tokiko telebistaren legeak bere bigarren artikuluan aitortzen duen moduan, tokian tokiko telebistek zerbitzu publikoaren izaera dute eta horrela izanik kontzesioa beharko dute, modu legalean, emititu nahiko badute. Bere esparru geografikoari dagozkion emisio frekuentzien kontzesioak ematea Autonomia Erkidegoen eskumena da; kontzesio horiek emateko bere baldintza propioak ezarri ahal izango dituelarik.

Egia esan, tokiko telebistak araupetzen zituzten legeak aspaldi eman ziren, bai behintzat Estatu mailan, baita Nafarroan ere. Baina lege horiek ezarri eta garatzea ahalbidetuko zuten tresna tekniko eta borondate politikoa, ez dira, duela gutxi arte, egon. PPko gobernua horretara jarri zenean, ordea, egiturazko aldaketak ekarri zituen tokiko telebistagintzaren itxuraketan, eta murriztu ere egin zituen erakunde autonomikoen eskuduntzak arloaren gainean.

Hain zuzen ere, 1995ean, Espainiako Alderdi Sozialistak, Estatuako agintaritzatik kanpo geratu baino lehen, tokiko telebistak araupetuko zituen legea eman zuen -41/1995 Legea, abenduaren 22koa, eta handik gutxira, Nafarroako Foru Gobernuak ere aurrekoaren ildo beretik jarraitzen zuen lege autonomikoa onartu zuen. Lege haietan ezartzen zen tokiko telebista eredu gustukoa izan ez (Alderdi Popularra izan zen kontra bozkatu zuen talde politikoa bakarria) eta gobernura heldu zenean nahiago izan zuen laissez faire motako politika egitea, egiten uztea, alegia. Hartara tokiko telebisten kontzesioak emateko prozedura zabaltzea ahalbidetuko zuen Frekuentzien Plan Teknikorik ez zuen egin eta merkatuaren jokoaren esku hutsetan utzi zuen tokiko telebistaren garapena. Izan ere, 41/1995 Legean ezartzen zen ereduak, ordura arteko Kataluniako esperientzian oinarritua neurri handi batean, ukitu sozial eta progresista nahiko nabarmenak zituen, ez zirenak batere ondo egokitzen Alderdi Popularrak bultzatzen zuen ikuspegi liberalizatzailearekin. Besteak beste honako irizpideak ezartzen zituen lege hark:

- Tokiko telebistaren zerbitzu publiko izaera, kanalen gestioa publikoa zein pribatua izan zitekeen arren.
- Emisio eremua: udala; hortik gaindikoez udalen arteko hitzarmena eta Autonomia Erkidegoaren baime-na beharko litzukete.
- Udal bakoitzeko gehienez kanal bi; hala izatekotan, haietako bat publiko izan beharko litzateke.
- Katean emisio denboraren %25etik gora emateko debekua; ezin ezta jabego bereko kateetan bildu tokiko telebistak ere.
- Lizentziak emango zituen agintea: Autonomia Erkidegoa, udalen eskakizunen arabera eta Estatuak ezarri beharreko Plangintza Teknikoaren baldintzetan teknikoaren pean (Autonomia Erkidegoek aukera izango lukete berezko baldintza kualitatiboak ezartzeko, enpresari, programazioari, produkzioari eta hizkuntzari legezkoak, hain zuzen ere, baina betiere Estatuak ezarritako oinarritzko esparru legal orokorraren barruan).
- Plangintza ezarri bitartean, 1995. urteko urtarrilaren 1a baino lehen noizbait emititu zuten telebistek, euren emisioekin jarraitzeko baimena izango lukete; gerora, kontzesioa lortuz gero bakarrik .

3. Egun indarrean dagoen tokiko telebisten legea

Esan bezala, 2002. urtearen amaiera aldera Alderdi Popularra tokiko telebistaren esparru juridikoa aldatzen hasi zen. Bi lege desberdin egin zituen, 2002ko abenduan 53/2002 Legea eta komunikazio talde handien presioen eragi-

nez, 62/2003 Legea. Biak, 41/95 Legearen artikulua erabakigarri batzuen aldarazpenak dira eta, ondorioz, 41/95 Legearen izenpean aurkitu ahal izango dugu bere mamia (http://www.setsi.mcyt.es/legisla/radio_tv/ley41_95/ley41_95.htm). Hogeita hiru artikulua eta lau xedapenez osatutako lege horretatik, tokian tokiko ereduaren egituraketan definitiboak diren batzuk aztertuko ditugu, lehenengo artikulutik, helburuari dagokion horretatik abiatuz, beti ere gure begirada Autonomia Erkidego bakoitzak dituen aukeretan jarrita dagoela.

3.1. Helburua

Helburua lurrazaleko tokiko telebista uhinak arautzea da. Horrela ulertuko da, legearen aurrean eta eskusiboki, irudi ez geldien emisio edo transmisiorako teknologia digitala erabiliz lege honetako 3. artikuluan aipatutako esparru geografikoan kokatutako estazio batetik eta uhin elektromagnetikoen bitartez kontraprestazio zuzenik gabe publikoari eskaintzen dizkion telebista-modalitatea. Transmisioarekin zerikusia duten bi baieztapen esanguratsu egiten dira legearen lehen artikulua honetan:

a. Ikus-entzunezko lege orokor baten premia

Alde batetik lurrazaleko uhinak erabiltzen dituenari soilik dagokio legea, beraz kablea, Internet nahiz satelitez baliatzen direnak araudi honetatik kanpo geldituko dira.

Erabiltzen den bide bakoitzeko esparru juridiko bat egoteak oztopatu egiten du normalizazio prozesua eta batez ere, konbergentzia teknologikorako joera nagusietatik aldentu egiten da. Zentzu horretan, premia nagusietako bat Ikus-entzunezkoen lege orokor bat onartzea da, eta honen barruan ikus-entzunezko kontseilu independente baten osaketa. Kontseilu honek kontzesioak emateko gaitasuna eta horiek lortzeko baldintzak ezartzeaz gain, zigorrak ezartzeko gaitasuna, informazio operadoreen pluraltasunaren eta gardentasunaren gaineko ardura eta multimedia edukiak juridikoki bermatuko lituzke.

Ikus-entzunezko komunikabideen konbergentzia eta edukien transmisiorako oinarri teknologiko guztien erabiltzea joera nagusi den honetatik abiatu beharko litzateke, kontseilu independente hau, telebista digitalerako trantsizioaren erregulatuzaile bilakatuz.

Estatu mailan, mementoz, horrelakorik ez dagoen arren, eta kontuan hartuta Autonomia Erkidegoek beraien esparru geografikoan aritzen diren komunikabideen gaineko eskumenak dituztela, baita Estatu mailan aritzen diren telebistek esparru konkretu baterako egiten dituzten deskonexioen gainekoak ere, aztertzekoak dira lege orokor propio batek ekar ditzakeen onurak.

b. Nahitaezko digitalizazioa

Lege honen arabera tokiko telebistek edukien transmisiorako erabiliko duten teknologia digitala izan beharko du. Digitalizaziorako trantsizio horretan, gainera, tokian tokiko telebistak izango dira lehenak, 2006ko urtarrietik aurrera digitalean bakarrik emititu ahal izango baitute, bestelako telebistentzat analogikoaren itzaltze-data modura 2012. urtea ezarri den bitartean. Orain arte tokiko telebista guztiek teknologia analogikoa erabili dute transmisioan eta digitalizazioa teknologikoki konplexuegia ez bada ere, bezeroa dekodeatzaile bat edo telebista hargailu digital integral bat erostera behartuko luke bere esparruko tokiko telebista jaso ahal izateko, bestelako telebista seinaleak aparatu zaharrenekin jasotzen jarraituko baitu, eta pentsatzekoa da hori ez dela gertatuko. Logikoa litzateke baliabideetan handiagoak diren telebistek aitzindari lana egitea trantsizio horretan eta ez ahulenak direnengan zama hori jartzea. Legeak berak 2006ko urtarriko data hori atzeratzea aurrakusten duen arren, telebista digitalerako bidea, lehenago edo beranduago, egin egin beharko da eta horretan telebista munduan aritzen diren eragile guztiez gain, instituzio publikoek ere badute interesa, ardura eta gaitasuna. Autonomia Erkidego batzuk dagoeneko hasi dira digitalizaziorako pausoak ematen. Horra hor Kataluniako Telekomunikazio eta Gizarte Informazioko Idazkaritzak bultzatu-

tako “Maresme Digital” proiektua, esaterako. Eragile publiko eta pribatu guztiak bateginik, Bartzelona ondoko eskualde oso bateko biztanleak *Catalunya Televisioko* lau seinale digital jasotzen hasi ziren aurtengo uda bukatu baino lehenagotik. Modu honetara, esparru geografiko horretan aritzen diren tokian tokiko telebistek bidea lautua izango dute, trantsizioa naturaltasunez egitea ahalbidetuz.

3.2. Kontzesio kopurua eta emisio esparrua

- Plangintza teknikoak probintzietako hiriburu bakoitzeko eta espektro irrati-espektroak horrela ahalbidetuko balu 100.000 biztanle baino gehiagoko udalerrri bakoitzeko kanal multiplex bat erreserbatuko du.
- Dagokion Autonomia Erkidegoak biztanle gutxiagoko udalerrientzat eskaera egin ondoren, Plangintzak kanal multiplexak erreserbatu ahal izango ditu, betiere espektroak ahalbidetzen badu, elkarren ondoan eta gutxienez 25.000 biztanle baino gehiagoko udalerrien beharrei erantzuteko edo bere hedadurak gutxienez 25 kilometroko eremu batean dauden udalerrri guztiak hartzen dituenean.
- Kanal multiplex bakoitzeko hedadura esparrua, Plangintza Teknikoak berak ezarriko du.

Aurrerago aipatu dugun bezala frekuentzien plan teknikoa egin eta onartu gabe izateak geldiarazi du tokian tokiko telebisten araupetze prozesua. Martxoaren 12az geroztik, baina, onartuta dago Telebista Digital Lokalaren Plan Tekniko Nazionala (TDLPTN).

Kontzesio kopurua eta emisio esparruari dagokionean, bi aspektu dira nabarmentzekoak: lokaltasunaren esangura zehatz-mehatza galdu egiten da. Emisio esparrua ez da udalerrria izango, eskualdea baizik. Beraz muga geografikoa aintzat hartuta, telebista modu hau izendatzeko erabilitako kontzeptuaren errebisioa egiteaz gain, zehaztu egin beharko da eskualde bat osatzen duten banakako udalerrien funtzioa, biztanle eta komertzio gehien biltzen duena eragile aktiboa eta beste guztiak kontsumitzaile pasibo bihurtzearen arriskurik egin ez dadin.

Beste aldetik, lurraldeko hainbat eskualde, mementoz, plan teknikoan agertzen ez direnez, ez dute telebistarako sarbiderik izango; definitutako barruti berri horietako bakoitzari berriz, multiplex bat dagokio, hau da, lau kanal izateko aukera.

TDLPTNaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoak eskatutako 20 barrutietatik 13 izango ditu eta Nafarroak, eskatutako zazprietatik bost.

3.3. Zerbitzuaren kudeaketa

- a. Tokiko telebista digitalaren plan tekniko nazionalak barruti baterako tokiko telebistaren difusiorako kanal multiplex baten erreserba onartu duenean, barruti horretako udalek multiplex horretatik teknologia digital bidezko tokiko telebista programa bat kudeatzea erabaki dezakete.
 - Erabaki hori hartzea udal plenoari dagokio.
 - Barruti horretan udalerrri bat baino gehiago egongo balira, erreserbatutako kudeaketa zuzeneko programa, eskaera egin duten udalerriei emango zaie, eta elkarrekin kudeatu beharko dute.
- b. Tokiko telebistaren zerbitzuaren zabalkunderako libre dauden beste programen kudeaketa pribatua izango da.
- c. Kasu bietan Autonomia Erkidegoari dagokio zerbitzua eskaini ahal izateko kontzesioak esleitzea.

Legearen arabera, lau kanaletatik bakarra izan daiteke publikoa, beti ere udalek horrela eskatuko balute, besteak, izatekotan, pribatuak izan beharko lukete. Eskaerarik ez balego, kudeaketa publikorako erreserbatutako programa hori, modu pribatuan kudeatu ahal izango da. TDLPTNaren onartzearekin batera eskaerak egiteko epeak jarri ziren, eta programa publikoen kudeaketarako eskaerak egiteko epea uztailaren zortzian bukatu zen. Euskal Autonomia Erkidegoan izandako erantzuna oso urria izan da, bederatzi Udalek baino ez dute egin eskaera, horrek estrategikoa den medio batekiko interes falta adierazten du. Nafarroari dagokionez ezinezkoa egin zaigu datuak lor-

tzea. Potentzialki pribatuak izan daitezkeen programen kontzesioak lehiaketa bitartez esleituko dira. Abenduaren zortzira arteko epea daukate Autonomia Erkidegoek lehiaketan deialdia egin eta kontzesioak emateko, eta ondorioz baldintzak jartzeko.

d. Lehiaketarako kontzesio kopurua

Honi dagokionez lehenengo hartu beharreko erabakia lehiaketara aterako den kontzesio kopuruari dagokio. Nahiz eta legeak kudeaketa pribatuko hiru edo lau kanal onartu barruti bakoitzari, Autonomia Erkidegoak ez daude guztiak ateratzera derrigortuta, gutxiago izatea erabaki lezakete, kontuan hartuta hiriburuak izan ezik TDLPTNak ezarritako barrutiak ez direla biztanle kopuru handikoak, merkatua mugatua dela, eta ondorioz zaila dela lau kanalek bizirautea segun eta zein esparrutan. Horren harira jakina da Telebista pribatuko 10/1988 Legeari egindako aldarazpen batek, komunikazio talde handiei tokiko telebistetan aritzeko ateak zabaldu dizkiela kapitalaren aldetik, jabetzaren aldetik. Horren arabera, Estatu mailako telebista batean kapital edo boto eskubideetan %5eko parte-hartzea duen edozein pertsona fisiko edo juridikok, parte-hartze esanguratsua eduki ahal izango du emisio esparru autonomiko edo lokaleko sozietate batean, barruti guztiak batuta beraien emisioak Estatu mailako biztanleriaren %25 baino gutxiagora heltzen den bitartean. Araurik ezak iraun izan duen bitartean, talde hauen interesa hiriburuez gain (non nabarmena den), esparru industrialetan ere badagoela argi gelditu da. Beraz, pentsatzekoa da estrategia horretan aurrera egingo dutela.

e. Sozietate motak lehenetsi

Lehiaketara aterako den kontzesio kopuruari dagokion erabakia hartuta, sozietate mota desberdinak lehenesteko aukera ere izango dute Autonomia Erkidegoek, hala nola gizarte eragileetatik sortutako taldeak edo etekin asmorik gabeko taldeak lehenetsi ahal izango dituzte baldintza-pleguan.

Batek baino gehiagok argudia lezake neurri babesle hutsa dela (horrek eztabaida sakon bat beharko luke) baina Estatuko legearen printzipio iradokitzaileekin erabat akort dator, gizarte eragileen parte-hartzea bultzatzeko modurik eraginkorrena komunikabidearen kudeaketa beraien esku ustea izan baitaiteke, horrela eskatuko balute.

Printzipio iradokitzaileak:

- Informazioen objektibotasuna, sineskotasuna eta inpartzialtasuna
- Informazioen eta iritzien arteko banaketa, ematen dituzten identifikazioa eta adierazpen askatasuna.
- Aniztasun politiko, erlijioso, sozial, kultural eta linguistikoarekiko errespetua.
- Pertsonen ohorearekiko, famarekiko eta bizitza pribatuarekiko errespetua.
- Gazte eta haurren babesa.
- Berdintasuneko balioekiko errespetua.
- Interes lokalen sustapena, tokian tokiko kultura eta elkarbizitza defendatu eta sustatzeko helburuarekin herriko gizarte eragileen parte-hartzea bultzatu.

f. Errealitateari egokitutako printzipio iradokitzaileak

Edozein komunikabideri dagozkionez gain, hurbileko telebistari dagozkion oinarrizko printzipioak jasotzen ditu artikulua honek: hiritarren partaidetza eta tokian tokiko kultura sustatzaile izatearena, hain zuzen. Kulturaren barruan, hizkuntza propioaren sustatzaile izatea antzeman badaiteke ere, ez da legean, modu esplizituan aipatzen. Gure kasuan, hizkuntza kulturaren elementu erreferentziala izanik, horrela beharko luke. Zentzu honetan, Autonomia Erkidegoek beraien errealitatera egokitutako printzipioak ezar ditzakete, eta badago horren aurrekaririk. Katalanek oso aurreratua daukate beraien proiektua, beste batzuek ez bezala, behin eta berriro saiatu baitira tokian tokiko telebistagintza arautzen eta azkeneko saiakeran (Decret 15/2003, de 8 de gener, pel cual es regula el règim jurídic transitori de les televisions locals per ones terrestres), Estatuko legeak ezarritako lehenengo sei printzipioak daudene-

tan uzten ditu eta espiritu berberari jarraituz, oso kontuan hartzeko beste bost emango ditu: berriak batzuk eta berri-datziak besteak:

- Tokian tokiko kultura eta interesen defentsa eta suspertzea, eta baita elkarbizitzaren sustapena ere; horretarako, dagokion lurralde esparruan dauden gizarte eragileen parte-hartzea bultzatuz.
- Kultura eta katalan hizkuntzaren normalizazioaren babesa eta Arango kasuan aranerarena.
- Emakumearen promozioa.
- Ingurugiroaren defentsa eta zainketa.
- Esparru berean ikus-entzunezko industria indartzea.

Ekarpen guztiak oso interesgarriak izanik, arreta berezia ipini nahiko genuke ikus-entzunezko industriaren indartzeari dagokion horretan. Esparru berri bat zabaltzen baitu, tokian tokiko telebistak merkatu berri bilakatzen diren heinean. Hori guztia leku pribilegiatu batean islatzen da: emisioetan eta programazioetan. Hain zuzen ere, tokiko telebista sintonizatzean pantailan ikusten ditugun edukietan, alegia.

Programazioari dagokionez, Estatuak baldintza batzuk ezartzen ditu ordu kopuru minimo eta bestelako batzuei dagokionez, baina artikulua honetan jasotzen denarengatik instituzioen arteko eskumen arazo bat egon daitekeela eta, Kataluniako Gobernuak auzitara eramanez legea.

3.4. Programazio betebeharrak eta katean emititzeko mugak

a. Lurrazaleko uhin bidezko tokiko telebistak egunero gutxienik lau ordu eta astean gutxienik hogeita hamabi ordu original emititzera derrigortuta egongo dira.

- Ez dira telebista programatzat hartuko, irudi finkoen emisioak, publizitate tarteak, telesalmenta eta lehia-keta promozionalak; nahiz eta azken hauek zuzenean eta ikusleen parte-hartzearekin egin.
- Ez dira originalak kontsideratuko beste komunikabide batean emititu diren edo emititzen ari diren programen birremisioa.

b. Lurrazaleko tokiko telebista digitalaren kontzesioen titularrek aldi berean programazio berbera emititu ahal izango dute ondoko mugen barruan:

- Beraien difusio zerbitzuak aldi berean programazio zehatz bat emititu ahal izango dute gehienez egunero bost orduz eta asteko hogeita bost orduz.
- Artikulu honen lehenengo puntuko emisio orduetatik lau, arratsaldeko 13:00 eta 16:00 eta gaueko 20:00 eta 23:00 orduak bitartean bota beharko dira, eta edukiek kontzesioa jasotako emisio esparruarekin zerikusia izan beharko dute.

Kataluniako Gobernuak, aurrez auzitegi konstituzionalak emandako epai batean oinarritzen da non kontzesioak emateko eskumena duen administrazioa autonomikoa denean, edukiak ezarriko dituen administrazioa berbera izango dela adierazten den.

Auziak bere horretan jarraitzen du. Helegiteak aurrera egingo balu, eta ez dirudi kontrakoa gertatzeko arrazoirik dagoenik, printzipioz, Autonomia Erkidegoek ezarri beharko dituzte programazioari dagozkion baldintzak, eta nahiz eta Estatuak legearekin alderatuta, kopuruak beste batzuk izan daitezkeen, argitu beharreko kontzeptuak antzekoak izango dira.

Emisio ordu kopuru minimoak ezartzerakoan, programa bat zer kontsideratzen den argitu beharko da, hain zuzen egungo telebista batzuetan horrenbesteko pisua duten agenda, publizitatea, orduetegiak, karteldegia... eta bestelako zerbitzuen informazioa jasotzen duten pantailazo edo karruselak, programa kontsideratuko diren edo kontsiderazio horretatik kanpo utzi ezker, izan ditzaketen ezaugarri eta mugak adierazi beharko litateke.

Sarritan karruselak duen betegarri funtzio berdinarekin eta diru iturri modura, produzitzen merkeak diren tele-salmentak eta 906 telefono bidezko zerbitzuek ere beharko lukete, egungo errealitateari so, aparteko traturik. Honekin batera, saioen jatorria, estreinakoa edo errepikatua den eta erabiltzen den hizkuntza ere kontuan hartu beharko dira, tokian tokiko telebista baten titularraren obligazioak ezartzerakoan.

g. Hurbileko telebista ereduaren defentsan

“Una televisión de proximidad es aquella que se dirige fundamentalmente a una comunidad humana de tamaño medio o pequeño, delimitada territorialmente, con contenidos relativos a su experiencia cotidiana, a sus preocupaciones y problemas, a su patrimonio lingüístico, artístico y cultural y a su memoria histórica. Cabe destacar, además, que esta noción de proximidad no implica tan sólo la difusión de contenidos próximos (significativos para los ciudadanos, en el sentido que apelan a signos, referentes, de su realidad cotidiana e inmediata), sino también a su producción in situ”. Miquel de Moragas Spá

Barne produkzioa eta euskararen erabilera dira zalantzarik gabe hurbileko telebistaren ezaugarri nagusietako bi, nahitaez arautu egin beharko direnak. Orain arteko joerak, tokiko telebistak arautzen saiatu diren Autonomia Erkidegoenak, kuotak ezartzearen aldekoak izan dira.

Barne produkzioari dagokionez, katalanek emisio denboraren ehuneko hirurogei ezartzen dute minimotzat, barne produkzioa Kataluniako herrialde osoan produzitzen diren edukiak kontsideratuz. Kontsiderazio hau oso kontuan hartzekoa da, alde batetik emandegiei begira beraien emisio orduak zabaltzeko aukera ematen dielako, eta bestetik ikus-entzunezko industriaren ikuspuntutik, tokiko telebistak merkatu berri bat suposa dezaketelako.

Estatuko legeak barne produkzioko ehunekoak ezarri beharren, ordu tarte batzuetan, day time eta prime time-an, barne produkzioko edukiak emititzera derrigortzen du. Interesgarria litzateke formula misto bat aztertzea, portzentaje minimo bat finkatu eta programazio-taula edozein ordutan programatu ahal izan beharrean ordutegi batzuk ezartzea. Hizkuntzari dagokionez, Estatu mailan dagoen aurrekari bakarra Katalanen dekretua da, honek hizkuntza normalizazio legeak ezarritakora derrigortzen du. Emisio orduen ehuneko berrogeita hamaika, gutxienez, katalan-ekin beharko da.

Euskararen legeek, ez Euskal Autonomia Erkidegoan eta ezta Nafarroako Foru Erkidegoan ere, ez dituzte komunikabideetarako euskara kuotak ezartzen. Beraz, kontzesioak emateko pleguan ezarritako baldintzak aurrekari bihur daitezke. Horrela, katalanen bidetik jarraituz, aukera bat kuotak ezartzea litzateke. Zentzu honetan planteatzen dena zera da: lurralde politiko bakoitzeko kuota finko bat, Katalunian bezalaxe, edo eskualde mailako ezagutzaren araberako kuota desberdinak. Bigarren aukerak ezagutza zer den definitzera behartuko luke, horretarako oso lagun-garriak izan daitezke euskararen datu baseak (<http://www.sortu.org/edb/>) ematen dituen datuak. Euskararen ezagutza hiru multzotan banatzen du, euskaldunena, ia-euskaldunena eta erdaldunena. Hori erreferentziazat hartuz, kuotak ezarriko lirateke lehenengo taldea bakarrik kontuan hartuz edo euskaldunak eta ia-euskaldunak batuz, kontuan hartuz azken hauek ikaste prozesuan egiten ari diren ahaleginean, telebista instrumentu potentzial bilakatuko litzatekeela. Aukera bat edo bestea hartzeak modu esanguratsuan aldatuko luke portzentajea.

Kuotak ezarri beharrean, EITBren ereduari jarraituz, emisio esparru bakoitzari dagokion kuadruplex horretako, gutxienez emandegi bat euskara hutsean aritzeko derrigortasuna, besteak gaztelera hutsean aritzeko aukera izanik. Horrek EITBren esperientziak euskararen normalizazio prozesuan betetako funtzioa aztertzea eramango gintuzke eta ez da hori artikulu honen helburua, baina esperientzia hor dago eta tokian tokiko arautze prozesu honetan oso kontuan hartu beharrekoa da. Azkenik, Barne produkzioarekin bezalaxe interesgarria litzateke formula misto bat aztertzea: emisio esparru bakoitzean gutxienez emandegi bat euskara hutsez aritzea eta eman daitezkeen beste kontzesioen titularrei kuota minimo batzuk ezartzea, alegia.

Horiexek epe motzera hartu beharko diren erabaki batzuk, etorkizuneko tokian tokiko telebistagintza eredu inolako zalantzarik gabe baldintzatuko dutenak. Bi aukera aurreikusten ditut. Orain arte existituko ez balira bezala jokatu ondoren, utzikeriaz arautu gabeko esparru horretan inposatu diren kanal guztien jarduera normalizatzeko diseinatutako baldintzak ezartzea edo komunikabide lokalek balio, kultura eta hizkuntzaren transmisioan, eta ondorioz nortasun kolektiboen eraikuntzan duten ezinbesteko funtzioa aitortuko dien ereduaren defentsa.

Bibliografia

- Arana, E., Azpillaga, P., Lazkano, I., Narbaiza, B. (2003): *Panorama de la Televisión Local en Euskal Herria 2003* izeneko txostena. Mimeografiatua.
- Arana, E., Azpillaga, P. eta Narbaiza, B. (2003): *Tokian tokiko telebistagintzaren programazioa, ordainsariak eta erronkak in Uztaro*, 46. zenb., 2003, 61-80 or.
- Arana, E., Azpillaga, P. eta Narbaiza, B. (2004): *Telebista lokalak Euskal Herrian* in *Jakin*, 141. zenb., 2004, 11-52 orr.
- Badillo, A. (2003): *La desregulación de la televisión local en España: El caso de Castilla y León* izeneko doktorego-tesia. Universitat Autònoma de Barcelona.
- López, F. (2003): *La televisión local en el contexto audiovisual. Análisi del sector en la provincia de Castellón* izeneko doktorego-tesia. Universitat Jaume I.
- De Moragas, M. eta Garitaonandia, C. (1999) (ed.): *Televisión de Proximidad en Europa. Experiencias de Descentralización en la Era Digital*. Bartzelona, Universitat Autònoma de Barcelona, Universitat Jaume I, Universitat Pompeu Fabra eta Universitat de València.
- Prado, E. eta de Moragas, M. (2002): *Les televisions locals a Catalunya. De les experiències comunitàries a les estratègies de proximitat* in *Quaderns del CAC*-en zenbaki berezia. Consell de l'Audiovisual de Catalunya, Bartzelona.

Legedia

- Ley 41/1995, de 22 de Diciembre, de Televisión Local por Ondas Terrestres.
http://www.setsi.mcyt.es/legisla/radio_tv/ley41_95/ley41_95.htm
- Ley del Estado 53/2002, de 30 de Diciembre, de Medidas Fiscales, Administrativas y de Orden Social.
- Ley del Estado 62/2003, de 30 de Diciembre, de Medidas Fiscales, Administrativas y de Orden Social.
- Real Decreto 439/2004, de 12 de marzo, por el que se aprueba el plan técnico nacional de la televisión digital local.
<http://www.setsi.mcyt.es>
- Decret 15/2003, de 8 de gener, pel qual es regula el règim jurídic transitori de les televisions locals per ones terrestres.
http://www6.gencat.net/dgma/catala/ftp/cd15_03.pdf

e. EUSKARAZKO TELEBISTAREN ETORKIZUNA TESTUINGURU GLOBALEAN

Ainhoa Fdez. Arroyabe Olaortua
Nereida Lopez Vidales
Carmen Peñafiel Sainz
EHUko irakasleak

1. Atarikoa

2003. urtean teknologia digitalak telebistaren esparrua eraldatu zuen. Egun, teknologia horri esker, telebista kate berri anitz sortu eta horien hedadura nabarmen zabaldu da. Hortaz, aniztasunari begira behintzat aukerak ugari dira, eta prinztipioz, munduko herrialdialde guztien arteko komunikazioak ez du mugarik. Baina zer nolakoak dira igortzen diren edukiak? Eta are gehiago, hizkuntz zein kultura gutxituek, lekurik ba ote dute igortzen diren eduki guzti horien artean? Telebista digitalaren gainean burututako ikerketak ez du oso ikuspegi baikorra erakusten. Izan ere, iraultza teknologikoarekin batera, telebista bera ulertzeko, ekoizteko eta kontsumitzeko, globala den filosofia berri bat nagusitu dela ondoriozta dezakegu. Ikuspegi horren arabera, testuinguru globalean, soilik bi telebista eredu edo sistema jartzen dira indarrean: Orotariko telebista masiboa eta ordainpeko eskaintza tematikoa, alegia. Hots, kate kopuruen ugartzeak ez du edukien aniztasuna ekarri. Are gehiago, edukien tipologia biziki murriztu da. Honekin batera, bi telebista eredu horiek, herrixka globalak konpartitzen duen unibertso sinboliko bakarraren sortzaileak dira. Izan ere, mundu osoan eta aldi berean, bai eredu baten edo bestearen programazioetan, eskemak berak errepikatzen dira etengabe. Eta beraz, herrialde, nazio edo eta kultura ezberdinetako telebisten programazioen artean, ez dago oinarritzko ezberdintasunik. Teknologia digitalak globalizazioaren ibilbidea nabarmen zabaldu du, eta jadanik berdintze prozesu honen sustatzaile nagusietako bat da.

Badirudi, tokikotasunak, hots, herrialde gutxituen nortasuna erakusten duten berezko ezaugarriek, zeresan gutxi dutela testuinguru berri honetan. Eta are gutxiago, Estatu espainiarrean. Hemen, orotariko kateak, publikoak zein pribatuak, eta baita ordainpeko telebistaren plataformek ere, izaera globaleko formatuak egokitzearen alde jotzen dute. Eta joera hau mantentzen da, sortu berri diren hamaika kate lokal zein erkidegoetako kasuan. Dena den, gaikako telebista, edo eta orotariko kateek tokikotasunaren gainean egiten duten irakurketa ezberdina dela azpimarratu behar da: Ordainpeko telebista, eta Estatura hedatzen diren orotariko telebista kateen kasuan, tokikotasuna baztertuta dago. Hala eta guztiz ere, orotariko kateen hedadura esparrua murriztu ahala, tokikotasunak leku gehiago hartzen du, erkidegoetakoak nahiz lokalak diren kateetan. Baina kasu honetan, tokikotasunaren irakurketa azaleko ezaugarrietara mugatzen da. Esate baterako, *reality* batean, parte-hartzaileak tokiko hizkera, jarrera eta topikoen erakusleak izango dira. Baina hau ez da inolaz ere tokikotasunari lekua ematea. Aitzitik, bide honetatik, orokortasunak tokikotasuna irensten du, inolako arrastorik agerian utzi gabe.

2. Telebista ereduak

Indarrean jarri diren bi telebista ereduak, gutxiengo kulturalak alde batera uzteaz gain, ikuslearen aukerak muturretara eramane ditu. Hots, orotariko telebistak errealitatearen ikusgarritasuna eta denbora pasatzeko tarte arinak eskaintzen dituen bitartean, gaikako telebistak ordaindu beharreko kalitate eta esklusibitatea bideratzen omen dituzten edukiak plazaratzen ditu.

Orotariko telebistak programazioa ikuskizun bihurtu du, eta ikuslea produktuaren arlote nagusia da. Zabor telebista delako terminoarekin izendatu den telebista estilo honetan, edonoren arlo pribatuaren gorabeherak muturrera eraman eta publikoki erakusten dira. Modu honetan, telebista kateek ikusle multzo handiak eskuratu eta eduki arrakastatsuen tarateak iragarleei saltzen dizkiete. Ezin dugu ahantzi, maila batean edo bestean, orotariko telebistek iragarleen diru sarrerei esker bizirauten dutela. Izaera merkantilista horren harira, kate publikoek pribatizaziorantz hartu duten ibilbide geldiezina azpimarratu beharra dago. Hortaz, norgehiagokan jarraitu ahal izateko, kate publikoak pribatuek bultzatu duten zabor telebista erabat besarkatzera behartuta daude. Estatuan, orotariko telebista kateen artean, pribatuak diren *Antena 3*, *Telecinco eta Canal +* daude. Horien ondoan, erkidego ezberdinen inguruan sortutako kate publikoak ere biltzen dira: *Telemadrid*, *Canal Sur*, *TVG*, *ETB*, *Canal 9* eta *TVC*, hain zuzen ere. Azken hauek, FORTA delako elkarkidetzaren sistemarekin lan egiten dute, baina hemendik at, bakoitzak bere eskaintza askatasun osoz eraikitzen du. Hori dela-eta, kate bakoitzak, telebistaren gaineko filosofia eta apustu ezberdina burutzen duen arren, zerbitzu publikoa eta zabor telebistak dakarren ikuskizunaren arteko uztartekaren ikuspegia nagusitzen da. Baina uztarketa hau, kasuz kasu maila ezberdinetan ematen da. Dena den, *TVCK* joera nagusi honen kontra egiten du, eta ikusiko dugun bezala bere alternatiba ezberdinduaz plazaratzen du.

Bigarren telebista ereduak, gaikakoa, audientziaren menpekotasunetik at dago. Bizirauteko harpideak bildu behar ditu, eta hauei kalitatekoa omen den programazioa saltzen die. Ikusleek edukiak jarraian, iragarki luzeen etenik gabe eta esklusibitate osoz jasotzen dituzte. Baina ordainpeko telebista, gehienbat estatubatuar produktu eta mundu ikuskera barreiatzen duten edukietan oinarritzen da. Hauekin batera, korporazio erraldoiek burututako ekoizpenak ere ustiatzen ditu. Hots, korporazioen zuzendaritzak kudeatzen dituen eduki guztien gaineko kontrol zorrotza mantentzen da hemen. Azken batean, ordainpeko telebista, enpresa erraldoi baten esku dago, eta beti, ikuslearen nahien gainetik, haren interesak gailenduko dira. Esklusibitate eta agindutako kalitateaz gain, ordainpeko telebistak elkarreragiketarako bideak eta komunikazio multimediatikoa ere eskaintzen du. Azken bi zerbitzu horiek, etorkizun hurbileko telebistaren giltzarri dira; hemendik aurrera telebista komunikazio bitarteko ezberdinen topagunea izango da, eta aldi berean, ikuslea eta edukiaren arteko feed-back delako norabide bikoitzeko harreman birtuala martxan jartzen da.

Hori guztia kontuan hartuta, gutxiengo kulturalen nortasuna eta prinztipioak bere lekua hartzeko dituzten zailtasunez gain, bi telebista eredu horiek ondorioztatzen dituzten gabeziak ere oso agerikoak dira. Baina zorionez, Espainiako Estatuan badago arrisku honen aurrean, irtenbide bat proposatzen duen telebista eredu alternatiboa: *TVC* edo Kataluniako telebista.

3. *TVC*, euskarazko telebistaren abiapuntua?

Kataluniako telebista ereduak euskal kazetarien lanerako, eta baita etorkizun hurbilean jaio daitezkeen euskarazko telebista kateen soslaiari begira ere, ezinbesteko erreferentzia da. Izan ere, *TVC*ren filosofia tokikotasunaren beharren arabera eraikitzen da. Lau dira kontuan hartu behar ditugun ardatzak: nortasuna, lehiakortasuna, kalitatea eta etengabeko sormen prozesua.

Lehenik eta behin, Kataluniako telebistak bertoko nortasun bereizgarria, balioak eta hizkuntza babestu eta bultzatzen ditu. Telebista publikoa izanda, ikusleei zerbitzu egoki bat eman behar die, eta kasu honetan, informazioak berebiziko pisua hartzen du. Baina horretaz aparte, telebistan igorriko diren eduki guztiek kalitate label bat ziurtatzen dute. Hots, ikusleria modu arinez erakartzen duten zabor telebistaren formatuak ez dira *TVC*n emitituko. Baina tokikotasuna eta kalitatea bermatzeaz gain, edukiek lehiakorrak behar dute izan. Hau da, iragarleak erakarri ahal izateko, ikusle tasa handiak eskuratu behar dituzte. Azken erronka honi aurre egiteko bidea, telebista formatu eta generoen gaineko berrikuntza prozesu etengabea da. Hortaz, Kataluniako kazetariak ohiko telebista formatuak arakatu eta ikusleak erakartzeko sustagarri berriak aurkitu behar dituzte. Hemen ez dira telebista formatu ohiak bilatzen, ezta zabor telebistarenak. Hau dela eta, komunikazioaren profesionala sortzailea da, eta ez

egokitzalea, beste kateetan gertatzen den moduan. *TV*Ck, gainontzeko kateetatik bereizten diren dokumental eta fikziozko formatuak plazaratzen ditu. Berauek, kateak proposatzen duen alternatibaren erakusle dira. Baina baita ere, egun aritzen diren, eta etorkizunean arituko diren, euskarazko kazetarien lanerako, oso ekarpen interesgarria ondoriztatzen dute.

Dena den, eduki zein formatuen ekarpenak arakatu aurretik, Kataluniako telebistaren eredia martxan jarri ahal izateko, erkidego horretan ematen diren balditzak aipatu behar dira. Izan ere, honelako proiektua ezin da aurrera atera instituzioen babesik gabe. Kataluniako erakundeek, proiektuaren neurriko testuinguru legala eraiki dute, eta baita bertoko ikus-entzunezko industria garatzeko bideragarritasun plangintza ere. Arautegiari dagokionez, Katalunian ematen diren ikus-entzunezko jarduerak, Consell de l' Audiovisual de Catalunya, delakoak kudeatzen ditu. Nahiz eta edukien gaineko lege zehatzik argi eta garbi idatzita ez egon, erakundeak telebistak igorri beharko lituzkeen gai eta formatuen aipamena egiten du. Ikus-entzunezko industriari dagokionez berriz, Kataluniako telebistak, gainontzeko erakunde autonomoen laguntzarekin, edukien koprodukziorako politika martxan jarri du. Kataluniako telebistaren parrillak ia-ia barne produkzioko edukiekin eraikitzen dira, honek produkzioa bertako enpresen esku dagoela suposatzen du. Beti ere, ekoizpen etxe eta katearen arteko elkarkidetzan burutzen dira lanak. Honela, Katalunian diharduten ikus-entzunezko enpresek, euren proiektuak gauzatzeko orduan, erakundeen babesa jasotzen dute. Hots, *TV*Ck bere parrilletan bereganatu nahi dituen produktuen soslaia publikoki argitaratzen du. Ondoren, ekoizpen etxe bakoitzak bere proiektua edo asmoa plazaratzen du. Telebistako zuzendaritzak, interesgarriak iruditzen zaizkion proposamenak onartzen ditu. Eta une horretatik aurrera, edukiaren ekoizpena *TVC*ren eta enpresaren artean burutzen da.

Sistema honek bere abantailak eta desabantailak ditu. Batetik, ekoizpena telebista katearekin batera burutzeak arrisku ekonomikoak ekidin eta segurtasuna ondoriztatzen dizkio produktoreari. Baina bestetik, sortzailearen askatasuna mugatuta gera daiteke. Izan ere, edozein arazo edo zuzenketa egin behar izatekotan, *TV*Cko zuzendaritzak azken erabakia hartzen du. Hemen, ekoizlearen menpekotasunaren auzia argi ikus daiteke. Berriz, *TVC* produkzio sailaren ikuspegitik, ardua nabarmenki areagotzen da. Hots, *TV*Cko produktoreek, etxeko ekoizpenaren kalitate labela ziurtatzeko, sortzailearen lanaren gaineko kontrol zorrotza burutu behar dute. Hortaz, edukiaren ekoizpen prozesu osoan parte hartzera behartuta daude, eta azken emaitzaren erantzule nagusiak dira.

Guzti honetaz gain, Kataluniako telebistaren eskaintza anitza eta zabala dela ere kontuan hartu behar da. Hots, orotariko kateak eta bereizitutakoak batzen dituen eskaintza dugu. Eta aldi berean, elkarrengatik bitarteko berriak eta bestelako zerbitzuak eskaintzen ditu. Bost dira Kataluniako telebistaren kateak. Hauetatik, hiruk orotariko soslaia dute, eta bik gaikakoa. Lehenengo taldean nagusitzen den katea *TV*3 dugu; honek, informazioari berebiziko garrantzia ematen dio. Dena den, aldeztu aurretik finkatutako helburu kualitatibo eta kalitate labelari erreparatuz, denbora pasa eta fikziozko tartekak bereganatzen ditu. *33*, bigarren katea da, eta *TV*3ekin alderatuz, programazio alternatiboa eta osagarria plazaratzen du. *Kanal 33*en ikusle potentziala *TV*3ekoa baino murriztagoa da. Targetak, dokumental zein egunerokotasunaren gaien inguruko eztabaida eta informazioa bilatzen duten saioiak maite ditu. Baina *33*ren edukiak bereizten duten ezaugarri nagusia, forma edo molde berriak dira. Hos, profesionalen ikuslengoa edo eta istorioak kontatzeko orduan, aukera eta bitarteko abangoardistak bilatzen dituzte. Azkenik, *CTVi*, orotariko katea dugu; munduan zehar bizi diren kataluniarrei zuzendutakoa, hain zuten ere.

Gaikako eskaintza, *K33* eta *3/24* kateetan dago. Lehenengoa, haur eta nerabeei zuzendua da, eta nazioarteko merkatuaren produktu kanonikoak onartu arren, barne ekoizpenetik sortutako saioek nagusitasuna dute. Azken hauek, formatu finko eta klasikoekiko haustura dakarte. Gainera, programazioa adin ezberdinendako tarte bereizituetan banatzen da. *3/24* katearen kasuan, berriz, aktualitatearen gaineko informazio etengabea aditzera ematen da. Bost kate hauetatik gain, ezin dugu ahanzi azken ekarpena; izan ere, egun, *TV*Ck lurreko teknologia digitalaren emisioen hastapenarekin batera, jarduera honen inguruko probak burutzeko, *Pilots* delako kanalea ere aireratzen du. Azkenik, *TVC* etorkizun hurbileko telebistaren zerbitzu elkarrengarriak martxan jarri ditu. Dagoeneko, Kataluniako telebista informazio eta komunikazio bitarteko anitzen topagunea da.

4. Kataluniako telebista, eta kazetaritzaren erronka berriak

Jakina den moduan, orotariko telebistan, ikuslea, ikuskizunaren protagonista nagusia dugu. Bertan, egunerokotasuna eta edonoren bizitzaren nondik norakoak muturrera eraman ondoren, eredu horren parrilletako eduki nagusi bihurtzen dira. Errealitatearen tankera duen ikuskizunak, ikuslea liluratu eta masiboki erakartzen du bere ondora.

Kataluniako telebistan, errealitate eta egunerokotasunaren ahalmen erakarleaz jabetu dira, baina hemen ez dute onartzen honen inguruko ikuskizun arin eta erraza piztea; aitzitik, dokumentalaren filosofia berreskuratu duten formatu berritzaileei bidea emanez, ikuslea errealitatearen behaketan parte hartzera bultzatzen dute. Formatu berri hauek fikzioa eta informazioaren esparruan garatzen dira. Informazioaren arloari dagokionez, dokumentalarekin lotutako bi proposamen interesgarri sustatzen dira: dokuseriea eta dokumental berritzailea, hain zuzen ere. Fikzioaren esparruan berriz, *TV Movie* delako film laburra aurkezten zaigu. Nahiz eta bi formatu hauen artean ezberdintasun ugari egon, bada komunean duten ezaugarri garrantzitsua: Zabor telebista bidez igortzen den errealitatearen isla okertua zuzendu, eta egunerokotasuna naturaltasunez eta objektiboki erakustea. Horretarako, kazetariak fikziozko gidoilariaren hainbat errekurso bereganatu behar ditu. Azken batean, Kataluniako telebistak eraikitzen duen errealitateak kamera aurrean suertatutako gertaerak mantentzen ditu, baina fikziozko jario eta tenstasioa eragiten duten estrategia narratiboen bidez bideratuta.

5. Dokuserieak eta dokumental berritzaileak

Dokuseriea edo *docu*showak, gaur egun indarrean dauden telebista bidezko errealitate formatuen aurrean, alternatiba interesgarria aurkezten du. *Gran Hermano* eta tankerako saioek, zenbait lehiakide hautatu eta eremu itxi batean sartu ondoren, elkarbizitzak sortzen dituen liskarrak erakusten dituzte.

Hortaz, errealitatearen behaketa ez da modu naturalez ematen, baizik eta bortxaren ondorioz. Hauen ondoan, dokuserieak kontrakoa den mekanikan oinarritzen dira: Arazo, interesgune edo gai jakin baten inguruan murgiltzen diren pertsonak aurkitu, eta haien jarraipena egiten dute. Azkenik, arazo edo eta korapiloa askatzen denean, dokuserieak, arazoaren aurkezpenetik amaierarainoko ibilbidea berrantolatatu eta erakusten du. Kasu honetan, grabatutako materiala fikzioaren zenbait estrategia narratiboren arabera antolatzen da, azken batean, istorioaren erritmoa eta bizitasuna dira, ikuslearen arreta mantentzea ahalbidetzen duten bideak.

*TV*CK ekoitzi dituen dokuserien artean, *Veterinaris* izan da arrakasta handiena bereganatu duena. Programak bosgarren denboraldia betetzen du aurtien, eta formularen oihartzunak, Kataluniako mugak gainditu ditu. Izan ere, *Antena 3*ek saioa egokitu eta *Pelopicopata* izenburuarekin emititzen du *prime time*an. *Veterinaris* dokuserieak, arazoak eta konponbideak aurkeztuz, animalien eta gizakien arteko harremanen behaketa burutzen du. Modu honetan, ikusleak animalien eta gizakien arteko harremanei buruz zerbait ikasten du, eta, honek, abereak zein gizakiak ikuspegi zabalago batekin epaitzeko ahalmena ematen dio. Ikasteaz gain, *Veterinaris*-ek ondo pasatzeko aukera ere ematen dio ikusleari, istorioak fikzioaren estrategiekin kontatzen dira, eta honek aipatutako bizitasuna eragiten du. Programak plazaratu duen auzi bat aipatzearren, Llum txakurrarena dugu. Llum albaiteko batek aurkitu duen txakur abandonatua da, eta gainontzeko txakurrekin bizitzeko arazo larriak ditu. Saioak, fikzioaren tentsioa mantenduz, Llumen gizarteratze prozeusa erakusten du. Llum osatzeko gai izango ote den zalantzak, ikuslearen arreta programaren amaiera arte harrapatzen duen bitartean, txakurraren beldurra, albaitekoaren kezka edo eta Llumezikiko gainontzeko animaliek duten jarrera, erakusteko geldiuneak egiten ditu. Dokumental klasikoak eraldaketa berritzailea pairatu du *TVC*ren barruan. Helburua, egungo ikuslearen arreta bereganatzea izan da, eta hortaz, informazioaz gain, pizgarri berriak gehitzea ezinbestekoa izan da. Egokitzapen iraultzaileen artean elkarreragilea eta behaketa direlako dokumental ereduaren indartzea azpimarratu behar da. Esparru honetan, *Balseros* eredu nagusia dugu. Dokumentalak kontatzen duen istorioa, 1994. urtean, Kuban gertatutako baltseroen krisialdiarekin hasten da. Saioak ordu-

ko zenbait protagonistek Estatu Batuetara heldu bitartean jasandako abenturaren berri ematen du. Baina, istorioa ez da hemen eteten, eta Estatu Batuetara heldu diren protagonisten bizitzaren jarraipena egiten du 2000. urtean. Modu honetan, dokumentalak kubatarren bizitza aldaketaren nondik norakoak osotasunez erakusten ditu. Hots, pertsonaien artean, batzuk bizimodu berrira egokitu diren bitartean, gehienek, estatubatuarren ametsa eskuratu nahian, porrota jasan dute. Saioaren atal honetan, behaketa nagusitzen da, dokumentalak pertsonaien nondik norakoak naturaltasunez erakusten baititu. Baina, behaketarekin batera, Balseros-ek, bigarren ekarpen bat gaineratzen dio dokumental klasikoaren formatuari: Elkarreragiketa. Hots, kazetariak istorioan parte hartzen dute; ekipoak, Kuban geratu diren sendiak bisitatu eta Estatu Batuetan daudenen irudiak erakusten dizkiete. Modu honetan, familien sentimenduak, beldurrak eta itxaropenak dokumentalean islatzen dira. Balseros-ek arrakasta handia lortu du Estatuan eta nazioartean. Oscar sarietarako norgehiagokan parte hartu zuen, eta hamaika sari jaso ditu. Horien artean aipagarriena, *International Documentary Association Award* sek emandakoa izan da.

6. TV Moviak

*TV Movi*a, estatubatuar merkaturako ekoiztutako formatua izan da hainbat urtetan. Dena den, Kataluniako telebistaren tokikotasun eta nortasun helburuak eskuratzeko orduan, fikziozko formatu hau, oso aproposa zela ikusita, 1993. urtean *TVMen* ekoizpenari ekin zioten Katalunian. Gainontzeko telebista kateak, ordea, 2003. urtean hasi dira tankera honetako produktuak ekoizten. Hamar urteko aldeak kataluniar sistemaren aurrerapena berresten du. *TVMa* telebistaren lengoaia eta baldintzak kontuan hartzen dituen filma dugu. Hortaz, gidoilariak hainbat ezaugarri bereizgarri hartu behar dituzte kontuan: Lehenik eta behin, fikziozko saioaren gaiak, teleikuslearen arreta piztu behar du, eta hemen ematen da fikzioaren eta errealtatearen arteko uztarketa. Aipatu dugun bezala, gaur egungo ikusleek, errealtatearen zipristinak bilatzen dituzte orotariko kateetan; Hauen artean, gertaera dramatikoak, konpondu ez diren hilketak, edo eta desagertzen diren perstonek inguruko auziek gizartearengan jakin-min handia pizten dute. *TVMak*, errealtatean emandako gertaera larri baten egokitzapen dramatikoak burutzen du. Hori dela eta, fikziozko produktua errealtatearen antzeppen bilakatzen da. Gidoilariak kazetariaren lana egiten duen neurrian, fikzioa eta dokumentala nahastu egiten dira telebistara egokitutako formatu honetan.

Kazetari, gidoilari, edo oro har sortzaileak, erronka gogorra du aurrez aurre. Izan ere, ikusleak gertatutako auziaren nondik norako nagusiak ezagutzen ditu, eta beraz, filmak ez dio deus berririk argitzen. Aldi berean, gertaeraren jarioa sinesgarritasunez aditzera eman behar da, hots, fikzioa, egiaztatutako frogak dokumentalen gainean eraikiko da. Eta guzti hau gutxi balitz, istorioak iragarkien etenak jasan behar ditu; tentsio uneak publizitatearen ebazpenak aurreikusten diren uneetan antolatatu behar dira. Dena den, *TVMaren* berezko lengoaia eta lan sistema menperatu ondoren, formatuak tokikotasuna lantzeko bitarteko egokia dela erakusten du: *TVM*an antolatzen den fikziozko istorioa ikuslearen errealtatearen unibertso sinbolikotik gertu dago. Eta beraz, produktuak auziaren pertsonaia nagusietara zein testuingurura gerturatzeko aukera ematen dio ikusleari. Filma, ezbeharraren arazoak edo eta gorabeherak ulertzeko bitartekoa ere bada; formatu honek, dokumentalaren informazio eta argudioen jarioa mantentzen duen bitartean. Honekin batera, *TVMak*, gaur egun gertatutako auziez gain, iraganekoak ere lantzen dituela nabarmendu beharra dago. Bide honetatik hizkuntza zein herri gutxituen oroimen historikoa sendotzeko modu eraginkorra ere badela azpimarra daiteke. Baina *TVMen* ekoizpenak ere, kataluniar zuzendari berriei aukera nabarmen bat ematen die, eta oro har zinemaren inguruan dauden profesionaleri. Honekin batera, gaiak eta generoak ez dira aipatu dugun esparrura mugatzen, eta fikziozko beste hainbat molderi bidea zabaltzen zaie. Azken batean, *TVMen* alde giteak, etorkizuneko apustua egitea suposatzen du.

7. Eredu baten bila

Etorkizunean sor daitezkeen euskarazko telebista kateek, nahiz esparru honetan murgildu nahi duten euskarazko kazetariak, zer nolako telebista eredu nahi duten ausartu behar dute. Erreflexio honetan *TVC*ren eredu haintza-

kotzat hartzea komenigarria da oso, baina ez soilik tokikotasuna behar den moduan lantzen duelako, baizik eta beste hiru arazoirengatik: Lehenik eta behin, profesionalen sormen eta ahalmenei begira, aukera handiak ematen ditu; bigarrenik, duinak eta interesgarriak diren edukiak bideratzen ditu; eta azkenik, teknologia eta komunikazio multi-mediaticoa martxan jartzen du. Guzti hau gutxi balitz, egun telebistak gizartearen heziketan duen funtzio eta pisua ahanzi ezinezkoa da. Ikusleria errealitatea behatu eta ikuspegi orotarikoak onartzera ohituta badago, egunerokotasunean ematen diren auziak modu ireki batean eztabaidatzeko prest egongo da, eta baita kritikatzeko ere.

Bibliografia

Bustamante, Enrique (2003): *Televisión: globalización de procesos muy nacionales*. Bustamante, Enrique. (koord.)-ean: *Hacia un nuevo sistema mundial de comunicación. Las industrias culturales en la era digital*. Gedisa Argitaletxea. Bartzelona.

Bustamante, Enrique. eta Álvarez Monzoncillo, J. M (1999): *Presente y futuro de la televisión digital*. Madrilgo Complutense Unibertsitateak argitaratuta.

Cubels, Mariola (2003): *Mírame tonto. Las mentiras impunes de la tele*. Robinbook, Bartzelona.

Garitaonandia, Carmelo (1997): *El mundo de la televisión digital: un cambio del mundo*. VV.AA-ri egindako luzapena: *Retos de la sociedad de la información*. Salamankako Unibertsitate Pontifizioa, Salamanka.

López, Nereida, Peñafiel, Carmen, Fernandez de Arroyabe Olaortua, Ainhoa, Aguirreazaldegui, Teresa (2003): *La televisión digital en España: implantación y tendencias de un nuevo modelo*. Ikerketa Proiektua. Kodea: 1/UPV 00015.323-H-13963/2001.

Oharra: Komunikazio honen ekarpen nagusiak *La televisión digital en España: implantación y tendencias de un nuevo modelo* ikerketa proiektutik ondorioztatzen dira.

a. INFORMAZIO ALTERNATIBOA

EUSKAL HERRIAN: **mediaberri.com**

Mikel Carramiñana
Aritz Garate
Mediaberri.com-eko arduradunak

1. Informazio alternatiboa

Inoiz maila teorikoan aztertu ez den informazio genero honen sorrera ez da zertan Sarearekin lotu. Kazetaritzaren historian XX. mende hasierako gizarte mugimenduen prentsa aztertzen den moduan, egungo zenbait komunikabidek eredu bertsua jarraitu izan dute, aldaketa bakarra euskarri digitalarena izan dela. Honek dakarren aurrerapen garrantzitsuena, mezuaren hedapenean datza.

Internet sortu arte, komunikabide alternatiboen berezko ezaugarria zen hedapen murrizta izatea. Helburu komertzialik gabeko hedabide batek, eragile jakin bakar batek bultzatuta, ezin zuen eremu mugatu batetik kanpo inolako eraginik izateko aukera. Sareak norbanako guztiak bihurtu ditu komunikazioaren aktore potentzialak.

Informazio alternatiboaren ezaugarriak ez dira, esan bezala, kazetaritzaren eskuliburueta ematen, baina bai agertzen dira, ordea, kazetari lanbideak pairatzen dituen gaitzetako batzuk, esate baterako; zentsura, desinformazioa, eraginak, eroskeria, propaganda edo manipulazioa. Gutxi eusten diote kazetaritza objektibo baten idealari eta batzuk beste eredu bat proposatzen dute, are idealizatuagoa akaso, baina definiziorik gabeko informazio alternatibo horrek bilatzen duena: Subjektibotasun zintzoa.

Gertakari inozo bat: Mahai gainean bost edalontzi daude. Bertara joan eta bost edalontzi daudela dio kazetari batek, lau direla dio besteak. Bietako bat gezurretan dabil. Zintzotasunak kazetaria behartu behar du ikusten duena identifikatzera, alegia, 4 edalontzi daudela mahai gainean. Subjektibotasunaren menpe geldituko da, aitzitik, edalontzi horiek erdi beterik edo erdi hutsik dauden esatea.

Baina ohiko kazetaritza, enpresa informatiboaren barne kokatu beharra dago, eta adibide xeble berari jarriki, demagun gure artikulua agertuko den kazetan, ur minerala saltzen duen enpresa batek iragarki garesti bat jarri duela. Norbaitek iradoki egingo dio kazetariari, informazioari kalterik ez diola egingo, kasualitatez, edalontzi erdi bete, erdi huts horietan dagoen ura iragarlearen markakoa izateak.

2. Informazio alternatiboa Euskal Herrian: Ezaugarritzea

Euskal Herriko komunikabide alternatibo gehienak elebidunak izan ohi dira. Gutxi batzuek, ordea, euskara dute hizkuntza. Esan daiteke ere webgune horietan informazioa eta iritzia nahasten dutela askotan. Era berean, sarean aurki ditzakegun informazio alternatiboko Euskal Herriko komunikabideak irakurleen parte hartzea sustatzen dute, horrek zenbait abantaila eta arazo ditu. Izan ere, pertsonen testigantza zuzena har daiteke baina pertsona horrek, arazoaren parte interesatu den heinean, informatu beharrean iritzia ematen du. Webgune gehienetan jendeak albistearen inguruan iritzia eman dezake, askotan albistea nahastuz edo lekuz kanpo dauden eztabaidak piztuz.

Bestalde, aipatu webgune horietako gehienek ez dute kazetari bat bera ere lankide. Beraz, informazioa gaizki ematea edo iritzia eta informazioa nahastera irits daiteke. Komunikabide merkea denez, hainbat eragilek beren informazioa zuzenean zabaltzeko erabiltzen dute, horien artean elkarte anitz edo gaztetxeak daude, besteak beste.

2.1. Zer eska dakioke Euskal Herriko informazio alternatiboari?

Euskal Herriko hedabide alternatiboak aztertzerakoan ezaugarri anitzak dituztela esan dugu. Halaber, ezaugarri amankomunak dituzte; izan ere, komunikabide horiek alternatiboak dira, askeak, euskara erabiltzen dute (nahiz eta kasu askotan erdarak izan nagusitasuna) eta parte hartzea sustatzen dute era batean edo bestean.

Funtsezko hiru ezaugarri berebizikoak litzateke kalitatezko euskal komunikabi de alternatiboak izateko:

- Lehenik eta behin komunikabide horiek askeak izan behar dira, hau da, inolako presiorik ez jasatea. Gehienek, ez bada guztiek, ezaugarri hori betetzen dute.
- Euskara izan behar luke haien hizkuntza nagusia. Komunikabide gutxi batzuek baino ez dute betetzen aipatu eskaera.
- Internetek abantaila garrantzitsu bat du beste komunikabideekin alderatuz, berehalakotasuna. Momentu oro betetzea ezinezkoa dela jakinda, zenbait gertaeretan sarean dauden informazio alternatiboko guneek gauzak gertatu ahala eman behar litzukete.

2.2. Euskal Herriko komunikabide alternatiboen oinarriak

Interneteko bidea erabiltzen duten Euskal Herriko informazio alternatiboko hedabideak bi multzotan bana daitezke haien sorrera prozesua aintzat hartuta: alde batetik elkarte edo eragile baten egitasmoz jaio direnak eta bestetik, berau sortzeko bere kabuz bildu den jende multzo batek sortu duen hedabide bat. Babesa jaso duten gehienak gazte mugimendu bati esker sortu dira, aipatu beharra dago Interneteko komunikabideak nahiko berriak direla eta bere garaian irrati libreekin gertatu bezala, gaur, gazteak izan direla Interneteko informazio alternatiboa laguntzen gehien saiatu direnak.

Komunikabide horietan gaztek sorturikoa dela azpimarratzen da (*Gaztesarea* adibidez, izenean nork sortua eta norentzat sortua den nabarmentzen da). Babes horiek, diru iturri garrantzitsu edo kolaboratzaile iturri izan dira. Aipatu dugu Interneteko komunikabide alternatibo bat askea izan behar dela, halaber, sostengu ekonomiko minimo bat beharrezkoa dela ere esan beharra dago. Izan ere, Interneten webgune bat sortzea merkea den arren, domeinua erostea, propaganda egitea... dirua eskuratzea beharrezkotzat jotzen duela.

Halako sostengu ekonomiko txiki batek askatasuna nolabait mantentzea ahalbidetzen du. Bestalde, gazte mugimendu horietan parte hartzen duen jendea webgunean ere parte hartzen du kolaboratzaile moduan askotan, hau da, informazioa edo iritzia bidaltzen. Horrela jaio dira, adibidez, gaztetxe anitzek sortutako web orrialdeak, gaztetxe-ko ekimenetan parte hartzen duten pertsonen esker hain zuzen.

Badaude ere beste era batean jaio diren komunikabide alternatiboak, horiek hainbat pertsonen elkartu eta sortzearen erabakiaz sortu dira. Hauek ez dute babes ekonomikorik, ez bada pertsona horiek jarritako diru kopurua. Era berean, kolaboratzaileak izatea ere zailagoa izaten da.

Hala ere, parte hartze irekiko teknikaren bidez, irakurle goari informatzaile papera jokatzeko deia zabaltzen zaie, horrela, informazioa edo iritzia ematen duten gehienak irakurleak izan ohi dira. Beraz, webgunea sortu dutenak haren mantenuaz arduratu eta noizbait albisteren bat argitaratu baino ez dute egin behar.

Hauen ekonomia askoz ere murriztagoa denez, propaganda ere askoz ere txikiagoa da eta ez dute besteek lorzen duten zabalkundea izaten. Ez bada sare baten parte direlako, *Indymedia* adibidez.

3. *Mediaberr*: Sorrera

Gizarte eta Komunikazio zientzien fakultateko ikasleak ginela sortu zen *Mediaberr*, hirugarren pertsonan esan behar, helburu jakin batekin jaiotako proiektu bati jarraipena emateko asmoak eraman gintuelako webgunea egite-ra. Lau lagun izan ginen sortzaileak eta hainbat bilera eta buruhausteen emaitza izan zen webgunea. Bakoitzaren ideia jaso zezakeen ataritxo bat sortu nahia zegoen, inolako baliabiderik gabe, baina ideia garbi bezain garrantzitsu bati helduta, askatasunez informatzearena.

Izan ere, kazetari batek ordainduta ez den lana burutzean gauzatzen duen asmo bakarra informatzearena baino ezin da izan. Kazetari sena moduan inoiz deskribatu duten horretaz ari gara, hein batean behintzat. Jaiotzeaz zegoen komunikabidea askatasun osoz idatziko ziren askotariko informazioen atari izan behar zuen, norberak bere kezken arabera gaiak jorratu zitzaizkien.

Inolako azpiegiturarik gabe jaio zen *Mediaberr* 2002ko apirilaren bigarren astean. Hauek dira hasiera horretako edizioaren ezaugarriak:

- Webgunearen diseinua oso sinplea zen, erabat funtzionala.
- Astekari digital gisa aurkeztu genuen.
- Elebiduna zen, gure ekoizpen osoa euskaraz zen arren, gaztelera artikuluren bat plazaratzen genuen.
- Euskal Herria, Mundua eta kultura atal nagusietan banatzen ziren artikulua.
- *Rebellion.org* webgunea izan zen erredua, bai edukien aldetik, bai diseinuari dagokionez.
- EHUko zerbitzariak gordetzen zuen (hosting-a) webgunea eta helbidea www.ehu.es/mediaberr zen.

Hasiera batean ez genuen egin bisitari kopuruaren inguruko kontrolrik, gure lan-sistemak zuen bideragarritasuna baitzen aztertu beharrekoa. Bakoitzak bere aldetik egiten zuen lan, inoiz erredakzio moduan lanik egiteko aukera izan gabe, baina hala ere aurrera egin zuen komunikabide berriak. Astekari gisa aritzeak erraztu zuen webgunea horrela mantendu eta proiektuarekin jarraitzea. 2003an zenbait berrikuntza egin eta zenbait emaitza izan genituen.

Berrikuntzak:

- Erabat euskalduna bihurtu zen *Mediaberr*.
- Kolaborazioak heltzen hasi ziren.
- Diseinua, funtzionaltasuna mantendu arren, hobetu genuen.
- Unibertsitatea atal berria ireki zen.
- Astekaria izatetik egunero gaurkotzen hasi ginen.
- *Mediaberr.com* domeinua erosi genuen.

Nabarmentzekoak:

- Bilbon, 2002ko Irailaren 14ko manifestazioaren inguruan Interneten euskaraz informatzen zuen lehenengo komunikabidea izan ginen.
- *Euskaldunon Egunkaria* itxi zutenean, honen lekua egun batez hartzea erabaki genuen, hau da, informazio orokorra euskara hutsez eskaintzea Interneten. Agentzien informazioak hartuta, *Egunkaria* itxi eta hurrengo goizean, Komunikabideek goiz horretan ematen zituzten albiste gehienak irakur zitezkeen *Mediaberr*in, garrantzitsuenak behintzat (40 inguru).
- Handik hilabetera, Iraken kontrako erasoak abiatu zituztenean, hasierako orduetan (gaueko 03:00ak aldera izan) euskaraz publikatzen ziren lehenengo albisteak *Mediaberr* eman zituen.

3.1. Bilakaera

Gure eskaintzaren bereizgarriak bi izan dira nagusiki, aipatutako erabateko askatasun informatiboa batetik, eta are garrantzitsuago, kazetariak egindako produktu informatiboa zela, ohizko informazio alternatiboaren eredu parte-

hartzailearen kontra. Ordurako 40-50 irakurle izango genituen egunero, unibertsitateko ikasleak gehien bat. Ez genuen espero, ordea, unibertsitatean bertan beste irakurle mota bat izatea.

Unibertsitate atalerako eginiko lanak, ezusteko ederra eman zigun 2003-2004 kurtsoaren hasieran. Nicolas Xamar-do irakasleak gose greban zegoen eta haren aldeko manifestazio baten kronika plazaratu genuen *Mediaberrin*. Errektoregoan, informazio horren berri eta, antza, ez zuten gustuko izan. Ordurarte erabili izan genuen unibertsitateko espazioa kendu ziguten. Ezin genuen sinestu gurea bezalako komunikabide txiki eta hedapen gutxikoa zentsura pairatu zezakeenik, baina halaxe izan zen.

Hiru egunez egon zen itxita *Mediaberrin* eta azkenean GITE-IPES elkartearen webgunean sartzeko aukera zabaldu ziguten, gaur egun erabiltzen jarraitzen duguna hain zuzen ere. Negoziazio batzuk direla medio, bi hilabete pasa eta unibertsitateko zerbitzarira bueltatzeko eskaintza izan genuen, ez genuen onartu, ordutik bagenekien kontrolpean egon gintezkeela. Alde ona izan zuen zentsurak, izan ere, albistea zabaldu zenean Euskal Herri osoak izan zuen Mediaberriren berri. Hegoamerikatik ere jaso genituen elkartasun mezuak.

Azken datu batzuk:

- EHUa aukera askeko kredituak lortu genituen *Mediaberrin*ko erredaktoreentzat.
- Martxoaren 11n Madrilen burutu zituzten atentatuen berri 15 orduz, jarraian, eman zuen *Mediaberrin*, informazio bila zeuden ehunaka erabiltzaileen bisita izan zuela.
- Egunero 50 bat bisitari izaten dira eta astero ehun artikulua inguru irakurtzen dira Interneteko bilatzaileetatik zuzenean. Horretaz gain, ohizko komunikabide alternatiboek gure artikulua plazaratzen dituzte.
- Dagoeneko ia 2.000 artikulua publikatu dira *Mediaberrin*.

3.2. Etorkizunari begira

Ikasle garaia amaituta ere, *Mediaberrin* abiatu genuen uneko oinarriak betetzen jarraitzeko asmoa dugu. Euskaraz egindako informazio alternatiboa da gure eskaintza eta kazetaritzaren irizpideak jarraitzea gure bereizgarria. Gizarte eragilean eta herri mugimenduen mezuen euskarri izaten jarraituko dugu ere eta guzti horretarako, ezinbesteko bezain egokia suertatzen zaigu Internet.

Hasierako helburuetan gure proiektura kide berriak erakartzea zegoen eta hori gauzatzeko moduan ez dugu asmatu. Hasierako lau laguneko taldetik, bat galdu dugu ere. Gure erronka nagusia euskal adarreko kazetaritza ikasleak hurbiltzea izan behar da epe laburrera eta Komunikazio Zientzien fakultateko irakasleen laguntza eskertzeko litzateke ahalegin horretan. Ikasketa honek behar beharrezkoak ditu praktikak eta eredu bideragarria izan daiteke hori, kredituak lortzeko aukera luzatuta.

*Mediaberrin*en bidea, gaurko egunean, GITE-IPES Elkarte herritarrari lotuta dago. Erakunde honekin sortutako elkarlanak emaitza bikainak izan ditu, proiektu ugarietan parte hartzeko aukera zabaldu dela ere *Mediaberrin*ko kazetariontzat. Gizarte Ikerkuntzarako Talde Eragilea (GITE-IPES) Bilbon duela 27 urte sortutako elkarte da. Aztertu ohi dituen gaien inguruan aritzeko adituak ditu bere baitan eta askotariko eremuetan sakondu du, hala nola Euskal Herriko historia, emakumea, nazioarteko gatazketan edota ekonomian.

Elkarte herritarren lana ezagutzera ematea da komunikabide alternatiboen erronketariko bat eta helburu horrekin uztartu genuen *Mediaberrin* GITE-IPES bezalako elkarte batean. Honekin batera, erredakzio moduan lan egiteko aukera ere lortu dugu, elkartearen baliabideak erabiltzeko aukerari esker.

b. MENDEBALDEKO EUSKERA ETA BIZKAIE!

Koldo Isusi
Bizkaie! aldizkariko zuzendaria

1. Mendebaldeko euskerearen nondik norakoak

1.1. Historia laburra

Mendebaldeko euskerearen jatorriaren harian, sarritan lotu izan da hizkuntzalariek autortzen deusien eremu geografikoa eta erromatarren sasoiaren bertan bizi ziran tribuen banaketegaz. Harrigarria da bardinak izatea bizkaieraren gaurko mugak eta orduko karistioenak.

Horrezaz gan, eleizbarrutien eremuak be bat datoz euskalkien muga geografikoakaz. Bizkaierearen eremua Kalagorriko eleizbarrutiaren menpean egon zan, eta hegoaldeko ganerako euskalkiak, barriz, Iruñekoaren menpean. Azpimarratzekoa da Araba osoa eta Nafarroako haran bat (Ameskoa) Kalagorriko eleizbarrutian egozala eta, ezaguna danez, hango berbeten mendebaldeko kutsua nabarmen-nabarmena da. Dana dala, ez dau emoten, Arabako euskera bizkaiera hutsa zanik; nortasuna berezia eukan, bizkaierearen ezaugarri asko euki arren.

Yrizarrek 1970. urtean egindako ikerlanaren arabera, bizkaieraz 200.000 lagunek egiten eben berba, eta Euskal Herriko lehenengo euskalkia zan hiztunen kopuruari jagokonez. Kontua da azken 30 urteotan euskerearen egoerea asko aldatu dala Bizkaian, eta euskeraz egiten daben lagunak askozaz be gehiago dirala gaur egun, zorionez; dana dala, ez dago jakiterik zehatz-mehatz zelakoa izan dan bizkaieraz berba egiten daben eboluzinoa. Begi bistakoa da hezkuntza sistemeari esker, euskeraz ikasi daben askok euskera batuaz ikasi dabena eta ez bizkaieraz.

1.2. Literatura klasikoa

Bizkaiera, literatur euskalki legez, ez zan berandura arte landu. Egon egon dira bizkaieraz idatzitako testuak baina, esandako moduan, literatur hizkuntzearen eregiteari jagokonez, bizkaiera ez zan XIX. gizaldira arte literatur euskalki bilakatu. XVI. mendekoak dira lehenengo idazlanak, eta idazkiotan gipuzkera baino landuago agertzen jaku. Dana dala, XVII. eta XVIII. mendeetan nabarmena izan zan beheraldia. Lapurterek euki eban hasikeran garrantzi handiena eta gero, Larramendiren ondorengo berpizkundeagaz, gipuzkera indartu zan gehien.

Bizkaierazko literaturearen urterik garrantzizuenak 1802-1803 izan ziran, eta idazle bi nabarmendu ziran gehienbat: Mogel eta Añibarro. Duda barik, idazle handi bi horreek eregi eben bizkaiera idatzia, bide desbardin bi urratu baebezan be. Mogelek Markinako eskolea deitutakoa sortu eban, eta Arratiako eskolea, barriz, Añibarrok. Edoze-lan be, XIX.eko lehenengo urteetako loraldiaren ostean, mendearen erdialdean, bizkaieraz idatzitako literaturea nabarmen gitxitu zan. Kontuak kontu, XIX. mendearen azken hamarkadan berpizkundera etorri zan barriro, eta urte horreetan bizkaieraz argiratutako liburu eta artikuluen kopuruak gora egin eban, aurreko garaietan baino askozaz gehiago. Oso garrantzitsuak izan ziran urte horreetan sortutako lehenengo aldizkariak, Euskalzale eta Ibaizabal esate baterako, R.M. Azkueren zuzendaritzapean. *Euzkadi* izeneko aldizkaria be plazaratu zan, geroago egunkari bila-

katu zana. Euskalzaletasuna be, asko garatu zan sasoi horretan, eta horregaitik euskerearen ganeko idazlan asko eta asko argitaratu ziran. Arlo honetan aitatu beharrekoak dira izen batzuk: Resurrección María Azkue, Sabino Arana Goiri eta Arrandiaga. Zoritxarrez, susperraldi horretan, uko egin jakon bizkaieraren aurreko literatur tradizioari eta literatur hizkuntza barri eta “garbi” bat eregiteari ekin jakon: hiperbizkaiera hain zuzen, ganerako euskalkietatik ahalik eta urrunen joateko ahalegina.

1.3. Oraintsuko ahaleginak

Gerra ostean, Arantzazuko frantzizkotarrek gramatikaren gainean egindako ekarpenak sano garrantzitsuak izan ziran. Joseba Intxaustiren *Euskal-Aditza. Gipuzko-bizkaierak* (1960) gramatika euskalki literarioen tradizioan oinarritu zan; tradizio zaharraren iturrira jo eban Eusebio Erkiagak bere literaturgintzean eta era apalagoan Aresti edo Irigoienek eta Mikel Zaretek, Derioko Seminarioan eta Udako Euskal Ikastaroaren gerizpean landu ebazan idazlanetan. Derioko Udako Euskal Ikastaroa da 1970etik gora bizkaierazko eredu idatziaren eta haren literatur emoitzearen ikaskuntzan saiorik gehien egin dituana. 1977tik aurrera, barriz, Labayru Ikastegia arduratu zan bizkaiereaz. Beranduago, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak, Euskara Zerbitzuaren bidez eta Labayru Ikastegiko irakasleak alkarlanean, oinarritzko arau batzuk finkatu ebazan: Bizkaieraren idatzizko arauak. *Deklinabidea eta aditza* (1983) eta *Bizkaierazko Joskera* (1984).

Aitatutakoez gan, mendebaldeko euskera suspertzeko ahaleginean, Ibaizabal argitaletxea, Bizkaia Irratia, ikastola, idazle eta aldizkari batzuk Bizkaiko Batzar Nagusiak eta udal batzuk nahitaezkoak izan dira. Azken urteotan, barriz, Mendebalde Alkartearen ekarpena eta ibilbide laburra izan dauan *Euskaldunon Egunkariaren Bizkaia* gehigarria oso garrantzitsuak izan dira.

1.4. Gaur egungo bizkaiera eredia

Mikel Zaretek esaten eban legez, euskera ona ikasi gura dabenak jo bei idazle zaharretara eta herriko hiztun onengana. Ideia horri eutsita, gaur egun, gehienok erabilten dogun bizkaiera eredia tradizio idatziaren eta ahozko euskera biziaren ardatzetan oinarritzen da.

Kontuak kontu, mendebaldeko euskerearen eredu jagia eregite prozesuan dago eta orain arteko ahaleginak gorabehera, makinatxu bat dira lexiko, morfologia eta sintaxi mailako zalantzak. Esangura horretan, norberaren kaleko, lagunarteko zein familiako berbeta berezi eta ugarietz gan, komunikabideotan, administrazioan, irakaskuntzan, zein itzulpenen munduan gabiltzanontzat eta eredu jagia behar dogunontzat nahitaezko tresna bihurtu da Labayru Ikastegiak argitaratutako *Bizkai Euskerearen Jarraibide Liburua*.

2. Euskara batua eta mendebaldeko euskera

Euskaltzaindiak 1968ko Arantzazuko biltzar nagusian euskaldun guztien arteko lokarria izateko asmoagaz euskera literarioa beharrezkoa zala erabagi eban eta ordutik joan dira bai urte batzuk.

Euskera batuak idatzizko zereginetan ezelako eragozpenik barik erabili ahal izatea ekarri eban eta euskera kultura hizkuntzea izateko atea zabaldu eban horrek; beste edozein lekutako euskaldunak alkar ulertzeko eta komuniketako modua erraztu eban, euskera batuari esker euskaldun barriak ugaltu egin ziran eta euskera alderdi erdal-dunetara be zabaldu egin zan beste onura batzuen artean.

Hori guztia onartuta, mendebaldeko berbetearen indarra eta nortasuna ukatzerik be ez dago eta ezin ahaztu mendebaldean euskera bizirik dagoala eta egon dala historian, batez be, XIX. mendetik hona. Euskalkiaren eremua zabala da eta sartaldeko eta sortaldeko azpieuskalkiak bereiztu behar dira.

Gauzak holan, euskalki guztien ekarria aintzat hartuta eregi beharreko ereduaren erdialdekoek hartu eben indar gehien, mendebaldeko euskerearen eta, oro har, euskerearen kaltetan. Zorionez, euskalkiakazko eta, batez be, mendebaldeko euskalkiagazko kontrako jarrera apaldu dala esan leiteke eta, gaur egun, banakaren bat kenduta mundu guztiak onartzen dau euskalkien indarra eta bizitasuna. Errespetua da giltza. Euskera batua eta euskalkiak alkarren osogarri eta aberasgarri dira eta batek bestea zapaldu beharrean, berbeta modu bat aukeratzen danean bestearen aberastasuna erabilten jakin behar da. Beste kontu bat da egoera baxotxean ze berbeta erabili behar dan zehaztea. Edozelan be, euskerazko kazetaritza aztertzen gagozanez, mendebaldeko euskerearen balioa aldarrikatu eta mendebaldeko euskerea definituteko sasoi bateko 'berbeta baldarra', 'basatia', 'erderakadaz jozia' lako perlak baztertu behar dira.

Sartaldeko zein sortaldeko ekarpenak aintzat hartuko dituan mendebaldeko euskera normalizatuaren eredu jagia aukeratu, gizarteko eta eguneroko jardura guztietan erabilteko modukoa da eta zer esanik ez komunikabideotan.

3. Komunikabideak, teknologia barriak eta mendebaldeko euskerea

3.1. Azken urteotako iraultzea

Munduan zabal dabilen jokereagaz bat eginda, Euskal Herrian be komunikaziorako beharrian handia dago eta horren erakusgarri azken hogeita hamar urteotako eboluzinoa: bolada batean ia ezinezkoa emoten ebana errealidade bihurtu da, izan be, egunkari, irrati eta telebista nazional banaz gan, zabalpen eremu desbardinako astekariak be badagoz; baita, herriz herri, eta sektorez sektore osotzen joan dan komunikabide txiki eta erdi mailakoen sare zabalak. Gaurko egoera hainbat lagun, alkarte, gizarte-mobimentu eta erakunderen ahalegin eta alkarlanen ondorioa izan da. Gaur egun, 500 bat profesional dabiz kazetaritza beharrean eta 250etik gora komunikabide horren lekuko dira. Hori guztia, 779.788 hitzuneke herrian.

3.2. *Bizkaie!*, bizkaierazko aldizkari elektronikoa

Bizkaie! Bizkaierazko Aldizkari Elektroniko irabazi asmorik bako Bizikai Alkarte Kulturalaren ekinbidea da eta 2002ko apirilaren 8an agertu zan Sarean 0 zenbakia. Oraintxe 84. zenbakia dago Sarean, zemendiaren 8an argitaratutakoa, hain zuzen.

Bizkaiera hutsean Interneten dagoan askotariko aldizkari elektroniko bakarra da, edukinak astero eguneratzen dituan eta jorratzen doguzan gaiak, besteak beste, ondokoak dira: azken orduko barriak, alkarrizketak, euskerea, kulturearen arlo desbardinak, literatura, pintura eta bestelakoak, bertsolaritza, musika, bidaia-kronikak, eretxia, antxinako kontuak, euskaldunak munduan, gastronomia (sukaldaritza, enologia, dietetika eta nutrizinoa), informatikoa, zinea...; irakurleen txokoa erabiltzaileek euren ekarpenak egiten dabez, zeozeren barri emoteko, kritikaren bat egiteko, gai zehatzen baten gainean eretxia emoteko zein argitaratutakoei erantzuteko. Hasieran edukinak hamabostero eguneratzen bagenduzan be, azken urtebetean, astero eguneratzen doguz eta 'Agendea' eta 'Barriak Barri' ataletan, gaurkotatutako barriak emoteko ataletan, informazioa jaso ahala igoten dogu.

Kolaboratzaileen artean, idazle, irakasle, lizentziadun eta doktoreak, bertsotan adituak, marrazkilariak, bidaia-riak, sukaldariak, enologoak, dietistak, itzultzaileak eta informatikoak tarteko, talde zabalagaz behar egiten dogu.

a. Buber Saria

Erabiltzaileen ekarpen eta kritikei erantzunez, *Bizkaie!*ren kalidadea hobetzeko askoagaz, makinatxu bat aldaketa egin eta atal barriak be sartu doguz. Ahaleginak aintzat hartuz, igazko abenduan, Durangoko Azokaren bezperan, Buber Saria irabazi genduan, 'Interneten euskerea zabaltzen gehien lagundu dauan webgunea' kategorian.

Internet&euskadi alkartearen antolakuntzeagaz eta EiTb eta Eusko Jaurlaritzako www.euskadi.net barruko Euskadi Informazio Gizartean erakundearen babesagaz, euskal web onenak saritzeko saria da Buber; sariaren izena Blas Pedro Urberuagaren ohorez jarri zan; Idahora emigrau eben artzainen semea berau eta 1994an, oso-osorik Euskal Herriari eskainitako lehenengo webgunearen sortzailea izan zan.

Bizkaie! aldizkariak irabazitako Buber sariagaz, oro har mendebaldeko euskereak irabazi dau, izan be, orain horrenbeste denpora ez dala etxe barrurako edota lagunarterako berbakeratzat eukelako askok eta askok eta sari honegaz, zeozelan bizkaiereak edozein gai, giro eta arlotan erabilteko moduko berbakerea edo komunikaziorako tresnea dala erakutsi daualako argi. Horrezaz ganera, diseinuaren erakargarritasuna eta edukinen aberastasuna, banaketea zein aukeraketea be kalidadekoa dala erabagi dabe bozketaren bi faseetan parte hartu daben milaka internautek zein gizarteko sektore desbardineta kideez osotutako epaimahaiak.

b. Bizkaie! aldizkariaren helburuak

Mendebaldeko euskerea eta, oro har, euskerea sustatzeko helburuagaz sortu zan *Bizkaie!* eta mendebaldeko berbe-teak Sarean lekua behar ebala pentsau gendualako.

Bizkaie! aldizkariaren helburuak:

- Euskerearen ondarea sustatzea, euskerearen aldeko interesa sortarazotea eta gure kulturearen ganeko informazioa emotea (euskalkiak, bertsoak, Euskal Herriaren historiako pasadizuak eta bestelakoak jorratzea mendebaldeko euskalkiari indarra eta prestigioa emonaz).
- Sareari esker, mendebaldeko euskerea munduan zabaltzea.
- Gaurkotasuneko gaiak jorratuz, mendebaldeko euskeraz idatzitako testuak sortzea eta sustatzea.
- Bizkaierazko irakurzaletasuna bultzatzea.
- Mendebaldeko euskerea eta teknologia barriak buztartzea.
- Mendebaldeko euskerea eskoletan be sartzea, bidebatez ume eta gazteen hizkuntza gaitasuna sendotuz.
- Ikastola, ikastetxe, euskaltegi edo unibersidadeetan erabili daitekezan bizkaierazko testuak sortzea.
- Etxean eta lagunartean ez eze, bizitzako ganerako arloetan be mendebaldeko berbetea erabili ahal izateko aukerea emotea (arlo ludikoa beren beregi jorratuz).
- Mendebaldeko euskerearen batasun eta normalizazio prozesuan laguntzea.
- Bizkaiko kulturearen eremu osora heltzea: kultur etxeak, liburutegiak, gizarte alkarteak, udaletako euskera zerbitzuak, Administrazioa, gazteria, aterpetxeak, udalekuak..., ikastolak, ikastetxeak, Estaduko eta atzerriko Euskal Etxeak..., azken finean, *Bizkaie!* aldizkariaren gizarteratze prozesuan pausuak emoten jarraitzea.

4. Euskerazko webguneen eragingarritasuna

4.1. Euskerazko webguneetan ibiltzen diranen ezaugarriak

Eustat, Euskal Estatistika Erakundearen arabera, EAeko herritarren artean 2004ko urtarriletik bagilera % 34 hazi da euskerazko webguneetan ibiltzen diran euskaldunen kopurua, guztira, 98.000. Horreetatik % 71,1 35 urtetik beherakoak dira eta ikasketei jagokenean, % 51,4k goi mailako ikasketak daukiez. Ganera, hiru erabiltzailetik bi, % 63,1 inguru emakumezkoak dira.

Beste alde batetik, ibiltari euskaldun gehienak Bizkaian bizi dira, % 44,1 hain zuzen be. Ehuneko hori lurralde horretan bizi diran euskaldunen proportzioa baino apur bat handiagoa da. Internet erabiltzen dabenen kopurua igon egin da: 2004ko bigarren hiruhilekoan Sarean sartu diran 15 urte edo gehiagoko erabiltzaileak 618.000 izan dira, hau da, 15 urte edo gehiago dabezan EAeko biztanleen % 34,3.

4.2. Euskerazko edukinak daukiezan web orriei buruzko ondorioak

- Euskal Herriko webgune danak kontuan hartuta (elebidunak, euskera hutsezkoak eta
- Erdiak baino gehiago herri-erakundeenak, irabazi asmorik bako alkarte pribatuenak edo ikastetxeenak dira. Oso gitxi dira enpresa mundukoak.
- Euskerazko edukinak daukiezan herri-erakundeen web orrien erdiak baino gehiago Eusko Jaurlaritzearenak edo Hego Euskal Herriko udalenak dira.
- Ipar Euskal Herriko herri-erakundeen euskerazko web orriak ez da agiri.
- Nafarroako herri-erakundeen web orriak oso urriak dira (sail horretakoen % 6).
- Euskerazko edukinak daukiezan web guneen hasierako orrien % 25ek espainieraz daukiez edukinak.
- Irabazi asmorik bako alkarteen kasuan, orri nagusietan euskera bakarrik edo euskerea nagusi agiri da erdietan baino gehiagoetan.
- Gitxi dira Internetek ahalbidetzen dituan edukin multimedia, interaktibitatea eta transakzinozkoak eskaintzen dabezanak. Erdiak baino gehiagok edukin estatikoak bakarrik daukiez.

Kontuak kontu, emoten dau web orrietan euskereak ohiko komunikabideetan daukan presentziaren antzekoa daukala eta ahulezia nagusiak lurralde eta arlo berberetan dituala.

Bibliografia

<http://www.bizkaiera.net>

<http://erabili.com>

'Euskarazko edukiak dituzten web guneen azterketa'. Andoni Sagarna.

'Euskararen senda belarrak'. Koldo Zuazo.

'Bizkai euskeraren jarraibide liburua. Labayru Ikastegia.

a. ZEREGIN ASKO EUSKALDUNOK PUBLIZITATEAN

Iñigo Fernández Ostolaza
Publis agentzia

1. Sarrera

Telebistan, irrastian, prentsa idatzian, interneten, markesinetan, hesietan, saltokietan, kiroldegietan, kultur etxeetan, kalean... Nonahi dago publizitatea, eta une oro. Nabarmena denez, erabateko presentzia -eta eragin handia- du publizitateak, eta eremu horretan ere, lan asko dago egiteko, “euskararen normalizazio osoa” edo, bestela esanda, “euskararen garapen oso eta iraunkorra” lortu nahi bada.

Askok daukagu egiteko, bai, bi zentzutan gainera: kuantitatiboki, publizitate-euskarritan euskararen presentzia areagotuz, paisaia fisiko eta ez fisikoan; eta kualitatiboki, publizitatean euskara zuzen, jator eta egokia erabiliz. Asmo horrexekin izenpetu zuten zenbait eragilek publizitate sektoreari dagokion Bai Euskarari Akordioaren Plan Estrategikoa. (<http://www.kontseilua.org/txostenak/Publizitatea.pdf>). Ez dakit plana zenbateraino ariko ote diren gauza-zen. (Eta benetan diot hori, inongo asmo ironikorik gabe).

Badakit, ordea, Euskal Herrian publizitatea egiten duten iragarle handiek eta publizitate agentzia garrantzitsuenek gaiari serio heltzen ez badiote, ez dugula benetako aurrerapausorik egingo. Une hori iritsi bitartean, edo hura azkarrago hel dadin bideak bilatzeko asmoz, zenbait hausnarketa eta lan ildo eskaintzen ditut orriotan.

2. Euskararen egoera publizitatean

Honela laburtuko nuke, faktorerik garrantzitsuenak soilik aipatuta bada ere, euskararen egoera gaur egun publizitatearen eremuan:

2.1. Iragarleak

- a. Iragarle gehienek ez dute beharrik sentitzen publizitatea euskaraz (ere) egiteko
Gehienek ustez, publizitatea gaztelera hutsez eginda, galdu behintzat ez dute ezer galtzen lehiakortasunean. (Eta ez da ahaztu behar: iragarki elebidunek eraginkortasuna galtzen dute askotan eta gastu handiagoa dakarte beti).
- b. Handien artean, askok itxura gordetzearren soilik egiten dute beren publizitate guztia ele bitan, behartuta daudelako nolabait.
Gehienek ez dute garrantzitsutzat jotzen publizitatea euskaraz egitea, eta ondorioz, ez dute erdarazkoa bezainbeste zaintzen.
- c. Ez diete exijitzen beren publizitate agentzietan euskarazko publizitate on eta eraginkorra.
- e. Itzultzaile propioak dituzte askok. Onenean, publizitateaz ezer gutxi dakiten filologokoak izan ohi direnak; eta txarrean, bertako euskaldun “aditu” bat izaten dena.

2.2. Publizitate agentziak

- Iragarle handiek ez dituzte gehiegi estutzen, eta ez dute euskarazko publizitatea serioegi hartzeko motibazio berezirik.
- Profesional euskaldun gutxi dituzte (eta are gutxiago goi-karguetan).
- Euskaraz sortzeko beharrik ez dute sentitzen. Ondorioz, ez dituzte beharrezkotzat jotzen euskaraz sortzeko gauza diren kreatiboak.
- Kanpaina guztia landu ostean, behin bezeroak aprobatu duenean, azken ordu erdian egiten dituzte itzulpenak euskarara.

Onenean, jatorriz gaztelerazkoa den mezuaren euskal bertsio bat, egokitzapena, egiten saiatzen dira; itzulpen zuzena, hitzez hitzeko kalkoa, saihestuz.

2.3. Media zentralak

- Medioen plangintzak egiterakoan audientzia datuetan oinarritzen dira batik bat.
- Euskarazko publizitatea ez dute inpaktu kualitatiboak lortzeko bide gisa proposatzen.

2.4. Bestelako faktore garrantzitsuak

- Iragarle euskaldunek ez dute, oro har, publizitate ona egiten. Salbuespenak badaude, baina euskarazko produktuak sustatzeko egiten diren kanpaina arrakastatsuenak profesional erdaldunek egiten dituzte (beti?) euskal iragarleentzat.
- Publizitatea egiten duten enpresa euskaldunek ez dauzkate, profesional onak eremu hori kudeatzen.
- Publizitate ona euskaraz sortzeko gai diren pertsonak oso gutxi dira, itxura guztien arabera; sormen gaitasuna eta adierazkortasun zorrotza euskaraz, bi-biak eduki behar direlako. Eta gutxi dira, baita ere, komunikazioan eta publizitatean aditu diren euskaldun profesional onak.
- Publizitatean espezializatutako itzulpen zerbitzuak eskaintzen dituen enpresarik ez dago. Ez behintzat iragarle eta publizitate agentzia handiei alor konkretu horretan benetan aditua dela erakutsi dienik.
- Euskarazko hedabideek zailtasunak dituzte, publizitate inbertsio handiak erakartzeko.

3. Publizitatea, euskararentzako tresna

Euskararen normalizazio bidean, lehen-lehen mailako garrantzia du publizitateak. Hala aitortzen du Eusko Jaurlaritzaren Euskararen Aholku Batzordeak aho batez onetsitako Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak. “Euskara eta Publizitatea” gaia hizpide dugunean, ez gara, ez, ahuntzaren gauerdiko eztulaz ari.

- Batetik, nonahi dagoenez eta une oro, eta gainera hizkuntzarekin jolas eta egitura berriak egiten saiatzen denez, euskara zuzen, jator eta egokia gizarteratzeko euskarri ezin egokiagoa izan daiteke publizitatea. Kualitatiboki eta kuantitatiboki lagun diezaioke euskarari zentzu horretan, beraz, kalitateko euskara ereduak sortu eta haiek bazter guztietara hedatuz.
- Bestetik, berriz, diru iturri garrantzitsua da publizitatea, eta alde horretatik, euskarazko hedabideen hazkunde eta hedapenerako erabakigarria izan daiteke zeharo. Horrek ekar dezakeen guztiarekin.

Euskarazko hedabideek badakite publizitatea erakarri behar dutela, beren iraupena bermatzeko eta dirulaguntza publikoen menpe ez bizitzeko beti. (Ikusi aurrean bertan *Asteon* aldizkaria zenari gertatu zaiona). Publizitatea diru iturri sendo bihurtzen asmatzen duten heinean, baliabide ekonomiko handiagoak izango dituzte hazteko, eta ondorioz, euskara sustatzen jarraitzeko. Sorgin-gurpil batean daude harrapatuta, beraz, euskara eta publizitatea: publizitatea lortzeko, kalitateko produktuak eskaini eta irakurle-entzule-ikusentzule gehigo lortu behar dituzte euskal hedabideek. Aldi berean, ordea, publizitate inbertsioak erakartzeko gauza ez diren bitartean, zeharo mugatuta

daude produktu hobekoak eskaini eta jende gehiagorengana heltzeko. Inpasse moduko ataka horretan, zeregin asko dugu euskaldunok publizitatearen eta komunikazioaren eremuan. Eta hasteko, nabarmena denez, gida-lerro batzuk behintzat beharko ditugu aurrean dugun bide luze eta malkartsuari behar den bezala ekiteko.

4. Profesionaltasuna eta kalitatea

Onak gara euskaldunak produktuak ekoizten. Egin, ondo egin ohi ditugu gauzak, kalitatea izar gidari hartuta. Haiek saltzen, ordea, ez dugu gaitasun bera erakusten. Zorionez, baina, konturatzen hasiak gara dagoeneko produktu baten merkaturatzeak, haren ekoizpenak bezainbeste ahalegin eta dedikazio merezi duela gutxienez. Sumatzen dugu zer edo zer egin behar dugula marketinaren eta komunikazioaren esparruan. Iritsi berriak garen mundu horretan, baina, ez dakigu oso ondo zer egin.

Publizitateak gure mesederako ezer gutxi egin dezakeela pentsatuz heltzen diote gure artean batzuek komunikazioaren erremintari, batere konbentzimendurik gabe. Eta beste batzuek, berriz, konbentzimendu handiz baina irizpide estrategiko argirik gabe.

Horrela, bada, komunikazioaren mundua etereoa eta emaitza neurgarririk eskaintzen ez duena delakoan, kaze-tariak, komertzialak, filologoak, soziologoak, jakintza esparru guztietako lagunak izendatzen ditugu komunikazio arduradun, zoriari esker kanpaiak gurean joko ote duen.

Haietako batzuek, esku artean duten tresnaren garrantzi eta konplexutasunaz jabetuta, komunikazioan aditu diren profesionalekin eta publizitate agentzia benetan onekin egiten dute lan, eta emaitza oparoak erdiesten dituzte sarritan. Kontua da, ordea, kasu ia guztietan erdaldunak izan ohi direla bai enpresetako komunikazio arduradunak eta bai haiei laguntzen dieten aditu eta aholkulari horiek ere.

Oso gutxi dira, oraingoz behintzat, benetan onak direla erakutsi duten publizitario euskaldunak. Eta euskararen normalizazio bidean publizitateak bere ekarpena egin dezan nahi badugu, komunikazioan eta marketinean aditu profesional euskaldunak behar ditugu. Profesional benetan onak, eta asko. Enpresa eta publizitate agentzia handienetan, beren lanean oso onak direlako goi karguetara iritsiko diren profesionalak, euskarazko (eta erdarazko) publizitate eraginkorra egiteko gauza izango direnak, publizitateak euskarari lagunduko diola bermatuko dutenak, azken batean.

Euskaldun profesional onak behar ditugu komunikazioaren eta marketinaren eremuan: euskaraz iragartzen diren enpresetan eta publizitate agentzietan lan eginez, euskarazko publizitateari bultzada eman diezaioten, kualitatiboki eta kuantitatiboki; euskararentzat estrategikoak diren enpresetan (hedabideetan, adibidez) etekinak lortzeko eta publizitate inbertsioak erakartzeko estrategia hobek finka ditzaten; itzulpen publizitario onak egin ditzaten...

Bai, publizitatean espezializatutako itzultzaileak ere behar ditugu, baina ez gara horretaz ari, noski, komunikazioan eta marketinean aditu profesionalen beharraz mintzo garenean.

Komunikazio estrategia benetan eraginkorrak ezartzeko gauza diren adituak behar ditugu batez ere, kontu arduradunak, batetik, eta bestetik, berriz, euskaraz publizitate ona sortzeko gai diren kreatiboak. Eta, jakina, guztiek ere komunikazioaren eta marketinaren inguruko ezagutza sakonak ez ezik, hizkuntza ere, euskara bera, doitasunez erabiltzeko gaitasun zorrotza izan behar dute. Ez baita nahikoa euskaraz jakite hutsa.

Kreatibo euskaldunak zeharo garrantzitsuak dira, haiek idatziko dituztelako gero nonahi eta uneoro topatuko ditugun esaldi eta testuak, baina haiek bezain beharrezkoak dira -edo gehiago- kontu arduradunak, publizitatea ez baita soilik, batzuek uste duten bezala, ideia deigarri eta saltzaileak asmatzeko lanabes bat. Publizitario on batek

marketin helburu orokor batzuk erdiesteko, komunikazio helburu zehatzak ezarri eta haiek lortzeko estrategia egokiak finkatzeko gauza izan behar du. Erraza da hori esaten. Oso-osoz zaila egiten, ordea, eguneroko lanean.

Gero etortzen da sormena, komunikazio estrategiaren ostean -hala behar luke behintzat beti. Arreta gehiago edo gutxiago erakar dezake sormen lan batek, baina estrategia egoki bat jarraitzen badu soilik lortuko du bilatzen ari garen erantzuna hartzaileen artean. Kreatiboek emaitza askoz hobekoak ematen dituzte komunikazio estrategia sendoak ezartzeko gauza diren gidaritzapean. Horregatik behar ditugu publizitate ona euskaraz sortzeko gai diren kreatiboak ez ezik, baita kontu arduradun eta publizitario onak ere. Publizitateak sendoa izan behar duelako, estrategikoki ondo eraikia eta sormen aldetik ondo gauzatua, baita euskaraz ere. Euskaraz batez ere, alegia.

Bestalde, gainera, kontu arduradunek bete ohi dituzte bai enpresetako eta bai publizitate agentzietako goikarguak, eta beraz, estrategikoki berebiziko garrantzia dute euskarazko publizitatearen sustapenerako. Informazioz gainezka dagoen gizarte batean bizi gara, eta komunikazioa oso ondo landu behar da norberaren mezua nabarmentzea lortu eta emaitzak erdietsiko badira. Horregatik, eta komunikazioaren kudeaketa profesional batek ahalegin ekonomiko handia eskatzen duelako, erantzukizun oso handia daukate komunikazio arduradunek, iragarleek. Helburuak ondo zehaztu, zer eta nola komunikatu behar den erabaki, briefing-a ondo itxi, ildo estrategikoa bat finkatu, komunikazio ekintza egokiak ondo antolatu eta gauzatu, ekoizpenean xehetasun txikiena ere zaindu...

Beste esparru askotan profesionaltasunaren eta kalitatearen bidea hartu behar genuela hain argi eta garbi ikusi genuen bezala, hobe dugu publizitatearenean ere horren beharra daukagula ohartzen baldin bagara lehenbailehen. Liburu bat, disko bat, aldizkari bat, edozein produktu, euskaraz egote hutsagatik edo euskalduna izateagatik, berez nahikoa erakargarri suertatzen zireneko garaiak joanak baitira dagoeneko, eta nekez haziko baitira euskal enpresak militantismoaren nitxoan. Komunikazioaren eta marketinaren eremuan ere lehen mailan jokatzen hasi behar dugu euskaldunok, eta horretarako, harrobia landu beharra daukagu, publizitatearen eremutik ere behar duen bultzada jaso dezan gure hizkuntzak.

5. Zeregin asko

Hau ez da plan estrategikoa bat egiteko lekurik aproposena. Epe ertainean publizitateak euskararen alde lan egin dezan lortzeko jarraitu beharko liratekeen zenbait gida-lerro ematen saia gaitezke, ordea, xehetasun gehiegitan sartu gabe:

5.1. Iragarleak

a. Publizitatea euskaraz (ere) egin dezaten konbentzitu behar ditugu (batez ere goi-karguak). Eta horretarako, argudioak eta datuak erabili behar dira batik bat, eta ez konpromisorako deiak soilik.

Argudia daiteke, batetik, euskarak balio erantsia eskaintzen duela publiko zabal baten onspena lortzeko. Euskaraz (ondo) hitz egiten duen marka batek abantaila handia du balizko bezero askorekin identifikazio maila askoz handiagoa lortzeko.

Bestetik, berriz, datuak daukagu: euskarazko hedabideen tiradak, koberturak eta abar, iragarleei modu erakargarri eta samurrean eskura jarri behar zaizkienak.

Ikusarazi behar zaie, gutxienez, irudi txarra ari direla ematen euskaraz ez agertuta, bi hizkuntza dituen lurralde batean kanpotar erdalzale itxura ematen dutela gizarteak hautatutako bidearekin bat ez badatoz.

b. Publizitatea euskaraz egiten dutenek (erakunde publikoek bereziki) konturatu behar dute sentsibilitate berezia eskatzen duela hizkuntzaren erabilerak komunikazioan, eta euskaraz bai, baina ondo agertu behar dutela, euskaraz (ere) primeran funtzionatzen duten ideiekin, eta euskara zuzen eta egokia erabiliz, eta beti ere publizitate irizpideak jarraituz.

- c. Xehetasun guztiak zaindu behar dituztela jakin behar dute, erdaraz egiten duten modu berebean. Mingarria baita euskaldun batentzat, adibide soil bat jartzearen, telebista pantailako mezuak erdaraz irakurtzea, ahots batek euskaraz hitz egiten dion bitartean. Are mingarriagoa izaten da, plastikozko euskaraz bikoiztua badago, gainera, iragarria...
- d. Jakin behar dute, baita ere, publizitate agentziek ez dietela diru gehiago eskatuko euskarazko publizitatea ere ondo zaintzearen truke. Euskarazko publizitate ona exijitu behar diete agentziei. Eta jakina, hura ondo dagoen baloratzeko gai den jendea izan behar dute enpresa barruan (eta pertsona batekin ez da nahikoa izango).
- e. Eskatu behar diete publizitate agentziei zera, sormen proposamenak aurkezten dizkieten une berean, erakuts dezatela proposatutako ideiak euskaraz (ere) primeran funtzionatzen duela. Ideiak ez du balio, jakina, agertuko den hizkuntza guztietan funtzionatzen ez badu.

5.2. Publizitate agentziak

- Beren bezeroek, iragarleek (batez ere handiek), ezer esaten ez dieten bitartean, ez dute euskarazko publizitatearekiko sentsibilitate berezirik izango, eta asko jota, itzulpen hobeagoak lortzen baino ez dira saiatuko, oso zaila baita publizitatean aditu euskaldunak aurkitzea.
- Euskarazko sormena eskaini gabe gaur egun lehiakortasunean galdu egiten dutela ikusi behar dute (goikarguek eta agentzia handiek batez ere).
- Euskaraz sortzeko gai diren kreatiboan premia sentitu behar dute. Eta euskaraz sortzeko gauza ez diren talde kreatiboek ere, proposatzera doazen ideiek euskaraz funtzionatzeko aukerarik ba ote duten aztertzeko, aldamenean kreatibo euskaldunak behar dituztela sumatu behar dute.

Hala bada, ideiak euskaraz ere funtzionatzen baldin badu alegia, hura euskaraz ondo doitzeko informazio eta denbora nahikoa izan beharko dute kreatibo euskaldun horiek.

Ideiak euskaraz funtzionatzen ez badu, aldiz, beste bide batzuk bilatzen jarraitu beharko dute kreatibo erdaldunek beren kabuz edo, are hobeto, euskaldunekin elkarlanean.

- a. Kontu arduradun eta exekutibo euskaldunak kontratatzeko beharra ere sumarazi behar zaie. Kontu arduradun euskaldunak edukita soilik eskaini ahal izango dituztelako beren zerbitzuak euskaraz. Horrez gain, ordea, bada beste arrazoi sakonago bat publizitate agentziek kontu arduradun euskaldunak izan ditzaten: hausnarketa estrategiko guztia euskaraz egiten baldin bada, aukera askoz gehiago izango da gero proposamen kreatiboa euskaraz sor dadin. Hor, puntu horretan, egongo ginateke benetan euskaraz sortutako publizitatearen atarian.
- b. Diseinatzaile grafiko euskaldunak edukita, eraginkortasunean irabaziko lukete agentziek. Euskarazko testuetan errata gutxiago egongo lirakeelako, batetik, eta bestetik, lana arinago egingo litzatekeelako ia beti. Agentzietan langile euskaldunak nahiago izateko arrazoi operatiboak badaude, estrategikoez gainera.
- c. Harrerako telefonistek eta idazkariek ere euskaldunak beharko lukete izan, bezeroekiko arreta hobea, osoa, izan dadin, eta gainera, irudi hobeagoa eskaintzeko. Telefonoz euskaraz hitz egiten ez digun enpresa batek ezingo baitu eman euskarazko publizitate ona egiteko gauza den itxurarik.

5.3. Media zentralak

- a. Ondo egindako euskarazko publizitateak eragiten dituen emaitza kualitatiboak “neurtu” eta aintzat hartu beharko litzuketela ikusi behar dute. Zenbait ikerketen arabera, hizkuntza bera hitz egiteak batzen ditu gehien bi pertsona ezezagun. Ez omen dago beste zerarik bi pertsona ezezagunen arteko identifikazioa gehiago estutzen duenik. Marka baten eta kontsumitzaile baten arteko lotura ahalik eta handiena erdiesteko edozein bide aztertzeko prest dagoen mundu batean, ez da makala datu hori. Oraindik inork ez du, ordea, behar bezalako seriotasunarekin hartu, gurean behintzat.

Audientziei buruzko azterketa kualitatiboak egiten dituztenean, oso kontuan hartu beharko lukete datu hori. Unibertsitatean ere aztertu beharko litzateke norabide horretan, litekeena baita gainera, hizkuntza gutxituek identifikazio maila are handiagoa eskaintzea hura hitz egiten dutenen artean...

b. Euskarazko hedabide eta publizitate euskarri guztien berri eguneratua izan behar lukete beti media zentralek. Tiradak, koberturak, audientzia mota... Euskarazko hedabideetan publizitatea egitea merezi duela gomenda diezaieten iragarle eta agentziei.

Herri aldizkariak eta eskualdeko egunkariak eskaintzen dituzten audientzia datuak ondo aztertu eta baloratu gabe daudela ematen du. Publizitate agentzietan behintzat ia ezezagunak dira erabili ahal izango lituzketen euskarri horiek.

c. Euskarazko hedabideei publizitate inbertsioak erakar ditzaten ekintzak proposatu beharko lizkiekete. Media zentraleri deskontu bereziren bat egingo balitzaike, esate baterako, euskal hedabideenganako jarrera positiboagoa izango lukete seguru asko.

5.4. Enpresa euskaldunak

- .Komunikazioari eta marketinari serio heldu behar diete. Sinetsi egin behar dute bide horretan, eta horren arabera jokatu: inbertsioak bideratuz, kudeaketa profesional baten aldeko apustua eginez eta abar, esparru horri ahal den zuku guztia ateratzeko asmoarekin.
- .Profesional onak jarri behar lituzkete kargu horietan, eta zuzendaritzatik gertu.

5.5. Profesional euskaldunak

- Zeregin handia dutela eta euskararen normalizazio bidean beraiek ere paper oso garrantzitsua betetzen dutela jakin behar dute. Bakoitzak bere txikian, asko egin dezake agentzietako bertako eta enpresa iragarleetako arduradunak euskarazko publizitatea egin dezaten konbentzitzen.
- .Ez dituzte onartu behar euskararekiko gutxiespen edo begiramen faltak. Arduratsuak izan behar dute hizkuntza kontuetan, okerrik ez dadin izan, erratarik ez dadin agertu, piezarik txikiena ere euskaldun aditu baten oniritzia izan arte ez dadin argitaratu.

5.6. Enpresa berriak sortu

Euskarazko publizitatea sustatze aldera, bi enpresa berri sortzeko beharra badago gutxienez:

a. Publizitatean espezializatutako itzulpen zerbitzu enpresa batek tokia izango luke merkatuan. Benetan ona izanda baizik ez luke lortuko arrakasta, eta horretarako, itzultzaile euskaldunen onespina eta publizitario profesionalen begirunea irabazi beharko lituzke hasiera-hasieratik.

Gauzak ondo eginez gero, ordea, iragarle eta publizitate agentzia handientzat egingo luke lan, eta gune zeharo garrantzitsu bihurtuko litzateke publizitatean euskararen kalitatea bermatzeko.

Komunikazioaren eta marketinaren inguruko ezagutzak izan beharko lituzkete enpresako langileek, eta euskara zuzena ez ezik, euskara egoki eta komunikatiboa dotore erabiltzeko gauza ere izan beharko lukete. Itzulpenak egiteko garaian, testuak iragarkian bete beharko dituen baldintza guztiak izango lituzkete kontuan. Iragarki grafikoetan testuaren eta irudien konposizio zehatzari begiratuz; spot-etan testuek irudiekin batera joan behar dutela kontuan hartuz; irrati kuñetan ahozkotasanari, iraupenari eta abar erreparaturaz...

Horrez gain, jakina, prezio lehiakorrek eta zerbitzu azkarra -hitzaren bi zentzuetan- eskaini beharko lituzkete.

b. Beste enpresa baten beharra ere badago, euskarazko publizitatearen sustapenerako ez ezik, euskal hedabideentzat ere oso egokia izango litzatekeena: euskal argitalpenak -euskal hedabide eta euskarriak- zentralizatu-ta eskainiko lituzkeen media zentrala.

Media zentral handien eta euskal hedabideen onespina izan beharko lituzke enpresa honek iragarle handiak lortzeko. Haren helburu nagusia euskal argitalpenen berri gaurkotua izatea (tiradak, kobertura, audientzia mota) eta datu horiek ondo antolatuta eskaintza erakargarri eta interesgarriak egitea izango litzateke.

Iragarle eta agentzia handi gehienek ez dute publizitaterik egiten euskarazko hedabideetan, euskarriok ia ezagutu ere egiten ez dituztelako, batetik, eta bestetik, asko baina txikiak eta antolatuta gabeak direla igartzen

dutelako. Publizitatean inbertsio handiak egiten dituztenek erraztasuna eta eraginkortasuna bilatzen dituzte: ahalik eta kudeaketa ahalegin txikienarekin, ahalik eta medioen plangintza onena lortzea. Horregatik, media zentral moduko honek, sare ondo antolatua eduki behar luke, euskarazko hedabide guztien artean eskaintza zabal bat egiteko.

Iragarle edo publizitate agentzia handi bat ez da inoiz banan-banan herri aldizkarietara jotzen hasiko. Ate bakarrean jota, diru jakin baten truke audientzia zabal batengana heltzeko aukera ematen bazaio, ordea, ez du inongo eragozpenik izango bere iragarkiak herri aldizkarietan ere ager daitezen.

Euskarazko hedabide guztien artean eskaintzen dituzten koberturak, tarifak eta beste, datu objektiboak, baliatu behar lituzke enpresa honek publizitate inbertsioak erakartzeko. Alde komertziala lantzeak soilik, edo militantismoa eskatuz jarduteak ez lieke benetako konponbiderik ekarriko gaur egun iragarle handiengandik publizitate inbertsioak erdiesteko dauzkaten zailtasunetan.

5.7. Unibertsitatea

Lehen-lehen mailako paper protagonista du unibertsitateak orriotan lantzen ari garen auzian. Euskara eta publizitatea hizpide dugun aldetik, gainera, Euskal Herriko Unibertsitatea izango dugu kontuan batik bat, berebiziko garrantzia eta erantzukizuna baititu unibertsitate honek etorkizunean marketinean eta komunikazioan profesionalak izango diren euskaldunak hezi eta trebatzen.

Euskal Herriko Unibertsitatean, euskal adarrean, lizentziatu nintzen ni Publizitatea eta Harreman Publikoetan, orain hiruzpalau urte, eta neure esperientzia propioa ere izango dut gidari, beraz, hausnarketa hauek proposatzerakoan. Dena dela, merezi du aipatzea, beste unibertsitate batzuetan lizentziatu diren lankide erdaldunek ere, -euskara komunikatiboa lantzeko irakasgaien falta alde batera utzita- hemen aipatuko ditugun gabezien oso antzekoak nabaritzen dituztela beraiek ikasitako unibertsitateetan. Euskaraz esan ohi den legez: alde guztietan dabilta zaku-rak oinutsik.

a. Unibertsitateak, lehen-lehenik, jakitun izan behar du euskarazko publizitatearen eremuan betetzen duen paper garrantzitsuaz, eta serio heldu behar dio gaiari. Publizitatea eta Harreman Publikoak lizentziaturan, irakasle gehiegi dago euskaraz hala-hola jakin bai baina hizkuntza honetan batere adierazkortasunik ez duena; irakasle gehiegi publizitatean esperientzia profesionalik izan ez duena; irakasle gehiegi ondo menderatzen ez duen gai bat edo gehiago ematen duena, eta behar bezala prestatu gabe gainera...

Esan nahi da, irakasle benetan euskaldunak behar direla, euskaldunak baina irakasle onak, balekoak, eta irakasle horiek guztiek adierazkortasun zorrotza euskaraz eta irakatsiko duten gaiaren inguruko ezagutzak eta esperientzia izan behar dituztela -orain oso kasu gutxitan gertatzen den bezala.

Beti behar luke horrek horrela, hezkuntzaren edozein arlotan, baina hala behar du bereziki publizitatearenean, hizkuntza baitu eremu honek lanabes nagusi.

b. Publizitario onak, irizpide argi eta sendokoak trebatu behar ditu unibertsitateak.

Publizitate agentzia eta iragarle bakoitza mundu bat da gero, praktikan, baina hartara azkar eta ondo moldatzen asmatuko duen aditu irizpideduna prestatzen asmatu behar du unibertsitateak. Komunikazioaren eta marketinaren sistema, funtzionamendua eta mekanismoak ondo ezagutu eta erabiltzen jakingo duena.

Horretarako, jakina, Publizitatea eta Harreman Publikoak lizentziaturan eskola ordu eta irakasgai gehiago eskaini behar dizkio unibertsitateak komunikazioaren eta marketinaren munduari, eta gutxiago kazetaritzarenari. Publizitatea, karrera, oraindik ere kazetaritzari lotuegia baitago nabarmen unibertsitatean.

Garrantzitsua iruditzen zaie batzuei nonbait publizitatean arituko direnek kazetaritzaren inguruko ezagutza asko eta sakonak izatea; horretarako publizitatearen inguruan gehiegi jakin gabe atera behar badute ere ikasleek unibertsitateak...

Txosten hau kazetaritzaren inguruko lan baten barruan antolatu da, eta eskerrak behintzat antolatua izan den. Horrek argi asko erakusten du, ordea, ez dagoela oraindik euskarazko publizitatearen inguruko benetako kezka espezifikorik. Ez behintzat bakarren batzuen kezka pertsonaletik haratago. Euskarazko kazeta-

ri eta hedabide onak lortzen ari garen uneotan, garaia dugu, publizitatearenean ere, gaiari modu antolatut batean erantzuten hasteko, profesional onak hezi eta euskararentzat emaitza onak erdietsiz.

c. Kontu arduradunak ere trebatu behar ditu unibertsitateak. Eta esan behar da, oraindik ez dagoela irakasgai bakar bat ere eremu profesional horretarako bereziki prestatua.

Bi irakasgai baino gehiago beharko lirateke lan diziplina horretan profesional onak izateko prest egongo diren adituak hezteko. Kontu arduradun baten zeregina ez baita, -askok uste bide duten bezala-, iragarlearen eta agentziaren artean bitartekari lan soila betetzea. Komunikazio estrategia sendoak ezartzeko gauza izan behar du kontu arduradun batek, eta horrek, jakina, ezagutza eta trebakuntza bereziak eskatzen ditu, irakasgai eta kasu praktiko -esperientzia- espezifiko jakinen bitartez baino eskura ezin daitezkeenak.

d. Kreatibo euskaldunak ere trebatu behar ditu unibertsitateak. Batetik, sormen publizitarioaren funtzionatzeko moduak eta barne-mekanismoak aztertu, hausnartu eta praktikan jarritz; eta bestetik, euskara komunikatiboa landuz, eta adierazkortasuna euskaraz lantzeko irakasgaiak eskainiz.

Harrigarri samarra bada ere, egunean ehunka inpaktu publizitario jasotzen ditugun garaiotan, hezkuntza sistema osoan, inon, ez digute publizitatea dekodifikatzen irakasten. Instituetan, mezu publizitarioak dekodifikatzen ikasteko oinarrizko ezagutza batzuk irakatsi beharko litzaizkieke gazteei, besterik ez bada ere beren buruak publizitatearengandik hobeto babesteko bista eta baliabideak izan ditzaten. Institutuek horren ardura hartzen ez duten bitartean, are handiagoa da unibertsitateak zentzu horretan hartu beharreko lana, ikasleei eta etorkizuneko profesionaleri komunikazioaren eta marketinaren barne-funtzionamendu eta mekanismoak biluzteko.

5.8. Erakunde ofizial eta herri-erakundeak

- Euskara kontsumitu ere egin behar dela ikusarazi behar zaie euskaldunei. Euskara maitatu ez ezik, batez ere erabili, euskaraz egin, egin behar dela behin eta berriz azpimarratu diegun bezala, euskarazko produktua kontsumitzea ere euskara bera lagundu eta indartzeko bide eraginkorra dela erakutsi behar zaie. Euskararen alde hitzez ez ezik, diruz ere egin daitekeela alegia.
- Eta zentzu horretan, euskarazko publizitate ona nolabait saritu egin behar genuke euskaldunok. Iragarle batek bere ontzi, publizitate ekintza nahiz komunikazioetan euskara erabiltzen ez duenean (edo zeharo gaizki erabiltzen duenean), boikotak eskatzera ausartzen garen bezala, gauza izan behar genuke, baita ere, euskarazko publizitate ona txalotu eta hari gure esker ona erakusteko, marka haren produktua kontsumituz.

5.9. Kontsumitzaileak

Publizitatearekiko eta marketinarekiko aurrejuzkuak edo higuinak baztertzek ere ez liguke kalterik ekarriko. Hala-ko asko baitago gure artean, zoritxarrez eta zorionez.

Komunikazioaren eta marketinaren eremu zabalean, teknika bat baizik ez da publizitatea, lanabes bat, arkatz bat bezala, hau, hura edo beste hura iragartzeko baliabideak. Baita publizitatearen kontra egiteko ere. Ez zaizkigu gustatuko, beharbada, maiz erabiltzen dituen amarruak; sarritan bilatzen dituen helburuak; betikotu egiten duen ideologia. Hor dago, ordea, publizitatea nonahi eta une oro, eta hor jarraituko duenez pixkatean behintzat, hobe dugu hura gure mesederako baliatzen hasten baldin bagara lehenbailehen. “Sistema kapitalistaren poesia da publizitatea”, Joseba Sarrionandiak idatzi zuen legez. Eta sistema horretan gaudela, euskaldunok ere beharrezkoa dugu poesia arin (ergel), nonahiko (zaratatsu) eta, maizegi, iruzurti hori.

Kalitateko euskara ereduak sortu eta haiek bazter guztietara hedatuz, hiztunen komunikazio gaitasuna hobetzen lagun diezagukelako, batetik, eta bestetik, diru iturri garrantzitsua den aldetik, euskal hedabideei eta euskarazko gainontzeko produktuei mesede egin diezaietelako. Hitz batean esateko: euskararen alde lan egin dezakeelako behar dugu euskaraz sortutako publizitatea. Publizitate ona, eraginkorra, atsegina. Argi esan zigun Koldo Mitxelena: “Ez diote itzulpenek ematen literatura bati bere maila, berezko obrek baizik”. Berdin-berdin gertatzen zaigu,

bada, publizitatean ere. Euskal senarekin sortutako publizitate ona behar dugu. Batzuetan barre eta beste batzuetan negar egiten dugu euskaldunok, bakoitzak bere baitan, euskarak publizitatean maizegi jaso ohi duen tratu mingarriarekin, baina halako gehiago gerta ez dadin lortzen saiatzeko, ez dugu ahalegin antolaturik egiten. Estruktruala da euskarak publizitatearen esparruan duen hutsunea (edo ezarrita dagoen publizitatearen sistemak euskararekiko duena). Eta beraz, arazoaren barne-muineraino jotzen ez dugun bitartean, arazo hori pairatzen eta benetako aurre-rapausorik eman gabe jarraituko dugu. Egoera horri erremedioa jartzen hasteko asmoz saiatu gara orriotan, publizitateak euskararen alde lan nola egin dezakeen azaltzen. Poztuko ginateke norbaitek hari honi helduko balio.

b. HITZA EGUNKARIA, GERTUTASUNAK ONURAK ESKAINTZEN DITUENEAN

Esti Amenabarro
Iragarri publizitate-enpresa

1. Sarrera

Niri egokitu zaidan gaia *Publizitatea: diru iturria eta sormen lana* delakoa da, baina utzidazue lehenik eta behin gaiaren mamiari heldu aurretik *Hitza* fenomenoaren inguruko hainbat erreferentzia aipatzen, gero publizitatearen kontu hori ulertzeko elementu baliagarriak eskainiko baitizkigu. Hamar urtetik gora pasatu dira euskarazko prentsak azken urteotako bi urrats garrantzitsuenak egin zituenetik: *Euskaldunon Egunkariaren* eta herri aldizkariaren sorrera. Euskal Herrian, hala ere, ez da herri informazioa egunero euskaraz jorratzen. Herri aldizkariak informazio lokala euskaraz jorratzen dute, baina ez egunero. Prentsa arloan, *Euskaldunon Egunkaria* zen informazioa euskaraz jorratzen zuen hedabide bakarra; orain *Berria* da, baina honek ere ez du jorratzen herri informazioa. Beraz, tokiko euskarazko hedabideen erakundeen eta Euskal Herriko euskarazko egunkariaren erakundearen artean elkarte bat sortuko dugu, elkarte berri honek argitara dezan *-ko Hitza*. Normala den moduan, lehendabizi, hedabideak dituzten erakundeak bildu dira proiektuaz hitz egiteko eta bakoitzak enpresa berriko hanka bana osatuko du. Tokian tokiko gizarte eragileek beste hanka osatuko dute eta hau ere enpresa berrian hasieratik egongo da.

2. Zer da *Hitza*?

2.1. Produktuaren zenbait ezaugarri

- Formatua. Egunkariarena.
- Kazetaritza. Estandarra; kalitatea, aniztasuna eta zerbitzua helburu dituen.
- Hizkuntza. Eskualdeko euskara batua. Bertako lexikoarekin, joskerekin...
- Maiztasuna. Egunero, astelehenetan izan ezik.
- Orrialde kopurua. Egunero zortzi orrialde.
- Informazioa. X herrietakoa.
- Irakurleak. Hasieran, nahi duenak jasoko du egunkaria, izena ematen duenak.

2.2. Oinarriak

Euskaltzalea, anitza eta orekatua, baterakoia, parte-hartzailea, independentea, konprometitua eta profesionala.

2.3. Kazetaritza irizpideak

Interesgarria eta kalitatekoa, edukiaren aurkezpen deigarria eta erakargarria, euskara irakurterraza, dagokion eskualdearen inguruko informazioa emango duena, zerbitzu funtzioa. Jendeak oraindik ere ez du euskaraz irakurtzeko ohiturarik eta erraztasunik, eta hori dela-eta berdintasun egoeran gaztelaniaz irakurtzeko joera dauka. Hori gaindi-

tzeko garaian oso garrantzitsua da euskarazko komunikabideen lana. Muga hori gainditzeko, oso garrantzitsua izango da epe motzean eta ertainean erakunde publikoen laguntza jasotzea, merkatuan benetako berdintasun egoera lortzeko. Gaur egun -ko biztanleek egunero eskualdeko berriak irakurri nahi badituzte, *El Diario Vasco* (...) erosi behar dute, idatzizko gainontzeko komunikabideek ez dutelako egunero eskualdeko informazioa lantzen. Globalizazioaren aro honetan, tokiko informazioak gero eta garrantzia handiagoa hartu du, gizarteak hurbiltasuna baloratu egiten du; alde batetik, erakargarria gertatzen zaiolako, eta, bestetik, konfiantza handiagoa ematen diolako. Horregatik da a proposa eskualdeko euskarazko egunkaria kaleratzea.

Gure merkatua eskualdeko biztanle euskaldunek osatzen dute. Gure merkatu potentziala biztanlek osatuko luke. Guztiengana iristeko x ale inguru argitaratu beharko genituzke. Biztanle guztiak ez dute, ordea, egunkaria irakurtzeko ohiturarik; bi herenek soilik daukate. Muga hori gainditu eta gehien banatzen eta irakurtzen den egunkaria izatea lortzeko, garrantzitsua izango da ohiko banaketa bideak erabili ordez irakurlearengana ahal den gehien hurreratzea, zerbitzu estra eskainiz. Eskualdean zabalkunde handieneko egunkaria izatea lortu behar dugu. Hasiera batean -lehen bi-hiru asteetan- doan eta modu masiboan banatu beharko dugu egunkaria. Gero, ez dugu euskaldun bakoitzeko ale bat banatu beharko, euskara erabiltzen duten etxe bakoitzeko baizik. Guztira, x ale inguru. Aipatutako helburua lortzeko, oso garrantzitsuak izango dira produktuaren beraren edukiak eta hauek lantzeko modua, horrela irakurleenganako hurbiltasuna lor dezakegulako. Bide handi bat egina dago, eskualdean aurretiaz egon ohi diren herri aldizkariak egin dutelako. Bide horri segituko dio *Hitza* egunkariak. ??-n herri informazioa paperean egunerokotasunez eta euskaraz landuko duen komunikabide bakarra izango da *Hitza*.

3. Zer nahi du *Hitza*?

Helburu nagusi hau dauka *Hitza*: Euskararen normalizazio bidean, eskualde mailako komunikabideak osatzea. Horrela, gaur egun ?-n dauden euskarazko komunikabideen inguruan gogoeta eta azterketa egiteko konpromisoa hartzen du.

Xede hauek ere izango dituzte sortuko diren komunikabideek:

- Euskara, euskararen inguruko mugimenduak eta euskaltzaletasuna sustatzea eta laguntzea; euskararen normalizazioa eta garapena lortzeko baliagarri izatea; herritarrei eta taldeei hitza ematea.
- ?-ko euskarazko komunikabideen elkarteetan eta Euskal Herri mailako euskarazko egunkariaren erakundearen artean elkar ezagutza handiagoa lortzea, guztien artean eskualdeko informaziorako ?-n erakunde bakarra eta sendoa sortzea, proiektu berrietarako akordioak lortzeko eta elkarrekin lan egiteko.
- Euskarazko komunikabideen erreferentzialtasuna lortzea.
- Asteartetik larunbatera. Egunkari normala, eguneko, ohiko orri banaketarekin eta ohiko atalekin. Herriek presentzia finkoa izango dute, herritarrei ohitura sortzeko. Orrialde banaketa malgua izan daiteke, ordea. Gertakizun bereziek ere aparteko tratamendua izango lukete: Inauteriak, herrietako jaiak, egun jakinak (maiatzak 1, martxoak 8...)...
- Igandekoa. Bereziagoa: iritzi artikuluak eta atalak, erreportaje zabala, elkarriketa luzea... Eta larunbaterko eta eguneko albisteak. Igande batzuetan 12 orrialde egin daitezke.

4. Nola egingo du hori *Hitza*? Finantzaketa esparruak

4.1. Sarrerak: publizitatea

Iragarkiak: iragarki komertzialak (txikiak eta handiak), iragarki ofizialak, iragarki laburrak eta iragarki kulturalak. Zorion agurrak: Atal hau eskualdean atal berria izango da, eta potentzialitate handikoa, irakurle horiek guztiak beren sendeak edo lagunak egunean bertan zoriontzeko aukera izango dutelako. Eskelak: Orain artean eskelak komuni-

kabide jakin batean ikustera ohitu gara. Hasieratik, ohitura kontuak tarteko, zaila gertatuko zaigu, baina denak lortu gabe ere ehuneko txukun bat gurera ekartzea lor daiteke. Diru-laguntzak: Ezaugarri honetako proiektua bideragarria izan dadin, beharrezkoak ditu erakunde publikoen diru laguntzak: Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoako Foru Aldundia eta ?-ko eskualdeko udalez ari gara. Udalek izan behar dute proiektu honi hasieran egonkortasuna emateko ardura hartu behar dutenak [biztanleko urtean hiru euroko laguntza eskatu da; proiektua ez ezik, bideragarritasun plana ere aurkeztu zaie udalei].

4.2. Irteerak

Ale kopurua: Banatu beharreko ale kopurua -koa izango da. Horretaz gain, leku publiko eta estrategiko batzuetan hainbat ale banatzea ere garrantzitsua da, kale presentzia izateko eta beste irakurle batzuegana hurbiltzeko bidea izango delako. Ondorioz, guztira, ? ale banatuko ditugu.

Inpresioa: Hasiera batean zortzi orrialderekin nahikoa dela iruditzen zaigu. Sortutako albisteak sartzeko nahiko leku izango genukeela aurreikusten dugu, eta egoera ekonomikoak ahalbidetzen duen heinean orrialde kopurua igotzen joateko aukera izango da aurrerantzean. Astean sei zenbaki inprimatuz hasiko gara.

Banaketa: Banaketari dagokionez, banaketa sistema mistoa erabiltzea da egokiena. Ahal den lekuetan etxez etxeke banaketa egiten saiatu behar dugu, eta hori posible ez den kasuetan ordezko banaketa bideak erabili: toki batzuetan okinen edo postontzi kolektiboen bitartez iritsi beharko gineteke.

Giza baliabideak:

- Zortzi orrialdeko egunkaria egiteko enpresako plantillan aurreikusten dugun langile kopurua ondorengo da:
- Zuzendaria.
- Sei kazetari
- Kudeatzailea. Lan komertzialak ere eginez.
- Komertzial bat.
- Teknikaria (egun erdiz).

Langileak hautatzeko deialdiak egingo dira, baina enpresa berriak eskualdeko hedabideetan dabiltzan langileenganako begirunea izango du eta beraiek lehenetsiko ditu plantilla osatzean. Funtzionamendu gastuak: hauetan argindarra, telefonoa, bulegoko materiala, mantentze gastuak eta abar daude.

Sustapena: Hasieran produktua ezagutzera emateko eta ahal den harpidedun gehien egin ahal izateko, kanpaina indartsua egin beharra dago. Lehenengo bi-hiru asteetan, banaketarako kalkulaturako ale kopurua baino dezentete gehiago inprimatu beharko ditugu, betiere txoko guztietara heltzeko asmoarekin. Behin produktua ezagutzera emandakoan, harpidedunak egiteari ekin behar diogu. Hasieran, eskualdeko euskarazko egunkariaren beharra garbi ikusten dutenak egingo dira harpidedun, eta horiek erakartzeko lan handirik egin beharko ez bada ere, datuak jasotzeko beharrezko egitura antolatu beharko da. Ondoren, harpidetza kanpainak jarri beharko ditugu martxan, hasieran harpidedun egin ez diren horiek ere egin daitezen.

5. Zein egitura du *Hitzak*?

Enpresa ereduari buruz, ikusten dugu maila honetako proiektua kudeatzeko euskara edo kultur elkartea sortzea ez dela nahikoa. Kudeaketa modu arinean eramatea ahalbidetuko duen egitura sortu beharko da: sozietate mugatua (S.L.). Erakunde berria hiru hankaz osatuko da: ?-ko euskara elkarteak, %30; bertako Hedabideak (EKT), %40; eta ?-ko gizarte eragileak, %30.

Hirugarren hankari dagokionez, euskalgintzako ez gain, *Hitzaren* alde dirua jarriko luketen eragileak ere bai: enpresak, kultur eta kirol elkarteak... *Hitzaren* erakundearen sartzeko, batetik, gizarte eragileek kultur elkartea sortuko dute, eta kultur elkarteak bere ordezkariak izendatuko ditu erakundearen parte hartzeko. Bestetik, gizarte eragile bakoitzak gutxienez ekarpen ekonomiko bat egin beharko du.

6. Bestelako hainbat kontu

Aldaketak herri-aldizkarietan. Proiektu berri honen sorrerak, noski, aldaketa handiak ekarriko ditu eskualdeetan, eta eskualde bakoitzean orain artean herri aldizkariak betetzen zituzten funtzio batzuk *Hitzak* beteko ditu aurreantzean: eguneroko berriak, agenda... Beraz, aldizkariak egokitzea ezinbestekoa izango da: maiztasuna, giza balia-bideak, edukien tratamendua, publizitatearen aurreikuspenak...

Hitza eskualde mailako egunkaria da, eta eskualdeko informazioa jasotzen duena (tokiko informazioa, alegia). Ez da informazio orokorreko egunkariaren ordezkaria, baina osagarri izan nahi du. Ezinbestekoa da produktu hauek irakurlearen gustukoak izatea. Garbi dugu zein den helburua: tokian-tokian kalitateko egunkari plural erreferentziala izatea *Hitza*.

Kalitatekoa. Irakurleak ez du *Hitza* jaso behar euskarazkoa delako (hori ere oso garrantzitsua den arren), baizik eta bere herriko eta inguruko berri ondoen, azkarren eta gehien berak ematen diolako.

Eduki eta diseinu aldetik kalitatearekin lotu beharra dago euskarazko prentsa, jakin baitakigu nolakoa den militantziaren grafikoa: hasieran goraka doa, euskarazkoa delako kontsumitzen da, baina grafikoa gero beheraka doa produktua ez bada kalitatekoa. Plurala. “Zein bezain plurala?”, zioen *Berria* berri kanpainak. *Hitzak* ere halakoa izan nahi du: plurala; pluralena. Ezinbestean. Sentsibilitate guztien berri eman behar du. Euskaldun guztien egunkaria izateko.

Erreferentziala. Kalitatekoa eta plurala izateagatik bihurtuko da *Hitza* tokian tokiko egunkari erreferentea. Tolosaldean hango *Hitza* da, alde handiz, egunkaririk irakurriena: 8.000 aleko tirada du. Oarsoaldekoak 5.900 aleko tirada dauka; Lea-Artibain eta Mutrikun -2003.eko azaroan sortu genuen- 5.300ekoa. Urola-Kostan - 2004.eko otsailean sortu genuen- 7.000ekoa, oraingoz. Eskualde bakoitzean egunero egunkaririk zabalduena eta irakurriena *Hitza* izatea da helburua. Ari gara lortzen. Eta hori pauso handia da, gure ustez.

Euskara. Hain zuzen, kalitatekoa eta plurala delako irakurriko dute herritarrek euskaraz, horrela lortuko du euskarazko hedabide horrek tirada handia, eta orduan bihurtuko da hizkuntzaren normalizaziorako tresna eraginkor. Hori ere lortu nahi du *Hitzak*.

Tirada: publizitate estrategiaren ardatza. Tirada aipatu dugula, guretzat hasieratik izan da oso garrantzitsua egunkari hauek harpidetza bidez banatzea, nahi duenari banatzea, eta horretan lan handia egiten dugu. Egunkari bat sortzen den bakoitzean, bi edo hiru astez banaketa masiboa egiten da, etxe guztietara banatzen da biztanle guztiak herrian -eskualdean sortu den argitalpen berria ezagutzeko aukera izan dezaten. Lehen egunetik bertatik, jendea jakinarazten zaio, hasierako asteak pasatu ondoren, harpidetza egiten duenari bakarrik banatuko zaiola, izena ematen duenari. Izan ere, interesa duenarentzat egiten nahi dugu egunkaria, irakurriko duenarentzat.

Kalitatea eta zerbitzua eskaintzen dituen produktu baten balioa

Lehen hilabeteetan, doan banatzen da *Hitza* harpidedunaren etxera. Gerora, jendea ohitutakoan *Hitzara*, bere egiten duenean, etxeko paisaiako beste bat denean *Hitza*, urtean 40 edo 50 euroko laguntza eskatzen zaio egunkaria jasotzen duenari.

Orain arteko emaitza oso ona da: horrelako hiru kanpaina egin ditugu: Tolosaldean telefonoz hitz egindakoen %60k ordaindu dute, Lea-Artibai eta Mutrikun %72k eta Oarsoaldean %53k. Euskarazko prentsak inoiz lortu ez dituen kopuruak dira.

Eta azkenik, prozesu honi guztiari esker, bidea jartzen ari gara euskaldunak euskaraz irakurtzera anima daitezten. Neurtuz goaz herritarren artean zeintzuk diren euskarazko egunkari bat erosteko edo horregatik ordaintzeko prestasuna dutenak.

Jakin badakigu *Hitza* ez dela, *Berria* bezala, informazio orokorreko egunkaria, herriko informazioa jasotzen duen 8 orrialdeko produktua dela *Hitza*, baina hau intereseko duela eta ordaintzeko prest nor dagoen identifikatzeko aukera dugu. Hurrengo urratsa izango litzateke *Hitzen* irakurle dena *Berriara* edo euskarazko gainontzeko prentsara erakartzea. Ikusiko dugu gai garen edo ez. Baina *Hitzen* bidez horretarako lehen pausoa ematen ari gara.

Datu bat: *Berria* euskaldunen %10 inguruk irakurtzen dute, *Hitza* bakoitza eskualdeko euskaldunen ia %70ek. Aldea dago, eta *Hitzak* egunero bere helburuak ondo betetzeaz gain, *Berria* irakurtzen ez duen *Hitzako* irakurlea *Berriara* erakarri nahi dugu.

Zenbat ale banatzen ditugu egun?

Esan bezala, gaur egun lau eskualdetan ditugu *Hitzak* sortuta, eta *Hitza* guztien artean goizero 25.000 ale banatzen dira etxez etxe. Hurrengo hilabeteetan, eta urtea amaitu aurretik, beste bi proiektu jarri nahi ditugu martxan, haue-tako bat hiriburuko batean: Donostian. Bestea, Goierri. Helburua, urtea bukatu aurretik, guztien artean 45.000-50.000 ale banatzea da.

Bestelako euskarazko produktuak lantzen

Beste datu bat: une honetan EKTrekin batera, beste komunikabide batzuk eta gizarte eragile ugari ari dira *Hitza* proiektuak garatzen. EKTrekin lanean ari diren komunikabide horiek, lehendik aldizkari bat argitaratzen zuten beren herrian; gaur egun, eguneroko bat banatzen dute eta, horrez gain, batzuek aldizkariak argitaratzen jarraitzen dute, beste batzuek aldiz argitaratzeari utzi diote *Hitza* sortzearekin batera eta proiektu berriak garatzen ari dira, eguneroko argitalpenaren osagarri diren aldizkari landuagoak eginez. Eta web orria ere bai. Tolosaldean badugu. Hurrengo egunetan Oarsoaldean ere bai.

Horretaz gain, *Berria* eta *Hitzak* informatiboki ere lotu egin nahi ditugu, informazioa elkarri pasatuz. Esaten den bezala, baliabideak optimizatu egin nahi ditugu. Beraz, aurrera goaz, eta batera. Garbi dugu zein den helburua: tokian tokian kalitateko egunkari plural erreferentziala izatea *Hitza*. Hiru ondorio argi eta garbi:

- Euskararen normalizazioa. Kalitatekoa eta plurala delako irakurriko dute herritarrek euskaraz, horrela lortuko du euskarazko hedabide horrek tirada handia, eta orduan bihurtuko da hizkuntzaren normalizazioarako tresna eraginkor. Hori lortu nahi du *Hitzak*; egunero, gainera. Euskaraz irakurtzen ohitu gabe zegoen Tolosaldeko baserritar edadetu batek esan zuen: “Hasieran *Egunero* [orain *Hitza*] nahi nuen, orain [hirugarren hilabeterako] behar dut”. Adierazgarria.
- Iragarkiak. Halaber, lehen aipatutako guztiarekin -izango- dira *Hitzak* euskarri erakargarri iragarleentzat. Urola-Kostakoak hilabete gutxiren buruan lor dezake 10.000 aleko tirada, eta, beraz, *Hitza* denen artean 27.000ko tirada edukiko dute (egunkaria jasotzeko izena eman behar da, eta horri balioa ematen diogu). Tokian tokiko iragarleentzat dagoeneko euskarri errentagarria da bere eskualdeko *Hitza*, bertan jarritako publizitatea, edo eskela, edo iragarki laburra delako inguruan ikusiena. Iragarle etxe handiak ere hasi dira errentagarritasunarekin lotzen *Hitza* denak; are gehiago lotuko dituzte horrelako egunkari gehiago sortzen ditugunean. *Berria* ere kontuan hartzen badute, lau *Hitzen* eta haren artean 50.000 aleko tirada izango dute laster -Urola-Kostakoak lortzen duenean helburua-, euskarazko eguneroko prentsak inoiz

izan duen zabalkunderik handiena, eta publizitate etxe handiek hasi beharko lukete garbiago ikusten zabalkunde horrek errentagarritasuna bermatzen duela.

- Erakunde publikoen laguntza. Herritarrei eguneroko kalitateko zerbitzu informatiboa etxeraino emateaz (buzoietara banatzen da) eta euskararen normalizaziorako tresna eraginkor izateaz gain, proiektu hau integrala ere bada, euskararen aldeko eragilean elkarlana dagoelako eta egunkariak sentsibilitate guztietako informazioa ematen duelako; gauza asko uztartzen du, hain zaitua dagoen gizarte honetan. *Hitza* bakoitzak autofinantzaketan goraka joateko helburua du, baina eskualdean hasieratik errotzeko eta indarra izateko, eta lehen aipatutako guztiagatik, beharrezkoa du erakunde publikoen laguntza ere.

Iñaki Uriari maiz entzun izan diogu “aurrera eta batera”, eta gure asmoa hori izan da beti. *Egunkaria* itxi zutenean, eskualde edo hirietako euskarazko egunkarien proiektua utzi beharrean, aurrera segitu eta, Tolosaldean *Hitzak* Tolosaldean *Eguneroren* lekua hartzeaz gain, beste hiru *Hitza* sortu ditugu. Euskara elkarteekin eta gizarte eragileekin sortu ere, batera. Aurrera egiteko.

Herri informazioaren esparrua estrategikoa da (halaxe diote normalizazio plan denek: EBPNk, Bai Euskararik...), herritarrek estimu handia diote bertako albisteei. “Euskaraz publizitatea eginez gehiago saldu dezaket” ametsak esaldia errealitate bihurtzeko bidean.

Euskarazko medioetan publizitatea jorratzen jardun izan dugun komertzialok, sarritan esaldi honi buelta asko eman izan dizkiogu eta gure eguneroko lanean askotan entzun nahi izango genukeen esaldia da. Jakin bai baitakigu askotan gurean publizitatea jartzeko motibazioa, laguntzea izan dela, euskara laguntzeko izan dela. Guri, publizitate munduan neba-arreba pobreak izatea tokatu izan zaigu sarri. Eta are gehiago esango dut: posizio horretan urte askoan eroso samar ere egon garelako ustea dut.

Uste dut, tokian tokiko euskarazko medioek, aldizkariak bere garaian eta *Hitza* fenomenoak geroago, tendentzia txar horrekin apurtu egin dugula eta orain esaterako Tolosaldean norbaitek gehiago saldu nahi badu ezinbestekoa duela Tolosaldeko *Hitza* publizitatea egitea, batetik eskualdeko erreferentzia mediatikorik zabalena delako, bai tiradari begiratzen badiogu eta baita informatiboki betetzen duen tokia aintzat hartzen badugu, eta bestetik zabalpen sistema tarteko; hau da, eguneroko egunkaria etxera eramango dizut.

Nik *Hitza* ezagutzen dut eta horretaz hitz egin dezaket, baina gero eta gehiago dira erdarazko publizitate agentziak gurera deitzen dutenak gure produktuaz galdetuz eta horrek gogoeta garbi batera garamatza.

Orain gutxira arte, publizitatearen monopolioa komunikazio talde handien eskuetan zegoen, Gipuzkoan esaterako *Diario Vasco* publizitatearen tarta horren zatirik handiena eta erakargarriena, instituzionala, esaterako, berak eramaten zuen. Ez du izan zentzu horretan lehiakide handirik. Honek gaur egun hein batean horrela izaten jarraitzen du baina orain lehiakortasuna handiagoa da, eta bitxienean: egun eskualde askotan lehiakortasun hori euskarazko medio batek egiten die. *Diario Vascoren* argudiorik nabarmenena saltzeko unean tiradarena izan da. Eta, noski, euskarazko prentsa egoera honen guztiaren aurrean inurri bat elefante baten azpian bezala egon da.

Gaur da eguna tendentzia horrekin apurtzen ari garena eta gaur da eguna, esaterako, Tolosaldean *Diario Vascore* euskarazko medio batek lehiakortasuna planteatzen diona. Zergatik? Ba lortu delako tirada handiak izatea, banaketa sistema egoki baten bidez orain artean inoiz euskaraz irakurri ez duten herritarrek ere euskaraz irakurtzen jartzea. Honi kalitateko produktu bat egitearen nahia gehitzen badiogu, emaitza begi bistakoa da.

Bistan da publizitatea zerbait komunikatzeko nahia dela eta bistakoa da publizitatearen bitartez komunikabideen finantzaketaren atal handi bat antolatzen dela.... baina gure kasuan publizitateak ez du funtzio hori bete. Gu beti publizitatea jasotzerakoan azken lerroan egon gara. Euskara hutsean funtzionatu izan dugun medioei publizitate asko ikuspegi komertzialetik baino laguntzeko modu bat bezala etorri izan zaigu. Eta guk euskarazko publizita-

teari dagokion tokia ematen ahalegindu behar dugu. Gure helburua garbia da: euskaraz publizitatea egitea errentagarritasunaren ikuspegi hori garatuz, eta zentzu horretan erreferenteak sortzea. Eta bide horretan, poliki-poliki, bagoaz. Hau guztia jorratzeko, ordea, baliabideak behar ditugu. Komunikazio egitura erraldoiek euren agentziak dituzte zeinak euren eskuetara etortzen den publizitate guztia kudeatzen duten, hasi sorkuntza lanetik, jarraitu produktzioan eta bukatu administrazioan. Euren sinergiak bildu dituzte. Euskarazko prentsak, ordea, ez du oraindano halako saiakerarik egin. Medio bakoitzak bere egiturak ditu, bere baliabide humanoak, teknikoak ... eta hor galtzen den denbora eta dirua izugarria da.

Ez nuke bukatu nahi, esan gabe, euskarazko medioak kontsumitzen ditugunok behar-beharrezkoa dugula egitura komertzial sendo bat, zeinak gure produktuen marketing eta komertzializazioa garatuko lukeen, etengabe merkatuaren beharretara egokituz. Herri honek egitura hori ere behar du.

c. EUSKARAREN PUBLIZITATEA EDO PUBLIZITATEAREN EUSKARA

Asier Arrieta
EHUko irakaslea

Publizitateak Euskararen Normalkuntza Prozesuan duen eginkizunari buruz, bi irakurketa egin genitzake. Alde bate-tik, publizitateak duen garrantzia euskararen normalizazioan aztertu daiteke, hau da, zenbat eta publizitate gehi-ago euskaraz, are hobeto euskararen normalkuntza prozesu baten adierazgarria izan baitaiteke. Beste aldetik, eta momentu honetan niri gehiago interesatzen zaidana, publizitateak izan dezakeen eragina euskararen normalkun-tzarako baina euskara bera produktu bezala ikusita. Hau da, euskarari buruz egiten diren publizitate kanpainak, ins-tituzioen aldetik.

Publizitatea merkatuaren eta gizartearen adierazgarri bat da. Gizartea horrelakoa, publizitatea halakoa. Gizarte euskaldun peto-pettoa, publizitatea euskaldun-euskalduna. Ez dago merkatua bezain gauza materialistik. Hemen militantziak edo sentimenduek ez dute tokirik. Helburua salmenta da eta, horixe lortzeko, euskarak momentuz ez du tarterik edo tarte txikia du behintzat. Gaur egun erakundeak eta aurrezki kutzak dira euskaraz publizitate gehien egiten dutenak. Gizartearekiko konpromiso bat dute eta beraien irudia zaintzeko eta lantzeko behartuta daude publi-zitatean euskara erabiltzera. Gizarte plurala, elebiduna kasu batzuetan behintzat eta zenbait iragarleren jarrera poli-tikoki zuzena. Euskarari buruz egiten den publizitatea aztertuko dugu orain. Hizkuntza bat produktua ote? Nola iragarri behar da euskara? Iragarri behar al da? Euskarak zer irudi du? Irudi hori aproposena al da? Galdera guzti hauei eta beste zenbaiti erantzuna, hurrengo lerroetan.

Euskararen normalizazioa hizkuntzaren irudiaren modernizazioaren eskutik dator. Eusko Jaurlaritzak azken hogeit urte hauetan ahalegin izugarria egin du euskararen normalkuntza gauzatzeko. Eta neurri handi batean, bere konpromisoa lortu du. Gaur, gazte gehienak euskara erabiltzeko gauza dira, baina badirudi euskaraz bizitzeko prest ez daudela. Horietariko asko eta asko, euskararekiko militantzia izugarria dute baina hitz egiteko orduan, erdarara jotzen dute. Niri misteriotsua iruditzen zait. Ez dut ulertzen baina jaio direnetik euskaraz bizi izan diren gazte asko eta asko, egun batetik bestera, euskara etxean utzi eta erdara kaleratzen dute. Nik hamaika urte daramazkit EHU-n irakasle gisa euskal adarrean eta, zin dagizuet, nire ikasle gehienek ikasketak burutzeko euskara aukeratu arren, erdara erabiltzen dute beraien artean. Lotsagarria.

Euskarak duen irudia herrikoa da. Gutxiengo batek erabilitako hizkuntzarena. Zoritxarrez, Euskal Herriko zen-bait hiritan oraindik euskara entzutea harrigarria da edo, behintzat, arraroa eta hau onartu beharra dago. Hiri han-dienetan euskara eguneroko bizitzatik eta kaletik kanpo gelditzen da, dirudienez, euskara ez baitoa bat bizitza urba-noarekin. Gizartea eta tendentziak aurrera doaz. Joera berriekin bat aurrera goaz eta tren horretan igotzen ez dena betirako atzean geldituko da.

Euskararen etorkizuna hirietan landu beharra dago. Euskara modan jarri beharra dago. Erraza esatea, baina oso gaitza lortzea. Guzti hau, nire espezialitatearen ikuspegitik aztertuko dut, irudiaren aldetik. Hasteko, euskara hiz-kuntza gutxitu bat dela nik inoiz ez nuke esango. Ez dago bigarren mailako hizkuntzarik. Hizkuntzak hizkuntzak dira, besterik gabe. Eta duten aberastasunarengatik denek izan beharko lukete lehen mailakoak. Beste aldetik, urte

askotan jaso dugu mezu bera: “gure euskara gaixoa..., euskarak zure laguntza behar du...”, beti pena eman nahian. Euskarari baikor begiratu behar diogu. Imaginatu gaueko hamarrak direla. Telebistaren aurrean gaude eta iragarrien tarte heldzen da. Ikus genezakeen lehen iragarkiak Frudesa patata frijituak salduko dizkigu. Bigarrenak, Loeweren Aire Lurrina. Eta hirugarrena Renault bezalako iragarle erraldoi bat da. Imaginatu iragarki horretan enpresaren zuzendaria agertzen dela eta eskatzen digula Renault auto bat erosteko bestela enpresako langile asko kaleratu beharko lituzkeela. Uste duzue auto asko salduko lituzkeela estrategia horrekin? Pena emanez esango genuen: “goazen Renault bat erostera!”? Ba nik argi daukat erantzuna. Oso auto gutxi salduko lituzke. Ez genuke Renault bat ere erosteko gogorik. Zuetariko askori astakeria bat irudituko zaizue auto bat hizkuntza batekin konparatzea. Baina niretzat bi irudiak (publizitatearen ikuspegitik, azken finean) produktuak besterik ez dira eta horrela landu behar dira. Eta zalantzarik gabe, euskararen irudiak bultzada bat behar du eta baikorrak izan behar dugu bere irudiarekin.

Beste estrategia batzuk erabili dira. Batzuetan euskaraz hitz egiteko eskatuko digute, modu inperatibo batean edota modu dibertigarri batean. Argi eta garbi, euskaraz hitz egiteko eskatuko digute edo euskara gozatzeko eskatuko digute. Estrategia eta mezu zaharrak, gaur egun. Horrek ez du saltzen. Badirudi sedukzioa eta publizitatearen magia ez dakitela zer den.

Euskararen inguruan horrelako estrategia asko erabili ohi da. Lehen funtzionatzen zuten, baina gaur egun argi dago horrela ez goazela inora. Emaitzek eta errealitateak hori diote. Penagatik inork ez du euskaraz hitz egingo. Eta gozate emotibo hori ez da batere sinesgarria. Badirudi pixkanaka-pixkanaka euskararen inguruan dauden kolektiboren batzuk honetaz ohartu direla, baina gehienek betiko martxan jarraitzen dute. Askotan euskarak ematen duen irudia tamalgarrria da. Euskarak irudi askoz irekiago bat eman beharko luke, gizartea bezain irekia. Publizitatea beti gizartean dauden tendentziak baino pausotxo bat aurrerago joan behar du, bidea irekitzen eta, kasu honetan, euskarak ematen duen irudia hor dago.

Beste aldetik, produktu bat iragartzeko, normalean, iragarlea bakarra izaten da. Kontzeptu bat aukeratu eta hori islatzen du bere publizitatean. Euskararen inguruan iragarle ezberdin asko daude eta bakoitzak irudi ezberdin bat ematen du. Iragarle guzti hauek komunikazio helburu bakar bat erabili beharko lukete. Horixe da publizitateari irudi mailan etekina ateratzeko bide bakarra.

Dena den, modernizatzeko hitza gaur egun oso erabilia da. Askotan gehiegi. Era bat desbirtuatuta dago, baina, egia esan, ez dut beste bat ezagutzen hori ordezkatu dezakeenik. Nola modernizatu dezakegu irudi bat? Nola modernizatu euskararen irudia? Gizartearentzat erreferente bat izaten. Aurrera begira eta ez, atzera. Gizartea nora, publizitatea aurrean. Euskara alor ezberdinetan sartuz. Teknologia berrietan, publizitatean, musika joera berrietan, komunikabideetan... Askotan badirudi euskara erabiltzen duten komunikabideak gizartearen zati txiki batentzako lan egiten ari direla. Baina ez dute bakarrik edukiek eboluzionatu behar, estiloak eta formak, estetikak ere garrantzi izugarria daukate. Euskarak ezin dio bakarrik bere buruari begiratu. Gero eta mundu irekiago batean gaude eta euskarak alor guztietan egon behar du.

Azken finean, euskara mundura ireki behar da eta gizarte bezain bizia behar du izan. Madonak abesti bat euskaraz grabatuko balu, euskararen normalizazioan aurrerapauso izugarri bat suposatuko luke. Ea denon artean, euskara modan jartzen dugun, garai batetan indarrean egon baitzen eta ea berriz lortzen dugun. Eta askorentzat moda fribolitatearen sinonimoa da. Baina adibidez, 70. hamarkadan euskarak bizi izan zuen bultzada militantzaren ondorioa izan zen. Eta militantzia hark, momentu hartan, euskara modan jarri zuen.

d. BILBOKO METROKO IRAGARKIEN AZTERKETA

Andoni Lupiañez Mintegi
Publizista

1. Sarrera

Publizitatea gizartearen ispilua dela esan ohi dute edo bai behintzat gizarteak “nagusitan” izan nahi duenaren erreflexua. Mezuz beteriko oihan batean ibili ohi gara mezurik eraginkorrenaren amuan noiz eroriko zain. Telebistak, irriak, prentsak, hesiek, Internetek... ehizarako prestatutako “ehiza-barruti” horietako baterantz eraman gaituzte. Animalia mota bakoitzarentzat erreklamo ezberdin bat erabiltzen den moduan, publizitatean ere, mezuak ezberdina izan behar du “ehiza-talde” bakoitzarentzat.

Nekez ehizatuko dugu galeperra, eperraren edo usoaren erreklamoa erabilia. Gizakiongan ere beste horrenbeste gertatzen da. Gutariko gehienek, eta euskaldunotaz ari naiz, hizkuntza bi menperatzen ditugu eta beraz mezua bi erataria bidal diezagukete. Biak deskodifikatuko ditugu, baina euskaraz datorkigun mezuak abantaila handiagoa izango du identifikazio maila altuagoa lortzerako orduan. Gure hizkuntzan zuzentzen zaigunak konfiantza handiagoa ematen digu beti, eta ez soilik euskaldunoi.

Zentzu horretatik abiatuta, mezua gero eta gehiago pertsonalizatuz, xede-taldea ehizatzeo aukera gehiago izango dugu. Gehienetan, ordea, publizitatearen arduradunek atek itxi dizkiote gure hizkuntzari, euskarari. Euskaldunok, erdal hiztunak ere izanik (gaztelania-frantsesa), kostata irakurri ahal izaten dugu euskaraz idatziriko mezurik. Telebistak badu bere kate euskalduna, baita prentsa idatziak eta irriak ere. Baina zer gertatzen da kalean ikus dezakegun publizitatearekin? Bilboko metroko markesinek ezagutzen al dute euskararik? Babestu al dute sekula beraien kristalezko kutxetan gure hizkuntzan adierazitako mezurik?

2. Metodologia

Metro Bilbaoko hamar geltokitako iragarkiak aztertu ditut. Geltoki horiek, jendetsuenak eta erabilienak direlako izan ditut kontuan. Ikerketa hau egiteko baimena eskatu behar izan diet metroko arduradunei, izan ere debekatua baitago argazkiak ateratzea inolako baimenik gabe. Behin baiezkoa emanda, geltoki hauetan zehar aritu naiz euskaraz eta erdaraz dauden iragarkiak zenbatzen, bai kuantitatiboki eta bai kualitatiboki. Hau da, euskarazkoen iragarleak publikoak edo pribatuak diren... Eta azkenik datu horiek guztiak bilduta, paperera eraman, ondorioak atera eta hasierako hipotesiekin alderatu nahi izan ditut.

3. Hipotesiak

Ikerketa hau egiten hasi aurretik eta metroan nindoala, kartel batek atentzioa deitu zidan, arraroa egin zitzaidan. Bi hizkuntzatan zegoen idatzia, euskaraz eta gaztelaniaz, eta ez zen ez Eusko Jaurlaritzak ateratako mezu bat. Bilbo-

ko arropa denda batena zen, iragarle pribatu batena. Berehala denda horrek konplizitate berezi bat lortu zuen nigan. Baina hasierako hurbiltasun hori berriz urruntzen joan zen euskaraz zegoena gaizki idatzita zegoela ikustean. Testua ez zen batere luzea, alderantziz, hitz bakarra zuen soilik hizkuntzako. Eta euskarazko hitz bakar hori zelan eta txarto egon behar. Gaztelaniaz zegoen hitza, ordea, ondo zegoen idatzita. Aipatutako hitza “jertsea” zen, eta horrela idatzita egon beharrean “jertsei” jartzen zuen. Erdarazko adibidean “jersey” zioen. Haserre puntua ere etorri zitzaidan hitz bakarra itzuli eta gaizki idatzita zegoela ikustean. Egonezina edo ikerketa hau egiteko grina orduan piztu zitzaidan. Metroan zeuden kartelak aztertzea erabaki nuen. Denen artean euskaraz zenbat egongo ziren galdetu nion neure buruari eta euskaraz zeudenetatik zenbat ondo edo txarto idatzita. Kinielan argi eta garbi “2” jarriko nuke; gaztelaniaren alde noski. Enpresa publikoek (Eusko Jaurlaritzak) batez ere, kontra pixka bat egingo luketela pentsatu arren aurkaria indartsua dela ezin uka eta denboraldiz denboraldi, kanpoan zein etxean jokatu, prentsan zein telebistan irten, beti ere beraien alde izan ohi da partida. Lehenengo hipotesia badaukagu. Kinielan sakontzeko ordua iritzi da beraz.

Gure taldeak, euskarak, defentsaren aldeko apustua ala erasorako taldea aterako duen zehaztu behar da orain. Hau da, erakunde publikoak hizkuntzaren aldeko defentsan irtengo dira betebeharrak hori dutelako soilik, ala enpresa pribatuak, zelaian aurrera eginez partida irabazi ahal dutela ikusi eta euskararen alde erasora irtengo ote dira? Egia esan ez ditut iragarle pribatuak “horren ausart” ikusten. Alegia, ez ditudala publizitatearen zelaian behinik behin, euskararen aldeko apustua egiten ikusten. Beraz, bigarren hipotesiari ere, erantzuna emanda; iragarle pribatu oso gutxi ikusiko ditut, ikusten baditut! Baina, eta zer gertatzen da iragarle pribaturen batek, apustuak mila baten kontra egonda ere euskararen alde egiten badu? Ba orduan frontoi osoa zutik jarri eta txalo artean irtengo litzateke. Noski, apustua euskararen alde eta euskaraz egiteaz gain, euskararen maila ona dela ziurtatu beharko luke zale-riak, niri “Jertsei” horrekin gertatutakoa berriz gerta ez dadin: “koitus interruptusa”, hasierako poza putzuan.

Edonola, gure taldeak ez du itxaropen handirik sortzen zaleriarengan. Enpresa publikoek, eta zergatik ez, zelai bakoitzaren kudeatzaileek (kasu honetan Metro Bilbaok) jokalaririk pribatuak zirikatatu beharko lituzkete, laguntzak emanez edota zergatik ez, beste herri batzuetan egiten duten bezala, minimoak jarritz. Egia esan, ziurrenik ez naiz entrenatzailearik onena partida nola irabazi behar den esateko, baina bai ordea zale bat, gauzak ondo ez doazela esateko. Edozein eratarere, azter ditzagun lortutako datuak eta bakoitzak (batez ere entrenatzaile txartela dutenek) atera ditzala atera beharreko ondorioak.

4. Datuak

Lekua	Euskaraz	Bietara	Gaztelera
Bolueta Geltokia	2	0	18
Basarrate Geltokia	3	1	24
Santutxu Geltokia	3	1	12
Casco Viejo Geltokia	1	3	18
San Mames Geltokia	2	3	15
Indautxu Geltokia	2	3	11
Moyua Geltokia	2	3	15
Sarriko Geltokia	1	2	17
Deusto Geltokia	3	1	16
Abando Geltokia	4	2	10
Guztira	23	19	156
	%11,61	%9,59	%78,78

Euskara hutsean daudenen banaketa

Enpresa pribatuak:	17+9 (bi hizkuntzatan) = 26 iragarki
Enpresa publikoak:	6+10 (bi hizkuntzatan) = 16 iragarki

Euskaraz (ere) iragarri diren enpresa pribatuak

Bankuak:	10 iragarki
Aseguru etxeak:	3 iragarki
Bilboko erakustazoka:	4 iragarki

5. Ondorioak

Euskaldunontzat gogorra izaten da gure hizkuntza, bizitzako hainbat esparrutatik at dagoela ikustea eta gehienetan etsipenez hartzen dugu. Oraingoan ere, berriz, ateratako hipotesiak ondorioetatik oso urrun ez daudela ikus dezakegu. Lehenengo hipotesian zeresanik ez. Metroko iragarki gehienak, %78'78 erdara hutsean daude, euskara hutsean berriz %11'61.

Bigarrenengo hipotesian kale egin dudala esan dezaket. Enpresa pribatuen 26 iragarki egon dira euskaraz eta enpresa publikoenak 16 izan dira. Enpresa pribatuen 26 iragarki horietatik 10 banketxeenak izan dira (banketxe bakarra, BBK), 3 aseguru etxeenak (aseguru etxe bakarra, Seguros Bilbao) eta besteak Bilboko erakustazokarenak 4. Bi hizkuntzatan dauden beste 9 iragarkiak (iragarle pribatuenak) Getxo Taxi eta Begoñako Erromeriarenak dira.

Iragarki horietan ez dut hizkuntza akatsik aurkitu, ez behintzat akats nabaririk. Beraz, frontoia zutik jarri eta txalo zaparradaren unea heldu da.

Iragarle pribatuak ikusi ditut bai, baina faltan bota ditut telefonia enpresak, arropa markak, kirol dendak, kosmetikoak... Ez dakit, agian bankuen iragarkiak ere instituzional kutsua dutelako eta azken urteetan behintzat euskaraz ere iragartzen direlako, ez didate hasiera batean arropa denda hark (“Jertsei” jartzen zuen iragarkia) sortu zidan zirrara sortu.

Euskaraz eginiko publizitateak aldaketa nabarmen bat behar du. Bestela, euskarak berak ere instituzional kutsua hartu (jadanik hartu ez badu) eta betiko ordezkotza gisa iraungo du. Eta irauten badu! Beraz, benetan “entrenatzaile txartela” dutenei edo euskararen normalizazioan paperen bat jokatzen dutenei, estrategia aldaketa bat eskatu behar diegu zaletu bakoitzak. Horrela gure taldea ez doa ondo eta nekez igoko da mailaz.

a. KAZETARITZA ETA LITERATURA ELKARLANEAN

Karmelo Landa Mendibe
EHUko irakaslea

1. Kazetaritza eta Literatura, errealitatearen eta fikzioaren mugetan

Gaur egun kazetaritzaren eta literaturaren bideak gurutzatu egiten dira etengabe, baina kazetari askok ez du berau gustura hartzen, ez baitaki zer irabaz dezakeen informazioaren eremuak ohiko fikzioaren eraginetik.

Are gehiago, gaur egungo mundu globalizatuan zaila gertatzen da jakiten nola eta zergatik sortu den harreman deseroso hori, eta zertara datorren itxuraz ondo bereizita behar luketen bi eremuok nahastea. Egin daitekeen konstatazioa da, hala ere, gureraren heldu dela, eta indar handiz, postfikzioaren eragina.

Duela gutxi arte pentsaezina zirudien moduz eta indarrez sartzen dira gurean ere, barru-barruraino, nazioarteko sistema kultural hegemonikoaren agendan markaturiko gaiak eta moduak; adibide baterako, txosten hau prestatzen ari nintzen garai berean, udaren hasieran,

Bihotz Bakartien Klub literarioak bere kurtsoa ixteko Kirmen Uribe ekarri zuen Larrabetzuko eskolara, eta honek Sylvia Plath eta Ted Hugues idazle bikotearen harreman dramatikoak azaldu zigun, gai interesgarri bezain exotikoa gure ordu-arteko erreperorioan; gaiak ukiturik, beraz, jo nuen informazio gehiagoren bila, eta berehala konprobatu nuen gori-gorian ziharduela gaiak erreperorio anglosaxoian eta, honen eraginez, baita espainiarren ere: handik egun gutxira, *El País* egunkariko “Babelia” gehigarri literarioaren gai nagusia zen Janet Malcolm kazetari estatubatuarra eta bereziki honen liburu-erreportaje luzea: “Emakumea isiltasunean: Sylvia Plath eta Ted Hugues”. Bada Janet Malcolm berau, *The New Yorker* aldizkari prestigiodunean erreportaje luzeak egiten dituen da, hala-ber, beste liburu bikain baten egilea, gure gaurko gaia bete-betean ukitzen duena: “Kazetaria eta hiltzailea”.

“Errealitatea bera ezin ikusteraino ergela edo harroputza ez den edozein kazetarik badaki berak egiten duena moralki defendaezina dela” dio kazetariak aipaturiko liburu-erreportaje honen hasieran (Malcolm, 2004: 23). Esaldi probokatzaile honen azpian, kazetariak errealitatea azaldu baino gehiago “bertsionatu” edo are gehiago “traizionatu” egiten duen tesia gordetzen da, batere lasaigarria gertatzen ez dena, egia esan. Baina tesi hau liburuan kontatzen den Mac Ginnisen kasu errealean oinarritzen du: Mac Ginnis kazetariak Jeffrey Mac Donalden enkargua hartu du, epaitegietan hiru hilketak egitearen akusaziotik defentsa egokia prestatzeko elkarrizketa egin diezaion; kazetariak akusatuaren konfiantza irabazi du informazioa atera ahal izateko, baina ondoren traizionatu egin du, informazio hori akusazioaren esku jarritz. Bertzio eta interes kontrajarrien sare konplexu horretan, ia ezinezkoa gertatuko da errealitatean zer gertatu zen jakitea.

Errealitatea modu objektiboan hitzen bitartez ordezkatu ahal izateko mesfidantza hedatu da, eta horrekin batera kazetaritza objektibistaren, hirugarren pertsona idazten denaren krisia agertu; lehen pertsona indartu egiten da kazetaritzan, literaturan bezala, errealitateari ematen zaion begirada subjektiboaren balioa, berau agerikoa eta beraz zintzoa baldin bada.

2. Kazetaritza-Literatura harremanen iturburua

Hari honi tiraka uler daiteke, orduan, literaturaren eta kazetaritzaren arteko harreman sinergikoa. Non dago, baina, hari horren muturra?:

- a. Hizkuntza bera da iturria: kazetaritzan zein literaturan, komunikazioa hizkuntzaren bitartez burutzen da.
- b. Kazetaritzaren teoria tradizionalak hizkuntzaren erabileraz eta funtzioez zuen ikuspuntu objektibista hura aldatu egin da gaur egun. Ez dago, gaurko ikuspuntutik, objektua eta subjektua modu absolutuan bereizterik, eta hizkuntzak ezin du balizko errealitatearen berri objektibo eta guztiz neutrala eman, hizkuntza ez baita inoiz denotatibo hutsa, bere alde konotatiboa ere baduelako.
- c. Hizkuntza ez da bakarrik deskribapena; burutapena ere bada, zerbait burutzera bideratua, esatea egitea ere badelako. Zerbait esateagatik, beste pertsona batengan eragin dezakegu, zerbait egitera bultzatu. Bai literaturak bai kazetaritzak komunikazioa burutzeko hizkuntza bera darabilte, eta komunikatu nahi duten esperientzia hitz bihurtu edo “hitza” egin behar dute. Hori egin ahal izateko, nahi edo ez, esperientzia hori “fabulatu” egin behar dute, hitz aukeratuen bitartez irudi mentalak probokatuz eta modu horretan komunikazioa lortuz. Hizkuntzaren erabilera oro kontsideratzen da gaur egun estilo-markaz lagundua, eta ez dago, beraz, hizkuntza neutro-objektiborik.
- d. Kazetaritzaren eta literaturaren arteko bereizketa, beraz, gradukoa da: hizkuntzak, baten kasuan erreferentzialtasun handiagoa du, bestearenean fabulazio handiagoa.

Graduazio horren arabera generoak desberdintzen dira: kazetaritza informatiboa izango da erreferentzialtasunik handiena agertzen duen generoa. Kazetaritza eta Literatura hizkuntzaren Iturri bereko direla-eta, konbergentzia-prozesua gertatzen ari da batetik bestera.

Aurreko ikuspegi hedatuak fikzioarekin lotzen zuen eskusiboan literatura sormena, eta, ondorioz, literaturaren erresumatik desterratu egin zituen kronika, erreportajea eta biografia; literatura, bestalde, idazle sortzailearen irudimenaren fruitutzat aurkezten zitzaigun ikuspegi neoerromantikoan. Horrela, literaturtasuna eta fikzioa pareko agertzen ziren. Gaur egun Literatura fikzioaren eta estetikaren eremuak baino urrunago eraman nahi da, eta definizio berri zehatzagoak proposatzen dira Literaturaz: “izaera estetikoaren duen ezagutza bidea, esperientziaren kalitatea hizkuntzaren bitartez bereganatu eta adierazi nahi duena” (Chillon, 1999: 69-70). Literatura, beraz, fikzioaren eremu hutsetik esperientziaren kalitatea zehaztera etorri zaigu, eta ezagutza-bide berezi moduan agertu.

Hau bera adierazten zuen Harkaitz Canok zera zioenean: “Gero eta zentzu gehiago du fikzio errealitatean txertatzeak”; “liburuko pertsonaiak benetakoak izan arren, denek ondo funtzionatzen dute fikzio bezala”, zioen Canok, eta horren zergatia argitu nahian, gehitu zuen New Yorke, kronika horien guneak, “irrealitate” batean bizitzeko aukera ematen duela.

“Inork ez du fikzio baten parte izan nahi, eta are gutxiago oraindik, fikzio hori benetako denean”, (Cano, 2000) Gerora, 2001eko irailaren 11n New Yorken bertan gertatuak dimensio berezia eskaini diote Harkaitz Canok 2000ko azaroen esandako hitz mamitsuoi.

Bizitzako hainbat egoera ezingo genituzke ulertu nahiz adierazi, hizkuntzaren erabilera estetiko hori gabe, literaturarik gabe. Literatura Kazetaritzaren eremuan sartu zaigu, sentsibiltate errealista berria indartu den uean.

- Prosa literarioak lekukotasuna eta niaren literatura garatu du: oroimena oinarri, bidaia liburuetan, etab; bidaia baten inguruko kronika literarioak ugaritu egin dira.
- Kazetaritzaren eta Literaturaren mugan edo eremu komunean kokatzen dira zenbait esperientzia berri, eta sailkapena ez da erraza gertatzen; oraintsu gertatu zait hau ilustratzen duen adibidea: lehen aipatu dudana Janet Malcolm kazetariaren hiru erreportaje-liburu eskatzera joan nintzen Bilbon den liburu-den-

darik handi eta antolatuenara; kostatu zitzaien aurkitzea, bakarra ere ez baitzegoen Kazetaritza sailean: “Kazetaria eta hiltzailea”, Mc Guinnis kasuaz ari dena, Literaturan agertu zen, “Emakumea isiltasunean”, Sylvia Plath-Ted Hugues harremanen azalpen biografikoa, berriz, liburu feministen artean; eta “Psikoanalisi: ezinezko lanbidea” erreportajea, Psikologia sailean.

3. Sinergiak nondik nora

Nolanahi ere, arlo bi hauen arteko sinergia aztertu nahian gabiltzala, aitortu behar dugu bidea ez dela zentzu bakarrekoa gertatu, Literaturatik Kazetaritzara, alegia; kontrako bidea ere egin izan baita, eta Kazetaritzak ezagutu du azkenaldian Literaturarako joera markatua, informazioaren eremutik bertatik hasita, gainera:

Albistea aurkezteko orduan, kazetaritzak “I make news” hartara urratsa egin zuenetik, aurrera egin du etengabe narratibizazioaren bidean, eta ondoren, albistearen kudeaketa eta interpretazioa landu izan du: noiz eman argitara, zer testuinguru sortu...

Bide horretan, argigarria gertatzen da Habermas irakasleak esan duena:

“Albisteak, formatuan bai eta estiloan, narrazio bezala aurkezten dira; gero eta maizago, gertatuaren eta fikzioaren arteko muga ezabatu egiten da” (Habermas, 1986: 197).

Habermas maila teorikoan kokatzen dela esango dit norbaitek, baina kazetaritza “praktikoak” ere honako orientazioa hartu du:

“Sarreratxo informatiboek ez dute zertan hotz eta urrunak izan, kazetariaren esku literario edo deskriptiborik gabeak... beti onartu behar dira kontakizuna aberasten duten autorearen ekarpenak” (Grijelmo, 2000:35).

Erreportajea lantzeko orduan: kazetaritzak ez du nahiko gertatu dena kontatzearekin; hortik harantzago, motibazioak eta ondorioak eskaini nahi ditu. Gertakariei kolorea gehitu nahi zaie, errealitatea egitura estetikoetan antolatatu. Honako orientazioak ematen dira orain erreportajeak idazteko:

“Erreportajea informazio-testua da bai, baina albisteak, pertsonaia desberdinen deklarazioak, giroa, kolorea, eta batez ere deskribapena eskatzen dituen. Albistea bera baino gehiago egokitzen da erreportajea estilo literarioa (lehenago esan dugun arren albisteekin ere literatura ona egin daitekeela)” (Grijelmo, 2000:58).

Postfizioa: lan dokumentala eta literaturaren prozedurak elkarlotuz, fikzio-ez fikzio muga lehen oso markatua, aldatu egiten da.

- Genero hibridoak sortu dira : “tranche de vie”, sinesgarritasun efektua sortuz.
- Literatura-kazetaritza hibrido horiek, egunkarietan argitaratu eta bertan toki finkoa lortzen badute ere, literaturaren baliabide espezifikoak nabarmentzen dituzte, hala nola konparazio eta metafora ausartak.

Metaforaren erabilera gomendatu egiten dute kazetaritza-metodo berrietan:

- “Metafora da estiloa. Inork ezingo du artikulugile gradua lortu metaforaren erabileran lizentziatu bihurtzen ez bada.

Kazetariak, esaldi arrunt samarra jarri duela susmatzen duen bakoitzean, metaforari eskua luzatu behar dio, eta esaldi hori irudi literario batez ordezkatu”. Prentsa idatziak informazio arinaren monopolioa galtzen duen heine-

an, irrati-telebistaren mesedetan, posibilitate berriak landu behar ditu kazetaritza idatziak: horregatik bilatzen da errealitatearen azterketan sakontzea, Truman Capotek markatu zuen ildotik: kazetaritza maila horizontalean mugitzen da; narratiba, aldiz, maila bertikalean, pertsonaia eta gertakarian sakonduz .

Ildo horretan segituz, kazetaritza-genero eta modu berriak garatu dira: kazetaritza parte-hartzailea, interpreta-tzailea, ikertzailea. Prozedurak ere berritu egin dira, Tom Wolfek eta New Journalism eskolak hasitako bidetik: esze-na, elkarrizketa osoa, ikuspuntua, erretratu globala...

Alde batetik, saturazio-erreportaje deitua landu izan da, gai baten inguruan dokumentazio eta lekukotasun uga-ri pilatuz, horretan oinarritu ahal izateko “kazetari orojakile” baten idazkera (garai bateko idazle orojakilearen alda-kia, hain zuzen). Zutabe edo komentarioaren gainetik, erreportajeak lortu du prestigioa; iritziak ez du mugimen-durik, erreportajeak aldiz bizitza du, errealitatea interpretatu eta birsortuz.

Elkarrizketa eta erretratuaren generoa ere, literaturatik hartu eta bete-betean sartu da kazetaritzan, eta subjeki-bitate gradu handia onartzen zaio kazetariari, egotismoan erori ezean behintzat.

Gure prentsan, elkarrizketa-girotu estilo berrikoak saiatu izan dira azken urteotan, bai idazleen bai kazetarien aldetik, eta egunkari eta aldizkari formatuan argitaratu, batzuetan sail finkoa ere osatuz. Aipagarria da elkarrizke-ta-liburuaren formatua, Hasier Etxeberriak bost euskal idazlerekin berbetan burutu zuena.

Kultura idatzitik ikus-entzunezkora doan garaian bizi omen gara, baina hala ere, aldaketa sakon honek kazeta-ritzaren eta literaturaren arteko harremanak sendotu baizik ez dituela egiten ematen du; ikus-entzunezko eremua oso emankor agertzen da kazetaritza-literatura elkarlanean. Horrela azaldu izan da bilakaera hau:

“Hitzaren heriotza adierazi ordez, ... ikus-entzunezkoen unibertsoan gertatzen den honen birkokapena ulertu behar... Garai prometeikoak bizi izan ditu eta bizi ditu literaturak, liburutegietako jainkoei ken-du eta gizakiei emana izan beharko deneko garaiak”....”Benetan existitzen den irakurlearen izaera mutantea onartu behar dela, besterik ez da” (Vazquez Montalban, 1998: 192, 214).

Komunikazioa, bestalde, ez da inola ere eremu neutralean gertatzen. Aitzitik, gizarte globalizatu eta tentsiona-tu honetan, gaien agenda, interpretazioa, hizkuntza bera ere markaturik agertzen zaizkigu maizegi, goitik behera-ko dinamika astunen bidez. Eragin hori literaturara ere luzatzen ari dela esan daiteke gaur.

“Unibertsaltasunak ez dakar gau tolerantzia edo errezeptzio baliorik. Bere dogma propioa darama. Super-merkatuan ez dute tokiko produkturik nahi... best seller angloamerikarrak erakusten dituzte, eta baz-ter batera ezkututzen dituzte toki bereko hizkuntzan idatziriko jatorrizko lanak, nahiz hizkuntza pro-pioa izan ondasun berekoa” (Vazquez Montalban, 1998: 215).

Literaturaren ezaugarri izan den obraren pertsonalizazioa kazetaritzara zabaldu da, batez ere kronika generoan, honek egilearen ikuspegi pertsonala gehitzen duelako, eta kazetaritza “autore-lana” bilakatzen ari da, bai ikus-entzu-nezkoetan baita idatzian. Generoen alorrean bizi dugu egunotan nahasmendurik nabarmenena, aldaketa arinak eta ugari gertatu direlako hain zuzen; hibridazioaren ondorioz, helburu estetikoak eta informatiboak elkarlotu egin dira, eta irakurle-entzulea mezua deskodetzeko orduan harritu egiten da sarri, ez baitaki zer ikuspegitatik hartu behar duen mezua konkretua. Hau hala gertatzen ari da komunikabide guztietan, baina azkarrago ikus-entzunezkoetan: “mazedonia-programa” deitutuan genero desberdinetako atalak nahasten dira, formatu desberdinak tartekatuz...

Dokudramaren kasuan, adibidez, gero eta maizago ikusten dugu zenbait telebista kateetako albistegietan gene-ro informatibo “berri” honen erabilera bitxia: gertakari baten irudirik ezean, aktoreen bitartez, birsortu egiten dute gertatua, eta huraxe eskaini informatiboan, eta ez da beti markatzen dramatizazioa denik.

Oro har, kazetaritzaren jite komunikatibo-interpretatiboa garapen fase arinean aurkitzen da, beste zenbait arlotatik eta bereziki literaturatik baliabideak, metodoak... eta autoreak fagozitatuz.

1. Azkenaldian ezagutzen dugun kazetaritza-literatura harremana ez da motibazio estetiko hutsez gertatzen. Gertakarien berri emateko orduan, horietan sakondu beharrak eta albistearen testuingurua, zergatia eta nolatasuna eskaini nahiak bultzatzen du kazetaritza literaturaren metodo eta moduetara.
2. Edonola ere, modu gradualean gertatzen da kazetaritza-literatura harremana, eta graduazio hori hizkuntzaren erabilera berezituak neurtzen du.
3. Hurbilketa hori posible baldin bada, kazetaritzaren eta literaturaren berezkotasuna bortxatu gabe, hizkuntza beraren erabilerrari esker da eta, batez ere, sakonean biek ere komunikazioa dutelako helburu.
Bat egiten dute, beraz, informazioa eskaini nahiz esperientziari antolaketa estetiko eman baino harantzago, kazetaritza zein literatura biak ezagutza-bide direlako, eta biek ere, batera denotatiboa zein konotatiboa den hizkuntza bera darabiltelako.
4. Hurbilketa zentzu bietan ari da gertatzen. Alde batetik, literaturan sentsibilitate errealista berria indartu da, eta genero berriak ezagutu dira komunikazio-nahiari segika: “short-stories edo “labur-laburrak”, eta aspaldiko beste batzuk gaurkotu eta berrindartu: bidaiak, erreportaje-nobelak, etab. Bestalde, kazetaritzan albistearen “kudeaketa”, erreportajearen dimentsio berria, elkarriketa eta erretratu subjektibizatua, eta oro har, hibrido berrien agerpena nabarmendu egin da.
5. Harreman horren ondorio: kazetaritza arauemaitetik beste irizpide zabalago baterako bidean aurkitzen gara, komunikazioa eta interpretazioa helburutzat hartuta.

4. Euskarazko Kazetaritza eta Literatura: elkarlanaren zergatiak

Euskarazko Kazetaritzan ere nabarmendu izan dira arestian aipatu ditugun joera horiek guztiak, jatorri nagusia kultura anglosaxoian edo zehatzago iparramerikarrean dutenak; baina euskal kulturaren kasuan badira elkarlan horretara bultzatzen duten arrazoi endogeno garrantzitsuak, ondoren nabarmendu nahi direnak.

Izan ere, bi eremuon arteko elkarlana, aspalditik badator ere, azken mende laurdenean sendotu dela esan daiteke. Euskal idazleek behin eta berriro jo dute, eta zentzu kolektiboan sarritan, euskal prentsaren eremura, eta kasu horietako batzuk gogoratzea ondo dator:

- 1976. urtea, Euskal Kazetaritzaren Urtea izendatua izan zen, euskarazko prentsari bultzada berritzailea emateko asmoz.
- Deiarri erantzunez bezala, hurrengo urtean, 1977an, idazle-mobilizazio adierazgarria gertatu zen prentsa idatziaren eremuan: *Zeruko Argian* “Baietz astea gaizki bukatu” sailari eutsi zioten Koldo Izagirre, Ramon Saizarbitoria, Bernardo Atxaga eta Ibon Sarasolak.
- 1979-80 urteetan, *Oh! Euzkadi* saila lehenik, aldizkaria gero bultzatu ziren, kazetaritzako elementu anitzez osatuak.
- Oraintsuago, eta *Euskaldunon Egunkariaren* jaiotzarekin batera, berriro ere bertaratu zen idazle-andana, eta besteak beste, 1993-95 urteetan *Hitz lau* saila osatu zuten Koldo Izagirre, Ramon Saizarbitoria, Anjel Lertxundi, Xabier Lete eta Joxe Agustin Arrietak.
- *Egunkaria* itxi zutenean, *Berria* abian jartzeko prozesuan bidenabar aipagarria izan da eta da idazle-mobilizazioa, eta are *Berriaren* orrialdeetan ematen den idazleen aldiroko eta eguneroko lana aipatu behar da, batik bat Cano-Lertxundi-Lujanbio “triangelu” sonatua.

Zergatik eta zertara datoz euskal idazleak prentsa idatziaren eremura? eta zergatik agertzen dira maiz talde-lanean bezala? Euskal komunikazioaren eta literaturaren sistema propioa osatzera edo euskal kulturaren polisistema² antolatzen. Izan ere, frankismoaren amaierarekin batera, euskal gizartean sistema linguistiko, komunikatibo, literario eta kultural propioa antolatzen premia nabarmentzen da. Premia horri ezin zaio banaka erantzun; ezinbestekoa da erantzun kolektiboa eta antolatua, sistema propio batek behar dituen osagarri guztiak lortu nahi badira.

Prensa idatziaren kasuan, premia hori zenbaterainokoa den azaldu digu oraintsu Aitor Zuberogoiak, doktorego tesiaren aurkezpenean: “Sistema erreferentzial propioa eskaini behar du euskal prentsak” (Zuberogoiak, 2003:12) esan digu Zuberogoiak, euskara hutsezko komunikazio-esparru autozentratua antolatzen deituz.

Baina kontua da, premia hori ez dela prentsaren behar eskusiboa; aitzitik, sistema kultural guztiak elkarloturik agertu behar dute, elkar elikatuz, eraginkortasuna lortzeko orduan, eta ondorioz, euskarazko literaturak ezinbestez beharko du euskarazko prentsa, irakurleria eta merkatu propioa izan eta errepertorio aberatsa garatu ahal izateko.

Guzti hau modu egokian ulertu eta aztertu ahal izateko, lehenengo eta behin kazetariaren nahiz idazlearen ikuspegi erromantiko zaharkitua gainditu behar da, zeinaren arabera sormen-lan indibiduala goraiatu eta elkarreragina eta lan kolektiboa estaltzen diren. Oso bestelako begiezt begiratu behar ditugu kazetariaren eta idazlearen lanak, eta literaturak eta prentsak gizartearekin duten harreman konplexua aztertu.

Literaturak, bere funtzio estetiko ezagunaz edo lehenago azaldu dugun giza-komunikazio berezia lortzeko aparte, baditu beste hainbat funtzio sozial edo kolektibo, hala nola kultura eta nortasunaren osatzean eta nazioen antolaketan. Modu honetan kontsideratuz, harreman-sistema propioa da literatura, komunitate linguistiko zehatzetan garatzen dena, eta komunikazio-era berezia lortzen duena, bere lege propioen bitartez.

Gainera, sistema dinamikoa da, diakroniaz aparte, hau da, garapen historikoaz gain, harreman sinkronikoak garatzen dituena; sistema propioan eta baita beste sistemekiko harremanetan ere. Sistema irekia osatzen du, beraz, baina era berean ezaugarri edo balio propioak definituz.

Edozein sistema bezala, hierarkiaren legeak eta lehiarenak ere barruan ditu, eta kanon edo ereduaren bitartez antolatzen da garai zehatz bakoitzean.

Guretzat orain garrantzi berezia duena zera da: sistema edo polisistema horiek (literatura, prentsa...) komunitate zehatzetan ematen direla; baina komunitate horiek ez dira beti nazio antolatu gisa agertzen, eta hau da gure kasua hain zuzen; horrela gertatzen denean, sistema desberdinen-kontrajarrien arteko harreman konplexuak garatzen dira, harreman intersistemikoak, eta egoera definizioa ez da egonkorra gertatzen: sistema batzuek besteetan eragin eta asimilatze joera baitute.

Testuinguru zehatz honetan, aparteko garrantzia hartzen du sistema propioen legitimazio eta instituzionalizazio-mailak. Eta honetara dator, hain zuzen, idazleen eta kazetarien funtzio sozial kolektiboa gurea bezalako koinuntura soziohistorikoetan.

Lan kolektibo horren ondorioz sortzen dira egitura sinbolikoak komunitate bakoitzean, eta komunitate hori arlo³ antolatu zehatzetan egituratzen da, arlo bakoitzak bere pentsatzeko modu edo ezaugarri subjektibo komun batzuk eta habitus³ zehatzak garatzen dituelarik. Bada, esan daiteke gaur euskarazko kazetaritzak eta literaturak arlo baten eraikuntzan dihardutela, horretarako beharrezko diren pentsatu-esan-idatzi-adierazi-ekin moduak edo habitus komunak garatzeko prozesuan, eta horregatik elkartzen direla oso maiz eremu bertsuetan. Bestela esanda, euskal kulturaren polisistema osatzeko bidean dihardutelako oraindik orain.

Zentzu horretan, bai euskarazko literaturak bai kazetaritzak badute funtzio komun garrantzitsua: sistema propio baten kohesio soziokulturala lortu. Nola burutzen dute betebeharrak? Erabile sozio-semiotikoen bitartez: hauen artean kokatzen ditugu idazleak, kazetariak, irakasleak, kritikakoak... oro har testu-sortzaile dei ditzakegun guztiak.

Testu ahalik eta gehien hizkuntza propioan sortzea lehen mailako betebeharra da, hain zuzen ere testu horien bidez sortzen ditugulako irakurketa-ohiturak, idazkera-estiloak... oro har, komunitate linguistiko eta nazionala koheSIONatzeko oinarrizko elementuak.

Testu hauen egunerokotasunean euskarazko prentsa idatziak lehen mailako eginkizuna hartzen du, jakina. Tes- tuok, gainera, idatziak badira, egonkortasuna lortzen dute, eta tradizioaren osagarri bilakatu, komunitate propioa- ren legitimazio subjektiboari lagunduz (gogoratu, honetaz eta adibide gisa, oraintsu Perez de Lazarragaren testua- ren aurkikuntzak gure artean sortu duen zirrara ez kasualitatezkoa).

Euskarazko prentsak eta literaturak, ikuspegi funtzional honetatik begiratuta, agertzen duten ezaugarririk behi- nena zera da: interferentzia -giro batean bete-beterik murgildurik daudela, alegia. Ez daude berezko garapen ore- katu bat izateko baldintzetan, ez eta hurrik eman ere. Interferentzia giro horretan, gainera, arlo propioa osatzeko orduan, zailtasun bereziak aurkitzen dituzte, aldamenean (edo gainean) dituzten beste sistema komunikatibo eta literarioen eragina oso indartsua izateaz gain, bortitza eta indarrezkoa ere badelako sarriegi. Gogora dezagun, bes- teak beste, Euskaldunon *Egunkaria* zen euskarazko egunkari bakarraren itxiera, eta interpreta dezagun itxiera hori ikuspegi funtzional honetatik, zergati sakonak edo, gutxienez, ondorio sakonak egoki ezagutu ahal izateko.

Honen kontura zera hartu behar dugu kontuan: interferentzia giro hori ez dela inoiz “arrazoiaren” eta zentzu- naren bideetatik erabakitzen, arrazoiak eta zentzunak berek “nortasun nazional” zehatz bat agertzen baitute.

Kontua, orduan, beste nonbait kokatu behar da, euskarazko kazetarien eta idazleen kasuetan: jarrera sistemi- koan, alegia. Zeri deitzen diogu jarrera sistemikoa?: kazetari edo idazle bakoitzak edo, zentzu zabalagoan, komu- nikabide, argitaletxe, instituzio bakoitzak agertzen duen sistema kultural-linguistikoko zehatz batekiko identifikazio- ari ematen diogu izen hori. Kontzeptu horrek beste zabalago bat aurre-suposatzen du: arlo nazionalarena, alegia; arlo literario edo komunikatibo bakoitza, modu naturalean, arlo nazional batean txertatzen den onarpena⁴.

Puntu honetara iritsiz gero, ondorio global modura esan daiteke euskarazko prentsa eta literatura elkarlanera bultzatzen dituzten faktoreen artean badirela. Alde batetik, nazioarteko komunikazio-sistemak baita literaturaren norabide berriek eragindako sinergiak, txosten honen lehen atalean aztertu ditugunak. Bestetik, euskal kulturaren polisistemaren egoera bereziak eragiten dituztenak, eta azken hauek gerta daitezkeela determinatzaile sistema kul- tural propioa, ondo egituratua, orekatua izan edo ez erabakitzeko orduan. Lan honek bigarren multzo honetan era- gin dezake modu berezian, sistema kultural propioan gertatzen diren sinergiak, bereziki arlo literarioaren eta komu- nikatiboaren artekoak, indartuz.

Bibliografia

- Bourdieu, Pierre: Las reglas del arte. (Génesis y estructura del campo literario), Bartzelona, Anagrama 2002
 Chillón, Albert: Literatura y periodismo, una tradición de relaciones promiscuas, Universitat autonoma Barcelona, 1999
 Even-Zohar, Itamar: “Factores y dependencias en la cultura. Una revisión de la teoría de los polisistemas”, in ZZ.II., Teoría de los poli- sistemas, Arco/Libros 1999, Madril
 Figueroa, Anton: “Literatura y ámbitos nacionales”, hitzaldiaren testua, EHUko Udako Ikastaroak, Donostia 2003.
 Habermas, Jürgen: Historia y crítica de la opinión pública, Gustavo Gili, Bartzelona 1986
 Lodge, David: La conciencia y la novela, Península, Bartzelona, 2004
 Malcolm, Janet. El periodista y el asesino, Gedisa, Bartzelona 2004
 Zuberogoitia, Aitor: Elkarriketa, *Berria* egunkaria, 2003ko martxoaren 26a, 12. or.

Oharrak

1. Ikus honetaz El País egunkaria, 2004ko ekainaren 26a, “Babelia” gehigarria, 1-3 or.
2. “Polisistema” kontzeptua hemen Itamar Even-Zohar irakaslearen zentzuan erabilia da (Even Zohar, 1999: 23).
3. “Arlo” zein “habitus” kontzeptuak, Pierre Bourdieuren zentzuan (Bourdieu, 2002: 108, 270)
4. Arlo nazionalaren definizio egoki bat Anton Figueroa irakasleak eskaintzen diguna (Figueroa, 2003: 16)

b. KAZETARIA EZ DA JAINKOA

Lorea Agirre
Berriako kazetaria

“Martin Larralde honelako egun batez hil zen galeretan begiak zabalik etzanda, agian, zerua itsaso zikin bat dela esanez”. Horra Joseba Sarrionandiak Martin Larralderi buruz idatzitako bertsoak. Hiltzera zihoala zer pentsamendu izan zuen kontatzen digu Sarrionandiak, literatur egile den aldetik. Baina bada hitz bat lerro horietan, Iurretako idazleak kazetariaren begirada eta postura kontuan dituela salatzen duena: agian.

'Agian' horrek markatzen du literaturaren eta kazetaritzaren arteko bereizketa. Egiaren eta egiantzekotasunaren arteko muga. Ez baitira gauza bera, eta biek ere ez baitute balio bera segun eta zein eremutan. Literaturan egia eta egiantzekotasuna baliokideak, osagarriak izan daitezke. Kazetaritzan oso gauza desberdinak dira, eta inoiz ez baliokideak. Alegia, ezin dela bata bestearen lekuan jarri. 'Agian' hori beharrezko da kazetaritzan, nahiz eta egia den kazetariak ezin duela omenka ibili. Baina beti izango da hobe -erran nahi baita ondraduagoa- omenka ibiltzea, eza-gutzen ez dena asmatu eta egia gisa ematea baino. 'Agian' horrek kazetaria non kokatzen den esaten digu: dena gain-begira dezakeen idazle orojakilea den, edota gertatutakoaren zati bat baino atzeman ezin dezakeen bitartekaria.

Idazleak ez du inongo mugarik, ez legerik; ez bada bere barne munduaren sinesgarritasuna gordetzea irakurlearen aurrean, mundu hori inongo mundu fantastikoena izanda ere. Kazetariak ere sinesgarritasuna gorde behar du. Hau da, idazten duen lehen paragrafoan kontratu bat sinatzeko proposamena luzatu behar dio irakurleari. Kazetariak gertatuaz zintzo dakiena kontatuko du eta irakurleak ez du zalantzarik izango irakurtzen ari dena egia denetz. “Nik hau dakit, egiaren zati hau, eta kontatu egiten dizut”. Alegia, egia kontatuko du, letra txikiz nahi bada, edo bere egia subjektiboa, baina egia, eta ez egiantzekotasuna. Egiantzekotasuna izatea nahikoa du literatur idazleak irakurlearekin kontratua sinatzeko. Horrek ez du esan nahi literaturak egia ez dioenik: fikzio hutsa izanagatik, eta horrenbestez gezurra, egia biribilak esateko bide egokiagoa da, sarritan, kazetaritza bera baino. Baina hori beste kontu bat da.

Beraz, egia, ez egiantzekotasuna. Kazetariak ezin pentsa dezake hurrengo: “Ez dakit horrela gertatu zen zehatz-mehatz, baina gerta zitekeen, sinesgarria da”. Ezin du jarrera hori defendatu, ez behintzat jarrera hori defendatzen ari dela irakurleari jakinarazi gabe. Zer gertatzen da irakurle bat erreportaje bat irakurtzen hasi eta, “baina kazetari honek hori nola daki?” galdetzen duenean berekiko. Akabo. Bukatu da erreportaje horren irakurketa, eta horrenbestez hankamotz geratu da kazetariaren egitekoa.

Gaur egungo kazetaritzan, kazetaritza estilo politizatuenean (zentzu zabalean), hau da, iritzi edo jarrera sortzaile edo indartzaile izan nahi duen kazetaritza estilo horretan oso sarri erabiltzen den formatua da gertaeren berritzea edo berregitea. Pentsatzekoa da kazetariak ez duela zuzenean ikusi gertatutakoa baina, lekuko bidez, datu eta informazio ofizial edo ez ofizialen bidez kontatu dezake. Konta dezake gertatutakoa, edo bera jakitera iritsi den hori. Inoiz ez du gertaera osoa kontatu ahal izango. Idazleak, berriz, dena kontatu dezake. Eta hilketaren lekuan enbarazu egiten dion auto bat badago kendu egingo du inori konturik eman beharrik gabe. Idazlea jainkoa baita bere fikziozko erresuman. Pertsonaiak sortu, jantzi, moldatu, hitz eginarazi, hil... edozer egin dezake.

Kazetariak, ez. Kazetaria ez da jainkoa, askok hala pentsatuko badu ere. Baina kazetariak jainko izateko tentazio handia izaten du batzuetan. Eta idazlearen posturan jarri eta albisteko protagonistaren barne pentsamenduetan sartu nahi izango du: koherentziarik ez duenari lotura logikoak asmatuko dizkio, gertaeraren arrazoi konplexuak azalpen lauetan emango ditu, zatikatutako errealitatearekin pitzadurarik gabeko ispilua sortu nahi izango du. Kazetariak beti du buruan beste topiko hori: 'Errealitateak ez diezazula titular on bat honda'. Kazetariak idatz dezake: "Bost urteko umea hil duen mutikoak depresioa izateko itxura zuen", edota "Ume hiltzailea depresioak jota zegoela adierazi zuen hura artatu zuen psikologoak". Hori da zuzena, hori da kazetari batek irits dezakeen informazio maila, baldin eta ez badio hiltzaileari elkarrizketa luze bat egiten eta hark depresioak jota dagoela esaten dion. Horrela ez balitz kazetariak bere irudipena dela idatzi beharko luke, bere subjektibotasuna agertu bere subjektibotasuna dela ezkutatu gabe. Baina "umea depresioak jota zegoen", ezin du kazetariak idatzi egia berdadero bat bailitzan. Agian bazegoen depresioak jota, agian ez.

Kazetariak jainkoa dela uste duen argi ikusten den adibide bat jarriko dizuet. *El País* egunkariak argitaratutako erreportaje bat da: "Belen eta Aitorren ibilbide kriminala"

"Azken Chesterraren zigarro-punta kalera bota zuen Belenek tiro bat bota izan balu bezala. Aitorrek logelan zuen botila hartu, eta gaueko azken pixa egin zuen bertan, horrela ez zuen pisukideekin gurutzatuhatu beharko komunerako bidean. Belenek motxila barrura bota zituen HS 9mm-ko pistola, urrunerako mando bat eta nortasun agiri faltsu sorta bat. Aitorrek bekainak ondo depilatuta zituela begiratu zuen ispiluan, pistola ondo zebilela egiaztatu eta gelako horman zuen argazki bati begiratu zion. Lana zuten hurrengo goizean, ordu pare bateko lana gehienera jota: auto ofizial berde baten atzeko aukian egunkaria irakurtzen joango zen ezezagun bat bonba kotxez hiltzea, Corazón de María eta Cardenal Siliceo kaleen bidegurutzean. Errutina hutsa Madril komandoarentzat: Belenek hamar aldiz egina zuen horrelakorik; Aitorrek bost".

Bo, hona. Literatura balitz, legezko lirateke hor kontatutakoak eta gehiago, literatura kaskarra izanagatik. Baina kazetaritza izan nahi duenez, gutxienez erabil daitekeen adjektiboa erreportaje faltsua dela da. Literaturak kazetaritzari egin diezaiokkeen kaltearen adibide garbia da, zer esanik ez errealitateari, egiari, irakurleari. Irakurleak erreportaje hau arreta eta ardura pittin batekin irakurtzen badu, lehen leerroan bertan galdetuko du bere kolkorako, ea nola jakin duen kazetariak ETAKo kide horrek ohera joan aurretik Chester bat erre eta gero keinu bortitzez batez bota zuela. Edota, nola dakien beste ETAKo kideak bekainak ea ongi depilatuak zituen begiratu zuela ispiluan atentatuaren bezperan. Kazetariak ez daki. Asmatu egin du. Jakin badakigu ez dituela ETAKo bi kide horiek elkarrizketatu, eta elkarrizketatuta ere zaila dirudi Aitor Garcia Aliagak kazetariari hau aitortzea: "Bekainak oso ondo depilatuta izatea gustatzen zait". Beraz, zer da kazetariak dakiena?

Egunkari handietan bada polizia-kazetaria deitzen zaion espezializazio bat: polizia iturriekin harremanetan dagoen kazetaria da. Pentsa dezakegun kazetari honek bi etakide horiek atxilotu dituzten poliziekin edo ingurukoekin hitz egin du, eta miaketetan zer topatu duten kontatu diote: Chester paketea, txiza zuen botila bat, horman itsatsita zegoen argazki bat, motxila, pistolak... Bi etakideen argazki polizialak ere lortu ditu, bistan denez, eta hor konturatu da Aitor Garciak bekainak depilatuta dituela. Objektuen zerrenda bat da. Nola berregin daiteke gertatutakoa objektu zerrenda soil batekin? Asmatuz. Fikzio bat osatuz. Literatura eginez. Kazetariak bere burua jainkoaren pare jarritz, idazle orojakile izan daitekeela sinetsaraziz bere buruari. Azkenerako gezur handi bat sortu du, hori bai gantsu-terren zinemaren ukitu estilistiko hanpatuarekin apaindua. Alegia, kazetariak ezin du literaturarik egin, ez behintzat esan gabe literatura egitera doala.

Badakit jarri dudan adibidea oso zabarra dela, esan nahi dut titiko ume batek ere ikusiko zukeela kontakizunaren gezurra. Baina *El País* egunkariak argitaratu da, eta *El País* egunkaria Europako egunkari onenetako bat da, eredugarria gauza askotan. Alegia *El País*ek hori egiten badu, beste batzuek... Baina demagun albistea beste tankera batekoa dela. Demagun, Espainiako Gerran fusilatu beharrekoak konfesatzen aritu zen apaiz nafar batek hala-

ko egunkari bat utzi zuela idatzia, non fusilatu beharrekoen izen-deiturak, adina, data, lekua eta akusazioa jasotzen zituen, injustiziaren eta ankerkeriaren handiaz jabetuta. Zerrenda bat da, listari bat. Egunkaria kazetari baten eskuetara iristen da, eta literatura egiteko gogoia pizten zaio:

“Joan Antonio Marcilla hilerrirako bidean jarri dute nazionalek. Eskuak bizkarrean lotuta, burua soil-duta. Goiz da oso, eguna argitzerako bukatu nahi dute lana soldaduek. 1936ko abenduaren 7a da, Ultzamako herrian. Hotz du Marcillak jaka zaharraren azpian; ihintza hezurretaraino sartzen zaio; aire izoztua hozkadaka hartzen du. Urratsa urratsaren ondotik emanez azken aldiz begiratzen ditu jaioterriko baso eta mendiak. Hormari buruz jarri dute, eta Marcillak begiak ez estaltzeko eskatu die. Ez du iluntasunean hil nahi. Ez du iluntasuna behar baino lehenago ikusi nahi. Tiroen burrunbak isiltasuna zartatu du, eguzkiaren lehen izpiek zerua pitzatu duten une berean. Txolarre aldra bat hegan irten da arrapaladan zuhaitz biluzietatik”.

Ados, errazago barkatzen diogu kazetariari sortu duen fikzioa: txolarreak zirela, eguna argitzearekin batera tiro hotsak, ihintza, baso eta mendiak... oso poetikoa. Bale. Baina egiazkoa al da pasarte hori? Benetan horrela gertatu al zen? Hotz egiten al zuen 1936ko abenduaren 7an? “Ez dut iluntasunean hil nahi”, esan al zuen Marcillak? Edo pentsatu? Edo beldurrez akabatu zen? Edo ezer pentsatzerako garbitu zuten?

Kazetariak ezin du protagonistaren barne ahotsa izan, ezin du berriaren subjektuaren barne pentsamendu eta sentimenduetan sartu. Protagonistak ez dira kazetariaren sorkuntza, eta ez dute hark nahi bezala funtzionatzen. Horra kazetaritzaren eta literaturaren arteko lehen bereizketa. Bigarrena: egia eta egiantzekotasuna ez dira gauza bera, ez kazetaritzan behintzat. Kazetariak ezin du egiantzekotasuna egia balitz bezala saldu. Literatur idazleak, bai. Hirugarren eta azken desberdintasuna: kazetaria ez da jaingo orojakile bat. Idazlea, bai. Hiru muga horietatik at, kazetaritzak badu zer ikasia literaturatik, azken finean informazioa emateaz gainera kazetariak komunikatzen ere jakin behar baitu.

a. GENERO IKUSPEGIAREN GABEZIAK EUSKARAZKO PRENTSA IDATZIAN

Karmen Irizar Segurola
Maxixatzen aldizkariko zuzendaria

1. Sarrera

Mende erdi pasatu da Simone de Beauvoir filosofo eta idazle frantsesak “bestea”-ren kontzeptua garatu zuela. Bestea da ardatzetik edo oinarritik aldentzen dena, desberdina dena, ereduaren ezaugarri batzuk garatu ez dituen eta horren orde, bere ezaugarri propioak dituena, baina beti norma edo arauaren bidetik kanpo. Horrela azaldu zituen gizon eta emakumeen bizitzaren artean zeuden desberdintasunak, gizona da oinarri eta ardatz jendartean eta emakumea da “bestea”. Gizonaren ezaugarriek osatzen dute eredu jendartean, eta eruditik kanpo dagoena bezala ulertzen da osterantzeko guztia.

50 urte pasatu dira, mendez aldatu dugu, milurtekoa ere estreinatu dugu, eta Simone de Beauvoirrek mahai gainean jarri zuen teoriak bizi-bizi dirau. XXI. mendeko lehen urteetan emakumeak “bestea” izaten jarraitzen du eguneroko bizitzako esparru guztietan.

Euskarazko komunikabideak dira aztergai lan honetan. Aldaketa nabariak jasan ditu sektore honek azken urteotan, baina generoaren tratamenduari erreparatu diogula, egin beharreko bidearen atarian baino ez dagoela esan behar genuke, gaia garrantzitsutzat jotzen den arren, ez delako oraindik orain modu serioan planteatu, ez eta ere lehenetsunaren zerrendan sartu.

2. Euskarazko prentsa idatziaren gabeziak generoaren ikuspegiari dagokionez

Azterketa arin bat egitea nahikoa da euskarazko komunikabideek, eta komunikabide guztiek oro har, genero maskulinoaren aldeko apustua egiten dutela ulertzeko. Gizona dute ardatz eta emakumea bestea da, eredu horretatik kanpo geratzen dena.

a. Notiziagarritasunaren kontzeptu arbitrarioa

Euskara batuaren hiztegiak ez du notiziagarritasun hitza jasotzen, baina kontzeptua bizi-bizirik dago prentsaren estrategian. Gertaera bat ez da berez, notizia, notizia egin egiten da. Jorratuko diren gaiak duten notiziagarritasunaren edo garrantziaren arabera azalduko dira komunikabideetan. Kontua da, garrantziarena erabat kontzeptu arbitrarioa dela. Ikuspegi subjektiboek erabakitzen dute zer azalduko den eta zer ez, zuzendariaren ikuspegia izan daiteke edo medioaren linea editoriala. Norbaitek erabaki du, esate baterako, Irakeko inbasioa oso garrantzitsua dela, eta beraz, egunero azaldu behar duela Euskal Herri mailako komunikabideetan. Aldiz, Afrikako hainbat herrialdeetan azken 30-40 urteotan indarrean dauden gerrek ez dute inolako presentziarik euskarazko prentsan. Zerk egiten

du bat notizi eta bestea ez? Norbaiten irizpide propioaren arabera hartutako erabakiak egiten du-eta Irak notizi eta Afrika, ordea, ez.

Gauza bera da emakumeekin gertatzen dena. Urola bailarako herri aldizkarien 20na ale, *Argia* astekariko 20 ale eta *Berria* egunkariko 20 ale aztertzen aritu naiz. Portadetan azaltzen ziren argazkien %20an agertzen ziren emakumeak, %45 inguruan gizonak eta %35ean ez zen pertsonarik agertzen. Bakarkako argazkietan emakumeak %19,4 ziren eta gizonezkoak %80.

Datuoi begiratuta argi dago, norbaitek erabaki duela gizonak askoz interesgarriagoak direla elkarrizketatzeko, eta gizonak nagusi diren esparruek garrantzi handiagoa dutela emakumezkoak nagusi diren jarduerak baino. Ikuspegi arbitrarioak erabaki du gizonezkoen kirolak garrantzi handiagoa duela emakumezkoenak baino. Emakumea izanez gero, Joane Somarribak egin duena egin behar da komunikabideek aintzat har zaitzaten. Gizonezkoa izanez gero, nahikoa da tartean behin etapa bat edo beste irabaztea, urtean zehar egiten den edozein karreratan.

Azken batean, aukeraketa eta balorazio kontua da atzean dagoena. Gizonek egindakoez dute balioa, jarduera horiek dira ardatza, emakumeek egiten dutenak, “besteak” egiten duenak ez du inolako interesik eta ondorioz, ez du merezi komunikabideetan tratatzerik.

b. Berrien trataera androzentrikoa

Komunikabideetan tratatzen diren gai nagusietan (politika, ekonomia, kirola eta kultura) bi modutan mugatzen da emakumeon presentzia: batetik, gai horietan gizonak izaten dira eragile eta parte-hartzaileak, eta emakumeak hartzaile soilak dira. Bestetik, gai horiek gizonarengan izango duten eragina bakarrik azaltzen da. Jendartea ente homogeneoa balitz bezala ikusten da, baina mugari bezala hartzen dena gizona da.

Petrolioaren prezioak gora egiten duenean, euskal familien kontsumo ahalmenean izango duen eragina aztertzeko, orain arteko familia tradizionala hartzen da oinarri. Ez da inoiz aipatzen guraso bakarreko familiek bestelako arazoak izango dituztela. Ez da aipatzen guraso bakarreko familia gehienetan guraso bakar hori emakumea dela. Langabetuen artean emakumeen kopurua altuagoa bada eta emakumeen soldatak, batez beste, %30 baxuago badira, ondorio garbia da guraso bakarreko familia horien egoera larriagoa izango dela bi gurasoz osatutako familia baina. Egoera desberdinak direnez, biek azaldu beharko lukete petrolioaren prezioak gora egitean ekarriko dituen ondorioak aztertzen direnean.

Pentsioen gaia ere pentsio guztiak berdinak balira bezala tratatzen da. Pentsio mota desberdinen arteko diferentzia egiten da kopuruak emateko, baina ez da aipatzen zer eragin duen sexu bakoitzarengan. Pentsioek gora egin arren, egoera desberdina da norberak kotizatu duen diruaren arabera kobratzen bada edo senarrak kotizatu zuenaren arabera kobratzen baduzu. Urte luzetan etxeko lanak egin dituzten emakume askok ez dute pentsio propiorik, baizik eta gizonarena. Hau hiltzen denean, ordea, pentsio hori jaitsi egiten zaie bizirik geratu denak ez duelako inoiz kotizatu, eta beraz, ez du besteek bezala jasotzeko “eskubiderik”. Gutxiago kobratzeak, egoera ekonomiko kaskarragoa dakar eta, hamaika kasutan, pobrezian bizi behar izatea, nahiz eta bizitza osoan ordaindu gabeko lana besterik egin ez. Pentsioei buruzko erreportajeetan azaldu egin beharko luke gizonak babesten dituztela eta emakumeak erabat bakarrik eta babesgabe geratzen direla administrazioaren eskuetan. Pentsioak baxuak direla esateak ez du errealitate osoa islatzen.

c. Ikuspegi ofiziala babestu

Emakumei bakarrik eragiten dieten gaiak lantzen direnean ikuspegi ofizialaren berri ematen da soilik. Euskararen inguruan euskarazko komunikabideek irakurketa propioa egiten duten bitartean (zer egin beharko litzatekeen, zer hutsune dauden...) emakumei buruzko gaietan ikuspegi ofiziala da nagusi.

Osasun alorrean datuak eta diru kopuruak aipatzen dira bakarrik, administrazioaren ikuspuntua, gizonak nagusi diren esparruko berriak ematen dira. Urtero publikatzen dira egin diren mamografiaren kopurua eta zenbat bizitza salbatzen lagundu duten proba horiek. Hori gizonak kontrolatzen duten medikuntzaren atala baino ez da. Gero eta gehiago dira, proba horien beharra zalantzan jartzen duten ahotsak, proba horiek emakumearentzat kaltegarri izan daitezkeela esaten dutenak, emakumeari informazio guztia ez zaiola ematen salatzen dutenak (ikus Greer Germaine, *The whole woman*, Doubleday, Great Britain, 1999), baina horiek guztiak ez dira inoiz agertzen. Emakumeek egindako gogoeta horiek ez dira inoiz notizia bihurtzen Hezkuntzari buruz Euskal Herrian piztu den azken auzia Espainiako Historiako akademiak Euskal Herrian irakasten zen historiari buruz egindako iruzkinak sortu zuen. Espainiako historia eta geografia irakasten ote ziren ez ote ziren zen eztabaida. Inork ez zuen aipatu emakumeen historia ez hango ez hemengo liburuetan agertzen ez denik. Espainiako Historia akademiak esaten duena notizia da, dudarik gabe. Kontua da, zergatik ez da inoiz notizia, emakumeek historian egin dugun ekarpena erabat ezkutu dagoela? Zergatik da notizia urtero, irailean, liburuen prezioa eta ez barruan dauden gabeziak? Arlo ekonomikoa delako gizonak osatu eta antolatutako sisteman nagusi, eta ez edukiak. Sistemak berak alor ekonomikoari ematen dio garrantzia, eta gauza bera egiten dute komunikabideek.

d. Gehigarrien tranpa

Gehigarriak dituen komunikabide gutxi dago euskarazko prentsan. *Berriako Tarte*a, *Mantangorri* eta *Ekonomia* gehigarria, *Argiako Larrun* eta herri aldizkariak, publikitate bidez, aparteko diru iturri bezala, oso noizbehinka ateratzen dituztenak. Emakumeak protagonista diren berriak atal hauetan agertzen dira gehienetan (nahiz eta Larrunen kasuan emakumeen portzentaia %10era ez den iristen). Atal horietan egiten zaizkie, batez ere, elkarriketak emakumei, eta hor agertzen dira, agertzekotan, emakumea nagusi den espazio pribatuari buruzko artikulu eta erreportajeak: familiako osasuna zaintzeko moduak, etxeko istripuak, etxeen dekorazioa, lorezaintza, historia, sendabelarrak, elikadura, harreman afektiboak... hau da, mundua mundu denetik emakumeen eskutian egon diren ardurak.

Gehigarrietan azaltzeak, izenak berak dioen moduan, oinarritzkoa den atalaren ondoan azaltzea esan nahi du. Atal garrantzitsuari osagarri modura eransten zaiona. Ondorioz, oraindik emakumeen ardurak diren gaiak, “bestearen” gaiak dira, landu daitezkeenak, baina une jakin batean lasai asko ken daitezkeenak, ez baitira komunikabide horren mamiaren parte. Emakumea noiznahi desager daiteke, gizonetzkoa ez. Gizonezkoa da oinarri eta ardatza, emakumea gehitzen den apaingarria.

e. “Emakumea eta...” izenburuak

Emakumea eta literatura perpausak izan ditzakeen esanahi desberdinei buruzko gogoeta eginez hasten da Virginia Woolf-en *A Room of One's Own* saiakera. Gai horri buruz idatz zezala eskatuta, zeri buruz idatzi behar ote zuen asmatu ezinda geratu zela aitortzen du. Emakumei buruz idatzitako literatura izan daitekeelako, edo emakumeek idatzitakoa edo literatura eta emakumeak nolakoak diren.

Joera handia dago komunikabideetan emakumeek egin duten zerbaiti buruz idazterakoan “Emakumea eta...” izenburua jartzeko. Bi ondorio kaskar ditu hori egiteak:

- Titularrek, izenburuek ondoren garatuko den testuaren mamia jaso behar dute, irakurleak irakurtzen segitzea interesatzen zaion edo ez jakin dezan. Honelako titular batek, ordea, ez du inolako informazioarik ematen ondoren irakurri behar duzunari buruz. Ez dakizu ekintza horretan eragile edo hartzaile izango den, zein ikuspuntutatik landuko den gaia edo gai horren zein atali buruz aritu behar duten.
- Ohiko artikulu eta erreportajeetan ez da zehazten zein sexuri buruzkoa izango den, nahiz eta ia beti gizonen ikuspuntua baino agertu ez. Ardatza diren gizonetzkoengan oinarrituta egon arren ez dago zehaztu beharrik, gizonetzko izatea ez delako apartekotzat jotzen, eta gizonetzkoak emakumezkoak ere ordezkatzeko dituela onartzen delako. Gizonak talde osoaren ordezkari diren ideia bultzatzen da.

“Emakumea eta...” idaztean, emakumeez bakarrik arituko direla abisatzen diote irakurleari, “besteari” buruzko informazioa izango dela ondorengo lehenengo irakurriko duena. Garrantzia ez zaio gaiari berari ematen, baizik eta protagonistak emakumeak izateari. Bost axola gaia, ikuspuntua edo emaitzak. Berdin zaio kirola den, kultura edo ekonomia den; emakumeak direla da axola duena, eta horrek erabat baldintzatuko du irakurlea. Abisua dela esango nuke, irakurtzen hasi eta artikulua inor ezustean harrapa ez dezan.

f. Han-hemenka azaldu diren perlak

- *Elhuyar*, 2002ko abendua: Emakumezkoen esku-hartzea zientzian.
- *Euskaldunon Egunkaria*, 2002-12-28: Robert Laxalt idazle euskaldunari buruzko erreportaje batean haren ondorengotzat har daitezkeen hiru idazleren aipamena egiten da (Frank Bergon: Mendebaldeko idazlea, Gregory Martin: Gaztetasunaren indarra, Monique Laxalt: Aitaren alaba). Monique Laxaltek idazle bezala duen ezaugarri nabarmenena ez da nongoa den, ezta bere gaztetasuna ere, baizik eta gizon batekiko duen harremana, aitarekiko duen lotura. Horrek egiten du idazle, eta ez bere idazkera edo estiloak. Gizon batek definitzen du Monique Laxalt, bera bakarrik nahikoa ez subjektu edo idazle autonomo bihurtzeko eta gizon baten laguntza behar du kazetariaren iritziz.
- *Argia*, 2000-03-5, “Emakumearen lan gogorra eta nekeza Euskal Herrian”: Emakumeok egindako lanari buruz aritzean zilegi bada sexua zehaztea, ez al lukete esan beharko “Gizonaren lan...” gizonak bakarrik egindako lanei buruz idazten dutenean? Gizonarena zehaztu beharrik ez badago, zer dela eta zehaztu behar dugu emakumeak egindako lana dela?
- *Argia*, 2004-07-25. Azala: “Euskal espioiak”. 1942an sortu zen euskal zerbitzu sekretu independentea, emakumeek pisu handia izan dute espioitzan, euskara kode sekretua izan da etsaia nahasteko. Euskal espioiak izenburuak gizon eta emakumeak, biak hartzen ditu. Zertara dator azpitituluetan emakumeak bereziki aipatzea? Euskal espioiak esatean, kazetariak gizonenak bakarrik ditu buruan, horregatik aipatu behar izan ditu gero. Kontuak okerrera egiten du barruko orrialdeetan. Emakumeek pisu handia izan zutela esan ondoren, artikuluan ez dira aipatu ere egiten. Euskal espioiei buruzko liburu baten autoreari egindako elkarrizketa motz batean berak hitz egiten du emakumezko lau espioiri buruz, eta duela 400 urte Felipe II.aren espioia zen Urtubia andereak bidalitako mezu baten testua bakarrik agertzen da. Beraz, garrantzitsua izan zen egin zutena, baina ez erreportajearen aipatzeko modukoa, gizonenak egin zutena garrantzitsuagoa izan zen nonbait, kazetariaren iritziz.
- *Baleike*, 2003ko iraila. Azala: “Zumaiarrak 36ko gerran”. Garai gogorak herritar askorentzat. Zumaiarrak hitzak Zumaiako gizon-emakumeak hartzen ditu bere horretan, baina erreportajea irakurri ondoren, gizonenak parte-hartzea nolako izan zen baino ez dutela kontatzen ohartzen da irakurlea. Emakumei sekulakoak egin zizkietela aipatzen da (zutabe bateko bost lerro), eta herritik alde egin zuten gehienak emakumeak eta haurrak izan zirela dio geroxeago (zutabe bateko 12 lerro). Lau orrialdeko erreportajearen beste guztia gizonen buruzkoa da, baita aparteko bi koadroetan agertzen diren izenak ere. Erreportajearen ondoren Euskal Itsas Armadan ibili zen Erramun Manterolari egiten diote elkarrizketa. Artikulu ondo aztertuta ez al litzateke egokiagoa “Zumaiako gizonak 36ko gerran” titulua?

3. Bukaerakoa

Etorkizunari begira jarrita ez dago itxaropentsu izateko motibo handirik. Generoaren gaia garrantzitsua dela aitortu arren, ez dago generoari buruzko koderik, zer nolako trataera eman beharko litzaiokeen argitzen duen ikerketa ez ikerketa talderik, eta euskarazko prentsan ez dirudi aparteko ondorezik sortzen dutenik gai honen inguruan dau den gabeziek. Beraz, badirudi, ez epe motz ez epe luzean, ez dugula aldaketarik ikusiko. Bilgune feministak atera behar duen estilo liburuak ekar lezake argi izpi bat, baina hori ere ikusteko dago. Bien bitartean, ez litzateke pauso makala izango hurrengo batean atal bat eskaintzea gai honi lanaren barruan, edo hizlari guztiei eskatzea genero ikuspegia kontuan izan dezatela euren hitzaldietan.

a. ZIENTZIAREN DIBULGAZIOAK BA AL DU TOKIRIK EUSKARAZKO KAZETARIKTZAN?

Beñar Kortabarría
Elhuyar aldizkariko kazetaria

Erantzuna zalantzarik gabe eman behar da: bai, noski! Jakina, presentzia ez da handi-handia, kirolak edo politikak dutenarekin, adibidez, konparatzerik ez dago. Baina zientziaren dibulgazioak euskarazko komunikabideetan duen tokia txikia izan arren, ezin ukatu tokitxoa baduela.

2003ko azaroaren 1etik 2004ko apirilaren 30era bitartean, hau da, 6 hilabetez. Elhuyar Fundazioaren lan-talde batek Euskadiko Autonomia Erkidegoan argitaratzen diren bost egunkaritan (*Berría*, *Deia*, *Diario Vasco*, *El Correo Español* eta *Gara*), agertutako zientzia- eta teknologia-albisteak, erreportajeak eta abar aztertu zituen.

Argitaratutako artikuluen kalitatea alde batera utzi eta soilik kopuruei begiratu gero, zera ondorioztatzen zen: egunkari haien orrialdeen %1 zientzia-albistei eskaini zitzaien. 100 orrialdetik bat zientzia eta teknologiarantzat. Ez da asko, baina ezer baino gehiago!

%1 horri erreparatuta, beste datu bat: horietatik guztietatik %38 pasatxo argiratu ziren euskaraz. Eraitza hori *Berría* egunkariaren ekarpenaren ondorioa izan zen, noski, euskaraz bakarrik argitaratzen baitu; ahaztu gabe zientziari espazio berezia gordetzen diola egunero, Gaiak atalean, nahiz eta hor argitaratzen diren guztiak ez izan zientzia- eta teknologia-gaiak. Eta beste datu bat ikerketa haren inguruan: aztertu ziren egunkari guztiak argitaratu zuten zientzia-albisteren bat euskaraz, *El Correo Español* egunkariak izan ezik. Beraz, zientzia-artikuluen kasuan behintzat, ohore egiten dio *El Correo Español*ek bere izenari.

Azterketa egin zen garaian, EAEko egunkariak baino ez ziren aztertu. Irratiak, agerkari digitalak, aldizkari espezializatuak, eta telebista ez ziren kontuan hartu. Eta hor, badira, zientziaren eta teknologiaren dibulgazioa euskaraz egiten duen hainbat jende eta hainbat komunikabide.

Arlo horretan ezinbestekoa gertatzen da Elhuyar Fundazioaren ekarpena aipatzea: hilabetekari bat + prentsa-kolaborazioak (*7k*, *Gara*), hiru webguneren kudeaketa (*Zientzia.net*, *Basque Research*, *Zernola*), irri-saio mardul finkatu bat (*Norteko*, 9 urte) gehi txiki bat (quark) eta hainbat kolaborazio, eta telebista-saio bat (6 urte eginda)... edukita, Elhuyar Fundazioa Euskal Herriko komunikazio-multimedia handienetakoen multzoan lasai sar daiteke.

Eta kontuan hartzen bada Elhuyar ez dela hori egiten duen bakarra, badirudi zientziaren eta teknologiaren dibulgazioak baduela tokia euskarazko kazetaritzan. Txikia, akaso, kazetaritzaren beste espezialitate batzuekin konparatu gero, baina tokia eta garrantzia baditu. Zergatik euskarazko kazetaritzan ez da zientziaren eta teknologiaren dibulgazioa aintzakotzat hartzen? Tamainagatik? Lehen emandako datuekin badirudi ezin dela hori erantzuna izan, produktu eta jende dezente biltzen dituen arloa baita zientziaren dibulgazioarena.

Gaiari bueltak eman eta bueltak emanda, erantzun bakarra aurkitu dugu: ez dute uste zientziaren eta teknologiaren dibulgazioa kazetaritza denik. Izan ere, argi geratu da euskarazkoa badela, baina kazetaritza...

Eta zergatik ez? Lan-prozedurengatik? Ez dirudi, guk egiten ditugunak: gaia aukeratu, informazioa bilatu, deiak egin, kontrastatu, gidoiak landu, argazkiak atera, grabatu, idatzi, mikroetatik adierazi... kazetaritza ohiko urratsak baitira. Generoarengatik ere ez da izango. Iritzi artikuluak ez ezik, gainerakoak bezala, berriak -labur eta luzeak-, erreportajeak, elkarrizketak... lantzen baititugu, guztiak kazetaritzaren ohiko generoak.

Euskarriena ere, bistan dagoenez, ezin da aitzakia izan, paperetik, irrati zein telebista uhinetatik, eta mundu zibernetiko eta birtual horretatik ere helarazten baitira zientziaren eta teknologiaren albisteak.

Gaia izango da? Gaiak izan behar du!! Ezinezkoa da hori, gaur egungo komunikabideetan kazetaritza zientifikoaren errealitatea baita: klonazioa, minbizia, Marte, galipota, erraustegiak, behi-eroak, malariaren aurkako txertoak, denetarik egiten duten telefono mugikorrek, Nobel eta Ignobel Sariak... aktualitateaz apur bat arduratzen diren komunikabide guztietan agertzen baitira. Badirudi, gainera, gizartean gero eta interes eta kezka biziagoz jasotzen diren gaiak direla.

Beraz, gaia ez bada, gaiaren tratamenduak izan behar du, zientzia-kazetaritza ganoraz egiteko zailtasunak. Izan ere, helburu didaktikoak alde batera utzita, zientziaren dibulgazioak, -edo kazetaritzak, gustuen arabera-baditu kazetaritzaren gainerako alorrek ez dituzten ezaugarriak. Gehienetan kazetariak zailtasunarekin parekatzen dituzten ezaugarriak dira.

Aipagarrienak, honako hauek:

- Lehengai bera, erabat landutako produktua izaten baita.
- Ezagutza, sarritan ezagutzaren muga-mugan lan egin behar da, eta, horrelakoetan behar-beharrezkoa da idazlearen birziklatzea.
- Zehaztasuna, interesgarritasuna eta erakargarritasuna arriskuan jartzen dituen ezaugarria.
- Abstrakzio-maila.

Badirudi, beraz, mezu zientifikoa kazetaritza egiturara egokitzeko prozesuan edo arazoetan egon daitekeela, kazetaritza zientifikoa kazetaritzatzat (A ze hitza!!!) ez hartzeko. Kakatiaren jarrera dirudi horrek, zailtasun horiek direnak direla badagoelako hori guztia kazetaritzaren estilora eta formatura egokitzerik.

Hasteko, gaur egungo bideak ez dira lehen aipatu dugun lehengaitik abiatzen, iturriak ez dira, normalean, originalak izaten. Hau da: oso gutxitan jotzen da zuzenean ikerketa egin den tokira edo egin duten pertsona edo taldeengana. Gehienetan argitalpen espezializatuak izaten dira iturria. *Science* edo *Nature*, aldizkariak, adibidez, erreferentzia ezinbestekoa dira komunikabideetan zientzia- eta teknologia-gaiez arduratzen direnentzat.

Argitalpen horietan, jatorrizko artikulu zientifikoez gain, laburpenak eta komentarioak aurkitzen dira, eta kazetaritza-moldeetan jarrita, gainera. Hortik edaten dute komunikabide askok, edozein berri-agentziatik edan daitekeen bezala. Batetik eta bestetik komunikabide generalistetarako jauzia egiteko zailtasunik ez du izan behar apur bat trebatutako kazetariak.

Gainerakoetan, prentsaurrekoak, prentsa-oharrak, adierazpenak... izaten dira zientzia eta teknologia berrien iturri. Beste edozein gaitan bezala, mezua nahiko landuta iristen da horrelakoetan. Informazioaren jatorrira joateko erraztasunak ematen dira, informazioa sortu dutenengan iristeko...

Beraz, hor, kazetaritza zientifikoa kazetaritzaren edozein alorretan bezala egin daiteke lan, eta egiten da -zorionez ala zoritxarrez?-. Ordenagailuaren aurrean, aulkitik mugitu gabe lan egiten duten kazetarien zerrendara gehitzeko inolako eragozpenik ez dute zientziaren dibulgazioan dihardutenetako askok. Hor aurki dezakete informazio guztia. Mezu zail, zehatz eta hotzak, mezu bero, interesgarri eta erakargarri bihurtzea izan behar da beraien lana, eta baita zientzia kazetaritzaren helburua ere.

Horretara iristeko, idazteko teknika bereziak erabili beharko dituzte:

1. Zientzialarien jerga gerturatzea:

- a. Ezikusien estrategiak: hitz oso espezializatuak aipatu gabe, beharrezkoak ez direnean. (titularretan adibidez, oso maiz egiten da)
- b. Definizio-estrategiak erabili, terminologia espezializatu berehala azalduz.
- c. Ordezkapen-estrategiak erabili, terminologia espezializatu ordezkatuta. (metaforak, konparazioak, kontrasteak, analogiak...).

2. Esaldien egitura apur bat landuta, erritmoa hautsi gabe.

- a. Parentesiak, perifrasiak... kontzeptuak azaltzeko.
- b. Esaldien ordenarekin jokatu.

3. Gidoiaren egitura ezberdinak.

- a. Indukzio-egiturak: kasu partikularretatik abiatuta. (ohikoena dibulgazioan).
- b. Dedukzio-egiturak: kasu orokorretatik abiatuta.
- c. Narrazio-baliabideak erabili: Zientzia-testuak azalpen-testuak dira: argitasuna, ulergarritasuna eta koherentzia dute oinarrian; berdin dio testua itsusia izateak, zehaztasunez informatzea da gakoa. Komunikabideetan hori astakeria litzateke, mezuaren sinpletasuna eta idazkeraren aberastasuna bilatu behar dira: anekdotak, humanizazio, ona-txarra planteamenduak, umorea...

Enfin, gure iritiz zientziaren eta teknologiaren dibulgazioak baduela tokia euskarazko kazetaritzan, dibulgaileek komunikazio-lana egiten baitute, kazetariak bezala: mezua jaso, ulergarri bihurtu eta helarazi. Eta dei egiozue nahi bezala, zientzia kazetaritza, zientziaren dibulgazioa, jakintzaren jakinarazpen eguneratua edo dena delakoa, baina, jakinda gainerakoek bezainbeste garrantzi eta aktualitate duela.

a. EUSEBIO ERKIAGA, *BANKUKO*¹ EUSKAL KAZETARIA

Jotxo Larrañaga
EHUko irakaslea

1. Sarrera

Badira euskal kazetaritzaren zabalgunean halako toki ezezagunak denboran atzera urrutiegi joan gabe. Horietako bati argi egiteko asmoarekin idatzi ditugu ondorengo orrialdeak, Francoren zentsura giroan murgilduz. Hirurogeita hamaseiko hamarkadan zehar egingo dugu bidea.

Jakin badakigu 36ko gerrak lan asko eta ekinaldi ugari jarraipenik gabe utzi zituela. Kazetaritzan ere bai. 1937ko urtarriletik ekainera artean *Eguna* egunkariarekin gertatutakoa adibide. Baina bizirik iraun zutenen arteko batzuk lanean aritu ziren kazetari gerraostean ere, oso bestelako lanak egiten. Lekeitioko Eusebio Erkiaga idazlearen kasua dugu honakoa. Lehendabiziko euskarazko egunkarian, Manu Ziarsoloren zuzendaritzapean eta Zubikarai eta Arizmendarreta erredaktore kideekin ibilitakoa, 27 urte geroago kazetari lanean ikusiko dugu berriro Eusebio Erkiaga toki eta informazio mota ezberdinean: *Banco de Vizcayako Boletín Informativo de la Revista Financieraren* arduradun 1964tik 1970era bitartean. Kontuan hartzekoa banketxeko Kontabilitate Sailean ziharduela -karreraz Perito Komertziala- Bilbon bizi zen lekeitiarra. Kazetaritza ekonomikoaren nortasuna du *Boletínak*, Ruiz de Gaunak definitzen duen bezala². Hortik begiratuta, badu interesik, Banco de Vizcayak sei urtean zehar euskarazko *Boletina* atezuela jakiteak, 1964tik 1970era bitartean.

Eskaermentuko kazetaria dugu Eusebio Erkiaga. Gerra aurretik *Euzkadi* egunkarian edota *Bizkaitarra* aldizkarian eta, lehen aipatuta bezala, *Egunan* aritu zelako besteak beste. Joseba Agirreazkuenagak dio Zubikarai eta Erkiagaren artean, elkarrekin egindako lana handia izan zela *Eguna* egunkarian egin zutena, hogeitahogei bost urte bitarteko gazteak izanik gaueko orduak ailegatzen omen zitzaizkien gerrako gudarientzat informazio iturrien euskarara itzulpenak egiten³. Ea berrogeita hamar urte zituela, antzeko lana egingo du *Vizcayako Bankuaren Boletina* idazteko ardura hartzen duenean. Itzulpenari helduko dio oraingoan ere.

Iñaki Sarriugartek eta Andres Urrutiak, Jon Kortazarrek bezala⁴ prosa lanen barnean aipatu egiten dute Erkiaga kazetariak egindako gerra ondoko lana *Banco de Vizcayako Boletinean*. Andres Urrutiaren edizio lanak, gainera, berarekin diren berriak eta artikuluak dakartza, euskeraz eta ingelesez idatzitakoak. Baina kazetari arloan sartzen dituen idazkien artean ez du Urrutiak *Boletinean* egindakorik kontuan hartzen, apartekoa egiten dio sei urteko lanari. Erkiaga hil ondorengo egunkarietako kronikalariek antzera jokatzen dute, ez dute kazetari lanetan ia aipatu ere egiten Erkiagak *Boletinean* utzitako emaitza. Neu ez naiz aparte uztekoaren aldekoa. Kazetari informazioa dagoenik ezin ukatuko zaio *Boletinari*, hainbat herritako berriemaileen idazkiak argitaratzen baitira. Izenburuak ere ez du zalantzaren aukerarik eskaintzen. Iñaki Sarriugartek ere batu egiten ditu lan biak, *Egunan* egindakoa eta *Boletinean* egindakoa atal berdinean: “Eusebio Erkiaga, kazetari”⁵.

Aztertutakoak aztertuta, badira galdera batzuk erantzuteke daudenak *Boletinaren* inguruan, ea nola zitekeen 1964an euskaraz egindako argitalpena ateratzea Banco de Vizcayaren babesarekin Francoren zentsura aparatua,

Torreldaik dioen modura⁶, indartsu zegoenean. Eusebio Erkiagak berak emango dizkigu argibideak⁷ Españaiko Bankuan berretsi ditugunak. Zenbait puntu halere, argitu barik gelditu dira gaur gaurkoz zentsura kontuan, Españaiko Bankuaren Artxibo Historikoak dokumentu gehiago zabaltzen ez dituen heinean⁸.

Badakigu nori zuzenduta zegoen *Boletina*, Vizcayako Bankuak Idahora eta Ipar Amerikara joandako bizkaitarrentzat idatzitako paperak ziren, dudarik ez dago hor. Zentsuraren galbahea zergatik pasatu zuen jakiteko erantzuna ere hortik letorkiguke beharbada. Kanpora atera izana argitalpena banketxeko barruko bezeroen artean banandu gabe, ez Bizkaian ezta Espainian ere. Gainerakoan, Erkiagak nolako berripapera egin zuen jakiteko grina aseko dugu apur bat ondorengo orrialdeotan.

2. Bankuaren Buletina eta zentsura

Ez da erraza onartzea, gaur begiratuta, *Vizcayako Bankuaren Boletina* euskaraz egite hutsa alde batetik eta zentsura pasatzea ondoren. Bankuan euskararen girorik ez zegoenean, Erkiagaren lanari meritua aitortuko diogu. Hala egiten dio Augustin Zubikaraik ere: “Hemengo banketxeetan inork euskararik ezertarako ez zerabilenean, Ameriketako euskaldunei euskarazko buletinak egin eta igortzen zizkien Erkiagak lan egiten zuen banketxetik”⁹.

Joan Mari Torreldaik ondo baino hobeto azaldu dizkigu zentsuraren gorabeherak euskal liburuak direla-eta, 1938ko Prentsa Legetik hasi, 1966ko Fragararen Legea deiturikotik pasatu eta Konstituzioak 1978tik aurrera utzitako hondarrak ikuskatzerainokoak¹⁰.

Liburu politikoaren zentsura bera ez zuten pasatzen, ordea, ekonomia gaia jorratzen zuten agiriak. Beste bidea egiten zuten. Ekonomia gaia izan edota (Erkiagaren *Boletina* adibide) Bankuren batek argitaratu ezker, kasu haueetan, Hazienda Ministerioak zuen ardura banketxetako argitalpenen zentsura eta kontrola egiteko. Ez ziren Hezkuntza Popularraren Idazkaritzatik eta gero Informazio Ministerioaren galbahetik pasatzen.

Zentsuraren Zerbitzua egiten zuen organoa “Banku eta Burtsarako Zuzendaritza Nagusia” izenekoa zen eta helbide horretara idazten zuen Vizcayako Bankuak zerbait argitaratu nahi zuen bakoitzean, baimen bila. Ekonomia gaietako zentsuran, beraz, aipatutako Zerbitzuak hartzen zuen kargu, garai hartarako korrespondentziak argi erakusten duenez¹¹.

Vizcayako Bankuak 1932tik argitaratzen zuen prestigio handiko aldizkariaren zenbaki bakoitza, *Revista Financiera* izena zeukana, banan bana kaleratu aurretik bidaltzen zen Bilbotik Madrilera, Lealtad kalean lehendabiziko zenbakian zegoen Haziendako Ministeriora, aldizkariaren testuen galeradak, ea ziren argitaratzeko baimena eskatuz. 1962an Españaiko Bankuak hartuko du bere gain zentsura lan hori “Banca Privada. Publicidad” izeneko Saila horretarako sortu ondoren.

Zenbaterainoko zentsura egiten zen argitzeko, Españaiko Bankuaren Artxibo Historikoan jasotako pare bat adibide ekarriko ditut orain oharretako argitalpenik txikiena kanporatzeko ere Vizcayako Bankuak baimena eskatzen zuelako Madrilgo Banka eta Burtsako Zuzendaritzara, Hazienda Ministerioan zegoen Zentsura Zerbitzura. Lehengo adibidean baimena ematen zuen erantzuna dakargu, Vizcayako Bankuak Madrilen Agentzia berria zabaltzen zuela-eta, bezeroei eta jendeari igorri zion eskutitzari balekoa emanez.

“Respuesta de salida desde el servicio de censura autorizando la publicidad de una carta dirigida al público en general dándole cuenta de la apertura en Madrid de la Agencia Urbana sita en la calle Bravo Murillo nº 120, Cuatro Caminos Petición realizada por Luis Roy, Director Gerente de la subcentral de Madrid del Banco de Vizcaya al Director General del Servicio de Censura. Fecha de salida: 10 de junio de 1949 Negociado de procedencia: Servicio de Censura (Orden Ministerial 4 mayo 1949)”¹².

Hurrengoa kuriozosa da benetan, astero Bankuak bezero berezientzat argitaratzen zuen ekonomia eta ostintzeko hainbat datu, baita itsasoko mareak ezagutzeko taula deiturikoa ere. 1952. urtekoari ematen zion baimena. Uztailaren 22an du erantzun hartuaren eguna:

“22 julio 1952. Agendas que habitualmente reparte el Banco a su clientela en sus dos modelos de “Datos Utiles” y “Tabla de Mareas” año 1952. La “Tabla” amablemente facilitada por la Junta de Obras del Puerto de Bilbao”¹³.

*Buletin*arekin zerikusi zuzena duelako dakargu orain 1951ko apirilaren 13ko eguna daraman karta bat. Bilbotik Madrilera bidali zirela esanez Revista Financiera aldizkariaren bi ale, argitaratu aurretik, zensura pasa zezaten.

“13 abril 1951. “Tenemos el honor de acusar recibo de la atenta comunicación de ese Centro Directivo de fecha 14 del corriente mes de Marzo, por la que nos comunican haber sido aprobado el texto del número extraordinario que la “Revista Financiera” del Banco de Vizcaya, ha dedicado como homenaje a la Economía vizcaína con motivo de la celebración del quincuagésimo aniversario de la fundación de este Banco. Cumpliendo lo ordenado en la citada comunicación, tenemos el honor de elevar a V.I. Dos ejemplares de la citada publicación. Dios guarde a V.I. muchos años. Bilbao para Madrid, al Señor Director General de Banca y Bolsa. Madrid”¹⁴.

Aurreko urteetako edozein argitalpenen zentsura badirudi berdin egiten jarraitu zuela baina Españaiko Bankua 1962an nazionalizatu zenean, eskumen gehiago zituen erakundera pasatu zen banketxeetako publizitatearen zentsura eta kontrolatzeko administratza aparatua. *Revista Financierak* erakunde bietako zentsura pasatu bazuen, *Boletinak* bigarrena izan zuen zentsura eta kontrolerako bidea. Eusebio Erkiagak, ondo asko zekien hori, aitortu egiten baitu berak, euskaratik gaztelaniara nola pasatzen zituen testu guztiak, Españaiko Bankuaren zentsurarako lana erraztearren. Eranskin modura azaltzen dugun orrialdean Erkiagak Azkue Bibliotekari utzitako *Boletinaren* bilduma osoari itsatsitako orrialdea ezin garbiagoa da esan duguna ziurtatzeko. Erkiagak berak aipatzen du orrialde horretan, Tomas Bordegarai jauna izan zela *Boletinaren* benetako suspergarria. Tomas Bordegarai Gernikako Banco de Vizcayako Zuzendaria izana eta *Boletinaren* garaian Bankuaren Consejero Delegado. Ez zen edozein, beraz. Badugu hemen beste arrazoi bat pentsatzeko harreman pertsonal hauen bidez zentsuraren bideak ere erraztu egingo zitzaizkiola Erkiagaren *Boletinari*, gaztelaniara itzulpen lana egin beharra izan arren zenbaki bakoitzean.

Bi aldizkari ziren beraz, nahiz *Boletina Revistaren* gehigarri modura azaldu izenburuari dagokionez behintzat. Bat kanpora begira zegoen idatzita, Ipar Amerikako irakurleak zituen. Bigarrenak barruan zituen irakurleak eta bezeroak. Gaiak ere zerikusirik ez zuten eta bakoitzak bere bidea egin zuen, zeina Zentsura Zerbitzuari dagokionez *Revistaren* berri jakin eta *Boletinaren* aztarnarik ez izan, hori da begirada batera konpreni ezina. Euskarazko materiala zela jakinda gainera, orduan eta ulergaitzago egiten zaigu Españaiko Bankuaren Artxibo Historikoan inongo aipamenik ez ikustea. Torrealderen esanetan, erabilitako euskara motak ere zentsuraren bideak gogortu edo leundu egiten omen zituen. Hala nola, euskara batuak mutur batean edota Sabino Arana Goirenen euskara motak beste ertzean ez ziren Zentsura Zerbitzuan zihardutenen gustuko Frankoren administrazioak “euskara herrikoa” nahi izaten zutelako. Bi euskara bereizten ditu frankismoak: bata “espainola”, eta “separatista” bestea. Lehenengoa herritarra da, tradizionala, benetakoa, ahozko tradizioetik hurbil dago, bertsolariena da. Euskara garbia eta gardenia (*puro y limpio*) da hau, neologismoz eta separatismoz kutsatu gabea. Bigarrena, aldiz, artifiziala da, Arana Goirik asmatua... Ortografia ere berria da “separatista” (sic). Zentsoreen txostenetan behin eta berriz agertuko dira balorazio mota hauek: euskara “separatista”, euskara “espainola”... Azken honi deitzen diote jatorra. “Sano regionalismo”aren hizkuntza litzateke¹⁵.

Erabilitako gaiak ere frankismoarentzat ezin dira denak euskaraz adierazi. Erlijiosoak edota folklore-etnikoak bai, horiek euskaraz adierazteko gaiak dira. Osterantzean “en la lengua nacional” idatzi behar dira, zentsoreen aburuz. Torrealdaik dio frankismoak ez diola estatus kulturalik onartzen euskarari, bakarrik gai apaletarako lagatzen diolako lekua.

La Voz de España Donostiako egunkariko artikulu esanguratsu bat dakar Torrealdaik hizkuntzaren pentsamoldea adierazteko. Honela dio pasarte batean:

“Por esa razón, el separatismo forjó otro idioma. Empeñado en buscar hechos diferenciales, al no encontrarlos, los inventó. No le servía para sus fines ni el árbol de Guernica, que es el símbolo de la vinculación a España de Vasconia, ni el vascuence que hablaban caseros y pescadores. (Erkiagaren *Boletina* irakurtzen zutenak artzainak ziren, baserritarak)”¹⁶.

Aditu guztien arabera, Eusebio Erkiagak euskara herrikoia egiteko helburu garbia izan zuen beti, Aranaren neologismoetatik urrunduz kazetari euskara erabili nahi zuelako batik bat. Kontuan izan Ipar Amerikako euskaldunak alfabetatu gabeak zirela (hizkuntza honetan behinik behin) ta derrigorrezkoa zuela Erkiagak euskara zuzena eta ahozkotasunean oinarritua erabiltzea. Javier Díaz Nocik dioenez, Erkiaga Azkueren euskara eredutik gertuago zegoen Aranarengandik baino, nahiz eta Euzkadin eta Bizkaitarran Aranaren jarraitzaile sutsuaren menpean aritu lanean, sortu berria zen Euskaltzaindiaren arauak onartzen ez zituen *Kirikiñ*orekin hain zuzen. Gainera, *Egunan* kide zituenak Bizkai-Gipuzkoako mugakoak ziren Joseba Agirreazkuenagak¹⁷ azpimarkatzen duen modura. (Lekeitio, Ondarroa, Mutriku, Markina) eta baita gipuzkoarrak ere euskara batuaren aldera jotzen zutenak, *Argia* aldizkariaren eskolako eredia jarraituz beti ere¹⁸.

3. Bezero amerikauarentzat egindako *Boletina*

Lehenengo zenbakitik, hasiera-hasieratik garbi azaltzen da Banco de Vizcayak Bizkaitik Idahora Ipar Amerikako estatura joandako artzain eta senitartekoak bezero bezela ikusten zituela, eta bezero izaten jarrai zezaten nahi zuela. Banketxea komunikazio sistema egokia izan zitekeela konturatu zen eta behar hori betetzera etorri zen *Boletina*. Editorial tipografiarekin azaltzen den gaztelaniazko testua “saludo” izenburuarekin dator. Horixe da Bankuaren intentzioa eta asmoak azaltzen dituen *Boletinaren* sarrera. Hortxe azaltzen zein helburukin jaiotzen den *Boletina* eta nori zuzendua.

“El cada día mayor número de clientes de este Banco de Vizcaya que, dejando sus pueblos de origen, va a establecerse en el extranjero, nos ha movido a preparar una publicación que nos permita seguir manteniendo con cada uno de ellos un diálogo que la distancia no puede ni tiene por qué interrumpir, cuando posiblemente más lo necesitan y desean quienes se hallan alejados de sus familiares y amigos”¹⁹.

Jarrai dezagun *saludo*arekin: “A nuestros clientes de España nos dirigimos periódicamente por medio de nuestra *Revista Financiera*²⁰. Desde ahora, los que se encuentren en el extranjero recibirán gratuitamente el Boletín de esta misma Revista, en el que recogeremos noticias y temas que resulten de interés para ellos y les permitan seguir de cerca cuanto de importancia vaya sucediendo en sus comarcas de origen”²¹.

Irakurleen eskutitzak jasotzea da baita boletinaren helburuetako bat. Zuzeneko harremana lortu nahi du itxas bestaldeko bezeroekin bankuetxeak:

“Tenemos además vivo interés en que nuestro Boletín adquiera el vigor y tono de un diálogo amistoso, por lo que en él recogeremos las noticias que nos envíen sus lectores, así como cuantas sugerencias nos trasladen y tiendan a convertir nuestra publicación en un instrumento informativo del agrado de todos”.

Nahiko garbi azalduta dago agurrean buletinaren zeregina komunikazio tresnatzat erabiltzea dela. Zuzeneko harremana eduki nahi du buletinaren editatzaileak irakurle-bezeroekin eta horretarako, eskutitzen txokoa erabiltzen du kontsultategi modura, esango genuke.

Iñaki Sarriguartek euskaldunen herriminen asegarri gertatu zela dio Idahora joandako jendearentzat *Boletina*: “Bizkaiko Bankuaren *Boletina*. Erderaz “Boletín informativo del Banco de Vizcaya” delakoa, 60-70 hamarkadetan erbestean egoan makina bat euskaldunen herriminen asegarri gertatuko zen ezpairik barik. Aldizkaritxu hau euskera hutsez argitaratzen zan, zuzendaria E. Erkiaga zalarik; (...) euskaldunen kanporako grina moteldu ala, aldizkaria ere beherantz joan jakun²². Bada esker onak emateko kartarik idazten duenik buletinean, euskarazko zenbait hitz ez ulertu arren ere, gogoz hartzen dutela adieraziz. Eskutitzak idazteko ohitura hartuz gero, B.B. izenarekin izenpezen duenak, broman dio gainera “Ia, mutillak orain amerikanoak ango (hemengoengatik) euskaldunei euskeraz erakutsiko ete deutsagu, ba!”²³ Hara kartaegileak dioena: Baita nai neukioz eskerrak emon Banco de Vizcaya'ri be gugaz gogoraturik, Ameriketako zokondo onetaraño, bialtzen asi yakun Boletin Informativo izeneko albistari barri orregaitik. Artzen ditugu bai Euskal-erriko izparringi batzuk noizik beiñera, (*La Gaceta* eta *El Correo* izango ziren seguraski) baiña au geure euskera gozoan dator, eta pozkari aundikoa da geuretzat. Iñok ez daki zenbat buru-auste izaten dogun geure artian, itz batzuk ulertu eziñik. Batak ezpada bestiak antz emoten deuto ezagutzen ez ditugun itz barri batzuen esangurari, ta orretara, denporea emoten dogu. Au aundiagoa da: orain-arte iñoiz euskeraz eskutiz bat idatzi ez daben mutil asko dago gure artian, eta orain gure aldrako guztiak euskeraz kartak egiten asi gara etxietara, neska-lagunei, ta abar. Lengo baten gure arteriko batek esan eban auxe: Ia mutillak, orain amerikanoak ango euskalduneri euskeraz erakutsiko ete deutsegu, ba!”

4. *Boletinaren* atalak

Saludoan erabiliko diren gaiak nondik nora joango diren adierazteko, honako erreferentzia dator: “Los deportes rurales y la pelota; los temas de caserío, etc., etc., ocuparán lugares destacados en nuestra publicación y serán desarrollados por prestigiosos especialistas de cada materia”

Gaztelaniazko *saludotik* pasa gaitezen orain *agurra* ikustera, lehendabiziko alearen azala utzi gabe eta lehen-gu haritik jarraituz. Banco de Vizcayako Ipar Amerikako bezero ugari Idahoko estatuan bizi dela, eta handik albisteak idatzi eta zuzenduko dituen Santos Rekalde abadea dela, eta berari igorri behar zaizkiola gutunak; hori nabarmentzen dena lehendabizi:

“Ipar Ameriketako euskaldun maitioi, neure agurrik beroena! Banko de Vizcaya' k, hainbeste ardura aundiz eta maitasunez, gaurtik aurrera, noizian, noizian, bialduko dautzue albistari au. Albistari onen bitartez, Euzkal-erriko barriak elduko yatzuez.

Ni be or izango naz zeuekin albistari orretan. Eurak lurreko gauzai eragingo dautse, nik lurreko ta zerukoai”²⁴ (Santos Rekalde Box 2618, Boise. Idaho).

Boletinak dioenez, artzainen karta ugari jasotzen zuten Bilbo erredakzioan eta 1965eko otsaileko zenbakian ohar agiri modura ipini zuten azalean, artzainei Don Santosengana zuzentzeko erreguz:

“Karta guzti oneik ondo artuak izan dira gure aldetik eta erantzuna ta tratu bardiña izan dabe guztiak. Euren ardura ta erabagiak artzeko gu geu ain jakitun ez gagozan ezker, gure eretxia ta esana ezin guztizkoak izan, eta orregaitik, guk, don Santos Rekalde-gana joateko esan deutsegu danai, euren kejak eta euren eskubideak abade jaun orrek zelanbaitean atonduko ditualako. (...) Joan zaitze beragana, esan zeuen ardurak, zeuen esturak, zeuen eskabide ta premiñak(...)”²⁵.

Eta barruko orrialdeak osatzeko honako gaiok sartzen dira alerik ale: Euskalerriko jokoak (herri-kirolak esanda ulertuko ginatete). Gero pilota albisteak dakartzta pelotazaleek geroago ta gehiago izenburuarekin. Horren ondo-

ren, ez ale guztietan, baina ia beti, beste kirolak izenburuarekin. (futbola eta txirrindularitza gehienbat). Beste euskaldun atal bat bertsoaritzaren gainean: bertsolariak. Itsasoaren alde bietako albisteek toki propioa dute buletinean; Bizkai aldeko albistak izenez, alde honetakoak ematen dira eta Idahoko albistak edota Ameriketako euskaldunen albistak izenez berriz, handik idatzitakoak. Idaho aipatu dugu, lehenengo aleak hango albisteekin datozelako, baina Australiakoak ere azaltzen hasten dira (kanguroaren marrazkiarekin) 1965eko uztailetik aurrera, 9. zenbakitik aurrera.

Eusebio Erkiagak zuzentzen zuen buletinak bazuen (Austrialiako albisteekin bezala) alde honetatik idazten ziren beste albiste multzo bat Bizkaikoak ez zirenak. Nafarroatik bidaltzen hasi ziren Baztan bailarako berriak, Mariano Izetak idatzitakoak. *Buletinaren* 14. zenbakitik aurrera (1966ko iraila) irakurriko ditugu Baztango albisteak, Nafarroako berriak izenburuarekin.

Kasu honetan ere, Banco de Vizcayak Iruñean zabaldu duen sukurtsalaren berri ematen zaigu eta Ameriketara dauden artzain nafarrekin lotura izan nahia azaltzen da espresuki buletinean. Hasieran, Elizondon Banco de Vizcayak dituen sukurtsalak adieraziz, eta Iruñekoak ondoren. Albisteak, horregatik ez dira Baztangoak bakarrik ematen, Iruñerri eta Sakana aldekoak ere:

“Ameriketara dauden artzain nafarrak biali bezazgikute albiste ta berriak guri xuxenean eta pozik agertuko ditugu hemen, bizkaitar artzaiñenak egiten ditugun bezala. Hain zuzen, oraintxe Iruñe zaharrea, Plaza delCastillo, 43 gn. Lehenago ba ditugu gure abar-etxeak Elizondon, Beran, Lesakan eta Donezteben.” (Boletín informativo de la *Revista financiera del Banco de Vizcaya* Bilbao nº 15, octubre 1965).

Sailen errepasso hau amaitzeko, eskutitzen txokoa aipatuko dugu. Beste sailek, bakoitzak bere pisua dauka, eta orrialde gehiago edo gutxiago hartzen dutenak dira, baina eskutitzen sail honek, *Vargas* erantzun-tokia izena duenak, garrantzi berezia dauka orrialde hauetan aztertu nahi duguna hor islatzen delako batik bat, Banco de Vizcaya eta atzerriko bezeroen arteko harremana azaltzen delako.

Begirada batean, herrietako albisteak eta kirol informazioa ikusita, Banco de Vizcaya editatzaile izan gabe, beste edozein elkarte zibilek edo Elizak atera zezakeen horrelako buletina. Herrietako kronikaz betetako buletina. Baina *Vargas* erantzun-tokia sailak informazio orokorrak gain, badu nortasunik, Banco de Vizcayari buletina (euskaraz) ateratzeko aitzakia ematen diona.

Txanpon kontuetan Boiseko bizkaitarrek zituzten kezkei erantzuteko tresna aproposa zela esan behar eta horretarako jarrita zegoela ere aitortu behar dugu. Banketxeak bezeroari etekina ateratzeko bide egokia, alajaina.

Egia da, arestian aipatu bezala, Dos Santosen txokoa ere amerikar ikusmiratik begiratuta, artzainen diru arazoak eta lanbide arazoak azaltzen direla. Sail biak, horrela osagarritzat jotzen ditugu. Hara eskutitzen ondoren, buletinaren hirugarren zenbakian azaltzen duena zuzendaritzak:

“Ameriketara zagozenok zerbaitik onetariko gauzetan jakin nai badozue, idatzi bildu barik zuzenbide onegaz: Sr. Vargas. Dep. C. Producción, Banco de Vizcaya. Gran Vía, 1, Bilbao edo bestela idatzi: Rv Fr. Santos Recalde. Box 115 Rupert, Idaho. USA eta Dn. Santosek bialduko ditu eskutiz orreik Bilbora. Vargas Erantzule”.

Vargas jaunak eskatuta, ohar agiri bat jarri zuten buletinean, galdera-gaien arabera Boisera bidaltzeko edota Bilbora. Hara zer argi adierazten duen iragarkiak:

“Vargas jaunaren aginduz, onako jakingarri au jarten dogu emen: Sinismenari edota laneko kontratuen legeai dagokiezan zerak kontsultetako, eskariak onaxe bialdu egizuez: Don Santos Recalde. Box 115,

Rupert, Idaho. Baiña, Banku-arazoak eta norberaren ta norbere etxekoei dagokiezanak, Españían eragabi leitekezanak, beste leku onetara bialdu: Banco de Vizcaya Departamento Central de Producción. Gran Vía, 35, Bilbao²⁶.

Horietaz gain, buletinak beste toki batzuk ditu bezeroarekin harreman hori lortzeko, hala nola iragarkiak eta harpidetza deiak besteak beste. Horixe dela medio gataz ondorengo lerrootan esandako sailetan murgiltzera.

Bitxikerien artean bat aukeratu dut aipatzeko amaitu aurretik. Enpresako irudia sendotuz, indar sinboliko berezia duen argazki-albista daukagu 26. zenbakiko, azken orrialdean (agosto 69). Banco de Vizcayak urte horretan inauguratu edo estreinatu zuen Gran Víako egoitza berri bezain handia. Honela dio argazkiaren gaineko lerroak: “Bilbon ere, baditugu etxe tantaiak. Garbi dago Ameriketako etxe altuekin konparatu nahi izan dutela buletineko kideek, Bilbokoa ez dela txiki geratzen adierazi nahiez edo. Argazki oinak haxe dio: “Bere lantegi nagusia izan dedin, auxe da Banco de Vizcaya gureak aurtan estreñau dauan Etxea, 20 goimillakoa.” Ale honen bigarren orrialdean, berriz, irakurleek azaltzen zuten kezka dator, *Buletina* azkenak jotzen ari zen luzapenen aurrean: “Zenkaki au noiz agertuko ete dan lagun askok itandu deusku, eta horrek, arrera ta txera ona izaten dauala gure Boletin honek adierazten deusku. Orregaitik, leen baizen joran eta ardura aundiz, edota aundiagoaz jarraitu gura geunke aurreantzean, eta oraingoa lako luizapiderik ez daitela gerta²⁷”.

5. Ondorioak

Renoko Euskal Ikasketen Zentroan nabarmen ikusi nuen orain urte bi Vizcayako Bankuak Idahora joandako artzain bizkaitarrei bidaltzen zien *Boletina* euskal diasporaren informazio iturri egokia zela, eta Basques Studies Centreko liburutegian ez egotea *Boletinaren* bildumarik hutsune handia zela konturatu nintzen. Bilduma digitalizatu eska-tzen zuen Marc Ugalde liburuzaina izandakoak Renon. Artikulu honen ondorio gisa azaldu nahi dut Marcen eska-erari zentzuzko eskaera deritzodala. Euskaltzaindiako Azkue Bibliotekan eta Labayru Ikastegian dituzte bilduma bana, eta digitalizazio lana eginda edukitzea komeni zaie baita ere, arduradunen arabera.

Alde praktikotik urrunduz zera azpimarkatuko nuke ondorio gisa, Eusebio Erkiagaren lanak uste ezinezko emaitza eman zuela, Vizcayako Bankuaren izenean euskarazko *Boletina* argitaratzea ez baita, orain ere, ahuntzaren gauerdiko eztula. Gutxiago Zentsura gogor zegoen garaian. Tomas Bordegarai izan zuen itzal eta babes Erkiagak Boletina kale-ratzeko, ez da dudarik. Aukeratzen ziren gaiak ere lagundu egingo zuten Madrilen oniritzia emateko orduan. Herriko euskararen eginga, Oiz mendi inguruetako baserriar amerikanoei jaioterriko albistak eskaintzeak, pilota jokoak, idi probak eta jendearen bizimoduaren berri emateak bazuen eraginik garaiko politikaren muga estuetatik urruntzeko gai xume eta apalen bidez. Erljio kontuak ez ziren aparte izaten *Boletinean*, Idahoko informaziobide eta iturri nagusia Santos Rekalde abadea izanik. Denak beharko zituen Erkiagak Madrilén zentsura pasatzeko eta euskarazko Boletina- ren zirrikituak zabaltzeko, aurretik jabetuta edukiak inondik ere ez zuela erregimena arriskuan jarriko.

Egunan egindako lanaren espiritua berpiztu egiten da berriro Erkiagarengan eta bere esku hartzen du euskaraz alfabetatu gabe dauden bankuaren bezero amerikanoei gertuko informazioa bideratzea. Ia bere eskuetan bakarrik zegoela kontuan hartuta, merezimendu handiko lana egin zuela aitortzea tokatzen da orain. Idahora lehendabizi eta Australiara gero, Nafarroatik eta Bizkaiko bere jaioterriko inguruetatik joandakoei informazioa zabaltzeak ez du merezi lekeitiar idazle eta kazetariak izan duen isiltasuna. Artikulu hau izan bedi aurrerantzean ikerketa handiogo- ak egiteko bide eta lehen urrats. Gerraosteko euskal kazetaritzaren emaitza hobeto ezagutu daigun.

Oharrak

1. *Boletín Informativo de la Revista Financiera del Banco de Vizcaya*, Idahoko euskal diasporaren *Boletina* (1964-1970).
2. Ruiz de Gauna, Adolfo (1991): *Catálogo de publicaciones periódicas vascas de los siglos XIX y XX*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza-Gobierno Vasco. Ruiz de Gaunak 27 ale aipatzen ditu baina 28 dira, Erkiaga berak esaten duen modura Euskaltzaindiko Bibliotekara emaniko Boletinaren sorta osoa-ri itsatsitako orrian. Eskutitzean aipatu bezala, Labayru Ikastegira bidali zuen bigarren bilduma osoa. Arantzazuko liburutegian hiru ale solte daude 1965 eta 66koak. Ortiz de Gaunari jarraituz, Madrilgo Hemeroteca Nazionalen eta Biblioteca Nazionalean daude beste zenbait ale eta Bizkaiko Diputazioak gordetzen du bilduma. Renoko Euskal Ikasketa Zentruko liburutegian ere, baina liburuzain izanak Marc Ugaldek aitortu zidan orain urte bi, etzutela bildumarik.
3. Agirreazkuenaga, Joseba (1990): *Eguna*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza-Gobierno Vasco
4. Sarriugarte, Iñaki (1985): *Eusebio Erkiaga. Batetik bestera*. Bilbo: Labayru Ikastegia. Urrutia, Andres (2003): *Idatzlauaren berbakulunkan*. Bilbo:Labayru Ikastegia. Kortazar, Jon. (1997): *Eusebio Erkiaga*. Vitoria-Gasteiz:Eusko Jaurlaritza. Kultura Saila, Bidegileak Sorta 8 zenbakia.
5. Sarriugarte, Iñaki (1985): *Eusebio Erkiaga. Batetik bestera*. Bilbo: Labayru Ikastegia 13. or.
6. Torrealdai Joan Mari (2000): *Artaziak. Euskal liburuak eta Francoren zentsura 1936-1983*. Iruinea:Susa.
7. Azkue Bibliotekara eginiko *Boletineko* 28 zenbakien sortari itsatsitako orrialdean Eusebio Erkiaga berak ematen dizkigu erabat garrantzitsuak zaizkigun datuak, *Egunaren* inguruan berak idatziko artikulua gerra aurreko egunkarian lankontuaz esaten dituen bezala. Biak zaizkigu beharrezkoak.
8. Españaiko Bankuaren Artxibo Historikoaren araudiek 40 urte inguruko epea dute jarrita barneko agiri eta dokumentuak ikerlarien esku jartzeko, agirian ikus eta azter dezaten. Epe horren muga dago 1964ean sortutako Erkiagaren *Boletina* eta denbora hobeagoen zai gelditu beharko azterketa zabalagoa egiteko.
9. *Euskaldunon Egunkaria*. 1993ko ekainak 2 (24 or.)
10. Torrealdai Joan Mari (2000): *Artaziak. Euskal liburuak eta Francoren zentsura 1936-1983*. Iruinea, Susa.
11. Españaiko Bankuaren Artxibo Historikoak gordetzen ditu 36-130, 186, 188 eta 189 legajo edo paper-sortetan bankuetako zuzendarien baimena eskatzen zuten eskutitzak jaso eta Zentsura Zerbitzuak baiezkota ematen zieten erantzunak gordeta. Horien artean *Revista Financiera* aldizkariaren argitaratu aurreko aleen materiala. *Revista Financieraren* gehigarri modura plazaratu zenik ez dakigu

Erkiagaren *Boletina*, izenak horrela baldin badio ere (Boletín Informativo de la Revista Financiera del Banco de Vizcaya), ez dugu aipamenik ere ikusi *Boletinarenik*.

12. Españaiko Bankuaren Artxibo Historikoa. Banca Privada Saila. 188 paper-sorta.

13. Ibid.

14. Ibid.

15. Torrealdaik Joan Mari (2000): *Artaziak. Euskal liburuak eta Francoren zentsura 1936-1983*. Iruinea:Susa 82-83 orr.

16. Torrealdaik jasotzen du 1937.04.13 ko *La Voz de España* Donostiako egunkaririk.

17. Agirreazkuenaga, Joseba (1989): “Prentsa euskaraz: 1936.eko Gudaldian eta Lehen Euskal Gobernuaren garaian” *Jakin* 50 zenbakia. Donostia, 95-119 or.

18. Diaz Noci, Javier (1994): “Gerra aurreko euskal kazetaritza eta hizkuntza-ereduak” Anuario del Seminario Julio de Urquijo. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia, 791-835 or.

19. *Saludo. Boletín informativo de la Revista financiera del Banco de Vizcaya* Bilbao nº 1, enero 1964, 1. or. Iñaki Sarriugartek dioenez, bi mila ale ataratzen ziren zenbaki bakoitzeko, Australian eta Estatu Batuetan banatzen zena.

20. *Revista Financiera* zen Banco de Vizcaya-k bezeroekin harremanetan jartzeko zeukan aldizkaririk garrantzitsuen eta horren babesean (bakoitza aparte, bere edizio propioarekin) banatzen zen eta doan euskarazko boletina.

21. *Saludo. Boletín informativo de la Revista financiera del Banco de Vizcaya* Bilbao nº 1, enero 1964, 1. or.

22. *Erkiaga, Eusebio. Batetik bestera. Moldakuntza eta aurkezlanak*: Iñaki Sarriugarte, Bilbo: Labayru Ikastegia 1985, 13 orr

23. *Vargas* erantzun-tokia. Boletín informativo de la Revista financiera del Banco de Vizcaya Bilbao nº 3, mayo 1964, azken orrialdea.

24. *Agurra. Boletín informativo de la Revista financiera del Banco de Vizcaya* Bilbao nº 1, enero 1964, 1. or. (*Boletinak* abade lana egiten lagunduko diola, ez da dudarik).

25. *Vargas* erantzun-tokia. Boletín informativo de la Revista financiera del Banco de Vizcaya Bilbao nº 7, febrero 1964, lehenbiziko orrialdea.

26. Boletín informativo de la Revista financiera del Banco de Vizcaya Bilbao nº 9, Julio 1965, azken orrialdea (letra etzanaz dator irakargia boletinean).

27. Boletín informativo de la Revista financiera del Banco de Vizcaya Bilbao nº 26, agosto 1969, 2. or.

3. BIDEAK ERAIKITZEKO AHALEGINEAN

- a.** Euskararen aldeko komunikabideak edo euskarazko komunikabideak:
Administrazioaren ikuspegiaren aldaketa
- b.** Gizarte ekimena euskarazko komunikazio-esparruan
- c.** Arrosa: irratien elkarlanerako sortua
- d.** Hedabide txikien dibertsifikazioa

a. ADMINISTRAZIOAREN IKUSPEGIAREN ALDAKETA

Gotzon Lobera
Bizkaiko Foru Aldundiko
Euskara Sustatzeko Zuzendari Nagusia

Eskatu zidatenean lan honetan parte hartzeko, oso gai polit eta erakargarria jarri zidaten mintzagai: “Euskararen komunikazio-eremuaren sustapena Administrazioaren aldetik”. Betiere, izenburuari arreta handiagoa jarri nionean, konturatu nintzen oso muga labanak zituela gaiak, ezik itaun batzuk erantzun barik ezinezko suertatzen zen gaiari behar zen moduan oratzea.

Horretara, eta euskararen aldetik, genitibo edutezkoa mugatzeari funtsezko iritzi nion, eta ‘euskararen’ lekuan, ‘euskararen aldeko’ eta ‘euskarazko’ izenlagunak jarri nituen. Dudarik ez dago, izan litezke euskara hutsez diharduten komunikabideak, eta hala jardun behar dutenak, baina izan litezke, eta badira, tokian tokiko egoera sozio-linguistikoaren arabera, gaztelaniarekin edo frantsesarekin batera euskara neurri txikiagoan erabiltzen duten komunikabideak, eta euskararen sustapenaren ikuspegitik egundoko garrantzia dutenak, horretara jardun ezik, euskara toki horietako etxeetan sartzea bestela ezinezko gertatuko litzateke eta. (Izan ere, 1982ko Euskararen Legeak agindu eman zion Eusko Jaurlaritzari, RTVEN euskara gero eta gehiago erabiltzeko. Hau, denbora garrenean, zaharkitu egin da bilakaera politikoaren puruz).

Aurrekoarekin lotuta bada beste ñabardura bat, nahitaez egin beharrekoa: ‘euskararen aldeko’ izenlagunak eman du gure hizkuntza bultzatzeko lana dela arlo horretan nagusitu nahi dena; ostera, ‘euskarazko’ izenlagunak ‘komunikabide’ izenari beste kutsu bat eransten dio, baina beste maila batekoa: helburua komunikabidea bera da, hori bai, komunikatzeko hizkuntza euskara delarik.

Bigarrenik, ikuspegi juridiko-administratibotik, beste ñabardura bat egin behar zela begitandu zitzaidan, eta geure erakunde-bilbaduraren aldetik moldatu; izan ere, zein Administrazioaren gainean mintzatzen ari gara? Eusko Jaurlaritzaren gainean? Foru administrazioari gagozkio?, ala Udal administrazioa dugu hizpide? Bide batez, beste itaun hau dut zuei egiteko: zuetarik inork erabili ditu buruan, ‘Administrazio’ berba entzun duenean, Espainiar administrazioa edo Europar Batasuna? Bada, horiek ere buruan izan behar ditugu, arazo honetaz denaz bezainbatean, badutelako izan eragina, batez ere, arloaren esparruaren gainean dihardugarik.

Aurrekoaz gain, ‘Administrazio’ berba darabilgula, eta administrazio jakin bati buruz dirautsagula, adibidez, Eusko Jaurlaritza gogoan dugula, Administrazio horren zein atal dugu buruan? Euskararen sustapenari beren beregi ekiten dion atalari buruz ari gara? Izan ere, hemen datza lan honen ardatz nagusietako bat: Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saileko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza eta gainerako administrazioetako haren kideak ditugu gogoan?, ala Eusko Jaurlaritzaren Industria Saila eta gainerako administrazioetako haren parekoak ditugu gogoan? Zer landu nahi dugu: euskararen sustapena bakarrik?, ala euskarazko komunikabideak industri arlo legez? Gai honi ere erantzuna emango diot hitzaldi honetan zehar.

Hirugarrenik, beste itaun bat sorrarazi zidan jarri zidaten gaiak, ezik ‘komunikabide’ berba entzuten dugunean, ezin ditugu komunikabide guztiak osotasun legez hartu, ezinezkoa baita osotasun legez hartzea, estrategiaren ikus-

pegitik, bederen, Internet bidezko euskarria duten komunikabideak, telebista, irratia eta prentsa idatzia, are gutxia-
go, ezin daitezke osotasun legez har aberri mailako komunikabideak, lurralde mailakoak eta tokian tokikoak.

Hori guztia gogoan hartuta, eta osagai guztiak batera erabilia, “Euskararen aldeko komunikabideak edo euskarazko komunikabideak: Administrazioaren ikuspegiaren aldaketa” izenburua ipini diot lan honi, betiere, esan behar dizuet osagai horiek guztiek elkarri eragiten diotela, eta oso zaila dela, nire ustez, bata gogoan izan barik, besteak jorratzea.

1. Euskararen aldeko komunikabideak ala euskarazko komunikabideak?

1.1. Komunikabideen barruko osagaiak

Egundoko garrantzia du galdera honi ematen zaion erantzunak, horrek eragingo baitio komunikabideak berak hartu behar duen bideari, eta erantzun horrek ere eragina izango duelako Administrazioak komunikabide jakin bati buruz hartu behar duen jarreran. Horretara, bada, baldin eta euskararen aldeko komunikabideez ari bagara, gogoa izan behar dugu, berez, etekinik zertan ekarri ez duen jarduera baten gainean dihardugula, horrek dakartzan ondorio guztiekin, haien helburu nagusia, lehen esan dudan legez, euskararen erabilera dela. Ostera, buruan euskarazko komunikabideak badarabiltzagu, orduan, industri arlo baten gainean ari gara, enpresa ikuspegi zehatza izan behar duena, bai kudeaketaren aldetik, bai galera-irabazien aldetik, bai langileen ikuspegitik, bai diru-sarrera eta gastuen eretzean, bai bideragarritasunaren inguruan.

Hau da, ezin daiteke ikuspegi ongilea izan proiektuaren eretzean, eta proiektu horrek dakarren ahalegina edozein enpresa arruntetan bezain handia edo berau baino handiagoa izatea. Egin-eginean ere, horrek desoreka itzelak ekar ditzake proiektuarentzat, eta, geroenean, proiektuak berak porrot egin dezake, ikuspegiaren arteko desoreka hori dela karia. Hori ez ezik, Administrazioaren ikuspegia eta jarrera ere aldatzeko modukoak izan daitezke aurreko ikuspegi horren arabera.

Esan nahi dudana azaltzeko, adibide bat ipiniko dut, nahiko adierazgarria baita. Bizkaiko Foru Aldundiak 2004. urtean prentsa idatziko komunikabideentzat eta aldizkari digitalentzat egindako deialdiaren barruko aurrekontuak 1 340 738.92 eurokoak izan dira guztira, eta kopuru horretatik ia %55 egon zaio beste gastu batzuen atalari, hau da, inprimatzeari, zabalkundeari... Orduan, adibide hau gogoan hartzen badugu, eta administrazio guztietan euskararen sustapena eginkizun duten atal eta organo guztiek euskararen aldeko komunikabide legez hartu behar badituzte hauek, diru-laguntza ezartzeko unean, argitalpenak berak dituen gastu guztiak hartu beharko lirake kontuan, bai langileria, jardunbide eta inbertsioak, bai inprimatze, zabalkunde eta enparauak, izakunde horiek ez baitira enpresa-egitura bati dagozkionak. Aldiz, euskarazko hedabide legez hartzen badira komunikabideok, orduan, eta lehen aipatu ditudan atal eta organoen ikuspegitik, kopuru osoa hartu beharrean, langileria eta jardunbide gastuei dagozkien kopuruak hartu beharko lirake oinarri legez, diru-laguntzak ezartzeko unean. Egia esan, gaur egungo praktikak ez ditu bereizten batzuk eta besteak, eta izaera oso ezberdinak dituzten izakundeak zaku berean sartzen dituzte euskal administrazioek. Jardun-ildo honek bere horretan zenbat iraungo duen ez dakit, baina, epe luzera begira, ez dut uste sistema iraunkorra denik. Ideia honen asmoa ez da Administrazioak diru-laguntza gutxiago ematea euskarazko hedabideei, ezpada euskal hedabideek, enpresa diren neurrian, beste edozein enpresak dituen baliabide berdinak izatea, alegia, administrazio bakoitzeko industria sailen bitartez.

1.2. Komunikabideon izakunde argitaratzailearen izaera

Horrek guztiak badakar beste gogoeta garrantzitsu bat: ba al du zerikusirik komunikabideok argitaratzen dituen izakundearen izaerak hedabideon eguneango jarduerarekin? Baietz uste dut. Horretara, bada, eta tokian tokiko hedabideak adibide-gai ditudala, ezin dira multzo berean sartu irabazteko asmoarekin sortu den enpresa eta irabazteko

asmorik ez duen elkartea. Ezin dira parekatu, euren indarrak erabat ezberdinak direlako, eta batzuek eta besteek eskaintzen dituzten ekoizkinak ezberdinak direlako; modu horretara, ikus dezakegu, baditugula egunkariak, aste-kariak, hamaboskariak, hilabetekariak, ahaldutenkariak... batzuk doakoak, besteak ordainpekoak.

Garbi dago, ahaldutenkariak gaur egun ia-ia galdu direla, eta hala diot, ezik artean bada horrelako bat edo beste. Dena dela, beste guztiak ezin dira modu berean erabili, eta bakoitzari eskatu behar zaizkion betekizunek bakoitzaren edukoak izan behar dute, bai finantzamenduaren aldetik, bai langileriaren lan-baldintzen ikuspegitik, bai kontabilitatearen eretzean eta abar.

Beste alde batetik, euskarazko prentsa idatziaren ikuspegitik, baditugu enpresataldeak ere, eta horrek beste neurri bat dakar arlo honetara. Izan ere, zein da 9 milioi euro baino gehiagoko aurrekontua darabilen enpresa-taldearen eta 1.2 milioi euroko aurrekontua dakarren enpresaren arteko aldea, diru-kopuruarena bakarrik?, edo bada beste aldagairen bat, neurri bakoitzak maila ezberdina dakarrenik? Ni bigarren iritzikoa naiz. Edo zein alde dago 9 milioi euro baino gehiagoko aurrekontua darabilen enpresa-taldearen eta 4.22 milioi euroko aurrekontua dakarten Euskadiko (Iparraldeko eta Hegoaldeko) tokian tokiko aldizkari guztien artean? Ez da kopuruaren aldetiko aldea bakarrik, nire ustez.

‘Euskararen aldeko komunikabide’ eta ‘euskarazko komunikabide’ adigaiak ez dira burutazio huts, hain zuzen ere, errealitateak ematen dituen jakingarrietan dautza adigai horien ezaugarri bereziak. Horretara, bada, ‘euskararen aldeko komunikabideak’ dira langileria eta jardunbidearen ziozko gastuak batuta euren gastu osoaren %40/45 inguru dituztenak, sarritan langileriaren aldetik kosturik ez dagoela, aldizkari-egileek eurek auzolanean ateratzen baitute hori. ‘Euskarazko komunikabide’ deritzet, ostera, euren langileriaren ziozko gastuak bakarrik aurrekontu osoaren %50etik gorakoak dituztenei, bai eta langileriaren eta jardunbidearen ziozko gastuak, baturik, kopuru horretatik gora dituztenei ere; profesionalizazio joera argi ageri da horrelako hedabideetan.

Beti ere, izakunde argitaratzailearen izaerak badu eraginik prentsa idatziaz harantzago. Hala, bada, jardun dezadan telebistaren eta irratien gainean. Tokian tokiko telebistetan orain arte egin den ahaleginaren edukoa izan ote da lortu den etekina? Askozaz eragingarriagoa izango litzateke, telebisten arloari dagokionez, talde indartsua egitea Euskadin, eta beraren bitartez telebisten inguruan egiten den politika bateratu. Irudia ipintzearen, erdarazko komunikabideak nazioartekoak dira, eta euskarazko telebistak, tokian-tokian diharduten moduan, ematen du, txokozaleak direla. Borroka horretan, beti izango dute galtzekoa euskarazko hedabideek.

Une honetan hainbat udalek ikusi dute euren udalerriko telebista bat izatea interesgarria izan daitekeela euren jardunbidea azaltzeko udalerriko biztanleei, edo halako telebista sortu dute Administrazioetik kanpoko eraginez. Eredu hori galkorra da epe luzera begira, udal baten aurrekontuan horrek dakarren pisua urtean baino urtean handiagoa baita. Azkenean, udalak ezin badio eutsi eredu horri, itxiko al dira tokian tokiko telebistak, negozio legez erata ez badaude? Bizkaian, esate baterako, une honetan indarrak handiena duten tokian tokiko telebistak dira hedapen-esparru Bilboaldea, Eskuinaldea, Ezkerraldea eta Bizkai osoa dutenak, eurentarik batek ere ez dihardu euskaraz bakarrik, eta eurak guztiak enpresa pribatuen eskuetan daude, alegia, merkataritzako izakundearen eskuetan.

Horregatik guztiarengatik, euskara hedabide ardatz duten tokian tokiko telebistak izan behar baditugu, guardasol zabal eta sarria eskain dezakeen erakundea bakarrik da lan hori egin dezakeena, berak bakarrik baititu behar adinako giza baliabideak, diru baliabideak eta harreman-sareak, erronka horri behar den moduan erantzuteko.

Irratiez direnez bezainbatean, kezka bat azaldu nahiko nuke beren beregi, ezik Euskadin, betidanik izan diren euskal irratiezin gainera, azken urteetan bereziki, udalen lizentziapeko beste irratia batzuk azaldu dira, lehendik zeuden euskal irratien lehiakide eginaz, gainera. Azkenean, udal irratia, izaera publikoa dutenak, bihurtu dira betidaniko euskal irratien lehiakide. Hori ez da ona euskarazko komunikabideentzat, batez ere, diru-iturriak toki beretik datozenean. Ez ote litzateke, kasuotan, askozaz eragingarriagoa izango lehendik dauden irratia horiei irozo eta eus-

tea, beraien lehiakide bihurtu beharrean? Argi izan behar dugu kontu bat: esparru geografiko jakin baten, euskarazko irratia badago, eta, harekin batera, erdarazko beste irrati batzuk badira, euskarazko beste irrati batek ez lieke kalterik ekarriko azkenoi, ezpada euskarazkoari, publizitatearen eretzean, eta, geroenean, bideragarritasun ekonomiko eta teknikoaren inguruan. Ikuspegi horretatik, gogoeta sakona egin beharra dago, ezik, aurreko kasuan legez, geure diru baliabideak, giza baliabideak, eskuarte materialak eta harreman-sareak urriak dira, eta askoz eragin handiagoa ekarriko luke talde indartsu batek lan koordinatua bideratzeak.

2. Administrazioaren arloa

2.1. Lege-esparrua euskararen aldeko eta euskarazko komunikabideen inguruan

2.1.1. Euskal Autonomia Erkidegoa

Administrazioaren arloari dagokionez, bost administrazio mailak zerikusia dutenez gero arlo honetan, zeinek bere eskumen esparruan, lehenengo eta behin, hedabideen arazoa araupetzen duen azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legea, euskararen erabilpena arautzen duena, izan behar dugu gogoan. Betiere, lege honek, hiritarren eskubideen gainean dihardu, eta ikuspegi hori ezin da begien bistatik galdu. Labur bada ere, uste dut, komeni dela lege honek hedabideen inguruan dioena gogoratzea. Horretara, bada, zioen azalpenean honelaxe ageri da lege honen helburua: “Euskara, gure Elkartearen nortasunaren erakusgarri nabarmenena eta behinena eta, ezagutzaren eta erabileraren bidez, gizabanakoak Elkartean erabat bertakotzeko bidea dela aitortzea”. Hori ez ezik, legearen zioen azalpenak berak beste baieztapen garrantzitsu bat egiten du, legearen eskubideak eta betebeharrak zehatz-mehatz banatuz. Horrela, bada, legearen lehenengo titulua badihardu herritarrek hizkuntzaren alorrean dituzten eskubideen gainean, bai eta Euskal herri-administrazioak dituen eginbeharrez ere. Geroenean, Euskal Autonomia Erkidegoko Euskararen Legeak dioenez, norbanakoek eskubidea dute lege honetan Herri administrazioari ezartzen zaizkion eginbeharrek eskatzeko, aldi berean beraien eskubideak baitira.

Beste alde batetik, eta zioen azalpen berean esaten da legearen bigarren tituluko hirugarren kapituluaren araupe-tzen dela euskararen erabilera hedabideetan, eta, aldi berean, albisteak euskaraz jaso ahal izateko eskubidea aitortzen du. Hirugarren kapitulu honek, berriz, ezartzen du 22–25. artikuluetan, Eusko Jaurlaritzak sustatuko duela euskara gizarte hedabideetan, eta, hau garrantzitsua da, Eusko Jaurlaritzari berari eratziki zion eskumen hori, bai RTVEN (euskal aldaeran, EITB ageri zen) euskarari indar ematekoa ere. Hori ez ezik, Eusko Jaurlaritzaren gain utzi zituen irratietan, albistarietan, irudiaren eta hotsaren erreproduktzioan eta abarretan euskara sustatu eta babesteko neurriak. Beraz, ondorio hau atera behar da Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez: Eusko Jaurlaritzaren beraren eskumeneginbeharra da arlo honetan jardutea Euskal Autonomia Erkidegoan; hortaz, foru aldundiek eta udal-izakundeek hainbat urtetatik hona egiten diharduten lana halako lekuetako agintarien borondate politikoaren isla da, sekula ere ez lege-betebeharra. Hau oso gogoan hartu beharreko kontua da. Bada kontu garrantzitsu bat, lege honi dagokionez, izan ere, bigarren tituluko III. kapituluaren, 22, 23 eta 24. artikuluetan, legeak badihardu Euskal Autonomia Erkidegoko herritarrek dituzten eskubideei buruz, 25.ean, ostera, legegileak ez du lurralde-esparrua aipatzen, horren lekuan, badio Eusko Jaurlaritzak neurriak hartuko dituela euskal argitalpenak sustatu eta babesteko; horrenbestez, eginkizun-eremuaz dihardu legeak, lurralde-esparruaren muga gaindituaz. Bide horretatik, Eusko Jaurlaritzak dirulaguntzak eman ahal ditu Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko euskal argitalpenentzat, direla irratia, direla telebista, direla prentsa idatzikoak...

2.1.2. Nafarroako Foru Komunitatea

Egoera bestelakoa da Nafarroako Foru Komunitatean; egin-eginean ere, 18/1986 Foru Legea, abenduaren 15ekoa, euskarari buruzkoa, gizarte-hedabideen gainean ari da III. tituluaren, eta EAEko legean ez bezala, ez zaio eginbeharrik ezartzen hango Administrazioari, herritarrek albisteak euskaraz jaso ditzaten. Horretara, bada, Foru Legearen

27 eta 28. artikuluetan horrelako esamoldeak topa ditzakegu: "...bultzatuko dute euskararen mailaz mailako presentzia komunikabide sozial publiko eta pribatuetan", eta, horretarako, "Nafarroako Gobernuak diruz eta material- ez laguntzeko planak gauzatzeko ditu"; "Foru Komunitateak gestionatzen dituen telebista eta irrati emisora eta gainerako komunikabideetan, Nafarroako Gobernuak euskararen presentzia egokia begiratzeko du", eta Herri administrazioek "babestuko dituzte euskaraz egiten diren azalpen kultural eta artistikoak, liburu argitalpenak, ikus-entzuzko ekoizpena eta bestelako ekintzak".

Argi dago, Nafarroako Gobernuak ez duela ezein lege-betekizunik, sustapenaren inguruan; areago, ez zaie esku-biderik aitortzen nafarrei, albisteak euskaraz jasotzeko; hori ez ezik, lurralde-esparrua oso zurrin zehaztuta dago, Nafarroatik kanpora bezala Nafarroaren barruan.

2.1.3. Espainiako eta Frantziako gobernuak

Espainiako Gobernuak hizkuntzaren inguruko eskumenak Eusko Jaurlaritzari besterendu eta gero, ohiko irrati-telebisten inguruko hainbat eskumen ditu Espainiako Gobernuak bere esku, bai eta satelitezko telebisten inguruan ere. Horiek ez ezik, 2003ko abenduan, tokian tokiko telebisten gaineko kontuak arautu zituen Espainiako Gobernuak, baina honetaz geroago jardungo dut. Betiere, ez zaie arlo hau arautzen duten xedapenetatik baten ere ezein esku-biderik aitortzen euskaldunei.

Frantziako Gobernuak, berriz, ez die ezein eskubiderik aitortzen frantsesez besteko hiztunei. Hala ere, legeaz azpiko itunen bidez ebazteko ahaleginak egin dituzte hainbat erakundek eta izakundek; horretara, bada, 2000ko abenduaren 22an, frantses estatuak, Akitania eskualdeko Kontseiluak, Pirinio Atlantikoko Kontseilu Orokorrak, Baiona-Angelu-Miarritze hiri elkargoak, eta Euskal Herriko Hautetsien Biltzarrak Euskal Herriko hitzarmen berezia izenpetu zuten, eta beraiek hartu zituzten konpromisoen artean, komunikabideen eretzean, hiru aipatu nahiko nituzke: a) euskaraz diharduten hiru irratiak proiektu batean baterabiltzea eta irratitelebista publikoan euskararen erabilera sustatzea; b) *ETB* lurralde osoan baldintza egokietan hartuko dela bermatzea, eta c) Interneten euskararen erabilera bultzatzea.

Horren ondorioz, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren eta Obra-gintza Publikoko Herrialdeko Frantses Erakundearen arteko protokoloa dela bide, hizkuntza politikako gaietan lan-kidetzan aritzeko, erakunde biok engaiatu ziren, euskaraz diharduten komunikabideak suspertu eta Interneten euskararen erabilera sustatzeko. Gogora dezagun bide hau Eusko Jaurlaritzari Euskararen Legeak zabaldu ziola.

2.1.4. Europar Batasuna

Eremu hau aipatu nahi dut, azal-azaltetik ez bada ere, ezik Europar Batasunak bide bitatik eragiten die estatu guztien legeriei: alde batetik, norbanakoei eskubideak aitortuz, eta, adierazpen hori egin eta gero, estatu guztiek zaindu behar dizkiete euren herritarrei eskubideok; dena dela, zoritxarrez, Europar Batasunak ez zuen onartu hizkuntzaren ziozko bereizkeria sarterik (itxura baten, hori lortzeko, denborak luze joko du); eta, beste aldetik, estatuen arteko eta estatu ezberdinetako izakundeen arteko proiektuei diru-laguntzak emanaz.

Hori guztia esan eta gero, onartu behar dugu badugula geure erakunde-bilbadura, berezi eta, sarritan, latza dena, baina geurea. Hasieran azaldu ditudan kezken artean, bada bat, egundoko eragina dakarrena: Administrazioaren gainean dihardugula, zein Administrazioaren gainean dihardugu? Itan honen erantzuna zelakoa izan, eta halako ondoreak aterako ditugu. Horretara, Euskal administrazioak garbi izan behar du zein proiekturi buruz ari garen, horren gaineko erantzun egokia emateko. Hemen azalduko ditudan kontuak hiru izango dira: alde batetik, gaur egungo erakunde-bilbaduraren ikuspegia emango dut, eguneango jardunaren ikuspegitik, hau da, zelan jokatzen diharduten herri aginteeke une honetan; beste alde batetik, neure iritzia emango dut, etorkizunean zein bide hartu beharko litzatekeen, esparru hau antolatzeko, eta, azkenik, beste administrazioen eragina azalduko dut.

2.2. Gaur egungo erakunde-bilbudura eguneango jardunaren ikuspegitik

Eusko Jaurlaritza ari da une honetan aberri mailako proiektuekin arduratzen. Izan ere, Eusko Jaurlaritzak dituen deialdien bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoko, Nafarroako Foru Komunitateko eta Iparraldeko komunikabideek lor ditzakete laguntzak euren proiektuak aurrera ateratzeko. Eusko Jaurlaritzaren deialdiak aztertzen baditugu, ikusiko dugu zelan berak ondo bereizten dituen proiektuak, multzoka antolatuta, xede, neurri, izaera eta beste era-gile batzuen arabera.

Foru administrazioari gagozkiolarik, berriz, Foru administrazio bakoitzak egiten dituen deialdietan, lagungarri gisa laguntza ematen zaie lurraldean lurraldeko komunikabideei, eta laguntza-gaiak aldatu egiten dira lurraldetik lurraldera; batean, diru-laguntzak ematen zaizkie prentsa idatzia argitaratzen duten irabazasmorik gabeko izakundeei, beste batean, berriz, ez zaio mugarik ipintzen hedabidea argitaratzen duen izakundeari, eta laguntza-gaiak prentsa idatzitik harantzago joaten dira; eta bestean ez da horrelako laguntasunik eskaintzen. Nafarroako Foru administrazioaren jarduerak ez du horrelako proiekturik berariaz babesten, eta Iparraldean horrelako laguntasunak emateko irizpideak ez dira iraunkorrak, kasu, *Herria*.

Euskal Autonomia Erkidegoaren erakunde-bilbudura konfederala da, eta hainbat eskumen partekaturik dituzte Eusko Jaurlaritzak, foru aldundiek eta udalek; horren adierazgarri dugu 2000. urtean gertatu zena: Eusko Jaurlaritzak eta foru aldundiek berbatu zuten, euskararen inguruan emango ziren diru-laguntzak bateragarriak izango zirela, bultzada bat emateko arlo honi. Horrezaz gainera, hainbat irizpide bateratu ziren, administrazio bakoitzaren arau-esparrua zainduta, eta, azkenik, lurraldeen arteko oreka irizpidea hartu zen, beraren bidez finkatu baitzen lurralde jakin bateko proiektu jakin bat aberriarentzat interesgarritzat hartzen bazen, orduan proiektu horri eutsiko ziotela Eusko Jaurlaritzak eta lurralde hartako Foru Aldundiak. Arlo hau biribiltzeko, beste organismo bat aipatu behar da, bertan euskararen inguruko politika publikoak bateratzen baitira: HAKOBA (Herri Agintek Koordinatzeko Batzordea). Bilgune horretan, arian-arian batzarrak egiten dira Eusko Jaurlaritzako Kultura, Hezkuntza, Herri Administrazio eta Ogasun sailen, HAE Eren, foru aldundien eta Euskal Autonomia Erkidegoko hiriburuen ordezkarien artean, euskararen sustapenarekin, alderdi guztietatik, zerikusia duten politiken gainean gogoeta egin eta neurriak proposatzeko herri aginteei.

Udal administrazioa hizpide hartzen badugu, berriz, zehaztugabetasunaren esparrurik zabalenean dihardugu, zergatik eta udal administrazioen artean ez dagoelako batasunik jarduteko unean; horrela, bada, ikus dezakegu, berbarako, tokian tokiko argitalpenak dituzten udaletan, bakoitzak baduela bere jardunbidea, eta sarritan, beti ez esatearren, jardunbide horrek ez dauka zerikusirik udalerritik kanpo egiten diren planteamenduekin, gehien-gehienean, udalerrri bakoitzaren egoerari begirako erantzuna ematen du udal bakoitzak.

Arlo honen eretzean, esan behar dut, 1982ko Euskararen Legearen eraginez, urte askotan zehar ulertzen izan dela arlo hau beren beregi dagokiola Eusko Jaurlaritzari; lege-agindu hori bigundu bada ere, esan behar da, komunikabideentzako dirulaguntzak ezartzea administrazio jakin bakoitzaren arduradun politikoaren borondatean datzala, ez baita inoiz haren lege-betekizuna.

2.3. Etorkizuneko jardunbidea administrazioen ikuspegitik

Gaur egungo egiturak etorkizunean iraungo badu, hainbat aldaketa edota moldaketa egin beharko dira, erakunde-bilbadurak egoki erantzun diezaien bihar-etzi azal daitezkeen premiei. Ikuspegi horretatik, argi adierazi behar dute administrazio guztiek, norik bere eragin-esparruaren barruan, eta eragin-esparruko eragile guztiei argi eta garbi azaldu, Administrazio batek ez duela bete behar beste Administrazio batek bete beharko lukeen esparrua. Baieztapen honek, dena dela, azalpen bat behar du, bai eta ñabardura bat ere. Azalpena hau da: baldin eta udal batek ez badio laguntzarik eman nahi bere udalerriko argitalpen bati, orduan Foru Aldundi eskudunak edo Eusko Jaurlaritzak ez liokete halako argitalpenari eman behar udal eskudunak eman ez duena, horrela jokatuz gero, udalerrian udalerriri

ko argitalpenak laguntzen dituzten udalek kaltetun urtengo lukete eta; horrezaz gain, edozein udalek, ordu arte laguntasuna eman duenak, pentsa dezake, berak laguntzen ez badu, Foru Aldundiak edo Eusko Jaurlaritzak beteko luketela berak bete ez duen lana. Beraz, maila bakoitzeko erakunde eskudunak bere gain hartu behar du berari dago-kion eginkizuna. Dena den, esan dezadan, berriz ere, Euskararen Legeak derrigorra Eusko Jaurlaritzari bakarrik eratxiki ziola. Baieztapen horrek, ostera, ñabardura bat behar du. Azaldu dudan irizpide hori Euskal Autonomia Erkidegoari dagokio; egin-eginean ere, gaur egun, Euskadik duen banaketa juridiko-administratiboa dela eta, irizpide hori zurrun betez gero, Nafarroako Foru Komunitateko komunikabideek eta Iparraldekoek kalte izugarria pairatuko lukete, ziur asko, hainbatetan, erabateko eta behin betiko galera. Beraz, lurralde-esparru horiek irizpide honen ezarpen eremutik kanpo laga beharko lirateke.

Beste alde batetik, esparruari eragiteko kontuan ari garela, euskal administrazioek garbi izan behar dute, etorkizunari begira, tokian tokiko komunikabideen ugaritzeak ez dakarrela, berez, egoera osasuntsurik; areago, mugak ipini behar dituzte, proiektu osasuntsuen kalterako etor litezkeen egitasmoetarako, geroenean, batak eta besteak kaltetun urtengo dutelako. Kalitatea bermatu behar bada, euskarazko komunikabideetan, langileen egoera hartu behar da kontuan; izan ere, tokian tokiko euskarazko komunikabideak, gaur egun, Lezama beste dira kazetaritzan. Athleticek jokalaria ona lortzen duenean, berak nahi ez badu jokalaria hori galtzea, orduan kontratu ona egin beharko dio jokalaria horri, beste toki batera joan ez dadin; guztion gogoan dago zenbat esatari, kazetari, elkarrizketagile dauden kazetaritzako talde indartsuenetan, hala euskarazkoetan, nola erdarazkoetan. Gainera, kazetaritzaren arloan, maila biko harrobiak daudela esan daiteke, behetik gora hasita. Arazo honek badakar beste eginkizun bat herri administrazioentzat: tokian tokiko hedabideen mapa bat diseinatzea, irizpide jakin batzuk ezartzea, zein lekutan lagundu behar diren sortu berriak eta zeinetan ez, zeini laguntza eman eta zeini ez, eta horrek ez du esan nahi inork ezin duenik nahi duena sortu, baina euskal administrazioek argi adierazi behar dute zeintzuk diren halakoek bete behar dituzten baldintzak, herri aginteen diru-laguntzak jaso ahal izateko. Modu zehatzagoan esan nahiko nuke puntu hau: XXI. gizaldian ez da onartzeko modukoa, edonork edozer sortu, kudeaketa publikoaren ardura dutenekin ezer kontsultatu barik, eta gero horrek dakarren zama 'herri diru' en lepo gainean jarri. Egia bada, edonork eskubidea duela nahi dituen ekimen guztiak sortzeko legearen barruan, egia da, aldi berean, herri aginteez, herriaren botoek emaniko legitimazio osoarekin, eskubidea dutela euren jardunbide politikoaren nondik norakoak ezartzeko.

Aldizkarien ugaritzea argituko duen adibidea ekarri nahi dut hizpidera: Bizkaian, 2000. urtean, 8 argitalpen aurkeztu ziren diru-laguntzetara, euren aurrekontua, guztira, 363.640.92 eurokoa izan zen, eta Bizkaiko Foru Aldundiak haiei emaniko diru-laguntzak, berriz, 128.955.27 eurokoa. Handik lau urtera, hain zuzen ere, 2004. urtean, 17 argitalpen onartu dira, euren aurrekontu araziak, berriz, 1.338.738.92 eurokoak, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzak, 344.000 eurokoak. Aurrekontuen gehikuntza, lau urtetan, %268.15ekoa izan da, eta diru-laguntzena, berriz, %166.76koa. Kontuan hartzen badugu, aurrekontuak direla gizarte jakin baten aginte politikoak ezartzen dituen beharrezko premiatuenak asetzeko baliabideak, garbi izan behar dugu, ez dagoela mugarik gabeko gehikuntzarik, eta herri aginteez, politika orokorrez gainera, diru baliabideen mugak ere gogoan hartu behar dituztela, euren aurrekontuak gertatzeko. Horrexegatik da garrantzitsua, besteak beste, Administrazioaren eta eragileen arteko harremanak sarriak izatea.

Aldi berean, eta horrekin batera, euskal administrazioek beste arlo bat zaindu behar dute datozen urteetan, horretarako biderik badago behintzat, gogor eta tinko landu behar dena: luginza bakarreko arloa saihestea. Gaur egun, diru-laguntzak emateko irizpideetako bat argitalpen, irrati edo telebista bakoitzaren aurrekontua da, eta hori modu berean ezartzen zaie diru-laguntza eskuratu nahi duten izakunde guztiei.

Beraz, zenbat eta aurrekontu handiagoa izan, oro har, orduan eta diru-laguntza handiagoa jasotzeko modua izaten dute izakundeek. Gero eta behin, indartsuari laguntza gehiago ematen zaio, ahulari baino. (Hemen 'indartsu' eta 'ahul' adjektiboak darabiltzat, diru-baliabideen, giza baliabideen eta eskuarte teknikoaren ikuspegietatik, eta ez dut esan nahi proiektu 'indartsu' batek bideragarritasun hobea duenik 'ahul' batek baino). Beraz, horrek behar du, nire ustez, beste zuzengarri bat, eta maila bereko zuzengarria behar den heinean, gutxieneko finantzamenduaren

aldetiko betekizuna ere aldatu beharko litzateke kopuruen arabera, askozaz errazagoa duelako aurrekontu jakin baten ehuneko jakin bat bermatzea izakunde handi batek, enpresaegitura sendoa duenak, oso aurrekontu txikia duenak baino. Adibide batekin ulertuko delakoan nago: Bizkaian badira 111 udalerrri, horietarik 85 dira 5.000 biztanlerera heltzen ez direnak. Logikoa al da neurgailu berbera ezartzea 50.000 biztanleko udal bati eta 1.000 biztanle dituen bati? Askozaz errazagoa du lehenengoak ehuneko bat ezartzea euskararako, edo beste edozein jardueratarako, bigarrenak baino. Administrazioak garbi izan behar du, bere beharren artean errenta berriro banatzekoa dagoela, eta hori hala izaten da eremu guztietan.

Aurrekontuaz jardun dugun legez, gauza bera esan dezakegu hedabideen gastuataleki buruz, hau da, zein atali emango zaion diru-laguntza, eta zein neurriren arabera emango den halakoa. Beharrezko deritzot atalez ataleko laguntzen neurriak ipintzeari, modu horretara, laguntasunak egokiagoak izan daitezen, berbarako, langileen gastuetarako ematen diren diru-laguntzak izan beharko dira estandar jakin baten arabera, bai eta ratio jakin batzuen ginoan ere. Gauza bera aipa daiteke jardunbide gastuen gainean, eta neurri estandar batzuen araberrako diru-laguntzak eman, modu horretara, gastuaren erabilera egokiagoa bermatuko litzateke.

Inbertsioei dagokienez, alderantzizko estandarrak jarri beharko lirateke, aurrekontu txikiena duenari, diru-laguntzarik handiena emanaz, eta horrela aurrekonturik handiena duenera heldu arte. Inprimatze eta zabalkunde gastuen eretzean, berriz, merkatuko prezioen araberrako estandarrak hartu beharko lirateke kontuan, hortik gorako muga ez gaintzeko. Badakit honek ekar dezakeela zama handiagoa halako lanetan dihardutenentzat, egia da, ostera, ekoizkinaren kudeaketa hobetzeko puntua izango litzatekeela.

Badakit neurri horiek guztiek ustekabea ekar dezaketela hasieran, baina, nire irudiko, gerora begira, handiagok izango dira arloaren egonkortasuna eta eragileen erantzukizunaren bermea. Horren guztiaren ondorio hau ateratzen dut nik: Administrazioak neurri zuzengarririk ezartzen ez badu, luginza bakarra lagunduko luke, eta Administrazioak indartsuaren eta ahularren arteko tartea laburtzeko duen eginkizuna bete barik geldituko litzateke. Esan dezadan, aurrera baino lehen, orain arte, Administrazioaren ikuspegitik egin dudana azalpen osoa dagokiela euskararen aldeko komunikabideei, bestelakoa baita euskarazko komunikabideen gainean marraztuko dudana ikuspegia.

Horretara, bada, Eusko Jaurlaritza, foru aldundiak edota udalak erabili ditudanean, zuetako gehienok, ziur aski, erakunde bakoitzaren euskararen atala izan duzue gogoan. Euskarazko komunikabideak hartzen baditugu hizpide, orduan hastapenak beste bat behar du: 9 milioi euroko aurrekontua duen enpresa-taldeak egin behar duen planteamendua Industria Sailari dagokio, ez Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari, ez osorik, behinik behin. Zenbat enpresak du Euskal Autonomia Erkidegoan negozio-kopuru hori? Eta berriro diodan sarritan esan dudana: ez dugu lotsa izan behar euskararekin dirua irabazteko; hori beste hizkuntzetan gertatzen da, eta inor ez da lotsatzen, batez ere, ez dagoelako lotsatzeko ziorik.

Beraz, itaun nagusia, niretzat, hauxe izango litzateke: euskarazko komunikabide osasuntsua nahi al dugu, loka-bea dena (eta lokabetasuna finantzek ematen dute), bere kasa jarduteko arazorik ez duena, ala beti gaixorik, Jainkoaren izenean ibili behar duena nahi al dugu? Planteamendu honetan du esangura osoa izakunde bakoitzaren egiturak, esangura osoa, enpresa-ikuspegiak, esangura osoa, langileen aldetiko politikak.

Ikuspegi horretatik, ahalegin berezia egin behar dugu euskal administrazioetan ardura dugun herri kargudunok bezala arloko eragileok. Lehenengook Administrazioaren barrutik erauzi behar dugu ikusmolde jakin bat, hau da, euskara agertzen denetan, halako egitasmoak nahitaez euskararen arlora bidaltzekoa, eta hori ez da erraza, baina ikuspegi horretarantz lan egin behar da; bestetik, euskarazko hedabideetan diharduzuenok jabetu behar duzue, eta ozen aldarrikatu, zenbateko aberastasuna sortzen duen Euskadirentzat zuen eguneango lanak, eta aztertu zeintzuk izan beharko liratekeen, etorkizunari begira, zaindu eta lagundu beharko liratekeen jardun-ildoak, hau da, hitz egin behar duzue sortzen dituzuen lanpostuen gainean, zuen izakundeetan erabiltzen dituzuen teknologia berrien inguruan, Herri Ogasunari ordaintzen zaizkion zergei buruz, gizarteak berak jasotzen duen aberastasunaz... Horretara,

bada, diru-laguntzen politika aldatu behar da: alde batetik, enpresaren ikuspegitik egin beharrekoa Industria Saile-ra bideratu beharko litzateke; horrek dakarren ondorioa garbi dago: industri arloko beste edozein enpresak jasotzen dituen diru-laguntzak jasotzeko eskubide bera izan behar dute euskarazko hedabideek, eta eurek bete beharko dituzte besteek betetzen dituzten baldintza berak; horrek ekarriko luke arlo horren ikerlan sakona egitea, enpresaren bide-ragarritasuna aztertzea, langileen ratioak aztertu, langileen lanbide kategorien egokitasunari buruzko azterlana egin, eta, azkenean, epe jakin batera, enpresak bere kasa, inoren laguntasunik gabe, ibiltzeko gai izatea dakarren egoera sorraraztea. Hau da, une jakin batetik atzera, ez luke Administrazioaren dirulaguntzarik jasoko, bere kasa ibiltzeko gauza izango litzatekeelako.

Beste aldetik, halako enpresek eskubidea izango lukete, euskararen aldeko sustapen-jarduera legez, diru-laguntza jasotzeko, euskaldunen eta erdaldunen arteko bezeriaren ratio/neurriaren arabera neurri zuzengarria sartuta. Izan ere, garbi dago, erdarazko komunikabideen merkatuak biztanleen %100 hartzen duela, euskarazkoenek %35 hartzen duelarik, gutxi gorabehera. Betiere, laguntza hori osagarria izango litzateke, Industria Sailak emango lukeen nagusiarena, eta, Industria Sailak halako diru-laguntza emateari utz liezaionean, euskal bezeriaren neurri murriztagoaren eduko diru-laguntza ematen jarraitu beharko litzateke merkatua orekatu arte, lehendaurrez jarri beharko lirakeen parametroen arabera. Gainera, ikuspegi hori Euskal Administrazio Orokorrari legokioke, eta aberri mailako proiektuak eta lurraldez gaindikoak berak arautu eta kudeatu beharko lituzke.

Beste alde batetik, euskal administrazioek badute beste izari bat, sarritan ahazten duguna: zerga-neurriak ezartzeko eskumena, foru aldundiei dagokiena. Ikuspegi horretatik, foru aldundiek, eurei baitagokie eskumen hau, azertu beharko lukete zein aukera eskain diezaieketen norbanakoei eta merkataritzako izakundeei, batez ere, eurek aurkeztu behar dituzten zergen aitopenetan kenkariak egin ahal izan ditzaten, halako proiektuei laguntzak emateagatik. Honek helburu bi jadetsiko lituzke: alde batetik, euskarazko komunikabidek erakargarri bihurtzea zergadun euskaltzaleentzat, edo, beste barik, euren zergetan edo enpresarenetan hobariak lortu nahi dituztenentzat; eta, bestetik, herri aginteen bermea lortzea, edozein esparrutan, eta izakundearen bisita-txartel gisa aurkeztu ahal izatea.

2.4. Beste administrazioen eragina esparru honetan

Arlo hau, nik dakidala, ez da sekula aipatu horrelako bilgune baten, eta jakin behar dugu, ezinbestekoa baita gure arloa biribiltzeko, Espainiar administrazioak eta Europar Batasunak badutela eraginik komunikabideen esparruan.

Euskarazko hedabideetan eragin izugarria dute Espainiako Gobernuak eta Europar Batasunak. Eta alderdi horiek ezin ditugu alde batera laga, ezertarako garrantzirik ez bailuten. Horrela, bada, Espainiako Gobernuak ezartzen du arautegia, esate baterako, tokian tokiko telebisten inguruan, eta hori bete behar da estatu osoan, bai eta Euskadiko Hegoaldean ere.

Beraz, tokian tokiko lizentziak izanik ere, zelan eman behar diren, zein arautegi bete behar den eta abar, hori guztia Madrildik dator, eta gauza bera gertatzen da irratien lizentziekin. Geroago arazo honetan luzeago jardungo badut ere, kontu hau aurreratu nahi dut: gure muga guztiak gainditzen dituzten arloetan ezin dugu txokokerietan jardun, gorago begiratu behar dugu, mundu zabaletik datorkigun erauntsiak irentsiko ez bagaitu.

Beste alderdi bat Europar Batasunarena dugu. Ikus-entzunezko arloarekin zerikusi izugarria duen arloa ageri zaigu Europa 2000-2006ko egitarauan; bada, 2004. urtean badihardute lanean 2007tik atzera European izango den eremu berriaren oinarritzko irizpideak finkatzeko eztabaidan; hortik hainbat aukera etorriko zaizkigu, eremu urriko hizkuntzek erabili behar dituztenak, gainerako hizkuntza handien menpean ez itozteko.

Adibide legez, jakin behar dugu estatuz haraindiko proiektuak bultzatu behar ditugula, bestela, barbarako, frantsesa eremu urriko hizkuntza denez Italian, nahikoa da Frantziako, Italiako eta Belgikako izakunde batzuek aurre-ara proiektu bat aurkeztea, besteak atzera gelditzeko; gauza bera esan daiteke alemanaren gainean.

Beraz, hor, Eusko Jaurlaritzak zabaldu beharko luke informazio-gune bat, Europar Batasunean dabilzan proiektu guztien berri emateko, eta, geure neurrian, ahal den mailan bederen, euskal gizarte-eragileak elkarrekin eta beste estatu batzuetako eremu urriko hizkuntzetako eragileekin harremanetan jartzeko, bai eta, bidezko bada, sarrera emateko Europar Batasunari aurkez dakizkiokeen proiektuetarako.

3. Etorkizuneko estrategia bereziak azpiarloen arabera

Elkarlanaren beharrak sinergia bila aritzea dakar, esku-egitarauan ageri den legez, nolana ere den, kontu bat arazi behar da, ezeri ekin orduko: zer ulertzen dugun ‘komunikabide’ legez, berba hori entzuten dugunean; egin-eginean ere, ezin ditugu komunikabide guztiak osotasun legez hartu, ezinezkoa baita osotasun legez hartzea, estrategiaren ikuspegitik, Internet bidezko euskarria duten komunikabideak, telebista, irratia eta prentsa idatzia, are gutxiago, ezin daitezke osotasun legez har aberri mailako komunikabideak, lurralde mailakoak eta tokian tokikoak.

Horrezaz gain, bada beste aldagai garrantzitsu bat arlo honetan: teknologia berrien eragina; ikuspegi horretatik, teknologia berriak ezartzea hedabideetan ez da apeta edo nahikari kontua, ezpabere beharizan gorrikoa. Bide batez, ez genuke inbertsiorik egin beharko guretzat berria den teknologia baten, baldin eta beste herrialde batzuetan teknologia hori daborduko ordezen ari badira. Eta horren berri jakiteko, konturik berritzaileen berri izateko, egitura sendoa behar dugu, ezin dugu gure txokora begira jardun.

Ikuspegi horretatik, gaur egun estatuak eurek badute euren aginpidea mugatuta; alde horretatik, badira proiektu batzuk Europar Batasunean erabakitzen direnak, eta, beste barik, tokian-tokian ezartzen direnak; beste alde batetik, teknologia berritzaileen arloan, egia da mundu zabaleko korporazioek berealdiko eragina dutela, eta estatuak eurek, edo Europar Batasunak edo Estatu Batuek eurek sarritan ez dutela egiten kanpotik datorkiena ezarri baino. Beraz, argi izan behar dugu, egitura indartsua behar dutela euskarazko hedabideek, borroka horretan galtzaile urten gura ez badute.

Hori guztia kontuan hartuta, estrategia orokorra ezarri beharko genuke, mundu zabalean eragina duten kontuez ari garelako, eta, aldi berean, estrategia malgu edo moldabera ezarri beharko genuke, etorkizuneko erronkei behar bezala erantzuteko; izan ere, gaur etorkizuneko aurreramentua dena bihar iraganeko gomuta baino ez da. Betiere, unean-unean sortzen diren premiei erantzuna eman behar izango diegu, beraz, argi izan behar dugu, premia bakoitzari ematen zaion erantzunak izan behar duela bide luzeago eta finkoago baten barruan, ezin baitugu ontzat hartu arazo jakin biri ematen zaizkien erantzunak elkarren aurkakoak izatea; egin-eginean ere, horrek etorkizuneko bidea, zaildu ez ezik, galaraziko luke.

3.1. Internetezko komunikabideak

Guztiak sartzten dira Internet euskarri honen barruan, daborduko litekeena baita komunikabide guztiak euskarri horretan eskaintzea. Beraz, garbi izan behar dugu, mundu zabalean gaudela beste mila web-guneren ondoan, edo, zehatzago esanda, beste mila web-gune indartsuren eragin pean. Horrek garbi diosku, ez genukeela norberak nahi adina web-gune sortu beharko, ezpada bat eta indartsua; horretarako, talde indartsua egin beharko litzateke, ziur aski, eta gaur egungo ikuspegitik aztertuta, EiTBra inguratu, berarekin batera sarearen barruan behar besteko eragina izateko. Bestela, irentsiko gaituzte, eta ez gara inor izango, nahiz eta hamaika inbertsio eta ahalegin egin.

Gogoan hartu behar dugu, horrelako sistema baten bidez heldu ahal izango ginatkeela mundu zabalean sakanaturik dauden euskaldun guztiengana; horrela leku beraren bidez Aulestiko euskaldunak, Errenteriakoak, Aramaiokoak, Baztangoak, Angelukoak, Donibane Garazikoak eta Maulekoak, euren txokoaren berri ez ezik, gainera ere izango lukete, eta euskal sena eta euskaldunen arteko lotarriak estutu. Eta hori horrela bada Euskadiko sei lurraldeetan bizi garen euskaldunontzat, are garrantzitsuagoa izango da hori mundu zabalean zehar bizi diren

euskaldunentzat eta beraien ondorengoentzat. Bestela jokatzuz gero, beldur naiz, ez ote dituen marasmak amaraunean harrapaturiko eltxo guztiak irentsiko. Eltxoak, jakina, gu geu gara!

Egin-eginean ere, kontuan hartu behar dugu, amaraunean behar den moduan egoteak ez dakarrela bakarrik web-gune bat izatea, ezpada, web-gune hori behar den moduan eguneratuta izatea, hala edukien eretzean, nola teknologiaren eretzean; beste alde batetik, horrek modu erraza eskainiko luke, nork bere lekutik gauzak sartu eta web-gunean duen atala etengabe elikatzeke, jakinaren gainean dagoela teknologia berrienaren kontuak beste baten ardura-pean daudela, eta berak bestelako ahaleginik gabe haien etekina jasoko duela.

Web-gune horren barruan, euskarazko komunikabideak sartu ahal izango liriateke, eta erreferentzia gune bihurtuko litzateke amaraunean, Euskadiko sei lurraldeen eta beraren diasporaren eta beraien euskaldunen berri jakin jaso ahal izateko.

3.2. Telebistaren arloa

Esan dezadan garbi: ez dut sinesten telebistaren arloan nor bere aldetik ibil litekeenik epe luzera begira, hemen zerbait lortu nahi badugu euskarazko telebistarentzat. Orain arte ez dut esan, guztion buruan dagoelako, baina Euskadiko sei lurraldeotako euskaldunok, hau da, euskaraz egiten dugunok, ez gara heltzen Bizkaiko biztanle guztien 3/4era. Hau da, oso bezeria murrizta du halako euskarri batek, dudarik ez da, euskarrietan garestiena denak. Beraz, EITBren taldea ikusten dut egokiena legez, arlo honetan zerbait egin behar badugu. Ezin dugu ibili herrianherrian egundoko inbertsioak egiten, inbestimendu handi horien etekin-hartzaileak hain urriak diren bitartean.

Benetako talde indartsua behar dugu, EITBren ingurura bildutakoa, eta arian-arian eta, lekuan-lekuan azterlanak eginaz, egokien ikusten diren herrietan edo eskualdeetan halakoak ezartzeko, betiere, haren azpiegitura erabiliaz, eta giza baliabideetan eta diru baliabideetan egin beharreko inbertsioei ahalik eta etekinik handiena ateratzeko asmoarekin, bestela jai dugu!

Gogoan hartu behar dugu, bestalde, tokian tokiko telebistetarako lizentziak araututa daudela Espainiako Gobernuaren lege baten bidez, 2003. urtean. Beraz, guk Euskadin, hiru egoera juridiko-administratibo ditugula, eta guztion buruan dauden oztupoak daudela, argi jokatu behar dugu, uholde baten barruan ez jausteko. Adibide bat ipintzearen, inork benetan uste al du, 650 000 euro exkaxeko aurrekontuak, sei elkartetan banaturik, eragingarriak direla tokian tokiko euskarazko telebisten arloa sendotzeko? Nik, ez.

Hori gutxi balitz bezala, datozen urteetan, telebista digitala ezarriko da erabat. Zein elkartek izango du behar adina baliabide ekonomiko, erronka horri behar beste bermerekin erantzuteko? Nire ustez, erantzuna garbi dago: EITB. Kontuan hartu, bestela, erdaraz egiten diren tokian tokiko telebistak noren eskuetan dauden, zenbateko indar ekonomikoa duten talde horiek, eta nork eskain dezakeen behar bezain programazio ona talde horiekin lehian aritzeko. Beraz, sinergiak aprobetxatu behar dira, eta, ikusalde horretatik, jakin behar dugu guztiok, gure gorputzaren atalen bat edo beste idoki behar digutela, gure gorputzak bizirik iraun dezan. Halaxe esan zuen Luis Mitxelena euskararen eretzean, eta, arlo honi dagokionez, bete-betean ezar daitekeen esapidea dela uste dut.

3.3. Irratien esparrua

Hau esparru korapilatsua da. Ez dut berriro esango lehengoa, baina Eusko Jaurlaritzaren 2004ko deialdira aurkeztutako 10 irratietatik hiru dira udalen jabetzapekoak, eta hirurok, gainera, badaude beste hiru irratik antzinatik emankizunak dituzten esparruetan. Hori euskararen onurarako ote da? Ezezkoan nago. Lehen esan dut, eta hau bai, hau berriro aipatu nahi dut, eta nabarmendu: argi izan dezagun hiru irrati horiek zuzenean lehiatzen direla lehendik euskaraz emankizunak ematen diharduten irratiekin; gainera, azken irratik merkataritzako izakundeak dira, beraz, hiru udalen aurrekontu publikoak ari dira lehia egiten euren diruak jartzen dituzten hiru irrati konpainiaren aurka.

Eta 'aurka' esan dut, publizitate bankua bera delako euskaraz jarduten duten irrati guztientzat. Zenbat iragarki kendu dizkiete irrati horiek euren herrietan dabilzan erdarazko irratiei? Garbi esan dezagun: euskaraz diharduenak lehian dihardu euskaraz diharduenarekin. Hori ikusten ez duena itsu dago.

Orain arte esanikoa joan zaio finantzamenduari, baina bada beste alderdi interesgarri bat: irrati horien programazioa zenbat ordutakoa da? Zenbat ordu ekoizten dute eurek? Zenbat ordu hartzen diote *Euskadi Irratiari* eta besteri? Gainera, besteekin aritzeko lehian. Egoera Kafkaren barrunbetikoa da, eta barregura emango luke, emaitza lazagarrak sortuko ez balira lehendik dauden beste irratientzat.

Irrati-hartzaileak hartzen baditugu kontuan, arazoa askozaz larriagoa izango litzateke. Joan gaitezen lehengo adibidera: hiru udalerrri horietako biztanleak, guztira, ez dira heltzen 40 000 biztanlera. Zenbat albiste sortu behar litzukete herri horiek osoko programazioa lortzeko? Bien bitartean, beste hiru irratietatik, bik lurralde bana betetzen dute oso-osorik, eta besteak hiru lurraldetako oso eremu zabala. Beharrezkoak ziren hiru udal irrati horiek? Buruak ezetz dio. Gainera, badira irteera osagarriak, guztion elkarlana behar den moduan orekatzeko; adibidez, herri horietako batek berari ondoen datorkion irratiarekin hitzarmena egin dezake, edo kontratazioa egin dezake, herri horren gaineko albisteak une jakin baten edo egun jakin batzuetan emateko. Irteera askozaz zentzudunagoa da, eta, bide batez, modu askozaz eragingarriagoa da udalerriko biztanleak zaletu daitezen euskal irratia entzuten.

3.4. Prentsa idatzia

Prentsa idatziaz denaz bezainbatean, eta aurretik esanikoa gogoan izan behar dugula, beste gogoeta batzuk egin nahiko nituzke, batez ere, sarritan horrelako gauzak, esaten ez direlako-edo, izan ere ez direla ematen du eta.

Zenbat irakurraz behar diogu euskal irakurleari? Euskaldunok ba ote gara beste inor baino irakurleagoak? Edo derrigor izan behar ote dugu? Adibidez, euskal irakurlearen egun arrunt bat hartzen badugu, konturatuko gara zenbat etxeko lan daukan egiteko, ohetik jaiki bezain laster. Lehenengoz, euskarazko egunkaria irakurriko du, sarritan erdaraz argitaratzen den beste batekin edo argitaratzen diren beste batzuekin batera; horrekin batera, gure euskal irakurlea bizi bada tokian tokiko egunkariak argitaratzen diren herrietako baten, beste bat dauka irakurtzeko; astein behin aberri mailako astekari bat irakur dezake, eta tokian tokiko astekariren bat; astekaririk ez bada argitaratzen, hamaboskaria argitaratzen da, beraz, azken lan hori hamabostean behin egin beharko du, edo hilean behin, hilabetekaria bada. Kontura zaitezte, gainera, hor ez ditudala sartu pentsamenduaren gainean argitaratzen diren aldizkariak edo bestelako aldizkari bereziak.

Beste arazo bat, arlo honetan egundoko eragina duena: badago joera handia, toki jakin bateko eredia beste toki askotara zabaltzeko, horretarako kontuan hartu barik toki jakin hartako egoera soziolinguistikoa, herriaren beraren orografia, herriaren beraren banaketa, herri hartako biztanleen osaera demografikoa eta abar. Horrek berez dakar urruneko lilurak hurreko tristura sortzea.

Prentsa idatziaren beste eragile bat argitalpenen maiztasuna da. Eta kontu hau aurrekoarekin lotuta dago. Toki guztietan izan behar al ditugu egunkariak, edo astekariak, edo hamaboskariak, edo hilabetekariak? Ziur aski, kontu hau behar den moduan garbitzeko, enpresa-ikuspegia izan behar dugu gidari, bestela euskarak berak urtengo du galtzaile. Izan ere, arazoa ez da bakarrik zenbat irakurle lor daitekeen, ezperen zenbat albiste sor dezaketen tokian tokiko argitalpenaren eragin-esparruko biztanleak. Nire ustez, tokian tokiko aldizkariaren maiztasunaren egokitasuna joango litzateke, lekuan-lekuan, astekaritik hilabetekarira, kontuan hartzen badugu euskaraz egunero irakurri nahi duenak baduela esparru hori beteta, eta hori baino maiztasun sarriagoko proiektuek, merkatuak bestela ez dioten artean, ezin dute epe luzean iraun. Beste alde batetik, alde batera uzten baditugu aberri mailako argitalpenak, erosle edota harpidedun diru-jartzaileen kopuru jakin bat dutenak, konturatuko gara oso bakanak direla benetan ordainpeko harpidedunak dituzten tokian tokiko argitalpenak. Horrek hainbat arazo dakartza. Eta komeni da horien gainean gogoeta laburra egitea.

Horrela, bada, tokian tokiko argitalpenak diru publikoaren pentzudan dira, euren barruko moldaketak egiteko: langileen (gero eta behin, aldizkaria zuzendu, idatzi eta merkaturatzen dutenen) egoera hobetzea zail gertatzen zaie. Beste alde batetik, banaketa hainbat aletakoa dela esateak ez du esan nahi kopuru hori denik merkatuak eskatzen duenaren edukoa, eta horrek egundoko garrantzia izan dezake aldizkariaren beraren biziraupenerako, eta kasu honetan ‘biziraupen’ berba aipatu nahi dut, sarritan horrelako proiektuentzat nahikoa delako herri administrazioetarik baten diru-laguntza ments izatea, proiektu osoa galzorian jartzeko. Zer dago horren atzetik? Zergatik ez dugu geure proiektua merkaturatzen, diru-kopuru jakin bat eskatuaz gure ekoizkina jaso nahi dutenei? Diru-kopuruek, hasieran, sinbolikoak behar dute, egoerak hala ekarrita, baina horrek bizi handiagoa emango dio argitalpenari, eta berean dihardutenek badakite, gauzak ondo eginez gero, arrakasta izango dutela, eta etengabeko prestakuntza eta hobekuntzaren mailara helduko direla. Hau egiten ez den artean, uzkur naiz arlo honen benetako neurriko argazkia inoiz izango ote dugun.

Hau guztia adibide batekin argitu nahi dut: 11.881 euskaldun eta ia-euskaldun dituen eskualde baten, 5.000 aleko tirada zentzuzkoa da? Kazetaritza egiten diren kalkuluen arabera, betiere gaztelaniazko kazeten inguruan, ratioa 1/5ekoa da, beraz, kasu honetarako, 2.376 aleko tirada izango litzateke egokiena. Horrenbestez, orain egiten den tiradaren %47,52koa izango litzateke egokia. Gainera, honek badu beste zertzelada interesgarri bat, alegia, aldizkari horren gastuaren %42,57koa doa inprimatze eta zabalkunderako, hau da, bada diru bat aldizkaria zuzendu, idatzi eta merkaturatzen dutenen eskuetara ez doana. Honek zer pentsatua eman beharko luke, planteamenduak egiteko orduan. Jakina, honek zuzeneko lotura du lehen aipatu dudana ikuspegiarekin: zertaz ari gara, euskararen aldeko komunikabide batez edo euskarazko komunikabide batez? Zeintzuk izango lirateke baldintza egokiak euskararen aldeko komunikabidea euskarazko komunikabide bihurtzeko? Zein urrats bete beharko lirateke? Edozelan ere, lehen esan dudanez, euskararen aldeko komunikabideez badihardugu, orduan aldizkaria bururatzeko behar diren gastu guztiak hartu beharko litzukete euskararen sustapenaren ardura duten administrazio-organismoek oinarri legez, diru-laguntza emateko. Euskarazko komunikabideez ari bagara, ostera, argitalpena zuzendu, idatzi eta merkaturatzen dutenen gastua hartu beharko lukete kontuan administrazio-organismo horiek, eta enpresa-alderdiak joan beharko luke herri administrazio bakoitzean enpresaren arloaren ardura duen organora. Zuetako baten batek, ziur aski, buruan darabilen kontua da nire ezkutuko asmoa dela dirua aurreratzea, eta arrazoia du; dirua aurreratu nahi dut, diru publikoari buruz ari garelako, baina horrek ez du esan nahi, horrelako kontuetan, berbarako, grafikagintza eta zabalkundearen aldetik aurreratzen den dirua erabili nahi dudanez euskararen aldeko eta euskarazko komunikabideak ez beste xede baterako; kontrara, aldizkaria bururatzeko diharduten langileen lan baldintzak nahiz egoera ekonomikoa hobetzeko izan behar du bestetik aurreratzen den diruak. Gorago eman dudanez jakingarria berriro emango dut, baina beste ikuspegi batetik aztertuta: Bizkaian 2004. urtean euskarazko argitalpenetan gastatu diren diruen %54,66, hau da, 732.802.16 euro joan dira grafikagintza eta zabalkunderako, gehienbat. Bitartean, inbertsioen kapituluak, guztira, 13.277 euroko zama ekarri du, proiektu guztien %0,99. Zelan lehia daitezke, bada, tokian tokiko aldizkariak besteekin, eurek horrelako zama duten artean? Bada, erantzuna garbi dagoela ematen du: ikuspegia aldatu beharra dago. Eta hortxe sinergiak bai, sinergiak eragin handikoak dira, eta herri agintean eta arlo honetako gizarte-eragileen arteko elkarriketak eta adostasunak ezinbestekoak dira. Baina horiek guztiak aurretik prestatu behar dira, ez, ostera, behin ekoizkina mahai gainean dugula, hori zelan edo hala ordaindu behar dela esan, eta ea zelan konpon daitezkeen arazoa. Guztiok dugu zeresana honetan, eta kontu hau albait lasterren ebatzi beharko litzateke.

Eta kontu hau bideratzeko, bada beste aldagarri bat, egundoko eragina ekar dezakeena, kostuen eretzean: teknologia berrien erabilera. Zabalkundearekin modu estuan lotuta dagoen beste eragile bat euskaldunen dentsitatea dugu; egin-eginean ere, zenbat eta dentsitate handiagoa izan, orduan eta merkeagoa izango da zabalkundea. Kontu honek berealdiko garrantzia du Euskadin, gure herriek, txikiak izanagatik, oso molde sakabanatua agertzen baitute euren biztanleak banatzeak orduan. Beraz, kasu honetan egundoko garrantzia hartzen dute teknologia berriek. Adibidez, zabalkundearen gastuak murriztu daitezke, baldin eta aldizkariak eskaintzen badira euskarri bietan, Internet bezala paperean, betiere, helburu legez jarri behar dugu paperaren desagertzea; hori horrela etorri zen herri administrazioetara, aldizkari ofizialen argitalpenarekin, eta orain edo geroago gauza bera gertatuko da kontu honenkin. Hori ez ezik, on line argitaratzeak aldizkariaren hartzaileri prezio merkeagoak jartzea ekarriko du, bai eta publi-

zitatea sartu nahi dutenei ere euren publizitate-gaia jende gehiagok ikusiko duela erakustea ere. Baina abantailak ez dira hor geratzen, ezik etengabeko argitalpenak sor daitezke, informazioa sortu ahala jendeari jakinaraz dakiokeena. Hau da, kontua ez da teknologia berriak aipatu eta gorestea, ezpabere eurak erabiltzea, eta beraiei ahalik etekinik handiena ateratzea, geure ekoizkinak egunean baino egunean hobeak izateko, egunean baino egunean ezagunagoak egiteko eta egunean baino egunean partaidetza handiagoa izateko. Hori guztia hala da, baina ez da hori bakarrik, teknologia berriek tokian tokiko aldizkarien gainean ekar ditzaketen eragin guztiak aztertu beharko lirake, eta ikerlan horren arabera jardun modu bateragarrian. Adibidez, garbi dago, tokian tokiko aldizkariak argitaratzen dituzten elkarten federazioak euskarri ezin hobeak eskain dezakeela, haien eskaintza hobetzeko, bai eta, osoko ikuspegia buruan dutela, aldizkarien euren bideragarritasuna bermatuko lukeen plangintza osoa gertatzeko, berbarako, hornitzaileen arloa batera kudeatzeko modua, teknologiaren aurreramenen berri emateko modua, elkarrekin lotura eraginkorragoa lortzeko bideak, publizitatea modu orokorragoan kudeatzea eta abar.

Dena dela, tokian tokiko aldizkarien gainean dihardugula, etorkizuneko erronka hau da, nire ustez: tokian tokiko aldizkariak erabaki behar dute zer izan nahi duten, edo Administrazioaren ongizatea jasotzera kondenatuta dagoen mugimendua izatea, edo gizarteari, euskararen aldeko sustapenez gain, aberastasuna ekartzen dion sektore indartsua izatea, eta goian azaldu ditudan zenbakiak erakusten dute horren harrotasuna froga dezaketela, eurek mugitzen duten euro bakoitzeko, 50 zentimo baino gehiago izaten baitira euskal industriaren arlo garrantzitsuetako batzuk, grafikagintza eta zabalkundea, mugitzeko.

Zelan jokatu behar du Administrazioak kuota kobratzen duten argitalpenen eta kuotarik kobratzen ez dutenen arteko orekari eusteko? Izan ere, kuota kobratzen dutenek esan dezakete, herri agintek diru-laguntzak ematen badiuzte, bakoitzak kobratzen duen edo ez kontuan hartzeke, orduan kobratzen dutenak txartoago gelditzen direla kobratzen ez dutenak baino, eurek eskatzen dietelako ahalegin ekonomikoa euren harpidedunei, besteek halakorik eskatzen ez duten artean. Eta egia da hori. Edozelan ere, badira bideak, arazo hau gainditzeko, adibidez, kuota kobratzen duten aldizkariak tratamendu berezia ematea diru-laguntzak emateko irizpideak finkatueran, edo kuotaren kobrantza nahitaezko betekizuna izatea, dirulaguntzei jaso ahal izateko, edo, denbora jakin baterako bada ere, aldizkari guztiei eskatzea euren harpidedunen zerrenda, betiere norberaren datuen gaineko sekretua gordeta. Merkaturatu behar dute tokian tokiko aldizkariak, aberri mailakoek egin duten legez, eta merkaturatu behar dute, jakinaren gainean gaudelarik, EAEn, adibidez, euskarazko aldizkari bat irakur dezaketena %55,43 direla (euskaldunak gehi ia-euskaldunak zenbaturik) gaztelaniazko aldizkari bat irakur dezaketenen aldean, eta hortxe jardun behar dute euskal administrazioek alde hori murrizteko, euskaldunen ekoizkinak sortzen dituzten aldean.

b. GIZARTE EKIMENA EUSKARAZKO KOMUNIKAZIO ESPARRUAN

Iker Martinez de Lagos
Topaguneko idazkaria

1. Sarrera

Gizarte ekimenaren ikuspuntua lantzea dagokit, eta nik euskara elkarteetan esperientziatik planteatuko dut ikuspuntu hori. Baina zer daukate esateko euskara elkarteek euskararen komunikazio esparruari buruz? Ez da ahaztu behar badela euskarazko hedabideen inguruan 15 urte baino gehiago dituen esperientzia aberats eta zabal bat, euskarazko tokiko hedabideena alegia, eta esperientzia hori hainbat fruitu ematen ari dela. Errealitate hori ez litzateke izango gaur egun ezagutzen duguna, euskara elkarteetan mugimendua atzean egon ezean. Euskara elkarteek tokiko informazioa lantzeko apustua egin zuten, euskaraz informazioa lantzeko euskarri egokia zenaren uste irmoarekin, eta apustu horrek bere fruituak eman ditu (eta oraindik asko eman behar ditu). Euskara elkarteak, beraz, euskarazko tokiko hedabideen oinarria dira, eta euskara elkarteetan oinarria, eskalaz hitzunik.

Hogei urte baino gehiago dira lehen euskara elkarteak sortu zela, eta ondorengo urteotan hainbat herri eta eskualdetan izan du segida elkarteetan loratzeak. Lehen euskara elkartearen sorrera, eta baita euskara elkarteetan mugimenduaren sorrera ere, mementoko egoeraz egindako hausnarketaren ondorioz eman zen: hizkuntzaren normalizazioan hainbat arlo lantzen zituzten elkarte eta erakundeak ari ziren lanean (hizkuntza eskubideen aldarrikapena, irakas-kuntza, alfabetatzea, corpusa, ezagutza...), baina erabilera gehiegi landu gabeko esparrua zen. Euskara normalizatzeko euskaldunok euskara erabili behar dugu, eta horretarako bitartekoak eskaini behar ditugu. Hori da, beraz, euskara elkarteon xedea: euskararen erabilera sustatzea, erabileran eragitea. Gaur egun, urteak aurrera joan ahala, erabilerak hizkuntzaren normalizazioan duen garrantzia oso onartua dago gizarteetan, eta euskara elkarteek herri eta eskualde mailako erabilera programa eta egitasmoak antolatzen jarraitzen dute.

Xedea eta helburu nagusiak erabileraren ingurukoak izanik sortu ziren elkarteek beste ezaugarri batzuk dituzte: herri edo eskualde mailako esparruan aritzen dira, herritarrek sortutakoak dira, norbanako bazkideek osatuta daude, eta bazkide horiek euskaldunak dira. Beraz, euskaldunok euskaldunontzat sortutako elkarteak dira.

Hizkuntzaren (euskararen) erabilera, arlo ezberdinetan lantzen dute euskara elkarteek. Bost lan sailetan banatzen ditugu euskara elkarteetan eta berauek osatzen duten federazioaren ekimenak, baina hedabideen arloan zentratuko gara, hori baita lan honi dagokion gaia. Hainbat euskara elkarteek hedabideak kudeatzen dituzte (izatez zenbait euskara elkarteek hedabideen arloan dute beraien jardueraren nagusia): kudeaketa euskara elkarteena izateak ezaugarri bereziak ematen dizkie aipatutako hedabide hauei.

Euskara elkarteek hedabideak sortzeko arrazoi edo helburu nagusia tokiko albisteak argitaratuz euskaldunon hizkuntzaren erabileran eragitea da, hedabidearen hartzailerek beharrezko eta gustuko duten bitartekoen bidez. Horrekin batera bestelako helburuak ere badituzte, baina helburu nagusiaren barruan daudenak dira hauek (informazioa gizarteratzea eta kalitateko produktuak sortzea, besteak beste). Euskara elkarteek burutzen dituzten egitasmo ezberdinen xedea euskararen erabilera handitzea da beraz; hedabideekin bezala, haurrentzako antolatutako udaleku eta

jolas parkeekin edo kultur ekitaldiekin ere xede hori lantzen dute (horrek bereizten ditu bereziki euskara elkarteek kudeatutako tokiko hedabideak beste hedabide batzuetatik: etekin ekonomikoa jasotzea, iritzi politikoa sortzea edo bestelako xedea dutenak). Xedea kontuan hartuz egiten da gainera tokiko informazioa. Ahalik eta euskaldun gehienengana heltzeko asmoarekin egiten den neurrian, irakurterraza, hurbila eta interesekoa den produktua egin nahi da. Eta etxe ondoan gertatzen denak duen interesa aintzat hartuz, nagusiki horrelako informazioa egiten dute euskarazko tokiko hedabideek.

Gizarte ekimena eta euskarazko tokiko hedabideen arteko lotura bi esalditan laburtuko nuke. Euskara elkarteek gizarte ekimeneko jarduerak burutzen dituzte. Euskara elkarteetan sortutako euskarazko tokiko hedabideak ere gizarte ekimenetik sortuak dira beraz. Dena dela, aurrera jarraitu aurretik, gizarte ekimeneko jarduerak zein ezaugarri dituzten aipatzea interesgarria dela deritzot, hauen ekarpena zein den eta zein izan daitekeen aztertu aurretik.

2. Gizarte ekimenaz

Orain arteko aurkezpena eta kokapena egiterakoan zenbaitetan erabili dudana espresioa da: gizarte ekimeneko jardura. Baina,

- Zeren inguruan ari naiz gizarte ekimeneko jarduerak aipatzean? Gizarte ekimenetik sortutako jarduerak hitz egiterakoan, zein motatako jarduerak hitz egiten dut?
- *Noaua!* aldizkaria, Anboto.org Interneteko berriemailea eta *Beleixe irratia* gizarte ekimenetik sortuak dira? *Berria?* *Zabalik?* *ETB1?* *Xirika?* *Aldaketa 16?*

Kontzeptuak bereizte aldera, ondorengo bien inguruan arituko naiz: gizarte mugimendua eta gizarte ekimeneko jardura. Biek dute gizartea oinarri modura, baina nolabaiteko garapen bat dago bien artean: batek mugimendua edo multzoa adierazten du (elkartzea) eta bestea jarduerak definitzen du.

Joxemi Zumalabe Fundazioak herri eta giza mugimenduaren garapena eta hazkundea du xede eta horrela definitu izan du herri mugimendua: “Herri mugimendutzat dugu politika ofizialetik kanpo herritarron premia zehatzei erantzuteko sortu den antolamendu mota oro. Herri mugimenduak zuzeneko parte-hartzea eta elkartasuna defendatzen ditu, eskuordetzarik gabe eta konpetitibitatearen aurka. Hitz batez esateko, gaur egun gizarte alternatibo baten oinarri diren balioak bultzatzen dituena da herri mugimendua. Alor ezberdinei ekinez, herri mugimendua gizarte arazo anitzei irtenbideak ematen saiatzen da”¹.

Mugimenduak ideia baten inguruan antolatu arren, jarduerarik gabe gelditzen baldin badira, norabiderik gabekoak izan daitezke. Ideien aldarrikapenetik harantzago, gizarte mugimendua bat bere ekimeneko jardura eskaintzak ezagutarazten dute. Gizarte ekimeneko jardueren oinarrian gizarte mugimendua antolatu bat egon ohi da, eta mugimendua horren iraupena, helburuak eta antolakuntza jardura horren (edo bat baino gehiagoren) arabera zehazten da. Euskara elkarteek mugimenduan gizarte ekimeneko jardura (eta egitasmo) ezberdinak garatzen dira eta ederki erakusten dute mugimendua guzti horren ezaugarriak zeintzuk diren. Euskarazko hedabideen inguruan euskara elkarteek antolatua duten jardura adibide on bat da, eta baita jardura horren barnean ezaugarriak diren egitasmo zehatz guztiak ere.

Nire iritziz, gizarte ekimeneko jarduerak sei ezaugarri behintzat betetzen ditu:

1. Gizartean bete gabe dagoen arlo, behar, gabezia edo aldarrikapen bati erantzuteko antolatutako jardura da, beti ere gizartetik sortutako antolakuntza batek sustatua. Publiko zabalari zerbitzua eskaintzeko helburuarekin sortutako jardura da, jendarteari edo honen barnean sektore berezi bati zuzendutakoa. Jendea elkartu egiten da horretarako, eta elkarketa horretatik sortutako egiturak helburuak lortzeko jardura burutzea bultzatzen du. Elkartze hau antolaketa jarraikorra da, egituratua eta formalizatua: elkartzen direnen artean harremanetarako arauak adostu eta helburu zein irizpide komunak zehazten dira².

Tokiko hedabideak ditugu adibide argia. Hizkuntzaren erabileran eragiteko sortutakoak dira, esan bezala, eta horrela, hurbileko informazioaren bidez euskaraz irakurtzeko tresnak eskaintzea da gizarteari ematen dioten zerbitzua. Horretarako (beste zenbait egitasmo mota egiteko ere) sortu dira euskara elkarteak, eskualde eta herrietako euskaldunek osatutako egiturak, euskararen erabilera sustatzeko sortutako guneak, bazkideen arteko harremanak araututa dituztenak.

2. Xedea. Gizarte ekimeneko jardueren xedea lehen ezaugarriaren definizioan aipatutako behar edo gabezia horiei erantzutea da; jardueraren bidez helburu hori betetzea. Beste helburu guztiak xedearen osagarriak dira, baina beti ere helburu nagusi horren barruan daudenak.

Gizarte ekimeneko jarduerak burutzen dituzten antolakuntzek ez dute irabaziak bazkideen (akziodunen) artean banatzeko asmorik izaten. Hala ere, jardueraren bidez irabaziak izateko helburua izan dezakete, beti ere etekin horiek jarduera horretan edo antzeko helburuak dituzten gizarte ekimeneko bestelako jardueretan berrinbertitzeko asmoz. Beraz, horrek bereizten ditu nagusiki bestelako erakunde mota batzuekiko jarduerok burutzen dituztenak.

Puntu honetan ere euskarazko tokiko hedabideak hartuko ditugu adibide modura. Euskararen erabilera sustatzeko sortu dira hedabideok, hori da beraien xedea. Beraz, dituzten beste helburu guztiak (hurbileko informazioa zabaltzea, herri edo eskualdearen trinkotzea edo hurbileko gaien ikuspuntu eta iritzi ezberdinen arteko eztabaida bultzatzea, besteak beste) helburu nagusiaren barruan daude, bere osagarri. Irabazi asmoari dagokionez berriz, euskara elkarteek beren jarduerak ekonomikoki errentagarriak izatea bilatzen dute, irabaziak izatea. Baina irabazi horiek, izatekotan, elkartearen egitasmoetan berrinbertitzen dituzte (hedabidea baliabidez hornitzen, multimedia ikuspegiarekin hedabideen arloan egitasmo berriak martxan jartzen edo hizkuntzaren erabileraren barruan beste jarduera mota batzuetan inbertitzen: haurrentzako egitasmoak, euskaldun berriei zuzendutako mintzapraktika programak, kultur egitasmoak...). Zoritxarez ez da aukera asko egoten horretarako, oraindik ere, euskarazko tokiko informazioa lantzea ezin baita guztiz autofinantzatu.

3. Gizarte zibileko jende multzo batek sortua, jendarteak sustatua eta onartua (ez interes partikularrak dituen enpresa edo erakunde batek, eta ezta erakunde publiko batek ere).

Esan bezala, gizarte zibilak sustatutako jarduerak izanik, nagusiki jendarte horrek kudeatzen ditu. Jarduera gidatzen duen antolakuntzak duen egitura juridikoa edozein dela ere, oinarria, bazkide taldea, helburuetan bat datorren jendarteak osatzen du nagusiki, eta hauek dute erabaki ahalmenaren nagusitasuna. Helburuetan bat datozenak dira bazkide (zabalik dago helburuetan bat datorren edonor bazkide izateko) eta erabakia ere hauena da. Bestelako bazkideak ere egon daitezke xede eta jarduerekin bat egiten duten neurrian (erakunde publikoak, interes pribatuko enpresak...); hala ere, gizarte mugimenduaren izaera mantenduz jardueraren eta erakundearen gaineko erabaki ahalmena eta gidaritza ziurtatu behar da, interes partikularrak gailendu gabe.

4. Autonomia. Kanpo eragileekiko inongo mendekotasunik gabe, norberaren (mugimenduaren) helburuen ikuspegitik erabakiak hartzea. Hori da autonomia hitzarekin ulertzen duguna. Gizarte ekimeneko jardueretan helburuak ondo definituta egoteak garrantzia du (helburuetan baitago egitasmo hauen oinarri nagusietako bat), baina ohikoa izaten da kanpoko eragileek helburu eta jardunean eragin nahi izatea. Alderdi eta instituzioekiko independentzia politikoa mantentzea eta bestelako eragileek helburuetan ez eragitea dira autonomiaren oinarria. Bestelako eragileekin izan daitekeen elkarlanaren oinarrian, autonomiarekiko errespetua egon behar da beti, elkarlan horrek inola ere ezin dezakeelarik norberaren helburuetan eta jardueran eraginik izan (jarduera indartu edo garatzeko ez bada).
5. Demokrazia. Gizarte ekimenez sortutako jardueren gaineko erabakia berau gidatzen duen antolakuntza edo mugimenduarengan dago, lehenago ere aipatu izan den bezala. Antolakuntza edo mugimendu hauek printzipio demokratikoen bidez gidatu behar dira. Bazkide guztiak izan behar dute erabakietan baldintza berdinetan parte hartzeko eskubidea, eta bazkideen erabakien arabera gidatuko dira erakundea eta jarduerak.
6. Borondatezko lana eta soldatapeko lana uztartua. Egitasmo sendoek lan dedikazioa behar dute, eta behin tamaina bat hartzen dutenetik aurrera, beharrezkoa izaten da borondatezko lana eskaintzen duten pertsonak egoteaz gain, kontratueko langileak izatea. Bi motatako lana (borondatezkoa eta soldatapekoa) dagoen mementotik, biak uztartzen jakin behar da, jarduerak gidatzen dituzten oinarrian bazkideek jarraitzen baitute.

3. Gizarte ekimeneko jarduerak euskalgintzan

Euskarazko hedabideez ari garen honetan, arlo honetan sortutako egitasmoak gizarte ekimenak euskalgintzan bultzatutako jarduera bakarrak ez direla aipatu behar da. Euskalgintzaren barruan martxan jarri diren ekimen garrantzitsuenak gizarte ekimenak bultzatutakoak izan dira. Arlo askotan daude gizarte ekimenetik sortutako jardueren adibideak. Ikastolak seme-alabek euskaraz ikastea nahi zuten gurasoen eta irakasleen ekimenez sortutako erakundeak dira, urtetan oso bide interesgarria egin dutenak eta egituratze mailan urrats handiak egin dituztenak. Euskarazko irakaskuntzan erreferente dira.

Euskalduntee alfabetatzean ere herritarrek izan dute zer esana, gau eskoletatik hasi eta ondoren sortu diren hainbat erakunde horien ekimenez abiatu dira eta. Antzerako zerbait esan daiteke behin baino gehiagotan aipatu ditugun euskara elkarteaz, Bertsozale elkarteaz, edo euskarazko zerbitzuak eskaintzea xede duten kultur elkarte, aisialdi talde eta mendi-kirol taldeei buruz. Horietako jarduera batzuetan, ondoren bestelako ekimen mota batzuk sortu dira, arloaren egitura aberastu edo osatzera joan direnak: bai erakunde publiko edo politikoek bideratutako ekimenak eta baita irabazi asmodun eta interes partikularreko erakunde pribatuek bultzatutakoak.

Euskarazko komunikazio esparruan ere mota ezberdineko egitasmoak aurki ditzakegu; gizarte ekimenez sortutakoak asko dira. Paperezko formatuan euskarazko hedabideen artean zabalkunderik handiena duen azpisektorea (tokiko informazioa lantzen duena) gizarte ekimenetik sortutako egitasmoek osatzen dute nagusiki. Horretaz gain, euskarazko hedabideen historia, herritarrek sortu eta sustengatutako egitasmoz beteta dago (hortxe dugu euskarazko eguneroko prentsa orokorraren adibidea, *Euskaldunon Egunkariaren* sorrerarekin habiatu zena, milaka herritarrek egindako ekarpen garrantzitsuari esker). Dena dela, azken urteotan, bestelako egitasmo batzuk hasi dira apurka-apurka euskarazko prentsara hurbiltzen: erakunde publikoen ekimenak (EiTBren barruan sortu diren *Euskadi Irratia*, *Euskadi Gaztea* eta *ETBI*), enpresa taldeek sortutako egitasmoak (eskualdeetako *Hitzak*, *Zabalik* eta *Aldaketa16* adibidez), eta bestelako erakunde edo enpresek sortutakoak (*Argia* eta *Elhuyar* adibidez). Egitasmo eta eragile guzti horiek Euskarazko Komunikazio Esparrua zabal eta anitza egiten dute (herri ekimenaren ekarpena osatu eta aberastuz); helburu eta asmo ezberdinak biltzen diren esparrua osatzen dute.

4. Gizarte ekimeneko egitasmoen funtzioa gaur egun

Beraz, eragile mota ezberdinek sustatutako egitasmoak biltzen dira egun Euskarazko Komunikazio Esparruan. Eta honek zenbait galdera egitera eramán gaitzake. Hainbat egitasmo ezberdin biltzen dituen esparru batean (eta hain eragile ezberdinak izanik oinarrian), zein da gizarte eragileek betetzen duten funtzioa? Erakunde publiko eta interes pribatuko enpresek parte hartzen duten esparru komunikatiboan badu lekurik oraindik gizarte ekimenak? Nik lekua badutela esango nuke, eta oraindik ere funtzio garrantzitsuak betetzen dituztela.

Gizartea erakundeen aurretik doala esan ohi da askotan, eta euskalgintzan ere horrela izan da (baita hedabideen arloan ere). Gizarteak, bere beharrak ase ahal izateko, aitzindari lana hartu du bere gain hainbat alditan, eta atzetik joan ohi dira bai erakunde publikoen proiektuak eta baita interes pribatuko egitasmoak ere. Erakunde publikoek dagokionez, gizarteak egindako eskarien “presioa” izan da hauek aurrerapausoak emateko arrazoia (presio hori egitasmoak martxan jarrita egin da, hutsuneak eta beharrak sortuz). Aitzindaritza lan hori bukatu eta gizarte ekimena funtziorik gabe geratu dela pentsa daitekeen arren, ez da horrela; orain bestelako funtzioak dagozkio.

Gizarte ekimeneko jarduerak helburuetan bereizten dira nagusiki bestelako ekimeneko jardueretatik, eta helburuen arabera funtzioa dute gaur egun ere egitasmoak. Helburuen arabera, eta xedea euskararen erabileran eragitea duten egitasmoetan behintzat, euskaldunon komunitatea osatzen dugunongana heldu eta hizkuntza ohituretan eragitea bilatu behar dute hedabideok, eta, horretarako, hurbileko interes orokorreko gaiak landu eta ahalik eta etxe gehienetara heltzea da lehentasunez bilatzen dena. Bestelako interes partikularretatik horrek bereizten ditu proiektuak.

Bestelako eragileek sustatutako egitasmoei dagokionez, bereziki aipatu behar dira bai erakunde publiko zein beste erakunde batzuetatik sortutakoak eta hauekiko ezberdintasunak. Alderdi politikoei eta horiek zuzenean edo zeharka zuzentzen dituzten erakundeek, gehiegitan, haien elkarrekiko borroketan tenkatuak dihardute eta bestelako interesen inguruan antolatzen dituzte beraien egitasmoak. Egitasmoak zehaztu eta garatzerakoan sarriegi nahasten dira helburu ezberdinak (eta berauen arteko lehentasunak) eta jendartearen beharrak ase gabe gelditzeko arrisku handia dago. Gainera, publiko orokorrari zuzendutako zerbitzuak ere sarri era pribatuan kudeatzea errazagoa izaten da. Euskararen normalizaziorako garatutako jardueretan oso argi ikusi da hori hainbat alditan (jadanik askotan aipatutako adibideak berriro ekar daitezke gogora: ikastolak, helduen euskalduntze alfabetatzea eta erabileran eragiteko jarduerak, besteak beste). Gizarte Mugimenduaren barruan sortu diren erakundeek eta horiek garatzen dituzten jarduerak funtzio berezia betetzen dute zerbitzu publikoaren eskaintza horretan. Antzerako zerbitzu esan daiteke Gizarte Mugimenduek gizarte antolatzearen duten eran betetzen duten lekuari buruz ere, horretan ere funtzio berezia baitute. Historiak erakutsi digu gizartearen antolakuntzari dagokionez ez dela dena alderdi politikoen jardueraren barruan bideratzen, are gutxiago eguneroko elkarbizitzan hainbeste arazo sortzen diren gizarte batean. Hor ikus daiteke argi eta garbi gizarte ekimenaren funtzioa zein garrantzitsua den jendarteak bere beharrak adieraztea ahalbidetzen duen eta jendearen parte hartzerako bideak eskaintzen dituen neurrian. Beldurrik gabe esan genezake Gizarte Mugimenduek gizarte zibila era demokratikoan antolatzen laguntzen duela.

5. Eragileak gizarte ekimenetan

Gizartetik sortutako jarduerak herritarren lanari esker garatu dira; Gizarte Mugimenduaren ezinbesteko osagaia da hori. Helburuetan adostasuna egon eta borondatezko lana eskaintzeko prest dagoen jendeak osatzen du gizarte ekimeneko jardueren oinarria (hauek gabe ez dago gizarte ekimeneko jarduerarik). Borondatezko lan hori eskaini eta gauzatzeko motibazioari “militantzia” deitu ohi zaio. Euskal Herrian lan mota honetan tradizio luzea eta zabala dago, bai euskalgintzan eta baita bestelako mugimenduetan ere (kulturgintza, herrigintza, mugimendu antimilitarista, mugimendu ekologista, eskubideen defentsa eta abar luze bat).

Euskara elkarte guztien sorreran borondatezko lana egon da, euskaltzale multzo baten eskuzabaltasunak gidatu ditu euskara elkarte guztien hastapenak. Ondoren, elkarte bakoitzaren bilakaera ezberdina izan da, baina joera argiarekin: elkartea egituratuz eta sendotuz joan den neurrian, jardueren gidaritza soldatapeko langileek eraman dute. Borondatezko lanak mugak ditu: borondatezkoa izanik, boluntarioen astialdian burutzen den lana izaten da, eta horrek asko mugatzen du dedikazioa. Baldin eta egitasmo batek jarraikortasuna izan behar baldin badu, ezinezkoa da borondatezkoen astialdiko lanak eskaini dezakeen dedikazio mugatuarekin bakarrik aurrera jarraitzea.

Gaur egun, tokiko hedabide guztiek dituzte soldatapeko langileak. Borondatezko lana egiten duten kideen kopurua handia izanik ere, jardueraren oinarria soldatapeko langileak dira. Salbuespenak salbuespen, zenbat eta maiztasun handiagoko hedabidea izan, orduan eta leku gutxiago hartzen du borondatezko lanak jardueran bertan. Horrek gizarte ekimeneko egitasmo bati nortasuna kentzen dio? Ez du zertan horrela izan helburuak gordetzen badira. Herri ekimeneko jarduerak eraginkortasunez kudeatuak eta profesionalak izan behar dute: zerbitzu ona eskainiz, bestelakoekin lehiatzeko modukoak izan behar dute. Enpresa ikuspuntua izan behar dute (kudeaketa eraginkorrari dagokionez), gizarte mailako helburuekin.

Gaur egun zaila da jadanik gizarte ekimeneko jardueretan soldatapeko langileak aritzea zalantzan jartzen duenik aurkitzea. Nork jarriko luke zalantzan lehenago aipatutako ikastoletan edo euskaltegietan soldatapeko langileen ekarpena eta lana?

Egun, kezka beste bat da: nola uztartu borondatezko lana eta soldatapekoa? Erakundeetan soldatapeko langileen lanak hartu duen garrantzia ikusita, boluntarioen ekarpena zein da? Oraindik lan arlo asko daude boluntarioen ardurapean, baina hori baino garrantzitsuagoa dena, gizarte ekimenak oinarria izaten jarraitzen du: erabaki nagu-

siak eta egitasmo zein erakundeon lan ildo eta norabidea soldatapekoak ez diren norbanakoek (boluntarioek) erabakitzen dituzte (erakundeko bazkideek). Labur-labur esateko: norabidea boluntarioek definitzen dute, eta betetzea soldatapeko langileek (nahiz eta bigarren zati honetan ere boluntarioentzako lekua badagoen, eta berauen ekarpena handia den).

Gizarte ekimeneko erakundeetan kudeaketa eraginkorra barneratu beharreko kontzeptua da eta interes pribatuko enpresetan moduan, helburuen artean kontuan hartu beharra. Dena dela, gizarte ekimeneko erakundeetan, mota ezberdineko eragileak egonik, printzipio honek beste ikuspegi bat hartzen du, eta boluntario eta soldatapekoak diren langileek bat egin behar dute kudeaketa printzipio nagusi horrekin.

6. Elkarlana

Gizarte ekimeneko erakundeen artean elkarlana oinarritzko printzipioetako bat izan beharko litzateke. Nola ulertu behar da elkarlana? Topagunean horrela ulertzen dugu: hainbaten artean elkarrekin egindako ekintza, partaideen interesekoa izateaz gain, denon onerako ere badena.

Noren artean? Bakoitzaren helburuak lortzen laguntzeko jarduera komunak egin ditzaketen eragile edo erakundeen artean. Adibideak asko dira; euskalgintzan aurki daitezke horietako asko. Euskara elkarteetan jardueran oso ohikoa den praktika da hau, herriko eragile ezberdinekin elkarlaneko egitasmoak burutzen baitira (euskaltegiekin euskaldun berrien artean euskararen erabilera sustatzeko, merkatari eta elkarteekin euskararen erabilera areagotzen laguntzeko, udalarekin euskara planak martxan jarri eta garatzeko...). Arlo honetan adibide eredu garriak daude.

Zertarako? Egitasmo zehatzak martxan jartzeko, baldin eta bakoitzaren helburuak lortzen lagunduko badu. Erakundeotako baten helburuak edo jarduerak kaltetu/oztopatzen baldin baditu, ezin da elkarlana planteatu. Oinarriak:

- Autonomia. Elkarlanean parte hartzen duen erakunde bakoitzaren autonomia funtsezkoa da.
- Errespetua. Erakundeen arteko errespetua, besteen erabaki, helburu, egiteko modu eta autonomiarekiko.
- Interes komuna. Erakunde bakoitzak egitasmoa burutzeko interesa izatea.
- Batera egitearen abantailak. Egitasmoa batera martxan jartzeak abantailak ditu, bakarrik egitearen kostua kontuan hartuz gero.

Euskara elkarteetan elkarlanetik sortu da Topagunea Euskara Elkarteetan Federazioa ere, eta elkarlana ulertzeko adibide egokia izan daitekeela iruditzen zait. 1996an Euskal Herriko hainbat euskara elkartek bide hau bakoitzaren helburuak betetzen laguntzeko modu on bat izan zitekeela ikusi zuten.

Jarduera eta ekintza zehatzen inguruko planteamendua egin zen federazioa osatzea erabaki zutenean; bakoitzaren jarduera sustatu edo indartzeko balioko zuten zerbitzu eta egitasmoak antolatuko zituen erakundea sortu zen, beti ere parte hartuko zuten elkarteetan martxa oztopatuko ez zuena (ez helburuei dagokienez eta ezta egitasmoei dagokienez ere). Lehenago aipatutako oinarriek dagokienez ere, federazioan oinarri horiek jarraitzen dira:

- Autonomia. Euskara elkarte bakoitzak bere erabakiak hartzeko eta bere egitasmoak martxan jartzeko askatasun osoa du. Ez federazioak eta ez beste euskara elkarteek ere ez dute erabaki horretan inongo parte-hartzerik.
- Errespetua. Partaide bakoitzaren erabaki eta jarduerarekiko errespetuzko jarrera dago besteen aldetik. Anitzak dira federazioko bazkideen arteko errealitateak (bai jardueretan, zein egitasmo, helburu edo jokabideetan). Euskara elkarteetan aniztasun horrekiko errespetua da nagusi.
- Interes komuna. Federazioko kide izatea eta federaziotik sortutako egitasmo edo jarduera bakoitzean parte hartzea elkarte bakoitzak era autonomoan hartutako erabakia da. Euskara elkarte bakoitzak erabaki du federazioko bazkide izan nahi duela edo bazkide izan nahi duela. Horretaz gain, federazioan dauden elkarteek, honek eskaintzen duen zerbitzu edo antolatzen duen jarduera bakoitzaren aurrean hartzen du

parte hartzeko aukera. Hau da, federazioak zerbitzu bat antolatu eta elkarte bakoitzak zerbitzu hori hartu nahi duen edo ez erabakitzen du.

- Batera egitearen abantailak. Federazioa euskara elkarteek batera jokatura abantailak lor zitzaketela uste zutelako sortu zen. Federazioak ere zerbitzu eskaintza ikuspuntu horretatik egiten du, eta zerbitzua horrela hartzen dute elkarteek ere. Informatikaren arloko zerbitzuak, bitartekaritza eta ordezkari lanak edo programa informatikoen garapena hedabide ezberdinen artean egiteak izan dezakeen balio gehigarritik sortutakoak dira.

6.1. Elkarlan beharra euskararen normalizazioan

Aparteko aipamena merezi du erakunde publikoekin dugun eta izan behar dugun harreman eta elkarlanak. Euskarazko hedabideek ezin dute merkatu legeen arabera lehiatu bestelako hizkuntzetan ekoizten diren komunikabideekin. Euskararen normalizaziorako bidean urratsak egin dira azken urteetan (nahi baino gutxiago izan diren arren), baina oraindik ere ez da lortu behar besteko masa kritikorik, ez euskarazko hedabideen erosleen merkatuan, eta ezta iragarkien merkatuan ere. Hau kontuan hartu beharreko errealitatea da, erakunde publikoen parte-hartze berezia eskatzen duena.

Aipatutako egoerari beste errealitate bat ere gehitu behar zaio: euskarazko hedabideak gero eta zabalagoa den panorama komunikatiboan daude, baina espazio txikia betetzen dute panorama zabal horretan (lan honetan aztertu ahal izan da Euskal Herriko esparru komunikatiboaren barruan euskarazkoak duen pisua zein den).

Euskara elkarten jarduera, era pribatuan egiten den zerbitzu publikoa, gizarte lana da, hizkuntzaren normalizazioan kokatzen den jarduera. Lehenago aipatu izan den modura, euskara elkarteek komunikazioa lantzen dute tokiko hedabideen bidez, informazioa zabalitzen dute (informazio orokorra), baina euskararen erabileran eragin nahi denez, hizkuntzaren aukeraketa egiterakoan beste irizpide batzuk jarraitzen dituzte, ez bakarrik hartzaile potentzialena. Irizpide horietan garrantzitsuena hizkuntzaren erabilera sustatzea da, eta horrek eremuan erabateko zabal-kundea lantzea eskatzen du. Hizkuntza ardatz izanik, euskara elkarteek euskarazko produktuak sortzen dituzte euskaldunongana heldu eta euskararen erabileran eragiteko, euskaraz irakurtzeko ohitura sortzeko, informazioa euskaraz jasotzeko aukera emateko eta hizkuntz ohiturak aldatzeko.

Hizkuntzaren erabileraren sustapena gizartearen oinarritzko beharra dela deritzogu, eta horretan euskararen lurraldean dauden administrazio ezberdinek bestelako oinarritzko beharrekin jokatzeko bezala joka dezatela eskatzea dagokigu; beharrak estaltzeko baliabideak erakunde publikoek ziurtatu behar dituzte. Hizkuntzaren ikus-puntutik hori da gizarte ekimenak duen oinarria beraz. Guk ere, erabilera lantzen dugun neurrian, gure esparrua aldarrikatzen dugu. Eta erabileraren barruan, hedabideena arlo garrantzitsua dela uste dugu.

Bi edo hiru hizkuntza handiren artean bizi gara, gero eta beteago dago komunikazio esparrua, eta gure hedabide multzo indartsua eratzen ez dugun artean, anekdota hutsa izango gara erdarazko hedabide ugarien artean. Euskarazko hedabideen multzo indartsu hori eratzea ere guztion ardura da, baina gizarte eragileok eta botere publikoek ardura berezia izan behar dugu.

Gizarte ekimeneko entitateok eta erakunde publikoek, bakoitzak bere aldetik, adostasun batzuk aurkitu behar ditugu. Gizartearen egitasmoak (kasu honetan, hedabideena) eta herri aginteen egitasmo politikoak bat egin behar dute estrategiak markatzerakoan. Hizkuntzaren normalizazioan diharduten hedabideek helburuak argi izanik jokatzea behar dute (hizkuntzaren normalizazioaren arloko helburuak beste interes eta lehentasunetatik bereziz).

Erakunde publikoek, berriz, hizkuntza politika argia markatu eta gauzatu behar dute. Planak eginda daude eta hasiak dira martxan jartzen; planetan zehazten diren lan ildo eta helburuak gauzatzeko behar diren baliabideak jarritzea suertatzen da orain guztiz garrantzitsua.

Beraz, euskarazko komunikazio esparruan ari garenon eta erakunde publikoetako arduradunen arteko hitzarmen/akordio bat behar dugu, hizkuntzaren normalizazioaren ikuspuntutik datozen urteotarako ildo eta egitasmoak markatuko dituen. Nire ustez hizkuntzaren normalizazioaren ikuspuntutik egin beharreko planteamendua izan behar da akordio/hitzarmen horren oinarria, eta puntu horretan, gizarte eragileon funtzioa garrantzitsua da.

7. Elkarlanerako aukera bat

Gogoeta hau gizarte ekimeneko erakunde eta herri agintearen arteko elkarlanerako aukera bat aurkeztuz bukatu nahi nuke. Urtetan izandako harremana kontuan hartuta, elkarlanean sakontzeko urratsak egitea ona dela deritzot. Herri aginteetan Euskara Biziberritzeko Plan Nagusian (EBPN) finkatu dituzte euskararen normalizaziorako datoren urteotarako erronkak; beraz, plana badago. EBPNk egoeraren diagnosi orokorra egin ondoren arloz arlo hamar urterako erronka nagusiak definitzen ditu; hedabideen arloan ondorengo sailkapena egiten du: prentsa idatzia³, irratia⁴, telebista⁵ eta publizitatea⁶. Erakunde publikoak hasiak dira EBPN aplikatzen (gero eta udal gehiago dira beren herrian plana martxan jartzen hasi direnak, baina nahi baino astiroago doa prozesua). Garrantzitsua da planak egin eta martxan jartzea (EBPN dela edo normalizazioa ikuspuntu orokor batekin landu dezaketen bestelako planak), eta are garrantzitsuagoa da plan horiei behar besteko baliabideak eskaintzea, euskarari merezi duen dimentsioa emanez (hizkuntzaren normalizazioak behar beharrezkoak dituen urratsak egiteko zor diogun dimentsioa).

Hizkuntzaren erabilerari eragiteko burutzen diren jarduerak, berriz, egonkortasuna eta jarraikortasuna behar dute. Jarraipena izango duten egitasmoak antolatzea funtsezkoa da hizkuntza ohituretan eragin nahi bada, ekintza puntaletan gelditzeko arriskua handia da bestela.

Erakunde publikoek egitasmoetarako ematen duten finantzazioa dirulaguntza deialdietan arautzen da gaur egun (herriz gairako erakunde publikoek ari naiz batez ere). Egoera honek egitasmo guztiak lehian egotera behartzen ditu, jarraikortasuna izan behar duten egitasmoetarako lehiaketan egoteak arazo ugari dakartzalarik. Eredu horrek aldaketa baten beharra du beraz.

Gizarte ekimeneko erakundeek beharrezkoa dute beren jarduerak jarraikortasuna izan dezaten baldintzak izatea, eta zoritxarrez, gaur egun lehiaketa bitartezko laguntzek ez dituzte baldintza horiek bermatzen. Euskarazko hedabideek merkatuaren mugak gainditu ahal izateko laguntzak izatea garrantzitsua da, ondoren jarduera eta egitasmoak egoki kudeatu ahal izateko.

Egoera hauek gerta ez daitezten, eragile politikoek eta gizarte eragileek zer adostu eta hitzartua badugula deritzot. Aurkezten den elkarlanerako aukera honek ondorengo oinarriak izan beharko lituzke:

- Aginte publikoaren ordezkarri eta gizarte ekimeneko jardueretan ari direnen arteko harremanetik sortutako akordioa.
- Euskararen normalizaziorako dauden edo egon daitezkeen plan orokorretan erabilerari dagozkion ataletan oinarritutako akordioa (EBPN, BEAH edo beraien uztarketatik proposa daitezkeen plan berriren bat). Planak badaude, eta horien garapenerako egitasmoetan zehaztu behar dira.
- Euskararen normalizazio prozesurako funtsezkoak diren jarduera eta egitasmoak adostetik abiatzen den elkarlana. Elkarlanean aritzeko, estrategikoak izan daitezkeen egitasmoak definitzera heldu beharko luke interlokutoreek, eta horren arabera gauzatu harremana. Egitasmo estrategikoen definizioa beti ere hizkuntzaren eta hiztunen ikuspuntutik egin beharreko hautapena da.
- Estrategikotzat definitutako egitasmoen finantzaketa lehiaketaz kanpo bermatu beharko litzateke erakunde publikoen aldetik, kanpo faktoreek ez dezaten eraginik izan egitasmo horien jarraikortasunean.
- Elkarlanerako definitu ditugun oinarriko printzipioek akordio honetan ere aplikagarriak izan behar dute (autonomia, errespetua, interes komuna eta elkarrekin aritzearen abantailak). Printzipio horietako edozein apurtzeak elkarlanerako aukera guztiak zapuztuko lituzke.

Egitasmo estrategikoak definitzeko beharra azpimarratu behar da aurreko puntuetatik lehendabizi; hizkuntza-ren normalizazioan (ezagutzan eta erabileran batez ere) lehentasunezkoak izan daitezkeen egitasmoak zehaztu eta martxan jartzeko (edo jarraitzeko) beharra. Aipatutako plan orokorretan helburu eta lan ildo nagusiak zehaztuta daude, eta oro har adostasun zabala egon daiteke puntu horien inguruan. Ildo eta helburu horiek gauzatzeko eragi-leok badituzte egitasmoak, eta hori da orain eman beharreko pausoa: helburuetan ondo txertatzen diren egitasmo-ak gauzatzeko adostasuna lortu.

Ardura politikoak dituztenek ere euskararen garapenean urrats garrantzitsuak egiteko bidean, egitasmo strate-gikoei tratamendu berezia emateak dituen abantailak baloratu behar dituzte. Ikuspegi estrategikoa izatea denon ardura izango da. Esan bezala, egitasmo batzuk garrantzitsuegiak izan daitezke egitasmoen arteko lehiaketaren fun-tzioan uzteko, jarraikortasuna eskaini behar zaie eta epe luzerako perspektibarekin aztertu, horren araberrako trata-mendua emanez. Azter dezagun denon artean zeintzuk izan behar diren lehentasunezko egitasmo horiek eta egin ditzagun "hitzarmen estrategikoak". Elkarlanerako printzipioak aipatzean interes komuna eta elkarrekin aritzearen abantailak azpimarratzen ziren, eta hemen ere argi ikusten dira:

- Batetik, erakunde publikoei normalizazio plan orokorretan jasotzen diren erronkak bete ahal izateko modua eskainiko zaie (gizarte ekimeneko erakundeek egiteak suposatzen duen abantaila guztiekin). Ez da ahaztu behar gizarte ekimena administrazioa baino askoz biziagoa eta arinagoa dela, eta horrek egi-tasmoak gauzatu ahal izateko onura dakarkie erakundeei.
- Bestetik, gizarte ekimeneko jarduerak burutzen dituzten erakundeei (egitasmoak gidatzen dituztenei) egonkortasun eta lasaitasun handia eskaintzen zaie, egitasmoak patxadaz eta etorkizunerako ikuspegi argiarekin burutu ahal ditzaten. Ziurtasun eta egonkortasun ezak buruhauste ugari dakarkie gizarte eki-meneko erakundeei, eta egitasmoak beti zalantzan izatea.

Elkarlaneko aukera bat da hau, proposamen edo eskari xume modura aurkeztua, baina beharbada garatu ahal izateko denok lan egin beharko duguna.

Elkarlanaren indarrean sinesten dugunok proposamenak gauzatzeko esperantzarekin jarraituko dugu, baina horre-tarako eragile guztiek beraien aldetik zerbait jarri behar dute. Garrantzitsuena elkarlanaren zentzua eta printzipio-ak sinetsi eta onartzea da, gehiegitan gertatzen baita elkarlanaren aitzakian parean dagoen kidearen erabakietan era-gin nahi izatea. Eta elkarlana elkar-jana bihurtzen denean, dena ezerezean gelditzen da: helburuak, ilusioa, lana, gogoia eta konfiantza.

Oharrak

1. <http://www.joxemi.org> web orritik jasotako informazioa

2. “Elkartea izateko, bi baldintza bete behar dira: a.) Antolaketa egonkorra, oso txikia izan arren, nolabaiteko formalizazio maila duena, kideen arteko harremanei dagokionez; gainera, interes komuneko irizpideak finkatzen dira, elkarturiko pertsona guztientzat eta ez da irabazirik (hobaririk) banatzen. b.) Elkarteko jarduerak nolabaiteko eragin publikoa izatea nahi da, eta, horretarako, ekintza publikoak gauzatu, mezuak bidali edo kanporako irekiera egiten da.” EAE-ko Gazte-elkartegintzaren liburu zuria 2003. Eusko Jaurlaritza. Kultura saila. 2003

3. VI.3.3.b. Prentsa idatzia: Komunikabideen garrantzia gero eta handiagoa denez, euskarazko komunikabideak hizkuntza-normalizazioaren arlo estrategikotzat jo behar ditu administrazioak, baita euskarazko prentsak horretan zer paper jokatu behar duen erabaki ere, eta horren arabera laguntzak eskaini.

Jokaera enpresarial egokiaren aldeko apustua egin behar du prentsak. Produktu desberdinak eta merkatuan lehiatzeko modukoak eskaintzea ezinbestekoa du. Horretarako, besteak beste, inbertsioak egin behar dira azpiegituran. Gobernuak sektore ekonomiko bat dela onartu eta enpresa-trataera eman behar dio.

Euskarazko prentsak elkarlana bultzatu, baliabideei ahalik eta etekinik handiena atera, kalitatea hobetu eta produktu berriak eskaini behar ditu. (EBPN. Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila. 1999)

4. VI.3.3.d. Irratia: Entzulea erakartzeko interesgune bizi-bizikiak sortu, orain, garai batean ez bezala, irratiaz gain komunikaziorako eta entrenimendurako aukera ugari baitugu etxean.

Irratiko esatari-kazetari eta teknikari euskaldunen prestakuntza-plangintzak bideratu hizkuntzaren arloan batik bat.

Euskaraz bakarrik ari diren irradi guztien arteko lankidetzak bideratu hasi, adibidez, entzule berriak irabazteko kanpaina berezia antolatuz. Bide-erakusle izan daitezke Iparraldeko Garapen Kontseiluak Baionako *Gure Irratiari*, Donibane-Garaziko *Irulegiko Irratiari* eta Mauleko *Xiberoko Bozari* eskatu berri dena: hiruren artean sei orduko programazio bateratua garatzeko.

Irrati euskaldunen eta euskara ikasten ari direnen arteko harremanak erraztu. (EBPN. Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila. 1999)

5. VI.3.3.e. Telebista: Aisialdian euskararen erabilera ziurtatzea nahi badugu ezinbestekoa da telebista orokorra egitea: familia osoarentzako programak, irekiak, denontzako modukoak, jende guztiarengana heltzeko modukoak eta arrakastatsuak.

Euskarazko sorkuntza-munduarekiko harremanak zuzendu eta komunikazio-bideak eraiki behar ditu *ETB*iek: kultur saioak, gazte-musika, tertulia literarioak, euskal musika, kantua, antzerkia eta abar.

Telebista-eskaintzan datorren aldaketa dela eta, estrategia eta ildo berriak begiz jo behar dira, epe laburrean, erdarazko telebistak oraindik ere are nagusiago izango baitira.

Euskararen tradizioan oinarriturik, telebistako testuak errazten eta gozoago bihurtzen jarraitu.

Helburu estrategikotzat umeak, gazteak eta euskalduntze-alfabetatzeko ikasleak hartu behar ditu Euskal Telebistak.

Nahiz teletestuaren bidez nahiz telebista Internetekin lotuta, hizkuntzari buruzko saioak egin: ikastaroak, lehiaketak, aholkuak, galde-erantzunak, umeentzako saioak eta abar.

Euskarazko herri-telebisten garapen-markoa lantzeko lan-ildo bat martxan jarri behar da, proiektuok bultzatzen ari diren eragile sozialetan eta erakunde publikoen artean. (EBPN. Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila. 1999)

6. VI.3.3.f. Publizitatea: Euskaldunen merkatua eta honen kontsumo- eta errentagarritasun-ahalmenak aurkeztu publizitate-prozesuko eragileei (enpresa eta publizitate-agentzia handiei batez ere) Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak, EITBk eta Euskararen Gizarte-Erakunde Kontseiluak, ahulezietan aipatutako “inertzia”, “errentagarritasun eza” eta “konnotazio negatiboak” neurri batean behintzat neutralizatzen.

Uste ezezkorrak, ohiturarik ezarena, errentagarritasunik ezarena eta abar gainditzeko publizitatea euskaraz egiteak dituen abantailak agertzen saiatu.

Herri-erakundeek euskarazko publizitatearen alde jarri, publizitate-prozesuko eragilean ondoan. Areago, euskarazko komunikabideak gizartearen begietarako edertzeko lana ere egin beharko lukete.

Enpresa-estrategia erakargarriak eta eraginkorrak jarri indarrean, enpresa publiko, erdi-publiko eta enpresa pribatu enblematikoak ere beren orrietan iragarle izan daitezten. (EBPN. Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila. 1999)

c. **ARROSA: IRRATIEN ELKARLANERAKO SORTUA**

Irantzu Jauregi
Arrosako lehendakaria

1. Zer da *Arrosa*?

Arrosa Irrati Ekoizpen Zentroa Euskal Herri osoko hogeitik gora irratiren elkarlan proiektua da. Gehienak irradi txiki samarrak eta maila lokalean edo ertainean (herria, eskualdea edota herrialdea) aritzen direnak. Irrati guztiek bere eguneroko lan eta izaerari eusteko borondatea izanik, komunean dituzten zenbait helburu eta jarduera indarberri-zeko asmoz elkartu dira proiektu honen inguruan.

2. Sorrera

2.1. Lehen urratsak

Herria Mugi! ekimenak, Joxemi Zumalabe Fundazioaren laguntzarekin, 2001eko udaberrian Euskal Herriko Herri Mugimenduen III. Topaketak antolatu zituen Barrian (Araba). Ekimen horretako Komunikazio lan taldeak proposatuta, Euskal Herriko irradi mordoxka bat deitu ziren planteamendu garbi batekin: irration arteko elkarlana areagotu eta gure baliabideei probetxu hobea ateratzeko ezer egin ote zitekeen hausnartzea.

Ahal zen deialdi zabalena egin zen, irradi libreak, tokiko irratia, udal irratia... Asmoa ez zen inori atea ixtea, baizik eta guztion artean zeuden aukerak aztertzea. Bertan bildutakoek hauxe garbi zuten:

- Irrati guztiak ezberdinak izan arren, hainbat behar eta nahietan bat egiten zenez, hortik zerbait abia zitekeela.
- Bereziki irradi libreen artean lehenago ere izan zirela koordinazio eta elkarlan saiakerak, eta asmo horrek bizirik zirauela.
- Baliabide teknologikoen lehen zailagoa zena errazten zutela eta aukera berriak zeudenez, horiek aztertzeko beharra zegoela.
- Komunikabideen eremuan egunetik egunera enpresa handiak nagusitzen ari zirela eta, gertuko komunikabideen esparrua ere bereganatu nahiko zutela jakinik, gertuko komunikazio horretan aritzen ziren euskarazko komunikabideek elkartu eta indartu beharra zutela, enpresa handiei aurre egingo bazieten.

Lehen bilkura izan arren, argi geratu zen elkarlanean proiektuaren bat abiatzeko gogoia eta nahia. Hau ikusita Joxemi Zumalabe Fundazioak berak ere bere koordinazio eta dinamizazio zerbitzua eskaini zuen, hasiera horretan laguntzeko. 2001eko ekainaren hasieran Hernanin egin zen bileran zehaztu ziren irratiek zituzten beharrak, eta horri erantzuteko sortu nahi zen egiturak beharko lituzkeen ezaugarrietako batzuk:

- Irrati bakoitzaren izaera errespetatu behar zuen, beharrei moldatzeko gaitasuna behar zuen izan.
- Egitura profesionala izan behar zuen, irratiei lan gehiago emango ez ziena, eta aldi berean lagungarri izango zitzaiena.

- Saio eta irriti produkzioen elkartruckerako eta koordinaziorako zerbait sortzea ondo legoke, horretarako inbertsio ekonomiko eta teknologiko handia egin behar izan arren, emaitzak mereziko luke.
- Egitasmoak berak eta bertatik sortutakoak Euskal Herria izan beharko luke erreferentzia eremua eta euskara hizkuntza.

2.2. *Arrosa*: izena eta izanaren jatorri

Aurreko urteetan ere Euskal Herria Zuzenean jaialdian Irulegi Irratiak deituta Frantzia eta Euskal Herriko irriti libreen topaketak egin izan zirela profitatuz, 2001eko jaialdian Arrosan egin zen egitasmo honen inguruan zebiltzan irratien hurrengo batzarra. Esku artean geneukan egitasmo honen izena ere bertan erabaki genuen, bide batez aurreko urteetako irratien arteko topaketa horiek gogoratuz: “*Arrosa*: Irrati Ekoizpen Zentroa”.

Arrosaren ekoizpenei dagokienez, proposamen zehatz bat jarri zen mahai gainean: Irrati produkzio gune profesional bat martxan jartzea. Gune honek, lau mailatako parte-hartzea izatea proposatu zen:

- Irrati korteen elkar trukaketa informatiboak ekoizten dituzten irratien artean, edota horrela nahi duten irratien artean.
- Material horrekin guztiarekin, eta beste zenbaitekin (mahai-inguruak, elkarrizketak, kolaborazioak...) Arrosak magazine bat ekoiztea egunero, nahi duten irratiek erabil dezaten.
- Material hori Internetez ere zabaltzea *Arrosak*.
- Programa komunak. Euskal Herri mailako hainbat ekitaldiren inguruko saio komunak egin zitezkeela pentsatu zen.

Gainera, Korrika zela eta proba egin berria zen eta 31 irratik aldi bereko zuzeneko saioa jartzea lortu zenez, honek aurrerantzean ere halakoak egin zitezkeela adierazten zuen.

Gune honek eskaini zitzakeen aukerak, irratien egoera teknologikoa eta borondatea eta finantzabideak aztertzeko lan talde bat osatu zen, urte bukaerarako horren inguruko txosten bat egiteaz arduratuko zena.

3. Proiektuaren finkatzea

2002ko maiatzaren 25ean Andoainean egin zen batzarrean aho batez erabaki eta adostu ziren *Arrosa* Irrati Ekoizpen Zentroaren barne araudia, jarduera oinarriak eta proiektu komunikatiboa. Behin horiek adostuta, zehaztu ziren egitura, arduradunak eta baita ere zein irratik parte hartuko zuten proiektuan.

3.1. Abiapuntua

Honako irizpide eta printzipioetan bat egiten dute Zentroaren inguruan bildutako irratiek:

- Euskal Herriko lurralde eta herritar guztiak barne hartzen dituen emisio eremua osatzen duela beraien arteko uhinen loturak, eta Euskal Herriko Komunikazio Esparruaren beharra azpimarratuz, berau sortu eta bultzatzeko ahalegina egingo dutela.
- Irrati bakoitzak lehentasunezkoa duela berezko duen maila lokal edo ertaineko lanari eustea eta berori indartzea eta beste irratien laguntzarekin hedatzea. Beraz, gertuko komunikazioari lehentasuna ematen diotela, herritarrenganako duen hurbiltasuna eta garrantzia azpimarratuz.
- Irratien arteko kohesioa zein konexioa areagotzeko beharra sentitzen dutela, komunikazio lan osoagoa jorratu eta eskaini ahal izateko.
- Euskal Herriko beste eskualde zein lurraldeetan garatzen den komunikazioa eta informazioa eskura izan nahi dutela, maila lokaletik zonalde ezberdinen arteko elkar ezagutza eta elkar hurbilketa bultzatzeko.
- Halaber, nahiz eta irriti bakoitzean euskararen presentzia neurri ezberdinekoa izan, euskara hutsezko produkzioa garatuko dela Zentroan.

Zentzu horretan *Arrosa* Irrati Ekoizpen Zentroa osatzea erabaki zuten irratik, aipatutako ideia eta proiektu orokor horiek bultzatzeko. Ideia horietan sakondu eta irratien helburuak garatzeko bidean, Zentroak eskainiko dituen zerbitzu eta ekoizpenen artean honokoak aurkitzen dira: irratien arteko korteen eta irratsaioen trukaketa; eduki sozial eta kulturalari lehenetsua emango dion eguneroko magazina; Euskal Herri mailako ekitaldi nagusien emisio komuna; internet bidez Arrosaren eta beronen bazkideen ekoizpenen hedapena. Horiez gain Zentroak dituen helburuei begirako bestelako produktuak ere landu, sortu eta garatuko ditu, horrela adosten bada.

3.2. Irrati parte-hartzaileak

Arrosa Irrati Ekoizpen Zentroa sortzeko urtebete inguru iraun duen prozesuan parte hartu duten, eta 2002ko maiatzaren 25etik aurrera proiektuaren parte izateko erabakia hartu duten irratia zerrendatzen dira segidan. Guztiak ere izaera eta jardun ezberdin eta aniztetoak dira, eta horrek balio berezia ematen dio proiektuari, bere aniztasunean aberatsago egiten duelako. Segidan doa, beraz, euren adostasuna adierazi zuten irratien zerrenda, nola euren frekuentzia, emisioen eremua eta, azterketak eginak diren kasuetan, entzuleria:

Irratia	Eremua
<i>Antxeta</i>	Txingudi badia
<i>Arrakala</i>	Lekeitio
<i>Arreta</i>	Ermua
<i>Beleix</i>	Sakana bailara
<i>Bilbo Hiria</i>	Bilbo aldea
<i>Eguzki</i>	Iruñerria
<i>Esan erran</i>	Basaburua
<i>Eup!</i>	Markina
<i>Euskalerrria</i>	Iruñerria
<i>Garraxi</i>	Altsasu/Sakana
<i>Gure Irratia</i>	Lapurdi
<i>Hala Bedi</i>	Araba osoa
<i>Herri Irratia</i>	Gipuzkoa eta Araba osoak
<i>Irratia.com</i>	Sarea

Irratia	Eremua
<i>Irulegi</i>	Nafarroa Beherea
<i>Karrape</i>	Leitza
<i>Matrailako</i>	Eibar
<i>Molotoff</i>	Hernanialdea
<i>Oiartzun</i>	Oiartzun
<i>Radixu</i>	Ondarroa
<i>Tas-Tas</i>	Bilbo aldea
<i>Txapa</i>	Bergara
<i>Txolarre</i>	Andoain, Villabona, Tolosa
<i>Uhinak</i>	Aiara aldea
<i>Xiberoko Botza</i>	Zuberoa
<i>Xorroxin</i>	Baztan, Bidasoa, Malerreka
<i>Zazpiki</i>	Elgoibar
<i>Zintzilik</i>	Errenteria -Oretea

Fitxa Teknikoa:

Irrati kopurua: 28

Frekuentzia kopurua: 49

Eremua: zazpi herrialdeak

Entzuleria kontrastatua: 164.000 (EGM, CIES eta Mediametriren arabera)

Entzuleria potentzial estrapolatua: 200.000 / 220.000

3.3. Helburu orokorrak, funtzioak eta Zentroaren eginkizun nagusia

Arrosa Irrati Ekoizpen Zentroa sortzeko bidean emandako eztabaidetan adostutako moduan, Zentroaren helburuak honakoak izango dira: Euskal Herriko komunikazio kohesioa bultzatzea, euskararen erabilera sustatu eta euskalkien ezagutza zabaltzea, Euskal Herriko irratien arteko harremanak sakondu eta haien arteko elkarlana bultzatzea, eta baliabideen (giza eta materialak) trukaketa sustatzea. Ondorioz, segidako funtzioak hartzen ditu bere gain *Arrosa* Irrati Ekoizpen Zentroak: Euskal Herriko komunikazioaren inguruan gogoeta eragitea, ikuspuntu sozialeko komu-

nikazio plangintza orokorra bultzatzea, irratien arteko harremana eman dadin bitartekoak eta tresnak sortzea, eta komunikazioa hobetzeko zerbitzuak sortzea eta horien inguruko aholkularitza eskaintzea.

Arrosa Irrati Ekoizpen Zentroa Euskal Herriko irratien artean elkarlana eta elkarrezagutza bultzatzeko zegoen beharrari erantzuteko sortzen da. Zentroaren sorrerak esperientzia eta ideiak trukatzea ahalbidedutako du. Era berean irratia indartzeko aukera emango du, baliabide ekonomiko berriak sortuz, daudenak hobeto erabiltzeko bideak jarriz eta ekintza komunak bideratuz.

Zentzu horretan beraz, eta laburbilduz, *Arrosaren* eginkizun nagusia honokoa da: Euskarazko Euskal Herriko Komunikazio-Esparrua sendotzea, maila lokal eta ertaineko irratien arteko elkarlanerako tresnak eskainiz.

3.4. Ekinbidea

Aipatutako helburuak erdiesteari begira, *Arrosa* Irrati Ekoizpen Zentroak euskararen normalizazioan eta Euskal Herriko Komunikazio Esparruaren alde lanean ari diren Euskal Herriko maila lokal eta ertaineko irratia indartzeari eta euren arteko elkarlana bideratzeari begira lan egiten du, euren artean ezberdintasun eta diskriminaziorik egin gabe, eta bakoitzaren izaera berezia gorde eta errespetatuz. Zentzu horretan *Arrosa* ez da irratien arteko lehia komunikatiboan kokatzen, guztiz bestela, irratien arteko komuneko alderdiak sendotzean baizik.

Beraz, irratia guztien ekarpenarekin osatutako tresna komunikatiboa da *Arrosa* Irrati Ekoizpen Zentroa. Bere ekinbidean ez du zuzeneko emisiorik izango (kontraktorik erabakitzen ez den bitartean, emisio komunetan mailan izan ezik), maila lokal eta ertaineko irratien horien ekimena baita lehenetsuz indartu nahi duena. *Arrosaren* aburua da maila hori indartuz erdietsiko dituela bere helburuak. Ekinbide nagusi honetan aurreikusten diren zeregin nagusiak bi dira: a) irratien arteko elkarlan esparruak areagotzea (Euskal Herri mailako ekitaldien emisio komunak bultzatuz edo irratien arteko irratsaio eta informazio trukea bideratuz, esaterako); eta b) irratientzako baliabide berriak eskaintzea (irratia guztientzako eguneroko magazina ekoiztuz, finantza baliabide berriak sortuz, irratiotan baliabide teknologiko berriak hedatuz edo irratientzako eta kazetarietzako formazio eta aholkularitza zerbitzuak eskainiz, esaterako).

3.5. Egituraketa

2002ko maiatzaren 25eko batzarrean onartu bezala, *Arrosa* Irrati Ekoizpen Zentroaren organoak honakoak dira:

- Zentroaren Batzarra izango da organo gorena. Bazkide guztiek osatuko dute.
- Zentroaren Administrazio Kontseilua izango da urteko egitasmoa eta Batzarraren gainerako erabakiak aurrera eramateko ardura izango duen organoa. Kontseiluak bere esanetara Idazkaritza eta Lan taldeak izango ditu, sortzen diren lanak bideratzeko. Lehendakariordeak, Idazkariak, Diruzainak, Lan taldeetako ordezkari batek eta bost Bokalek osatuko dute.
- Zentroaren Kontseiluaren Iraunkorra izango da Kontseiluaren eta Batzarraren gainerako erabakiak modu iraunkorragoan aurrera eramateko ardura izango duen organoa. Kontseiluak bere esanetara izango ditu Idazkaritza eta Lan taldeak, sortzen diren lanak bideratzeko. Iraunkorra osatuko dute, Administrazio Kontseilua osatzen duten kideen arteko haiek urtero erabakitako gutxieneko bost kideek.
- Lan taldeak izango dira aurrez zehaztutako organoen gainerako erabakiak aurrera eramateko ardura izango dutenak, funtzio eta lan banaketaren arabera egituraren oinarrituta.

3.6. Diru iturriak

Nahiz eta oso argi izan proiektuak bere burua finantzatzeko bideak aurkitu behar genituela aurrera egin ahala, hasiera batean hainbat elkarte eta erakunderen diru laguntzak izan genituen hau guztia martxan jartzeko. Diru laguntzak erakunde eta elkarte hauetatik jaso genituen: Udalbiltza, Piztu elkarte, Euskadi eta Akitania arteko Lankidetzaren Funtsa eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila. Horretaz gain ezin ahaztu Joxemi Zumalabe Fundazioak ere hau guztia

martxan jartzeko bere koordinazio eta dinamizazio zerbitzua eskaini zigula hasierako memento haietan eta ordutik ere uneoro laguntzeko prest agertu dela. Herri Aldizkarien Topaguneak gestoria eta aholkularitza zerbitzua eskaini digu urtebetean.

Bazkideen kuotak: *Arrosako* bazkide garen irrati gehienok diru iturri mugatu samarrak ditugula kontuan izanda, badakigu kuotak ere ezin duela oso altua izan. Beraz nahiz eta helburua irrati guztiek kuota ordaintzea izan, praktikan jakina da diru iturri mugatu samarra izango dela hau.

Ekoizpenak: Nahiz eta argi izan ekoizpen zentroan egin daitezkeen soinu deiak, audio produktuak eta audio zerbitzuak aurrera begira diru iturri izan daitezkeela, hasiera batean gutxi landutako bidea izan da.

Soinu dei eta ekoizpen batzuk saldu izan ditugu, baina aurrera begira gehiago jorratzeko bidea litzateke.

Publizitatea: Aurrekoa bezalaxe, aurrera begira lantzeko diru iturria izan daitekeela uste dugu, baina orain artean etekin gutxi atera diogu.

3.7. Baliabide materialak: ekoizpenerako estudioa eta zerbitzaria

Behin egitura, proiektua eta izaera adostuta, ondorengo pausoa oraingoz proiektu huts zena errealitate bihurtzea izan zen. Beraz hori guztia martxan nola jarri erabaki behar zen. Ordurako argi zegoen proiektuak bi zutabe izango zituela:

- Ekoizpen Zentroa: Andoaingo Martin Ugalde Kultur Parkean bi modulu alokatzea erabaki zen. 2002ko urrirako bertan *Arrosaren* bulegoa eta estudioak jarri ziren. Bertan egin ahal izan ziren Ostarteko Balakoa magazina eta beste hainbat ekoizpen (soinu-deiak, elkarrizketak...). 2002ko abenduaren 14an izan zen inaugurazioa.
- Zerbitzari nagusia: irratien arteko irratsaio eta korteen trukaketa bideratzeko sistema informatikoaren zerbitzari nagusia da bera. Beraz, horretarako egokitutako ordenagailua eta sistema informatikoak biltzen ditu. *Arrosaren* Bulego Teknikoa litzateke. *Arrosako* gainontzeko ekoizpenez gain, irrati bakoitzean sortutako irratsaioak, elkarrizketak, soinu-deiak, korteak... irratien artean zabaldu eta guztion eskura jartzeko erabili nahi zen tresna zen hau. Hasieratik argi zegoen Gasteizen kokatuko zela. Miñanoko parke teknologikoan bulego bat alokatzeko saiakerak egin ziren arren, azkenean ez zen bertan kokatu.

Irrati bakoitzaren ekipamendua

Arrosako irrati gehientsuenek ere inbertsio teknologikoak egin behar izan dituzte *Arrosaren* eguneroko jardunean sartu ahal izateko. Irratiak pixkanaka egiten ari dira aldaketa horiek, bakoitzean inbertsio maila ezberdina egin behar izan da gainera.

Adibidez, Internetarako konexioa egin ahal izateko (barne mailako irratsaio, korte eta abarren trukaketa egiteko), irrati bakoitzak honoko ekipamenduak ezarri behar izan ditu estudio bakoitzean: oinarrizko ADSL konexioa (jaisteko 256K/ igotzeko 128K), Sarearen sarbiderako ordenagailua (barneko FTP pribatuarekin) eta irrati bakoitzaren automatizaziorako sistema (ordenagailu arrunta izan daitekeena, honako funtzioekin: programa ezberdinen grabazioa, audioaren edizioa, musika zein soinu deien emisioa, aurre-grabazioak zein errepikapenak programatzeko...). Laburbilduz, bi soinu txarteleko ordenagailu bat eta soinu txartel bateko ordenagailua (automatikoki emititu ahal izateko) ezarri behar izan ditu irrati bakoitzak bere estudioetan.

Emisio komunak edo unean uneko irratien arteko zenbait truke egin ahal izateko aldiz, uhinen bidezko loturak egin behar dira eta horretarako, sintonizadore/etxeko hartzaile digital bat behar da irrati bakoitzean, nahasketa mahaiari lotua eta seinalea jasotzeko antena egoki batekin.

3.8. Profesionalizazioa: soldatapeko langileak

Aurrerago esan bezala, hasiera-hasieratik garbi zegoen proiektuak aurrera egingo bazuen izaera profesionala behar zuela izan, alegia, soldatapeko langileak beharko zirela hori guztia aurrera ateratzeko.

2002 hasieratik pertsona bat hartu zen koordinazio lanak egin eta irrati bakoitzaren egoera teknologikoa aztertzeko, baina 2002ko udan soldatapeko hiru langile hartzea erabaki zen. Nahiz eta printzipioz urtebeterako kontratua egin, Administrazio Kontseiluaren esku egongo zen soldatapeko langileen lanaren jarraipena egitea eta Batzarri horri buruz unean uneko proposamenak edo aldaketak aurkeztea.

Hauek dira soldatapeko langileei ezarri zitzaizkien egitekoak:

- Bulego Teknikoaren arduraduna: proiektuak funtziona dezan beharrezko den instalazio teknikoa ezarri eta beronen funtzionamendua bermatzeaz arduratuko da. Zehaztuz, batetik, bazkide diren irrati diagnostiko teknologikoa burutu beharko du eta irrati bakoitzean beharrezko diren ekipamenduak ezartzen lagundu irratiari. Bestetik, bere ardura eta zeregina izango da Gasteizko Zerbitzari Nagusia ezartzea eta ondoren bere esku geratuko da sistema osoaren operatibitatea probatzea eta sistema osoaren funtzionamendu egokirako beharrezko diren aldaketa teknologikoak egitea. Bere lantokia Gasteizen izango du. 2002ko ekainean hasi zen lanean.
- Koordinatzailea: bere egitekoa da Zentroaren proiektu eta ildo guztiak ezarritako epean eta moduan (plangintzaren arabera) beteko direla bermatzea. Aldi berean, plangintza ekonomikoaren jarraipen estua egin beharko du (atal honen barruan, bereziki, eskatutako diru laguntzen jarraipena eta autofinantzaketarako iturrien garapena ziurtatu beharko ditu). Koordinatzaileak *Arrosari* egingo zaizkion eskari anitzak dagozkion pertsona eta organoetara bideratu beharko ditu eta, zentzu horretan, bereziki Iraunkorraren bileren prestakuntzaz arduratu beharko du. Modu berean, Administrazio Kontseiluan esku hartuko du, koordinatzaile gisa eta Zentroaren langileen ordezkari gisa.

Aldi berean, koordinatzaileak ardura berezia izango du *Arrosaren* ekoizpenen editore gisa (eta, beharrezko balitz, baita esatari gisa ere). Honetaz gain, beharrezko den gutzietan *Arrosaren* jendaurreko ordezkari lanak ere egin beharko ditu, nahiz eta lan horretan arituko diren Lehendakaria eta Administrazio Kontseiluko zenbait kide ere. Emisio komunetan kasuan koordinazio lanak ere bere bizkar egonen dira. Bere lantokia Andoaingo egoitzan izango du. 2002ko uztailan hasi zen lanean.

Kazetaria: Zentroak erabakitako produktuak ekoiztea eta beronen kalitatea eta eskuragarritasuna bermatzea izango da bere egitekoa. Kazetariaren funtzioak, beraz, erabat produktuei lotuak dira. Ekoizpen bakoitzaren edukiak eta trataera prestatzea eta lantzea, ekoizpen bakoitza irratiaren eskura garaiz egongo dela ziurtatzea, ekoizpenen hobe-kuntzarako diren erabakiak hartzea edota Administrazio Kontseiluak zein Batzar Orokorak har ditzaketen ekoizpenen gaineko erabakiak gauzatzea izango dira bere funtzio nagusiak. Aldi berean ekoizpen horiek gauzatzeko egin beharko diren harremanen ardura hartuko du bere gain. Alde horretatik, Zentroaren ekoizpen anitzak sortzen lagunduko duen laguntzaile sarea sortzeko eta mantentzeko lanak egin beharko ditu. Zentroaren audio eta ekoizpenen artxiboa zaindu eta gordetzeaz ere arduratu beharko du kazetariak, eta ekoizpenen bideragarritasuna bermatzeko beharrezko den materialaren gaineko kontrola ere eraman beharko du. Modu berean, Zentroak erabakitzen duen ildo editorialaren bermea izan beharko du ekoizten den produktu bakoitzean. Ekoizpen lanetan koordinatzailearen laguntza izango du kazetariak. Bere lantokia Andoaingo egoitzan izango du. 2002ko irailean hasi zen lanean.

3.9. Ekoizpenak

Idea sortu eta lehen urratsak egin genituenetik hasi ziren *Arrosako* irratiak hainbat emankizunekin. Horixe baitzen guztion nahia, elkarlan horren emaitzak lehenbailehen jasotzen hastea. Hauek izan ziren *Arrosak* hilabete haietan ekoizpen mailan emandako emaitzetako batzuk:

1. Guztion arteko emankizunak

Arrosa sortzeko ideia sortu zen lehen bilera hartan jabetu ginen, halako emankizunak egiteko aukeraz. Garai hartan *Arrosaren* bueltan 30en bat irrati genbiltzan. Loturak modu batera edo bestera eginez, Euskal Herri osoko irrati mordoxka batean saio bera entzutea uste baino errazagoa zela jabetu ginen. Lehenik eta behin aurrez grabatutako saioak egin genituen, baina pixkatera zuzeneko saioak egiten ausartu ginen, egon zitezkeen arazo teknikoei aurre eginez. Hauek izan ziren ekitaldi hauen inguruan egin ziren emankizunetako batzuk: 2001eko udaberrian, Korrika 12ren jarraipena egin zuten 31 irratik; 2001eko maiatza, Herri Urrats zela-eta egindako zuzeneko saioa; 2001eko iraila, Lodosan Nafarroa Oinez egin zenean, *Euskal Herria Irratiak* eginiko emankizuna zuzenean hartu zuten irrati mordoxka batek; 2002ko otsailaren 8a, Iruñeko Anaitasuna kiroldegian *Eguzki Irratiak* antolatutako jaialdia zuzenean entzun ahal izan zen hainbat irrati-tan; 2002ko abenduaren 6a, Durangoko azokatik bertatik *Ostarteko Balkoia* magazin berezia eskaini zen zuzenean; 2003ko otsailaren 27a, *Euskaldunon Egunkariaren* itxiera zela-eta *Arrosa* Irrati Ekoizpen Zentroko estudioetan egindako irratsaio berezia jarri zuten 22 irratik; 2003ko udaberria, 13. Korrika, hasiera eta bukaerako ekitaldiak zuzenean emititu emankizun komun bidez.

2. *Ostarteko Balkoia* magazina.

2002ko urriaren 21etik 2003ko otsaila bitartean astelehenetik ostiralera egunero ekoiztu zen magazin hau Andoaingo estudioetan. Mikel Peruarena eta Aitziber Perez de Karkamo, *Arrosako* koordinatzailea eta kazetaria hurrenez hurren, izan ziren Euskal Herriko gizarte eta kultur gaiak biltzen zituen magazin honen egile eta esatariak. Artea, literatura, mendia, musika, antzerkia, filosofia, zinemagintza, ekologia eta beste zenbait gairen inguruan informazio gaurkotua eskaintzeko kolaboratzaile mordoak hartzen zuen parte. Euskal Herri osoko gaiak lantzea zen helburua, tokiak tokiko euskalki eta hizkerak mantendu eta lurraldeen arteko oreka helburu izanda.

Saioa goizez egiten bazen ere, arratsalderako prestatuta zegoenez, arratsaldeko 15:00etan edo 16:00etan jartzen zuten zortzi irratik egunero: *Xiberoko Botza*, *Gure Irratia*, *Antxeta Irratia*, *Hala Bedi*, *Irulegi Irratia*, *Txolarre Irratia*, *Bilbo Hiria* eta *Zintzilik Irratia*. Horretaz gain interneteko web orrietan entzungai zegoen on-line.

3. Irratsaioen bankua

Irratiek beraiek sortutako irratsaio, elkarrizketa eta dena delakoien elkartrukeari ere garrantzi handia eman diogu *Arrosan*, jakinik irrati batean egindakoak beste batean entzungai izateak sekulako aukerak ematen dituela. Hau martxan jartzeko ordea Gasteizko Zerbitzariak martxan egon behar du. Hori bakarrik ez, irratiak ere teknologikoki prestatuta egon behar dute elkartruke hau erraz eta egoki egiteko. Denbora horretan ez zen hori guztia martxan jartzetik lotu.

4. Gizarte eragilean irratsaioak

Nahi duten elkarte edo gizarte eragileek irratsaio bat egin eta *Arrosako* irratiaren eskura jartzeko modua bilatzea izan da hasiera samarretik izan dugun beste helburuetako bat. Hainbat eragilerekin gaiak hitz egin zen, baina azkenean ez zen halako saiorik egin denbora horretan. Hauek izan ziren eragile horietako batzuk, halako zerbait egitean interesa erakutsi zutenak: Bertsolari Elkarte, Euskal Herriko Klimatologi eta Meteorologi Elkarte (EHKME), Joxemi Zumalabe Fundazioa, Ikasle Abertzaleak, Elhuyar, Takolo, Pirritx eta Porrotx, eta Kontseilua.

4. Proiektuaren birplanteamendua

Bi hitzetan esanda, gutxi gorabehera hauxe izan zen *Arrosa* Irrati Ekoizpen Zentroak 2001eko udaberritik 2003ko otsaila artean eginiko bidea.

2003ko otsaila bukaera aldera, egindako bidea baloratu eta aurrera begirakoak zehazten ari ginela, proiektuak aurrera egingo bazuen aldaketa handiak egin beharko genituela konturatu ginen. Zer dela eta? Honako honetaz ohartu ginelako.

4.1. Gastuak gutxitu eta diru iturri finkoak bilatu

Lokal aldaketa: *Arrosaren* bulegoa eta estudioak Andoaingo lokalean genituen eta Zerbitzaria berriz Miñaoko parke teknologikoan jartzeko asmotan genbiltzan. Bi kasuetan alokairua ordaindu behar genuen eta oraingoz gastu handiegia zenez, bi lokalak uztea erabaki genuen. Horien ordez ordaindu behar ez genituen bi kokaleku aurkitu ditugu: bulegoa Hernanin jarri dugu eta Zerbitzaria Gasteizen.

Langileen kontratua etetea. Nahiz eta guztiok argi izan *Arrosak* aurrerantzean profesionala behar duela izan, egoera hobetu artean langilerik gabe aritzea erabaki zen. Hala 2003ko martxotik orain arte ez da soldatapeko langilerik izan *Arrosan*. Guztiak ere erabaki zailak izan baziren, hauxe izan zen gogorrenetakoa. Honekin batera *Ostarteko Balkoia* irratsaioa ere eten egin zen.

Irratien bazkidetza kuotak. Garai berezi honetako gastu minimoei erantzun ahal izateko bazkidetza kuota jakin bat adostu genuen denon artean, jakinik proiektuak berriz indarra hartu ahala beste diru iturri batzuk ere bilatu behar ko direla.

4.2. Zerbitzaria eta irratsaioen bankua martxan jarri

Zerbitzaria martxan da. Hamar irratiz zerbitzaria erabiltzeko prestatuak dira eta erabiltzen hasiak dira. Irrati bakoi-tzaren ohiko jardunean sortutako hainbat irratsaio, soinu-dei, korte eta elkarriketa elkartrukatu dituzte hilabete hauetan. Horretaz gain, hilabete hauetan egin ditugun irratsaio berezi komunak irratiz horietan entzuteko ere erabili dugu. Beste hamar irratiz daude zerbitzarira lotzeko ezer gutxi falta zaienak. Horiek urrirako prest egongo dira. Beraz datorren ikasturtean zerbitzariari erabilera handiago emateko moduan izango gara.

5. Aurrera begirako erronkak

2003ko martxo hartatik urtebete zaila izan da *Arrosa* Irrati Ekoizpen Zentroarentzat, horretan ez da dudarik. Neurri zailak hartu behar izan ditugu, baina, zorionez, aurrera egiteko bidea bilatu dugu. Poltsikoan diru pixka bat hartuta eta aurten izandako eskarmentuarekin hasierako amets haiek errealitate bihurtu arte jarraitzeko indarrez gaude.

Datorren ikasturte honetarako helburuak argi samar ditugu:

1.- Zerbitzaria gure irratietako eguneroko tresna bilakatu

Zerbitzarira lotzeko moldaketa gutxi falta zaien irratiz horiek urrirako prestatuko ditugu, beraz 20ren bat irratiz izango dira zerbitzaria erabiltzeko erabat prest egongo direnak.

Irratsaioak elkartrukatzen hasiko gara, baina pixkanaka elkarriketa solteak, prentsaurrekoak... elkartrukatu ditugu. *Tas-Tas Irratiko* entzuleek Irulegi Irratiko irratsaio edo elkarriketak entzuteko modua egin nahi dugu, edo *Karrape Irratiko* entzuleek *Hala Bedikoak*, edo *Zintzilik Irratikoek Xorroxinekoak*...

Formazio ikastaro bat egingo dugu urte bukaeran: zerbitzariaren erabilera errazteko eta arazorik egonez gero oinarriko konponketak nola egin irratiz guztietako kideek ikas dezaten.

Hau eginda ere, badakigu ez dela erraza dinamika jakin bat duen irratiz bateko ohiturak aldatzea, badakigu zerbitzaria eguneroko tresna baliagarria bihurtzea ez dela egun batetik bestera lortuko, prozesu bat izango dela. Horrexegatik ikasturte honetan horretan jarriko dugu indarra, hori lortzeko moduak pentsatzen eta bideak errazten.

2.- Diru iturriak bilatu eta finkatu

Zerbitzarian zentratu eta hori martxan jartzeko adinako diru iturriak baditugun arren, ez dugu horretara mugatzeko asmorik. Irratiz sortu eta eskaini dezaketenez gain, *Arrosa* Irrati Ekoizpen Zentroak berak ere pixkanaka irratizentzako ekoizpenak egin behar dituela uste dugu: *Ostarteko Balkoiaren* gisako irratsaioen bat, informatiboak edo dena delakoa. Horretarako eta Zentroak berak sortuko dituen hainbat beharretarako

soldatapeko langileak egon behar dutela pentsatzen jarraitzen dugu. Diru iturriak bilatzeko ahalegina egin beharko dugu datorren ikasturte honetan.

3. *Arrosa* beraren egitura indartu eta koordinazioa erraztu

Hasiera-hasieratik izan dugun erroka da hau, haien parte-hartzea areagotu, eskaera maila neurri berean handitu dadin. Bestetik, badakigu hau pixkanaka lortuko dela, irratihorien programazioetan *Arrosa* bidez lortutako irratsaio edo irratiekoizpenak gehitu ahala.

Hauek dira ikasturte honetarako ditugun helburuak, bi hitzetan esateko. Horrek ez du esan nahi etorkizunerako asmo handiko helbururik ez dugunik, hastapenetan genituen asmo eta ideia berberekin jarraitzen baitugu:

- Gure herri txiki honetan irratigintzan erreferentzia bihurtu nahi dugu.
- Euskarazko Euskal Komunikazio-Esparrua indartzen gure ekarpena egin nahi dugu. Iparraldeko eta hegoaldeko komunikabideak biltzen dituen egitura gisa, horretan zer esanik badugula uste baitugu.
- *Arrosa* osatzen duten irratientzat berri agentziaren papera bete nahi dugu pixkanaka.

Gure proiektua hasi berri samarra da, aurrera begira aukera handiak eskaintzen dituen, baldin eta bidean asmatzen badugu. Horren jakitun gara. Ea asmatzen dugun ba.

d. HEDABIDE TXIKIEN DIBERTSIFIKAZIOA

Idurre Garcia Urberuaga
Anboto astekariko kudeatzailea

1. Sarrera

1993ko apirilak 23. *Erazeko* 0 zenbakia ateratzen da kalera. Hasieran, batez beste, 20 orrialde eta bi koloretan egingako aldizkari itxurako astekari bat ikusteko aukera daukate Durangaldeko biztanle denek. 3.000 harpidedun hamaika herritan sakabanaturik. Pixkanaka-pixkanaka ahaleginak handiagotzen doaz, laguntzak ere igotzen eta diru sarreak handitzen. Horrek aldizkariaren edukia hobetu egiten du, 28 orrialde izateraino; eta hasierako eta erdialdeko orriak kolorezkoak izatera ere iristen da.

Guztira 345 zenbaki, 11 urteko lana eta Durangaldeak izan ez duen euskarazko komunikabide idatzi baten lana merkatuan. Harrigarria, ezta?

Ibilbide horretan guztian hainbat lagun ibili izan da lanean: kazetari, publizista, administrari, kolaboratzaile, eta ikusten ez diren baina atzean dauden hainbat eta hainbat pertsona. Guzti horien helburua: euskarazko komunikabide idatzi bat astero ateratzea.

Denok dakigu gure gizartean gaztelerazko hainbat komunikabide martxan ditugula, bai idatzizkoak, bai ikus entzunezkoak. Baina euskarazkoei dagokienean, komunikabide mundua txikia izan da eta horri aurre egiteko, bai eta euskararen presentzia areagotzeko, *Eraz* bezelako aldizkariak ateratzea ezinbesteko laguntza izan zitekeela pentsatu zuten Durangaldeko euskara elkarteek. Izan ere beraiek bultzatuta eta lagunduta sortu zen eta arrakasta nabarmena izan zuen, denbora luzez ikusi izan baitugu lana.

Iragandako hamaika urte horien balorazioa egin eta gero, aldizkariak haize berri bat behar zuela ikusi zen: albisteentzate desberdin bat egin nahi zen, egitura aldatu, papera aldatu eta diseinu eta maketa berri bat jarri. Itxuraldaketa, hain zuzen. Horretan, *Anboto* sortu zen.

2. *Anboto*: Durangaldeko albisteak astero iragarriko zituen euskarazko astekaria

2001ko azaroaren 9an, lehen alea kaleratu genuen. Eragin horretan ere hainbat langile, kolaboratzaile, laguntzaile eta ikusten ez diren beste pertsona denak. Dagoeneko 2004ko azaroa da. Laugarren urtea merkatuan; *Anboto* astekariko hirugarren urtea.

Tokiko komunikabide munduan dabilen jendeak ondo daki nolako ahaleginak egin behar diren 24 orrialdeko astekari, hamaboskari edo hilabetekaria ateratzeko. Ni, *Anbotoren* esperientzia zein den azaltzera natorkizue.

Tokiko komunikabideek bizirauteko, bide desberdinak erabiltzen dituzte eta hoietako batzuk, diru-laguntzak eta publizitateak ateratzen den dirua dira. Guztiok dakigu gurea bezalako komunikabide batek erakunde desberdinen diru-laguntza ezinbestekoa duela. Zergatik diot hau? Beno, hasteko, gastelerazko komunikabide denek erakundeetatik diru-laguntzak jasotzen dituzte, txikiak edo handiak, baina ezinbestekoak direnak. Hor daude Eusko Jaurlaritza eta Foru Aldundiak behar diren laguntzak emateko. Ongi deritzot. Komunikabideak normalean ez dira oso buruaskiak izaten eta laguntzarik gabe ez lirerate existituko. Imajinatzen duzue komunikabiderik gabeko gizarte bat? Prentsa, telebista edo irratirik gabekoa? Erakundeek ere horixe bera pentsatzen dutela uste dut eta horren ondorioz beraiek ere atzean egon behar direla ezinbestekoa ikusten dute.

Baina zer gertatzen da euskarazko komunikabide bat eskuartean daukagunean? Guztiok ezagutzen dugu euskarak historian zehar jasan izan duen ezintasuna. Hau da: hainbat urtetan gure hizkuntza hitzegiterik ez zegoen. Eskolan debekatuta zegoen, kalean ere bai, eta, zer esanik ez, komunikabideetan. Kolpe gogor hori gizartean oso barneratuta geratu zen. Euskara baserrietan baino ez zen hitz egiten eta jendeak hizkuntza gutxitu gisa ikusten zuen. Egoera hori orain dela oso gutxi gertatu zen eta egia esan, gizartearen euskarari buruzko iritzia aldatzea astiro doan lana da; baina tira, badoa, guztiok egiten dugun lanari esker, alegia: erakunde, eskola, komunikabide eta gizarte-ari eskerrak.

Baina zer gertatzen da euskarazko komunikabide bat ikusten dugunean? Lehenik eta behin, esan gure inguruan erdal jende gehiago dagoela euskalduna baino, eta hori eragozpen bat da. Bigarrenik, orain arte euskara baserrietako albisteak emateko erabili izan da, eta garrantzi gutxiko albisteak emateko. Albiste ekonomiko, edo eta mundu mailakoak emateko orduan, guztiek gaztelera erabili izan dute. Hori aldatzea kontzientzi aldaketan datza, eta komunikabide bakoitzak egunero egiten duen lanari ere badagokio. Gu tarte horretan kokatzen gara: jendea euskaraz informatu nahi dugu, euskara bere egin dezan eta irakur-entzuten duen mementoan, arrotza senti ez dezan. Atzean dagoen iritzi eta egoera politiko soziala kontuan izanik, ez al da hori erronka izugarria? Argi dago, eta *Anbotok* esan ahal dizue, baietz.

Eguneroko kanpoko mundu horretan ahalegin izugarriak egin behar izaten ditugu astero-astero kalean 8.000 harpidedunengana heltzeko: kazetari, banatzaile, kolaboratzaile, publizista eta gainontzekook. Gainera, gure jendearengana heltzeko ahalegin horretan, euskara bultzatzeko ahalegin horretan, eta komunikabideen esparrua ahalik eta zabalena egiteko ahalegin horretan, *Anboto Irratia* sortu genuen, eta baita internet bidezko *Anboto* ere. Horrela, ez dago zertan asteroko albisteen zain egon: egunero entzun ahal direlako, edota irakurri ordenagailuaren aurrean. Batzuek zera galdetuko duzue: hori horrela izanik, zergatik ez da astekaria desagertzen? Eta orain nire galdera: *Radio Nacional* entzuten baldin badugu, *El País* egunkariak desagertu egin behar du? Ez ba. Komunikabide desberdinak dira, jende desberdin edo berdinerara heltzen direnak, baina bata eta bestea guztiz osagarriak. Telebista ere desagerrarazi egingo dugu irratia airean daudelako? Hori astakeria litzateke! Komunikabideak informazioa emateko jarioak izan dira eta funtzio hori betetzen dute. Beste kontu bat da nolako koloreak erabiltzen diren gaiak jorrazterako orduan. Baina hori beste eztabaida bat izango litzateke.

Hortaz, gaztelerazkoek dituzten laguntzak ikusirik, eta euskarak dituen mugak ezagutuz, euskal komunikabideek laguntzak jaso beharko litzukete, baina besteenak baino handiagoak, eragozpenak ere handiagoak dituztelako. Ezta? *Anbotoren* izenean biltzen diren produktuak hiru dira une honetan: astekaria, irratia eta web orria. Produktu lehiakor eta duinak ateratzen ahalegintzen gara, eta guzti horiek mantendu ahal izateko, hainbat gauza egin behar izaten ditugu: publizitatea lan erremintarik aipagarriena litzateke. Astekarian eta irratan bezero desberdinek bere izen komertziala jar dezaten ahalegintzen gara, baina horrez gain, gehigarri bereziak egin behar izaten dira: jaiak direla eta, nazioarteko egun bereziak, urteko data aipagarriengatik, azokak, eta abar.

Horrez gain, lan bereziak ere egin behar izaten ditugu: liburuxkatxoak, aparteko kazetari lanak, gida bereziak... Hau da: gure baliabideek uzten diguten gutzia. *Anboto* astekaria, edo irratia, edo web orria soilik ateratzearekin ezin daiteke bizi. Hala ere, publizitatearen diru iturria ez da nahikoa. Laguntzak ezinbestekoak dira. Bai erakundeena,

bai gizarte osoarena. Gizartea kontzientziatu behar dugu euskara erabiltzen, entzuten, irakurtzen, esaten, bizitzen. Bestela, zertarako hartzen dugu lan hau guztia?

Egin dezagun ahalegina! *Anbotok*, tokiko komunikabideek edo gainontzeko komunikabideek, beraien ahalegina egingo dute, baina guzti hori ez da ezer erakunde, gizarte eta idatzi honen irakurlearen laguntzarik gabe. Irakurle: gu eragileak gara, baina zu etorkizuna, euskara hain zuzen!

4. ERRONKA NAGUSIAK

4.1. HIZKUNTZA

- a. Euskara komunikatiboa
- b. Euskararen normalizazioaren erronka berriak:
komunikabideetako profesionalak eta hizkuntzalariak elkarlanean
- c. Kolokazioak euskaraz. Zer axola duten kazetaritzan

4.2. TEKNOLOGIA BERRIAK

- a. Bitartekaritzarik gabeko kazetaritza
- b. Informazioaren gizartea?
- c. Multimedia digitalaren erronkak komunikatzaile eta hezitzaileentzat
- d. Interneterako euskaraz landutako kazetari zerbitzu
integral baten proposamena

4.3. LANGILEA ETA LANBIDEA

- a. Ikus-entzunezko kazetarien lanbide profila
- b. Euskal kazetariaren lan baldintzak edota baldintza bako lana
- c. Hedabide txikiak ere, bagara

a. EUSKARA KOMUNIKATIBOA

Joxerra Garzia
EHUko irakaslea

1. Euskara, eta kito!

“Euskara komunikatiboa”, nire ustez, pleonasmu hutsa da, “neure begiz ikusi dut”, edo “entzun ezank belarrieta-tik”, eta horrelakoen pare-pareko pleonasmoa. Izan gaitezen serioak: euskara edo da komunikatiboa, edo deus ere ez da. Hori, berriz, hiperbolea izan daiteke, exagerazioa. Komunikatiboa ez den euskara izan bada zerbait: museo-ko pieza ikus- eta erakusgarria. Ez, ordea, baliagarria. Gure arteko gramatikari eta filologo guztien jainkoak ere, Koldo Mitxelenak alegia, horixe bera zioen:

“Hizkuntza bat, gurea nahiz inorena, ez da gizarteko mintzabide eta adierazpidea besterik. Ona da, beraz, elkarrekin mintzatzeko eta elkarri gogoetak adierazteko delarik, mintzatzeko eta adierazteko balio duelako; horrexegatik beragatik da ona haizkora zorrotza, ebakitzeko sortua delarik, eta haizko-ra amutsa, berriz, txarra. Gehi dezagun ez dela berez hizkuntza amutsik, horrelako hutsik ageri baldin badu, zorrotz zezaketen adina zorrotzu ez dutenena dela soil-soilik, errua, behiala Axularrek zioenez”.

Euskara ez-komunikatiboa, beraz, kirten dotoredun aizkora kamutsaren antzekoa da. Politza beharbada bai, bai-na ezertarako ez ona. Ez naiz aizkora kontuetan aditua. Hizkuntza, berriz, eguneroko tresna dut, aspaldi luzean. Ez naiz hizkuntzan aditua, baina bai aritua, eta horregatixe ausartu naiz zuen aurrerako pausoa egitera. Aritua izateak dakarren eskarmentua zuenganatzera nator, beraz, eta ez, inola ere aditua naizelako uste ustelean gauzak nola diren ex cathedra azaltzera.

Aizkorarena bezala, beraz, hizkuntza baten -gure kasuan, euskararen- ontasun maila bere eraginkortasunak ematen du. Hizkuntza kontuan, ordea, komunikaziorako egoki izatea baizik ez daiteke izan eraginkortasuna. Alegia: euskararen kalitatea ez dagoela erabiltzen diren adizkien distiran, gure diskurtsoak bere xedea iristeko duen gaitasunean baizik. Alde horretatik (eta, nire ustez ez dago beste alderik) euskara komunikatiboaz hitz egitea euskararen kalitateaz hitz egitea da, euskara ona komunikaziorako egokia dena baita, eta ez besterik. Euskara komunikatiboa eta euskara ona horrela berdindurik, euskararen kalitatearen inguruko hausnarketa izango da nirea. Eta, Euskararen Aholku Batzordearen aginduz osatu berria dugunez (Kike Amonarriz eta Andoni Egañarekin batera) Euskararen Kalitateari buruzko txosten bat, huraxe hartuko dut ardatz.

2. Kantitatetik kalitatera

Euskararentzat alor, eskualde eta hiztun berriak irabaztea izan da orain arteko kezka nagusia, eta hedatze lan horretan asko dago oraindik eginkizun. Orainsu arte kezka ia bakar izan dugun horri, ordea, hedatzen ari garen euskararen kalitatearena gehitu zaio azken urteotan. Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak ere (EBPN: IV.3.15) argi eta garbi ezartzen du kalitatearena une honetako lehentasunen artean: “IV.3.15. Corpus-plangintza eta euskararen kali-

tatea: Euskarak berak ere eguneratu eta egokitu beharra du, jakina, gaurko premietara eta arlo nahiz eremu berrietara. Izan ere, eguneroko jardunean euskara lan-tresna eta komunikazio-hizkuntza dutenen beharra handia da. Hori dela eta, euskal lexikoa bateratzeko eta finkatzeko lan handia egin da Euskaltzaindiaren gidaritzapean, eta egiteke dagoena burutzeko, berriz, baliabideak jarri dira. Orain arte burutu den guztia informatizaturik da, bestalde. Euskararen corpusaz arduratzen diren erakundeek eta elkarteek duela gutxi arte ez zuten gaitasun-maila erdietsi dute, beraz. Hala ere, norberaren hizkera ez da baztertu behar eguneroko bizitzatik, hizkuntza zuzenagoa eta egokiagoa erabiltzen baitu nork bere euskalkian. Besteak beste, ez dezagun ahantz, euskararen eta euskarazko baliabideen kalitatea hobetzeko apustua irabazi behar da urteotan”.

Euskararen egoeraz alde edo moldez arduratzen direnen -edo garenon- artean kalitatea gero eta sarriago aipatzen den arren, ordea, ez dirudi denok gauza bera dugunik buruan “euskararen kalitatea” aipatzean. Aitzitik, bakoitzak bere erara ulertu eta erabiltzen du kontzeptua, eta horrela, bistan denez, nekez iritsiko gara elkar ulertu, diagnostiko zehatza egin eta arazoa konponbidean jartzeko hartu beharreko neurriak adostera.

Ohartzen gara, noski, “kalitate” hitza erabiltze hutsak albo kalte larriak sorraraz ditzakeela. Besteak beste, norbaitek uste izan dezake euskararen gramatika arauak guztiz eta erabat menderatu arte isilik egotea proposatzen ari garela hemen, eta horrek, jakina, bat baino gehiago atzendu egingo luke dakien euskara -ona, erdipurdikoa zein kaxkarra- erabiltzetik, eta horixe litzateke euskararen kalitateari egin genezaiokkeen kalterik handiena. Txosten honetan, izan ere, euskararen kalitatea euskaraz komunikatzeko gaitasunarekin lotzen baitugu nagusiki: euskararen erabilerarekin, alegia, azken batean, argi eta garbi baitugu erabilera dela hizkuntzaren kalitatearen oinarri.

Beraz, eta labur azalduta:

1. Hitzun masa kritiko gutxieneko bat segurtatzea izan da euskararen inguruko kezka nagusia. Horretara bideratu dira nagusiki hizkuntz politikak eta euskaltzaleen ahalegina. Nekez kritika daiteke jarduera hori. Kantitate eta hitzun masa kritikorik gabe, alferrikako bitxikeria baino ez dira hitzun bikainak. Egin beharreko lana zen hori, eta, neurri handi batean, arrakastaz egin da, euskararen ofizialtasunari esker hizkuntz politika koherenteak ezartzeko modua izan den eskualdean behintzat (EAEn, alegia, gauzak okerrago baitoaz, tamalez, Nafarroan, eta are okerrago Iparraldean).
2. Egoera minoritarioan dagoen hizkuntzaren hedapenak berarekin dakar hedatzen den hizkuntzaren “kalitate”aren galera nolabaitekoa. Galera horrek bi eragile mota ditu:
Kanpokoak, normalizazio prozesu orori berez edo dagozkionak. EBPNeK dioenez (4.4.15): “Euskaldunen kopurua gehitzeak badakar, neurri batean, kalitatearen galera, erdararen kutsaduragatik bereziki”. Barrukoak, orain arteko gure jardunbideari dagozkionak. Koldo Izagirrek aspalditxo (1981ean) zioen bezala: “Lizardik baino prosa “hobeagoa” idazten du gaur edozein gaztek, baina inork ez du haren grazia... /... Mintza eta idazketa korrekto bat ahalegindu gara egiten, estilorik gabeko bat, ihardun neutro bat, mintza eta idazketa inuzentaren bila. Eta beharrezkoa zen. Bizitasuna sakrifikatu behar zen korrektotasunaren truke, euskara biziko bazen”.
3. Izagirreraren hitzok 1981ekoak badira ere, esan liteke kalitatearen inguruko kezka ez dela 1997ra arte nagusitu. Esanguratsua da urte horretakoak izatea Ibon Sarasolaren “Euskara Batuaren ajeak” eta Juan Garziaren “Joskera Lantegi” . Aldez edo moldez, darabilgun euskararen kalitatea da bi lanotan kezka nagusia: lexikoa Sarasolarenean eta joskera Garziarenean.
Komunikabideen jardunari begira egituratu izan da sarri kalitateari buruzko kezka (*Euskaldunon Egunkaria*, EiTb, Tokian Tokiko Prentsa, Zubimendi-Esnal...).
4. Azkenik, punta-puntako idazle eta pentsalariak ere beren ekarpena egin diote eztabaidari (Lertxundi, Sazarbitoria, Salaburu, Zuazo, Izagirre, Aranbarri...).
4. Badirudi, beraz, kalitatea dela gaur egun euskararen inguruko kezka nagusietako bat, nahiz kantitatean oraindik ere asko dagoen egiteko (hitzun, eskualde eta alor berriak irabazi beharra). Baina, oro har, nekez eztabaida liteke, hedatze lan horrekin batera, hedatzen ari garen hizkuntzaren kalitatea zorrotz zaindu behar dugula, beharrezkoa izan arren

3. Euskara ona zer den

“Kalitatea”, kontzeptu lauso eta nahasia da hizkuntza kontuetan. Aski da kalitateaz dihardutenen lanak irakurtzea horretaz ohartzeko. Hona hemen “kalitate” hitzari eman izan zaizkion adiera zenbait:

- Bizitasuna da kalitatea. Aurkakoa, berriz, zuzentasun gramatikal hutsa (*Izagirre, Lokuzioak*).
- Hizkera bero eta hurbilean dago kalitatea. Aurkakoa, hotz eta arrotza (*Zuazo, Sendabelarrak*).
- Erraz eta ulergarri dena da kalitatekoa (*Zubimendi eta Esnal, Idazkera Liburua*).

Guztiarekin ere, “kalitateaz” dihardugunean, arriskurik handiena zera da: hizkuntza kalitatea paradigmatic, gramatika hutsetik kontsideratzea. Tamalez, hori da, salbuespenak salbu, eskolan eta hedabideetan dabilen eredu.

Hizkuntza kontuetan, ordea, kalitatea eraginkortasuna da, eta ez besterik, Koldo Mitxelena argi eta garbi zioen bezala: “Hizkuntza bat, gurea nahiz inorena, ez da gizarteko mintzabide eta adierazpidea besterik.

Ona da, beraz, elkarrekin mintzatzeko eta elkarri gogoetak adierazteko delarik, mintzatzeko eta adierazteko balio duelako; horrexegatik beragatik da ona haizkora zorrotza, ebakitzeko sortua delarik, eta haizkora amutsa, berriz, txarra. Gehi dezagun ez dela berez hizkuntza amutsik, horrelako hutsik ageri baldin badu, zorrotz zezake ten adina zorrotzu ez dutenena dela soil-soilik, errua, behiala Axularrek zioenez”.

Hizkuntza kalitatearen parametroak, beraz, ez daude hizkuntza barruan, kanpoan baizik. Hizkuntza, ezer izatekotan, tresna da lehenik eta behin: norberaren baitan eta inorengan eragiteko tresna. Horretarako balio ezean, alferrikakoak dira gainerako guztiak, paradigmak barne.

Gazteei gagozkiela, euskarak ez badio balio gazteari bere barrua lasaitzeko eta bere kideengan emozioak eragiteko, euskara hori ez da kalitatekoa izango, zurtoina baino zuzenagoa edo “gatz larria” baino jatorragoa izanik ere. Hizkuntzaren kalitatea eraginkortasunean jarrita, urrats handia egingo genuke, bide batez, motibazioaren alorrean. Hala eta guztiz ere, horrek ez gintuzke eraman behar kalitatearen gainerako alderdiak baztertera. Eragin korraz gain zuzena eta jatorra bada, hainbat hobe.

Kalitate integrala litzateke hori, eta horrek behar du izan, bistan denez, helburu. Euskara ona deituko diogu txosten honetan horri.

4. Kalitatearen mailak

Kalitatearen alderdi guztiak eredu bakarrera biltzen hasita, Ibon Sarasolak proposatutakoa iruditzen zaigu erudirik baliagarriena. Sarasolak hiru maila aipatzen ditu hizkuntzaren kalitatearen barruan: zuzen, on, egoki.

Lehena bere horretan hartuko diogu Iboni. Bigarrenean, *on* hitza erabili beharrean *jator* hitza erabiliko dugu, ideia hauek han-hemenka azaltzerakoan, “Euskara Ona” kontzeptuak sortu dituen gaizki ulertuak saiheste aldera. Egokitasunari dagokionez, aldiz, hitza hartuko diogu Sarasolari, edukia aldatuak.

Hauek lirake, beraz, euskararen kalitatearen hiru mailak: ZUZENTasuna: Euskaltzaindiaren arauen arabera euskara da zuzena, arau horiek aplikagarriak diren egoera komunikatiboetan. Ortografia, joskera, ahoskeran... maila askotan daragi zuzentasunak.

JATORtasuna: Euskararen senaren edo usadioaren arabera euskara jatorra. “Entrenatzailea zirkunstantzia aurpegiarekin atera zen aldageletatik” euskara zuzena izan liteke akaso, baina ez da jatorra. “Entrenadoriek

halamoduzko aurpegixaz urten zeban bestuarixotik”, aldiz, jatorra da, nazio mailako egoera formaletarako zuzena ez izan arren. Ideala, esan dugun moduan, zuzena eta jatorra izatea litzateke.

EGOKItasuna: Bere xederako egokia dena da euskara egokia, eta, Mitxelenak zioen bezala, hizkuntzaren xedea eragitea da batez ere. Egokitasun kontzeptu honetan txertatzen dugu, beraz, eraginkortasunaren alderdia, nahiz jakin batzuek (Esnal eta Zubimendik, esaterako) guk “jator” esaten diogunari esaten diotela “egoki”.

Bereizkuntza lexikoaz haratago, euskararen kalitatea bermatzeko ahaleginean irizpideak argitzeko modua eskaintzen digu eredu honek, eta komeniko litzateke horren inguruan adostasun zabala lortzea. Orain arteko ahaleginean, oro har, zuzentasunari eman izan zaio lehentasuna, eta hurrena jatortasunari.

Horrek, besteak beste, eredu estandarretik urrutiko hizkera darabilten hiztun egoki askoak konplexuz betetzeko balio izan du, eta bada ordua Saizarbitoriak dioena aintzat hartzeko: “Esan dezadan, bide batez, ez zaidala zilegi iruditzen hizkuntza jatorraren maisu askok hiztun traketsarekin erakusten duten nagusikeria, publikoki erakundeetatik eta hedabideetatik zabaltzen den euskara kontrolatzeko, arrazoi handiz, beharko litzatekeen zorrotasun kritikoa, euskaldun arruntari aplikatzen baitiote, baita banakako harremanetan ere; bi gauza gutxienez kontuan hartu gabe: alde batetik, sarritan, euskaldun traketsak bere maila hori lortzeko egin behar izan duen ahalegin pertsonala; eta bestetik, ezinbestekoa dela euskara normaltasunez erabili ahal izateko hiztunen euskara, ongi edo gaizki erabiliko dutenen masa kritikoa lortzea, hots, mundu guztia hitz egitera animatzea”.

Kontua bereziki larria da eskolan eta komunikabideetan. Eskolaz diharduela, Lertxundik zera dio, esaterako: “Hizkuntzaren deskribapena lehenetsi dugu hizkuntzaren beraren erabilera espresiboaren kaltean”.

5. Kalitatean eragiten duten faktoreak

Zuzentasunaren eta jatortasunaren aldean, kontzeptu aldakorra da egokitasunarena. Izan ere, komunikazio egoera bakoitzak bere egokitasun propioa behar du, eta du. Egoera jakin baterako ezinago egokia den hizkera zeharo desegokia izan liteke -eta izaten da- beste baterako. Hain zuzen hori eta ez besterik da hiztun -eta hizlari- egokiaren gaitasun bereizgarria: aldiari aldiko egoeran hartarakoxe egokia den hizkera erabiltzen jakin eta asmatzea.

Asko ez ezik askotarikoak dira egokitasunean daragiten faktoreak, eta hizkuntzaz kanpokoak dira, gainera, den-denak. Hona hemen faktoreotako garrantzitsuenak, lau multzo nagusitan sailkatuta:

a. Xedea.

Jeneralean, komunikatzaileak ezartzen dio xedea hizketa ekintzari, baina hartzailearen onarpena behar du ezinbestean. Informatu, irakatsi, persuaditu edo entretenitzea izan ohi dute xedetzat gure komunikazio ekintza gehienek. Garbi dago, ordea, informazio hutserako egoki den hizkera desegokia izan daitekeela persuasiorako.

Era berean, eta adibide bat baino ez ematearren, entretenimendua beste xederik gabeko ekintzetan, malguago behar luke hizkeraren zuzen-jatortasunak juzkatzeko neurriak. Beste horrenbeste gertatzen da generoekin ere, egokitasuna izugarri aldatzen baita generotik generora.

b. Xede-taldea, edo audientzia.

Auditorioa nolakoa, halakoxea izango da komunikazio egoerak behar duen egokitasuna. Baigorriko zaharrentzat egoki den hizkera zeharo desegoki litzateke Gasteizko gazteentzat, eta, seguruenik, baita Baigorri bertako gazteentzat ere. Berdin gertatzen da ikasi eta ez-ikasiekin, baserri eta kaletarrekin, eta abar.

Horrez gain, audientziaren handi-txikiak ere sekulako eragina du egokitasunean: gela txiki batean bildutako dozena bat entzulerentzat ez dago Kursaal beteko auditorio batentzat bezala hitz egiterik; ezta alderantziz ere. Audientziaren hizkuntz gaitasunak ere erabateko eragina du komunikazio egoera batean erabili beharreko hizkeraren egokitasuna definitzerakoan.

Alfer-alferrik arituko da hiztun edo hizlari bat dezakeen euskararik landu eta jasoenean, bere audientziaren euskara berea baino askoz kaxkarragoa bada zuzen-jatortasunean. Horrek, bistan denez, euskara kaxkarraren alde jokutzen du: trebea molda daiteke kaxkarraren mailara; kaxkarrak, berriz, ezin trebearenera moldatu. Horra zergatik gazte batzuek “Joan dezaket kalera?” eta gisako esaldiak erabiltzen dituzten, etxean jaso duten euskara jator-zuzena erabili ordez. Ez da gaitasun kontua, egokitasun kontua baino. Eta egokitasuna, zentzu horretan, subjektiboa izaten da beti.

c. Mezu-bideak.

Audientzia aurrez aurre, irrati edo telebistaz bestaldean edo sakelako telefonotik eskegita izan, alde handia dago egoera horietako bakoitzean hizkera egokia zer den finkatzerakoan. Hitz egiten den bezala idaztea edo idazten den bezala hitz egitea desegokia da gutiz. Irratian estimagarri den hitz jariora jasan ezina da telebistan.

Pare bat mende behar izan ditugu ahozko hizkerak bere lege propioak dituela jabetzeko. Orain, ordea, eskola ez beste guztiok horretaz ohartu garenean, komunikazioaren teknologia berriek kolokan jarri digute hori ere. Izan ere, e-mail, blaga (chat) edo SMStan eraginkorren -eta, beraz, egokien- gertatzen den hizkera ahozkoa da barne egiturari dagokionez, nahiz mezuak idatzi egiten diren. Idatziaren eta ahozkoaren bereizkuntza horrek ez du zentzu handirik XXI. mende hasiera honetako gazteentzat mezu-bide nagusi diren komunikabideetan.

d. Hitzun edo hizlariaren hizkuntz gaitasuna.

Faktore hau ere kontuan hartu beharrekoa iruditu zaigu euskararen kasuan. Hitzun edo hizlari nor ari den (euskaldun berri-berria den, euskaldun zahar alfabetatu gabea den...) kontuan hartu gabe ez dago darabilen euskara egokia den edo ez erabakitzerik. Gauden egoeran, zuzen-jatortasunean akatsez betetako jarduna egoki izan daiteke, hitzuna euskaldun berri edo euskaldun zahar alfabetatu gabea bada. Nolanahi ere, euskara normaldu ahala desagertu beharreko faktorea litzateke hau.

Aipatutako faktoreok guztiok -eta aipatu gabe geratuko zaizkigun besteren batzuek- determinatzen dute une bakoitzerako hizkera egokia. Esan beharrik ez dago, baina esan dezagun hala ere, faktoreok guztiok aldi berean daragitela. Egoera jakin baterako hizkera egokia zein den erabakitzea, beraz, aski kalkulu konplexua da, eta horrek badu bere ifrentzua ere: erabili ohi dugun baino kontu handiagoa behar genuke hizkeraren kalitateari buruzko juzkuak egiterakoan.

Esan dezagun, azkenik, hizkeraren egokitasunarena beti dela konplexua, ez bakarrik gurea bezalako kinka larrian dagoen hizkuntzen kasuan. Zuzentasuna ez bezala, egokitasuna ez dago behin betiko arautzerik; hiztunek bilatu behar dute egoera bakoitzari dagokion egokitasun modua. Euskararen kasuan, ordea, konplexuagoa da kontua.

Egoera diglosikoa dela eta, hiztunek, egokitasun bila abiaturik, errazegi jotzen dute, oraingoz, albo erdaretara, euskararen beraren baliabideetara baino. Zaila bada ere, oreka bilatu beharra dago hor, nahitaez. Egokitasuna goitik ezartzea astakeria latza litzateke noski; egokitasuna albo erdaretan bilatzea normaltzat jo eta joera hori behin betikotzea, aldiz, utzikeria barka ezina. Gauden egoeran, zuzen-jatortasunean kaxkarrak diren hitzun eta hizlari batzuen euskara egokitatzat jo behar dugu, baina seinale txarra litzateke hogeitau urte barru hori horrela izaten segitzea. Azken batean, kalitate integrala behar luke helburu, euskara ona. Egoki ez ezik zuzen eta jator hitz egiten duten hiztunak behar ditugu, beraz, eta horrek orain arteko ikusmolde eta jarrerak aldatzea eskatzen du, besteak beste.

6. Kalitatearen adibideak

Euskara zuzenaz, jatorraz eta egokiaz aritu gara. Irizpideak erabat finkatzeko asmorik gabe, argigarri izan daitezkeen adibide batzuk ekarri nahi izan ditugu hona. Hezkuntza arautuan egin izan ditugu hainbat proba, eta proba horien emaitzaz baliatuko gara adibideak jartzerakoan. 13-14 urteko neska-mutikoei honako ariketa jarri genien behin: “Gurasoen lana dela medio, beste herri batera joan behar izan duzu bizitzera. Apenas duzun lagunik. Egizu herriko aldizkarian argitaratzeko moduko iragarki bat, nor zaren azalduz, lagun eske. Labur, badakizu-eta egunkarietako iragarkiak garestiak izaten direla”.

Hona erantzunetako batzuk:

- Moises izena dut eta herri honetan berria naiz orain dela gutxi etorri behar izan dudalako. Nire laguna izan nahi baduzu, dei egin ezazu telefono honetara: (xxxxxxxx).
- Libe nahiz. Ile-horia eta enroyatua nahiz eta arratsaldetan batzuetan ez dut jakiten zer egiten kalean. Zu ere berdin bazara, jarri nirekin kontaktuan. (xxxxxxxx).
- Mikel da nire izena. Bakarrik nago. Lagunak behar ditut. Zuk ere bai? Idatzi! Egizu nire buzoiak eztanda egitea!!! (xxxxxxxx).
- Xabier nauk/naun. Surfa eta igeriketa gustatzen zaizkit. Deitu eta deputamadre pasatuko dugu. Nire telefonoa: (xxxxxxxx).
- Zintzilik nago, txaparroak eguzkitan lehortzen bezala. Ez gero ni hola utzi! Deituko? Ez zara damutuko. Iker. Telefonoa: (xxxxxxxx).

Zuzen-Jator-Egoki irizpideen arabera, honako burutazioak ibili genituen epaitzerakoan:

- Zuzena da. Jatorra ere bai, neurri batean. Baina ez da egokia. Lortu nahi duen xederako ez du euskara eragingarria erabiltzen. Nolanahi ere, behar litzuzkeen tresna gutxi batzuk emanda, jarriko litzateke ikasle hau hizkuntzaz gozatu eta hizkuntza gozagarri erabiltzeko moduan.
- Ez da zuzena. Ez da noski, egokia. Ezta jatorra ere. Urruti dabil ikasle hau alde guztietatik.
- Zuzenaren muga-mugan dago. Baina ez da jatorra. Senaren eta usadioaren aurka doa. Erdarakada begi bistakoa da “egizu nire buzoiak eztanda egitea!” delako esaldi hori. Baina izan daiteke egokia. Esan indarra du. Gainerako 200 ikasleetan inork ere erabili ez duen esamoldea da. Litekeena da batek baino gehiagok idaztea bere buzoira. Oso gutxirekin bihurtuko genuke ikasle hau euskara egokiaren jabe.
- Ez da zuzena. Hika darabil hasieran, eta zuka gero, tresnak -kasu honetan hitanoaren erabilerak- huts egiten diolako. Baina egokiagoa da halere, den-dena zuka egin balu baino. Asmoa, antzeman egiten zaio. Hizkuntza adierazkorraren bila doa, nahiz horretarako erdararen beharra izan (euskarak huts egiten dio eginkizun horretan). Hitanoa horretarako dela erakutsi behar zaio; ez dela paradigma hutsa.
- Zuzena da. Eta egokia ere bai. “Txaparroen” lokalismoa (gizonezkoen bainu jantziari hala esaten zaio Zarautz aldean) zilegi ez ezik komenigarri ere izan daiteke, herri-aldizkarirako baita iragarkia. Beste esparru bateko hedabide baterako balitz, ez litzateke hain egoki, ulermena zailduko bailuke. Jatortasunean krika-kraka txiki bat egiten du belarrira “zintzilik nago” horrek. Eta beste muturrean, sintaxi ezin jatorragokoa da “ Ez gero ni hola utzi!”. Agian, desegoki puntu bat izateraino, jatorraren jatorrez, harzaila zein den kontuan harturik ez ulergarri ere izan baitaiteke.

7. Kalitatearen esparruak

7.1. Kalitatea eta erabilera

Ikasketa prozesua eta erabilera guztiz loturik daude; erabilera bera da neurri handi batean ikasteko modurik egokiena, eta baita ezagupena finkatu eta sozializatzeke berme nagusia ere.

Euskarazko hitz, esamolde, lokuzio eta esaera asko arrotz egiten zaizkie haur eta gazte askori. Batzuetan ezagutu ere ez dituzte egiten, eta ezin beraz erabili. Baina, sarri, ezagututa ere ez dituzte erabiltzen, beren inguruan horrelakorik ez delako erabiltzen edo erabiltzekotan “zaharrek” erabiltzen dituztelako, ez beren adinkideek: zahar kutsua hartzen dietela, alegia, eta horregatik ez dituztela erabiltzen.

Erabilera esparruak irabaztea ezinbestekoa da, beraz, hizkuntzaren kalitatean eta adierazkortasunean aurrera egitekotan. Kalitateko hizkuntza izateko, derrigorrezkoa izango da hizkuntza horretan hitz egingo duen komunitate bat izatea, eta hizkuntza horrek bere garapenerako ezinbestekoak diren baldintzak bermatuta izatea. Euskaldunik ez badago, euskaldunek ez badute euskaraz egiten -edo ez badira gai garai berrien eskakizunetara egokitzeko, ezinezkoa izango da kalitateko hizkuntzarik sortzea.

Hizkuntzaren kalitateaz hitz egitea, beraz, hizkuntzaren normalizazioaz hitz egitea da. Bere egoera normalizaturik ez duen hizkuntz komunitateak beti izango ditu gabeziak. Aldi berean, komunitate hori zenbat eta beregainago eta hizkuntz kalitatean aurretua goa izan, orduan eta normalizatuagoa izango da.

7.2. Kalitatea eta motibazioa

Ikasteko moduak, ikasitakoa erabiltzeko aukerak eta beharrak eragin zuzena dute motibazioan eta hizkuntzaren prestigioan. Jesus Rubiok ondo dioenez, hizkuntza ikasi eta erabiltzean ez badira hiztunaren komunikazio premiak asetzen, hizkuntza tresna kamutsa gertatzen bazaio hiztunari, ongi alferrikakoak izango dira motibazioa lantzeko “kanpotik” egindako gainerako ahaleginak.

Bistan denez, horrek eskatzen du hizkuntza ikasi eta erabiltzeko gune nagusietan hemen egokitasuna esan dion hori hartu behar dela beti irizpide nagusizat. Hizkuntzaren tresna izaera jarri lehen planoan, paradigmak-eta bigarrenean utzita, egokitasunaren zerbitzura beti ere.

7.3. Familia eta berezko ingurunea

Mendez mende, familia eta berezko ingurunea izan dira euskararen belaunez belauneko transmisioa bermatu dutenak. Familia egitura aldatzen ari da, ordea, eta berezko ingurune euskaldunak murrizten. Gero eta gehiago dira familietan euskara jasotzen ez duten haurrak. Hala ere, datuek adierazten digutenez, lehen hizkuntza gisa (bakarrik edo erdararekin batera) euskara ikasitakoak dira gero ezagupen eta erabilera mailarik onenak izatera iristen direnak.

Premiazkoa da, beraz, euskararen euskarririk sendoenak diren familia eta berezko inguruneak babestea eta sendotzea. Euskaldunik ez dagoen familia eta inguruetan, berriz, bestelako estrategien bidez bermatu behar da transmisio naturalaren bidez lortu ezin daitekeena. Honako hauek izan litezke aipatu “bestelako estrategia” horietako batzuk: haur eskolak, haur hezkuntza, zaintzaile eta hezitzaileak, euskararekiko harremanak sendotzea familian, kalean eta hauraren inguruan...

Gurasoengandik seme-alabenganako hizkuntz transmisioan eten nabarmena gertatu da. Sarri, euskaldun zahar alfabetatugabeek konplexu halako batez jokatu izan dute, darabilten euskalkiari nahiz beren hizkuntz gaitasunari balio gutxiko iritzita edo. Premiazkoa da, beraz, jokabide hori irauli eta norberaren hizkuntz ondarearen transmisioak duen garrantziiaz jabetuaraztea, euskaldunen bat dagoen familietan euskararen berezko transmisio hori seguratu ahal izateko.

7.4. Hezkuntza sistema

2. atalean aipatua, Lertxundirena, izan liteke diagnostiko orokorra: “Gero eta irakasle gehiago dago Espainian -Europar aspaldikoa da joera- hizkuntzaren irakaskuntza gramatikala arbuizatzen duena, lehendabiziko hizkuntzan

batez ere. Guk, ordea, begien aurrean genuen eredurik estuenaren aldeko apustua egin dugu. Hizkuntzaren deskribapena lehenetsi dugu hizkuntzaren beraren erabilera espresiboaren kaltean”.

Hizkuntzaren ikasketa zuzentasun hutsetik egituratzen bada, ezinezkoa da ikasleengan motibaziorik sortzea. Zuzentasuna bere horretan agortzen da, eta ikasbide horrek zuzentasuna bera bermatzeko ere ez du balio, D ereduko gazteen ortografi akatsen kopuruak frogatzen duenez.

Jatortasuna ere ez da kontua. Egokitasuna hartu behar du eskolak ardatz. Eskolaren helburu nagusia araua irakastea da noski. Baina “araua” diogunean, “arau komunikatiboa” esan nahi dugu, eta ez “arau gramatikala” bakarrik. Egokitasuna ardatz harturik, egoera komunikatibo estandarizatu eta normalak landu behar ditu eskolak, gainerako guztia (zuzentasuna eta jatortasuna) horren zerbitzura jarri.

Egoera komunikatiboak sortu, egoera bakoitzari xede bat jarri, eta xede hori (emozioak eragitea) nola lortu. Horrek behar luke eskola jardunaren ardatz. Axola zaion egoera batean, ikasleak berak eskatuko ditu behar dituen tresnak, direla paradigmak edo gainerako baliabideak. Baina axolako xede bat izateak baino ez dezake motibazioa berma. Esan dugun horrek badu beste ondorio bat ere. Lagun arteko hizkera, argotak eta jergak, ez dira zuzenean eskolaren langai.

Egoera komunikatibo estandar formalizatu samarrak egokitasunaren ikuspegitik landuta, ordea, ikasleak gaituago egongo dira gero, antzekotasunez bada ere, egoera ez-formaletan estrategia egokiak aurkitzeko.

Araua haustetik sortzen dira argotak eta jergak, baina araua ezagutzea ezinbesteko baldintza da horretarako, eta hori da eskola sistemaren funtzio nagusia.

“Ez dugu ahaztu behar norma eta hizkuntza bizia etsai direla” (I.Sarasola in BAT42).

Hizkuntza tresna moduan egoki erabiltzen ez dakien ikaslearentzat, alferrikakoa ez ezik amorragarria eta etsipengarria ere bada menderatzen ez duen tresna horri buruzko goi mailako teorizazioan jardun beharra. Fonetika, dialektologia eta abarrak unibertsitaterako uztea hobe da, beraz. Asumitu beharra dago Euskal Herriak hizkuntzari dagokionez bizi duen egoera ez normala. Gainerakoa, ostrukaren estrategia da, edo umearena: arriskuaren aurrean begiak itxi, eta horrenbestez arriskua desagertzen dela uste izatea, alegia.

Helburu horrek, bestalde, ikastetxeen jardun osoa hartzen du bere gain. Unibertsitatean eta Lanbide Heziketan (ikastetxe asko eta askotan gaztelania izan arren irakaskuntzako hizkuntza nagusia), gero eta jakintza alor gehiago lantzen dira, eta horietako asko euskaraz ere bai gaur egun. Hala, bada, ugari da maila horietan sortzen den ikas-materiala. Ezinbestekoa da, ordea, sortzen den material horretan erabiltzen den euskararen egokitasuna zaintzea, batetik, eta, bestetik, alor edo jakintza esparru bakoitzean egiten diren ekarpenak beste alorretara -eta gizarte osora- iristeko bideak zabaldu eta erabiltzea. Horrekin batera, eta euskarazko adarrei dagokionez, irakasleen ebaluazioetan nahitaezko osagai behar luke izan irakasle bakoitzak darabilen euskararen egokitasuna. Izan ere, irakatsi behar duen gaiaz ia ezer ez dakien irakaslea bezain txarra baita gaiaz ia dena jakin arren dakien hori modu eraginkorrean (egokian) komunikatzen ez dakiena.

Komunikazioa bera i(ra)kasgai nagusi duten karreretan (Kazetaritza, Ikus-Entzunezkoak, Publizitatea), ia dena irakasten da/dugu, salbu oinarri-oinarritzko gaitasun behar lukeena. Tresneriak eta teoriak dute lehenetasuna, eta komunikazio gaitasuna asignatura hautazko erdi-klandestinoetara dago zokoratua. Idatzizko komunikazio gaitasuna hala badago, ahozkoaz, gaurko munduan gero eta garrantzitsuagoa denaz, hobe ezer ez esatea.

Komunikazio gaitasuna, ordea, arestian aipatu karrera horietan ez ezik gainerako gehienetan ere gero eta funtsezkoagoa da, gero eta ezinbestekoagoa. Enpresan, zuzenbidean, baina baita medikuntzan eta gainerakoetan ere.

7.5. Hedabideak

Euskararen kalitateari eskaintzen dioten arretaren arabera, bi sail handi egin litezke nazio mailako euskarazko komunikabideetan: idatzizkoak, batetik; eta ikus-entzunezkoak bestetik. Kalitatearekiko arduraren handiagotzea erakutsi dute orain arte idatzizkoen ikus-entzunezkoen baimenarekin. *Euskaldunon Egunkariak*, esaterako, hasiera-hasieratik sortu zuen euskarazko zuzentzaile talde bat, informazioa lantzeko prozesuetan eskumen osoa zeukana. EITB, aldiz, beranduago hasi zen hizkuntzaren kalitateaz arduratzen, eta ez dirudi oraindik ere asmatu duenik hizkuntza arduradunen lana eraginkor gerta dadin moduan antolatzen.

Kalitatea zaindu duten kasuetan ere, zuzentasunari -eta, neurri apalagoan, jatorritasunari- erreparatu izan diote orain arte hedabideek, eta, salbuespen gutxi batzuk salbu, egokitasuna bermatzea ez da lehentasunen artean agertzen. Eskolak ez bezala, hedabideek erregistro bat baino gehiago lantzeko aukera dute, eta baliatu behar lukete, horretarako daude-eta, besteak beste, generoak.

Horretara jarri izan diren apurretan, garbi geratu da hedabideek duten eragina: “Hori egingo zago”, “Hona porzulo hartzerara”, fortuna handia egin duten esapideak dira. Gutxitxo, hala ere, hedabideek dezaketenerako. Erregistro berdinegiak erabiltzen dira genero guztietan eta, eraginkortasuna nahi denean, gatzelerara jotzen da sarriegi.

Kontua berez aski larria izaki, are larriagoa da eraginkor -hots: egoki- izatea beste funtsik ez duten generoetan, hala nola publizitatean. Egokitasunaren jardun paradigmaticoa da publizitatea: huts egin dezake zuzentasunean edo jatorritasunean, baina inola ere ez egokitasunean, bere izateko arrazoia galduko luke-eta horrenbestez. Euskarazko publizitatea, aldiz, gatzelerazkoaren itzulpena da gehienetan, eta, kasurik onenean, zuzena-edo izatea gerta liteke. Suerte apur batez, jatorria ere bai. Euskarazko publizitatearen euskaraz egokia izatea, aldiz, miraria baino ez da, publizitate prozesuetan euskaraz izan ohi duen tokia kontuan harturik. Euskararen aldeko kanpaina instituzionalak ere erdaraz landu eta erabakitzen dira gehienetan, azken unean itzultzailearen bati ematen zaizkiola.

Programa edo sail bat sortzen denean, eduki-ildoak finkatzen den bezala finkatu behar litzateke dena delako sail edo programa horretan erabiliko den hizkeraren nondik norako nagusia. Ez dago denetarako balio duen eredu bakar bat ezartzerik. Publizitate prozesuetan, hasiera-hasieratik bermatu behar litzateke euskararen presentzia.

7.6. Teknologia eta hedabide berriak

Esan berri duguna are egiagoa da hedabide berrietan. Ahozkoa eta idatzizkoaren arteko mugak ezabatzen ari dira, nabarmen, Interneten (e-mail, blaga) eta SMS edo sakelako telefono bidezko mezuetan. Arlo horietan erabiltzen den hizkera estandar nagusiaren ikuspegitik juzkatzea, astakeria galanta da. Teknologia eta hedabide berrietan funtsezkoa izango da euskarazko produktu eta zerbitzuak eskuragarri eta erakargarriak izatea. Horretarako, ordea, euskarazko edukiak ugaritu eta ezagutarazi behar dira, haien kontsumoa bideratu eta bultzatuz. Horretarako behar diren oinarri teknologikoak landu behar dira: hizkuntzaren corpusari dagozkionak, era guztietako zuzentzaileak, edo hizkuntzaren erabilera bermatuko duten bestelako euskarriak.

Hedabide berriek gero eta presentzia handiagoa dute -eta areago izango dute- hezkuntza sisteman. Eusko Jaurlaritzaren “Premia” programari esker, ikasle bakoitzeko ordenagailu ratioa handiagoa dugu EAEn Espainian baino. Programa horretaz -eta, oro har, teknologia berriez- arduratzen direnek behin eta berriz aipatzen dute teknologia berrietan sartzen diren edukiak ezin direla izan paper euskarrikoen kalko, kopia edo eskaner huts, euskarri bakoitzak bere formatu propioa eskatzen duela, bertan jartzen diren edukiak eraginkor izango badira. Mezua euskarriari egokitu behar horretan, ordea, sekulako garrantzia dute erabiltzen diren hizkera eta erregistroek, eta hori, tamalez, gutxitxo aipatzen da teknologia berriak ezarri eta kudeatzeko arduraren dutenen artean. Komenigarria litzateke, beraz, alor horretan dabilen zentzuzko ikastaro edo hitzaldi sorta batzuk antolatzea, teknologia berriak ezartzean euskararen kalitatea atzenda gerta ez dadin.

8. Orain bai kito!

Hauxe da, gutxi-asko, nire ikuspegia. Ez dakit zuek ere ezkorregitzat joko nauzuen. Hala balitz, espero dut, “jo” aditza metaforikoki hartzekoa izango dela beti ere. Aukeran, gainera, nahiago dut ezkor izan eta neurriak garaiz hartu, baikor inozo izatea baino. Horretarako -baikor izateko, alegia, ez inozo izateko- baditugu politikariak eta soziolinguistak.

Euskara komunikatiboaren auzi honetan, gure herriko beste askotan bezala, hobe dugu diagnostiko zehatza egin eta bere gordinean onartzea. Ongi dago euskal adarra zabaltzearen alde lan egitea, baina horrekin batera galdetu behar genioke geure buruari ea orain euskaraz ematen zaizkigun ikasgaiak benetan euskaraz ematen zaizkigun. Alegia, eta dezakedan gordinen esanda: ea merezi duen komunikatiboa ez den euskara batean (euskara txarrean, beraz), eskolak ematea, eta liburuak argitaratzea, eta abar.

Baina horretarako, esan bezala, behar bezain ezkor izaten jakin behar dugu. Minbizia bada minbizia, azter dezagun gaixoa ondo, eta onar dezagun gaitza. Baina ez diezaiogun minbiziari katarro deitu, aspirinaz sendatuko dugulakoan baboarena baizik ez dugu-eta egingo. Hori da, hain zuzen, baikorren koxka: beti uste baitute litekeen mundurik onenean bizi garela, inoiz ez dute deusik egiten mundua hobetzeko. Jakina, litekeen mundurik onena hobetzea zentzugabea baita.

Ezkorregi ez dakit, baina ezkor jardun dut beharbada. Penatu bazaituztet, barkaidazue, baina, gauzak dauden bezala, nik ez dut beste irtenbiderik ikusten, diagnostikoan behar bezain ezkor eta ekinean ahal bezain setati izatea baizik. Asko dira, eta gotor askoak, esparru erabakigarrienetan -hezkuntzan eta hedabideetan- hankaz gora irauli beharreko trabak eta oztupoak. Baina Lluís Llachek Patxi zaharra gogoan kantatzen zuen bezala, saiatuz gero bakoitz bere lekutik, bultza handik eta tira hemendik, ikusiko duzue nola laster eroriko diren.

b. EUSKARAREN NORMALIZAZIOAREN ERRONKA BERRIAK¹

Agurtzane Elordui
Igone Zabala
EHUko irakasleak

1. Sarrera

Hizkuntza-komunitate normalizatueta harreman-sare arinak eta oparoak izaten dira erabilera-esparru anitzetan. Horrek ziurtatzen du komunitate horietan hizkuntza-eredu partekatu bat garatzea, egonkortzea eta hedatzea. Komunitate horietako hiztunek, gradu desberdinetan bada ere, beren hizkuntzaren gramatika ez ezik, beren komunitateko kideekin partekatzen dituzten arau soziopragmatikoak ere ezagutzen dituzte: komunitate horretan hizkuntza-baliabide bat noiz, norekin, zein testuingurutan erabil daitekeen jakitera eramaten dituen komunikazio-gaitasuna dute hiztunek. Aitzitik, ez-egonkorak diren komunitateetan -hizkuntza gutxituen komunitateetan, desagertzear daudenetan (Dorian, 1981; Dressler, 1981; Elordui, 1995, 2003), kreoleren komunitateetan (King, 1989), etorkinen komunitateetan (Gal, 1979) - eta, euskara bezala normalizazio prozesuan daudenetan, hizkuntzaren erabilera esparru zenbaitetara mugatzen da eta horietatik kanpo harreman-sareak urriak eta geldoak izaten dira.

Bi fenomeno horiek oztopatzen dute hizkuntza horien garapena eta hedapena, eta ondorioz, ohikoa izaten da hiztunek eredu bakarra ez partekatzea.

Komunikabideek badituzte zenbait ezaugarri hizkuntzen garapenarekin eta hedapenarekin lotura estua dutenak: mota guztietako hiztunengana heltzeko gaitasuna dute eta, beraz, hizkuntza-ereduak hedatzeko ahalmen handiagoa dute bestelako eragileek eta harreman-sareek baino. Areago, komunitateko hiztunek komunikabideetatik heltzen zaiena hizkuntza-eredutzat hartzen dute. Bestalde, komunikabideetan era guztietako komunikazio-egoerak aurkitzen ditugunez, beste edozein eragilek baino aukera gehiago eskaintzen dituzte hauek testuinguru desberdinetara egokitzen den hizkuntza-eredua zabaltzeko.

Ezaugarri horiek direla eta, hizkuntza gutxituen normalizazioan komunikabideek eta bertan eskaintzen den ereduak aparteko garrantzia izaten dute eta, beraz, arreta berezia jarri behar dute erabili beharreko hizkuntza-eredua aukeratzeko orduan. Izan ere, aukeratzen duten ereduak mesedegarria edota kaltegarria izan daiteke goian aipatutako normalizazio ezetik datozen arazo soziolinguistikoak konpontze aldera: besteak beste, hiztunei esperientziaren bidez ezin lor dezaketen hizkuntza-ezagutza eskaintzeko gaitasuna dute.

Komunikazio honetan euskararen egungo egoera soziolinguistikoan ezinbestez kontuan hartu behar ditugun arazo soziolinguistiko zenbait azaltzen hasiko gara, eta komunikabideek arazo horiek konpontzen laguntzeko izan dezaketen zeregina azalduko dugu.

Horrezaz gain, hedabide horietan zabaltzen den hizkuntza-eredurako gure ustez kontuan hartu beharko liratekeen zenbait irizpide linguistiko eta soziolinguistiko azalduko ditugu. Azkenik, komunikabideetako profesionalek duten hedatze lan hori aurrera eraman ahal izateko, hizkuntzalariek egin beharko luketen ekarpena finkatzen has-teko proposamenak egingo ditugu.

2. Harreman-sare geldoak eta komunitatearen trinkotze falta

Hirurogeiko hamarkadatik hona euskararen normalizazioan aurrera eraman diren ekimenek, bereziki euskara hezkuntza-sisteman sartzeak, errotikako aldaketak ekarri dituzte euskararen egoera soziolinguistikoan: Eusko Jaurlaritzak arestian ezagutzera eman dituen 2002ko inkesta soziolinguistikoaren datuek eta azken urteotan argitaratu diren ikerketa soziolinguistikoaren emaitzek agerian uzten dituzte normalizazio prozesuaren zenbait lorpen. Aipagarria da euskaldun kopurua gero eta handiagoa dela: 2001ean 1991n baino 110.000 hiztun gehiago du euskarak eta, hizkuntzaren iraupenerako are garrantzitsuagoa dena, hiztun kopuruaren igoera hori gazte euskaldunen kopurua handitu izanari zor zaio batez ere -2001ean 16-24 urte bitartekoen artean: %48 elebidun- (<http://www.euskadi.net>). Bestalde, esparruen araberako hedapenean ere, azpimarratu behar da esparru publikoetan euskararen erabilera gora egin duela nabarmenki, bereziki hirurogeiko hamarkadan genuen egoera diglosiko bortitzarekin konparatuz gero. Eusko Jaurlaritzaren inkestaren emaitzen arabera, euskarazko zerbitzuen eskaintza zabalduz joan den heinean (udaletan, gizarte-zerbitzuetan, osasun-zerbitzuetan, enpresa pribatuetan eta bereziki irakaskuntzan) euskararen erabilera eta eskaera ere handituz joan dira.

Euskarak hiztunak eta erabilera-esparruak irabazi ditu, baina hain zuzen ere irabazte horrekin batera arazo berriak etorri dira: horien artean nabarmenena eta aipatuena, hiztunen komunikazio-gaitasun murrizta, erabilera ezarekin estuki lotuta dagoena. Biak txanpon beraren bi aldeak dira eta elkarri eragiten diote: erabilerarik ezak hizkuntza-gaitasunik eza eta hizkuntza-garapenik eza ekarri ohi du (Giacalone Ramat, 1983:503), eta hizkuntza-gaitasunik ezak, ezinbestez, erabilerarik eza.

Azken urteotako ikerketen emaitzek iradokitzen dute kasu askotan arrazoi sozioestruturalek, hots, hiztunek euskaraz egiteko dituzten aukerek, baldintzatzen dutela hizkuntzaren erabilera-maiztasuna. Kasu honetan, erabilera-maiztasuna hertsiki loturik dago hiztunen ohiko harreman-sareetan eta bizi diren gune soziolinguistikoan dagoen euskaldun kopuruarekin eta inguruko euskaldunen hizkuntza-aldaera bera (tokian tokiko hizkera, euskalkia, euskara batua) izatearekin. Baina, arrazoi sozioestruturalek bezain garrantzitsuak dirudite arrazoi psikolinguistikoek, hau da, testuinguru jakin batean euskaraz edo gaztelaniaz/frantsesez errazago edo nekezago aritu ahal izatearekin. Arrazoi sozioestruturalak eta psikolinguistikoak hiztunen historia soziolinguistikoaren zenbait aldagaiekin loturik daude: hiztunen jabekuntza prozesuarekin, erabilera-maiztasun orokorrarekin eta esparruen araberako erabilera-maiztasunarekin.

Azken urteotako ikerketen emaitzetan antzeman daiteke aurreko aldagaien arteko lotura estua: bereziki euskara 2H duten hiztunen kasuan, eskolara mugatzen da euskararen erabilera. Horietako askoren kasuan, gune soziolinguistiko erdaldunetan bizi izateak baldintzatzen du hiztun horiek euskaraz edo erdaraz (gaztelaniaz/frantsesez) aritzeko aukera izatea: gazte euskaldun askok aitortzen dute oso aukera gutxi dutela eskolatik kanpoko bizitzan euskaraz aritzeko (Esnaola, 2002).

Baina, hori ez da arrazoi bakarra. Izan ere, euskaldun kopuru handia duten herrietan (Eusko Jaurlaritzaren azterketan I. eta II. gune soziolinguistikoetan²) bizi diren euskaldun berri askok ere, oso gutxitan erabiltzen dute euskara hurbileko harremanetan (auzoan, lagunartean, e.a.). Arrazoia kode komuna ez izatearekin loturik dago neurri handi batean, batez ere estandarretik gehien aldentzen diren aldaera geografikoak erabiltzen diren lekuetan. Hiztun horiek ez dira sentitzen gai komunitatean erabiltzen den euskaraz aritzeko eta, askotan, ez eta ulertzeko ere: hala egiaztatzen digute euskal gazteen artean eginiko ikerketek ere. Euskal Herriko gazteen artean %37k (%37k EAEn, %41ek Iparraldean eta %42k Nafarroan) beren eskualdeko adineko pertsonekin euskaraz aritzean elkarri ulertzeko arazoak dituztela onartzen dute (Esnaola, 2002:77). Alderantziz ere gertatzen da: euskaldun zaharren artean askok aitortzen dute zailtasun larriak dituztela euskara batua egiten dutenekin komunikatzeko (Elordui, 1995, 2001a). Euskal komunitateak bizi duen trinkotze falta honek azaltzen du neurri handi batean euskaldun kopuruaren igoerak euskararen erabilera-maiztasunean igoera proportzionala ekarri ez izana (Elordui, 2003). Bernardo Atxagak

Euskal Herria deskribatzeko erabili zuen irudia hona ekarriz, esan daiteke euskal komunitatea uharte bat baino, uhartez, komunitate txikiz osaturiko artxipelagoa dela. Artxipelago horretako komunitate bakoitzak bere aldaera komuna du: batzuek herriko hizkera, besteek euskara batua. Familia barruko hizkuntza-transmisioa aspaldi eten den gune soziolinguistikoetan (III. eta IV., eta neurri apalagoan II. gune soziolinguistikoetan) bereziki, adineko jendeak eta gazteek hizkuntza-komunitate desberdinak osatzen dituzte: euskara batuaz egiten duten gazte horiek ez dira herriko komunitatean integratu. Oso kide gutxik egiten dute komunitate desberdinen arteko zubi-lana (Elordui, 2001a).

Fenomeno horrek aparteko garrantzia du erabilera-maiztasunean ez ezik, hiztunen komunikazio-gaitasunean ere. Euskara 2H duten hiztunek familia eta lagunarteko erreperitorio linguistikoa bereganatzeko dituzte oztopoak: euskaldun horiek ez dute hurbileko harreman-sareetan euskaraz aritzeko aukerarik eta, ondorioz, ez dira euskara komunikazio-testuinguru horietara moldatzen dakiten hiztunak. Bestetik, euskara 1H dutenen artean eskolan estilo formalaren berri izan ez dutenek, testuinguru formaletarako erreperitorioaz jabetzeko eta hori garatzeko zailtasunak dituzte. Ondorioz, hiztun horietako asko ez dira ausartzen euskara hurbileko harreman-sareetatik kanpo erabiltzen. Azkenik, ezin utzi aipatzeke denok ditugula komunikazio-arazoak euskarak berriki irabazitako erabilera-esparruetan, neurri handi batean alor horietan aritzeko behar diren hiztegi- eta diskurtso-baliabideak erabat garatu eta finkatu gabe daudelako oraindik.

Hiztunen historia soziolinguistikoa askotarikoa izateak, erabilera-esparru zenbaitetara mugatua izateak, hiztun-taldeen arteko harreman-sareak geldoak izateak eta hizkuntzaren beraren garapenean oraindik dauden hutsu-neek, zaildu egiten dute hizkuntza-komunitatea trinkotuko lukeen hizkuntza-eredu partekatu bat garatzea, egonkortzea eta hedatzea. Era berean, fenomeno horiek testuinguruen arabera hizkuntza-eredua izatea oztopatu izaten dute maiz. Hiztun askok hizkuntzaren ezagutza partziala dute komunikazio-testuinguru gutxiri mugatutako hizkuntza-esperientziaren ondorioz. Esperientzia zabalagoa duten beste hiztun askok berriz, ez dakite hizkuntza-baliabide bakoitza noiz, norekin eta zein testuingurutan erabil daitekeen. Faktore horiek direla eta, hiztunen ekoizpenetan nabaria da monoestilismorako eta sistemarik gabeko aldakortasunerako joera (Elordui, 1995, 2001b, 2003; King, 1989; Oñederra, 1992). Hiztunen komunikazio-gaitasunaren garapen ezaren ondoan, hizkuntzaren beraren garapenaren arazoak ditugu euskarak berriki irabazitako esparruetan, hiztegi- eta diskurtso baliabideen garapenari dagozkion arazoak alegia.

Azkenik, euskararen komunitate idiomatikoa hainbat hizkuntza-komunitatetan zatikatuta egoteak eta, oro har, hiztunen eta komunitateen arteko harreman-sareak oso geldoak izateak eragiten du finkatzen doazen arau sozio-pragmatikoak hizkuntza-komunitate osora nekez eta astiro zabaltzea. Bistan da egoera honek zaildu egiten duela hizkuntza-komunitate osoak parteka dezakeen hizkuntza-ereduaren egonkortzea eta hedapena.

3. Komunikabideek hizkuntza-ereduaren garapenean eta hedapenean duten zeregina

Egungo gizarte modernoan komunikabideek, harreman-sare estuek ez bezala, mota guztietako hiztunengana heltzeko gaitasuna dute. Hori dela eta, hizkuntza-ereduak ere erraz zabaltzen dira hedabide horien bitartez. Areago, komunitateko hiztunek komunikabideetatik heltzen zaiena hizkuntza-eredutzat hartu ohi dute eta eredu horretako hizkuntza-baliabideak bere egiteko joera izaten dute. Komunikabideetan era guztietako komunikazio-testuinguruak aurkitzen ditugu, eta testuinguru bakoitzak era jakin bateko hizkuntza-baliabideak erabiltzea eskatzen du. Hizkuntza-baliabideak desberdinak izaten dira ahozko eta idatzizko jardueretan, egoera formal eta ez-formaletan, espezializazio gradu desberdinetako testuinguruetan, hartzaile mota desberdinei zuzendutako ekoizpenetan, e.a. Hor-taz, komunikabideetan behar den hizkuntza-ereduak irudika dezake normalizaturiko hizkuntza-komunitateek duten eredia, alegia, testuinguruen arabera egituratzen den hizkuntza-eredu heterogeneoa.

Goian aipatutako ezaugarri horiek direla eta, hizkuntza baten normalizaziorako plangintzan, funtsezko eragileak dira komunikabideak, eskolarekin batera. Mota guztietako hitzunengana heltzeko gaitasuna dela eta, hitzunen komunikazio-gaitasunaren hutsuneak betetzen eta komunitatea trinkotzen lagun dezakete. Hitzunen eskura jartzen dituzte harreman-sare estuen bitartez eskuragarri ez dituzten hizkuntza-aldaera geografikoak eta funtzionalak. Era honetan, hitzunek beren hizkuntza-esperientziaren mugengatik dituzten hutsuneak betetzen lagun dezakete komunikabideek: batzuei familia eta lagunarteko hizkuntza-baliabideen berri ematen diete, eta beste batzuei berriz, testuinguru akademikoaren bitartez jaso ez duten estilo zainduaren berri. Bestetik, hitzunei beren harreman-sare estuetatik kanpo dauden aldaera geografikoak entzuteko aukera ematen dietelarik, elkarren arteko ulergarritasuna erraz dezakeen ezagutza pasiboa ahalbidetzen dute. Euskararen kasuan esaterako, horrek garrantzi handia du orain arte komunitate idiomatikoa izan dena hizkuntza-komunitate izateko hasi dugun bide honetan.

Hizkuntzaren beraren garapenean ere, ekarri garrantzitsua egiten dute komunikabideek, era guztietako komunikazio-egoerak irudikatzeko duten ahalmenagatik. Izan ere, askotan aterabide linguistikoak bilatu behar dizkiete normalizatu gabeko hizkuntzan gertatzen ez diren komunikazio-egoerei.

4. Komunikabideetako hizkuntza-eredua

Komunitate bateko eredu partekatua egituratzen duen ardatza estilo formala edo zaindua da. Batetik, ardatz horretatik urruntzen diren ekoizpenak hartzen dira zaindugabetzat. Bestetik, urruneko harreman-sareetarako tresna izaten da estilo zaindua, eta hurbileko harremanetan aldiz, bereizgarri geografikoak eta indibidualak azaleratu ohi dira.

Komunikabideen erregistro mistoa estilo zainduan oinarritzen da. Komunikabideetako bereizgarriak diren zenbait faktorek eragiten dute hori, besteak beste, komunikazio-ekintza alde aurretik prestatua izateak, parte-hartze zuzena ez duen hartzaile multzo bati zuzendua izateak, eta askotariko jatorri geografiko eta soziala duen hartzaile multzo bati zuzendua izateak. Edonola, komunikabideetako zenbait komunikazio-egoeratan, aurrez aurreko bat-bateko elkarriketetan esaterako, ohikoa izaten da estilo formal horretatik urruntzea ere.

Kontuan hartu behar da, hala ere, estilo formala ez dela aldaera bat eta bakarra. Batetik, badira ahozko eta idatzizko ekoizpenak, eta bestetik, formaltasun gradu desberdinak eskatzen dituzten komunikazio-egoerak. Azkenik, badira estilo zainduan eta zaindugabearen oinarritzen diren erregistro funtzionalak.

Hortaz, komunikabideen hizkuntza-ekoizpenek islatu behar dituzte kanal, formaltasun gradu eta erregistro desberdinen berezitasunak, eta horren ondorioz, beraz, komunikabideetako hizkuntza-ereduak heterogeneotasun egituratua bilatu behar du eta ez homogeneotasuna.

Euskaraz egiten diren komunikabideei dagokienez, euskararen normalizazioan lagunduko badute, beste irizpide soziolinguistiko zenbait gogoan izan behar dituztela azpimarratu behar da: ez da nahikoa erabiltzen duten hizkuntza-eredua nolabaiteko heterogeneotasun egituratuan oinarritutakoa izatea, egituratzeak bat etorri behar du euskal gizartearen beste eragile batzuek (esparru akademiko eta profesional bakoitzaren profesionalak, estatus sozial eta adin bakoitzeko hitzunek) partekatzen duten ereduarekin. Izan ere, hizkuntza-eredu partekatua puzzle modukoa da eta puzzle horren pieza bakoitza gainerako piezekin uztartu behar da. Komunikabideek erabiltzen dituzten zenbait piezak bat etorri behar dute gizartearen erabiltzen diren pieza zenbaitekin³. Bereziki garrantzitsua da komunikabideen hizkuntza-ereduak lotura estua izatea irakaskuntzaren munduan hedatzen denarekin. Eragile horiek hizkuntza-eredu partekatuen hedapenean continuum bat osatu behar dute: esaterako komunikabideetan dibulгатzen diren zenbait gaitarako erabiltzen diren hizkuntza-baliabideek, besteak beste hiztegiak eta terminologiak, eskolan gai horietarako erabiltzen denari jarraitu behar diote⁴. Uztartze lan hori ezinbestekoa da komunikabideetan eskaintzen den hizkuntza-eredua sinesgarria izan dadin, eta komunikazio-testuinguruetara egokitzen den eredu partekatuen egonkortzeari lagun diezaion.

Laburbilduz, komunikabideek eskaintzen duten hizkuntza-ereduak heterogeneotasun egituratuan oinarrituta egon behar du batetik, eta bestetik, hizkuntza-komunitatearen beste eragileek partekatzen duten ereduarekin berarekin bat etorri behar du.

5. Hizkuntzalarien eginkizuna

Komunikabideetarako proposatzen dugun hizkuntza-eredu hori garatzea posible izateko, baina, hizkuntzaren normalizazioaren erantzukizun zuzena duten erakundeek eta hizkuntzaren profesionalek eskaintzen duten abiapuntuak, euskara estandar zaindua nolakoa behar den arautzen duenak, zenbait baldintza bete behar ditu: batetik, eredu malgua izan behar du, komunikazio-baldintza desberdinetara egokitzea erraz onartzen duena; bestetik, hiztunen erabilera errearen deskripzioa hartu behar du abiapuntutzat. Alferrik da komunikabideetako profesionalei komunikazio-egoeretara egokitzen den hizkuntza-eredua eskatzea, eredu horretarako abiapuntutzat hartu behar duten estilo zaindurako eredu malgua eta errealtatean oinarritua ez bada. Bestalde, hizkuntzalariok, komunikabideetako profesionalei aitzinean duten erronka zailari aurre egiten lagunduko badiegu, beren beharrak kontuan hartzen dituzten tresna eta baliabide egokiak eskaini behar dizkiegu.

1968. urtean kodetze prozesuari hasiera eman zitzaionean, estilo zaindurako eta bereziki idatzirako eredu gisa diseinatu zen euskara batua (Lekuona, 1968). Harreman-sare hurbiletarako bazeuden euskalkiak. Hogeigarren mendearen bigarren erdian abian jarri zen estandarren kodifikazioak lagundu du euskararako hiztunak irabazten, eta gainera, estilo zainduan oinarritzen diren hainbat erregistro berri (tekniko-zientifikoa, administrazioarena, zuzenbidearena, e.a) garatzea ahalbidetu du. Euskara batuaren betebeharrak sorreran aurreikusi zirenak gainditu dituzte ordea. Idatzia ez ezik, ahozkoa ere garatu da, eta estilo zaindua ez ezik, formaltasun gradu desberdinetako aldaeren beharra sortu da: batetik, hainbat hiztunek ez dute bestelako aldaera geografikorik garatu, eta euskara batua erabiltzen dute familia eta lagunarteko erregistroetan ere; bestetik, erabilera-esparruen dibertsifikazioak formaltasun eta berezitasun gradu desberdinetako aldaerak eskatzen ditu. Euskal komunikabideetan inon baino nabarmenagoa da dibertsifikazio behar hau, bigarren atalean azaldu diren arrazoiak direla eta.

Egun ia bukatutzat eman dezakegu estandarren kodifikazioa: badugu hizkuntza-komunitate osorako balio duen ardatza (estilo zaindurako euskara batua). Une honetan gizarteratzen den hizkuntza-ereduak harantzago joan behar du: arau soziopragmatikoak garatzen, egonkortzen eta hedatzen lagundu behar du. Ez da nahikoa batasunerako hizkuntza-baliabide bat proposatzea: ardatz modura balio digun estilo zaindurako baliabidearen ondoan, komunikazio-egoeretara egokitze balio duen baliabide sorta eskaini behar du eredu horrek. Aipatzen ari garen eredu motaren adibide da Euskaltzaindiaren 87. araua (Euskara batuaren Ahoskera Zaindua izenekoa) (Euskaltzaindia, 1998): estilo zaindurako ahoskera-arauak biltzen ditu, baina beti ere euskara batu zaindugabea ere izan daitekeela, eta halako eta halako ezaugarriak dituela zehazten du.

Ez du euskara batuak alferrik egin bere ibilbidea, eta zenbait arau soziopragmatiko finkatu direla suposatzen behar dugu. Finkaturik dagoen aldakortasun sistematikoa mantentzeak eta hedatzeak paregabeko garrantzia du trinkotze falta duen euskararena bezalako komunitate batean. Hizkuntzaren profesionalek ezin dituzte erabili beren balioztatze hutsak, tradizioetik edo gramatika-ikuspegi gordinetik abiatutakoak, hizkuntza-komunitateak partekatzen ez dituen arau soziopragmatikoak preskribitzeko. Kodifikazio prozesuan zehar garrantzi handia izan duen tradizioan eta gramatika-irizpideetan oinarrituriko preskripzioak lekua utzi behar dio deskripzioan eta ponderazioan oinarritutako harmonizazioari. Egun hiztunen artean hedaturik egotea eta esparru jakin bateko hiztunentzat asegarria izatea bezalako irizpide soziolinguistikoak lehenetsi behar dira, gramatikaren araberakoa edo tradizioaren araberakoa izatea lehenetsi duten orain arteko irizpideen aurrean. Egoera-aldaketa hau kontuan ez hartzeak monoestilismoa eta sistemarik gabeko aldakortasuna areagotzeko arriskua dakar. Era berean, tradizioan eta gramatika-irizpideetan oinarritutako ikuspegi zurrinak hizkuntzaren beraren garapena oztopa dezake (Zabala, 2003). Hizkuntza-produktuak diseinatzeko orduan ere, goian aipatutako irizpideak izan behar ditugu abiapuntu. Lehenengoz, tradizio idatzian eta

gramatika-irizpideetan soilik oinarritzen den ikuspegi zurrunik urrundu eta egungo euskararen finkatu diren arau soziopragmatikoen deskripzioan oinarritzen diren hizkuntza-produktuak sortu behar ditugu. Bigarrenik, preskripzioa helburu duten hizkuntza-produktuen ordez, deskripzioan eta ponderazioan oinarritzen diren produktuak diseinatu behar ditugu, hizkuntzaren erabiltzaileei komunikazio-egoeretara egokitzeko balio duen baliabide sorta eskaintzen dizkieten hizkuntza-produktuak alegia. Hirugarrenik, gramatika eta hiztegi-baliabideei erreparatzen dieten produktuez gain, diskurtsoaren ikuspegia duten eta egungo euskararen erabilera-arauen berri ematen duten produktu linguistikoak behar dira (Zabala, 2004: 9). Azkenik, euskararen inguruko hizkuntza-produktuek, edozein hizkuntza-produktuk bezala, gizarteak hizkuntzarekin lotutako arazoak gainditzeko laguntzeko produktuak direlarik, ondoakoak izan behar dituzte kontuan: a) Garapen-egoera desberdinetan dauden hizkuntzek hizkuntza-produktu desberdinak behar dituzte b) Hizkuntza-produktuek helburu linguistikoak ez ezik, helburu soziolinguistikoak ere izaten dituzte, normalizatuta ez dauden hizkuntzetan batez ere c) Hizkuntza-produktuek erabiltzaileen beharrei erantzun behar diete, eta hizkuntzaren erabiltzaile desberdinek behar desberdinak dituztela izan behar dute beti gogoan. Komunikabideetako profesionalei zuzendutako produktu linguistikoetan esaterako, hedabideetako hizkeren berezitasunak eta bertan islatzen diren komunikazio-egoerak kontuan hartzen dituzten hizkuntza-produktuak behar dira. Honek eskatzen du ezinbestez profesional horien beharren azterketa sakona.

Komunikabideetako zenbait profesionalek eta hizkuntzalarik urrats garrantzitsuak egin dituzte bide honetan (Egunkariaren estilo liburuak; Zubimendi eta Esnal, 1993; EiTbko hizkuntzalariek egindako txostenak eta komunikazioak), baina profesional horiek berek aitortzen dute oraindik ere erabilera-arauen gainean ezagutza murriztegia dugula erabilera-esparru honetan dauden arazoei irtenbidea emateko. Hau gertatzen da, neurri batean, orain arte euskararen inguruko hizkuntzalaritza ia soilik gramatika-sistemaz arduratu diren lan teorikoez osaturik dagoelako. Euskararen inguruko hizkuntzalaritza aplikatua sar daitezkeen lan urriek, salbuespenak salbuespen, profesionalen arazoak arintzea baino, preskripzioa izan dute helburu. Komunikabideetako profesionalek, euskara lan-tresna duten beste profesional askok bezala, premiazkoak dituzte beren beharretara egokitzen diren hizkuntzalaritza aplikatuko lanak. Laburbilduz, hizkuntzalariek komunikabideetako profesionalei euskararen normalizazioan, eta bereziki hizkuntza-eredu partekatuen hedapenean, duten eginkizun garrantzitsuan lagunduko badiete, eredu partekatu horren ardatza izango den estilo zaindurako, hizkuntzaren erabilera errealean oinarritutako eredu malgua eskaini behar diete. Eredu horrek deskripzioan eta ponderazioan oinarritutako harmonizazioa baliatu behar du. Bestetik, profesionalei beren beharretara egokitutako produktu linguistikoaren bidez helarazi behar diete eredu hori. Komunikabideetako profesionalei hizkuntzalariek eskaintzen dizkieten hizkuntza-produktuek, hiztegi- eta diskurtso-baliabideen eta arau soziopragmatikoen berri eman behar dute, ortografia- eta gramatika-arauena baino areago.

Bibliografia

- Dorian, Nancy (1981): *Language Death: The Life Cycle of a Scottish Gaelic Dialect*. Philadelphia. University of Pennsylvania Press.
- Dressler, Wolfgang Ulrich (1981): "Language shift and language death: a protean challenge for the linguist", *Folia Linguistica*, XV/1-2 zenb., 5-27 or.
- Elordui, Agurtzane (1995): *Hizkuntza Heriotza eta Aldaketa Morfologikoa: Hegomendebaldeko Bizkaieraren Kasua*. Tesi-lana. EHU.
- Elordui, Agurtzane (2001a): "Decrease of language transmission and language use in Basque". *Proceedings of the Conference Minority Languages*. University of Groningen.
- Elordui, Agurtzane (2001b): "Processes of language shift and loss: Evidence from Basque", 77-92 or. in Ammerlaan, M. Hulsen, H. Strating, K. Yagmur (arg.) *Sociolinguistic and psycholinguistic perspective on maintenance and loss of minority languages*. Alemania. Waxman.
- Elordui, Agurtzane (2003): "Variation in the Grammar of Endangered Languages: The Case of Two Basque Dialects", *SKY Journal of Linguistics*, 16. zenb., 2003, Helsinki, 7-26 or.
- Esnola, Imanol (2002): "Gaztetxoak eta euskara. Euskara etxeko ala auzoko?", *Bat Soziolinguistika Aldizkaria*, 42 zenb., 2002, Andoain, 73-91 or.
- Euskaltzaindia, (1998): "Euskara batuaren Ahoskera Zaindua" (87. araua) *Euskaltzaindiaren arauak*, Bilbo, 805-808 or.
- Gal, Susan (1979): *Language shift: Social determinants of linguistic change in bilingual Australia*. New York. Academic Press
- Giaccalone Ramat, A (1983): "Language shift and language death", *Folia Linguistica*, 17 zenb., 1983, 495-507 or.
<http://www.euskadi.net>
- King, Ruth (1989): "On the social meaning of linguistic variability in language death situations: Variation in Newfoundland French", 139-148 or., in Dorian (arg.): *Investigating obsolescence. Studies in language contraction and death. Studies in the Social and Cultural Foundations of Language 7*. Cambridge. Cambridge University Press..
- Lekuona, Manuel (1968): "Euskeraren batasuna" (Arantzazuko Biltzarreko Aktak), *Euskera*, XIII zenb., Bilbo, 139-140 or.
- Oñederra, Miren Lourdes (1992): "Hizkuntzaren osasuna. Neurbide eta diagnosi linguistikoak", *Bat Soziolinguistika Aldizkaria*, Andoain, 7/8. zenb., 141-157 or.
- Oñederra, Miren Lourdes (1998): "Ahoskera eta araua. Araua eta ahoskera", *Bat Soziolinguistika Aldizkaria*, Andoain, 27. zenb, 13-20 or.
- Zabala, Igone (2003): "Hitz elkartuak eta terminologia: zelulanitz bezalako adjektiboen egokitasuna aztertzeke bi ikuspegi" Xabier Alberdi eta Iñaki Ugarteburu (arg.): *Espezialitate hizkerak eta terminologia*. Euskara Institutua. EHU. 223-236 or.
- Zabala, Igone (2004): "Euskara Batua eta euskara tekniko-zientifikoa", *Euskera*, 3-29 or.
- Zubimendi, Joxe Ramon eta Pello Esnal (1993): *Idazkera-liburua*. Gasteiz. Eusko Jaurlaritzza.

Oharrak

1. Lan hau aurrera eraman ahal izateko, EHUK 1/UPV 00033.310-H-14838/2002 ikerkuntza-egitasmoaren barruan emandako diru-laguntza baliatu dugu.
2. Eusko Jaurlaritzaren ikerketak lau gune soziolinguistiko bereizten ditu EAEan: I. gune soziolinguistikoan, populazioaren % 80tik gora elebidunak dira (EAEaren populazioaren % 65 bizi da gune horretan); II. ean, % 79-45 (18'9); III. ean, % 46-20 (24'1) eta IV. ean, % 20 tik behera (50'6) (www.euskadi.net)
3. Uztartze hori kontuan ez hartzeak eta erabilera-esparru batean beste erabilera-esparru batekoa den baliabidea erabiltzeak, adibidez, estilo zaindugabe erabili ohi den baliabide bat sistematikoki estilo zainduan erabiltzeak, hutsune bat sor dezake baliabide hori erabili ohi den esparruan.
4. Jakina, beti ere testu didaktikoez eta dibulgaziozkoek hizkuntza-baliabide desberdinak erabiltzen dituztela ahaztu gabe.

c. KOLOKAZIOAK EUSKARAZ. ZER AXOLA DUTEN KAZETARITZAN

Xabier Altzibar
EHUko irakaslea

Kolokazioak axola handikoak dira norberaren hizkuntzaren erabileran, baita beste hizkuntzen ikaskuntzan eta beraz irakaskuntzan nahiz itzulpengintzan. Lan honetan, lehen atalean, zer diren eta zergatik hain ugariak kazetaritzan azalduko dugu; bigarrenean, euskarazko mota nagusiak bereiziko ditugu; eta hirugarrenean, egungo kazetari-hizkerako kolokazio edo kolokaziogaiek, bereziki hegoaldean sartu berri baina finkatze bidean ari direnek jarritako zenbait auzi aztertuko.

1. Kolokazioak zer diren

1. Kolokazioa kontzeptua eta terminoa erabiltzen da fraseologia ikerketetan, J.R. Firthek 1957an sortu zuenetik (collocation); hiztegegintzan eta itzulpengintzan ere ezaguna da. Fraseologiak hitz konbinazio egonkorak aztertzen ditu eta jakintza esparru horretan barne dira unitate jakin batzuk: kolokazioak, lokuzioak edo modismoak, hizketa formulak eta paremiak. Banako horiek guztiak izendatzeko termino erabilienetarikoa dira -bereziki gaztelaniaren eremuan- fraseologismo, banako (unitate) fraseologiko edo bestela (hitz) multzo egonkorak (g. conjuntos estables). Kolokazioa terminoa gazteleran ere berriki sartua da.
2. Kolokazioak dira: bi hitz edo gehiagoren konbinazio mugatuak eta hein bat egonkorak, hartzunek maiz erabiliak eta beti berrerabilgarriak (erreproduktiboak), osagaien artean lotura sintaktikoa eta nolabaiteko harreman semantikoa dutenak. Ez dira enuntziatu oso eta ez hitz-egintza (g. acto de habla), hizketa-formulak eta esaera zaharrak edo aipamenak bezala. Norman edo erabileran finkatuak direnez, konbinazio-preferentziak eta murrizketak erakusten dituzte, erabilerak ezarriak, oinarri semantikodunak: kolokatu semantikoki autonomoak (oinarria, lema edo giltz-hitza, g. base, lema, núcleo) kolokatiboa hautatzen du, hein batez erredundantea edo indartzailea, eta halaber kolokatibo horren adiera abstraktua edo figuratiboa edo ia gramatikaldua (Corpas: 1997: 82-83).
Adibidez, gaia jorratu edo berriak jorratu kolokazioetan oinarri edo lema (gaia/berriak) kolokatiboaren (jorratu) adiera abstraktua edo figuratiboa ('landu') aukeratzen du. Orobat hasiera eman kolokazioan lema (hasiera) kolokatiboaren (eman) adiera ia gramatikaldua hautatzen du. Kolokazio batzuetan osagaien arteko atxikimendu lexikoa -Coseriuren terminologia erabiliz; g. solidaridad léxica- handia da. Adibidez, arlote jantzi. Izan ere, arlote hitzaren definizioa da “zarpailea, gaizki edo baldreski jantzi edo antolatua” (Sarasola, EH). Ordea, gehienek ez dute eskatzen halako inplikazio esturik.
Lan honetan / zeinua erabiliko dugu baliokideak seinatzeko. Adib. adiskide/lagun zaharra/mina. Esan nahi baitu laukoitza dela: adiskide zaharra, lagun zaharra, adiskide mina, lagun mina. Alfer hotza/zotza/korotza, hirukoitza. * zeinua erabiliko dugu ondoko hitz edo forma okerra dela adierazteko.
3. Kolokazioak hitz konbinazio libreak dira baina norma eta erabilera mailan finkatuak. Unitate lexikal jakinen arteko konbinazioak -beste aukera batzuen artean hautatuak-, munduaren analisi jakinerako erabiliak (Corpas: 1997: 51, 54). Lokuzioetatik bereizi behar dira: kolokazioak norma mailakoak dira eta ez hizkuntzaren sistemakoak, lokuzioak diren bezala. Lokuzioak esanahi batasuna du; ordea, kolokazioetan osagai batek (oina-

rriak) bestea (kolokatiboa) eta haren adiera berezia hautatzen du. Gero, lokuzioak idiomatikotasunarekin lotuagoak dira; osagaiak ere nekezago dituzte ordezkagarri, eta lagunarteko hizkeran erabiliagoak dirateke. Hala ere, badira lokuzio itxurako kolokazioak ere, edo kolokazioen eta lokuzioen artekoak.

Bestalde, denak ez datoz aditz perifrasiaren eta aditza + sustantantibo motako kolokazioen edo aditz lokuzioen arteko bereizketari dagokionez (Corpas, 2001 a): 26). Kolokazioak hitz elkartuetatik garbi bereiztea ere ez da beti erraz, loturazko gidoia kenduz gero (berakatz atala, txori aldra).

4. Egonkorak dira formaz, baita hitz- hurrenkeraz ere (argi eta garbi esan, * garbi eta argi esan). Hala ere, kolokazio izateko ez da nahitaezkoa bi kolokatuak elkarren hurrenez hurren agertzea, distantzia bat egon daiteke bien artean. Malgutasuna erakusten dute joskeran, euskaraz bederen nabarmenki. Adib. denbora ona(k) (egin ditu) / onak (egin ditu) denborak. Gero bestalde, idazle landuek -herri-euskarazaleek izan ezik- kolokazioen hitzordena hausteko, lekualdatzeko eta beraz normatik saihesteko joeratxo ere badukete (desbiazioa). Adib. itsutuki maite izan kolokazioa honetara ageri da J. Etxepare medikuaren testu batean: “Maite zuen hunek ere itsutuki Frantzia” (EB -3, 504).

5. Aldagarritasuna, bariazioa dago kolokazioetan. Hizkuntza aldaerak izan ditzakete: hizkuntza mailari dagokionez (neutroa, lagunartekoa), euskalkie eta erregistroei dagokienez (euskara mintzatukoa, idatzikoa, kazetaritza idatzikoa edo literaturakoa, elizakoa...). Bestalde, kolokazio askok konnotazio jakinak dituzte (askok hizkera teknikoak edo kazetari hizkera nahiago dute, beste batzuek konnotazio geografiko-sozialak dituzte).

Kolokazioak aldakorrak eta galkorrak dira: modan jartzen dira eta gero desagertzen. Batzuk, ideologikoak direlako, adib. topiko batzuk (emazte zilarra, etxeoandre begiratu).

6. Kolokatuen arteko harreman semantikoei dagokienez, funtzio lexikoaren bidez sistematikotu daitezke hein bat. Hizkuntza desberdinetako datu baseak funtzio lexiko jakin baten argitan ikuskatuz, hizkuntzen metafora-egitura azal daiteke kolokatiboen -hots, oinarri edo lema batentzako balio errealizatuena- argitan. Hizkuntza desberdinetako kolokazioen artean parekotasuna ageri da, ikerlarien arabera, eta hori hizkuntzek elkarrekin irudi kontzeptualak konpartitzen dituztelako da (Corpas: 1997: 84-86).

1.1. Kolokazioak kazetaritzan

Kolokazioak genero eta erregistro guztietan agertzen diren arren, horietako batzuek nahiago dituzte, adib. kazetaritza eta hizkera teknikoak. Zenbait, espezialitate-hizkera jakinetakoak dira. Esaterako, zuzenbideko hizkerari dagozkio helegite bat aurkeztu, kaudimen gabezia edo funts publikoak bidegabe(ki) erabiltzea. Noski, adibide hauek gaztelarazko presentar un recurso, falta de fianza/garantía, utilización indebida de fondos públicos kolokazioen itzulpen aski onartuak dira baina euskaraz ere kolokazio eginak edo egonkorak dirateke. Izan ere, espezialitate-hizkeretan lokuzio terminologikoak eta kolokazio espezializatuak daude. Horiek, terminoekin batera, diskurtso espezializatuaren ezaugarri garbiak dira eta elementu estrategikoak espezialitateko diskurtso bat eraikitzerakoan.

Kolokazioak ugari dira kazetaritzan (Corpas: 1997: 86-87). Hain zuzen, kazetaritzak, alde batetik, hizkera teknikoetatik hartzen ditu terminoak eta esapideak, eta hedatzen; hitz bereziak (espezializatuak) dira, jakintza arlo berezietakoak, arlo horietako komunitate zientifikoko partaideek erabiliak. Bestetik, komunikazio erdi-espezializatu edo dibulgaziozkoari dagozkion esapideak ere baliatzen ditu kazetaritzak, adib. meteorologiako bero hodeiak eta ostarteak tartekatu, haizetea eta egongaitzasuna nagusitu etab. Gaztelarazko pertinaz sequía ospetsua ere kazetaritzaren bidez esapide egin bihurtu zen. Jendearen ahoko esapide arrunt edo komunak ere erabiltzen ditu, noski (bero erreza/zakarra/ustela, (lana/proiektua) martxan/abian jarri/aurrera eraman etab.

Ugariak izateko badira arrazoi batzuk: alde batetik, hizkuntzaren norma eta erabilera ohikoa ageri da kazetaritzan, besteak beste objektibotasun itxura eman behar delako, nahiz, izatez, kolokazioek emozioak eta balorazioak adierazten dituzten (Corpas: 1997: 82, 14. oharra). Literaturan ordea idazkera pertsonalagoa da. Bestetik, dibulgazio hizkera erabiltzen da, arlo desberdinetako kontzeptuak eta hitzak komuntzeko. Kazetariak hartzaileari gauzak ahalik eta argien eta ulerterrazean adierazi behar dizkio, laburki, trinko eta doi-doi; horretarako eta hartzailearekin aditzeko, barra-barra erabiltzen ditu kolokazioak, molde prefabrikatu horiek funtzionalak gertatzen

baitira harentzat, baita prozesazarrak hartzailearentzat. Beraz kazetaritzako hizkera esapide eginez betea da, ia hizkera egina bihurtzeraino.

2. Kolokazio motak: taxonomia saio bat

Ondoren euskarazko kolokazio mota zabalenerariko batzuk, kazetaritzan oso erabiliak, deskribatuko ditugu handi-handika, oinarriaren, egitura morfosintaktikoen eta funtzioen arabera. Gaztelerazko kolokazioen taxonomia, G. Corpasena, abia- edo erreferentzia-puntutzat hartzen dugu; nolana ere, uste dugu euskal kolokazioen taxonomia euskal gramatika-kategorien berezitasunak aintzat hartuz egin behar direla. Alta, gure sailkatze hau behin-behinekoa baino ez da eta saio gisa egina.

Ordea, kolokazioak identifikatzean datza arazorik larriena, zeren, kolokazio kontzeptua aski berria denez, euskal hiztegietan ez daude esapide egin modura seinatuak (ezta OEHN ere), eta adibideetan ere maiz ez dirateke agertzen¹. Hortaz saiatu gara adibide ustez zurrak eta erabilera zabalekoak jartzen, jendearen ahokoak edo gutxienez bi testu eta autore desberdinetan agertuak; erakusburutzako kolokaziook ez dira bakarrak, noski. Kolokazioen adibideak, batzuk tradiziozko euskaratik eta tradiziozko kazetaritza hartuak dira, beste batzuk egungo kazetaritza, batez ere *Berria* egunkaritik eta Herria astekaritik.

2.1. Izena dutenak oinarri

1. Izena (objektua) + aditza joskerakoak. Horien artean badira konbinazio ahalmen aski zabalekoak: adib. kolokazio batzuetan kolokatiboak (aditzak) har dezake oinarri bat edo beste (izena), alor semantiko berekoa (ezta baida/auzia erabaki(Heg.)/trenkatu(Ip.)). Ugariak, aditz delexikaldua eta kasik gramatikalka (esanahiz) dutenak dira, eduki semantikoa izenak daukala. Aditz polisemikok dira: eman (hasiera/amaiera eman); hartu (erabakia hartu); ipini (auzia ipini; oztopoak(k) ipini); jarri (auzia jarri (norbaiti), oztopoak jarri, azken hauek nagusituz doazenak ipini-rekikoen aldean); ekarri (kaltea/ondorioak ekarri). Noski, alde batera uzten ditugu izan, ukan, eduki, egin, hartu berezko osagai duten aditz elkartuak (lotsa izan, hitz egin, errieta egin, parte hartu, arrakasta izan/ukan/eduki).

Aditz delexikalduok aspektua erantzen diete kolokazioei (hasiera, bukaera, iraupena, kausa...). Horretan bereizten dira aditz soiletatik: hasiera eman / hasi; amaiera eman / amaitu; erabakia hartu / erabaki. Gainera modifikatzaileak (nolakotasuna, zenbatasuna eta abarren adierazleak) har ditzakete eta horregatik ugaritu dira, besteak beste. Hain zuzen, modifikatzaileak hartzeko gaitasuna abantaila da batzuetan (abantaila eta desabantaila, ik. III.4. atala: Kolokazioen arriskuak).

Badira beste kolokazio batzuk, gazteleraz preposiziodunak diren bezala (izena preposiziodun sintagmaren ardatz), adib. poner en funcionamiento, poner en (tela de) juicio, llevar a juicio (Corpas: 1997: 70), euskaraz adizlagundunak direnak. Joskera: adizlaguna (-n, -ra...) + izena. Adib.: martxan/abian jarri, (norbait/zerbait) auzi(t)an jarri/ipini, eskutan jarri/ipini, eskura/eskuetara eman 'esketan utzi', burura eraman 'bukatu', aitzina segitu, xehetasunetan sartu. Noski, aditz delexikalduoz gainera, euskarak baditu erderez bestelako baliabideak ere, haien ordez erabilgarriak (-ra+) -tu, arazi eta -ra- faktitiboak, baina ez nolana: burura eraman-en ordez bururatu, baina ez lan bat/proiektua aurrera eraman-en ordez proiektua aurreratu. Aipaturiko hitz konbinazioak batzuentzat aditz perifrasiak dira, beste batzuentzat lokuzioak, eta beste batzuentzat kolokazioak. Oso ugariak dira euskaraz. Hona adib. kontu oinarri-hitzarekin kolokatzen diren aditzak: kontu eduki, kontu egin, kontu guti egin, kontuak egin, kontu eman, kontu ona eraman, kontu hartu, kontuan hartu.

Izena (objektua) + aditza joskerako kolokazioak oso ugariak dira mintzaira arrunt edo orotarakoan. Adib.: bizi-modua atera, temari eutsi (azken hau solidaritate lexikoa duena). Baita hizkera teknikoan edo lanbide-hizkeran, eta

halaber kazetaritzan: (legeak) indar(ra) izan, (legea) indarrean izan, (legea) indarre(t)an jarri/sartu/ipini edo (legea) indarre(t)an atxiki/eduki, (hipotesiak) indarra hartu. Hona beste aditz batzuekikoak, egun kazetaritzan oso erabiliak: adostasuna/akordioa lortu; akordioa/akordio zabala lortu/hitzartu/lotu; arreta jarri/hartu (norbaitek zerbaitetan edo zerbaiti), antzekoa da (zerbaitek norbaiti) atentzioa eman, maila arrunt edo lagunartekoan oso erabilia vs goimailako ohartu (nor-nori); bazterrak nahastu; dimisioa eskatu/galdatu (Ip.); garaipena lortu; gatazka konpondu/gainditu; kargua bete/utzi/eduki; kontratua eten (g. cancelar/rescindir/suspender un contrato); kontrola eduki/galdu; lehergailua eztandarazi (du) eta lehergailuak eztanda/zapart egin (du), bomba zartatu (da) irakur daiteke Herria 2756.ean), lehenago (dinamitak/bonbak) zerbait (etxea...) jauzarazi (du); ongi etorri egin (dio); oztopoak jarri etab.

2. Izena (subjektua) + aditza: aditzak, izenari (pertsone nahiz gauza) dagokion egintza bat adierazten du (Corpas: 1997: 67): gerra hasi/piztu (idiomatikoa da, metafora bat baitu azpian: gerla sua da, beraz gerla piztu * leher egin < g. estallar la guerra); susmoa egiztatu (g. confirmarse/corroborarse la sospecha); zurrumurrua zabaldu (da) (g. correr un rumor).

Subjektu aktibodunak dira beste batzuk: adib. etsi(mendu)ak hartu, (mendia) suak hartu (norbaitek etsipena hartu, mendiak su(a) hartu ere bai, noski).

3. Izena + izenondoa joskerakoak. Izenondoaren (kolokatibo) esanahiak izena (oinarria) inplikatzeko kasu askotan; beraz solidaritate lexikoa gertatzen da kolokatuen artean. Gainera, izenondoak (kolokatibo) bere oinarria (izena) intentsifikatzen du -positiboki edo negatiboki-. Hortaz, Magn funtzio lexikoa (indartzekoa) da nagusietarik bat. Ugariak dira. Adib.: adiskide/lagun zahar 'aspaldiko lagun'; adiskide/etsai/dolu/uda/negu/gau min. Dolu mina 'grand deuil' (Lhande, Dict.) eta dolumin formek ("dolu, bereziki (pl.) norbaiti bere doluan egiten zaizkion atsekabe eta atxikimenduzko erakutsiak", Sarasola EH) bi hitzen arteko lotura finkatu dela adierazten dute. Egund pluralean erabili ohi da, hegoaldean bederen, eta bi formak ortografiaz lotuta: doluminak (eman)². Beste zenbait: harreman estua(k); gezur(ra) galanta/biribila.

Beste izenondo batzuk (hotz, gogor, huts, santu) izen jakinen kolokatiboak dira, izenaren ondoren kokatzen direnak. Hotz 'Simple; achevé, pur, fieffé' (Lhande, Dict.) kolokatiboarekikoak: haur hotz, langile hotz, atze 'atzeritar' hotz, eta halaber pobre hotz, alfer hotz / alferra hotza (azken hauek oinarria izenondoa dutenen artean koka daitezke, ik. geroago)³. Kolokazioak dirudite, hitz elkartuak baino areago. Hilotz hitza 'gorputz hila, berezk. gizakiarena' (Sarasola, EH) lexikalduta eta adjektibo gisa erabiltzen delarik, adib. gorputz hilotza, eta batez ere hilotz(a) erori, gelditu/geratu, hilotz(a) egon/utzi esapide eginetan ('hila erori' etab., ik. adibideak OEHN) aski garbi ageri da kolokazio edo esamoldearen finkatzea. Halaber hil gogor(ra) (erori/etzan/utzi/gelditu).

Hotz-en antzekoa da huts: logika hutsa (g. (ser) (de) lógica pura/pura lógica); haur hutsa 'encore enfant, tout gosse' (Duhau Hasian II 347). Santu, santarekikoak: bake santua (Itxi e(g)idazu bake santuan! hizketa formula eza-guna da).

Funtzio lexikal bereko izenondo batzuk oso erabiliak eta elkarren artean batzuetan trukagarriak dira (bizi, larri, gorri, gogor, amorratu, porrokatu etab.). Adib.: istilu larri/gorri/gogor; haserre/eskandalu bizi/gorri; borroka bizi; baina gogo bizi (* gogo gorri, * gogo larri, * gogo gogor).

Epit funtzio lexikoa, hots, epiteto semantikoki hutsa dutenak (gorri, beltz, zuri) ugari dira (kolore horiek loku-zioak osatzeko ere balio dute, noski: gorriak ikusi/pasatu etab.). Adib.: lotsa/ahalge/desohore gorria; miseria gorria; behar/premia gorria; gerla gorria; istilu/kalapita gorria(k); eskandalu gorria; ezpain gorria; patar gorria; urre gorria; zilar zuria; ele zuria; miseria beltza, mairu beltza; txapel beltza.

Epitetoak dira ere: gau iluna, itsaso zabala (g. vasto/inmenso océano/mar); mundu zabala⁴.

Bere 'behar bezalako' funtzio lexikoarekiko dateke labana zorrotza⁵. Kolokatibo bera (izenondoa) beste oinarri (izen) batzuek ere -alor semantiko berekoak- hartzen dute: bista/begi/belarri zorrotza; ahots/begi/belarri zoli; baina usaimen/gusto fina (bista/begi lauso ez dateke maiztasun berekoa). Beste batzuk: sasoi betea / sasoi, bete-betea; sasoi/trenpu ona/onean/tzarrean, ? sasoi/trenpu txarrean, Ipar. fleitian (< flore betian ?) (izan), sasoi egon (B 386; gazt. estar en (buena) forma).

Bere funtzioa duten anitz ideologikoak dira. Adib. euskaldun garbia⁶; euskaldun peto-peto 'euskaldun osoa (?)', euskaldun jatorra. Aspaldikatuak dira emakumeei buruzko topikoak: etxeoandre/emakume begiratu 'gutxi gasetzen duena'; emazte zilar 'emakume garbi'⁷. Kolokazio ideologikoak historiako une jakinetan politikariek, kazetariek etab. nork bere alde erabiliak dira eta beraz galkorrak (izen bereziak dira galkorrak, ez kalifikatiboak). Adib., I. Mundu Gerra edo politika-gerla giroko jakinekoak eta Iparraldeko kontserbadoreek erabiliak izan ziren: aleman higuina, Belgika/Serbia gaixoa/dohakabea; Frantzia katolikoa. Egun ere erabiliak dira horien arteko zenbait⁸.

Bon 'ona' funtzio lexikoaren barruan koka daitezke kalifikatibo finko batzuk. Tradiziokoa da Jainko ona (eta de(a)bru (t)zarra)⁹. Beraz beste batzuek esanahi negatiboko kolokatiboa dute: edan txarrekoa (izan) (ez dago edan oneko-rik); grina txar/gaizto/makur. Aldaera bikoak ere badira (positiboa/negatiboa, ona/txarra, zuzena/okerra): balantza positiboa/negatiboa; egoera ona/txarra, iritzi ona/txarra, iritzi okerra / okerreko iritzia; borondate ona/txarra/gaiztoa.

Hona izen + adjektibo joskerako beste adibide batzuk: egia handia(k); eginbide hertsia; egun seinalatua (zaharra da ere egun s(e)inalea, X. Kaltzakortak ohartarazten didanez); erabaki garrantzitsua/larria(Ipar)/sendoa; esker ona (agertu/...) 'eskerrak eman'; esker txarreko X/txarrekoa (izan); etsai amorratua; gerla izigarria (Ipar.); gezur galanta / gezurra galanta; haserre/jenio bizia; patxada ederra; urgulu zozoa (Ipar).

4. Euskarak badituzke ondoko erdarek ez bezalako kolokazioak. Adib. -ko markaren bidezkoa, euskararen balibideetarik bat baita. Batzuetan, oinarri-hitza kolokatibo jakina hautatzen du, adjektiboa, -ko izenlagun nominalizatzailearen bidez: aldeko/kontrako iritzia/botoa; erabateko akordioa (g. acuerdo total); erabateko lehentasuna. Beste batzuetan -ko markak oinarri-hitza sustantibo bihurtzen du: ezezko biribila (eman/hartu); ezusteko handia/galanta (izan). Edo -ra + -ko adizlaguna + izena: lasaitasunerako deia (egin).

Hona beste mota bat: izena + izena joskerako bikote juntatuak edo elkartuak, 2. osagaia kolokatiboa dutenak, semantikoki sinonimikoak edo bestela kolokatiboak oinarria osatzen duela: Jaun eta jabe; agur eta ohore X-i (nor-baiti), ohore eta gloria¹⁰. Batzuk lokuzioen, beste batzuk hizketa-formulen mugakide dirateke.

5. Gaztelerazko izena + preposizio + izena bezalakoak (tableta de chocolate, banco de peces). Lehen kolokatuak (oinarria) unitatea edo multzoa adierazten du, eta bigarrenak (kolokatiboa) unitate edo multzoaren zati edo atal txikiago bat, edo multzoaren/taldearen eta banakoaren arteko erlazioa. Hori bai, gazteleraren alderantzizko joskeran. Bi azpimota bereiz daitezke, funtzioen arabera. Lehen azpimotakoak Sing funtzio lexikodunak dira ('atala/unitatea'). Adib.: baratxuri/berakatz atala, baratxuri (x)ixterra; ogi/arto erreguta(da)/errebeta; azukre kozkorra / sukre mokorra; txokolate tableta/pastila / xokolet presa bat (Duhau II 378); xaboi pastila. Bigarren azpimultzoari Mult funtzio lexikoa dagokio. Adib.: arrain talde, arrain baltsa, arrain sarda; erle-mulko (gazt. enjambre de abejas); txori-aldrá/taldea/saldoa. Euskaraz hitz elkartuztat ere har daitezke. Hortaz, nola idatzi behar dira, gidoiarekin ala gabe? Kolokazio badira, egokiago dateke gidoi gabe idaztea.

2.2 Aditza dutenak oinarri.

1. Aditzondoa (modu- eta intentsitate-aditzondoa; g. -mente) + aditza. Magn funtzio lexikoa dute. Adib.: argi (eta garbi) esan (du), argi gelditu (da); argi ikusi (du); arrote jantzi (da); erabat aldatu; erabat ukatu; estu/her-

tsiki lotu; estu hartu (du) 'gogor egin'(norbaiti); (kiroletan oso erabilia, kirolari batek kontrarioari uste baino zailtasun gehiago jartzea adierazten du); garbi(ki) mintzatu (da); itsutuki maite (izan/ukan); larriki/arinki zauritu (du/da) (zuzena ote arin zauritu da, arin zauritu bat, *ETBI*, Euskadi Irratian etab. erabilia?). azkarki/itsuski/larriki/handizki kolpatu (hauek lema izenondoak dutenekiko lotura estua dute: larriki/arinki zauritua); tin-ko/irmo eutsi; zabal ideki / zabal-zabala idekia(k)¹¹.

Kolokatibo adverbiala (nola, non galdetzaileei erantzutekoa) eta aditz delexikaldua dutenak. Konbinazio-aldara bikoak (ongi/gaizki, zuzen/oker/makur): ongi/(molde)gaizki erabili 'tratatu'; ongi/gaizki esan; ondo/txarto egin; ondo/ongi/gaizki esan/ulertu, euskalki aldaerekin: ondo esan, txarto esan; zuzen/makur/oker jokatu; alde/kontra izan/jarri/jokatu. Ugari dira adizlaguna + aditz delexikaldudunak (egon, gelditu, ibili...): kanpo/barne izan/egon; inguru ibili; bazter(ean) gelditu/egon/ utzi); alde bat(era) utzi/gelditu.

Lokuzioen mugan daude (hortaz kolokazio diren zalanagarri da), beste batzuk, kolokatibo bikoitza eta (erdi) sinonimikoa dutenak: batzuk, bikote erritmikodunak (sor eta gor egon/gelditu/...; sor eta lor gelditu; isil eta biribil egon (biribil: 'zintzo'). Horietako zenbait, ia aditzik gabe erabiltzen direnak, bereziak, lagunarteko hizkerako konnotaziodunak, adierazkorak eta irrigarriak -erdara-euskara jokoaz edo nahasketaz baliatuz-: tentepotente egon; serio demonio egon/ari; zero patatero ?eman/?jarri¹²; kieto para(d)o egon; antzeko parezido izan; isilik eta kallando ("Isilik eta kalandu, si no makillando" esaten genuen Markina aldean). Kolokatibo bikoiztun batzuk oso erabiliak dira: korrika eta presaka joan/ibili (g. de prisa y corriendo), estu eta larri ibili. Kolokatiboak Magn funtzioak dute beste bikote batzuek: negarrez, hipaka(Ipar.) / negar zotinka(Heg) ari/egon; antsika eta negarrez ari/egon / negar antsika ari/egon; negar eta negar egin/egon/ari; negar marrumaz/negarrez, (eta) marrumaz ari/egon¹³. Lokuzioen itxura dute beste kolokazio (?) batzuek ere: egoki eta bidezkoa (izan); posible eta beharrezkoa izan¹⁴. Halaber aditz nahiz izenondo funtzioan oso erabiliak diren batzuk, adizlaguna + aditza / partizipioa + adizlaguna joserakera eta Magn funtzioak: leporaino ase / ase, leporaino; mukurru bete(a) / bete, mukurru¹⁵.

2. Onomatopeiez osatuak (onomatopeiek aditzondo funtzioa betetzen baitute) ugari dira. Adib.: dinbi-danba 'kolpe, tiro, kanpai-hotsa' jo; zanga-zanga/zanka-zanka/dzanga-dzanga 'trago handiak eginez edo gogo biziz' edan. Horietan atxikimendu lexikoa dagoke bi osagaien artean. Hona beste batzuk: tipi-tapa joan/abiatu); tanpez hil; mauka-mauka jan; (berriak) bala-bala zabaldu; elurra mara-mara ari/egin/erori/bota/... 'ugari', elurra zarra-zarra ari; euria zir zir egin/ari/erori/bota/...; kalakan tal tal ari¹⁶.

2.3. Izenondoa dutenak oinarri

1. Izenondoa + izenondoa/partizipioa joskerakoak. Magn funtzio lexikodunak dira okitu, erromes, hotz, garbi, arrail, amorratu kolokatiboekikoak. Adib.: aberats okitua, zahar okitua (okitu 'zerbaiten maiztasun edo gehiegikeriagatik gogaitu edo aspertu', Sarasola EH) edo aberatsa, okitua eta zaharra, okitua (bigarren egiturakoak, tartean eten bat dutela ahoskatzeak; esanahiz enfatikoak dira)¹⁷. Erromes kolokatiboekikoak: pobre erromesa (erromes 'behartsua, pobrea', Sarasola EH)¹⁸; pobrea, erromesa 'Très, très pauvre' (Duhau Hasian II 346). Hotz kolokatiboekikoak: pobre hotza, alfer hotza/alferra hotza. Halaber alfer zotz 'gran holgazán' OEH / alfer gorotz/korotz 'atrozmente perezoso' OEH¹⁹. Garbia kolokatiboekikoak: lapur garbia (da) 'benetako lapurra' / lapurra, garbia! / lapurra duk, garbi! (izena izenondo funtzioan)²⁰. Arrail izenondoa mozkor/hordirekin kolokatzen da soilki: mozkor/hordi arrail/arraildua 'gutziz mozkorra', mozkorra, arraila 'complètement soûl' (Duhau)²¹. Beste batzuk: aberats puxanta; aberatsa, puxanta²²; txarri zikin / txerri urde; asto ziri²³. Gose/goseti amorratu eta aberats okitu adibideek erakusten dute nola askotan oposizioan funtzionatzen duten.

Azpimota bat: -ko-dun izenlaguna + izena, edo alderantzizko joskeradunak: sasoiko gazte / gazte sasoiko.

2. Aditzondoa (maila-aditzondoa edo graduatzailea (-ki) + partizipioa (izenondo funtzioan)/ izenondoa joskerakoak. Izenondoa edo izenondo funtzioko partizipioa dute oinarri; aditzondoa, kolokatibo: handizki/itsuski

kolpatua; larriki zauritua; erabat komentzituta edo erabat komentzitua. Kasu bakanetarikoa da, agian, itsuski ederra 'oso ederra', oximoron itxurakoa, Magn funtzioduna eta solidaritate lexikoduna.

3. Aditza oinarri duketen arren, erabilera aldetik izenondo funtzioa nagusitzen deneko kasuak ugari samarrak dira. Ondoko joskerakoak: adizlaguna (instrumental kasuan: -z) + partizipioa (izenondo funtzioan). Adib.: urguluz hantua/hanturik (hori da OEHn erabiliena; gero badira urguluz hantu (du), arguileriak hantu (du) adibideak ere); jelosiaz urtua / jelosiak jana; Ahalgez urtua; ? negarrez urtu(a)²⁴.

3. Kazetari hizkerako kolokazioen arazoak

Azken 25-30 bat urtean espezialitateko termino eta banako fraseologikoak, kazetaritza homologatu batean erabili ohi direnak, ugari sartu eta zabaldu dira euskaran. Aitortu behar da jakintza arlo eta gai guztietako termino zientifiko-teknikoak nahiz esapide edo adierazpide arruntagoak bateratzeko, ahalaz beti berak erabiltzeko eta askotan are sortzeko -premia gorriak eraginda- ahalegin handia egin dutela unibertsitate, hiztegi-gile, itzultzaile, Elhuyar, UZEI, EiTb, *Euskaldunon Egunkaria*, *Berria*, Iparraldeko *Herria* eta besteek. Hitz eta esapide horietako franko kazetaritza bidez sartu eta zabaldu dira politika-, administrazio- eta hainbat jakintza-arlotako hizkeratik erakarrita. Esapideez mintzatzean, hemen kolokazioak baizik ez ditut aipagai.

Kontua da, kolokazio(gai) asko eta asko berri samarrak izan arren, erabiliaren erabiliz indar hartzen, finkatze eta egonkortze bidean aurrera egiten ari direla, nahiz tradizioan sustrai gutxi edo argala duten (3.1.) eta inguruko erdaren eredu eta molde sortuak edo gutxienez haien eragin handikoak diren. Izan ere erdal esamoldeekin estropozurik ez egitea edo haiei ihes egitea ez da erraza. Beste zailtasunik ere badu kolokazioen finkatze prozesuak: euskalkien arteko aldeak eta zenbait esamolderen arteko zalantzak (3.2). Beraz esapide bat kolokaziotzat hartzeko irizpideak zehaztu eta finkatu behar lirateke, bereziki erabilera eta tradizioa (3.3). Azkenik, kolokazioen gehiegizko erabilerak kazetari estiloari ekar diezaizkiokeen arriskuez ohartarazi nahi genuke (3.3.).

3.1. Tradiziozko euskara eta kolokazio(gai) berrien uholdea: aldaketak

Egun hedabideetan korritzen duten hitz, esapide edo adierazpide asko eta asko berri samarrak dira eta inguruko erdaren, baita mendebaldeko hizkuntza nagusien eredura moldatuak, tradiziozko euskaratik aldendurik beraz²⁵.

Kasu batzuetan osagai guztiak aldatu dira. Adib. egun informazioa eman eta informatu erabiltzen dira ia soil-soilik; lehenago, berriak jakin/entzun, argitasunak/garbitasunak 'azalpenak', 'informazioa' eman/jakin. Egun interesa izan, interesa sortu, interesgarria izan, interesatu eta holakoak erabiltzen ditugu ia soil-soilik. Lehenago, adib. nafar-lapurterazko tradizio aberatsean esker/griña/lehia/zor oinarriekiko lokuzioekin jokatzeko zuten: adib. (zerbaiti, zerbaitek) eskerra izan/erdietsi, (zerbaitek) eskerrik ez izan (ez du eskerrik 'ez du interesik')²⁶.

Ez dut ukatuko, inola ere, egungo interesa izan, informazioa eman onargarriak direnik; baina gure tradizioko esapideak ezagutu behar genituzke, aberasgarri direlako, euskara automatiko eta pobre erromesa egin ez dezagun. Egun lehenago baino hitz eta adierazpide zehatzagoak eta askotan nazioartekoagoak erabiltzen badira ere, lehenagoko adierazpideek morfologia eta joskerak joko malguagoa eta aberatsagoa erakusten dute, nahiz konplexuagoa eta zailagoa ere egungo hiztunentzat. Dena dela, gertatzen ari diren eta daitezkeen aldaketek ondorio larriak ekar ditzakete: tradizio idatziaren galera, erdialdeko euskalkietako hitz eta formen gurtzizko nagusitasuna eta gainerako euskalkietako hitzen desagertzea etab.

Beste kasu askotan, kolokatiboa aldatu da. Adibidez: gatazkaren konponbidea, gatazka konpondu/gainditu (Euskal Herriko gatazkari buruzkoak, noski): esamolde horiek ez dira tradiziozkoak, tradizioan gatazka-rekin konbinatu ohi diren aditzak batez ere ari/ibili/hasi/sartu baitira. (g. resolución del conflicto, resolver el conflicto); martxan

jarri (da, du): orain arte normalagoa izan da martxan hasi(da)/ipini(du). * funtzionamenduan hasi (da)/jarri (du); ekintza(k) burutu/aurrera eraman (gazt. realizar actividades), edo (hainbat /...) ekimen antolatu (g. organizar diversas actividades); aukera paregabea/ezinhobea: tradizioan aukera ederra da erabiliena, edo aukera ona; ika-mika sortu/piztu (da/du) (gazt. desatar(se) una polémica) guztiz berria dateke, nahiz oso erabilia egun: hiztegieta ere nekez aurki daiteke ika-mika hitza, bai hizka-mizka²⁷; ordea, normalagoa dateke eztabaida sortu/piztu; sutea piztu (da): orain arte su(a) lotu (zaio; Ipar.) / su(a)(k) hartu (du) esan izan da.

Beste batzuk, tradizioan hein bat erabiliak izan arren nagusi izan ez direnak, erabat gailendu dira: aurrera eraman (lanak/proiektua/asmoa) (g. llevar adelante). (aurrera eraman/eroan(b) '(zerbaiti) ekin' eta burura eraman elkarrengandik bereizgarriak ote dira beti?); garaipena lortu/erdietsi (g. conseguir la victoria): tradizioan gehiago erabili izan da garaipena irabazi, garaipenarekin irten, garait(i)a ardietsi/irabazi); txalo zaparrada jaso: gehiago erabilia izan da txalo handiak/ederrak hartu/izan; txalo bero (bat) (g. ? un cálido/caluroso aplauso) bezain erabilia izan da txalo-hots / txalo-jotze. Gailendu diren esamoldeotan erdararen eragina nabaria da kolokatiboaren aldatetan.

Zenbait kasutan, oinarriak kolokatibo jakina hautatu du, adjektiboa, -ko izenlagunaren bidez. Adib.: aldeko/kontrako iritzia/botoa (eman/adierazi/...; (gazt. dar/expresar opinión/voto favorable/desfavorable). Erabateko kolokatiboa oso zabaldu da: erabateko lehentasuna (gazt. prioridad absoluta/total); ? erabateko akordioa (gazt. acuerdo total). Beste batzuetan -ko markak oinarria sustantibo bihurtzen du: ezezko biribila (eman/hartu) (gazt. negativa rotunda)²⁸; ezuste(ko) handia/galanta. Erabateko bezala, erabat aditzondoa ere hedatu da kolokatibo gisa: erabat aldatu (ordea, Herria Iparraldeko astekarian azkarki/arrunt/alde bat kanbiatu erabili ohi dute); erabat ukatu (gazt. negar rotundamente); tinko eutsi. Izan ere, hedabide eta kazetari askok mintzaira enfatikoa eta erredundantea maitzez, horrelako adjektibo eta aditzondo indar emaileak nahi dituzte.

Berria da ere, kirol gauzetan erabiltzen delarik, joko-bolada ona/txarra (izan/euki) eta erabiliagoa den jokobolada onean/txarrean (egon/ibili), gazt. tener/estar en buena/mala racha.

3.2. Zailtasunak: erdaren eragina, euskalkien arteko aldeak eta zalantzak

I. Sarasolak eta G. Garatek salatua dute erdaren, eta bereziki gaztelaniaren eragina²⁹. Zorionez, badirudi Hegoaldean azken urteetan kazetariak hobeki mintzatzen direla. Hala ere, erdararen eragin gehiegitxo nabari da askotan. Adib. egoera berbideratu (gazt. reconducir la situación)³⁰. Ondokoak ere ez dirateke egokiak, baizik berrikeria itsusi eta hizkuntzaren itsugarriak, kolokatiboa desegokia delako: porrota jaso (g. cosechar una/la derrota); porrot egin/eragin behar luke; gailurra/tontorra zapaldu (gazt. pisar la cumbre); gailurrera/tontorrera igo da normalena, edo bestela gailurra jo / gailurra garaitu (ap. OEH gailur, K. Mitxelenaren adibide batekin); ezinean aritu (da): egokiago da partiz. + ezinean/ezinik edo partiz. + ezinean gertatu (da); atxikimendua eman (dio)³¹: atxikimendua erakutsi/agertu (dio) behar luke; are desegokiagoa da atxikimendua jaso / atxikimendu ugari jaso (du). Ohargarri da hegoaldean jaso eta jarri aditz delexikalduak ugaltu direla. Arazoa sortu (da, du) (g. crear/surgir un problema) bezain erabilgarria dateke (zerbaitek/norbaitek) arazoa eman / arazoa(k) ekarri/ipini (du, dio), edo bestela, esanahia xeheki zein den, buruhausteak eman, auzia izan etab.

Arrunkeria nabari da adierazpide batzuetan: aktualitateari erreposoa eman/egin (g. repasar/dar un repaso a la actualidad) baino egokiagoa dateke eguneko gertaeren berri eman / eguneko gertaerak laburbildu edo antzeko zerbaitek, erreposoa hitza hizkuntza maila jasokoa ez delako.

Zuzen edo egoki itzultzea edo mailegatzea ez da askotan erraza.

Horretarako nazioarteko hitz eta esapideez baliatzea, gaztelania edo frantsesezkoen ordez, egoki da. Ez, ordea, Espainiako gaztelaniaren azken berrikeriak kalkatzea, gaztelera tradizionalagoari kasu egin gabe, hain zuzen Ameriketako gaztelania (hizkuntza honen zentrua, Espainia periferian baitago) zahar kutsu handiagokoa izanik.

Kolokazioen finkatze edo esapide egin bihurtze prozesua euskara batu, estandar eta normalizatuaren finkatze-arekin batera doa. Zorionez, euskararen batasunerako hain axola handikoak diren esapide egin askotan batasuna dago, “euskalkien axial ñabarra” -K. Mitxelenak zioenez- gorabehera. Hala ere, euskal esamolde askok, euskalkien arabera, osagaiak, edo bat bederen, desberdinak dituzte. Bereziki aditz delexikaldudunetan ekialdeko euskalkiak edo nafar-lapurtera eta hegoaldekoak bereiz dabilta: (Ekiald., Ipar.) eman / (Heg.) ipini, jarri, etab., adib. dudan eman / dudan ipini ; zutik ipini / zutik eman³²; (Ekiald.) begi eman / (Mend.) begia bota; (Ipar.) goiti joan / (Heg.) gora egin; (Ipar) irabazitan joan, irabazitan gelditu / (Heg.) irabazten joan, irabazten irten. Alde handiagoak ere ageri dira, bi kolokatueta: kargua hartu (Heg.) vs kargu hartu) / kargutan sartu (Ipar.). Baina ez da dudarik hegoaldekoak nagusituz joango direla.

Aipaturiko eragozpenez gainera, euskara batuak lanbide-hizkera edo hizkera teknikoak bateratzea eskatzen duenez, bateratze bidean azken urteetan esamolde batzuk -aukeran gehiegitxo-, elkarren eite handikoak, elkarren lehian dabilta, zalantzan. Adib. argi gelditu (da) eta agerian gelditu (da); argi egon (dago) eta agerian egon (dago). Agerian erabiltzeko joera zabaldu da: agerian izan, agerian ipini/eman, agerian/ageriki esan/erran, agerian jarri, agerian ezarri. Horiek guztiak tradizioan erabiliak baina horiekin batera ageri izan, ezagun izan ere bai, tradiziozko kazetaritzan³³. Eta, noski, argi (eta garbi) esan, argi mintzatu (da), garbiki mintzatu (da). Ordea, agerian utzi-ren adibiderik ez dator OEHn, beraz gazt. dejar claro, ing. make clear euskaraz esateko ez digu balio.

3.3. Esapide bat kolokaziotzat hartzeko irizpideak: erabilera eta tradizioa

Kolokazioak hitzunen erabilera eta normakoak badira, normakotzat hartzeko edo ezagutzeko irizpide batzuk behar genituzke: agian lehenik, erabiliak eta beti berrerabilgarriak izatea, eta gero tradiziozkoak edo bestela egungo premietarako egokiak izatea. Hortaz, aztergarri da egun hedabideetan erabili ohi diren kolokazioak jendeak -hizkuntza maila batean, eskoletan etab.- benetan erabiliak diren edo bakarrik kazetari zenbaitek eta beraz hizkuntzaren norman oraino ez finkatuak.

Ezen zenbaitetan kontua ez da beharbada tradiziozkoak diren edo ez, berriak diren edo zaharrak; ez eta berriok itzuliak diren, beste hizkuntzetan ere itzuliak izaten baitira. Baizik eta jendeak erabiliak ote diren edo ez; nahiz kontuan izatekoa den ere nola itzuli diren. Edo bederen normaren eremuetan -idazlanetan: prosa literarioan edo ez literarioan-, euskara ongi mintzatzen den mintzategietan onartuak diren, egoki idazten eta hitz egiten dakitenek erabiltzen dituzten. Esaterako, *Kirikiñoren* aldi bat igaro, *Kirikiñok*-eta idatzia, ez zen euskara mintzatuaren hitzunen denpora pasa(t)u baino gehiago baina normaren eremuko kolokazioa zatekeen, lehenago bederen. Beste era batera esanda: euskal kazetariak eta idazleek beren laborategian moldatu eta etengabe erabili eta hein batez beren erabileremuan behintzat hedatu dituzten kolokazioak hizkuntzaren norman finkatuak ote daude? Zein bai eta zein ez?

Egungo kazetaritza modernoan jarduteko euskarak premiazko dituen hitz eta esamoldeak, mailegatu behar ditu edo tradizioetik hartu. Baina egungo kazetari eta idazle batzuek alderdi batzuei dagokienez -hitzordena, esapide eginak, adierazpide jatorrak etab.- tradiziozkoak baztertu eta aise jotzen dute erdarara. Gure kazetaritzako tradizioa beharbada ez da munduko gorena edo inon ez dena baina idazle bikainak baititugu: J. Hiriart-Urruti, J. Etxepare medikua, J. Saint-Pierre, Lafitte, *Kirikiño*, Larreko, Manezaundi, Lizardi... Kontua da askotan euskara kaxkarra tradizioaren ezagutza ezarekin eta erdaren morrontzapean jardutearekin loturik dagoela.

3. 4. Kolokazioen arriskuak: nominalizazioa eta automatismoa

Kolokazioak kazetarien eskutan tresna indartsuak dira: molde erosoak komunikatzeko, informazioa prozesatzeko, mundua aztertzeko; asko, esanahiz gardenak dira, eta hortaz arrakastaz erabilgarriak. Arriskuak ere ekar diezazkioke kazetari estiloari, beti eta beti molde berak erabiliz gero: automatikoki hitz egiteko joera, xehetasun-ñabarduren murrizte eta galtzea, batzuetan are anbiguitatea, astuntasuna, mintzaira hanpatu eta erretorikoa, artifizialtasuna... Egun kazetari askoren aho-lumatan gehiegitzko erabilera eta desegokitasuna -zehaztasunik ezarekin

batera- ageri da. Esaterako, kolokatibotzat adjektibo indargarri arrunt zenbaiten erabileran (izugarria/ikaragarria/itze-la), adib. arrakasta izugarria (egokia da ordea gerla izigarria); edo aukera paregabea/ezinhobea: naturalagoa da aukera ona/ederra.

Bereziki kazetaritzako oinarritzko joskera eta ezaugarritzat hartzen den nominalizazioak, estilo aldetik, arrisku handia dakar. Adib. (zerbaiti) hasiera/bukaera eman eta hasi edo bukatu esanahi bereberekoak beti ez izan arren, eta modifikatzaileak hartzeko gauza izan arren (hasiera ona eman etab., horrek eskaintzen duen erraztasuna eta berre-rabilgarritasunarekin), hala ere testuinguru gehienetan esanahi berekoak dirateke, eta kasu horietan ongi hasi (da/du), ongi/gaizki/txarto jokatu du etab.en ordez beti eta beti hasiera eman, hasiera ona eman/izan (abiatu, abiarazi, abian izan/jarri etab. ere erabilgarri dira, noski), joko ona erakutsi/eskaini esatea ez da bide ona. Adib. (botoetan) igoera handia izan egokiagoa al da beti nabarmen(ki) igo edo gora egin, goiti joan etab. baino? Hel egite bat aurkeztu, hel egin baino?³⁴; ezezko biribila eman/hartu, ezetz esan / eza eman baino? Edo (norbaitek norbaiten) agurra jaso (du) (B 330, gazt. recibir el saludo), agurra ukan/entzun edo (norbaitek norbait) agurtu (du) baino?

Gero, nominalizazioa mintzaira hanpatu eta erretorikoarekin -adiera gaitzesgarrian- loturik ageri da; kazetari askok adierazpide enfatikoak maite dituzte (ezezko biribila, gogor kritikatu etab.). Eta mintzaira horrek komunikazioa eragotzi nahi du. Alde horretatik, euskal kazetaritzako esapide eta adierazpide konkretuagoek, kolokazioen erabilera orekatuarekin batera, lagun dezakete aipatu arrisku horiei ihes egiten.

4. Ondorioak

- Hitzak ez ezik, esapide eginak, esamoldeak (lokuzioak) eta esaera edo enuntziatu osoak (hizketa-formulak, paremiak edo atsotizak, aipuak etab.) aintzat hartu eta aztertu beharra dago. Gure tradizioaren -murrizta bada ere-ezagutza, batetik; euskara premia berrietaratzeara, bestetik: horiek dira, gure erronkak. Horregatik fraseologia kontuak ere -ez hitz teknikoei dagozkienak bakarrik- dira hain axola handiko. Zertan esanik ez, guri, irakasleoi dagokigu lehen-lehenik, horiek ikertzea eta irakastea.
- Kolokazioei dagokienez, on litzateke hiztegi gileek eta ikerlari euskarazko kolokazioen corpus eta hiztegiak egin balitzate, bai tradizioan bai egun arruntki erabili enenak; edo hiztegietan kolokaziotzat seinalatu, edo bederen adibideetan agertu, maiztasun handikoak direnean.
- Kazetaritzan beharrezkoa da arloka hiztegiak (esapideak barne) osatzea hitz teknikoak (kolokazioak barne) finkatzeko. Ezen, aitor dezagun kazetarien lana ezinbestekoa dela hizkuntzaren normalizaziorako.
- Euskarazko esamolde eta adierazpide franko aldatu eta berri ugari sortu edo sortzeko bidean dira, bereziki kazetaritzako mintzairan, hain zuzen esapide eginak behar dituenak baita. Irizpideak behar genituzke, hizkuntzalariek emanik, kolokazio edo lokuzio bat edo bestea bultzatzeko edo hobesteko.

Bibliografia

- Corpas, G. (1997) *Manual de fraseología española*, Gredos, 1997.
- (2001 a) “Corrientes actuales de la investigación fraseológica en Europa”, *Euskaltzaindia, Euskera*, 2001, 1.
- (2001 b) “En torno al concepto de colocación”, *Euskaltzaindia, Euskera*, 2001, 1.
- Garate, G. *Erdarakadak. Euskaraz ongi mintzatzeko Hiztegia Zazpi probintzietako adibideak*. Ediciones Mensajero, 1988.- Euskarazko tradizioa eta molde berriak. Gero-Mensajero, 2003.
- Sarasola, I., “Erdararen erasoa euskal kazetagintzan”, *Euskal kazetarien Jardunaldiak*, 1991, ondoko liburuan ere argitaratua: *Euskara batuaren ajeak*, Alberdania, 1997.
- (Adibideetarako)
- B(erria) 317 (*Berria* 2004-6-26); B 330 (*Berria* 330, 2004-7-11)
- Duhau, H., *Hasian hasi. “Birdena” edo bigarren partea. Beskoitzeko euskara* (Beskoitzeko Heskua). Edition bilingüe, 2003.
- E: *Eskualduna* (1887-1903, 1908-1944); EO: *Eskualdun Ona* (1904-1907).
- Etxebarria, T., *Lexicón del euskera dialectal de Eibar*. Euskera, 1966. Euskaltzaindia.
- Hidalgo Eizaguirre, V., *Txirritaren hiztegia*. Tesina, Gasteizko Filologia eta Geografia-Historia Fakultatean irakurria, 1985.
- J.E: Jean Etxepare: EB: “Eskual-herriko Bizia”, *Gure Herria*, 1935; Elkar, 1996.-Bu: Buruxkak, 1910; EEE, 1992.-Be: Beribilez, Baiona, 1931; EEE, 1987.
- Lafitte, P. Piarres Lafitte. *Kazetari-lan hautatuak*. Pako Sdupepek prestatua. Elkar, 2004.
- Lhande, Dict.: *Dictionnaire basque-français et français-basque (dialectes labourdin, bas-navarrais et souletin) d'après le Dictionnaire basque-espagnol-français de l'Abbé R. M. Askué et les Dictionnaires manuscrits des Abbés M. Harriet, M. Hiribarren et Pierre Foix*. T. I. Paris, 1926.
- OEH: *Diccionario General Vasco-Orotariko Euskal Hiztegia*, I-XV. Euskaltzaindia.
- Sarasola, I., EH: *Euskal Hiztegia*, Kutxa Fundazioa, 1996.

Oharrak

- Hitz batzuen konbinatze frekuentzia handia izan daiteke (adib. aizkora zorrotza), beste hitzekikoa baino handiagoa, baina hitz horiek ezin dira hain erraz kolokaziotzat jo adibide gehiago bildu gabe, zeren kasu honetan OEHkoak bertsozkoak baitira, eta Kirikiñorenak (Biarrak dira beso sendua ta azkora andi zorrotza, Kirik Ab I 3) ez baitu zehatz jasotzen ustez forma finkatua behar lukeena.
- Dolumin zinezkoa deremotela E0 28 1904 “Berdoly”. Dolu min bat izan ginuen. JE EB-13 502). Egun dolumin bizienak (hartu/...) ia beti Herrian.
- mutiko gazte haur hotz. JE Bu 207. Haur hotz nintzen. Gure Almanaka, 1961, 68 (ap DRA). langile hotz batek. E 1267 “Noren onetan?”. langile hotz (Oxobi 175 ap OEH). langile zahar pobre hotzeri. E 1284. edozoin langile, pobre hotz, emazte ahul. E 1331. atze hotzari. E 1159.
- urre gorritz edo bederen zilar xuriz. E 375. jazar hargin-beltzeri, (...) mutur gorri, ele zuri eta barne beltz guziera. E 300 “Hargin-beltzak”. gerla gorria eta miseria beltza. E 282? 283?. Mairu beltzak bere larru beltza. Axular 93. Mauru baltzari zelan zuritu bere arpegi-ja? Mogel Conf. Ona 112. mairu beltza zelarik Espainian nausi. Zaldubi, “Agur eta ohore Eskual-Herriari” RIEV 1909, 397.
- Labana zorrotzes betea. Munarriz 1753, FLV 1989, 117. Labain zorrotza sartu didak. Lekuona Eun Dukat 50.
- “Euskaldun garbi. Vasco que habla su lengua habitualmente, con corrección y naturalidad (tamb. fig., no referido a personas); “Vasco puro, no contaminado (no necesariamente referido a la lengua)” (OEH). Beraz odolez, bihotzez (eta fededunentzat erlijioz ere, erlijio katolikoz).
- Emazte begiratua artu ebana. T. Etxebarria, Lexicón.
- Frantzia katolikoa. E 1463, 1915. aleman higuin tzarren. Hiriart-Urruti, E 1472. beren Belgika gaixoaz. E 1450. (Aristide presidenta (...) bere aintzineko Duvallier higuina eta holakoen iduriko bilakatua. Herria 2746.
- “Sosa, Jainko huna 'ona'; gabia, debrü zarra” (zubererazko esaera bat). “Diabru zarrak aditzen dute / zure animen usaya”. Txirrita 0185 ap Hidalgo 167.
- Adibideak ik. OEH XIII, ohore.2., 445. or.

11. “Leihoak idekiak, zabal-zabala (leihuk iekiak, zahal-zahala) App. Les volets grands ouverts (alors qu'une tempête s'annonce)” (Duhau Hasian II 348).
12. Hartan dago tente-potente. Pazote bat lurreean landaturik badakizue, nola dagon? Hala-hala; bardin-bardina. EO 1904-2-5.
“Algunos profesores que se las daban de ingeniosos acuñaron el término CERO PATATERO, un ripio vulgar que los estudiantes más jóvenes de finales del siglo XX han puesto de moda para referirse a sus propios suspensos” (Calles, J.-Bermejo, B., Jergas, argot y modismos, Libsa, 2000, 35 “Tener un roscó”, 32. or.). Esanahia hedatu bide du, ez baita ikasleek beren buruez irri egiteko soil-soilik erabiltzen.
13. “Nigarrez, hipaka (niarrez, hipaka) App. Pleurer en sanglotant” (Duhau Hasian II 347). nigarrez, marrumaz ari 'pleurer en sanglotant' (Duhau Hasian II 348). Adibide franko dago OEHn (negar).
14. “Javier Madrazoren ustez, Ibarretxe Panaren eta PSE-Eek aurkeztutako Estatutu erreformaren arteko akordioa “posible eta beharrezkoa” da.” (B 330).
15. “Asea nuk, leporaino (asia nuk, lephoaino) App. J'en ai marre / ras-le-bol!” (Duhau Hasian II 347).
“Zakuia betea, mukurru (zakuia bethia, mukurru) App. Le sac rempli à ras-bord” (ibid. 348).
16. “kalakan tal tal tal Blaguer, bavarder” (Duhau II 391). “Uria, tzir tzir tzir. Une pluie insistante, mais pas violent, crachin” (ibid. 391).
17. aberats okitu batzu. E 1468. aberats okituentzat. Labaien Petrikillo t. 1 364. “Zaharra, okituia! (zaharra, okhituia) App. Très vieilli. (Peut se dire aussi bien pour une personne que pour un outil. Il va sans dire que quand on l'utilise pour une personne il faut faire plus attention, car ce n'est pas élogieux du tout...)” (Duhau Hasian II 348).
18. Garade pobre errumesak, gauza on guzien beartsuak negarresco balle gontan (384). LE-Ir ap OEH. Pobre errumesen beren artean ere berexkudeak. E 1098.
19. “Alfer(a) hotza! (azfer(ra) hotza). App. 'Grand paresseux' (Duhau Hasian II 347). alfer zotz harek. J. Etxepare Beribilez 13. Hura alfer-zotz hola ikustez. Barbier legend. 140. Badire alfer korotzak. E 1290.
20. “Ohoia duk, garbi! (ohoina-uk garbi) App. C'est un voleur, un vrai (avec exagération). Hura, buhamea duk garbi! (hua, buhamia-uk, garbi) App. Lui, c'est un vrai bohémien (En fait, il s'agit d'une personne un peu trop familière (et pas toujours claire en affaires?))” (Duhau Hasian II 346). Ohar bedi, puntuazio aldetik: lehenbizikoan (Ohoia duk, garbi) koma jarri duela, bigarrean ez (buhamea duk garbi!).
21. ikusten duzue, mozkor arraila? E 1290. Mozkor arraila dago. Garate *Erdarakadak* 224. Ostatu tzar oietako batean, mozkor arraildue. Izeta Dirua galgarri 56.
22. “Aberatsa, puxanta (abeatsa, puxanta) App. Très très riche” (Duhau Hasian II 348).
23. “Txerri-urde. “Txarri urdi ori! ¡asqueroso! Iz ArOñ. “Pleonástico que se dice así para acentuar el calificativo de cerdo. (...)” (OEH txerri).
“Asto ziria, jakin banu/jakiterat ekarriko nian!” App. Ah mince, alors, ...”. “Asto ziri handi horrek ez baitu bertze izenik <>. Ellipse de <merzei>” (Duhau II 40-41).
24. “Urguluz hantua. Litt. Enflé d'orgueil. Très orgueilleux” (Duhau Hasian II 395). “Jelosiak jana. Rongé par la jalousie”. Ibid. 394. “Ahalgez urtua. Litt. “Fondu” de timidité. (Pour les enfants)” (Ibid. 394).
25. G. Garate, *Euskarazko tradizioa eta molde berriak*. Gero-Mensajero, 2003. Egileak adibide batzuk baizik ez ditu komentatzen, baina askoz gehiago dira, noski.
26. (...) herrestan bizi den langileak zer esker dioke sekulan ikusiko ez duen erretretari (...)? E 1257. Egungo egunean oraino, zonbat ere arrotzez ezagutua baita eta alde orotarik ikertua, Eskual-herriak ez du eskerrik eskualdunentzat baizik. E 1277. Mendiatarik hunaraindiko eskualdunek nahi zuketzen eskuarak Parisen esker berak ardiets zitza nola garaitiko mintzaiek. J. Etxepare “Eskuara non erakuts” E 1275.
(norbait edo zerbaitez) grina izan: Grina: 'axola; jakinmina, ardura bizia, fr. inquiétude' (“Antsikabeki, batere griñarik gabe” indiféremment, sans aucun souci” (Lhande, Dict.). “Grina: 2. souci, inquiétude, soin anxieux” (Lhande, ibid.). (...) jende xehearen gogoa atzeman nahi (dute), hartaz grina dutela sinetsaraziz. E 1268.
(Diharasarriz) Badaukagu ez duela berak bertze lehiarik (eskualdun herritarrei ongi anitz egiteaz bertzerik. E 536 “Bi liburu on”). oraino lehen heinean. E 1302.
27. Hizka-mizka zerbait altxatu zen. Lafitte Murtuts 23 ap OEH hizka-mizka.
28. Eurekandik ezezko biribillak arturikoa. Agirre Kresala 119, ap OEH ezezko.

29. Sarasola, I., “Erdararen erasoak euskal kazetagintzan”Euskal kazetarien Jardunaldiak, 1991, ondoko liburuan ere argitaratua; *Euskara batuaren ajeak*, Alberdania, 1997. Garate, G. *Erdarakadak. Euskaraz ongi mintzatzeko Hiztegia Zazpi probintzietako adibideak*. Ediciones Mensajero, 1988.
30. “(...) Luesmak espero du EAJko zuzendaritzak bihar bertan egingo duen bileran egoera berbideratu ahal izatea (...)” (B 330).
31. 700 hautetsik emandako atxikimendua. *Berria* 317, 12.or.
32. Gobernio bat ezin xutik emanaz. *Lafitte Kazetari* 307.
33. Zerbitzu sekretuak agerian gelditu zirenekoa gogoan dute Parisen. *Berria* (izenburua), 2004-3-7, 28. or.
Ageri da heietarik aterako den hazia nolako diteken. *Eskualduna* 262.
Bertzalde orai auzi bat baitute hacia (...), hortarik ezagun da klarki Indoxinako soldadoak izan direla Parisetik beretik salduak komunixt etsaieri (...). *Lafitte Kazetari* 354. Bainan geroztik hainitz berriz hoztu zaizko, eta guk lerro hauk egitean ez da ongi ezagun ez dutenez frango deputatuk beren lehen iduripena eta baimena gezurtatuko. *Ibid.* 355.
34. (Koloniek) Hel egin diote erresumen batasunari Frantziaren kontra. *Lafitte Kazetari* 335.

a. BITARTEKARITZARIK GABEKO KAZETARITZA

Luistxo Fernandez
CodeSyntax

1. Informazioaren ziklo “bitartekatua”

Gaur egunean, ez da inorentzat sekretua, hedabideek prozesatzen duten informazioa oso mediatizatu dago, berba zatar batekin esateko. Bitartekatua dago informazioa, beste berba zatar batekin esateko.


Ikusi dezagun eskema bat.

1. irudia

Informazioa toki jakin batean dago. Era bateko edo besteko erakunde batean. Informazio horrek, publikora iristeko, kapa asko igaro behar ditu. Lehenengo eta behin, erakundearen beraren komunikazio politika edo kabinetea edo dena delakoa dago. Publikoki edo zeharka, erakunde bakoitza saiatzen da bere informazioa bere eran ematen.

Ondoren, kazetariak ere ez du inguru erabat aske batean jasotzen informazio hori. Hedabide jakin batean dago, eta hedabide horren politika eta lerroetara moldatzen da, modu batean edo bestean. Hedabidea bera, edo bere zuzendaritza, erakunde informatzaileen presio zuzenen mende dago. Edo diruaren presiopean. Dirua, testuinguru honetan, sarri askotan informazioa duen erakundea bera da, edo erakunde haren lehengusua...

Bestetik, hedabideak esparru informatibo osoaren presioa ere sen-



titzen du: lehian dago etengabe. Besteek esaten ez dutena esaten saiatu behar da, nobedadea ematen; eta aldi berean kontrakoa, besteek X gaiaz jardun eta jardun badihardute, hartaz ez jardutea gero eta zailagoa izango zaio. Talde mediatikoen garaian ere, informazioa eta mezua kanal ugariatik transmititzeko premia eta presioa ere hor dago.

Medio bakoitzaren kanal bakoitzak baditu gero bere presioak: zierre ordua, testua, irudia edo soinua prozesatu eta garaiz prest izateko presioa... Askotan, zierrearen betebeharrarekin, beste kreatibitate aukera handirik ez du kazetariak. Eskema honetan, marraztu ditudan lauki horietarik (1. irudia) gehienak dira presio-gileak, eta apenas bi katebegi dira presioa jasaten dutenak: informazioa bera, eta kazetariak. Nik ez dut uste informazioaren zikloan, hedabideen munduan, presioen eta bitartekaritzen nahasmen hori arindu egingo denik. Prentsa-kabineteen tirania salatzen idatzi dira tesinak eta tesiak, eta idatziko dira hemendik aurrera ere, baina haien aurkako borroka ez du exito handirik edukiko. Etorkizunean ez da prentsa-kabinete gutxiago egongo. Gehiago egongo da, bitartekari gehiago egongo da. Edozein dantza-taldek ere, azkenean, komunikabideekin harremanetarako pertsona bat izendatzen amaituko du.


Dantza-taldearen informazioa pertsona horrek bideratuko du, eta kazetariak, azken batean, prozesatu egingo dute. Prozesatzaile espertoak bihurtzen dira kazetariak eskema honetan; horixe da profesionaltasuna kontestu honetan, prozesatzean efikazia. Hala ere, eskema egiazkoa izan arren, exajeratua litzateke esatea hedabideen eskema honetan lan egiten duten kazetari guztiak prozesatzaile hutsak direnik. Ez da egia. Benetako kazetaritza ere irakurri edo jaso daiteke. Hedabidearen zuzendaritzak edo lerroak analisisa eta eduki sakonak ematea erabaki dezake, eta emango ditu, interesatzen zaion esparruetan (edo iristea posible zaion esparruetan), eta kazetari batzuek kasu horietan benetako kazetaritza egiteko aukera izan dezakete. Baina kazetaritza egiteko libre geratzen diren esparruak, medioak erabakitzen ditu, diruari erreparatuta. Euskarazko medioetan, Nafarroako Gobernuari buruzko artikulu kritikoak irakurriko ditugu, ze apenas dago dirurik galtzeko (UPNkoekin, dena galdutzat jo dezakegu), baina Jaurralitzaren inguruan, bertsio ofizialetatik harantzago doan ezer entzutea, irakurtzea edo ikustea euskaraz zaila da.

2. Internet sartzen denean informazio zikloa...

Zer eragin du edo izan dezake Internetek honetan guztian? Oro har, Internetek bitartekaritza kateak murrizten ditu. Merkataritza elektronikoen promesa hori zen, eta ez da guztiz gauzatu, baina apurtxo bat bai. Disketxe batzuek zuzenean saltzen dituzte disko batzuk, banaketa-etxeen bidez lortzen dena baino etekin handiagoarekin. Dell etxeak ordenagailuak saltzen ditu Internetetik, edozein denda-katek (Beep, Datac) baino askoz hobeto. Informazioaren katean ere, lehen marraztutako bitartekaritza ugarien esparruan, nik uste dut Internetek bitarteko asko ezabatzen dituela edo ezaba ditzakeela. Eta hor sortzen da lehen ebidentzia hauxe da: bitartekaritzarik gabeko kazetaritza, neurri handi batean, kazetaririk gabeko kazetaritza da. Nola aldatzen da komunikazioaren, informazioaren zikloa, lehen eskema hartan Internet sartzen dugunean? Honela, nire iritzi.


2. irudia

Informazio-kabineteen eta hedabideetako kazetarien arteko gerran, inor soberan badago, kazetariak izango dira Interneten. Erakunde jakin batek, bere informazioa publikoarengana nahi duen bezala iristarazteko, Internetez zabaldu besterik ez du. Ez du tartekoen beharrik, webgune korporatibo baten bidez informazio korporatiboa bana badezake. Enpresa baten informazio komertziala banatzeko balio dezake eskema horrek. Informazio korporatibo propagandistikoa nola banatu 21. mendean? Internet bidez, eta zuzenean. Enpresak ematen duen informazioaren kontrol osoa dauka, ez dago tartean gure zenbakiak oker edo gaizki labur ditzakeen inor.



3. irudia

Informazio instituzionala edo enpresa-informazio komertzialarekin ikusita, eskema honek itxura kaskarra dauka: diruak agindutako kontrol mediatikoa dakarkigu gogora. Baina eskema bera aplika dakioke edozeini. Erakunde alternatibo batek salaketak hedabideen bidez zabaltzeko, gainditu behar dituen filtroak ez dira gutxi: Diruaren eta hedabideen interesak daude batetik, eta kazetarien ahalmenak gero, ea ondo esango duten esan nahi duguna. Horren aurrean, Interneten zer? zuzenean bota. Erakunde ekologista batek ez du medioetara informazioa zabaltu beharrik Interneten zer aterako dioten ikusteko, bere webgunean gauzak esan, horixe da egin dezakeena eta egin behar duena.




4. irudia

Indymedia informazio sare alternatiboaren leloa gogora dezagun: *don't hate the media, be the media*.

Erakundearen eta publikoaren arteko komunikazio modu honetan, kazetarietzako tokirik ez dagoela ematen du... Ezabatu ditugu eskematik hedabideak eta kazetariak.

Baina ez dugu ezabatu kazetaritza lana. Komunikazio kabineteetan kazetariak edo komunikatzaileak egoten dira lanean, beren jabeek behar dutena esateko, noski, baina ez da horren desberdina egoera hori hedabide arrunt batekin alderatuta.

Erakunde alternatiboan ere, kazetaritza lana tokatzen da egitea Internet bidez informazioa zabaltzeko: grafiestek eta argazkilariek egin dezakete beren parte, idazleek berea...



3. Hartzaila igorle bihurtzen denean: blogak

Internetek, bestalde, beste faktore batzuk ere ezartzen ditu. Informazioaren ziklo zuzen-zuzena deskribatu dizuet, erakundeak informazioa zuzenean publikoari bidaltzekoa. Baina, horrez gain, informazio ziklo konplexuagoak ere badaude Interneten. Hartzaila igorle bihurtzeko gaitasuna duen medioa delako Internet, benetako komunikazioa, bi norabidetakoa, gauzatzeko bidea ematen duen tresna da. Horrek, sorkuntza kolektibo eta indibidualerako aukera handiak ematen ditu. Informazioaren hedapenerako ere bai. Informazio hedapenerako modu batzuk ezagutzen ditugu. E-posta bidezko komunikazioa, posta-zerrendak... Baina azkenaldi honetan, indar bereziz ezarri direnak weblogak dira.

Webloga estandar bat da dagoeneko. Informazioa, albisteak antolatzeko modu arketipikoa weblogarena da gaur egunean. Azken albisteak goian, haren azpian, atzeranzko ordena kronologikoan, gainerakoak. Lehen orrian hamar sartzen badira, bat berria kargatzen denean, 10.a orritik irten egiten da, baina (idealki bederen) artxibatuta jarraitzen du. Weblogaren eredu simple honi jarraitzen diote albistegi ia guztiek Interneten. Baita berez blogak ez direnek ere: egunkari digital gehienak eta prentsa-ohar korporatiboen bildumak, adibidez, goitik beherako ordena kronologiko horretan egituratzen dira.

Hortik aurrera, ñabardurak has daitezke. Bi motatako weblogak daudela esan daitezke:

- a. Kolektiboak, lehen jeneraziokoak. Slashdot¹ izan zen aitzindari, eta Kuro5hin² haren ondorengo nagusia. Gaztelaniaz Barrapunto³ sortu zen, eta tinko dirau. Euskaraz, Sustatu⁴. Oro har, weblog terminoa erabiltzen da horientzat.
- b. Pertsonalak. Pertsona edo taldetxo bakarrak sortzen eta kudeatzen dituenak. Intimidade bitxiak anonimatotik kontatzen zituen neskarena izan zen, beharbada, era honetako lehen weblog esanguratsua, baina harrezkero espertoenak asko indartu dira. Hauentzat, gehiago erabiltzen da bitakora terminoa, edo blog, laburtuta, forma luzearen orde.

(Berez, blog eta weblog gauza bera dira, baina badago halako ñabardura lexiko bat bien artean, kolektiboak eta pertsonalak desberdintzen dituen)

Blogak, halaber, idazteko orduan partehartze-aukera desberdinen arabera ere sailka daitezke. Kolektiboetan, erantzunak posible izaten dira ia beti, eta parte-hartze ireki samarra ere egoten da, baina mezu nagusien zein erantzunen argitalpenerako, moderazio, ponderazio edo kontrol sistema desberdinak egon daitezke. Blog pertsonaletan ere, egileek batzuetan ez dute nahi erantzunik, eta ez da egoten. Beste batzuetan, erantzun moderatuak egoten dira, eta blog-gile batzuek erantzun libreak ere sustatzen dituzte. Blog pertsonaletan beste erantzun mota ere badago: trackbacka, artikulua bati beste blog batetik egiten zaion deia edo erreferentzia.

4. Hartzaileak informazioa jarraitzeko dituen moduak: zori hutsetik, gogokoetara, eta XML feed-etara

Irakurtzeko modu eta ohituretan, blogak irakurtzen ditugu bi modutan:

- a. Interneten edukia normalean edo noizbehinka bilaketa edo erreferentzia baten ondorioz zerbait irakurtzen dugunean bezala.
- b. Modu jarraituan. Internautak XML Feedak zer diren eta nola aprobeztatzen diren ikasten duenean, feed bidez harpideturik irakurri ohi ditu blogak. Bestela, gogokoenen atalean lotura gehituta. Blog irakurketa blog-jarraipena izan ohi da.


Lehen irakurketa modua esparru jakin batean aplikatuta...

5. irudia

Informazioa horrela jasotzea eta banatzea zaila da. Bilatzaileen kapritxoan mende daude informazio ekoizleak eta hartzaileak, eta erreferentzien dantza ere aldakorra da. Webgune batek prentsa-aipamena lortu eta bisitak lortuko ditu, erreferentzia horiek idatziz zirkulatzen duelako, baina 24 ordu buruan, erreferentzia zakarrontzira doa.

Zorte hutsaren “bitartekaritza” sufritzen du informazioak hartzailearengana iristerako, eta horren gainean “zentzua” erakitzea zaila da.

Erabiltzaile aurreratuagoak, zorte hutsaren bitartekaritza kenduko du, Interneteko bere informazio kanalak zehaztean. Lehen urratsa, gogokoenen edo faboritoen zerrenda egitea da.




6. irudia

Hartzaileak zentzua eraikitzeko aukera gehiago dauka horrela. Jakina, informazio esparru jakin batean, ez interesik, ez eguneratzeko modurik, ez erabiltzeko erraztasunik ez duten webguneez ez dute faborito edo gogokoenen zerrenda jakin batean agertzeko aukerarik. Kriteriodun hartzaileen informazio multzoetatik kanpo geratuko dira informatzaile horiek.


Informazio bideek hierarkia argi bat dute, gogokoenetatik datoz kontsulta eta informazio esanguratsuak, eta besteak bilaketa+erreferentziak, lehen bezala, zortearen bidez informaziozirik inoiz filtratzen bada, ba ondo, baina normalean...

Internauta gehienak iritsi dira, esango nuke, informazioaren gainean kontrol apur bat izatera metodo horren bidez. Baina laster etorriko da informazioaren gaineko kontrol are estuagoa egiteko garaia. Une jakin batean, gogokoenen zerrenda handi bat kontrolaezina bihurtzen da: gogokoetan loturak egon badaude, uzten ditugu, baina haiek egunero bisitatzea... gogokoetan klikatzea, asko pilatzen direnean (informazio gehiagotara iristeko premia sentitu ahala), zortearen faktorearen pareko bihurtzen da: gogoratzen garenean klikatzen dugu. Azkenean, gogokoenen zerrendan, igual 40 lotura ditugu, baina egunero bisitatuak pare bat besterik ez dira izaten.




7. irudia

Zentzua eraikitzeko modu zuzena hau da. Blogerako informazio iturrietatik datozen feedetara harpidetza eginez, benetako diskriminazio bat egiteko aukera dugu internautok. Kostatu da hona iristea, baina behin aurkitzen duzuenean informatzeko modu hau, kateatuta geratzen da bat, e-postaren ezinbestekotasuna bezainbestekoa bihurtzen da feed-harpidetzen gaineko zainketa eta irakurketa. Feed-harpidetzaren "bitartekaritza" hartzaileen zentzunean eta informazio beharretan du oinarria. Informazio ekoizleek kontuan hartu beharko lukete hori. Gogokoenez bidezko bisitak, eta bilaketa+erreferentzia metodoaren bidez informazioa hedatzeko moduak, informazio hedapena zoriaren mende uztea ekarriko dute. Informazioa egoiki enpaketatu behar da medio berri honetan, ez edozein modutan, eta Interneteko web nabigazioa 10 urte zahar bada dagoeneko: estandarrak badoaz finkatzen, zerk funtzionatzen duen eta kea zer den argiago ikusten da dagoeneko, 2004. urtean.



10. irudia




Javier Armentia akaso ez da oso ona izango Euskal Herriko informazio politikoa prozesatzen. Futboleko analisietan ere, inutila da gizona, gutako edozeinek baino askoz gutxiago daki gizajoak. Baina Iruñeko planetarioko zuzendaria da, eta badaki zerbait astrofisikaz. Hortaz, astrofisikaz informatzen duenean bere blogean⁵, ziur egon gaitzke, beste bitartekari askok ezarritako traba eta informazio-nahasmenduaren gainetik, informazio zehatz eta ona eskaintzen digula.

Bitartekari bat gehiago (Armentia), baina bitartekaritza gutxiago informazioaren zikloan, horra Interneten ondorio bat. Batzuetan ez da ezinbestekoa esperto handi bat izatea informazioa prozesatzen duena. Esperto txiki mordoak, edo, nahi bada, tonto mordoxka batek ere efektu bera egin dezakegu. Honela:


11. irudia

Era honetako informatibo kolektiboak badaude, eta ez nolanhikoak. Hartzaile mordo baten artean osatutako Barrapunto.com albistegia da, adibidez, espainolez informatikaz eta teknologiaz oro har informatuta egoteko mediorik onena. Hartzaile bakoitza igorle izan daiteke Barrapunton, eta beharbada mezu ertaina edo hartaile bakoitzak interesekotzat jotzen duen gai medioa memelokeria handi bat da, baina oro har, zaborraren artean, harribitxiak ere sortzen dira, analisi sakoan, edo informazio benetan berriak. Gainera, artikulua bakoitza ere, jatorrizko “informatikaren mundu informatiboa” bezala, hartaile mordo baten eskuetatik pasatzen da, eta erantzunez hornitzen da, datu osagarri, errefutazio biribilez, eztabaidez... Kakofonia horretan askotan zarata besterik ez da sortzen, baina beste batzuetan, zentzua eta benetako informazioa.



Era berean, Armentiarena bezalako bloga, edo blog kolektibo hauek, informazioaren ziklo orokorrean sartzen dira. Nik sartuta ditut zenbait blog eta filtro nire informazio-iturrietan, eta feed-irakurgailuen bitarteko teknikoak erabiliz, zentzu zehatzagoa ere lor dezaket horrela. Honela jarraitzen du Luistxok informatika enpresa handi-handi batzuen informazioa Interneten:

12. irudia



Googlek eta Microsoftek zuzenean esaten didatena sinetsi baino, beste batzuek informazio-katean ezarritako filtroen bidez irakurtzen dut. Filtro horiek ez dira, inola ere ez, “hedabideen bitartekaritza”, beste internauta batzuek ezarritakoak baizik... Armentia eta bere bloga, edo Barrapunto, teknologiaren inguruko blog kolektiboa: horrelakoak eskura izanda, zertarako behar ditut kazetariak prozesatutako zientzia eta teknologiari buruzko albisteak? Ezer tarako ere ez. Prozesatzaile hobekak dira haiek...

Gainera blog irakurketak badu beste ezaugarri kalitateko bat. Blog bat irakurtzea, zutabegile bat jarraitzea bezala da. Eta zutabegileak bezala, gai zehatz batean duten ezagutza apreziatzen duzu batetik, baina ez hori bakarrik, bere idazteko era ere apreziatzen duzu...

Mikel Elorza irakurtzen dut igandero *Berrian*, eta politikaz ematen dizkidan pistak gustatzen zaizkit, baina baita txiste txoroak egiten dituenean ere. Nire blog faboritoak ere hala irakurtzen ditut: apreziatzen ditut Mini-D-ko⁶ argentinarrak web diseinuaz esaten dituenak (maisutzat daukat horretan), baina bere fetitxe japoniarrak aipatzen dituenean ere interesa du bere blogak.

Zutabea ez da, gainera, beti sorkuntza literarioarekin lotu behar... perfil teknikoa, akademikoa edo ekonomikoa duten blog-gile asko dago sarean. Hauen zutabeak jarraitzea, nolabait, aholkularitza zerbitzutxo bat izatea bezala da... Blog kolektiboei, berriz, zutabe pertsonalarena baino gehiago, kafetegiko tertuliaren antza daukate. Eztabai-

dak proposatzen dira, eta ideiak trukutzen dira, edo desbideratzen dira... Tertuliano nagusienek gidatzen dute eztabaida, eta arau demokratiko edo autokratikoak egon daitezke tertulia bakoitzean, baina guztietan dago, gutxienik, adi-adi egoteko aukera, eta ia beti, halaber, norberak aportatzekoa.

Hortaz, gorago egindako blogen sailkapenean, beste ezaugarritxo bat: blog pertsonalak, zutabegileak jarraitzea bezala; blog kolektiboak, kafetegiko tertuliak.

6. Panorama euskalduna

Euskaraz ba ote dugu halakorik? Ez, eta bai. Weblog kolektibo bat badago, *Sustatu*, baina ez da, espainolez informatikaz informatzen duen Barrapunto bezain ona. Funtsean, Barrapunto bezala, hartzaile askoren artean Euskalgintza informazio-gai gisa, ber-prozesatzen duen weblog kolektibo bat da. Hala ere, sortzen diren albiste eta eztabaidetatik sortzen da benetako informazio baliagarria, benetako zentzua? Nire zalantzak ditut.

Markos Zapiainek erantzun ironiko batean definitu zuen oso ondo Sustatuko eztabaida tipikoak zein diren⁷. Honako hauek: Txintxuak dira ETAkuak, ala piztia kabroi hutsak?; euskal Txip labeldunari buruzko jardunaldiak. Txostenak, gaztelaniaz. Ez dago eskubiderik!. Nik gehituko nuke, beste gai hau ere arketipikoa bihurtu dela: Gizon batek bere minbiziari buruzko detaile kliniko guztiak ematen dizkigu.

Ez dira, inondik inora, euskalgintzari buruzko informazio-iturri sakon, fidagarri eta probetxuzko bat definitzeko gitezak... Hala ere, misterioaren bat dela medio, Sustatu interesgarria gertatzen da, eta adiktiboa ere bai askorentzat.

Bere polemika antzu samarren azpian, salaketa eta kontra-salaketen atzean, mezu zentzugabeen ondoan minbiziari buruzko kronika ikaragarri onak irakurtzen ditugularik, zentzu kolektiboa sortzen da, pizten da. Ez da informazio purua, ezta, demagun, informazio kalitatekoa, baina bada zerbait: bitartekaritzarik gabeko kazetaritza da, bai. Ia-ia kazetaririk gabe egina... Badu tertulia literarioaren aire hori.

Alor pertsonalean ere ez dugu gauza handirik. Baina apurtxo batzuk bai. Jabi Zabalaren *Sarean.com* da adibide teknologiko bat (aholkularitza zerbitzuaren tankera hartzen diot nik, doan aholkatzen gaitu Jabik, eta eskertzen diogu --neuk bederen), baina beste esparru batzuetan ere badaude perla sortu berriak, 2004. urte honetan bertan. Telebistaz eta modaz idazten duen *Telezaborra*⁸ blog-gile anonimoa fenomeno bat da. Eta Ricardo Gomez filologoak hasitako *FiloBlogia*⁹ blog berriak ere promesa txiki bat dakarkigu berarekin: hizkuntzari buruzko informazio zuzen eta zehatza non lortu edukiko dugula, medioetako kazetariak baino zehaztasun handiagoarekin prozesatutako informazioa iritsiko zaigula esparru horretatik.

Jabi Zabala kazetaria dela, bistakoa da. Baina *Telezaborra* ez omen da kazetaria, ezta, eta hau esan zidatenean harritu nintzen, telebistako langilea, nonbait. Ricardo Gomez ere ez da kazetaria. Baina kazetaritza egiten dute.

7. Zer gertatuko da hedabideekin eta kazetaritza estandarrarekin

Interneteko aldaketa hauek gorabehera, ez dut uste paperaren, eta uhin hertzianoen munduan, beste kazetaritza eta hedabide eredu desagertuko denik. Ez nago seguru, ezta ere, Interneteko saltsa honek beste horri nola eragiten dion.

Medio horiek Interneten egoteko aukera handiak dituztela ere egia da. Blog kolektibo edo pertsonalak akaso informazio-iturri interesgarriagoak dira niretzat, medio tradizionalen webguneekin alderatuta, baina hala ere, hedabide horien izen-erakarmena handia izango da Interneten, eta edizio jarraituak eta eduki paperezkoak edo hertzianoak sare-bidez zabaltzeko izan dezaketen aukerak audientzia ekar diezaieke medio horiei webean. Ordaindutako

edizioek ere tokia izango dutelakoan nago, nahiz eta horrekin, Espainian *El Pais*ek ustez izan duen porrotarekin, eszeptikoak asko diren. Era berean, uste dut medio tradizionalak badutela blog motako informazio modu berriekin saiatzerik.

Internetera egokitutako informazio berria moldatzeko gauza ere izan daitezke hedabide tradizionalak, zergatik ez. Badute materialik eskura. *Liberation* egunkariak ematen dizkigu adibide pare bat¹⁰ eta, sarean aurki daitezkeen adibideen artean, *Spokesman Review* egunkari erregional amerikarrean aurkitu dudana¹¹ interesgarria iruditu zait... adibide pare bat besterik ez dira, besterik ere egongo da. Zergatik ez ditu *Berriak* Juan Kruz Lakasta, Harkaitz Cano edo Imanol Muruaren blogak inauguratuko laster? Edo telebista-bloga, ez akaso izen-deitura jakin batekin lotuta? Topagunearen *Asteon* baino merkeagoa izango litzateke. Ez dago motiborik aukera hauek deskartatzeko. Guztiz posibleak eta egingarriak iruditzen zaizkit, inbidia emateko moduko produktuak.

Berriak badu, hortaz (adibide bat jartzearren), kalitateko blog sorta bat sarean jartzeko aukera. Baina hala ere, ez du esklusibitatez izango. *Berriak* Canoren bloga argitara dezake, ados jartzen badira, baina Canok ez du behar *Berria* blog bat izateko. Bere kasa ere izan dezake, okurrizten bazaio behar duela. Eta hain zuzen ere, blog eta informazio-iturri interesgarrientzako aukera hor dago, hedabideetatik kanpoko blog-gintzan, hedabideetakoan baino gehiago. Kazetaritza interesgarriagoa izango da, nire iritziz, hedabideetatik kanpoko, barrukoa baino.

Ez dut uste honek inor harritu beharko lukeenik. Gaur egungo medio tradizionalan ere, informazio interesgarriena ez da kazetariak prozesatutako informazio arrunta, sekzioak titularrez betetzen dituzten albisteak edo teleberriko eskaletako piezak, baizik eta sinadura berezia daramaten analisiak: zutabegileak, analista politikoez konstatzen dizkiguten erradiografiak eta sekretutxoak, autoretza argia markatuta daramaten erreportaiak...

Autorearen zutabean, hortxe dago kazetaritza hedabide tradizionalan, inon badago. Eta zutabearen elementu antzekoena, sarean, bloga da, lehen esan dudan bezala.

8. Kazetaritzarako talentua: sena eta teknika

Nolanahi ere, paperezko edo Internet-blogetako benetako kazetaritzaren funtsa bat bera izango da. Ez prozesamenduko efikazia, baizik eta betiko kazetaritzaren muina: sena eta teknika.

Kazetari sena, funtsean, gauza batentzako gustua izatea dela uste dut, 'berria' apreziatzen jakitea, euskaraz eta gutxi gorabehera gure inguruko erdaretan terminoak duen adiera bikoitzean: albiste zer den detektatzea eta hura gustatzea, eta gauza berriak apreziatzen jakitea, betikoa hausten duen aldaketa zerk dakarren igartzea... eta aldateten aurrean zirrara sentitzea.

Kazetari teknika ere, gauza bat da, funtsean, Interneten: idazten jakitea, gauzak kontatzen jakitea. Internet oro har, eta bereziki blogak, medio idatziak dira. Ez multimedia eta ez kristorik, ez sinetsi halakorik: medio idatziaren kategoriakoa da Internet. Eta hortaz, ahaztu ez tekniko nagusia behar du Interneteko komunikatzaileak: ondo idaztea, oro har, eta bereziki Interneterako. Horrez gain, Interneteko teknologiaren gaineko kontrol hobea duenak hobeto komunikatu ahal izango du, baina bigarren mailakoa da hori...

Sena eta teknika horiek izendatzeko beste termino ponpoxo bat ere erabil genezakeen: talentua. Galdera da, badago talenturik Interneten? Bai. Talentua ez da hain gauza urria, eta Interneten talentua ugari dago¹². CDen edo DVDen salmenta gainbehera etortzearekin, musika edo sormenerako talentua arriskuan jartzen dela esaten digute, baina ez dago horren frogarik: sarean irudi eta soinu sorkuntzarako zelako grina dagoen ikusi besterik ez dago. Enpresa batzuek software-patenteak bultzatzen dituztenean, enpresaren jakintza eta informatikarien talentua babesu nahi dutela diote, baina software librearen munduak erakutsi du Bulgariako logela urrun batean lanean dabilen

mutil batek ere eskain dezakeela bere talentu programatzailea sarea erabiliz, talentua partekatze sistema bat eskaintzen bazaio (software librearen eredu). Hedabide tradizional batzuetatik esaten digute adi ibiltzeko¹³, zentzua eraitzeko Interneteko informazio-itsasoan, beharrezkoa dela erakunde mediatikoaren eta bere kazetari berezituen talentu prozesatzaile ofizialdua...

Nik kontrakoa uste dut, hedabideen informazio-kate “bitartekatuan” talentua egon badagoela, baina ez dela han argiago ikusten Interneteko blogosferan baino. Hartzaile bakoitza igorle bihurtzeko aukera eman, eta ehun hartzailetarik bat igorle bihurtuko da, eta hamar igorletarik batek talentua erakutsiko du, edo hamar igorleren mezuen kaka-foniatik, bestela, zentzun apur bat eraikiko da... Sarearen efektu ireki horretan sinesten dut, eta talentu askearen ugaritasunean. Oro har, gainera, ez dut uste erredakzio jakin batean, 30 kazetariko lagina harturik, sarean lanean ari diren 30 ingeniari laginarekin alderatuta, batean bestean baino kazetari-talentu handiagorik dagoenik. Ez hedabideek gaur egunean duten lan egiteko modua, ez kazetariak izaten duten prestakuntza, ez dira berme kazetari-talentuaren pizteko, nire ustez.

Eta talentua dagoenean ere, kazetari talentudunak sen hori zierre ordurako dagokion espazioa betetzen gastatu behar du, eta aldiz, akaso sarean lanean dagoen ingeniariak, zierre ordu barik, blog batean inbertitu dezake daukan kazetari-sen ezkutu hori... Kazetari batzuek buelta eman diote kontu honi. Finlandiatik *BBC*ko korrespondentalak zer kontatuko ote duen, ez dakit (Finlandiako aktualitateak ez nau horrela bereziki erakartzen), baina Fiona Romeo alias foe delakoak, blog interesgarri bat badaukala badakit...¹⁴ Gainera, hedabide-egitura batean sartuta ez dagoen blog batek, hedabideen munduko murrontza ekonomikoetatik askeago egoteko aukera dauka. Hedabide tradizionala, eta hartan lan egiten duten kazetari eta prozesatzaileak, presio eta oreka ekonomiko zailetan lan egitera behartuta dauden negozio garesti batean dabilta: paper produkzioa, edo telebista produkzioa (ez horrenbeste irratia), oso garestiak dira. Hortaz, faktore ekonomikoen bitartekaritza eta presioa handiagoa da. Internet merkeagoa da. Blog bat edukitzeko ez da diru asko behar. Baina dirua kostatzen da, hala ere. Akaso ordutan neurtzen den dirua. Eta, sarrerarik, edo ez dago, edo oso murrizak dira.

9. Internet vs. beste hedabideak: komunikazio esparru estrategiko batzuetan, Internet da giltza

Adibide bat aipatzeagatik: *Asteon* izugarri garestia suertatzen zen, eta laguntza faltan ito egin da. *Telezaborra* blogak ez du gasturik, eta ez du sarrerarik. Akaso ez du *Asteonek* baino askoz gehiago iraungo, baina bitartean, zuloarik ez du eragingo, eta buruhauste ekonomikorik ere ez. Ixten denean, agur, eta beste zerbaitetara. Irismen eta helburuetan, edo garrantzi estrategikoan, *Asteon* eta *Telezaborra* konparaezinak direla esango du norbaitek. Irismenean, gaur egunean, doako banaketa masibo paperezkoa ordaintzeko modua badugu, argi dago bai, Interneteko banaketa doako baina murriztuak ez duela bestearen ondoan parekatzerik. Baina helburuen garrantzi estrategikoan nik zalantzak ditut, ea bata bestearen hain gaitetik ote dabilen. Helburua bada publizitate-azpiegitura bat posible egitea, eta zortzi laguneko lantalde profesional bat izatea martxan... Tira, *Telezaborraren* helburuak ez dira horretara hurbiltzen, baina, zorrotz begiratuta, bestearen helburuak horiek baziren, helburuak eta bitartekoak nahasten ditugulako izango da: *Asteonen* helburua zortzi laguneko egitura profesional bat izatea zen, ala zortzi laguneko egitura profesionala zen behar dena ez dakit zertarako? zer da lehenago, arrautza ala oiloa?

Jarri dezagun helburua muinean, informazioan. Telebistari buruzko informazioa euskaraz: informazio ziklo bat sortu horren inguruan. Euskararen komunikazio esparrua eraiki horretan ere... plan estrategikoek, nazio biltzabai-daguneez, horrelakoak sarri aipatzen dituzte, baina... *Telezaborra* telebistari buruzko euskarazko komunikazio esparrua betetzera dator? Bai, zergatik ez. Osagarri xume bat, esan dezagun. Oraingoz, *Asteon* baino exito handiagorekin, eta bideragarritasun ekonomiko handiagorekin. Euskarazko hedabide “arrosak” ere (errebindikazio zahar bat zenbaitzarentzat), etortzekotan, horrela etorriko dira, *Telezaborraren* eredutik, eta ez Topaguneez paperezko

produktu batean beste diru mordoa jokoan jartzetik... Alternatiba bakarra subentzio infinitua da: *Sorginen Laratza*. *Asteonek* ere subentzio infinitua beste alternatibarik ez zuen, seguru asko... Ez dut esaten, hala ere, mereziko ez zuenik. Subentzio infinituak ezinbestekoak dira Euskal Herrian, eta kasu batzuetan eztabaidatu ere ez dira egiten (EITB). Baina hori baino estrategia iraunkorragoa, ekonomikoki zentzuzkoagoa, da Internetekoa: ez horrenbeste diru sarrerengatik, gastu faltagatik baizik. Telezaborra ia doan da. Ia doan, baina ez doan. *Telezaborra* ere ez da doan. Lana kostatzen da. Egilearen lana... Kontua da, egileak, edozein motibogatik, konpentsatzen ahal duela lan hori. Bizimodua beste nonbaitetik egiten du (edo bulego orduetan bere nagusiei denbora kentzen). Blog teknologikoak egiten dituztenek, adibidez, software librearen ereduari bezala, informazioa ematen dute, feedbacka eta erantzunak jasoko dituzten esperantzarekin. Edo bere burua promozionatzeko... Ze kurrikulum hobea Interneteko garaian, gai jakin batean duzun ezagutza eta esperientzia erakusteko, blog bat elikatzea baino?

Besterik gabe, akaso, zerbait esateko aukera eta gogoia izatea, eta gogo hori blog batean gauzatzea, nahikoa ordain da blog-gilearentzat. Beharbada, panorama informatibo eskasa ikustea izan daiteke beste akuilu bat: honez ez da informatzen edo ez da ganoraz informatzen euskaraz! egin dezadan nik behar bezala! Ausartuko naiz esaten horretaz badagoela zerbait *Telezaborraren* eta Ricardo Gomezen motibazioan, baina, beno, haiei galdetu beharko litzaieke. Norbaitek elkarriketatu beharko lituzke. Baina ez dut nik egingo, ze ni jada ez naiz kazetaria, izatekotan beraiek dira, Ricardo Gomez eta *Telezaborra*, bitartekaritarik gabeko kazetaritzaren lehen adibide euskaldun xumeak. Norbaitek pentsatuko du txantxetan nabilela. Ez nabilela esaten seriooki etorkizuneko kazetaritza euskalduna Ricardo Gomez edo *Telezaborra* bezalako ereduari dagoela. Ba bai, seriooki dihardut. Bi adibide besterik ez dira, eta, noski, ugaritasunetik bakarrik sor daiteke kalitatea. Bi blog euskaldun egon eta biak onak izatea, zorte onegia da hori. Baina 20 sortzen direnean, bakanen bat egongo da txukuna.

Bestalde, bulego orduetarako, behintzat, Internetera konektatzen garenean, hori da eredu. Bulegoa esatean, bulegoari lotutako esparru komunikatiboak uler dezakegu: euskarazko informazio ekonomikoa, profesionala, teknikari lotua, inon garatuko eta hedatuko bada informazio hori euskaraz Interneten izango da. Prentsa arrosa baino esparru informatibo interesgarri eta estrategikoagoak dira horiek, eta inon badute garatzeko aukera, Interneten izango da, ekonomikoki bideragarria izan daitekeelako eta informazio-banaketarako ereduak badaudelako: bitartekorik gabeko kazetaritza, kazetari tituludun gabekoei emana blogetan, edo ingurune korporatibo batean erakunde bakoitzak zuzenean emandakoa...

Gero etxean, butakan, beste zerbait izango dugu eskuartean eta pantailan... orain bezalatsu, akaso.

Oharrak

1. www.slashdot.org
2. www.kuro5hin.org
3. www.barrapunto.com
4. www.sustatu.com
5. javarm.blogalia.com
6. www.MiniD.net
7. www.sustatu.com/1082622124
8. blogs.ya.com/telezaborra
9. filoblogia.blogspot.com
10. Liberationeko bi kazetariren blogak: liberationwashington.typepad.com eta liberationnewyork.typepad.com
11. www.spokesmanreview.com/blogs
12. Escolar.net blogeko artikulua interesgarri bat talentuaz eta eskubide itxiez, <http://www.escolar.net/MT/archives/001025.html>
13. Jabi Zabalak komentatzen ditu halako ahalegin batzuk hemen: www.sarean.com/sarean/000542.html
14. foe.typepad.com

b. INFORMAZIOAREN GIZARTEA?

Josu Landa Ijurko
Editore eta idazlea

1. Atarikoa

Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia modu masiboan erabiltzeak sortzen duen ekoizpen eta truke sistemari deitu izan zaio Informazioaren Gizartea. Gaurkoan ez diot helduko izendapen horien egokitasunari, ezta eufemismo arrastoa duten hitz horien gerizpean sortzen ari diren arrisku gero eta globalagoei ere. Ez naiz arituko adierazpen eta iritzi askatasunaren inguruan ditudan iritzi gero eta ezkorragoez.

Izenburuaren bukaeran gehitu dudan galdera ikurrak beste honetaz ohartarazi besterik ez du egin nahi: euskal ekosistema gertu eta murriztean teknologia horien erabilpenak dituen ahuleziez eta uste ustelez. Gaztigatu nahi dizuet, halaber, gaurkoan esango ditudan gauza gehienak ez direla euskarri elektronikoan kaleratzen diren hedabidei buruzkoak soilik izango, euskarazko kazetaritzaren gaineko orokortasunak tartean izango dira eta.

2. Informazioaren bahiketa

Prensa edo hedabide askatasuna makroenpresaburuei bakarrik dagokien gauza da. Hedabide askatasuna enpresa askatasunaren adar soila besterik ez da. Hedabide tradizionalak osatu diguten panoramaren barruan, oso pertsona gutxi erabaki dezakete zer den informaziogai eta mezu hori nola transmititu behar den. Informazioaren bahiketa ia balio kulturalizat asumitu dugun kontua da. Hori horrela da, eta kito. Autoak eskuinetik gidatu behar direla onartzen dugun naturaltasun berberaz.

Bahitura egoera horren aurrean, Internet bezalako tresna bat erabili ahal izatea oasi baten tamainako oxigeno ponpa izan liteke: masa hedabide bat antolatzeke aski diru ez duten informaziogileek non plazaratu izan dezaten. Potentzialitate teknologiko hori egon badago. Beste kontua da ea erabiltzen ari ote garen, teoriako oasi hori espejismo soila ez ote den izango.

Gaurkoa bezalako gaiak planteatzen direnean galdera kilikagarri hauxe egiten da normalean: “Internet: demokratizazio tresna al da?”. Arestiko harira egokitzen zait itaun horixe. Potentzialki, eta informazioari gagozkionez, baietz esango nuke, bestela inola ere argitaratuko ez lirakeen gauzak eta iritziak argitara daitezkeelako. Hurrengo auzia, beste hauxe: demokratizazio tresna gertatzen ari al da? Erantzun ezezkoa oraingoan, edo ez hain baiezkoa gutxienik.

Nolabaiteko paralelismoa ipinita, argitalpen kontuetan duela hamabost bat urte gertatu zen demokratizazio-urrats garrantzitsuena aipa genezake: autoediziorako tresna informatikoak. Lehenago prozesu konplexu eta garestia zena aspaldiko urteotan ia edonoren esku dagoen baliabidea da. Emaitzak ere begien bistakoak dira: aldizkariak, argitaletxe txikiak, tokian tokiko telebistak, eta abar. Autoedizioaren iraultza gabe, euskal prentsa ez litzateke gaur

ezagutzen dugun bezalakoa izango. Duela hogei urteko baldintza teknologikoetan, egunkari edo aldizkari bat kale-ratzea gaur kostatzen denaren halako bi edo hiru litzateke.

Internetek autoedizioarena baino iraultza handiagoa ekar zezakeen zentzu berean, potentzialki, baina ez da ekar-tzen ari. Horretaz luze jardungo dut geroago, baina badirudi kazetari sena duten pertsonak nahiago dutela kazeta-ritza tradizionalak eskaintzen dituen abantailak gozatu (hedapen neurgarria, soldatapeko lana), ezen ez informa-tzeko bide berriak eskuratzen dizkion ahalmen informatiboak espermentatzea. Liburu argitalpenean inoiz indarre-an egondako egile-editorearen figura berpizteko aukera paregabea dago kazetaritzan, baina “argitara diezadaten” jarreraren aroan ei gaude. Potentzialitate ikaragarri hori alferrik galtzen ari garela da nire inpresioa. Eta, horren ondorioz, demokratizazio tresna izan zitekeena, globalizazio tresna gertatzen ari da.

3. Aukera historikoa galtzen

Euskarazko hedabideen “esparru autonomoari” dagokionez, komunikaziorako teknologiek eskaini diguten aukera historikoa galtzen ari garela egingo nuke. Hedabide tradizionalak azken hamar urteetan gauzatu dutena aztertuz gero, etsipenerako bidea besterik ez dit ematen.

Esan izan da, eta egia da, euskaldunok hedabideen arloan atzerapen historiko baten kontra borrokatu behar izan dugula beti. Beste komunitateek baino beranduago hasi, baliabide urriagoz saiatu eta ahal bezala ahal dena egitea izan ohi da gure patua. Horixe gertatu zen pentsarekin, irratiarekin, telebistarekin...

Internetek zabalduetako informazio ahalmenari dagokionez, aitzitik, ez daukagu ohiko bertsio hori hain erraz onartzerik. Lasterketa horretan besteekin bateratsu abiatzeko aukera izan genuen. Ezin, beraz, atzerapen kronolo-gikorik aipatu. Hizkuntza gutxitua izatearen ondorio omen den baliabideen urritasunari dagokionez, ezin esan eus-karri berri horretan dirua beste euskarrietan bezain faktore erabakigarria denik. Salbuespenak salbu (beroriei buruz geroago mintzatuko naiz) benetan patetikoa iruditzen zait hedabide tradizionalak Interneten egiten dutena: papere-an argitaratutakoa sareratu, aski modu erabilkaitzean maiz; paperean argitaratzeko luzeegia dena (txostenak, agi-riak...) toki mugarik gabeko webean ipini; eztabaida gaiak planteatu; eta ezer gutxi gehiago.

4. Masa hedabideetatik fragmentaziora

Hedabide berrien diagnostikoa, hedabide tradizionalen bitartez egiten da oraindik ere. Nago, Internetek hedabide-etara ekarritako sustraiko aldaketarik nagusia, kontzeptu zahar baten kolokan jartzea izan dela: *mass media* kon-tzeptua. Kazetaritza ofiziala oso kezkatuta dago gauzen kuantifikazioarekin: masa hedabidea izatera heldu al da? Gauzen oihartzuna neurtzeko modu bakarra kuantifikazioa balitz bezala. Egia aitortzearen, ez naiz harritzen OJD sindromea izendatuko nukeen horrekin hainbeste tematzea. *Egunkaria* itxi zutenean epaileak ebatzi zuena egia balitz (hau da, salmenta handiagoak frogatzearen kontabilitatea faltsutzea delitua dela), egunkari guztietako kudeatzai-leak auzipetuta leudeke. Egia unibertsala da: ez dago arazorik OJDri saltzen duzunaren doblea saltzen duzula sines-tarazteko. Ia zientzia zehatza da. Ezkutuko master bat antolatzerik egongo litzateke horren metologia erakusteko. Ez dago arazorik, ikertzaile guztiek (unibertsitatekoek zein kazetari dibulgatzaileek) gezur hori egiazat har deza-ten. Gauzak aztergai izan daitezten, konbentzioaren beharra baitakagu: metroa Lurraren koadrantearen milioirena dela onartua dugun bezala, OJDk ematen dituen datuak benetakoak direla sinetsi beharra daukagu. Ez daukat ezer horren kontra. Bai, aldiz, litekeen termometro bakarra hori dela pentsatzearen kontra.

Interneteko hedabideak ere ez daude OJD sindrome horretatik libro. Irribarrea sortzen dit (ezen ez barrea), euren arteko estekatuena zein den lehian hasten direnean. Edo zein den bisita gehien jasotzen dituen. Gainera, lasai-lasai onartuko dizute Interneteko erabilera modu kuantitatiboan neurtzeko asmatu dituzten aparatu guztiak

ez-zehatzak eta ez-fidagarriak direla. Baina, nonbait, kazetariak Pulitzer Sariaren sindromea (gurean, Rikardo Arregi Sariaren sindromea) sufritzen duten bezala, enpresa derrigorrez behar du OJD sindromeak (edo Telendro sindromeak, gurago baduzue) jota.

Irizpide kuantitatiboetatik kualitatiboetara pasatu gara euskarri berriotako hedabideetan. Beharbada Argiaren atarirako garrantzitsua izan daiteke zenbat bisita jasotzen dituen, baina, posta-zerrenda batean edo weblog batean, hori baino garrantzitsuagoa da dituen erabiltzaileetatik zenbatek jotzen duten bertoko edukia erreferentzia bezala. Mila izan edo hoge izan. Irizpide kualitatiboa, alegia. Konparazio batera, hitzaldi edo mahai-inguru batera hoge pertsona besterik ez dira joango apika, baina horrek ez du esan nahi erabakigarria izan ez daitekeenik. Adibideak ez dira falta gure historia hurbilekoan. Kulturgintzaren eta herrigintzaren ikuspegitik, kuantitabikoki batere garrantzirik ez duten ekitaldiek sortu ohi dituzte gizartearen garapenean funtsezkoak izan diren aldaketa asko eta asko.

Inoiz entzun dut amaraunaren funtzio behinekoetako bat ia-ia terapeutikoa dela: norbera hain arraroa ez dela deskubritzea. Esate baterako, ez zarela perretxikoen eta musikaren arteko erlazio estuan sinesten duen bakarra. Horretarako bidea ematen du Internetek. Zureak bezalako grinak eta pitzadurak dituzten pertsona gehiago daude la egiaztatzeko. Ez da gutxi, masa hedabideek guztiok berdindu nahiko gintuzketen aro honetan.

Internetek hedabideen mundura ekarri duen aldaketa pisuzkoenetako bat, lehenago esan bezala, mass media kontzeptua kolokan jartzea izan da. Informazio iturrien fragmentazioa ekarri du. Egia da fragmentazioa ez dela inolako mahuka berez. Oraindik orain, norbanakoei ahotsa emateak sortu ohi duen individualismoa kolektiboan nola uztartu konpontzeke dago. Beti egongo da konpontzeke. Baina, gurean, oraingoz ez dago horretan larregi kezkatzerik. Bego, adibide paradigmatico bezala, *Eibartarrak*-en kasua: gizabanakoei ahotsa emanda, itzelezko sentimendu kolektiboa sortu dute.

5. Erakundetzaren kalteak

Azken hamarkadetan euskalgintzak izan duen aldaketarik nabarmenena erakundetzea izan da. Aurretik zeudenak baino egitura sendoagoak sortu dira ia sektore guztietan, sendoagoak azpiegitura aldetik, diru aldetik, soldatadun langile aldetik. Behinola zientzia fikziozkotzat joko genukeen industria bat sortu dela esan liteke. Baita euskarazko hedabideetan ere. Eta, begien bistakoa denez, onura ugari ditu erakundetze horrek: behin-behinekotasunari errazteko ihes egitea eta etorkizunari begira segurtasun handiagoa izatea, besteak beste.

Erakundetze horrek, alabaina, indibiduoaren futitzea edo paso egitea ekarri du. Euskalgintzaren lanak erakundean eta makroegituron esku uztera ohitu gara. Nori bururatuko zaio esparru mugatuko edo zabalagoko hedabide bat abiaraztea? Horretarako daude euskara elkarteak, koordinakundeak, enpresa aurrez finkatuak. Halako rol banaketa orokor eta hedatua gureganatu dugula esango nuke. Eta ondorio hori ezin esan onuragarria denik.

6. Hedabide berriekiko autismoa

Euskarazko hedabideen artean gero eta erakunde-enpresa sendoagoak sortzearekin batera, gaizki (edo gaizto) ulertutako konpetentzia sentimendua ere nabarmen garatu da. Egia da euskalgintzako agenteok elkarrekin lehiatzen garela, dirulaguntzen partiketa hil edo bizikoan batez ere, baina benetako konkurrentzia komertzial batetik urruti gaude. Hala ere, ia lobby bezalako portaeretara heldu gara geure ekosistema txikitxo honetan: *Berria*, *Goiena*, *Argia*, *Topagunea*, etab.

Ez nago seguru berriki aipatutako konpetentzia horren ondorioa soilik ote den, baina euskarazko hedabideen artean, argitaratzen diren emaitzei behatuta, halako autismo harrigarria islatzen da. Ez da kasik elkarren berri ema-

ten, tartean prentsaurrekorik izan ez bada. Euskal prentsan hemeroteca (kazetaritzako genero bezala) ia erabat desagertu izana liteke autismo horren erakusgarririk aipagarriena. Hilabeteko *Berria* arakatuko bagenu, bestelako erreferentziarik gabe, idatzizko euskal hedabide bakarra berori dela ondorioztatuko genuke kasik.

Horren kariaz, hedabide tradizionalak Internet bidezkoekin ageri duten autismoa ez litzaiguke harrigarri izan behar. Harrigarri ez, baina kezkarri bai. Ez dut uste gehiegikeria denik, albiste iturri handietako bat Interneten dagoela esatea, baita euskal esparrutxoan ere. Eta hala ere, inprimatutako hedabideek beraien webguneetako ziberforoetan emandako iritziak bakarrik argitaratzen dituzte. Ziberhedabideetan etengabe eta ugari sortzen den informazioari ez diote kasu amini bat ere egiten. Zeren beldur dira? Beharrik, ez da beldur kontua. Autismo orokorrago baten segida, besterik ez. Edo, beharbada, gero eta prentsaurreko gehiago egoteak zerikusia izan dezake.

Barkatuko didazue esperientzia pertsonal baten berri ematea. Azken hilabeteotan nire informazio egarria ia aseztina bihurtu duten gertakari bi izan dira: *Egunkariaren* ixtea eta M-11ko atentatuak. Egun haietan, zeinahi informazio iturri eskasa izan zen niretzat. Ia guztia irensten nuen, eta nire egarri hark ezin zuen egunean behineko edo orduan behineko informazioarekin aski izan. Drogamenpekotasunaren antzeko zerbait bihur daiteke informazioaren beharra, eta informazio bezala edozer irensteko prest egon daiteke bat: iritziak, zurrumurruak, irainak... Horrelako egoeretan, hedabide tradizionalen mugak inoiz baino nabarmenagoak dira. Askoz ere gehiago jaso daiteke Interneten hedatutako albisteen eta mezuen bidez, bestelako bidez baino.

7. Diru-laguntzekiko morrontza

Beste arrazoi bat ere izan daiteke, euskal hedabide tradizionalak Interneten egin duten lan eskasaren neurria azaltzeko: dirulaguntzen eskasia. Ez dut esan nahi diru-laguntzarik izan ez denik. Diagnostikoa beste bat izan daiteke, euskal kultur industriak axioma berria sortu du: diru-laguntzarik gabe, produkturik ez. Euskarazko webean, hainbat informazio iturri ikusi ditugu dirulaguntzen poderioz sortzen, eta diru-laguntza faltaren poderioz ostera desagertzen, bi urte eskasen buruan. Zertarako balio izan du dirulaguntza horrek? Euskal prentsaaren soberazko koipe kiloak non dauden jakin ahal izateko, neure burua zerbait positibo ondorioztatzerara behartuz gero.

Kontu ezaguna da (edo hala behar luke), euskal hedabideetako enpresa batek Eusko Jaurlaritzarekin negoziatzen duenean, modu “globalean” negoziatu ohi duela, hots, guk hainbeste diru behar dugu gure egitura mantentzeko, eta orduan gobernuak esaten dizute: “Aizue, ohiko diru-laguntzetan ezin dugu orain arte baino diru gehiago eman”. Beraz, horretarako daude “teknologia berriak” deritzenei zuzendutako diru-laguntzak. Horiataro dirua bideratzea politikoki polita denez, etiketa horrekin mozorro ditzagun bestelako egiturak finantzatzeko diren diru-laguntzak. Horrelako panpinatze kasuak ugariegiak izan dira azken urteotan.

Funtsean, botere ekonomikoak eta harekiko menpekotasunak baldintzatzen dute hedabideen jarduna. “Baldintzatu” diodanean, “zentsuratu” esan nahi dut. Botere ekonomikoa diodanean, botere politikoa barne sartzen dut, XXI. mendean makroekonomiaren morroi eta eledun baita agintean dagoen politikagintza. Horren guztiaren kausaz, euskal prentsan zentsuratu diren artikuluaren errolda egingo balitz, ohartuko ginatke gehientsuenak Jaurlaritza edo tokian tokiko erakunde politikoa ez sumintzeko arrazoiz zentsuratu izan direla.

Eskarmentuak ikasgai, ziberhedabideak bultzatzearen emandako diru-laguntzetan irizpide hauxe ezarriko nuke: diru publikoa ez da azpiegiturak finantzatzeko izango, bilakaera propioa izango duten hedabideak abiarazteko baidzik. Une honetan euskal prentsaaren industriak 300 bat langile izango ditu. Erraz deduzitzen da “industria” horrek ahalmen izugarria duela diru-laguntza deialdietara behar hainbeste proiektu aurkezteko, guzti-guztiak Euskara Biziberritzeko Planean kabida dutenak, estrategikotzat jo daitezkeenak, euskaldunon jarduna erdaldunenarekin homologatzeko balio dutenak... baina enpresa baten galera-irabazien balantzearen menpe daudenak. Eta, diru-laguntza jaso ezean, bertan behera uzteko inongo arazorik ez dutenak.

8. Kazetaritzaren “profesioa” eta “bokazioa”

Utz egidazue kazetariaren profesioari buruzko bidenabarreko parentesia egiten, orokortasunezkoa izango bada ere. “Profesioa” diot, “bokazioa” berbaren beldur naiz eta. Seguruenik halako kutsu erlijioso-esentzialista aditzen diodalako. Baina esan nahi dudana adierazteko ez zait hoberik bururatzten. Beharbada “sena” esan geniezaioke.

Gero eta koloka handiagoan ikusten dut kazetariak berezkoa behar omen luketen informatzeko grina eta joera. Han-hemenka irakurri dut lanpostuaren zertzeladak izugarri baldintzatzen dutela, gaur egun, kazetaritzaren nondik norakoa. Hedabideen enpresetan gero eta hedatuagoa dagoen “externalizazioa” (alegia, enpresa kostuak gutxitzearen produktuak kanpoko enpresen esku uztea), esperientzia gutxiko jendea nahiago izatea (“merkeagoak” direlako)... kazetariaren jardun informatiboa hutsean uzteraino erlatibiza lezaketelako egoeran gaude.

Adibide modura, duela hamabi bat urte *Egunkariaren Estilo Liburua* lantzen ibili ginenontzat, argazkilaria ere kazetaria zen, ez zegoen dudarik. Orain, ikuspegi hori erabat etsita dagoela ematen du. Horren arrazoia, argazkilariek historikoki sufritu behar izan dituzten lan baldintzetan egon daitekeela dirudi. Azkenean, egunkariez kanpoko agentzia bihurtu dira horietako gehienak, ez daude idatzizko kazetariaren erredakzioetan integratuta, eta antzeko argazkiak zerbitzatzen dizkiete oso ildo editorial desberdinetako egunkariei. Antzeko zerbait gertatzen ari da beste esparru batzuetako kazetariekin.

Ez dakit zer erakusten duten hemendik ez oso urruti dagoen Leioako Fakultatean, baina irudipena daukat kazetariak eta kazetarigaiek gero eta gehiago lanpostu soila lortzea dutela helburu. Haietako askok eta askok lanorduetan besterik ez dute prentsa irakurtzen. Norbere burua informatzeko irrika ez daukana informaziogile izan daiteke? Horrek bai dauka profesionaltasunarekin harreman zuzena. Aurreko parentesi bidenabarreko horrek badauka isladarik Interneten sortutako hedabideetan ere. Gabi Araolazak egindako erroldan, “pertsonalak” sailaren barnean, hogeita hamar bat euskal weblog edo bitakora ageri dira, eta horietako bakar bat ere ez da kazetari soldatadun edo “profesional” batek sortua (*Amatiñorena* izan daiteke bainako bakarra, EBBko komunikazio arduraduna izateari kazetaritzarekin nolabaiteko harremana izatea suposatzen zaio eta).

9. Kazetaririk gabeko kazetaritza?

Alde horretatik, jakingarria da oso, weblogek lortutako arrakastaren ondorioz, geure periferiako kulturetan piztu berri den eztabaida. Eztabaida horren izenburua: “Posible al da kazetaririk gabeko kazetaritza?”. Neuk ez daukat weblogik, neu oraingoz ez naiz “mugimendu” horretako partaide, baina, hala izango banintz, harro sentituko nintzateke. Kazetariak kezkatzen hasi dira, intrusismoaren antzeko zerbait atzeman uste dute.

Kasu honetan, asaldatzen direnak ez dira hedabideetako enpresak, kazetari xumeak baino. Eta fakultatean edo ikasi zuten teoria errepikatzen digute. Zer ote da kazetari izatea? Gertaeren eta jasotzaileen arteko bitartekaritza, omen. Alegia, sute bat ikusi eta tabernan kontatzen duena ez da kazetaria.

Sute horren berri izan, ea egia den baieztatu, sute horren beraren lekuko gehiagoren testigantza bildu, suteek pertsonen garabidean zein garrantzi duten erabakitzea, eta hori guztia ganoraz komunikatzea omen da kazetaritza. Beharbada hori erakusten segitzen dute fakultatean. Arazoa, arazo berria, sutea ikusi duenak ez duela zertan tabernan kontatu. Adibidez, *Sustatu*-n kontatzen dezake, eta susmoak nauka Joxe Arantzabalek *Minbizia dudala esan didate medikuek* idatzi zuenean, informazio zientzien esparru autonomoan aro berria ez ote zen zabaldu. Lekukoa kazetari, horra kontraesanaren berria.

Klaudio Landa edo Aurkene Iturriotz kazetari direnik kolokan jartzea nekez onartuko dizu kazetaritzaren inteligentsiak, baina nonbait Markos Zapiain edo Xabier Mendiguren Elizegi kazetari litezkeenik esatea ez da zilegi.

Ez dut arrazoia ondo ulertzen baina. Beharbada kazetari horiek segituko dute pentsatzen gaur egun euskal prentsan dauden informazio foko garrantzitsuenak kronikak direla, eta ez, esate baterako, iritzi artikulua.

10. Atariak eta aurkibideak

Gorago agindu dut salbuespenei buruz mintzatuko nintzela. Orain artekoaren berrirakurketa eginda, ohartu naiz oso pesimista aritu naizela, marizaputz gorrotagarri baten modura. Baina ez naiz damu. Egoerak askoz gehiago dauka astintzeko, norbere buruarekin gustagarri ibiltzeko baino. Baina badira salbuespenak, bai.

Euskarri berri bateko hedabideak sortu baino, asmatu egin behar dira. Esan nahi baita, paperezko edo uhinezko euskarrietakoak ez bezalako formula berriak asmatzea eta esperimintatzea ezinbestekoa da hedabide egokirik sortuko bada. Porrotaren beldur barik.

Duela zortzi urte atariak eta aurkibideak ziren Interneteko izarrak. Atariei dagokienez, makrodatuek diote oraindik ere internatuek gehien erabiltzen duten zerbitzua dela. Nik ez daukat hain garbi, eta sineskaiztasun horretan zerikusia izan dezake datuok Yahooren eta enparuen txostenetan oinarrituak daudela jakiteak. Nire inpresioa beste bat da: Googleren arrakastak (arrakasta funtzionalak, ez ekonomikoak) espero baino askoz ere gehiago apaldu du atariaren eta aurkibideen pisua. Bilatzailea bihurtu da Interneteko kazetari izarra: erabiltzailearen eta informazio iturriaren arteko bitartekaria.

Hain indarrean ez dagoen arlo honetan, hala ere, bi hedabide aipatu nahi nituzke lehenik, oraindik iraun egiten dutelako: *kaixo.com* eta *aurki.com*. Meritu handia dute, aitzindariak izan zirelako. Eta iraun egiten dutelako.

Paperezko hedabideen inguruan antolatutako atariei dagokienez, goiena.net dugu, inolako dudarik gabe, osasuntsuena. Barne sinergia modurik egokienean aplikatu dutenak izan dira, paperean argitaratzeko egiten den esfortzua oso azpiegitura urriarekin hedabide berrirako baliatzen. Profesionaltsun handiz, hau da, kalitatez.

Argiaren Sarea ataria ia-ia hemeroteca huts bilakatu da, *Hari@* eguneroko albistegiak duen arrakastaren itzal. Salbuespen bakarra Pello Zubiria kazetari inkobustibleak ia astero oparitzen digun *Net.hurbil* da, Internet norainoko informazio iturri bilakatu den etengabe frogatzen duena. Kazetari tradizionalen moduan egiten du lan, gainera: iturburuak bilatu, ponderazioa egin, sintetizatu, landu eta txukun idatzi.

Hitzaldi honen asmoa ez da dauden sareko hedabideen errolda osatua egitea, baina ez nituzke aipatu gabe utzi nahi beste erreferentzia interesgarri batzuk: nontzeberri.com (irudiarekiko txertatze aipagarria), euskalerrria.indymedia.org (mugimendu alternatiboen hedabide sarea) edo bikzaie.com (euskarri elektronikoko hutseko hamaboskaria). Gehiago ere badira, baina bego horiekin.

11. Sustaturen aroa

Ez dakit *Sustatu* ataria edo webloga den. Gutxienekoa da hori. Interneterako pentsatutako eta garatutako formula da, eta dudarik gabe erreferentziazko gunea bihurtzea erdietsi du. Argigarria izan daiteke *sustatu.com*-ek duela 2-3 urte sortu zenetik hona jasan duen garapena. Aitortuko dizuet hasieran proiektuak ez zidala zirrara berezirik eragin. Oso formula zuhurra iritzi nion, hori bai, batik bat azpiegitura txikiarekin produktu duin eta interesgarria nola egin asmatu zutelako: jendeari hitza eman, erabiltzailea kazetari bihurtu. Irudipena daukat (Iban Arantzabalek zuzenduko nau, hala ez bada), hasieran ekonomiaren eta enpresen inguruko gaiak gehiago jorratzea espero zutela (bada-kizue, espiritu kooperatibista eta hori guztia). 2004ko irailean, 100 albistetik bakarra izan zen Enpresa sailekoa, erantzunik gabekoa (Kultura: 18 albiste, 63 erantzun; Hizkuntza: 7 albiste, 82 erantzun; Hedabideak: 5 albiste, 16

erantzun). Hala ere, gauzak aurretik pentsatu ez bezala garatze horren ondorioz, une honetan sustatu.com informazio iturri erreferentziala bihurtu da euskal internauta ugarirentzat. Hobe lukete egun dagoen “Profesional euskaldunentzako albistegia” horren partez “Zeu ere filologo, zeu ere kritikari, zeu ere soziolinguista... zeu ere kazetari” leloa ipintzea. Hortik datorke Lakasta-Zaldierokak “euskal intelektuak mutilmedien foroa” deitu izana. Ez zaie arrazoa falta. Baina gaitzerdi.

12. Emailen bidezko hedabideak

Interneteko beste informazio iturri oso pisuzkoa posta zerrendak dira. Funtzionatzen dutelarik, bistan da. Larregi sinplifikatuta, zerrendotan bi erabiltzaile mota egoten dira: aktiboak eta voyeurak (azken hauetakoa naiz ni, aitortzen hasita). Dozena bat erabiltzaile aktibo egotea aski izan daiteke posta zerrenda batek arrakasta izan dezan, eta helburu hori gure artean bik besterik ez dute lortu: *Itzul*-ek eta *Eibartarrak*-ek.

Itzul-ek duela gutxi iragarri du 500 harpidedun izatera heldu dela. Masa hedabideen kultura idolatratzen dutenei huskeria irudituko zaie kopurua. Ez dakit 500 horietatik zenbat izango diren aktiboak, 50 eta 100 bitartean esango nuke; horrek lortu du urteen poderioz informazio iturri itzela bilakatzea. Berez itzultzaile profesionalentzako lanabesa dena, ezagutza trukerako eta informazioa hedatzeko tresna ere bilakatu da, eta ez nolanhikoa.

13. Weblogileak, sarea eskura

Orain arte, behin baino gehiagotan aipatu ditut weblogak (blogak, bitakorak, nahi duzuen bezala). Modan dagoen tresna da Interneten. Erraza ez izan arren, hauxe izan daiteke weblog baten definizioa: gune batean argitaratutako mezuen jario kronologikoa. Era askotakoak izan daitezke (kolektiboak, monografikoak, pertsonalak), edukia zernahi izan daiteke (gogoeta, albistea, iritzia, kronika), eta gehienek iruzkinetarako eta interaktibitateko bidea ematen dute.

Kopuru aldetik eztanda bizi dute weblogekin munduan, batez ere weblog pertsonalekin. Norbanakoekin sorturikoe-tan, gorago aipatutako arrazoiak ez errepikatzearen, bada faktore bat berebizikoa iruditzen zaidana berorien arrakasta azaltzeko: teknikariekiko menpekotasuna gainditzea. Nahiz eta webguneak sortzeko teknologiaren oinarria aski sinplea izan, gaur egun dauden autoedizioaren tresnak kaskarrak, mugatuak eta akatsez beteak dira. Ez da erraza lagun bati esplikatzen bere lanak webean nola jar ditzakeen. Praktikan, lan hori “adituen” eskumen eksklusiboan izan ohi da. Weblogaren teknologia egindako ekarpen handia autoedizioaren edo kanpoedizioaren beharra gainditzea izan da: zerbitzarian dagoen programak automatikoki egiten du zure partez. Hori da blogileek maizenik aipatzen duten kontua: oso erraza da. Ez da gutxi; areago, jautzia ikaragarria da.

Horrela, euskarazko gune aktibo batzuekin inguruko pertsonen esku jarri dute weblog pertsonalak sortzeko aukera (*Eibartarrak*, *Littera Deusto*...), eta emaitza aski interesgarriak eman dira hilabete gutxiko ibilbide hasi berri honetan. Emango luke potoloena etorkizun dagoela.

Hedabide tradizional batean ildo editoriala dena, mundu ikuspegia bilakatzen da hedabide berrietan. Hedabide tradizional batekin jende gehiegirekin konplitu behararen gurutzeta dauka: denetik gutxi eman, askoren apetak erdizka betetzeko. Honakoetan, nahi beste eman daiteke gauza oso gutxiren inguruan. Iragartzaileen eta botere politikoaren presioa askoz ahulagoa da. Eta zu zeu zara hedabidearen erredaktore eta zuzendari.

Atzematen zaila dirudien collage atomizatua sor daiteke horren ondorioz, baina hariok amaraunean harilkatze-ko tresnak ere sortu dira, albisteen sindikazioa deritzona esate batera. Dispersioa eta fragmentazioa kontrako faktorea izan ez dadin bidea oraindik luzea da, hasi besterik ez da egina. Baina bada horren aldeko esfortzu handiak egi-

ten ari den jendea, oraindik ere bere onenera iritsi ez den fenomenoak heldutasuna lor dezan.

14. Etorkizuneko arrakastaren giltza?

Zaila da Interneteko euskarazko hedabideetan arrakasta kontzeptua erabiltzea. Erreferentzaltasuna esan liteke dela arrakasta, eta neuk hori klabe kuantitaboa neurtuko nuke. Aski izan daiteke berrogeita hamar erabiltzaileko merkatua lortzea, baldin eta gizarteko motor bihurtzeko ahalmena badu.

Ez dakit aurrera begira hedabide elektronikokoak nolakoak izango diren, eta are gutxiago nolakoak behar luke ten. Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiek etorkizunekoak asmatzen hastera ziztatzen gaituzte. Zientzia fikziorako hazitegia da teknologia. Frogatua daukat iragarle bezain igarle txarra naizela, ez nintzela azti izateko jaio. Duela zortzi urte euskarri elektronikoko hedabide berriok nolakoak izango ote ziren artikulua idaztera ausartu nintzen. Lotsa eman dit artikulua hura berrirakurtzeak.

Geroa nondik nora etorriko zaigun hausnartu ordez, azken urteotan funtzionatu duenak zergatik funtzionatu duen azter dezakegu. Faktore gehiago egongo dira, baina neuk nabarmenduko nituzkeenak hauek dira:

- Informatzeko gogoia. Grina, irrika... ez dakit nola deitu. Hain zuzen ere, hedabide tradizioaletan ahultzen ari den hori. Egitura baten jabe zarela konturatzeak, egitura oso txikia izan arren, lagundu egin dezake kazetari sena pizten, edo ez itzaltzen behintzat.
- Egiten duen lana kobratzen ez duen jendea. Ez nago kobratzearen kontra, ez naiz hain tontoa. Kontatazio bat besterik ez da: arrakasta lortu duten hedabide elektronikoko guztietan, hala ari den jende ugari dago. Parametro ekonomikoetan soilik ulertutako profesionalismoak errekarera eraman ditu azken urteotako hainbat saio.
- Eskuliburuetakoa teoria ahaztu. *Consulting*-en garaian bizi gara. Arlo batzuetan, askoz gehiago dira gauzei buruz aritzen diren pertsonak, egin egiten ari direnak baino. “Teknologia berriak” aukera paregabea dira aholkulari eta teoriagileentzat. Beraz, ez egin kasurik ni bezalako berbalapikoei. Eta...
- Egin ezazu behar duzuna. *Public Enemy*-ren kantu ezagunaren leloak, Interneten informazioa hedatzeko, ez dauka aitzakiarik. Egiten ez duenak, behar handirik ez duelako da. Horrela jakingo dugu gure diskurto ofizialetan aipatzen ditugun beharrianak noraino diren benetakoak.

c. MULTIMEDIA DIGITALAREN ERRONKAK

Josi Sierra Orrantia
IKT programako teknikaria

1. Ibilbide baten zenbait une: pertsonalak, profesionalak eta globalak

1.1. 60koa: Hasteko eta hazteko hamarkada

Nire eskola denboran 60ko hamarkadan, hizkuntza bakar bat baino ezin zen mintzatu: erdara batua. Eta gaztelaniarekin ikasi nuen nik “informazio ofiziala”. Garai hartan nire aitak (berak erosten baitzuen “periodikua”) *Gaceta del Norte* edo *El Correo Español (El Pueblo Vasco)* erabaki behar zuen, munduaren berriak ezagutzeko: bertoko mundua eta nazioartekoa noski!

Urte batzuk lehenago Harold Lasswelek Komunikazioaren prozesuan hiru zeregin definitu zituen, egitura eta funtzioa, kontuan izanik: 1. Ingurunearen gainbegirada edo zainketa; 2. Sozietateko atal ezberdinen korrelazioa ingurunearen ematen dioten erantzunean, eta 3. Oinordekotza sozialaren transmisioa, belaunaldi batetik hurrengoari.

Gizarteko prozesuak organismo fisikoeekin alderatuz, komunikazioa nerbio sistema bezala ikusten du: zentrala gune nagusietako gaiak bideratzeko, eta begetatiboa edo autonomoak familiarekin, auzoekin, dendetako komunikazioa edo lantaldeen eta testuinguru lokaletan sortzen direnak dira. Komunikazio-bide horiei esker eskuratu nuen nik nire nagusienganako ezagutza eta haien maitasunarekin batera eskaltzaletasuna. Eta Lasswellen ikuspegi funtzionalista ezagutu gabe, ofiziala ez zen kultura eta ezagutzaren altxorra balioztatu, aitona-amonenganditk batik bat. [Lasswell, H. (1955): “The structure and Functions of Communication”, Society Glencoe].

1.2. 70ekoa: Ahaztu ezineko hamarkada

70eko hamarkadan, gaztetan, euskal munduaren atek zabaldu zitzaizkidan euskara ikasteko, euskaraz mintzatzeko eta klaseak emateko beta izanik: gau eskolak, lantegietako klaseak e.a. Garai haietan gogoratzen dut espainiar telebistan Pinpilinpauza izeneko saioa ikusteko aukera izan genuen, ordu erdiz arratsalde batez!

Hamarkada honen erdian Humberto Ecoren ikuspegiak astintzen du mass-mediaren ikuspegia. Eta 1975ean zera aitortuko du:

- Telebistak beste komunikabideekin batera, ez du berez gizaldi baten pentsamoldearen osaketa eragin, nahiz eta gizaldi horrek iraultza egiteko telebistatik hartutako kontsignak erabili
- Gizaldi horrek telebistak aholkatzen omen zionaren ezberdina egiten badu (nahiz eta haren adierazkerak eta pentsatzeko mekanismoak erruz bereganatu dituen), zera sumatu behar dugu: gizaldi horrek telebistagileek, bestelako kontsumitzaileek eta berori aztertzen zuten teorikoek ez bezala irakurri duela telebista.

Kode eta azpikode ezberdinak erabiltzen genituen tele-ikusleok, ikuskizuna sortzen zuen igorleak adierazi nahi zuena beste esanahi batez ulertzeko.

Eta hori gutxi balitz zera erakusten digu Eco, Fabbriren “hitzaren mitoa” ukatuz: Hitzetara itzuli daitekeenak soilik dauka esangura; eta hitzez adieraz daitekeena soilik pentsa (beraz uler) daiteke. Ecoren ustetan badaude adierazpena eta interpretazioa, baina askotan ikusi-entzundakoaren azalpena ezin da hitzez egin! [Eco, H. (1974): Komunikazio Adituen Nazioarteko Biltzarra, Prix, Italia].

1.3.- 80koa: Lanari ekiteko hamarkada

1.981ean profesionalki irakasle bezala hasi nintzen ikastolen munduan, ondoren eskola publikoetan aritzeko. Orduan heldu ziren lehen ordenagailuak (Apple II edo Televideo) hezkuntza sistemara eta beraiekin batera testu prozesatzaileak (IBMren Write adibidez, bost eta laurdeneko diskete batean sartzen zen) eta datu base “tauladun astunak” (DbaseIV).

Hamarkadaren erdian Herri Telebisten mugimendurekin konektatu, eta *GTB* (Galdakaoko Telebista) sortu genuen bideo-zale batzuek, herriko jaien emankizunak eskaini ahal izateko.

1.981ean Yves Winkin irakasleak “La nouvelle Communication” izeneko liburua argitaratzen du Parisen, urteetan nagusitu ohi zen eredu lineala (Shannon eta Weaverrek aldarrikatutakoa) edo telegrafikoa deiturikoa zalantzan jartzen saiatzen dena. Sheflerrek bateaturiko Orkestraren irudia defendatzen du, komunikazioa gizartearen prozesu iraunkor bat bezala ikusiz. Eta parte hartzen dute gizabanakoek, modu aktiboan nahiz pasiboan, une orotan zer-bait komunikatzen dutela aitortzen du; joan-etorriko bidea da komunikazioa, norabide anitzekoa. Winkinen ustez jatorrizko iturrietara itzultzen da komunikazioaren esanahia: “komunean jartzea, parte hartzea, communion delakoa”. Hau da, pertsonak giza-komunikazioan partaide aktibo izatera.

80ko hamarkadan adieraziko du Stuart Hallek kodetu/deskodetu bikotearen teoria, semiotikaren ekarpenak bere eginez, prozesu biok gizarteko praktikak direla aitortuz.

Telebistan islatzen den errealitatea kodetuta dagoela frogatzen du, guk kodetutako mezu baten bidez jasotzen dugulako; eta zentzua osatzeko berriz ere kode bat erabiliko dugu “deskodetzeko”. Barthesen bidea jarraituz, “kode-ek harremanetan jartzen dituzte zeinua eta gizarte bateko ideologiaren unibertso zabala”. Kode haien bitartez agertzen dute botereak eta ideologiak esangurak eraikitzeak duten ahalmena, diskurtso jakin batzuetan. Ideologiaren zatiak direla uste du, eta Barthesekin bat eginez honela ziurtatzeko: “Adierazleen maila konnotatiboak lotura estuan daude kultura, ezagutza eta historiarekin, eta nolabait esateko, beraien bitartez, inguruneak inbaditu egiten du hizkuntza eta semantika sistema”.

Deskodeketa egiteko egoerak hiru hauetan laburtzen ditu:

- Hegemoniko nagusitua: botereak berak bakarrik definitzen ditu ikuskera, unibertsoa edo esangura posibleak, zilegitasun zigilua emanez.
- Negoziatua: osagai moldakorrak meta aurkakotasunezko osagaiak nahasten dituen.
- Aurkakotasunezkoa: mezuak aurkako zentzuan deskodetzen direnean.

[Hall, S. et al. (1980): *Culture Media and Language*, Birmingham].

Hamarkada ondo bukatzeko John Fiskek Ikasketa Kulturalen (*Cultural Studies*) ikuspegiarekin aberastuko du komunikazioaren mundua. Semiotika testualari, etnografiaren ikuspuntua eransten dio, hartzaileek masa kulturaren produktuen interpretazio indibiduala eta kolektiboa egiten dutelako, mezuen esanahiak erabiltzeko modu bereziak gertatuz.

Bonba bat bezala sortu zen Madonnaren musika, eta bere inguruan ematen diren fenomeno mediatikoak eta konportamentalak aztertuz hau pentsatzera iristen da: “kontrol ideologikotik ihes eginik, hartzaileei beren gizarteko esperientziarekin lotzen den zentzua ateratzea ahalbidetzen dieten eremuak daude Madonnaren irudian. (...)”

Haren irudia ez da bihurtzen patriarkalismoan, neska gazteentzako eredu baten adierazgarri; aitzitik, kontrol patriarkalaren eta emakumezkoen erresistentziaren, kapitalismoaren eta mendekoen, edo helduen eta gazteen arteko borroka semiotikorako gunea bihurtzen da”. [Fiske, J. (1989): *Reading the popular*, Massachusets].

1.4.- 90ekoa: Emaitzak eskaintzeko hamarkada

Garai honetan bideo eta telebista profesionalaren alorrean sarrera bat egin dut “masa-komunikazioaren ezti” probatzeko. Hezkuntza arlora bueltatuz, 1.992tik 1.998ra irakasleentzako “laguntza zerbitzuetan” jardun dut zenbait gizarte gai bultzatuz: osasun hezkuntza, ingurugiroa, berdintasuna, giza eskubideak eta bake hezkuntza, besteak beste.

Kurtso batez *ETB*1eko Ikusgela saioan zuzendari pedagogikoa izan naiz, telebistaren ekoizpenak egunerokotasunean duen eragina sentituz. Nire ekintza profesionala eta pertsonala heziketa etikoaren inguruan biltzen dira. Gizarte gaiak deitu daitezkeen horiek, gogoz eta ekimenez, elkartzen zaizkit. Eta “iritzi publikoaren” eta gizartearen sentsibilitate kolektiboaren inguruko gogoeta eta lanari ekiten diot. Hasi HIESaren prebentziorako materialak eta kanpainekin, Osasunaren heziketan generalizatzeko tresnak eta proposamenak egiteraino. Edo giza-eskubideen inguruko iritziak eta eskariak entzunez, bake hezkuntzako proposamen curricularrak egiteraino.

XX. mendeko azken hamarkadan izango da Elisabeth Noelle-Neumannek bere iritzi publikoaren teoria heldutasunez adierazten duenean: “isiltasunaren kiribila” deituko dio, pertsonaren eta gizartearen oinarrian dagoen izatera sozialean oinarritzen den giza-portaera bati. Taldeen dinamikan frogaturiko zenbait kontzeptu aplikatzen dizkio iritzi publikoaren portaerari, (pertsuasio eta adiskidetasun arauak errespetatzeko, taldeko partaideen kanporatzea, taldearen mugak definitzea, e.a.) pertsonak taldean duten eragina aitortuz.

Eta alderantziz: taldeak, eta taldekideen iritziak banakako portaeretan duten eragina, batik bat isolatuta gelditzeko beldurratik!

- Gizarteak isolamenduarekin mehatxatzen ditu desbideratutako gizabanakoak.
- Gizabanakoek etengabe nozitzen dute isolamenduaren beldurra.
- Isolamenduaren beldurak behin eta berriz bultzatzen ditu iritzi giroa epaitzen saiatzera.
- Epai hauen emaitzek jendaurreko jokabidea baldintzatzen dute, bereziki iritziak plazaratzeko orduan edo ezkutatzean.
- Aurreko laurak bilduz, esan daiteke elkarren arteko lotura bat badagoela, iritzi publikoaren sorkuntza, defentsa eta eraldakuntza eragileztat jotzen direla.

1.5. 2.000. urtearekin giza-aldi aldaketa

Gizaldi berriarekin batera, Hezkuntza Sailaren Informazio eta Komunikazioaren Programan (IKT) teknikari gisa ari naiz lanean.

Eta lanarekin zerikusia izango zuelakoan, Ikus-entzunezko Komunikazioaz arduratuta Kazetaritza Fakultatera hurbildu naiz, nire ikuspegia zabaltzeko asmoz. Gizaldi berri honen aurrean A. Mattelartek esan berri zuen: “garpenean lineal eta etengabearen ideologia arrazionalistaren porrotaren aurrean, komunikazioak hartu du txanda eta gizarteriaren bilakaeraren paregabeko parametro gisa azaltzen da, honek etsimenduz bere etorkizunari zentzua bilatzen dion une historikoan”.

Bere ustez, informazioaren gizartearen aroan, egoera mentalen produkzioarena ere badelako, askatasunaren eta demokraziaren arazoa desberdin ikusi behar da: “askatasun politikoa ez da bakarrik bakoitzari gogoak ematen diona egiteko eskubidea. Gogo horren formazio prozesua nork bere esku izateko eskubidean ere badatza!” [Mattelart, A. (1995) : *Histoire des théories de la communication*, Paris].

Argi gelditu zait tresna berri bezala aurkeztutako hauek, boterearen eskuetan (ekonomikoa naiz politikoa) eta bere interesen alde jartzen direnean, balizko ahalmen askatzailea, sisteman integratzearen alde jotzen dutela.

2. Zer da multimedia digitala XXI. gizaldian?

Urte askotan baliabide anitz eta ezberdinekin lanean aritu ondoren, liburu batetan aurkitu dut ondo adierazita nire ikuspuntuarekin bat datorren ideia. Anaya Multimedia bilduman Nicolas Boullousaren “Proyectos Multimedia” izenburuko liburuan hain zuzen ere.

Esaldi batetan biltzeko zera da: “Informazioa transmititzeko baliabide ezberdinak, hots, irudiak, soinuak eta testuak erabiltzen dituen sistema da”.

Espainiako Real Academiaren hiztegian honela aurkitzen dugu: “adj. Que utiliza conjunta y simultaneamente diversos medios, como imágenes, sonidos y texto, en la transmisión de una información”. Multimedia proiektu batean medio (edo baliapide) ezberdinak integratzen direnean, kontakizunaren “linealitatea” galtzen da, ikuslearen partaidetza aktiboa eskatuz, besterik ez bada, zer ikusi/entzun/irakurri nahi duen aukeratzeko!

Baliabide horiek ondokoak izan daitezke:

- Testuak: informazioaren eta kulturaren oinarrian daude hitzez idatzitako testuak, gure argotean “dokumentuak” delakoak.
- Irudiak: argazkiak edo marrazkiak, eskemak eta zirriborroak, irudi batean isla daitekeen edozein informazio.
- Soinuak: zaratek eta musikak, lokuzioek eta efektuek, hitzaldiek nahiz ohartarazteko hotsek sistemaren informazioa transmititzen dute.
- Bideoak (aurreko bien nahastea) teknologia ezberdinen konfluentzia lortzen ari dena (telebista eta orde-nagailua gero eta hurbilago baitaude).

Eta aurreko guztiaren gehigarri eta ondorio gisa, elkarreragina: hau da, pertsonak eskuratzen duen informazio guzti horrekin “zer-egina” izango du, eskuratzeko, nondik nora joan behar duen jakiteko, zer egin dezakeen argitzeko... Hemen bi kontzeptu argitzea komeni da:

- Hipertestua: testuan agertzen diren hitzak edo kontzeptuak esteken bitartez lotuta daude, hitz batetik bestera joatea ahalbidetuz, edo kontzeptu bat azaltzen denean bere definizioa irakurtzea posible egiten duena. Adibide on bat web orri hau da: orri berean joatea posiblea da “Index” edo aurkibide moduko bat daukalako. Baina posiblea da beste testu batzuetara deitzea ere (toki beran, ordenagailu berean edo Interneteko edozien zerbitzaritan. Hiper-testuak “ohiko-testua” gainditzen duela esan dezakegu!
- Hipermedia: gure inguruko informazioaren aniztasuna irudikatzen du. Burmuinean gertatzen den bezala, errealitatea zenbait baliabideren bilduma da eta uneoro elkartu, aukeratu, erabaki eta deskartatu egiten dugu: hau ikus edo bestea begiratu, hau entzun edo bestea irakurri. Ingurune hiper-media batean berdin jokatzeko dugu.

Komplexutasun honetan ezinbesteko elementu bat agertzen zaigu: kokapenaren markatzaileak: hau da nondik nora joan garen, eta egindako informazio-bidean non aurkitzen garen ezagutzeko lagungarriak dira.

2.1. Zergatik sortu da?

Personal Computer (PC) edo informatika pertsonalaren jaiotzarekin eta garapenarekin estuki lotuta dago: esan dezakegu bere eskutik hasi eta hazi dela. Ez dira urte asko IBMk bere PCa sortu eta zabaldu zuela (1980) orain barrea eragingo lukeen hardwarearekin.

Microsoften Windows sitema eragile “iraultzaileak” bi hamarkada baino ez ditu (1990). Eta Pentium delako txipak ere hamar bat urte dauzka. Eurekin lehian Macintosh ere ibili da beste parametro bazuetan mugituz. Eta gaur mila euroan eros daitekeen ordenagailua aurreko hamarkadakoak baino ehun bider azkarragoa da, disko gogorak biderkatu egin du lehengo disketeen almagazteko ahalmena eta gaurko monitoreek telebisten besteko kalitatea eskaintzen digute.

Azken orduko bultzada Internetek eman du, konexioen abiadura etengabe azkartuz doalarik: gaur egun mp3 musika da gehien entzuten dena eta bideoak denbora jasangarri batean eskuratzen dira saretik: beraz lanerako edo aisialdirako, dena erraz eta eskura daukagu, ezta?

2.2. Zerk eragin du aurrerapena?

Nire ustez, hiru dira azken urteotako eklosioa eragin duten faktoreak:

- Hardwarearen aurrerakuntza geldiezina: plaka baseak eta memoria arin eta eraginkorrak, prozesatzaileen abiadura biderkatuz doalarik, txartel grafikoan hobeak eta merkeagoak bihurtzen dira hilez hil, koloreen estandarrak (VGA, SVGA, XVGGA) mundu osoan zabalduz doaz...
- Softwarearen garapen arina: Irudiaren erabilpenerako programak erraztuz doaz eta ordenagailu guztietan erabil daitezke. Soinua entzuteko eta dastatzeko aplikazioak ugartuz doaz, mp3 eta musika digitalari esker, eta bideo ediziorako programak dohainik ere eskura daitezke. Gaur egun iMac edo Windows Xprekin batera hainbat programa datoz “dohainik” funtziook betetzeko.
- Pertsonen komunikazio beharrak: benetako aurrerapena bultzatu duena irakaskuntzan nahiz ikerkuntzan dabilzan zenbait pertsonen gogoia izan da; enpresa mailan edo komunikabideetan ari den jende askoren tresna hauek ideak zabaltzeko eta informazioa komunean konpartitzeko gogo bizia izan da multimedia aurrera ateratzen ari dena.

Lehen biak erraz ikus badaitezke ere, nik hirugarrenari eman nahi diot garrantzi gehien.

3. Nondik dator / Nora doa hezkuntza esparruan komunikazioa azken urteotan?

Lukas Rodriguez Toimil azken urteotako historia xume bat egiten saiatu zen Euskal Historialarien biltzarrean, (ikus <http://www.berrikuntza.net/users/lukas2/>) eta taula honetan laburbiltzen du ibilbide hau:

Aurrekariak gain prospektiba lana ere hartzen du egileak, zera aitortuz: ibilbide bat suma daitekeela ordenagailuen hobetzea eta konektibitatearen eskutik.

- Gero eta eduki gehiago agertzen dela, eta euskarak baduela presentzia.
- Eduki digitalak lokalean baino, sare globalean aurkitu, gorde eta landu egiten/egingo direla.

Maila argi batzuk marrazten ditu, banaka eta kolektiboki igo beharrekoak:

- Irakasleak ez ditu erabiltzen inoiz IKT medioak.
- Ezagutzen ditu hainbat produktu multimedia eta noizbait saiatu da gelara eramaten. Interneteko nabigatzaile berria da eta deskubritzen ari da arloko materiala.
- Irakasleak ezagutzen ditu arloko baliabide digitalak, eta Interneteko helbideak. Klaseak prestatzeko Internet erabiltzen du eta noizean behin diseinatzen ditu ekintza hezigarriak sarea erabiliz.
- Sarea erabiltzen du bere gaitasun profesionala eguneratzeko. Ikasleei proposatzen zaizkien zereginak gehienetan formatu digitalean lantzen dira. Komunikazio presentziala eta on-line.

Egia esan ingurune teknologikoen lanabesak berdintsuak dira web-atari eta zerbitzari gehienetan, kompetentziagatik, lehenago edo beranduago, hedatzen direnak. Adibide on bat e-postaren kontuena da: hotmail, yahoo, google ... bata bestearen atzean doaz antzeko eskaitzak egiten. Honetan laburbildu ditzakegu, irakasleontzat batetik, baina hiritar guztientzak dauden tresna komunikatiboak, guzti-guztiok web bidezko interface batetik abiatuta:

Nire ustez arazo zaharrei teknologia berriekin bakarrik ezin zaie erantzun. Baina beste elementu batzuen artean (taldearen dinamikari arreta, pertsona bezala kontuan izan eta zaindu, sentipen positiboak emanez eta komunikazioa landuz, ...) gaurko IKTek badute zer-eginik hezkuntzaren esparruan.

4. Zeintzuk dira oraingo erronkak?

Irakasleok aurrean ditugun erronkak ez daude arlo teknologikoari lotuta, baizik eta gure pentsamolde eta jarrerekin estuki uztauta. Nire iritziz makina eta konektibitate nahikoa badaukagu, abiadura onez eta kalitate duinez multimediaren elementu guztiak “denbora jasagarri” batean eskuratzeko (ez ahaztu ikastetxeetan ADSL kalitateko konexioa dutela eta etxe askotan ere bai). Baina CDRom eta DVDak ere mila euroko ordenagailu guztietan dardela (gaur egun grabagarriak).

Beraz tekniko baina, teknologiaren erabilera daude erronkak (teknologiak bide ematen duelako noski).

- Bakarka baina, taldeka lan egitea: norberak bere jakituria, materialak eta tresnak edukitzea baina, komunean dauden guneetan gordetzea. Gero eta txikiagoak dira dispositiboak, lehengo ahalmena gaudituz: gaurko PDA (agenda digital eramankorra) duela hamar urteko ordenagailuak baino arinagoa da eta kapacitate handiagoa dauka!
- Tresna eramangarriak denon eskura daude: bidea eman diezaiogun jendeari parte hartzeko, iritzia emateko... Adibidez, hamalau urtetik gorako gazte gehienek sakelako telefonoa daukate eta hizkuntza berezia erabiltzen dute komunikaziorako. Zabaldu ateak komunikaziora ez daitezen behartuta sentitu beren portaerarekin sakelako bidezko SMS mezuekin klasea apurtzera eta irakaslea haserretzera: besterik ez?
- Abiadura ezberdinean aritu behar dugu, denbora eta espazioaren koordinatuak aldatu direlako, eta paradigma berriak ohitura berriak dakartzkigu.
- ROL berria hartuz: jakituriaren iturri gisa baina, irakasleak bitartekari rola jokatzen ikasi behar du: teknologien erabilpenean ohituago eta jakintsuagoak dira. Baina “jakituria” argi dago klastetik kanpo dagoela, munduan zehar. Irakaslea bide bihur daiteke, ikasleak “mundura” irten daitezen.

5. Eta orain zer?

Kazetariekin enpatizatzen ari naizela uste dudanez, arreta handiz irakurri dut Assumpcio Maresma eta Vilaweb toki-jendeak dituen kezka eta irudikatzen duen etorkizuna. Nire ustez komunikatzaile askorentzat erronka berriak bide honetatik doaz:

- Komunikazio digitalak esparru berriak irekitzen ditu ohikoarekin kompetentzian sartu gabe: bideoak ez zuen irratia hil abestiak esaten zuen bezala, eta atari digitalek ez dute papera desagerraraziko! Oraindik asmaezinezko bideak ireki beharko dira, eta oraindik aurreikusten ez ditugun erak zabalduko zaizkigu: bai ekonomikoki sostengarri bihurtzeko bai lan egiteko eta ikasle edo ikus-entzuleengana iristeko.
- Aukera teknologikoak berritzen ari dira eta adi egon behar da: oinarritzko tresnak berdintsuak izanik! Adibidez, gaur egun e-posten buzoiak Interneten daude: ez duzu zure ordenagailura jaitsi behar: Yahoook, hotmailek edo xasamailek disko oso bat eskaintzen dizutelako. Edo orain arte diru dezenterekin erosi behar ziren aplikazioen modukoak dohainik lor daitezke. Bat aipatzearen, Adobe Photoshop-en moduko programa bat da GIMP, baina 800 euro aurreztuz!

- Orkestra komunikatiboak kazetariaren rola birkokatzen du eta orain arte irakurle zirenak, orain erantzule, informazio gehigarriaren biltzaile eta info-berriaren sortzaile bihurtzen dira. E-posta bitartez segundogutxian erantzun dezakete, bai iritzia emanez edo azalpenak eskatuz alusio batengatik; edo bilatzaile batean info osagarria hartu eta kontrastatzeko aukera izan. Assumcio Maresmak zera dio *Berriako* elkarriketan (2004.09.2ko “Gaiak” atalean): “Jendeak gauzak kontatu eta bere ikuspegia zabaltzerik izango du, zuk dituzun bitarteko berberekin. Informazioaren iraultza dator hortik”

Nire desioa da iraultza hori pertsonen mesederako eta elkarren arteko komunikazioaren aldekoa izatea. ¶Baina zuekin (eta nahi duten guztiekin) eztabaidatzeko prest nago!

d. INTERNETERAKO EUSKARAZ LANDUTAKO KAZETARI ZERBITZUA

Aingeru Genault
Jon Murelaga
EHUko irakasleak

1. Proiektuaren arrazonamendu teorikoa

“Unibertsitate kontzeptua ez da espekulazioaren bidez eraiki daitekeen betirako ideia orokor bat. (...) Unibertsitatea kontzeptu historiko modura hartu behar da. Beraz, historiari kasu eginez azal daitekeela esan daiteke. Eta edozein gauza historiko modura, garaieren arabera era askotako erantzunak onar ditzake”.

Giner de los Ríos, 1902

Teknologia eta unibertsitatea betidanik estu lotuta egon dira eta aurrerakuntza teknologiko asko bertan sortu dira. Hala ere, horien aplikazioa gizartean enpresen eskutik ematen da. Beraz, gizartearen ikuspuntutik aurrerakuntza teknologikoaren benetako balioa erabiltzean dago eta ez sorreran. Kazetaritza ez da inolaz ere salbuespen bat, eta teknologiarekin duen erlazioa ez dago aurrerakuntzan oinarriturik, erabiltzean baizik. Hots, kazetariarentzat teknologiak bere lana zabaltzeko tresna besterik ez du izan behar. Horrela izan delako, hala delako eta bide beretik jarraitu behar duelako.

Teknologia eta kazetaritzaren arteko erlazio hau eraginkorra izan dadin teknologiak eskaintzen dizkigun aurreko sistematizazio eta analisi sakon bat behar da. Hau da, teknologia menperatzea ez da nahikoa, gure lanerako onuragarria izan dadin erabiltzen jakin behar dugu. Teknologia erabiltzea sinplea izan daiteke, baina berrikuntzara iristea ez da erraza, eta zuzen egitea askoz zailagoa da. Hori guztia analisiaren eta sistematizazioaren bidez teoria bihurtzea guztiz korapilatsua da. Prozesu honek bere denbora eskatzen du heldutasunera heltzeko ikuspegi orokor baten beharra duelako.

Unibertsitateari heldutasunera iristeko behar duen denbora hau eskaintzen zaion arren gaur egungo gizartearen bilakaera gero eta azkarragoa da. Egoera honek gizarteak unibertsitateari eskatzen dizkion erantzunak bilatzeko denbora murrizten du. Bi dimentsio ezberdinetan mugitzen den mundu batez ari gara hizketan: praktikoa (lanbidea) eta akademikoa (unibertsitatea). Bataren eta bestearen arteko aldea areagotu ez dadin unibertsitatearen funtzioek lanbidearen eskakizunen parean egon behar dute.

1.1. Baina Internet ez da teknologia bakarrik

Gaur egungo gizartea Informazioaren Gizartea dela gauza jakina da. Ideia hau Interneten sozializazioaren aurretik sortu zen arren Sarea bizi garen mundu honen paradigma gisa agertzen da. Fenomeno honek Internet unibertsitate munduan toki bat izatea justifikatzen du. Baina kazetaritzaren kasuan hau ez da nahikoa, kazetariarentzat, sarea, bera bizi den gizartea zehazten duen fenomeno bakar bat soilik ez delako. Gainera, profesional horientzat, Internet, beraien lanbidean ezinbesteko tresna bat da. Baina sarea zerbait gehiago ere izan daiteke: kazetaritzarako ezaugarri propioak dituen komunikabide bihurtu daiteke.

Internet beraz hiru ikuspegi ezberdinetatik aztertu beharko lukete Komunikazio Fakultateek. Internet gizarte fenomeno gisa: gaur egungo gizartea ezin da ulertu sarea kontuan izan gabe. Ikuspegi horren bidez Internet ikerketa objektu bihurtzen da. Internet kazetaritzarako tresna gisa: Sarea kazetariaren eguneroko lanean ezinbesteko baliabidea da gaur egun. Zuzeneko (chat, news-group eta posta elektronikoen bidez) eta zeharkako (datu baseak, bilatzaileak eta webguneen bidez) informazio iturri bezala erabil daiteke. Azkenik, Internet kazetaritzarako komunikabide gisa: Internet komunikaziorako euskarri bat izateaz gain ezaugarri propioak eta bereizgarriak dituen komunikabide bat izan daiteke, teoriarik behintzat.

Unibertsitateak hiru erronka hauek kontuan dituen arren azkenekoa da gutxien garatu dena bere konplexutasunagatik. Aurkezten dugun proiektu hau azaldu berri dugun arazo honen erantzun bat bezala ikusten dugu: euskaraz landutako eta espresuki sarerako egindako kazetari zerbitzu multimedia bat.

1.2. Internet, Komunikazio Fakultateetan

Internet kazetari berrien prestakuntzan 1995. urtetik aurrera agertzen da unibertsitatean, irakasgai teknikoei esker. Garai hartan denek uste zuten Internet informazioaren gizartean arazorik gabe hedatuko zela. Berrikuntza tekniko asko aurreikusitako ezin zitekeen harren sareak garapen zabalak izan zuten: Internet gizartearen eguneroko bizitzaren parte izateko eta horrela, bere sozializazio prozesua hasteko mementoa zela suposatzen zen. Testuinguru honetan Informazioaren Gizartearen teorietako dimentsio berri bat ireki zen, eta inoiz baino baliogarriagoak bihurtu ziren.

Dimentsio teknologikoari dagokionez, urte hauetan zehar aplikazio, hizkuntza eta programa informatiko ugari (html, java, java-script, vml, flash...) agertzen dira eta honek, sareak kazetaritzaren munduari eskaintzen dizkion aukeren aurrean baikortasun giro bat sortzen du. Baliabide berri hauek erabiltzeko tresneria egokia ez izan arren, konplexutasun handirik ez zutenez, erabilgarriak ziren oraindik.

Internet, arlo akademiko eta hezkuntzan bi dimentsioren bidez sartu zen: teorikoa eta praktikoteknologikoa. Bi mundu hauek zuzenak izan arren, elkarren arteko erlazioa ez da batere erraza, beraien artean oso ezberdinak direlako. Lehena oso abstraktua da, muga oso zabalekin eta era geldoan garatzen da. Bigarrena, berriz, oso konkretua da, eremu definitu batean mugitzen eta berrikuntza azkarrak izaten ditu.

2.000. urtean puntu-com bezala ezagutzen diren teknologia berrietan oinarritutako enpresen finantza-burbuilak eztanda egiten du. Gertakizun honekin teknologia berriekin erlazionatzen ziren gizarteko sektore askoren baikortasunari bukaera ematen zaio. Unibertsitateak ere horren guztiaren ondorioak sufritzen ditu. Azken garaietan dimentsio teknologikoaren garapena menderaezina bihurtu zen. Azken finean kazetariak gara eta ez informatika edo teke-lomunikazio ingeniariak. Memento honetan teknologiaren esklabo agertzen gara. Teknologia menderaezina bihurtzen denez, beronek, bitarteko izateari uzten dio... eta ez da helburua ere. "Teoria bateratu" bat gabe aurkitzen gara eta argi geratzen da dimentsio teorikoa eta praktikoteknologikoa gero eta bananduagoak daudela.

1.3. Unibertsitatea, ziurgabetasunaren aurrean

Bideragarritasun ekonomiko eta ikuspuntu historiko ezaren, tresneria eta teknologiaren menderaezintasunaren eta medio berri honetarako egokia den kazetaritzako eredu narratibo konkretu baten faltaren aurrean unibertsitateak akademizismora jotzen du.

Hau da, hasten duen edozein ekimen (irakasgaiak, praktikak, argitalpen zientifikoak, ikerketa proiektuak...) teoriarik eta analisisaren oinarritzen ditu. Akademizismo honek, hala ere, bi arrisku ditu: isolamendua eta atzeraelikadura. Arrisku hauek direla eta unibertsitatea bi tentaldi hauetan eror daiteke. Alde batetik protekzionismoa indartu, eta ikerkuntza taldeak sortzeko eta ideia berriak elkarbanatzeko aukera zailtzen da. Horrela, ezagutza eta barreiarpen talde itxiak sortzen dira, eta talde horietako subjektuak ezagutza arlo bateko jaun eta jabe bihurtzen dira. Beste alde-

tik, metodoan soilik oinarritzen diren proiektu antzuen dinamika bat sortzen da, metodo zientifikoa helburu hartzen delarik, eta ez bitartekoan. Ikertzen den gaiak ez dio axola, “zientifikoki zuzena” den bitartean.

Akademizismoa berrikuntzan eta ideia berrietan oinarritutako esperientazioan garatzen den espezializazio prozesu geldo eta jarraikor bat bezala ulertu behar da; errealitatearekin kontaktua galdu gabe hausnarketa sakonaren bidez burutzen dena.

Komunikazio honek kazetari berrien trebakuntzarako unibertsitateari planteatzen zaizkion erronken aurrean erantzun posible bat eman nahi du. Uztaila eta abuztua bitartean, euskaraz Internetarako espresuki sortutako komunikazio esparruko bigarren zikloko ikasleei zuzendutako informazio zerbitzu baten diseinua aurkezten dugu.

2. Proiektua

1.1. Baliabideak

a. Irakaslekoa

Unibertsitateak memento honetan, proiektu honetarako beharrezkoak diren ezagutza arlo guztiak betetzeko profesional eta irakasleak badauzka. Azalduenez, Internet eta teknologia berriek hainbat hutsune teoriko-praktiko dituzte (egitura narratibo multimedia baten falta, finantzaketa arazoak, konplexutasun teknikoa...), baina unibertsitateak komunikabide tradizioaletan esperientzia handia duten profesionalak eta irakasleak ditu.

Proiektu hau garrantzitsua izan daiteke giza talde horrentzat, gerora irakurketa akademiko zein profesionala izan dezaketen teoria berri eta esperientazio bide bat proposatzen duelako. Irakasle eta ikertzaileek hurrengo arloetan aplikatuko lukete beren jakinduria: informazio iturrien gestioan, medio berrirako moldatutako kazetaritza informazioaren idazkuntza eta edizioan, edukien maketazio eta diseinuan, produkzioaren eta giza eta materialen baliabideen artaketan, egindako edukiaren kalitatean...

b. Ikasleak

Aurkezten den proiektuaren alor garrantzitsuena ikasleek osatzen dutena litzateke. Berauek izango dira, azken batean, kazetariari dagozkion funtzioak burutuko dituztenak tailer honen edukiak garatuz. Honek guztiak gerora lanean baliagarriak izango dituzten ezagutzak emango dizkie, proiektua izaera praktikoarekin jaio delako. Laburbilduz, esan genezake, aurkezten ditugun praktikek bi funtzio osagarri dituztela.

Kazetari hedapen erreala daukan proiektu batean parte hartzea karreraren zehar ikasitakoak praktikan jarritz. Behin unibertsitate heziketa bukatutakoan, kazetari berriek lan merkatuan zabaldu ahal izango lukete euren esperientzia.

Proiektu hau Gizarte Zientzietako eta Komunikazio Fakultateko komunikazioko karrera guztiak sartzeko diseinatuta dago (Kazetaritza, Ikus-entzunezko Komunikazioa eta Publizitatea eta Harreman Publikoak). Praktikak bigarren mailako ikasleekin egingo lirateke (3. eta 4. mailak). Honek, ikasleak aurreko kurtsoetan barneratutako ezagutzen garapena bideratuko luke alde batetik eta aukeratu duen espezializazioaren parean kurrikulum propio bat egitea beste alde batetik.

c. Baliabide materialak

Proiektuak daukan handitasunak hainbat materialen beharra eskatzen du, hain zuzen ere jarraian azpimarratzen direnak: ordenagailuak, zerbitzaria, idazkuntza (Microsoft Office), web orrien diseinua (Macromedia Studio edo Ado-

be Go-live), argazkien tratamendua (Adobe Photoshop), soinu produkzioa (Adobe Audition), bideo produkzioa (Avid edo Final cut), multimedia diseinua (Macromedia Flash // Macromedia Freehand edo Adobe Illustrator), instalazioak, irratiko estudioak (mintzatokia eta kontrola), telebista estudioak (platoa eta kontrola), idazkuntza gelak eta edizio gelak. Beste batzuk: argazki kamera digitalak, bideo kamera digitalak, soinu grabagailu digitalak, eskaneerrak, inprimagailuak, telefono konexioa eta Internetarako lotura.

Gaur egun unibertsitateak izendatutako baliabide guzti horiek baditu nahiz eta erabilgarri, udan bakarrik leudekeen erabilgarri proiektu honetarako. Unibertsitatearen ordutegia ere kontuan izan beharrekoa litzateke, eta, horrela, tresnak eta baliabideak uztailean egun osoan zehar eta abuztuan goizez bakarrik erabili ahal izango lirateke. Arazorik handiena alderdi teknikoan legoke, zerbitzariaren mantenimendu eta kontrolean hain zuzen ere. Atzerapauso hau Ingeniaritza edo Informatikako fakultateen arteko harreman bat sortuz gaindi daiteke edo Internetarako edukien gestiorako dauden programa erraz batzuk erabiliz.

d. Gaien egutegia

Uste dugu aukeratzen den gaiak asko alda dezakeela trataera informatiboa. Horregatik, didaktikotzat jotzen dugu ikasleek arlo asko ukitzea argi ikus dezaten zenbateko ezberdintasunak dauden aipatutako gaien artean. Egun bakoitzean esparri bat landuko dugu eta asteko banaketa tematikoa honokoa izan daiteke. Astelehenean, kirola (Euskal Herria). Asteartean, bertakoa (Bilbo Handia). Asteazkenean, nazioartea. Ostegunean, ekonomia (Euskal Herria eta estatua). Ostiralean, azkenik, politika (Euskal Herria).

Benetan uste dugu praktikak egiten hasten direnerako ikasleek beharrezkoak diren ezagutzak izango dituztela eta beraien lana era zuzen eta serioan egiteko gai izango direla. Horregatik, informazioaren “tratamendu tradizional” batekin hasiko dira, eta esperientzia eta trebezia hartzen duten neurrian, medio ezberdinen bidez egindako informazioa komunikabide bakar batean batzen ikasiko dute informazio multimedia oso batera iristeko eta, azkenean, proiektu honen helburu nagusia betetzeko: osoki euskaraz landutako eta internetarako apropos diseinatutako kazetari-zerbitzu multimedia bat sortzea hain zuzen ere.

Abuzturako erroka ezberdin bat planteatzen da. Eguneroko tratamendua asteroko monografiko bihurtuko dugu. Guztira lau monografiko ezberdin garatuko dira. 1. astean, bertakoa (Bilbo Handia); 2. astean, nazioartea; 3. astean, kirola, eta 4. astean, ekonomia.

Monografiko hauek burutzeko ikasleek bost egun izango dituzte (astelehenetik ostiralera). Aste osoko epe hau gai hauek sakon eta tratamendu multimedia osoarekin lantzeko beharko duten denbora izan dezaten eskaintzen zaie.

e. Ordutegiak

Praktika guztiak goizez egingo dira, 09:00etatik 13:00etara. Uztaileko arratsaldeak, 15:00etatik 17:00etara, helburu bikoitza izango dute: goizez egindako praktikak aztertzea alde batetik, eta medio berri honetarako (Internet) ikasleak menperatu behar dituen ezagutzak bideratu irakasleak emandako klase teoriko-praktikoen bidez.

Klase hauek asterokoak izango liratekeen lau gai monografikoren inguruan oinarritzen dira. Informazioaren gizartea: tresna digital berrien eta komunikazioaren garrantzi soziala ingurugiro globalizatuan. Kazetari modelo berrien aukera: hipertestuaren eta komunikazio multimediarren teoria kazetaritza zuzenduta. Kazetari prozesuen digitalizazioa: eguneroko kazetari lanean ikusten diren aldaketak. Azkenik, gaur egun interneten dauden kazetari webguneen analisia.

Gaur egungo egoeraren nondik norako azalpena, zerbitzu hauen eta ikasleek landu dituzten arteko konparaketa, lanean agertu diren arazoaren analisia.

Uztail eta abuztuko gaien tratamendua oso ezberdina denez bi ordutegi landu ditugu. Uztaileko ordutegiaren arabera, 08:00-09:00, irakasle eta atal bakoitzeko ordezkarien arteko bilera, albisteen aukeraketa eta lan plana zehazteko. 09:15-11:00, informazio eta iturrien bilaketa. 11:00-12:30, albisteen elaborazioa eta ikus-entzunezko informazioaren antolaketa teknikoak. 13:00, idatzizko eta ikus-entzunezko informazioa sarean jarri (eskegi).

Abuztuko ordutegiak, bestetik, honakoak izango lituzke. Astelehenean, irakasle eta atal bakoitzeko ordezkarien arteko bilera albisteen aukeraketa eta lan plana zehazteko. Asteartean, informazio eta iturrien bilaketa. Asteazken eta ostegunean, albisteen elaborazioa. Ostiralean, azkenik, idatzizko eta ikus-entzunezko informazioa sarean jarri.

f. Lan taldeen banaketa

Proiektu hau astero txandakatuko diren lau taldek parte hartzeko prestatua dago. Talde bakoitzak bost ikasle izango ditu eta astero atal konkretu bat landuko du: Soinu informazioaren tratamendua, ikus-entzunezko informazioaren trataera, informazio hipertestualaren tratamendua, eta koordinazio eta laguntza teknikoak. Talde bakoitzak irakasle baten laguntza izango luke atal bakoitzean.

Talde bakoitzaren betebeharrak eta baliabideak hauek izango dira:

- Informazio testuala: irudi estatiko eta testuaren prestaketa bereganatuko du. Horretarako ordenagailu gela bat izango du. Bertan nabigatzaileak, testu tratamendurako (Microsoft Office), web orrialdeen ediziorako (Macromedia Dreamweaver) eta irudien tratamendurako (Adobe Photoshop) programak izango dituzte.
- Soinu informazioa: Grabaketa eta soinu albisteak landu beharko dituzte. Ordenagailu gelaz gain, mintzategiak eta edizio gelak izango dituzte. Gela hauetan nahasketak mahaiak, mota ezberdinetako soinu iturriak eta muntaiarako ordenagailu programa bereziak daudelarik.
- Ikus-entzutezko informazioa: Ordenagailu gela, bideo kamerak, plato bat, eta edizio gela digital bat izango dute. Hemen ere ikus-entzunezko ediziorako programa bereziak erabiliko dituzte (Avid eta abar)
- Koordinazioa eta laguntza teknikoak: Talde honen betebeharrak bi arlo nagusitan banatzen dira. Alde bateatik, beste taldeen produkzio prozesuaren ardura izango dute (ordutegia betetzea batez ere), eta bere lagunek landuko duten informazioa osagarria izan dadila ziurtatuko dute, gero lan guztiak batu egin behar baitira Interneten informazio zerbitzu bakar bat sortuz. Bestetik, zerbitzari bezala erabiliko den ordenagailuaren mantenimendua izango dute bere gain eta informazio infografikoa eta multimedia (flash) prestatu beharko dute (behar denean bakarrik, noski). Talde guztiek irakasle baten laguntza izango duten bitartean, talde honek bi maisurekin egingo du lan.

Proiektu honen zailtasuna handia dela badakigu, aldagai asko ditu eta:

- Medioaren aldetik: Gure nahia Internetek gaur egun euskal kazetaritzarako eskaintzen dituen baliabide guztiak ustiatzea da. Beraz, printzipioz ez dugu medio bakar bat ere gaitzetsi nahi: testua, hipertestua, irudi estatikoak eta argazkiak, soinua, bideoa, infografikoak, animazio multimedia...
- Gaien aldetik: Interneten ezaugarri nagusienetariko bat mugarik eza da. Mugagabea da denboran (batekotatasuna eta iragana medio berean naturalki nahasten direlako), eta mugagabea da espazioan ere (berez globala denez eta barreiapenean dimentsio geografikoa desagerrarazten duenez). Muga ezak barne hartu ezinako proiektu batean galtzeko arriskua dakarrela badakigu, baina mugak geuk jartzen baditugu, oztopo geografiko edo politiko gabe heda daitekeen osoki euskaraz, euskaldunek eta euskalduntzat egindako kazetari-zerbitzu berri bat aztertzeko aukera paregabe baten aurrean gaudela onartu behar dugu.

Apustu hau unibertsitatearen esku dagoenez, egun komunikabideek duten muga ekonomikoak ez du lan hau oztopatzen (dirua jokoan ez dagoenez, proiektu honek dakarren arriskua har daiteke), eta gizarteak unibertsitateari eskatzen dizkion funtzioen parte da; hots, berrikuntza, ikerkuntza eta prestakuntza teoriko eta praktikoa.

a. IKUS-ENTZUNEZKO KAZETARIEN LANBIDE SOSLAIA

Mila Amurrio
Rosa Martín Sabaris
EHUko irakasleak

1. Atarikoa

Mendebaldeko gizarteetan kazetariak dituzten eragin sozialek eta politikoek ikerlarien arreta iratzarri dute. Hori dela-eta, lanbidea nola dagoen osatua eta nola eragiten duen gizartean interes handiko ikerketa ildoak dira.

Aurkeztera goazen ikerketa hau gure inguruko ikus-entzunezko kazetariei buruzkoa da: nortzuk dira, non egiten dute lan, zer-nolako iritziak dituzten euren lanari buruz. Ikerketa hau, beraz, goian aipatutako komunikatzaile-ari buruzko ikerketa ildoan bete-betean sartzen da.

Edozein ikerketaren abiapuntuan beti aurkitzen dugu galdera bat, ikerlariaren begirada gidatzen duen galdera; aurkezten ari garen ikerketa hau ez da salbuespena. Nortzuk eta nolakoak dira Euskal Herriko ikus-entzunezko kazetaritzako profesionalak? Gure ikerketari hasiera eman zion galdera dugu hori. Hortik abiatuak ikerketa objektua definitu genuen: Euskal Herriko ikus-entzunezko hedabideetan informatiboetan lan egiten duten kazetariez osatutako kolektiboa.

Erabilitako metodoak kuantitatiboa, konparatiboa eta kualitatiboa izan dira. Eta datuak ekoizteko teknikak lehenengo biei dagokiena: galde-sorta, eta hirugarrenari dagokiona: elkarriketa sakona.

2. Unibertsoaren eraikuntza

Gure lehenengo pausoak unibertsoaren neurria eta ezaugarriak zehaztera zuzendu ziren. Non daude ikus-entzunezko kazetariak? Zentsaturik al daude? Ikus-entzunezko komunikazio enpresetan egon badaude. Hori dela-eta, ikus-entzunezko alorreko ia 50 enprekin jarri ginen harremanetan; izaera publikokoak, pribatukoak, estatu mailakoak, autonomikoak eta tokian tokikoak.

Baina, nola jarri kazetariekin harremanetan? Aukeratutako bidea informatibo buruekin harremanetan ipintzea izan zen. Harreman horietan erabilitako prozedurak honakoak izan ziren: gutunen bidez, telefonoz eta posta elektronikoz. Lehenengo harreman horietan gure ikerketaren berri eman eta ostean, euren laguntza eskatzen genien albiste saioetako kazetariekin harremanetan jartzeko.

Esan beharra dago, salbuespena salbuespen, hedabide gehienetan atea zabal-zabalik aurkitu ditugula behar izan dugun guztirako.

Liburu honetan lanaren zati bat argitaratzeko suertatu zaigun aukera hau gurako genuke aprobetxatu eskerrak emateko ikerketa honetan parte hartu duten guztiei, hedabideei zein kazetariei. Dagoeneko ikerketari buruzko zen-

bait emaitza argitaratu dira eta une honetan datu guztiak biltzen dituen liburua prestatzen ari gara egile eta azterketako arduradunok..

Salbuesenez hitz egin beharra dago ere. Nafarroako zenbaitek gure eskaerari ezetzarekin erantzuteak gure unibertsoa mugatzera behartu gintuen. Horrela, hortik aurrera muga administratiboetara jo behar izan genuen eta, hortaz, gure unibertsoa honakoa izan da: Euskal Erkidego Autonomoko ikus-entzunezko hedabideetan informatiboetan lan egiten duten kazetariak.

Beraz, ikerketan parte hartu duten kazetariekin harremanetan jarri ginen ondoren agertzen diren hedabideetan (hedabideak galde sorten erantzunen portzentajeen arabera ordenaturik agertzen dira):

Nondik datozen	Kazetariak (%etan)
<i>ETB</i>	21,4
<i>Cope</i>	7,5
<i>Radio Euskadi</i>	6,5
<i>Radio Vitoria</i>	5,5
<i>Canal Bizkaia</i>	5
<i>RNE País Vasco</i>	5
<i>Canal Gasteiz</i>	4
<i>Onda Cero</i>	4
<i>Tele 5</i>	3,5
<i>Tele Donosti</i>	3,5
<i>Euskadi Irratia</i>	3,5
<i>Getxo Irratia</i>	3,5
<i>TVE</i>	3
<i>Tele 7</i>	3
<i>Goiena Telebista</i>	3
<i>Radio Popular</i>	3
<i>Bizkaia Irratia</i>	3
<i>Tele Vitoria</i>	2,5
<i>Cadena SER</i>	2,5
<i>Tele Bilbao</i>	2
<i>Oarso Telebista</i>	2
<i>Radio Nervión</i>	2
<i>Antena 3</i>	1,5

3. Iritzien eraikuntza

Lehenengo urratsa galde sorta betetzea zen. Hautatutako hedabideei, orotara, 62 galderako 450 galde sorta bidali genizkien eta horietatik 201 jaso genituen, hau da, %45eko erantzuna izan genuen.

Galde sortaren dimentsioa edo edukiak honakoak izan ziren:

- Profil soziologikoa, alegia, ezaugarri soziodemografikoak, motibazioak, asmoak eta joera ideologikoak.

- Lanbidea eta horren rolen definizioa(k): ezaugarriak, lanbidearekiko jarrerak, deontologia eta audientziarekiko erlazioak.
- Lanbide prestakuntza eta sozializazioa.

Aintzat harturik kazetari horien lanaren ezaugarriak pozik agertzen gara jasotako galde sorta kopurua dela eta. Kopuru horrek agerian uzten du profesional horiengandik jarrera baikorra izan dela (zerbait esateko gogoia izango zuten agian); jarrera, bestalde, ikerlariok bertan behatu genuena han egon baikinena kasu gehienetan.

4. Lanbidearen gizarte-errepresentazio pertsonalizatuak

Galdera sorta administratu ahala sakoneko elkarrizketak burutu genituen, orotara 12 sakoneko elkarrizketa egin genituen. Datuak ekoizteko teknika horren erabilerak galde sorten bitartez ekoiztutako iritziak alderatzea, argitzea eta sakontzea zuen helburu. Elkarrizketatu genituen kazetarien gehiengoak zuzendaritza funtzioak dituztenek osatzen dute eta eurekin batera zenbait informatzaile klabe ere bai.

Baina, hitzaldi honetan horren guztiaren berri ezin izango da eman, ezta galde sortak biltzen dituen datu guztien berri ere. Soilik ekarri ditugu hona lanbide profilarrekin zerikusia dutenak.

5. EAEko ikus-entzunezko hedabideetako kazetarien lan-soslaia

Gure ikerketa objektua osatzen duten profesionalen soslaia definitzen duten ezaugarriak azalduko ditugu. Emakume eta gizonetzko gazteak. %50,2 gizonetzkoak dira eta %48,3 emakumezkoak; kolektiboaren batez besteko adina 32 urtera ez da ailegutzen.

Azken datu horren arrazoia dugu litzentziatu berri askoren sarrera lanbidean. Adinari dagokionez azpimarratzekoa da 41 eta 57 urte bitartekoak kolektiboaren % 12 baino ez direla, lan honetan adina oztopoa balitz bezala Non daude adin horietako profesionalak hedabideetan ez badaude? Lan esperientzia gutxietsi egiten da? Ezin ahantzi gazteriaren ezaugarriak, lan esperientziarik ezak, lanbide eta ideologia etorkortasun handiak, lan egoera ahulak dakartela enpresa politika erasokorragoa, amaigabeko berregokitzapenekin eta gatazka gutxiarekin.

Kolektiboa gaztea bada ere, gazteen artean emakumeak gehiago dira.

Ibilbide akademikoari dagokionez honakoa esan daiteke gehiengoak lanbidearekin lotutako litzentziatura bat daukala (Informazio Zientziak, Kazetaritza, Ikus-entzunezko Komunikazioa). Soilik %5,5ek beste litzentziatura bat aipatzen du edo bat ere ez, beraz, lanbide intrusismo delako hori gutxi. Profesional horiek Euskal Herriko Unibertsitatean prestatutako profesionalak dira gehienbat.

Lanbide sarrerari erreparatu gero honako errealitatearekin egiten dugu topo: kazetari hauek hedabideetan hasi dira lanean, batik bat, praktiken bitartez, bigarrenaz hautaketa prozesu baten bitartez eta hirugarrenez, borondatezko kolaborazioen bitartez (praktika ezkutua).

Lan egoeraz ari garela, eta behean agertzen diren datuei erreparatuta, badirudi irriti eta telebistetan ari diren kazetarien lan egoera nahiko egonkorra dela, %49 plantillan daude-eta. Datu hori irakurtzeko orduan, zera hartu behar da kontuan: komunikabide publiko zenbaitetan, plantillako langileen kopurua hori baino askoz handiagoa dela. Ez ordea, pentsatu litekeen bezala, *ETB*ko langileen egoera: telebista horretan, plantillako portzeajea %44koa baita. Hedabide publikoetako langileria finkoaren kopuruak desitxuratzen du, beraz, gainontzekoen lan egoera. Halaber, esan beharra dago plantillakoa izatea eta adin nagusikoa izatea batera doazela.

Lan-jarduna edo ordutegia: gai honi buruz kazetaritza idatzian ari direnekin alderatuz gero, agerian gelditzen dena zera da: lan jardunen ugaritasuna; ugaritasun horrek dakartzan ondorio guztiekin.

Ordu kopurua batez beste 7,61 ordukoa da erantzun dutenen artean. Galdera honetan aurkitzen dugu erantzun gabekoen portzentajerik handiena.

Hilleroko diru-sarrerari dagokionez, ordea, erantzun kopurua oso altua %98,5ekoa izan da. Egun, kolektibo zabalei eta batez ere, profesionali egiten zaizkien galde sortetan soldaten inguruko galderak desagertu egin dira, erantzun gabekoen portzentaje handiak direla eta.

Diru sarrera aldagaia, gainera, adina eta sexu/generoarekin gurutzatuz honakoa ikus daiteke: diru gutxien irabazten dutenak emakumezko gazteak dir eta gehien irabazten dutenen, artean gehiago dira gizonezko nagusiak (41 urtetik gorakoak).

Askotan lanbide baten instituzionalizazioa (profesionalizazioa) lanbidea arautzen duen lan elkarrekin loturik ere agertzen da. Hortaz, lan elkarrekin bazkideen kopurua aztertu egiten da profesionalizazio horren adierazle gisa. Behean ikusten dugun legez lan elkarrekin partaidetzaren portzentajea handiena bada ere, apala da (% 17,4). Beste horrenbeste esan dezakegu beste elkarrekin erakusten duten partaidetza portzentajeaz.

Euskal nazio identitatea, ideologia eta erlijioaren arloei dagokienez, ikusten da gehiengoak euskal nazionalismoarekin identifikatzen duela bere burua (%61,7). Halaber, kazetari horien ia hiru laurdenek (%74,6) ezkertiarizat du beren burua. Sinesmen erlijiosoaren arloari erreparatuz gero, %53,8k diote katolikoak direla.

6. Ondorioak

Laburbilduz, ikus-entzunezko hedabideetan ari diren kazetariak gazteak dira, gizon eta emakume gazteak; azken hauek are gazteagoak. Ia denek lanbidearekin zerikusia duen litzentziatura daukate, eta gehienak Euskal Herriko Unibertsitatean prestatuak dira. Praktiken bitartez, batik bat, lortu dute euren lehenengo lana kazetari gisa, egun kolektibo erdiak lan egoera egonkorra du. %43k hileko 1.200 euro baino gehiago irabazten dute eta %55ek, aldiz, 1.200 euro baino gutxiago. Elkarrekin zein sindikatuetan erakusten duten partaidetza oso apala da. Kolektiboaren gehiengo euskal nazionalismoarekin eta ideologia aurrerakoi edo ezkertiarrekin identifikatzen da. Eta erlijioari dagokionez, berriz, kolektiboaren erdiak katolikotzat jotzen du bere burua. Ezagut ditzagun orain, kazetari euskaldunen inguruan ikerketa honek eskaintzen dituen datuak.

7. Euskara eta ikus-entzunezko kazetaritza

Kazetaritza idatzian euskarazko zeri deitzen diogun argi samar badaukagu ere, ez da berdin gertatzen ikus-entzunezkoetan. Lan honetan ikerlari batzuek euskal komunikazio esparruaren berri eman dute dagoeneko, eta beste batzuk ikus-entzunezko hedabideen inguruan mintzatu dira. Zailagoa da, berriz, euskarazko ikus-entzunezko hedabideetako kazetariak zeintzuk diren zehaztea. Hedabide batzuek ele bitan egiten dutelako; tartean, Euskal Herriko hedabide nagusiak, *ETBk* alegia. Edo hobeto esanda, *ETB1* euskaraz eta *ETB2* gatzeleraz ari diren arren, langile askok ele bitan egiten behar dute lan.

Gure ikerketan inkestatuen %21ek *ETBn* egiten du lan, eta horrek, gero ikusiko dugun bezala, eragina izango du datu orokorrak irakurtzeko orduan. Ikus-entzunezko kazetarien kolektiboa aztertzen ari garela, gutxi dira euskara hutsez ari direnak (*GoiTB*, *Bizkaia Irratia*, *Euskadi Irratia* edo *ETBn Bertatik Bertara* bezalako saioetan ari direnak, esaterako).

Ikus ditzagun, bada, zeintzuk diren ikus-entzunezko hedabideetako kazetarien beste ezaugarri batzuk. Inkestatuen ama-hizkuntza aztertu dugunean, honako hauek dira emaitzak: 27,9 euskara, 61,7 gaztelera, 7,5 biak, 1,5 bestelakoa. Horregatik, pentsa daiteke ikus-entzunezko kazetaritzan lan egiten duten kazetarien %28 hori baino gehiago direla euskaldunak.

Izan ere, euskararen ezagutza mailaren inguruan galdetzen zaienean, ia erdiak maila altua duela dio, laurden batek ertaina, eta %20 baino gutxiagok maila baxua.

Neurri handi batean, euskararen ezagutza adinarekin dago lotuta; horrela, maila altua askoz maizago agertzen da gazteen artean, eta aldiz, zaharragoen artean, gehiago agertzen da maila baxua, edo nabarmenki, erantzunik eza. Era berean, esan liteke emakumezkoek maila altuxeagoa dutela gizonezkoek baino. Baina datuak gurutzatzeko orduan, ezberdintasunik deigarriena nazio-identitatearen kasuan agertzen zaigu.

Euskara ikastea lanbide-birziklatzetzat hartzen du zenbaitek, eta horrela, birziklatze-ikastarorik egin dutela esan dutenen artean, %22k euskara aipatzen dute, ingelesa, informatika eta horrelakoen ondoan.

Gaztelera hutsaren edo euskara hutsaren erabilpena jaisten den bitartean, 10 puntutan igotzen da ele bitan aritzen direnen portzentajea. Seguruena, *ETB*ko albistegietan kazetari berak albistea ele bitan egiten duela eta. Esan daiteke, beraz, ikus-entzunezko hedabideetan lan egiten duten langileen %41 direla euskaldunak.

Hiru arlo hauek alderatuz gero, beste ondorio batera iritsi gaitezke: erabilera-esparrua zabaldu ahala, euskara gero eta gutxiago erabiltzen dela. Egoera hau duela 12 urte ere ematen zen, eta gaur egun antzera jarraitzen du.

Lehen aipatu denez, kazetari euskaldun kopururik handiena EiTbN aurkitzen dugu. Telebista horretan, kazetarien %88 euskaldunak dira, horietatik %44k euskaraz egiten dute lan, beste horrenbestek ele bitan, eta gaztelera hutsez %11,6k. Nabarmenak dira ezberdintasunak, inkestan parte hartu zuten komunikabide guztiekin alderatuz gero. Euskara eta adina lotuz gero, zera esan daiteke: hiru kasuetan (ama-hizkuntza, laneko hizkuntza eta lanaz kanpoko) euskararekiko harreman handiagoa dutela kazetari gazteagoek (20-31 urtekoak) zaharragoek baino.

Ama-hizkuntzari dagokionez, ez dago batere alderik gizon eta emakumeen artean, bien kasuan ia %28k dute euskara ama-hizkuntza. Baina laneko hizkuntza begiratzera jotzen badugu, alde nabarmena antzematen da: emakumeak dira, zalantzarik gabe, euskara gehien erabiltzen duten kazetariak. Emakumeen %24,7 euskara hutsean aritzen diren bitartean, gizonezkoen %17,8k baino ez dute egiten. Hala ere, esan beharra dago gazteleaz ere gehiago nabarmentzen direla emakumeak, eta ele bitan aritzen direnen artean, gizonezkoak dira nagusi.

Orain arte euskararen inguruan esandakoa laburbilduz, zera esan dezakegu:

- Batetik, ikus-entzunezkoetan lan egiten duten kazetarien artean, ia erdiak euskaldunak izan arren, laurden batera ere ez dira iristen euskara hutsez ari direnak. Gehiengoak gaztelera hutsez egiten du.
- Beraz, ikus-entzunezkoetan euskaraz jarduteko prestatutako profesionalak badira ere, ez dirudi lan merkatuak kazetari horien ezaugarri edo ezagutza horri probetxurik ateratzen dionik. Aldiz, tokian tokiko hedabideak aparte utzita, irati-telebista publiko nagusia da euskarazko kazetaritza bermatzen duena.

b. EUSKAL KAZETARIAREN LAN BALDINTZAK EDO BALDINTZA BAKO LANA

Andoni Basabe
LABeko ordezkaria ETBn

Kazetarien lan baldintzei buruz idaztea. Horixe besterik ez da txosten honetarako eskatu zaidana. Deskuidatuz gero, kazetarien lan baldintzak deskribatzea ere eskatuko dit norbaitek. Egia da eginkizun egin ezina mugatu ere egin didatena: euskaraz diharduten kazetarien lan baldintzez aritu behar dut.

Lehenengo erreposoak, errazenak, medioen arabera banatzera garoatza: primerako medioak, bigarrenekoak eta medio bakoak. Laneko baldintzei begiraturik, primerako medioak medio publikoak dira: *Euskal Telebista*, *Euskadi Irratia*: horko kazetariak 35 orduko lan astea dute, jai egunetan lan egiteagatik egun bi libre hartzeko aukera, soldata ondo horniturikoa, aparteko ordain-sari bi, sindikazio eskubidea, bajak hartzeko eskubide praktikoa... Gainera, eguneko eginkizuna ondo zehazturik dago eta, normalean, ez du lan handirik eskatzen: bideo bakarra izan liteke —hizkuntza bietan, askotan euskarazko katearen kalitatearen kaltetan, jakina—, edo gertakari zehatz bat kubritzea. Astean bost egunean egiten dute lan, edo egunetik domekara. Azkeneko txanda horretan jarduteak diru gehiago irabaztea dakar, jakina.

Bigarren mailakoetan, berriz, lanaldia luzeagoa izaten da, astean berrogei ordu edo gehiagokoa, eta egunean egin beharrekoak ugariagoak dira. Badira kasuak, non berri bera hainbat hedabidetarako landu behar den. Esate baterako, aldizkarirako kronikatxoa idatzi, eta telebistarako ahotsa sartu, edo berria emango duenari informazioa pasatu. Enpresak hedabide bakarra izanez gero, idatzia, esate baterako, normalena egunean zenbait berri idaztea da. Norberaren jai egunetan lan egiteak ez dakartza jai egun bi, lan astearen iraupena gutxi gorabeherakoa da, soldata ez dago aurrekoen maila berean, sindikazio eskubidea planteatu ere ez da egiten, eta bajak hartzeak lana kideen artean banatzea dakar.

Medio bako medioetan, erremediorik ez. Jai egunetan lan egiteak ez du aparteko eskubiderik ematen, kontratuan agertzen diren orduak —berrogei— asteko minimoa markatzen dute, sindikatuek sarrera galarazita dute, baja hartzeak ondokoa izorratzea dakar —lan taldea hain da murrizta, lepo dauden kazetariak gainezka egitea da ondorio— ordain saria txikia da, askieza, eta denetarik egin behar da, arinetan egin ere. 800 euroko soldata, astean berrogei orduko kontratuarekin, eta aparteko lan orduak, nahitaez egin beharrekoak, zenbatu ere ez dira egiten. Lizentziadun elebidun edo eleanitz eta espezializatuen lanaren ordaina. (Gainera, enpresaren kontuek zero ematen ez dutela eta, txosnetan lan egin, errifak saldu eta herri honetan asmatu direnetako gehienak errepikatu).

Banaketa horrela egin liteke. Baina ez litzuke kasu guztiak barne hartuko eta, batez ere, ez litzateke justua izango. Banaketa horrela eginez gero, eman lezake medioen diru-osasunaren arabekoak direla bertako langileen lan baldintzak. Eta hori ez da egia. Lubaki gero eta sakonagoa dago, hedabide guztiak gurutzatu —primerakoak, bigarrenekoak eta, askoz maila apalagoan bada ere, lurpekoak— eta kazetarien mundua bitan banatzen dituen. Lubaki hori, gainera, urteekin sakonduz doa. *Free-lance* edo autonomo faltsuez ari naiz. *Free-lance*, gezurretako autonomoa eta bekariora. Paria berriak. Hedabide guztietan daude, arrazoi nagusi bategatik: enpresako gastuak murriztea. (Lehenengo galdera: horren aurrean, sindikatuek zer?).

Komunikazio-enpresa guztietan dauden arren, badira bereziki mingarri diren kasu bi. Lehenengoa, enpresa publikoena. (Jar gaitezen panfletario: guztion diruarekin ordaintzen dira, eta hiritar guztiok eskubide berberak ditugula dioskuen politikariek dute medio horien gaineko azkeneko berba). Mingarria, lubakia pitzadura delako: kazetari pariak bestaldera ailegatzeko oso aukera gutxi ditu, lanposturik ez da ateratzen eta. Ondoa duen kidearen maila berean dihardu lanean, hark bezain ondo/txarto egiten du eta produktibitatea parekoa da. Bakarrik: lan kontratu merkantila du, eta horrek ez dio lanean egonkortasunik eskaintzen: nagusien aurrean defentsa barik dago. Ezta ordainduriko oporrik ere —ekainean langabe; autonomoa barik, azpikontraturikoa bada, urte batzuetan saria izango du, beste batzuetan ez; duenean, diru publikotik kobratzen du, benetako langabeei legokiekeen poltsatik—. Bakarrik ezin du hartu, sindikatzeo aukerarik ez du, eta jai egunetan lan egitea ohitura osasuntsua bihurtu da. Langileak erretirorako gutxiago kotizatuko du —sei urtean, kontratudun langile batek baino urtebete gutxiago— eta erretiro txikiagoa izango du. Haurdun geratuz gero, hor konpon. Umea adoptatu edo bikotekidearekin izanikoa hezteko erabakia hartuz gero, hor konpon. Enpresak ez du langile horrekiko loturarik, eta dituen langileen multzoan sartu ere ez da egiten. Horri eskerrak, lege-iruzurra egiteko aukera du EiTBk, Eusko Jaurlaritzako komunikazio-talde publikoak: langile finkoen eta behin-behinekoen arteko ratioa doitzeko aukera ematen dio. Euskal irratiko publiko nazionalen sindikatuen euskal gehiengoak prekarizazioari atek parez pare zabaldu dizkiola jakitean, sindikatuak azpikontratatze gogoia ematen du. (Argazkilariak azpikontratatze enpresa sortu zenean langabezira joaniko argazkilari batek zuzendariak azpikontratatze enpresa sortzea proposatu zuen. Zuzendari bati proposatu zion, eta hari ez zitzaion ideia ona iruditu).

Bigarren kasu bereziki mingarria ezkerreko planteamendutik antzeko egoerak —beste enpresa batzuetan gertatzen direnean— salatzen dituzten medioena da. Praktiketako langileekin bateriko lanpostuak dituenik ere bada.

Gezurretako autonomoak izendatu behar dira, ez baita egia langile autonomoak direnik: medio bakarrarentzat egiten dute behar —edo, kasuren batean, langilea erdibana kontratatzea hitzartu duten medio birentzako, publikoa bata, herri ekimenekoa bestea— eta egunero behar egin behar dute. Praktikan, kontratudun beharginak bezalakoak dira; bakarrik baldintzetan dira ezberdinak.

Bekarioen kasuan, gezurretako bekarioez ere berba egin liteke: orrialde bat bete behar dute, edo albiste bateko bideoa egin, edo albistegian ahotsa sartu. Baina zenbaterik jasotzen du benetako trebakuntza? Zenbaterik ez du, lehenago edo geroago, beste edozein langilek egingo lukeen lana egiten? Lan baldintzek eragin zuzena dute profesionalarengan eta, beraz, produktuan: txarragoa da. Eta euskal kazetaritza, inguruko gainerako kazetaritzak legez, ez dago kalitatez sobera.

Amaitzeko, amorruzko lerro batzuk, eta proposamen bikoitza. Amorruz idatzi behar dut sortu eta berehala zarraturiko euskarazko komunikabide borondate nazionalerako bati buruz. Kudeatzaileek eginiko hanka sartzeez gainera, agintarien ganorabakokeria salatu behar da: kopuru bat esan, beste bat eman, eta proiektua zulora. Euskara biziberritzeko plangintza guztiak bazterrean lagata. Eta elkartasunik ez, eta langileak kale gorrira. Bidegabekeriak salatu egin behar dira, bekatua nork egin duen begiratu barik. Zilegi bada autonomo faltsuez baliatzen den enpresa publiko baten kontra auzitara jotzea, langileen eskubideak urratzen dituelako, zilegi da egoera berebera baina beste enpresa baten —herri ekimenekoan, esate baterako— dauden langileei epaitegietara jotzeko eskubidea onartzea. Eta epaiak bete daitezela eskatzea ere bai. Proposamenak: Lehenengoa, kazetariei euren bazkari-dieta, kilometraje, ordainduriko hotelez eta gainerakoez galdetzea. Bete dezatela horien berri ematen duen orritxo bat, hilean kontzeptu horien truke jasotzen duten gutxi gorabeherako kopurua emanez. Bigarrena, medioetan lan egiten duten ez-kazetariez txostena egitea. Batetik, telebista-produktorak; bestetik, argazkilaririk ez duten egunkariak. Badago albiste, beraz, nork kubridu falta da. Eta argitara non eman.

PS: Konponbideez idaztea ahaztu! Erraza da hutsuneak zein diren zehaztea, baina ez da hain erraza horiek zelatan artez daitezkeen esatea. Sindikatu bateko kide naizenez, sindikatuak egin beharko luketena zehazten ahaleginduko naiz. Hasteko, medio bakoitzak izan beharreko gutxieneko plantilla zenbat lagunek osatu beharko luketen aztertu.

Argi dago komunikabideen izaerak —eta gaur egungo sozietateak— kontratu pean ez dauden langileak izatea eskatzen duena. Baina komunikabide batek, ganoraz komunikatzeko, gutxienez behargin kopuru bat izan behar du. Zenbat? Kasu bakoitzean azertu beharko litzateke. Baina, esate baterako, irrati nazional batek herrialderik populatue-
nean soinu-teknikari bat izatea, edo egunkari nazional batek, herrialde horretan bertan, kirol kazetari bat izatea, ez da asko eskatzea. Beharbada, minimora ere ez litzateke ailegatuko.

Gutxienerako plantilla zenbat lagunek osatzen duten zehaztu eta gero, lagun horien baldintzak ere zehaztu beharko lirateke. Baina, batez ere, talde horretan sartzen ez diren langileen lan baldintzak dira zehaztu beharrekoak: kode-etikoa behar da, plantillakoak ez diren langile guztien lan baldintza guztiak arautzeko. Eta kode hori betetzen ez duen produktorak, esate baterako, ezin izango luke hedabide horretarako lan egin. Autonomoen bidea, *free-lance*-na, benetan autonomo diren langileentzat gorde beharra dago. Enpresa batek bide horri dirua aurrezteagatik ekin gura badio, salatu egin beharra dago, eta horren kontrako lan sindikala egin beharra ere bai. Praktiketako langile batek zer eginkizun duen, eta bekadun baten lana zein den ondo zehaztu beharra dago. Zehaztu eta betearazi.

Sindikaziorako eskubideak erabatekoa izan behar du, hedabide guztietan. Lan sindikalerako aukerak ezin dira murriztu, ez behintzat kooperatiboak ez diren hedabideetan. Sindikatuek, gainera, bidegabekeria guztiak salatze-ko konpromisoa hartu beharko lukete. Guztiak, edonon.

Badago sindikatuek ezin egin dezaketena: enpresa sortzen eta kudeatzen dutenek zuzen jokatzeko. Enpresan bide-
ragarritasuna ezin da langileen lan baldintzak behera kalkulaturik zehaztu. Proiektu batek beharrezkoa duen finan-
tazioa ezin da soldaten ataletik kenduta segurtatu. Eta proiektu hori ezin da lan baldintzen pentzudan hazi.

c. HEDABIDE TXIKIAK ERE BAGARA

Alazne Aiestaran *Drogetenitturriko koordinatzailea*

1. Atarikoa

Lan honetan parte hartzeko gonbita egin zidatenean, harritu egin nintzen eta apur bat beldurtu ere bai. *Drogetenitturri* bezalako herri aldizkari xume baten izenean, nik zein ekarpen egiteko neukan zalantzan jarri nuen. *Drogetenitturri* ez baita herri aldizkarien eredu eta erreferente, bai ordea, tokian tokiko prentsaren errealitatearen zati bat.

Lehenengo eta behin argi utzi nahi dut, nire ibilbidea Ermuko herri aldizkarian nahiko motza dela, 2000. urtean hasi nintzelako koordinatzaile bezala lanean bertan, nahiz eta aurretik kolaborazio lanak egin izan nituen. Hala ere, proiektua gauzatu zenean ni ez nintzen lekuko izan eta, zalantzarik gabe, orduko lan taldeak borondatez egin zuen lan izugarriak aipamen berezia merezi du. Lehenengo kide haiek jarri zuten martxan *Drogetenitturri* duela 10 urte, eta horien ostean izan diren guztien lanari esker, iraun du gaur egun arte bizirik aldizkariak.

Beraz, 4 urte hauetan ikusi eta ikasi dudanaren ekarpena egiteko asmoarekin idatzi ditut hurrengo lerroak.

2. Aldizkariaren hastapenak

Drogetenitturri Ermua eta Mallabiko herri aldizkaria da. 1990ean lehenengo alea kaleratu zen. Hasieran aldizkaria saldu egiten zen eta bi hilean behin kaleratzen zen. Orduan ez zegoen langilerik eta *Drogetenitturri* egiten zuen lan talde osoa borondatez aritzen zen. Proiektua erabat militante jaio zen, gertuko informazioa eskainiz euskara gure herrietan zabaltzeko eta sustatzeko asmoz. 1992an kaleratzeari utzi eta hausnarketa sakona egin ondoren, aldizkaria ganoraz egiteko, profesional baten beharra zegoela konturatu ziren eta aldizkariaren pisu handiena kazetari-make-tatzailea zen langile finko baten esku lagatzea erabaki zen. Horrez gain, kolaboratzaile sarea izango zuen ondoan eta publizitate lanetan arituko ziren bi lagun. Horrela, 1994an hilabetero kaleratzen hasi zen berriz, gaur egun arte.

3. Gaur egungo aldizkaria

Drogetenitturrik, beste herri aldizkari askok bezala, Euskara Elkarte edo Kultur Elkarte bat du atzean. Gurean, Euskal Birusa Elkarte Kulturalak kaleratzen du eta berau Topagunea Euskara Elkarten Federazioko bazkidea da. Aldizkaria, gaur egun ere hilabetekaria da, 1.650 aleko tirada dauka eta doan banatzen da Ermuan eta Mallabian. Batez beste 24-28 orrialdeko aldizkaria egiten dugu. Barruko orriak zuri-beltzean eta azala eta kontraazala bi tintatan izan da uztailera arte. Irailean azalean eta kontraazalean kolorea sartzea erabaki genuen. Urtean hamaika ale kaleratzen ditugu eta Udal hauteskundeetan lau orrialdeko ale berezia. Gaur egun ere, gure herrietako berriak emanez, euskararen normalizazioan eragitea dugu helburu. Azken hamar urteetan egindako lanari esker, herritar asko euskaraz irakurtzen jarri baditugu ere, oraindik handia da egiteko dagoen lana.

4. Ermua eta Mallabiko datu batzuk

Ondoko datuek, bi urte eta gehiagoko biztanleria, lurralde-eremuen arabera sailkatuta, euskara-maila globalaren jakintza maila erakusten dute. Iturria www.eustat.es (2001. urtekoak).

	Guztira biztanleak	Euskaldunak	Ia euskaldunak	Erdaldunak
Ermua	16.379	3.988	4.064	8.327
Mallabia	1.089	803	139	147

5. Lan taldea

Aldizkariaren lan taldea bost pertsonen osatzen dute eta kontratupeko langile bakarra dago, egunean lau orduz aritzen dena. Bestalde, hilabetean behin aldizkaria maketatzeaz arduratzen den diseinugilea dago. Hilabetean behin asteburu batean (larunbat eta igandean) maketazio lanak egiten ditu. Publizistak hilabetero fakturatzen den diruaren %30eko komisioa jasotzen du eta ez dauka soldata finkorik.

Formazioari dagokionez, lan taldean kazetari bakarra dago. Erredakzio taldeko gainontzekoek erredakzio lanak borondatez egiten dituzte; guztiak tituludunak diren arren, ez dago kazetaritzan lizentziaturik. Lan taldean, aritu izan dira kazetaritza ikasi dutenak ere, kolaborazio lanak egiten baina beste lan batzuk direlako edo nekatu direlako, utzi egin dute.

Bestalde, 7-8 laguneko kolaboratzaile talde bat daukagu eta bakoitzak hilero aldizkariko atalen bat idazten du borondatez. Azkenik, bi banatzaile daude aldizkaria Ermua eta Mallabian banatzen dutenak.

6. Azpiegitura

2001. urtetik Euskal Birusa Elkarte Kulturalarekin erdibana daukagu egoitza alokairuan. Ordura arte, Euskal Birusko bazkide batek utzitako lokal batean aritzen ginen ahal bezala, eta azpiegitura egokirik gabe. Ermuko Udalak duela zazpi urte herriko beste hainbat talderi bezala, Udalarena den eraikin batean egoitza eskaini zigun baina ez zituen beharrezko baldintzak betetzen eta bazkideak utzitako lokalean aritzen ginen. Gaur egungo egoitzan, auto-ediziorako tresneria guztia daukagu, kamera digitala, telefonoa eta Internetarako sarea.

7. Finantzaketa

Gurean, beste hainbat herri aldizkariren kasuan bezala, diru-laguntza ofizialak eta publizitatea dira diru iturri nagusiak. Alde batetik Ermuko eta Mallabiko udalek ematen dizkiguten diru-laguntzak, bestalde Eusko Jaurlaritzako diru-laguntzak eta Bizkaiko Foru Aldundikoak. Publizitateari dagokionez, diru-laguntza ofizialak jasotzeko eskatzen diren baldintzen muga gaudela esan beharra dago. Alegia, Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiak ematen dituzten diru-laguntzak jasotzeko baldintzen artean, gutxienez, %35eko auto-finantzaketa izatea beharrezkoa da. *Drogeteniturri* ozta-ozta heltzen da kopuru horretara. Jakina da, oro har, euskarazko prentsak zailtasunak dituela publizitatea lortzeko eta saltzeko. Horren erakusle, orain arte egin diren mahai-inguru, jardunaldi eta hitzaldiak euskarazko publizitatearen inguruan.

Norbaitek gure edozein ale hartuko balu ez luke hori pentsatuko, lehen begiratu batean barruko orrietan publizitate dezente agertzen delako, ulergarria da ordea, gure publizitate tarifak duela hamar urteko berberak dira-eta.

Gaur egun oraindik asko dira gurean hilean behin publizitatea laguntza gisa sartzen duten bezeroak, euskararen aldeko militante direlako eta ez ordea, interes komertzial hutsagatik. Hilero publizitate bezero finkoak direnak. Izan ere publizitate neurri txikiak erosten dituzte. Neurri handiak eta kolorean erosten dituen bezero gutxi dago herrian. Maiz, inguruko herrietako (Eibar, Elgoibar) bezeroek erosten dituzte. Beti pentsatu izan dut eta batez ere publizistata lana egiten dudanetik, euskaraz aritzen garelako zailtasun gehiago ditugula herrian publizitatea saltzeko, eta horrek ere izango du eragina neurri batean baina, duela lau urte *Ermuko Telebistan* (gaur egun desagertua) ari nintzenez lanean, publizistak zailtasun handiak zituen publizitatea lortzeko eta hura gatzelerazko telebista zen.

Zoritxarrez, Ermuan eta Mallabian gure hilabetekaria ez da publizitatean erreferente baina prestigioa omen dugu. Horrela diote, 2004an LKS ikerketa enpresak Ermuko Udalak eskatuta, Ermuan egoera soziolinguistikoa aztertze-ko egindako ikerketaren datuek. Euskal Birusak eta *Drogeteniturrrik* prestigioa dute eta erreferente dira Ermuan, baita biztanle erdal hiztunen artean ere.

8. Ondorioak

Horrela ateratzen dugu hilero-hilero gure produktua gure herrietako (Ermua eta Mallabia) etxe eta kaleetara. Ez gara erabat profesionalak eta argi dago beste herri komunikabide askoren ondoan gure aldizkariak ez duela maila bera izango eta asko dugula ikasteko oraindik, baina gure neurri kaleratzen dugun produktu duina egiten saiatzen gara. Eta hor dago, 10 urtean kalean, jende askoren parte-hartze eta lan militanteari esker.

Orain zalantzarik gabe ez gaude baldintza onenetan. *Drogeteniturrrik* eskaintzen duen soldatatoarekin zaila da gaur egun bizitzea. Ezin da ahaztu ordea, garai txarragoak ere izan direla (ganorazko egoitzarik gabe, autoediziorako tresnarik gabe, lan kontraturik gabe...). Gurean ere egon da bilakaera, ez beste herri komunikabide batzuetan egon den bilakaera, baina hasierako urteetatik gauzak hobetu dira, nahiz eta oraindik ere badagoen zer hobetu zalantzarik gabe.

Herri aldizkarietako kazetari euskaldunaren lan egoera azaltzeko ponentzia prestatzeko eskatu zidaten antolaitzaileek eta gure errealitatearen isla dena azaltzen saiatu naiz. Gu ez gara eredu herri aldizkariaren panorama orokorrean. Baina nor da bada eredu edo erreferente? *Arrasate Press?*, *Tiipi-Ttapa?*, *UK?*...

90eko hamarkadaren hasieran *Arrasate Press* ezagun egin zen Euskal Herri osoan eta haren eredu jarraituz, makina bat izan ziren herrietan eta batez ere Gipuzkoan sortu ziren herri aldizkariak. Gerora Bizkaian ere sortu ziren. Iparraldean eta Araban ordea, herri aldizkari gutxiago sortu dira. Formula egokia zen baina bakoitzak bere herri eta errealitateara moldatu behar izan zuen. Gurean hasieran ez zen agian ongi planteatu, arestian esan bezala, egitasmoa erabat militante jaio baitzen eta jakin badakigu, borondatezko lana lagungarri izan behar dela eta ez egitasmoaren zutabe nagusia. Asier Aranguren bere doktore-tesian bildu zituen proposamen artean, honako hauek gogora ekarriko ditut:

“Enpresa egitura landu behar da lehiakortasunean aritzeko. Kontabilitatea profesionalen eskutetan utzi beharra dago eta auto-finantziazio bideak urrunago eraman” (Aranguren, 1999a: 227).

“Borondatezko lanak, nire ustez, lagungarri izan behar du, baina inoiz ez komunikabidearen zutabe nagusia” (Aranguren, 1999a: 228).

“Lantaldeek profesionalak behar dute izan eta horretarako, onenak bertan egoteko, lan-kondizio duinak eskaini behar dira. Hasiera batean, orain hamar urte, langile ia denak ziren gazteak honelako proiektuetan baina, jakina, hor jarraitzen dutenek hamar urte gehiago dituzte eta normalean baita beste erantzukizun batzuk ere” (Aranguren, 1999a: 228).

Zorionez, herri aldizkari gehienen egoera ez da gurea bezain prekarioa baina ez gara egoera horretan gauden bakarrak, gu baino okerrago daudenak ere badira eta azken finean, herri aldizkariaren panorama anitz eta askotarikoa osatzen dugunon artean, gu ere bagaude eta bagara errealitatearen zati bat. Gure aldizkariak, ahalik eta txukun-ateratzeko lanean ari garenak alegia. Beharbada hori izan da gurean orain arte bizirauteko modu bakarra. Bestalde, ezin da ahaztu, proiektu bakoitzak bere jaiotza prozesua eta bere bilakaera daukala, bidean hainbat faktore eta baldintza lagun edo arerio izanik. Dena den, onartzen dut gurean ez direla urteetan gauzak modu profesionalean egin eta ondorioz, ez dela lan talde sendoa eraterik lortu eta gaur egungo gure egoera, horren guztiaren isla eta ondorioa izatea. Hala ere, azken 2 edo 3 urteetako bilakaera, aurreko urteetako baino azkarragoa eta handiagoa izan dela ere onartu behar da. Horretan zalantzarik gabe ondoan, eskarmentu handia duen herri aldizkaria izatea lagungarria izan da guretzat azken urteetan. Eibarko ...eta kitto! astekariak ari naiz. Arestian aipatu bezala, bertako langile bat da gurean diseinu lanetan dabilena hilean behin 2000ko irailetik.

Ondorioz, bi herrien arteko harremana sendotu egin da eta elkarlana indartu. Aholkuak jasotzeko erreferentzia garrantzitsua izan da eta egoera zailetan lagungarri oso.

9. Aurrera begira

Orain artekoa ikusita, badugu etorkizuna itxaropenez begiratzeko arrazoirik. Izan ere, bailarako multimedia egitasmoa lantzen ari gara, Deba Barreneko gainontzeko Euskara Elkarteekin batera.

Deba Barrena, zortzi herrik osatzen dute: Mutriku, Deba, Mendaro, Elgoibar, Eibar, Soraluze eta Bizkaikoak diren Ermuak eta Mallabiak. Bailara osoan 6 euskara elkarte daude eta gaur egun, euskara elkarte bakoitzak herri aldizkari bat kaleratzen du: *Kalaputxi* hilabetekaria Mutriku, *Berriketan* hilabetekaria Deban, *Barren* astekaria Elgoibar eta Mendaron, *Pil-pilean* hamaboskaria Soraluzean, *Eta kitto!* astekaria Eibarren eta *Drogeteniturrri* hilabetekaria Ermua eta Mallabian.

Deba Barreneko sei euskara elkarteek, Deba arroko beste aldean, Deba Goienean alegia, 2000. urtean eman zen bateratze prozesua ikusita eta etorkizunari begira gure artean zegoen ardurak bultzatuta, 2003ko maiatzean bailarako 6 euskara elkarteak bilera bat egin eta herri aldizkari ezberdinen bateratze prozesua emateko lehen urratsak adosten hasi ginen. Bailara osoan zabalduko litzatekeen astekari bat kaleratzeko bideragarritasun plana egiteko erabakia hartu eta 2003ko irailean prestatzen hasi ginen. Eskualdeko astekariak gehitu egingo luke gaur egun herriz herri, tokiko aldizkariak duten hedapena. Egun, sei aldizkariak tirada bakoitzeko orotara 18.100 ale botatzen dituzte eskualdean. Astekari berriak 20.000-21.000 ale kaleratuko dituela aurreikusten da eta herri guztiek astekaria jasoko luketela, beraz maiztasunean alde handia egongo litzateke, hamaboskari (*Pil-pilean*) eta hilabetekari (*Berriketan*, *Kalaputxi* eta *Drogeteniturrri*) kasuan batez ere. Horrela bada, astekariak eduki beharko litzatekeen ezaugarriak jaso eta horrelako produktuaren bideragarritasun ekonomikoa aztertzen hasi ginen. 2003ko abenduan aldizkariaren bideragarritasun plana bukatu eta ekonomikoki bideragarria litzatekeela diote datuek.

10. Bailarako Telebista

Bitartean, espero ez zen eta aprobetxatu beharreko aukera sortu zen bailaran euskara elkarteentzat. Mendaroko telebista, gaur egun Mendaron soilik ikusten dena, euskara elkartearen eskutik, eskualdeko telebista bilakatzeko aukera sortu zen. 2003ko abenduan hasi ziren lehen harremanak Mendaroko Udalarekin eta Udalaren jarrera proiektuaren aldekoa izan da beti. Mahai gainean aukera hau izanda, gure plangintza moldatu behar izan dugu eta 2004. urtean lehentasuna eman zaio telebistari. Beraz, bideragarritasuna aztertu da, dirulaguntzak kudeatu dira, udaletan bilerak egiten ari dira eta egitasmoa Debarreneko Garapen Ekonomiarako Elkartearen DEBEGESAri aurkeztu zaio. Bertan, Debarrena osatzen duten zortzi herriak eta bertoko alkateak ordezkatuta daude.

11. Internet

Honekin batera, multimedia egitasmoa osatzeko, Internet arloa lantzen ari gara. Hau da, eskualdeko atari digitala martxan jartzeko bideragarritasun plana egiten ari gara. DEBEGESAk aurrera begira, *Deba Digitala* proiektua gara-tu nahi du eskualdean eta euskara elkarteetan egitasmo multimedia bete-betean sartuko litzateke bertan.

Proiektua martxan dago jada. Hurrengo hilabeteetan, Telebista eta Internet arloa garatuko dira. Izan ere, 2004. urte bukaerarako biak martxan egotea aurreikusten da. Horrez gain, egitura juridikoa aztertzen, irudi korporatiboa prestatzen, diru-laguntzak kudeatzen eta bailarako udalekin bilerak egiten ari gara.

Telebista berrikuntza da elkarte guztietan. Gaur egun ez baitago eskualde honetan telebista kudeatzen duen euskara elkarterik. Internet arloan aldiz, Eibarko *Eta kitto!* eta Elgoibarko *Barren* ditugu aurreratuenak. Gainontzeko aldizkariak ez dute edizio elektronikorik ezta web orrialderik ere ez.

Beraz herri aldizkariak dira, bailarako elkarte guztiek komunean duten produktua. Bateratze prozesua berez, eskualdeko astekaria sortzeko asmoarekin hasi zen, nahiz eta tartean telebista eta Internet garatzeko aukera agertu den eta horri eman zaion lehentasuna 2004. urtean. Hala ere, eskualdeko astekaria sortzeko bideragarritasuna egin-dago dago eta talde multimediararen hirugarren hanka, idatzizko prentsa izango dela aurreikusten da.

Idoia Camachok, bere tesian jasotzen du herri aldizkariaren etorkizuna, bailaraka antolatzean egongo litzatekeela, une honetan esparru horretan dauden interesari aurre egin ahal izateko. “Goienak eman duen urratsa etorkizuneko tokian tokiko hedabideek eman beharreko pausoa da, informazio lokalaren esparruan sartzen ari diren interes ugariei aurre egin ahal izateko. Aldizkariak eskualdeko antolatu eta landu behar dira, euren egiturak sendotuz biztanle eta merkatu kopuru handiagoari egokiago erantzuteko. Herri hedabideak eskualdeetako enpresa multimedia modernoetan bildu behar dira eta hurreko komunikazioaren esparru guztiak profesionaltasunez landu, elkarrekin lan egitearen ondorioz sortzen diren sinergiak aprobetxatzeko”. (Camacho Idoia, 2001: 336).

Guk ere asmo horrekin egin nahi dugu aurrera eta batez ere *Drogeteniturri* kaleratzen dugun lan taldeak argi ikusten dugulako etorkizunean askoz errazagoa egingo zaigula bidea gure ingurukoekin bilduta egitea, orain arte bezala baino. Erronka handia da eta egiteko dagoen lana ere bai, batez ere hasieran, ez baitira hasierak errazak izaten. Hala ere, hoberako bada, gure aldetik daukagun guztia jarriko dugu egitasmoak aurrera egin dezan.

Bukatzeke pare bat ideia azpimarratzea gustatuko litzaidake. Alde batetik, herri aldizkariaren eredu ez bagara ere, euskarazko aldizkari txikiak bagara, gure txikitasunean, duintasunez eta poliki, lanean dihardugu gure proiektuak, gure erritmora, hobetzen saiatuz. Ez da erraza ordea, zenbat eta txikiagoak izan, orduan eta militantzia handiagoa, soldata eskasagoak, baliabide gutxiago lan egiteko... Luis Fernandezek *Euskaldunon Egunkarian* ari zenean, “Euskal Kazetarian Profila” izeneko artikuluan horrela zioen: “(...) kiroltasunez, espiritu olinpikoz, jasotzen ditugu gure soldatak” (Fernandez, 1996: 61). Batzuk, herri aldizkariaren urrezko aroa deitu zuten garai horretan ez genituen gauza asko alde izan eta ilusioa eta itxaropena lagun, erabat militanteak ziren proiektuak bultzatu genituen eta gaur egun, egiten dugun horretan sinestea da agian bizirik irauteko modu bakarra. Ez dakit horrela izan behar duen, modu bakarra hori den, baina gurean behintzat horrela da, horrela egin dugu aurrera.

Garai latzagoak ere pasa ditugu, 1999an aldizkaria noraezean egon zen desagertzean. Profesionalak ez bagara ere, horrek ez du derrigorrean esan nahi gauzak ganorarik gabe egiten direnik. Guztiak izan gara txiki eta gaur egun, batzuk baliabide gehiagorekin, soldata hobeagoekin, kalitate handiagorekin, baina euskaraz ari garen guztiok txiki gara gaztelerazko edozein hedabideren aurrean. Beraz, gure etorkizuna, hainbeste aipatzen den elkarlana eta sinergiak batzean dagoela argi ikusten badugu, norbera bere zilborrari begira egon beharrean pentsa dezagun zabal-tasunez, egin ditzagun benetako urratsak elkarlana gauzatzeko. Galduko dugu gurea den zerbait, baina guztiontzat mesedagarria izango den asko irabaziko dugula ziur nago.

Bibliografia

- Aranguren, Asier. 1999a. *Euskarazko komunikabide lokalak Euskal Herrian* doktorego tesia. Leioa. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Aranguren, Asier. 1999b. "Gutxi baina onenak". *Euskonews & Media*. 26. zenbakia. Donostia. Eusko Ikaskuntza.
- Aranzabal, Joxe. 1999. "Euskarazko herri prentsaren bilakaera". *Euskonews & Media*. 26. zenbakia. Donostia. Eusko Ikaskuntza.
- Arregi, Inaxio. 2003. "Goiena Komunikazio Zerbitzuak 2000-2003". *Tokiko Hedabideak etorkizunari begira* III. Jardunaldiak. Abadiño. Topagunea Euskara Elkarten Federazioa.
- Camacho, Idoia. 1999. "Euskarazko herri aldizkariak eta teknologia berriak". *Uztaro*, 1999, 31. zenbakia, 85-100. or.
- Camacho Idoia. 2001. *Herri aldizkarien funtzioa euskara normaltzeko prozesuan (1989-1999)* argitaratu gabeko doktorego tesia. Leioa. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Camacho, Idoia. 2002. "Euskarazko herri-aldizkarien funtzioak hirugarren milurtekoaren atarian" *Uztaro*, 2002, 43. zenb., 67-85. or.
- Fernandez, Luis. 1996. "Euskal kazetariaren profila". *Jakin*, 1996, 96. zenbakia, 51-62. or.

ONDORIOAK

Sarrera

Hasteko, konstatazio argi bat: euskal komunikazio-esparrua euskaraz gauzatzen dena da. Euskal Herrian egin, nahiz kanpoan egin, hizkuntzak osatzen du gure kazetaritza-jardueraren ezaugarri berezkoa. Ildo horretatik, begitantzen zaigu euskarazko komunikazioa bere izaera propioaren kontzientzia ari dela hartzen egunez egun gero eta esparru zabalagoetan. Azken hamarkadetan ikusi ahal izan dugunez, hedatzen ari den mundua ere bada euskarazko komunikazioarena. Era berean, euskarazko komunikazioak gero eta zerbitzu osoago eta integralagoa eskaini nahi dio euskal komunitateari.

Euskarazko gizarte-komunikazioa (gizarte-fenomeno gisa) kontu moderno den arren, gure iraganaren ondorengo gara. XIX. eta XX. mende-atariko kazetaritza-espereintzia historikoak hor daude, Euskal Herrian bezala kanpoan ere. Iparraldeko kazeten ahalegin goiztiarra, Hegoaldeko gerra-garaiko ahalegin erraldoia, eta trantsizio espainiarraren garaiko euskal prentsaren aldarri moderno dira diogunaren lekuko garbi: izan direlako gara. Zorretan gaude eurekin. Zorretan gara hainbat eta hainbat eragile ezagun eta ezezagunekin, ahalegin indibidualekin eta ahalegin kolektiboekin.

Historiak aurrera egin nahi du: idatz dezagun geure historia propioa.

Ondorioak

Lehenengoa. Euskarazko kazetaritzaren munduak berebiziko aldaketak izan ditu azken hiru hamarkada hauetan. Dozena erdi /dozena bat profesional izatetik, 700dik gora berriemaileren kolektibo izatera igaro gara. Oso handia da mundu honek berezkoa duen indar sortzailea.

Bigarrena. Euskarazko kazetaritzak izan duen garapena oso nabarmena da, baina agerian dira ahuleziak ere: egoera soziolinguistikoa, merkatu txikia, behar baino eskaintza urriagoa... Gainera, mundu honek gehiegizko sakabaketa bizi du eta ez du oraindik beregaintasunik lortu maila askotan.

Hirugarrena. Euskarak 800.000 hiztunera iristen ez den komunitatea osatzen du. Arazo asko eta asko hiztun-kopuru murriz horren ondorio dira. Edozelan ere, bermatu beharreko gizarte-erantzukizuna da informazioa euskaraz jasotzeko eskubidea. Erkidego gisa, euskaldunontzat, zer estrategikoa da euskarazko komunikazio-esparruaren etorkizuna. Gizarteak eta administrazioek esku-hartze aktiboagoa zor diote euskal komunitateari. Euskarazko kazetaritzaren mundua ezin da merkatuaren legeen pairuan utzi, eta horregatik ere, behar-beharrezkoa du erakunde publikoen diru-laguntza bidezko, arautu eta garbi bat. Euskarazko kazetaritza zerbait izatera heldu baldin bada, bertan mamitu den elkarlanaren ondorioz izan da. Etorkizunari begira ere, elkarlan horrek berebiziko garrantzia izaten jarraituko du: hortaz, sinergiak sustatu eta garatu behar dira, eta baliabideen erabileraren optimizazioa bilatu ere.

Laugarrena. Euskarazko kazetaritzak aurrera egingo badu, kalitatezko gutxieneko estandar batzuk bermatzen direlako izango da. Imajinario kolektiboaren sortzaile garen heinean, ekoizten eta igortzen ditugun edukietan ere jarri behar dugu ardura. Eduki horiek, beraz, elkarbizitza bideratzen eta euskal komunitatearen kohesio soziokulturalaren mesedetan eragiten lagundu behar dute. Kalitatezkoa behar du izan, maila guztietan, euskarazko komunikazioak: produktuen eraketan, ekoizpen-prozesuan, banaketa-sisteman eta baita erabiltzen den hizkuntza-ereduan ere.

Bosgarrena. Zenbait kasu eredugarri alde batera utzita, kazetari euskaldunek ere lan-baldintza ez duinak pairatzen dituzte sarritan: lan-jardun amaigabeak, ordain-sari eskasak eta badaezpadako kontratuak. Kazetaritza-eredu duin, etiko eta beregaina lortzea helburu izanik, funtsezkoa da egoera horiek errotik ezabatzea.

Seigarrena. Euskaratik eta euskaraz sortu eta landutako publizitate-sareak sustatu behar dira. Inon funtsezkoa bada administrazioen laguntza, publizitatearen eremuan da, dudarik gabe.

Zazpigarrena. Euskararen komunikazio-esparruaren hedapena ez da soilik hedabideen egitekoa. Izan ere, informazio-iturriak dira kazetari-lanaren lehengaia. Haiek gobernatzen dute albistearen joan-etorria. Informazio-iturri euskaldun barik ezin dira albisteak euskaraz taxuz landu. Euskal Herrian dauden gizarte-eragile gehienek erdaraz pentsatu eta ekoizten dituzte euren jardun publikoak. Arlo horretan, politikarien erantzukizuna aipagarria iruditzen zaigu, gizarte baten ikono eredugarri diren heinean; hori dela-eta, konpromiso-maila handiagoa eskatzen diegu. Kazetari euskaldunak ordu dezente ematen du egunero informazio-iturri erdaldunen idazlanak itzultzen. Horregatik, besteak beste, albiste-iturrien euskalduntzea eskatzen du euskararen komunikazio-esparruaren garapenak.

Zortzigarrena. Elkar elikatzen duten munduak dira gurean kazetaritza eta literatura. Sistema propio baten aldeko apustua da harreman emankor horretan sakontzea, kohesio soziokulturala helburu duen eredu baten alde ekinez.

Bederatzigarrena. Espezializazioaren fenomenoak ez du etenik izan azken 30 urteotan. Zientzia eta ezagutzaren mundua abiada betean garatu da. Garapen horren ondorioetako bat da kazetaritza espezializatua. Aintzakotzat hartu beharko luke fenomeno hori ere euskarazko kazetaritzak.

Hamargarrena. Euskarazko kazetaritzak jomuga garrantzitsuak dauzka geroari begira. Horren adierazle garbiak dira Internet eta teknologia berriak. Mundu horietara egokitzeke egin dituen ahaleginak garrantzitsuak badira ere, oraindik asko falta zaio beregaintasuna lortzeko bidean euskarazko kazetaritzari. Bide horretan estrategiko deritzogu multimedia egitasmoak garatzeari.

Hamaikagarrena. Euskarazko komunikazioaren erkidegoak bere burua ezagutu behar du, bere burua egokitu behar du abagune berrietara, bere esku hartu behar du etorkizuna marrazteko ahala. Horretarako, aipaturiko gabeziak zuzendu eta zedarritutako egitasmoak garatzeko, plangintza estrategiko baten beharra dakusagu. Berori egiteko eta euskarazko kazetaritzak daukan potentzialtasun osoa garatzeko, foro edo erakunde ireki eta iraunkor bat sortzeari ezinbesteko irizten diogu, euskarazko komunikaziotzintzan diharduten eragileak eta Euskal Herriko ikastegi, unibertsitate zein administrazioak bertako partaide direla. Honenbestez, foro hori gauza dadin lanean jarraituko dugula berresten dugu editore-taldeko kideok.

Euskal Herrian, 2005eko ekaina.

